


**UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO /
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA
Politika eta Administrazio Zientzia Saila

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**EUSKAL PROTESTALDIA ETA DEMOKRATIZAZIOA.
DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA
'LIZARRA-GARAZIKO' KASUAN (1995-2000)**

Galder Sierra Zampirain

Tesiaren Zuzendaria: Mario Zubiaga

2018

DOKTORE TESIA

EUSKAL PROTESTALDIA ETA DEMOKRATIZAZIOA. DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA 'LIZARRA-GARAZIKO' KASUAN (1995-2000).

Galder Sierra Zampirain

Tesiaren Zuzendaria: Mario Zubiaga

Doktoretza programa: Gizarte, Politika eta Kultura

Politika eta Administrazio Zientzietako Departamentua

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

2018ko urria

HITZAURREA

*“Il vecchio mondo sta morendo.
Quello nuovo tarda a comparire.
E in questo chiaroscuro nacono i mostri.”*

Antonio Gramsci

Etapa baten bukaeran gaudenaren sentsazioa nagusitu zaigu. Batzuentzat etapa hori 2011eko urriaren 20an bukatu zen; beste batzuentzat 2017eko apirilaren 8an; 2018eko maiatzaren 3a ere izan zitekeen; eta beste hainbatentzat ‘guztiak libre izan deino’ ez da bukatuko. Bukaera hori (edo ‘horiek’ esatea zuzenagoa) Barajasen, Aieten edo Kanbon lekutu zenaren eztabaida zabalik dago. Baina guztiongan amaieraren sentsazioa nagusi da. Euskaldunoi mundua gure zilborretik begiratu izana hainbatetan leporatu zaigu, eta orain, bukaeraren hasiera honetan, sentsazio hori munduan ere presente dagoela konturatu gara. Ziurtasunen amaieraren aro global honetan, *egiak* ura bezala urtzen diren garai postmodernoetan, gatazkaren gordintasunean behar bezala ikusten ez genituen edota planteatzeko gai ez ginen galderak zabaltzen zaizkigu denboraren distantziak ematen duen ikuspegiarekin; distantzia hori oraindik laburra bada ere. Nola hasi zen hau *guztia*? Zergatik luzatu da horrenbeste? Noiz hasi zen bere gainbehera? Zein da bere emaitza? Eta orain zer?

Galdera potoloegiak gurea bezalako ikerketa lan batean guztiak erantzuten saiatzeko. *Boterearen* azterketak, Zientzia Politikoetako ikerketa-gai kuttun bezala, horien gainean argi izpi batzuk bota ditzakeelakoan gaude. Boterearen kategoria, aldiz, egun krisian murgilduta agertzen omen zaigu, garai hauek busti dituzten beste hainbat krisiekin batera. XX. mendeko joera estrukturalisten gehiegikeriak salatu zituzten hainbat autorek (Lefort, Laclau, ...) botereak okupatzen zuen espazioan hutsune handi bat agertzen zaigula ohartarazten digute. Jainkoak, Erregeak edota kapitalak jendartearen antolaketan betetako lehentasunezko postu hori egun jabe gabe omen dago. Garai bateko *esentziek* gure bizitzak determinatzen zituzten bitartean, egun absentsia horrek sortutako

ziurgabetasuna eta lehia baino ez omen dugu aurkitzen. Alde horretatik, gure ikerketak ikuspegi teoriko horri joera baikorretik heldu nahi dio: gure ustez, gizarte antolaketa aurrez determinatutako elementuen ondorio baino, elementu horien arteko lehia politikoaren emaitza izango da; boterea prozesu horren arragoan hezurramituko delarik.

Teoria postestrukturalistei jarraituz, prozesu honetan identifikazioek bere biziko zeresana izango dute. Identifikazioak, bere zentzu politikoan, errealitatea interpretatzeko mundu ikuskera bateratuek osatuko duten heinean. Identifikazio batzuk trinkoak izango dira; ingurunean gertatzen dena ulertzeko eksklusibotasuna exijitzeraino. Beste batzuk arinagoak izango dira, gai zehatzen gaineko ikuspegi malgua izango dutenak. Baina guztiek atxikimendu ahalik eta zabalena gorpuztera jo ohi dute. Ikuskera zenbat eta zabalagoa izan, orduan eta identitate boteretsuagoarekin aurkituko garela esan dezakegu. Premisa honen gainean beste hainbat galdera zabalduko zaizkigu: nola antolatzen/artikulatzen dira identifikazio hauek? Nola lehiatzen dira beraien artean? Aldatzen dira? Zeren arabera?

Puntu honetara iritsita hegemoniaren kategoriak zalantzen bidezidorretan ez galtzen lagundu gaitzake. Gramscirekin identifikazioen artikulazioa prozesu kulturala dela ikasi genuen; eraikia; ingurunea interpretatzeko ikusmolde bateratuetatik sortzen dena, hain zuzen. Irakaspen hauek epealdi garaikideagoetara ekarriz, konstruktibismoak eta Diskurtsoaren Teoriak gizarte antolaketaren nondik norakoen ikuspegi oso bat eskainiko digute, prozesu hauetan diskurtsoek jokatzeko duten paper zentrala nabarmenduz.

Baina diskurtsoen eta identifikazioen eraikuntza ez da isolatutako prozesua izango. Testuinguru zehatzetan lekutzen da, *errealitatean* jazotzen diren gertaerekin hartu-emanen. Alde horretatik, identifikazioen eraikuntzan eta botere politikoaren inguruko lehiari guztia ez dela diskurtsoa izango ere azpimarratu beharko dugu. Beste modu batera esanda, diskurtsoak ekintza kolektiboan forma hartuko du; ekintza kolektibo liskartsuan (*contentious politics*), hain zuzen. *Hitza* eta *ekintza*; *ekintza* eta *hitza*. Bertan ebatziko da botere politikoaren inguruko lehia.

Lan honetan hautu teoriko-meotodologiko horrekin aztertuko dugu azken hamarkadetan bizi (izan) dugun euskal gatazka. Esan gabe doa, luze eta zabal idatzi dela honi buruz; diziplina oso ezberdinetatik gainera. Horien artean, nagusietako bat nazionalismoaren inguruko eskolak jorratutakoa. Gure ikerketa ikuspegi klasiko horietatik urrundu nahi izan dugu, politika liskartsuaren eremuan Sidney Tarrow-ek jorratutako protestaldi zikloaren ideiari jarraituz. Teoria honi lotuta, ez

dugu ETaren sorrerak (Tarrowek berak aipatuko lukeen protestaldiaren *mugimendu goiztiar* bezala) ezaugarrituko lukeen liskarraldiaren hasieratik gaur egun arteko ziklo osoaren azterketa egingo, noski. Gure ikerketak helburu apalagoak izango ditu. Parabola forma hartu ohi duen protesta ziklo horren baitako epealdi zehatz eta berezi baten gainean arreta jarriko dugu, denbora tarte horretan gaur egun protestaldiak hartu dituen hainbat ezaugarri hezurramitu zirelakoan. Edo beste modura esateko, parabola horren garapenean protestaldiaren gainbeherarako hainbat oinarri jarri zirelakoan.

1998ko irailaren 12en Lizarrako Akordioa sinatu zen burujabetzaren aldeko indar nagusien artean, egun batzuk beranduago Donibane-Garazin Ipar Euskal Herriko beste hainbat ere atxikitu zirelarik. Abertzaletasunaren zati baten iruditerian iltzatuak gelditu ziren ikonoak. Baina ikono guztiekin bezala, sinboloaren *atzean* zer egon zen ezagutu nahiko dugu: ekimen hura abiatzeko ekintza kolektiboan eta diskurtsoetan emandako aldaketak; ordura arte horren era gordinen etsaitutako eragileengan jazotako bilakaera; zerk eraman zuen porrotera; edota aurrera begira prozesu horrek zer arrasto utzi zuen. Galdera horiek ardaztuko dute gure ikerketa.

Galdera berriak ez direnaz jakitun gara. Alde horretatik, gure ikerketaren berritasun nagusietako bat pasarte hauek gorago aipatutako Diskurtsoaren Teoriaren eta hegemoniaren eraikuntzaren ikuspegitik lantzea izango da. Izan ere, burutu behar ditugun diskurtsoen azterketak, botere politikoaren inguruko lehia horretan parte hartu zuten identifikazioen azterketa zehatzago bat osatzeko helburua baitu. Garaiko diskurtsoenganako arreta berezi honek protestaldiaren bilakaerak ebatzi zituen hainbat gertaera hobeto ulertzen digutelakoan: nola artikulatu ziren ‘soberanismoaren’ kategoriaren inguruan ordura arte posizio horren ezberdinetan gotortutako sektoreak; nola desplazatu zen lehia diskurtsiboa horren denbora tarte txikian Ajuria Eneako Itunak ezarritako ‘demokrata’ eta ‘biolentoen’ arteko lehiatik ‘soberanista’ eta ‘konstituzionalisten’ artekora; nola ebatzi zen botere politikoaren inguruko lehia artikulatzen ari ziren identifikazio zahar-berrituen (konstituzionalistak, soberanistak, ...) inguruan; ...

Baina jada iradoki dugun bezala diskurtsoa ez da laborategiko esperimentu isolatuetan diseinatuko; hartu-eman zehatzetan forma hartzen du. Horrela, diskurtsoaren azterketa gure hurbileko eremu akademikoetan azkenaldian bere lekua hartzen ari den McAdam, Tarrow eta Tillyren ekintza kolektiboaren azterketarako mekanismo eta prozesuen galbahetik pasako dugu. Beti ere, markogintzaren (*framing*) dimentsio diskurtsiboaren eta ekintza liskartsuaren (*contentious politics*) mekanismo eta prozesuen uztarketak azterketa osatuago bat egiten lagunduko digutelakoan.

Era berean, gaia eta garaiaren inguruan landu dugun bibliografian apenas landutako ildoak ere jorratzen saiatu gara. Lizarra-Garaziko Akordioaren inguruan garatutako prozesuak euskal protesta ziklo zabalaren demokratizazioan izan zuen eraginaz ari gara. Demokratizazioaren adiera, Laclauk jada hiru hamarkada baino gehiago idatzitako *Hegemony and Socialist Strategy* (1985) lanean landutako demokraziaren *erradikalizazioa* bezala ulertuko dugu. Hau da, hegemoniaren eraikuntza gatazkatsura sektore edota, bere hitzetan, *eskaera* geroz eta gehiago inkorporatzen saiatzen den prozesua bezala. Izan ere, bere ustez hori izango baita botere politikoa demokratizatzeko bide bakarra. Ikuspegi horretatik, aztertzea goazen epealdia (1995-2000) bere kontraesan, ahulgune eta porrot guztiekin, aurrera begirako ikusmolde eta praktika berri batzuk garatzen hasteko balio izan zuenaren hipotesi orokorraren gainean arituko gara. Arestian aipatutako parabolaren maldaren tendentzia aldaketa horretan, protestaldiaren bilakaera antagonikoak eta bere muturreko adierazpideak aurrera begira era *agonistikoan* apaltzeko balio izan zutelakoan.

Urrats bat harago joanez, azterketa diskurtsibo honek burujabetzaren aldeko indarren artean gauzatu nahi zen demokratizazio prozesua ulertzeko paradigma edo marko interpretatzaile ezberdinak irudikatu eta ulertzeko balioko digulakoan gaude. Izan ere, zer dira ba lehian dauden eredu edo paradigma ezberdinak errealitatea interpretatzeko mundu ikuskera ezberdinak ez badira? ‘Haustura ala erreforma’, aldaketa sistema ‘barrutik ala kanpotik’, ... hogeitau urte lehenago planteatutako dilemak zaharrek forma berritua hartu zuten garaia izan zen hura. Gaur egun, hogeitau urte beranduago, bizi ditugunetatik akaso horren urruti ez daudenak.

Gramsciren esaldi ezaguna berreskuratuz, mundu *zaharraren* azken arrastoak atzean uzten saiatzen ari gara, mundu *berri* honek zer ekarriko digun oso ondo ez badakigu ere. Aztertu behar dugun epealdiak mundu berri horren jaiotzarako atea zabaldu zuelakoan gaude, ondorengo urteetako argilunetan *munstroak* agertu baziren ere. Alde horretatik, aztertuko dugun bosturtekoaren ikerketa zehatzak protestaldiaren bilakaera osoaren garapena kokatzen laguntzeko tresna ere izan nahi du; gorago esan bezala, sei hamarkadetako ziklo osoaren azterketa holistiko bat gure ikerketaren helburuetatik harago badago ere. Zentzu horretan, XX. mendeko erdialdean hasitako liskarraldiaren amaieran gaudenaren ideia ontzat hartzen badugu, protesta zikloek izan ohi dituzten emaitzei ere erreparatu beharko diegu gaurkotasan politiko handiko kezken gainean argi izpi batzuk botatzeko: eta orain zer?

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| HITZAURREA | 4 |
| SARRERA | 20 |
| 1. Ikerketaren egitura | 20 |
| I. BLOKEA: MARKO TEORIKOA: HEGEMONIAREN ERAIKUNTZA, POLITIKA LISKARTSUAREN ERDIGUNEAN | 28 |
| 1. KAPITULUA: BOTEREA ETA NORTASUNA: DETERMINISMOAREN KRISITIK HEGEMONIAREN ALTERNATIBARA | 29 |
| 1.1 Sarrera | 29 |
| 1.2 Krisi baten genealogia | 31 |
| 1.2.1 Eredu bat: marxismoaren determinismoa | 31 |
| 1.2.2 Ikuspegi tradizioaletik emandako hiru erantzun | 33 |
| 1.3 Hegemonia gramsciarra | 36 |
| 1.3.1 Sarrera | 36 |
| 1.3.2 Praxiaren filosofia | 38 |
| 1.3.3 Bloke historikoa, egitura eta gainegituraren artikulaziorako aldagaia | 41 |
| 1.3.4 Hegemonia gramsciarraren gako nagusiak | 44 |
| 1.3.4.1 Kontzeptuaren genealogia | 44 |
| 1.3.4.2 Sen ona | 46 |
| 1.3.4.3 Jendarte zibila eta jendarte politikoa | 49 |
| 1.3.4.4 Mugimendu gerra eta posizio gerra | 53 |
| 1.3.4.5 Krisi organikoa | 56 |
| 1.3.4.6 Hegemonia berriaren eraikuntza | 59 |
| 1.3 Ondorioak | 62 |
| 2. KAPITULUA: (POST)MODERNITATEAREN AFERA | 65 |
| 2.1. Modernitatea eta postmodernitatea | 66 |
| 2.1.1 Aurremodernitatea eta modernitate klasikoa | 67 |
| 2.1.2 Modernitatea eta posmodernitatearen arteko bilakaera | 70 |
| 2.1.3 Posmodernitatearen elementu nagusi batzuk | 71 |

| | |
|---|-----|
| 2.1.4 Postmodernitatea eta marxismoaren arteko harremana | 73 |
| 2.2 Postestrukturalismoa | 77 |
| 2.2.1 <i>Estruktura</i> kontzeptu bezala eta bere garapena | 77 |
| 2.2.2. Estrukturaren gabezien gainean eraikitako paradigma berria | 80 |
| 2.2.3 <i>Programa alemanaren</i> berreskuratzea | 81 |
| 2.2.4 Paradigma berri baten oinarriak | 84 |
| 2.2.4.1 Inkontzientea lengoaia bezala egituratua | 84 |
| 2.2.4.2 Adierazlea eta esanahia | 85 |
| 2.2.4.3 Errealia, Sinbolikoa eta Irudizkoa | 87 |
| 2.2.4.4 Identitatea eta identifikazioa | 88 |
| 2.2.4.5 Desioa, beharra eta eskaera | 92 |
| 2.2.4.6 Diskurtoaren arauak | 93 |
| 2.2.4.7 Dekonstrukzionismoa | 96 |
| 2.2.4.8 Estrukturaren autonomia erlatiboa | 99 |
| 2.3 Ondorioak | 103 |
| 3. KAPITULUA: HEGEMONIAREN ADIERA GARAIKIDEA | 105 |
| 3.1. Hegemoniaren eraikuntza | 107 |
| 3.1.1. Hegemoniaren oinarri diskurtsiboa | 107 |
| 3.1.1.1 Diskurtoa postmodernitatean | 107 |
| 3.1.1.2. Osotasun teoriko-metodologikoa | 109 |
| 3.1.1.3 Diskurtoaren analisi motak | 110 |
| 3.1.2. Hegemoniaren elementu nagusiak | 114 |
| 3.1.2.1 Diskurtoaren artikulazioa: unea eta elementua | 114 |
| 3.1.2.2 Antagonismoa | 116 |
| 3.1.2.3 Ekibalentzia eta diferentzia | 118 |
| 3.1.2.4 Subjektu hegemonikoa | 120 |
| 3.1.2.5 Unibertsalitatea eta partikularitatea | 124 |
| 3.2. Nortasunen eraikuntza, ariketa populista gisa | 129 |
| 3.2.1 Populismoaren kontzeptuaren jatorriak. | 129 |
| 3.2.2 Populismoaren oinarritzko elementuak | 133 |
| 3.2.2.1 Eskaera sozialak | 133 |
| 3.2.2.2 Lidergoaren dimentsio afektiboa | 135 |
| 3.2.2.3 Adierazle <i>hutsa</i> eta adierazle <i>flotagarria</i> | 137 |
| 3.2.2.4 Heterogeneitate soziala | 139 |

| | |
|--|-----|
| 3.2.3 Populismoa sistema demokratikoetan | 140 |
| 3.2.4 Ondorioak | 144 |
| 4. KAPITULUA: DEMOKRAZIAREN ERRADIKALIZAZIOA: AGONISMOA | 149 |
| 4.1 Sarrera | 149 |
| 4.2 Liberal eta errepublikanoen arteko elkarriketa | 151 |
| 4.2.1 Liberalen askatasun negatiboa | 152 |
| 4.1.1.1 Rawlsen justizia, printzipio arautzaile gisa | 153 |
| 4.2.2 Errepublikanismo hiritarra eta ongizate komuna | 157 |
| 4.2.2.1 Sandel eta balore moralak | 163 |
| 4.3 <i>Politikoaren dimentsioa</i> | 166 |
| 4.4 Demokraziaren adiera ezberdinak | 171 |
| 4.4.1 Demokrazia <i>gehizailea</i> eta demokrazia <i>eztabaidazalea</i> | 172 |
| 4.4.2 Demokrazia agonista | 175 |
| 4.4.2.1 Pluralismoa | 175 |
| 4.4.2.2 Arerioaren kategoria | 177 |
| 4.4.2.3 Pasioak eta identifikazioak | 178 |
| 4.4.2.4 Gatazka agonistikoa | 179 |
| 4.5 Ondorioak | 182 |
| 5. KAPITULUA: HEGEMONIAREN TEORIAREN MUGAK | 184 |
| 5.1 Sarrera | 184 |
| 5.2 Diskurtsoaren gehiegizko erabilera | 186 |
| 5.2.1 Diskurtsibitatearen nagusitasuna | 186 |
| 5.2.2 Azterketa enpiriko zehatzetarako mugak | 189 |
| 5.2.3 Diskurtsoaren Teoriaren balioa eta bestelako baliabide osagarriak | 190 |
| 5.3 Hegemoniaren izaera deskriptiboa | 192 |
| 5.3.1 Hegemoniaren hustasuna | 193 |
| 5.3.2 <i>Ekonomikoaren</i> desplazamendua | 194 |
| 5.3.3 Kontingentzia, arau normatibo gisa | 197 |
| 5.4 Subjektuaren desontologiazioa | 200 |
| 5.4.1 Klase gatazkaren nagusitasuna edo bitartekaritarik gabeko subjektua | 200 |
| 5.4.2 <i>Gertaeraren</i> etorrera | 202 |
| 5.4.3 Inbestitze erradikala, ‘martetarren etorrera’ edota Jainkoaren esku-hartzearen aurrean | 206 |
| 5.5 Poshegemonia: paradigma berri baten aurrean? | 209 |

| | |
|--|-----|
| 5.5.1 Hegemoniaren bokazio oro-harrapatzailea | 210 |
| 5.5.2 Sistemak ez du onarpen sozialik behar | 211 |
| 5.5.3 (Pos)Hegemonia: ezinezko eta beharrezko paradigma | 213 |
| 5.6 Ondorioak | 215 |
| 6. KAPITULUA: EKINTZA KOLEKTIBOAREN AZTERKETARAKO MEKANISMO ETA PROZESUAK | 218 |
| 6.1 Sarrera | 218 |
| 6.2 Ekintza kolektiboaren azterketarako agenda <i>klasikoa</i> | 221 |
| 6.2.1 Agenda klasikoaren atal nagusiak | 223 |
| 6.2.2 Agenda klasikoaren mugak | 233 |
| 6.3 Ekintza kolektiboaren azterketarako agenda <i>berria</i> : Mekanismoak, prozesuak eta liskarraldiak | 235 |
| 6.3.1 Mekanismo motak | 236 |
| 6.3.1.1 Mobilizaziorako mekanismoak | 236 |
| 6.3.1.2 Nortasunaren eta ekintzaren eraikuntzari dagozkion mekanismoak | 238 |
| 6.3.1.3 Liskarraldiaren garapenari lotutako mekanismoak | 242 |
| 6.3.2 Prozesu motak | 244 |
| 6.3.2.1 Aktore osaketak | 245 |
| 6.3.2.2 Polarizazioa | 246 |
| 6.3.2.3 Eskala aldaketak | 247 |
| 6.3.3 Liskarraldi motak | 248 |
| 6.3.3.1 Iraultza | 249 |
| 6.3.3.2 Nazionalismoa | 250 |
| 6.3.3.3 Demokratizazioa | 251 |
| 6.4 Demokratizazioaren inguruko oinarrizko aldagaiak | 251 |
| 6.4.1 Ikuspegi prozesuala edo dinamikoa | 251 |
| 6.4.2 Izaera liskartsua | 253 |
| 6.4.3 Markatzaile demokratikoak: kontsulta | 255 |
| 6.4.4 Erregimen motak | 257 |
| 6.4.5 Gobernu-herritar harremanak baldintzatzen dituzten aldagaiak: hertsadura, kapitala eta konpromisoa | 259 |
| 6.5 (Des)demokratizazioa eragiten duten mekanismo eta prozesuak | 261 |
| 6.5.1 Berdintasuna eta ezberdintasuna | 261 |
| 6.5.2 Konfiantza sareak | 263 |

| | |
|---|-----|
| 6.5.2.1 Funtsezko ezaugarriak | 263 |
| 6.5.2.2 Integrazioa | 265 |
| 6.5.2.3 Konfiantza sareen aldaketak | 267 |
| 6.5.2.4 Konfiantza demokrazietan | 268 |
| 6.5.2.5 Konfiantza sareen mekanismoak eta prozesuak | 270 |
| 6.5.3 Herritarren eragina Estatuarekiko | 271 |
| 6.6 Agenda berriaren mugak | 273 |
| 6.6.1 Agenda klasikoarekin urruntze saiakera | 273 |
| 6.6.2 Liskarraldien ikuspegi murrizta | 274 |
| 6.6.3 Mekanismo eta prozesuen kategorien kritika | 276 |
| 6.6.4 MTTren erantzuna | 277 |
| 6.7 Ondorio gisa hainbat argipen metodologiko | 280 |

**II. BLOKEA: HEGEMONIAREN ETA POLITIKA LISKARTSUAREN
AZTERKETARAKO METODO BAT: *DISKURTSOEN ANALISIA* ETA EKINTZA
KOLEKTIBOAREN *MEKANISMO* ETA *PROZESUAK***

282

**7. KAPITULUA: HEGEMONIAREN AZTERKETARAKO IKUSPEGI BAT:
KONSTRUKTIBISMOA**

283

| | |
|--|-----|
| 7.1 Sarrera | 283 |
| 7.2 Ikuspegi kulturalistaren nagusitzea | 286 |
| 7.3 Identifikazio kolektiboak prozesu kultural gisa | 289 |
| 7.4 Nazionalismoa eta nortasun kolektiboak | 291 |
| 7.4.1 Nazioa, gailu kultural bezala | 292 |
| 7.4.2 Nazioa gordailu historiko bezala | 295 |
| 7.4.3 Nazionalista, arkeologo bezala | 296 |
| 7.4.4 Nazionalismoaren inguruko hainbat ondorio metodologiko | 298 |
| 7.5 Markoen Teoria, nortasunaren eraikuntzarako tresna gisa | 299 |
| 7.5.1 Markoen Teoriaren jatorria | 300 |
| 7.5.1.1 Markoaren ikuspegi multi-diziplinarra | 300 |
| 7.5.1.2 Markoen teoria prozesu sozialen ikerkuntzan | 302 |
| 7.5.2 <i>Framing</i> -a edo <i>markogintza</i> | 305 |
| 7.5.2.1 Markogintzaren atal nagusiak | 306 |
| 7.5.2.2 Markogintzaren prozesu eta dinamikak | 308 |

| | |
|---|-----|
| 7.5.2.3 Markogintzaren baldintzazaileak | 312 |
| 7.5.2.4 Snow-en markogintzaren ahulguneak | 313 |
| 7.5.2.5 Markoaren Egitura Ideala | 314 |
| 8. KAPITULUA: EKINTZA KOLEKTIBOAREN AZTERKETARAKO METODO BAT: | |
| POLITIKA LISKARTSUA | 319 |
| 8.1 Sarrera | 319 |
| 8.2 Ekintza kolektiboaren ezaugarri eta forma nagusiak | 321 |
| 8.3 Protesta zikloa | 325 |
| 8.3.1 Protestaren faseak | 326 |
| 8.3.1.1 Protestaren abiatzea | 326 |
| 8.3.1.2 Protestaren zabalpena eta indartzea | 326 |
| 8.3.1.3 Protestaren gainbehera | 328 |
| 8.3.1.4 Protestaren bukaera posibleak | 328 |
| 8.3.2 Protestaren edukiak | 330 |
| 8.3.2.1 Lehia demokratikoaren funtsa | 330 |
| 8.3.2.2 Lehian egongo diren demokrazia ereduak | 331 |
| 9. KAPITULUA: PROTESTALDIAREN AZTERKETARAKO DISEINU METODOLOGIKOA | 334 |
| 9.1 Diskurtsoa eta mobilizazioa, protesta zikloaren azterketarako neurgailuak | 334 |
| 9.2 Markoen analisia hegemoniaren eraikuntzaren azterketarako | 337 |
| 9.2.1 Diagnostikoaren markoa | 338 |
| 9.2.1.1 Arazoaren identifikazioa | 338 |
| 9.2.1.2 Kausak eta eragileak | 339 |
| 9.2.2 Pronostikoaren markoa | 340 |
| 9.2.2.1 Helburuen markoztatzea | 340 |
| 9.2.2.2 Arrakastarako aukeren markoztatzea | 341 |
| 9.2.3 Motibazioarako markoa | 341 |
| 9.2.3.1 Mugimenduen auto-legitimazioa | 342 |
| 9.2.3.2 Konponbide egingarriaren proposamena | 342 |
| 9.3 Mekanismo eta prozesuak protesta zikloaren azterketarako | 345 |
| 9.3.1 Mekanismoen sailkapena eta operazionalizazioa | 345 |
| 9.3.1.1 Diskurtsoaren kudeaketa | 346 |
| 9.3.1.2 Aukera/mehatxuen kudeaketa | 346 |
| 9.3.1.3 Antolaketaren kudeaketa | 348 |

| | |
|--|-----|
| 9.3.1.4 Bitartekoen kudeaketa | 349 |
| 9.3.1.5 Nortasun eta eskaeren kudeaketa | 350 |
| 9.3.2 Demokratizazioa eragiten duten mekanismo espezifikoa | 352 |
| 9.3.2.1 Des/demokratizazio prozesuen lekutzea | 352 |
| 9.3.2.2 Demokratizazioa eragiten duten mekanismoen martxan jartzea | 354 |
| 9.4 Marko metodologikoaren erabilpenerako kontutan izan beharreko hainbat gako | 361 |
| 9.5 Hipotesiak | 363 |
| 9.5.1 Marko teoriko-metodologikoa | 364 |
| 9.5.2 Hipotesi orokorrak | 365 |
| 9.5.3 Hipotesi zehatzak | 366 |
| 9.6 Ikerketa teknika eta iturriak | 367 |
| 9.6.2 Erdi-egituraturatutako elkarrizketak | 369 |

III. BLOKEA: ABERTZALETASUNAREN DISKURTSOEN ETA EUSKAL PROTESTALDIAREN AZTERKETA

372

10. KAPITULUA: AURREKARIAK: EUSKAL PROTESTALDIAREN ABIATZEA, ZABALTZEA ETA IDENTIFIKAZIO POLITIKO NAGUSIAK

373

10.1 Euskal protestaldiaren abiatzea eta zabaltzea

374

10.1.1 Frankismoaren lehenengo urteak eta *isiltasunaren jendartea*.

374

10.1.2 Protestaren abiatzea: ETaren aukera politikoak, *mugimendu goiztiar* bezala

375

10.1.2.1 EAJ eta deserria

376

10.1.2.2 Lan mundua

379

10.1.2.3 Nazioarteko testuingurua

381

10.1.3 Protestaren zabalpena eta indartzea: Ekintza-errepresioa espirala

382

10.1.3.1 Gatazkaren hedapena eta ekintzarako errepertorioen zabalpena

384

10.1.3.2 Marko sinboliko berriak

386

10.1.3.3 Antolakunde berriak

388

10.2 Trantsizioaren eragina identifikazio politiko nagusietan

391

10.2.1 1977ko hauteskunde orokorrak eta fronte abertzalea osatzeko saiakera

392

10.2.2 1978ko Konstituzioaren erreferenduma

395

10.2.3 Gernikako Autonomi Estatutua

397

10.3 Identifikazio politiko nagusiak Autonomien Estatu berrian

400

10.3.1 Erakundearen egitura: Autonomien Estatu

402

| | |
|--|-----|
| 10.3.2 Nazionalismo zentralista | 403 |
| 10.3.2.1 Nazionalismo antiterrorista | 405 |
| 10.3.2.2 Erregionalismoa | 407 |
| 10.3.3 Nazionalismo periferikoa | 409 |
| 10.3.3.1 Nazionalismo sistemikoa | 410 |
| 10.3.3.2 Nazionalismo anti-sistemikoa edo hausturazalea | 415 |
| 10.3.4 Mugimendu sozial berriak | 418 |
| 11. KAPITULUA: AURREKARI ZUZENAK: DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA | |
| 90. HAMARKADAREN LEHENENGO ERDIALDEAN | 422 |
| 11.1. Aukera eta mehatxuen kudeaketa | 422 |
| 11.1.1. Ajuria Eneako Ituna | 424 |
| 11.1.1.1. Sorreraren testuingurua | 424 |
| 11.1.1.2 Batasunaren lehenengo urteak | 429 |
| 11.1.1.3. Aliantza egituraren pitzadurak: udal akordioak eta Leitzarango autobidearen eraikuntza | 437 |
| 11.1.1.4. Gatazkaren zabalkundea: mahai(eta)tik kalera | 442 |
| 11.1.2. Egoera sozio-ekonomikoa | 448 |
| 11.1.2.1. 80. hamarkada bukaerako atzeraldia eta CCOO-UGT-ELA hirukoa | 448 |
| 11.1.2.2 90. hamarkada hasierako krisialdia eta aliantzen trantsizio urteak | 450 |
| 11.2. Protestarako bitartekoen kudeaketa | 454 |
| 11.3 Markogintza eta nortasunen kudeaketa | 462 |
| 11.3.1 Diagnostikoa | 463 |
| 11.3.2 Pronostikoa | 465 |
| 11.3.3 Motibazioa | 467 |
| 11.4 Antolaketaren kudeaketa | 471 |
| 12. KAPITULUA: ABERTZALETASUNAREN DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA | |
| 1995-1997. URTEETAN | 476 |
| 12.1 Abertzaletasunaren diskurtsoak 1995-1997 urteetan | 477 |
| 12.1.1 EAJ-ren diskurtsoa | 477 |
| 12.1.1.1 Autogobernua | 477 |
| 12.1.1.2 Bakegintza: Ajuria Eneako Itunaren krisitik ‘Ardanza Planera’ | 483 |
| 12.1.1.3 Ondorioak | 487 |
| 12.1.2. Ezker abertzalearen diskurtsoa | 488 |
| 12.1.2.1 Markogintzaren demokratizazioa eta nazio eraikuntzaren lerrotzea | 488 |

| | |
|--|------------|
| 12.1.2.3 Ondorioak | 498 |
| 12.1.3 Markoen lerrotzeak: ELA eta LABen markoen zubigintza | 500 |
| 12.1.3.1 ELAren markogintza | 500 |
| 12.1.3.2 LABen markogintza | 508 |
| 12.1.3.3 ELA eta LABen arteko markoen zubigintza | 511 |
| 12.1.4 Diskurtsoen analisisen ondorioak | 516 |
| 12.1.4.1 Bi diskurtso nagusi eta hainbat interpretazio marko | 516 |
| 12.1.4.2 Marko nagusien krisia | 518 |
| 12.1.4.3 Markogintza berri baterako oinarriak | 519 |
| 12.2 Ekintza kolektiborako mekanismoak eta demokratizazioa | 520 |
| 12.2.1. Protestaldiaren eskala aldaketa: ELA eta LABen artekaritza eta erasoen difusioa | 520 |
| 12.2.2 Mekanismoen eragin demokratizatzailea: berdintasuna eta herritarren eragina instituzioekiko | 524 |
| 13. KAPITULUA: ABERTZALETASUNAREN DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA | |
| 1998-1999. URTEETAN | 529 |
| 13.1. Abertzaletasunaren diskurtsoak 1998-1999 urteetan | 529 |
| 13.1.1 EAJ-ren diskurtsoa. | 529 |
| 13.1.1.1 Bakegintza: Ardanza Plana | 529 |
| 13.1.1.2 Autogobernua: zehaztapen publikorik ez | 531 |
| 13.1.2 Ezker abertzalearen markogintza | 535 |
| 13.1.2.1 Autogobernua: prozesu soberanista | 535 |
| 13.1.2.2 Bakegintza: Lizarra-Garaziko erreferentzia | 540 |
| 13.1.3 Markoen lerrotzeak: marko anti-terroristaren eraldaketa | 541 |
| 13.1.4 Diskurtsoen analisisen ondorioak | 543 |
| 13.2 Ekintza kolektiborako mekanismoak eta demokratizazioa | 545 |
| 13.2.1 Soberanismoaren kategoria osaketa | 546 |
| 13.2.2 Konstituzionalismoarekiko polarizazioa | 550 |
| 13.2.3 Mekanismoen eragin demokratizatzailea: konfiantza | 556 |
| 14. KAPITULUA: ABERTZALETASUNAREN DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA | |
| 2000. URTEAN | 559 |
| 14.1 Abertzaletasunaren diskurtsoak | 559 |
| 14.1.1 EAJren diskurtsoa | 559 |
| 14.1.2 Ezker abertzalearen diskurtsoa | 563 |
| 14.2. Ekintza kolektiborako mekanismoak eta desdemokratizazioa | 569 |

| | | |
|------------------|--|-----|
| 14.2.1 | Lehia mekanismoaren (ber)aktibazioa | 569 |
| 14.2.1.1 | Errebindikatzaile eta autoritatearen arteko lehia: Konstituzionalisten objektu aldaketa eta erasoen orokortzea | 570 |
| 14.2.1.2 | Errebindikatzaileen arteko lehia: ‘Erreforma soberanista’ vs ‘haustura konstituziogilea’ | 572 |
| 14.2.2 | Mekanismoen eragin desdemokratizatzailea: konfiantza galera eta konpromisoen haustura | 576 |
| ONDORIOAK | | |
| | | 580 |
| 15. | KAPITULUA | 581 |
| 15.1 | Jarraitu ditugun urratsak | 581 |
| 15.2 | Ondorio zehatzak: hipotesien kontrastea | 585 |
| 15.2.1 | Markogintza nagusien krisia oinarritzko diagnostiko bezala: Autogobernuaren garapen faltaren ‘injustizia markoa’ | 586 |
| 15.2.2 | Protestaldiaren <i>eskala aldaketa</i> : ELA eta LABen <i>artekaritza</i> eta protestaren <i>difusioa</i> | 591 |
| 15.2.3 | Pronostiko bateratu bat: ‘Marko politikoaren aldaketaren’ helburua | 595 |
| 15.2.4 | Soberanismoaren <i>kategoria osaketa</i> , hainbat muga konpartitzen dituzten taldeen multzoa bezala | 598 |
| 15.2.5 | Konstituzionalismoarekiko <i>polarizazioa</i> , aurkaritza sistemaren ardatz berria | 601 |
| 15.2.6 | Motibaziorako marko ezberdinen arteko lehia: ezker abertzalearen ‘haustura konstituziogilea’ eta Ibarretxeren ‘erreforma soberanista’ demokratizaziorako paradigma ezberdinak bezala | 604 |
| 15.2.5.1 | Ezker abertzalearen ‘haustura konstituziogilea’ | 605 |
| 15.2.5.2 | EAJren ‘erreforma soberanista’ | 610 |
| 15.3 | Ondorio orokorrak: Lizarra-Garaziko prozesuaren eragina euskal protesta ziklo zabalaren demokratizazioan | 615 |
| 15.3.1 | <i>Soberanismo hegemonista</i> , aldaketa politikoa gauzatzeko bide gisa | 616 |
| 15.3.2 | <i>Agonismoa</i> , botere politikoa lehiatzeko bide gisa | 618 |
| 15.3.3 | <i>Elkarlan gatazkatsua</i> , ekintza kolektiborako bide gisa | 621 |
| 16. | KAPITULUA: EPILOGOA | 625 |
| | Euskal protestaldiaren amaiera ikustatzen? Eragin posibleak | 625 |

| | |
|------------------------|-----|
| TAULEN AURKIBIDEA | 632 |
| IRUDIEN AURKIBIDEA | 633 |
| GRAFIKOEN AURKIBIDEA | 635 |
| JATORRIZKO DOKUMENTUAK | 636 |
| BIBLIOGRAFIA | 639 |

SARRERA

1. Ikerketaren egitura

I. blokea: Marko Teorikoa: Hegemoniaren eraikuntza, Politika Liskartsuaren erdigunean.

Hitzaurrean aipatu dugu. Tesi hau ikuspegi konstruktibista batetik jorratuko dugu, botere politikoaren oinarrian nortasun politikoaren eraikuntza dagoela ulertuta. Horrela, hegemonikoak izango diren identifikazio hauen artikulazioan ze mekanismok parte hartzen duten azaltzea gure lehenengo eginbehar bezala hartuko dugu.

Identifikazio politikoaren eraikuntzan ze prozesuk parte hartzen duten ulertzen hasteko eredu klasiko batera joko dugu: marxismora, hain zuzen. Horrela, lehenengo kapituluan marxismo tradizionalak proletarioaren kategoriaren inguruan artikulatu nahi izandako identifikazioaren ahulguneetara hurbilduko gara, hortik haragoko hainbat ondorio ateratzeko. Ahulgune hauen oinarrian roll deterministek hauei egotzitako izaera *berezko* edo naturalen mugak agerian uzten saiatuko gara. Eredu honen aurrean Gramsciren pentsamenduarengana joko dugu, hegemoniaren kategoriaren aitzindari bezala. Honek, ikuspegi deterministen aurrean mundu ikuskera ezberdinen izaera eraikia eta kulturala mahai gaineratuko du. Zentzu horretan, Gramsci bere garaiko aurreratu bat izan zela esan dezakegu, gerora, joera postestrukturalisten orokortzearekin batera, prozesu sozialen azterketan indarra hartzen joan ziren lengoaiaren edota identifikazioen lanketan egin zuen lanagatik. Hain zuzen ere, modernitate eta postmodernitatearen arteko igarobide honi eta bigarren honetan postestrukturalismoak, pentsamendu korrante bezala, hartutako zentralitateari eskainiko diogu 2. kapitulua; beti ere, landu nahi dugun marko teorikoaren eraikuntzarako baliagarriak zaizkigun kategoriengan arreta jarritz.

Hirugarren kapituluan hegemoniaren adiera garaikideago bat landuko dugu Ernesto Laclau eta Chantal Moufferen eskutik. Joera postestrukturalistek utzitako herentziari jarraiki, kapitulu honen hasieran hegemoniaren izaera diskurtsiboari helduko diogu, diskurtsoak identitate politikoaren eraikuntzan jokatzeko duen papera aztertuz. Jarraian, hegemoniaren kontzeptuaren azalpenerako

beharrezkoak diren oinarrizko ideien azalpenari helduko diogu: antagonismoa, ekibalentzia eta diferentzia, partikularra eta unibertsala, ... Honen luzapen gisa ulertu dezakegu 3. kapituluaren bigarren atala, non hegemoniaren eraikuntzan populismoak jokatzeko funtzioak arituko garen. Izan ere, hainbat autoreen ustez hegemonia eta populismoa ideia berberaren bi adiera *baino* ez dira izango (Rivera, 2015: 45). Populismoa, hamarkadetan deitoratutako kategoria izan arren, Laclaugandik birkontzeptualizatua izan da. Honek, gabeziak bertute eginez, populismoari egotzi izan zaizkion ezaugarri iraingarriak (anbiguetatea, orokorkeria, erretorika hutsa, ...) eguneratu eta populismoaren lanketa teoriko berritu baterako premisak ezarri zituelarik. Zentzu batean, hegemoniaren atalean landutako kategorien osagarri gisa ulertu ditzakegu *Hegemony and Socialist Strategy* (1985) lan ezagunaren hogeigarren urteurrenean argitaratutako *La razón populista* (2005) liburuan laburbildutako ideiak.


Hegemoniari izaera normatiboa eman nahian Laclauk eta Mouffek landutako hautu politikoaren azalpenean zentratuko gara 4. kapituluan: demokraziaren erradikalizazioan eta honi lotutako eredu *agonistaren* zabalpenean. Horretarako XVIII. mendetik demokraziaren kontzeptualizaziorako bi korrante nagusiak izan daitezkeen gaineko azaleko hurbilpen bat egiten saiatuko gara; liberalismoa eta errepublikanismoaren inguruan, hain zuzen ere. Moufferen arabera, lehenengoak nagusitutako *askatasunaren* ideiak eta bigarrengoaren *berdintasunak*, sistema demokratikoen oinarrizko orubea osatuko lukete. Baina, ezberdintasunak ezberdintasun, aipatutako bi korranteek muga berdinarekin egingo lukete topo: aurre determinatutako elementu fundatzaile batzuen inguruan (norbanakoen eskubideak liberalen kasuan eta balore moralak errepublikanoenean) barne adiskidetutako jendartearen mitoarekin. Hau da, jendartearen izaera gatazkatsuen ukapenarekin edo behintzat izaera hori desagerrarazi behar denaren ustearekin. Mouffek elementu fundatzaile hauen beharra ukatuko ez badu ere, beraien izaera aurre determinatu gabea eta kontingentea aldarrikatuko du. Horretarako, Carl Schmitten pentsamendura joko du demokraziaren izaera 'erabakitzailea' azaldu nahian. Schmittek aldarrikatutako *politikoaren* dimentsioak jendartea egiturako duen funtsarekin parekatuko du. Dimentsio hau, aldiz, ez da aurre ezarrita egongo, erabaki politiko baten ondorio izango; espazio politikoa banatuko duen erabakiaren ondorio, hain zuzen. Schmitten muturreko antagonismoa arindu nahian, baina jendartearen izaera gatazkatsuari eutsiz, Mouffek kontrakotasun hauek apaldu nahiko ditu *agonismoaren* bitartez. Bide horretan, Jürgen Habermasen modukoek aldarrikatzen duten demokrazia *eztabaidazale* edo adostasunezkoen arriskuez ere ohartaraziko digularik.

Hegemoniaren eta bere hautu demokratiko erradikalaren azalpena eta gero, 5. kapituluan hegemoniaren teoriaren ahulgune nagusiei helduko diegu, hauen aurrean egingo dugun hautu teorikoa ere azalduz. Muga hauek hegemoniaren teoriarekin aurrez aurre jartzeak, gaur egun ezkeraren baitan ematen ari diren eztabaida nagusi batzuk mahai gaineratzeko balioko digu. Horren adibide izango dira Laclau eta Slavoj Zizeken arteko ika-mika ezagunak; edota lehenengo honek, Italian 60. eta 70. hamarkadetan *operaismo* eta borroka autonomoen erreferente izan zen Antonio Negri-ri leporatutakoak. Diskurtsoari emandako gehiegizko pisuak, hegemoniaren teoriaren izaera deskriptibista edo funts normatibo falta eta klase borrokaren desplazamenduak prozesu sozialei lekarkiekeen izaera eraldatzailearen ahultzea, argentinarraren pentsamenduari egotzitako akusazio batzuk baino ez dira izango. Ildo honetan, hainbatek (Beasley-Murray, 2015; ...) *poshegemonia* bezala izendatzera ausartu diren ideia multzoari ere azaleko hurbilpen bat egiten saiatuko gara. Esan bezala, mahai gaineratutako ahulgune bakoitzaren aurrean hartuko dugun posizio teorikoa ere azaltzen saiatuko gara, azterketa enpirikoari euskarri nahikoa eskainiko dion hezurdura teorikoa osatu nahian.

Marko teorikoarekin bukatzeko, hegemoniaren teoriaren gehiegizko diskurtsibitatea orekatzeko, osagarria izango den bestelako tresneria teoriko-metodologikoa ere jorratuko dugu: Doug McAdam, Sidney Tarrow eta Charles Tilly-k (MTT) gatazka sozialen azalpenerako baliatutako mekanismo eta prozesuei, hain zuzen ere. Diziplina ezberdinetatik etorrira ere, Tilly eta Laclaren pentsamenduen arteko antzekotasunak (Tarizzo, 2015: 25) baliatuko ditugun oinarrizko bi tresneria teorikoen (Diskurtsoaren Teoria eta ekintza kolektiboaren azterketarako mekanismo eta prozesuak) arteko sintonia nahikoa adieraziko dutelakoan gaude. Horrela, hegemoniaren teoriak identitate politikoen eraikuntzaren azterketarako bitarteko gisa izango duen abstrakzio maila altua (Torfing, 1999), MTTk prozesu sozial zehatzen ikerketarako eskainiko dizkiguten tresna zehatzagoekin orekatuz.

Horretarako, ekintza sozialaren azterketarako agenda *klasikoaren* eta bere mugen azalpenari helduko diogu, ondorenean, agenda *berria* osatuko luketen oinarrizko kategoriak azalduz. Funtsean, bata eta bestearen arteko aldea lehenengoari egotzitako ikuspegi estatikoa gainditzeko bigarrenak izango lukeen izaera dinamikoan letzake. Horrela, XX. Mendearen bukaerara arte nagusi izan diren korrante arrazionalistek eta kulturalistek erakutsitako gehiegizko estrukturalismoa gainditzeko, MTTk arreta prozesu ezberdinetan errepikatuko liratekeen mekanismo eta prozesuetan jarri dute. Hauen erabileraren inguruko arau unibertsalak aurkitzea baino, testuinguru ezberdinetan hauek konbinatuz lortzen diren emaitzak aztertzea litzateke helburua. Tilly-k planteatutako zentzuan, demokraziaz baino (des)demokratizazio prozesuez hitz egitea nahiago izango dugu, hauen izaera

gatazkatsua azpimarratuz. Zentzu honetan, demokratizazio prozesu hauetan eragiten duten mekanismo espezifikoak 6. kapituluan laburbiltzen saiatuko gara. Bukatzeko, agenda *berri* honen ahuldade nagusiak laburtu nahi izango ditugu, ahulgune hauen aurrean hartuko dugun posizio teorikoa nabarmenduz.



1. irudia: Ikerketaren egituraren irudia.

II. blokea: Hegemoniaren eta Politika Liskartsuaren azterketarako metodo bat: *Diskurtsoen Analisia eta ekintza kolektiboaren mekanismo eta prozesuak.*

Hegemoniaren teoriak eta ekintza kolektiboaren azterketarako agenda *berriak* osatuko badute gure marko teorikoaren zutabe nagusiak, bi hauek nola uztartu eta beraiek operazionalizatzeko metodo bat zehaztea gure hurrengo urratsa izango da. Horrela 7. kapituluan hegemoniaren azterketarako ikuspegi epistemologiko bat lantzen saiatuko gara konstruktibismoaren bitartez. Konstruktibismoak XX. mendearen bukaerara arte nagusitu ziren Mobilizaziorako Teoriaren eta Aukera Politiko Egituraren joera *objetibistak* orekatzen saiatzeko asmoarekin jaio zela esan dezakegu. Lehenengoak *barne* bitartekoei jarritako arretak eta bigarrenengoak *kanpokoei* emandakoak ekintza politikoaren dimentsio subjektiboa eta interpretatzailea alde batera utziko zuten (Melucci, 1988; Snow; 1988). Konstruktibismoak, berriz, kanpo zein barne aldagai hauen jabetzan edo hautematean dimentsio kognitiboak eta diskurtsiboak duten garrantzia nabarmenduko du.

Ikuspegi konstruktibista hau XXI. Mende hasierako ekintza kolektiboaren ikerketa gehienetan nagusitzen joan da, identitateen eraikuntza prozesuetan ere islatuz. Esan dugun bezala, identitateak uste edo interpretazio komun baten inguruan eraikitako identifikazio prozesuak badira, honek erreferentziazko kolektiboari mundua ulertzeko “betaurreko” batzuk eskainiko dizkio, ikuspegi komun hau nortasun kolektiboaren oinarria izango delarik.

Zentzu honetan, Markoen Teoriak interpretazio komun hauen azterketarako oinarritzko tresna metodologikoa izango da. Teoria honen azken hamarkadetako bilakaeraren errepaso azkar bat eginda, prozesu sozialen ikerkuntzan honen inplementazioan funtsezko zeresana jokatu zuten David Snow eta Robert D. Benford-engana iritsiko gara. Beraien arabera, *frame*-a marko interpretatzailea izango bada, *framing* edo *markogintza* esanahia emateko funtzioa izango da (Snow&Benford, 1988: 198; 1992: 136).

Aldiz, guk aztertuko ditugun *frame*-ak ez dira munduaren interpretazio isolatu bat egitera mugatuko diren marko interpretatzaile hutsak izango. Hauek errealitatearen eraikuntzan *ekintza* eta *liskarra* inplikatu dituzten prozesuak izango dira. *Ekintza* mugimendu sozial edo aktibisten jardunean kokatzen direlako; eta *liskarra*, ez dutelako soilik marko berrien sorreran parte hartuko, indarrean dauden eraldaketa ere bilatuko dutelako. Hortaz, markogintza lan honen emaitza *ekintza kolektiborako markoak* bezala izendatu ditzakegunak izango dira (Snow&Benford, 2000: 614).

Baina teoria guztiak bezala, markogintzarenak ere bere ahulguneak izango ditu. Izan ere, Snowen ekarpenak lan enpirikoak egiteko oinarritzko abiapuntua jarriko badu ere, ez du metodologia zehatz bat planteatzen. Jürgen Gerhards-ek Snow eta bere lankideei markogintzarako estrategia ezberdinak bereiztea aitortuko badie ere, markogintza estrategia hauek planteatzen dituzten eremu tematikoak ez dituztela sistematikoki bereizten salatuko du. Gerhards-en *markogintzaren dimentsio* eta *estrategien* bitartez saiaturako gara gabezi hau gainditzen.

Baina ikusten ari garen bezala, diskurtsoak ez dira era isolatu batean hutsetik eraikiko; gatazka edo protesta zehatzetan lekutu beharko ditugu, identitate ezberdinak mobilizazio prozesuan eraikiko direla aintzat hartuz (Melucci, 1992). Honek prozesu politikoen ikuspegi *konstruktibista* batetik ikuspegi *lehiatsu* (*contentious politics*) batera salto egitea eskatuko digu (8. kapitulua). Protesta hauek kokatzerakoan denboraren dimentsioak berebiziko garrantzia izango du; hasiera eta bukaera duen prozesua bezala ulertuta. Horregatik, Sidney Tarrow-en (1997) *protestaldiaren* edo *protesta zikloaren* kategoria baliatuko dugu, diskurtsoak eta nortasunen eraikuntzak lur hartzeko kontzeptua

bezala. Azterketa ‘mobimentistekin’ bat eginez, ziklo hauen faseak ezberdindu eta bertan lehian egongo diren edukiei erreparatu beharko diegularik.

Baliatuko dugun tresneria metodologikoa laburbiltzeko, gure marko teorikoaren oinarrian hegemoniaren teoria eta politika liskartsuarena kokatu baditugu, bakoitza era ahalik eta zehatzenean aztertu ahal izateko, Snow eta Benford-en *frame analysy*-a (Gerhardsen *Marko Idealen Egiturarekin* “hobetuta”) eta MTTren *mekanismo* eta *prozesuak* baliatuko ditugu, hurrenez hurren (9. kapitulua).

Atal metodologiko honen azken kapituluan ere, funtsezko beste bi gai ere kokatuko ditugu: jorratuko ditugun hipotesiak eta ikerketarako baliatutako teknikak eta iturriak. Hipotesien dagokionez, bi mailetan landuko ditugu: batetik, zehatzean aztertu dugun epealdiari dagozkionak (1995-2000); eta bestetik, ikuspegi zabalago batetik, epealdi honetan jazotakoek gerora protesta zikloaren garapenean utzitako arrastoari dagozkionak. Ikerketa teknika eta iturriei dagokienez, gure azterketaren ardatz nagusietako bat diskurtsoen azterketan kokatu dugunez, lehenik eta behin, bere izaera kualitatiboa nabarmendu beharko dugu. Horretarako Nicholas Pedriana (2006) jorratutako *narratiba analitikoari* helduko diogularik. Bere hitzetan narratiba analitikoaren teknikak “informazio historikoa aurkeztu eta analizatuko du, denboran zehar lotutako ekintzen sekuentzia gisa, zentzua hartuko duen osotasun metodologiko batean” (Pedriana, 2006: 351).

Gure kasuan burujabetzaren aldeko eragile nagusien diskurtsoetan zentratuko gara; zehazki: ELA eta LAB sindikatuena; EAJren eta Herri Batasuna/Euskal Herritarrok alderdi eta koalizioena; eta ETArena. Bestelako diskurtso kualifikatuekin ere aurkituko gara prozesu honen azterketan, baina azterketa nagusia aipatutako eragileengan kokatu nahi izan dugu, gure ustez, ondorengo prozesua ahalbideratu zuten aldaketa nagusiak beraien diskurtsoetan eman zirelako.

Horretarako nagusiki bi iturrietara joko dugu. Lehenik, iturri dokumentalen azterketara, bertan a) eragile nagusien jatorrizko diskurtsoak jasotzen dituzten dokumentuen (ponentziak, agiriak, ...), b) gaiaren inguruan landutako bibliografia zabalaren eta c) egunkarietako hemerrotekaren azterketa egingo dugularik. Eta bigarrenik, epealdi horretan ‘lehen lerroan’ egon ziren protagonista ezberdinei egindako erdi-egituratutako elkarrizketak landuko ditugu. Iturri hauek, diskurtsoak aztertzeko ez ezik, urte horietako ekintza kolektiboaren gauzatzean parte hartu zuten mekanismo eta prozesuak aztertzeko ere baliatuko ditugularik.

III. blokea: abertzaletasunaren diskurtsoen eta euskal protestaldiaren azterketa.

Atal enpirikoaren blokean diskurtsoen eta ekintza kolektiboaren behaketari helduko diogu. Erreferentzia bezala jarritako epealdiari heldu baino lehen (1995-2000) aurrekariaren lanketa zabala egiten saiatuko gara, bi ataletan banatuta. Lehenengoan aurrekari zabalei erreparatuko diegu (10. kapitulua). Euskal gatazka, Tarrow-ek aipatutako protesta zikloaren logikan kokatuta, estatubatuarrak finkatutako hasierako fase eta ezaugarri teorikoak gurera ekarri nahiko ditugu. Horrela, ETAREN sorreratik hasita, aukera politikoen egitura baliatu eta protestaldiari hasiera ematen dio *mugimendu goiztiar* bezala ulertuta, euskal protestaldiaren abiatzea eta zabaltzearen nondik norako orokorrak kokatu ditugu. Bi fase hauen inguruko zehaztapenak lan honen helburuak gainditzeko baditu ere, bere kokapena ezinbestekotzat jo dugu XX. Mendearen bigarren erdialdean nagusitu zitzaigun gatazka ekintza kolektiboaren ikuspegitik aztertu nahi badugu.

Baina gure ikerketa identifikazioen bilakaeraren ikerketa ere badenez, identifikazio hauetan eragin berezia izan zuten gertakarietan arreta ere jarri nahi izan dugu. Horrela aurrekari *zabalen* kapitulu honekin bukatzeko, behin frankismoan emandako protestaldiaren abiatzea eta zabaltzea arakatuta, Trantsizioaren urteetako une esanguratsuenak aztertu nahi izan ditugu, aurreko urteetan hezurmamitutako identitate antifrankista zabal horrek hurrengo urteetan izango zuen bilakaera ezagutzeko. 1977ko Hauteskunde Orokorren aurreko jarrera, Xibertako elkarrizketak fronte abertzalea osatzeko saiakera bezala, Autonomien Estatuen gaineko posizioa, ... Erreforma politiko horren arragoan gorpuztu ziren hurrengo hamarkadetan zehar nagusituko ziren identifikazio politiko nagusiak, era eskematiko batean ere laburbiltzen saiatuko garenak.

11. kapituluan, aldiz, aurrekari zuzenei helduko diegu. Horretarako, 90. hamarkadaren lehenengo erdialdean garatutako ekintza kolektiboaren gaineko argazki bat ateratzen saiatuko gara, marko teorikoan landutako agendaren arabera: aukera eta mehatxuen kudeaketa, protestarako bitartekoen kudeaketa, markogintza eta nortasunen kudeaketa eta antolaketaren kudeaketa. Ajuria-Eneako Itunak finkatutako aliantza eta aurkaritza egiturak, bere barne bilakaera eta maila sozio-ekonomikoan emandako aldaketak (krisi industrialak, harreman sindikalen berregituraketa, ...) ardaztuko dute kapitulu honen azterketa eta abiapuntua jarriko diote gure aztergaiari.

Hurrengo hiru kapituletan (12.etik 14.era) gure erreferentziazko epealdiaren azterketari helduko diogu, 1995etik 2000era doana (biak barne). Horrela, 12. kapituluan 1995-1997 bi urtekoa ikertuko dugu; 13.ean 1998-1999koa; eta 14. kapituluan 2000. urteari dagokiona. Banaketa hau ez da hutsala izango. Gure ustez azpi-epealdi bakoitzean nagusitu zen markogintzaren dimentsio baten

(*diagnostikoa, pronostikoa eta motibazioa*) eta MTTk definitutako prozesu sendo baten (*polarizazioa, eskala aldaketa eta kategoria osaketa*) arabera antolatu dugularik. Horrela lehenengo biurtekoan burujabetzaren aldeko hainbat sektoreetako *diagnostikoen* arteko sintonia eta protestaldian emandako *eskala aldaketa* nabarmendu beharko ditugun bitartean, hurrengo azpi-epealdian *pronostiko* bateratu eta *polarizazioa* aztertu beharko ditugu, esaterako. Zentzu honetan hiru kapitulu hauetako bakoitzaren hasierako parteak eragile abertzale nagusi bakoitzaren diskurtsoaren azterketari erantzungo dien bitartean, bigarren zatiak garatutako ekintzako kolektiboaren mekanismo eta prozesu nagusiei erreparatuko die, bata eta bestearen arteko elkar-eragina zein den aztertze aldera. Edota nahiago bada, *hitza* eta *ekintzaren* arteko harreman dialogikoa arakatzeko.

Aukeratutako epealdiaren azken urtearen hautaketa ere ez da zoriz egin. Izan ere, 2000.ean aurreko urteetan burujabetzaren aldeko indarren artean lortutako adostasun hauskorak lehertu ziren, fase berrizat hartu dezakegunari hasiera emanaz. 90. hamarkadaren bigarren erdialdean gertatutakoek fase berri horretan (eta hurrengo urteetan) eragin zuzena izan zutenaren hipotesiaren gainean arituko bagara ere, gure ustez Ibarretxe Lehendakariaren bigarren agintaldiak ezaugarritu zuen mende berriaren hasierako bilakaera politikoa. Horrela, urte horien azterketa lan honen helburuetatik kanpo gelditzen bada ere, 2000. urtean bertan Ibarretxek emandako hitzaldi ezberdinetan zirriborratzen hasitako ildo politikoak, aurreko urteetan abertzaletasunaren barruan lehian egon ziren paradigma edo mundu ikuskera ezberdinak ulertzeko eman dezakeelakoan gaude. Izan ere, MTTk aldaketa politikorako planteatutako liskarraldi eredu ezberdinak ere (*iraultza, demokratizazioa/erreforma* eta *nazionalismoa*) ez baitira horren urruti egongo gure aztergaitik. Zentzu honetan, paradigmen arteko alderaketa honek Lizarra-Garaziko Akordioaren inguruan lortutako adostasunen ibilbide laburra azaltzen lagundu dezakeelakoan gaude. Horregatik, mende berriaren lehenengo urte hori ez dugu gure ikerketatik kanpo utzi nahi izan, Ibarretxeren proposamen azterketak bestelako ikerketek osatu beharko dutelarik.

I. blokea:

Marko Teorikoa:

Hegemoniaren eraikuntza, Politika Liskartsuaren erdigunean

1. KAPITULUA: BOTEREA ETA NORTASUNA: DETERMINISMOAREN KRISITIK HEGEMONIAREN ALTERNATIBARA

1.1 Sarrera

Ikerketa lan honek identitate politikoen birmoldaketa prozesuaz dihardu, besteak beste; hegemoniaren eraikuntzaren bidez egikaritzen den birmoldaketa prozesuaz, hain zuzen ere. Zentzu honetan, hegemoniaren kategoriaren bi adiera ezberdindu ditugu: batetik, hegemoniaren adiera gramsciarra edo *klasikoa*, eta bestetik, hegemonia lacluiarra edo *garaikidea*. Bigarrenak lehenengotik edango du ezinbestean, baina bata eta bestea bereizten duen muga deskribatzea lan honen eginkizunetako bat izango da. Lehenengo kapitulu honetan, bigarren adiera horretara iristeko egindako ibilbide intelektualaren urrats nagusiak arakatu nahi izango ditugu. Gramscik XX. mendearan hasieran jorratzen hasitako bidea, Laclauk eta Mouffek mende horren bukaeran eta hurrengoaren hasieran borobildu nahi izan zutena behar bezala ulertu ahal izateko.

Kapitulu honen hasierako partean, II. Internazionaletik aurrera, marxismoak artikulatu nahi izango zuen identitate politikoen (proletalgoa) bidez botere politikoa eskuratzeko baliatuko zituen estrategia politikorengan arreta jarriko du; batez ere, estrategiak inplementatzeko orduan agertutako zailtasunei aurre egiteko intelektualki planteatutako irtenbideengan. Sarrera honetan azterketa sakonetan murgildu gabe, zailtasun edo krisi honen muina Karl Marxek garapen teknologiko-industrialaren, eta oro har, ekonomiak determinatutako Historiaren bilakaeraren ondorioz eman beharko zatekeen langileriaren nagusitasunaren aurreikuspena ez gauzatzean azaleratuko zen. Karl Kautskyk ordezkatu zituzkeen ortodoxoa, Rosa Luxemburgek aldarrikatutako *espontaneismoaren* aurreikus-ezintasuna edota George Sorelen *greba orokorraren mitoa*, orduko ezkerren irudikapen kolektiboan prozesu sozialen bilakaera deterministak errealitatearekin talka egiterakoan sortzen zuen *dislokazioari* aurre egiteko ahalegin teoriko gisa ulertu behar ditugu. Planteamendu horietako bakoitzak izan zuen eraginkortasunaren azterketatik

harago, horien bilakaeran jarri nahi dugu arreta. Batez ere, identifikazio politikoen eraikuntzarako marxismo tradizionalaren korrante ortodoxoenek ‘azpiegitura/gainegitura’ eskema dualean planteatzen zuten translazio automatikoaren logikan ematen den bilakaeran. Hau da, azpiegitura ekonomikotik gainegitura politiko, sozial edo kulturalera emango litzatekeen transferentzia zuzenaren ideian ematen den malgutzean.

Identitate politikoen ‘heterodoxizatzte’ prozesu honetan arreta gunea Gramscirengan kokatu beharko dugu ezinbestean. Esan bezala, bere pentsamendua aurreko hamarkadetako pentsalari marxisten bilakaerari erreparatu gabe nekez ulertu badaiteke ere, inork gutxik zalantzetan jarri zuen subjektu politikoen konfiguraziorako mugari berria jarri zuenik. Ekonomikoaren pisua bazterrean utzi gabe, baina bere aurrekoek planteatutakoaren kontra, bere ustez, emantzipaziorako subjektua *eraikia* beharko luke. Bere ustez bilakaera ekonomiko hutsaren ondorioz nagusituko litzatekeen subjektuaren (proletalgoaren) izaera aurre-determinatuaren eskemak goiak jota zuen. Are gehiago herrialde industrializatueta (Alemania, Britainia Handia, ...) eta ez-industrializatueta (Errusia, Txina, ...) ematen ari zen bilakaera ikusita. Subjektuaren izaera *eraiki* honek, ordura arte marxismo tradizionalak bigarren maila batean utzitako dimentsio kultural eta performatiboari garrantzia eman zien. XX. mendearen kapitalismoaren eskutik ematen ari zen jendartearen heteroginiazio sozialak edota hainbat herrialdeetan oraindik orain nekazari giroak zuen pisuak, ordura arte nagusitutako hainbat kategoria berrikustera behartu zuen; errealitate *anitz* hori ulertzeko baliagarriak izango ziren kategoriak asmatuz edo, behinik behin, zahar-berrituz. Hegemoniaren ideiaaren inguruan Gramscik garatutako kontzeptuak (jendarte zibila, krisi organikoa, ...) horietako batzuk izan ziren. Zentzu honetan, Gramscik *ekonomikoa* eta *politikoaren* arteko ‘lehia fundatzaileari’ atea ireki zizkiola esan dezakegu.

Baina Laclauk hamarkada batzuk geroago salatu bezala, Gramsciren pentsamendua *ekonomikoaren* determinismoa gainditzeko jauzi kualitatibo bat suposatu bazuen ere, honek “azken ondar esentzialista” mantendu zuen (Laclau, 2004: 104-105). Egitura ekonomikoan duen kokalekuaren arabera langileria ematen zaion lehentasunezko izaera ontologiko hau deseraikitzeke, ezkerreko pentsamendua XX. mendearen erdialdetik aurrera, estrukturaren gabeziak agerian utzi zuen eskola frantziarrarekin zorretan egongo da. Baina hori hurrengo kapituluan jorratuko dugun bidea izango da.

1.2 Krisi baten genealogia

1.2.1 Eredu bat: marxismoaren determinismoa.

Hegemonía y estrategia socialista (Laclau eta Mouffe, 1985) II. Internazionaletik XX. mendearen bukaerara arte, marxismoaren baitan ematen ari zen krisi teorikoa gainditzeko saiakera bezala uler genezake. Karl Kautsky marxismo horren adiera klasikoaren adierazle nabarmenenetako bat izan zen. Sarreran aipatu dugun irakurketa sinplifikatu horren luzapen gisa kokatu dezakegu bere pentsamenduaren funtsa, baina kasu honetan, proletalgoak bere nortasunaz hartu behar duen kontzientzia arreta jarritz: langile bakoitzaren eskaera ekonomikoen partzialtasunak sindikalgintzaren arrakasta mugatua agerian utziko luke, baldin eta botere politikoa erdiesteko alderdi politikoak garatu behar duen teoria sozialista aintzat hartuko ez balu.

“Consideremos por ejemplo los sindicatos. Son uniones profesionales que buscan defender los intereses inmediatos de sus miembros. Pero ¿cómo de divergentes son los intereses de cada una de las profesiones tomadas por separado: gentes de mar y carboneros, chóferes y tipógrafos! Sin teoría socialista no pueden conocer sus intereses comunes y las diferentes capas del proletariado se consideran mutuamente como extrañas, incluso como enemigas” (Kautsky, 1969: 15)

Hortaz, proletalgoak, alderdiaren bitartez bere eginkizun historikoaren kontzientzia hartuta, honek artikulatutako borrokaren inguruan bildu beharko litzateke botere politikoa eskuratzeko. Horrela, *benetako kontzientzia hartze* prozesuaren ondorioz bilakaera ekonomikoak berak prozesu hau *beharrezko* egingo luke.

Laclau eta Moufferen (2004: 41) ustez, jendartearen estrukturazio hau mekanizista izateaz gain, azpimarragarriagoa den bigarren gabezi bat badu: identitate bakoitzaren izaera finkoa eta mugiezina. Hau da, Kautskyren ustez giza sektore bakoitzaren nortasunaren eraikuntzan egitura ekonomikoa elementu determinatzailea litzateke; are gehiago, dimentsio ontologikoa edo eratzaila luke. Zentzu honetan, jendarte multzo ezberdinek aurrez beraien borondateetik kanpo legokeen determinazio baten arabera definituko lukete beste jendarte sektoreekin izango duten harremanen izaera.

Rosa Luxemburgok eraikuntza itxi honetan lehenengo pitzadura batzuk agerian utziko dituzten hainbat ekarpen mahai gaineratuko ditu. Honek bere garaiko jendartearen bilakaera beste modu batera irudikatzen zuen: teoria marxista klasikoak aurreikusten zuenaren kontra, Alemaniako gizartearen izaera geroz eta zatikatuagoa nabarmendu zuen. Luxemburgok ere jendartearen bateratze prozesuaren beharra ikusten zuen, baina hau soilik iraultzaren bitartez eman zitekeen, sektore bakoitzaren eskaera partzial bakoitzak bere espezifikotasuna bertan galduko lukeelarik hobe behar komun baten mesedetan (*Reforma o revolución*, 1900). Hori bai, Rosa Luxemburgek iraultzaren subjektua langileria izango zela ez du zalantzetan jarriko, kapitalismoak bere baitan zituen kontraesanen bilakaera naturalaren ondorioz aipatutako klasea *berez* nagusituko zelarik.

Aldiz, horrelako prozesu iraultzaileen garaiko erreferentea zen, garapen industrial-kapitalista oso mugatua zen, nekazari giroa nagusi zelarik. Hortaz, horrelakorik noiz eta nola gerta zitekeen aurreikustea ariketa nekeza bilakatzen zen. Ildo honetatik, *espontaneismo* edo *bat-batekotasun* teoria honen garrantziaren funtsa, aldiz, ez legoke (soilik) prozesu iraultzaileak aurreikustearen ezintasunean. Laclau eta Moufferen arabera:

“Lo que está en juego no es tan sólo la complejidad y variedad propias de una dispersión de luchas [...] sino también la constitución de la unidad del sujeto revolucionario a partir de dicha complejidad” (2004: 35).

Hortaz, hauen arabera, teoria honen ekarpen nagusia ez litzateke horrelako prozesuen konplexutasunaren ondorioz hauek noiz/nola emango diren ezin aurreikustearen onarpena, konplexutasun horrek subjektuaren osaketan duen eragina nabarmentzea baizik, ordura arte honen eraikuntzan nagusi izan zen ikuspegi deterministan aldaketa esanguratsu bat txertatuz.

Kautskyren *beharrezkotasun teoriaren* eta Rosa Luxemburgeren *bat-batekotasun teoriaren* arteko dilema, krisian zegoen paradigma klasikoaren lehenengo agerlekutzat hartu daiteke. Izan ere, baten beharrezkotasunak bestearen aurreikus-ezintasuna indargabetuko bailuke (eta alderantziz); beraien hitzetan, *zero batura* lukeen ikuspegi ekonomizista eta erredukzionistaren arteko emaitza bihurtuz (2004: 39).

1.2.2 Ikuspegi tradizionaletik emandako hiru erantzun.

Mende arteko aldaketa honetan krisi honi eman nahi izan zitzairen erantzunen artean hiru nabarmendu zituzten pentsalari argentinar eta belgikarrak.

Lehenengoa *ortodoxia marxista* litzateke. Kautskyren pentsamenduan urrats bat harago joanda, jada teorilarien funtzioa ez litzateke funts ekonomikoagatik determinatua dagoen joera historikoen azterketa egitea, baizik eta marxismoak planteatzen duen artikulazio sozial hori (proletalgoaren nagusitzea) ze gertakari historikoaren eskutik etorriko den aurreikustea; edozein kasutan, bilakaera historiko hau zientzia marxistaren arauak ziurtatuko lukete (Kautsky, 1969).

Idea honetan gerora sakonduko badugu ere, esentzialismo honek jendarte sektoreen nortasunaren eraikuntzan eragin zuzena izango luke. Izan ere, ikuspegi ortodoxoek nortasun hauen eraikuntzaren joko zelaia politikoa izango dela aitortzen badute ere (*gainegituran* azalaraziko litzatekeena), hauek aurrez *azpiegituran* determinatutako interesen posizioa baino ez lukete ordezkatzeko, nortasun sozialen eraikuntzaren harremanezko joko politikoa indargabetuz. Zentzu honetan, joera honen funtzio nagusia teoria sozialistaren bidez, *jada emanda* leudekeen baldintza batzuen gainean¹, gertakari zehatzen bilakaera aipatutako logika orokorrean egokitzea litzateke. Georgi Plejanov-ek, esaterako, *Socialismo y lucha política* (1883) eta *Nuestras diferencias* (1855) lanetan prozesu iraultzaileak gainditzen joan beharreko etapen kronologia zehatz bat definituko du, hortik kanpo gelditzen diren gertaerak kontingenteak liratekeen itxurazko formak baino ez liratekeelarik.

Marxismo klasikoaren krisiari emandako bigarren erantzun nagusi bat *errebisionismoa* litzateke. Korrante honen baitan, Eduard Bernsteinek ordura arteko pentsamendu marxista klasikoan hainbat aldaketa txertatuko ditu, besteak beste, plusbalioaren teoriaren inguruko gehiegizko sinplifikazioa, bortxa bidezko boterearen eskuratzea edota langileriaren lorpen partzialen aldeko ikuspegi *gradualista*². Baina landu nahi dugun ikuspegi teorikorako batez ere baliagarria izango zaiguna, errebisionismoaren eskutik landuko den Historiaren ikuspegi determinatu gabea gailentzeko

¹ Aipatu dezagun 1907an Kautskyk Parisen egindako konferentzia batean, aurreko mendeko gertakari historiko nagusien azaleko errebasoaren ostean, formulatutako baieztapena: “Actualmente y bajo todas las relaciones, las condiciones de la unión tan necesaria del movimiento obrero y del socialismo están cumplidas. Faltaban en los primeros lustros del siglo XIX” (1969: 16).

² Zentzu honetan Laclau eta Mouffek errebisionismo eta erreformismoaren arteko ezberdintasuna nabarmendu nahi izango dute; nagusiki, erreformismoak planteatzen duen langile klasearen “bere baitako biltzearekin” ezberdinduz. Hau da, erreformismoak langileriak askapen prozesua berak bakarrik bideratu behar zuela defendatzen zuen planteamenduarekin ezberdindu nahi izan zuen. Batez ere, azken honek ekarri zuen *kietismo* edo geldotasun politikoarekin ez nahaste aldera (1985: 58-59).

saiakera izango da. Bernsteinen arabera, Historiaren bilakaeran ez dute soilik indar ekonomikoek parte hartuko. Bernsteinen garaian ematen ari zen klase ertainaren zabalpenak, jendartearen polarizazio mugatuak edota errebolta iraultzaile baterako aukeren ahultzea, langileriaren funtzio historikoaren eta bere artikulazioaren gaineko ikuspegiaren aldaketa ekarri zuten (*Las premisas del socialismo y las tareas de la socialdemocracia*, 1899). Laclauk eta Mouffek bere testuez egiten duten interpretazioaren arabera, langileriaren izaera zentrala, Historiaren izaera determinatutik baino, honen eraikuntza historiko kontingente baten eskutik letorke (2004: 64). Esan nahi baita, une historiko zehatz batean bere kartak behar bezala jokatuz erakutsi beharko lukeen gaitasunagatik.

Ikuspegi honek maila ezberdinetako inplikazioak lituzke, egokia izango den indar korrelazio baten artikulazioaren beharretik hasita, ordura arte nagusitu zen proletalgoaren *garaipenaren* izaera ekidinezina zalantzetan jartzera. Artikulazioaren aferak honek langile klasetik *kanpo* legokeen sektoreekiko hartu-emanaren eztabaida kontzeptuala txertatuko zuen marxismo klasikoan. Horrela, langilea jada ez litzateke soilik langile izango; hiritar, kontsumitzaile eta bestelako nortasunak barnebilduko lituzke, subjektuen posizioak biderkatuz. Ikuspegi berri honek jauzi garrantzitsua suposatu zuen marxismoaren baitan. Baina Laclau eta Moufferen ustez, errebisionismoak ez zuen lortu “alde zuzenetik definitutako eskema bateratzailearen” ideia gainditzea (edo nahiago bada ikuspegi ekonomikoaren determinismoa gainditzea), eta zentzu horretan, jatorrizko korapiloak askatu gabe jarraitu zuen (2004: 68).

Krisi honi balizko hirugarren aterabidea Sorel-en *greba orokorraren mitoaren* eskutik letorke. Bere pentsamenduan demokraziaren gaineko ikuspegiaren bilakaera oso bat emango bada ere (aldeko borroka batetik, honen gaineko etsipenera), hainbat konstante aurkitu ahal izango ditugu. Hauen artean, eta errebisionismoan planteatzen zenari jarraipena emate aldera, azpiegitura/gainegitura bikoizketa gainditzen joatea edota jendarte sektore ezberdinen artikulazioaren beharra.

Sorelek, aldiz, bere aurrekoen ikuspegi hau erradikalizatu egingo du. Aipatutako egitura dualaren arabera antolatua ez dagoen jendartean (*melange*) giza sektore batzuek (*bloc*) “ekonomiaren antolaketaren beraien ustea inposatu” nahi izango dute (Laclau&Mouffe, 2004: 71). Jendartearen egituratzearen konplexutasun honek bilakaera historikoaren ustezko izaera determinatu objektiboan zirrikitu berri bat irekiko du. Baina garrantzitsuagoa dena, subjektuaren artikulazioaren funtsa ez du oinarri ekonomiko objektibo batean kokatuko, gaitasun moral edota borondate nietzschean moduko batean baizik (Sorel, 1978). Ekintzaren filosofia izango da Sorelek planteatuko duena. Horrekin

batera Sorel jendartearen konplexutasun prozesuaz kontziente izango bada ere, langileriaren nortasun berezitua aldarrikatuko du, greba orokorraren mitoak horretarako funtzioa beteko duelarik.

“Por ese motivo [por la complejización social], según Sorel, era necesario mantener la pureza del proletariado por medios artificiales: el *mito de la huelga general* tenía como principal función proteger la identidad separada de la clase trabajadora. Mientras esta creciente complejidad social llevó a Gramsci a afirmar la necesidad de extender el momento de mediación política, llevó a Sorel a un repudio total de la política. Tanto para Marx como para Sorel, la verdadera emancipación significaba una sociedad plenamente reconciliada, pero mientras para Marx era la emancipación era el resultado de las leyes objetivas del desarrollo capitalista, para Sorel iba a ser la consecuencia de una intervención autónoma de la voluntad” (Laclau, 2003: 57).

Eraiki nahi dugun hegemoniaren ideiarako Sorelek txertatutako borondatearen dimentsioa baliagarria izango bazaigu ere, gure eraikuntza teorikoarentzat muga bilakatuko litzatekeen gaitza ere badarama bere baitan. Izan ere, *mitoak* izango lukeen adiera sinbolikoa bidezko artikulazioak, ordura arteko ikuspegi ekonomikoak planteatutako errealitate objektiboa gainditzeko oinarri teorikoa jartzen bazuen ere, subjektuen artikulazioaren osotasuna eta itxitura berriro txertatuko litzake Sorelen ikuspegiarekin.

Orain artekoari erreparatuta, marxismoaren korrante tradizional hauen bilakaera, proletalgoaren nortasun sozialaren izaera ekonomizista-deterministaren karga arintzeko ahalegin bat egiten joango da. Baina Laclauk nabarmendu bezala guztiek proletalgoaren lehentasunezko izaeraren hormarekin topo egingo dute, eta honek garaiko prozesu politikoak ulertzeko muga nabarmena suposatuko dute.

Beste modu batera esanda, ortodoxia marxistatik Sorelera proletalgoaren nortasun eraketaren *berezkotasunaren* dimentsioa apaltzen bada ere, guztiek kategoria edo nortasun honen lehentasunezko izaera mantenduko dute. Are gehiago, nortasun honen berezko objektibitate esentzial bat proiektatzen da.

Laburbilduz, XIX. mendetik XX. menderako trantsizio honetan ematen ari ziren jendarte aldaketek eta bilakaera historikoek geroz eta era agerikoagoan uzten zuten marxismo tradizionalaren eraikuntza teorikoaren kontraesanak. Hasieran aipatutako eskeman esandakoaren harira, proletarizazio maila altuenak dituzten herrialdeetan (Alemania, Britainia Handia, ...) saiakera

iraultzaileek porrot egiten duen bitartean, itxuraz horretarako baldintza eskasagoak zituzten eremuetan (nekazari giroko Errusian lehenengo, eta Txinan gerora) oinarri marxista luketen iraultzak arrakasta lortzen ari ziren.

Garaian emandako erantzun intelektualek ez zuten korrante honen izaera ekonomizistaren nagusitasuna eguneratu; kasuan kasuko arrakasta edo porrota azaltzeko teoriak eraikitzen mugatu zirelarik. Ondorioz, marxismoa mendebaldeko pentsamenduaren oinarritzko kontzeptuen (historia, subjektua, ...) ikuspegi esentzialista eta determinatua gainditu ezinik zegoen. Teoria eta praktikaren arteko lubakia handituz joan zen, eta bilakaera historikoaren azalpen zientifiko baterako aukerak ahultzen.

Baina saiakera hauek ez ziren antzuak izan. Bernsteinen gainegitura/azpiegitura ikuspegi dualaren gainditzeko ahalegina, Sorelen artikulazioaren subjektibizazioa mito bidez eta abarrekoek, giza zientzien eta zehazkiago jendarte gatazken analisirako ikuspegi berri bat zabaltzen joan ziren. Baina ez da Gramsciren pentsamenduaren etorrerara arte ikuskera honetan jauzi kualitatibo bat emango.

1.3 Hegemonia gramsciarra

1.3.1 Sarrera.

Gramsciren pentsamendua ezinbestean bere ibilbide politikoari lotuta agertzen zaigu. 1891an Sardinian jaiotako pentsalaria eta ekintzailea, 22 urterekin Italiako Alderdi Sozialistan (IAS) afiliatu zen baina ordurako garaiko politikagintzarekin hartu-eman zuzena izana zuen. 1911an Turinera joan zen ikasle txiroei ematen zitzaien beketako bat eskuratuta. Bertako industriaguneetan izandako langileen protestek eta esperientzia autogestionatuek³ eragin zuzena izan zuten bere ondorengo pentsamenduan. Baina bere hastapeneko lan politikoa kazetaritzari lotuta agertzen zaigu. IASren aldizkari ofizialetan⁴ erredaktore lanak egin eta gero, bere ondorengo pentsamendu politikoaren lehenengo proiektioak *L'Ordine Nuovo* aldizkarian egin zituen, marxismoaren baitan sakoneko eztabaidak ematen ari ziren momentuan.

³ 1919 eta 1920an Torinoko fabriketan “Enpresa Kontseilu” bezala izendatuak izan ziren esperientziak adibide nabarmenetakoak izan daitezke.

⁴ *Avanti!* edota *Il Grido del Popolo* ditugu aldizkari ofizial hauetako bi.

Gramsciren jardun politiko nagusia bi Mundu Gerren artean, Sobietar Iraultzaren ostean eta Italian faxismoa agintera iritsi zen testuinguruan eman zen. Zentzu horretan, 1921eko urtarrilean Italiako Alderdi Komunistaren (IAK) sorreran jokaturako papera nabarmenduko dugu. 1919ko martxorako III. Internazionale edo Internazionale Komunista (IK) eratua zen, komunismoaren mundu mailako zabalpena zuzentzeko helburuarekin. II. Internazionalekiko hausturaren ondorioz mendebalde osoan zehar alderdi komunisten eraketa prozesua zabaltzen joan zen, horiek, ondorenean, IKn parte hartzen zutelarik. Italian, IAKren eraketak eta ondorengo garapenak, faxismoaren gorakada prozesuarekin denboran bat egin zuten, honi aurre egiteko hartu beharreko jarrerak alderdiaren baitan bi posizio erabat ezberdinak gorpuztera eramanez zutelarik.

Mendebaldeko herrialdeetan ematen ari zen kapitalismoaren “egonkortzearekin” (Sacristán, 1978: 31) eta bereziki Alemanian eta Italian ematen ari ziren eskuineko joeren indartzearekin, IKk sozialdemokraziarekin aliantzak gorpuztearen alde egin zuen, honek IAKren baitan jarrera kontrajarriak sortu zituelarik. Garai horretan alderdia zuzentzen zuen Amadeo Bordigak Leninen irizpide hauen kontra egin zuen⁵, Italiako alderdi komunistaren erabateko autonomia eta Iraultza sozialerako proletarioaren nagusitasuna aldarrikatuz. Jarrera hau Gramsciren planteamenduaren antipodetan kokatzen zen. Gatazka honek lehenengo momentuan kanpora begira aparteko proiektiorik ez zuen hartu, baina Gramsciren pentsamenduarengan langileria eta bestelako jendarte sektoreen artean eman beharreko artikulazioaren aferak izango zuen garrantzia emaltzen ari zen. Are gehiago, nekazalgoak horrenbesteko pisua zuen Italia bezalako herrialde batean.

Barne eztabaida hau 1926an Lyon-en burututako IAKren III. Kongresuan amaitutzat emango da, IKren babesarekin, Gramsci eta *L'Ordine Nuovo* antolatutako zeuden sektoreak (Togliatti, Terracini, Scoccimarro, ...) Komite Exekutiboaren ordezkartzaren gehiengo lortzen dutenean, Gramsci Idazkari Nagusia izendatuz. Garai honetako izango da *Questione Meridionale* (1930) izeneko obra, proletarioak nekazalgoarekin artikulatu beharreko indarrez hausnartzen duena. Baina denbora laburrean mantendu ahal izango da bere karguan. Izan ere, 1926an Mussolinik estatu kolpea eman eta hilabete batzuetara Gramsci atxilotzeko agindua eman baitzuen⁶. Ordurako bere osasun egoerak okerra egin zuen nabarmen. Hala ere, bere pentsamenduaren garapenari dagokionez, askorentzat

⁵ Aipatzekoa da Alemaniako eta Hungariako alderdi komunistek ere kontrako jarrera azaldu zutela. Jarrera hauek testuinguru zehatzean kokatze aldera, gogora dezagun Rosa Luxemburgo eta Karl Liebknecht-en erailketak Alemaniako gobernu sozialdemokraten agindupean eman zirela.

⁶ Gramsciren atxiloteta 1926ko azaroan emango da, faxismo italiarrak militante sardiniarrarekiko zuen obsesioetako bat gauzatuz. Honen oinarrian Gramscik erakutsitako gaitasun politiko nabarmena. Honen erakusle izango da, fiskaltzak bere epaiketan “burmuin horrek hogeitaz giltzaperatua” egoteko egindako eskaera aipagarria.

espetxealdiko urteak garairik oparoenak izan ziren, bere maisu lantzat hartu daitezkeen *Lettere dal carcere* epealdi horretakoak izanik.

1.3.2 Praxiaren filosofia.

Gramsciren pentsamendua bere pentsalari eta militante izaeren uztarketa gisa aurkeztu dezakegu, *praxiaren filosofia* gisa ezaguna egin zuena. Ordura arteko mendebaldeko filosofia gehienetan nagusi izan ziren ikuspegi metafisiko eta deterministak gainditzeko saiakera izan zen. Determinismo honi (marxismo klasikoan langileriaren ekidin-ezinezko garaipenean irudikatzen zena), porrot garaietan, langileei “erresistentzia moralerako” indarra emateko gaitasuna aitortuko dio; baina honek dakarren pasibotasunerako eta autosufizientzia inozorako arriskuaz ere ohartarazi zuen (Sacristán, 1978: 375-376). Determinazio mekanizista honen aurrean *borondatearen* aldarrikapena egingo du; baina borondate arrazionala, prozesu historiko zehatzen errealitatea eraldatzeko tresna gisa (Sacristán, 1978: 436). Norbanakotik hasi (intelektualen eskutik) eta jendaratean zehar zabaltzen joango den *sen on* gisa. Batetik besterako igarobidea gauzatzean kokatuko da politikaren zeregin nagusietako bat:

“Tal vez sea útil “prácticamente” distinguir entre la filosofía y el sentido común, para indicar mejor el paso de un momento a otro. En la filosofía se agudizan especialmente los caracteres de elaboración individual del pensamiento; en el sentido común, por el contrario, los caracteres difusos y dispersos de un pensamiento genérico de una cierta época en un cierto ambiente popular. Pero toda filosofía tiende a convertirse en sentido común de un ambiente, aunque sea reducido (el de todos los intelectuales). Se trata, por tanto, de elaborar una filosofía que, teniendo ya una difusión o difusividad por estar conectada con la vida práctica e implicada en ella, llegue a ser un sentido común renovado que disponga de la coherencia y del nervio de las filosofías individuales, y eso no puede obtenerse si no se siente siempre la exigencia del contacto cultural con los “sencillos” (Sancristán; 1978: 370).

Zentzu horretan, bi filosofia tradizionalen uren artean kokatuko du praxiaren filosofia. Batetik, pentsamenduaren abstrakzio hutsean kokatu izan diren *korronte idealista edota espiritualistak*; eta bestetik, masa sozialen artean gehien hedatutako pentsamenduarengan arreta jartzen zuten *korronte ortodoxo edota materialistak* (bere testuinguruan erlijio kristauak zabalduakoa). Gramsciren ustez,

batak zein besteak uneren batean praxiaren filosofia helduleku bezala hartu behar izan zuten beraien ikuspegiak sendotu ahal izateko. Lehenengoen, beraien “gehiagizko filosofismo espekulatiboa” leundu ahal izateko eta hurbilen zeukaten taldearekiko loturak sendotzeko; eta bigarrenen, normalean erlijioan oinarritzen zen *sen ona* aldarazteko beharrezkoak zituzten tresna teorikoak eskura izan ahal izateko (Sacristán; 1978: 458-459).

Gramsci, praxiaren filosofiaren berezitasuna aldarrikatzeko, Antonio Labriolaren pentsamenduarengan oinarrituko da. Honek, praxiaren filosofia materialismo historikoaren baitako korrante gisa kokatuko badu ere, horren eguneratze bat aldarrikatuko du, alde aurretik definitutako ikuspegi idealistetatik ihesi egin nahian:

“Y, de esta forma, hemos llegado a la filosofía de la praxis, que es la médula del materialismo histórico. Esta es la filosofía inmanente a las cosas sobre la cuales filosofamos. De la vida al pensamiento y no del pensamiento a la vida; he aquí el proceso realista. Del trabajo, que es un conocer actuando, al conocer como teoría abstracta; y no de éste a áquel. [...] El materialismo histórico, o sea la filosofía de la praxis, [...] termina con toda forma de idealismo que considera a las cosas que tienen existencia empírica como reflejo, reproducción, imitación, consecuencia, o como se quiera decir, de un pensamiento que aparece como presupuesto” (Buci-Glucksmann; 1978: 441).

Bere filosofiaren alde ekintzailea aldarrikatu zuen, gizakien borondatea prozesu historikoen motor gisa kokatuz. Zentzu horretan, Gramscik Marxen *materialismo historikoa* eta ekonomizismoa parekatzen zituen iritzien kontra egin zuen; lehenengoaren alde egin zuen bitartean, bigarrena errefusatu zuelarik. Joera ekonomizista ortodoxoen arabera, behar ekonomikoak gizakiaren jarduna zuzentzen du, ikuspegi arrazional honetatik kanpo gelditzen diren bestelako aldagaiak bazterrean utziz. Gramscik, aldiz, bere materialismo historikoaren ikuspegian “pasioen” garrantzia aldarrikatu zuen, politikaren ardatzetako bat bezala; hori bai, alderdiaren bitartez antolatutako pasio gisa, ez “ekintza gauzatzean hanka sartzeak bideratzen dituen pasio iraunkor orgiastikoa” (Gramsci, 1980: 20). Zentzu horretan, eta aurreko marxista tradizionalak ez bezala, dimentsio psikologikoaren garrantzia nabarmendu zuen “aldaketa (eragiteko) gaitasun” gisa (Sacristán, 1978: 46). Horrela, munduaren inguruko kontzeptu berriek masengan duten eragina aztertzeko orduan “forma arrazionalen” garrantzia nabarmendu bai, baina honek ekintzaren bilakaera osoa azaltzeko

mugapenak agerian utzi nahi izan zituen. Hauen influentzia nagusia jada *krisi intelektualak* emanda dauden egoeretara bideratuz⁷.

Hortaz, Gramsci, Sorelengan agertzen hasten den marxismoaren adiera deterministaren kritikan sakontzen joango da Labriolaren pentsamenduaren eskutik. Teoria orokor *oro-harrapatzaileetatik* ihes eginez, testuinguru historiko zehatz bakoitzaren berezitasunak aldarrikatuko ditu. Zentzu horretan, praxiaren filosofia mendebaldeko filosofiaren emaitza gisa agertuko du, “kultura moderno garaikidearen une gisa” (Sacristán, 1978: 466).

Gramsciren determinismo eta ekonomizismoaren kontrako *guda* honek sortu berria zen Italiako Alderdi Komunistarengan isla zuzena izango zuen. Batez ere bere sorreraren lehenengo urteetan zuzendu zuen Amadeo Bordigarekin izan zuen lehiarengan. Gorago aipatutakoaren haritik, azken honek Europa mendebaldeko herrialde nagusietan ematen ari zen industrializazio prozesuaren eskutik proletalgoaren nagusitzea emateko aukera ikusten zuen, gainontzeko sektore sozialekin eman beharreko artikulazioa bigarren mailako afera izanik. Izan ere, Errusiako errealitatean ez bezala, non garapen industrial mugatu baten ondorioz nekazari sektoreak nagusi ziren eta berarekiko hartu-emanak indartu behar izan ziren, gainontzeko herrialdeetan proletalgoaren indartze honek ahalegin militanteak alderdiaren (alderdi komunistaren, alegia) antolakuntzan kokatzera eramane behar zituen. Gramsciren ustez, aldiz, mendebaldeko herrialdeetan industrializazio prozesuak proletalgoaren zabalpena ekarri bazuen ere, bestelako sektore sozialen ugartzea ere ekarri zuen (“aristocracia obrera, con sus anexos de burocracia sindical y de grupos socialdemocratas”, Sacristán; 1978: 146), jendarte harremanen esparrua heterogeneizatuz eta, ondorioz, garatu beharreko estrategia ere konplexuagoa eginez.

Italiako koiuntura historiko zehatz honen inguruko ikuspegi ezberdin hauen atzean, arestian aipatutako determinismoaren inguruko eztabaida agertzen zaigu, eta ondorioz, ekonomikoaren eta politikoaren arteko artikulazioarena. Ordura arteko joera marxista nagusiek mantendutakoaren kontra, Gramsciren ustez maila ekonomikoak (egiturak) ez ditu ekintza politiko guztiak bere horretan zehazten (gainegituran gauzatzen direnak), “baizik eta esparru ekonomiko zehatz bat zuzentzen duten legez egiten diren *interpretazioek*” (Sacristán, 1978: 46). 1918an idatzitako baieztapen honekin, Gramscik, marxismo tradizionalaren ildoari jarraituz aldagai ekonomikoaren

⁷ “La forma racional, lógicamente coherente, la completitud del razonamiento que no descuida ningún argumento, positivo o negativo, que tenga algún peso, tiene su importancia, pero está muy lejos de ser decisiva; puede ser decisiva secundariamente, cuando la persona está en condiciones de crisis intelectual, oscila entre lo viejo y lo nuevo, ha perdido la fe en lo viejo y no se ha decidido todavía por lo nuevo, etc.” (Sacristán; 1970: 377)

pisua aitortuko badu ere, jendartearen artikulazioan dimentsio *interpretatzaile* edota *kulturalak* duen garrantziari atek ireki zizkion⁸.

1.3.3 Bloke historikoa, egitura eta gainegituraren artikulaziorako aldagaia.

“Entre la premisa (estructura económica) y la consecuencia (constitución política) hay relaciones nada simples ni directas, y la historia de un pueblo no se documenta sólo con los hechos económicos”⁹.

Gramscik askatu nahi zuen korapiloaren konplexutasunaz ohartzeko, *Utopia* (1918) lanaren esaldi honekin eman nahi izan diogu hasiera atal honi. Hugues Portellik nabarmendu bezala, egitura eta gainegituraren arteko harremana aztergai delikatuenetakoa izango da. Bere ustez, bata edo bestearen arteko nagusitasunaren eztabaida antzua litzateke, beraien arteko lotura *organikoan* arreta jarri beharko genukeelarik.

Portelliren hitzetan, Gramscik egituraren plano nahiko gutxi garatu zuen, bere definizioa nahiko klasikoa izanik (“conjunto de las fuerzas materiales y del mundo de la producción”; Gramsci, 1980: 57). Zentzu horretan, Gramsciren pentsamenduan talde sozialen izaera “ekoizpenaren indar materialen” gainean eraikia izango da, “talde bakoitzak funtzio eta posizio bat” izango duelarik horren arabera (Gramsci, 1980: 57). Horrekin batera, talde sozialen izaera estruktural honek gainegiturarekin izango lukeen harremanaren izaera “lotua, objektiboa eta gizonen borondatek independentea” nabarmendu zuen (1980: 56). Hortaz, Gramsciren egituraren definizio honetan ez dugu elementu berrizailerik aurkituko. Berrikuntzarik aurkitzekotan ekimen politiko bakoitzaren analisirako egoera bakoitzean estrukturaren azterketa zehatzaren beharra azpimarratzean aurkituko

⁸ Gerora sakonduko dugun bezala, Gramscik maila politikoan edo gainegituraren garatzen den dimentsio kultural honi emandako garrantziak, ez du bere maila bateko anibalentzia ezkuta behar. Izan ere, Gramsci, hegemoniaren pentsalari gisa, marxismoaren baitan eraikuntza kulturalari atek ireki zizkion teoriko bezala ezaguna egin da; baina egituraren mailak (hau da, aldagai ekonomikoak) duen izaera erabakigarria zalantzetan jarri gabe. Zentzu honetan, aipagarria da testu horretan bertan, lerro batzuk aurrerago maila politikoko erabakien inguruan egiten duen baieztapena: “también el error (en las decisiones políticas) deja huellas, porque, divulgado y aceptado, puede retrasar (no impedir) la consecución de un fin”. *Atzeratu* baina ez *ekidin*, hortaz determinismoaren aurkako jarrera anibalente batez edo, gerora Laclauk, Gramsciren “azken ondar esentzialista” bezala definitutako joeraz hitz egin dezakegu.

⁹ Portelliren lanetik aterata (1982: 45).

dugu. Ideia hau hainbat joera deterministek egoera guztietarako baliagarriak liratekeen *lege oroharrapatzailleetatik* ihes egiteko saiakera bezala ulertu beharko genuke.

Gramscik egitura eta gainegituraren arteko harremanaren izaera organikoa nabarmendu zuen. Zentzu honetan, Portelliren ustez, “mugimendu supraestruturala egituraren garapenaren mugetan garatu beharko da” (1982: 48). Hortaz, gainegituraren garapenaren baldintzak egiturak finkatuko ditu. Marxen baieztapenei jarraiki, Gramscik egitura eta gainegituraren arteko loturan gauzatzen den bloke historikoaren garapenerako bi baldintza aurreikusten zituen: batetik, “inongo gizartek ez ditu bere gain hartzen, bere soluziobiderako baldintzak emanak ez dituen eginkizunik (edo behintzat, baldintza horiek agertze eta garatze bidean beharko lukete”); eta bestetik, “inongo gizarte ez da desagertzen edo ezin du ordezkatua izan, baldin eta bere harremanen baitan dauden bizimodurako forma guztiak ez baditu garatu” (Gramsci, 1980: 52-53). Ikuspegi klasiko honen arabera, “soluziobiderako baldintza” horiek edota “bizimodurako forma horiek” egituraren garapenak (*ekonomikoak*) zehaztuko lituzke.

Hortaz, zein izango da bloke historikoaren definizio *klasiko* honetan Gramsciren berrikuntza nagusia? Marxismo tradizionalaren arabera, egitura eta gain egituraren arteko lotura *zuzena* edota *automatiko* dela esan dezakegu. Esan nahi baita, ikuspegi klasiko honen arabera, sistema ekonomikoan emandako aldaketek eragin zuzena izan behar zuten gainegituraren mailan garatzen ziren fenomenoetan (sektore sozialen artikulazioan, indar harremanen garapena eta abar). Ikusi dugun bezala bilakaera historikoak eskema honen mugak agerian utzi zituen. Gramscik, ikuspegi tradizionalei jarraituz, gainegituraren mailan eman beharreko aldaketen jatorria egituran kokatzen jarraitu bazuen ere, bere berrikuntza nagusietakoa, gainegituran eman beharreko aldaketa hauek *eraiki* egin behar zirela planteatzen legoke. Hau da, aldaketa ekonomikoak jendartearen antolaketan duen eragina ez da automatikoa edo objektiboa izango, hau subjektiboki eraiki beharko da nortasun politiko berri bat(zuk) sortuz. Beste modu batera esanda: edo plano ekonomikoan objektibizatutako aldaketak identitate politiko-sozialen mailan subjektibizatzen dira, edo gain egituraren mailan ez du aldaketa suposatuko.

Eginkizun honetan intelektualek berebiziko papera jokatu beharko dute. Izan ere, egitura eta gainegituraren arteko loturaren *organikotasuna* bermatzea hauei legokieke. Intelektualen eginkizun nagusia klase bakoitzak bere izaeraren kontzientzia hartzea ahalbideratzea izango da. Orduan intelektualen eta masen arteko hartu-emanaren dinamikari hasiera emango zaio. Hartu-eman hau ez da lineala izango, gorabeheratsua izango da. *Teoria* lantzen duten intelektualen eta *praktikan* aritzen

diren masen arteko dialektikaren unea izango da. Egokitze prozesu horretan, intelektualek gainegitura berriaren euskarri ideologikoak definitu eta zabaldu beharko dituzte. Horretarako bitarteko ezberdinak izango dituztelarik; Gramsciren ustez nagusiki lau: alderdiak, eskola, komunikabideak eta eliza. Dialektika honen emaitza hegemonia berri baten eraikuntza litzateke baina eraikuntza hau hauskorra izango da, ordea. Eman daitezken aldaketa estrukturalen arabera, beti egongo baita arriskuan.

Beste batzuetan aldiz, egitura eta gain egituraren arteko deslotura emango da; hainbat uneetan, “estrukturaren koadro orokorra aldatuko baita, gainegitura egokia oraindik jaiotze bidean egongo delarik” (Sacristán; 1978: 374). Edozein kasutan, deslotura hau kontingentea litzateke, gain egituraren mailan intelektualek nortasun berriaren eraikuntzarako beharrezko urratsak eman ez dituztenaren seinale. Lan horren izaera kulturala eta ideologikoa izango da; maila ekonomikoak egin beharrekoa eginda izango du, kontzientzia politikoaren eraikuntzaren unea izango delarik. Intelectualek funtzio hau garatu ezean, Gramscik gaintitu nahi zuen sistemaren funtzionamendu mekanizista edo deterministan eroriko ginatke. Beraz, maila ekonomikoan egiturak klase sozial bakoitzari emango dion izaerak, gainegituraren mailan intelektualek egin beharreko interpretazio eta kontzientziazio lanak duen adinako garrantzia izango du :

“Cada grupo social, al nacer en el terreno originario de la producción económica, se crea conjunta y orgánicamente uno o más rangos de intelectuales que le dan homogeneidad y conciencia de la propia función, no sólo en el campo económico sino también en el social y en el político” (Sacristán, 1978: 388).

Hortaz, intelektualek gainegituraren kudeaketaren funtzioa bete beharko dute, beti ere, egituratik definitua letorkeen egoerari forma emateko. Kontzientziazio eta homogeneizazio prozesu hauek, ordea, bere arriskuak izango izango dituzte. Izan ere, klase sozial bakoitzak (bere izaera egituran zehazturik), bere intelektualak izango ditu, hauek hartu-emanen dauden klase sozialaren parte izango direlarik. Gramscik, intelektualek bere klasearekiko izan dezaketen “ustezko independentziaren” utopiaz ohartaraziko digu (Sacristán; 1978: 390). Intelectualen eta masen arteko desloturak “kastak” sortzeko arriskua eragingo du. Zentzu honetan, Gramscik berak hegemoniaren eraikuntzan sortzen den ardura banaketaz mintzo zen, honek izan ditzakeen ondorioak aipatuz. Eraikuntza prozesu honetan maila ezberdinetako intelektualen estratifikazio batez hitz egiten zuen¹⁰,

¹⁰ “La actividad intelectual tiene que dividirse y distinguirse por grados también desde el punto de vista interno, grados que en los momentos de oposición extrema dan una diferencia cualitativa propiamente dicha: en el escalón más alto hay que colocar a los creadores de las varias ciencias; de la filosofía, del arte, etc.; en el más bajo, a los

non sektore sozial ezberdinek eginkizun intelektual maila bat behintzat bete beharko luketen eta guztiek ere “bizitza praktikoa murgildu” beharko liratekeen (1978: 392, 395). Zentzu honetan, “kasten” arriskua minimizatuko litzateke.

Homogeneizazio eta kontzientziazio funtzio hauei hirugarrengoa bat gehitu beharko diogu, baldin eta klase sozial horretako intelektualek jendartea hegemonizatu eta zuzentzeko bokazioa badute: *dominazioarena*. Intelektualek “estruktura ideologiko” bat zabaltzeko, masen eta zuzentzaileen artean lortzen duten identifikazio mailaren arabera, dominaziorako bi forma nagusiei bide emango diete: *hegemoniaren* bitartez, identifikazio maila handia ematen baldin bada; eta *diktaduraren* bitartez, identifikazio maila txikia ematen baldin bada. Bata edo bestearen garapena aurrerago aztertuko ditugun hertsadura mekanismoei lotuta egongo da, borondate bidezko atxikimendu subjektibo indartsua ematen bada, hauek apenas baliatu beharko ez direlarik; eta identifikazio hau ezean, sistemak bere hegemonia inposatzeko mekanismo hauei heldu beharko dielarik.

Gainegituraren egonkortasuna ere egoera batean edo bestean ez da berdina izango, eta ondorioz, bloke historikoaren egoera eta bilakaera ere ez. Alde horretatik, ordura arte nagusi izan zen ikuspegi marxista tradizionalak esandakoaren kontra, bloke historikoaren garapena ez da soilik egituraren ematen diren alaketan araberako izango; gainegituraren mailan, intelektualek nagusiki (baina ez bakarrik) gauzatzen duten estruktura ideologikoaren kudeaketak ere bloke osoaren bilakaeran eragin nabarmena izango du.

1.3.4 Hegemonia gramsciarraren gako nagusiak.

1.3.4.1 Kontzeptuaren genealogia.

Gramsci hegemonia kontzeptuaren teoriko nagusietakoa bezala aurkeztu izan da. Hala ere, bere ikertzaileak diren Hugues Portelli eta Christine Buci-Glucksmann-ek bat egingo dute kontzeptu honen erabilera atzetik zetorrela baieztatzeko orduan¹¹. Gramsci baino lehen honen lanketa nagusia

más humildes “administradores” y divulgadores de la riqueza intelectual ya existente, tradicional, acumulada [...] La organización militar ofrece, también en este caso, un modelo de esas complejas gradaciones”. (Sacristán; 1970: 395)

¹¹ Zentzu honetan bi ikerlarien iritziek bat egiten badute ere, bakoitzak hegemoniaren kontzeptuak aurretik izan zuen zabalpen eta erabilera posizio kontrajarriak izango dituzte. Portelliren ustez honen aurreko erabilera Leninen aipatu gutxi batzuetara mugatzen den bitartean (1973: 66), Buci-Glucksmannek III. Internazionalaren inguruan

Leninek eta boltxebismoak egindakoa izan zela baieztatzeko orduan ere bat egingo dute. Nagusiki, Sobietar Iraultzaren testuinguruan, ordura arte indarrean egondako Estatuaren ordenua jendarte zibilean indarrean egondako *gegemoniyaren* arabera zela esateko orduan. Gramscik berak ez du hegemoniaren inguruko aitatasunik bere gain hartu nahi izango eta Leninek egindako erabilerari erreferentzia behin baino gehiagotan egingo dio.

Luciano Gruppi-k, Lenin eta Gramscik hegemoniaren kontzeptuaz egiten zuten erabileraren inguruan, lau antzekotasun nabarmenduko ditu: a) hegemoniaren klase izaeraren oinarria; b) hegemoniak behar duen antolaketa intelektuala; c) oinarrizko klaseak inguruan dituen aldeko taldeetan lagundu beharra; eta d) indar korrelazioen garrantzia (Luppi; 1978). Ezaugarri hauei Buci-Glucksmannek laugarren bat gehituko dio, hegemoniaren kontzeptua bi egileetan “borrokan eraikitzen” dela baieztatuz (1978: 226); hau da, praxiaren filosofiaren bitartez.

Hegemoniaren kontzeptu honetan sakontzen badugu bakoitzaren ezberdintasunak agerian gelditzen joango dira. Izan ere, askotan hegemonia eta proletalgoaren diktadura parekatzea jo izan da; eta hortik bi kontzeptuok behar bezala bereizi behar izatea. Proletalgoaren diktadurak jendartearen dominazioaren eta zuzendaritza politikoaren ideiak nabarmenduko ditu. Hegemoniaren adiera gramsciarrean, aldiz, arrakasta soilik langileriak bere zuzendaritzaren oinarri soziala zabaltzea lortzen baldin badu lortu ahal izango da; hau da, oinarri soziala langileriatik harago zabalduz. Ariketa hau beste *menpeko* klase batzuekin *aliantzen sistema* gauzatuz eman beharko da, hauen *onespena* beharko delarik (Portelli, 1982: 67).

Buci-Glucksmannek bi kontzeptuon bereizketa 1917ko sobietar iraultzaren ostean sektore sozialen artean eman beharreko ber-artikulazioarekin lotuko du. Izan ere, behin botere estatala eskuratu ondoren *hegemonia* eta *proletalgoaren diktaduraren* sakoneko esanahi ezberdinak azalarazten hasiko dira. Lehenengoak, langileria osoari erreferentzia egingo dio, *boterean dagoen klase* bezala. Hegemoniaren funtzioa jendartearen gaineko proletalgoaren zuzendaritza ideologikoa eta politikoa bermatzea izango da. Sobietar Alderdi Komunistaren X. Kongresuan, Leninek eginkizun hau sindikatuengan kokatu zuen. Boterean dagoen klasea sindikatuen inguruan trinkotuta egonda ere, botere estatala egikaritzeko mugapenak izango ditu. Mugapen hauek “proletalgoak hainbat eremuetan oraindik zatikatuta, degradatua, ustelduta egotetik letorke” (Sacristán, 1978: 227), hau da, oraindik interes partikularren menpe bere kontzientzia iraultzaile osoaren jabe ez izatetik.

mugitzen ziren figura ezberdinetara (Varga, Stalin, Zinóviev edota Bujarin) eta, batez ere, Leninek egin zuen erabilerara zabalduko du (1978: 222).

Horregatik, soilik alderdian bildutako *abangoardiak* proletalgoaren diktaduraren bitartez eskuratu ahal izango du botere estatala. Beste modu batera esanda: Lenin arabera, sindikatuaren bitartez gauzatutako langile klasearen hegemonia edo nagusitasun ideologikoak, alderdi politikoan trinkotzen den abangoardiak botere politikoa eskuratzeko oinarria jarriko dio. Proletalgoaren hainbat eremuetan emango litzatekeen “zatiketak, degradaziok edota usteltzeak” ekarri dezaketen boterearen desegonkortzea ekiditeko, alderdiak proletalgoaren diktadura baliatuko lukeelarik.

Hortaz, Lenin eta Gramsciren arteko hegemoniaren adieraren banaketa zuzendaritza kultural/ideologikoa edota politikoari emandako nagusitasunetik etorriko da. Leninek arreta hegemoniaren adiera politikoan edo Estatuaren botere guneetan jarriko du. Bere idatzietan arazo nagusia Estatu aparatuen bortxa bidezko desplazamendua izango da: helburua *jendarte politikoak* ordezkatzeko duen estatu aparatuek eskuratzeko litzateke, hau eskuratzeko alde aurretik hegemonia politikoa izan beharko delarik. Hegemonia politikoa (hau da, *jendarte politikoaren* kezka estrategiko bezala ulertuta), *jendarte zibilaren* gaineko lehentasuna izango du; are gehiago Errusia bezalako jendarte batean, non jendarte zibila oso ahula zen.

Gramscirentzat, aldiz, klase zuzentzailearen aurkako borrokaren muina jendarte zibilean kokatuko da: *jendarte zibila* kontrolatzen duen taldea, talde hegemonikoa izango da; Estatuaren baliabideen edota jendarte politikoaren konkistak hegemonia hau borobilduko lukeelarik (Estata = jendarte zibila + jendarte politikoa). Hegemonia gramsciarrak *jendarte zibilaren* nagusitasuna suposatuko du, *jendarte politikoarekiko*¹². Azterketa leninistan harremana alderantzizkoa izango da. Gramscik, ezberdintasun hauek leuntzeko, Leninen heriotza tartean egon izan ez balitz, honek jendarte zibilak herrialde ezberdinetan izango zuen pisua antzemango zuela nabarmendu zuelarik (1978: 70).

1.3.4.2 Sen ona

Filosofiak sen onarekin izango duen lotura gorago aipatu dugu. Hasiera batean filosofoek edo intelektualek osatzen duten gutxieneko horrek, munduaren edo jendartearen gainean duten mundu

¹² Buci-Glucksmannek berak Gramsciren pentsamenduarengan hegemoniaren ideien bilakaera bat nabarmenduko hasierako *Kaieretatik* bukaeretakora. Buci-Glucksmannentzat Gramscirengan hegemoniaren “aberaste eta aldaketa prozesu bikoitz bat ematen da, proletalgoaren hegemoniatik burgesiaren hegemoniara, *klase baten eraketatik* Estatuaren inguruko problematikara” (1978: 47). Bere ustez, 1926ra bitarte hegemonia proletalgoarentzat alternatiboa izango zen estrategia bat adierazteko baliatzen zen; hortik aurrera, hegemonia Estatu egiturei erreferentzia egiteko baliatuko da.

ikuskeraren eremu sozial ezberdinetan (artean, zuzenbidean, ekonomian, ...) arrakastaz zabaltzea izango du helburu. Hori izango da ariketa hegemonikoaren funtsa. Baina horretarako lehenago filosofoek jendarte zehatz batean nagusi edo normalizat hartzen den sen on horren kontra egin beharko dute.

“La filosofía tiene inevitablemente que presentarse al principio con actitud polémica y crítica, como superación del anterior modo de pensar y del concreto pensamiento existente (o mundo cultural existente). Por tanto, y ante todo como crítica del sentido común” (Sacristán; 1978: 371)

Hortaz, filosofiaren adiera abstraktuetatik ihes eginez, filosofia gramsciarrak (edo praxiaren filosofiak) ezinbestean masen pentsamendurekin lotuta egon beharko du. Adiera hau erlijioak zabaltzen duen pentsamendutik ezberdindu du. Izan ere, erlijioak masen eta intelektualen arteko pentsamoldea ezberdintzera jo baitu, lehenengoek bigarrenengoaren kategoria intelektualera iristea ekiditeko. Gramsciren ikuspegiarekin aldez, masen mundu ikuskera intelektualen pentsamenduren kategoria *igotzeko* ahalegina egingo da, eliteen filosofia eta jendartearen sen ona sintonian jartzeko helburuarekin. Edota, bere hitzetan, “masaren garapen intelektualaren ahalbideratuko duen *bloke moral-intelektuala* sortuz” (Sacristán; 1978: 372).

Ariketa hau masen kontzientzia hartzearekin lotu zuen. Izan ere, Gramsciren ustez, masek bi kontzientzia teoriko izango dituzte: lehenengoa, masen *ekintzarekin* harremana duena, eta errealitatearen eraldaketa prozesuan dauden gainontzeko lagunekin lotzen zuena; eta bigarrenengoa *hitzeko*, iraganetik inongo kritikarik gabe barneratu zuena. Lehenengoak jendartearen eraldaketarako grina jasoko du; bigarrenengoa indarrean den status-a egonkortzera joko du. Bere ustez, arazoa bigarrenengoa lehenengoari nagusitzen zaionean etorriko da, honek aipatutako auto-kontzientzia ariketa baldintzatu dezakeelako.

“La comprensión crítica de sí mismos se produce, por tanto, a través de una lucha de “hegemonías” políticas, de direcciones contradictorias, primero en el campo de la ética, luego en el de la política, hasta llegar a una elaboración superior de la concepción de la propia realidad. La consciencia de ser parte de una determinada fuerza hegemónica (o sea, la consciencia política) es la primera fase ulterior y progresiva de autoconsciencia, en la cual se unifican finalmente la teoría y la práctica” (Sacristán; 1978: 373).

Bi kontzientzia horien arteko harremana gatazkatsua izango da, ez du bilakaera lineala izango eta bere emaitza denboran zehar luzatu daiteke. Momentu batera arte jendarte batean nagusi den sen onarekiko ematen den bereizketa prozesua, hasiera batean “era intuitibo” batean emango da, auto-kontzientziario ariketa etikoaren bitartez. Hori bai, “munduaren ulermen koherente eta bateratu batera” iritsi beharko da; funtsean, lehia hegemonikoaren ardatz bilakatuz. Hau da, prozesu honen bilakaeraren lehenengo urratsak norbanakoen kontzientzia *etikoak* gidatu beharko badu ere, ondorenean, honen zabalpenaren bidez, izaera *politikoa* hartuko du, jendartearen antolaketaren oinarrietara zabalduz.

Aipatu dugu Gramsciren mundu ikuskera edo sen on berriaren zabalpenean intelektualek jokatu behar duten papera. Horrekin batera, jendarte modernoetan *alderdi politikoek* ere jokatzeko duten funtzioa nabarmendu zuen. Alde horretatik, Gramscik alderdiari egozten zion masen zuzendaritzaren funtzioa pentsamendu marxistaren baitan ez da ezer berria izango. Berak planteatuko berrikuntza, langileen interesetatik harago, alderdi politikoak “borondate kolektibo nazional-popularra” ordezkatzeko beteko lukeen funtzioetik letorke. Hortaz, langileen alderdiaren nagusitasuna ez letorke jendartearen gehiengoa osatuko lukeen langileriaren zabalpen kuantitatibo baten eskutik, gainontzeko sektore sozialek beraien burua eta interesak alderdiarengan eta bere interesengan identifikatzetik baizik¹³. Horregatik alderdiaren izaera irekia eta itxi-gabea aldarrikatuko du¹⁴.

La questione meridionale (1927) lanean planteatu bezala, irekitasun hau proletarioaren nagusitasunaren gainean eraikiko du, beti ere, honek “kapitalismoaren eta Estatu burgesaren aurkako *klase aliantza sistema*” bat eratzeko gaitasuna duen heinean. Bere garaiko Italiako egoerari erreparatuta, aliantza hau nekazalgoarekin elkarlan iraunkor batetik pasatzen zen, “hauen eskaerak bere trantsizio programa iraultzailean txertatuz” (Sacristán; 1978: 192). Baina *eskaren gehiketa* huts batetik harago, Gramsciren hegemoniaren ereduak klase sozialen identifikazio prozesu oso bat oinarri duela aipatu dugu, non alderdi politikoak “aliatuak, eta kasu batzuetan, arerioak diren talde

¹³ Identifikazio prozesuen ildo honetatik, Gramscik Machiavelliren *Printzearekin* egiten duen parekatzea nabarmentzeko da. Machiavelliren *Printzearen* lana borondate kolektibo baten inbestidura prozesu gisa irudikatuko du, non jendartearen gehiengo batek bere borondatea Printzearen borondatearekin identifikatuko duen. Printzea “dispertsatutako herri baten borondate kolektiboa piztu eta antolatzeko sortzen den fantasia zehatz gisa” proiektatuko du (1980: 10). Gramscik XVI. mendeko figura hau bere garaira egokituko du, *Printze modernoa* alderdi politikoarekin parekatuz (1980: 13).

¹⁴ Alderdiaren irekitasunaren hausnarketa hauek oso presente egongo dira, IAKren ordezkari gisa III. Internazionalaren deialdietara Moskura egindako bidaietan, Komitern-eko kideekin izandako elkarrizketetan. Gramsciren hitzetan, bertako ordezkari guztiek bere ikuspegiarekin bat egingo zutelarik, IAKren zuzendaritzan zegoen Amadeo Bordigaren jarrera itxiaren aurrean.

sozialen onespena” ere landu beharko duen (Gramsci, 1980: 29). Finean, hegemonia berri bat gauzatu nahi duen nortasun berriaren eraikuntza subjektibo, politiko eta ez-determinatuaz ari gara.

1.3.4.3 Jendarte zibila eta jendarte politikoa

1.3.4.3.1 Jendarte zibila.

Gramscik kontzeptu hau erabiltzeko orduan Hegeli eta Marxi erreferentzia egingo die, baina bi hauen eta lehenengoaren arteko erabilera oso ezberdina izango da; bai bakoitzaren pentsamenduan izandako garrantziari dagokionez, baita bakoitzak emandako adieragatik ere. Marxentzat jendarte zibila epealdi zehatz bateko estruktura ekonomiko eta soziala litzateke; Hegelek jendarte zibilaz egiten duen azalpenarekin lotuta legoke, harreman ekonomikoen eta klase sozialen formazioa biltzen duen gune gisa (Sacristán; 1978: 290-291, 315-316). Gramsciretzat aldiz, gainegituraren parte den heinean zeharo ezberdina litzateke. Eredu *privatuan* kokatu ohi diren organismoen multzoa litzateke, talde dominatzaileak jendarte osoan eragiten duen hegemonia funtzioarekin lotura zuzena lukeena. Honekk gainera, jendarte zibilaren kontzeptuari *adiera etikoa* emango dio, talde sozial batek jendartearen osotasunarengan sortzen duen hegemonia kultural eta politiko gisa ulertuz; honek Estatuari (jendarte politikoiari) *eduki etikoa* edo nagusitasun morala emango diolarik (Portelli; 1982: 14-15). Hortaz, Gramsciren jendarte zibilak, Marxek aldarrikatu zuenarekiko berezko ezaugarriak eta jatorrizko ikuskera izan zuela baieztatu dezakegu.

Gramscik jendarte zibila ideologiarekin parekatzera jo zuen. Alde horretatik, jendarte zibilak bere pentsamenduaren baitan adiera oso zabala hartzera joko du, gainegituran kokatzen den jendartearen esparru ezberdinen (arte, zientzia, zuzenbidea, ...) *osotasuna* bezala edota izaera *oroharapatzailea* emanaz. Jendarte zibilaren barne artikulazioan, talde zuzentzaileari euskarri eskainiko dion *estruktura ideologikoaren* garrantzia nabarmenduko du, “fronte teoriko eta ideologikoaren defentsa eta garapena helburu duen erakunde material gisa” (Portelli; 1982: 23). Estruktura honek funtsezko lau zutabe izango ditu: alderdiak, eskola, komunikabideak eta eliza. Hauek ideologiaren zabalzaileak izango dira. Hauekin batera bere baitan “frakzio kulturala” duten erakundeak ere aurkitu ahal izango ditugu (epaileak, armada, ...); ideologia nagusiaren zabalpenean edo egonkortzean maila bateko eginkizuna izango dutenak, baino lehenengo lauak izango dira estruktura ideologikoaren euskarri nagusiak.

Ideologiaren osotasun honetan, Gramscik lau maila ezberdin bereiziko ditu, maila gorenean kokatuko litzatekeen *filosofiatik* hasita, eta apalenean legokeen *folkloreraino*, bitarte horretan *sen ona* eta *erlijioa* kokatuz.

Filosofia “munduaren ezaugarritzearen mailarik garatuena litzateke; oinarrizko klasearen¹⁵ ondorio diren ideologiaren ezaugarriak argien azalarazten duen” jakintza eremua nolabait esateko (Portelli; 1982: 20). Alde horretatik, filosofiak mundu ikuskera zehatz horrekiko (ideologia horrekiko) koherentzia maila altuena mantenduko luke. Zentzu horretan, filosofia eta historiaren arteko identifikazio maila bat ere emango litzateke; biek, talde zuzentzaileak epealdi zehatz baten gainean duen ikuspegia islatzen duten heinean. Hari horretatik tiraka, filosofiaren eginkizun nagusia menpeko klaseen artean mundu ikuskera zehatz bat zabaltzea izango da, gutxi batzuen arteko ikuskera izatetik (filosofoena) jendarte osoarena izatera igaroz; hau da, *sen ona* bilakatuz.

“Goi mailako” filosofia honen eta jendartean nagusi den *sen onaren* arteko lotura politikak bermatu beharko luke, horretarako eskura dituen bitarteko ezberdinekin. Baina politikaz gain, historian zehar *erlijioak* ere lotura funtzio hau beteko du (XX. mendeko Gramsciren testuinguru horretan, askotan politika baino era eraginkorragoan). Erlijioaren kategoria honetan, aitzinako sinismenak, sineskeriak eta bestelakoak kokatuko lituzke. Aro modernoan, aldiz, sistema berriaren eraikuntzan erlijioak eta politikak talka egingo lukete; politikaren eginkizuna, erlijioaren aldagai hauek sistema berriaren barne koherentziarako sortu dezaketen distortsioaren aurrean, gutxieneko koherentzia bat ematea izango litzatekeelarik. Eta ideologiaren mailarik apalenean *folklore*a aurkituko genuke. Ikuspegi xelebreetatik harago, Gramscik *folklore*a “mundua ikusteko era” bezala definituko du, eta hortik bere garrantzia; bere izaera landugabea eta inkoherentea izango bada ere. Azken bi ezaugarri hauek (erlijioa eta *folklore*a) “herriak landutako, (baina) sistematizatutako eta politikoki antolatu eta zentralizatutako ikuskerak garatzeko ezintasunetik letorke” (Portelli; 1982: 22), hortik filosofoen eta politikaren esku sartzearen beharra.

1.3.4.3.2 Jendarte politikoa.

¹⁵ Nabarmendu dezagun hemen, Gramscirentzat soilik *oinarrizko klase* bati lotutako ideologiak (ideologia *organikoak*) izango direla funtsezkoak (Portelli; 1970: 18). Soilik ideologia organikoek munduaren gaineko ikuskera oso bat izango dute.

Jendarte zibilaren kontzeptuarekin alderatuta, Gramsciren pentsamenduan jendarte politikoak lanketa gehiegirik ez du izango. Honen arrazoia marxismo klasikoaren arreta nagusia jendarte politikoak ordezkatzeko duen Estatuaren aparatuek kokatzean legoke, jendartearen zuzendaritza ideologiko eta kulturalen baina. Honek ez du esan nahi Gramscirengan jendarte politikoaren inguruko definizioak aurkituko ez dugunik. Horietatik gehienek gainegituraren kokatzearen diren ekintza bildumaren *hertsadura funtzioa* nabarmenduko dute. Zentzu honetan, jendarte politikoa jendarte zibilaren luzapena litzateke; bere ustez, jendarte politikoak ordezkatzeko duen “une politiko-militarra” zuzendaritza ekonomiko eta ideologikoaren luzapena eta zehaztapena baina ez litzateke izango.

“Así como en el esquema gramsciano el control de la sociedad remata en la conquista del poder político, así también la sociedad política no debe jugar sino un papel secundario en el sistema hegemónico” (Portelli; 1982: 28).

Jendarte politikoaren funtzioa ezarritako ordenamendua hertsaduraren edota bortxa bidezko zaintzaren bidez bermatzea litzateke. Alde horretatik, jendarte politikoa Estatuarekin parekatzerara jo dezakegu.

Gendarme funtzio hau bi unetan bete beharko luke. Ohikoena, talde zuzentzailearen gidaritza onartzen ez duten talde sozialen kontrolari legoke. Bertan, indarrean dagoen hegemonia ez legoke kolokan. Horrela, talde zuzentzaileak bere dominazioa mantendu eta sistema honetatik kanpo dauden sektoreak kontrolpean izateko hertsadura baliatuko luke. Bigarren egoera salbuespenezkoa litzateke, gerora sakonduko dugun *krisi organiko* garaiekin lotuta dagoen heinean. Bertan, ordura arteko sistema hegemonikoa kolokan legoke. Talde zuzentzaileak bere dominazioa eta jendarte zibilaren gaineko kontrola mantendu ahal izateko jendarte politikoa baliatuko luke.

Jendarte zibilean bezala, jendarte politikoan ere intelektualak leudeke baina Estatu aparatuen hertsadura mekanismoak egikaritzera zuzendutako funtzio espezifikoekin. Hauek *burokratak* lirateke, aipatutako funtzioak egikaritzeko jendarte politikoak izan beharreko ezinbesteko osagai gisa. Kasu batzuetan, talde zuzentzaile berriek aurreko sisteman hertsadura mekanismo hauek gauzatzen zituzten sektore berberengan kokatzearen dituzte eginkizun hauek, *kasta* berezitua bihurtzeraino. Sistema hegemoniko batetik bestera mantentzen diren kasten estratu hau, sistema gehienetan moral berrietara egokituz “mertzenario” funtzioa betetzen duen sektore soziala izango litzateke.

1.3.4.3.2 Estatuak, jendarte zibil eta politikoaren arteko harremanaren emaitza gisa.

Jendarte zibil eta jendarte politikoaren arteko bereizketa, hots, kontsentsua eta hertsaduraren artekoa, elkarlotutako batasun dialektiko baten baitan ulertu behar da. Gainegituran elkar harremanean jarduten duten bi jendarte hauen arteko banaketa ez litzateke organikoa, egoeraren arabera klase zuzentzaileak bata edo bestea baliatuko du bere domeinua mantendu ahal izateko. Hortaz, banaketa hau neurri handi batean metodologikoa dela esan dezakegu.

Gramscik anibalentzia hau *Estatuaren* kontzeptuarekin osatu zuen. Izan ere, jendarte politikoaren eta jendarte zibilaren arteko baturak Estatuak osatuko luke; diktadura eta hegemoniaren arteko gehiketa. Hortaz, Estatuak hiru ezaugarri barnebilduko lituzke: a) bloke historikoaren dimentsio intelektual/morala eta politikoa/hertsadurazkoa biltzea; b) bi elementu hauen arteko oreka artikulatzea; eta c) bi elementu hauen arteko bateratzea intelektualen eskutik egitea (Portelli; 1982: 34). Zentzu honetan, Gramscik Estatuak prozesu sozial baten emaitza gisa irudikatzen zuela esan dezakegu; botere harreman ezberdinen kristalizazio unea, baina aldi berean, bizirik dagoena, dinamikoa dena, eta alde horretatik, moldagarria ere badena.

Funtzio bakoitza garatzeko batean edo bestean kokatuko liratekeen erakunde edo aparatuen bereizketa ere ez da uste bezain argia izango. Mugen anibalentzia horren erakusle garbia legebiltzarrak lirateke; legeak formulatzeko jendarte politikoaren instituzio direna, baina aldi berean, jendarte zibilaren iritzi publikoaren bozgorailu ere badirena.

Uztarketa eta oreka hauez harago, Gramscik jendarte zibilaren egituratzeak duen garrantziaren aldeko desoreka argiki egin zuen, batez ere garatutako mendebaldeko jendarte konplexuetan. Izan ere, ideologikoki trinkotutako jendarte zibil bat, balizko krisi organiko edota erasoaldi diktatorialak ekiditeko antidotorik eraginkorra izango baita. Dimentsio kulturalaren nagusitasun hau marxismo klasikoaren baitan horren errota zegoen *estatuzaletasunaren (estadolatría)* arriskuari kontrajarriko dio. Estatuak bere baitan duen botere politikoaren erabilerak fase historiko zehatz batean bete dezakeen funtzioaren garrantzia nabarmentzen badu ere, gerora estalinismoak hartutako bideak ikuspegi ia profetiko batean aurreikusiz, Estatuak bere horretan helburu bihurtzeak duen arriskuaz ohartuko duelarik.

Jendarte zibilari emandako nagusitasun honen beste erakusleetak bat Estatuaren desagertzeari emandako tartea litzateke. Berez ekarpen honek pentsamendu marxistari aparteko berrikuntzarik ekarriko ez bazion ere, Gramscik bere termino eta kontzeptuetara egokitu zuen. Horrela, jendarte zibilak jendarte politikoa “xurgatzeko” aukeraz mintzoko da (Portelli; 1970: 42). Egoera hau klase zuzentzaileak jendartearen gehiengoa ordezkatzeko duenean emango da, baina batez ere klase honek ideologikoki talde sozial gehienak zuzentzeko gaitasuna erakusten duelako emango da. Bere interesak guztion interes gisa proiektatzeko gaitasuna erakutsiz, sistematik kanpo leudekeen sektoreen gaineko kontrola bermatzeko hertsaduraren beharrik ez luke izango. Ikuspegi honek pentsalari sardiniarrak marxismo tradizionalaren baitan azpimarratu nahi izan zuen dimentsio etiko eta moralaren erakusle litzateke, konbentzimenduaren bitartez errepresio eta hertsadurarako mekanismoen balioa bigarren maila batean kokatuz.

1.3.4.4 Mugimendu gerra eta posizio gerra.

Gramsciren lan guztian zehar, bere pentsamendu sozial eta politikoa eraikitzeko esparru militarreko hizkuntza eta kontzeptuak oso presente egongo dira. Izan ere, I. go Mundu Gerraren bizipenak, XX. mende hasierako Alemaniako saiakera iraultzaileak edota Errusiar Iraultzaren zuzeneko azterketak ez dira eragin makaleko gertakariak izango. Hala ere, Gramscik irudikapen militarra “metaforizatzen” saiakera egingo du, ideia hauek bere zentzu literalarekin talka eginez (Dallmayr, 2008: 69). Kontzeptu horien artean nabarmenetakoak *mugimendu gerra* eta *posizio gerra* izango ditugu. Estrategia militarretatik hegemoniaren eraikuntzaren estrategia politikora ekarritako paralelismo gisa.

Bi kontzeptu horietatik lehenengoa ilustratzeko (*mugimendu gerra*) Rosa Luxemburgori erreferentzia egingo dio; zehazkiago, *Huelga de masas, partido y sindicato* (1906) liburuari. Gramscik, ekintzaile alemaniarrek zuen ikuspegi ekonomizista eta espontaneistarekin bat egingo ez badu ere, mugimendu gerraren adiera politikoa azaltzeko alemaniarrek egindako saiakerarekin bat egingo du. Tropek, normalean ezusteko gertakari bat baliatuz, boterea eskuratzeko egingo luketen mugimendu azkarra eta erabakitzailea izango litzateke. Azkartasun eta determinazio honek etsaiaren lerroen artean nora eza sortu beharko luke, horrelako kolpe baten ondorioz boterean dauden estamentuen aldaketa errotik emango litzatekeelarik. Taktika militar hau bataila politikora ekarriz, aldagai ekonomikoak berebiziko pisua izango luke: “berehalako elementu ekonomikoa (krisia edo

dena delakoa) etsaien defentsan arraila irekiko duen artilleria bezala hartua izango da, norberaren tropak etsaiaren lerroetan sartzeko aukera emango duena behin betiko garaipen azkar bat lortuz” (Sacristán; 1978: 419). Estrategia hau garatzeak norberaren lerroen artean gaitasun politiko nahikoa izango duten koadroak egotea eskatzen du, horien eskutik jendartean ordura arte egondako nagusitasun ideologikoa ordezkatu eta berria zabaldu ahal izateko. Baina kasu askotan mugimendu gerraren aldeko hautua egiterakoan ez ziren baldintza hauek betetzen. Alde horretatik, Gramsciren ustez, horrelako estrategien balizko *garaipen automatikoaren* ustea determinismo ekonomizistaren ondorio kaltegarria baino ez litzateke.

Estrategia honi *posizio* edo *lubakien gerra* kontrajarriko dio, zeinak edozein gerrateetan sortu behar diren lubakiez gain, borrokan ari den armadaren atzean kokatzen den antolakuntza eta industria sistema osoarengan arreta jartzen duen; lehenengo lerroan daudenak etengabe hornituko lituzkeenak. Mugimendu gerran ez bezala, gerrarako frontea ez legoke puntu zehatz batean kontzentratua egongo, frontea bera gako ezberdinen luze zabalean lerratuko litzateke, horretarako behar den koadro gaituen kopuru altua beste bereizgarri bat izanik. Posizio gerrak indarrean dagoen hegemoniari euskarri lana egiten dioten eremu guztiak erasotu beharko ditu, jakinda, sistema bera eusten duten zutabeak sendoak baldin badira lan hau neketsu eta luzea izango dela. Lubakien gerra garapen prozesuan zeuden mendebaldeko jendarte konplexuetan eman beharreko estrategia litzateke, non indarrean den sistema hegemonikoak bere babeserako eta garapenerako beharrezkoak diren bitartekoak eskura izango dituen (eskola, eliza, ...):

“La misma reducción hay que practicar en el arte y en la ciencia de la política, al menos por lo que hace a los Estados más adelantados, en los cuales la sociedad civil se ha convertido en una estructura muy compleja y resistente a los “asaltos” catastróficos del elemento económico inmediato (crisis, depresiones, etc.): las sobreestructuras de la sociedad civil son como el sistema de trincheras de la guerra moderna. Así como en ésta ocurría que un encarnizado ataque artillero parecía haber destruido todo el sistema defensivo del adversario, cuando en realidad no había destruido más que la superficie externa” (Sacristán; 1978: 421).

Gramscik honekin ez du mugimendu gerraren balioa ezer ezean utzi nahi izango, bera eta posizio gerra noiz eta nola martxan jarri behar denaren inguruko eztabaida izango da mahai gaineratu nahi izan zuena. Bata edo bestea martxan jartzerakoan jendartearen bereizgarriak aintzat hartu beharko dira. Horrela, zeharo ezberdina izango da jendarte zibil antolatu eta indartsu bat presente dagoenetan eta ez dagoenetan. Azken hauetan, boterean dagoen klase zuzentzaileak, hegemonia

kulturalik gabe, hertsadura mekanismo soilen bitartez jendartea kontrolatzen duenean, baldintza egokiak egonez gero (krisi ekonomikoa, ...), mugimendu gerrak errez apurtu ahal izango ditu klase nagusiaren babes harresiak eta berau ordezkatu. Klase nagusiak bere hegemonia zabaldu eta jendarte zibilarengan horren arabera identifikazioa lortu duenetan, aldiz, horrelako estrategiak nekez izango dira eraginkorrak. Jendarte zibil trinkotueta mugimendu gerra bigarren mailako borroketan martxan jarri beharko da, “hegemoniaren bitartekoak martxan jarri behar ez diren” horietan (Portelli; 1982: 141).

Posizio gerrak, aldiz, bataila erabakitzaileetan garatu beharko dira. Mugimendu gerra ez bezala, ez da azkarra izango, pazientzia eta iraunkortasuna eskatuko du, desgaste handikoa izango da eta bertan irabazitako milimetro politiko bakoitzak bere urrezko pisua izango du. Funtsean, indarrean dagoen hegemonia deseraikitze helburua izango du eta horrek maila eta esparru ezberdinetako inplikazioa eskatuko du. Hortaz, ez da egun batetik besterako bataila izango. Portelliren hitzetan, “mendebaldeko sistema hegemonikoen krisi organikoaren iraupen luzeak akats txikiena aprobeztatu edo eragingo duen erakunde politiko eta ideologikoa eskatzen du” (1982: 146). Horretarako etsaiaren bloke ideologikoa ahuldu eta norberarena indartu beharko da. Baina estrategia hau ez da geldotasun politikoarekin nahastu behar. Indarrean dagoen hegemoniaren krisia leher-arazteko eta aprobeztatze prestaturia egotea eskatzen du, horretarako alde aurretik eman beharreko lanketa handia izanik.

Zentzu honetan, Gramsciren hizkerari erreparatuta lehenengo inpresio batean irudi lezakeenaren kontra, honek marxismoaren imaginarioan militarismoak zuen pisua maila batean behintzat aldarazi zuela esan daiteke. Leninekin “politikaren militarizazioa” eman zela esan badaiteke, Gramscirekin “gerra desmilitarizatuko” da.

Azkenik, Gramscirentzat bataila honen joko zelaia *nazionala* izango dela aipatu behar dugu. Hortaz hegemoniaren eraikuntzak *popularra* izan behar duen bezala, *nazionala* ere izan beharko du. Ikuspegi honek hainbat eztabaida sortuko ditu marxismoaren baitan horren errota egongo den ikuspegi internazionalistarekin eta Trostkyk defendatutako *iraultza iraunkorrarekin*. Gramscirentzat, langileen borrokarako eremu *erreal* nazionala izango da (Buci-Glucksmann; 1978: 338), langileen arteko oinarrizko identifikazio prozesuak bertan sortzen diren heinean.

1.3.4.5 Krisi organikoa.

Gramscik, *Notte sul Maquiavelli* lanean, “talde sozial ezberdinak, bere bizitza historikoaren unerren batean, beraien alderdi tradizioaletatik banatzen direla” ohartarazten digu. Bere ustez, “alderdia zuzentzen duten pertsonak jada ez dira beraien klasearen adierazpen gisa aitortzen” (1980: 62). Hortaz, identifikazio prozesu batean ematen den krisiaz ari gara. Baina ze aldagaiak parte hartzen dute krisi honen sorreran?

Gorago gainegitura eta egituraren arteko harremanaren izaera organikoa aipatu dugu. Horrela, gainegituran kokatzen den talde zuzentzaileak, egituran ematen diren aldaketan eraginez (ekoizpen prozesuari lotutakoak, demagun) talde sozial ezberdinetan ematen diren eraldaketak (klase ertainen sorrera, esaterako) zuzentzeko gaitasunik erakusten ez duenean “jendarteari kohesioa eta hegemonia ematen dion bloke ideologikoak sakabanatzera joko du” (Portelli; 1982: 121). Sakabanaketa hau egitura eta gain egituraren arteko harreman organiko hori apurtzen denean emango litzateke. Hau da, maila ekonomikoan emandako aldaketak asetzeko indarrean den jendarte egitura baliagarria ez denean. Edozein kasutan, Marxen irakaspenak aintzat hartuz, Gramscik bere bizitza forma guztiak agortu ez dituen jendarte bat ez dela desagertzen azpimarratuko du. Hortaz, bloke ideologikoaren baitako pitzadura hauek ez dituzte bere horretan jendartearen erabateko eraldaketa era automatikoan ekarriko. Baina Portellik dioen bezala, momentu batera arte nagusi izan den mundu ikuskera edota hegemonia kultural horren krisia, krisi organikoaren funtsezko ezaugarria izango da.

Intelektualek talde zuzentzailearen eta masen arteko lotura funtzioa bermatu ezin dutenean bera areagotuko da, beraien interesak ordezkatuak ikusi dituzten alderdi politikoekiko identifikazio prozesua ahulduz. Pixkanaka krisian dagoen hegemoniaren euskarri izan diren bestelako estamentuetara zabaltzen joango da (prentsa, ...), menpeko klaseak izan direnak ideologia tradizioaletatik aldentzen joango direlarik. *Autoritate krisi* baten aurrean kokatuko gara, talde zuzentzaileak masa bideratzeko ohiko modua izan behar duen kontsentsurako gaitasuna bigarren maila batean gelditzen joango delarik, dominazio hutsaren mesedetan.

Portelliren hitzak baliatuz, Gramsciren krisi organikoa honela definitu ahal izango dugu:

“La crisis orgánica es una ruptura entre la estructura y la superestructura, es el resultado de contradicciones que se han agravado como consecuencia de la evolución de la estructura y de la ausencia de una evolución de la superestructura” (1982: 121).

Beraz, krisi organikoa bi egitura mailen arteko deskoordinazio edo desorekatze gisa definitu ahal izango dugu, non gainegituraren eraikuntza hegemoniko kulturalak egiturak definitzen dituen aldaketetara ez den egokitzen. Maila ezberdinen arteko egokitzeak prozesu luzeak izan daitezke; hortik hegemonia ezberdinen arteko trantsizioa azaltzeko baliatu izan duen esan ezaguna: “Il vecchio mondo sta morendo. Quello nuovo tarda e comparire. E in questo chiaroscuro nacono i mostri”.

Aipatu dugu ere Gramsciren pentsamenduan ematen den joera anbibalentea gainegituraren nagusitasuna aldarrikatzeko orduan. Arestian azaldutako krisi organikoaren jatorria egituran kokatzea horren erakusgarri litzateke. Hala ere, krisiak ere gainegituran propioki hartzen diren erabaki okerren ondorio ere izan daitezkeela ohartaraziko digu (Portelli, 1982: 63). Ildo horretan, Gramscik bi aukera nagusi planteatzen dizkigu: lehenengoa, atxikimendu nazionala eskatzen duen eginkizun politiko batean zuzendariak porrot egiten dutenean¹⁶; eta bigarrenkoa, menpeko klase eta bere intelektualen politizazioa eta ondorengo eszisia ematen denean. Egoera hauetan krisiaren izaera ez da organikoa izango, menpeko klaseen bat-batekotasun joerekin lotuta egongo da eta hauek talde zuzentzailea boteretik bota eta berau eskuratzen badute ere, beraien egonkortasuna hauskorra izango da egituran emandako aldaketetan oinarritzen den hegemonia berri bat eraiki ezean.

Mugimendu hauek gain-estrukturalak izango liriteke, baina ez krisi organikoak. Portelliren sailkapenari jarraituz lau motatakoak bereiziko ditugu: a) lehenengoak *abaguneko mugimenduak* (*movimientos de coyuntura*) izango liriteke, zeintzuek egituraren mugimenduei lotuak egon arren, bilakaera historikoaren ikuspegitik garrantzirik ez luketen (sistema politikoaren egonkortasun orokorra zalantzetan jartzen ez duten egunerokoaren gaineko azaleko kritikak liriteke); b) egituraren mugimenduekin loturarik ez luketen talde zuzentzailearen ordezkari politikoen akatsak (joko politikoaren baitako kalkulu akatsak, nolabait esateko); c) gainegituraren barne berrantolatzeari lotutakoak (estrukturarekin lotura zuzenik ez izan arren, mugimendu irrazionalak ez direnak); eta d) lotura organikorik ez duten ideologia arbitrarioak (1982: 50-52). Lau hauek gain

¹⁶ Honen adibide izan daitezke XVIII eta XIX. mendeetan Europan zehar horren ugariak izan ziren gerrateak aurrera ateratzeko gobernariak herritarrei eskatzen zizkieten esfortzuen aurrean (zergen hazkundea, soldadutzarako deialdiak, ...) bi hauen artean sortu ohi ziren banaketak eta desadostasunak.

egituran eman daitezkeen azaleko mugimenduekin lotura lukete. Momentu batean egituraren baitako indar korrelazioan hainbat aldaketa ekarri baditzakete ere ez dira erabakitzailleak izango edota ez dute aldaketa organikorik ekarriko, egituran ematen den bilakaerarekin lotura zuzena ez duten heinean. Horregatik gain egiturako krisi hauek ez dute indarrean dagoen hegemonia kolokan jarriko.

Krisi organikoa, aldiz, hegemonia krisia izango da, eta ondorioz, nagusiki jendarte zibilaren antolaketan eragina izango du. Krisian dagoen hegemoniari eta antolamendu sozialari eusteko, klase zuzentzailea, jendarte politikoaren kontrolaren bitartez, klase dominatzailea bilakatzen joango da; hau da, hertsadura mekanismoen bitartez, dominazioa nagusituko da kontsentsuaren kaltetan. Zuzentzaileek Estatu aparatua menpeko klaseen zuzendaritza zapaltzeko eta beraien intelektualengandik bereizteko baliatu beharko dute. Baina sistema egonkortu nahi badu, honakoa momentuko erantzuna izan beharko da, iraupen luzeagoko erantzunak bilatu beharko dituelarik. Lehenengo aukera, jendarte zibilaren berrantolaketa izango da. Klase zuzentzaileak, eremu ezberdinetan barreiatutako intelektualak berera hurbilduz, bera erreformatu ahal izango du. Horretarako, sistemaren babesle diren klase laguntzaileekin harremanak berrantolatu beharko ditu, beraien eskaeretako batzuk barneratuz, eta beharrezkoa bada talde zuzentzaileak ere hainbat sakrifizio eginez.

“La solución orgánica de la crisis implica, por lo tanto, el uso combinado de la hegemonía -respecto de los grupos auxiliares y aliados- y de la coerción -respecto de los grupos enemigos-. El sistema permanecerá hegemónico o se volverá dictatorial, según el peso que adquieran ambos” (Portelli; 1982: 129).

Krisi organikoaren kudeaketa honetan agertuko den beste aukera edo bidea *zesarismoa* izango litzateke. Bertan, karisma handiko figura batek nagusitasuna hartzen du, bi sektoreen arteko indar harremanetan bata zein bestea ezin delako nagusitu. Zesarismoa aurrerakoia edo atzerakoia izan daiteke, segun eta gizateriaren bilakaera eszenatoki berri bat irekitzeko balio duen edota indarrean egon den status bat iraun-arazteko bada. Lehenengoaren adibide historiko gisa Cesar edota Napoleon I.goa kokatu daitezke; eta Napoleon III.a edota Bismarck bigarrenaren erakusle. Edozein kasutan, logika zesaristak, hirugarren espazio bezala, iraupen laburra izango luke. Uneren batean hegemonia zaharraren edo berriaren aldeko indarrek balantza desorekatzeko bitartekoa bilakatuko baitute, zesar modernoaren figura hau desagertuz.

Azkenik, krisi organikoaren iraupenari dagokionez, Gramscik hamarkadetan zehar luzatu ahal izango dela aipatzen du. Esan dugun bezala, krisi organikoaren jatorrian gainegitura eta egituraren arteko desegokitzea egongo da. Krisi hau denbora luzez luzatzen denean, egituraren baitan kontraesanak garatu eta indar politikoak (muga batzuen baitan) egitura mantentzeko ahaleginak egiten ari direnaren sintoma izango da. Hortaz, luzapen hau gainegituraren status quo-aren aldeko indarrek hegemonia zaharra mantentzeko egiten ari diren ahaleginen ondorio izango da (Gramsci, 1980: 61).

1.3.4.6 Hegemonia berriaren eraikuntza.

Sistema hegemoniko berri baten eraikuntzarako inflexio puntua krisi organikoaren lehertzea izango dela aipatzen ari gara. Edozein kasutan, *zahar* eta *berriaren* arteko haustura hau ezin izango dugu une puntual bat bezala ulertu. Egituraren krisiaren bilakaeraren arabera garatzen joango da.

Gainera hegemonia berriaren kronometroa ez da krisi organikoarekin martxan jarriko. Gramsciren ustez, menpeko klaseek alde aurretik lan handia egin beharko dute beraien zuzendaritza politikoa eta ideologikoa eraikitzen eta antolatzen. Alde horretatik, talde zuzentzailearekiko desabantaila nabarmena izango dute, azken honek Estatuak ematen dituen bitarteko guztiak kontrolatzen dituelako (jendarte zibila + jendarte politikoa), eta gainera, kasu gehienetan menpeko klaseen artean nagusi diren intelektualak talde zuzentzailearenak direlako.

Edozein kasutan, menpeko klaseak eman beharreko lehenengo urratsa sistema hegemonikotik *banatzea* izango da. Banaketa prozesu hau nortasun propioaren eraikuntza prozesua litzateke, Marxen irakaspenei jarraituz langileek bere izate historikoaren kontzientzia hartze prozesu progresiboa litzateke (Sacristán, 1978: 38). Horretarako intelektualen funtzioa ezinbestekoa izango da. Baina ez bakarrik hegemonia berria eraiki nahi duen menpeko klaseak bere intelektualak sortzea, baizik eta aldekoak izan daitezkeen bestelako menpeko sektore sozialen intelektualak xurgatzeko gaitasuna izatea ere. Honek hegemonia *zaharraren* aldeko sektoreak ere sistematik banatzea eskatuko du. Hortaz, hegemonia berriak hegemonia zaharraren sektore bat *hegemonizatu* beharko beharko duela esan dezakegu. Zentzu honetan, aipatzekoa da sortu nahi den bloke historiko berriaren ezaugarritzean Gramscik planteatzen duen zurruntasuna, indar berri hau geroz eta

“homogeneoen, trinkotuen eta kontzienteenen izateko”¹⁷ eskatzen duen ahaleginagatik. Nortasunen izaera esentzialista honen desegitea Ernesto Laclaren eginkizun nagusietako bihurtuko da ikuspegi berri bat emanez.

Identitate berri honen eraikuntza prozesuan, Gramscik talde zuzentzailea izatera iritsi nahi duen menpeko klaseak eman beharreko beste bi urrats nabarmenduko ditu: batetik, menpeko klasearen estrategia ordura arte boterean egon den taldearen estrategiarekiko erabat autonomoa eta berritzailea izan beharko du; hau da, ezin izango ditu aurretik baliatutako moldeak erabili, izan ere, molde zahar horiek gainditu beharreko sistemaren isla izango baitira. Bestetik, estrategia honen definizioa bloke historikoaren eta, batez ere, jendarte zibil eta politikoaren azterketa zorrotz batetik abiatu beharko da. Azken ezaugarri honek mendebaldeko jendarte aurreratuetan jendarte zibilak duen aparteko garapenarekin eta heterogeinizazioarekin lotura zuzena izango du. Izan ere, nagusiki Errusiar iraultzan baliatutako estrategiak eta marxismo klasikoan determinismo ekonomikoak izandako eraginagatik, *mugimendu gerraren* zuzen-zuzeneko erasoaren ezaugarritzeak pisu handia izaten jarraitzen zuen garaiko ezkerren mentalitatean. Aipatu dugun bezala, Gramscik mendebaldeko gizarteotan, jendarte zibilaren trinkotze mailagatik, iraupen luzeagoko *posizioen gerraren* strategiaren alde egingo du, honek eskatzen duen jendartearen azterketa sakon eta strategiaren planifikazioa nabarmenduz.

1.3.4.6.1 Hegemoniaren izaera hedakorra eta iraultza pasiboa.

Gramsciren ustez ariketa hegemonikoa ez litzateke langileria botere politikoa edota jendarte politikoaren bitartekoak eskuratzearekin bukatuko. Horrela balitz, talde zuzentzailea Estatuaren aparatu ezberdinak baliatuz, dominazio hutsaren ikuspegi batean erortzeko arriskuan egongo litzateke. Eztabaida hau *proletalgoaren diktaduraren* gaineko zehaztapena eta argipena egiterakoan planteatu zuen. Proletalgoaren diktadura *hedakorra (expansiva)* burgeseriaren diktadura errepresiboarekin kontrajarriko du; hau da, bere testuinguru historikora ekarrita, Mussolinik ordezkatu zuen faxismoarekin (Buci-Glucksmann; 1978: 229). Fondoko afera, talde zuzentzailea (alderdia, liderra edo dena delakoa) eta ordezkaturako sektore sozialen arteko harremanaren nolakotasunean legoke. Proletalgoaren diktadurak boterea mantentzeko, atxikimendu edo identifikazioan oinarritzeko saiakera eginda ere, soilik ordezkutzen zuen sektore sozialaren (langileriaren) eta bere zuzendaritzaren (alderdiaren) interesei arreta jartzen bazion, errepresio

¹⁷ Portelliren lanetik aterata (1982: 137).

bidezko *dominazioa* baliatzen bukatu beharko zuen; erregimen faxista nagusiei gertatu bezala. Horregatik, Gramscik, hegemonia berria mantentzeko bere oinarria etengabe zabaldu eta langileriatik haragoko sektoreek beraien interesak proletalگو eta abangoardiako alderdiaren interesekin identifikatzearen beharra azpimarratuko du.

Horrela Gramscik hegemoniaren hedakortasun hau nagusitzeko proletalگوaren diktaduran zehar ere eman beharreko hainbat ezaugarri planteatuko ditu (Buci-Glucksmann, 1978: 230-232):

- *Behetik gorako* etengabeko mugimendu bat egon beharko da. Proletalگوak zuzenduko duen aliantza sistema batean egon daitezkeen balizko kontraesanak era ez-korporatibo batean gainditzeko gaitasuna erakutsi beharko da, Estatuaren oinarri soziala trinkotuta mantentze aldera.
- Talde zuzentzaileak *lidergo morala edo espirituala* erakutsi beharko du zuzendutako klaseen gainean. Honek jendartearen osotasunaren gaineko babes bermatzea eskatzen du, ikuspegi edo interes partzialak alde batera utziz.
- Ikuspegi etiko honen isla nagusia *abangoardiako alderdiarengan* kokatuko da. Honek praktika burokratiko-militarrak bigarren maila batean utzi beharko lituzke langileriarekin eta masekin izan beharreko harremanetan, kontsentsu eta adostasuneko formak nagusituz.

Hegemoniaren hedakortasuna *iraultza pasiboaren*¹⁸ kontzeptuari ere kontrajarriko dio, non gutxi batzuen errebelazioak (intelektual edota zuzentzaileenak) ez diren “kontzientzia nazional-popularrean zabaltzen eta ekintza kolektiboan bihurtzen” (Gramsci, 1980: 89). Hortaz gain, *hegemoniak* iraultza pasiboak barnebilduko ez lukeen zentzu emantzipatzailea jasoko du. Izan ere, lehenengoak jendartearen gehiengoaren artean ordura arte nagusi izan den mundu ikuskera eraitsi eta *sen on* berri baten gaineko adostasun aktibo bat bilatzen duen bitartean, bigarrenak burgeseriak krisi garaietan bere nagusitasunari eutsi ahal izateko alde ezberdinen eskaera batzuk barneratzeko saiakerari lotuta agertzen zaigu, indarrean den ikuskera hegemonikoa zalantzatan jarri gabe. Zentzu honetan, *hegemoniak* eskaera ezberdinen artikulazioaren bitartez, borondate kolektibo berri baten eraikuntza bilatuko duen bitartean, *iraultza pasiboetan* sistemak eskaera hauek desaktibatzea bilatuko du horietako batzuk barneratuz. Baina esan bezala, hegemoniaren prozesu hau dinamikoa izango da; etengabeko hedatze/mugatze tentsioan egongo da, non eskaera/sektore sozial ezberdinak

¹⁸ Kontzeptu honen zentzua azaltzeko Gramscik Italiaren *Resorgimentora* joko du, burgeseriaren nagusitzea ekarriko zuen sakoneko aldaketarik gabeko aldaketa prozesuaren paradigma lampedusiarra bezala azaltzeko. Iraultza pasibo honen adibide esanguratsuenak 1848 aurreko Italia edo Espainia bera lirateke, zeintzuk, Frantzia ez bezala, *gertaera* iraultzaile burgesik gabe modernizatuko diren. 1848ko krisi organikoa eta gero, honakoa litzateke burgeseriaren ohiko jardun bidea bere nagusitasuna bermatzeko, bortxaren edo bestelako bide iraultzaileak baztertuta.

artikulazio horren baitan behin eta berriro birkokatu beharko diren. Horregatik, prozesua arrakastatsua izateko, hegemoniaren izaera *hedakorra* (sektore berriak irabaziko dituen), bermatzearen beharra.

1.3 Ondorioak

Atal honetan, besteak beste, identifikazio prozesuez aritu gara; *sozialaren* artikulaziorako parte hartzen duten identifikazio prozesu eta mekanismoez, hain zuzen ere. Horretarako, ezkerak (edo marxismoak, nahiago bada), modernizaziotik aurrera botere politikoa eskuratzeko baliatu dituen identifikazio prozesu batzuen ibilbideari erreparatu diogu; batzuk eta besteen indarguneak eta ahulguneak arakatu nahian. Izan ere, marko teoriko honen abiapuntu nagusia, jendartean nagusi edo hegemoniko izango den elkarren arteko identifikazio prozesua botere politikoa ardaztuko duen funtsa izango dela baita.

Baina ezkerak ez du beti botere politikoa identifikazio prozesuekin lotu. Botere politikoa horrela irudikatu duenean ere, identifikazio hori gorpuztu ahal izateko ez du beti marko teoriko aproposik aurkitu. Hori da kapitulu honen hasierako atalean, II. Internazionaletik aurrera marxismoak botere politikoa eskuratzeko proletalgoaren kategoriaren inguruan artikulatu nahi izan zuen nortasun eratze prozesuaren azterketan, arakatu nahi izan duguna. Laclau eta Moufferen ustez, Kautskyren ortodoxiatik hasita Sorelen greba orokorraren mitorra, ezkerak etengabe pareta berdinarekin egin du topo: *ekonomikoren* determinismoak ardaztutako funts esentzialistarekin. Jarraian sakonduko dugun bezala, beraien ustez nortasun sozialen funts eratzaillea, aldiz, ez da determinatua egongo, ez ekonomikotik, ezta aurretik ezarritako beste inongo funtsengatik ere. Funts hori *eraikia* izango da, *politikoa* nahi bada; eta hori da, Gramsciri zor diogun aurkikuntzarik nagusia. Laclau eta Moufferen ustez, horrek Gramsci baino lehenagoko ekarpen intelektuala indargabetuko luke? Hegelek liokeen moduan, inork gutxik zalantzetan jarriko luke marxismoaren eraikuntza prozesuaren izaera *dialektikoa*.

Horrela, gerora zehaztu nahi dugun hegemoniaren adiera *garaikide* edo laclauarraren azalpenerako, atariko azterketa honetan gerora baliagarriak izango zaizkigun elementuen laburbilduma egin dezagun:

- *Modernizazioaren eskutik eman zen jendartearen heteroginizazioaren ondorioz nekez emango da nortasun sozialen itxitura:* Rosa Luxemburgok bere Alemania industrializatu berrian antzematen hasi zen bezala, kapitalismoaren garapenak sektore sozialen sinplifikazioa beharreen, hauen konplexutasuna eta aniztasuna ekarriko zuela inor baino hobeto aurre-ikusi zuen. Konplejizazio prozesu honetan langileen arteko identifikazio prozesua aurrez noiz eta nola emango zen determinatu ezin izango zuen iraultzaren gertaeraren bitartez eman beharko zelarrik;. Hortik, *bat-batekotasunaren teoria* edo *espontaneismoa*. Ildo berdinari, heldu zion Gramscik soziologikoki bi sektore oso ezberdinetan banatuta zen bere Italia industrial eta nekazariaren azterketari ekiterakoan. Garapen industrialak langileriaren nagusitasun kuantitatiboa beharreen, izaera sozial eta ekonomiko ezberdinetako sektoreei bide eman zien, beraien arteko interes ezberdin eta kontrajarriekin. Honek aurre-finkatutako nortasun sozialen dislokazioari atea irekiz.
- *Ekonomikoak ez du sektore sozial ezberdinen nortasuna era automatikoan zertan definituko:* Bernsteinek antzeman bezala, langileriaren (ustezko) lehentasunezko izaera ez da ekonomikoak determinatutako Historiaren berezko bilakaera batetik eratorriko; honen eraikuntza kontingentea litzateke (Laclau&Mouffe, 2004: 64). Hau da, *langile* kategoriarekin identifikatzen diren kideen nortasuna nagusi edo hegemonikoa bilakatzekotan, hegemonia hau hauskorra litzateke; prekarioa eta politikoki eraikia. Bernsteinen kontingentzia honi Sorelek sindikalgintza erradikalari egotzitako borondate artikulatzailearen politikotasun berdina dario, batak zein besteak prozesu sozialen bilakaera subjektu zehatzek egikaritu beharreko erabakietan kokatzen duten heinean, eta ez berez emana etorriko den determinismo ekonomiko baten baitan.
- *Hortaz, prozesu sozialen garapenerako beharrezkoak diren nortasunen artikulazioa kulturala edo politikoa izango da:* honakoa izango da Gramscik marxismoaren aurreko hamarkadetako ibilbidearekin alderatuta emango duen jauzi kualitatibo esanguratsuen. Azpiegituran ematen diren mugimenduen automatismo supra-estrukturalaren gainetik, jendarte zibilean nagusi izango den sen onaren eraikuntzan kokatu zuen eginkizun politiko nagusia. Gainera eraikuntza hau kontsentsuan edo adostasunean oinarritu beharko da eta ez ordura arteko marxismo tradizionalaren ikuspegi nagusi zen bortxazko edo dominaziorako mekanismoen bidez. Jendartean nagusi izango den kultura edo mundu ikuskeraren eraikuntzan jarritako arretak, marxismo klasikoak ordura arte lehenetsitako estatu aparatu edota jendarte politikoaren gaineko gehiegizko arreta orekatzera etorriko da. Nagusiki Sobietar Iraultzaren ostean marxismoaren baitan gailendutako *estatuzaletasunaren*

(*estadolatría*) aldarriaren gainera, klase zuzentzaile batek, sektore sozial ezberdinen interesak beraien interesekin identifikatzea lortzen ez badu, botere politikoa bere eskuetan nekez mantentzeko ahal izango duela ohartaraziko du. Hortaz, klase zuzentzaile horrek hertsadurarako bitartekoekin batera, adostasun (ageriko edo behintzat inplizitu) eta identifikaziorako mekanismoak ere baliatu beharko ditu.

Bere momentuan hainbat agintari eta pentsalariengatik arbuiatua izan zen ikuskera hau, gaur egun arte ezkerren imajinarioan modu batean edo bestean presente dagoen paradigma aldaketa ekarri zuen. Aldaketa mugatua, Laclau eta Moufferen ustez. Izan ere, Gramsciren nortasun sozialen eraikuntzaren izaera politikoa azalaraztearen jautzia aitortuko badiote ere, sektore sozial ezberdinen arteko artikulazioan langileriarik ematen dion lehentasunezko kategoria zalantzetan jarriko dute; sektore sozial ezberdinen barne identifikazio prozesuetan, honek ekonomikoari ematen dio kategoria ontologikoa ere errefusatuko dutelarik. Honakoa izango da Gramsciri egotziko dioten azken ondarrak esentzialista.

2. KAPITULUA: (POST)MODERNITATEAREN AFERA

Estrukturalismo berantiarra edo *postestrukturalismo* bezala ezaguna egin zen korrontea *egitura* kategoriaren inguruan eraikitako pentsamenduaren mugak agerian uzteko paradigma bezala ulertu dezakegu. Marxismo tradizionalak, *egituraren* ideia honen bidez, pentsamendu estrukturalistarekin zituen loturak eta antzekotasunak agerikoak ziren. Batak eta besteak, aurrez determinatutako funts eratzaile baten inguruan ondo artikulatutako estruktura sozial, politiko, kultural eta abarrekoen paradigma deseraikitze ahalegina da postestrukturalismoarena; bide batez, baita XX. mendearen erdialdera arte horri lotuta nagusi zen ikuspegi metafisiko eta arrazionalista ere. Garai horretako gertakari historikoek (I.go eta II. Mundu Gerra, nazismoaren edo estalinismoaren gehiegikerien azalarazteak, ...) arrakala gehiegi irekitzen zizkion ordura arte nagusi zen mundu ikuskera eboluzionista honi, hainbaten ustez honen iraungitze data azaleratuz.

Mundu eta prozesu sozialak ulertzeko modelo eta ikuskera berrien beharra agerikoa zen. Horretarako aurrekoek planteatutako metodoen mugak agerian utzi behar ziren lehenengo. Bide horretan, linguistika edo psikoanalisi bezalako diziplinek protagonismo berritua hartu zuten. Fenomenologiak, enpirismoak edota filosofia analitikoak aurreko hamarkadetan bilakaera sozialen *egia* agerian gelditzeko *berehalakotasunaren mitoa* erortzen ari zen (Laclau, 1988: 59); prozesu sozial horien alde ezkutua, indeterminazioa, kontingentzia edota hustasunak berak garrantzi nabarmena eskuratu zuten aipatutako diziplinei esker. *Egi* horren ezagutzarako bitartekaritza bat beharrezkoa izango zen; errealitate hori ez zen berezkoa edo emana, eraikia baizik; eta eraikuntza prozesu horretan diskurtsoak berebiziko papera jokatuko zuen.

Bere patuaren jabe den subjektu arrazionalaren irudikapena ere urratuz joan zen. Eginkizun horretan Lacanek inkontzienteari emandako garrantziak, Foucaultek lengoaiaren legeek subjektuari lekarkioketen menpekotasunak edota Derridak subjektuari egotzitako *esan-ezintasunak* (*indecibilidad*), urte batzuk beranduago Laclau eta Moufferen eskutik garatuko zen hegemoniaren adiera berriaren eraikuntzari oinarritzko euskarriak eskainiko dizkie.

Zentzu honetan, Althusserren lana Gramsciren herentzia marxista-kulturalaren eta postestrukturalismoak ekarritako kategorია berrien uztardurarako lehen ahalegin gisa hartu dezakegu. Estrukturaren *autonomia erlatiboa*, honen izaera *deszentratua* eta anitza edo *kausalitate estrukturala* bezalako kontzeptuak, estalinismoarekin inoiz baino agerikoagoa zen marxismoaren krisiari aterabidea emateko ahalegin intelektual bezala ulertu ditzakegu. Baina marxismoaren adiera *kulturaren* eta postestrukturalismoaren arteko tentsio-harreman honetan, ekonomizismoaren aldeko dekantazioak, ezkerria, berriro ere, hegemonikoa izango zen nortasun politiko berri baten eraikuntzarako muga esentzialista berdinekin topo egitera eramango du.

Ahalegina, aldiz, ez zen antzua izango. “Emantzipaziorako subjektuaren eraikuntzaren” ezkerren eztabaida klasiko honetan, bilakaera teoriko honek azken ondar esentzialista hori hegemoniaren adiera *garaikidearen* bitartez deseraikitzeke ezinbesteko abiapuntua jarriko zuen. Bilakaera hori kapitulu honetako hurrengo orrialdeetan aztertzen saiatuko gara.

2.1. Modernitatea eta postmodernitatea

Zerk markatzen du modernitate eta postmodernitatearen arteko muga? Noiz eta nola bukatzen da bata bestea hasteko? Batak bestea agortzen al du? Denboralizatu daitezke? Giza esperientziaren ze diziplinetan jartzen dute arreta bakoitzak? Zer eragina dute jendarte antolaketan? Eta teoria politikoaren ikuspegitik?

Erpin asko dituen eta sarri askotan oso labainkorra suertatu dakiguen eztabaida da modernitate eta bere ondorengo paradigmen artekoa. Bata eta besteen arteko etena zalantzatan jartzen duenik ere ez da falta. Paradigma hauek ukitzen dituzten diziplinen aniztasunagatik, ez dugu definizio bakarra aurkituko eta beraiek zedarritzea nekeza izango da. Filosofia, ekonomia edota politika bezalako kategoriak barnebiltzen ditu; estetikaren kategorian bildu daitezkeen arkitektura, literatura edo zinea bezalakoak ere bai. Kategoría hauei so egiteko baliatzen ditugun betaurrekoen arabera definizio oso ezberdina izango dute; zientzia historikoen ikuspegitik hauen jatorriak eta hasierak hartuko dute arreta nagusia; filosofia espekulatiboarentzat, aldiz, denboralizazio honek garrantzia txikiagoa izango du, paradigma hauek etengabeko bilakaeran dauden prozesuen logikan ematen diren garapenak bezala ulertuz.

Paradigmen arteko aldaketa honek jendartean nagusi diren mundu ikuskeren arteko trantsizioari erreferentzia egingo dio. Garai batean munduan ematen ziren prozesuak ulertzeko baliatzen zen ikuskera baliagarria izateari uzten dionean, jendarteak beste baten eraikuntzari heltzen dio. Baina agerikoa den bezala, honakoa ez da egun batetik bestera ematen den aldaketa bat. XVII. mendeko gizon-emakumeak ez zuten beraien mundu ikuskera aldatuko zuen *agerkunde* modernoa izango; XX. mendeko gizon-emakumeak gau batean moderno oheratu eta hurrengo egunean postmoderno jaikiko ez ziren bezala. Eta *gertaera* hori gertatzekotan, hori atzeraeraginezko ikuspegiaren eraikitakoa izango zela esan dezakegu. Alde horretatik, bi paradigma hauen definizioan hori izango da topatuko dugun lehenengo zailtasuna: beraien mugarritzea.

Gure kasuan eztabaida hiru aldagaien inguruan kokatu nahi izango dugu: batetik, modernitatearen paradigmaren inguruan; bigarrenik, bera eta postmodernitatearen arteko trantsizioari dagokiona; eta hirugarrenik, postmodernitatearen inguruan, arreta berezia jarritz marxismoak bertan lekutzeko izandako bilakaerari. Hiru aldagaien hauen kokapenarekin marko teoriko honetan funtsezko izango diren bi kategoria kontzeptual nagusi nola baliatuko dugun zehazteko oinarria ere finkatuko dugulakoan gaude; postmodernismo eta postestrukturalismoaz ari gara.

2.1.1 Aurremodernitatea eta modernitate klasikoa.

Modernitatearen jatorriari dagokionez, zaila izango zaigu denboralizazio oso zehatza finkatzea. Filosofiaren esparrutik sarri askotan bere jatorria XVII. mendean garatu ziren bi tradizioekin lotu izan ohi da: Francis Bacon-en *empirismoarekin* eta René Descartes-en *arrazionalismoarekin*. Klaus Von Beymek, XVII. mendean trinkotzen hasten den pentsamendu korrante hau aurremodernitate edo modernitate goiztiarra bezala ezaugarritu du (1994: 33-36). Honi eboluzionismo, holismo edota ideei espekulatiboen nagusitasuna egotziko dizkio. Teoria oro-harrapatzaile globalei erreferentzia egin nahi izango die, gertakarien jatorria aldagai gutxi batzuetan sinplifikatuko dituztenak. Fredic Jameson (1984) edota David Harvey (2008) bezalako beste autore batzuek, aldiz, ez dute aurremodernitate eta modernitatearen arteko bereizketa honetan sakonduko, bata zein bestea paradigma berberaren baitan kokatuz. Eten falta honen adibide bezala, XIX. mendean garatu zen Marxen pentsamendua edo XX.ean sortu zen Freuden teoriak kokatu ditzakegu. Izan ere, aurremodernitateari egotzi izan zaion gertakarien jatorriaren sinplifikazioaren erakusle bezala ulertu baitira; lehenengoaren kasuan indar ekonomikoen eraginari lotuta eta bigarrenengoan norbanakoen

psikearekin. Horregatik epealdi hauek hasiera eta bukaera zehatz duten aroak baino, elkar teilakatzen diren ikuskerak bezala definitzea egokiagoa suerta dakiguke.

Hori horrela izanda ere, badira aro historiko batean nagusi izango diren hainbat ezaugarri, kasu honetan, modernitatearen paradigma ezaugarritzen lagunduko digutenak. Von Beymerekin jarraituz, modernitatearen teoria eraikitzeke orduan nagusitzen diren oinarritzko printzipioak zerrendatzeko orduan lau nagusi azpimarratuko ditu (1994: 46-87): a) *teoria eta praxiaren arteko ezberdintzea*; zientzia sozial eta ekintza politikoaren artekoa, hain zuzen ere. Aurreko aro aurremodernoa nagusi zen ikuspegi normatiboari jarraiki, izatearen eta izan beharko litzatekeenaren arteko nahasketa nagusitu zen. Honen eskutik ikuspegi eboluzionistak nabarmen indartu ziren, *den hori izan beharko litzatekeenaren* norabidean kokatzen den zerbait bezala ulertuz. Weber, Durkheim edota Pareto bezalako pentsalarien eskutik jendartearen bilakaera determinatuaren paradigmarekin bukatzen joan zen. Ikuspegi zientifiko batetik, neutraltasun baloratiboa indarra hartu zuen aldagaia bilakatu zen. Ikuspegi hau teoria politikoaren esparrura ekarrita, politikaren sistema zientifikoa eta ekintzarako bere jardunbideak deslotzen joan zirelarik. Baina ikuspegi honek bere salbuespen garaikiderik nabarmenena marxismoan aurkitu zuen eta bere adierazlerik esanguratsuena Leninengan, teoria eta praxi hori lotzeko erreferente nagusi bezala. Hortik aurremodernitate eta modernitate klasikoaren arteko teilakatzeko hori.

Arestian esandakoaren harira, b) *historia eta eboluzioaren arteko bereizketa* izango da Von Beymek azpimarratuko duen bigarren ezaugarria; edo beste modu batera esanda, historiaren ulerkera teleologiko bati uko egitea. Helburu zehatz baten lorpenari begira zuzentzen diren teorien aurrean (klase sozial edota espezie baten nagusitzea, marxismoan eta darwinismoan bezalaxe, adibidez) aldaketa sozialen azalpen kausalak bilatzen zituzten teoriak indarra hartzen joango dira. Kausalitate *kontingenteak* kausalitate *halabearrezkoa* ordezkatuko du. Kasurik hoberenean, etapakako bilakaera *a posteriori* eraiki ahal izango da, atzeraeraginezko ikuspegiarekin; marxismoan nagusitu ziren bilakaera determinatuen aurreikuspenetan ez bezala. Honekin batera, c) *alderaketa sistematikoa* metodo bezala nagusitu zen. Aurremodernitatean arreta sistemen arteko antzekotasunak bilatzean zentratu zen bitartean modernitate klasikoan sistemaren baitako aniztasunean kokatu zen. Ikerketa sozialetara jauzi eginez jendarte bateratuaren ideiatik sistema sozialen kategoriara salto egingo zen. Eta azkenik, d) *diziplina ezberdinen bereizketa* nagusitu zen, ordura arteko politikaren nagusitasuna zalantzetan jarritz. Modernitate goiztiarrean marxismoa bezalako ikuskeren eskutik nagusitu zen azpiegitura-gainegitura ikuspegi sinplifikatzaileek goia jota, bizitzaren eremu ezberdinen arteko elkar-konexioaren irudia nagusitu zen. Artea, literatura, arkitektura eta abarrekoen bilakaerak ez

ziorion aldagai bakarrari erantzun, diziplina bakoitzaren barne bilakaerak eta beraien arteko hartu-eman gatazkatsuak definituko zuen beraien garapena.

Aniztasunaren aldeko joera honek eta politikoaren garrantziaren gainbeherak bere eragina izango zuen boterea eta Estatuaren ulkeran. Azpigermu sozialen ikuspegi honek *Sistemen Teoria* bezala ezaguna egin zen. Von Beymeren arabera, ikuspegi honek *estatuaren teoriaren* gainbehera ere azkartu zuen; Estatuak, boterearen kokaleku zentral eta ardatz izatetik, botere gune ezberdinak barnebilduko dituen *sistema politikoaren* eredura aldatuz (1994; 88-91). Estatuari egotzitako eginkizunek eta boterearen ulermenak berak XX. mendean bilakaera bat izango dute, hauen izaeraren apaltzea emanez. Lehenengo fase batean, Estatuari egotzitako jendartearen eremu ezberdinen *planifikazioaren* funtzioa (Estatu totalitarioetan beraien isla argiena izango dutena), *kontrolaren* eginkizunagatik ordezkaturia izan zen. II. Mundu Gerra eta gero, eta batez ere 70. hamarkadako krisialdi ekonomikoaren ostean, politika aktiboaren asmo planifikatzaileek porrot eginda, botere politikoaren eginkizun nagusia planifikazio falta honek eragin zitzakeen ondorio kaltegarrien kontrolera zuzendu zen. Bigarren fase honetan, *neokorporatibismo liberalak* paper garrantzitsua jokatu zuen. Bertan gobernuak eta antolatutako interes handien arteko adostutako elkarlanak “estatuaren” papera beteko du, aurreko faseetan azken kategoria honek jokatzen zuen adiera ontologikora jo behar izan gabe. Letamendiak azaltzen digun bezala, gobernu-entresariak-sindikatuak hiruko kontzertazioak Ongizate Estatuaren paradigmaren pean garatuko da. Bertan, sindikatu handiek maila handi batean 70. hamarkadan nagusi zen gatazka sozialari uko egingo diote, Estatuak eginkizun sozialetan hainbat erantzukizun hartzearen truke. Baina eredu honek bere ajeak erakutsiko zituen 80. hamarkadan sektore kontserbadoreen zabaldutako erasoaldi neoliberalaren aurrean. Modernitateari egotzitako osotasunaren ideien edota meta-kontakizunen gainbeherak, jendarte sektore ezberdinen *autokontrol soziala* oinarri izango lukeen hirugarren fase bati ateak irekiko dizkio. Ikuskerak honek Arrazionalitatearen Teoriarekin antzekotasun nabarmenak erakutsiko ditu, non azpisistema ezberdinek beraien arteko oreka batera joko luketen norberak bere biziaraupena bermatzeko. Honen arabera, sistema politikoari eginkizun handiegiak eman zaizkio aurreko faseetan, bestelako azpisistemak (sozialak, kulturalak, ekonomikoak, artistikoak, ...) bigarren maila batean utziz. Bilakaera honek, aldiz, politika eta bestelako azpisistema sozialak berdinduko lituzke, Estatuaren papera oraindik gehiago urtuz.

Hurrengo kapituluak sakonago aztertuko dugun bezala, politikoa ahultzeko saiakerak honek aldiz bere erantzuna izango du Carl Schmitt (1932) bezalako pentsalarien eskutik, zeinek erabaki politikoaren nagusitasuna aldarrikatuko duen Estatuaren konfigurazioaren zutabe gisa.

2.1.2 Modernitatea eta posmodernitatearen arteko bilakaera.

Baina noiz/nola/zeren arabera emango da modernitatearen eta postmodernitatearen arteko igarobidea? Zerk eragingo du trantsizio hori? Bien arteko balizko mugari honen inguruko ikuspegi ezberdinekin aurkituko gara modernitate berantiarrean kokatu ditzakegun pentsalarien artean. Horrela, postmodernitatea ikuspegi (post)marxista batetik jorratu nahi izan duen Fredic Jamesonen (1996: 13) arabera postmodernismoak modernitatearekiko “analisi zehatzagoa eskatzen duen [...] haustura kulturala” suposatu zuen. Jamesonek, kultur ikuspegitik haustura hau nabarmentzen duen bitartean, David Harvey-k ikuspegi marxista batetik ere, baina arreta afera ekonomikoetan jarriz, “kapitalismoaren kontraesan kulturalen aurkakotasun adierazpidez” hitz egingo digu, “modernismo eta postmodernismoaren kategoriak urtzera laguntzen digutenak” (Harvey, 2004: 373). Hau da, Harveyk bi paradigmak ezberdinduko baditu ere, bata zein bestea kapitalismoaren garapenaren ondorio lirateke; beraz, kulturalki ezberdintasunak egongo badira ere, kapitalismoaren historiaren bilakaeran ulertu beharko lirateke.

Ziuraski Habermasek bilakaera honen inguruko ikuspegi konplexuagoa eskainiko digu postmodernitatea modernitatearen bukatu gabeko egitasmo gisa aurkeztuz. Bere ustez Baudelairen garaian jaiotako modernitate estetikoaren indarra postmodernitatean nabarmen ahulduko da; indargabetze hau izango da azken paradigma honi abiapuntua jarriko diona. Hainbat pentsalari neokontserbadorek, aldiz, ondorio maltzurra aterako dute hortik. Beraien ustez kultura modernoak jendarte kapitalistaren balio moralak eta lanarekiko atxikimendua lizundu zituen, kultura hori bere indar sortzailea ahulen zuen momentuan. Hortik ondorioztatu zitekeen bilakaera ordenu sozial errespetagarri baten disoluzio hedonista edota narzisista litzateke. Habermasen arabera, berriz, errealitatean gauzatutako bilakaera hori modernizazio kapitalistaren logika komertzialaren aldeko indarreko erantzukizuna zen, ez modernitate estetikoaren garapenarena. Bere ustez, modernitatearekin zientzia, moralitatea eta artea erlijioaren mundutik bereizita, beraien printzipio propioen arabera zuzentzen hasi ziren: egia, justizia eta edertasuna. Aro modernoan behin erlijiotik bananduta, erronka diziplina horiek eguneroko bizitzaren subjektibitatera murgiltzea litzateke, elkarri eraginez aberastu zitezten. Azken prozesu hau bururaino eraman ez izanaren erantzukizuna kapitalismoaren aldeko indarrena litzateke; eta ondorioz modernitatearen proiektua bere azken muturreraino garatu gabeko egitasmoa litzateke.

Perry Anderson-ek dioen bezala, Habermasentzat “modernitatearen egitasmoa aurkakoak diren bi printzipioen amalgama kontraesankorra” litzateke: espezializazioa eta popularizazioarena (2000: 57). Modernitateak Ilustrazioaren eskutik ekarri zuen giza-diziplina ezberdinen erlijioarekiko autonomizatzeko eta bereiztearen printzipioarena, batetik; eta bestetik, komunikazioaren ekintzaren bitartez¹⁹ gauzatu beharko litzatekeen baina kapitalismo garaikidearen ondorioengatik bururaino eramaten ez den diziplina horien zabalkunderena. Indar ezberdinek eragotziko lukete prozesu hau behar bezala ez garatzea: “gazte” kontserbadoreek edozein motako arrazionalismoaren aurka erakutsitako antimodernismo dionisiakoak; kontserbadore “zaharren” premodernismoaren kutsu aristotelikoak; eta neokontserbadoren postmodernismoak bultzatutako diziplinen espezializazio itxia. Modernizazioaren aldeko eta kontrako indarren arteko lehia honek norabidetuko du (pos)modernizazioaren bilakaera. Zentzu horretan prozesua kontingentea eta aurre-determinatu gabea izango da; ez ekonomiak edota aurrez ezarritako beste indarrik mugarritutakoa.

2.1.3 Posmodernitatearen elementu nagusi batzuk.

Modernismoa eta bere ondorengoaren arteko jarraikortasun edota etenaren arteko diatriba honetatik ateratzen jarraitzeko, gorago modernismoarekin bezala, postmodernismoaz ari garenean zertaz hitz egiten ari garen mugarrizten hasia komeni. Andersonen arabera ere, postmodernismoaren kategoriaren erabileraren hasiera nagusiki arte performatiboetara lotuta agertuko zen²⁰. Bere ustez, Jean-François Lyotard-en eskutik salto egingo du filosofiaren eremura (Anderson, 2000: 37). Quebec-eko Gobernuaren unibertsitate kontseiluaren enkarguz, Lyotardek “ezagutza garaikidearen” egoera azaltzeko informea argitaratu zuen 1979an, *La condition postmoderne* izenburu pean. Hainbat autoreen arabera postmodernitatearen inguruko lehenengo lan sistematikoa bilakatu zen ikerketa honetan, Lyotardek honen agerpena jendarte postindustrialaren sorrerari lotzen dio. Bertan ezagutza ekoizpenerako indar ekonomiko garrantzitsuen bilakatuko da, Estatuaren mugak gainditzen dituen fluxu gisa. Horren arabera jendartearen ez litzateke osotasun organiko edota bitan

¹⁹ *La modernidad, un proyecto inacabado* lana 1980an Habermasi eman zioten Theodor Adorno Saria jasotzeko prestatutako lana izan zen, eta aipatu bezala, posmodernitatea teoria politikoaren eremura ekartzeko lehenengoetariko ekarpenetarik hartua izan da. Zentzu horretan, Habermasen pentsamenduaren zutabeetako bat izango den komunikazioaren teoriaren inguruko aipamen espliziturik ez dugu aurkituko bertan; honen inguruko elaborazio garatuagoa *Teoría de la acción comunicativa* (1987) lanean aurkituko dugularik

²⁰ Andersonek (2000) berak edota Harveyk (2008) Ihab Hassan-en lanei egingo diote erreferentzia literaturan, ikus-entzunezko arteetan, musikan edota teknologian korrante posmodernistak izandako eragina azpimarratzeko orduan. Horietako asko *boundary2* izeneko aldizkarian jasotakoak.

zatitutako espazio gisa irudikatu behar, komunikazio linguistikoen sare gisa baizik. Zentzu honetan, modernitatean indarrean egondako metarranatik (izan Frantziar Iraultzaren ondotik nagusitutako subjektu emantzipatuarena edo idealismo alemaniarrek garatutako eboluzionismoa) indarra galduko lukete, giza garapena “ez-jarraia, katastrofiko, ezin zuzenduzkoa eta paradoxikoa” bezala deskribatuz (Lyotard, 1987: 46-47).

Teoria politikoaren eremura hurbilduta Von Beymek (1994: 182-193) posmodernismoaren eragina sei ezaugarri nagusietan laburbilduko ditu: a) *Boterearen desustanzializazioa* lehenengoa litzateke. Honen kontzeptzio bertikalista batetik horizontalago baterako trantsizioa garatuko litzateke. Bertan Estatua botere gune nagusia izatetik honen barreiatze edota fluidifikaziora joko litzateke. Foucaultek planteatutakoaren ildotik, azpiboterearen kontzeptuak Estatuan baino, maila apalagoetan kokatzen diren, elkar lotuak dauden eta eguneroko bizitzaren edozein eremuetan kokatzen diren botere eta dominazio sareen garrantzia azpimarratuko luke. Ikuspegi honen arabera b) *teknokraziaren aurkako kritika* areagotuko litzateke. Lyotarden (1987a: 293) ustez ordura arte modernitatearen eskutik nagusitutako “diskurtso ekonomikoak” teknokrazia akritikoaren hazkunde nabarmena ekarri bazuen ere, jendarte postmoderno berrian indarrean den sistemarekiko “gatazka muturreraino areagotzeko” aukerak ikusten zituen. c) *Aniztasunaren zabalpena* hirugarren ezaugarri nagusia litzateke. Honen arabera, homogeneotasun politikoa balio nagusia izatetik, aniztasun politikoaren balioztatzerara igaroko ginateke. Aniztasunaren balorea jada modernitate klasikoan ageri bazen ere, honen inguruko ulermen armoniosu bati lotuta agertzen zaigu; fase berantiar honetan, aldiz, arrazionalismoaren edota zientziaren bitartez gainditu ezin izango den adiera gatazkatsu batean ulertzera joko da. d) Aro postmodernoan *iraultzaren teoriaren amaiera* ere nabarmenduko da. Maila handi batean 1968ko maiatzeko gertakariei lotutako baieztapen hau, ikuspegi zehatz batetik ulertu beharko litzateke; bortxa bidez boterea eskuratzeko iraultzaren mitoaren bukaeraren ikuspegitik, hain zuzen ere. Paradigma honen erorketak, berriz, erresistentziarako eskubidearen edota desobedientzia zibilaren teoriari joko eremu berri bat zabalduko die. Azken honi lotuta, e) *gehiengoaren printzipioaren nagusitasuna zalantzetan* jartzera joko da. Eskubide espezifikoaren inguruan trinkotutako gutxiengoaren loraldia (sexu, arraza, hizkuntza, kultura, ...) aniztasunaren balioaren nagusitzearekin batera ulertu beharko dugu, modernitate klasikoan gehiengoaren arrazoiaren izenean egindako gehiegikerien ondorioz. Gutxiengoaren eta gehiengoaren arteko dialektika berri honek f) *sistemaren legitimazioaren teoria ere zalantzetan* jarriko du. Izan ere, aurremodernitatean ongizate komuna erdietsiko duen *Estatu onaren* ideia nagusi bazen, modernitate klasikoan herri subiranotasunaren kategoriaren garapenari lotuta, gehiengoaren babesaz *zilegia izango den Estatua* erdietsi nahiko da; postmodernitatean, aldiz, izaera liberaleko demokrazien

zabalpenarekin, arreta legitimazioa emango lukeen *prozeduran* kokatuko litzateke; edota beste modu batera esanda, zilegiztatzea ematen duen hauteskunde sisteman.

2.1.4 Postmodernitatea eta marxismoaren arteko harremana.

Modernitateetik postmodernitateerako trantsizio honek ezkerren bilakaeran ere eragin zuzena izango zuen. Gorago modernitate klasikoari egotzi dizkiogun lau ezaugarri nagusiak (teoria eta praxiaren deslotura, eboluzionismoaren gaitzeta, ikuspegi konparatiboaren bilakaera eta jendarteazpierrezen ezberdinetan bereiztearena) aurre-modernitatearen aroan eman zen jatorrizko marxismoaren ulerkera baldintzatuko du, modernitate klasikoan eman zen *neomarxismo* edo marxismo berriari ateak irekiz (Von Beyme, 1994: 102-106). Honen arabera: a) jendartearen bilakaera jada ez ikuspegi zientifiko batetik ekoizpen indarren arteko harreman dialektiko baten emaitza izango, bilakaera hau praktikan aztertu beharko da; b) etapen arabeko historiaren bilakaera determinatua bigarren maila batean geldituko da, kasurik hoberenean historiaren eraikuntza atzeraginezko ikuspegi batekin eraiki beharko delarik; c) *neomarxismo* berri honek ez du alderaketa sistema gehiegi baliatuko azterketarako metodo bezala eta erabiltzen duenean sozialismoa kapitalismoaren kontra-irudi bezala irudikatzen baliatuko da; eta, azkenik, d) bilakaera ekonomikoaren determinaziotik harago zeresana zuten bestelako aldagaiak nagusitzen joan ziren. Urteetan zehar jatorrizko marxismo aurre-modernoak planteatutako aldagai ekonomikoaren arabeko "lehen eta bigarren mailako kontraesanen" eskemak homogeneotasun eta sinplifikazio soziala bilatu bazituen ere, logika horrek bere mugak erakutsi zituen, aipatutako aniztasunari bide emanaz.

Azken ideia honi lotuta, marxismoaren baitan modernitate klasikoetik postmodernitateerako trantsizioan nabarmenduko zen aldagaririk eman bazen, hori politikaren bitartez plano ekonomikoetik kulturalera eman zen arretaren desplazamendua izango zen. Honakoa nagusiki marxismo klasikoan nagusitu ziren bi baieztapenen hutsegiteagatik emango da: batetik, kapitalaren pilaketa amaiezinen teoremaren garapenak ez zituen sistema suntsituko zuten indarren loratzea ekarri; eta bestetik, langileriaren erabateko pobretzea, ez zuen langileria bera sistema suntsituko duen subjektu hegemoniko bihurtu. Honek marxismoaren paradigmaren krisiaren jatorria eremu ekonomikoetik kulturalera desplazatzea ekarri zuen. Besteak beste, Gramsciren pentsamendura joko da inspirazio

iturri gisa, ikuspegi subjektiboago batetik sistemaren porrota edota biziraupenaren arrazoiak bilatzeko orduan.

Andersonek, berriz, Fredic Jamesoni egotziko dio postmodernismoa eta marxismoa bateratzeko ahaleginaren aitzindaritzatza (2000: 77). Gerora ezkeraren hainbat eztabaida garaikide bildu dituen *New Left Review* erreferentziazko aldizkarian, Jamesonek *Postmodernism: the cultural logic of late capitalism* (1984) entsegu ezaguna argitaratu zuen²¹. Bost mugimenduetan laburbildu ditzakegu lan honek jasotako ondorio nagusiak: a) posmodernitatea haustura estetiko edo epistemologikoa izateari utzi zion, ekoizpen *eredu kapitalistaren baitako funtsezko ezaugarri kulturala* bihurtzeko; b) aldaketa honek gizabanakoaren *psikean* izango duen eraginari arretaz heldu beharko zaio, bere bilakaeraren jabe den “subjektuaren heriotza” aldarrikatuz; c) aurreko bi aldagaiek *kulturaren* planoan izandako eragina ere azpimarratuko du (arkitektura, zinea, diseinu grafikoa edo publizitatea, pintura, eskultura, ...), aurretik era zurrun batean banatutako diziplina hauen arteko mugen lurruntzea azpimarratuz. Jamesonen ekarpen nagusia kultura eta ekonomiaren planoen uztarketatik etorriko da. Edo beste modu batera esanda, kultura postmodernoa eta kapitalismo berantiarren arteko uztarketa nabarmentzetik; kultura “ekonomikoaren azaletik ezin izango dela bereizi” azpimarratzeraino. Baina ordura arteko pentsalari marxistak ez bezala, Jamesonek ez du plano kulturalaren menpekotasuna aldarrikatuko, bere “deskribapen infraestruturala [...] kulturala” dela nabarmentzea izango da berrikuntza nagusia (1996: 15); hau da, kultura aldaketa prozesuen eragile bezala ere ulertuko du. Aldi berean, postmodernitatearen dimentsio kultural honek kapitalismoak ezartzen duen konfigurazio sozialean d) *klase sozialak irudikatzeko modu berri bat* ekarri zuen; hau da, kapitalismo berantiarrek klase jendarte bat ezartzen jarraituko du, baina klaseak jada ez dira aurretik izan ziren berberak izango: espekulazioaren magalean hazitako *yuppiak* edota ekonomiaren tertziarizazioan pobretutako sektoreak horren adibideak izango dira. Eta azken ezaugarri gisa, e) ordura arte postmodernismoaz aritzerako orduan pentsamendu garaikidean nagusitu zen “*ona/txarra*” *ikuspegi moralista duala gainditzeko saiakera* aipatu genezake. Jamesonen ustez biko sinplifikazio honek ikuspegi politiko batetik egin beharreko balorazio konplexu eta anibalenteak mugatu egiten zituen, erosoagoak baina traketsagoak ziren azterketen

²¹ Bitxikeria bezala aipatu dezakegu 1982an Lyotarden *La condition postmoderne*-ren jatorrizko bertsiola ingelesera itzuli zenean Jamesoni eskatu zitzaizola honi sarrera bat egitea. Lyotardek marxismoa bezalako metakontakizunei egindako kritikak Jameson posizio zailean kokatuko zuela pentsa daiteke. Are gehiago, Jamesonek urte bete lehenago argitaratutako *The political unconscious*, marxismoaren goratzea metakontakizun gisa ulertu dezakegu. Andersonen ustez, Lyotardek eta Jamesonek gertuko hainbat kategoria baliatuko dituzte. Baina aldi berean, horien inguruko ikuskera ezberdinak Jamesoni erronka handia suposatuko zion aipatutako hitzaurrea eta bere ondorengo lanari heltzerako orduan (2000: 76).

mesedetan; eta honako kritika baliagarria zen garaiko eskuin konbentzional zein ezker klasikoarentzat.

Marxismoaren ondorengo ikuspegi kulturaletik egindako azterketa hauek, besteak beste, Zigmunt Bauman eta bere jendarte likidoaren kategoriaren eskutik (1999) bere garapena izango zuten. Baina maila kulturalaren garrantzia ukatu gabe, honen adiera ekonomizistago bati jarraipena emango diotenik ere ez da faltako. David Harvey ekarpena norabide horretan kokatu dezakegu. Postmodernitatean ematen diren prozesu ekonomiko eta kulturalen arteko lotura azaltzeko batean eta bestean espazioa eta denboraren antolaketak duen eragina nabarmendu nahi izango du (Harvey, 2008). Bere tesiaren abiapuntu gisa denboraren eta espazioaren adiera bakar eta objektiboa zalantzetan jarriko du, giza praktikek beraien eraikuntzan eta pertzepzioa nola ematen diren kontrolatzen duten sektoreek botere politikoa kontrolatzen dutenak izango dira. Sistema kapitalistetan denbora eta espazioaren hautematean monetarizazioak eragin zuzena izango du, beraien tasunak eraldatu egiten dituelako. Kapitalismoan emango diren ezaugarri hauen birmoldaketa nagusiak, batetik, prozesu ekonomikoen eta bizitza sozialaren azkartzea, eta bestetik, muga fisikoen eraispena izango dira. Lehenengoaren adibide argia bizitzaren esparru ezberdinetan ematen diren (teknologia, estilismoa, ...) joeren edo moden aldaketen abiada litzateke; sistemak berak eskatzen duen kontsumo mailari erantzuteko gaur modan dagoena, bihar-etzi iraungita egongo delarik. Espazioaren tasunen aldaketei dagokienez, aro global honetan mundu mailako merkatu globala eratzeko mugikortasun sareen bilakaerari baino ez genieke erreparatu behar. Duela gutxira arte oztopo fisiko gaindiezinak ziruditenak lehertaraziz konexio bide berriak (fisiko zein birtual) egikaritzen joan direlarik (2008: 251-257). Harveyk espazio eta denboraren gaineko kontrolaren lehia hau klase gatazkaren erdigunean jartzera iritsiko da. Are gehiago, 60. hamarkadan gutxitutako hainbat komunitateen gainean loratuko jendarte mugimendu berrien borrokaren muina espazio eta denboraren gaineko kontrolaren lehia horretan kokatuko ditu. Harveyk argi izanik mugimendu hauen bilakaera sistema kapitalistak baldintzatuko duela:

“[...] todos estos movimientos sociales, por mejor articulados que estén sus objetivos, se enfrentan a una paradoja al parecer inamovible. Porque no sólo la comunidad del dinero, junto con el espacio y el tiempo racionalizados, los define en un sentido de oposición, sino que los movimientos mismos deben enfrentarse a la cuestión del valor y su expresión [...]. Al hacerlo, necesariamente se abren al poder disolvente del dinero, así como a las cambiantes definiciones del espacio y el tiempo determinadas por la dinámica de la circulación del capital” (2008: 265).

Gramscitik aurrera, marxismoaren baitan Jamesonek ordezkatzeko duen ikuspegi kulturalista edota Harveyk ordezkatu dezakeen ekonomizistaren arteko harreman lehiatsu hau iraunkorra bilakatuko da; zeresanik ez Modernitate berantiararen aroan murgiltzearekin batera. Estructura ekonomikoaren izaera determinatzailearen inguruko ika-mika eztabaida klasikoa bihurtuko da XX. eta XXI. mendearen hasieran zehar. Aldi berean, honek eztabaida berri bat mahai gaineratuko duelarik: estrukturalismoaren eta postestrukturalismoaren kategoriaren arteko definizio eta mugarritzearena.

Orain arte modernitatearen eta postmodernitatearen inguruan aipatutako ezaugarriek teilakatuak baina bereizgarri propioak dituzten bi eredu bezala bereizteko balio izan digute; aipatu bezala, bi aro hauen arteko etenaren inguruko kontsentsua erabatekoa ez bada ere. Baina zer gertatzen da estrukturalismoa eta bere ondorengoaren artekoarekin? Hurrengo atalean aztertuko dugun bezala bata eta bestearen arteko bereizketarako hainbat elementu berezi ahal izango baditugu ere, horren inguruan ere adostasuna ez da erabatekoa izango. Von Beymerentzat, esaterako, “postestrukturalismoa ideia estrukturalisten areagotze bat baino ez da izango” (1994: 163); Dossek (2004) estrukturalismoaren historiak egiten duen azterlanean antzeko ikuspegiari helduko dio. Edota Harveyk berak kapitalismo garaikidean ematen diren harreman ideologiko, ekonomiko, politiko eta kulturalak “estrukturatutako osotasuna” (2008: 373) bezala definituko ditu; diskurtso postmodernistan hain deitoratutako meta-kontakizunei berriro ere bide emanez.

Estrukturalismoaren eta postestrukturalismoaren arteko ezberdintzearen zehaztasunak hurrengo orrialdeetarako utzita, baliokide bezala erabili izan diren bi kontzeptuen arteko bereizketa teorikorako elementu batzuk mahaigaineratu ditzagun: postestrukturalismo eta postmodernitateaz ari gara. Izan ere, kontzeptu hauek badituzte azpimarratu beharreko hainbat bereizgarri teoriko. Von Beymerentzat (1994: 17), esaterako, postmodernitatearen paradigmak ez luke zentzurik talde zehatz batekin parekatuko balitz; Frantzian 60. hamarkadatik aurrera gorpuztutako postestrukturalistekin esaterako. Bere ustez, postmodernismoak kategoria zabalago bati egingo lioke erreferentzia. Jameson (1996: 14) iritzi berdinekoa izango da. Honen arabera, postmodernismoarekin lehian zeuden bestelako formulazioak (postestrukturalismoa, jendarte postindustrialak, bizitza post-garaikidea, ...) ez ziren oso sinesgarriak, beraien jatorrizko diziplina eremuek (filosofia, ekonomia, komunikabideak, ...) euren erabileraren zabalpena era zurrunean baldintzatzen zituzten neurrian. Postmodernismoaren kategoriaren adiera kulturalaren zabaltasunak, aldiz, jendartean ematen ari

ziren aldaketak katalagotzeko bestelako malgutasun bat ematen zuen. Horrela, Jameson arabera, postestrukturalismoa postmodernoaren azpi-atal bat baino ez litzateke izango (1996: 17).

Jamesonek egindako bereizketa hau oinarri hartuz *postmodernitateaz* aritzerakoan aipatutako zentzu kulturalaren ikuspegitik landuko dugu gehienbat. Jamesonek berak emango digu horretarako jarraibidea. Izan ere, adiera kulturalista eta ekonomizistaren arteko dialektika honetan, II. Mundu Gerraren bukaerarako kapitalismo berantiarrak behar zuen garapen ekonomikoaren eta teknologikoaren baldintzak emanak bazeuden ere, 60. hamarkadan eman ziren aldaketa sozial eta psikologikoak arte (mugimendu sozial berrien agerpena, balio sistema aldaketa, ...), postmodernismoaren kategoria ez da zabaltzen hasiko (Jameson, 1996: 20). Hortaz, postmodernitatea zentzu kulturean baliatuko badugu; aro ekonomiko berri honi erreferentzia egiteko, berriz, *kapitalismo berantiar*, kapitalismo klasikoaren ondorengo edota aro postindustrial bezalako kategoriak baliatuko ditugu. Aldiz, *postestrukturalismoa*, jakintza eremu oso ezberdinetatik landutako paradigma izanda ere (literatura, psikologia, ...), filosofia eta teoria politikoan emandako bilakaera aztertzeke orduan baliatuko dugu.

2.2 Postestrukturalismoa

2.2.1 *Estruktura* kontzeptu bezala eta bere garapena.

Jatorri arkitektonikoa egotzi izan zaion kontzeptu honek, XVII-XVIII. mendeetan giza terminologiara salto egingo du, Bernard Le Bovier de Fontelleren edota Bernoten eskutik gorputza eta lengoia, eraikitako estruktura bezala ulertzen hasten direnean, hurrenez hurren. Funtsean, zatiek osotasun baten parte nola hartzen duten aditzera emango zuten; horrela, egitura anatomiko, psikologiko, matematiko eta abarrez hitz egin dezakegularik. Baina XIX. mendera arte, Marx edo Émile Durkheim²² bezalako pentsalarien eskutik, ez zen giza zientzien erdigunean kokatu. Honen arabera, jendarteak adierazpen ezberdinen bitartez agerian gelditzen diren hainbat zutabe edo esturturen inguruan egituratzen delarik.

²² Estruktura giza-zientzien eremura emango duen jauziaren adierazle bezala ezaguna egingo da Durkheim-en *Las reglas del método sociológico* lana (1895).

Baina giza zientzia guztietara emandako jauziaren abiapuntua linguistikan izandako eraginaren eskutik etorri zen. Zentzu honetan, 1916an Ferdinand de Saussurek argitaratutako *Cours de linguistique générale*-k linguistika estrukturalari ez ezik, pentsamendu estrukturalistari oinarri teorikoa eskaini zion. Honek lengoaiaren bi maila bereizi zituen, mintzaira edo *langue*-a eta hitza edo *parole*-a. *Languea* lengoaiaren estruktura izango da, zeinu ezberdinei zentzua ematen dien zeinuen sarea, finkoa eta aldagaitza dena. *Parolea*, aldiz, lekutatutako lengoaiaren erabilera da; egoera zehatzetan erabiliak diren zeinuak. *Paroleak* beti *languera* jo beharko du, egingarriak diren baieztapen zehatzak lengoaiaren estruktura finkatuko baititu. Horrela, estrukturalismoak egiturari emandako nagusitasuna dela medio, *parolea* jendartearen erabilera arbitrarioagatik eta idiosinkrasiengatik elementu aldakor bezala agertuko da. Honek ikerkuntza zientifikorako indargabetuko luke, arreta ikerketa linguistikoari egonkortasuna ematen dion *languean* jarritz.

Saussureren linguistikak hartutako nagusitasun hau lengoaia irudikatzeko emandako ikuspegi aldaketa aintzat hartu gabe ezin izango da ulertu. Ordura arte ez bezala, errealitatearekiko hurbilpena lengoaiaren bitartez eman behar zen prozesua izango zen. Jada ez zen errealitatearen ezagutza zuzenerako biderik egongo; ezagutza hori lengoaiaren bitartekaritzaren bitartez jasoko dugu. Lengoiarekin, aurre existentzia propioa zuen errealitate baten islak baino, errealitate horren irudikapenak sortuko dira. Honek ez du esan nahi izango errealitate fisikoa berez existitzen ez denik. Objektu edo fenomeno fisikoak existitzen dira baina horiek soilik diskurtsoaren bitartez esanahia lortuko dute. Beraz, lengoaia ez da soilik egoera mental, gertaera edota jarreraren transmisiorako bidea izango. Lengoaia mundu soziala eraikitzen duen “makina” izango da. Gerora ikusiko dugun bezala, nortasun eta harreman sozialak eratzeko bidea ere izango da, diskurtsoetan ematen diren aldaketak eta gatazkak errealitate soziala erreproduzitzeko bidea izango delarik.

Giza funtzionamenduaren azalpenerako ordura arte nagusi izan ziren paradigmak (fenomenologia, empirismoa, ...) desplazamendua progresiboa izan zen, eta XX. mendearen lehenengo erdialde osoan zehar eman zelarik. Ez zion aurreko paradigmak balio faltari erantzuten, baizik eta metodo “zahar” horiek bere oparotasuna galtzeari, beste batek bere eragin eremuak zabalduko dituen bitartean. Honen atzean, eredu berriak bilatzeko gose bat agertuko da. Mendebaldeko historiak eta zientziak garai horretara arte bide bazterrean utzitako hainbat kontzeptu garrantzi berri bat hartzen joango dira: inkontzientea, agerikoa denaren atzealdeko esanahia, ulergaitza, ... horren adibideak izango direlarik.

Mendearen hasieran estrukturalismoak Saussureren linguistikarekin bere garapenerako lehenengo mugari garrantzitsu bat kokatu bazuen, mendearen erdialdean Levi-Straussen ikerketa antropologikoak, ordura arte filosofian eta ikerketa sozialetan nagusi ziren paradigma funtzionalista, enpirista edota kulturalistak berrikustearen beharra agerian utzi zuen. Levi-Straussek orduko ikerketarako metodo nagusiek kasu zehatzen berezitasunei gehiegizko arreta jartzen zietela salatuko du, fenomeno zehatz horien atzean dagoen funts atemporal eta unibertsalak ezkutuan mantenduz; hau da, harreman sozialen atzean dauden *egiturak* agerian utzi gabe. Mundu mailan dauden kultura, etnia eta talde sozial ezberdinetan intzestuak duen gaitzustearen azterketa oinarri hartuta, errefusatze honek zuen berezko izaera edota joera naturala deseraikitza joko du, ohitura hauek duten izaera eraikiak edo kulturalak azpimarratuz. Alde horretatik, egitura hauek norbanakoen eta prozesu sozialen baldintzatzaile nagusi bezala agertuko zaizkigu, mendebaldeko pentsamenduan nagusi zen “subjektu ekintzaile autonomoaren” ideari kontrajarriz.

XX. mendearen lehenengo erdialdean ideia hauek ikerketa sozialaren hainbat eremuetara hedapen azkarra izan zuten. Antropologian Claude Levi-Strauss, semiologian Roland Barthes, psiko-analisan Jacques Lacan, ... zabalpen honen adibide batzuk baino ez dira. François Dosse-ek hiru estrukturalismo mota bereiziko ditu: lehenengoak joera *zientzia-zalea* izango luke, Levi-Strauss antropologian eta Lacan psiko-analisan bertan kokatu ahal izango ditugularik; bigarrenkoa estrukturalismo *semiologikoa* litzateke, lehenengoak azalpenaren Legearen bilaketa lan horretan baino jarrera heterodoxoagoa eta malguagoa erakutsiko lukeelarik, Barthes bera horren adibide litzatekeelarik; eta hirugarrenik estrukturalismo *epistemikoa* genuke, ezagutzaren bilatze horretan baldintza historiko, psikologiko edota soziologikoei arreta jartzen diena; jarraian aztertuko ditugun Althusser, Foucault edota Derrida horren erakusgarri lirateke (Dosse, 2004, I: 13).

Estrukturalismoaren denboralizazio zehatza egitea lan nekeza izan badaiteke ere, 1955an Levi-Straussen *Tristes tropiques*-en argitalpenak gainontzeko ikerketa zientzietan eman zen estrukturalismoaren zabalpenean jauzi bat suposatu zuen. 50. eta 60. hamarkadak egituraren fenomenoaren ezandarako urteak izan ziren, gorago aipatu ditugun jakintza eremuetara olio tanta bat bezala hedatuz joan zelarik. Baina metodo guztiak bezala, estrukturalismoak ere bere mareagorak eta mareabeherak ere izango ditu. Doserentzat 1966. urtea urte klabea izango da. Epealdi horretan pentsamendu estrukturalistan erreferentziazkoak izango diren lanak argitaratuko dira: aurreko urtean Althusserrek *La revolución teórica de Marx* eta *Para leer El Capital* (beste autore batzuekin batera: Jacques Rancière, Étienne Balibar, ...) kaleratu zituen; 1966an bertan Foucaultek *Las palabras y las cosas*; aldizkari filosofiko eta zientifikoei dagokionez ere urte oparoa

izango da (*Langages, Les Temps Modernes, ...*); edota urte berean estrukturalismoak Atlantikoa zeharkatuko duela esango da, Baltimore-ko Unibertsitatean Barthes, Lacan edo Derridaren eskutik emandako mintegiak mundu anglosaxoiak estrukturalismoari atek ireki zizkiolarik. Data zehatzetatik harago 60. hamarkadaren erdialdera arte paradigma berri honen zabalpenerako urteak izan baziren ere, estrukturaren mugak ere agerian gelditzen hasi ziren, ordura arte eredu honetatik gertu kokatu izan ziren hainbat autore berarekiko distantziak markatzen hasi zirelarik.

2.2.2. Estrukturaren gabezien gainean eraikitako paradigma berria.

Estrukturalismoaren errefluxu honetan gertaera historiko ezberdinek bere pisua izan zuten. I. go Mundu Gerraren eskutik emandako mundu mailako potentzien ordenu berrian, EEBBak Europari lekukoa hartzen hasiko dira kontinente zaharra atzean utziz. Europan ordura arte nagusia izan zen pentsaera eboluzionista naturalaren mitoa apurtzen hasi zen. Mugarik gabeko balizko garapen hau ez zen lineala, ezta zeinek gidatuko zuen aurrez determinatua ere. Etengabeko garapen iraunkor baten aldeko pentsalarien eskemak apurtzen hasi ziren; izan Comtek teologiatik positibismora marrazten zuen igarobidea edota Marxek esklabotzatik sozialismora irudikatzen zuena. Paradigma horien hasierako eraispenean estrukturalismoak zerikusi handia izan zuen. Baina XX. mendearen erdialdean jazotako gertakari historikoek ikuspegi tradizional honi behin betiko kolpea eman zioten. II. Mundu Gerraren hondamendiak, holokaustoaren edo estalinismoaren gehiegikerien agerpenak ordura arte nagusitu izan ziren historiaren ikuspegi eboluzionistak, arrazionalistak eta metafisikoak intelektualki deseraikitzeke ezinbesteko oinarria jarri zuten. Norbanakoen edo kolektiboaren historia era arrazional batean gidatzeko ezintasun honen teorizazioak, bere *osotasun* falta azpimarratzeak, laburbilduz, mendebaldeko arrazoiaren heriotza honek pentsamendurako paradigma berrien beharra agerian utzi zuen.

Arrazionalismoarekiko desengainu honen eskutik eragindako dislokazioak eta metafisikaren dekonstrukzioak kontzientzia berri baten agerpena eskatuko dute. Garapenaren ideia, fenomeno bateratzaile gisa, koarentenan jarriko da. Garapenak ez dio ildo global bati erantzungo; anitza izango da. Jada ez dira azpiko eta oinarrizko eremuak egongo, ezta aurrekoak edo ondorengoak. Errealitate sozialaren konplexutasunak eta bere logika bateratzailea antzemateko ezintasunak errealitate horren atzealdean dagoenaren bilaketa areagotu zuen. Deseraikitze prozesu hau maila batean estrukturalismoak hasitako bide bati zor dio baina egitura horietatik kanpo kokatuko den

soberakinaren agerpenak, 60. hamarkadaren erdialdera arte nagusitu zen paradigma egitura-zalearen ezintasunak agerian utzi eta eraikuntza intelektual hori eguneratzea behartu zuten.

2.2.3 Programa alemanaren berreskuratzea.

Posestrukturalismo bezala definitu dezakegun zaharberitutako eskemaren eguneratzean aurreko hamarkadetan eskola alemaniarrek utzitako hainbat maisuen ondarea berreskuratzea joko da (Cusset, 2005:305); horien artean Nietzsche eta Heideggerrena nabarmentzeko. Bata zein bestea mendebaldeko pentsamenduaren izaera metafisikoaren deseraikuntzaren aitzindaritzat hartu ditzakegu. Bakoitzaren testuinguru historikoak ere eragin nabarmena izan zuten arrazionalismoaren aurkako joera honetan: lehenengoak bizitako bateratze alemaniar bortitzak eta bigarrenengoak bizi izan zuen I. go Mundu Gerraren osteko etsipenezko testuinguruak Ilustrazioaren ohiko baloreekiko ageriko gaitzuste bat nagusitu zuten beraien pentsamenduetan.

Nietzscheck Frantziar Iraultzaren eskutik bortxaz garatu zen Ilustrazioaren filosofiaren izaera inposatua eta inposatzailea salatuko du. Honen baitan garapenari hertsiki lotuta ematen den historizitatearen adiera erabat zentzu gabea litzateke. Bere ustez, Historiak zentzurik badu hori bere gainbeherara lotuta egongo da. Hortaz, eboluzionismoari lotutako Historiaren adiera honekin apurtuko beharko da, arrazoiaren tiraniarekin bukatzen joateko. Ilustrazioak arrazoiari emandako nagusitasunarekin, aro feudalak teologia edo Jainkoari emandako akats berdina errepikatzen egongo zen, honen araberrako ordenu grabitazional bakarra ezarriz. Eszenatoki honetan, desjabetutako gizaki bat agertuko zaigu, euskarririk izango ez duena, iragankorrera kondenatua, metafisika arrazionalista, marxista eta abarrekoek marraztutako etorkizun zoriontsutik urruti. Etorkizun hau ilusio lasaigarri bat baino ez da izango. Bide honetan, sozialismoa gainditu beharreko etsai nagusietakoa izango da, bera gainbeheran legokeen despotismo arrazionalista baten erakusle baino ez litzateke. Horrela, XIX. mende bukaeran nagusi zen ikuspegi eboluzionistan, Historia, eta bere ondorio litzatekeen sozialismoa, garaitu beharreko iruzurra baino ez litzateke. Marko bateratzailearekiko eta historiaren mugimenduarekiko apurketa honek, eszenatoki anitz, orainaldi iragankor eta harreman atomizatuak nagusituko lituzke, posmodernismoaren aurrekari gisa.

Nietzscheck mendebaldeko pentsamenduan arrazoiaren eta *Jainkoaren heriotzarekin* txertatu zuen lubakian sakonduz, Heideggerrek ordura arteko pentsamendu politikoan nagusitu zen ikuspegi

metafisikoa gainditzeko saiakera berretsi nahi izan zuen. Nietzschek bezala, Historiak izango lukeen *berezko* zentzua zalantzetan jarri zuen, gizakiaren esentziari arreta jarritz. Berpizkundetik hona filosofia gizakia gertakizunen erdigunean kokatu izanak ez luke inongo zentzurik Historiaren beraren bilakaerari erreparatuta. Zentzu horretan, Hegelek oinarri hartutako *cogito* kartesiarrak hartutako nagusitasuna kritikatu zuen, *arrazoiaren teleologia* gisa. Heideggerren ustez, filosofia urrutiegira joan da historiaren motor gisa *cogittoa* jarritz.

“En el curso de esta historia (mendebaldeko filosofiarena), ciertos dominios particulares del ser -tales como el *ego cogito* de Descartes, el sujeto, el yo, la razón, el espíritu y la persona- caen bajo la mirada filosófica y en lo sucesivo orientan primariamente la problemática filosófica; sin embargo, de acuerdo con la general omisión de la pregunta por el ser, ninguno de esos dominios será interrogado en lo que respecta a su ser y a la estructura de su ser” (Heidegger, 2002: 46).

Baina ez da kartesianismoaren *cogittoa*-ari, hegelianismoaren arrazoa eta dialektikari egindako kritika hau gure ikerketa proiekturako interesgarrien suerta dakigukeena. Arrazoi gizatiarrari egindako kritika honen oinarrian Heideggerrek *izakia* (agerikoa) eta *izatearen* (esentziala) artean egiten duen banaketan jarri nahi dugu arreta. Arestian jasotako zitan, horretaz ari baita filosofia “izatearen domeinu zehatz batzuegan” arreta jarri izana salatzen duenean, “bere izatea (esentzia) eta bere izatearen eurastrutura” ahaztu egiten dela nabarmenduz.

Mendebaldeko filosofia klasikoak gizakiaren (*izaki* gisa) funtsezko ezaugarri gisa arrazoa kokatu du, hau da, agerian dagoen arrazoitzeko gaitasuna. Nietzschek historiaren ikuspegi monokausal honekin apurtzeko lehenengo saiakera eta gero, Heideggerrek arreta arrazoimen ontikoaren erreinutik kanpo legokeen *izatearengan* edo existentziaren fundamentuarengan kokatu zuen (Marchart, 2009: 41). Azken mendeetako Historiari erreparatu baino ez genuke beharko gizakiak arrazoiaren izenean egin dituen zentzugabetasunak agerian uzteko. Beraz, filosofiaren arreta, gizakiaren eta jendartearen ustezko bilakaera arrazionalean kokatzea baino, jendarte *jendarte* bilakatzen duen esentzian edo fundamentuan jartzeak zentzu handiagoa luke.

“El preguntar ontológico es ciertamente más originario que el preguntar óntico de las ciencias positivas.[...] La pregunta por el ser apunta [...] a determinar la condición de posibilidad de las ontologías mismas que anteceden a las ciencias ónticas y las fundan” (Heidegger, 2003: 34).

Zientziaren arrazoia gizakiaren funts eratzailetik banatzeko saiakera honekin batera izatearen dimentsio ontikoa ere aintzat hartuko du. Gizakiaren dimentsio ontiko horren oinarritzko adierazpidetzat *Dasein*-a hartuko du. *Dasein*-aren ideia munduan egotearekin lotuko du; hau da, espazio eta denbora zehatz batean lekutua izatearekin; *hor-izatearen* ideiarekin:

“Al *Dasein* le pertenece esencialmente estar en el mundo. [...] La comprensión propia del *Dasein* comporta pues [...] la comprensión del ser del ente que se hace accesible dentro del mundo” (2003: 36).

Hortik, Heideggerrek denbora eta historiaren aldagaiari emandako garrantzia; baina ez ohiko zentzu eboluzionista batean, izatea lekutuko duen joko zelai gisa baizik. *Daseinari*, izakiaren dimentsio ontiko gisa, *seyn*-a kontrajarriko dio, izatearen dimentsio ontologiko bezala. Baina azken funts hau (ontologikoa) *hutsik* legoke. Ez lioke aurretik determinatua legokeen inongo patroiri erantzungo. Gizakiaren Historia gabezia horren gainean eraikita legoke²³. Hortik Heideggerrek mendebaldeko filosofia politikoari ematen dion astindua, maila ontologikoaren izaera aurre-determinatu gabea eta bere gabezia eratzaila aldarrikatuz.

Haustura ontiko-ontologikoa honen gainean ondorengo belaunaldi oso batek estrukturalismo berantiarra edota posestrukturalismo bezala ezaguna egin den korrontearen nondik norakoak marraztuko ditu. Honen arabera *ez dagoen-fundamento* hori (*fundamento ausente*), edota hobeto esanda, *hutsik* dagoen fundamentu hori(ek) izango d(ir)a jendartearen eraikuntza politikorako oinarria. Baina Olivier Marcharten ustez, fundamentu honen gabeziak aro posmoderno honetan horren modan dagoen joera antifundazionalistarekin zerikusirik ez luke. Hau da, “fundamentuaren ahultze ontologikoak ez dakar ezinbestean fundamentu guztien ukapena, baina bai *azken* fundamentu (eratzaille) baten existentzia” (2009: 15). Honek agerian utziko luke une eratzaille horren izaera kontingentea eta partziala.

Luc Ferry eta Alain Renaut-ek aurreko belaunaldi estrukturalistarekiko haustura bat suposatu zuten ezaugarri komunak lau ideien gainean laburtu nahi izango dituzte (*La Pensée* 68, 1985): a) Saussuren pentsamenduan jauzi eginez autore hauen testuetan adierazle eta esanahiaren arteko deslotura nabarmena emango da, jarraian ikusiko dugun bezala; b) genealogiak agerpen berritua

²³ “La tradición desarraiga tan hondamente la historicidad del *Dasein*, que éste no se moverá ya sino en función del interés por la variedad de posibles tipos, corrientes, y puntos de vista del filosofar en las más lejanas y extrañas culturas, y buscará encubrir bajo este interés la propia falta de fundamento” (Heidegger, 1953, 2003: 45)

egingo du, diskurtsoaren eraikuntzaren kanpo baldintzen azterketa gisa; c) *egia*, diskurtsoa eta bere edukiaren arteko lotura frogatu dezakeen aldagai gisa, eszenatoki filosofikotik desagertzen da; eta d) Foucaultek nabarmendu bezala, lengoaiaren arauak desgaitua egongo den autorearen gainetik nagusituko dira.

2.2.4 Paradigma berri baten oinarriak.

2.2.4.1 Inkontzientea lengoaia bezala egituratua.

Arestian aipatu dugu, errealitatearen edo *egiaren* bilaketarako paradigma berri honetan lengoaiak hartu zuen garrantzia. Errealitatea jada ez da ezer emana, hor dagoena, baizik eta hizkuntzaren bitartez eraikitzen dena; hortaz, estrukturalismo berantiarrean kokatu ahal izango diren autore gehienentzat, errealitatea errealitate diskurtsibo gisa ulertu beharko dugu. Testuinguru honetan aztertu beharreko aldagai nagusietakoa lengoaia bera nola egituratzen den izango da.

Aurreko urteetan nagusi izan ziren fenomenologia edota filosofia analitikoak aldarrikatzen zituzten prozesu kognitibo edota arrazoiaren nagusitasunaren aurrean, postestrukturalismoak errealitatearen *atzealdea* edo *alde ezkutua* arakatzeko joera hori izango du. XX. mendearen erdialdean, alde *ilun* horren miatze lanean psikoanalisi indar berritua aterako. Horrela, diziplina honen aitzindaritakoa izan zen Freuden lanen ber-azterketa sakonak mahai gaineratuko dira. Frantziako eskola berri honetan psikoanaliaren eguneratzean, nabarmenena Jacques Lacan, zalantzarik gabe. Honek lengoaiaren egituratzean inkontzienteak zuen funtsezko papera Freuden lanen gaineko berrikuspenean oinarrituko ditu.

XX. mendearen hasierara arte psiko-analisan nagusi ziren metodo hipnotiko edo katartikoen aurrean, Freudek agerikoak diren manifestazioen atzean ezkututzen diren sakoneko esanahiak agerian uzteko garrantzia azpimarratu zuen. Ageriko manifestazio horiek ametsen edo hitzen bitartez proiektatuko dira, baina beraien atzealdean gordeta dagoena miatu beharko da. Lehenengoei dagokienez, Freudek bertan emango diren bi prozesu nagusi nabarmendu zituen: *kondentsazioa* eta *desplazamendua*. Kondentsazioarekin ametsetan ematen den ageriko materialaren bolumena eta ezkutukoaren arteko aldeari erreferentzia egingo dio, hainbat kasutan, pentsamenduak fusionatu,

gainjarri edota isilean gordetzen direlarik. Desplazamenduarekin, aldiz, ageriko edukia iluntzeko psikeak egiten duen lanaz ariko ginateke.

Hitzen kasuan, berriz, Freudek lengoaia eta transferentziaren arteko lotura azpimarratuko du. Hau da, lengoaia, dimentsio psikologikoaren eraikuntza izango da, gainontzeko norbanakoekiko hartu-emanen honen transferentzia bat suertatzen delarik. Subjektu bat beste batengana zuzentzen denean transferentzia bat sortuko da, Lacanen ustez transferentzia honetan beti *manipulazio* maila bat egongo delarik (1981, I: 127). Baina zertan datza manipulazio hau?

2.2.4.2 Adierazlea eta esanahia.

Saussurek landutako *Cours de linguistique générale*-k (1916) ordura arteko linguistikan nagusitutako posizio batzuk indargabetu behar izan zituen. Posizio horiek deseraikitzeke abiapuntua *zeinu linguistikoa* izango da. Egun, oraindik ere, zeinu linguistikoak termino eta gauza baten arteko loturari erreferentzia egiten diola pentsatzera jotzen dugu. Saussureren ustez zeinu linguistikoak kontzeptu eta irudi akustiko baten arteko loturari erreferentzia egingo lioke, azken hau irudikapen psikiko bezala ulertuta. Saussuren hizkeran kontzeptua *esanahia* litzateke eta irudi akustikoa *adierazlea*, zeinu akustikoa bien arteko batasunaren adierazgarria litzatekeelarik; beti ere, lehenengoaren nagusitasuna bermatuz bigarrenarekiko. Esanahi eta adierazlearen arteko harremanaren emaitza gisa, zeinuak propietate batzuk izango ditu: lehenengoak, honen a) *izaera arbitrarioari* egingo dio erreferentzia, adierazle eta esanahiaren arteko harremanak adierazten duen bezala; horren adibide litzateke hizkuntza ezberdinetan adierazle ezberdinen bidez esanahi berdinari erreferentzia egitea. Arbitrarioa izanik ere, adierazle eta esanahiaren arteko harremana behin finkatzen denean bera b) *aldagaitza* izango da; hau da, zeinuak norbanakoen arteko transferentziaren funtzioa betetzeko adierazle eta esanahiaren arteko egonkortasun bat bermatu beharko du, lengoaia kide ezberdinen arteko ulermenerako erabilgarria izan nahi badu behintzat. Maila batean diogu, ezen zeinua c) *denboran zehar aldatu ahal* izango delako; beti ere, adierazle eta esanahiaren arteko aldaketak batera ematen diren heinean, hau da, zeinuak bermatzen duen batasuna apurtu gabe. Baina, noski, lengoaia egituratu nahi badu zeinu hauen kateaketa eman beharko da eta ez soilik lexikoa; horregatik, Saussurek d) *adierazleen kateaketa lineala* izango dela azpimarratu zuen.

Lacanek Saussuren ondare hau bere pentsamenduaren abiapuntutzat hartuko badu ere, hainbat moldaketa erantsi zizkion. Esanguratsuenen artean, adierazle eta esanahiaren arteko banaketari eutsiko badio ere, beraien arteko deslotura azpimarratzea izango da. Alde horretatik, Saussurek zeinuari emandako egonkortasunaren balioa *puntada* deitutakoagatik ordezkatuko du. Lacanentzat, adierazle eta esanahiaren artean ematen den egiturazko banaketa ez litzateke zeinuak bermatu beharko lukeen batasunaren bitartez emango. Lacanentzat adierazle eta esanahiaren arteko harremana “beti jariakorra eta desegiteko zorian legoke”. Baina aldi berean *puntada* honek adierazle eta esanahiaren arteko harremanari egonkortasun maila bat bermatu beharko dio, bestelakoan bata eta bestearen arteko desplazamendua mugagabea litzateke. Hortaz, *puntada* adierazleak esanahiaren desplazamendua mugatzen duen operazio bezala definitu ahal izango dugu (Dor, 1997: 49). Adierazlearen etengabeko desplazamendu honetan, uneren batean, adierazleak esanahi bati kateatu beharko da, *esangura* (*significación*) bat sortu nahi badu behintzat. Lacanek adierazlearen behin-behineko kateatze prozesu honen bitartez *point de capiton*²⁴ kategoriari bide emango lioke. Baina ainguratze hau prekariora izango da; erabat hauskorra. Zentzu horretan, adierazle eta esanahiaren arteko harremanak *barra* lacaniarrak ezaugarrituko du, zeinaren arabera bien arteko elkarbizitza bat emango den, baina baita bien arteko barnera-ezintasun bat ere (Dor, 1997: 204).

Saussurekiko bigarren moldaketa nagusiak esanahiaren gaineratik ematen den adierazlearen nagusitasunari erreferentzia egingo dio. Nagusitasun hau frogatzeko linguistikan eta psikoanalisian baliatu izan diren bina kontzeptu parekatuko ditu. Freudek ametsen azterketan azpimarratutako *kondentsazioa* eta *desplazamenduaren* garrantziak, linguistikan *metaforan* eta *metonimian* bere baliokideak izango lituzke, hurrenez hurren. Ametsetan zein lengoaian, psikoanalistaren eginkizuna ageriko manifestazio hauen atzean ezkututzen dena agerian uztea izango da, arestian aipatutako bitarteko teorikoek horretarako lanabesa eskainiko dutelarik. Funtsean, metaforak gauza bat aditzera ematen du, beste baten bitartez. Metonimiak, aldiz, izen aldaketari erreferentzia egiten dio, zeinaren bitartez objektu bat ohikoa ez zaion bestelako termino batengatik izendatua izango den. Batean zein bestean, esanahiak bere koherentzia adierazlearen saretik kanporatuko du, ordezkatze horrek adierazle eta esanahiaren arteko deslotura eta lehenengoaren nagusitasuna erakutsiko lukeelarik. Lacanentzat bi prozesu hauek inkontzientearen funtzionamenduaren erdigunean egongo dira.

²⁴ Adierazle eta esanahiaren harremanaren izaera jariakorra adierazteko Lacanek *point de capiton* esamolde frantsesa erabili izana esanguratsua da. Izan ere, Brett Levinson-ek nabarmendu bezala frantseseko esamolde honek “heldulekua dago” zein “heldulekurik ez dago” esanahiari erreferentzia egin diezaiokie.

2.2.4.3 Erreal, Sinbolikoa eta Irudizkoa.

Lacaneek *Ispiluaren Estadioaren* eta *Ediporen konplexuaren* bitartez, bai psikoanalisiaren aro berria bai eta joera postestrukturalistako pentsalarien belaunaldi oso batengan zuzeneko eragina izango duen *Erreal*, *Sinboliko* eta *Irudizkoaren* (ESI) arteko hirukoa garatuko du. Ispiluaren Estadioaren bitartez umeak bere *ni*-aren (*je*) kontzientzia hartua, aski ezaguna den Ediporen fenomenoaren hiru faseak gainditu beharko ditu: lehenengoan, umeak bere burua amaren desio gisa hartuko du, amaren desio hau bere gabezi batetik letorkeelarik, faloarena hain zuzen ere, umea bera falo edo desioaren objektua izango litzatekeelarik. Bigarrenean, aitaren parte hartzeak eta honek amaren desioarengan sortzen duen eraginak umea (desioaren objektu/falo gisa) frustratua/zikiratua sentitzea ekarriko du, amaren desioaren objektua kanpoan (aitarengan, falo gisa) sinbolizatua legokeelarik. Eta hirugarrenik, umearen aldetik egoeraren ulermena legoke, non aitak (ere) faloa/desioaren objektua izatean, desioaren objektua *izatea* eta *edukitzearen* artean ezberdinduko lukeen; hau da, umea jada ez da amaren desioaren objektua *izango*, baina umeak amak desiorako objektua *edukiko* duela ulertuko du, kasu honetan umeak aitarengan sinbolizatzen duena. Desioaren objektua izatetik edukitzerako *jatorrizko errepresio* honek hiztegi lacaniarrean *aitaren metafora* deitutakoa osatuko luke.

Oinarrizko eskematizazio honek izan dituen era askotariko interpretazioez harago, prozesu psikologikoetan ESI triadak duen eragina azaltzeko balio izan du. Horrela, umeak bere buruaz desiorako objektu gisa egiten duen *irudikapenean*, umea bera desioaren objektu *Erreal* bezala proiektatuko luke bere burua. Baina aipatu dugun bezala, aitaren/*bestearen* agerpenak desiorako objektu gisa zikiratzea ekarriko du; hortaz, objektu hori *sinbolizatua* proiektatu beharko da, sinbolizazio hori lengoaiaren bitartez egikaritu beharko delarik. Horrela, metaforizazio edo metonimizazio prozesuen bitartez desioa Erreal izateari utzi eta Sinbolikoa bilakatuko da. Lacanen *Idatzietan (Écrits)* horrela azaltzen du prozesu hau:

“La palabra es el asesinato de la cosa [...]. Si no se puede tener la cosa (galdutako objektua) se la mata, al simbolizarla por medio de la palabra”²⁵.

Lengoiak jokutzen duen bitartekaritza honen bitartez, umea (desioaren) objektu izatetik (desio propioak izango dituen) subjektu izatera igaroko da. Aldiz, subjektu gisa aparatu psikikoa zatitua

²⁵ Dor-ren liburutik jasota (1997: 105)

izango duen agente bezala agertuko da: subjektuak Errealarekin izango duen harremana, lengoaiaren eskutik gauzatzen den sinbolizazioaren bitartez emango da, irudimenezko forman. Ariketa hau adierazlearen nagusitasunaren adibide bat baino ez litzateke, sinbolizazioak Erreal/esanahia irudikatu nahian hartzen duen bide gisa. Baina, aldi berean, sinbolizazio honek ezin izango du Erreal den bezala adierazi; nolabait esatearren, manipulaturako bere errepresentazio bat izango litzateke. Lengoiaren parametroetara eramanez, norberak esaten duena eta norberak esaten duenaz pentsatzen duena ez dira bat etorriko. Honek subjektuaren alienazio bat ekarriko du lengoiaren bitartekaritza dela eta; izan ere, subjektuak bere burua adierazle kateagatik baldintzatuta ikusiko baitu. Hortaz, subjektua agertu ahal izateko (sinbolizatu izan ahal izateko) desagertu beharko da (Erreal gisa). Zentzu horretan, subjektua ez da lengoiaren eragile, bere efektua baizik. Bizipen Errealaren eta bizipen Sinbolikoaren arteko bereizketa hau lengoiaren berezko ezaugarria izango da. Objektu bat *den bezala* adierazteko ezintasun horrek lengoiaren funtsezko beste ezaugarri batera eramango gaitu: lengoiak Erreal den zerbait adieraziko du bere *gabeziaren* bitartez, hau da, bera bere osotasunean irudikatzeko *ezintasunetik*.

2.2.4.4 Identitatea eta identifikazioa.

Freud eta Lacanek mahai gaineratutako tresneria psikoanalitiko honek soziologia edota zientzia politikoari bide berri bat irekiko dio subjektuaren eraikuntzaren kontzeptualizazioan. Bi diziplina hauen arteko harremana askotan gatazkatsua izan bada ere, guretzat funtsezkoak diren bi kategoria zedarritu eta zehazteko bidea eskainiko digu: identitatea eta identifikazioa. Askotan parekoak liratekeen bi kontzeptu bezala ulertu diren arren, subjektuaren eraikuntzaren ikuspegitik badira nabarmendu beharreko ezberdintasunak.

Stravrakakisek (2007: 56) identitatea *sustantziarekin* parekatuko du; identifikazioa, aldiz, *prozesuarekin*. Zentzu honetan identitateak, soziologia klasikoak edota hasierako psikologia freudiarrak *Ni*-aren bitartez aldarrikatu izan duten positibitate maila bati erreferentzia egingo dio. Ikuspegi honen arabera, subjektuek erreferentzia zehatzak eta positiboak bilatzera joko lukete, “zein naizen” esango didan izen-abizenak, familia, alderdi politikoa edota nazioen bitartez. Identitatearen inguruko ikuspegiak norberaren gorputzaren, ibilbidearen edota historia indibidual zein kolektiboaren gainean, nortasun finko bat eraikitzen joko dute. Ikuspegi zientifikotik identitatearen ADN-a bilatzeko saiakera bezala uler genezake. Joera hau prozesu sozial eta politikoetara eramanda,

berau, nazio sinbolo edota tradizio kulturalen bitartez egikarituko litzateke, esaterako; beti ere, autoritate maila bat aitortuko zaion hirugarren baten (Lacanen *Bestea*) aitortza lortzeari begira. *Bestearen* agerpen honek eta bere onespeneren bilatzeak agerian uzten hasten da identitate hauek ez direla norberatik ateratzen den zerbait, baizik eta hirugarren horrek ematen duen zerbait.

Psikoanaliarentzat nortasuna positibizatzeke saiakera honek fenomeno psikiko sakonago bat ezkututzen du: identifikazioarena; beste batek egiten duen interpelazio prozesu baten ondorio litzatekeena. Positibitate honen arrastoak norbanakoak berezkoa ez duen identitate baten euskarri bihurtu nahi dira, baina identitate hau ez da berezkoa, irudimenezkoa baizik. Hau da, proiektatzen ditugun irudiekin identifikatuz jaioko litzateke identitate hori gorpuzteke saiakera. Baina identifikazio hau ezin izango da erabatekoa izan. Hortaz, Cortazarrek (2010) dioen bezala identitatea ezinezkotasun baten egia litzateke. Baina ezinezkoa bada zergatik mantendu identitatearen kategoria? Honek sortzen duen *jouissance* edo gozamenagatik; galdutako identitate (Erreal) batek sortutako hutsunea identitatearen bitartez estaltzen saiatzeak ematen duen gozamenagatik, hain zuzen ere. Identitate hau *a objektuen* inguruan egituratuko litzateke, Errealaren ondar aleak sinbolizatuko lituzketen positibitateen (nazioa, kultura, ...) inguruan, desiorako objektu gisa ulertuta.

Hortaz, identitatea eta identifikazioa kategoria kontzeptual ezberdinak izango lirateke, izan norbanakoei dagokienez, zein kolektibitateei dagokienez. Horrela irudikatuko dituzte Freud eta Lacanek. Lehenengoak, bere hastapenetan, identifikazio hau lotura libidinal (soil) batzuen bitartez egituratuko zela uste bazuen ere, heriotz pultsioak bere eraikuntza teorikoan izan zuen agerpenak berau berraztertzerara eramanez²⁶. Suntsiketarako joera honek lider edota ideia batekiko kohesio eta batasuna aldagaiaren ezintasuna agerian utziko du; haurtzaroan emandako jatorrizko egoera bat berrezartzeko saiakera bati lotuta legoke. Horrela, pentsamendu freudiarraren hastapenetan aitaren maitasunaren kategoriak anaien arteko identifikaziorako funtsezko mekanismoa bazen, honek bere mugak agerian utziko ditu aipatutako suntsiketarako bulkaden agerpenaren ondorioz. 1930tik aurrera, *El malestar en la cultura* (1930) lanean ematen den *Superni*-aren kategoriaren garapenarekin, ordura arteko ikuspegi baikorraren apaltzean jauzi nabarmena emango da. Idealizatutako figura honen agerpenak gozamenaren sakrifizioa eskatuko luke hobebharrezko kausa baten mesedetan. Baina Freuden arabera, gozamenari uko egite honetan gizabanakoak gozamina aurkitu du. “Kanpoan” dagoen (beste) horren onespenerak eta berarekiko identifikazioak

²⁶ Bilakaera hau 1920etik aurrera eman zen *Más allá del principio del placer* (1920) eta *Psicología de masas y análisis del yo* (1921) lanen argitalpenarekin batera.

ematen duena, hain zuzen ere. Hortaz, gerora Zizekek (1992) planteatu bezala, talde baten identifikazioaren euskarri bakarra honek ematen duen gozamenaren dimentsioa litzateke.

Lacanekek “jatorrizko egoerara” bueltatzearen ideia Errealaren ideiarekin parekatu zituen. Sinbolizazioaren bitartez irudikatu nahi den Errealaren ezinezko irudi hau heriotz pultsioaren bidez jatorrizko egoerara bueltatzeko saiakera litzateke. Fenomeno honen jatorria Ispiluaren Estadioan ematen den egoerarekin azalduko luke. Bertan umeak bere buruaz lehenengo irudi bat eraikiko du. Lacanen arabera umea eta bere irudiaren arteko harremana tentsioduna izango; umea (Erreal gisa) alienatuta gelditu delako berak sortutako irudian; hau da, irudi horrek ezin izango ditu jaso ume *erreal* horren adiera guztiak. Hortaz, harreman hau anbigua izango da, ez da barne-adiskidetu egongo eta alde horretatik ezegonkorra izango da. Harreman honi egonkortasun maila bat emateko asmoarekin irudi honen sinbolizazioa emango litzateke. Sinbolizazio honen funtsa errepresentazio linguistikoa litzateke. Ikusi dugun bezala linguistika subjektuaren agerpenerako oinarritzko baldintza da. Horrela adierazlearen kategoriak subjektuaren nominazioa eta ondorioz ematen den *agerpenaren* bitartez subjektua determinatuko luke. Baina errepresentazio hau ere alienatzailea izango da, irudiaren dimentsio guztiak barneratu ezin dituen heinean eta lengoaiaren arauetikiko menpekotasuna erakusten duen heinean. Horrela, subjektu eta adierazlearen arteko harreman paradoxikoa eraikiko litzateke: batetik, subjektuak adierazlea behar duelako bere burua agertu ahal izateko; baina, aldi berean, adierazlea ezin izango duelako subjektu (erreal) irudikatu. Irudia eta sinbolizazioaren bidez ematen den alienazio eratzaille bikoitz honen ondorioz Lacanekek subjektua *gabezia* bezala ulertuko du. Logika honetan Lacanen pentsamendua identitateen eraikuntzari lotutako ekarpena baino identifikazio prozesuei lotutakoa dela esan dezakegu. Hau da, irudiaren edota adierazlearen bitartez identitate egonkorak eraikitzeke porrotaren ondoren gabeziaren subjektua agertuko da; bera saiakera iraunkor baina ezinezko honetan identifikazio kontingenteen jokoaren emaitza aldakorra litzatekeelarik.

Eskema hau maila sozialera eramanda, gerora Laclauk aldarrikatutako “jendartearen ezinezkotasunarekin” parekatu dezakegu. Honek, Freud eta Lacan ez bezala, identitateez hitz egingo digu baina unibertsalaren eta partikularraren arteko artikulazioaren bitartez ematen diren identitateen eraikuntza kontingenteaz ariko da²⁷. Laclaren (1995) ustez unibertsal eta partikularraren artikulaziorako lau forma historiko nagusi egon dira:

²⁷ Unibertsal eta partikularraren arteko artikulazioaren eztabaida bere lan osoan zehar presente egongo bada ere, identitateen aferari lotuta *Universalismo, particularismo y el tema de la identidad* (1991) entseguan hurbilpen zehatzagoa egingo du.

- *Inkarnazioaren logika*: honen arabera unibertsala eta partikularra entitate banatuak lirateke, beraien baitan osatzen direnak. Hau da, elkarren inongo beharrik ez luketenak. Unibertsalak balio gorena ordezkatzeko luke eta partikularrak izatearen usteltzea. Antzinako filosofia klasikoaren joka-leku honetan arrazoiaren bitartez hel gaitzke unibertsalera.
- *Sekularizatutako eskatologia*: bigarren hau bere jatorrian kristautasunari lotuta agertzen zaigu. Bertan unibertsaltasunak ordezkatzeko duen osotasuna existitzen da baina Jainkoaren irudiarri lotuta agertzen zaigu; Jainkoak beteko luke unibertsal eta partikularren arteko bitartekaritza. Unibertsalizazio prozesuaren izaera jainkotiarrek gizakiontzat ulertezina bilakatuko luke. Kontzepzio honetatik *historiaren agente pribilegiatuaren* ideia azaleratuko da. Modernitatean, Jainkoak ordura arte betetako lekua, arrazoiarengatik ordezkatu bazen ere, logika berdina mantendu zen. Horrela, oraingoan Jainkoa izan beharrean, klase unibertsalak (proletalgoak) beteko du edozein partikularitate erditik kentzearen funtzioa.
- *Muturreko partikularismoa*: aurreko logikaren bilakaerak zera ulertzeraz eraman gaitzake: unibertsala unerren baten nagusitasuna lortutako partikularitate bat baino ez litzateke, eta zentzu horretan, partikularitateen arteko lehian ez legoke gutxieneko egonkortasunik lortzerik. Laclaren ustez honakoa ere ez da soluzioa izango. Izan ere, ez litzuke partikularitate ezberdinen arteko botere harremanen ezberdinen funtsa argituko edota partikularitate batek une batean unibertsaltasuna zergatik lortzen duen azalduko.
- *Unibertsaltasuna galdutako osotasunaren sinbolo gisa*: laugarren adiera honetan Lacanen eragina nabarmena izango da. Laclauk artikulazio forma honen hainbat ezaugarri plazaratuko ditu. a) Beraien mugetatik kanpo dauden identitateekin harremanik ez duten nortasun diferentzial itxiak ez dira posible; ikusi dugun bezala, identifikazio prozesuen eraikuntzan kanpokotasuneriko harremana funtsezko aldagaia bilakatzen da. b) Edozein identitatek oinarritzko anbiguitasun bat barnebiltzen du bere baitan; hau da, identitateak kontrakotasun eraikiak badira ere, lehiak berak kanpoan dagoen horrekiko oinarritzko orube komuna izatea eskatuko dio. Identitateak, espazio komun eta kontrakotasun honen artean gaindiezina izango den anbiguitate batera kondentatuta egongo dira. c) Identifikazio honek Bestearekiko erreferentzia eskatuko du ezinbestean; izan Besteak duen botere egitura erreproduzitzen (era inbertituan, noski), izan botere egitura berri bat indarrean jarritz.

Laugarren adiera honek unibertsal eta partikularren arteko *neurtezintasunari* (*inconmesurabilidad*) erreferentzia egingo dio. Hau da, inkarnazioaren kasuan ez bezala berezko existentzia duten bi ente autonomoi ez dio erreferentzia egingo; ezta sekularizatutako eskatologiak

aldarrikatutako unibertaltasunaren nagusitasunari, partikularitatea desagerrazi beharreko aldagai gisa proiektatuz; baina ezta postmodernitatean nagusitu den muturreko partikularismoaren aniztasun apolitizatuari. Gerora ikusiko dugun bezala, Laclauk aldarrikatzen zituen identitateen eraikuntza partikularrak unibertsalean egiten duen inbestitze prozesuaren bitartez gorpuzten da.

2.2.4.5 Desioa, beharra eta eskaera.

Erreala sinbolizatzeko ezintasunetik abiatuta Lacanek *desioa, beharra eta eskaeraren* arteko bereizketari heldu zion. Freuden irakaspenei jarraituta desioa emozio pultsionalekin lotu zuen. Desioa, baina, ezin izango da inongo objektu errealekin asebate; pultsioa bideratzen duen objektua metonimikoa izango da. Desioaren objektua, subjektuarena bezala, gabezi baten gainean eraikia izango da. Honela deskribatzen zuen Lacanek *Los cuatro conceptos fundamentales del psicoanálisis* lanean (1978):

“En lo que refiere al objeto de la pulsión, hay que decir que no tiene ninguna importancia. Es absolutamente indiferente” (1978: 151).

Lacanek elikadura beharra jarriko zuen adibide gisa; bertan elikagaia (objektua) ez da izango beharra (gosea) asetzen duena, “ahoa ematen den gozamenak” baizik. Lacanen ustez, desioaren dimentsioa ase-ezina den gabezi baten dimentsioari lotuta agertuko zaigu. Desioa, objektu eta desioaren eragile bezala agertuko da aldi berean; *a objektua* bezala izendatuko duena. Eskaerak, berriz, *Bestearen* agerpena eskatuko du. Hemen ere umearen elikadura beharraren adibideari eutsiz, umeak duen jatorrizko beharragatik (gosea) adierazten dituen keinuak (negarrak edo oihuak) soilik *Beste* batengandik interpretatuak direnean eskaera bezala agertuko dira. Umearen kasuan, lehenengo aldiz era naturalean eskatzen duenean (bere eskaeraren kontzientzia izan gabe) bere beharra ase ikusiko du. Bigarren alditik aurrera, aldiz, nahi duenaren interpretazioa egin beharko du (negarra eta oihuaren bitartez) lehenengo aldi horren ase sentazioa gogoan. Lacanen ustez eskaera edo nahi duenaren kanpora begirako interpretazio honek desioa (benetan nahi duena; Erreala) eta proiektatzen duenaren artean (eskaera; Sinbolikoa) deslotura bat agerian utziko du. Hortaz, eskaerak eskuraezina den *Gauza* bati erreferentzia egin nahi izango dio (jatorrizko esperientzia); *Gauza* freudiarrak “ezinezko den saturazio sinbolikoa” adieraziko duelarik (Dor, 1997: 167).

Desioaren ase-ezintasun hau *jouissance* edo gozamenaren kategoria lacaniarrari lotuta agertuko zaigu. *Jouissance*-a Lacanek 60. hamarkadaren bukaera eta 70.ren hasieran bere pentsamenduaren erdigunean kokatuko zuen. Hasiera batean gozamen hau masturbazioaren eta orgasmoen plazerrarekin lotuko badu ere, gerora plazerra eta *jouissance*-a kontrajarriko ditu. *Jouissance*-a Erreal eskuratzeko ezinezko saiakerarekin lotuta dago; plazerrak suposatzen duen sinbolizazioak ezinezko egiten duen saiakera, hain zuzen ere. Horrela, *jouissance*-a plazerretik harago legoke. Soilik “gozamen mingarri” baten eskutik esperimendatua izan ahal izango da; Erreal eskuratu nahiak sortzen duen gozamenagatik, baina inoiz eskuratu ezin izango dugula sortzen duen minagatik ere. Horrela, *jouissance*, Errealaren ezinezko bilaketa lan gisa, gizakiaren oinarritzko motor bezala ulertu ahal izango dugu; utopia klasikorantz mugi araziko gaituen *hori*. Baina, aldi berean, Yannis Stravakikesek ohartaraziko digun bezala, hainbat kasutan *jouissance*-a aldaketarako motor baino geldotasunera kondena gaitzake. Zergatik? Gizakia, askotan, bizi duen duen egoeraren kontingentziaz eta aldakortasunaz ohartzen da; are gehiago, badaki bere jarreran edo jokamoldean aldaketa txiki bat txertatuta ere, bestelako bizimodua nabarmen hobetu dezakeela; sufrimenduagatik horren baldintzatua egongo ez dena. Orduan, zergatik gauzak bere horretan mantendu? Hain zuzen ere, bere jatorrizko desioaren ase-ezintasun horrek sortzen dion gozamen edo *jouissanceagatik* (2008: 264-265)²⁸.

Gerora Zizekek (2014: 40) planteatuko duen bezala, egoera hau gainditzeko ezinbestekoa izango da *jouissanceak* eraikitzen duen *fantasia* edo eraikuntza sinbolikoa zeharkatzea. Hau da, fantasia, aurre sinbolikoa litzatekeen Erreal bati errenferentzia egiten dion neurrian, errealiarearen eraikuntzarako ezinbestekoa den bezala, bere jatorrizko funtzioaren gaineko kontzientzia hartzearen garrantzia nabarmenduko du, inora eramaten ez duen bide edonistaren arriskua ekiditeko.

2.2.4.6 Diskurtsoaren arauak.

Lacanek diskurtsoari emandako nagusitasuna eta subjektu autonomo arrazionalari egindako kritika estrukturalismoaren ondorengo belaunaldi oso batengan presente egongo diren ezaugarriak izango

²⁸ Gurera etorritz, interesgarria da Imanol Galfarsorok, paradigma kulturalaren azterketaren ikuspegitik, (ezker) abertzaletasunaren baitan gure berezitasunez gozatzeko dugun joera kritikatu du. Joera honek, errotarik mugitzen ez duen ura gelditzeaz gain, independentismoa unibertsaltasunera iristea ekiditen duen espezifikotasun partikularren gozamen edo *jouissancean* ainguratzen du (*Kultura eta identitate erbesterratuak* (2005) edota *Subordinazioaren kontra* (2008) ikusi).

dira. Norabide honetan Michel Foucaultek beste urrats bat emango du diskurtsoaren arauetikiko subjektuaren menpekotasuna aldarrikatuz.

Foucaulten lana *arkeologia* goiztiarra (*Arqueología del saber*, 1969) eta *genealogia* berantiarraren artean banatua izan ohi da, biak estuki lotuak dauden arren. Batean zein bestean ikuspegi zientifikoa nagusituko zaio, prozesu sozialen azalpena bideratuko duen *episteme* berri bat bilatu nahian; kasu honetan, diskurtsoaren bitartez, hain zuzen ere. Diskurtsoak bere berezko funtzionamendutik aztertuko ditu; bere agerpena, osaketa eta berezitasuna baldintzatzen dituen arau propioetatik, hain zuzen ere. Ikuspegi lacaniarrari jarraituz, diskurtsoak eta berak baldintzatzen dituen praktikak agerikoak ez diren arau batzuei erantzungo diete. Arau hauek diskurtsoen positibitateari erreparatuta aztertu ahal izango dira. Hau da, testuinguru historiko zehatzetan ematen diren diskurtso zehatzen azterketa arau ezkutu hauek agerian uzteko bidea izango da.


Arau hauen gainean zenbat eta ezagutza txikiagoa izan, diskurtsoarekiko orduan eta menpekoagoak izango gara. Zentzu honetan, arau hauek norbanakoen bilakaera zehaztuko dute. Honen abiapuntuan, ondoko ideia legoke: printzipioz, gauzak esateko infinitu baieztapen modu daude, domeinu zehatz baten baitan produzituak diren baieztapen hauek antzekoak eta errepikakorrak lirakeelarik. Inoiz ahokatuak edo idatziak izango ez diren baieztapenak daude, inoiz adierazgarritzat hartuak izango ez direnak. Hortaz, diskurtso partikularren *arau historikoek* (ohiturak eta abarrekoek) zer den posible esatea mugarrituko dute. Ildo honetatik, norbanakoak ez dira diskurtsoaren egileak edo sustatzaileak izango, bere arauen emaitza baizik. Horrela, Foucaultek subjektu transzendentalez baino, praktika diskurtsiboen emaitza lirakekeen *subjektibitatez* edo *subjektu posizioez* hitz egitea nahiago izan zuen.

Epistemologia klasikoan subjektua objektuarekin harremanetan jarrita, ezagutzaren dimentsio bat sortuko luke, objektuaren propietateak subjektuaren irudikapenaren bitartez berridatziak direlarik. Foucaultek aldiz, subjektu eta objektuaren arteko harremana gaingitu eta objektu ororen izaera diskurtsiboa azpimarratuko luke. Zentzu horretan, objektua ez litzateke subjektuaren aurrean kokatzen den zerbait, diskurtsoaren eraketa arauen bitartez agertzen den zerbait baizik. Alde horretatik, diskurtsoak ez dira arau lexikal, linguistiko edota semantikoak; objektuak ager-arazi eta zedarritzen dituzten praktikak baizik.

Honen arabera jatorrizko *dispertsio* bat emango litzateke diskurtso, praktika, jakintza, arau eta bestelakoen artean. *Gertakizun diskurtsiboaren* agerpenak une logikoa suposatuko luke. Gertakizun

hau Foucaulten pentsamenduan pisu handia duen *etenaren* ideiarekin lotura izango luke. Korrante postestrukturalistan nabaria den ikuspegi metafisiko eta eboluzionistaren aurkako joerarekin bat eginez, Foucaultek jendartean berezko garapenaren ideia errefusatuko zuen, horrela arestian aipatutako arauen ez-ezagutzak diskurtso, arau, praktika eta abarren arteko dispersioa areagotuko du, beraien arteko kontraesanak handituz eta hauei logika berri bat emango dien *episteme* berri baten agerpena beharrezko eginez. Ordura arteko ezagutza arautu duen ordenuarekiko *etena* bide ezberdinetatik etorri ahal izango da, ez da determinatua egongo, eta ez du mendebaldeko pentsamenduan horren gustuko izan den garapenaren ideari erantzungo; baina ordenu diskurtsibo berri baten agerpenean *gertakizun* garrantzitsua izango da. Prozedura honen hirugarren urrats logikoa fase historiko zehatz batean nagusituko den *Batasun Diskurtsibo* berri baten eratze eta antolatze unea litzateke.

Diskurtso eremuak (campos discursivos) nola eratzten diren aztertzeko Sergio Albanoren (2004: 39) ondoko grafikoa irudikatuko dugu:



2.1 irudia: Diskurtso eremuen eraikuntza prozesua azaltzen duen irudia.

Ikuspegi honek gerora, diskurtsoaren nagusitasunarengan arreta jarri duten ikerlarien aldetik kontraktasun handiak piztu ditu. Izan ere, Foucaultek planteatukoaren kontra, askoren ustez garai historiko zehatz batean ez da ezagutza sistema bakar bat nagusituko, diskurtso ezberdinen arteko lehiak markatu du aro horren bilakaera.

Foucaulten bigarren aroan, genealogiari dagokiona, *boterea* eta *ezagutzaren* arteko teoria oso bat landuko du. Arreta, agente eta estrukturetan jarri beharrean, boterearengan jarri du. Boterea ez du norbanako, talde edota estatua bezalako agente partikularren ondasun soili gisa irudikatuko; boterea praktika sozial ezberdinen bitartez zabalduko da. Zentzu horretan, boterea ez litzateke (soilik) Estatua bezalako ente bakar baten inguruan egituratzen den indar zapaltzaile bat; botere harremanak ekoiztu eta jendarte harremanak guztiak bustitzen duen zerbait baizik. Honakoa Foucaulten *biopolitika* ezagunaren funtsa izango da²⁹.

Botere honek sozialki posible denaren mugak zedarrituko du. Gure mundu soziala botere harreman hauen arabera eraikia izango da; are gehiago, munduaz eta bertako harremanaz hitz egiteko aukerak botereak berak definituko ditu, izateko eta adierazteko era batzuk balioetsiz eta beste batzuk errefusatuz. Hortaz, boterea eta diskurtsoaren arteko lotura agerikoa izango da, esan dugun bezala, diskurtsoak garen subjektuak mugatu eta objektuez esan dezakeguna definitzen duen heinean. Ildo beretik, Foucaultek egi unibertsalak errefusatuko ditu, egiak botere harreman zehatz baten arabera eraikitzen diren errealitate diskurtsiboak izango direlarik.

2.2.4.7 Dekonstrukzionismoa.

Gure marko teorikoaren eraikuntzarako baliagarria izango zaigun postestrukturalismoaren gaineko azaleko hurbilpen honekin bukatzeko, Derridaren inguruko aipamen batzuk egingo ditugu. Honek orain arte aipatu ditugun oinarritzko hainbat kontzeptu baliatu zituen *dekonstrukzionismo* bezala ezaguna egin zen korrante teorikoa eraikitzeko.

Derridaren pentsamenduaren jatorria Edmund Husserlen fenomenologiaren kritikari lotuta agertzen zaigu. Husserrek, fenomenologiaren adierazpide nagusienetakoa bezala, ezagutzarako bide nagusi gisa *intuizioa* aldarrikatu zuen; baina norberaren baitan legokeen intuizio honi izaera transzendentea lukeen *dedukzio logikaren* ideia erantsiko dio. Hori geometriaren bidez egingo zuen, behin intuitu daitezkeen forma geometrikoak irudikatuz, horien bilakaera logikoa deduzitu ahal izango delarik;

²⁹ Edozein kasutan, Foucaultek botereaz egiten duen analisisian (*boterearen analitika*), Santiago Castro-Gomezek kokaleku zehatza emango dio *biopolitikaren* dimentsioari, boterearen konfigurazioan hiru maila ezberdinduz: a) norbanakoen diziplinari lotutako ekoizpenak barnebilduko lukeen *mikrofisika*; b) *mesofisika* edo Estatu modernoaren eta aipatutako *biopolitikaren* garapena barnebilduko lituzkeen gobernatze prozesuak; eta c) merkatuaren mundu mailako hedatzea eta estatuz gaindiko segurtasun neurriak arautuko lituzkeen *makrofisika* (2010: 284).

horrela, ukaezina izango zen ezagutzaren paradigma aurkituz. Baina Derridarentzat, bere pentsamenduaren erna-muina jasoko duen *Introducción a: El origen de la geometria de Hussler* (1962) liburuan esan bezala, eskema honek *aporia* bat lekarke bere baitan; aterabide posiblerik ez duen barne ezegonkortasun bat. Izan ere, logikak gorpuztuko lukeen *egi ukaezin* hori “hor kanpoan” balego, gure bizipenetatik independentea litzatekeena, fenomenologiaren intuizioa jada ez litzateke ezinbestekoa; *egi* hori, gure intuizio kontzientetik harago, berezko existentzia duen heinean (Strathern, 2002: 23).

Zentzu honetan, Derridaren pentsamendua ez da ohiko filosofia bat izango, filosofia bera eta bere baldintzak zalantzetan jartzeko galdetze iraunkor bat baizik. Heideggerrek mendebaldeko filosofian irekitako arrakalan sakonduz, berezko existentzia izango duen “egi absoluturik” ez legoke. Jainkoaren existentziari lotuta legokeen “egi oso” honen ezagutzak beste *aporia* leramake bere baitan, norberaren ikuspegitik antzematen diren “egi partzialen” ezagutza ukatuko lukeena; baina gizakia, bere partzialtasunean, nola antzeman egi absolutu hori? Zentzu horretan, zalantza sistematikoaren pentsaera bezala definitu dezakegu Derridaren ekarpena. Bestelako autore postestruktalistek aldarrikatutakoaren antzera, bere ustez ordura arteko mendebaldeko filosofiak gauzek duten berezko egi esentzial eta immanentean arreta jarri beharrian, arreta lengoaiaren kokatu beharko zukeen. Izan ere, Lacanek edo Foucaultek planteatutakoaren antzera, Derridaren arabera idatzi orok bere barne logika dauka, eta idazlea askotan ez da egoera horretaz ohartuko (*La escritura y la diferencia*, 1967). Harago joko du, lengoaiak ez baitu zentzua hartuko objektu eta bere esanahien arteko lotura zuzen (Saussuren *zeinua*) edo erlatiboagatik (Lacanen *puntada*); lengoaiaren esanahia *ezberdintasunen* (*difference*) sistema batean oinarrituko litzateke, eta esanahia diferentzia horietatik sortuko litzateke. Baina ezberdintasun hauek ez dira ohiko mundu ikuskerak planteatu izan duen biko moduan gorpuztuko (ondo/gaizki, positibo/negatibo, egia/gezurra, orokorra/partikularra, burua/gorputza, gizona/emakumea, ...); ñabardura txikiz eta zoliz eratuko lirateke; ez legoke ezberdintasunen ñabardura horiek ardatz logiko bakar batera mugatzerik.

Zentzu honetan, “lengoaiaren ispiluaren” bitartez ezagutzen dugu elkar, ez egi absolutuen bidez. Baina ezagutza prozesu hau arrazoi eta logikatik kanpo egikarrituko da. Errealitatea irudikatzeko lengoaiaren nagusitasun honen baitan anbiguotasunak sortzen dira; askotan argitasuna eta zehaztapenak ekiditen dira; irakurleak/entzuleak idazleak/esaleak planteatzen ez dituen adierak gehitu ditzake. Derridak ikuspegi hau muturrera eramango zuen, Lacanen *puntadaren* egonkortasun iragankorra apurtuz, esanahiaren ia erabateko jariakortasuna aldarrikatuz. Inkontzientearekin ageriko loturak erakutsiko luke lengoaiaren irudikapen honen balioa, kontzeptuen esentzia zehatza

aurkitzea baino, idatzien barne kodeen antolaketa agerian uztean legoke. Testu batek zentzua nola hartzen duen erakusten digu, ez testuak berak zer esan nahi duen (Strathern, 2002: 48). Lengoaiak erakusten dituen ezberdintasunen bitartez kategorien mugak zedarritzeko helburua luke, ez esentziak bilatzea. Zentzu honetan, Derridari zor diogu hegemoniaren adiera garaikidean, eta orohar, ezkerren gaur egungo eztabaidetan *dekonstrukzioa*, *esangaitzasuna (indecibilidad)*, *aporia* edota *diferentzia* bezalako kategorien erabilera.

Zentzu honetan ere, Derridak filosofia politikoan egin zuen ekarpena zeharkakoa izan bazen ere, ezker marxistaren baitan ematen ari zen eztabaidan *Espectros de Marx* (1993) lanarekin zuzeneko esku-hartzea bilatu zuen. Marxen ondare intelektuala bereganatu nahi izan zuten korronteen aurrean, Derridak Marxen herentzia bateratu, osatu eta itxitakoaren aurka egingo du. Derridak herentzia hau *gerora* (atzeraeraginezko ikuspegi batetik) nola osatu, zein den hartzailea eta zein emalea aztertu nahi izango du. Bere ustez, Marxen pentsamenduaren itzuleraren aldarrikapena bere oinarriko kategorien (“lanaren esplotazioa”, “plusbalioa”, ...) birkontzeptualizazio batetik pasa beharko litzateke (Goldschmitt, 2004: 189). Deseraikitze lan hau Marxen “esentziaren” desegitetik Marxen “espektroaren” barreiatzera bitarteko ibilbidea marraztuko luke. Hau da, bere jatorrizko kontzeptuak deseraikitzean sortutako hutsunean Marxen aura edo mamua jarraituko luke, baina jada ez garai batean izan zuen adieran edo forman, era espektralean baizik. Zentzu honetan, Marxen ekarpena etengabeko asmakuntzan legokeen ekarpen intelektuala litzateke. Bere irakurle tradizionalentzat oso erakargarria izango ez den ikuspegi dekonstrukzionista honi, aldiz, Derridak berak muga jarriko dio; *deseraikitzegaitza (indeconstructibilidad)* izango den kategoriaren azalpenarekin:

“Nos oponemos a dos tendencias más vigilantes y más modernas del marxismo, por parte de ciertos marxistas (especialmente franceses alrededor de Althusser), que creyeron más bien que debían intentar disociar el marxismo de toda teleología o de toda escatología mesiánica (pero nuestro propósito es precisamente distinguir ésta de aquella); por otro lado, a la interpretaciones antimarxistas que determinan su propia escatología emancipatoria otorgándole contenidos onto-teleológicos siempre deconstructibles. Un pensamiento deconstructivo, el que importa aquí, siempre apeló a la irreductibilidad de la afirmación y consecuentemente de la promesa, así como a la *indeconstructibilidad* de una cierta idea de *justicia* (aquí disociada del derecho)” (Derrida, 1993: 103-104).

Derridak bi uren arteko posizioa hartu nahiko lukeela dirudi; batetik, marxismoaren ohiko determinismoaren aurreko erreakzio bezala kontingentzia eta erabateko ezegonkortasuna aldarrikatu zituzten postmarxista, eta bestetik, ordurako nagusi ziren joera neoliberalen artean. Derrida ikuspegi metafisikoa eta oro-determinatzailea deseraikitzeke bere pentsamoldeagatik ezaguna egin bazen ere, *menperaezina (irreducible)* edo desegin-ezina izango zen promesaren beharra aldarrikatuko du; *justiziarena*, hain zuzen ere. Zentzu honetan, Derridarentzat Marxen mamuaren aldarrikapena ezinbestekoa egingo da; ez bere pentsamenduaz ikuspegi tradizionalak jada esan dutena errepikatzeke, baizik eta bere espektoak utzitako aura estigmatizatzen duen jarreraren kontra aritzeko. Hortaz, marxismoak klaserik gabeko jendartearen aldarriarekin egiten duen *justizia* promesaren adiera *mesianikoa* egun ere Marxen aldarrikapen iraultzaileari zentzu emantzipatzailea emango diona izango da; zuzenbidetik harago dagoen justiziaren adiera, hain zuzen ere.

2.2.4.8 Estrukturaren autonomia erlatiboa.

Gramscirekin marxismoak gainegituraren izaera politiko-kulturala eraikia dela deskubritu bazuen, Althusserrekin (gain)egituraren autonomizazioan urrats berri bat eman zuen. Estrukturalismoaren eskutik marxismoak kausalitate sistema sinplistetatik ihes egiteko saiakera egin zuen. Ildo honetan, Althusserrek azpiegituran emandako mugimenduek gainegituraren eragingo lituzketen *islen* ideia baztertu zuen. Horren ordean egitura ezberdinez osatutako mapa bat marraztuko zuen, egitura bakoitzean ematen diren barne kausa edo logikengan arreta jarritz. Estruktura hauek guztiek osotasun bat eratuko luketelarik.

Estrukturalismoak zeharkatu zuen diziplina ezberdinetan (antropologia, linguistika, psiko-analisia, ...) nagusitu zen ikuspegi zientifikoa Althusserrek marxismoaren eremura ekarri nahi izan zuen. Ikuspegi hau strukturaren ideiak bermatuko luke, baina jada ez estruktura zehatz batek bestearengan duen eraginaren emaitza gisa, bi indarrendandik baldintzatuak egongo den estrukturen multzo bezala: batetik, estruktura, erakunde (erlatiboki) autonomo gisa, duen barne logika propioagatik; eta bestetik, garai historiko bakoitzean estruktura bakoitzak ekoizpen prozesuarekiko duen kokapenagatik (Dosse, 2004: 341).

Lehenengoari dagokionez, Althusserrekin estruktura ez dela bikoia edo *binarioa* argi izan beharko genuke; anitza baizik. Aniztasun honek euren arteko autonomia maila eskatzen badu ere, osotasun

batekiko atxikimendua eskatuko du. Atxikimendu honen kausalitatea aztertzerako orduan Althusserren pentsamenduak norabide postestrukturalista hartuko du, *Para leer El Capital* (1965) liburuan *kausalitate estruktural* honen funtsa gabezia lacaniarrean oinarrituko duelarik.

“Creo que entendido como el concepto de eficacia de una causa ausente, este concepto es adecuado para designar la ausencia personificada de la estructura en los efectos considerados” (Althusser, 2010: 342)

Ikuspegi honek hainbat kritika jasoko ditu estrukturaren egituratzen edozein elementuk paper determinatzailea jokatu dezakeela salatuz³⁰. Norabidetze postestrukturalista honetan, Althusserrek linguistikaren edo psiko-analisiaren bestelako hainbat termino mailegatuko zituen (gaindeterminazioa, kondentsazioa, desplazamendua, ...) estrukturen arteko harremana azaltzeko.

Estrukturaren funtsa litzatekeen “ez dagoen kausalitate” honi eta postestrukturalismoak dakarren indeterminismoari ainguraleku bat jartzearren, Althusserrek ideologiari lekua eginez, honi aparteko garrantzia emango dio. Ideologia estrukturen multzo hau determinatuko duena izango da. Bere jarrera militantearekin bat eginez, teoriaren marfilezko dorrean kateatu ez gelditzeko asmoarekin, 1970an “*Idéologie et appareils idéologiques d'Etat*” artikulua famatua kaleratu zuen, non Estatuaren Aparatu Ideologikoen (EAI) inguruko kontzeptualizazio oso bat garatuko zuen. Honen arabera, Estatuaren aparatu errepresiboak eta Estatuaren aparatu ideologikoak bereiziko zituen; lehenengoak bortxan oinarritutako dominaziorako bitartekoak lirateke; bigarrenak, ideologian oinarritutakoak. Azken hauen artean Gramscik berak mendearen hasieran erreproduzio kulturalerako kokatzen zituen antzeko aparatuak kokatuko lituzke: alderdiak, sindikatuak, eskola, Eliza, familia eta abarrekoak. Kasu honetan ere, Althusserrek ekoizpen ideologikoan eskolak jokatzen duen paperari garrantzia handia emango dio, baina postestrukturalismoak propio izango dituen hainbat ezaugarri bere eginez. Ideologiaren ontologizazio bat emango da bere eskutik, ideologiak izaera *transhistorikoa* edota historiaren bilakaeraren *gainetik* legokeen izatearen izaera emanaz. Ontologizazio honetan, Freuden inkontzientearekin parekatu zuen, ideologiak subjektua *subjektu* egiten duela azpimarratuz; hau da, jendartean kokapen bat eta ekiteko arau batzuk ematen dizkion heinean. Ideologiak subjektuaren izaera guztiak baldintzatuko ditu (sentimenduak, pentsaerak, portaerak, ...), Althusseren pentsamenduaren izaera antihumanista agerian utziz³¹,

³⁰ Ikusi esaterako Edward P. Thompson-en *Misère de la théorie. Contre Althusser et le marxisme anti-humaniste* (2015).

³¹ Jean Paul Sartrearekin izan zituen ika-mikak horren lekuko (Dosse, 2004).

Edozein kasutan, Althusserren pentsamendua, psiko-analisiaren eta marxismoaren arteko hartu-eman tentsiodun honetan eraikia bada ere, bigarrenak jokatu izan duen izaera erabakigarriaren alde egin zuen. EIAren azalpenean, ideologia bera klase gatazkaren emaitza gisa kokatuko zuen eta ideologiak subjektuarekiko jokatzen duen papera ekoizpen prozesuan erreprodukzioa egunero bermatua izan ahal izateko eman behar dela esaten zuenean (1970: 47-49).

Gramscirekin gertatu bezala, Althusserrek ere ez zuen zalantzatan jarriko azpiegitura ekonomikoaren *azken* eragina. Frantziarraren ustez, gorago aipatutako estruktura hauengan garai historiko zehatzek eragin zuzena izango dute; beraien arteko autonomia erlatiboa mantenduko bada ere, garai historiko bakoitzean nagusi den ekoizpen prozesuak bermatuko lukeen osotasun batekiko atxikitzen direlarik. Izan ere, bata eta besteak gainegitura politiko-ideologikoaren maila bateko autonomizazioarekin marxismo tradizionalaren amildegiranzko bidea ekidin nahi bazuten ere, honen eragina oraindik handiegia izango zen Laclauk “azken ondar esentzialista” bezala deitu duena gainetik kentzeko. Torfing-ek ere bi pentsalari hauen ekarpena norabide berdinean kokatuko du:

“El marximo estructural de Althusser aportó a la izquierda un muy bien recibido intento de renovar el análisis marxista de las modernas sociedades capitalistas. Como tal, el marxismo estructural (althusseriano) insistió en el carácter sobredeterminado de las relaciones sociales, [...] y vió la noción gramsciana de hegemonía como una clave para entender la interpretación de Estado y economía” (1998: 34).

Izan ere, Althusserren saiakera hau marxismoa XX. mendearen erdialdean bizitzen ari zen krisitik ateratzeko ahalegin gisa egikaritu zuen. Krisi honen adierazgarriak nabarmenenak SESBetan stalinismoaren gehiegikerien azaleratzean³² eta herrialde sozialistetan nagusi zen ikuspegi ekonomizistetan islatu zen. Althusserrek proposatzen duen eremu ekonomikotik ematen den esparru ideologiko-politikoaren banaketak Sobietar Batasunaren oinarri sozialista salbu mantenduko luke,

³² 50. hamarkadan Polonian (Poznan-eko matxinada), Txekoslovakian edo Hungarian emandako errebolten zapalketa edota Stalinekin egindako purga handien azaleratzea marxismoaren ikono zen SESBen ereduaren pitzadura handiak eragin zituen. Bilakaera hau Sobietar Batasunean bertan izan zuen eraginaz harago, gainontzeko herrialdeetako Alderdi Komunistengan ere eragina izan zuen. Bereziki aipagarria litzateke Frantziako Alderdi Komunistan izandakoa; Sobietar Batasunean arestian aipatutako gehiegikeriek eragindako krisiari, Frantzia propioki Alderdiaren lerro ofizialak deskolonizazio prozesuan izandako jarrera gehitu behar diogu. Honek guztiak Alderdi barruan sekulako zalaparta eta eztabaida sortu zuen berrikuntza ideologikoaren beharra geroz eta agerikoagoa eginez. Testuinguru honetan kokatu behar dugu Althusserren ekarpena, praktika militantetik at mantendu zen pentsalaria bezala baino, bere lan teorikoak PCFren lerro politikoan eragin zuzena izan nahi izan zuena.

gainegituran emandako akatsak edo gehiegikeriak azpiegituran ematen zen bilakaeratik, maila batean behintzat, deslotuz (Dosse, 2004, I: 341).

Althusserren pentsamendua, ezkeraren baitan Marxetik gaur egun arte ematen ari den estruktura eta agentziaren arteko eztabaida klasikoan, bigarrenengo honek lehenengoari irabazitako espazio berri bat bezala ulertu dezakegu; batzuentzat txikia, beste batzuentzat handia. Hau da, marko teoriko honen hasieran aipatzen genuen Kautskyren *beharrezkotasun deterministatik* askatzen joateko, sozialaren elementu ezberdinek (subjektua, Estatuak, ...) lortzen duten autonomiarako eremu berria.

Autonomizazio prozesu honetan, Bob Jessopen ekarpenak hurrengo katebegia bezala kokatu dezakegu. Honek, Althusserrek estrukturalari oraindik ematen zion gehiegizko pisuaren irakurketa kritikoa egingo du. Jessop-en arabera, sozialaren eta politikoaren instituzionalizazio edo egituratze formak estrategia politikoengatik baldintzatuak egongo dira; hau instituzioen *aukeraketa estrategiko*³³ gisa definitu zuen. *Aukeraketa estrategikoaren* kontzeptuaren genealogian Althusserren *kausaltate estrukturala* aurkitu dezakegu. Azken honen arabera, maila ekonomikoan ematen diren aldaketek, azken batean, estatu baten antolaketa hierarkikoan hartzen diren erabakiak baldintzatuko ditu.

Ikuspegi estruktural hau Poulantzas edota Offe bezalako teorialariengatik malgutua izan zen. Hauen arabera jada estruktura ez litzateke baldintzatzailerik bakarrik, Estatuak bere aukeraketak egiteko ahalmena izango luke; beti ere, estrukturalak norabidetua. Ñabardura estruktural-funtzionalista hauekin ados ez egonik, Jessopek estatuaren *aukeraketa estrategikoaren* kategoria landu zuen. Honek, Estatuak eta ekonomia jendartean indarrean dauden bestelako instituzio, erakunde eta harreman sare konplexuaren baitako elementu gisa irudikatuko ditu. Sare horren baitan Estatuaren boterea ekintza politikoan murgilduta dauden indar politikoaren arteko lehiagatik baldintzatua egongo da, ez soilik klase batengatik. Zentzu honetan, Estatuak “harreman sozial” mota bat litzateke, zeinetan botere harremanak “kondentsatuak” eta “egikarituak” diren (Jessop, 2007: 52-53). Ikuspegi honek jendarte modernoetan nagusitu diren sistema funtzional autonomoei garrantzia emango die, funtzionamendurako kode eta helburu propioak dituztenak. Testuinguru honetan, Estatuaren bilakaera baldintzatuko duen estrategien elkar-ekintza sarearekin topo egingo dugu; honen baitan, Estatuak berak, bestelako indarrengatik baldintzatua, bere *aukeraketa estrategikoa* egin beharko

³³ Jessopen ingelesezko jatorrizko adierazpidea “the strategic selectivity of institutions” litzateke. Jessopen ikuspegia, “ontologia transzendentalean errealista” bezala ulertuta (Torfing, 1999: 295), jarraian aztertuko dugu Laclau eta Moufferen Diskurtsoaren Teoriaren izaera konstruktibistarekin zerikusi handiegirik izango ez badu ere, guztiek hainbat anbizio teoriko konpartituko ditu (anti-determinismoa edo erredukzionismoaren aurkako jarrera, besteak beste).

duelarik (Torfing, 1999: 153). Hortaz, erabateko kontingentzia ez-egonkorra eta Althusserren *kausalitate estrukturalaren* artean, Jessopen arabera, subjektibitateek zehaztutako hautu edo *aukeraketa estrategikoetarako* marjina legoke.

2.3 Ondorioak

Identifikazio politikoen kritikaren abiapuntuan XX. mendearen erdialdean postestrukturalismoak egindako ekarpena kokatu behar dugu ezinbestean. Mendebaldeko filosofia garaikideak (marxismoa barne) nagusitu zuen Munduaren eta Historiaren bilakaera metafisiko-arrazionalistak gizateriaren Historia modernoa baldintzatu zuten gertakari politiko nagusiekin talka betean jo zuen (I. eta II. Mundu Gerrak, nazismo eta estalinismoaren gehiegikeriak, ...). Munduaren bilakaera jada ezin zen egitura itxi baten barruan jazoko ziren gertaeren multzo ordenatu bezala ulertu. Gizateriaren Historia subjektu arrazionalaren ikuspegitik begiratu zuen mundu ikuskerak arrakala gehiegi zituen paradigma aldaketa bat ekarri behar zuen ekarpen intelektual berriak ekiditeko:

- *Mendebaldeko filosofia politikoaren berrikuspena ekarri behar zuen “programa alemaniarrak” loratze berria izan zuen:* Nietzschek XIX. mendearen bukaeran, Freudek mende aldaketan eta, batez ere, Heideggerren pentsamenduak XX.aren hasieran gaurkotasun berria hartu zuten. Ordura arte filosofia analitikoak arbuiaututako hainbat kategoria loraldi berria ezagutu zuten; batez ere, Heideggerrek esentzia edo ontologiaren hustasunak jauzi kualitatibo nabarmena suposatu zuen, hautemangarritasun zuzena planteatzen zuten bestelako kategorien aurrean.
- *Egiaren edo errealitatearen ezagutza zuzenerako aukerarik ez dagoenaren ideia nagusituz joan zen:* fenomenologiak fenomenoaren bitartez, filosofia analitikoa erreferentearen bidez edota estrukturalismoak zeinuaren bitartez ezagutza zuzenerako mitoa erortzen hasi zen (Laclau, 1989: 59). *Egia* errealitate eraikia izango da; diskurtsoaren bitartez eraikitako errealitatea, hain zuzen ere. Hortaz, linguistika errealitate horren ezagutzarako bitarteko nagusia bilakatuko da.
- *Agerikoaren “atzealdea” arakatzeko grina nagusituko da postestrukturalisten artean:* Levi-Strauss antropologian, Barthes semiotikan eta Lacan psikoanalisian hauen erakusgarri nagusietako batzuk izango dira. Batez ere azken honek Freuden irakaspenen berrirakurketa eginez, diskurtsoaren artikulazioan (eta ondorioz, prozesu sozialen garapenean)

inkontzienteari emandako garrantziak, gerora posmarxismoa bezala ezaguna egin zena ulertzeko ezinbesteko abiapuntua jarriko du. Pulsio freudiarrak, pasioa, desioak, ... funtsean, ordura arte prozesu politikoetatik arbuiatutako dimentsio afektibo-inkontzienteak ikusi gabeko nagusitasun bat hartzen hasi ziren.

Hona arte, jarraian azaldu nahi dugun hegemonia *garaikidearen* edo laclauirraren kategoriaren genealogia ulertzeko lerro nagusi batzuk. Izan ere, identifikazio politikoen eraikuntza bezala irudikatu ditzakegun prozesu hegemonikoen ulermena nekez ulertu daiteke hauen inguruko oinarritzko argipenik ezean.

3. KAPITULUA: HEGEMONIAREN ADIERA GARAIKIDEA

Aurreko kapituluei funtsezko hiru helburu egotzi dizkiogu: a) marxismo tradizionalaren krisiaren jatorria ulertu; b) Gramscik garatutako hegemoniaren adiera klasikoaren nondik norakoak azaldu; eta c) azkeneko hau berreraiki ahal izateko postestrukturalismoak eskainitako tresneria teorikoaren oinarrizko azalpena egitea; beti ere, ikuspegi teoriko ezberdinetatik identitate politikoen eraikuntzan parte hartzen duten elementuak deskribatu eta beraien indargune eta ahulguneak arakatu nahian. Izan ere, nortasun politikoen eraikuntza boterearen eraikuntza bezala ulertzean jartzen baitugu marko teoriko honen abiapuntua; eta boterean politikaren muina. Kasu honetan, identitate politikoen eraikuntzarako hegemoniaren teoriak eskaintzen digun eredua baliatzen ari garelarik.

Aurreko atalaren sarreran ere, XX. mendearen hasieran Gramscik garatutako hegemoniaren adiera klasikoa eta mende bukaeran eta hurrengoaren hasieran Laclau eta Mouffek garatutako adiera garaikidearen arteko bereizketa egiten genuen; labur esanda, bata eta bestearen arteko trantsizioa, neurri handi batean postestrukturalismoak eskainitako oinarri teorikoa baliatuz garatuko litzatekeelarik. Zentzu honetan, hegemoniaren adiera garaikide hori azaltzeko abiapuntua kokatu dugula ulertuta, horri helduko diogu kapitulu honetan.

Kapitulua bera bi zati nagusietan banatu dugu: lehenengoa, Gramscik jarritako abiapuntuaren gainean hegemoniaren kategoria eguneratzeko Laclau eta Mouffek egin zuten ahalegin teorikoan zentratzen da; eta bigarrenak, hegemonia eguneratu honen eraikuntzarako populismoak eskaintzen duen bidea aztertuko du. Esan gabe doa, atal bakoitzak Laclaren bi maisu lan nagusizat hartu daitezkeenak erreferentzia bezala hartzen dituela; lehenengoak 1985an Moufferekin batera idatzitako *Hegemonia y estrategia socialista* (HES) eta bigarrenagoak, hogeitaz beranduago, 2005an idatzitako *La razón populista*. Lan bakoitza bere testuinguru historikoan ulertu behar da; gure ustez, Laclauk ezkerren pentsamendua fase bakoitzean eguneratu eta eraginkortzeko egin duen ekarpen intelektual gisa. Ez gara hemen bakoitzaren testuinguruan luzatuko baina aipatu ditzagun sarrera honetan testuinguru hauen inguruko zertzelada pare bat: lehenengoari dagokionez, HESren ekarpena bloke sobietarraren erorketaren bezperetan, 1889an orduko alderdi sozialista nagusiek antolatutako II. Internazionaletik aurrera, funtzio emantzipatzailea beteko zuen identitate

politikoa konfiguratzeko (proletalgoarena, hain zuzen ere) marxismoak erakutsitako joera esentzialisten ahulguneak, eta ondorioz, eratorritako krisia gainditzeko saiatzeko ahalegin gisa ulertu beharko genuke; bigarrenaren testuingurua, besteak beste Latinoamerikan ematen ari ziren kontra-botere guneen eraikuntzan eta ezkerreko gobernuen hazkundera fenomeno populistak zuen eraginari lotuta agertzen zaigu; nagusiki, hegemonia askatzaile baten eraikuntzarako horrenbeste urteetan iraindutako populismoaren kategoriaren potentzialtasunak arakatzeko asmoarekin.

Baina oker geundeke Laclaren ekarpena bi maisu lan hauetara mugatuko bagenu; edota bere pentsamendua bi fase ezberdinetako sekuentzia bezala ulertuko bagenu. Hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezala, Laclaren hegemoniaren pentsamendua ia bost hamarkadetan zehar garatzen doan ekarpen intelektuala dugu; bilakaera propioa duena baina osotasun teoriko bezala ulertu dezakeguna. Riverarentzat, esaterako, populismoa bera hegemoniaren adiera “estuago” bat baino ez litzateke (2015: 45). Baina bilakaera horretan ematen diren aldaketa zehatzagoen berri ondorioen atalean emango dugu. Aurretik, aipatutako bi atalen garapenari helduko diogu.

Kapitulu honen lehenengo zatian, postestrukturalista ezberdinek XX. mendearen bigarren erdialdean diskurtsoari eman nahi izan zioten garrantziari segida emanez, mendearen bukaera eta hurrengoaren hasieran Diskurtsoaren Analsiak izan duen garapen garaikideenari hurbilpena egingo diogu, nagusiki Louise Phillip eta Marianne W. Jorgensenek (2002) egindako lana baliatuz. Hauentzat, Diskurtsoaren Analsia osotasun metodologikoa suposatuko badu ere, honen baitan diskurtsibitateari garrantzia ezberdina emango dioten hainbat motekin topatuko gara; sailkapen honen baitan Laclau eta Moufferen Diskurtsoaren Teoria kokatu eta baliatzen duten oinarritzko tresneriaren azalduko dugularik (ekibalentzia eta diferentzia, antagonismoa, ...). Beti ere, hegemoniaren eraikuntza prozesu diskurtsibo bezala ulertuta.

Kapitulu honen bigarren atalean berriz, hainbatetan deitoratutako populismoaren kontzeptuaren azterketan murgilduko gara; beti ere, hegemonia garaikide horren eraikuntzarako bide gisa ulertuta. Hasierako partean, kontzeptuaren genealogiari helduko diogu; esan bezala, hainbat autoreengandik ustezko irrazionaltasun eta anbiguotasuna medio, iraindutako kategoria izatetik Laclauk, gabezia bertute eginez, kontzeptu honetaz egiten duen birformulazioa azalduz. Jarraian, populismoaren bidezko hegemoniaren eraikuntzan parte hartzen duten elementu nagusiak azaltzen saiatuko gara (eskaera soziala, adierazle huts eta flotagarriak, lidergoen dimentsio afektiboa, ...). Azkar ohartuko garen bezala bi atalen arteko kontzeptuen arteko lotura agerikoa izango da, arestian aipatu dugun Laclaren pentsamenduaren osotasunaren isla. Eta atalarekin bukatzeko populismoak sistema

demokratikoetan izango duten garapenaren azaleko hurbilpen bat egingo dugu, hurrengo kapituluan landuko dugun demokratizazioaren erradikaltzeari lehenengo hurbilpen gisa.

Gorago esan dugun bezala, kapitulu honekin bukatzeko, ondorioen atalean, Laclairen pentsamenduaren bilakaeran emandako aldaketa nagusiak jaso nahi izango ditugu, populismo bidezko hegemoniaren eraikuntzan parte hartzen duten kategoria garrantzitsuenen laburbilduma eginez.

3.1. Hegemoniaren eraikuntza

3.1.1. Hegemoniaren oinarri diskurtsiboa

3.1.1.1 Diskurtsoa postmodernitatean.

Azken garaiotan “diskurtso” hitza bogatan den ideia da. Irakurgai eta eztabaida zientifikoetan era neurri gabean erabiltzen da, kasu askotan definizio argirik gabe. Estrukturalismo berantiarrean terminoak izan zuen garapen teorikoaren ostean, kontzeptua zehaztugabea bilakatu da, kasik esanahirik gabekoa, edota esanahi oso ezberdinekoa testuinguruaren arabera. Kasu gehienetan diskurtsoa ezaugarri ezberdinen arabera arautzen den lengoaiarekin parekatzea jo da; jendarteak bizitzaren eremu ezberdinetan parte hartzen duenean (“diskurtso medikoa” edota “diskurtso politikoa”, kasu) jarraitu beharreko irizpideak multzo gisa ulertu. Baina definizio honek ez digu gehiegi lagunduko diskurtsoak zer diren, nola funtzionatzen duten edota nola aztertu behar diren zehazten. Baliatu dezagun Louise Phillip eta Marianne W. Jorgensen-ek (2002) planteatzen duten oinarrizko definizioa, diskurtsoa, “munduaz (edota munduaren aspektu batez) hitz egiteko edota ulertzeko bide partikular” bezala ulertuta. Zentzu honetan *diskurtsoaren analisia* bide horien ezaugarrien azterketa litzateke. Edozein kasutan, ez dago adostasun garbirik diskurtsoa zehazki zer den edota nola aztertu behar denaren inguruan; hortaz, diskurtsoaren analisi mota ezberdinekin

topatu ahal izango gara³⁴. Gainera hauetako batzuk diskurtsoaren analisia hurbilpen bakarra ez dela izango nabarmenduko dute, bestelako teoria eta metodoei ere heldu beharko diegula azpimarratuz.

Diskurtsoaren analisiaren hurbilpen nagusiek, gure hitz egiteko moduek mundua, nortasunak edota harreman sozialak *diren bezala* ez dituztela islatzen azpimarratzen dute; munduaz, nortasunaz edota harreman sozialez egiten ditugun irudikapenak eraikiak dira, ez berezkoak. Eta alde horretatik, diskurtsoek rol aktiboa jokatzen dute beraiek eraiki eta aldatzen.

Laclairen arabera, diskurtsoaren nagusitasun hau modernitate berantiarraren aroaren zabalpenari lotuta agertzen da. Izan ere, aurreko atalean ikusi dugun bezala, ordura arte mendebaldean nagusi izandako filosofiaren krisiak *ezagutzaren berehalakotasunaren mitoa* deitu duena urratzen hasi zen (1988: 59). Honen arabera, fenomenologia fenomenoaren bitartez, filosofia analitikoa erreferentearen bitartez edota estrukturalismoa zeinuaren bitartez erdietsi nahi zuten bitartekaritarik gabeko ezagutza zuzenerako aukerak geroz eta urrutiago ikusten ziren. Lacanek bere ESI hirukoarekin irudikatu bezala, Errealerako ezagutza zuzenerako aukerarik ez legoke, hori sinbolizazioak mediatuta agertuko litzaiguke; bitartekaritza lan hori diskurtsoaren bitartez egingo litzatekeelarik.

Foucaultek garai historiko bakoitzean nagusi izango zen diskurtso *bakarraren* ikuspegian ez bezala, egungo diskurtsoaren analisiaren teoria gehienek mundua, nortasun edota harreman sozialak diskurtso ezberdinen arteko lehiaren emaitza bezala irudikatzen dituzte. Zentzu honetan, diskurtsoaren analisi gehienei, jendartearen baitan botere harreman ezberdinak aztertu eta eraldaketa sozialerako proposamen normatiboak plazaratzen dituzten heinean, izaera *kritikoa* ere aitortu ohi zaie.

Diskurtsoaren azterketa kritikoa ez da zerbait berria izango. Aurreko atalean azaldu dugun bezala, bere erroak Saussureren linguistika estrukturalistan eta ondorengo eskola estrukturalista berantiar frantsesak garatutako pentsamenduan kokatuko ditu; eta ikusi bezala, Althusseren eskutik marxismoa eguneratzeko saiakerarekin lotuta agertuko zaigu.

³⁴ Phillips eta Jorgensenek *Discourse analysis as theory and method* (2002) liburuan hiru korrante nabarmenduko dituzte: Laclau eta Moufferen diskurtsoaren teoria, diskurtsoaren analisi kritikoa (Fairclough-en ekarpena azpimarratuz) eta psikologia diskurtsoa (discursive psychology).

3.1.1.2. Osotasun teoriko-metodologikoa.

Phillips eta Jorgensenek diskurtsoaren analisirako ikuspegienginguruko hainbat ezaugarri komun azpimarratuko dituzte. Diskurtsoaren analisia ikerkuntza eremu ezberdinetan erabili ahal izango bada ere, ezin izango da egitura teoriko mota guztiekin erabili. Diskurtsoaren analisia ezin izango dugu oinarri teoriko eta metodologiko bakoitzaren ikerketa zehatzerako metodo bezala erabili (adibidez, ekonomian, fisikan, ...). Diskurtsoaren analisia ez da zehazki datuen azterketarako metodo bat izango, baina osotasun teoriko eta metodologikoa izango du; “pakete osoa” barnebilduko du, nolabait esateko. Pakete honek, lehenik, munduaren eraikuntza sozialean lengoaiak duen rolaren inguruko premisa filosofiko edo ontologikoak barne bilduko ditu; bigarrenik, eredu teorikoak; hirugarrenik, ikertzen ari garen domeinura hurbiltzeko gida metodologikoak; eta laugarrenik, ikerketarako teknika zehatzak (2002: 4). Osagai hauek osotasun bat osatuko badute ere, diskurtsoaren analisiaren ikuspegi ezberdinak erabiliz kasu espezifikoek azterketa eraginkorragoa egiteko pakete edo ikuspegi teoriko-metodologiko propioak eratu ahal izango dira; baita diskurtsiboak izango ez diren ikuspegi analitikoak baliatuz ere. Hau da, Diskurtsoaren Analisiak ikerketa sozialerako bestelako metodoekin³⁵ tresneria kontzeptual eta metodologikoa osatu dezake. Hortaz, ikuspegi metodologiko ezberdinetatik landutako azterlanak diskurtsoaren hainbat analisi motetan ondo baloratutako joera izango da.

Phillips eta Jorgensonek, “-gintza soziala” edo “eraikuntza soziala” deitu dutena (*social constructionism*), kultura eta jendartearen inguruko teoria ezberdinei aterkia jarriko liekeen aterkia litzateke. Diskurtsoaren analisia *social constructionism* honen hurbilpenetako bat litzateke; baina honen baitan erabilienetako bat. Burr (1995) eta Gergenek (1985) *eraikuntza sozial* honen funtsezko lau ezaugarri zerrendatuko dituzte (Phillips & Jorgensen, 2002: 5-6):

- *Gutxietsitako ezagutza bati hurbilpen kritikoa*: postestrukturalistek nabarmendu bezala, munduaren inguruko gure ezagutza ez litzateke egi objektibo gisa tratatu beharko. Errealitatea soilik kategorien bitartez eskuratu ahal izango dugu, hortaz, munduaren inguruan dugun ezagutza eta irudipenak ez dira “hor kanpoan” dagoen errealitate baten islak, mundua kategorietan banatzeko dugun joeraren emaitza dira; edota, nahiago bada, produktu diskurtsiboak.
- *Historia eta kulturaren berezitasunak*: funtsean izaki historiko eta kulturalak gara eta munduaren inguruko gure ikuspuntuak eta ezagutzak historikoki lekutatutako norbanakoen

³⁵ Gerora azalduko ditugun gatazka sozialean parte hartzen duten Mc Adam, Tarrow eta Tilly-ren mekanismo eta prozesuekin, esaterako.

arteko hartu-emanen emaitza. Hortaz, mundua ulertu eta irudikatzeko ditugun moduak historikoki eta kulturalki espezifikoak eta *kontingenteak* dira: gure mundu ikuskerak eta gure nortasunak aldagarriak dira eta etengabe aldatu daitezke. Honi lotuta, korrante honen izaera anti-esentzialista nabarmendu dezakegu, mundu soziala sozialki eta diskurtsiboki eraikia izateak bere izaera aurre-determinatua edo kanpoko aldagaiengatik finkatutakoa ez dela ondorioztatu daitekeelarik.

- *Ezagutza eta prozesu sozialaren arteko lotura*: mundua ulertzeko moduak prozesu sozialen bitartez eratuak eta mantenduak dira. Ezagutza “egi komunak” eraikitzen dituzten elkar-ekintza sozialaren bitartez gauzatzen da, "egia" eta "faltsuaren" arteko bereizketarako irizpidea ematen digularik.
- *Ezagutza eta ekintza sozialaren arteko lotura*: mundu ikuskera zehatz baten baitan, ekintzarako hainbat forma naturalak izango dira, beste batzuk pentsaezinak. Munduaren inguruko ulermenek ekintza sozialak gidatuko dituzte; eta ondorioz, ezagutzaren eraikuntza sozialak eta egiak ondorio sozialak izango dituzte.

Social constructionism honen aterki teorikoak inplikazio zuzenak izango ditu diskurtoaren analisisian (Phillips & Jorgensen, 2002: 12):


- Lengoaia ez da aurrez existitzen den errealitate baten isla.
- Lengoaia patroi edo diskurtoetan egituratua dago; Saussureren estrukturalismoan ez bezala ez dago ulermen orokorrerako sistema bakarra, sistemen serie edo diskurto ezberdinak baizik.
- Diskurtoaren patroi hauek praktika diskurtsiboetan aldatzen dira.
- Patroi hauen egonkortzea edo aldatzea testuinguru zehatzen azterketaren bitartez arakatuak izan beharko lirateke.

3.1.1.3 Diskurtoaren analisi motak.

Ikuspegi ezberdinetatik heldu ahal izango diogu diskurtoaren analisiari. Tipologia ezberdinaren sailkapenerako Phillips eta Jorgensenek (2002) bi ardatz planteatuko dizkigute: lehenik, diskurtoaren rola munduaren eraikuntzan jokatzen duen paperaren arabera; eta bigarrenik, ikuspegi analitikoaren arabera.

Lehenengoari dagokionez, diskurtsoaren analisiaren hurbilpen nagusien arabera, *praktika diskurtsiboak* mundu soziala zedarritzen dituzten praktika sozialak lirateke. Praktika diskurtsiboak bi ikuspegietatik aztertu ahal izango ditugu: batetik, ekintzak zehatzak, indibidualak eta testuinguru bati lotutakoak lirateke, non norbanakoen *agentziarako* gaitasuna nabarmentzen den; baina bestetik, instituzionalizatuak eta sozialki errotutakoak lirateke, horregatik norbanakoen praktika diskurtsiboak ezaugarri erregularrengandik baldintzatuak egongo dira. Faircloughren analisiaren diskurtso kritikoa, esaterako, diskurtsoaren kontzeptua testu, mintzamen eta beste sistema semiologikoetara mugatuko du, praktika sozialen beste dimentsioetatik ezberdinduz (ekonomia, teknologia, ...). Praktika diskurtsiboa praktika sozial guztien artean dimentsio edo *momentu* bat bezala ikusiko du, bestelako dimentsio edo praktika sozialekin harremanetan egongo dena. Honek mundu sozialaren hainbat aspektu logika diskurtsiboetatik haragoko bestelako praktikekin funtzionatuko dutela esan nahi izango du, Faircloughen arabera, bestelako tresnekin ikertuak izan beharko direlarik. Horrela, praktika diskurtsiboek beste dimentsio sozialak erreproduzitu edo aldaraziko dituzte, beste dimentsio hauek praktika diskurtsiboak aldaraziko dituzten bezala. Jarraian ikusiko dugun bezala, Laclau eta Mouffek bestelako ikuspegi bat izango dute, praktika guztiak diskurtsiboak izango direla azpimarratuz. Honek ez du esan nahiko testuak edo mintzamenaz harago besterik existituko ez denik; ekonomia, azpiegitura edota erakundeak diskurtsoaren parte izango direla baizik. Azken ikuspegi honen arabera, aldiz, diskurtsoaren teoria ez da diskurtsoaren eta beste zerbaiten arteko harreman dialektikoa izango, diskurtsoak berak gure mundua egituratzen du.


Horrela, posizio ezberdinak ardatz edo *continuum* batean kokatu ahal izango ditugu; alde batean diskurtsoa sozialaren elementu eratzailea litzateke, eta beste aldean, diskurtsoa bestelako mekanismo sozialen isla huts bezala irudikatua izango da.



3.1 irudia: Diskurtsoaren roll-a munduaren eraikuntzan.

Irudi honek azaldun nahi dugun ardatzaren sinplifikazio bat baino ez da. Aintzat hartu beharko dugu irudi honek eredu idealak baino ez dituela ordezkutzen, eta kasu gehienetan, bi muturretako ikuspegiak nahastuko dituzten ereduekin topo egingo dugula. Eskubideko aldean kokatzen diren hurbilpenak ez dira diskurtsoaren analisiari lotutakoak izango, diskurtsoa beste praktika sozialen erreproduzio mekanikoa izango delarik. Ikuspegi posibleak horrelako ardatz batean kokatzeak suposatu dezakeen sinplifikaziorako arriskuaren erakuslea marxismoan aurkitu dezakegu; marxismoa, esaterako, ardatzaren eskuineko aldean kokatzera jo ohi da, Gramsci edo Althusser bezalakoek diskurtsoaren izaera eraikia, politikoa eta kulturala duenaren aldarrikapena aintzat hartu gabe. Zentzu horretan, materialismo historikoaren muturreko lerratze honek bere konplexutasun guztia estali lezake (bai Gramsci, bai Althusserrek ekonomia “azken aldagai erabakigarritzat” hartzen bazuten ere).

Ikuspegi analitikoari dagokionez, aldiz, hainbat hurbilpenek diskurtsoak egunero sortuak eta eraldatuak izango direla azpimarratuko dute, eta ondorioz, jendearen mintzamina eta idazkera era sistematiko batean aztertuko dituen ikerketa enpiriko baten beharra aldarrikatuko dute. Beste ikuspegi batzuek, ordea, ezaugarri nagusiei arreta jarriko diete eta jendartean une zehatz batean edo domeinu zehatz baten baitan kokatuko liratekeen diskurtsoen mapa orokorrari garrantzia emango diote.



3.2 irudia: Diskurtsoaren ikuspegi analitikoa.

Ardatz honetan garrantzitsuena gradu ezberdinen mailaketan egongo litzateke, ez ezberdintasun kualitatiboetan. Hurbilpen batzuk eguneroko diskurtsoen azterketa sistematikoetan zentratuko dira, beste batzuk, aldiz, diskurtsoaren ezaugarri orokorragoengan jarriko dute arreta (Laclau eta Moufferena, kasu), diskurtso hauek eguneroko hamaika praktiketara sortuak, egonkortuak eta aldatuak izango direnaren ideia azpimarratuz. Baina ikuspegi analitikoaren bigarren ardatz honek diskurtsoaren analisiaren korrante ezberdinek arreta zertan kokatuko duten ere aditzera emango du. Ardatzaren ezkerreko aldean kokatzen direnak norbanakoen edo jendarte multzoen izaera aktiboa

eta sortzailea azpimarratuko duten bitartean, ezkerreko aldekoek giza talde hauek diskurtsoen eraikuntzan izango dituzten mugak nabarmenduko dituzte.

3.1.1.3.1 Eraikuntza diskurtsibo eta ez-diskurtsiboak.

Diskurtsoaren analisiaren gakoan azalpenean sartu baino lehen baliatu nahi dugun artikulazio diskurtsiboaren inguruan oinarrizko argipen bat egin dezagun.

Laclauk eta Mouffe-k, indar handia egingo dute eraikuntza diskurtsibo eta ez-diskurtsiboen arteko bereizketaren kontra (2004: 145). Izan ere, edozein objektu oinarri diskurtsibo baten baitan *agertzen* den heinean, objektu oro diskurtso bateko objektu bezala eratzten da. Esaterako: elkar-eraginezko eraikuntza diskurtsiboaren ikuspegitik, aulki baten existentzia, horren kontzeptualizazioa eman, bestelako objektuekiko kontrajarri (adibidez mahai batekin) eta diskurtso baten bitartez adierazten denean soilik izango da *aulki*. Honek ez du inongo zerikusirik aulki horren existentzia objektiboa ukatzearekin. Aulkiak, fisikoki, bere existentzia izango du, baina honen izaera diskurtsiboa ezberdina izango da baldin eta lanerako lanabes gisa kokatzen badugu edota egur pusketen lotura bezala.

Baina ez du zerikusirik izango diskurtsoari izaera mental hutsa egozten dion ikuspegiarekin ere; Laclauen arabera, diskurtsoak ere bere izaera materiala izango baitu. Hau da, bi pertsonen artean aulki bat eraikitzeke, A-k B-ri lehenengo aulkiaren hanka izango den egur zati bat eskatzen badio, gero beste bat, ondoren mailua hurbiltzeko esan eta jarraian iltzea eskura emateko, Wittgenstein-ek deitutako “lengoiaren jokoen” bitartez, lengoia eta ekintzak lotzen dituen prozesuarekin aurkituko gara; ez soilik egurra, mailua edo iltzearen ideiekin (2004: 147).

Ikuspegi hau gizarte zientzien azterketara eramanda, Foucaulten hitzetan diskurtso baten baitan *dispertsatutako subjektu posizio* ezberdinekin aurkituko ginateke. Foucaulten arabera, diskurtsoaren batasuna ez da subjektu fundatzaile baten kontzientziaren ondorio izango; diskurtsoak bere existentzia objektiboa izango du eta honen baitan subjektu posizio ezberdinak agertuko dira. Baina aldi berean, posizio hauen finkapena edo dislokazioa ezin izango dira soilik fenomeno linguistiko hutsak izan. Laclauen arabera “instituzio, erritual, eta bestelako praktiken *lodiera (densidad)* materiala zeharkatu beharko du, diskurtso bezala egituratzeko” (2004: 148). Beraz, lengoia eta ekintza sozialak lotzen dituen prozesuarekin topo egingo dugu.

Pentsamendu/errealitate dikotomia honen gainditzeak, gizarte zientzietako objektibitate zelaiaren eta harreman berriak pentsatzeko aukera zabaltzea dakar. Diskurtsoak, gu eta objektuaren arteko bitartekaritza eginez, posizio ezberdinen arteko harremana artikulatzeko joko eremua irekitzen du, bestelako zientzietan baliorik ez luketen tresnen bitartez. Esaterako, metafora edo kontradikzioa bezalako kontzeptuek zientzi naturaletan duten balioa hutsaren hurrengoa den bitartean, gure eremu sozial honetan bi entitate ezberdinen arteko gaindeterminazioa edota harreman gatatzakatsua adierazteko baliagarriak suerta dakizkiguke³⁶.

3.1.2. Hegemoniaren elementu nagusiak

3.1.2.1 Diskurtsoaren artikulazioa: unea eta elementua.

Behin izaera diskurtsibo eta ez-diskurtsiboen arteko bikoizketa hau teorikoki gaindituta, argitu dezagun zehazki zertaz ari garen artikulazioaren izaera diskurtsiboaz ari garenean. Horretarako abiapuntu gisa Laclau eta Moufferen ondorengo zita jarriko dugu:

“Llamaremos *articulación* a toda práctica que establece una relación entre elementos, que la identidad de éstos resulta modificada como resultado de esta práctica. A la totalidad estructurada resultante de todo esto llamaremos *discurso*. Llamaremos *momento* a las posiciones diferenciales, en tanto aparecen articuladas en el interior del discurso. Llamaremos, por el contrario, *elemento* a toda diferencia que no se articula discursivamente” (Laclau-Mouffe, 2004: 143).

Kurtsibaz idatzitako lau kontzeptu hauen gainean arreta jarriko dugu gure marko teorikoaren eraikuntzan aurrera egiteko. *Artikulazioari* dagokionez, definizio honen arabera azpimarratuko genukeen lehenengo ezaugarria bere harremanezko izaera litzateke. Laclau eta Moufferen lana sakonki aztertu duen Torfing-en arabera

³⁶ Aipatzekoa da posizio hauek berehalako erantzuna jaso zutela eremu marxistatik bertatik. Horietako bat Norman Gerasen eskutik emandakoa. Bigarren honek lehenengoari diskurtsibo/ez-diskurtsibo dikotonomia honen gaindipenerako proposamenaren ondorioz, “idealismo”, “erlatibismo” eta bestelako akusazioak leporatu zizkiolarik. Geras eta Laclau&Moufferen arteko eztabaida hau lehenengoaren *Discourses of Extremity. Radical Ethics & Post-Marxist Extravagances* (1990) eta bigarrenaren *Nuevas Reflexiones sobre la revolución de nuestro tiempo* (2000) liburuetan jasota dago. Baina ideia honetan marko teoriko honen azken atalean sakonduko dugu.

“el aspecto relacional se refiere al relacionalismo radical que sostiene que las relaciones entre identidades sociales son constitutivas de esas identidades” (1998: 40).

Giza nortasunen izaera aurre-eratu defendatzen duten ikuspegi klasikoen kontra, hartu-emaneko erlazio hauetan eraikiko lirateke nortasunak; edota, nahiago bada, bertan artikulatuko lirateke hegemonia berriak. Gramscik planteatutakoaren azken ondar esentzialistaren kontra, ez ginateke berezko nortasun transzendental ezberdinen gehiketa batez ariko. Elkar-eragin honetan, aurretik ematen ziren nortasunen birmoldaketaz eta nortasun berri baten eraikuntzaz baizik. Nortasun berri hauen eraikuntzarako ezinbestekoa izango da posizio ezberdinen gaindeterminazioa.

Ikusten ari garen bezala *objektu diskurtsiboen* izaerak ez du aurre-existentzia bat suposatzen; ez da finkoa, ezta mugiezina ere. Bestelako subjektu posizioekin hartu-emanen eraikitzen da, elkarren artean *gaindeterminatuz*. Laclauk eta Mouffek hauen izaera osatugabea, irekia eta politikoki negoziagarria azpimarratuko dute:

“El sentido de toda identidad está sobredeterminado en la medida que toda literalidad aparece constitutivamente subvertida y desbordada; es decir, en la medida en que, lejos de darse una totalización esencialista o una separación no menos esencialista entre objetos, hay una presencia de unos objetos en otros que impiden fijar su identidad. Los objetos aparecen articulados (...) en la medida en que la presencia de unos en otros hace imposible suturar la identidad de ninguno de ellos” (2004: 142)

Laclauk eta Mouffek “objektu batzuk beste batzuegan duten presentziaz” hitz egiten digute. Hori litzateke gaindeterminazioa; ikuspegi postestrukturalistei jarraituz, esanahia eta adierazlearen arteko banaketa eginda, adierazlea esanahiaz hustuz objektu ezberdinen artean ematen den inbestidura prozesua, hain zuzen ere. Baina objektu guztiek ezin izango dute beraien artean gaindeterminatu. Beraien artean *posizio diferentzial* bezala mantendu beharko dira. Posizio diferentzial gisa, interes/eskaera ezberdinen artean ematen den harremana ulertuko genuke. Esandakoaren arabera, posizio batzuk *une* bezala artikulatuko lirateke, eta beste batzuk, artikulazio honetatik kanpo geldituko lirateke (*elementuak*).

Baina puntu honetan Torfing-ek berak barnekotasun eta kanpokotasun honen izaera erlatiboaz ohartzen digu. Torfing-ek, joera postestrukturalisten herentziari jarraiki, artikulazio diskurtsiboek

duten berezko ezaugarri bat azpimarratzen du, negatibotasunarena, hain zuzen ere (1998: 39). Lacan-ek psikoanalisiaren barraren bitartez adierazi nahi izan zuen osotasun itxi-ezinaren ideia artikulazio diskurtsiboen planora ekarriz, diskurtsioak barneratu ezin izango duen hori *soberakin diskurtsiboa* litzateke. Baina esan dugun bezala, posizio hauen finkapena esentziala ez den heinean, ez da betierekoa izango, kontingentea baizik. Hortaz, eraikuntza diskurtsiboaren mugak etengabe desplazatuko dira, posizio batzuk barnebilduz eta beste batzuk kanpoan utziz. Zentzu honetan esan dezakegu *elementutik unerako trantsizio* hori inoiz ez dela erabat burutuko (Laclau&Mouffe, 2004: 150). Artikulazioak barneratu ezin izango duen esanahiaren soberakin hau bestelako artikulazioetarako lehengaita izango da eta *diskurtsibitate eremu (campo de la discursividad)* bezala ezagutuko dugu (Torfing, 1998: 42).

Diskurtsioaren barnekotasun eta kanpokotasunaren arteko tentsio honetan; elementutik unerako erabateko trantsiziorako ezintasun honetan; subjektu posizioen finkapenaren egonkortasun hauskorrean, artikulazio diskurtsiboaren eginkizunetako bat inongo ainguratzerik ez lukeen erabateko ezegonkortasuna ekiditeko bitartekoak bilatzea izango da. Finkapenerako puntu partzialak edo *puntu nodalak* aurkitzea. Inongo egonkortasunik gabeko egoera erabat eskizofreniko hau ekiditeko prozeduren eraikuntza teoriko gisa ulertu dezakegu Laclaren lana. Jendartearen eraikuntza diskurtsibo honen izaera ezegonkor eta kontingentea, hegemoniaren eraikuntzaren bitartez, dinamikoa eta aldakorra izango den sostengu edo ainguralekua emateko ahalegin bezala. Aztertu dezagun eraikuntza horretan parte hartzen duten bestelako prozesu nagusiak.

3.1.2.2 Antagonismoa.

Zehaztu ditzagun termino honen inguruko hainbat ezaugarri. Couletti-ri erreferentzia eginez *oposizio erreal* eta *kontraesan logikoaren* arteko ezberdintasuna argituko dugu (Laclau&Mouffe, 2004: 165), ondoren, antagonismoaren inguruko zehaztapen batzuk egiteko.

Oposizio errealak A-k B-rekiko duen ezberdintasunari egiten dio erreferentzia; batak zein besteak berezko existentzia osoa dute, bakoitzak bere existentzia bere baitan agortzen du, eta zentzu horretan, ezberdinak dira. Oposizioa, objektu errealean mundu fisikotik jendarte gaien mundura zabalduko kontzeptua litzateke, baina gure ikuspegi teorikorako balio eskasa duena.

Kontraesan logikoaren kasuan, aldiz, ezberdintasuna A eta ez-Aren artekoa litzateke. Hau da, elementuen arteko kontrakotasunean emango litzateke elementu bakoitzaren nortasunaren eraikuntza. Proposizioaren mailan emango litzateke; soilik maila logiko kontzeptualean eman ahal dira kontraesanak.

Baina batak eta besteak zerikusi gutxi dute antagonismoari eman nahi diogun adiera teorikoarekin. *Oposizio errealean*, argi dago termino bakoitzak lukeen berezko existentzia erreal horrek zerikusi gutxi duela orain arte landu nahi izan dugun ikuspegi ez-josia, irekia eta harremanezkoarekin. Baina *kontraesan logikoak* ez zaigu baliagarria ikuspegi honetarako. Laclauk eta Mouffek kontraesanek antagonismoari oinarria jartzen dietela aitortzen badute ere, bera ez dute nahikotzat hartzen (2004: 167). Izan ere, argi baitago kontraesankorrak suertatzen diren hainbat egoeretan ez duela zertan antagonismoari egon behar. Beraz, iruditu lezake antagonismoaren azalpenerako funtsa irudika ezina litzatekeela. Hortaz, zein da funts hori?

Aipatu dugu oposizioak zein kontraesanak harreman objektiboak direla; maila fisikoan oposizioen kasuan eta maila kontzeptualean kontraesanen kasuan. Antagonismoaren kasuan, aldiz, bestearen existentziak nirea ukatzen du, eta honek ematen dio antagonismoari funtsa. Antagonismoa ez da nortasun osoen ondorioz sortzen, hauen osotasunaren ezintasunetik baizik. Bi autoreok jarritako adibideari jarraiki, maizterrak nekazaria lurretatik kanporatzean bihurtzen da nekazaria *nekazari*. Hau da, nekazariari nekazari izateko ukapenetik sortuko litzaioke nortasun diskurtsiboa eta, aldi berean, maizterrarekiko antagonismoa (2004: 168). Gerora sakonduko dugun bezala, antagonismoak haustura behar du, bi espazio sozialen arteko haustura, hain zuzen ere (Laclau, 2005: 112).

Argudio hau marxismo tradizionalak mahai gaineratu dituen planteamenduei kontrajarriz agerian geldituko da. Izan ere, orain artekoari erreparatuta, marxismoak antagonismoari dagokionez, ez lituzke bi gauza behar bezala ulertu: batetik, kontraesanaren osagaia beharrezkoa izateaz gain, ez dela nahikoa antagonismoa berez sortzeko; eta bestetik, antagonismoa ez dela ekoizpen prozesuaren baitan ematen (maila ekonomikoan, nolabait esateko), baizik eta ekoizpen prozesua eta agente sozial aurre-determinatu gabearen artean ematen den espazio diskurtsibo horretan (1990: 32).

Esaterako, soldata jaitsiera baten ondorioz langile batek bere nagusiarekin izan ditzakeen kontrakotasunak, ez du zertan antagonismoa ekarriko. Litekeena da antagonismoa, langile horrentzat, esaterako, familiako aita edo ama bezala (ekoizpen prozesutik kanpo eta aurre-ezarritako

nortasunetatik kanpo kokatzen den identitate gisa) garrantzitsuak diren beharrak asetzeko diru nahikorik ez duenean sortzea. Hau da, ekoizpen prozesuaren determinismotik kanpo eta ekoizpen prozesuaren arabera aurre-ezarrira dauden nortasunetatik kanpo kokatzen den diskurtso bidez eraikitako *tarteko* espazio horretan sortuko da antagonismoa.

Antagonismoaren ideia, beraz, hertsiki lotuta dago gorago aipatutako negatibotasunaren ideiarekin; bere baitan erabateko barne adiskidetzeari lortu ezinaren ideiarekin. Baina kontuz, negatibotasuna, diskurtsoak barneratu ezin duen objektibitate oso eta itxirako muga izango den bezala, ezinbesteko baldintza ere izango da bere eraikuntzarako; bestelakoan nortasun esentziaz ariko ginatkeelako. Diskurtsoak artikulatu ezin duen soberakin antagoniko hori *diskurtsibitatearen eremuaren* parte izango da. Hortaz, gizartearen ezinezko osotasuna, gizartearen beraren ezinbesteko baldintza izango da (2004: 169). Zentzu horretan, ez gara soilik nortasun bat itxi ezin ahal izateaz, jendarte osoaren itxituraren ezintasunaz baizik; jendartearen izaera gatazkatsuz, hain zuzen ere.

Nortasunen eta jendarteen izaera irekiak eta erabateko josturaren ezintasunak, itxuraz, arazo handia suposatu dakiguke eraiki nahi dugun hegemoniaren definizio teorikorako. Izan ere, hegemonikoak diren nortasun esentzial itxien existentzia ukatzen badugu, eta aldi berean, nortasun guztien izaera irekia eta kontingentea bada, hegemonia horren eraikuntzari gutxieneko egonkortasun bat emate aldera beste gakoetako bat mahai gaineratu beharko dugu. Hori posizioen *ekibalentzia* eta *diferentziaren* bitartez azalduko dugu.

3.1.2.3 Ekibalentzia eta diferentzia.

Alegiazko barne-adiskidetzutako jendarte itxi batean posizio diferentzial guztiek berain berezitasunak mantenduko lituzkete nagusi edo hegemonikoa litzatekeen ordenua kolokan jarri gabe. Baina ikusten ari garen bezala, eraikuntza sozial itxiak alegiazkoak dira eta beraien barnean subjektu posizio ezberdinen arteko lehia emango da ordenu horretan nagusi izango den posizioa nagusitzeko. Horretarako, posizio ezberdinen berezitasunak, maila batean behintzat, indargabetu beharko dira, berezitasun horiek, partzialki bada ere, edukiz hustuz eta beraien arteko identifikazio edo ekibalentzia bat emanez. Jo dezagun kolonizatutako herrialde batean ematen diren subjektu posizio ezberdinetara; bertan kolonizatzaile eta kolonizatutakoaren arteko diferentziak bizitza sozialaren arlo edo posizio ezberdinetan emango dira: hizkuntzan, janzkeran, ohituretan eta

abarrekoetan. Posizio bakoitzaren inguruan (hizkuntza, janzkera, ...) kolonizatu eta kolonizatzaileen artean sortzen diren diferentziek kolonizatuen aldetik posizio edo gai ezberdinen artean identifikazio edo ekibalentzia bat sortzera eramango dute, bakoitzaren berezitasuna ahulduz. Baina, aldi berean, berezitasun hauek ezin dira erabat indargabetu. Kasu horretan, ekibalentziarik ez legoke, soilik izate bateratu edo homogeen bat.

Kolonizatuek kolonizatzaileengan proiektatuko dute bere itxitura sozialaren ezintasunaren zama; hau da, beraien hizkuntza, ohiturak eta abarrekoak garatu ezin izatea. Zentzu honetan, kolonizatzaileengan irudikatzen den negatibotasuna kolonizatuen barne-adiskidetzeari ezinezko egitearen eragilea izango da, baina aldi berean kolonizatuen nortasunaren sustatzailea edota eratzzailea ere izango da.

Posizio/eskaera hauek guztiek kanpokotasun batekiko (kolonizatzaileekiko) sortzen duten kontrakotasunean, antagonismoa sortzen da. Kontrakotasun edo negatibotasun hau ekibalentzien bitartez sortzen den nortasun berriaren ezaugarri eratzzailea izango da. Hau da, bera gabe ez dago ez antagonismorik, ez ekibalentziarik³⁷. Baina aldi berean, negatibotasunak, nortasun esentzialisten ukatzaile gisa, nortasun hauen erabateko anbiguitasuna eta malgutasuna agerian utziko du. Horrela, anbiguitasun eta malgutasun honen bitartez, ezinezkoa litzateke erabateko ekibalentzia edota erabateko diferentzia erdiestea, nortasunak etengabe birdefinitzen egongo liritekeen heinean.

Ekibalentzia eta diferentziaren logika hauek artikulazio diskurtsiboan dituzten eraginak aztertze aldera, ekibalentziak esparru politikoaren sinplifikazioa dakarrela eta diferentziak konplexua egitea dakarrela baieztatu dezakegu.

Orain arte antagonismoaz singularrean hitz egin dugu baina era askotako antagonismoekin topo egin dezakegu; batez ere esparru demokratikoetan. Demokrazia liberalen zabalpenarekin batera, modernitate berantiarrean ugaldutako borrokek (feminismoa, arrazaren ingurukoak, joera sexualen ingurukoak, ...) antagonismo potentzialerako puntuak ugariagoak egin dituzte. Zentzu horretan, zenbat eta posizio diferentzial gehiago egon, orduan eta antagonismo puntu gehiago ugaltu ahal izango dira; baina antagonismo hauek lokalizatuak izango dira, zailagoa izango da hauen artean nagusi izango den bat aurkitzea eta horren gainean kate ekibalentzial sendo bat artikulatzea.

³⁷ Laclau negatibotasunaren existentzia errealaz ere hitz egiten du, ekibalentziari esker gauzatuko litzatekeena. "Ciertas formas discursivas, a través de la equivalencia, anulan toda positividad del objeto y dan una existencia real a la negatividad en cuanto tal" (1985: 172).

Horretarako funtsezkoa izango da *adierazle hutsaren zentzua* hartuko duen aldagaia azalartzea; partzialki edukiz hustuta, kate ekibalentziaren artikulaziorako ainguraleku nagusia izango dena.

Izan ere, Laclau eta Moufferentzat operazio hegemonikoak espazio politikoa bitan banatzea eskatzen du. Sistema autoritario eta sistema demokratikoen arteko bereizketa honetatik, *subjektuen posizio herrikoa* eta *subjektuen posizio demokratikoa* bereiziko dituzte. Lehenengoetan, espazio politikoa bi eremu antagonikoetan banatuko litzateke; autoritatea baliatzen duen eta autoritate horren hartzaile direnen artean. Eta bigarrenengan, antagonismoa lokalizatua legoke; dauden eskaera edo posizioen artean bat nagusitu ahal izango da baina honek zailago luke gizartea bitan banatzea (2004: 175). Honek ez du esan nahi sistema demokratikoetan hegemonia berriaren eraikuntzarako beharrezkoa den espazio politikoaren biko zatiketa hori eman ezin denik (edota sistema autoritarioetan balizko eskaerek ezinbestean sistema bi eremuetan antagonizatzen eraman behar dutenik). Are gehiago, Laclau eta Moufferen arabera, “borroka demokratiko oro [...] erlatiboki jositako espazio politiko batean eman behar da” (2004: 176). Sistema demokratikoetan joskera erlatibo hau askatasuna eta berdintasunaren kontzeptuen gainean eraikiko da, bi hauen gaineko ulermen ezberdinen arteko lehiaren arabera espazio politikoaren banaketa eman ahalko delarik (Mouffe, 1999).

3.1.2.4 Subjektu hegemonikoa.

Orain arte esandakoari erreparatuta hegemonia artikulazio diskurtsiboen bitartez eraikitzen dela baieztatu dezakegu. Hau da, *elementutik unerako* igarobide hori erabat gauzatuta ez dagoen espazioa bezala. Harremanezko sistema itxi batean, non nortasun guztiak erabat finkatuak egongo liratekeen, ez legoke praktika hegemonikoetarako lekurik. Zentzu horretan, hegemoniak esparru sozialaren izaera irekia eta kontingentea eskatzen du.

Marxismo tradizionalaren krisiaren jatorrira bueltatuz, Laclauk hegemonia hori artikulatu behar duen subjektu artikulatzailea zein den bere buruari planteatu beharko dio, honako ondoriora iritsiz: Leninetik Gramscira indar hegemonikoaren azken gunea aurrez determinatutako klase batengan kokatu izan da (Laclau&Mouffe, 2004: 178).

Korapilo esentzialista hau askatzeko *diskurtsibitatearen eremuaren* ideia berreskuratuko du, bi formazio diskurtsiboen arteko kanpokotasuna egon behar badu ere, honek bi diferentzia sistema erabat itxien existentzia ezin duela ekarri baieztatuz. Arestian aipatzen genuen “erlatiboki jositako espazio politikoa” edota formazio diskurtsiboen barnekotasun maila bat beharrezkoa izango da, artikulazio zehatzik izango ez duten “elementuekin” batera. Azken batean, artikulazio zehatzik gabe *flotutzen* egongo diren elementu hauen bilakaerak eraikuntza hegemonikoa determinatuko du. Anbiguotasun honek, sozialaren zentzua partzialki finkatzen duten *puntu nodalen* bitartez, elementuen artikulazioa posible egiten du posizioen diferentzien sistema batean.

Baina hegemoniarako artikulazioa ez da nahikoa izango. Elementuen artikulazioa dakarten hainbat praktika zerrendatu ditzakegu, non hegemoniarik ez dagoen; esaterako, administrazioaren praktika burokratiko batzuen berrantolaketan. Gorago esan dugun bezala, hegemoniarako antagonismoa ere beharrezkoa da (Laclau&Mouffe, 2004: 179). Hau da, fenomenoek ekibalentzia jaso eta mugak etengabe zedarritu eta birdefinituko dituen prozesu batez ari gara. Baina aldi berean, antagonismo orok ez du bere baitan ariketa hegemonikorik zertan ekarri behar, flotagarriak diren elementurik artikulatzen ez dituen heinean. Hortaz, ekibalentziarik eta mugarik gabe ez dago hegemoniarik.

Atal honen hasiera luzatutako galderari erantzunez, hegemoniaren artikulaziorako aurrez determinatuta dagoen subjekturik ez dagoela baieztatu dugu. Operazio hegemonikorako subjektua eratu egin behar. Are gehiago, operazio hegemonikoaren subjektua operazioan bertan eratu egiten da, jarraian aipatuko ditugun urratsak emanez: objektuen esanahia edukiz partzialki hustu, beraien arteko ekibalentziak sortu eta objektu hauek beraien artean gain-determinatuz nortasun ezberdinei bide emanez.

Baina subjektu hegemonikoa kontingentea da, aldakorra. Artikulatzeko gai izango den edo ez den posizio ezberdinen arabera, edota adierazle flotagarrien arabera, bere mugak etengabe birdefinituko dira. Hortaz, gaurko subjektua, ez da biharko subjektu berdina izango. Are gehiago, Gramscik aldarrikatzen zuenaren kontra, subjektu honen osaketa ez da nortasun ezberdinen *gehiketa* ariketa izango, aurretik existitzen ziren nortasunak aldaraziko dituen prozesua izango da, nortasun berri baten sorrerari bide emanez. Aurrerago ikusiko dugun bezala, ariketa hegemoniko honen ondorioz praktika batzuk sozialki sedimentatuko dira, arrunt bilakatuko dira. Baina subjektu horien dislokazioaren ondorioz, hau da, *beharko luketenaren* eta *direnaren* arteko distantziaren ondorioz, praktika horiek berraktibatzen diren *unea* emango da, eraikuntza hegemoniko berri bati bide

emanen. Hitz bitan esanda, hegemonia bera subjektuaren etengabeko berreraikuntza prozesu bezala definitu dezakegu.

Zentzu honetan, Gramscik eta Laclauk subjektu hegemonikoaren eraikuntza ulertzeko duten ikuspegi ezberdina adierazgarria izango da. Bigarrenak lehenengotik hainbat kontzeptu klasiko ontzat eman eta baliatuko baditu ere (*krisi organikoa, bloke historikoa, formazio hegemonikoa, posizio gerra* eta abar) badago onartezina suertatuko zaion ikuspegi bat. Hau ekidinezina izango litzatekeen *posizioen gerrari* eta horri lotutako espazio politikoaren banaketa *herrikoari* lotuta legoke (hau da, bi eremu antagonikoetan banatutako espazio politikoaren zentzuan). Laclarentzat hau gainditu beharreko ikuspegi izango da.

Gramscik, marxismoa klasikoak ulertu duenaren kontra, nortasun herritarra *berez* emanda etorriko ez dela argi ikusten badu ere (hots, nortasun hori bera politikoki eraiki beharko dela), espazio politikoaren bateratasuna eta gerora eman beharko litzatekeen horren biko banaketa, ezinbestez ekonomiaren eskutik etorriko dela berresten du. Esan nahi baita, marxismo tradizionalak planteatu bezala, Gramsciren ustez ere, azpiegitura/gainegitura espazioaren osotasuna aldagai ekonomikoaren eskutik letorke; intelektualek aldagai honetaz egin behar duten interpretazio lanak dimentsio kultural eta ideologikoari garrantzi berritu bat ematen badio ere. Baita gerora hegemoniaren eraikuntzaren bitartez espazio horren biko banaketa antagonikoari. Eta hori da, hain zuzen ere, Laclarentzat gainditu beharreko ikuspegia:

“Como señalamos antes, la proliferación de los espacios políticos y la complejidad y dificultad de su articulación son unas de las características centrales del capitalismo avanzado. Retendremos, pues, de la concepción gramsciana, la lógica de la articulación y la centralidad política de los efectos de frontera, pero eliminaremos el supuesto de la unicidad del espacio político como marco necesario para la verificación de esos fenómenos” (2004: 181).

XX. mendean zehar sistema demokratiko liberalen zabalpenarekin ugaltzen joan diren antagonismorako puntuek sortutako egoeraz ari da. Horrela, bitan zatitutako espazio politikoaren aukera baztertzen ez badu ere (*borroka herrikoiak*), espazio politiko hauen aniztasuna jasoko dituen egoerak ere aurreikusten ditu (*borroka demokratikoak*). Are gehiago, gorago aipatu bezala sistema demokratiko liberaletan ere hegemonia berri bat eraiki nahi bada *borroka herrikoien* bitartez

espazio politikoa bitan banatu beharko da; baina honakoa ez da aukera bakarreko eszenatokia izango, ekibalentzia eta antagonismoen bitartez eraiki beharrekoa baizik.

3.1.2.4.1 *Subjektuaren autonomia.*

Modernitate berantiarraren eskutik eman den determinismo ekonomikoren gainbeherarekin, esparru sozialaren aniztasunak hegemoniaren ideiarekin duen harremana aztertzea garamatza. Horrela, esparru sozial hauen ugaltzeak beraien *autonomizazio* prozesuarekin lotzera jo izan da. Marxismo tradizioaletik, estruktura ekonomikoarekiko autonomizazio prozesu hau hegemoniaren eraikuntzarako mehatxu bat bezala ikusia izan da; edota, irakurketa integratzaileenetan, estruktura ekonomikoa esparru sozial hauekiko jokatzen duen funts determinatzaile bezala ulertzera jo da. Aurreko atalean ikusi bezala, postestrukturalismoaren gorakadarekin estruktura eta autonomia uztartzeko saiakera egingo duenik ere egongo da, Althusserren kasuan bezala. Baina Laclarentzat saiakera hau antzua izango da estruktura eta autonomia kontzeptu bateraezinak diren heinean. Estrukturaren *autonomia erlatiboaren* ideiarekin azaldu nahi izan den tarteko ikuspegi hau bi mugekin topo egin izan du: batetik, marko estrukturalak entitateen autonomia mugatuko lukeena (hortaz, entitateak determinismo estrukturalagatik baldintzatuak egonda autonomiaren ideia zentzurik ez luke); edota, bestetik, entitate sozialen izaera autonomoa aitortuko baina horien artikulazio nola ematen den azalduko ez lukeena. Laclauk bigarren muga honek planteatzen duen premisaren gainean (hau da, entitateen izaera autonomoa) entitate hauek nola artikulatzen diren azaltzen saiatuko da ekibalentzia, antagonismo eta bestelako mekanismoen bitartez.

Egoera hau gizarte mugimendu berrien (GMB) eremura ekarriz argiago ikusi ahal izango dugu. Edozein nortasun bezala, beraien izaera erabat definitua eta egonkorra ez den heinean, GMBak espazio politiko-diskurtsiboan *flotzen* egongo diren adierazleak dira (Laclau&Mouffe, 2004: 185), lehian dauden posizio diskurtsibo nagusien bilakaeraren arabera beraien egoera eta izaera ere aldatzen joango delarik. Hau da, maila batean GMBak lehian egongo diren eta lehia eragingo duten subjektu posizio aldakorak izango dira. Beraz, eraikuntza hegemoniko batek hauen autonomia kolokan jarri dezakeela suposatzea ez litzateke zuzena. Beraien arteko gain-determinazioak elkarren arteko bilakaera baldintzatuko duela baieztatzea zuzenagoa litzateke.

Ildo honetatik, hainbat figura postestrukturalistek utzitako herentziari jarraituz, hegemonia operazio metonimikoa litzateke. Hau da, “bere efektuak desplazamendu operazio baten ondorioz sortutako

soberakinaren emaitza lirateke” (2004: 186). Desplazamendu hau abagune historiko ezberdinetan gauzatu da, Errusiar Iraultzan proletalgoak demokratizazioarekiko jokatu zuen paperetik hasita, gure ikerketa gaien sindikalgintza abertzaleak bete zuen funtzio demokratizatzaile. Funtsean, sektore sozial batzuek beraien “ohiko” funtzioetatik harago doazen eginkizunak bere gain hartzen dituztenean sortzen den desplazamenduaz ari gara. Hortaz, esparru sozialaren irekiera determinismo estruktural edo ekonomikoetatik harago ariketa hegemonikoaren funtsa izango da.

Laclau eta Moufferen ustez, autonomia ez litzateke hegemoniarako *handicap-a* bezala ulertu behar. Espazio demokratiko berri hauen ugaltzea eta beraien arteko autonomizazioa, eraikuntza hegemonikorako baldintza izango lirateke; prozesu honen izaera ireki, kontingente eta aldakorra aintzat hartuz.

Baina egoera honetan zein da hegemonizatzen duen eta hegemonizatuta gelditzen den indarraren arteko harremana? Indar hauen arteko erabateko barnekotasun egoera bat emango litzateke? Indar hauen arteko diferentzia sistema erabat itxita balego, bai; baina esan dugun bezala, hegemoniaren berezko ezaugarriak espazio sozialaren irekiera, zabaltzea eta bere izaera ez-josia dira. Beraz, posizio hauen arteko diferentzia maila bat mantendu beharko da. Hori bai, indar bakoitzaren izaeran aldaketarik eman gabe, beraien arteko ezberdintasun egonkorrekin mantenduko direla pentsatzeak ere inongo zentzurik ez luke. Izan ere, ikusten ari garen bezala, ez gara nortasun ezberdinen gehiketa batez ariko, nortasun berri baten eraikuntzaz baizik.

3.1.2.5 Unibertsalitatea eta partikularitatea

3.2.5.1.1 Dikotomiaren gainditzea.

Laclauk bi kontzeptu hauen azalpenerako abiapuntu gisa Marxek langile klasea ezaugarritzeko baliatu zuen ikuspegi “bikoitza” erabiliko du.³⁸

Hauen sakoneko azalpenean gehiegi luzatu gabe, lehenengoaren arabera, garapen industrial eta kapitalistaren eskutik, klase ertaina eta nekazalgora proletarizatzen joango lirateke, langile klasea

³⁸ Laclauk unibertsal eta partikularraren lanketa teorikoa egiteko erreferentziazko lanetako bat Judith Butler eta Slavoj Zizekekin batera idatzitako *Hegemonia, contingencia y universalidad* (2000) liburuan aurkitu dezakegu. Bertan, aipatutako Marxen ikuspegi bikoitz hori ilustratuko duen bi testuen zitak jasoko ditu (49. eta 50. orrialdeak).

gehiengo izaera izango lukeen espektro sozial zabala osatu arte. Puntu honetara iritsita, gutxiengoa litzatekeen burgesiaren aurkako *azken gudu*a gauzatu besterik ez luke egin behar. Zentzu honetan, jendartearen aniztasunen disoluzio bat emango litzateke, proletalgoaren zabalpenaren ondorioz.

Bigarren ikuspegiaren arabera, Gramscik marraztutako norabidean gizartearen sektore zehatz batek (proletalgoak), bere interes propioei jarraiki, jendartearen gainontzeko sektoreen interesak asetzeko gaitasuna izango beharko luke, batzuen eta besteen interesen arteko identifikazio bat erdietsiz:

“Se necesita que una determinada esfera social sea considerada como el *crimen manifesto* de la sociedad toda, de tal modo que su liberación se considere como una autoliberación general” (2003: 50)

Laclaren hitzetan, bigarren kasu honetan, jendartearen sektore zehatz batek gainontzeko sektoreekiko lortuko lukeen “dominazio orokor” batez ariko ginateke. Edo nahiago bada, sektore sozial honek gainontzeko sektoreak artikulatzeko gaitasun berezi bat erakutsiko luke.

Horrela, lehenengo kasuan, jendartearen *unibertsalizazioa* proletalgoaren nagusitzearen eskutik emanda letorke. Bigarrenean, aldiz, *partikularra* litzatekeen sektore soziala (proletalgoa), bitartekaritza paper bat jokatu luke gainontzeko sektore sozialekin, bere eskubide edota eskaera propioak “komunitatearen helburu askatzaile unibertsalekin identifikatuz” (2000: 51). Marxek askapen prozesuaren bide nagusi gisa lehenengo ikuspegia lehenetsiko badu, Laclauk bigarrenak lantzen duen ikuspegi artikulatzaileari helduko dio hegemoniaren azalpena egiteko.

Honek ordea ez du esan nahi, Marxek unibertsaltasunaren nagusitasuna aldarrikatzen duen bitartean, Laclauk partikulartasunari soilik arreta jarriko dionik. Baizik eta Marxek unibertsaltasuna jendartearen betiereko barne adiskidetzerako prozesu gisa irudikatzen duen bitartean (non partikulartasunak behin-behineko izaera lukeen), Laclauk unibertsal/partikular kontzeptuen ikuspegi dikotomiko hori gainditzearen beharra planteatuko du. Nola? Hegemoniaren kontzeptuaren bitartez:

“Si la hegemonia de un sector social *particular* depende, para su éxito, de que pueda presentar sus objetivos propios como aquellos que hacen posible la realización de los objetivos *universales* de la comunidad, queda claro que [...] toda expansión de esa dominación presupone el éxito de articulación entre universalidad y particularidad (es decir, una victoria hegemónica)” (2003: 55).

Hortaz, sektore sozial zehatz batek, gainontzeko sektore sozialen aldetik, bere eskaera/interesen identifikazio bat lortzen badu indar hegemonizatzailea bilakatuko da. Edota nahiago bada, hegemonizazio prozesua, jendarte sektore horrek, lehen aipatutako *ageriko bidegabekeriak (crimen manifesto)* berarekiko ematen den bidegabekeriarekin identifikatzea lortzean ematen da. Baina Laclarentzat, horretarako ezinbesteko baldintza batzuk bete beharko dira.

3.1.2.5.2. Unibertsal/partikular artikulaziorako baldintzak.

Laclaren arabera unibertsal eta partikularren artikulaziorako lehenengo baldintza *ezberdintasuna* litzateke, bi ezaugarriren arabera ulertuta: batetik, *bazterkeria* bezala. Hau da, esaten ari garen bezala, “ageriko bidegabekeria” horrek posizio sozialen artean mugak sortuko ditu, *ageriko kaltetuen* (eta beraien arteko identifikazioa) eta *ageriko erantzuleen* arteko mugak, hain zuzen ere. Batzuen eta besteen arteko lubakiak eraiki beharko dira. Eta bigarren ezaugarriaren arabera, ezberdintasun hori botere desoreka batean emango da: hartu-emanetan dauden sektore/posizio ezberdinak, ariketa hegemonikoa egiteko baldintza ezberdinak dituztela aintzat hartu behar da, horren arabera bakoitzaren abiapuntua hobea edo okerragoa izango delarik.

Laclarentzat ezberdintasunaren bi ezaugarriok, onartu beharreko ekidin ezinezko kalte edo egoera bidegabeak baino, “erabat adiskidetutako giza sena baino goragoko balio unibertsalak” lirateke. Erabat adiskidetutako jendarteak desadostasunetarako aukerari uko eginda, bere heriotza eramango bailuke bere baitan. “Banaketa soziala, antagonismoa eta bere ondorio litzatekeen boterea, partikularitasuna deuseztatzen ez duen benetako askatasun baten ezaugarri baitira” (2003: 210).

Ariketa hegemonikorako bigarren baldintza, gorago aipatutako *unibertsal/partikular dikotomiaren gainditzea* izango litzateke. Baina nola? Aipatu dugu ere *ageriko bidegabekeria* horren kaltetutzat jendarte osoa agertzea operazio hegemonikoaren arrakastarako giltzetako bat dela. Hori egin ahal izateko eskaeren esanahien desplazamendu edo identifikazio bat eman beharko da. Horretarako *errazena* jendartearen osotasuna ordezkatzeko lukeen berezko kontzeptua aurkitzea litzateke, marxismo klasikoak langileriarengan edo proletalgoarengan proiektatu duenaren antzera. Baina orain arte ikusitakoari jarraituz, jendarte modernoaren berezko ezaugarria eskaeren aniztasuna denez, aurre-determinatutako ordezkatzeko prozesu hori ezinezkoa litzateke. Beraz, subjektu askatzailerik egongo bada hori politikoki eraiki beharko da, subjektu posizio ezberdinen eskaeren ekibalentziaren

bitartez. Ekibalentzia honetan eskaera partikular hauek izaera unibertsalizatzailea hartuko dute, posizio sozial ezberdinak bere inguruan artikulatuz. Eta aldi berean, unibertsaltasunak izaera partikularra hartu beharko du bere funtzioa betetzeko.

“Hay hegemonía sólo si la dicotomía universalidad/particularidad es superada; la universalidad sólo existe si se encarna -y subvierte- en una particularidad, pero ninguna particularidad puede, por otro lado, tornarse política si no se ha convertido en el locus de efectos universalizantes” (2003: 61).

Ikusten ari garen bezala, *ezinezko irudikapen* baten aurrean kokatzen ari gara, non unibertsalak eta partikularrak elkarri baztertu baina aldi berean elkarren beharra duten. Unibertsalak ezin izango du zuzenean bere burua agertu, partikularraren bitartez egin beharko du. Hala ere, kontutan hartu beharko da ere, unibertsalak bere burua partikularizatzean (hau da, zuzenean agertu ez baizik eta partikular horrengatik ordezkatzekoan), erabateko unibertsaltasun hori proiektatzeko dituen mugak agerian geldituko direla. Azken finean, operazio hegemonikoa egin ahal izateko, batak eta besteak, bere izaeratik zati bat utzi beharko dute bidean. Rodolphe Gaché-k nabarmendu bezala, unibertsalaren izaera postestrukturalista honek modernizazio garaian nagusitu zen unibertsaltasunaren izaerarekin zerikusi gutxi izango du, non funtsa ematen zion fundamentu esentziala (klasea, arraza, ...) deseraikiko den “ez-presentzia” bat nagusituz (Gaché, 2008: 48).

Zentzu honetan, hegemonia *izanik* ez duen (edo behintzat edukiz hustera joko duen) *izen* bati nagusitasuna emateko ariketa dela esan dezakegu; bi hauen arteko distantzia handitzeko saiakera; *adierazle* eta *esanahiaren* arteko lubakian sakonduko lukeena. Zentzu horretan baieztatu dezakegu:

- batetik, “sektore partikular batek ordezkatzeko duen ekibalentzien katea zenbat eta luzeagoa izan eta bere helburuak izen/adierazle batean zenbat eta gehiago transformatu, geroz eta lotura ahulagoak egongo dira izen hori eta bere esanahiaren artean, eta geroz eta gertuago egongo dira *adierazle hutsaren* estatusetik” (2003: 62);
- eta bestetik, partikular eta unibertsalaren arteko erabateko kointzidentzia ezinezkoa denez, beti geldituko da partikulartasun hondakin bat. Edota Rado Rihá-k esan bezala, “partikularitate batean kokatutako *unibertsal singular* batekin egingo dugu topo” (2008: 109).

Honek harreman unibertsal eta partikularren artikulaziorako hirugarren baldintza bat agerian utziko du:

“[La hegemonía] requiere la producción de *significantes tendencialmente vacíos* que, mientras mantienen la inconmesurabilidad entre lo universal y particulares, permite que los últimos tomen la representación del primero” (2003: 62).

Laclaren ustez eskaeraren esanahi zehatza mantentzea ez da beharrezkoa, baldin eta bere eduki zehatz eta esanahi ekibalenteen arteko lubakia irekita mantentzen bada. Hau da, partikular hori bere inguruan dauden esanahi ekibalenteen katea handitzeko gai den heinean. *Adierazle huts* hauen inguruan artikulatutako irudikapen kolektiboa sozialki lortu daitekeen unibertsalizazioaren azken lorpen posiblea litzateke. Bestelakoan jendartearen erabateko itxituraren edo barne adiskidetzearen akatsa errepikatzen egongo ginateke. Testuinguruaren arabera, eskaeren arteko ekibalentziak kontingenteak direnez, unibertsaltasun hau ez litzateke fundamentu itxi bat, horizonte edo zerumuga bat baizik (2003: 212).

Hori da hain zuzen ere, Laclaren aburuz, komunismoaren eta ongizate estatuaren erorketarekin batera, ezkerren baitan ematen den krisiaren jatorria. Hots, ezkerren irudikapen kolektiboan erreferente ziren bi horiek erortzearekin batera, irudikapen kolektibo berriak sortzeko gaitasun eza.

Eta arestian aipatutakoaren harira, artikulazio hegemoniarako laugarren baldintza *errepresentazioa* edo irudikapena bera litzateke. Errepresentaziorik gabe marxismo klasikoaren *erabateko askapenaren* edota barne adiskideturako jendartearen mitoa indartzen egongo ginateke.

Errepresentazioak izaera eratzaille izango du. Partikularra eta unibertsalaren arteko errepresentazioa erabatekoa balitz, *kontzeptuak* (esanahiak) erabateko lehentasuna izango luke *izenaren* (adierazlearen) gainean. Baina kasu horretan ez legoke hegemoniarik, sektore berriak artikulatzeko gaitasuna izango luketen *adierazle hutsik* ez legokeelako; kontzeptua eta izenaren arteko lotura erabatekoa litzatekeelako (2003: 63).

Partikular eta unibertsalaren arteko errepresentazio harremanak egungo politikaren berezko ezaugarria lirateke:

“Como el descentramiento de las estructuras de poder (*o representaciones*) tiende a aumentar, toda centralidad requiere que sus agentes estén constitutivamente sobredeterminados, es decir, que siempre representen algo más que su mera identidad particularista” (2003: 63).

Hortaz, unibertsala leku hutsa litzateke, partikularrarekin soilik bete daitekeen gabezia, baina bere hustasunaren bitartez harreman sozialen egituratzean funtsezko eraginak lortzen dituen.

Harreman eredu honek jendartearen eraikuntza ezaugarritzeaz gain, eragile sozialen nortasuna ere baldintzatzen du. Hain zuzen ere, postestrukturalismoaren korrante nagusiei jarraiki, “estrukturaren baitako gabezia, subjektuaren jatorrian” legoke. Zentzu horretan, subjektua lubaki estruktural horiek betetzeko saiakera litzateke. Horregatik, Laclauren ustez, nortasunez hitz egitea baino, egokiagoa litzateke identifikazioez aritzea, anbiguotasunari leku egiten dion kontzeptu bezala. Hurrengo atalean nortasunen eraikuntzaz sakonago arituko gara.

3.2. Nortasunen eraikuntza, ariketa populista gisa

3.2.1 Populismoaren kontzeptuaren jatorriak.

Populismoa, jendartearen esparru zabalen edo masa sozialen jarduera gisa, masen psikologiaren ikuspegitik aztertua izan da hamarkadetan zehar, askotan masen mespretxatze bati lotua egon delarik. Laclauk, *La razón populista* (2005) liburuaren lehenengo atalean bilakaera honen erreposoa egiten du, *masen iraintzeari* erreferentzia eginez. XIX. mendearen bukaeran Gustave Le Bon-ek *hitzek*, bere esanahitik harago, iradokitzen dituzten *irudien* garrantzia azpimarratuko du, hauek masen diskurtoen artikulaziorako sortzen dituzten *ilusioen* balioa nabarmenduz. *Hitza / irudia / ilusioa* hiruko honen gainean, norbanakoen pentsamendutik masen pentsamendurako igarobidea gauzatuko da, eta horrela, arrazionaltasunetik irrazionaltasunerakoa³⁹. Frantziar Iraultzaren ikerlaria izan zen H. A. Taine-k Le Bonen ikuspegi berdinari helduko dio, norbanakotik *jendeketara* (*turba*)

³⁹ Le Bon G. (2004), *Psicología de las multitudes*, Buenos Aires: Virtual.

bitarteko trantsizio horretan irrazionaltasunak lortzen duen nagusitasuna azpimarratzeko orduan, masen funtzionamenduaren iraintzean jauzi berri bat emanez⁴⁰.

Gabriel Tarde-k, aldiz, ñabardura batzuk txertatzen hasiko da masen ezaugarritze horretan. Tardek masen kontzeptua publikoaren kontzeptutik ezberdinduko du, lehenengoak norbanakoen bateratze fisiko bati erreferentzia egiten dion bitartean, bigarrenkoa “kolektibitate espiritual huts” batez ariko da, “zeinaren kohesio erabat mentala” izango den (Laclau, 2005: 66). Azken ideia hau, inprentaren eta prentsaren zabalpenari lotuta egongo da, ordura arte kolektibitateen artikulazioa presentzia fisikotik harago nekeza baitzen. Jendarte multzoen bereizketa honetan, William Mc Dougalhek *jendetza (multitud)* eta *antolaketa maila altua izango duen taldea* ezberdinduko du, lehenengoak emozioek gidatzen duten bitartean, bigarrengoak helburu zehatzen lorpenak (Mc Dougalh; 1920: 23). Berriro ere, irrazionaltasun eta arrazionaltasunaren arteko bereizketarekin egingo dugu topo. Baina Mc Dougalhek *eskaera edo helburu zehatzen lorpenaren* ideiarekin masen jarduna patologiararen eremutik urrundu izanak balio handia izango du hauen azterketaren gainean ondorenean emango den pentsamenduaren bilakaera ulertzeko; batez ere, Laclauk populismoaren artikulaziorako, eskaeren arteko ekibalentziaren ideia azaltzeko orduan.

Edozein kasutan, autore guztiongan masen irrazionaltasunaren aldagaiak pisu nabarmena izango du. Horrela, irudi eta eraikuntza lausoen bitartez masen sugestioan eragingo duen diskurtso egokia landuz gero, erraz manipulatu eta gidatu ahal izango diren ume txikiak bezala aurkeztuko zaizkigu. Garaiko masen psikologiaren ikerlarien eskutik, jendetza edo herriaren gainean aurreiritziz jositako ikuspegi iraintzaile honi, instituzionalizatutako egitura sozialaren ideia kontrajarriko zaio, gizarte zientzien aldetik prestigioa izango duen ikuspegi gisa.

Orain arte aipatutako autoreok, masen eskutik letorkeen *homogeneotasun sozial* eta banakotasunak bermatu dezakeen *ezberdintasun sozialen* arteko kate dikotomikoan mugitzen egongo lirakeke, Laclaren ustez, Freuden ekarpenaren eskutik paradigma hau aldatu arte. Izan ere, eskema dual hau *libidoaren* kontzeptuaren bitartez sortzen diren lotura emozional eta identifikazio prozesuen bitartez gaintzen saiatuko da, marko intelektual bateratu bat gorpuztu nahian. Horrela, masen artikulazioan, liderrarekiko (*ni ideala*) sortzen diren lotura afektiboak eta multzoko kide berdinen artean (*ni-ak*) sortzen diren identifikazioak ezberdinduko ditu, biak norbanakoen arteko homogeneotasun baldintzen sortzaile badira ere. Laclaren hitzetan, Freudek harreman eredu hauek demokratizatzerara joko du (2005: 84). Taldeko kideen arteko identifikazioa gauzatzen duena ez da

⁴⁰ Taine, H. A. (1986), *Los orígenes de la Francia contemporánea*, Barcelona: Orbis.

soilik liderrarekiko maitasuna, liderrak taldearen gainontzeko kideekin konpartitzen duen *zerbait* komuna baizik. Hortaz, norbanakoen eta liderraren arteko identifikazio maila bat egongo da. *Zerbait* edo *sustantzia* komun honek liderra, talde *aita/ama* bihurtzeaz gain, *anai/arreba* ere bilakatzen du. Hau da, liderra taldeko gainontzeko kideekiko berdintzen du, kide bakoitza ‘liderragoa’ eginez eta liderra ‘kideago’. Berdintze honek sistema anitzagoa egingo du, prozesu honetan ezberdintasun sozial edo alternatiba sozio-politikoen aniztasunak, lider bakarreko sistema autoritarioetan baino leku handiagoa izango duelarik. Hortik, Freudek masen psikologia demokratizatzeke egindako ahaleginaren aitortza.

Baina Laclauk Freuden lanetik egingo duen borondate oneko irakurketa honetaz gain, populismoaren aztergai diren masen jardueraren azterketari egindako bestelako hurbilpen gehienek deskribapen abegikorrik ez diote egingo. Lausotasun eta definizio faltari lotuta agertu ohi zaizkigu populismoaren ezaugarritze ezberdinak. “Ezberdinak” diogu, zehaztugabetasun honek populismoaren inguruko definizio bateratua nabarmenki zailtzen duelako. Margaret Canovanek populismoa “testuinguru ezberdinetan agertzen diren fenomenoek aldaera nahasgarri” bezala definituko du (1981: 5). Horrela lehenengo urteetan bere ahaleginak era guztietako fenomeno populisten sailkatze bat lantzean zentratuko ditu, berak nabarmendu nahi izango dituen ezaugarrien araberrako tipologia bat eratuz (nekazari populismoak, populismo politikoak, ...). Baina kasu gehienetan sailkapenaren atal bakoitzean sailkatutako fenomenoek artean ezaugarriak teilkatuko dira, bere balio teorikoa eta metodologikoa indargabetuz.

Teoria bateratu bat eraikitzearen ezintasun berdinarene gainean David Howarth-ek Wittgenstein-i “familia antzekotasunen” ideia mailegatuko dio gertakari populisten oinarritzko ezaugarrien bilduma bat osatu nahian. Bertan, fenomeno populistetan agertu ohi izan diren portaera komun batzuk zerrendatzen saiatuko da; horien artean, *herriaren* interpelazioa subjektu nagusi bezala, *behekoak* eta *stablishmentaren* arteko banaketa edo unibertsaltasunaren aldarrikapena nabarmenduko ditu (2009: 285) baina diskurtso populistaren eraikuntzaren logika sistematiko bat diseinatu gabe.

Ziur aski populismoaren inguruko anbiguotasun honen gainean eraikitako lanketa teoriko burutsuena Laclauk egindakoa izango da. Gabezia bertute bihurtuz, populismoaren adjektibazio gutxiesgarri nagusiak bere funtsezko ezaugarri bihurtuko ditu:

“Una de las posibles formas de abordar el populismo sería tomar en su sentido literal algunos de los calificativos peyorativos que se le han asignado y mostrar que ellos sólo

pueden mantenerse si uno acepta como punto de partida del análisis una serie de esos supuestos altamente cuestionables. Los dos presupuestos peyorativos a los cuales nos referimos son: (1) que el populismo es vago e indeterminado tanto en el público al que se dirige y en su discurso, como en sus postulados políticos; (2) que el populismo es mera retórica. Frente a esto opusimos una posibilidad diferente: (1) que la vaguedad y la indeterminación no constituyen defectos de un discurso sobre la realidad social, sino que, en ciertas circunstancias, están inscriptas en la realidad social como tal; (2) que la retórica no es algo epifenoménico respecto de una estructura conceptual autodefinida, ya que ninguna estructura conceptual encuentra su cohesión interna sin apelar a recursos retóricos” (2005: 91).

Azken ideia hauek hegemoniaren eraikuntzaren izaera diskurtsiboaren atalean aipatu dugun gertaera eta nortasun sozialen izaera kontingente eta eraikuntza diskurtsiboarekin lotuta leudeke. Hortaz, erretorika ez litzateke berezko existentzia duten gertaera edo nortasun sozialen periferian kokatuko litzatekeen zerbait, horien definizioan zerikusi zuzena lukeen funtsa baizik. Ideia honetatik, gutxienez, bi ondorio atera ahal izango ditugu. Lehenik, Laclauk aipatutako horrela balitz, populismoa *politikoaren* konstituzio ontologikoaren berezko ezaugarria litzateke⁴¹, eta ondorioz, arestian aipatutako lausotasuna, identifikazio prozesuen ezinbesteko baldintza. Eta bigarrenik, eta aurrekoarekin lotuta, populismoaren arreta gunea nagusia den *herriaren* eraikuntzaren alde diskurtsibo eta izaera *anti-esentzialista*.

Herria kontzeptuari emandako nagusitasunarekin jarraituz, Francisco Panizza populismoa herriaren eratze prozesua analizatzeko ikuspegi bezala hartuko du. Herriaren kontzeptuak irudikapen kolektiboan modernitatearen sorreratik gaur egun arte izan duen ibilbidearen errepaso egingo du. XIX. mendearen hasieran, boteretsuen aurrean “aho batez” aritzen zen zapalduetako alegiazko herritik hasi, eta mendearen bukaerak ekarri zuen industrializazio prozesuaren zabalpenarekin batera, jendartearen maila baxuenetan kokatzen zen herri xehearen ideia. Araututako hezkuntzarik eta eskubiderik gabeko sektore hauek hiri matxinada ezberdinen protagonista bezala bizitza politikora eragile aktibo bezala egin zuten salto. XX. mendean sistema demokratikoen orokortzearekin, herria burujabetasunaren edukitzaile nagusi bezala proiektatzen hasi zen; hori bai, egun, oraindik ere, populismoaren kontzeptuari egozten zaizkion ezaugarritze

⁴¹ Irudi lezake definizio honek *politikoaren* ezaugarritze erredukzionista batera eraman gaitzakeela, non politikoa populismoarekin parekatu beharko litzatekeen. Ez legoke sobera Oliver Marchartek (2009) *politikaz* eta *politikoaz* egiten duen bereizketa birgogoratzea, lehenengoaren izaera ontikoa eta bigarrenaren izaera ontologikoa nabarmenduz; kasu honetan bigarrenaz ariko ginatkeelarik.

iraingarrien ondorio diren, arrazionaltasunik gabeko jatorrizko izaera horren arrastoak bere gaineratik kendu gabe (2009: 29).

Baina Yannis Stavrakakis-ek baieztatu bezala “herriaz aritzea ez da nahikoa izango diskurtso bat populista dela justifikatzeko” (2009: 323). Populismoaren inguruan dagoen bateratasun teoriko ez-nahikoa aintzat hartuta, zeintzuk izan daitezke bere kontzeptualizazioa zehazteko oinarritzko ezaugarriak?

3.2.2 Populismoaren oinarritzko elementuak

3.2.2.1 Eskaera sozialak.

Arestian aipatutako ikuspegi anti-esentzialistaren harira, populismoa jada ez dugu eraturako talde baten ideologia edo mobilizazio eredu gisa hartuko, talde baten batasuna eratzeko bide gisa baizik. Laclairen ustez, herria, adierazpen ideologikoa baino, agente sozialen arteko harreman sistema izango da (2005: 97). Beraz, artikulazio populista baten muinean sakondu nahi badugu nortasun edo agente hauei forma ematen dieten unitate txikiagoetara jo beharko dugu: eskaera sozialetara, hain zuzen ere.

Hegemoniaren atalean eskaera baliokide eta diferentzialen arteko harremanaz aritu gara. Sistema batek eskaera hauetako batzuk barneratzera joko du beraien arteko diferentzia logika aplikatuz; kasu batzuetan, aldiz, sistemak eskaera horietako batzuk barneratzen ez dituenean, horien arteko baliokidetasun bat gorpuztera joko da. Barnera-ezintasun honen ondorioz, *eskaerak (demandas)* zirenak *aldarrikapen (reclamo)* bilakatzen joango dira, eta aseak egon edo ez, gainontzeko eskaeretatik bereizita mantentzen diren heinean eta indarrean den sistemaren hegemonia zalantzatan jartzen ez duten heinean, Laclairen hitzetan, *eskari demokratikoak* izango dira. Hori bai, sistemak geroz eta eskaera gehiago ez baditu barneratzen, beraien arteko ekibalentzia edo elkartasun bat sortzera joko dezakete, status quo-aren indar harremanak desorekatu dezaketen *eskari herrikoi* zabalagoak eratuz. *Herriaren* eraketa hasiberri baten aurrean kokatuko gara, aktore politiko gisa. Hortaz, eraikuntza populista batek eskatzen duen eskaeren ekibalentziaz gain, honen bigarren

ezaugarri bat identifikatzen egongo ginateke: *sistema* eta *herria* bereizten duen *muga antagonikoaren* ezarpena.

Horrela, eskaera hauen garapenaren muturreko bi diskurtso motekin aurkitu gaitzke: instituzionalista edota populista. Lehenengoan, eskaeren mugak jada ezarrita dagoen komunitatearen mugekin bat egingo du. Bigarrenengan, aldiz, sistemaren onargarritasunaren mugak gaindituz, jendarte antagonikoak diren bi eremuetan banatzeko ahalegina egingo da, eremu horietako batek berarekiko jendarte guztiaren osotasuna aldarrikatuko duelarik; *populusaren* (jendartearen osotasunaren) izaera aldarrikatzen duen *plebsa*, hain zuzen ere.

Eskaera hauen arteko identifikazioaren ondorioz, eskaera hauen eramaile diren agenteen nortasunak birdefinituko dira. Baina hartu-eman hauen ondorioz sortuko den nortasuna ez da aurreko eragileen nortasunen batura izango, nortasun berri baten sorreraz ari gara. Nortasun hauen eraketan *adierazle hutsek* berebiziko garrantzia izango dute. Honen inguruan artikulatuta, eskaeren ekibalentzien katea zenbat eta luzeago izan, eskaera bakoitzak bere jatorrizko esanahiarekiko geroz eta lotura txikiagoa izango du; hau da, unibertsaltasuna proiektatzeko beharra eskaeraren partikularitasunari nagusituko zaio. Artikulazioa geroz eta zabalagoa izango da, baina eduki aldetik geroz eta ahulagoa.

Prozesu hau Lacanek aipatutako esanahi eta adierazlearen arteko bereizketa prozesuaren ondorioa izango da. Gertakari sozialen azterketan bi aldagai hauen arteko lotura nabarmentzen zuen joera *deskriptibistetatik*, egungo joera *anti-deskriptibistik* nagusitzeko bilakaera ikusi dezakegu. Objektu baten ezaugarri aldakorrek objektu horren esanahiari eragiten dizkion etengabeko aldaketen aurrean, adierazlea bera izango litzateke objektu hori *objektu* egiten duena, kohesioa ematen diona, hain zuzen ere. Izendatzearen atzeraeraginezko efektuak berak objektuari nortasuna eta batasuna emango lioke. Hau Zizeken *point de capiton* edo Lacanen *a* objektua litzateke. Zizekentzat objektuak berak ez luke inongo “egonkortasun positiborik, *hutsa* objektibo bihurtzeko ekimena litzateke” (Zizek; 1992: 94-95).

Psikoanalisian eta postestrukturalismoan errotzen diren aldagai hauek nortasun popularren eraikuntza prozesura hurbiltzeko Laclauk lau ideia nabarmenduko ditu. Lehenik, puntu nodal edo *point de capiton* eta diskurtsoaren gainontzeko aldagaien arteko harremanari dagokio; izan ere, funtzio artikulatzailea beteko duen puntu nodala gabe, gainontzeko ekibalentzia demokratikoak nortasun berri bat osatzeari begira eraginik izango ez luketen eskaera isolatu bezala proiektatuko lirateke. Bigarrenik, jada aztertu dugun unibertsaltasun eta partikularitasunak puntu nodalarekin

izango duen harremanari dagokio. Puntu honek unibertsaltasuna adierazi behar badu, unibertsaltasun honek zer adieraziko du: osotasuna ala hustasuna? Zizekek bigarrenaren alde egingo du; Laclau, aldiz, irudika-ezina den puntu batez ariko da baina moduren batean adierazi behar dena⁴² (2005: 136). Gorago aipatu dugun bezala, unibertsal honek bere burua kanpora begira irudikatze edo proiektatzeko partikularraren beharra izango du, puntu partikular hauetako bat pribilegiatuz puntu nodal bilakatuko delarik. Hirugarrenik, herriaren eraikuntzari lotutako unibertsal eta partikularraren arteko artikulazio honek, maila diskurtsiboan ez ezik, maila praktikoa ere eragina izango du; horien artean, Estatuaren konfigurazioan eragin behar duen desplazamendu hegemonikoan. Eta laugarrenik, *izendatzearen (nominación)* aldagaia izango genuke. Sistemarentzat barnera-ezinak diren eskaeren artean ekibalentzia sortzeko egongo den joera aipatu dugu⁴³. Alde horretatik, ekibalentzien multzo honi izena ematen zaionean, izen honek “asegabeko eskaera bezala bizia izan den eskaerekiko eutsi ezinezko erakargarritasun bat eragingo du” (2005: 140). Izendatze honek, edukiz hustutako partikular ezberdinen identifikazio prozesua gauzatzen duen heinean, *inbestitze erradikala* gauzatuko da. Baina zergatik elementu batzuk inbestidura honetarako gaitasuna erakutsiko dute eta beste batzuk ez?

3.2.2.2 Lidergoaren dimentsio afektiboa.

Inbestitzeak *afektuaren* dimentsioarekin lotura izango luke. Honen azalpenerako Freud eta Lacanen tresneria psikoanalitiko beharrezkoa izango zaigu. Izan ere, *Errealak* ordezkaturiko lukeen barne adiskidetutako osotasuna, eremu *sinbolikoan* proiektatzerakoan dislokatzen den bezala, *a* objektuekiko (edo pultsioa sortzen duen eskaera partikularrekiko) egiten den osotasun proiektzioa, gauzatu ezin den erabateko unibertsaltasunaren isla izango da. Hortaz, partikular horrekiko lotura afektiboak sortuko dira, eskura ezina den osotasuna/unibertsala irudikatze tresna bezala irudikatzen den heinean.

Panizzak, osotasun hau irudikatzearen eginkizuna, liderrak bete behar duen paperarekin lotzen du. Horrela, liderrari atxiki ohi zaion izaera karismatikoa ordezkaturik berarekiko sentituko duten lotura

⁴² Ezberdintasun hau azaltzeko 0 zenbakiari erreferentzia egin diezaiokegu. Honek zenbaki/kopuru gabeziari egingo lioke erreferentzia, baina gabezia hori behin nominalizatua zenbaki batean bihurtzen da.

⁴³ Laclauk berak sistematik kanpo kokaturiko diren eskaera guztien artean ekibalentzia automatikoa ez dela emango ohartarazten digu. Izan ere, beraien artean adiera kontrajarriak izango dituztenak ere egon daitezkeelako. “Una demanda puede no ser incorporada a la cadena equivalencial porque se opone a los objetivos particulares de demandas que ya son eslabones de esa cadena” (2005: 175).

afektiboaren isla izango da. Panizzaren hitzetan, “populismoa, herriaren izena atzeraeraginezko ikuspegi batetik zehazten duen prozesua bada, identifikazio prozesuaren hutsune sinbolikoak hobekien betetzen duena liderraren izena bera izango da” (2005: 35). Liderrak herriaren eraikuntza prozesuan funtzio sinbolikoa izango du, honek eskatzen duen atxikimendu emozional eta irrazional guztiekin. Bertan ordezkari eta ordezkatuaren arteko harremanaren konplexutasun osoa agerian geldituko zaigu. Izan ere, prozesu hauetan, liderrak ordezkatuaren borondatea ordezkatu du edota ordezkatuaren borondatea liderraren nahien isla izango da?

Galdera honek demokraziaren funtza ukituko du. Ildo honetan, Davide Tarizzok (2015) eztabaida interesgarria planteatuko du Luciano Canfora (2004, 2009) eta Arthur Schlesinger Jr.-ren (1991) ikuspegi ezberdinei helduta. Laburbilduz, Canforak demokraziaren beraren existentzia ukatuko luke; Gramsciren postulatuei helduta, botere politikoa gutxi batzuk beste askoren gainean duten dominaziorako gaitasuna bezala ulertuz. Zentzu honetan, politika (eta demokrazia bera) eliteen arteko hartu-emanetara mugatuko litzatekeen jarduna litzateke. Schilengerren arabera, aldiz, lidergo eraginkorrik gabe demokrazia kolokan legoke. Esan gabe doa, honek ez duela esan nahi lidergo guztiak demokratikoak direnik; Schilengerren planteamendua, “demokraziaren teoria klasiko” bezala izendatzen dituen tendentziak, arrazoi “doktrinario” eta “emozionalengatik” lidergoen kontra erakutsitako jarreraren aurreko erreakzio bezala ulertu daiteke. Bere ustez “funtsezko afera ez litzateke gobernatzen duten eliteen existentzia, beraien izaera baizik” (1991: 594-595). Gure aldetik Canforak planteatzen duen demokraziaren existentzia ezaren hipotesia errefusatuta, baina politikan eta demokrazian liderrek jokatzen duten rola garrantziaren ideia mantenduta, ika-mika honek arestian planteatutako galderara itzularazten gaitu: liderrek ordezkatuaren borondatearen konfigurazioan paper erabakigarria jokatuko dute ala beraien ordezkatuaren nahiak ordezkatzera mugatuko dira? Tarizzoren ustez, Laclaren ekarpena dilema hau gainditzeko saiakera bezala ulertu behar da (2015: 40).


Laclauk, askotan era dikotomikoan planteatutako dilema honen gaineko bestelako ikuspegia izango du. Liderrak sektore sozial baten interesak ordezkatu behar baditu ere, sektore horretatik harago egongo diren jendarte multzoen babesa ere lortu beharko du, sektore horien interesekiko identifikazioa lortuz; hau da, sektore zehatz horren interesak gauzatuz besteen interesak ere aseko direnaren uste emozionala lortu beharko du. Horregatik, askotan horrelako prozesuetan lehenengo ordezkatu eta liderraren arteko “oinarrizko identifikazio prozesuak” gauzatu beharko dira, ordezkariak ordezkatuareta emango den inbestitze prozesuaren bitartez; ondoren; “erabaki edo

aukeraketa partikularrak” emango direlarik (Laclau; 2005: 200-203)⁴⁴. Zentzu honetan, Tarizzoren arabera, egungo jendarte demokratikoetan ematen den elementuen konplejizazio eta aniztasunagatik, nortasunen eraikuntzarako ordezkari edo liderren papera geroz nabarmenagoa izango da (2015: 47).

3.2.2.3 Adierazle hutsa eta adierazle flotagarria.

Hegemonia berriaren eraikuntzan sistemarekiko antagonikoa izango den kate baliokidearen beharraz hitz egin dugu. Era grafiko batean azaltzeko, lehenengo irudian eskaera ekibalentzial ezberdinak izango genituzke (D_1 , D_2 , D_3 , D_4 , ...). Ekibalentzia honek eskaerei egonkortasun eta sendotasuna emango die baina aldi berean beraien autonomia mugatu egingo du, osotasuna adierazten duen kate baten parametro estrategikoen baitan aritu behar direlako. Katea soilik autonomia eta menpekotasunaren arteko tentsio honetan bizi ahal izango da; hori ezean desegingo da. Lehenengoaren alde desorekatzen bada, diferentzien logika hutsean murgilduko litzateke, ekibalentzia logika herrikoa alde batera utziz. Menpekotasunaren alde desorekatzen bada, aldiz, eraginkortasunik izan ez dezakeen eta eskaera demokratikoak artikulatzeko baliorik izango ez duen sistema batean bilakatuko litzateke. Honekin batera, irudi honetan eskaera partikula batek adierazle hutsaren funtzio beteko du (D_1), kate ekibalentzialari zentzua emanez eta Z-rekiko antagonismoaren muga marraztuz.

⁴⁴ Oinarrizko identifikazio prozesuaren lehenetsun kronologiko hau, batez ere, eraikuntza ahula duten nortasunen kasuetan emango da. Adibidez: eskaera konkretu bat(zuen) inguruan artikulatzen diren lobbyak ez bezala, sistema sozialen hertzetan kokatzen diren baztertutako sektore sozialen eskaerak erabat lausoak edo zehaztugabeak izan daitezke. Jarraian aztertuko dugun heterogeneitate sozialaren aldagaiarekin ikusiko dugun bezala, azken hauek herri nortasun baten eraikuntzarako bigarren mailako balioa izan dezaket bezala, momenturen batean, oinarrizko identifikazio prozesuaren aktibo nagusia bilakatu daitezke. Nola? Beraien eskaeren lausotasuna dela eta liderrarekiko oinarrizko identifikazioak beraien nahimen zehaztugabeak baino pisu handiago izan dezaketelako; behin oinarrizko identifikazio hauek emanda, horren gainean eskaera zehatzak eraikitzen joango direlarik.



3.3 irudia: 'Unibertsaltasuna eraikitzen' (Laclau, 2005: 164).

Eskema honek, ordea, sinplifikazio bat badarama bere baitan; izan ere, honen arabera barne muga beti egonkor mantenduko litzateke, oso errealista ez den egoera bat aurreikusiz. Baina zer gertatuko litzateke sistemak kate baliokide horretako eskaera popular baten adierazlea bereganatzen saiatu balitz esanahi ezberdineko baina adierazle berdineko katebegi alternatibo bat sortuz? Apuntatzen hasi garen bezala, horrelako gertaerak joera antideskriptiboak nagusitzearen eskutik ematen den esanahi eta adierazlearen arteko banaketaren ondorioa litzateke. Ekibalentziaren logikaren sorreran elementu zehatzek beste eskaeretik sintonia edota elkartasun bat lortzeko bere esanahiaren zati bat galduko dutela ere aipatu dugu. Adierazlea nagusitzen den “eduki huste” prozesu honetan, sistemak berak adierazle hori bereganatzeko saiakera egingo du, bestelako esanahi batez jantzi nahi izango duelarik. Baina sistemak hegemonia berri bat sortu nahi duen eskaera popular baliokidearen adina indar izango duen posizioa lortu nahi badu, bere kate baliokidea sortzerakoan eskaera bakoitzaren berezitasuna ahultzera ere jo beharko du. Horrela muga antagonikoaren alde batetik bestera flotatzen egongo den adierazleekin topo egin ahal izango dugu. Egoera honetan, adierazle berberak (D_1) bi kate ekibalentzial edo egitasmo hegemonikoen presio estrukturala jasoko luke, lehia horren arabera argituko delarik adierazlearen esanahia zein den. Bitartean, eskaera horrek “zalantzakor” flotatzen jarraituko du. Dimentsio flotagarri hau krisi organiko garaietan agerikoagoa egingo da, sistema sinbolikoak erreforma erradikala eskatzen duen heinean. Zentzu honetan, adierazle hutsak eta flotagarriak logika populista bidezko eraikuntza hegemonikorako ezinbesteko osagaiak izango dira.

“Las dos (categorías -significantes vacíos y flotantes-) son operaciones hegemónicas y, lo más importante, los referentes se superponen. Una situación en la cual sólo la categoría de significativo fuera relevante, con exclusión total del momento flotante, sería una situación en la cual habría una frontera completamente inmóvil, algo difícil de imaginar. Inversamente, un universo puramente psíquico en el que tuvieramos un flotamiento puro sin

ninguna fijación parcial, es también impensable. Por lo tanto, significantes vacíos y flotantes deben ser concebidos como dimensiones parciales [...] en cualquier proceso de construcción de la hegemonía del pueblo” (Laclau; 2005: 168).

Bakea, demokrazia edota justizia gure ingurune hurbileko sistema demokratikoetan ohiko adierazle flotagarriak dira, non alde bakoitzaren muga antagonikoan kokatzen diren indarrek adierazle hauek bere logika baliokideetan kateatu nahi izango dituzten.

3.2.2.4 Heterogeneitate soziala.

Beraz, diskurtso populistaren bitartez hegemonia berri bat eraikitzeke bi aldaera hauek ezinbestekoak izango dira. Kate baliokide hauetatik kanpo geldituko diren eskaerak egongo direla aurreikustea ere ezinbestekoa izango den bezala. Baina kanpo uzte honek ez du muga antagoniko bat sortzeak ekarri dezakeen kanpokotasunarekin zerikusirik. Jarraian azaldu nahi dugun kanpokotasunak izaera erradikalagoa izango du. Antagonismoak maila bateko bateratze diskurtsiboa edo konpartitutako marko kontzeptuala aurreikusten duen bitartean, orain azaldu nahi dugunak ez dio soilik irudikapen esparru baten barnean nagusi den ikuskeratik aparte egongo litzatekeen zerbaiti erreferentzia egiten, baizik irudikapen esparru horretatik kanpo ere dagoen zerbaitez ariko ginateke; *heterogeneitate sozialaz*, hain zuzen ere (2005: 176).

Ezberdina izan ahal izateko irudikapenerako espazio komun bat behar den heinean, *heterogeneitateak* ez du ezberdintasun soila irudikatzen; hau da, espazio komun horren barruan dauden posizio ezberdinak. Kontzeptu honek *heterogeneoa* bilduko lukeen espazio komun horren gabezia suposatzen du. Egoera honi aurre egiteko bi aterabide posible izango ditugu: heterogeneitate honen existentziari uko eginez, itxitako espazio politikoaren kontzeptuari eustea; ala itxitura honen ideia eta erabateko ordezkartzarako gaitasuna errefusatzea.

Marxismo tradizionalak lehenengoari eutsiko dio, azkeneko helmugan kokatuko litzatekeen barne adiskidetutako jendarte komunistari erreferentzia eginez. Marxek langileriaren askapen prozesuaren logikatik kanpo lumpen proletalgora uztea, Hegelek aipatutako “historiarik gabeko herriak” edota Gramscik XX. mendearen lehenengo erdialdean prozesu sozialak garatzeko proletalgoaz harago zeuden sektoreekin izan beharreko hartu-emanen aurka azaldutako jarrerak heterogeneitate

sozialaren eztabaidarekin lotuta egongo dira. Alde horretatik, marko teorikoaren hasieran aipatu dugun bezala, ikuspegi hertsia hau marxismo tradizionalaren krisiaren erdigunean kokatuko da.

Marxismo tradizionalak aintzat hartu ez zuena *kanpo* egote honek arestian aipatutako espazio komun horrekiko jada harreman maila bat adierazten duela izango da. Definitutako espazio sozialaren mugen aldakortasuna aintzat hartuta, soberakin edo heterogeinetate sozial hori eraikuntza hegemoniko berrietarako lehengaia eskaini dezakeelarik.

3.2.3 Populismoa sistema demokratikoetan.

Hurrengo atalean Chantal Moufferen pentsamenduan sakonduko badugu ere, bere lanak populismoak sistema demokratikoetan duen garapena ulertzeko oinarri bat jarriko dio. Bere azken urteotako jardunaren zati handi bat eskuineko populismoek egungo mendebaldeko demokrazietan suposatzen duten arriskuen azterketan zentratu du. Honek ez du esan nahi bere postulatuen oinarrietan egun mendebaldeko herrialde gehienetan indarrean dauden demokrazia liberalen defentsa dagoenik. Haatik, bere ustez, demokrazia liberal hauen krisia izango da horrelako fenomenoek bide emango dienak. Izan ere, hamarkadetako bilakaeraren ondorioz, demokrazia eta liberalismoa parekatzera jo izan baita; lehenengoak ordezkatzeko dituen burujabetasun eta ongizate komunaren balioen ginetik, norbanakoen eskubideei eta askatasunari lotutako bigarrenagoa nagusitu delarik. Politikaren jarduna bi aldagai hauen arteko gairi-erantzuko tentsioaren kudeaketa agonistikoan zentratu beharrean, politikaren dimentsio gatazkatsua alde batera utzi da, erabaki tekniko “inpartzialak” lehenesten duen adostasunezko demokrazia despolitizatu nagusituz. Moufferentzat erabaki hau bereziki mingarria izan da mendebaldeko alderdi sozialdemokrata nagusiek “Hirugarren Bidea” deitua izan denaren aldeko hautuarekin, non “etsairik gabeko politikan” dimentsio antagonikoa desagertu egiten den. Fenomeno hau antagonismoa errefusatzeak sortu ohi dituen pasioen laidotzeari lotuta agertuko zaigu. Moufferen ustez, antagonismoa eta pasioak jardun politikoaren funtzionamendutik kanpo uztea, demokrazia liberalen krisien jatorrian kokatzen da (2000: 109).

Egungo sistema demokratikoek bi aldagai hauek barneratzeko erakusten duten ezintasuna krisi egoeretan bereziki arriskutsua izango da. Izan ere, adostasunezko oinarria izango duen diskurtso hegemonikoaren aurrean bestelako aukerarik ez dagoenaren irudikapena nagusitzean, populismoek

beharrezkoa duten haztegia aurkituko dute. Ikusi dugun bezala, sistemarentzat barnera-ezinak diren eskaerak ugaltzen direnean, eskaera indibidualak baino, eskaeren arteko ekibalentzia bat gorpuztera joko da (sistemarentzat barnera-ezinak diren neurrian), eskaera horien eramaileak diren agenteen arteko nortasun(en) eraikuntza prozesuari bide emanez. Orduan, diskurtso populistaren makinaria guztia martxan jarriko da. Egoera hauetan, diskurtsoak populistak aurretik ezarriak ziren zedarritze politikoak (ezker/eskuin, ...) gainditzera joko du, espazio politikoa *behean* eta *goian* edota *herria* eta *establishmenta* banatuko duen muga berria ezarriz⁴⁵.

Lowndesek ohartarazi bezala, bilakaera honek ez du inongo determinismo historikorekin zerikusirik izango. Esan nahi baita, edozein nortasun berriren eraikuntzak ez du indarrean dagoen sen ona automatikoki ordezkatzeko; diskurtso populista bidezko artikulazio hegemoniko batek “aurretik indarrean zeuden identifikazio zaharrei eta gertakari berriei arreta” jarri beharko die arrakastaz gauzatu nahi bada (2009: 207).

Mouffek sistema demokratikoetan populismoak izan dezakeen garapenari abiapuntu bat jarrita, Benjamin Arditik populismoa eta demokraziaren arteko harremanean sortu ohi diren ikuspegien tipologiari helduko diogu. *El populismo como periferia interna de la democracia* (2009) lanean bien arteko harreman motak sailkatzeko oinarritzko hiru eredu planteatuko ditu. Lehenengoak populismoa *ordezkaritza sistema* bezala ulertuko du. Bertan, Bernard Manin-en sistema demokratikoen bilakaeraren azterketa baliatuta⁴⁶, 1970tik hona garatu diren *audientzien demokraziak* deitutakoak erreferentzia gisa hartuko ditu. Izendapen hau, komunikabideek gobernurako hautagaien hautaketa prozesuetan duten eraginaren ondorioz emango dio. Bertan, ekintzaile eta militante politikoak bigarren maila batean geldituko dira, jendartearen iritzi egoerak aztertu eta marketin politikoan adituak diren profesionalen mesedetan. Ikuspegi honen arabera jada hausnarketa politiko sakon eta mamitsuak ez dira politikagintzaren ardatz izango; ohiko ekintza politikoa jendartearen eremu zabaletara sarbide erreza duten mezu sinpleengatik ordezkaturia izango da. Bertan alderdiek, prozesu politikoaren motor gisa, indarra galduko dute eta liderraren irudiak garrantzia hartuko du. Prozesu politikoaren sinplifikazio honek bere alde positiboak ere izango ditu. Izan ere, hautatzaile-hautatu ordezkaritza harremana aldaraziko du; bigarrenagoa lehenengoekin era hurbilago batean harremanetan jarri ahal izango da, alderdien bitartekaritza ahulduz (2009: 115).

⁴⁵ Banaketa berrien inguruko baieztapen hau populismoaren azterketan jardun duten aztertzaile nagusien artean errepikakorra da. Horien artean Joseph Lowndes (“De la violencia fundacional a la hegemonía política: el populismo conservador de George Wallace”, *El populismo como espejo de la democracia* -2005- 235. orrialdea) edota Chantal Mouffe bera bere lan osoan zehar.

⁴⁶ *The Principles of Representative Government*, Cambridge, 1997, pp. 196-197; Panizzaren (2005) konpilaziotik aterata.

Horrekin batera, azken hamarkadetan eman den erabaki politikoaren esparruen zabalpenak, politikaren pertsonalizazio ereduak indartuko luke. Izan ere, liderraren funtzioa betetzen duen pertsonak, alderdiaren tarteko egiturak ahulduta, zuzeneko erabakiak hartzeko gaitasuna izateak politikagintzaren azkartasuna errazten baitu. Harremanen ustezko berehalakotasun hau populismoak berezko duen herriarekiko hartu-eman zuzenari kobertura emango lioke. Alde horretatik, audientzien demokrazien eredu honetan populismoak jendartearen borondatearen ordezkariaren sistemaren rola hartuko luke.

Ardittiren bigarren modeloak populismoa demokraziaren *sintoma* gisa aurkeztuko luke. Lehenengo ereduak, demokrazia bera aldatzeko, populismoa demokraziaren barruan kokatzen bazuen, bigarrenengo honek demokraziaren mugetan kokatu du. Instituzionalizatutako jardunetik instituzioen jardunaren hertzetarako mugimendua egitera goaz. Honen azalpenerako Ardittik tresneria psikoanalitiko baliatuko du, populismoa demokrazietan *erreprimetutako hori* bezala ulertuz (2009: 119). Baina zer izango litzateke erreprimetutako gaia? Freudek psikoanalisian aztertu bezala errepresio hauek porrot baten sintomak baino ez lirateke izango, kasu honetan, demokraziaren porrotarena.

“Como síntoma de la democracia, el populismo funciona como un elemento paradójico que pertenece a la democracia por compartir con ella los rasgos típicos de la participación, la movilización, la expresión informal de la voluntad popular, etc. y, al mismo tiempo, *interrumpe su cierre como un orden político normalizado o domesticado* al pasar por alto procedimientos establecidos, relaciones institucionales y rituales reconfortantes” (2009: 122).

Hortaz, demokrazia barne adiskidetutako sistema itxi bezala proiektatzeko porrotaz hitz egiten ari gara. Adiera honen arabera, populismoa sistema demokratikoen mugetan dantzan egongo den logika izango da: arau demokratikoak ez baliatzearen aldera erortzen bada, joera autoritarioen esparruan murgildu daitekeena; baina beste aldera desorekatuz gero, lehenengo ereduaren instituzionalizazio hutsera kondenatua izan daitekeena. Eta aldi berean, populismoak ere demokraziaren muga hauek birdefinituko ditu; bere bilakaeraren arabera demokraziaren joko zelaia sektore berrien parte hartzearekin zabalduz edota gutxieneko demokratikoak errespetatzen ez duten funtzionatzeko formekin murriztuz.

Ardittik *mugen* ideia honi helduko dio populismoa demokrazien berezko ezaugarri gisa definitzeko. Izan ere, bere ohiko jokamoldeak (mobilizazioa, muga antagonikoen ezarpena, ...) demokrazia formaletan instituzionalizatutako oinarritzko arauetikiko ezberdinak izango badira ere, parte hartze politikoa zabaltzen duen heinean joko arau demokratikoetan baitan kokatu ditzakegu. Zentzu honetan, demokrazia eta populismoaren arteko harremana azaltzerakoan bigarrenak lehenengoarekiko duen *barnekotasun arrotz* batez hitz egin edo *demokraziaren periferia iskanbilatsutzat* hartu ahal izango dugu (2009:120).

Demokraziaren funtzionamenduan salbuespenezko eremu hau ez litzateke sistema demokratikoen akatsa, berezko ezaugarri baizik. Marchartek (2009) *politikoa* eta *politikaren* ezberdintzeari jarraiki, politika *une politikoa* egonkortzeko saiakera gisa ulertu dezakegu. Alde horretatik, populismoa, egonkortasun hau hausteko berezko joera gisa (eta ondorioz, *politikoaren* bir-definiziorako elementu gisa), *politikoaren* maila ontologikoarekin lotura luke.

Baina sistema demokratikoen normalizazioaren etengabeko haustura honek bere arriskuak ere izango ditu. Ardittik horietaz ohartu nahi izango digu bere tipologiaren hirugarren ereduarekin: populismoa demokraziaren *atzealde* bezala definituz, hain zuzen ere. Horretarako Claude Leforten ekarpen teorikoa baliatuko du. Autore frantziar honen arabera, demokrazia aitzinako erregimenetan erregeak ordezkatzeko boterearen "ziurtasun markagailuen disoluzio" bezala ulertu beharko da (1988: 217). Hau da, Antzinako Erregimenean boterearen errepresentazio grafikoa Erregearen figurarengan ematen bazen, sistema demokratikoetan boterearen errepresentazioa *hutsik* agertzen zaigun espazio bezala agertuko zaigu. Markagailu hauek urtzearekin batera, edozein praktika sozialaren ondorioz suertatzen diren gatazken konponbiderako demokrazia marko kontzeptual ez-nahiko gisa proiektatzen bada, sistema demokratikoetatik kanpo kokatu daitezkeen joera totalitarioak areagotzeko arriskua nabarmen haziko da; batez ere garai gatazkatsuetan. Arrisku honek korrante autoritario ezberdinek behin eta berriro aldarrikatu duten "barne adiskidetutako herriaren" ilusioarekin lotura zuzena izango luke, beraien burua betiereko kontsentsu horren bermatzaile gisa proiektatu nahi izango dutelarik. Horregatik, populismoa sistema demokratikoetan beti presente egongo den arriskuaren *itzala* bezalakoa izango da. Demokraziaren ibarrak zabaldu ditzakeenak, baina aldi berean joera autoritario edota totalitarismoaren bidezidorretan barrena eramanez gaitzakeena.

Laclauk ere, populismoa eta demokraziaren arteko harremana azaltzeko, Ardittik lehenetsiko duen bigarren ereduaren *mugen* ideiarekin helduko dio, baina beste ikuspegi batetik. Laclauk Andreas

Schedlerrek⁴⁷ sistema demokratikoen osagaiez egiten duen sailkapena abiapuntu bezala hartuko du. Sistema hauetan egongo diren agente politiko nagusiei dagokionez, batetik, boterean egongo liratekeen alderdi politikoak leudeke; bigarrenik, oposizio demokratiko bat, marko instituzionalaren barruan boterea eskuratu nahi duena; hirugarrenik, indarrean dauden joko arauak errefusatzeko dituzten alderdi anti-instituzionalak; eta azkenik, mugimendu populistak, Ardittik ezaugarritu bezala, erregimen instituzionalen mugetan, boterean dauden agintariak edota sistema bera salatzen dutenak. Laclauk eredu honek islatzen duen “ondo ezarritako arau sistemaren” ustearen gabezia nabarmenduko du, populismoak ezartzen duen indar harremanen ezegonkortasuna aldarrikatuz.

“El populismo se presenta a sí mismo como subversivo del estado de cosas existente y también como el punto de partida de una reconstrucción más o menos radical de un nuevo orden una vez que el anterior se ha debilitado” (2005: 221).

Definizio honen arabera populismoa demokraziaren muga kontingenteak aldarazten duen logika litzateke. Ariketa populista arrakastaz gauzatzeko sistema instituzionalak maila bateko haustura izan beharko du. Hortaz, erabat egonkortutako sistema instituzionalaren egoera alde batera utzita, populismoa, maila bateko birmoldaketa behar duen eta, zentzu gramsciarrean, “krisi organiko” egoera baten artean kokatzen diren sistemetan garatu beharko delarik.

3.2.4 Ondorioak.

Azken hogeita hamar urteotan hegemoniaren kategoria ezin dugu Ernesto Laclaren pentsamendutik kanpo ulertu. Sobietar Iraultzan boltxebikeek asmatutako *gegemoniya*-ren jatorrizko kontzeptua Gramscik XX. mendearen hasieran berreskuratu eta lehenengo sakontze bat garatu zuenetik, mendearen bukaeran Laclauk kategoria ber-hartu, eta besteak beste, postestrukturalismoak utzitako ondarearekin berreraiki zuenera arte, hegemoniaren kategoriak bilakaera oso bat izan du. Ezkerrak modernitatetik hona jendartearen emantzipazio sozial eta politikorako egin duen ibilbidearekin era paraleloan garatzen joan dena.

⁴⁷ Andreas Schedler, “Anti-political establishment parties”, *Party Politics*-en, 2. bolumena, 3. zenbakia, 1996, 291-312 orrialdeak *La razón populista*tik aterata.

Hegemoniaren bilakaera honetan, David Howarth-ek Laclaren pentsamenduaren baitan hiru hegemonia eredu ezberdinduko ditu (2008: 320-325): lehenengo ereduak, Althusserren pentsamendua abiapuntu bezala hartuta, 70. hamarkadan zehar politika eta ideologiaren inguruan marxismoak zituen ohiko pentsaera deseraikitzaera jo zuen; horretarako, “oinarrizko klase sozialen” kategoria ez du zalantzetan jarriko; bai, aldiz, marxismoaren joera ortodoxoenak “herria” edo “nazioa” bezalako kontzeptuek “ezinbesteko klase parte hartzea” dutenaren ustea kritikatu. Arestian aipatutako kontzeptuak elkarrekin lehian dauden egitasmo hegemonikoengandik era kontingentean barneratuak izan daitezkeen ideia bezala ulertuko dituzte eta ez, marxismo tradizionalak egin izan zuen bezala, bigarren mailako kontzeptu gisa⁴⁸.

Laurogeigarren hamarkadan garatutako bigarren aroan, aldiz, mendearen erdialdeak utzitako pentsamendu frantziarraren lengoaiaren eta gizartearen adiera berrien ondarea berreskuratuz, nortasun eta subjektu politiko guztiak kontingenteak eta negoziagarriak izango direla azpimarratuko du (*Hegemonía y estrategia socialista*, 1985). Harreman sozialen izaera ireki honek diskurtso bidezko praktika artikulatzaile eta subjektibitate politiko berrien agerpenari ateak parez pare ireki zien; edo nahiago bada, kapitalismoaren garapenaren ondorioz jada ematen ari zen jendartearen aniztasunagatik, marxismoari estrategia politikoa eraginkortzeko bidea eman zion. Baumanek (1999) aipatuko lukeen jendartearen *izaera likido* honetan, Laclaren eginkizun nagusietako bat subjektibitate politiko berri hauei ainguraleku ez-egonkor bat emango lieketen tresneria kontzeptuala eraikitzean kokatuko da: puntu nodal edo *point de capiton* bitartez, ekibalentzia eta diferentzien jokoen bidez, muga antagoniko edota bestelako kategoriak birplanteatuz; harreman sozialen izaera kontingenteak heldu-leku finko edo nortasun esentzialak indargabetzen dituela abiapuntu bezala kokatuz.

90. hamarkadan, berriz, nagusiki Zizekek subjektibitateen teoria honi egindako kritiken ondorioz, Lacanen teoria psikoanalitikoetan sakonduko du. Berlingo harresiaren erorketa eta gero ezkeraren baitan ematen ari zen disgregazioaren ondorioz, Laclaren pentsamendua demokrazia liberaletan garatu beharreko lerro *agonista* (Moufferekin batera) eta balio unibertsalaren inguruan eman beharreko artikulazioei begira norabidetu zen. Hegemoniaren mugen atalean sakonduko badugu ere, Zizeken kritika lerro nagusia, *subjektibitateak* diskurtsoaren baitan kokatzean *subjektibitate posizio* soiletan bilakatuko lituzkeenaren ideian zentratuko da, antagonismoaren izaera erradikala

⁴⁸ Laclaren pentsamenduaren lehenengo fase honi ez diogu apenas arretarik jarri ikerketa proiektu honetan, *Hegemonía y estrategia socialista*-rekin (1985) inauguratuko lukeen bigarren aroan finkatutako oinarrizko kontzeptuetan kokatuz. Edozein kasutan, bere pentsamenduaren lehenengo aro honen muina *Política e ideología en la teoría marxista. Capitalismo, fascismo, populismo* (1978) lanean aurkitu dezakegu.

indargabetuz. Zentzu honetan, Laclauk nortasun politikoen izaera itxi gabea kanpokotasun batek (patroia eta langilearen artekoa; maizterra eta nekazariaren artekoa; ...) irekia mantenduko duela argudiatzen duen bitartean, Zizekentzat itxi-ezintasun hau barne subjektibitatearen barruan kokatuko litzateke, gabezi honi izaera ontologikoa emanez. Ika-mika honek Laclau Derrida eta bestelako autore dekonstruktibisten pentsamenduengan sakontzera eramango du. Horrela, eraikuntza diskurtsiboaren *baitan* kokatzen diren posizio subjektuen eta egiturak determinatuko lituzkeen subjektu politikoen artean ezberdinduko du (*Nuevas reflexiones sobre la revolución de nuestro tiempo*, 2000). Honek, aldi berean, identitate politikoen *dislokazioaren* kontzeptuari bide emango dio, indarrean dauden ordenu sinbolikoen eta nortasun politikoen *eten* gisa. Hau da, dislokazioak indarrean dagoen ordenu diskurtsiboan ordezkatu ezin diren nortasunen *krisi* bezala izendatuko ditu.

Azkenik, Howartheek Laclauen hegemoniaren hirugarren eredu batez hitz egiten digu. Bertan, *Hegemonia y estrategia socialista*-n garatutako hainbat kontzeptuen (adierazle hutsak, gaideterminazioa, ...) berrikuspen eta fintze bat emango duela esaten digu. Zentzu honetan, jatorrizko kategoria honen gailurra hogeitau urte beranduago idatzitako *La razón populista*-n (2005) barnebilduko ditu, kapitulu honen bukaera partean ikusi bezala.

Laclauen pentsamenduaren bilakaeraren azaleko azterketa hau eginda, laburtu ditzagun era eskematikoan hegemoniaren eraikuntzarako baliatutako kategoria nagusiak:

Dislokazioa: arestian aipatutakoaren harira, jendartearen konplejizazio prozesuaren ondorioz identitate politiko ezberdinek ezarritako ordenu sinbolikoan beraien egonkortze eta itxiturarako aurkitzen duten ezintasun ontologikoa. Ezintasun honen helburua, marxismo tradizionalak sustatuko joera esentzialistak baztertzea litzateke; eta ekidinezina izateaz gain, nortasun politikoen artikulazio kontingenterako ezinbestekoa ere izango da.

Unea eta elementua: eskaera sozial guztiak era diskurtsiboan eraikitzen direnaren abiapuntua baliatuta, horietako batzuk artikulazio diskurtsibo baten baitan egituratuko dira (*uneak*) eta beste batzuk kanpo geldituko dira (*elementuak*). Barru eta kanpokoaren arteko muga hauek, aldiz, aldakorrak izango dira; are gehiago, aldakorrak izan beharko dira ikuspegi hegemoniko batetik. Horrela, egun nagusi edo hegemonikoa den eraikuntza diskurtsibo batetik kanpo gelditzen den eskaera edo elementua, biharko artikulazio hegemoniko berri baterako lehengaia izan ahal izango da. Are gehiago, lehian egon daitezkeen bi posizio hegemonikoetatik kanpo egon daitezkeen

eskaerekin topo egin ahal izango dugu, *heterogenitate sozialaren* ondorioz; hauek ere momentu batean lehia hegemonikotik kanpo gelditzeak ez du eragotziko kontingentziaren ondorioz, beste momentu batean hegemonia berri baterako gakoa bilakatzea.

Ekibalentzia eta diferentzia: sozialaren kontingentzia iraunkor hau eskizofrenikoa ez bilatzeko artikulazio hegemonikoak heldu-leku batzuk beharko ditu. Heldu-leku hauek puntu nodalak izango dira; adierazlearen etengabeko desplazamendu lacaniarrean *esangura (significación)* bat eraiki nahi bada ezinbestekoa izango direlarik. *Point de capiton* hauek ainguralekuaren izaera ekibalentzia eta diferentzien joko bitartez lortuko dute. Horrela, eskaera batzuk beraien arteko berezitasuna mantenduta beraien izaera diferentziala indartuko dute (*eskaera demokratikoak*), artikulazio ahulerako abiapuntua izanik; sistemak eskaera hauetako geroz eta gehiago ez baditu barneratzen, kanpokotasun honen ondorioz beraien arteko elkartasun edota ekibalentzia sortzera joko dute (*eskaera herrikoiak*), mugaren bi aldeetan kokatu diren posizio antagonikoak gorpuztuz⁴⁹.

Antagonismoa: sistemak eskaera batzuekiko erakutsi dezakeen barnera-ezintasuna, aldiz, ez da baldintza nahikoa izango antagonismoa sortzeko, patrioiak langileari kentzen dion plusbalioa bigarrenengo honek lehenengoarekiko antagonismoa sortzeko baldintza nahikoa izango ez den bezala; bestelakoan nortasun politikoen joko esentzialistan erortzen egongo ginateke. Antagonismoa politikoki eraiki beharko da; hasieran aipatu dugun marko sinbolikoan *kanpoko* horrek identitate zehatz bat ezinezko egiten duenean soilik jarrera antagonikoak piztuko direlarik.

Adierazle hutsa eta adierazle flotagarria: eskaeren arteko artikulazio honetan, ezinbestekoa den ekibalentzia gorpuzteko eskaera edo adierazle partikularrek beraien berezitasunak edukiz husteko joera erakutsi beharko dute, une batean, horien artean nagusitasuna lortuko duen bat agertuko delarik (*adierazle hutsa*). Horrela, *hutsik* dagoen adierazle horren (ezinezko) asebetetzeak norberarena ere aseko duenaren identifikazioa lortuko litzatekeelarik. Partikulartasunaren berezitasunaren mantentzean eta identifikazio prozesua zabaltzeko beharrezkoa den hustuketa prozesuaren arteko tentsio gaindiezin honetan sortuko da *adierazle hutsa*. Eta berarekin batera

⁴⁹ Laclairen pentsamenduaren bilakaerara bueltatuta, aipatzekoa da testuinguru historikoaren bilakaerak horrela gidatuta, eskaera demokratiko eta eskaera herrikoei momentu ezberdinetan ematen dien garrantzia. Horrela, lehenengo momentu batean, 1985an *Hegemonia y estrategia socialista* argitaratu zuenean, lehenengo hauen gainean jarriko du arreta nagusia, batez ere posmodernitatearen hasiera horretan marxismo tradizionalak gizarte mugimendu berrien eskaeren ugaltzearekin hauekiko erakutsitako jarrera oldarkorra baretu nahian. Bere pentsamenduaren azken garaietan, aldiz, eskaera herrikoiaren arreta jarriko du. Ezkerreko pentsamenduaren baitan ematen den disgregazioaren ondorioz, sistemarekiko muga antagonikoak finkatzeko zailtasunak agerikoak izango direlako; horrela, hegemoniaren eraikuntzarako beharrezkoa den espazio politikoaren biko banaketarako, sistemarentzat barnera-ezinak izango diren eskaera herrikoiak artikulatzea ezinbestekoa bihurtuko delarik.

adierazle flotagarria; lehian dauden bi eraikuntza diskurtsiboetatik bat nagusitzeko muga antagonikoaren alde batetik bestera jarioan flotatzen dagoen adierazle bezala. Mendebaldeko irudikapen kolektiboan demokrazia, justizia edota berdintasuna adierazle flotagarri hauen adibide argienetakoak izango dira; lehia hegemoniko horretan alde batekoek zein bestekoek mugaren bere aldera eraman nahi izango dutelarik.

Unibertsala eta partikularra: ariketa hegemonikoaren arrakasta eskaera partikular batek eremu sozial zehatz batean nagusi diren balio unibertsalak bere egin, edo hobeto esanda, bere partikularitasunaz kontaminatzeko gai denean burutuko da. Zentzu horretan, bata ala bestearen arteko dikotomia gaindituta elkarren beharra izango dute; unibertsalak sinboliko izango den proiektzio bat izateko partikular batek emango dion forma kontingentea beharko duelako; baina aldi berean partikularrak bere berezitasunaren zati bat bidean utzi beharko du jendartean nagusi izango den (balio) unibertsala ordezkatu nahi badu. Horrela, Freudek esango lukeen bezala, “objektuak Gauzaren kategoria” erdietsi ahal izango du; edo beste modu batera esanda, partikularrak unibertsalean ematen duen *inbestitze* prozesua gauzatuko du. Hau izango da *sozialak* bere ezinezko itxiturari begira izan dezakeen gehienezko helburua; partzialki eta era kontingente batean artikulatua egongo den eraikuntza hegemonikoa.

4. KAPITULUA: DEMOKRAZIAREN ERRADIKALIZAZIOA: AGONISMOA

4.1 Sarrera

Ilustrazioaren etorrerak suposatu zuen mundu ikuskeraren aldaketak demokrazia modernoan garapenari oinarria jarri ziola baieztatu daiteke. Ordura arte jendarte antolaketan Jainkoak eta Naturak jokaturako papera Gizakiak eta Arrazoiak beteko dituzte hortik aurrera. Ikuspegi aldaketa honek “Iraultza Demokratikoari” abiapuntua jarriko dio. Horrela, botere harremanen konfigurazioan, XVIII. mendera arte erregeak betetako botere absolutuaren irudia Iraultza Frantziarretik aurrera erortzen joango da, berak utzitako tokia *herriaren* kategoria bereganatzen joango delarik.

Demos honen eraikuntza demokraziaren lehen mailako eginkizuna izango da (Laclau, 2015). Izan ere, herriaren artikulazioa ez da bere nagusitasun aurreterminatua izango duen elementu fundatzaile baten inguruan emango; *demos*-a eraiki beharko da. Aurreko atalean ikusi bezala, prozesu hau demokratikoa izango da eskaera ezberdinak barnebiltzera joko duen heinean. Ekibalentziaren logikak eskaera ezberdinen arteko *berdintasuna* ahalbideratuko du; edo beste modu batera esanda, *demos*-aren artikulazioan eskaera ezberdinak barnebilduak izateko aukera berdintasuna sistema demokratikoen funtsezko hantetako bat izango da. Eskaera hauen arteko ekibalentzia, aldiz, ezin izango dugu beraien arteko homogeneousotasun bat bezala ulertu; bestelakoan artikulazio itxi eta finko baten aurrean aurkituko ginatkeelako. Sistema demokratikoen ezegonkortasunak eta kontingentziak eskaera hauen arteko aniztasunari eta partikularitasunaren defentsari ere bide eman beharko dio. Hortik, demokrazia liberalen bigarren hanka bezala ulertu dezakegunari bide ematea; *askatasunari*, hain zuzen ere. *Berdintasunak* eta *askatasunak* osatuko dute sistema demokratiko liberalen funtsezko bi zutabeak (Mouffe, 1999). Hauek azken bi mendeetako bi korrante politiko nagusitakoan abiapuntutzat hartu ditzakegu: *liberalismoarena* askatasunaren kasuan; *errepublikanismoarena* berdintasunarenean. Zentzu horretan, sistema demokratikoen nagusitasuna aldarrikatuko duten XX. mendeko pentsalari nagusiak, bere forma ezberdinetan, bi ardatz hauen artean kokatuko direla esan dezakegu: batetik, askatasun liberalak

nagusitzen dituen eskubide indibidualen, eta bestetik, berdintasun demokratikoak lehenesten duen ongizate komunitarioaren artean. Hori da kapitulu honen lehenengo atalean aztertuko duguna. Joera liberalen kasuan, John Rawlsek komunitate politikoa egituratzeko planteatzen duen *justiziaren* kategorietan arreta jarrita; eta errepublikanoen kasuan, Michael Sandelek komunitate hori gorpuztuko duen *balore moralen* funtsa azalduz.

Moufferen ustez, aldiz, joera batzuek zein besteek gabezi berdina adieraziko dute. Komunitate politiko bati kohesioa eman behar dioten funts egituratzaileak zehazteko orduan interes ezberdinen artean sortzen diren gatazkak arrazoiaren bitartez desagerrarazten saiatzearena, hain zuzen ere. Gabezi honek modernitatearen krisiarekin eta aro postmodernoren etorrerarekin lotura zuzena izango luke. Izan ere, Ilustrazioaren eskutik nagusitutako arrazionalismoak, Lefortek aipatzen zuen sistema demokratiko garaikideen indeterminazioarekin edo “ziurtasun adierazleen disoluzioarekin” egingo baitu talka (1988: 18). Moufferen ustez, honek ez du bere horretan modernitatearen erabateko porrota suposatuko, “modernitatearen baitako proiektu batena” baizik (1999: 31); arrazionaltasunari izaera eratzailera ematen dionarena, hain zuzen ere. Izan ere, hurrengo lerroetan ikusiko dugun bezala, sistema demokratiko berriak ezaugarrituko dituzten funtsezko bi aldagai hauen (askatasuna eta berdintasuna) arteko tentsio gaindiezinak, arrazoiaren izaera fundatzailearen hutsuneak agerian utziko baititu. Hau da, arrazoi unibertsalaren gainean eraikitako barne adiskidetutako jendarte antolamenduaren gabeziak azalaraztea aro postmodernoren ezaugarri nagusietako izango da. Eta Moufferen ustez, gabezia horiek dira pentsamendu liberal zein errepublikano tradizionalen presente egongo direnak.

Arrazoiaren bitartez erdietsi beharreko adostasunezko ikuspegi honen mugak gainditzeko asmoz, bigarren atal batean Carl Schmittek *politikoaz* duen adiera nabarmenduko dugu. *Erabakiaren* logikaren gainean eraikitako adiera honek, sistema demokratikoen ulermen berri bati ateak irekiko dizkio, non *bateratasunak*, *lagun/etsai* logika antagonikoak edota *indarraren* ideiak garrantzia hartuko duten komunitate politikoaren eraikuntzan. Schmittek jada ez du interes ezberdinen arteko lehia errefusatuko; are gehiago, interes ezberdinen arteko lehia jendarte funts egituratzailetzat hartuko du. Ikuspegi hau muturrera eramanez, bere ustez, interes hauek antagonikoak eta adostezinak izango dira, ordea.

Hirugarren atal batean, Schmitten *dezisionismoaren* aurreko erreakzio garaikide bezala ulertu ditzakegun demokraziaren bestelako bi adierei bide emango diegu: demokrazia *gehitzailera* (*agregativa*) eta demokrazia *eztabaidazalea* (*deliberativa*). Lehenengoaren adierazpide nagusi

bezala Joseph Schumpeterren pentsamendua kokatu dezakegu; asko eskematizatuta, jendartearen pluraltasuna gehitu daitezkeen interesen batura arrazional bezala ulertuta. Eta bigarrenarena, eztabaidaren bitartez arazo sozialak gainditu daitezkeenaren ustea nagusitzen duena. Azken honen garapenean erreferentziatzko autore ezberdinen aipamena egin badezakegu ere, ezin aipatu gabe utzi Jürgen Habermasen ekarpena edota, gerora Ulrich Beck eta Anthony Giddensena.

Azkenik, batzuen joera antagonistak leundu eta besteen adostasun arrazionalerako gehiegizko joerak ekiditeko Chantal Mouffek proposaturiko eredu *agonistan* zentratuko gara, gure ikerketa lanak demokraziaren erradikalizazioaz duen ulermenaren oinarritzko abiapuntu gisa. Bertan demokrazia liberalek zabalduzako *pluralismoaren* inguruko adiera eguneratuko dugu, etsaiaren edo lehiakide hutsaren kategoria baino *arerioarena* planteatuz. Hegemoniaren atalean marrazten hasi garenaren ildotik, demokrazia liberalek arrazoiaren izenean arbuiaututako *pasioen* dimentsio afektiboarentzat ere dagokion lekua aldarrikatuz.

4.2 Liberal eta errepublikanoen arteko elkarrizketa

Ondorenean azaldu nahi dugun demokrazia ereduaren azalpenerako, hurrengo lerroetan XX. mendean zehar demokraziaren gaineko bi ikuspegi nagusien oinarritzko ezaugarrien azaleko kokapena egingo dugu. Funtsean, batetik, liberalek aldarrikatutako norbanakoen askatasun edota eskubide eta, bestetik, errepublikanoek aldarrikatutako subiranotasunaren gainean eraikitako ongizate komunaren arteko elkarrizketa *tentsiodunak* azken hamarkadetan indarrean egon diren (eta dauden) sistema demokratikoen bilakaera norabidetu du. *Tentsio* horien balizko aitortza edo ukapenarekin, beraien kudeaketaren gainean eraikitako botere harremanekin eta, ondorioz, *politika* eta *politikoa*⁵⁰ ulertzeko paradigma ezberdinekin egingo baitugu topo. Baina hori aurrerago aztertuko dugu.

⁵⁰ *Politiko* eta *politikaren* arteko bereizketa honen jatorria Carl Schmitten pentsamenduan kokatu dezakegun, non (erabaki) *politikoak* jendartearen konfigurazioaren dimentsio eratzaila hartuko lukeen. Oinarritzko abiapuntu honen gainean pentsamendu posfundazionalistak bi kategoria hauen arteko bereizketa egingo luke. Marchartek azaldu bezala, *politikoak* jendartearen dimentsio ontologikoari erreferentzia egingo lioke, “jendartearen dimentsio eratzailari”, hain zuzen ere; *politika*, aldiz, “ohiko politikaren praktika ontikoak” izendatzeko baliatuko litzateke (2009: 19). Ildo honi jarraituta Laclauk, Hussler fenomenologoak *El origen de la geometría* lanean planteatutako *sedimentazio* eta *berraktibazioaren* kategoriak berreskuratuko ditu, *politikoak* sedimentatutako praktika sozialak berraktibatuko duen unea bezala ulertuz, honek ordenu hegemoniko berri baten eraikuntzari ateak irekiko litziokeelarik.

4.2.1 Liberalen askatasun negatiboa.

XX. mendeko liberal eta errepublikanoen arteko eztabaida klasiko honetan, mota oso ezberdinetako ikuspegi liberalak aurkitu baditzaiegun ere, badira oso presente dauden oinarritzko hiru ezaugarri komun sistema demokratikoen bilakaera eta modernitatearen ondorengo krisiaren azalpenerako: a) askatasuna, b) norbanako eta jendartearen arteko harremana eta c) Estatuaren ezaugarritzea.

a) *Askatasunaren* ideari dagokionez, liberalek norbanakoak bere helburu propioak asebetetzeko aukera eta eskubidea funtsezko ezaugarri bezala hartu izan dute. Ildo honetatik, intentsitate eta ikuspegi ezberdinarekin bada ere, ongizate komuna ezinezkotzat, edo behintzat, bigarren mailako zerbait gisa irudikatu izan dute, kasu batzuetan helburu komun horren eraikuntzarako interes indibidual horiek adostezinak diren posizio gisa ere irudikatuz. Liberalek askatasunaren izaera “negatibo” edo *moderno* aldarrikatuko dute, greziarrek eta erromatarrek aldarrikatzen zuten erantzukizun kolektiboko askatasun *klasikoarekin* kontrajarriz; hau da, norberaren ekinbidean Estatuaren, bestelako gizabanakoen edota giza-talderen interferentzia mugatzen duen askatasunaz ariko dira. Aipatzekoa da, pentsalari liberal gehienek arrazionalismoari eta determinismoari egindako kritikak, hain zuzen ere askatasun indibidual honen mugatzaile bezala. Izan ere, bi joera hauen eskutik planteatu izan den gizarte eredu *itxiak* edo determinatuak norberaren bizi proiektua gauzatzeko askatasuna goitik behera baldintzatu izan du, Isaiah Berlinek *monismoarekin* salatu bezala⁵¹.

Nabarmendu nahi dugun bigarren ezaugarriari dagokionez (b.- *norbanako eta jendartearen* arteko artikulazioa), liberalek jendartearen eraikuntza norbanakoen interes propioak asebetetzeko sozializazio prozesu gisa irudikatu izan dute. Liberalentzat sozializazio prozesu hori arrakastatsua izateko gutxieneko *arau* batzuk ezarri beharko dira, batzuk eta besteek *arau* hauen gauzatzean aldagai ezberdinei arreta jarri badiete ere: Friedrich Hayeken ustez, kontzientzia maila ezberdinarekin gauzatzen diren ohituretan oinarritutako jokaera arauak “jendarte ordenu espontaneo edo berezko” bati bide emango liokete (1952); Karl Popperrek ere ohitura eta tradizioaren ildo

⁵¹ XX. mendean zehar nazismoaren eta bloke sobietarraren garapenaren eskutik planteatutako gehiegizko arrazionalismo eta determinismoarekiko erreakzio gisa, Isaiah Berlin (*Two concepts of liberty*, 1958) bezalako liberalen artean bi ideia hauen inguruko aurkakotasuna areagotu zen. Sistema batek zein besteak aurreikusten zuen jendartearen barne adiskidetzeara edo itxitura, ongizate komun baten mesedetan sakrifikatu beharreko interes indibidualen aurkako erakusle goren gisa hartuak izango ziren. Hortik modernitatearen funtsezko ideia hauen muturreko bilakaerarekiko aurkakotasuna.

jarraitu zuen baina arreta hauen gaineko *kritika arrazionalean* jarritz (1992: 398); John Rawlsek (1971), aldiz, *justiziaren* ideia arautzailearengan kokatzen zuen erantzukizun nagusia.

Izaera ezberdineko arau hauek gutxieneko jendarte kohesiorako zimendua osatuko lukete, hauen gainean norberak bere bizitza proiektua eraikitze askatasuna izango lukeelarik. c) *Estatuari* arau horien kudeaketaren eginkizuna egotziko zaio. Honek ongizate eredu kolektibo baten aldeko jarrerarik ezin izango du erakutsi; ezta hautu politikorik suposatu dezakeen inongo ongizate kolektiboren aldeko jarrerarik hartu, bere burua proiektu indibidualen arteko lehia askearen zaintza lanak egitera mugatu beharko duelarik. XX. mendeko eredu liberala oinarri hauen inguruan artikulatuko da, horren gainean joera anitzeko aldaerak aurkituko baditugu ere: Hayek planteatuko “Jendarte Handi” ultra-liberaletik hasita (1982), Rawlsek (1971) justizian oinarritutako izaera liberaleko Ongizate Estatura.

Moufferen pentsamendura lehenengo hurbilpen bat eginez, azpimarratu nahi izan ditugun hiru aldagai hauetan modernitatearen eskutik eman zen arrazionaltasunaren krisiaren zantzuak agerian gelditzen joango dira. Esan nahi baita, liberalen eskubideen definizioan, jendartearen funtzionamendu normalizatu baterako beharrezkoak diren aipatutako arauen zehaztapenean edota Estatuari legokiokkeen arbitro paperean egikaritzean, modernitateak mundua ulertzeko paradigma arrazionalaren bitartez eskainitako bitartekoen mugak agerian gelditzen joango dira. XX. mendean zehar, gizakiarentzat kontsentsu soziala adostasun arrazional bidez *halabeharrezko* erreferente izatetik, bere historian inoiz ezagutu gabeko hondamendi handienekin topo egitera pasako da. Jendartean nagusi ziren tentsio politiko eta sozialak enpirikoki gainditzen joango ziren igarobidea izatetik, jendartean (des)eraikuntza prozesuetan aldagai erabakitzaile bezala agertzera pasako dira. Aurrerago ikusiko dugun bezala, tentsio hauen ukapenak harreman sozialen izaera *politikoa* / fundatzailea / ontologikoa indargabetzeko arriskua luke, arreta nagusia aurrez determinatutako eredu baten kudeaketara mugatuz; *politikaren* dimentsio ontikoarena, hain zuzen ere. Zentzu horretan, politika eta Estatuaren funtzioa prozedurazkoa litzateke, botere harremanen artikulazioa eta berrartikulazioaren dimentsioa bazterrean utziz.

4.1.1.1 Rawlсен justizia, printzipio arautzaile gisa.

Rawls liberalismo politikoaren prozedurazko dimentsio honetatik aldentzeko saiakera egingo du. Berak ere arrazoiaren nagusitasuna aldarrikatuko du, norberaren interes propioa gauzatzeko tresna gisa, baina bere ondoan *arrazoizkoaren (reasonable)* dimentsioa nabarmenduko du, “inplikazio moralak eta elkarlan sozialaren antolaketan justiziazko zentzua” barnebilduko duena (Mouffe; 1999: 47). Bigarrenagoak lehenengoari muga jarriko dio, norbanakoek beraien interesen bila dihardutenean gainditu ezinezko muga gisa. Helburua jendartearen osotasunaren ongizatearen hazkundera bermatzea litzateke, beti ere horrek jendartearen zati baten kaltetan ez baldin badoa. Hau da, funtsezko helburu soziala *arrazoizko* garapen orekatu bat lortzea litzateke.

Ikuspegi honek ez du inongo zerikusirik izango Rawlsek horrenbeste arbuatutako komunitaristen joera utilitarioekin. Azken ikuspegi honek ongizate komuna eskubide indibidualen gaintik kokatuko du, norberaren interesak kolektibitatearen mesedetan sakrifikatuz. Jendartearen zati baten kaltea ekiditeko, *arrazoizkoaren* bidezko norbanakoen interesen mugatzen honetan, gakoa aipatutako “justiziazko zentzua” adostasunezko ikuspegi batetik nola eraikitzen den zehaztea litzateke. Horretarako, norbanakoen interesek kontaminatuko ez duten abiapuntua beharko litzateke. Hau Rawlsek *jatorrizko posizioa* deitu duenaren bitartez gauzatuko du. *Ezjakintasunaren errezelaren (velo de ignorancia)* bitartez, jendarte bateko kideei bertan duten posizio, gaitasun, helburu eta bere inpartzialtasunerako kaltegarria izan daitekeen oro ezkututzen zaie. Justiziazko printzipio hauen hautapenean, norberaren inpartzialtasuna baldintzatu dezaketen baldintzapen hauen gaineko ezjakintasunak gizakia guztiontzako justuak diren irizpideen aukeraketara eramango du. Joera kantiarreko ikuspegi honek berdintasun eta askatasun egoera bat definituko du, non pertsona aske eta librean arteko elkarlan sozialerako justiziazko printzipioak zehaztu ahal izango diren. Hortaz, ez da justiziaren inguruko irizpide independente edo absoluturik egongo, prozedurak berak bermatuko du emaitza justua izatea.

Abiapuntu honetatik Rawlsek bere justiziazko bi printzipio ezagunak eraikiko ditu: 1) Norbanako guztiek, besteentzako askatasun berdinarekin bateragarria izango den, askatasunen sistemarako eskubidea dute; 2) Ezberdintasun sozial eta ekonomikoak era batean arautu behar dira non: a) mesede gutxien dutenei onurarik handiena suposatuko dien (*ezberdintasun printzipioa*); b) berdintasunerako aukera baldintzetan emango diren funtzio eta posizioetara lotuta egongo den. Rawlsen arabera, lehenengo printzipioak bigarrenarekiko lehentasuna izango luke, eta b) klausulak a) klausularekiko. Horrela, “oinarrizko ondasun sozial guztiak (askatasuna eta aukerak, diru sarrera eta aberastasunak, zein auto-errespetuaren oinarriak) era berdinean banatu behar dira, baldin eta

ondasun hauetako baten banaketa desberdin batek gutxien mesedetutakoen mesedetan baldin badator” (1971: 302-303).

Oinarrizko eraikuntza teoriko honek maila ezberdinetako kritikak jaso zituen bere garaiko intelektualen artean, horien artean agerikoenetakoa sistema politiko guztietara egokitu ezin izango zen justiziaren ikuspegi unibertsala garatu nahi izatearena. Urte batzuk pasa beharko dira beste publikazio batean bere asmoa “baldintza modernoetan egituratzen diren jendarte demokratikoetan instituzio sozialen forma justuen gaineko oinarrizko adostasuna” ezartzea zela adierazi zuenera arte⁵²; hau da, bere ideia mendebaldeko demokrazia liberalentzat pentsatua zegoela aitortu arte. Estatuaren izaera minimoaren defendatzaile sutsua zen Robert Nozick bezalako pentsalari ultra-liberalen eremutik ere kritikak etorri ziren. Rawlsen planteamendua Ongizate Estatuaren babeserako eraikuntza teoriko gisa landua izan bazen ere, Nozicken ustez, *berdintasunezko justiziaren* abiapuntu berdina hartuta, Estatuaren funtzio banatzailea baztertuko lukeen Estatuaren adiera batetara iritsi gintezke⁵³.

Baina gure marko teorikoaren planteamendurako erabilgarriagoa izan daitekeen ikuspegira hurbiltzeko komunitaristek egindako kritikari arreta jarriko diogu. Michael Sandel bezalako errepublikanoek gogor kritikatuko dute, Rawls bezalako liberalek eskubide indibidualei emandako nagusitasuna, hauen aitortza eta egikaritzea eraikuntza sozial zehatz batean (hots, balio zehatz batzuk dituen jendarte batean) ematen dela aintzat hartu gabe. Nolabait esateko, errepublikanoek jendarterik gabe eskubiderik ere ez dagoela aldarrikatuko dute. Sandelek horrela adieraziko du:

“El yo *desvinculado* [de Rawls] y la ética que él inspira, tomados conjuntamente, sostienen una visión liberadora. Libre de dictados de la naturaleza y de la determinación de los papeles sociales, el sujeto humano se instala como soberano, como autor de únicos significados morales que existen [...]. Ésta es una promesa vivificante, y el liberalismo que ella anima es, tal vez, la expresión más acabada de la búsqueda de la Ilustración de un sujeto que se autodefine. Pero ¿es verdadera? ¿Podemos darle sentido a nuestra vida moral y política a la luz de la autoimagen que requiere? No creo que podamos” (2004: 83).

⁵² John Rawls, “Kantian Constructivism in moral theory”, *Journal of Philosophy*, 77. bolumena, 9. zenbakia, 518. orrialdea (1980); *El retorno de lo político* liburutik aterata (Mouffe, 1999: 67).

⁵³ Nozick, R. (1988): “La justicia distributiva” atalean, *Anarquía, Estado y Utopía*. Mexiko: Fondo de Cultura Económica.

Jendartearen lokarrietatik bereizitako “ni” horrek eskubideen legitimazio iturri bakarra bere baitan aurkituko luke. Gizakia bera bere izaera moralaren abiapuntu eta helmuga litzateke, bestelako sozializazio prozesuetan sortzen diren hartu-emanak bigarren mailako zerbait izanik. Hartu-eman sozial hauen aurretik auto-definitutako izaera determinatu hau izango da Sandelek salatu nahi izango duena. Zentzu horretan, Rawlsek justiziaren printzipioak inongo adiera erlijioso, moral edo politikotik eratortzeko planteatuko ezintasuna gauza bat izango da; baina printzipio hauek soilik instituzio zehatz batzuk izango dituen jendarte zehatz batean existitu ahal izango direla aintzat ez hartzea beste gauza bat izango da. Beste modu batera esanda: soilik ongizatearen zentzua definitua duen antolatutako jendarte batean justiziaren zentzua jaso ahal izango da. Alde horretatik, Moufferentzat errepublikanoek egindako kritika erabat zentzuzkoa izango da⁵⁴ (1999: 71).

Baina gure ikuspegi teorikoaren eraikuntzarako kritikarik sakonena justiziazko irizpideen zehaztapenerako prozedurarekin lotuta legoke. *Jatorrizko posizioa* edota *ezjakintasunaren errezela* bezalako kontzeptuek duten ikuspegi teorikoegia eta planteatzen dituzten zailtasun enpirikoetatik harago (Mouffe; 2000: 64), Rawlsek justiziazko irizpideen inguruko adostasuna *halabeharrezko* helmuga gisa planteatuko du. Rawlsten justiziak izaera politikoa izango du, jendarte bateko erakunde politiko, sozial eta ekonomikoentzat pentsatuta dagoen heinean eta jendarte demokratiko baten kultura politikoarekin sintonian dagoen heinean (1999: 75). Hala ere, norbanakoen askatasunak bermatu eta pertsona ezberdinen arteko gehiegizko desoreka sozio-ekonomikoak ekiditeko ariketa zail honi darion kutsu moralistak, jendartea arautu behar duten printzipio horien zehaztapenaren izaera gatazkatsua eta, funtsean, politikoa ukatu egingo du. Finean, joera moral hau esparru politikora eramatean, jendartearen antolaketa zuzendu behar duten irizpide sozialen zehaztapena, norbanakoen moralak berak (*arrazoizkoak*) mugatuko duen interes pribatuen arteko negoziazio arrazional bat bilakatzen da. Gatazkak, antagonismoak, botere harremanak, menpekotasun eta errepresio formak eta bestelakoak desagertzen dira; *jatorrizko posizioan* guztiok izango genukeen ustezko neutraltasun posizio teoriko batetik, arrazoiak gidatzen duen interes indibidualek eta *arrazoizkoaren* moralitateak zuzenduta (1999: 76).

⁵⁴ Mouffek komunistaren kritika honi ñabardura bakarra bakarra jarriko dio. Hau ulertzeko ongizate moral eta ongizate politikoaren arteko bereizketa planteatu beharko dugu. Zentzu horretan, Rawlsek inongo adiera erlijioso, moral edo politikotik eratortzeko planteatuko ezintasuna gauza bat izango da; baina printzipio hauek soilik instituzio zehatz batzuk izango dituen jendarte zehatz batean existitu ahal izango direla aintzat ez hartzea beste gauza bat izango da. Beste modu batera esanda: soilik ongizatearen zentzua definitua duen antolatutako jendarte batean justiziaren zentzua jaso ahal izango da. Alde horretatik, Moufferentzat errepublikanoek egindako kritika erabat zentzuzkoa izango da⁵⁴ (1999: 71).

⁵⁴ Mouffek komunistaren kritika honi ñabardura bakarra bakarra jarriko dio. Hau ulertzeko ongizate moral eta ongizate politikoaren arteko bereizketa planteatu beharko dugu. Zentzu horretan, Rawlsek inongo adiera erlijioso, moral edo politikotik eratortzeko planteatuko ezintasuna gauza bat izango da; baina printzipio hauek soilik instituzio zehatz batzuk izango dituen jendarte zehatz batean existitu ahal izango direla aintzat ez hartzea beste gauza bat izango da. Beste modu batera esanda: soilik ongizatearen zentzua definitua duen antolatutako jendarte batean justiziaren zentzua jaso ahal izango da. Alde horretatik, Moufferentzat errepublikanoek egindako kritika erabat zentzuzkoa izango da⁵⁴ (1999: 71).

⁵⁴ Mouffek komunistaren kritika honi ñabardura bakarra bakarra jarriko dio. Hau ulertzeko ongizate moral eta ongizate politikoaren arteko bereizketa planteatu beharko dugu. Zentzu horretan, Rawlsek inongo adiera erlijioso, moral edo politikotik eratortzeko planteatuko ezintasuna gauza bat izango da; baina printzipio hauek soilik instituzio zehatz batzuk izango dituen jendarte zehatz batean existitu ahal izango direla aintzat ez hartzea beste gauza bat izango da. Beste modu batera esanda: soilik ongizatearen zentzua definitua duen antolatutako jendarte batean justiziaren zentzua jaso ahal izango da. Alde horretatik, Moufferentzat errepublikanoek egindako kritika erabat zentzuzkoa izango da⁵⁴ (1999: 71).

Rawlson ikuspegiaren arabera desadostasunak sortzen dituzten postulatuak eremu pribatuan kokatzen diren gai erlijioso edota filosofikoei lotuak egongo lirateke. Gai hauek eztabaida publiko-politikora ez eramatearekin nahikoa litzateke, bertan arrazoi indibidual eta moralitatearen arteko uztarketa intuitiboarekin funtzionamendu soziala arautzeko irizpideen inguruko adostasuna erdietsiko bailitzateke. Rawlson tesiak, jendartearen eraikuntzaren zutabe izan behar duten justiziazko irizpideen definizioan interes kontrajarriak egon daitezkeela ukatzen du. Ikuspegi honek, printzipio zuzentzaileei dagokionez behintzat, barne adiskidetutako jendartearen marko kontzeptualaren baitan kokatzera garamatza. Mouffek, aldiz, askatasun indibidualen eta berdintasun printzipioen arteko konbinazioa oinarri izango duen sistema soziala eraikitzen saiatzearen ahalegina aitortuko badio ere (1999: 80), balore edo printzipio zehatz batzuen gaineko jendartearen itxitura errefusatuko du. Bere ustez, justiziaren printzipioaren gainean eraikitako diskurtsoek funtzio sozial handia betetzen dute. Askatasunaren eta berdintasunaren arteko interpretazio ezberdinei bide ematen dieten heinean, eskaera sozial ezberdinei identifikazio eta legitimaziorako iturri ezberdinak ematen dielarik (1999: 81). Beste hitz batzuekin esanda, *justiziaren* ideiak jendartea egituratzeko hegemonia eta *sen on* konpartitu baten eraikuntzan paper handia betetzen du. Baina ikusi dugun bezala nortasun, identifikazio eta hegemonia hauek kontingenteak dira; hortaz, justiziazko printzipioak ere bai. Interes eta eskaera ezberdinen arteko lehia desorekatuaren ondorio dira, eta ez egoera idiliko batzuetan (*jatorrizko egoera, ezjakintasunaren errezela, ...*) ematen den kontsentsu moral baten emaitza.

4.2.2 Errepublikanismo hiritarra eta ongizate komuna.

Errepublikanismoaren inguruko atal honetan ez gara greziarren edota erromatarren errepublikanismo klasikoaz ariko; ezta Berpizkunde garaian Machiavelli eta bestelako pentsalari garaikideen ekarpenen inguruan. Iturri horietatik edan bai baina iragan mendeko 60. eta 70. hamarkadetan EEBBetako XVIII. mendeko historiaren berrikuspena egingo duten autore multzoak egingo duten *biraketa errepublikanoaz* ariko gara. Gehienbat jatorri estatubatuar edo anglosaxoia izango duten pentsalari hauek, propioki eskola deitu daitekeena osatuko ez badute ere, aipatutako testuinguru historikoaren azterketetan nagusitutako ikuspegi liberal klasikoaren gaineko kezka komuna azalduko dute⁵⁵. John Locke-ek defendatutako ikuspegi *kontraktualista* aipatutako

⁵⁵ Ovejerok (2004) Cambridgen formatu baina beraien ikerketa lana EEBBetan burutu zuten historialari taldeari egiten dio erreferentzia -Skinner, Dasgupta, Geuss, Lane, ...-. Errepublikanismoaren inguruko berrazterketa oso bat egingo duten pentsalari ezberdinek beraien lana hauek utzitako azterlan historiografikoaren gainean oinarrituko

hamarkadetako historialarien artean errotutako joera izan zen, EEBBetako independentzia prozesuaren gaineko azter lanak egiteko orduan eskubide indibidualen garrantzia nagusitzen joan zelarik. Historiografia estatubatuarrean jarrera ofizial bezala egonkortzen joan zen ikusmolde honen aurrean, XX. mendearen erdialdean norbanakoen eskubideez baina, “bertute eta ustelkeria” terminoetan hitz egingo duen pentsalari multzoa trinkotzen joango da (Ovejero, 2004: 16).

Biraketa hau, XVIII eta XIX. mendeko liberalismoak izandako gehiegikeriekiko erreakzio gisa sortu zen (aro kapitalistaren hasieran nagusitzen hasiak ziren joera indibidualista eta berekoiak, interes pribatua lehenesten zuten jarrerak, ...), garaiko EEBBetako jendarte puritanoan harrera ona jaso zuelarik. Balore moralen usteltzea ekarri zuen mentalitate liberalaren aurrean, Berpizkunde garaiko Machiavelliren edota XVII. mendeko James Harrington ingelesaren ikuspegi kolektiboa eta bizitza politikoan parte hartze errepublikanoa aldarrikatuko dute.

Bertan ere askatasunaren ideiak berebiziko pisua izango du. Hirugarren pertsona edo estamentuen esku hartze eza aldarrikatzen zuen ikuspegi liberalarekin kontrajarriz, errepublikanismo berritu honen aldekoek askatasunaren izaera *positiboa* aldarrikatuko dute, komunitate politikoan eman beharreko parte hartze gisa. Gizabanakoak beraien bizitza plana egikaritu ahal izateko beharrezkoak diren bitartekoak dituzten heinean libre izango direla azpimarratuko dute, baina bitarteko hauek gainontzeko gizabanakoekin hartu-emanen eraiki eta eskuratzen dituztela argi izanik. Hortik, askoren aldetik joera berritu hau errepublikanismo *hiritar* bezala bataiatzeko. Ez legoke sobera azpimarratzea mende honetako pentsalari errepublikano nagusi gehienek ez dutela korrante liberalak planteatu duen ikuspegi negatiboaren interferentzia eza ukatuko. Esaterako, bere burua errepublikanotzat duen Philip Pettit bezalako autore batek askatasunaren inguruko ikuspegia *menderatze ezan* oinarritu zuen (1999); liberalen moduan, bere ikuspegia negatibotasun edo zerbaiten gabezia oinarrituz. Interferentzia eza hori era eraginkorrean gauzatu ahal izateko jendartean eraikitzen diren kode sozialen beharra izango da errepublikanismo hiritarrak aldarrikatuko duena, kode horiek balore moralekin lotura zuzena izango dutelarik. Norbanakoen jarduna zuzendu behar duten balio moral hauen beste adibideetako bat Peter Sloterdijk-ek aldarrikatzen duen harrotasunean edo *thymós*-ean aurkitu dezakegu. Jatorri grekoko *thymósak* gizakiaren pasio handien sorlekuari erreferentzia egingo lioke (2010: 22). Pasio handi horiek, greziarren garaian gerrari lotutako balore sisteman oinarritzen baziren (gorrotoa, mendekua, kemena, ...), gaur egungo adiera garaikidean motibazio nobleagoi atxiki beharko genizkieke

dute: Michael Sandel, Philip Pettit, Cass Sunstein eta abar (Ovejero, 2004: 15).

(ematea, enpatia, eskuzabaltasuna, ...) ⁵⁶. *Thymósa eros*-ari kontrajarriko dio. Lehenengoak zintzotasuna eta prestutasunari erreferentzia egiten dion bitartean, bigarrenak jendarte garaikidean nagusitu den kodizia eta gutziarekin lotuta egongo da.

Positibotasun honen inguruko definizio ezberdinak topatu ditzakegu baina, orokorrean, norberak gizartean era aktibo batean parte hartzeko eskubide eta betebeharrak bezala ulertuko da. Parte hartze honi ematen zaion garrantziaren arabera graduazio ezberdina aurkituko dugu: esaterako, arestian aipatutako Pettiten *dominazio eza*-tik hasita, Michael Sandelek planteatzen duen jendartearen arautze moralean Estatuaren esku hartzeraino (1996). Edozein kasutan, gehienek norbanakoen askatasuna gizartean eraikitzen dela azpimarratuko dute. Liberalek planteatuko ideari jarraiki, errepublikanoentzat ere askatasun hauen bermerako eskubideen aitortza beharko da (liberalen ustez, norbanakoen eskubide hauek beste ezereen gainetik nagusituko direlarik) baina hortik aurrera batzuen eta besteen bideak bereiziko dira. Liberalentzat eskubide hauek norbanakoen berezko ezaugarri izango diren bitartean, errepublikanoentzat eskubide hauek eraikuntza soziala izango dira, jendartearen, beste norbanakoekin bizitza sozialaren antolaketan gauzatuko direnak. Hau da, lehenengoentzat eskubideok *a prioriko* aldagai diren bitartean, bigarrenentzat gerora (edota *bitartean*) eraikiko dira. Horregatik, eskubideak *hiritar* kontzeptuari lotuak agertuko zaizkigu. Greziar eta erromatar klasikoak bezala, *polis* edo *res* horren parte diren hiritarrak izango dira eskubideen jabe eta, ondorioz, hiritar askeak.

Zentzu honetan, Quentin Skinnerrentzat askatasun indibidual horren esanahia, “gizarte zibil batentzat aske izatea zer denaren arabera” izango da (1998: 23). Askatasunak ez dio norberak nahi duena egiteari erreferentzia egingo adiera liberalean bezala; baizik eta bestearen borondateari men ez egiteari. *El nacimiento del Estado* lanaren hitzaurrean Eunice Ostrenskyk dioen bezala, Skinnerren askatasunak morrontzari uko egiten dio, ez legeari edo Estatuari (2003: 12). Izan ere, Skinnerren pentsamendu errepublikanoan askatasun indibidual hau jendarte, gobernu edota errepublika libre baten bilakaerari lotua egongo da; hau da, jendarte, gobernu edota errepublika hori aske izateari lotuta. Skinnerrentzat erakunde hauen askatasuna bi modutan frogatu beharko da: kanpo eta barne esku hartzeetatik libre egonez. Esku hartzeen lekutze historikoa XV. eta XVI. mendeetako testuinguru historikoan kokatuko du bere adiera gaur egun arte zabalduz. Horrela, hiri italiarren *libertas* edo askatasunak Inperioaren mehatxuekiko ezaugarrituko ditu kanpo esku hartzeak. Barne esku hartzeak gobernariaren gehiegikeriekin lotuak agertuko zaizkigu. Horrela

⁵⁶ Sloterdijkek balore sistemen arteko trantsizio honen hasiera Platoni egotziko dio. “Ideiei so egite” honek greziar epopeietan nagusi zen “gorroto handia” kulturaren eraikuntzatik ateratzen hasteko mugarrira suposatzen zuen (2010: 23).

libertas hauek mantendu ahal izateko bide bakarra *res publica* zentzu hertsian mantentzea izango da. Hau da, “komunitateak azken subiranotasuna mantendu beharko du, bere gobernari eta magistratuei emango zaien gehienezko estatutua hautatutako funtzionarioena izango delarik” (2003; 39). Funtzionario hauek justiziaren agente edo ministro soil gisa ulertu beharko dira, komunitateak bere onura ziurtatzeko ezarri dituen legeak era inpartzialean gauzatuko direnaren eginkizuna bere gain hartuz. Hortaz, Skinner bezalako errepublikanoentzat askatasuna ez da gizabanakoekiko hertsadura edo menderatze ezari lotua egongo, ikuspegi kolektibo batetik beste kolektiboekiko dependentzia ezari baizik (2004: 106-107).

Horrela, liberalek eraikuntza sozialerako izen ezberdinez oinarritzko arauen beharra onartzen bazuten, errepublikanoek arau formaletatik harago egongo den hezurdura moral sendoagoaren beharra azpimarratuko dute. Hezurdura hori *gizalegezko bertutean* edo *bertute hiritarrear* oinarrituko dute. Ildo honetatik, liberalek aldarrikatzen zituzten eskubideekin batera, errepublikanoek gizarteko kide bezala ditugun betebeharrak ere azpimarratuko dituzte, edo Skinnerren hitzetan, “bakoitzak hiritar gisa izan behar dituen *gaitasunak* (...) ongizate komunari zerbitzu egiteko” (2004: 106). Horrela kuraia edo zuhurtzia bezalako baloreak goretsiko ditu; kasu batzuetan, ikuspegi *neo-erromatar* batez, norberaren bizitza komunitatearen⁵⁷ zerbitzura jartzeko bokazioraino. Horren beste erakusgarri bat Sloterdijkek aldarrikatutako *ematearen etikan* aurkitu dezakegu. Egungo jendartean gainean dagoen ikuspegi ezkorari eta horren ondorioz komunitatearekiko sortzen den atxikimendu faltaren aterabide bezala planteatuko du. Ikuspegi ezkor honek bi jatorri izango lituzkete: batetik, kristautasunak *superbia* edo harrotasuna arbuiatu eta apaltasuna nagusitzeko egindako saiakera; eta bestetik, kontsumismo garaikideak narzismo eta erotismoaren alde egindako apologia banala (2010: 27). Bi aldagai hauek balio moral komunitarioen apaltzea ekarriko du, alternatiba kolektiboak irudikatu ezean norbanakoak erresumindura sozialera bideratuz. Horrela, *ematearen etika* maila goreneko balio moral gisa agertuko da; ez soilik maila filosofikoan, jendartearen antolaketa ekonomiko eta fiskalean ere⁵⁸.

⁵⁷ Komunitatearen kontzeptu honi nagusitasuna ematen dion korrantea ere aurkitu dezakegu errepublikanismoari lotuta, komunitarismoa hain zuzen ere. Bertan, honen inguruan luzatuko ez bagara ere, askatasuna egikaritzeko, gizarte antolamendurako oinarritzko egitura gisa eta Estatuaren arreta gune nagusi gisa komunitatea kokatzen da. Pentsaera hau Amitai Etzioni bezalako autoreen eskutik garatu da (*La tercera vía hacia la buena sociedad*, 2001).

⁵⁸ Maila filosofikotik ekonomikorako trantsizio hau Sloterdijken pentsamenduaren atal polemikoena izan daiteke. Honek norbanakoen gaineko derrigortasun fiskalaren ordez, borondatezkoa litzatekeen sistema fiskal berria planteatuz eztabaida ireki zuen Alemaniako ezkerreko zirkuluekin (ika-mika honetan Sloterdijken ikuspegiaren elementu nagusiak *Fiscalidad voluntaria y responsabilidad ciudadana* (2014) liburuan aurkitu daitezke). Honen arabera, egungo jendartean endekatze moralaren jatorrietako bat *ematearekiko ahazturan* kokatuko luke. Hau da, Estatuak betetzen duen biltzaile fiskalak norbanakoak desjabetutako finantziario iturri soil bihurtuko lituzke. Honek gizabanakoen gaitasun moralak indargabetuko lituzke, *ematearen dohaiak* ematen duen harrotasuna edo *thymósa* ahulduz eta joera berekoi edo erotikoak nagusituz.

Egile batzuentzat bertute hauek izaera instrumentala izango dute, hau da, antolamendu politiko demokratikoaren garapen egoki baterako beharrezko tresna gisa planteatuko dituzte. Cass Sunstein-entzat esaterako, errepublikanismo modernoa norbanakoen izaera edota erreferentzia moralak eraldatzeko inongo helburuetatik urrun mantendu beharko litzateke:

“En algunas ocasiones, se apela a la virtud cívica con el fin de fortalecer el carácter individual, un tema de particular importancia en el pensamiento republicano clásico. Pero los republicanos modernos invocan a la virtud cívica en especial para promover la deliberación puesta al servicio de la justicia social, no para elevar el carácter de los ciudadanos” (2004: 153).

Sunsteinen ustez, bertute horien balioa eztabaida demokratikorako beharrezkoak diren hainbat energia piztean legoke, ez eztabaida hori ongizate eredu edota ikuspegi moral zehatz baten arabera norabidetzean. Sandel edo Pocock bezalako joera *perfekzionista* edo aristotelikoen aldekoek, aldiz, balore hauek bere horretan helburu bezala hartuko dituzte, autogobernuaren idealarekin benetako konpromisoa erdietsi nahi bada. Eta beste batzuek, tarteko bide gisa ikusiko dituzte, jarrera pragmatiko eta perfekzionismoaren arteko oreka puntua bilatu nahirik. Balore moralen gainean errepublikanoen arteko ikuspegi ezberdin hauek ez dute liberalekiko duten ezberdintasun nagusia estali behar. Esan nahi baita, azken hauek inongo bertute hiritarrekiko aldendu beharrean bat egingo dute, ongizatearen gaineko ulermen zehatzekin bat egin dezakeelakoan; eta ondorioz, Estatuaren esku hartzea aparte mantendu beharko da. Errepublikanoentzat, aldiz, moral hau jendartearen estruktura mantendu ahal izateko ezinbesteko zutabea izango da.

Greziar *polisean* edota *res* erromatarrean bezala, zaharberitutako birtuosismo honen azken helburua gizartearen ongizate komuna bilatzea izango da. Baina nola definitu zer den *ona guztiontzat*? Errepublikano gehienek sektore sozial ahalik eta handienak eta ahalik eta era aktiboenean barnebilduko dituen eztabaida prozesuaren alde egingo dute. Horrela, guztiek euren ideiak besteen ideiekin era publiko batean lehiatuta, ideia hauen defentsa norberaren interesengatik baino, ongizate komunaren mesedetan planteatzen dela erakutsi ahal izango dutela (Ovejero, 2004: 30). Honakoa komunitate txiki edo ertainei begirako planteamendua izango da, beste tamaina bateko antolamenduen kasuetan ageriko zailtasunak aurkituko dituztelarik; zer esanik ez egungo nazio-Estatu modernoeri dagokionean. Sandelek arazo hau azpimarratuko du:

“Hacia mediados y finales del siglo XX, la república nacional ya había perdido su vigencia. Salvo en momentos extraordinarios como la guerra, la nación demostró ser una escala demasiado grande para cultivar la autointerpretación común necesaria para la comunidad en el sentido formativo o constitutivo” (2008: 231).

Hortaz, tamaina honetako esparru politikoetan, ongizate komunaren definiziorako eztabaida publikoaren funtzioa zailduko litzateke, eztabaida prozesu horretan adosten diren baloreen izaera zuzentzailea ahulduko litzatekeelarik. Horien orde, XX. mendean zehar mendebaldeko jendartean irudikapen kolektiboan eskubideek nagusitasuna hartuko dute printzipio eratzaille edo zuzentzaile bezala, horiek askatasun indibidualaren bermatzaile bihurtuz.

Korrante errepublikanoaren oinarritzko ezaugarrien errepasso honekin bukatzen joateko, parte hartze politiko aktiboa sustatu nahi duen logika honetan, Estatuaren funtzioei erreparatuko diegun. Skinnerrentzat XVII. menderako Estatu Europako pentsamendu politikoaren aztergai nagusia bilakatu zen lau arrazoi ezberdin direla medio: a) politika filosofia moralaren diziplinatik kanpo kokatu beharreko esparru gisa ulertzen zen; b) *regnum* edo *civitas* bakoitza edozein kanpo potentziekiko aske kokatzea bere burua; c) *regnum* bakoitzan dagoen botere nagusiari izaera legegilea aitortu behar zaio, Erdi Aroan nagusi izan ziren botere bateratuen irudia bazterrean utziz; eta d) jendarte politikoa soilik helburu politikoak erdiesteari lotuta ulertzearen beharra, ez helburu erlijioso edo bestelakoei lotuta (1986: 359-362). Estatuaren kategoriaren nagusitasun hau Estatu eta gobernarien arteko kontzeptuen bereizketari lotuta agertuko zaigu. Bi kontzeptuon ezberdintzea prozesu hau XV. eta XVI. mendeetan Europako herrialde nagusietan zehar (Italia, Frantzia eta Britania Handia, nagusiki) gauzatu zen trantsizio luzea izan zen. Skinnerrentzat bilakaera honetan Machiavellik eta bere *Printzeak* funtsezko papera jokatu zuten. Berari esker, garaiko gobernarietazako aholku sortaz harago, hurrengo mendeetan mendebaldeetako herrialdeetako politikaren adieran nagusi bihurtu den Estatuaren kategoriak kokaleku zentrala hartuko du.

Estatuaren funtzioen inguruan ikuspegi ezberdinak aurkituko baditugu ere, gehienek ongizate komuna egikaritzeko arauen inplementazioan Estatuaren erantzukizuna azpimarratzean bat egingo dute. Zentzu honetan, Sloterdijk egun Estatu eta hiritarra artean ematen den lubakia edo, bere hitzetan, *zentroaren higadura* salatzeke orduan kritiko azalduko da (2014: 54). Egungo *zergazko Estatu tautologikoak* (2014: 38) hiritarra zerga emaile huts gisa irudikatuko luke, borondatezko zerga sistema batek indartuko lituzkeen balio sistema *thymótikoa* baino (eskuzabaltasuna, enpatia, ematearen harrotasuna, ...), kontsumismo hedonista edota etsipenera bideratuz. Gainera, lubaki

honen dimentsio are handiagoa litzateke, lubaki hau zerga sistemaren euskarri nagusia den zentro soziologikoarekiko ematen dela aintzat hartzen bada⁵⁹. Bere ustez, *ematearen etikaren* bitartez *emailearekiko ahaztura* hau gainditzea izan beharko litzateke Estatuaren funtzio nagusia.

Horrela, *bertute hiritarrekin* ikusi bezala, Estatuaren funtzioen gaineko ikuspegi pragmatikoagoak edota aristotelikoagoak aurkituko ditugu. Lehenengoen artean, Pettit aurkituko genuke. Honen arabera, Estatuak ezarritako arau edo lege hauek ez lukete zertan borondate kolektiboaren emaitza izan behar; Gobernuak bere autonomia izango luke hauen definizioan, beti ere jendartearen kontrola bermatuz. Horretarako, ekintza instituzional guztiek *popular contestation (lehia herritarra)* deritzona gainditu beharko lukete; arau guztiak eztabaida publikora eramanda herritarren iragazkia gainditu beharko luketelarik (Pettit, 1997: 277). Hortaz, legeak ez lirateke zertan herri borondatearen emaitza zuzena izan, borondate aktibo hau (errepublikanoen askatasun positiboa) bermatzeko bidea baizik. Sandelena bezalako ikuspegi perfektionistentzat, aldiz, Estatuak ezin izango du jarrera neutral bat izan (2011: 303). Estatuaren ustezko jarrera inpartzialaren aurrean, Ongizate komunaren inguruko iritzi ezberdinen existentzia ez da arrazoi nahikoa izango Rawlsek aldarrikatzen zuen “arrazoizko aniztasuna” nagusitzeko. Izan ere, justizia edota eskubideak bezalako kategorien ustezko inpartzialtasuna beti komunitate bateko balore sistema moralaren baitan ulertu beharko baita eta Estatuak, horien bermatzaile bezala, karga moral horren eramaile bezala agertuko zaigu.

4.2.2.1 Sandel eta balore moralak.

Sandelek kolektibitatearen eraikuntzan balore moralei emandako nagusitasuna eta Estatuari horien erreprodukzioan emandako funtzioa ulertzeko, Rawlsi egindako kritika aintzat hartuko dugu; bata zein bestearen posizioen gabeziek Mouffek planteatuko duen eredu agonistikoaren nondik norakoak hobeto ulertzen lagunduko digutelarik.

⁵⁹ Ildo honetan “ezker ameslari erreakzionarioarekin” mantenduko duen ika-mika interesgarria izango da. Bi zentzutan: lehenik, tradizio marxistaren ondorengo litzatekeen “desjabetzean” oinarritutako sistema fiskala, Ilustraziotik hona nagusitu den “inposizio tributarioen” isla baino ez litzatekeelako. Jatorri absolutista izango lukeen bigarren eredu honek, Ilustrazioarekin batera bere aurpegi paternalistena erakutsiko luke zerga sistemaren ezarpenari onarpen soziala emanez baina, beti ere, zordunaren figura indartuz emailearena baino. Esplotatzaileen desjabetzearen ereduak ere, joera autoritario berdina erakutsiko luke, goitik beherako sistema erreproduzituz; horrela, bata zein besteak justifikazio etiko ahula erakutsiko luketelarik (2014: 41-45). Eta Sloterdijkek ezkerarekiko irekitako bigarren frontea “Hard, Negri edota Zizek bezalako komunista nostalgikoek” aldarrikatzen duten bazterreko sektore sozialek osatuko luketen “subjektu iraultzailearen” fantasiatik letorke. Beheko mailetan kokatzen direnekiko arreta honek “komunaren oinarria osatzen duen zentro emailearekiko” ahaztura dakarrela salatuz (2014: 77-78).

Sandelen kritikaren abiapuntuan Rawlson *deslotutako ni-a* aurkituko da. Ideia honek balore konpartituek sortzen duten *lotura eratzailleetatik* aske egongo litzatekeen subjektu indibidualari erreferentzia egingo dio. Rawlson arabera, subjektuaren kategoria hau, norbanako guztiok izan ditzakegun helburu edo asmo zehatzak baino lehenagokoa litzateke eta justiziaren ideiak duen nagusitasunarekin lotuta legoke. Hau da, gorago aipatutako jatorrizko posizioan, *ez-jakintasanaren errezelaren* bitartez aukeratutako justizia irizpideak edozein jendarte proiektu eta helburu zehatzen gainetik kokatu beharko lirateke. Aukeraketa honek gizakiari ez dio gainontzeko norbanakoekiko edota jendartearekiko inongo lotura moralik suposatuko; alde horretatik, *deslotuta* jarraituko luke bere indibidualtasunaren nagusitasuna mantenduz. Justiziaren adiera horren gainean norbanakoei subjektu izaera emango diguten eskubide indibidualak zehaztuko lirateke. Egoera teoriko honen aurrean Sandelek bere buruari galdetuko dio:

¿Podemos concebirnos como *yo-es independientes*, independientes en el sentido de que nuestra identidad nunca está atada a nuestros fines y vínculos? No creo que podamos hacerlo, al menos no sin ningún coste respecto de esas lealtades y convicciones, cuya fuerza moral reside en parte en el hecho de que vivir por ellos es inseparable de concebirnos como las personas particulares que somos, como miembros de esa familia, comunidad, nación o pueblo, como portadores de tal historia, como ciudadanos de una república. Compromisos como éstos son más que valores que casualmente poseo y defiendo desde cierta distancia. Van más allá de las obligaciones que voluntariamente contraigo y de los “deberes naturales” que le debo a los seres humanos como tales. Permiten que yo les deba a algunos más de lo que la justicia pide o aún permite, no debido a acuerdos que yo haya hecho, sino, en cambio, en virtud de estos vínculos y compromisos más o menos duraderos que, en su conjunto, definen parcialmente la persona que soy. Imaginar una persona incapaz de tener vínculos constitutivos como éstos no es concebir a un agente idealmente libre y racional, sino imaginar a una persona carente de carácter, sin profundidad moral” (2008: 226-227).

Ni-aren deslotura teorikoa deseraikitzen jarraitzeko, Sandel “gizakiei zor diegan eginkizun naturalez” ari denean, zertaz ari den argitu beharko litzateke. Rawlson *ezberdintasun printzipioak* norbanako bakoitzari zoriz egozten dizkion dohainez ari da. Rawlson arabera dohain hauek baliatu nahi badira, soilik gutxien mesedetutako egoera hobetzeko baliatu beharko lirateke. Sandelek, Rawlson ezberdintasun printzipioen egikaritzea alde aurretik gutxieneko lotura moral bat eskatzen duela salatuko du (2004: 85). Izan ere, zerk eramango du gaitasun horiek kolektibitate baten edo

beste baten mesedetan erabiltzera helburu komun batzuk sortzen dituen lotura moral horiek ez badira? Ikuspegi liberalak behar duena, baina eman ezin duena, izaera morala duten printzipio eratzailleak izango dira. Baina eskubide indibidualen nagusitasunaren printzipioa mantendu nahi badu, ezin izango du jendartearen helburu komun horien izaera eratzaillea aitortu.

Mouffek Sandelekin bat egingo du, Rawlsek justizia eta eskubideen nagusitasuna behar bezala arrazoitu ez duela esaterakoan, baina ezin izango da Sandelekin ados egon, eskubideen gainetik ongizate komunaren nagusitasuna aldarrikatzen duenean (1999: 53). Sandelen joera hau moralitateari emandako gehiegizko pisuaren ondorio izango da, eta zehazkiago, morala eta politika ezberdintzeko gaitasun ezaren emaitza. Azaldu gaitezen.

Mouffek komunitate zehatz batean moralaren adiera zehatz bat nagusitu behar izatearekin bat egingo ez badu ere, aldagai egituratzaileen beharra azpimarratuko du. Horrela, aztertzen ari garen kasuetan, komunitate *politikoez* ari garela nabarmenduko du. Hau da, eskubideak aitortu eta gauzatzeko beharrezkoa den komunitateaz; demokrazia liberalez, hain zuzen ere. Zentzu horretan, kolektibitate horren ongizate moralaren gaineko ikuspegi bakarra ezartzeko mugapenak aipatu baditugu ere, Moufferen ustez, ikuspegi moral hau, elkarte politiko bat elkarte gisa definitzen duen *ongizate politikotik* ezberdindu beharko genuke (1999: 54). Sistema demokratiko liberal batek termino moraletan inongo inplikaziorik izan behar ez badu ere, jendarte bat kolektibitate politiko bezala identifikatzeko beharrezkoa izango da *ongizate politikoari* dagokionez inplikazio maila bat izatea; sistema hauek ezaugarritzen dituzten askatasun eta berdintasun printzipioekiko fideltasunaz ari gara. Machiavelliren *Printzetik* datorren moralaren eta politikaren arteko oinarritzko banaketa hau, aro modernoan hiritartasun errepublikanoa aldarrikatzen duten Sandel bezalako autoreek ez dute behar bezala mamituko. Bere pentsamenduan, politika etikaren menpeko izango da; horrela, ongizate komunaren arabera gobernatzeak aniztasun politikoa errefusatu eta ikuspegi moral bakarra sustatzea ezinbestekoa izango dela pentsatzera eramango ditu. Moufferen arabera, bai liberalen zein errepublikano modernoan arazoaren muina berdina izango da: *politikoaren* funtsa ezaugarritzeko mugapenak (1999: 55). Batzuk eta besteek jendarte antolaketa ezaugarritu behar duen politikoaren muinari *prozedurazko* izaera emango diote, bere izaera *eratzaille* gatazkatsuen ikuspegia planteatu gabe. Izan errepublikanoek (moral komunaren ikuspegia lehenesten dutelako), izan liberalek (norbanakoen eskubideak *a priori* aitortuak zaizkigunaren ikuspegia lehenesten dutelako), jendartea *jendarte* egingo duen *politikoaren* dimentsio gatazkatsu eta aurre definitu gabeari uko egingo lioke.

4.3 *Politikoaren dimentsioa*

Mouffek, *politikoaren* izaera lehiatsuaren eraikuntza teorikorako, Carl Schmitten pentsamendura joko du. Heideggerren kasuan bezala, gerora nazional-sozialismoarekin izan zuen harreman ilunetatik harago, Schmitten pentsamenduak ondare baliagarria utzi zigun jendarte modernoan antolamenduen eta, zehazkiago, demokrazia liberalen gabeziak ezkerreko ikuspegi batetik ere aztertu ahal izateko. Dimentsio gatazkatsu hau behar bezala kokatzeko *Politikoaren kontzeptua* (1932) liburuan demokraziaren ideiaz egiten duen azalpena funtsezkoa da. Schmittentzat demokrazia “herriaren borondate bateratua” litzateke. Eta zentzu horretan, sistema demokratikoa “printzipio edota ideia zuzentzaile batzuen inguruan, Estatuaren konfigurazio zehatz baten aldeko erabakiaren isla” (1991: 14-15). Hau da, demokrazia homogeneousunarekin parekatzera joko du. Homogeneousun honek printzipio batzuk sistema demokratikotik kanpo uztera eramango duelarik. Zentzu honetan, demokrazia schmittiarra *pluralismoarekin* bateragaitza litzateke. Liberalismoari egindako kritiken harira, bere ustez askatasunak ez du demokraziarekin bat egingo. Bi hauek parekatzea eskema liberal-burgesaren printzipioa izango litzateke, orientazio moralak gidatuta ideia humanista eta indibidualista batzuetan oinarritzen dena.

Ildo honetan, jendartearen konfiguraziorako gako printzipio zuzentzaile hauen inguruan hartzen den erabakia izango da. Schmitten pentsamendua *erabakiaren* logikaren gainean eraikia dagoela esatera jo ohi da. “Erabaki fundatzaile” honek Estatuaren oinarria osatuko du. Horrela, Estatua hautu horren *status* gorena izango litzateke (1991: 48); horren kristalizazioa nahi bada. Estatuaren eta politikoaren arteko harremana, ordea, gatazkatsua izango da; batez ere Estatuaren esku hartze esparruak zabalduz joan diren heinean. Schmittek, Estatuak landu ohi ez dituen eremu pribatuko gaietan esku hartzea salatuko du. Erabaki fundatzaile baten gainean eraikitako jatorrizko Estatua, *Estatu totala* edo oro-harrapatzailea bihurtzeko joera errefusatuko du, esparru pribatuko gaien politizazioak Estatuaren izaera politikoa desnaturalizatu edota despolitizatzea eraman duelako. Estatua eta jendartearen arteko erabateko identifikazioan oinarritutako eredu honetan guztia potentzialki politiko bihur daiteke, Schmitten ustez politikoaren izaera eratzailea desitxuratuz (1991: 53).

Zentzu horretan, *printzipio demokratikoa* Estatua eraikitzen den irizpideen zehaztapenerako bidea izango da. Ikuspegi honek talka egingo du liberalek planteatuko duten demokraziaren prozedurazko izaerarekin. Schmitten ustez, demokraziak izaera *esentziala* (*sustantivo*) behar du. Edozein kasutan,

izaera esentzial honen eduki zehatza ez du zehaztuko. Esentzia honek politikoaren adiera osatuko du. Alde horretatik, politikoa giza bizitzaren eremu ezberdinetatik eratorri ahal izango da, antagonismo erlijioso, ekonomiko, moral eta abarrekoetatik.

“Por sí mismo lo político no acota un campo propio de la realidad, si no sólo un cierto *grado de intensidad* de la asociación o disociación de hombres. [...] Lo que decide es siempre y sólo el caso de conflicto. Si los antagonismos económicos, culturales o religiosos llegan a poseer tanta fuerza que determinan por sí mismos la decisión en el caso límite, quiere decir que ellos son la nueva sustancia de la unidad política. Y si carecen de la fuerza necesaria para evitar una guerra acordada en contra de sus propios intereses y principios, eso significa que no han alcanzado todavía el punto decisivo de lo político.” (1991: 68-69).

Rawls edo Sandel ez bezala, Schmittentzat jendartearen bateratasun printzipio ez da alde zurretik definitua egongo; ez dira eskubide indibidualak edota moralitate komun bat izango. Printzipio hauen definizioa gatazkatsu izango da; are gehiago, antagonikoa. Honek printzipio batzuk logika eratzaitetik at uztea eskatuko du, berak definitutako sistema demokratikotik kanpo geldituko lirake. Printzipio baten edo bestearen aldeko dekantazioa horren inguruan trinkotutako indarra edo intentsitateak baldintzatuko du, indar maila nahikoa lortzen baldin badu “bateratasun politikoaren sustantzia” berri hori osatuko duelarik.

Politikoak bere definiziorako irizpide propioak izango ditu; moralak, ekonomiak edota bestelako domeinuek izango dituztenetatik bereizita. Domeinu hauen nondik norakoek zehaztapenean Schmittek logika duala planteatuko du; moralitatean, esaterako, ongia eta gaizkiaren irizpideek finkatuko dute; ekonomian, errentagarria eta errentagarritasunik gabea. Horrela, politikoaren esparruan *lagun/etsai* dualismoak finkatuko du ezberdintasun nagusia. Logika honek bateratasun edo diferentzia gradurik altuena zehaztuko du. Hau da, *etsaia* ez da soilik aukera batekiko aurkakotasuna agertzen duen hori, baizik eta aukera eratzaille horri era *aktiboenean* kontrari aritzen den hura izango da; “etsaia, soilik etsai *publikoa* izango da” (1991: 59), jendartearen bateratasun printzipioa urratzen duena, hain zuzen ere. Horrela, antagonismoa harreman politikoaren esentzia bihurtuko da. Pentsaera honetan *gerra* beti presente egongo den aukera bihurtuko da, etsaitasunaren muturreko adierazpen gisa. Are gehiago, *politikoaren* kudeaketaren forma nagusia hartuko du, demokraziaren berdintasun printzipioa urratzen duen oro ezabatzeko bide bezala. Zentzu honetan, politikoak ez diren bestelako identifikazioak egon ahal izango dira (elkarte kultura edota erlijioso baten parte gisa, esaterako) baina Schmittek hauei bigarren mailako izaera emango die; are gehiago,

pluralismoaren logikatik eratortzen den identifikazio anitz hau politikoaren kontzeptuarekiko mehatxu gisa ulertu du, eta ondorioz, borrokatu beharreko zerbait bezala. Gerrarako aukerak politikoari ematen dion nagusitasuna (gizabanakoen bizitza jokoan jartzearen ondorioz) nahikoa izango da printzipio pluralisten logika errefusatzeko (1991: 77).

Ikusten ari garen bezala Schmittek liberalismoaren bizkarretan kokatuko du politikoaren desnaturalizazio honen erantzukizuna. Izan ere, bere ustez Europako jendartearen azken mendeotako bilakaeran ardatz nagusi ezberdinek “grabitate zentroaren” funtzioa bete dute, fase historiko honetan liberalismoa, pluralismoaren izenean, zentro horren neutralizazioan tematuta egongo litzatekeelarik. Schmitten ustez, azken lau mendeotan ardatz hauen etengabeko desplazamendu bat ematen joan da: XVI. mendean teologiak bete zuen espazioa, XVII.ean metafisika arrazionalistak beteko du; eta XVIII.ean humanismo moralistak bete zuen bezala, XX.ean ekonomiak. Ilustrazioaren etorrerarekin eta lehia teologikoen gainditzearekin batera, gizateriak ikuspegi ezberdinen arteko adostasuna posible egingo lukeen *neutraltasunaren* orubearen bila jo zuen. Horrela, XVI. mendetik aurrera ematen joan diren desplazamenduak neutraltasun horren bilaketa lanean kokatu beharko genituzke.

“La dialéctica de una evolución de esta clase hace que cada vez que se desplaza el centro de gravedad surja un nuevo terreno de disputa. En este nuevo dominio, inicialmente tenido por neutral, se desarrolla de inmediato y con renovada intensidad el antagonismo entre hombres e intereses, con tanta más virulencia cuanto más firmemente se tome posesión de él. En Europa la humanidad está siempre saliendo de un campo de batalla para entrar en un terreno neutral, y una y otra vez el recién alcanzado terreno neutral se vuelve nuevamente campo de batalla y hace necesario buscar nuevas esferas de neutralidad” (1991: 117).

Domeinu horiek gutxieneko elkarbizitza, adostasun, bake eta elkar ulertzea lortzeko oinarri izateari uzten diotenean, ustez baldintza hauek bermatu ahal izango dituen domeinu neutral berri bat bilatu beharko da. Bilaketa hau, ordea, prozesu gatazkatsua izango da. Zentzu honetan, Schmittek lehia honi izaera *ontologikoa* emango diola esan dezakegu.

Schmitten arabera, liberalismoak neutraltasunaren domeinu garaikidea *teknikaren* gainean eraiki nahi izan du. Baina azken mendeotako historiak erakutsi bezala ustezko neutraltasunerako joko zelai berria antagonikoak diren interesen arteko lehia politikorako orubea baino ez da izango. Teknikaren erabilera edozeinen eskuetan egoteak itxurazko neutraltasun hori emango dio. Baina

teknikak ez du inongo komunitatea eratuko; hau da, teknikak ez du izaera politikoa izango, bitarteko bat baino ez da izango (1991: 118). Jada XX. mendearen hasieran teknikaren “arima faltaren” edota “kulturaren heriotzari” erreferentzia egingo dioten adierazpenak entzun ahal izango dira Max Weber bezalako pentsalarien eskutik. Baina Schmittek teknikaren *mami* faltaren ideia honekin bat egingo badu ere, horrelako adierazpenak autore hauek beraien statusa galtzeari dioten beldurrari egotziko die. Zentzu horretan, Schmittek XX. mendearen hasierako teknikaren nagusitasun hori behin behinekotzat hartuko du, fase historiko horren behin betiko domeinua teknika horren jabetza zehazten denean argituko dela azpimarratuz. Jabetza horren gainean eraikiko dira laguntasun eta etsaitasun taldeak. Denboraren bilakaerak ematen digun ikuspegiarekin eta logika neoliberalak lortutako nagusitasuna ikusita, ez du ematen Schmitzen aurreikuspena egungo errealitate oso urrun dagoenik.

Eta pluralismoaren salaketarekin batera, liberalismoaren eskutik ere nagusitu zen parlamentarismoari egindako kritika ezaguna egingo da. Modu batean pluralismoari egindako kritikaren luzapen gisa ulertu dezakegu. Ikusten ari garen bezala, Schmittentzat demokrazia eta liberalismoa kontzeptu erabat ezberdinak izango dira; lehenengoak bateratasunaren ideia adierazten duen bitartean, bigarrengoak aniztasunari garrantzia emango dio. Adiera demokratikoaren jatorrietara joz, erregearen botere absolutistaren kontrako borrokan demokrazia eta liberalismoaren arteko ezberdintasun hau agerikoa zen, baina monarkiarekiko antagonismoa desagertu zenean, biak elkarlotzeko joera areagotu zen (1990: 31). Esan nahi baita, ordura arte jendartearen bateratasun printzipioa (demokraziaren adiera schmittiarra) monarkiarekiko aurkakotasunean definitzen bazen, hortik aurrera, demokraziaren eginkizuna mahai gaineratzen ari ziren asmo politiko ezberdinen kudeaketa pluralistari begira kokatu zen (demokraziaren adiera liberala), honi liberalek horren gustuko duten prozedurazko izaera emanaz. Horretarako ordezkari eta ordezkatuaren borondateen identifikazioaren ideia indartu zen, parlamentarismoa horren adierazpide nagusia bilakatuko zelarik. Horretarako parlamentarismoak hiru zutabe indartu beharko lituzke: eztabaida publikoa, publizitatea eta botere banaketa. Baina Schmittek ikuspegi honen mugak agerian utziko ditu.

“La realidad de la vida parlamentaria y de los partidos políticos y de la convicción común están muy lejos de tales creencias (ordezkari/ordezkatu borondateen identifikazioarena, hain zuzen ere). Las grandes decisiones políticas y económicas, de las cuales depende el destino de las personas, ya no son (si es que alguna vez lo han sido) el resultado del equilibrio entre las distintas opiniones en un discurso público, ni el resultado de los debates parlamentarios” (1990: 64).

Jarraian, besteak beste, batzorde itxietan hartzen diren pisuzko erabakien prozedura iluna edota alderdi politikoek kapital handiarekiko duten menpekotasuna salatuko ditu, parlamentarismo ideal honen gaur egungo iruzurra agerian uzteko, jarraian geure buruekiko zintzotasun eta errealismo ariketa planteatuz:

“Puede que, en la práctica, no exista otro camino. Pero entonces se debería tener la suficiente conciencia de la situación histórica para comprender que, así, el parlamentarismo ha quedado despojado de su propio fundamento espiritual, perdiendo por completo su *ratio*⁶⁰ todo el sistema de libertad de expresión, reunión y prensa, debates públicos e inmunidades y privilegios parlamentarios” (1990: 64-65).

Schmittek, monarkiaren gehiegikerien kontra sortutako jatorrizko printzipio hauek izandako bilakaerak eragindako desilusio eta etsipenaren gainean, jendartearen berreraketarako *politikoaren* ideia aldarrikatuko du, honen izaera gatazkatsua baztertu ezin izango den berezko ezaugarri gisa ulertuz. Bere ikuspegiak joera autoritarioen arriskuari ateak irekiko badie ere, jendartearen konfigurazioak duen izaera lehiatsua aitortuko du. Eta aldi berean, ekidinezinezko kontsentsuaren ideala baztertuta, gehiegikeria totalitarioak ekiditeko bidea ere izan daiteke. Izan ere, hainbat joera fundamentalista areagotzearen jatorria, egungo demokrazia liberaletan indarrean den *status quo*-a zalantzetan jartzera jo izan duten diskurtsoak sistematik kanpo uzteko tendentzia horretan kokatu beharko genuke. Pentsaera horiek demokrazia liberaletan bere garapenerako adierazpiderik ez aurkitzean, sistematik kanpoko bideak bilatzera jo dutelarik.

Zizekek ere une politikoaren ukapenaren arriskuaz ohartzen digu (2007: 28-30). Ukapen honek forma ezberdinak hartu ditzake:

- *Artxi-politika*: organikoki egituratutako espazio sozial tradizional eta homogenea definitzeko saiakera komunitaristek gertaera politikoaz azalarazteko aukerak indargabetu egingo lituzkete. Bertan kokatu ditzakegu Sandelen balore moralak edota Skinnerren bertute hiritarra.
- *Para-politika*: politika despolitizatze saiakera bezala uler genezake. Bertan gatazka politikoak onartzen da, baina hirugarren batek edo *polizia* batek zuzendutako alderdi edota zilegitutako aktore politikoaren arteko lehia gisa. Lehia horretan helburua botere exekutiboa behin behinean eskuratzea litzateke. Rawlsek planteatutako mekanismo ezberdinak (ez-

⁶⁰ Izateko jatorrizko arrazoia.

jakintasunaren errezela, ...) edota, jarraian aztertuko dugun bezala, Schumpeterrek interes ezberdinak gehitzeko egindako saiakera, antagonismo politikoa deusezteko saiakera gisa uler ditzakegu. Horretarako, egiazki *politikoa* litzatekeen eztabaida politikoa ekiditeko arauen barnean jokatuz.

- *Meta-politika*: gatazka politikoaren existentzia aitortzen du, baina honen arabera “egiazko” politikaren azken helburua bere “auto-anulazioa” litzateke, borondate kolektiboak zuzendutako ordenu arrazional eta garden batengatik ordezkatzuz. Marxismo tradizionalaren korrante ezberdinak honen erakusgarriak lirateke.
- *Ultra-politika*: politikaren militarizazioaren bidez emango litzatekeen gatazkaren despolitizazio saiakera gisa uler genezake. Politika “gu” eta “haien” arteko gerra gisa irudikatuz, gatazka sinbolikoaren garapenean konpartitutako edozein orube komun desagertzeko ahalegina litzateke. Arestian aztertutako Schmitten politikoaren adierak bete-betean bat egingo luke eredu honekin.
- *Post-politika*: honek negoziazio enpresarialaren eta konpromiso estrategikoaren eredia barne bilduko luke. Alderdi politikoek ordezkatzeko lituzketen mundu ikuskera ezberdinen arteko lehia, teknokraten eta multikulturalista liberalen arteko elkarlanarengatik ordezkaturia izango da. Honek, *aitzinako* banaketa ideologikoak ahaztu eta arazo berriak adituaren laguntzaren bidez eta libreki eztabaidatuz ebatzea eskatuko luke. Modernitate berantiarrean post-politikak gatazka politikoa erreprimatu ez ezik, eztabaida politikotik kanporatuko luke. Jarraian ikusiko ditugun Jürgen Habermas, Ulrich Beck edota Antony Giddens-ek post-politika honen eredu ezberdinak osatuko lituzkete.

Garai postmoderno hauetan politika “posible denaren artea” dela esaten duen esamoldearen aurrean, Zizekentzat politika *den* horren testuingurua aldarazten duen hori izango da. Hau da, ezarritako arau eta ordenua aldarazten duen gertaera politikoaz ariko da; edo hasierako esamoldeari jarraiki, politika “ezinezkoaren artea” litzateke.

4.4 Demokraziaren adiera ezberdinak

4.4.1 Demokrazia *gehitzalea* eta demokrazia *eztabaidazalea*.

Schmittek demokrazia parlamentarioari egozten dizkion gabezia hauek, XX. mendearen bigarren erdialdean nagusitu den demokrazia eredu *gehitzalearekin* (*agregativo*) zerikusi handia izango dute. Masen demokraziaren garapenarekin, jendarte eraikuntza eta kohesiorako subiranotasunaren kategoriak oinarri izan dituen elementuen (eztabaida publikoa, funts eratzalea, ...) hainbat muga agerian geldituko dira. Moufferen ustez, interesen ugaltzearekin, arreta lehentasunen agregazioan jarriko zuen demokrazia eredu beharrezkoa egin zen, lehentasun horiek aldiro aukeratutako alderdi politiko batzuen bidez zehaztuko zirelarik (2000: 96). Horrela, demokrazia bera, hauteskunde prozesu lehiatsu baten bidez, jendarteak bere zuzendariak hautatzeko sistema gisa definitua izango da. Korrante honek, demokraziaren ohiko izaera *normatibotik* (“ongizate komuna” edota “borondate orokorra” zehaztera jo izan duena), ikuspegi *deskriptibo* baterako bilakaera egingo du. Bere erreferente argienetakoa Joseph Schumpeter izango dugu, 1947an idatzitako *Kapitalismoa, sozialismoa eta demokrazia* idazlanak bilduko dituelarik ikuspegi honen ardatz nagusiak. Bera eta bere pentsaera garatu zutenen ustez⁶¹, interesen eta baloreen pluraltasuna “herria” kontzeptuaren berezko ezaugarri izango da. Gainera, norbanakoen jarduna mugi-arazten duena norberaren interesa denez, eta ez komunitatearen ongizatea helburu izango lukeen sinismen morala, interes hauek alderdien arteko negoziazio gai nagusiak osatuko lukete. Horrela, erabaki politikoetan parte hartze soziala sustatzea baino, hau apaldu beharko zen, sistemaren funtzionamendurako akatsak baino ekarriko ez zituelakoan. Jendartearen egonkortasuna, jendartearen ongizate komun baten alde mobilizatzen baino, interes ezberdinen arteko negoziazio eta konpromiso batetik etortzea errazagoa litzateke. Horrela, demokraziak funtzio normatiboa galduko luke, izaera instrumentalaren mesedetan (Mouffe, 2000: 96-97).

Interes sektorialen aniztasunaren kudeaketarako demokraziaren adiera instrumental honekiko erreakzio gisa, 70. hamarkadan jada azaldutako joera moraleko Rawlsen justiziaren inguruko pentsamendu guztia mahai gaineratu zen; baita, XX. mendearen azken hamarkadetan, autore ezberdinek planteatutako demokraziaren ikuspegi *eztabaidazalea* (*deliberativo*). Azken joera honek bere adierazpide nagusietakoa Jürgen Habermasengan izango du. Izaera liberaleko korrante honek bere arreta ordura arteko sistema demokratikoetan nagusi izan ziren bi ardatzen adiskidetzearan jarriko du; hau da, subiranotasun demokratikoa eta liberalen askatasunak (Habermas, 1998: 127). Horretarako bidea eztabaida arrazionala izango da. Bere ustez, eredu honek subiranotasun

⁶¹ Ikusi Anthony Downs-en *Teoría económica de la democracia* (1973).

demokratikoak ekarri ditzakeen norbanakoen eskubideen inguruko arriskuak uxatzeko balio izango duelarik. Arrazionaltasun publikoak jendartearen gaineko autoritatearen eta legitimitatearen fundaziorako oinarria jarriko du, demokraziaren izaera normatiboa indartuz eta *prozedurazko* izaera hutsa bigarren maila batean utzita. Eztabaidaren prozedurak inpartzialtasuna, berdintasuna, zintzotasun eta hertsadura eza ziurtatzen duten bitartean, eztabaida arrazional batek akordio *moral* bat lortu ahal izateko bidea zuzendu ahal izango luke (Mouffe, 2000: 103).

Demokraziaren ikuspegi eztabaidazale honek, *bigarren modernitatea* deitutakoan garapen handia izango du. Globalizazioak eta bloke sobietarraren erorketak ezaugarritutako modernitatearen bigarren aro honetan, askoren ustez, nortasun kolektiboen ahultzeak “etsairik gabeko” mundu bat posible egingo luke. Gatazka partisoak iraganeko aferak izango lirateke eta, egun, kontsentsuak eztabaidaren bidez lortu ahal izango lirateke.

Antropologia baikor honek Habermasen ikuspegiarekin bat egingo du eta Ulrich Beck edota Anthony Giddens bezalako pentsalariei esker egungo sen onaren edo *zeitgeist* politikoaren erdigunean kokatua legoke. Azken bi autore hauek, industrializazio prozesuari lotutako lehenengo modernitateak jendartea ulertzeko eta afera sozial eta politikoak kudeatzeko eskaintitiko bitartekoek, bigarren aro honetan izango duten baliagarritasun ezan bat egingo dute. Ezker/eskuin ardatz politikoak, alderdi politikoak/sindikatuak eta horrelako bitartekoak jada gairatutako arazo politiko-sozialen kudeaketarako agortutako tresnak lirateke. Becken (1998) *arriskuaren jendarte* postmodernoan oinarritako gatazken izaera ez legoke ondasunen banaketari lotuta (soldata, enplegua, onura sozialak eta abar), ondasunen banaketaren erantzukizunari baizik; hots, ondasunen ekoizpena eta modernizazioak suposatzen duten arriskuen kudeaketari lotutakoak lirateke funtseko arazo sozialak (1994: 5): ama lurraren zaintzaren ingurukoak, genero diskriminazioari lotutakoak eta abar. Modernizazioaren ondorio kolateral hauek bigarren modernizazio honetan nagusitasuna hartuko lukete, *azpi-politikaren* dimentsioari atek irekiz. Ordura arte norbanakoen esparru pribatuan gelditutako gaiak izaera politiko berri bat hartuko lukete eta tradizionalki eztabaida publiko-politikoaren lehenengo lerroan egondako gaiak bigarren maila batean geldituko lirateke. Beckek, Giddensek bezala, *ziurgabetasunaren* ideari garrantzia handia emango dio. Modernizazioaren eskutik eratorritako garapena, joera marxista tradizionalak planteatutakoaren kontra, ez litzateke bilakaera planifikatu edota ibilbide sozial determinatu baten ondorioz gauzatutako prozesu historikoa; kontrol arautu edota planifikaturik gabeko bilakaeraren ondorio baizik. Alde horretatik, gizakiaren pentsamenduan ziurgabetasunak gai zentrala beharko luke. Zalantzaren nagusitasun honek, beste garai batzuetan ez bezala, joera antagonikoak ekidingo

lituzke, eztabaidaren bitartez konponbide indibidualak aurkitzeko aukera erraztuz⁶². Logika honi jarraituz, Giddensek *bizitza politikaren* (1991: 265-291) filosofia planteatuko digu, non aurreko garai modernoetan ez bezala, gizakiak ez lituzkeen helburu emantzipatzaile orokorrak bilatu beharko; globalizazioak bere eragin eremua bizitzaren esparru guztietara zabaldu duen honetan, *auto-egikaritza prozesu indibidualen* bitartez (hau da, norberak bere gertuko inguruneari erreparatuta), ahalik eta hoberen bizi ahal izateko erabakiak hartzean legoke gakoa; beti ere, sistemaren eraldaketa edota helburu emantzipatzaile orokorrak alde batera utzita, globalizazioaren logikak eskaintzen digun markoaren *adostasunaren* gainean.

Moufferentzat, ikuspegi honen alderik kezagarrienetako bat, mendebaldeko modernizazio prozesu honen arrakasta eta baliagarritasuna zalantzetan jartzera joko duten ikuspegiak baztertzeko joera izango da. Horrela, globalizazio prozesu honen emaitza izango liratekeen demokrazia *standarrak* kuestionatuko dituzten joerei, izaera tradizionalista edota fundamentalista egotziko zaie; lehenengok jada “gainditutako” sistema politikoak aldarrikatuko dituztelako eta bigarrenengok demokrazia eta askatasuna kinka larrian jarriko luketen sistema autoritarioak defenditzen dituztelako. Hortaz, joera hauek sistematik kanpo kokatu beharko dira, eredu eztabaidazaleak ematen duen joko zelatik kanpo, alegia; arerio izan beharko lukeena etsai bihurtuz. Sistema hauen baliagarritasuna onartzen ez duten ikuspegiak eskaerak ez dira legitimoak izango eta, ondorioz, eztabaida demokratikotik baztertuak izan beharko dira. Beck eta Giddensek planteatzen dituzten ereduak, indarrean dagoen status zalantzetan jarri gabe, jendartearen eraikuntzan botere harremanek jokatzeko duten papera ez dute lantzen, honek demokraziaren ideari egiten dio kaltea aintzat hartu gabe (2000: 57). Eztabaida bidezko kontsentsu unibertsala ekidin-ezinezko helmuga bezala kokatzen duen ikuspegi honek, antolamendu sozialen izaera politikoa eta gatazkatsua ukatzeaz gain, pluralismoaren zentzu sakona baztertu luke. Mouffek joera honetan kokatzen du arerioen terminoetan ulertu beharko liratekeen hainbat eztabaida etsaiaren terminoetan kokatzea, hau da, joera antagonikoetan. Hortik azken hamarkadetan areagotzen ari diren hainbat aldaera fundamentalista edo muturrekoak, batez ere, eskuin muturreko populismoei dagozkienak.

⁶² Zizekek gogor helduko dio Becken arriskuaren jendarteari *En defensa de la intolerancia* (2007) lanean. Zizeken ustez, marxismoak eta psikoanalisiak bigarren modernitatearen eskutik nagusitutako ziurgabetasuna zentzu kritiko batean argitzen lagundu dezakete (2007: 79-80). Horretarako giltza, askotan prozesu sozialen bilakaeraz egiten den *personifikazioa* alde batera utzi eta prozesu horien atzean parte hartzen duten mekanismo ekonomiko liberal *objektiboak* ulertzen saiatu beharko ginateke (2007-107); bertan kokatu litzatekeelarik marxismoa eta psikoanaliaren ekarpena. Inbertsio ariketa honen gainean, posmodernismoak ekonomia despoltizatu eta erabaki ekonomikoak izaera neutroa luketen mugimendu gisa irudikatze ahalegina deseraikitzen saiatuko da. Horren aurrean, ekonomia politizatze aldarria eginez; hau da, erabaki ekonomiko horien eragina jasaten duten guztien parte hartzea bultzatu eta kontrol publikoa bermatzeko eskaera eginez (2007-109).

4.4.2 Demokrazia agonista

4.4.2.1 Pluralismoa

Landu nahi dugun demokrazia ereduan pluralismoak duen garrantzia kokatzeko, Mouffe eta Schmittentzat mendebaldeko jendarteetan *grabitate zentroek* edota *ideia zuzentzaileek* izan duten garrantzia abiapuntu gisa kokatu dugu. Mouffek, azken mendeotako bilakaeran grabitate zentro hauek bete duten funtzio artikulatzaileari dagokionez Schmittekin bat egingo badu ere, modernitatearen agerpenak suposatu zuen eraginaren inguruan ikuspegi ezberdina izango dute. Schmittentzat modernitateak ez zuen aldaketa kualitatiborik ekarri. Aurreko mendeetan teologiak bete zuen domeinua ordezkatzera etorriko da, aurretik ematen ziren kontzeptu teologikoak nolabait sekularizatuz; hau da, modernitatea, helburu ez-teologikoekin, jarrera teologiko batzuen eraldaketa baino ez litzateke izango (Mouffe: 1999, 166). Moufferentzat, aldiz, iraultza demokratikoa eta gero joko zelai erabat ezberdin batean geundeke. Aldaketa honek, Jainkoan edota Erregearen irudian oinarrituta ez dagoen Estatuaren legitimitate iturri berri bat suposatzeaz gain, demokrazia era moderno batean uler-araztera eraman beharko gintuzke, proiektu politiko ezberdinen pluralismoari nagusitasuna emanaz.

Hain zuzen ere, demokraziaren adiera *berri* eta *zaharraren* arteko ezberdintasuna Mouffe eta Schmitten arteko posizioen bereizgarri nagusia izango da. Bi autoreontzat demokrazia eta liberalismoa kontzeptu ezberdinak izango dira; lehenengoak herri subiranotasunari erreferentzia egingo dion bitartean, bigarrenengoak liberalismo politikoak bildu izan dituen kontzeptuei: legearen inperioa, botere banaketa eta norbanakoen eskubideak. Schmittentzat bi kontzeptuak kontrajarriak izango diren bitartean, Moufferentzat pluralismo liberala demokrazia modernoaren ezaugarri eratzailea izango da. Zentzu horretan, demokrazia *klasiko* eta *modernoaren* arteko ezberdintasuna ez dio tamainari erreferentzia egingo, izaerari baizik (2000: 36); klasikoak herri subiranotasunari lehentasuna ematen zion bitartean, modernoak ikuspegi aniztasunari atea ireki dio. Pluralismoaren aitortza honek harreman sozialen ordenu sinbolikoaren eraldaketa sakon bat ekarriko du. Alde horretatik, garrantzitsuena ez da jendarte liberalean ongizateaz dauden ulermen ezberdinak egiaztatzea, honek jendartearen ikuskeran ekarri duen aldaketaz jabetzea baizik. Nolabait esateko, sakoneko aldaketa ez da enpirikoa, sinbolikoa baizik. Bereizketa hau ez da

hutsala. Praktikan ematen den errealitate baten konstatazioaren arabera jarduten bada (aniztasunarena), ezberdintasun hauen kudeaketa hutsera joko baita (hots, demokraziaren prozedurazko adiera azpimarratzera). Maila sinbolikoan ematen den paradigma aldaketaz aritzean, aldiz, gatazkaren eta banaketaren legitimazioaz ariko gara; jendartea *jendarte* egiten duen berezko ezaugarriaz, alegia. Moufferentzat, pluralismoak bere baitan dakarren *ezberdintasuna*, “izateko aukera gisa ulertu behar dugu” (2000: 37); ideia hau izatearen adiera objektiboa edo esentzialarekin kontrajarria egongo delarik. Azken finean, aurre definitua dagoen nortasun bat dugunaren adiera honetara jotzen badugu, aniztasunaren sinplifikazioan eta bere ukapenean erortzea litekeena izango da. Horren aurrean, aukeratzeko *aukerak* definitzen gaituela defendatuko du.

“Este es de hecho el caso de las principales formas de pluralismo liberal, que generalmente empiezan destacando lo que llaman “el hecho del pluralismo” y después pasan a buscar procedimientos para abordar esas diferencias sin reparar en que el objetivo de dichos procedimientos es en realidad volver irrelevantes las diferencias en cuestión y relegar el pluralismo a la esfera de lo privado” (2000: 37).

Hortaz, Moufferentzat pluralismoa ez da soilik praktikan ematen den egite bat izango, mugatu edota jasan beharko dugun zerbait; printzipio axiologiko bat baizik. Demokrazia modernoaren erroetan egongo den funts eratzaila izango da, babestu eta bultzatu beharrekoa. Alde horretatik, Mouffek aldarrikatuko duen pluralismoak, Schmitzen planteamenduak ez bezala, ezberdintasunei izaera positiboa emango die, bateratasuna eta homogeneotasuna zalantzetan jarritz. Edozein kasutan, Moufferen posizioa ez guke mugarik gabeko heterogeneotasuna aldarrikatzen duen joerekin nahastu behar, azken hauek askotan menpekotasun harreman ezberdinak ezkututzen duten heinean. Inongo adierazle komunik ez luketen nortasunen aniztasun honek Schmittek planteatzen zuen politikoaren izaera ukatuko luke; eta honetan, bat egingo dute bi autoreok. Muturreko aniztasun egoera honetan “botere harremanak eta antagonismoak ezabatuak gelditzen dira eta antagonismorik gabeko pluralismoaren ohiko ilusio liberala” nagusitzen da (2000: 38). Zentzu honetan, Mouffek Schmittekin nortasun kolektibo edo *gu* baten eraikuntzarako gako fundatzaile baten beharrekin bat egingo duela baieztatu dezakegu, liberalek aldarrikatzen duten bizitza proiektuen pluralismoarekin bat egiten duen bezala. Baina ez da ados egongo nortasun hau eraiki ahal izateko alemaniarrek aldarrikatzen duen aniztasunaren ukapenarekin; ezta liberalek pluralismo hau kudeatzeko demokraziari ematen dioten prozedurazko izaera *antipolitikoarekin* ere.

4.4.2.2 Arerioaren kategoria.

Ikusten ari garenaren harira, irudi lezake demokrazia liberalen eginkizuna harreman sozialetan existitzen den antagonismo potentziala baretzea litzatekeela. Schmittek utzitako irakaspenen harira, gu/haiek logika ekiditea ezinezkoa dela ulertzen badugu, gakoa antagonismo hau otzantzeko logika berri baten eraikuntzan kokatu beharko genuke. Gatazkak, legitimoztat hartzeko, elkarre politikoa suntsituko ez duen forma hartu beharko du. Honek, elkarrearen parte diren kideen aldetik nolabaiteko harreman bat eskatuko du; aurkariak, legitimoak ez diren interesak dituzten suntsitu beharreko etsaitzat baino, ikuspegi eta eskaera legitimoak dituzten arerio gisa irudikatuz (Mouffe, 2007: 26-27). Aldiz, aurkariak ezin izango dira eztabaida edo negoziazioaren bitartez adostu ahal izango diren lehiakide huts gisa hartu. Gatazkaren dimentsio antagonikoa aintzat hartu nahi bada, baina aldi berean antagonismo hau baretzeko beharra ikusten badugu, bestelako eredu baten bila jo beharko dugu. Moufferen *agonismoaz* ari gara. Eredu honetan, lehiari dauden aldeek gatazkak aterabide arrazional bat ez duela ulertzen badute ere, beraien aurkariaren legitimitatea onartzen dute. Gatazkan egonda ere, elkarre politikoa berdineko kide gisa onartzen dute beraien burua, gatazka ematen den espazio sinboliko berdina konpartitzen dutelarik. Horrela, antagonismoaren dimentsioa ez litzateke desagertuko, baretu baizik.

Liberalentzat arerioa lehiakide hutsa izango litzateke. Beraientzat politikaren eremua, botere esparruak okupatu ahal izateko talde ezberdinak lehiatzen diren joko zelai neutrala litzateke. Helburu bakarra bestea desplazatzea izango litzateke. Hegemonia ez da zalantzatan jartzen, ezta botere harremanak ere. Eliteen arteko lehia hutsa litzateke (Mouffe, 2007: 28). Borroka agonista, aldiz, jendarte zehatz bat artikulatzen den botere harremanen arteko lehia litzateke: adostezinak diren aurkako proiektu hegemonikoen arteko borroka ari gara. Dimentsio antagonikoa beti presente legoke, baina arerioek onartzen dituzten prozedura demokratiko batzuen arabera emango litzateke. Demokrazia parlamentarioa ez litzateke arrazionaltasunaren garapenaren ondorioz gizateriaren bilakaeraren etapa gisa ulertu behar, non gizakiak era arrazional huts batean jokatzeko duen. Parlamentarismoa, pluralismo demokratikoarekin bateragarria izango den gu/haiek eredu berria sortzen funtsezko papera beteko duen sistema bezala irudikatu beharko genuke (Canetti: 1960), hau da, antagonismoa agonismo bihurtzeko giltza gisa. Horrela, erakunde parlamentarioak ahultzen direnean, talka agonistarako aukera desagertzen doa, etsai antagonikoaren kategoria nagusituz.

Arerio eta *etsaiaren* arteko ezberdintasun nagusia elkar konpartitzen (ez) duten espazio sinbolikoa litzateke. Arerioaren kategorian askatasunak eta berdintasunak mugarrizten duten printzipio etikopolitikoekiko leialtasun bat konpartitzen dugun bitartean, etsaiarengan ez da horrelakorik ematen. Aldiz, arerioak printzipio hauen esanahi eta praktika zertan zehazten diren ez dira ados jarriko. Are gehiago, desadostasun hau ezin izango da eztabaida arrazionalaren bitartez gainditu, hau da, gatazkaren konponbide arrazionalik ez legoke; hortik bere izaera antagonikoa. Honek ez du esanahi arerioek desadostasunak gainditu ezin izango dituztenik. Moufferen ustez, “arerioaren ikuspegia onartzea nortasun politikoan eraldaketa erradikala onartzea suposatzen du” (2007: 115). Konbentzitze prozesu baino *konbertsioztat* hartzen du; hegemoniaren atalean ikusi bezala, nortasun politiko eta sozialen etengabeko berdefinizio prozesu bezala ulertuta. Noski, konpromisoak edota adostasun partzialak ere posible dira; politikaren ezinbesteko osagaiak lirateke baina etenik ez duen gatazka iraunkor baten behin behineko lasaialdi gisa hartu beharko liratekeenak.

4.4.2.3 Pasioak eta identifikazioak.

Jarrera antagonikoen sorkuntzan pasioek ezinbesteko papera jokatu dute, nortasun ezberdinen eraikuntzaren edota identifikazio prozesuetako osagai gisa. Liberalismoak forma ezberdinetan (izan interesen kalkulu arrazionalaren bitartez -eredu *gehitzalea*-, izan eztabaida moralaren bitartez -eredu *eztabaidazalea*-) nagusitu duen arrazionaltasunak, politikaren esparruan mobilizatorako indar handienetakoa duen pasioen aldagaia bide bazterrean uztera jo du (Mouffe, 2007: 31). Arrazionaltasunaren ikuspegi unibertsalak antagonismoaren ukapenarekin bat egin dezake, politika norbanakoen interesak era adostu batean kontziliatu ahal izango direnaren irudipenarekin nahastuz. Zentzu honetan, mendebaldeko jendarteetan kontsentsuaren ideia gailentzearekin politikarekiko interesak nabarmen egin du behera. Moufferen ustez, jendartearen aktibazioak “munduaren ikuskera gatazkatsua” eskatzen du (2007: 31), pasioek demokraziaren jokoaren baitan mobilizatzeko aukera beharko luketelarik. Horren erakusgarri nabarmenetakoa bozka prozesuarena litzateke. Azken hamarkadetan, ikuspegi ezberdinen arteko “adostasunaren helmuga ekidinezinaren” gailentzeak, sistema demokratiko ezberdinetan ematen diren hauteskunde prozesuetan parte hartzea maila geroz eta baxuagoa izatera eramaten du. Liberalismoarekin nagusitu den ikuspegi arrazionalak barneratu ezin duena, jendartea bozkatzera eramaten duena norbanakoen interes propiotik harago kokatzen den aldagai afektiboa litzateke. Norbanakoak politikoki aktibo mantentzeko, eurak mugiaraziko

dituen nortasun kolektibo batekiko identifikatu beharko dira; eta nortasun honen eraikuntzan emozioen inplikazioa kokatzerakoan liberalismoak kale egin du.

Politikaren dimentsio afektiboan murgiltzen ari garelarik, psikoanaliaren hainbat aldagai aintzat hartzea komeni. Zentzu honetan, Freuden *bizitza* eta *heriotzako* pulsio libidinalak edota Lacanen *gozamenak* (*jouissance*) nortasun politikoen eraikuntzan izango duen eragina nabarmena litzateke. Lehenengoaren arabera, harreman komunalen sendotzea gizakiak agresibitateko duen berezko joera mantsotzeko bidea litzateke. Horrela, komunitate bateko kideen arteko identifikazio sendoak eratuko liratekeelarik; beti ere, *gu* bat eratzeko prozesuak *haiak* bat eratzeko prozesuaren sorrera ere badakarrela aintzat hartuz (1988: 111). Antzeko ildotik, Lacanentzat kolektibitate bateko kideen arteko identifikazioak norbanakoengan sortuko duen *gozamena* potentzial politiko izugarria izango duen aldagaia izango da, Zizekek *jouissance* honek nazionalismoetan jokatzen duen papera nabarmenduko duelarik (1993: 202).

Nortasun kolektiboen urtzearen ideia nagusitzen ari den modernizazio erreflexibo honetan, liberalek afera politikoen lanketa arrazional hutsa aldarrikatuko dute. Pasioak politikaren esparrutik kanpo uzteak, hauek demokratikoak ez diren bestelako bideetatik bideratzeko arriskua areagotuko du. Politika “arrazoi, moderazio eta kontsentsu” termino hutsetan garatu behar dela dioten teorikoek demokraziaren sakoneko esanahian sakondu nahi duen korronteari mesede ahula egingo diote, jarrera totalitarista eta fundamentalistek beharrezkoa duten haztegi oparoa eskainiz. Politika demokratikoak jendartearen desira eta fantasietan eragin zuzena behar duela ez dute ulertzen, norbanakoen sentimenduen kontra agertu beharrean, praktika demokratikoetara bideratuak egongo diren identifikazio prozesuak eskaini behar direlarik. Moufferentzat “gizaki demokratikoak soilik, balore demokratikoekiko identifikazioa areagotuko duten instituzio, diskurtso eta bizimoldeak ugaltzen badira, eman ahal izango dira” (2000: 109). Baina honek ezinbestean demokraziaren gaineko ulermen berri bat eskatuko du.

4.4.2.4 Gatazka agonistikoa.

Liberalismoaren arrazionalismoak pasioek prozesu politikoetan duten garrantzia bide bazterrean utzita eta eredu eztabaidazaleak kontsentsua ekidinezinezko helmuga bezala jarrita, egungo demokrazia liberalek sistemaren baitan espazio oso estua utzi diote gatazkaren kudeaketari.

Instituzio liberalek honen gestioari tarterik utzi ezean, sistema demokratikoen arrisku nabarmenetako gatazka hauen bilakaera antagonikoa izango da, nortasun esentzialen edota negoziagarriak izango ez diren balio moralen arteko gerra schmittiarrari bide emanez. Zentzu horretan, Moufferentzat gatazka agonistikoa sistema demokratikoen berezko ezaugarri bezala ulertu beharko da, honek biziraun eta bere esan-nahi demokratikoan sakondu nahi badu. Agonismoan kontsentsua beharrezkoa izango da, baina desadostasunak ere bai. Kontsentsua demokraziaren instituzio eratzailen eta balore etiko politikoen inguruan beharrezkoa izango da; hau da, askatasuna eta berdintasunaren inguruan. Moufferen *hiritartasun* kontzeptua balore eta instituzio hauekiko identifikazioan trinkotuko da (1999: 96). Esan nahi baita, liberalen eskubideen *a prioriko* jabetzak ematen duen kategoria ez bezala edota errepublikanoek aldarrikatzen duten ongizate komunak gidatutako kolektibitatearen baitako hiritartasuna ez bezala, Moufferentzat ekimen subjektibo batek (hau da, borondatezko identifikazio batek) gizabanakoari hiritarraren kategoria emango dio. Baina balore hauen interpretazioaren inguruan ezinbestean desadostasunak egongo dira. Interpretazio ezberdin hauek lehian egongo diren proiektu politiko ezberdinen arteko gatazka adieraziko dutelarik.

Aipatzen ari garen bezala, lehia hau ezin izango da interes ezberdinen arteko eztabaidara mugatu. Demokrazia eztabaidazaleak, Estatua neutral mantendu eta status berdina izango luketen norbanako edo giza-multzoen arteko interes ezberdinen eztabaida “arrazionala” planteatzen duen bitartean, eredu agonistak indarrean dagoen botere harremanen arteko lehia adiskidezina mahai gaineratuko du. Hori izango da bi ereduon arteko bereizketa nagusia; hots, hegemoniaren aldeko borroka. Hegemoniaren atalean azaldu bezala, lehia honetan adostasunik eraikitzen bada hori kontingentea izango da; “adostasun gatazkatsutzat” hartu dezakegu (Mouffe, 2007: 58). Eta ez da eztabaida arrazional baten ondorio izango, boterearen aurrean geroz eta identifikazio zabalagoa lortzen duen nortasun antagoniko berria sendotzearen ondorioz ematen den indar korrelazioaren aldaketaren emaitza baizik. Adostasun kontingente hori hegemonia berri baten eraikuntzaren fruitua izango da. Horretarako, azken hamarkadetan loratu diren gatazka sozial ezberdinen arteko ekibalentziak gauzatzen joan beharko lirateke. Beckek “azpipolitikak” eta Giddensek “bizitzaren politikaren aferak” deitutakoek garrantzi berri bat hartuko lukete, baina ez bi hauek planteatzen duten *status quo*-a eta indar harremanak egonkortzeko, hauek aldatzeko baizik. Bide horretan, gizarte mugimendu *berri* eta mugimendu *zaharren* artean nortasun berri bat mamitzea ezinbestekoa litzateke, demokraziaren izaera erradikala aldarrikatzen duten sektoreak artikulatuta *gu* berri bat eraikiz.

Horregatik, Mouffek, Habermas bezalako eztabaidazaleek planteatu duten ereduaren izaera *antipolitikoa* azpimarratuko du. Habermasek “arrazionalki onargarria denaren” ideiarekin⁶³ demokraziaren erradikaltzea ekidingo duten premisa batzuk finkatuko ditu. Baina zer izango da “arrazionalki onargarria”? Onargarria izango denaren eta ez denaren arteko marra honek eragotziko du politikoaren dimentsioa garatu ahal izatea.

“Con “lo político” me refiero a la dimensión de antagonismo que es inherente a las relaciones humanas, antagonismo que puede adoptar muchas formas y seguir en distintos tipos de relaciones sociales. La “política”, por otra parte, designa el conjunto de prácticas, discursos e instituciones que tratan de establecer un cierto orden y organizar la coexistencia humana en condiciones que son siempre potencialmente conflictivas porque se ven afectadas por dimensión “de lo político” y entendemos que la política consiste en domesticar la hostilidad y en intentar atenuar el antagonismo potencial que existe en las relaciones humanas, podemos plantear lo que considero la cuestión central de la política democrática” (Mouffe, 2000: 114).

Schmittek politikoari emandako adieran bezala, jendarte harremanen antagonismoaren berezkotasuna Moufferen adieran ere presente egongo da. Antagonismo honek izaera eratzailera izango du; Marchartek honen izaera ontologikoaz hitz egingo digu (2009: 22-23). Schmitzen ustez, *erabakiak* fundazio une hau zehaztuko du; erabaki politikoak, hain zuzen ere. Jendartearen bateratze prozesua gidatuko duen domeinuaren inguruko erabaki politikoaz ari gara. Schmittek prozesu hau eskusio terminoetan planteatuko du, ardatz edo domeinu honen erreferentzia onartzen ez duenari etsaiaren kategoria emanaz. Mouffek, aldiz, antagonismo hau otzandu nahi izango du, domeinu honen inguruko interpretazio ezberdinei bide emanaz. Mouffek domeinu hau demokrazia liberalak zuzendu behar dituen printzipio etiko-politikoaren gainean kokatuko du; askatasuna eta berdintasuna. Hortaz, Moufferen ikuspegiak ere jendartearen artikulazioari gutxieneko egonkortasun bat emango dion euskarri batzuk planteatuko ditu, beti ere, hauen inguruko interpretazio pluralista bati bide emanaz.

Politika, aldiz, *politikoaren* gainean sedimentatuko harreman sozial eta instituzionalak garatzeko edota aldarazteko bide gisa agertuko zaigu batean zein bestean. Schmitzen kasuan, konstituzioak jasotako printzipio eratzailera zuzenbidearen bitartez garatzeko bide gisa (1991: 27), eta Moufferenean, instituzio demokratiko-liberalen bidez gauzatu beharreko jardun gisa. Baina batean

⁶³ Kontzeptu honen garapena Habermasen *La constelación posnacional* (2000) lanean aurkitu ahal izango dugu.

zein bestean, *politikoaren* definizio gatazkatsuaren gainean eraikitako jendarte harremanen kristalizazio prozesuez ariko ginateke.

4.5 Ondorioak

1985an *Hegemonía y estrategia socialistan* irekitako bideari jarraituz, Moufferen hurrengo hamarkadetako pentsamenduak mendebaldean nagusitzen joan diren demokrazia liberalen erradikalizazioari oinarria jarri nahi izango dio. Erradikalizazio honen funtsa, demokrazia liberalek planteatzen duten markoa errefusatu gabe, ezkerren identitate krisi garaikidea gainditzeko saiakera litzateke; sistema demokratioen funtsezko ezaugarri diren askatasunaren eta berdintasunaren kategorien orubea ontzat hartuz, baina bere baitan egun nagusi diren posizio hegemoniko (neo)liberalak eraldatzeko helburuarekin.

Zentzu horretan, jendarte politikoari kohesioa emango dio funts egituratzaileen kontingentzia aldarrikatuko du. Rawlsek *errezelaren ez-jakintasunaren* bitartez lortuko litzatekeen *jatorrizko posizioak* definituko lukeen *justiziaren* adiera konpartituaren aurrean, Mouffek justiziaren izaera bera kontingentea izango dela aldarrikatuko du; lehian egongo diren ikuspegi eta interes ezberdinen emaitza, ez prozedura objektibo baten bidez ebatzi daitekeen formula. Hortaz, jendartearen funts egituratzaile edo une politikoa ebazteko lehia gatazkatsua izango da ezinbestean.

Sandelek ikuspegi liberal honen aurrean jendartearen ongizate komunerako proposatuko duen *balore moral* batzuen nagusitasunak ere ez dio aterabide egokia emango sozialaren eraikuntzari, lehentasun moral honek pluralismoari atek ixten dizkion neurrian. Beraz, Mouffe, Sandel bezalako errepublikazaleekin jendarte kohesionatuko duten funtsen beharrean ados egongo bada ere, balore hauen hautaketan nagusitu beharko litzatekeen adostasunezko halabeharrezko ikuspegiarekin ez du bat egingo. Are gutxiago, honek dakarren pluralismoaren mugatzearekin. Moufferen ustez, jendartearen funts egituratzaile zehaztapenean adostasunezko ikuspegi horretan bat egingo dute korrante liberalak eta errepublikarrak, eta hori izango da hain zuzen ere batek zein besteak erakutsiko duten ahulgune nagusia: horren izaera liskartsuari uko egitean, hain zuzen ere.

Mouffek aldarrikatutako izaera liskartsu hau, ez litzateke Schmittek planteatutako *lagun/etsai* logika antagonikoarekin nahastu behar, baina ezta Habermas bezalako eztabaidazaleek

planteatutako ikuspegi *lehiatsu* hutsarekin. Miguel Benasayag-ek *Elogio del conflicto* (2012) lanean planteatutakoaren antzera, sozialaren konfiguraziorako dimentsio liskartsu honek izaera ontologikoa luke. Alde horretatik, demokrazia liberal garaikideek gatazkaren dimentsio hau alboratzeko egindako etengabeko saiakerak, demokraziaren kalitatea ahultzeaz gain, fenomeno totalitarioen ugaltzeari atak irekiko dizkio, bere mugen barruan lehiatu ahal izango ez diren posizioak sistematik kanporatuz. Horregatik, demokrazia garaikideen egiteko nagusia, ekidin-ezina litzatekeen liskarra leuntzeko ahaleginean kokatu beharko litzateke; hegemoniaren aldeko lehia politikoa antagonismotik agonismora eramanez, baina baita sistema demokratikoak iritzi edo interes ezberdinen kudeaketa hutsa mugatu gabe.

Moufferen pentsamenduaren oinarri hauek laburbilduta, alderatu ditzagun demokrazia, eta orohar, harreman politikoak ezaugarritzeko orain arte arakatutako eredu ezberdinen ezaugarriak Mario Zubiagak (2012) baliatutako taula eguneratuz:

4.1 taula: *Demokrazia eredu*en taula

| Demokrazia eredu | <i>Antagonikoa</i> (Schmitt) | <i>Agonista</i> (Mouffe) | <i>Gehitzailea</i> (Schumpeter) | <i>Eztabaidazalea</i> (Habermas) |
|---------------------------|---------------------------------|--|--|-------------------------------------|
| Aktoreak | Estatuak | Mugimendu sozialak (zaharrak eta berriak) | Alderdi politikoak / Eliteak | Hiritar aktiboak |
| Jarduera | Gerra | Tentsio agonista | Interesen negoziazioa | Eztabaida arrazionala |
| Logika | <i>Politikoa</i> (indarra) | Hegemonikoa | <i>Ekonomikoa</i> (interesen maximizatzea) | Arrazionalista |
| Kategoria nagusiak | Lagun /etsaia | Arerioa | Lehiakidea | Mintzakidea |

5. KAPITULUA: HEGEMONIAREN TEORIAREN MUGAK

5.1 Sarrera

Marko teorikoaren puntu honetara iritsita ezin aipatu gabe utzi orain arte azaldu nahi izan dugun hegemoniaren teoriak izango lituzkeen gabeziak edo ahulguneak. Horretarako, modu batean edo bestean Laclaren lana erreferentziatzat hartu duten hainbat autoreengana joko dugu; kasu askotan, hauetako batzuen eta Laclaren arteko ika-mikek ezkerren baitako eztabaida garaikideetan posizio esanguratsuenak ordezkatu dituztela esan dezakegularik.

Bestelako asko egon badaitezke ere, ahulgune hauek hiru nagusietan laburbilduko ditugu: a) hegemoniaren teoriak inplikaturako lukeen diskurtsoaren gehiegizko erabilera; b) hegemoniaren teoriaren izaera deskriptibista eta ustezko funts arautzaile edo normatibo ahula; eta c) hegemoniaren teoriak lekarkeen subjektuaren desontologizazioa edo hustuketa. Gabezi bakoitzarekin batera Laclauk berak planteatutako erantzunen termino nagusiak planteatzen saiatuko gara; horrekin batera, gure lerro teorikorako egingo dugun hautu ere planteatuz.

Lehenengoari dagokionez, XX. mende erdialdeko postestrukturalismoak diskurtsoari emandako garrantzia abiapuntu bezala hartuta, mende bukaeran Diskurtsoaren Teoriaren ikerlari nagusiek planteatutakoarekin osatu nahi izango dugu. Aurreko kapituluak aipatu dugun bezala, Diskurtsoaren Teoriak barnebilduko duen diskurtso tipologia ezberdina aintzat hartuz, Laclau eta Moufferen ikuspegiak diskurtsoari ematen dion gehiegizko pisua orekatzera etorriko diren bestelako ikuspegiaren ardatz nagusiak azalduko ditugu. Izan ere, ikusiko dugun bezala, diskurtsibitatearen aldeko desoreka honek hainbat gertakari sozial zehatzen azterketarako hainbat muga azaleratuko ditu, gabezi hauek bestelako ikerketa metodoak baliatuz gainditu beharko direlarik. Hurrengo kapituluak aztertuko dugun bezala, gure ikerketa lanari dagokionez Mc Adam, Tarrow eta Tillyren mekanismo eta prozesuekin egiten saiatuko garen bezala.

Bigarren puntuan, herentzia postestrukturalista dela medio, hegemoniaren izaera hutsean eta honetatik eratorritako elementu ekonomikoaren desplazamendua kritikaturako duen ikuspegiaren

sakontzen saiatuko gara. Modernitate berantiarrean emandako protesta guneen ugaltzeak, ezkerren pentsamendu klasikoan aldagai ekonomikoak hartu izan duen lehentasunezko posizioa bigarren maila batean uztearekin batera, ezker garaikidean azken urte luzeetako ika-mika mamitsuenetakoa ekarri du. Horren lekuko Ernesto Laclau eta Slavoj Žižekaren arteko eztabaida ezagunak. Sarrera honetan horretan gehiago sakonduko ez badugu ere, Laclau eta bestelako autoreek hegemoniaren teoriaren defentsan, izaera deskriptibista hutsetik harago, teori honi izaera arautzailea emango dion funtsean ere arreta jarriko dugu; *kontingentziaren* kategorian, hain zuzen ere. Kontingentziak berak aurreko kapituluan landu dugun demokraziaren erradikaltzeari abiapuntua jarriko diola ulertuta.

Subjektuaren desontologizazioari dagokionez, ekonomikoaren desplazamenduaren ondorioz emango litzatekeen subjektuaren indargabetze honek, aldaketa prozesua mamiz hustearekin batera, subjektua bera bere funts eratzaileren eta bere paperaren inguruko indeterminazio batera eramango luke. Puntu honetan interesgarria izango da subjektuaren artikulaziorako Toni Negriek planteatzen duen *jendetzaren (multitud)* ereduak kokatzea. Azken honek, Žižekekin batera, Laclauaren hegemoniari demokrazia liberaletatik harago egongo den eredu politiko bat irudikatzeko ezintasuna leporatuko diolarik. Baina ikuspegi honek ekonomikoari emandako nagusitasunak subjektuaren inguruko galdera sakonagoetara eramango gaitu. Izan ere, Laclauaren pentsamendua egungo sistemaren parametro nagusietatik kanpo egongo diren ereduak irudikatzeko mugak baditu, zein da planteatzen den alternatiba? Ze paper jokatu beharko du subjektuak ekonomikoak aurrez determinatutako ibilbide baten baitan? Žižek, Alain Badiouren irakaspenei jarraituz, *gertaeraren (événement)* kategoriaren bitartez erantzuten saiatuko da.

Eta azkenik, laugarren atal gisa, aurretik aipatutako hainbat gabezietan sakonduz, *poshegemonia* bezala izendatua izan den korronteak hegemoniaren teoriaren inguruan planteatutako hesi nagusiak aipatu nahi izango ditugu. Poshegemonia, korronte egituratu edo eskola bat baino, XXI. mendearen hasiera honetan, nagusiki Gareth Williams, Alberto Moreiras eta John Beasley-Murray-ren eskutik mahai gaineratutako kezka multzo bezala ulertu dezakegu. Hauek Latino Amerikan azken hamarkadetan jazotako prozesu populisten azterketan oinarrituko dira eta menpekotasunaren edo subalternitatearen inguruko ikerketa lerroak erreferentziazat hartuko dituzte. Postestrukturalismoak estrukturalismoarekin egin bezala, ikuspegi poshegemonikoen kezka iturri nagusietako bat hegemoniaren teoriak erakutsitako bokazio oro-harrapatzaile litzateke, eraikuntza hegemonikotik at gelditzen den *horren* garrantzia aldarrikatuz. Zentzu horretan, beraien ustez hegemonia eta politika parekatzea ez litzateke zuzena, kanpokotasun honek politikoaren dimentsio garrantzitsu bat

irudikatzen duen heinean. Horrekin batera, Beasley-Murray hegemoniak Gramscitik Laclaura arte planteatzen dituen hainbat mito deseraikitzen saiatuko da; sistema politikoek beharko luketen jendartearen onarpenetik hasita, subjektuaren izaera artikulatura.

5.2 Diskurtsoaren gehiegizko erabilera

5.2.1 Diskurtsibitatearen nagusitasuna.

Hegemoniaren izaera diskurtsiboaren edota Diskurtsoaren Teoriaren mugak ikuspegi oso ezberdinetatik landu badaitezke ere, guk hemen bere *gehiegizko* erabileratik edo honen inguruko ikuspegi *hertsia* batetik eratortzen dena nabarmendu nahi izango dugu. Kritika lerro honek egitura sozialak eta egitura diskurtsiboak parekatzeko joera salatuko luke, harreman sozialak sistema linguistikoekin berdintzearena, hain zuzen ere.

Salaketa honen adibide gisa, Diskurtso Kritikoaren Analisiaren (DKA) erreferentetzat hartua izan den Norman Fairclough-en lana hartu dezakegu. Honek, Laclauk eta Mouffek planteatzen duten bezala, praktika sozialak elementu ezberdinen artikulazio modu gisa ulertzen badu ere, elementu diskurtsibo eta ez-diskurtsiboen arteko bereizketaren beharra azpimarratuko du, ez bereizteak dakarren diskurtsibitatearen nagusitasuna errefusatzuz (Chouliaraki & Fairclough, 1999: 21-22). Artikulazioak elementu sozial ezberdinen arteko hartu-emanari erreferentzia egiten dio, elementu hauek diskurtsoaren bitartez praktika sozial ezberdinetan forma hartuko dutelarik. Baina David Harvey-k (1996) planteatu bezala diskurtsoak prozesu sozialen *momentu* edo mekanismoetako bat baino ez da izango. Gainontzeko *momentuak* edo mekanismoak boterea, harreman sozialak, praktika materialak, instituzioak/erritualak eta sinismen/balore/desirak izango lirateke. Harveyren arabera momentu bakoitzak besteak barneratuko lituzke; hortaz, diskurtsoa, aldi berean, botere forma, sinismen/balore/desiren eraketa modu bat, instituzionalizazio bide bat edota praktika material bat ere bada. Alderantziz ere, boterea, harreman sozialak, praktika materialak, sinismenak eta abarrekoak diskurtsoaren parte ere badira. Momentu bakoitzaren barruan ematen den heterogeneitate hau, gainontzeko momentuen arteko gaindeterminazioaren isla litzateke.

Hari honi tiraka, Chouliaraki eta Faircloughen arabera, bizitza sozialak mekanismo batzuen arabera funtzionatzen du, mekanismo hauetako bakoitzak bere logika eta efektu propioak eragingo dituelarik; baina aldi berean, mekanismo hauek beste mekanismoen efektuengatik baldintzatuak egongo dira. Hortaz, momentu bakoitzak besteak “barneratuko” ditu baina ezin izango da une bakar batera mugatu (1999: 19).

Azaldu dezagun orain artekoa adibide batekin. Faircloughen elementu diskurtsiboak eta ez-diskurtsiboak bereizteko erabiltzen duen ikuspegi baliatuz, erosketak egitea bi dimentsio barnebilduko lituzke: batetik, dendariarekiko hitzezko hartu-eman eta, bestetik, transakzio ekonomikoa. Dimentsio bakoitzak praktika sozial zehatz bat artikulatzen du; erosketarena. Ikuspegi honen arabera, dendari eta eroslearen arteko elkarriketa linguistikaren tresnak baliatuz aztertu beharko litzateke eta diru trukaketa teoria ekonomikoarekin. Fairclough eta Chouliarakiren arabera, ekonomia eta linguistika bi mekanismo mota dira eta ezin dira teoria eta tresneria berdinak erabiliz baliatu. Hortaz, diskurtsoa beste mekanismo batzuk (ekonomikoak, teknologikoak, ...) erabiliz baliatu beharreko tresna da. Diskurtsoak bere logika propioa izango duen mekanismoa izango da, baina beste mekanismo batzuekin hartu-eman dialektikoan egon beharko da.

Zentzu honetan, prozesu kultural eta sozialei izaera diskurtsiboa aitortu ahal bazaie ere, testuinguru sozial zehatzek diskurtsoak baldintzatuko dituzte. Beste modu batera esanda, diskurtsoek izaera *eratzailerak* izango badute ere, diskurtsoak bestelako elementuengatik ere *eratuak* izango dira.

Faircloughen azken bi ideia hauek (mekanismo ezberdinen erabilera eta diskurtsoaren izaera eratzailerak/eratuarena) *intertextualitatearen (intertextuality)* kontzeptuan barnebilduko ditu. Honen arabera, diskurtso zehatz batek beste diskurtsoetako elementuak eta kontzeptuak hartu ahal izango ditu. Horrela, diskurtso ezberdinetako elementuak uztartuz, diskurtso berri bat eratuko da; honen izaera eraldatzaileari erreparatuta, testuinguru sozial eta kulturala ere eraldatu ahal izango duena. Honen adibide sinple bat komunikabideei lotuta planteatu dezakegu: kazetari batek zientziaren inguruko albiste bat plazaratzeko orduan, diskurtso zientifikoa bere eguneroko diskurtsora inkorporatu beharko du; bi tresna kontzeptual mota ezberdinak baliatuz (zientzia eta kazetaritzarena) diskurtso mota *berri* bat landuko du; aldi berean, hartzaileek (ikus-entzuleek) diskurtso hau beraien eguneroko diskurtsora egokitu beharko dute adierazpen modu berriei bide emanaz.

Baina *intertestualitateak* eragin konplexuagoak izango ditu, *botere harremanen* konfigurazioan zeresan zuzena duen heinean. Diskurtso ezberdinen arteko nahasketa hau oso agerikoa izango da gure jendartean geroz eta pisu handiagoa duen diskurtso ekonomikoari erreparatzen badiogu (Chouliaraki & Fairclough, 1999: 5). Enpresen "berregituraketak", "lehiakortasun" teknologikoa edota lan "malgutasuna" bezalako kontzeptuak estrukturalismo, kirol edo fisikaren diskurtsoetatik mailegatutako kontzeptuak dira; egun, beraien jatorrizko eremuetan zituzten kalitateak ekonomiaren eremura ekarrita, logika ekonomiko zehatz bat ezartzeko bide gisa erabiliak direnak. Horrela, disziplina ezberdinen arteko mailegu hauek prozesu sozialen moldaketarako oinarria jarriko dute. Baina aldi berean, aldaketarako aukerak ere botere harremanengatik baldintzatuak egongo dira; hau da, diskurtsoak *eratzailleaz* izateaz gain, *eratuak* ere badira. Aktore ezberdinek diskurtso ezberdinetako elementuak arrakastaz baliatzeko duten aukerak botere harreman hauek baldintzatuko dituzte. Esaterako: ez da berdina izango komunikabide nagusien lerroan eragiteko gaitasuna izan dezakeen gobernu batek izango dituen aukerak edota bere mezua sare sozialen bidez barreiatu behar duen eragile sozialarena.

Diskurtsoaren izaera eratzaillearen determinazioaren eztabaida honetan, Fairclough-ek ideologiaren elementua ere txertatu nahi izango du. Althusserren posizioetara hurbilduz, bere ustez diskurtsoek izaera ideologiko maila bat izango dute. Baina Althusserrek ideologikoarekiko diskurtsoaren erabateko menpekotasuna aldarrikatzen zuen bitartean, Fairclough-ek maila ezberdinetako *kutsapen* ideologikoa izango duten diskurtsoez hitz egingo digu. Izaera ideologiko handiena dutenak botere harremanak egonkortu edo aldarazteko balioko dute; izaera ideologiko txikiak dutenak, aldiz, ez dituzte botere harremanak aldaraziko. Hortaz, diskurtsoak botere harremanengatik baldintzatuak egongo dira baina, aldi berean, hauek aldarazteko bidea ere izango dira (1999: 26).

Phillipsek eta Jorgenssenek kritika bikoitza egingo diote Faircloughen irakurketa honi: batetik, botere harremanen aldaketan eragina duten eta ez duten diskurtsoen arteko bereizketa lan nekeza dela; hau da, karga ideologiko handia edo txikia izango dituzten diskurtsoak desberdintzea zaila dela (2002: 75). Eta bestetik, Fairclough-ek elementu diskurtso eta ez-diskurtsiboen arteko bereizketaren beharra planteatu ere, une eta praktika sozialak ze punturaino diskurtsiboak direnaren muga lausoa izango dela.

5.2.2 Azterketa empiriko zehatzetarako mugak.

Hegemoniaren atalean Diskurtsoaren Teoriak nortasunen eraikuntzarako esleitzen dituen bitarteko kontzeptualen baliagarritasuna azaldu badugu ere, teoria honek gertakari sozial zehatzen azalpenerako izango dituen mugak azpimarratuko dituzten pentsalariak asko izango dira.

Horrela, David Howarth-en ustez, elementu diskurtsiboekiko desorekak “kontzeptuak eta logikak ahulegiak eta formalistegiak” agertzeko arriskua azaleratuko du (2008: 331), bestelako *sendotasun* bat izango duten kontzeptuekin uztartu beharko direlarik. Howarthen ustez, Diskurtsoaren Teoriak instituzio politiko eta erakunde ekonomikoen inguruko “irismen ertaineko” beste kontzeptu eta teoriak beharko ditu; eta, horrekin batera, artikulazio hauek zuzentzen dituzten estrategia eta praktikak ondo aztertuz.

Ildo beretik, Jakob Torfinen ustez ere, Laclaren Diskurtsoaren Teoriatik eratortzen den ontologiaren aldeko desoreka honek, ikerketa empirikorako metodo eraginkorra izateko abstrakzio handia izatearen zama egotziko dio, kasu empiriko zehatzen ikerketa zailduz. Diskurtsoaren Teoriaren kontzeptu eta argudioak testuinguru analitiko espezifikoetan garatuak izan arren, kontzeptu oso abstraktuak dira. Abstrakzio maila altuak guztia diskurtsiboki eraiki ahal izango denik ez du esan nahi izango. Are gehiago, dislokazioaren kategoriarekin ikusi bezala, diskurtsoaren eraikuntzak (sinbolikoa) egoera zehatz batean lurra hartu beharko du, egoera zehatz honek posible denaren mugak zedarrituko dituelarik (1999: 153). Torfingen hitzetan, “Diskurtsoaren Teoriak izaera meta-teorikoa izateak, azterketa empiriko zehatzetan bitartekaritza gabe aplikatzea zaildu egiten du” (1999: 291). Diskurtsoaren Teoriak eraikuntza diskurtsiboaren ulermenerako oinarritzko gakoak eskainiko dizkigu, baina ez du harreman sozial, kultural eta politiko mota guztien ikerketarako marko zehaztua eskaintzeko asmorik. Torfingek berak, diskurtsoaren teoria ikerketa empirikoetan zuzenean eta era instrumental batean aplikatzeko arriskuez ohartaraziko digu. Bere ustez, hainbat gaien ikerketarako eremu horietan erabili ohi diren “teoria tradizionalak” erabili beharko dira, Diskurtsoaren Teoriak teoria tradizional horien ahulguneak agerian utzi eta izaera anti-esentzialista eta anti-fundazionalista izango duten ikuspegi berrien garapenean lagundu ahal izango duelarik.

Kasu guztien azterketarako baliagarria izango den formularik ez da existitzen, eta akatsa litzateke hori bilatzen saiatzea. Diskurtsoaren Teoriak kasuan kasurako beharrezkoak diren tresna

metodologikoak eskaintzen lagundu beharko liguke eta “oro-erabilgarria” izan daitekeen teknika garatzeko tentaldia ekidin. Baliatu beharreko metodologia ikerketatik ikerketara asko aldatuko da eta “metodologi orokor totalizatzailea” garatzeko asmoak soilik ikerketarako forma berri eta alternatibo berrien garapena ekidingo du (Torfin, 1999: 292).

Phillips eta Jorgenssenek hari berdina jarraituko dute, Laclauk eta Mouffek garatutako Diskurtsoaren Teoriaren baliagarritasuna zertan datzan zehaztu asmoz. Gorago esan bezala, ikuspegi analitikoari dagokionez, hainbat hurbilpenek diskurtsoak egunero sortuak eta eraldatuak izango direla azpimarratuko dute, eta ondorioz, jendearen mintzamina eta idazkera era sistematiko batean aztertuko dituen ikerketa enpiriko baten beharra aldarrikatuko dute. Beste ikuspegi batzuek, ordea, diskurtsoaren ezaugarri nagusiei eta jendartean une zehatz batean edo domeinu zehatz batean baliatzen diren diskurtsoen mapa orokorrari garrantzia emango diete (2002: 20). Zentzu honetan, argi dago Laclau eta Moufferen ekarpenak bigarren multzo honen ezaugarriei erantzungo diola. Eguneroko diskurtsoen azterketa sistematikoetan baino, diskurtsoaren ezaugarri orokorrangoengan jarriko dute arreta, diskurtso hauek eguneroko hamaika praktiketan sortuak, egonkortuak eta aldatuak izango direnaren ideia azpimarratuz. Phillips eta Jorgenssen bi eredu hauetako bakoitzak arreta zertan jarriko duen esatera ere ausartuko dira. Horrela, lehenengo multzoko ikuspegiak norbanakoen edo jendarte multzoen izaera aktiboa eta sortzailea azpimarratuko lukeen bitartean, Laclauen ikuspegiak giza talde hauek diskurtsoen eraikuntzan izango dituzten mugak nabarmenduko lituzke. Gure ustez, estruktura eta agentziaren arteko eztabaida klasikoan laburbildu daitekeen ika-mika klasiko honek, Diskurtsoaren Teoria laclauarrari estrukturaren baldintzapenen aldeko desoreka leporatzea baino, gakoa bere ikuspegiak prozesu sozialen ikerketari zer balio eransten dion aztertzea litzateke.

5.2.3 Diskurtsoaren Teoriaren balioa eta bestelako baliabide osagarriak.

Aipatu dugu Diskurtsoaren Teoriak egitura sozialak eta egitura diskurtsiboak parekatzeko duen joerak hainbat prozesu sozialen ikerketarako suposatzen dizkion mugapenak. Muga hauek, gehienbat, eguneroko gertakari sozialen azterketari lotuta leudeke, Diskurtsoaren Teoriak prozesu sozial zabalen azterketan zabalduko lukeelarik bere balio guztia. Teoria hau zertarako den baliagarria azaltzeko Howarthekek Heideggerren ontologia eta ontikaren arteko bereizketa abiapuntu

gisa jarriko ditu. Bereizketa hau sozialaren azterketara eramanda bi adar ezberdinekin aurkitu gaitezke: batetik, gauzen eta harreman sozialen *izaeraz* arduratzen dena; eta bestetik, objektu, praktika, instituzio edota diskurtso zehatzetako *tipologiaz* arduratzen dena. Horrela, lehenengo ikerketa lerroak jendartearen eraikuntzaren dimentsio ontologikoari helduko liokeen bitartean, bigarrenagoak sozialaren maila ontikoaz arduratuko litzateke (Howarth, 2008: 330). Zentzu honetan, argi dago Laclaren pentsamenduak nagusiki lehenengoari helduko diola, maila honetan diskurtsoaren adiera *eratzailleak* praktika sozialen izaera ez-determinista nabarmenduko lukeelarik.

Marchartek Howarthekin ere bat egingo du Laclauk dimentsio ontologikoari emandako garrantzia azpimarratzerakoan. Marcharten ustez, aldiz, Laclau ez da “filosofo bat zentzu hertsian”; argentinarraren pentsamendua filosofia, diskurtsoaren analisia eta teoria politikoaren arteko uztarketa gisa azalduko du (2008: 80). Baina pentsamendu honek *une* edo *gehiegikeria* bat izango du ikuspegi filosofikotik: fundamentu ezaren dimentsio ontologikoari emandako nagusitasuna. Jakina denez, honek testuinguru sozial zehatzen azterketa zaildu eta azterketa osatuko duen bestelako bitarteko metodologikoen beharra azaleratuko lukeelarik.

Funtsean, Diskurtsoaren Teoriaren intentsitate maila ezberdinetako erabileraren inguruan ari garela esan dezakegu. Zentzu honetan, Mc Lennan-ek eskola honen inguruko azterketa ardatz zuen artikulu batean⁶⁴, Diskurtsoaren Teoriaren bi erabilera moten inguruan hitz egiten zuen: *thick* erabilera (indartsua) eta *thin* erabilera (ahula).

Thick adierak diskurtsoaren eremutik kanpoko aldagai sozio-ekonomikoek eremu diskurtsiboan duten garrantzia ukatuko dute, diskurtsoek politikoaren gainean duten pisu erabakitzailea nabarmenduz. *Thin* erabilerak, aldiz, aldagai sozio-ekonomikoek eta bestelakoek duten izaera eratzaillea aitortzeko prestutasun handiagoa erakutsiko luke, “aniztasun metodologiko” baten aldeko joera argiagoa erakutsiz. Howarth, Norval eta Stavrakakisek idatzitako *Discourse Theory and political analysis* (2000) lanean bi ardatz hauen artean sailkatu ditzakegun kasu ezberdinen azterketa topatu dezakegu.

Artikulazio diskurtsibo bidezko hegemoniaren eraikuntzaren inguruan orain arte aipatutako ahuldadeak ikuspegi *thin* horretatik begiratzen baditugu, nabarmen murriztu ahal izango ditugula ikusi ahal izango dugu: diskurtsibitatearen garrantzia aldaketa politikoak ulertzeko orduan, fenomeno sozial guztien neurgailu bakarra izatea baino, bestelako bitarteko teorikoekin osagarritzea

⁶⁴ Mc Lennan-en inguruko artikulu honen erreferentzia Iñigo Errejonen doktore tesian aurkitu dugu (2012: 226).

egokiagoa izango baita. Baieztapen honek bat egiten du arestian aipatzen genituen Torfingen “teoria tradizionalen” edota Howarthen "irismen ertaineko" kategorien behararekin. Laclau bera, ideia honetatik urrutiegi ez dagoela esan daiteke “gure ikerketetan tradizio intelektualen aniztasunaren beharra” aldarrikatzen duenean (2005: 88). Alde horretatik, aurrerago ikusiko dugun bezala, heterodoxia metodologiko honi jarraituz, Mc Adam, Tarrow eta Tillyk prozesu sozialen azterketarako baliatuko dituzten mekanismo eta prozesuetara joko dugu dagokigun kasuaren azterketa osatzeko.

Zentzu honetan, batetik, nortasunen eraikuntzak duen izaera subjektiboa, eraikia eta performatiboa, eta bestetik, testuinguru eta prozesu zehatzek planteatzen dituzten mugapenen arteko uztarketa bilatu nahi izango dugu; nortasunen kategoria orokorrak, espazio eta denbora zehatz batean lekutzeak dakarren mugekin hartu-emanen jarritz. Alde horretatik, proiektu guztiek ez dute hegemoniko izateko aukera berdinak izango; edo Laclauk berak esango lukeen bezala, partikular guztiek ez dute unibertsal izateko arrakastarako aukera berdinak (2003: 209-210); batzuk eta besteek izango dituzten indar harremanak, mobilizaziorako gaitasuna edota posizio sozio-ekonomikoak proiektu bakoitzaren bilakaeraren baldintzatzaileak izango direlarik.

5.3 Hegemoniaren izaera deskriptiboa

Chantal Mouffek 90. eta 2000. lehenengo hamarkadetan eskuin muturreko mugimenduek izandako gorakadaren inguruan azaldutako kezkak artikulazio populista bidezko hegemoniaren eraikuntza edozein motatako sistema eraiki ahal izateko bitarteko deskriptibo gisa ulertzeko arriskua azaleratu dezake askoren ustez. Izan ere, hegemonia berri baten eraikuntzan parte hartzen duten oinarrizko aldagaien zerrendatze, analisi eta artikulazio posibleak formulatuta, edozeinek “bere hegemonia” eraikitze gailuak eskura izan ditzakeenaren irudipena nagusitu daiteke. Horrela balitz, Laclauen pentsamendua izaera normatiborik ez lukeen eraikuntza teoriko-deskriptiboa baino ez litzateke; hau da, jendartearen funtzionamendu soziala nolakoa izan beharko lukeenaren inguruko arautzerik gabekoa edota kohesio soziala bermatuko lukeen ardatzik gabea.

5.3.1 Hegemoniaren hustasuna.

Bere pentsamenduaren izaera formalista edo deskriptiboa ezkerreko ikuspegi batetik kritikatu dioten autoreak ez dira gutxi izango. Eztabaida honen fase garaikideenera hurbilduta, Toni Negri-rekin izandako ika-mika horren lekuko adierazgarrietako izan daiteke. Laclaren heriotzaren ondoren *Hegemonia: Gramsci, Togliatti, Laclau* (2015) izenburupean idatzitako artikuluan Negri hegemoniaren teoriari egotzitako kritikaren mami nagusia bilduko du. Bertan italiarrak hegemonia laclauarraren⁶⁵ izaera *hutsaren* kontra egingo du. Bere ustez, hustasun ez da estrukturalismoaren ondorengoek planteatu zuten bezala egituraren elementu fundatzailearen berdefinizio baten ondorio, “exodo” baten emaitza baizik. “Exodo” hau hegemonia bera egituratuko lukeen elementu eratzaileren ihesaldia izango litzateke. Negriren ustez, eraikuntza hegemonikoa egituratuko lukeen funts edo edukiaren ihesaldi honek, egungo jendarte neoliberaletan, subjektu politikoa bera fagozitatuko luke, mamirik gabe utziz. Subjektu politikoa adierazle hutsaren figurarekin parekatzea “figura zentrista” huts bat bihurtuko luke, aldaketarako potentzia berririk sortzeko gaitasuna ez lukeena eta prozesua bera geldiaraziko lukeena. Klase borrokaren lehentasunezko posizioa alboratzeak subjektuaren desontologizazio ekartzearekin batera, edozein emantzipazio prozesuk eskatzen duen tentsioa indargabetuko luke.

Gainera, Negriren ustez, Laclaren populismoak Carl Schmitten bertikalismorako joera berdina erakutsiko luke. Lehenengo honek aldarrikatuko lukeen borroka sozialen horizontaltasunaren aurrean, Laclauk sozialaren aniztasuna eta heterogeneitatea artikulatzeko lider, talde zuzentzaile edota, hainbat kasutan, ideal batekiko identifikazioa eskatuko du, joera demokratikoa baino aristokratikoa erakutsiz. Horrela artikulazio sozial honek “boterea asaltz hartu” nahiko lukeen komandoaren itxura hartuko luke, indarrean den estatu logika eta balioak aldatzeko prozesu sozialarena baino. Negriren ustez, Laclaren pentsamendua boterearen inguruko gogoeta baino boterean dauden indarren arteko *trantsizioaren* ingurukoa litzateke, horretarako figura edo posizio zentrista hori ezinbesteko aldagaia bihurtuko litzatekeelarik. Zentrismo hori bermatzeko beharrezko den hustasuna, prozesu sozialari zentzu askatzailea emateko aldagaia baino, hustasun horretan bertan bizi(araun) ahal izateko planteamendu litzateke; hau da, Negri hegemonia eta populismoa egoera iraultzeko baino bertara egokitu ahal izateko bide deskriptibista gisa ikusiko litzuke.

⁶⁵ Negri Gramsciren hegemoniaren adieratik ezberdinduko Laclarena. Sardinia hegemonia posizio marxista leninista batetik klase borroka antolatu, egonkortasun materialista sendotu eta langileak zentzu komunista baten boteretzeko tresna bezala irudikatzen duen bitartean, argentinarak ikuspegi honekin zerikusi gutxi izango lukeen izaera “bigun” batetik planteatuko luke, jatorrizko adieraren herentziak emango lukeen legitimazioaren bila.

5.3.2 Ekonomikoaren desplazamendua

Negri ez da kritika ildo hau jarraituko lukeen bakarra. Laclaren hegemoniak eta populismoak, egungo demokrazia liberaletatik harago, alternatiba emantzipatzailea izango den sistema irudikatu eta egikaritzeko dituen mugak ezker garaikidearen eztabaida klasikoa bilakatu zaigu; eta Laclau eta Zizeken arteko ika-mika honen erakusgarri nagusietakoa. Zizekek berak Negriarekin bat egingo du hegemoniaren joera deskriptibistak salatzerako orduan zera esaten duenean:

"[...] *en una brecha no teorizada entre lo descriptivo y lo normativo*, en la medida en que funciona como una herramienta conceptual neutra para explicar *toda* formación ideológica [...]" (2003: 232).

Zizeken aburuz “ezker postmoderno konbentzionalak” garatu duen borroka ekonomikoaren eta klase gatazkaren lehentasunezko izaeraren desplazamenduaren eskutik nagusitu dira joera deskriptibista hauek. Bilakaera honek “prozesu historiko erreal” bat adierazten badu ere, nolabaiteko “etsipen” bat badarama bere baitan, “kapitalismoaren onarpenaren eta indarrean den erregimen kapitalista liberalaren gainditzea ukatzearena”, hain zuzen ere (2003: 101).

"el hecho de que tanto Butler, como Laclau, en su crítica del viejo marxismo "esencialista", acepten, si bien calladamente, un conjunto de premisas: nunca cuestionan los principios fundamentales de la economía capitalista de mercado ni el régimen político democrático-liberal; nunca contemplan la posibilidad de un régimen político-económico completamente diferente. De esa forma, participan plenamente en el abandono de esas cuestiones por parte de la izquierda "posmoderna": todos los cambios que proponen son cambios dentro de este régimen político-económico (2003: 225).

Laclau eta Moufferentzat, Lefortek planteatu bezala, historia politiko modernoaren une klabea “asmakizun demokratikoa” litzateke, gainontzeko borroka garaikide guztiak (sexu, erlijio eta abarrekoak, ekonomikoa barne) bertatik eratorritakoak liriatekeelarik. Hau horrela balitz, Zizeken ustez demokrazia liberalaren erroetara joko luketen hainbat galdera egin beharko genizkioke gure buruari: nola irauli kapitalismoa, zeintzuk dira demokrazia politikoaren edota Estatu

demokratikoaren mugak; zeintzuk izan daitezke bere alternatibak eta abar (2003: 106). Baina bere ustez Laclauk eta Mouffek ez lituzkete galdera hauek planteatuko.

Laclauk demokrazia liberalek planteatzen duten markoa zabaldu eta erradikaltzeko planteamendua egiten duen bitartean, Zizekek demokrazia liberal garaikideen markoa bera zalantzetan jarriko du. Hegelen “unibertsalismo konkretuaren” *genus* eta *azpiespeziearen* kategoriak baliatuz, Absolutismoarekin apurtu zuen iraultza demokratikoa *genus* edo jatorrizko unibertsaltasunaren ideiarekin parekatuko du, egungo demokraziak horren *azpiespezie* bat izanik. Zizeken ustez, Hegelen azaleko irakurketa bat eginez “unibertsaltasun konkretu” honek (demokrazia liberal garaikidea) unibertsal eta partikularraren arteko barne adiskidetzea edo “parekatzea” ekarriko luke. Eta bere ustez Frantziar Iraultzaren eskutik eman zen *gertaera* demokratikoa eta egungo demokrazia liberalak ez dira parekagarriak. Hau arrazoitzeko Hegelen irakurketetan sakonduz zera baieztatuko du: “(unibertsaltasunaren) adierara egokitzen den espezie partikular batera iristen garenean, adiera unibertsala beste adiera batean bihurtzen da” (2003: 107). Hau da, Laclauk aldarrikatutakoaren antzera, unibertsalak unibertsal izateko, bere burua partikularizatzean bere *jatorrizko unibertsaltasunari* (maila batean behintzat) uko egiten dio⁶⁶. Zizeken ustez, demokraziarekin antzeko zerbait gertatu da; non jatorrizko “demokrazia erradikala” (iraultza demokratiko unibertsala, nolabait esateko) “ekonomiaren eremua politizatzeke zentzuan benetan “erradikala” izan bazen ere, egungoa ez litzateke, *demokrazia*” (2003: 108), *jatorrizko zentzu politiko/eratzaille unibertsalean*. Iraultza demokratikoak aurreko sistemarekin erabateko haustura suposatu zuen heinean eta modernitatean “ekonomia politizatuz” bere izaera artikulatzailea emateko balio izan zuen heinean, Zizekek ardatz ekonomikoaren nagusitasuna agerian uzteko izaera politiko *eratzaillea* aitortuko dio. Demokrazia liberal postmodernoeekin, ordea, ez du berdin egingo; hauek beraien izaera politiko mugatuagatik lehenengoaren azpiespezie bat litzatekeelarik.

Hortaz, Zizekentang sistema demokratikoen zabalpenetik eratorriko liratekeen borroka postmodernoen afera (sexua, arraza, ...), kapitalismoaren enborretik loratutako kimuak baino ez lirateke. Ikuspegi marxista honi izaera esentzialista leporatzen diotenen aurrean, aldiz, bi borrokek (“postmodernoak” eta ekonomikoa) kontrajarriak ez direla aipatuko du:

⁶⁶ Aurrerago aztertzen jarraituko dugun bezala, Laclauk eta Zizeken arteko eztabaida filosofikoaren muinetako bat unibertsal eta partikularraren arteko (Hegelen, *genus* eta *azpiespeziearen* artekoa, nahiago bada) artikulazioaren gaineko adiera ezberdinen ingurukoa izango da. Lehenengoak, partikularraren *bitartekaritza* ezinbestekoa ikusten baldin badu bere *inbestitze* prozesuaren bitartez aldaraziko duen unibertsal kontaminatzeko, bigarrenak partikularraren *gauzatzearen (reificación)* bitartez emango litzatekeen unibertsal eta partikularraren arteko parekatzea edo berdintzearen alde egingo du.

“La contingencia plural de las luchas políticas posmodernas y la totalidad del Capital no se oponen, siendo el Capital el que de alguna manera “limita” la deriva libre de los desplazamientos hegemónicos -el capitalismo actual más bien aporta el telón de fondo y el terreno mismo para la emergencia de las subjetividades políticas cambiantes-dispersas-contingentes-irónicas-etctera” (2003: 117).

Beraz, kontrajarriak ez baina bat nagusi eta besteak menpeko. Ikuspegi honen transzendentzia Laclaren pentsamenduarekiko handia da. Izan ere, bilakaera historikoan aldagai ekonomikoak izaera determinatzaile hau jokatuko balu hegemoniaren teoriaren balioa kolokan legoke. Ardatz ekonomikoa nagusi balitz, hegemoniaren teoriak Laclauk planteatu bezala edozein prozesu ideologiko-politikorako koordenadak eskainiko lituzke edota Zizek esaten duen bezala soilik “ezkerrak atzera egin izanaren” ondorioz ematen ari den praktika politiko (postmoderno) espezifikorako hezurdura teorikoa baino ez luke eskainiko? (Zizek, 2003: 115).

Zentzu honetan bitxia da Laclaren planteamendu teorikoa demokrazia liberalekiko *ad hoc* eginda edota soilik horietarako baliagarria dela leporatzen dioten akusazioekin batera, justu kontrako norabideko kritikekin ere topo egin ahal izatea; hau da, hegemoniaren teoriak demokrazia liberaletara egokitzeko dituen zailtasunak azpimarratzen dituena. Horietako adierazgarrienetakoa Aletta Norvalek hegemoniaren teoriaren inguruan planteatzen duen mugapenari dagokiona. Bere ustez, Laclaren teoria postestrukturalistak bi gabezi nagusiekin egiten du topo: lehenengoa, desadostasunari ematen dion izaera ontologikoa azpimarratzetik letorke, orokorrean bizitza sozialaren eta zehazki demokraziaren gune eratzaille bezala. Eta bigarrena, *akordio demokratikoak*⁶⁷ instituzionalizatzeko beharrari jarritako arreta falta (2008: 204). Bi muga hauek beraien artean elkar lotuak leudeke; are gehiago, Norvalen ustez, bigarrenkoa lehenengoaren ondorioa litzateke. Maila ontologikoan desadostasunari emandako gehiegizko arretak, bere eragina izan du maila ontikoan; “zalantza, eten edota desedimentazioak” praktika demokratikoen arreta gune nagusiak bilakatuz. Norvalek hauei garrantzia kendu nahi ez badie ere, jardun demokratikoa horietara ezin dela mugatu nabarmenduko du. Bere ustez, “adostasun/desadostasun” dikotomia gainditzea *tentsio demokratizatzailearen* eginkizun nagusietako litzateke. Zentzu horretan, demokrazia asmo orokorrak egikaritzen diren bitarteko gisa ere ulertu beharko litzateke, horretarako “instituzioen

⁶⁷ Norvalek *akordio demokratikoaren* ideia inspirazio habermasiarra lukeen Simone Chambersi mailegatuko dio. Honen arabera, Habermasen “adostasun arrazionalaren” teoria kontzeptu honekin hobetu beharko litzateke. Chambersentzat “idealetik (adostasun arrazionala) errealerako (lehia hegemonikoa) igarobidea” egiteko akordio demokratikoak funtsezkoak lirateke (2008: 189); azken hauek “konpromisoen eraikuntza”, “komunean dauden gauzak” edota “interes orokortuak” bezala ulertuz.

praktika erreal eta forma demokratikoen mantentzeari” arreta handiago eskaini beharko litzaiekeelarik (2008: 205); bere ustez, Laclaren teoriak behar bezala zaintzen ez duena⁶⁸.

Baina Zizeken kritika lerrora bueltatuz, Laclauk eta Mouffek defendatzen duten hegemoniaren adierak egungo demokrazia liberalen mugak gainditzeko estrategiarik ez du eskaintzen? Negrik leporatzen duen bezala hegemoniaren teoriak botere harremanak zentzu emantzipatzailean aldatzeko baino, boterearen trantsizioak azaltzeko bitartekoak baino ez dizkigu eskaintzen? Populismoak ez al ditu jendartea arautu eta maila bateko kohesioa eman beharko liokeen funtsen inguruko ezaugarriak barnebiltzen?

5.3.3 Kontingentzia, arau normatibo gisa.

Hegemonia y estrategia socialista-n (1985) bertan Laclauk eta Mouffek, aipatutako kritika bertute eginez, beraien planteamendua XX. mendearen bigarren erdialdean nagusitu ziren demokrazia liberaletan ezkerak marxismo tradizionalaren porrotaren ondorioz izandako gainbehera gainditzeko bitarteko teorikoen eraikuntza gisa aurkezten digute. Hau da, bloke sobietarraren erorketaren testuinguruan ezkerrearen baitan nagusitzen ziren ikuspegi klasikoek erakutsitako mugapen kontzeptualak gainditzeko planteamendu bezala aurkezten digute beraien pentsamendua, baina ez liberalismoaren eskutik hedatutako demokrazia kontserbadoreetara egokitzeko, baizik eta honek utzitako orubearen gainean, ezkerreko pentsamendua berreraiki eta bere ahalmen guztiak garatu ahal izateko. Zentzu horretan, Laclau eta Moufferen pentsamenduak demokrazia liberala abiapuntu duela esan dezakegu, baina honen erradikaltzeari begira.

2004an bere obrari egindako hainbat ekarpen kritiko jasotzen dituen *Laclau. Aproximaciones críticas a su obra* liburuan ere kezka honen inguruko hainbat hausnarketa jasotzen dira. Orokorrean, Laclaren pentsamenduak errealitatearen azalpen hutsetik harago jendartearen funtzionamendu normatiborako elementuak barnebiltzen dituela ez da zalantzetan jartzen. Asuntua izaera normatibo

⁶⁸ Laclauk berak honela erantzungo dio: "Mi respuesta es que una teoría general de la democracia sólo puede especificar sus dimensiones constituyentes, pero debe ser muy cautelosa respecto a la articulación institucional de las mismas. Precisamente porque es una cuestión histórica contingente, esta articulación no puede determinarse en el nivel de una teoría general de la democracia. Intentar que se lleve a cabo esa determinación dentro de una teoría general produciría resultados opuestos a los que Norval pretende alcanzar: es decir, la transformación de un arreglo óntico particular en una categoría ontológica" (2008: 369). Hots, demokraziaren teoria batek arreta bere izaera fundatzailearen jarri behar duela, kontingentziaren nagusitasun hau dela medio, hartu ditzakeen forma zehatz (ontiko) ezberdinek ezin izango dutelako bere funtsaren (ontologiaren) gaineko teoriarik osatu.

honen muina, hots, antolaketa sozialaren izaera arautzailea zerk zuzentzen duen argitzea litzateke. Zentzu horretan, maila bateko sintonia dago formalismo hutsetik harago, bere pentsamenduari edukia ematen dion aldagai nagusia hainbatetan aldarrikatutako *kontingentzia* bera dela esaterako orduan. Izan ere, ez dugu bistatik galdu behar bere pentsamenduaren mamiaren genealogia XX. mendearen bukaeran ezkeraren baitan horren errotuak zeuden joera esentzialista edota deterministak alboratu eta nagusitzen ari ziren demokrazia liberaletan ezkerak garapen berritu baterako aukerak izateko saiakeran datzala. Mark Devenney-k esan bezala:

“La identificación con la contingencia, y por ende con el pluralismo esencial de los valores, distingue al democráta radical del liberal” (2008: 175).

Kontingentziaren ideiarene bitartez garatu nahi den demokraziaren erradikalizazio honek “jendartearen barne adiskidetzea edo itxitura”, “bilakaera historikoaren *naturalizazioa*”, “determinatutako sektore sozialen lehentasunezko izaera” eta horrelako baieztapenak deseraikitzeke oinarria jarri zuen. Baina ez mendebaldean nagusitzen ari zen demokrazia liberaletara egokitzeke helburu hutsarekin, baizik eta hedatzen ari zen eszenatoki horrek ematen zituen aukerak zentzu emantzipatzaile batean garatu ahal izateke.

Hari honi helduta, Simon Critchley-k Laclairen pentsamenduaren izaera deskriptibo eta normatiboaren arteko eztabaida honetan elementu berri bat gehituko du. Critchleyren ustez politika “erabakiaren erreinua” litzateke, “ekintzarena mundu sozialean” (2008: 145); kutsu schmittiarreke baieztapen honi jarraiki, hegemonia harreman sozialei egonkortasun maila bat emango liekeen euskarri teorikoa litzateke. Baina egonkortasun hau hauskorra izango da; aipatzen ari garen bezala, kontingentea, nahiago bada. Alde horretatik, erabaki politiko askok bere izaera politikoa ukatu nahi izango dute. Hau da, hartutako erabakien izaera *naturala* azpimarratuz, atzean dagoen botere harreman, borondate edota kontingentzia bera ezkututako litzatekeelarik. Laclairen hegemoniak politikoki finkatutako konstituzio sozial ireki eta aurre-determinatu gabe honen sakoneko izaera agerian utzi nahi izango du, jendartearen ezinezko itxitura proiektatuz. Orain arte azaldutakoari erreparatuta, Laclairen pentsamenduaren balizko joera deskriptibista agerian legoke, baina Critchleyk ohartarazi bezala ez litzateke adierazgarri bakarra:

“Esto conduce a la significativa conclusión de que, si bien a cierto nivel, la categoría de hegemonía parece una simple descripción de la vida social y política [...] también es (y a mi entender debe ser) una crítica normativa de muchas cosas que pasan por ser política cuando

la política intenta negar o invisibilizar su contingencia y sus operaciones de poder y fuerza” (2008: 147).

Hau da, prozesu politikoek askotan erakusten duten *halabeharrezko zentzu* edo *aukera bakarreko eszenatokien* atzean ezkutatzen diren indar korrelazioen araberrako erabaki politikoak kontingentziaren bitartez agerian uztea, prozesu politiko horiek demokratizatu, gardenago egin eta izaera normatibo bat emateko modua ere bada. Gaur egun jendarteetan horrelako egoera sarri agertzen zaizkigu gobernu edota administrazio ezberdinek hartu dituzten erabakiak izaera teknikoarekin jantzi nahi izaten direnean; afera zehatz baten inguruan ustez *adituek* hartutako erabaki tekniko hauen atzean gordetzen den botere harremanaren funtsa estali nahian.

Kontingentziaren gaineko barne ohartarazte hau sistema demokratikoen izaera normatiboaren funtsezko ezaugarria bada ere, Cristchleyk ez du bere planteamendua honetara mugatzen. Bere ustez, Laclauk garatzen duen logika deskriptibo/normatibo honetan bada garatu beharreko hirugarren aldagai bat: *etikarena*. Zentzu horretan, Laclauk berak normatiboa eta etikoaren arteko bereizketa aipatuko du (2003: 81), bien arteko *neur-ezintasuna* nabarmenduz⁶⁹. Baina zer da adiera *etiko* hori? Etikoa jendarte bateko ordenu sedimentatu/normatibo zehatza zalantzan eta kolokan jartzen duen unibertsaltasun eta berraktibatze unea litzateke. Unibertsaltasun eta partikularren arteko harremanaz ariko ginateke, non etikoak ordura arte hegemonizatutako unibertsaltasuna berraktibatuko lukeen, jendarte bateko ordenu normatiboa partikular berri baten bitartez eguneratzeko aukera zabalduz. Une etikoak ordenu normatibo partikular batean forma hartu beharko du, baina gauzatze prozesu partikular hori unibertsaltasunarekin *neur-ezina* izango da. Heideggerrek baliatuko lukeen hizkeran, etikoak dimentsio ontologikoa aditzera emango luke (fundatzailea, nahiago bada) eta normatiboak dimentsio ontikoa. Laclauk berak Cristchleyri erantzungo dio etika eta normatibitatearen arteko harremana inbestitze erradikala dela esanez, non etika hutsik legokeen “osotasun eskura-ezinaren eta errealtatean ematen denaren arteko distantzia litzatekeen” (2008: 356-357). Hortaz, etikoak sedimentatutako maila normatiboa irauli beharko luke; deskriptibo eta normatiboaren arteko katean, etikoaren katebegia gehituz. Asko sintetizatuz, “etiko/normatibo/etiko” logika honek “dena/izan behar dena/izan beharko lukeenaren” logikarekin parekatu dezakegu.

⁶⁹ Butler, Zizek eta Laclauen arteko elkarriketa jasotzen duen *Contingencia, hegemonía, universalidad* liburuan Laclauk berak *neur-ezintasun* honi erreferentzia egiten dio esaten duenean: “hegemonía es un enfoque teórico que depende de la decisión esencialmente ética de aceptar, como horizonte de toda inteligibilidad, la *inconmensurabilidad* entre lo ético y lo normativo” (2003: 88). Kurtsibaz jarritako guk idatzitakoa da eta aipatutako *neur-ezintasunari* erreferentzia egiten dio, jarraian ikusiko dugun bezala, batak bestearengan duen eragina adierazteko ideia gisa.

Jelica Sumic-ek ere etikoaren izaera berraktibatzaile honi erreferentzia egingo dio baina Alain Badiouren betaurrekoak erabiliz. Sumicek etikari erreferentzia egiterakoan “fideltasunaren etikaz” ariko da (2008: 229). Mugimendu askatzaile garaikideek 60. eta 70. hamarkadetako mugimenduek planteatzen zuten barne adiskideturako jendartearen ainguratik askatu nahi izan duten bezala⁷⁰, Sumicek jatorrizko dislokazio sozial baten existentzia nabarmenduko du; hau da, eremu soziala homogeneizatzea ezinezko egingo lukeen haustura eratzaile lacaniarra. Errefusatze edo haustura etiko honekiko fideltasuna izango da, edozein politika askatzaile garaikidek bistatik galdu ezin izango duen iparra. Alde horretatik, hegemonia eta dekonstrukzioaren arteko harremana estua litzateke Sumicen begietara. Laclauri aitortutako ahalegin honek hegemoniaren teoriari izaera normatiboa ez ezik (eta etikoa baino) izaera emantzipatzailea emango lioke. Hortaz, emantzipazioa sozialaren *dislokazioarekiko* eta *berraktibazioarekiko* fideltasun bezala ulertu badezakegu, bi aldagai hauek Laclauriaren hegemoniari joera deskriptibista hutsetan erortzeko arriskutik babesteko heldu-lekua emango liokete. Are gehiago, Sumicen arabera, hauek beraiek hegemoniari izaera askatzailea emango liokete.

5.4 Subjektuaren desontologizazioa

5.4.1 Klase gatazkaren nagusitasuna edo bitartekaritzarik gabeko subjektua.

Zizekek aldarrikatzen duen Kapitalaren edo ardatz ekonomikoaren nagusitasunak marxista klasikoek bere momentuan nabarmendu zituzten inplikazioak izango ditu; horien artean nabarmentzekoa subjektuaren eraketari dagokiona. Laclauriaren ustez, subjektuaren eraikuntza, eskaera ezberdinen ekibalentziaren bidez, hutsik eta aurre-determinaturik ez dagoen adierazle baten inguruan artikulatuko da. Zizeken arabera, aldiz, ardatz ekonomikoaren nagusitasunak langileria kokatuko du subjektuaren eraketa prozesuaren erdigunean.

⁷⁰ Bilakaera honen erakusgarri gisa oso adierazgarria egin zaizkigu Sumicen hurrengo lerroak: “La tarea de la política de emancipación contemporánea, desde esta perspectiva, es encontrar una alternativa a aquello que se presenta como algo que siempre estuvo ahí; pero esta alternativa ya no es más una transformación “de una vez y para siempre” -una redención mesiánica del tiempo histórico- sino que es una concepción rigurosa de las posibilidades que se abren por la imposibilidad misma de lo que Laclau denomina el cierre definitivo de lo social” (2008: 230).

“La lucha de clases presupone un grupo social en particular (la clase trabajadora) como agente político privilegiado. Este privilegio en sí mismo no es el resultado de la misma lucha por la hegemonía, sino que está basado en la posición social objetiva de este grupo: la lucha ideológica y política no es, en último término, más que un epifenómeno de procesos y poderes sociales “objetivos” y de sus conflictos” (2010: 80).

Freud eta Lacanen ideiei helduta, Zizeken ustez Laclaren inbestitze hegemonikoak bide bazterrean utziko du “objektu bat Gauzaren kategoriari igotzea”. Hau da, “herria” bera, bitartekaritarik edo inbestitzerik gabe, unibertsaltasunaren ordezkari izatea; *gauzatzea* (*reificación*) bere hitzetan. Antzeko ildoari helduko dio Negriren *jendetzaren* (*multitud*) kategoriak. Michael Hardt-ekin batera garatutako kontzeptu honek subjektuaren izaera *immanenteari* erreferentzia egingo lioke, Laclau bezalakoek diskurtso edo dialektikari egotzen dioten bitartekaritzaren funtzioa *transzendentearen* gainetik (2005: 425). Subjektuaren izaera immanente edo ontologizazio hau ekoizpen prozesuaren baitan sortuko litzateke, *Inperio* postmodernoak utzitako hutsunaren baitan, hain zuzen ere (2005: 428). Negriren jendetzak orain arteko subjektu kategorია ezberdinak eguneratzeko bokazioa izango badu ere (proletalgoa, kasu), Zizek edota marxista tradizionalak aldarrikatutakoek bezalaxe, bere funtsa eremu produktiboaren bilakaeratik determinatuta letorke⁷¹.

Zentzu honetan, Zizekek gogor helduko dio Laclaren azkenetariko maisu lantzat hartu daitekeen *La razón populista*ren aurkako argudioei. Laclauk populismoari emandako ustezko izaera formala eta neutroaren bitartez, honi egotzitako transzendentzia eta *politikotasunaren* kontra egingo du. Esan bezala, Zizekentzat borrokaren ardatz artikulatzailea ez da irekia edo hutsik egongo, ekonomikoak/langile klaseak gidatu beharko du. Alde horretatik, *Lenin reactivado* (2010) liburuan populismoak *etsaiaren* kategoría nola eraikitzen duen bereziki kritikatu du. Laclauk planteatutako nortasunen eraikuntzaren izaera subjektiboak *etsaiaren* kategoriaren eraikuntzan ere ematen denez (hau da, prozesu populistetan etsaia bera eraiki behar denez), Zizeken ustez honek “sakoneko” antagonismoaren ukapena ekarriko du. Esan nahi baita, Zizeken aburuz, Laclarentzat arazoa ez da

⁷¹ Negri eta Hardt-ek *jendetzaren* kategoría *Imperio* (2005) lanean landuko dute. Esan bezala, marxismo klasikoak egin moduan bere jatorria *ekonomikoan* kokatuko badute ere, subjektua ezaugarritzeko aurretik indarrean zeuden kategoría ezberdinak deseraikitze (nazioa, herria, proletalgoa, ...) saiakera bezala planteatu dute. Esparru ekonomikoaren determinazioak “proletalgo berri” batez hitz egitera eramango baditu ere (2005: 416), ekoizpen prozesuan emandako bilakaerak ikuspegi berri batez lantzeramango ditu. Izan ere, bilakaera honetan nagusitu den garapen teknologikoak *jendetzak* ekoizpen bitartekoak bereganatzeko aukera eskura utziko luke, eta berarekin batera (ohiko patroien figura ahulduz), *Inperio* eta *jendetzaren* arteko lehia transnazionalerako eszenatoki berri bat. Zentzu honetan, Negriren botere harremanak zentzu foucaultiarra hartuko du, frantziarraren biopolitikarekin bezala, boterea harreman sozial, ekonomiko, politiko eta bestelakoaren artean ehuntzen, barreiatzen eta murgiltzen den armiarma sare gisa ulertuz (2005: 425-426).

sistema (kapitalista), bera “galbideratzen duen (elementu) *arrotza*” baizik (2010: 82); hau da, kapitalistak, enpresariak edo dena delakoak. Gainera, etsaiaren eraikuntza populista zehatz-gabea litzateke, negatibotasunean edo zerbaitekiko erreakzioan eraikia, eta Zizekentzat, honek planteatzen duen “herriaren eta kanpo etsaiaren arteko berezko antagonismoak”, epe luzera joera proto-faxista eramango luke bere baitan (2010: 84)⁷², etengabean *deuseztu* beharreko etsaia legokeen heinean. Zentzu honetan, bitxia egiten da Zizekek, Laclaren esentzialismo edota berezkotasun akusazioei buelta eman nahian, nola egozten dion azken honi bere egituraketa transzendentalaren (antagonismoa, ekibalentziak, ...) ustezko berezkotasun edo esentzialismo berdina.

Zizekek berak jokoan dagoen sakoneko eztabaida unibertsaltasuna ulertzeko bi moduen arteko lehia dela argi adieraziko du (2010: 90). Laclauk, ariketa populista bidez, eskaera partikular batek unibertsala “kontaminatzeko” egiten duen saiakera edo inbestitzea, batetik; eta Zizekek edo Negrik langile klaseak unibertsaltasun hori *betetzeko* egiten duen saiakera, bestetik. Zizeken ustez, partikularra eta unibertsalaren arteko parekatzea automatikoa litzateke, aldagai zehatz honek osotasuna adieraziko luke beste ezereko inongo identifikazio prozesuren beharrik gabe. Gauzatze honen berezko ezaugarria inbertsioa litzateke: ondorio litzatekeena jatorri bezala agertuko litzateke eta itxurazkoa esentzial gisa. Laclaren ustez, honakoa *mistifikazio* prozesua litzateke eta bere ondorioa marxismo tradizionalak aldarrikatutako *kontzientzia faltsua* (2008: 19). Bertan kontzientzia eratzea prozesua immanentea edo “berezkotasunerako itzulera” litzateke. Horrela, populismoak planteatzen duen kontzientziaren eraikuntza prozesua jatorrizkoa litzatekeen nortasunaren distorsio prozesua baino ez litzateke. Eztabaida, beraz, kontzientzia faltsu eta egiazkoaren arteko lehiaren terminoetan planteatuta legoke.

5.4.2 Gertaeraren etorrera.

Puntu honetara iritsita, eta Zizekek Laclaren hegemoniaren planteamenduari sistema demokratiko liberaletatik harago bere burua irudikatzeko egozten dion ezintasunaren aurrean, burura etor

⁷² Zentzu honetan, bitxia iruditu zaigu lerro batzuk aurrerago populismoa eskaeraren kategoriaren inguruan artikulatzea kritikatzeko; Zizekek berak aldarrikatzen duen *benetako* “subjektu iraultzailea ez delako denbora luzez boterea dutenei zerbait eskatzera mugatzen: suntsitu nahiko ditu” (2010: 85). “Proto-faxismoaren” inguruko ulermen azpimarragarria, behinik behin. Aldi berean, sakonago aztertzea litzateke *Lenin reactivado-n* (2010) etsaiaren kategoriaren zehatz-gabetasunari egindako kritika, urte batzuk lehenago *Hegemonia, contingencia y universalidad* (2003) liburuan antagonismoaz egiten dituen ondorengo adierazpenekin sintonian dagoen: “es también (jendartearen itxitura adierazteko ezintasunarekin batera) imposible representar/articular adecuadamente este antagonismo/negatividad mismo que impide a la sociedad alcanzar su plena realización ontológica” (2003: 109).

dakigukeen oinarrizko galdera Zizekek berak planteamendu honi ikuspegi askatzaile batetik kontrajartzen dion alternatiba zein den argitzea litzateke. Laclauk berak behin baino gehiagotan aipatzen duen bezala nekeza suertatuko zaigu horren inguruko eraikuntza teoriko borobilik aurkitzea (2003: 289). Ezker garaikidearen eztabaida klasiko nagusi batzuk biltzen duen *Hegemonia, contingencia y universalidad* liburuan (2003) Zizekek Lacanengana joko du bere *akto* psikoanalitikoak filosofia politikoaren eginkizun honetan bete dezakeen papera errebindikatuz.

Honen arabera, Errealak Sinbolikoan duen barnekotasuna aldarrikatuz⁷³, *aktoak* irudika-ezina den Erreal baten dimentsioa “era espektral” batean *ukituko* luke (2003: 133). Akto hau, eremu horretako printzipio egituratzailea aldarazteko ideiarekin lotuta legoke. Horrela, akto bat ez da “posible den markoaren” barruan emango (sistema kapitalista-demokratiko batean), posible denaren mugak birdefinituko ditu; hau da, “ezinezko” litzatekeena aldatzeko baldintzak atzeraeraginezko ikuspegiarekin sortuko lituzke (2003: 133). Prozesu hau erabat subjektiboa litzateke, hau da, ez legoke testuinguruak emandako baldintzen arabera emango, baldintza horiek edota jokoaren arauak aldarazteko erabaki erradikala litzateke.

Horrekin batera, *aktoak* subjektuaren nortasuna aldaraziko luke. Akto batek ez luke soilik gure nortasunari aitortutako ala errefusatutakoaren arteko mugan bigarren horretara hurbilduko; ez lituzke soilik errefusatu ditugun “ezinezko” fantasiak “posible” bezala onartuko; Zizeken hitzetan, “gure izatearen oinarri espektral eta errefusatuaren koordenadak aldaraziko lituzke” (2003: 136). Beste modu batera esanda: Zizekzentzat fantasiak (errealitatearen interpretaziorako marko bezala ulertuta) gure mundu errealararen marko sinbolikoa finkatuko luke eta alde horretatik, munduaren interpretaziorako bitarteko gisa, ezinbestekoa litzateke

“En tanto en cuanto la fantasía proporciona el marco que nos permite experimentar lo real de nuestras vidas como un Todo significativo, la desintegración de una fantasía puede tener consecuencias desastrosas” (2014: 37).

⁷³ Zizeken ustez, Erreal Sinbolikotik kanpo dagoen zerbait bezala irudikatzen duten tesien aurrean (esaterako, antisemitismoak judutarrekin; hau da, judutarrak -hauek jendartetik kanpo legokeen espazio sozial gisa-jendartearen existentziaren bermea lirateke), Erreal Sinbolikoaren parte dela adieraziko du (esaterako, klase gatazkan burgeseria ez da jendartearekiko kanpokotasunean definituko). Puntu honetan Zizekek Errealak subjektuaren eraikuntzan duen eragin negatibo, zatitu eta iluna gogoan izan beharko genuke (1999: 100-101). Ikuspegi hori gure kasura ekarriz, ez ginateke (soilik) Erreal/negatibotasunaren kokapenaren inguruko kokapen ezberdin batez ariko (Sinbolikoaren *kanpoan* edo *barruan*); antagonismoaren logikaren gaineko ulermen ezberdinak lehian egongo lirateke.

Zentzu horretan, Zizekek “*fantasia zeharkatzeko*” gonbidapena egingo digu, baina zeharkatze honek zerikusi gutxi izango du fantasia hori suntsitzearekin. Errealitatea egituratu eta egonkortzen duen marko interpretatzaile gisa fantasiak bere eginkizuna betetzen du; hortaz, bera desegin eta errealitate pragmatikoarekin zuzenean topo egitea baino, Zizekek bere baitan lekarkeen inkoherentzia onartzea planteatzen digu. Bertan, “*fantasia suntsitu*” eta “*fantasia zeharkatzearen*” arteko aldea; lehenengoak, errealitatea interpretatu eta bertara egokitzeko ulermen markoaren indargabetzea planteatzen digun heinean, bigarrenak bere irrazionaltasunaren gaineko kontzientzia hartzera eramaten gaitu. Zizeken ustez, fantasiari aurre egite honek guregan duen kontrola eta eragina desegiten du. Horregatik, fantasia (errealitatearen ulermena aldatuko lukeen akto edo gertaeraren etorrera gisa), “*inposiziotzat*” baino (errealitatearekin dugun harremanaren aldaketa behartua baino), errealitatearen beraren aldaketa erradikal gisa irudikatzeko gonbidapena (2014: 40).

Urte batzuk beranduago idatzitako *Acontecimiento* (2014) liburuan Zizekek *akto* edo *gertaera* honetan sakonduko du. Zuzeneko aipamen asko jaso ez arren Badiouren gertaerarekin antzekotasun nabarmenak izango ditu⁷⁴. Zizeken gertaerak gauzen bilakaera normala apurtuko luke, aurretik

⁷⁴ Badiouren pentsamendua matematika ontologia gisa ulertzearen gainean eraikia da. Horrela, Naturaren fenomenoak matematikaren bitartez azalgarriak diren heinean, matematika Naturaren ontologia gisa ulertuko du. Afera, ontologia matematiko hau Historiaren eta prozesu sozialen azalpena eramaterakoan, konplexuagoa egingo da. Horrela, matematiketako axiomak gertaeraren azterketara eramaten saiatuko da *El Ser y el Acontecimiento* (1999) lanean. Bertan *gertaeraren* lekutzea azterketa gai nagusietako bat izango da. Bi hipotesiekin jokatu du: lehenengoaren arabera, gertaera situazio zehatz baten parte izango da; eta bigarrengoan, gertaera ez da situazioaren parte izango (1999; 204-206). Bereizketa ez da hutsala izango, horren arabera gertaeraren ontologia edo funtsa ebatzi beharko baita. Lehenengo hipotesiaren baitan jokatuta, gertaera prozesu historiko baten emaitza gisa uler genezake, Badiouk baztertu nahi izango dituen ikuspegi deterministetan murgilduz; bigarrenaren arabera, gertaeraren ontologiaren inguruko pautarik gabe ariko ginatke, Historiaren bilakaera sasi-eskizofreniko batean eroriz. Zentzu honetan, Badiourentzat gertaera bat situazio zehatz batean lekutua egon beharko da, baina aldi berean, ez da situazio horren bilakaeraren emaitza izango, atzeraeraginezko ikuspegiarekin sortutako zerbait baizik. Zentzu horretan, gertaera *esangaitza* (*indecible*) izango da eta bere kokapenari buruz soilik itxierarako ezintasunaren mugan (edo berak planteatutako *hustasunean*) eman ahal izango dela esan ahal izango da (“[...] si la situación es natural, compacta o neutra, el acontecimiento es imposible. Pero la existencia de un múltiple al borde del vacío hace advenir sólo la posibilidad del acontecimiento. Siempre puede ocurrir que no se produzca ninguno. En sentido estricto, un sitio es “de acontecimiento” únicamente cuando es calificado de manera retroactiva, por el acontecimiento. Sin embargo, del sitio conocemos una característica ontológica, ligada a la forma de presentación: se trata siempre de un múltiple a-normal, un múltiple al borde del vacío. Por consiguiente, sólo hay acontecimiento en relación con una situación histórica, aun cuando una situación histórica no produzca necesariamente un acontecimiento” -1999: 202-). Badiourentzat Iraultza Frantsesa gertaera honen adibiderik garbiena litzateke. “Iraultza Frantsesa” kontzeptuaren barruan, gutxi gorabehera 1789 eta 1794ra bitarte presente egon ziren nekazariak, jakobinoen elkarteak, altxamenduaren soldaduak, gillotina, hirietako *sans-culotte*-ak, *Marsellesa* eta abarrekoak aurkituko ditzaiegu. Frantziar Iraultza situazio zehatz bateko elementuen zerrendatze huts bezala ulertuko bagenu, atzeraeraginezko ikuspegiarekin gertaerari ematen diogun *batasuna* indargabetuko litzateke. Baina non geldituko litzateke norbanakoen esku-hartzea gertaeretan? Soilik atzeraeraginezko ikuspegiarekin sortzen diren gertaeren kontakizunean? Badiouk arazo hau matematiketan baliatzen den “hautaketaren axiomaren” bidez gaintzen saiatuko da. Matematiketan norbanakoek une zehatzetan aukera posible ezberdinen artean hautatu behar izateak Historiaren eremuan ere gizabanakoak hautatzeko eta ondorioz esku-hartzeko aukera izatea zilegituko luke. Baina norbanakoen *esku-hartze* (*intervención*) hau ez litzateke zuzenean gertaeraren eraikuntzan emango; gertaeraren agerpenean *zoriak* zeresan zuzena izango luke, ezin kontrolatutako une gisa; esku-hartzea, nolabait esateko, bi gertaeren arteko ibilbidean emango litzateke, batek utzitako ondorioen gainean beste berri bat sortzeko

existitzen ez zen ustezko batasun eta armoniaren erorketa litzateke (2014: 53). Ordura arteko mundu ikuskeraren erorketa hau kanpotik ematen den esku-hartzea traumatikoaren ondorioa baino ez zen izango, ordura arte nagusi den ikuspegiarentzat onartezina izango dena. Esku hartze honek dakarren oreka zaharraren hausturak ordenu sinboliko berri bati ateak irekiko dizkio. *Realaren* agerpenarekin parekatuko lukeen intrusio hau "iluminazio unetzat" hartuko du (2014: 58); baina Real honen kontrola arduratsua eta askea litzatekeen *Ni*-aren eskumenetik kanpo egongo da. Zentzu horretan, gertaera ez da subjektu transzendentalaren erabakimenaren menpe egongo; subjektua bere gertaeraren emaitza baino ez litzateke, hau da, subjektibitateak *gertaerazko* izaera izango duela esan daiteke. Baina, aldi berean, gertaera ere subjektiboa izango da, bera atzeraeraginezko ikuspegiarekin norbanakoek sortua den heinean. Zizekentzat kristautasuna gertaeraren adibide esanguratsua litzateke; atzeraeraginezko ikuspegiarekin gizateriak aurretik indarrean zegoen sinismen egitura indargabetuz, mundu ikuskera berri bat ezartzeko paradigma gisa⁷⁵.

Baina *benetako akto* edo *gertaera* honekin batera, Zizekek *ez-benetako aktoen* inguruko arriskuez ohartaraziko digu. Izan ere, gorago aipatutako bi baldintza hauek beteta (posible litzatekeenaren mugak apurtuz *ezinezkoa* egitea eta gure nortasunen *fantasia* zeharkatzea) nazismoak berak egin zuena ez litzateke *akto goren* edo *par excellence* bat? Bere ustez bata eta bestearen arteko aldea, lehenengoa hegemonikoa den eta emanda dagoen eremu sinbolikoaren printzipio eratzaila aldarazteko interbentzioan letzake; hau da, jendartea egituratzen den puntu nodala aldarazteko saiakeran; bigarrena aldiz, emandako eremuaren osotasuna edo barne adiskidetzea lortzeko saiakeran oinarrituko litzateke (arraz, erlijioa, nazioa, ...), bertatik kanpo gelditzen diren *hondakinak* (judutarrak, beltzak, homosexualak, ...) suntsitzen saiatuz (2003: 137). Ardatz ekonomikoaren nagusitasunera bueltatuz (eta psikoanalisiaren adarretatik jarraituz), Zizeken arabera, antisemitismoa, esaterako, "traumaren gune errealari" (bere hitzetan "antagonismo soziala" edota klase gatazkari) aurre egiteko ezintasuna litzateke; horrela, "(jatorrizko) antagonismo soziala

baldintzen eraikuntzan, hain zuzen ere. Norbanakoek gertaerarekiko *fideltasuna* agertu beharko lukete; Badiourentzat, *subjektua* gertaera eta fideltasunaren lotura bezala ulertuko duelarik (1999: 266).

⁷⁵ Aurretik noiz jazoko den gertaera fundatzaile honen etorreran ere, antzekotasun nabarmenak aurkituko ditugu Zizek eta Negriren artean: "Ciertamente, llegará un momento en que la reapropiación y la autoorganización alcancen un umbral y configuren un acontecimiento real. [...] El único acontecimiento que estamos *esperando* aún es la construcción o, antes bien, la insurgencia de una organización poderosa. La cadena genética se formó y estableció en la ontología, el andamiaje se construye y se renueva constantemente mediante la nueva productividad creativa, de modo que sólo nos resta *esperar* la maduración del desarrollo político de la posse. No podemos ofrecer ningún modelo para ese acontecimiento. Sólo la multitud a través de su experimentación práctica ofrecerá los modelos y determinarán cuándo y cómo lo posible ha de hacerse real" (Hardt-Negri, 2005: 430-431). Kurtsibak gureak dira, Hardt eta Negri gertaera honen balizko etorreraren aurrean hartzen duten jarrera azpimarratzearen: itxoitea. "Produktibita sortzaile berri" ("nueva productividad creativa") honen izaera determinatzaileak, marxista klasikoei gertatu bezala, subjektua (kasu honetan, *jendetza*) era pasibo batean kokatuko luke, bere eskumenetik harago egongo liritekeen indar ekonomikoek, zehazten ez diren aldagai batzuen arabera, gertaera honen etorrera eragin arte.

desplazatua-ezabatua geldituko litzateke, bera judutarraren irudian proiektatuz” (2003: 139). Egun kapitalismoak *ez-benetako akto* hauen bitartez *benetako gertaerak* (Iraultza demokratikoa, kasu) deseraikitze ahaleginaz ere ohartaraziko digu; modernizazioak ezarritako egituratze sinbolikoaren eskutik nagusitutako balore sistemak (berdintasuna, justizia, askatasuna, ...) eraisteko saiakera ekiditeko ahaleginaren beharra nabarmenduz (2014: 143, 149).

5.4.3 Inbestitze erradikala, ‘martetarren etorrera’ edota Jainkoaren esku-hartzearen aurrean.

Subjektuaren eraikuntzari dagokionez, ezker garaikidearen hainbat adarretan, nagusi den joera immanentea bera ikusi ahal dugu Zizek edo Negriren planteamenduetan. Immanentzia honek, modu batean edo bestean, marxismo tradizioetik heredatutako berezotasun edota determinismo ekonomikoari erreferentzia egingo lioke; kasu honetan, subjektuaren eraikuntza a priori ezarritako egitura (ekonomiko) batek gidatutako bilakaeraren emaitza gisa. Politikoki eraikitako unibertsaltasun partzial eta azpiko mugimenduen arabera gauzatuko unibertsaltasun espontaneoaren arteko dikotomian, bigarrenaren aldeko jarrera nabarmena erakutsiko dute bi hauek. Immanentzia honek izaera ezberdinak izango ditu, ordea.

Zizeken kasuan, bere lehenengo lanetan Lacanek negatibotasunaren ideia bitartez azaldutako subjektuen eraikuntzaren izaera itxi-gabe eta kontingenteari erreferentzia egingo badio ere⁷⁶, ondorengo urteetan, ekonomikoak aurrez ezarritako Historiaren garapenari emandako nagusitasunak subjektuaren (langile klasearen) immanentzia eta lehentasunezko izaera azpimarratuko du (Laclau, 2005: 301). Honek marxismo tradizionalaren oinarritzko gabezien hasiera puntu berdinean kokatuko gaituelarik.

Negrik, aldiz, kapitalismoak garai modernoetan izandako bilakaerarekin jantzi nahi izango du bere subjektu izango den *jendetzaren* abiapuntua. Kapitalismoak ekoizpen prozesuan izandako eraginaren ondorioz, antzua litzateke proletalgora ohiko zentzuan ulertzea. Baina modernizazio prozesuaren ondorioz emandako eskaeren heterogenizazioa eman arren, *jendetzaren* artikulaziorako aukera berdina mantenduko litzateke. Nola? Horren azalpenean Negriren pentsamenduaren gabezi

⁷⁶ Nagusiki *El sublime objeto de la ideología*-n (2003) garatutako ikuspegiak ari gara (Laclauen hitzaurrea jasotzen duena, hain zuzen ere).

nagusietakoa azalduko zaigun. Honen arabera, matxinatzea zapalduetako joera naturala litzatekeenez, beraien batasuna konbergentziarako berezko joera baten adierazpidea baino ez litzateke (2005: 298-299). Hardt eta Negriren arabera “kontra egotea” jendetzaren batasuna bermatuko lukeen irizpide bakarra litzateke, honen artikulaziorako hortik aurrera beharrezkoak direnak zerutik eroritako opari gisa irudikatuz. Baina eskema hau, kutsu baikorregia izan eta prozesu politikoen ageriko sinplifikazioa suposatzeaz gain, ez du Laclauk aipatutako kontrakotasun eta antagonismoaren arteko ezberdintasuna aintzat hartzen. Izan ere, aurretik aipatu dugun bezala, langile bat bere patriarengatik zanpatuta egotea ez nahikoa izango erreakzio bat sortzeko. Honen menpekotasunaren kontzientzia edo nortasun bat politikoki eraiki beharko da (hau da, ekonomiko ematen den plusbalioaren erauzketa objektiboaz harago) aipatutako antagonismoa edo matxinatzea emateko.

Hardt eta Negriren pentsamenduak marxismoak tradizionalki taktikaren gainetik lehenetsi duen strategiaren kontrako erreakzioa litzateke. Ekonomikoaren eskutik marxistek azpimarratu izan duten Historiaren bilakaera determinatuaren arabera, uneko erabaki edo mugimendu taktikoak epe luzera garatu beharreko legeen arabera eman behar ziren. Postmodernitateak azaleratutako etorkizun ireki honetan, aldiz, Negri uneko borroka zehatzei arreta guztia emango lieke, beraien arteko artikulazioa Jainkoaren eskuetan utzitako eginkizuna bihurtuz (Laclau, 2005: 301). Laclau, ezker immanentista garaikideak emantzipazio prozesu errealetarako *haustura* eta *jarraipenaren* arteko dileman kokatuta erakusten dituen ahuldade teorikoengatik.

Antzeko zerbaitekin aurkituko gara prozesu askatzaile horien sorrera eragin behar duten *gertaeren* azalpenean. Ildo honetan, kontraesanak maila ezberdinetakoak lirateke. Batetik, Zizekek gertaeraren etorrera azken batean aldagai ekonomikoaren determinismoari egozten badio ere, prozesu honetan zoriak jokaturako papera ere aurreikusten du. Hortaz, nola artikulatu zoria eta determinismoaren arteko harreman hau? Determinismo ekonomikoaren lehentasuna hobetsita suertatu dakigukeen galdera zera litzateke: kapitalismoa jendartearen funts eratzaillea izanik, nola da posible ekonomizismo horretatik etortzen den gertaeraren azken helburua kapitalismoa bera suntsitu eta iraultzea izatea? Eta zoriaren aldagaiaren indeterminazioa lehenetsita, Badiouk planteatutakoaren haritik: gertaera honek funts eratzaille ontologikorik ez badu (hau da, bere izenean diharduen ekintza iraultzaile gisa), nola uztartzen da ekonomikoaren azken determinazioarekin? Zizekek “borroka antikapitalistaren rol eratzailleari” erreferentzia egingo dio⁷⁷. Baina borroka antikapitalista honetan

⁷⁷ *La razón populista* (2005: 295) liburutik aterata, S. Zizek eta G. Dalyn *Conversations with Zizek* liburuari erreferentzia eginez (Londres, Polity, 2004, 149. orrialdea).

ze borroka partikularrek (ekologista, feminista, ...) parte hartzen duen zehaztu ezean borroka bera nola konfiguratzeko denaren inguruko argipenik ez da emango. Hortik, Laclauk eskaera edo borroka partzial edo partikularrei emandako garrantzia.

Izan ere, Zizekek Laclauri leporatzen dion kapitalismo eta demokrazia liberalaren *onarpen etsipengarriaren* ikuspegi sinplifikatuaren gainetik, eztabaidak badu zehaztu beharreko bestelako aldagai batzuk. Izan ere, ustez eskaera partzialen aldeko borroka leharkean eraldaketa emantzipatzaileari uko egitea sostengatzen duen salaketa zizekiarra gehiegizko sinplifikazioa litzateke. Eskaera zehatzen alde borrokan ari diren aktoreentzat beraien helburu errealak beraien zerumuga bakarra lirateke. Baina uneren batean, orain arte azaldu dugun makinaria guztia baliatuz (elkarren arteko identifikazioa eta ekibalentzia, adierazlea edukiz hustea, ...), eskaera horietako baten asebetetzeak bera eta jendartearen arteko osotasunaren artean sortzen den lubakia bete ahal izango du. Alde horretatik, hainbat gatazka sozialetan lortutako garaipen partzial hauek lortzen duten sinbolismoak hegemonia berri baterako ematen dituen aukerak aintzat hartu beharko lirateke (Laclau, 2003: 198-199).

Hortaz, sakoneko arazoa ez litzateke eskaera partzial hauen aldeko borroka egonkortutako demokrazia liberaletatik harago bestelako marko politikorik eraikitzeak aukera ezabatuko lukeela, baizik eta eskaera zehatz hauetatik harago irudikapen sozial zabalago eta berri bat asmatzeko beharrezkoak diren urratsak emateko dauden ezintasunak edo aukerak litzateke. Laclau eta Zizek ados egongo dira irudikapen hauen behararekin; lehenengoak bigarrenari leporatuko diona hori zer, zeinek eta nola egiten denaren gaineko zehaztapen falta izango da. Bere ustez, justifikatu gabeko hainbat dogma abiapuntu hartuta, Zizekek ez du zer nolako sistemaren alde egingo duen zehazten, bere pentsamendua "benetako hausnarketa *politiko* baten inguruan antolatua baino, eremu politiko-ideologikotik hartutako adibideak hartzen dituen diskurtso *psikonaltikoa* litzateke" (2003: 289). Horregatik, puntu honetan prozesu politikoen martzianizazioaren akusazio ezaguna, prozesu hauek beste planeta bateko izakien eskutik ematera itxoin beharko bagenu bezala (2005: 295; 2008: 63). Hau da, Laclauk Zizeki leporatuko diona, eta Badiou erantzuten saiatuko dena, zera da: sistemaren aldaketa ekarri behar duen *gertaera* horren jatorria edo ontologia zein da eta norbanakoek nola eragin eta parte hartu dezaketen; eragin eta parte hartu badezakete behintzat, bestelakoan, Laclauk esan bezala, gertaera martetar horren etorrerari zain gelditzea baino ez legoke.

Honekin ez da kapitalismoak egungo sistema politikoetan izan dezakeen nagusitasuna zalantzatan jarri nahi izango, baizik eta nagusitasun hau ardatz ekonomikotik harago egon daitezkeen

eskaera/identitate heterogeneokin eraiki ahalko dela azpimarratu nahi izango du. Laclauk ikuspegi honetatik salatu nahi izango duena II. Internazionalatik hona ezkerak aurreratutako pikutara bidaltzeko arriskua eta berak ere eragiten duen geldotasun edo kietismo politikoa litzateke (2003: 290-293).

Posmodernitatearen eta demokrazia liberalaren nagusitzeak nortasun eraikuntzen ikuspegi tradizionalak eta ohiko totalizazio prozesuak ahuldu dituen inork gutxik zalantzan jarriko du. Diskurtso oroharapatzaile hauen porrota mundu garaikidean ematen diren prozesu sozialen abiapuntua bihurtu da, elementuen, eskaera eta borroken arteko dispersioa nagusituz. Honen aurrean, nortasun eta eskaeren zerrendatze hutsean geldituko ez den diskurtso artikulatzaile baten beharra ikusiko dute biek. Aldea aldiz nabarmena izango da:

"Zizek ve en el posmodernismo una suerte de desviación perversa y, en su búsqueda de una dimensión articuladora, totalizante, retoma nociones marxistas tradicionales como "lucha de clases" -sin analizar lo más mínimo las tendencias históricas objetivas que socavan su validez-. Yo, por el contrario, estoy dispuesto a aceptar el desafío del posmodernismo y a tratar de retener la noción de las lógicas articuladoras respetando, sin embargo, plenamente las tendencias particularísticas que el discurso posmoderno ha sacado a la luz" (2003: 301).

5.5 Poshegemonia: paradigma berri baten aurrean?

Poshegemoniaren ideia ezinbestean Latino Amerikako azken hamarkadotako ibilbideari eta menpekotasunaren edota subalternitatearen inguruko ikerketei⁷⁸ lotuta agertzen zaigun. Hegemonia eta populismoaren paradigmak garapen teoriko-praktikoa nonbaiten izan badu hori Latino

⁷⁸ Rodrigo Castrok 1998an Menpeko Ikasketen Talde Latinoamerikarraren (Grupo Latinoamericano de Estudios Subalternos) desagitean kokatzen du kategoria honen jatorria. Taldearen hausturatik *menpekotasunaren (subalternidad)* inguruko bi korronte sortuko dira: batetik, latinoamerikanismo *poskoloniala* deritzona, eta bestetik, latinoamerikanismo *dekoloniala* litzatekeena. Bigarrenak nortasun kultural edo errealitate indigenetan oinarrituta askapen kolonial tradizionalaren agenda berreskuratu nahiko luke. Lehenengoak, aldiz, aztertu ditugun (post)marxismo, postestrukturalismo edo dekonstrukzioaren kategorien berrazterketari helduko lioke. Ikuspegi *dekolonialak* Ekuador edo Bolivia bezalako herrialdeetan bere eragina izango badu ere, Castroren arabera, Latino Amerikako azken hamarkadotako errealitatearen bilakaera aztertzeke sostengu nahikorik ez du eskainiko. Alde horretatik, jendarte latinoamerikar garaikideetan populismoak izan dituen ezintasunak aztertzearekin batera, ikuspegi *poskolonialak* neoliberalismoak eta pentsamendu *dekolonialak* herrialde hauetan izan duen garapena aztertzeke ahalegin teoriko osatuagoa suposatuko du (Castro, 2015: 12-13).

Ameriketako lurraldeetan izan da; eta alde horretatik, kategoria honek izan ditzakeen mugak agerian gelditu eta beraiek aztertzeko froga zelai ezin hobea bilakatu zaie hainbat ikerlari sozial eta filosofo politikoei. Ariketa populista bidezko eraikuntza hegemonikoaren mugak agerian gelditzeak, XX. mendea hasieran Gramscik eta mende bukaeran Laclauk eguneratutako paradigmen kategoria berrituz aztertu eta eguneratzeko atea irekiko du. Hori da jarraian egitera goazena.

5.5.1 Hegemoniaren bokazio oro-harrapatzailea.

Gareth Williams-ek lehenengo kritika lerro honi hurbilpena egingo du hegemoniaren kategoria Gramsciren pentsamenduarengan izan zuen bilakaerari erreparatuta. Aurreko atalean aipatu dugun Buci-Glucksmannek Gramsciren lanen inguruan egindako azterketei begiratuta, sardiniarrarengan hegemoniaren bi adierarekin topo egingo dugu: lehenengoa proletalgoak hegemonia berri bat eraiki ahal izateko bitarteko kontzeptuala eskaintzearekin lotuta legoke (*anomikoa*); eta bigarregoa Estatuak hegemonia berri hori bizirik mantentzeko beharrezkoa litzukeen bitarteko kontzeptualekin (*nomikoa*). Beste modu batera esanda, hegemoniaren adiera *anomikoa* langileriak hegemonia berria gauzatzeko beharrezkoak diren Estatu aparatuek eskuratze bitarteko unea litzateke; adiera *nomikoa*, onarpen soziala mantentzeko ahaleginean Estatu aparatuek horiek jokatzen duten paperean zentratuko litzateke. Marxismo klasikoan *iraultzak* une baten eta bestearen arteko muga zedarrituko luke. Botere aparatuek eskuratzean ematen den hegemoniaren adieraren aldaketa honetan, Gramscik bere arreta Estatuaren gaineko bitartekoetara desplazatuz, indarrean den klaseak bere hegemonia mantentzeko bertatik kanpo egon daitezkeen sektoreak desaktibatze egingo duen ahalegina nabarmenduko du. Horrela, Williamsen arabera, hegemoniak aurreikusten duen kanpokotasun sozialak (hau da, hegemonia horretatik kanpo kokatzen diren sektoreak eta indarrean den hegemonia ordezkatu nahiko dutenak) hegemoniaren ideia bera kolokan jarriko du, ezberdina edo kanpoko desager-arazten saiatzen den heinean. Bere ustez, hegemoniaren adiera hau Laclau eta Mouffera arte luzatuko da:

“La hegemonía en Laclau y Mouffe es un esquema reductivo de autofamiliaridad; es la extensión de una mismidad falocéntrica diseñada para exorcizar del campo social todo posible pensamiento y práctica basada en la alteridad. Es la negación existencial del alter -el grado de distanciamiento potencialmente infinito- que es el verdadero enemigo” (2015: 63).

Hegemonia mantentzeko *alteritate* edo *bestetasun* hau mugatu edo eusteko egiten den saiakera, Estatuaren logikaren zabalpenaren bitartez, politika ulertzeko nagusituko den era hertsatzailearen adierazlea baino ez litzateke izango. Praktika demokratiko guztietan nagusitu beharko litzatekeen *ez-lagunarentzako* lekua nabarmen murriztuko luke hegemoniaren paradigma honek.

Antzeko kritika lerroari helduko dio Alberto Moreirasek hegemonia eta politika parekatu ezin direla baieztatzen duenean. Baieztapen hau sostengatzeko Laclairen hegemoniak suposatzen duen subjektibizazio prozesuan jarriko du arreta; edo nahiago bada, subjektu hegemonikoaren eraikuntzan. Korrante postestrukturalisten planteamenduei jarraiki, subjektibizazio prozesu hauetatik kanpo gelditzen den *horren* garrantzia azpimarratuko du. Bere ustez, asmakuntza politiko orok esaten ez duen *hori* begiratu beharko genuke; ez-subjektuaren presentziari, hain zuzen ere. Are gehiago, subjekturik eta helbururik ez duen prozesuan kokatu beharko genuke arreta. Baina, aldi berean, eraikuntza hegemonikoaren kanpokotasun honek politikarako aukera berri bat eskainiko du; kanpo gelditzen den menpeko *hori*, soilik kanpoan geldituta entzunarazi ahal izango duenez bere ahotsa, lehia politiko berri baterako orubea jarriko du. Menpekotasun edo subalternitatearen inguruko ikerlariak planteatutakoaren antzera, hegemoniatik kanpo dagoen *hori* menpeko izateak existentzia bat emango dionez, politikarako espazio berri bat irekiko da. Horrela, hegemoniaren teoriak eskaera herrikoi-demokratikoa artikulatzea bilatuko duen bitartean, ikuspegi poshegemoniko batetik eskaera batek bere buruaren erradikalizazio bilatzera jo dezake, sistemaren edo indarrean den hegemoniaren onargarritasunaren mugetatik kanpo egoteak une politiko berriaren agerpena bermatuko liokeelarik. Zentzu horretan, eskaeraren ase-ezintasun poshegemonikoak zerumuga berri bat marraztearen bertutea izango luke. Horregatik Moreirasentzat hegemoniaren kategoria ezin izango da politikoarekin identifikatu, barnera-ezintasun horretan poshegemoniaren adiera politikoa jaioko delarik (2015: 129).

5.5.2 Sistemak ez du onarpen sozialik behar

Williamsek azaldutako Estatuaren logikaren zabalpenaren salaketak edota Moreirasen kanpokotasun sozialaren goratzeak Laclairen hegemoniak mendebaldeko filosofiarekin konpartituko lukeen ikuspegi totalizatzailearen salaketara lehenengo hurbilpen bat suposatuko luke. Bilakaera dekonstruktibista honetan Jon Beasley-Murrayk jauzi berri bat emango du, Moreirasen teoriak suposatzen duen kanpo-barru biko ikuspegia planteamendu osatuago batekin gainditu

nahian. Izan ere, Beasleyren arabera, Gramsci/Laclau eta Williams/Moreiras bikoteen arteko ezberdintasuna balantzaren ze aldetan egingo duten indar bereiztean legoke; hau da, Estatuako hegemoniarengan edo horretatik kanpo gelditzen diren menpeko sektoreengan jarriko duten arreta, batak zein besteak eskema hegemoniko berberaren gainean arituko liratekeelarik (2010: 16).

Zentzu honetan, Beasleyk hegemoniari egindako kritika Williams edo Moreirasena baino erradikalagoa izango da. Ezker garaikidearen baitan botere politikoaren konfiguraziorako Estatu-nazio kategoriak dituen ezintasunak agerikoak direla planteatzen duten autore ezberdinekin topo egin badezakegu⁷⁹, hauetako askok planteatutakoaren kontra, Estatuaren atzera egite hau ezin izango dugu bere disoluzioarekin parekatu. Beasleyk Foucaulten biopolitikaren kontzeptua konpartituko du boterearen barreiatze hau azaltzeko orduan. Horrela, Estatuaren botere politikoaren erreferentziazko kokagune gisa pairatuko lukeen ahultzea eta lausotzeak ez luke botere honengan ematen den berregokitzea edota birbanatzea ezkutatu behar. Nagusiki jendarte zibilaren eremu ezberdinengan emango litzatekeen boterearen barreiatzeak ez du (Estatuaren) hegemoniaren zabalpena ekartzen, bere atzera egitea baizik. Baina Foucaultek biopolitikarekin esan bezala, botere hau Estatuaren eskuetatik harreman sozialak konfiguratzeko dituzten leku guztietara zabalduko den heinean, poshegemonia hegemoniaren arrakasta unea ere litzateke (2010: 14).

Horrela, Beasleyk Estatuak edo sistemak beharko lukeen onarpen soziala zalantzetan jarriko du. Are gehiago, bere ustez sistemak jendartearen maila bateko babesaren edo onarpenaren ustea hegemoniaren teoriak eraiki nahi izan duen iruzur nagusietako litzateke. Hegemoniak eta populismoak aldarrikatutako sen ona, herri, botere eratzailera eta bestelako kategoriak inbertsio prozesu baten emaitza baino ez lirateke. Alde horretatik, hiru kontzeptuen garrantzia nabarmenduko du sistema politiko-sozialen artikulazioan: *ohitura*, *afektua* eta *jendetza*. *Ohituraren* kategoria Bordieuren pentsamendutik erreskatatuko du, sen onak inplikatzeko duen adostasunezko iritzieren aurrean. Bere ustez, jendartearengan presente dauden ohiturek eta usadioek ondo eraturako iritzi arrazionalak baino pisu handiagoa izango lukete; gainera, ohiturei emandako garrantzia honek Estatuaren hertsadurazko bitartekoen erabilerari edota indarrean den sistemarekiko jendartearen onarpen sozialaren ideari bigarren mailako funtzioa emango lieke. Horrela, kontzientziaren azpitik funtzionatu eta birproduzitu liratekeen joko sozialaren idatzi gabeko arauak garrantzia hartuko lukete. *Afektuaz* baliatzen duen adiera Deleuzeren ekarpen teorikoarekin zorretan legoke. Laclauk batez ere populismoaren definizioan emozioen papera nabarmenduko badu ere, Beasleyk honekiko diferentziak markatu nahi izango ditu, sistemarekiko bere adostasuna arrazionalki eman edo

⁷⁹ Beasleyk, zehazki, Neil Larsen (1990) eta George Yúdice-ri (1995) erreferentzia egingo die (2010: 14).

kentzeko gai den subjektuaren ideia baldintzatuko lituzkeen intentsitate inbertsonaletan arreta jarritz. Baina Negriren *jendetzaren* kategoria berreskuratuz (Laclairen *herriarena* baino), subjektibitateak oraindik paper handi bat jokatzen jarraitu behar duela nabarmenduko du; *jendetza*, Estatuaren botere eratuaren edota subiranotasunaren aurretik ematen den botere eratzaillearen subjektua litzatekeelarik (2010: 12).

Beasleyren hitzetan, hegemoniak eskatzen duen onarpena eta adostasuna (aktiboa edo pasiboa izan) fikzio bat baino ez litzateke. Menpekotasunaren edo subalternitatearen inguruko ikerlarien posizioetara hurbilduz, hegemoniaren aldekoek Estatu eta jendarte zibilaren artean aurreikusiko luketen *paktuaren* beharra ezinezko bat litzateke. Korrante subalternalista honen barruan kokatu dezakegu Ranajit Guharen arabera menpekota ez-iraunkorra eta aurreikus-ezina litzateke eta edozein egitasmo hegemonikori bizkar eman edo traizionatuko du, menpeko den heinean, egoera horretan egonkortuko lukeen edozein adostasunari uko egiten dio heinean⁸⁰. Gayatri Spivakek antzeko ideari helduko dio *Can the subaltern speak?* (1988) lan ezagunean, menpekota posizio hegemonikoak desagiten duen *ondakin* mutu eta ezinezkoa dela esaten duenean. Beasleyren arabera, Venezuelan chavismoarekin ikusitakoa, Latino Amerikako historia garaikidean menpekoek hegemoniari egindako *traizio* honen erakusle bat baino ez litzateke.

5.5.3 (Pos)Hegemonia: ezinezko eta beharrezko paradigma.

Ikusten ari garen bezala poshegemonia ez litzateke hegemoniaren kategoria ordezkatzera etorriko litzateke paradigma berri bat. Azken honen mugak eta izaera totalizatzailearen arriskuak agerian uztera letorkeen ideien multzoa baizik. Zentzu horretan, “hegemonia inoiz existitu ez denaren” Beasleyren baieztapena gehiegitsu litzateke J. L. Villacañas bezalako autoreentzat. Azken honek bat egingo du Beasleyrekin herritarrak sistemaren aginduak obeditzearen atzean azterketa eta balorazio arrazional oso bat ez dagoela esaterako orduan; gauzak sinpleagoak lirateke, ohiturak, afektuak edota interesak bezalakoak duten pisua aitortu beharko liratekeelarik (2015: 168). Horregatik espazio sozialaren eremu guztiak kontrolpean izango duen eraikuntza hegemoniko iraunkorraren ideia errefusatuko du. Aldiz, hegemoniaren kategoria indartsua da; erakarpen sozial handia dauka. Gareth Willilliamsek berak aitortuko duen bezala, prozesu sozialetan nagusi diren ziurgabetasun eta kontingentziari eraikuntza hegemonikoak oinarrian duen erabaki edo dezisionismoaren bitartez

⁸⁰ Beasleyren lanetik aterata (2010: 15).

egonkortasun maila bat emateko ariketa da (2015: 60). Elías Jose Palti-k, Leforten iraultza demokratikoak eskaintzen duen markoaren baitan jokatzuz, antzeko ildoari helduko dio posmodernitatean ematen diren kategoria tradizionalen erorketari aurre egiteko hegemonia ziurtasun berriak aurkitzeko bide gisa irudikatuz:

“En todo caso, la disolución contemporánea de aquellas categorías acuñadas en el siglo XIX señala una ruptura no menos irreversible que la producida en el siglo XVII. Llegamos así al término de un largo ciclo. Sin embargo, llegados a este punto descubrimos también que, aun después de producido este segundo desencantamiento del mundo⁸¹, rotas ya las ilusiones de Sentido, no podemos, sin embargo, prescindir del mismo, que necesitamos el mismo, que no podemos todavía evitar persistir en su búsqueda, aun cuando ya no podemos creer en él, dado que sabemos que no existe, que se trata de una pura ilusión” (2015: 263).

Hori da hain zuzen ere (pos)hegemoniak eskaintzen diguna; ziurgabetasun hauei heltzeko euskarri puntu bat; ibiltzen jarraitzeko zerumuga bat; ilusio den baina aldi berean ezinbesteko den erreferente bat; edo Villacañasek dion bezala, “agerpen karismatikoa” (2015: 169). Baina agerpen horren salbuespenezko izaera hegemoniaren muga nagusia izango da. Izan ere, oso zaila izango da momentu batera arte indarrean egon den mundu ikuskera aldaraziko duen agerpen hori ematea. Baina Gramscik esan bezala, hegemonia ez da ontologiaren funtsa determinatuko duen kategoria bat; ez du agerpen hori noiz eta nola emango den zehaztuko; hegemonia praxiaren filosofia izango da, Zizekek edo Badiou gertaerarekin planteatu bezala, ekinaren ekinaz une batean *emango* den agerpen hori.

Samuel Steinberregek dioen bezala, ikuspegi poshegemoniko batez hegemoniaren mugak *ahaztea* (hau da, hegemoniak marraztutako zeruertez ukiezin horretarantz urratsak ematea, ukiezina dela *ahaztuta*), praktika askatzaile baterako oinarrizko abiapuntua eskaini dakiguke (2015: 203), inork errepikatu nahi izango ez dituen akats totalizatzaileetan berriro erori gabe.

⁸¹ Paltirentzat “munduaren lehenengo desengainua” Berpizkundearen eskutik ematen den Jainkoaren figuren desplazamenduarekin lotuta legoke; eta bigarrena, XIX. mendean mundua eta giza harremanak egituratzeko artikulatzen diren eskubide, Estatu, nazio edota iraultza bezalako kategoriek (Jainkoaren erorketak utzitako hutsunea betetzera etorriko direnak, hain zuzen ere) momentu batean elkarbizitza kolektibo bat artikulatzeko erakusten dituzten mugen agerpenekin lotuta legoke.

5.6 Ondorioak

Kapitulu honetan jaso nahi izan ditugun hegemoniaren teoriaren mugen oinarritzko azalpenean, egun ezkeraren baitan ematen diren eztabaida nagusietako batzuen muina laburbiltzen saiatu gara. Ez da marko teoriko honen helburua “ezkeraren krisia” deitu den horren azalpen zehatz bat ematea. Botere harremanak identitate politikoaren eraikuntza prozesu bezala ulertuta, emantzipazio mugimendu ezberdinek hegemonikoa izango den nortasun honen artikulazioan topatu dituzten zailtasun nagusi batzuegana oinarritzko hurbilpen bat egitea baizik. Beti ere, hurbilpen teoriko honek garatu nahi dugun azterketa enpirikoan lagunduko digulakoan. Horrekin batera, kapituluaren hasieran agindu bezala, Zizek edo Negri bezalako autoreek hegemoniaren teoriari egotzitako ahulguneen aurrean, ikerketa lan honetan egingo dugu hautu teorikoa azpimarratu izan nahi dugu.

Laburbildu ditzagun azpimarratu ditugun hiru ahulgune nagusiak eta horien aurrean egindako hautu teorikoa:

a) *Diskurtsibitatearen gehiegizko pisua*: Laclau eta Mouffek planteatzen duten diskurtsibitatearen adiera gogor edo *tick*-aren aurrean, bestelako adiera thin edo malguagoen existentzia azaldu dugu. Prozesu politikoaren izaera diskurtsibo, eraikia eta performatiboa defendatzen dutenekin bat egingo badugu ere, Diskurtsoaren Teoria honek arreta nagusia prozesu hauen dimentsio eratzailerako edo ontologikoarengan jartzen duela agerikoa izango da; prozesu sozial zehatzen azterketan honek dakartzan mugekin. Muga hauek gainditzeko Torfingek planteatutako “teoria tradizional” edota Howarthek “irismen ertaineko” kategoriak deitutakoak baliatzearen aldeko apustua egingo dugu, gatazka sozialaren azterketarako jarraian azalduko ditugun Mc Adam, Tarrow eta Tillyren mekanismo eta prozesuak baliatuz.

b) *Hegemoniaren teoriaren izaera deskriptibista*: aipatu dugu ere modernitate berantiarrean eskaera demokratikoen ugaltzearen (sexu, arraza eta bestelako aldagaien inguruan) ondorioz emandako aldagai ekonomikoaren lehentasunezko izaeraren desplazamenduak, *ezker immanentistaren* baitan kokatu ditzakegun hainbat sektore edo pentsalarien aldetik hegemoniaren teoriaren gaineko kritika zorrotzak eragin dituela. Kritika hauen muina bi ideia nagusietan laburbildu dezakegu: batetik, hegemoniaren teoriak demokrazia liberal garaikideek eskaintzen duten markotik harago *bestelako* sistema politiko bat irudikatzeko izango dituen mugak; eta bestetik, eta aurrekoari lotuta, Negri

leporatu bezala hegemoniaren teoria boterearen (eraldaketa) inguruko gogoeta baino, boterean dauden indarren arteko *trantsizioarena* izango litzatekeela.

Kritika lerro honen defendatzaileek ekonomikoaren desplazamendua, prozesu sozialetan izaera normatiboaren galerarekin parekatuko lukete, eta hori akats larria litzateke Laclairen ustez. Azken honen arabera, urteetan zehar identitate politikoen eraikuntzan klase gatazkak hartu duen posizio pribilegiaturen leku-aldatzeak, emantzipazio prozesuak edukiz hustea baino, mugimendu askatzaileei artikulaziorako aukera berriak eskeini die. Zentzu horretan, posfundazionalistek defendatutako une *politiko* edo eratzaille horren kontingentzia eta aldakortasunak, demokraziaren erradikalizazioari abiapuntu berri bat eskainiko dio. Horrela, hegemoniaren eraikuntza berri baterako beharrezkoa den *sedimentatutako* esparru sozialaren *berraktibaziorako* unea eskaera ezberdinen arteko lehiak finkatuko du, eta ez alde zuzenetik aurre-determinatutako aldagai finko batek (Marchart, 2009). Kontingentzia hori izango da lehia demokratikorako ezinbesteko baldintza eta, identitate politiko berrien eraikuntzaren bidez, botere politikoa eskuratu nahi duen emantzipaziorako edozein mugimenduk orube horren gainean jokatu beharko du.

c) *Subjektuaren desontologizazioa eta bere papera hegemonia berriaren eraikuntzan*: subjektuaren eraikuntza prozesuari begiratuta, orain arte azaldu ditugun bi posizio nagusiek ez lukete errefuxatuko hegemoniaren teoriak leharkean subjektuaren desontologizazioa; afera desontologizazio horren inguruko ulermenaren ingurukoa litzateke. Hau da: Laclairen berak subjektuaren artikulaziorako beharrezkoa litzatekeen elementu fundatzailearen *hustasuna* aldarrikatuko du, marxismo tradizionalak aldarrikatutako ekonomikoaren lehentasunezko izaera aurre-determinatuaren aurrean; eta Zizekek edo Negriek ere, elementu fundatzailearen “exodo” hau antzemango dute, baina ekonomikoaren desplazamendu honek baldintzatuko lukeen izaera emantzipatzailearen indargabetzea salatzen. Horrela, lehenengo ikuspegiak subjektuaren eraikuntza prozesuaren izaera politikoa eta kontingentzia aldarrikatzen duen bitartean, bigarrenengoak subjektuaren agerpena Historiak eta ekonomiak norabidetutako prozesuaren emaitza gisara irudikatuko luke. Funtsean, *boluntarismo* eta *historizismoaren* arteko lehiaren irudikapenaren aurrean kokatuko ginateke. Baina subjektuaren kategoriaren inplikazioei begira ze eredu lehentsi? Laclairen teorizatutako eredu *dezisionista* eta artikulatzailea ala Zizekek eta Negriek *gertaeraren* agerpenaren ondorioz gorpuztuko litzatekeen eredu inmanentista?

Kapitulu honetan apuntatzen hasi garen bezala, Badiou (2005) ezkerarren baitako eztabaida klasiko hau norabidetzen saiatuko da. Aipatu bezala, bere ustez *gertaera* atzeraeraginezko ikuspegiarekin

subjektuak eraikitzen duen kontakizun politikoa litzateke (Badiou, 1999), non subjektuak ezingo lukeen *zuzenean* gertaeraren agerpenean eskua hartu eta *zoriak* pisu erabakitzailea izango lukeen (1999, 226-234). Baina Badiourentzat subjektuak ez luke soilik ikuslearen papera hartu behar. Subjektuaren esku hartzea bi gertaeraren artean eman beharko litzateke, lehenengo gertaerarekiko *fideltasuna* erakutsiz eta honek utzitako ondorioak jarraituz (1999: 236), eta hurrengo gertaeraren agerpenerako baldintzak sortuz, nolabait esateko. Zentzu horretan, Badiourentzat subjektua gertaera eta fideltasunaren arteko lotura egingo lukeen hori izango litzateke.

Badiouk boluntarismoaren eta historizismoaren artean bilatu nahi izango duen tarteko bide hau, poshegemonistek Laclairen hegemoniaren teoriari leporatutako bokazio oro-harrapatzaile eta Zizek/Negriren ekonomizismo eta determinismoaren arteko espazio bezala irudika dezakegu; non lehenengo gertaerarekiko (iraultza demokratikoa, demagun) fideltasuna erakutsiz, subjektua honek utzitako orubearen gainean artikulatuko litzatekeen; beti ere, kontingentziaren indeterminazioaren ondorioz hegemonikoa den mundu ikuskera aldatu dezakeen *gertaeraren* aurreikus-ezintasuna aintzat hartuz.

José Paltik (2015) Badiouren antzeko interpretazio bati helduko dio aipatutako boluntarismo eta historizismoaren arteko harremana aztertzerakoan:

“En definitiva, lo que se expresa allí es esa relación paradójica entre voluntarismo e historicismo de que habla Badiou como la marca característica del pensamiento de la política del siglo XX, la relación al mismo tiempo contradictoria e inescindible que se establece entonces entre ambos. La solución característica, propia al tipo de discursividad política del período, consiste en desdoblar planos. Dislocar la Historia en el nivel del discurso político para liberar al Sujeto de las certidumbres teleológicas remitiendo las mismas a un segundo nivel de discursividad política en el que actuarán como el fundamento implícito y, al mismo tiempo, negado, de aquel” (2015: 259).

Azken finean, dislokazioaren kategoriak ekonomizismoak edo historizismoak gidatutako ziurtasunen ahulguneak politikoki agerian utziko lituzke. Baina ziurtasunen ukazio hau, subjektuaren artikulazioak beharrezkoa duen barne fundamentuaren beharrekina lagunduta agertuko zaigu, *ezinezkoa* baina aldi berean *beharrezkoa* den fundamentu artikulatzailearen hustasuna era paradojiko batean irudikatuz. Berrikuntza hau izango da teoria posfundazionalistek subjektuaren artikulazioari egindako ekarpen nagusia.

6. KAPITULUA: EKINTZA KOLEKTIBOAREN AZTERKETARAKO MEKANISMO ETA PROZESUAK

6.1 Sarrera

Aurreko kapituluaren esan dugun bezala, gertaera sozialen azterketarako hegemoniaren teoriak diskurtsibitateari emandako gehiegizko pisua arindu edo *thick* (indartsua) erabilera leuntzeko, Torfingek aipatutako “teoria tradizional” edo Howarthekek azaldutako “irismen ertaineko” kategorietara joko dugu. Bestelako tresneria teoriko horren erreferente bezala, gatazka sozialen azterketarako Doug McAdam, Sidney Tarrow eta Charles Tillyk (MTT) baliatutako mekanismo eta prozesuei helduko diegu. Mekanismo eta prozesuen baliagarritasuna prozesu sozialen ikerketarako baliatutako *agenda klasikoaren* eguneratzearen beharretik planteatuko digute; nagusiki, agenda klasiko honek suposatzen zuen ikuspegi estatikoa berritzearen ikuspegitik. Izan ere, MTTren arabera, XX. mendearen bigarren erdialdean zehar nagusitutako eskola arrazionalista edo kulturalisten gehiegizko estrukturalismoak jendartean ematen diren aldaketen bilakaera eta izaera dinamikoa alde batera uztera eraman ditu. Dinamismo honi lotuta MTTren kezka nagusietakoa azken hamarkadetan aldaketa sozial hauek sistema demokratikoetan izan duten eragina aztertzean kokatu da. Horrela, demokraziaren kategoria estatikoa baino etengabeko atzera-aurrerako bilakaeran egongo den demokratizazio prozesu dinamikoaren ideia nahiago izango dutelarik. Zentzu honetan, MTTrentzat demokratizazio prozesuak gatazkatsua izango dira, izaera liskartsu hau ekidin-ezinezko ezaugarria litzatekeelarik.

Zentzu honetan, nabarmenak izango dira Laclau eta Tillyren ikuspegien arteko antzekotasunak. Bakoitza bere diziplinatik baina bietan gehiegizko egiturazalekeria honen mugak gainditzeko nahia nabarmena izango da. Aldaketa prozesuen izaera lehiatsua, kontingentea, aurre-determinatu gabea edota dinamikoa bateratze puntuen adibide batzuk baino ez dira izango. Tarezzori, esaterako, antzekotasun hauek ez zaizkio oharkabeen pasako, biek *politikoaz* duten adiera gatazkatsua eta aldarrikatzen duten instituzioen demokratizazio *lehiatsua (polemológica)* nabarmentzen duenean (2015: 25).

Aipatzekoa izango da ere nazionalismoaz konpartituko duten adiera. Laclauk hegemoniaren teoriaren eraikuntzan kategoria honen inguruko lanketa espezifikorik egiten ez duenez, orain arte honi arreta teoriko txikia eskaini diogu. Tillyren pentsamenduan, aldiz, iraultza eta demokratizazioarekin batera, nazionalismoa oldarraldi zabaleko hirugarren prozesu nagusia izango da. Ezberdintasun honek, ordea, ez luke estali behar batak eta bestea prozesu nazionalistez konpartitzen duten ikuspegia. Aurrerago sakonduko dugun bezala, prozesu hauetan Tillyrentzat berebiziko garrantzia hartuko duena beraien izaera liskartsua izango da. Hau da, nazionalismoak historikoki bere funts egituratzaile bezala aldarrikatu izan ohi dituen aldagai *objektibo* emandako garrantziaren aurrean (hizkuntza, kultura edota etnia bezalakoak), nazionalismoa gatazka politikoaren beste forma bat baino ez dela aldarrikatuko du. Bere ustez, gatazka horren jatorrian aldagai estrukturalak, mugapen instituzionalak edota elementu kulturalak, kasuan kasu, ze pisu izan duten aztertu beharko litzateke.

Zentzu honetan, “jatorrizko nazioen” ikuspegia ikerlari sozialen artean azken hamarkada luzeetan pisua galtzen joan den ikuspegi da; baita eszenatoki politikoan ere. Zentzu horretan, nazioak (edo Laclauk gustukoago lituzkeen “herriak”) eraikuntza soziala direnaren ustea nagusitzen joan da. Ikuspegi objektibista eta subjektibisten arteko lehia honetan, Charles Taylorrek (2006) tarteko ikuspegi interesgarri bat txertatuko du. Horren arabera, herriak irudikapen sozialak lirateke; irudikapen hauek testuinguru historiko bakoitzaren errealitatera egokituko lirateke, baina aldi berean, atzeraeraginezko ikuspegiarekin ere birmoldatzen direnak; hau da, pasatutako iragan baten berrinterpretazio batetik⁸². Horrela, nazioa edo herriaren eraikuntza *estratifikatua* litzateke (Tarizzo, 2015: 23); batetik, modernitatearen asmakuntza politikoaren maila izango luke, eta bestetik, ezabatu gabeko trasfondo baten gainean ere eraikia litzateke. Horrela, irudikapen berri hau zaharragoa den beste batekin zorretan egongo da, zahar honek berriaren eraikuntzarako sinbolismo handia mailegatu ahal izango diolarik.

Nazionalismoaren inguruko disertazio hauez gain, beste hainbat alorretan ere antzekotasunak agerikoak izango dira: *estruturalismoaren arrastoa* nabaria izango da, bai Laclauen hegemoniaren izaera transzendentean, zein Tillyk “inguruabarreko elementuei” emandako garrantzian; ildo berean, *diskurtsua* aldagai erabakigarria izango, bai Laclauen hegemoniaren eraikuntzan, zein Tilly prozesu sozialen ikerketarako planteatzen dituen marko diskurtsibo (master frame) dagokionez; Laclauk aktore edo eskaera ezberdinei hegemoniaren eraikuntzarako aurreikusten dizkien aukera

⁸² Taylorrek, zehazki, EEBBetako eta Frantziako adibideak jarriko ditu; herri bakoitzaren berreraikuntzarako, konstituzionalismo federalak edota tradizio iraultzaileak, hurrenez hurren, izan zuen pisu sinbolikoa berreskuratuz eta atzeraeraginezko ikuspegiaren berrinterpretatuz (2006: 154).

ezberdinetan, eragin zuzena izango dute mobilizaziorako egituren kudeaketan eragileek izango dituzten bitarteko ezberdinak; ... Hauek antzekotasun batzuk baino ez dira izango. Baina ikerketa lan honen erreferentziazko bi autore hauen artean ere ezberdintasun nabarmenak egongo dira. Izan ere, aipatu izan dugun bezala, Laclairen pentsamenduak, hegemonia berri baten eraikuntzaren une *politiko* edo fundatzaileari erreferentzia egingo dion bitartean, Tillyrenak prozesu sozialen bilakaeran parte hartzen duten mekanismo eta prozesu zehatzei arreta jarriko die. Zentzu honetan, bakoitzaren abstrakzio maila ere ezberdina izango da; hegemoniaren mugen atalean esan dugun bezala, lehenengoak prozesu luzeetan ematen diren epe erdi-luzeko joerak aztertzen dituen bitartean, bigarrenengoak gertakari zehatzak testuinguruan jartzeko bitarteko teorikoak eskainiko dizkigu. Zentzu honetan, bi diziplina teoriko ezberdinen erabilerak 90. hamarkadan Euskal Herrian eman zen identitate politikoen bilakaera aztertzeko lanabes egokia eskainiko digulakoan gaude.

Kapitulua antolaketan sartuta, lehenengo atal batean prozesu sozialen azterketarako *agenda klasikoaren* atal nagusiak eta mugak azpimarratuko ditugu, *agenda berriaren* oinarria izango diren mekanismo, prozesu eta liskarraldien funtsa azaltzeko. Hiru kategorია hauen oinarritzko azalpenarekin batera gatazka sozialetan aurkitu ditzakegun mekanismo moten (mobilizaziorako mekanismoak, nortasunaren eta ekintzaren eraikuntzari dagozkionak eta liskarraldiaren garapenari lotutakoak) zein oldarraldi zabaleko prozesuen sailkapenari helduko diogu. Azken hauei dagokionez, arreta berezia eskainiko diogu demokratizazio prozesuei, honi dedikatuz kapitulu honen bigarren atala.

Demokratizazio prozesuen oinarritzko ezaugarriak eta aldagaiak azaltzearekin batera, zehazki oldarraldi zabal hauetan parte hartzen duten mekanismo eta prozesu espezifikokoak zerrendatuko ditugu: berdintasuna eta ezberdintasuna, konfiantza sareak eta herritarren eragina Estatuarekiko. Tillyk konfiantza sareei dedikatutako arretagatik eta hauek gure ikerketa proiektuan izango duten garrantziagatik lanketa zehatzagoa egingo dugu; besteak beste, hauen ezaugarriak, integrazio mailak, sare hauetan ematen diren aldaketak edo hauek sistema demokratikoetan duen eragin espezifikokoak nabarmenduz.

Jarraian agenda berri honek dituen muga edo ahulgune nagusien erreposoa egingo dugu, gabezi hauei autoreek beraiek planteatutako erantzunak kontrajarrit. Bukatzeko, agenda berriaren inguruko hainbat ondorio aterako ditugu, ikerketa honen hurrengo blokearen argipen metodologiko gisa baliatu nahi izango ditugunak.

6.2 Ekintza kolektiboaren azterketarako agenda *klasikoa*

Agenda klasikoa aztertzen hasteko, eta sarrera gisa bada ere, gizarte ekintzaren ikerketarako paradigma teoriko nagusien oinarrizko azalpenari helduko diogu. XX. mende hasierako eskola irrazionalistatik hasi eta ikuspegi postmodernora arte.

Populismoaren jatorrien azterketaren atalean ikusi dugun bezala, XX. mendearen lehenengo erdialdean garatu ziren korrante ideologiko nagusien (nazismoa, estalinismoa, ...) gehiegikeriak ikuspegi patologiko batetik aztertu nahi izateak suposatzen zituen mugapenak aintzat hartuz, 50. eta 60. hamarkadan ikuspegi zientifikoagoa batekin azterketa modernotzat hartu dezakeguna garatzen hasi zen. Azterketa honek bi paradigma nagusien arabera garatuko da: *jokabide kolektiboarena* eta *arrazionaltasun kolektiboarena*.

Lehenengoak funtsean ikuspegi irrazionalaren erantzun bezala artikulatu zen, “behetik” egindako historiaren errebindikazio gisa eta jendea txotxongilotzat jo nahi izatearen aurka; izan hurbilketa psiko-soziologikoak eginez (hau da, ekintza soziala giza-eskaerak bide instituzionaletatik ezin bideratzearen erantzun gisa kokatuz), izan hurbilketa estruktural-funtzionalistak eginez (hau da, giza-ekintza jendartean dauden tentsio estrukturalen emaitza gisa). Edozein modutan, jokabide kolektiboak hiru mito deseraikitzen lagundu zuen (Blummer, 1951; Smelsser, 1962⁸³): a) lehenik, *barne zoramenaren* arabera (*madness within*), bidegabekeriak eta berak sortzen dituen ezinegon eta emozioak ez dira parte hartze soziala azaltzeko argudio bakarrak; b) bigarrenik, *zoraturako jendetzaren* (*madding crowd*) mitoaren gainbeherarekin jendetzaren baitako elkar-ekintzak ez luke emozionalki gidaturako “erreakzio zirkular” baten arabera funtzionatuko, hots, hausnarketa kritiko eta arrazionalak jendetzaren jarrera ulertzeko fundamentuzko elementuak izaten jarraitzen lukete; c) eta hirugarrenik, “*ideia zoroak dituen jende zoroaren*” (“*mad people with mad ideas*”) ustea gaindituz, jokabide kolektiboa bultzatzen duten usteek ez dute zertan eguneroko errutina gidatzen duten usteak baino irrazionalagoak izan behar.

Arrazionaltasun kolektiboak aldiz, koste/etekin kalkulu batean oinarrituko da, edozein ekintza kolektibok eskatzen duen kalkuluan hain zuzen ere; baina jokoan dauden aldagai kopuru altua eta hauen konplexutasuna tarteko, kalkulu horren emaitzak ezin izango dira aldeztetik erabat

⁸³ Edwards, 2014: 40

neuritu. Marcur Olsonen (1992) pentsamendua paradigma honen eredutik adierazgarrietasuna izan daiteke. Bere ustez, ekintza kolektiboaren arazoa gehitzaile litzateke; hau da, ikerketa sozialak talde bateko ahalik eta kide gehien beraien ongizate komunerako nola inplikatzen diren argitu beharko luke.

70. eta 80. hamarkadan *eskola analitiko klasikoak* garatu ziren, nagusiki bi adarren gainean: *mobilizaziorako baliabideen teoria* (*Research Mobilization Theory -RMT-* edo eskola amerikarra) eta *gizarte mugimendu berrien azterketan* (*New Social Movements -NSM-* eskola europarra). Lehenengoak antolaketa du aztergai nagusia, horrek prozesu politikoetan duen eraginaren ikuspegitik. Bigarrenengoak inguruabar sozio-kultural orokorra du aztergai. Honek, gizarte mugimendu berrien ezaugarriak ikuspegi ezberdinetatik lantzen ditu: eredu *kultural* ezberdinen arteko talka gisa, paradigma *politiko* berrien ardatz bezala edota aurreko ezaugarriak barne bilduko lituzkeen ikuspegi *integratzaile*tik.

Azkenik, 90. hamarkadatik aurrera garatuko den *postmodernitatearen eskola* aipatuko dugu. Paradigma *konstruktibista* horren erreferentzia nagusietako bat izango da, mugimendu sozialen sorreran eta euren garatzen duten ekintza kolektiboan jendarte eraikuntzak duen garrantzia errebindikatzen duena. Honek aurreko bi ikuspegiei kritika zorrotza egin zien; gizarte mugimendu berrien teoriari dagokionez, ekintzaren jatorriaren aldagaiak aztertu bai, baina horren garapena ez zuelako ikertzen (ekintzarik gabeko eragilea); eta RMT kontrako akatsean erortzen zelako, praxia aztertuz baina ekintza horien jatorria ez (nortasunik gabeko praxia). Beste modu batera planteatuta: RMTk mugimenduen *barne* aldagaietan gehiegizko arreta jarri zuen bitartean, gizarte mugimendu sozial berrien paradigma *kanpo* inguruabarrean zentratuko da. Bi muturren arteko eztabaida honek ikerketa soziala mugimenduaren agentziaren eta inguruabarraren estrukturaren arteko aterabiderik gabeko kalezulora eramaten zuela arbuiatzen zuten ahotsak geroz eta gehiago ziren. Gizarte eragileen jokalekua eta jo puntua izango den *errealitatearen* izaera eraikia dilema hau gainditzen joateko eredu bezala planteatuko da. Bertan *framing*-ak edo markogintzak berebiziko garrantzia hartuko du, “hor kapoan dagoen mundua” sinplifikatu eta kondentsatzen duen eskema interpretatzailea bezala ulertuta (Snow&Benford, 1992: 137). Zentzu batean, *framing*-ak estrukturaren eta mugimendu sozialen agentziaren arteko bitartekaritza lana egiten duela esan daiteke (Edwards, 2015: 100). Konstruktibismoaren ikuspegi hau laburtze aldera, eta Zubiagaren tesian jasotzen den bezala zera baieztatu dezakegu:

“Aurreko hamarkadetako gehiegizko arrazionalitatea eta mugarik gabeko “egiturakeria” alboratu nahi izan dira, lehen garaiko “irrazionalitate ulertezinean” edota ikuspegi psikologiko indibidualistegian” berriro erori gabe” (2008: 60).

Honek ikuspegi teoriko berriak sortuko zituen, aldagai ezberdinei arreta jarri zietena: nortasunaren eraketa, diskurtso publikoa eta honen lerrotzea, ikuspegi kognitiboa, ... Baina postmodernismoaren bilakaeraren azterketan ikusi dugun bezala, guztiek *sinbolikoari* aparteko arreta eskainiko diete, maila indibidualean edo kolektiboan. Orain arte aipatutako hurbilketen aldebakarreko ikuspegi ikusita joera postmoderno honek sintesira jo zuen; hau da, aurreko paradigma hauek sortzen dituzten aldaera ezberdinak kontrajarriak baino osagarriak direla ulertzera. Baina honek ere bere mugapenak ekarri zituen, ikerlariak aldagai analitiko gehiegi aurkitzen zituztelako, anabasaren sententzia sortzen duen *collage* batekin topo eginez.

6.2.1 Agenda klasikoaren atal nagusiak.

Sintesiaren aldeko joera honek 90. hamarkada bukaerako ikerlari sozialen jarrera markatu du. Alabaina, kasu askotan jarrera hau nahiko maila teorikoan gelditu izan da. Izan ere, analisi enpiriko ezberdinetarako mahai gainean zeuden ikuspegi ezberdinetako bat gailentzea ekarri baitu. Lau dira ikerketarako ikuspegi nagusiak: lehenik, *egiturazko analisiak* ditugu; hauek gizarte antolaketan dauden zatiketak eta ondorioz sortzen diren gatazka ardatz berriak ditu oinarritzko ikuspegi gisa. Bigarrenik *analisi arrazionalista* dugu, izenak dioen bezala ekintza kolektiboa norbanakoen edo kolektiboen hautu arrazionalaren ondorio gisa aztertzen duena. *Ikuspegi fenomenologikoak* aldiz, “gizabanakoen kontzientzia egoeran” oinarritzen dira, “nor gara” edota “zer gara” moduko galderei erantzuteko saiakeran. Eta azkenik, *ikuspegi kulturala* dugu, arreta komunitate kulturalen adierazpenetan jartzen duena. Lau hauen artean lehenengo biak izan dira garaile azken urteotako ikerketa sozial ezberdinetan. Alde horretatik, jarraian azalduko dugun *agenda klasikoa* bilakaera horren emaitza gisa kokatu beharko genuke (MTT, 2005: 22).

Hona hemen, Diani eta Della Porta-k (2011) agenda zahar honen atalez egindako sailkapena:

1) Aukera Politikoaren Egitura

Ez dago adostasun nahikorik tresna teoriko honen elementu nagusien gainean, adostasun falta honek kontzeptu honen baitako aldagaien etengabeko biderkatze bat ekarri duelarik. Edozein kasutan, jaso ditzagun azken urteotan adostasun nahiko zabala jaso duen ereduaren oinarritzko azalpena.

Della Porta eta Dianik bi multzo orokor bereiziko dituzte: *egonkorrak* eta *aldakorrak* (2011: 257-263). *Egonkorren* artean bi azpimarratuko ditugu: *erakundeen egitura* eta *kultura politikoaren izaera*. Lehenengoan estatuaren edota dagokion egituraren irekitasuna eta sendotasuna baloratuko da ekintza kolektiboaren baldintzatzaile bezala; hiru mailatan: a) estatuaren lurraldezko zentralizazio maila, b) estatuaren botereen arteko bereizketa funtzionalaren maila eta c) estatuaren boterearen ahalmena beste eragile politikoaren aurrean. Horrela, a) zenbat eta botere gehiago periferiako gobernuetan kokatuta, mugimendu sozialek orduan eta aukera handiagoa izango lukete erabakiak hartzeko prozesuetan; hau da, unitate administratiboa herritarrengandik zenbat eta hurbilagoa, parte hartzea bideragarriagoa izango da. b) Botereen arteko banaketarekin antzeko zerbait geratutako litzateke, botere legegile, exekutibo eta judizialaren arteko aldea zenbat eta handiagoa izanik sistema irekiagoa litzatekeelarik. Hari horri tiraka, legegileak era proportzionalan izendatutako parlamentari kopurua altua bada edota gobernu zatikatua bada, sisteman eragiteko aukera handiagoak izango dira (politikak inplementatzeko aukera txikiagoa izan badaiteke ere). Eta c) Estatuaren ahalmenari dagokionez, ibilbide ezberdineko Estatu ereduarekin topo egin ahal izango dugu; batzuk, instituzionalak ez diren eragileen parte hartzeari ateak itxiagoak izango dituzte eta beste batzuetan, aldiz, botere legegile edo exekutiboan bitarteko ezberdinen bidez (galdeketak, erreferendumak, ...) eragiteko aukera handiago izango dute. Lehenengoetan sistemaren itxituraren aurrean kokatuko ginateke, bigarrengoetan, ordea, sistema irekietan.


Dianik eta Della Portak aztertutako hainbat kasuetan, aldiz, maila teorikoko baieztapen hauek ez dute bere isla praktikoa izango. Izan ere, demokraziaren garapen maila batek ekintza sozialaren agerpenerako lagungarria izango bada ere, onura instituzional hauek mugimenduen agerpenean ze punturaino determinatzaileak diren zalantzazkoa litzateke. Gainera sistema instituzionalaren irekitasunak eragin anibalenteak izan ditzake mugimendu sozialen arrakastan; esaterako, deszentralizazioaren eraginez sisteman eragiteko aukerak biderkatzeaz gain, sisteman sartzeko traba puntuak izan daitezkeenak ere ugaltzen dituelako (2011: 263). Zentzu honetan, irekitasuna/itxitasunak ze punturaino aukera edo mehatxua izango den baloratu beharko da. Horrekin batera, Edwardsek (2014: 88) mugiezinak diren estruktura politikoez baino, aukera politikoen *aspektu mugikorrez* hitz egingo digu, egoera zehatzetan ematen diren berezitasunengan

arreta jartzen dutenak. Aukera Politikoen Egituraren ikuspegi kritiko honek kategoria honi orokorkeria arriskua kenduko badio ere, kasuan kasu aztertu behar denez, ikerketa sozialerako bitarteko bezala lausoagoa egingo du. Zentzu honetan, Tarrowek (1997) berak Aukera Politikoen Egituraz baino, *aukera politikoez* hitz egingo digu.

Agenda klasikoaren ataletara bueltatuta, *kultura politikoaz* hitz egiteko orduan, ekintza kolektiboaren arauak baldintzatzen dituzten marko kultural edo mundu ikuskerez ariko gara. Sistema bakoitzak bere *dominaziorako estrategiak (prevailing strategies)* izango ditu; batzuk boterea egikaritzeko estrategia barneratzaileagoak eta beste batzuk baztertzailagoak izango dituztelarik, horretan sistema bakoitzaren ibilbide demokratikoak eragina izango duelarik. Honen arabera mugimendu bakoitzak ere sisteman eragiteko estrategia finkatu beharko duelarik. Zentzu honetan, sistemen estrategiek mugimendu sozialen errepertorioan eragin maila bat izango badute ere, ez dira beraien hautu estrategikoak azaltzeko argudio bakarra izango (Della Porta eta Diani, 2001: 267).

Aldagai *aldakorren* artean kokatzen diren *aliantza egitura* eta *aurkaritza egiturak* mugimendu sozialen hautu hauek finkatzeko beste argudioetako batzuk izango dira. Lehenengoan, mugimenduaren lagunak bilduko lirateke, bigarrenagoan, aurkariak. Lagunek baliabideak eta aukera politikoak eskaintzen dituzte; aurkariak, berriz, mugimendua ahultzea izango dute helburu (Diani eta Della Porta, 2011: 267-268). Bata eta bestearen egoera ezagutzea funtsezkoa da ekintza kolektiboaren garapenerako. Sindikatuak edota ezkerreko alderdiak aliantza egituraren baitan kokatu izan ohi diren bi bitarteko klasiko dira; hauengan ematen diren hainbat aldagaien arabera (barne zatiketak, gobernuan parte hartzea edota politika erreformistekiko jarrera, kasu) mugimendu sozialen garapenean traba suposatu dezaketen arren. Aurkaritza egituraren erdigunean, normalean, Estatu erakundeak kokatu ohi dira (aurkako aldagaia izateaz gain, aldekoa edota helburu bera bilakatu daitekeelarik). Aurkakotasun egitura honen bitarteko nagusietakoa sistemak poliziaz egiten duen erabilpena litzateke, erabilera honen intentsitatearen arabera protesta sozialaren *poliziagintzaren* aurrean kokatu gaitezkeelarik. Tillyren terminoak baliatuz, *bortizkeriaren espezialista* hauek (2007b: 34) liskarraldien kontrol polizialean estrategia ezberdinak baliatuko dituzte; bortxa fisikoaren erabilera baliatuko duten hertsadurazko estrategietatik hasita, ekintzaileekin izandako harremanen bitartez garatutako limurtze bideetatik pasa eta protestagintzan dabiltzanaren inguruko inguruko informazioa jasotzera bideratutako estrategietara. Estrategia hauen garapenean poliziak hainbat aldagaien inguruko intentsitatea aldarazi dezake: bortxaren erabilera, kontrolerako bitartekoak, ekintzaileekin izandako harremana eta abar. Horren arabera, oinarritzko bi

ereduen artean kokatu daitezkeen bestelako tarteko ereduekin topatu gaitzke: mutur batean indar eskalada eta bestean kontrol negoziatuarena; horren arabera, mugimendu sozialen barneratze maila ezberdinekin aurkitu ahal izango gara (Della Porta eta Diani, 2011: 257). Poliziagintzaren bideak garapen handia (izan) du gurean, pixkanaka-pixkanaka bidezkoztat jotzen den gizarte protestaren esparrua murriztuz joan delarik. Edozein kasutan, bai Estatuak, bai gizarte eragileek ondo neurtu beharko dute honen bilakaera; alde batetik, protestak ekarri dezakeen kaltearen tamaina handiagoa denez, jendartea otzandu egin daitekeelako, baina bestetik, errepresioa gehiegizkoa bada, oldarraldia piztu daiteke, errepresioa bera mugimenduaren edo protestaren helburu bilakatuz.



6.1 irudia: Aukera Politikoaren Egitura.

2) Protestarako ekintzak motak

Gizarte eragileek baliatuko dituzten protesta ekintzak bi elementuen arteko lehia edota oreka bilatu beharko dute: eraginkortasuna eta legitimitatea. Beraien estrategietan bi elementu hauek indartuz eta autoritatearen aldetik ahultzen saiatuz. Gure ikerketa eremuan ikusiko dugun bezala, batez ere protestarako errepertorioa oso aktibo dagoen lekuetan, sistemak protestarako onargarritasun soziala mugatzeko saiakera egingo du, poliziagintzarena indartuz.

Della Porta eta Dianiren (2011: 221-230) sailkapenari jarraituz, protesta motak hiru irizpideen arabera sailkatu daitezke: *erradikaltasunaren* arabera, *izaeraren* arabera eta *logikaren* arabera:

a) *Erradikaltasun* mailari dagokionez, Daltonek ekintza motak *continuum* batean ulertu beharko lirakeela azalduko digu (1988: 65). Bere ustez, lehenengo atalase-maila batek politika

konbentzionaletik ez-konbentzionalerako igarobidea adierazten du; lehenengoaren barruan, sistema demokratikoetan arautuak dauden sinadura bilketa edota baimendutako manifestazioak kokatuko lirateke. Bigarren atalasea ekintza zuzeneko tekniketarik pasako litzateke; boikotak kasu. Hirugarrenak ekintza ilegal baina bortxaren erabilerarik suposatzen ez dutenak lirateke, greba ez-ofizialak edota eraikin publikoen okupazioak, adibidez. Eta azkenik, kalte pertsonal edota fisikoak eragingo lituzketen indarkeriazko ekintzak leudeke.

Tarrowek (1997) ikuspegi gradual hau baliatuko du baina bere ustez jauzi kualitatiboa araututako eta arautu-gabeko ekintzen artean baino lehia suposatzen duten eta ez dutenen artean zedarrituko du. Izan ere, araututako prozeduren barruan, eguneroko funtzionamendu sozialetan erresistentzia maila bat adieraziko duten hainbat ekintzekin egingo baitugu topo (Scott, 2003). Azken urteotan Frantziako eskoletan emakume musulmanek beloa eramateko egindako hautuak bertako hezkuntza publikoaren laikotasuna lehiatuko du; edota 80. hamarkadan Japonian idazkari emakumeek beraien nagusi gizonezkoek tea zerbitzatzeari uko egitea hango enpresa ikuskera erabat errotua zegoen tradizioa kolokan jarri zuten.

Lehia honek edozein protesta ekintzetan funtsezkoa izango den aldagaia mahai gaineratuko du: *ziurgabetasuna*. Honek protestaren bilakaera irekita utziko du, bere iraupena, kostoak edota hedapena aurrez determinatu ezin izango den prozesua bihurtuz.

b) *Izaerari* dagokionez politikoak edo kulturalak izan daitezke, segun eta helburua kanpo errealitatea eraldatzea ala barne balioak aldaraztea den. Mugimendu batzuk helburu politikoetan jarriko dute arreta, eta beste batzuk kulturaletan; edota helburu batzuetatik besteetarako bilakaera edo alternantziarekin topatu gaitezke. Protesta ekintzaren zabalpena elkartasunaren bidez edozein protesta ekintzaren arrakastarako giltza izango da. Horrela elkartasunaren balio kulturala edozein protestaren oinarritzko abiapuntua izango da; greba bat, esaterako, aurrez langileen eta bere ingurukoen arteko elkartasun sare bat ezean nekez emango ditu emaitzak. Baina aldi berean, grebak, protesta ekintza gisa, inplikaturako kideen arteko elkartasun bat, edota balio kultural batzuk areagotuko ditu (Tarrow, 1997: 183).


Azkenik, c) *barne logikari* kasu eginez, hiru azpi-logikekin aurkitu gaitezke:

- *Kopuruaren logika* lehenesten den printzipioa izan daiteke; eragileen eskutik adierazten den gehiengo soziala, erakundeen oinarrian dagoen gizarte sektore soziala baino zabalagoa dela adierazi nahiko da, horretarako bitarteko mota ezberdinak baliatuko direlarik

(manifestazioak, sinadura bilketak, ...). Logika honen eraginkortasun nagusia sistema demokratikoei lotuta egongo da, bertan protesta egiten dutenek beraien bozarekin gobernarien erabakiak aldatu ahal izango dituztelakoan, askotan horrela gertatu ez arren.

- *Kaltearen logika* honen baitako bigarren azpi-logika izan daiteke; ekintzaileak sistema politikoaren eraginkortasuna zalantzetan jartzen saiatuko dira, zuzeneko kalteak eraginez eta eguneroko bizitza arrunta aztoratuz. Proposatzen den etorkizuna, dagoen errealitatea baino hobea dela erakutsi nahi badute, egoera jasanezina bilakatu beharko dute. Hortaz, balio instrumentala izateaz gain sinbolikoa ere bilatuko du. Logika honek, aldiz, bere arriskuak eta mugak izango ditu. Horietako lehenengoa errepresioaren hazkundera eta aldeko sektoreen indargabetzea. Della Porta nabarmendu bezala, sistema demokratikoetan liskarraldiaren garapena gatazka militarrentz desorekatzen bada, Estatuak bataila hori irabazteko aukera handienak izango ditu (2011: 226). Baina indarkeriaren erabileratik harago, kaltea eragingo duten bestelako ekintza motekin aurkitu gaitzek; kaltetu nahi denaren izen ona edota egoera ekonomikoan eragin nahi duten greba edota boikoten kasuetan bezala. Edozein kasutan, gizarte protestaren poliziagintzarekin bezala, ondo neurtu beharreko logika da, kontrako efektuak lortu nahi ez badira behintzat.
- Eta azkenik *konbentzimenduaren edo lekukotasunaren logikarekin* egingo genuke topo. Hauek mezu etikoa indartzera joko dute, dei etiko honek aldarrikapenaren legitimitatea areagotu dezakeelarik, sistemaren kaltetan. Ekintzaileek sektore sozial baten etorkizunarentzat, edota gizateria osoaren bizi-iraupenerako funtsezkoa litzatekeen helburu batekiko konpromisoa adieraziko lukete, jendartearen alde emozionalarekin konektatu nahian. Azken eredu honetan bortizkeriarik gabeko zuzeneko ekintzak edota desobedientzia zibila ohikoak izaten dira.

Finean, gizarte eragileek landuko duten ekintza kolektiboaren hautaketarako hiru logika hauen artean sortzen diren kontraesanak argitzeak eramango du hauen denboraren eta egitekoen zati handi bat. Honen hautaketarako aldagai ezberdinak aintzat hartu beharko dituzte; orain arte nagusiki bi aztertu ditugu hemen: egiturazko baldintzen egoera eta lagun/aurkariaren estrategia zein den. Baina beste batzuk ere badira (Della Porta eta Diani, 2011: 234-237): baliatu izan den errepertorioa baliatzen jarraitzeko joera edota berrikuntzarako gaitasuna, esaterako; lortutako arrakastak errepertorioren zabalpena edo eguneratzea baldintzatuko du (indarkeriaren erabilera barne). Esan nahi baita, subjektu sozialak ingurunearen baldintzapenak aintzat hartuz, aukeraketa estrategiko egokirako elementu ezberdinak aintzat hartu beharko dituela.



6.2 irudia: Protestarako ekintza motak.

3) Mobilizaziorako egiturak

Liskarraldi sozialetan jendeak ekintzara zergatik pasatzen den argitze prozesu honetan, mobilizazio egiturak aintzat hartu beharreko beste aldagai nagusietako bat izango dira. Gorago aipatutako eskola zientifiko arrazionalak mobilizazio egituren azalpenerako oinarritzko bi abiapuntu kokatu zituen: batetik, mugimenduen jarduera ez dela jendarte desegituraketaren ondorio edota norbanakoen integrazio arazo bat; eta bestetik, mugimenduek antolaketa arrazionalak baliatzen dituztela beraien helburuak sortzeko. Antolaketa hauen egituratzean eta, batez ere, norbanakoen errekrutatzean harreman pertsonalek berebiziko garrantzia izango dute (Della Porta eta Diani, 2011: 158). Harreman hauen bitartez oinarritzko antolaketa egiturak sortuko dira: *sare sozialak*. Hauek lotura maila ezberdinak izango dituzte, praktikak ekintza mailaren arriskua eta kostearen arabera lotura maila sendoagoa edo ahulagoa izango dela erakutsi digu. Aldi berean, sare hauek afiliazio mota ezberdinak jaso ahal izango dituzte; sare batzuk afiliazio indibidualekoak izango dira, hau da, sareak dedikazio eskusiboa eskatuko du; beste kasu batzuetan, aldiz, norbanakoak sare ezberdinetako kideak izango dira. Azken kasu honetan bereziki, sare ezberdinen arteko hartu-eman biziago bat sortuko da. Hortaz, saregintza hau inguruabarreko, barne izaerari loturiko eta bestelako baldintzen arabera, aldakorra izango da. Saregintza ekintza kolektiboa gauzatzeko ezinbesteko zutabea izango da; bai kanpora begira, dinamikoa den giza-talde ezberdinen arteko harreman eredu bat finkatzen duelako; bai barrura begira, mundu ikuskera bat, informazioa eskuratzeko aukera edota ekintzarako bitartekoak eskaintzen dielako herritar saretuei. Hala ere, ikuspegi arrazionalista

batetik sareek ekintza kolektiborako bitarteko bezala bere ahulguneak ere izango dituzte. Izan ere, sareak bitartekoak konpartitzeko egiturez gain, gizabanakoen arteko harreman kultural, emozional eta komunikatiboak ere badira, eta hainbat kasutan, interdependentzia testuinguru honek mobilizazioa laguntzeaz gain, nola oztopatu dezakeen ere aztertu beharko da (Edwards, 2014: 75-76).

Egituratze malguko sareez gain, antolakundeez ere hitz egin behar dugu. Sareek norbanakoen artean artikulatu dezaketen oinarrizko hartu-emanaren garrantzia baztertu gabe, antolakundeez berebiziko papera jokatu beharko dute nortasun iturri gisa eta ekintza kolektiboaren bizi iraupena bermatzeari begira. Eferbeszentzia handiko uneetan, parte hartzeko borondateak eta berotasunak gora egiten duenean, sareek ematen duten oinarrizko euskarriekin jendea mobilizatzea errazagoa izango da. Beheraldietan, aldiz, antolakundeez, beraien presentzia iraun-arazteko duten joera dela medio, ekintza kolektiboaren jarraipena bermatu ahal izango dute (Diani&Portelli, 2011: 183-184). Hala ere, hainbat kasutan antolakundea eta sarea bera ezin izango dira bereizi.

Antolakundeen tipologia bat azaltzeko hiru eredu teoriko ezberdindu genituzke. Lehenengo ikuspegi baten arabera antolakundeak helburu zehatz batzuei begirako egituraketa *arrazionalak* izango dira; bigarren ikuspegi baten arabera, antolakundeak ondo definitutako helburuek eragin txikia izango lituzketen antolaketa forma *naturalak* lirateke, era informalean ekintza bateratuak gauzatzeko koordinatzen direnak; eta azkenik, antolakundeak era ez-egonkor batean beraien interesak negoziatzen dituzten koalizio *ireki* gisa irudikatuko lukeen ikuspegia genuke (2011: 184). Edozein kasutan, antolakundeak inoiz ez dira finkoak izango, aldaketa ezberdinetara egokitzen joan beharko dute. Elementu arrazionalak eta irrazionalak barne bilduko dituzte eta gainontzeko eragileekin izango dituzten harremanak batzuetan elkarlanean, baina beste batzuetan lehiatsuak izango dira.

Gizarte eragileen antolakuntzaz ari garela berebiziko garrantzia du ere hauek antolaketari buruzko erabakiak hartzeko orduan ze elementu hartu behar diren kontutan zehazteak. Esan gabe doa, *egiturazko* (egoera batean estrukturalak liratekeenak) zein *elkarreraginezko* (giza-taldeak propioki hartzen dituen erabaki estrategikoei eta hauen arteko eraginari dagozkionak) aldagaien arteko harremana aintzat hartu beharko litzatekeela. Mobilizaziorako bitartekoen teoriaren aldeko zaleek bigarren honetan egingo dute indarra; beste batzuk aldiz, egon litezkeen muga estrukturalen arabera kokatzen dituzte antolakuntza erabakiak. Edozein kasutan, *inguruabar* zehatzak erabakiaren norabidea markatuko duela agerikoa da, Tarrowek berak mugimendu sozial baten botere iturriak

testuinguruaren aukera politikoen arabekoak direla iradokiz (1997: 259). Zentzu horretan, mugimendu baten antolaketaren inguruko erabakiak hartzerako orduan hiru aldagai horiek (egiturazkoak, elkarreraginezkoak eta inguruabarrekoak) aintzat hartzea funtsezkoa izango da.

4) Marko diskurtsiboak

Aurreko kapituluetan ikusi bezala, aro postmoderno honetan arlo sinbolikoaren azterketa zientifikoa garrantzia hartzen joan delarik agerikoa da. Alde horretatik, diskurtsoaren eraikuntzak ere berebiziko arreta hartu du epealdi honetan. Zentzu horretan, askotan estrukturaltzat aurkezten diren hainbat aldagai ikuspegi kultural eta hautu estrategikoen emaitza baino ez direla kritikatu izan da (Goodwin eta Jasper, 2004a: 27⁸⁴), aldagai hauen izaera kognitiboa eta eraikuntza subjektiboa behar bezala aitortu gabe. Askotan aukeren zabalpena ekintzaileentzat oharkabean pasatu daitezke edota itxita mantentzen diren aukerak irekitzat hartu, baldin eta marko diskurtsiboen bidez ez da bada kokapen egoki bat egiten. Diskurtsoaren Teoriaren azalpenak balio dezala diskurtsoak nortasunen eraikuntzan eta prozesu sozialen garapenean duen garrantzia kokatzeko baina zehaztu ditzagun diskurtsoaren artikulaziorako funtsezkoak diren beste aldagai batzuk.

Markogintza diskurtsiboan *problematizatzea* giltzarria da eragileentzat; horrela, agenda sozialean arazotzat jotzen dena eta ez dena ezberdinduko dute. Gizartearen konplexutasuna gutxituko duen jarduera bezala definitu dezakegu; sektore sozialak jendartean "arazotzat" hartzen denaren arabera lerratzerak behartuak egongo dira, honek duen potentzial aktibatzaile guztiarekin. Zentzu horretan, diskurtsoaren markogintzaren arrakastarako giltza *sintonia diskurtsiboa* da. Eragile sozialaren interpretazio markoa eta mobilizatu nahi den gizarte esparruarena lerrotzea litzateke (*fragme alignment*), horretarako aukera ezberdinak daudelarik. Edozein era aukeratuta ere, marko diskurtsiboak mobilizatu nahi duen sektore sozial ahalik eta zabalenak bere egin dezakeen diskurtsoaren eta gizarte eragileak definizioz mantendu nahiko lukeen diskurtsoaren arteko oreka zaindu beharko du. Izan ere, aldaketa aurrera eramateko gizarte eragile edo mugimendua bera baino atzerakoiagoa izango den sektoreak mobilizatu beharko ditu. Egoera horretan, oreka aurkitzea erronka nagusietako bat izango da, gehiegizko abangoardismoak lekuz kanpo utzi baitezake mugimendua.


Horrela lau diskurtso mota nagusi aurkitu ditzakegu (Diani, 1994):

⁸⁴ Della Porta eta Dianiren *Los movimientos sociales* (2011) liburutik aterata; 277. orrialdea.

- *Sistemaren kontrako markoak*, sistemak interes ezberdinak barneratzeko duen gaitasunaren aurka jotzen du, sistemaren eraldaketa sakona aldarrikatuz.
- *Birlerrotze markoek*, ez dute sistemaren legitimitatea zalantzetan jartzen, bertan aritzeko aukerak daudela uste duten heinean, baina sistemaren berregituratzea eta zabaltzea eskatzen dute.
- *Barneratze markoek*, berriz, eragile berrien onarpena eskatzen dute.
- *Azkenik, birbizitze markoek* sistemaren egonkortasuna onartzen dute eta sistemaren ohiko antolaketan aritzeko aukera ontzat hartzen dute hau barnetik birbizitze aldera.

Diskurtsoaren markogintzari dagokionez, orain arte aipatutako irizpide eta sailkapen ezberdinek eragile sozialaren edota gizarte mugimenduaren hautu estrategikoari erantzuten zioten, baina badira bestelako elementu batzuk ere aintzat hartu behar direnak; horien artean inguruabarra azpimarratuko dugu. Izan ere, inguruabarraren egiturazko ezaugarriek markatuko dute une eta esparru bakoitzean indarrean dauden *interpretazio marko orokorrak (master frames)* eta horren arabera zehaztu beharko da mugimenduaren estrategia diskurtsiboa. Abertzaletasuna, klase gatazka edota demokraziaren inguruko oinarritzko aldarrikapenak izan daitezke horietako batzuk.

Agenda klasikoa ikerketarako bitarteko gisa erabili dutenek lau kategorien eta beraien arteko harremanaren garrantzia azipamarratu izan dute. Irudi honekin eskematizatu dezakegu agenda klasikoaren funtzionamendua:



6.3 irudia: Liskar politikoa azaltzeko mugimendu sozialen teoriaren agenda klasikoa (MTT, 2005: 19).

6.2.2 Agenda klasikoaren mugak.

Marrazki honi erreparatuta eredu klasiko hau baliatu duten ikerlariak jorratutako bidea hobeto uler dezakegu: mugimendua kasu isolatu bezala hartu; honek laukitxo bakoitzean egindako hautua aztertu eta bakoitzak bestean zer nolako eragina izango duen begiratuko dute; hau da, mobilizatorako egiturak aukera politikoaren egiturari nola eragiten die? Edota, diskurtsoaren markogintza ezberdinek zer nolako eragina dute protestarako ekintza ezberdinetan? Zentzu honetan, kategoria bakoitzaren azterketa egin eta gero, kausa-ondorio katearen ulermena kategorien arteko elkarreraginean kokatuko dute. Beste modu batera esanda, jardueraren aldagaiak (aukera/mehatxuak, diskurtso, ekintza motak eta mobilizazio bitartekoak) analitikoki bereizi eta ondoren beraien arteko harremana aztertzea agenda klasikoaren ikerlarien hautu metodologikoa izango da.

Eredu honen gabeziei dagokienez, norbanako aktoreen azterketan hobeto funtzionatu zuen, elkarri eragiten dioten eragile multzoen ikerketan baino. Horrela gatazka prozesu konplexuetan ez du eraginkortasun berdina erakutsiko. Gainera laukien artean oso ondo zehaztu gabeko kausa-efektu harremanak bilatu nahian, gatazkaren baitako irudi estatikoak eskaintzen dizkigu bilakaera dinamiko eta elkar-eraginezkoa baino. Izaera estatiko hau dela medio, denboran zehar iraupen luzea duten mugimendu sozial zabalak ulertzeko mugatua legoke, sekuentziala litzatekeen argazkien muntaketaren irudia nagusitzeko arriskuarekin. Horri lotuta, agenda klasikoak oldarraldien sorrera azaldu nahian, bilakaeraren azterketa baztertu egin du askotan. Eta gainera, azken hamarkadetako ibilbide historikoari erreparatuta, azterketaren ikuspegia zabaldu nahi izan denean, baikortasunak mugimenduen aukerei mehatxuei baino arreta handiagoa eskaini izan die. Horretaz gain, mendebaldeko mugimendu sozialen azterketarekin duen gertukotasunagatik sistema demokratikoetatik kanpoko liskarraldi politikoak aztertzeke ahulgune nabarmenak erakutsiko ditu.

Mc Adam, Tarrow eta Tilly arestian aipatutako bide kritikoaren arakataileak izango ditugu, horren azalpenerako *Dynamics on Contention* (2001) liburuan planteatutako ikuspegia abiapuntu hartuko dugularik. MTTk ikuspegi estrukturalista oinarri izanik ere, elkar eraginezko hurbilketa proposatzen dute, agenda klasikoaren izaera egonkorregia kritikatu. Maila handi batean arrazionalismoaren nagusitasunari lotutako muga hauek gainditu nahian, ikuspegi arrazionalistaren inguruko hiru hautu metodologiko egingo dituzte paradigma edo agenda berria planteatzeko orduan. Lehenik, ekintza

sozialaren ardatz gisa norbanakoen hautuak hartzen duen ikuspegiaren aurrean, gune sozialen arteko elkar ekintza sareen garrantzia nabarmenduko dute. Bigarrenik, marxismo tradizionalak egin bezala, gertakizun sozial ezberdinen azalpena bilatu nahi duten estrokturen edo sekuentzien lege oro-harrapatzaileak baino, gertaera liskartsuetan errepikatzen diren mekanismo eta prozesuetan arreta jarriko dute⁸⁵. Eta hirugarrenik, testuinguru historiko kulturalaren garrantzia eta testuinguru hauek determinatuko lituzketen estrokturak baino hauetan errepikatuko liratekeen aldagai kausalak aztertuko dituzte: mekanismoak (2005: 24-25). Honek agenda klasikoaren laukitxoan mugak uste baino lausoak eta uste baino nahastuagoak daudela erakutsiko digu, gezi bidez azaldu nahi zen kausa-efektu logikaren mugak ere agerian utziz.

Ordura arteko ikerketa nagusietan maila indibidualaren funtzionamenduaren azterketarako baliatutako mekanismoen sailkapena alde batera utzi eta prozesu politiko liskartsuen azalpenerako baliagarriagoa izan den eredu bat eskainiko digute:

- *Inguruabarreko mekanismoak*: kanpo aldagaiek mugimendu sozialen aldaketan duten eragina aztertzen dituzte. Eragileen borondatearen adierazle baino, egiturazko aldagai gisa aztertu daitezke. Honen adibide krisi ekonomikoak izan daitezke; hauek norbanako eta kolektiboen parte hartze sozialean eragin zuzena izan ohi dutelarik.
- *Mekanismo kognitiboak*: norbanako eta taldeen hautemateen jabetzan eragiten dituzten aldaketak lirateke. Nortasun politikoen eraikuntza prozesuari lotuta agertzen zaizkigu, prozesu hauek inplikaturako pertsonen kontzientzian aldaketak eragiten dituzte heinean.
- *Harremanezko mekanismoak*: norbanako, talde edo sare interpertsonalen arteko harremanak aldarazten dituzten mekanismoak lirateke. Hauek ere nortasun politikoen eraikuntza prozesuari lotuak agertuko zaizkigu, prozesu hauek inplikaturako pertsonen eta taldeen arteko harremanetan aldaketak eragiten dituzten neurrian.

Mekanismo mota hauek, eta bestelako irizpideen arabera sailkatu daitezkeenak, prozesu sozialen garapenean elkar-gurutzatuko dira. Beraz, eredu klasikoak egin bezala, akats larria litzateke analitikoki bereizten saiatzea eta era isolatuan aztertzea. Jendarte prozesuetan zehar harremanezko ikuspegiarekin aztertu beharko ditugun bitarte kontzeptual gisa ulertu beharko ditugu; hainbat kasutan, bata non bukatu eta bestea non hasten den bereiztea lan nekeza izango delarik.

⁸⁵ Ikuspegi estrokturalista *mekanikaren* ideiarekin parekatu dezakegun bitartean, MTTren mekanismoak eta prozesuak *biologia molekularrarekin* antzekotasunak izango dituela baieztatuko dute.

6.3 Ekintza kolektiboaren azterketarako agenda berria: Mekanismoak, prozesuak eta liskarraldiak

Ekintza kolektiboaren azterketarako ikuspegi berri honek termino eta bitarteko analitiko berriak eskatuko die ikerlari sozialei. Zentzu horretan, nahiz eta ikerketarako ikuspegi honek planteatuko dituen bitartekoak ez diren erabat berriak izango, hauek ikuspegi eguneratua hartuko dute. Hiru dira nagusiki azpimarratuko ditugunak: mekanismoak, prozesuak eta liskarraldiak.

Lehenengoari dagokionez definizio ezberdinak topatu ditzakegu. *Mekanismoen* azterketa hobesten dutenek aldagai sozialen arteko korrelazioa aztertu beharrean, aldagaien arteko lotura azpimarratzen dute; hau da, aldagai sozialen arteko harremanak une ezberdinetan antzeko eran aldarazten dituzten gertaeren azterketa lehenesten dute. Ikuspegi honetan pisu handia izango du ikuspegi marxistatik planteatzen den indibidualismo analitikoa edota hautu arrazionalaren ikuspegia. Hala ere, afera psikologikoari garrantzia emanez, hainbat egoeretan gizakia arrazionalak izan daitezkeen hautuetatik aldentzeko dela aintzat hartuko du. Horren azalpenean psikoanalisiak eta postestrukturalismoak zeresan handia izango dute. MTTk mekanismoen inguruko oinarritzko definizio hau planteatuko digute:

“Los mecanismos son una clase delimitada de acontecimientos que alteran las relaciones entre conjuntos especificados de elementos de maneras idénticas o muy similares en toda una variedad de situaciones” (2005: 26).

Baina mekanismoen zehaztapenarekin ze punturaino aurkitu dugu gertaera sozialen azalpenerako oinarritzko tresneria? MTTren ustez mekanismo hauek kausa-ondorio katearen oinarritzko kate-begia lirateke; azterketa sozialaren lege “fisikoak”, nolabait esateko; nahiz eta geroago ikusiko dugun bezala honen gaineko ikuspegia ez den horren sinplea gertaera sozial konplexuagoetan murgiltzen garenean.

Gertaera sozialen azterketan, normalean, gorago aipatutako hiru mekanismo motak (inguruabarrekoak, kognitiboak eta harremanezkoak) elkar lotuak agertuko zaizkigu; *prozesuak*, antzeko eraldaketak eragiten dituzten mekanismo hauen sekuentzia erregularrak edo kateaketak lirateke. Hainbat kasuetan zaila izango da gertaera, mekanismo eta prozesuen arteko bereizketa garbi bat egitea.

Azkenik, mekanismo eta prozesu horiek *gertaeretara (episodios)* edo *liskarraldietara* eramango gaituzte. Hauek eskaera kolektiboak barnebiltzen dituzten gatazka korrante iraunkorrek lirateke. Hala ere, agerikoa da mekanismo edota prozesu ezberdinen kateatzeak ondorio erabat ezberdinak izan ditzakeela. Hortik, MTT-k lege edo azalpen oro hartzailerik aurkitzeko asmo eskasa eta ikuspegi dinamikoa azpimarratzeko nahia. Gainera oldarraldi zabalak duten izaera dena delakoa izanda ere (hots, iraultzaz, demokratizazio prozesuaz edo nazionalismoaz arituta ere), guztiek oinarri berbera izango lukete, mekanismo eta prozesuengan hain zuzen ere.

6.3.1 Mekanismo motak.

MTTk mekanismoen lau kategoria ezberdin bereiziko dituzte: mobilizazioaren mekanismoak, nortasunaren eta ekintzaren eraikuntzarako mekanismoak, barne dinamismoa adierazteko mekanismoak eta oldarraldi zabalekoak.

6.3.1.1 Mobilizaziorako mekanismoak.


MTT-k mekanismoen azalpena agenda klasikoaren kritika batetik abiatzen dute, honen izaera estatikoa zentzu bikoitzean baztertuz: bai prozesu orokorren azterketan (nortasun berrien eraikuntzan, ekintza kolektiboaren garapena, ...) jatorriari ematen dion garrantziagatik baina bilakaerarengan jarritako arreta faltagatik; bai mobilizazio zehatzen azterketan hauen arteko elkar-ekintzak behar bezala aztertzen ez dituelako. Bestelakoan, agenda klasikoaren banaketa nagusia mantentzen dutela esan dezakegu, atal bakoitzari mekanismoen ikuspegiaren bitartez izaera dinamikoa emanaz:

- **Aukera eta mehatxuen jabetzea edo hautematea:** Aukera Politikoaren Egituran gizarte eragileak edo mugimenduak dituen aukerak eta mehatxuak zerbait objektiboa legez agertzen zitzaigun. MTT-k aldiz ikuspegi subjektiboagoa planteatuko dute; izan ere, balizko desafiatailearen aldetik, hauen aukera gisako jabetza bat beharrezkoa izango da mobilizazioa eragiteko. Mehatxuarekin berdin pasako da; honen inguruko jabetza ezean

nekez eragingo du mobilizaziorik. Alde horretatik aukera eta mehatxuen jabetza, aurretik desaktibatua zegoen sektore sozialak potentzialki aktibatu ditzakeen mekanismoa izango da. Honek bere alde kognitiboa du, beraz, markogintza diskurtsiboan planteatzen denaz gain, norbanako edo eragileen kontzientzia mailan duen eragina ere neurtu beharko da.

- **Antolaketan jabetza soziala:** mekanismo honekin arreta aurretik indarrean zeuden egituren gainean jarri beharrean, hauek mobilizaziorako gune edo bitarteko bilakatzean jarri dute. Aurretik antolatua zegoen “aparatura” bereganatzea baino, mobilizaziorako abiapuntu bat eskainiko duen oinarri sozial edota antolakuntza bilatzen da. Askotan hauek bereganatzea ez da lan erraza izango, aurretik indarrean zeuden lider, helburu edota lanerako ohiturengatik. Hemen ere ikuspegi dinamikoa planteatuko dute, nagusiki antolaketa tresnen sorkuntza, garapen eta elkar eraginari dagokionez.
- **Markogintza diskurtsiboa:** mugimenduaren liderrek eraikitzen duten diskurtoaren markogintzaz harago, desafiatazaileek, bere aurkari, Estatuarekin edota komunikabideekin sortzen duten protestaren eraikuntza "interaktiboaz" ari gara. Aurretik indarrean zeuden interpretaziorako markoak aintzat hartu beharko dituzte, baina afera berriak arazo bilakatzeko gaitasuna erakutsiz. Markogintza honek taldearen nortasunaren osaketaren parte da, gu eta besteen arteko muga finkatzen duena.
- **Ekintza kolektibo berritzailea:** soilik talde desafiatazaileen gatazkarako errepertorioari arreta jarri beharrean, lehiatzaile eta bere aurkarien artean sortzen den ekintza kolektibo berritzailea aztertuko da. Lehiatzaile, aurkari eta Estuaren artean sortutako elkar ekintza honek badu ibilbide bat, metatutako esperientzia bat. Esperientzia honi elementu berriak gehituko zaizkio. Ekintzak ez dira aurreikusitako eskemaren emaitza, beste eragileekin elkar eraginean sortzen, eta askotan, inprobisatzen direnak baizik. Honek ere, sortutako errepertorio berriarekin identifikazio kolektibo bat sortuko du, bere erritualizazioaren iraunkortzea gainbeheraren adierazle izan daitekeelarik.

Gatazka politikoan ematen den mobilizazioa ulertzeko elkar-ekintzazko marko dinamikoa:



6.4 irudia: Liskar politikoan mobilizazioa aztertzeko marko dinamikoa eta interaktiboa (MTT, 2005: 49).

Elkar-ekintzari emandako nagusitasun honek ondorio ezberdinak izango ditu. Aukera, antolaketa gaitasun edota errepertorioen azalpen objektiboa baino, talde sozialen arteko hartu-emanek helburuen eta nortasunen eraikuntza konpartitu bat bilatuko dute. Gainera, agenda klasikoan nagusitutako aktore indibiduala gainditu eta lehia gatazkatsuan egongo diren agente ezberdinen arteko interakzioak nabarmenduko ditugu. Eta azkenik, mobilizazio prozesuaren jatorriari dagokionez, mekanismoen figuraren bitartez MTTk ikuspegi berri bat planteatuko digute. Izan ere, mekanismo hauek mobilizaziotik desmobilizaziorako bilakaeraren elementu nagusiak azaltzen dituzten heinean, prozesu ikuspegia edo bilakaeraren garrantzia azpimarratuko dute, hasiera eta bukaera duen zerbait baino.

6.3.1.2 Nortasunaren eta ekintzaren eraikuntzari dagozkion mekanismoak

Nortasunen eraikuntza prozesu konplexua da. Norbaitek bere *ni*-aren aspektu guztiak aldi berean azaldu nahi izatea benetan nekeza litzateke. Nortasun hauek elkar-ekintza soziala nola baldintzatzen duten aztertzea prozesu konplexua da; are gehiago, identitate hauek elkar-eraginean etengabea berdefinitzen ari direla aintzat hartuz. Zentzu honetan, Della Porta eta Dianik nortasunez aritzerakoan ez dira objektu autonomo edota aktore sozialen berezko ezaugarri batez ariko, “aktore sozialak euren buruak talde zabalagoen parte bezala ezagutarazteko (eta besteek ere ezagut ditzaten) prozesu batez ariko dira” (2011: 128). Ikuspegi berri honek arrazionalisten eta kulturalisten mugak gainditu nahi izango ditu; erabakiak hartzeko inguruabarra inoiz ez delako objektiboa eta nortasunaren eraikuntza elkarreraginezko prozesua delako. Arrazionalistek leporatu ziezaioketen kontra, honek ez

du esan nahi eragilearen hautu estrategikoak eraginik ez duenik garatu nahi den prozesuan. Alde horretatik, tarteko ikuspegia da planteatzen dutena: elkar eraginezko testuinguruan norbanakoek zein taldeek burutzen dituzten ekintza estrategiko lekutua aztertzea da proposatzen dutena.

Nortasunen teilakatzeko eta prozesu izaera honek gatazka politikoaren inguruko oinarritzko hiru galdera planteatzera garamatza:

- nortzuk aldarrikatzen dute zer, eta zergatik? *Eragileak*.
- zer diote direnaz eta zergatik, eta zer diogu haiek direnei buruz? *Nortasunak*.
- zein tankerakoak dira haien aldarrikapenak eta zergatik? *Ekintzak*.

Eragileen inguruko oinarritzko definizio bat lantzen hasteko mahai gaineratu dezagun MTTk planteatutako ondorengo galderak:


“¿Quiénes son los actores? ¿Qué tipos de personas es posible que se impliquen en la contienda política? Es decir, ¿qué tipos de personas es posible que lleven a cabo reivindicaciones públicas concertadas que impliquen a gobiernos como objetos o como terceras partes y que, si se satisficieran, afectarían de forma visible a los intereses de personas externas a sus propias filas?” (2005: 146).

Galdera hauetatik *eragileen* inguruko hainbat ezaugarri ondorioztatu ahal izango ditugu. Baga: gobernuei zuzendutako adostutako eskaera publikoak bideratzen dituzten pertsonen ariko ginateke. Biga: Pertsona hauen artean hainbat elementuen inguruko irakurketa konpartituko litzateke: aukerak, mehatxuak, ekintzen ondorioen ebaluazioa, ekintzarako errepertorio posibleak, ... Higa: norbanakoez osatutako aktore kolektibo hauek normalean beste aktore kolektibo batzuekin harremanak izan ohi dituzte, harreman hauek taldeen barne izaera moldatu izan dutelarik.

Talde bereko kideen artean *nortasun* bat sortzera joko da. Izan ere, arestian aipatutako definizioarekin bat eginez, nortasunak bere errepresentazioak dituzten harreman sozialak izango dira. Errepresentazio hauek talde barrutik edo kanpotik ikusi ahal izango dira, hau da, *autodefinituak* edo *heterodefinituak* izango dira (Della Porta eta Diani, 2011: 143), baina edozein kasutan bere biziko garrantzia izango dute nortasunaren eraikuntzarako. MTTk nortasun guztien alde politikoa aldarrikatuko dute. Nortasunari lotutako eskaerak orokortuz gero ongizate komunari lotutako arazoetan bilakatu daitezke. Zentzu horretan, sistema politiko guztiek nortasun batzuk

beraien lekua hartu eta beste batzuk bide bazterrean uzteko bitartekoak jarriko dituzte. Erlijio, kultura edo genero aferekiko sistema batek hartzen duen jarrera honen erakuslerik garbientakoa izan daiteke. Hortaz, nortasunak gobernuei eta botere harremanei eragiten dieten heinean politikoak lirateke.

MTTk bi nortasun mota bereiziko dituzte: *txertatutakoak* eta *urrunduak*. Bata eta bestearen arteko aldeak harremanen estutasun eta elkarrekiko inplikazio mailari egingo dio erreferentzia (2005: 149). Estutasun hau gatazka politikoaren dimentsioarekin harremanetan jartzen badugu, non mutur batean eguneroko bizitzaren errutina eta bestean lehia politikoa kokatuko dugun, ondoko nortasun tipologia osatu ahal izango dugu:



6.5 irudia: Nortasun liskartsuen banaketa (MTT, 2005: 151).

Zentzu honetan, eragileak nortasunen izenean *ekintzara* pasako dira. Izan ere, ekintza hauek besteekin izango dituzten elkar-harremanen gauzatzea izango da; besteek, beraien nortasun politikoen izenean, ihardesten dutenean gatazka politikoari hasiera emango zaio.

Nortasunaren eraikuntzari lotuta lau dira autore hauek planteatzen dituzten mekanismo nagusiak:

- **Artekaritza:** definizio gisa esan dezagun artekaritza “artean deslotuak zeuden gune sozialen arteko lotura litzateke(ela), zeina bien arteko edota hirugarren batekin bitartekaritza lana egiten duen beste unitate bati esker ematen den” (MTT, 2005: 157). Erarik sinpleenean gune hauek norbanakoek osatu ditzakete, baina artekaritza eraketa sozial konplexuagoen artean eman daiteke. Artekariak ez ditu soilik gune hauek harremanetan jarriko, beraien izenean ere hitz egitera iritsi daiteke. Horrela artekaritzak eragile kolektibo berriak sortu ditzake,

aurretik nortasun propioa zuten eragileei nortasun berria emanaz. Alde horretatik, artekariaren papera aldatu egiten da kasu ezberdinetan; batzuetan, esparru ezberdinak lotuz eta ondoren desagertuz, eta beste batzuetan, era iraunkor batean mantenduz.

- **Kategorien osaketa:** Kategoria soziala beste batzuegandik bereizteko muga batzuk konpartitzen dituzten gune multzo bat litzateke, muga hauek beste horiekiko harreman mota bat sortzen duelarik. Horrela, mekanismo honek nortasunak sortzen ditu. Honen barruan hiru azpi-mekanismo aurki ditzakegu: *asmakuntza*, *mailegua* eta *topaketa*. *Asmakuntzak* muga bat ezartzea dakar eta horren arabera barruan eta kanpoan dauden horiekiko arau batzuk ezartzea. *Mailegua* eremu batek dituen muga eta arau batzuk beste eremu batera eramatea litzateke. Eta *topaketa* sare bateko kideek beste sare bateko kideekin topatu eta bestearen bitartekoengatik lehian hasten direnean, bi sareen arteko harremanaren nolakotasunaren definizioztat hartu dezakegu. Kategorien osaketak izan ditzakeen aldaera zehatzez harago, mekanismo hau nortasun politikoek dituzten izaera eraikia, kontingentea eta dinamikoa azpimarratzera dator.
- **Objektu aldaketa:** Aldarrikatzen denaren jomugaren aldaketa adierazten du. Aldarrikatzailearen eta errebindikatzen denaren arteko harremana dinamikoa izanik, bai errebindikatzen dena zein errebindikatzen duenaren izaera aldatu egin daiteke. Bertan ere azpi-mekanismoak badaude. *Erasoen orokortzea* horietako bat da: arerio zehatzetatik hasi eta bere aliatuetara (edo aliatuak izan daitezkeenetara) ematen den erasoaren zabaltzea litzateke. Liskarraldien helburuen egokitzeak ekintza kolektiboen helburuen eta izaeren birmoldatzea ekarri ohi du.
- **Zertifikazioa edo egiaztatzea:** eragileen, bere ekintzen eta bere aldarrikapenen balioztatzea kanpo autoritateen aldetik, *zertifikazio* edo *egiaztatze* mekanismo gisa definitzen da. Deszertifikazioak, berriz, jada lortutako aitortzaren galera suposatuko luke. Gizarte eragileak bere ahaleginaren zati handi bat honetara dedikatuko du, solaskide gisa aintzat hartua izatera, hain zuzen ere.

Atal honetan aipatutako mekanismoek zerikusi zuzena izango dute MTTk *sendo (solido)* bezala ezaugarritu duten hiru prozesuetako baten artikulazioarekin; *aktore osaketarekin*⁸⁶, hain zuzen ere. Gatazka *neurtua (contenida)* edo *apurtzailea (transgresiva)* izan daiteke. *Neurtua* jada antolatutako eragile politikoek (hau da, auto-definituak eta publikoki onartuak direnak) ohiko bideetatik jorratzen dutena litzateke. Eta *apurtzailea* askotan aurretik desantolatutako edo izaera politiko ez oso definituko eragileak bide ez-konbentzionaletatik jokoan sartzen dituen litzateke. Hauek

⁸⁶ Beste bi prozesu sendoak *polarizazioa* eta *eskala aldaketa* lirateke eta hurrengo atalean azalduko ditugu.

guztiak forma oso ezberdinetan antolatu daitezke. Antolatze honetarako prozedura batzuk erabat instituzionalak izango dira; esaterako, hauteskunde sistemek ezartzen duten alderdi politikoaren forma erakundetua hartuz. Beste hainbat kasutan, arestian aipatzen ari garen mekanismo sozialen bidez era liskartsuan egituratuko dituzte beraien buruak. Eragile potentzial bati gorago azaldutako antolaketen jabetzak ekintza kolektibo berritzailea martxan jartzeko ematen dion aukeraren bitartez eszenatoki politiko-sozialean agertu ahal izango da; eszenatoki horretan dauden beste eragileen zertifikazioaren bitartez edota beraien buruaren identifikaziorako kategoria baten sorreraren bitartez eragile bezala proiektatzen joan direlarik. Liskar hauek ere bere garapena izango dute. Hainbat kasutan, hasieran neurtua zen gatazka bat apurtzailea izatera igaroko da, eragileak planteatzen dituen eskaerekiko sistemak duen harremanaren arabera.

6.3.1.3 Liskarraldiaren garapenari lotutako mekanismoak.

MTTk mekanismo hauen garapena eredu weberiarren kritikatik abiatzen dute. Azken honen arabera gizarte mugimendu guztiek hasierako berezkotasunetik eta erradikalismotik burokratizazio prozesu batera igaroko dira, joera hau gaindiezina eta halabeharrezkoa izanik. Honen aurrean, MTTk mugimendu sozialen bilakaera paraboliko determinatu honen eta mugimenduez antolakunde isolatu gisa egiten den azterketa kritikatu dute, hauek beste eragileekin dituzten elkar-eragin prozesuak alde batera uzten dutelako. Hortik abiatuta, *protesta zikloaren* ideia landuko dute. Honek izaera dinamikoa adieraziko du, elkar-eraginezkoa, eragile eta mugimendu ezberdinak *dantzan* jartzen dituen. Azken ikuspegi honen arabera, mugimendu sozialaren bilakaera ez da beheranzko joera mobilizatzaile batean agortu behar den derrigorrezko emaitza, baizik eta aukera bat. Bertan mekanismoak halabeharrezko gako bakarrak izango dira, hauen artikulazioaren arabera mugimenduak bilakaera bat edo beste izango duelarik.

Liskarraldiaren garapenari lotutako mekanismoen artean, besteak beste, MTTk ondorengo mekanismo hauek nabarmenduko dituzte:

- **Aukera eta mehatxuen espirala:** aukera eta mehatxuen esleipena eragile guztien aldetik burutzen denean, gorpil edo espiral moduan gero eta modu azkarragoan ematen da, eragile baten aukera esleipena beste baten mehatxua bilakatzen delarik, eta alderantziz. Espiral horrek muturretara bidaltzen ditu eragileak.

- **Zabalkuntza/difusioa:** komunikazio sareen bidezko informazio transferentzia oro adierazten du. Honek sektore/norbanako batzuen arteko harremanak sendotu eta beste batzuen artekoa ahulduko dituelarik.
- **Botere lehia:** botere lehia honek bi alde aztertzen ditu: errebindikatzen dutenen arteko lehia eta errebindikatzailerik eta autoritatearen artekoa.
- **Errepresioa:** ekintza liskartsuen erantzuleak desagerrarazteko mekanismo honen inguruko oinarritzko azalpena poliziagintzaren kontzeptuaren argipenarekin eman dugu. Eragin eta ondorio ezberdinak izango ditu intentsitatearen eta zuzendutako eremuaren gaitasun eta indarraren arabera.
- **Erradikaltzea:** mugaren bi aldeetara daudenen aldarrikapen, programen eta abarrekoen arteko kontraesanen areagotzea litzateke, mekanismo honen bitartez liskarrak hartuko lituzkeen formak haustura zaleagoak bilakatuko liratekeelarik.
- **Konbergentzia:** aurrekoaren kontra izaera luke; horrela, erradikaltzearen ondorioz sortzen diren kontraesanen harira tarteko espazioan gelditzen direnek aliantza berriak sortzera joko dute.
- **Antzekotasunen esleipena:** eremu ezberdinetan dauden baina ekintza bateratua justifikatu ahal izateko beraien artean antzekotasun nahikoa aitortzen dioten eragileen arteko identifikazioa litzateke. Mekanismo honetan garrantzi berezia hartuko du eragileek elkarri aitortzen dioten identifikazio subjektiboak. Izan ere, informazioak (hutsen) ez du inor ideia bat barneratzera eramaten; honekin atxikimendu eta identifikazio bat beharrezkoa izango da.
- **Emulazioa:** eragile batek beste baten antzera jokatzera jotzeko hautua litzateke. Askotan ekintza gauzatzen duen eragilearekiko identifikazio handia egonda ere, emulaziorik ez da emango (beste eragileek ekintza horren aurrean autoritateek nola erantzungo dutenaren zain gelditzen direlako, esaterako). Horregatik, mekanismo hau martxan jartzen denean, identifikazio sinbolikoaz harago, eskala aldaketarako beharrezkoa den urratsa ematen da.

Hainbat kasutan, liskarraldietan parte hartzen duten mekanismoen garapenaren ondorioz, pertsonen arteko bortizkeriazko fenomenoak agertuko dira. Soziologia tradizionalaren korrante nagusiekin alderatuz, Tillyk saiakera ausarta egingo du fenomeno *deseroso*⁸⁷ hauek prozesu sozialen azterketaren baitan kokatzeko. Bortizkeria kolektiboaren fenomeno hau prozesu sozialetan duen garrantzia maila neurtzeko Tillyk funtsezko bi irizpide finkatuko ditu: ekintzaileen artean epe

⁸⁷ Izendapen hau Francesca Polletari mailegatu diogu (Eduardo Romanosek Diani eta Della Portaren *Los movimientos sociales* liburuari egindako epilogoetik aterata). Berak planteatuko adieran mugimendu *deserosoak* (*awkward*) mugimendu ilegal, bortitzak edota ideologikoki aldenduak lirateke, zeinen osaketa, helburu edota taktikak bere ikerketa zailtzen dituztenak” (2011: 327).

motzean kalteak eragiteak duen garrantzia eta biolentzia erabiltzen duten ekintzaileen artean dagoen koordinazio maila (2007b: 13).

Bi ardatz horien artean sei fenomeno ezberdin sailkatuko ditu: a) eremu zehatz batean lehentasunezko posizioa lortzeko *erritu bortitzak*; b) pertsona edo ondasunei kalteak eragiteko asmoz bortizkerian espezializazio maila bat duen talde baten *suntsipen koordinatua*; c) zaintza edo ohiko errepresiotik salbu sentituz, helburu kaltegarriak eragiteko asmoz norbanako talde batek baliatutako *oportunismoa*; d) hasiera ez-bortitza duen bilkura *istiluetan* bukatzeko izan dezakeen bilakaera; e) eskala txikiko elkar-ekintzetan parte hartzaile batzuek eragiten dituzten *eraso sakabanatuak*; eta, azkenik, f) eragile batzuek ohiko bideetatik garatzen diren hainbat hartu-emanei lotuta ematen diren *negoziazioak apurtzen* direnean, emaitza bortitzak izaten dituzte.

Batzuetan eta besteetan, aipatzen ari garen mekanismo eta prozesuek parte hartuko dute; baina zerk eragingo du mekanismo eta prozesu hauen artikulazio zehatz batek bilakaera bortitza izatea? Ziurgabetasunaren hazkundeak mugaren beste aldean daudenen kontrako jarrerak areagotzea ekarri dezake; mehatxuen jabetza handitzen baldin bada, indarrean dauden posizioak muturreko polarizaziora joko dute; artekariak ekintzaile bortitzak harremanetan jarri ditzake, bilakaera honek bitarteko bortitzen erabilerari ateak zabaltzen ahal dizkiolarik. Aurrez determinatua egongo ez den bilakaera honen balio nagusia, ikerketa sozial askotan bortizkeria kolektiboaren azterketan nagusitu diren jarrerak indargabetzean legoke. Ikuspegi konduktualistek edo kulturalistek azpimarratu nahi izan duten bortizkeriaranzko berezko edo ohiturazko joeraren aurrean, ikuspegi honek fenomeno bortitzetan mekanismo eta prozesu ezberdinek duten eragina azpimarratuko du.

6.3.2 Prozesu motak

Atal honen sarreran esan dugun bezala prozesuak antzeko eraldaketak eragiten dituzten mekanismoen sekuentzia erregularrak edo kateaketak lirarteke; hauek, aldi berean, liskaraldi mota ezberdinetan agertu ohi direlarik. Hauen helburua ez da munduan existitzen diren gatazka guztien gaineko lege orokor batzuk ezartzea edota bakoitzaren deskribapen huts batean erortzea; bertan parte hartzen duten mekanismo eta prozesuen bidez jardutea baizik.

Zentzu horretan, MTTk (2005) oldarraldi ezberdinetan agertu ohi diren hiru prozesu sendo nabarmenduko ditugu: *aktore osaketa*, *polarizazioa* eta *eskala aldaketa*.


6.3.2.1 Aktore osaketak

Aipatu dugu liskarraldia *neurritsua* edo *urratzailea* izan daitekeela. Normalean lehenengoan definitutako aktoreek jokatzeko dute; hau da, autodefinitutakoak eta publikoki aitortutakoak. Bigarrenengoak, aldiz, aurretik antolatu gabeko edota politizatu gabeko aktoreak sarrarazten ditu. Aktore berriak askotariko moduetan sortu daitezke, horietako asko era instituzionalizatueta. Hemen, berriz, ekintza liskartsuak garrantzia berezia hartzen duen moduari arreta eskainiko diogu. Edozein kasutan, instituzionalizazioaren eta ekintza liskartsuaren arteko muga etengabeko desplazamenduan egongo den marra izango dela aintzat hartuz.

Aktore osaketaren prozesu sendoan parte hartzen duten funtsezko bi mekanismoak *jabetza soziala* eta *ekintza berritzailea* izango dira. Jabetza sozialak ekintza berritzaileari atea zabaltzen dio, jada existitzen den talde bat bir-norabidetuz helburu berri baterantz. Baina hasierako mobilizazio prozesua burutzeko, ekintzarako prestutasun hori ekintza kolektibo berritzailean bilakatu behar da. Behin hori gertatuta taldea era liskartsuan jarduten ari dela esan dezakegu (MTT, 2005: 351). Jabetza sozialak eta ekintza berritzaileak hainbatetan hauei lotuta egon ohi diren aktore eta nortasun kolektibo berrien osaketa ekartzen dituzten beste bi mekanismo aktibatu ohi dituzte: *zertifikazioa* eta *kategorien formakuntza*.

Ekintza berritzailearen eta (des)zertifikazioaren arteko lotura zuzena da. Aurreikusten zitzaien portaera-arauak hautsi eta gero, talde lehiatzaileek kaltetutako taldeen aldetik interpretazio lan handiak eskatuko dituzte; azken hauek, ekintza berritzaile horren ondorioz horren aurreikusgarria eta ziurra bihurtu ez den giro baten ulergarritasuna bilatzen dutelarik. Ahalegin horiek helburu ezberdinak izan ditzakete baina normalean talde lehiatzailearen legitimitatearen (zertifikazioa) edo legitimitate faltaren (deszertifikazioa) aitortzari lotuta agertzen dira, eta ondorioz, berak planteatutako aldarrikapenei.

Zertifikazio eta deszertifikazio ahalegin hauen aurrean sortzen ari den taldea nekez hartuko du jarrera pasiboa. Alderantziz, bere nortasuna eta bere taldearen helburua berreraikitzen ahalegingarriko



6.7 irudia: Polarizazioa (MTT, 2005: 359).

6.3.2.3 Eskala aldaketak


Eskala aldaketa gatazka orokortuago batera eramaten duen ekintza liskartsu koordinatuen kopuruaren eta mailaren aldaketa litzateke, zeinak aktore sorta zabalagoa barnebildu eta beraien eskaera eta nortasunen arteko zubi lana egiten duen (MTT, 2005: 367). Ekintza liskartsu gehienek ez dute lehen aldiz agertzen diren maila lokal, sektorial edota instituzionala gainditzen. Baina liskarraldi politiko garrantzitsuenetan eskala aldaketa maila bat behintzat agertu beharko da. Eskala aldaketan, liskarraldiaren hasierari jarraipena ematen dioten istilu berriekin aurkituko gara, aitzindariak abiatutako gatazka formei atxikitzen diren aktore berrien agerpenarekin edota lehiatzaileen artean ematen diren elkar-ekintzen ondorioz ematen diren aldarrikapen eta nortasun orokorren gauzatzearekin.

Eskala aldaketa hainbatetan uztartuak agertu ahal diren bi bideetatik gauzatu daitekeen prozesu sendoa da: *difusio/emulazioaren* bidetik edota *artekaritza/koalizioen* bidetik. Bi bideek *antzekotasunen esleipenaren* mekanismoaren bidez eskala aldaketara daramate.

Difusioa eta artekaritza oldarraldi zabaletan batera agertu ohi diren arren, eskala aldaketaren izaeran ezberdintasun nabarmenak egongo dira segun eta bietako zein nagusitzen den pizgarri bezala. Difusioaren bidez zabaltzen den liskarraldia biolentoa eta indartsua izan daiteke baina MTTren arabera artekaritzaren bitartez hedatzen dena baino hedapen txikiagoa izango du. Zergatik? Beraien ustez, difusioaren bideak bizitza sozialaren eguneroko zatiketak nekez gainditu ahal izango

dituelako. Artekarietak, berriz, definizioz, aktore ezberdinak zatiketa horiek gainditzen dituzten marko eta ekintza formekin lotzen ditu.

Ildo berberari jarraituz, difusioa artekaritza baino ohikoagoa izango da liskarraldiaren hedapenean. Ohikoagoa litekeena delako elkar-ekintza bideen bitartez jada konektatuak dauden aktoreak jada antzekotasun bat esleitzea; eta are ohikoagoa, difusioak denbora, inizatiba eta marko eraldaketarako inbertsio askoz txikiagoa eskatzen duelako. Hortik ondorioztatu dezakegu, artekaritza, difusioa baino presentzia txikiagoa izanda ere, gertaera liskartsuetan eragin handiagoak izatea. MTTren arabera, artekaritzaren bitartez sortutako loturek aurretik deslotutako taldeak beraien artean antzekoak bezala ikustea errazten duten neurrian, gatazka ohiko muga geografiko, instituzional edota kategorialetatik harago era azkarragoan hedatu ahal izango da, eta difusioak eragiten dituen istiluak baino iraunkorragoak izango diren nortasunak sortuko ditu (MTT, 2005: 371).



6.8 irudia: Eskala aldaketa (MTT, 2005: 369).

6.3.3 Liskarraldi motak

Esan bezala, hiru dira nagusiki MTTk oldarraldi zabal edo liskarraldi bezala hartzen dituenak: *iraultza, nazionalismoa eta demokratizazioa*. Lehenengoaren azalpena orain arte aipatu gabeko beste bi mekanismo aurkezteko probestuko dugu; bigarrengean, MTT-k nazionalismoa gatazka

politikoaren forma bezala ulertzeko duten ikuspegia; eta hirugarren puntuak, hurrengo atalean, era sakonagoan aztertuko dugun demokratizazio prozesuen azalpenaren aurkezpen gisa baliatuko dugu. Esan dezagun, nekez aurkituko dugula beste biek nahastua egongo ez den oldarraldi mota *garbia*. Liskarraldi hauek prozesu luzeak, korapilotsuak eta nahasiak izango dira, hainbat kasutan, demokratizazioa non hasi eta nazionalismoa bukatzen den argi esaterik ez dela egongo. Izan ere, kasu askotan, mekanismo berdinek parte hartuko dute.

6.3.3.1 Iraultza

Ikuspegi estrukturalista eta kulturalistaren kritika batetik abiatzen dute autore hauek prozesu iraultzaileen azterketa. Izan ere, lehenengoak eragileen ekimenari tarte txikia utziko die aldagai makro-politiko, ekonomiko eta abarrekoek suposatuko duten harlauzaren azpian; eta bigarrenak, antzeko akatsean eroriko da iraultza sozial handietan zentratuz eta bestelako prozesu txikiagoen gain arreta ez jarritz. MTT-ren ustez, bata eta besteak iraultzetan funtsezkoak diren mekanismoen azterketa ez dute aintzat hartzen.

Desertzioa iraultzetan aurkitu dezakegun prozesu klasiko horietako bat da. Honen baitan bi mekanismo azpimarratuko ditugu:

1. *Eliteen interesen kaltetzea*: luzaroan irauten duten erregimen gehienek eliteen arteko koalizio zabaletan oinarritu ohi dira, bakoitzaren interesen elkarrekiko aitortzan eta babesan oinarritzen den aliantza. Baina momentu batetik aurrera elitearekin bat egiten zuten aliatuek ez dute aliantza horretatik etekinik atera dezaketarik ikusiko, edota, are gehiago, aliantza hori euren interesetarako oztopo izan daitekeela aurreikusten hasiko dira. Horrela, iraultzetan talde edo klaseen arteko talka handiak beharrezko osagaiak izango dira baina prozesu honek aurrera egiteko koalizio dominatzaileak bere interesak arriskuan ikusi beharko ditu (MTT, 2005: 221). Mekanismo hau trantsizioetan ohikoa izaten da.
2. *Irainen bat-bateko ezarpena*: prozesu iraultzaileetan aurreikusitako gabeko hainbat gertakizunek duten garrantzia azpimarratzera dator. Gai zehatz batzuen garrantzia azpimarratzen dituzten gertakizunak lirateke, normalean oposizioa mobilizatzen duten alarma eta iraintze ekintzak (MTT, 2005: 223). Hauek bat-batean azalarazten dute inongo adierazpenik ez zuten baina ezkutuan baziren irain, mehatxu edota arriskuak.

6.3.3.2 Nazionalismoa.

MTT-ren aburuz, nazio (des)eraikuntza prozesuaren gainean egindako azterketetan oinarrituz, funtsean bestelako oldarraldietan aurkitu ditzakegun mekanismo berberekin egin dezakegu topo. Zentzu horretan, nazionalismoaz aritzeko orduan baliatzen duten ikuspegi liskartsua batez ere interesgarria suertatuko zaigu. Izan ere, beraientzat nazionalismoa gatazka politikoaren beste forma bat baino ez da izango eta, ikusi dugun bezala, gatazka politikoa ezin izango dugu ulertu diskurtso edo ideologia bakar baten emaitza gisa. Zentzu horretan, nazionalismoaren jatorriei erreparatu beharko diegu; ea ze punturaino aldagai estruktural, mugapen instituzional eta elementu kulturalen emaitzak diren edota liskarren ondorio.

Nazionalismoaren izaera esentzialista/objektibo edota irudimenezko/subjektiboaren arteko eztabaida bere gordintasun osoarekin planteatuko digute. Bigarren adiera honen aldeko beraien jarrera ez dute ezkutatuko baina hori baino interesgarriagoa liskarraldi politikoak nazionalismoaren eraikuntzan duen eragina (eta alderantziz) aztertzeko egiten duten saiakera izango da. Azken mendeotako historian hizkuntza edota etnia bezalako aldagai *objektiboek* estatuen sorreran izan duten eragin mugatua edo behintzat garaikidea azpimarratuko dute; hainbat kasutan, hizkuntza komunitate edota etnia ezberdinak barne biltzen dituzten estatuarekin topo egingo baitugu.

Nazioaren kontzeptua eta nazionalismoaren adiera garaikidea estatuen sorrerarekin lotuta dagoen heinean, aldiz, bilakaera konplexuagoa izango da. Izan ere, nazioaren ideari atxiki ohi zaizkion eskubide eta bete beharrek muga kategorialaren alde batean daudenak konektatuko dituzte, muga hau eta aipatutako eskubide eta bete beharrek estatu batek finkatutakoak izan ohi baitira. Muga horretatik kanpo edo beste aldean daudenak, ordea, beraien eskubideak aitortuak ez izateko arriskuarekin aurkituko dira. Hortaz, nazionalismoa objektibizatutako elementuei (hizkuntza, kulturala, nortasun nazionala, ...) lotuta agertzeko ikuspegi klasikoa baino, estatu berri baten sorrerak dakarren gatazka prozesuen ikuspegia gailentzea proposatuko digute. Beste modu batera esanda, modernitatearekin nazionalismoak estatuaren sorrera (botere politikoaren lehiarako tresna eta helburu bezala) erreferentzia gisa jartzeak nazionalismoa liskarraldi politikoaren adiera bezala formulatuko du, objektibizatutako identitate aldagaien emaitza gisa baino. Horregatik, MTTren ustez, nazionalismoaz gehiago ikasiko dugu gatazka politikoaren beste elementu eta mekanismoekin lotzen badugu, hauengandik bereizten baditugu baino (2005: 259).

6.3.3.3 Demokratizazioa

Eta hirugarren oldarraldi zabala demokratizazioa izango litzateke. Jarraian prozesu honetaz egingo dugun azalpen zabalaren sarrera gisa, bera gatazka politikoarekin lotzeko egingo dugun hurbilpenak balio dezala. Izan ere, askotan pentsatzen denaren kontra, biak estuki lotuak egongo dira. Horren erakusle litzateke sistema demokratikoetan bizitza edo jabetzarentzat mehatxua izan daitezkeen protesta bideak horren suntsitzaileak ez diren gatazka moduengatik ordezkatuak izateko erraztasuna. Edota erregimen demokratikoetan, protesten bidez agertuko diren eskaera negoziagarriak presenteago egotea (negoziatorik aurreikusten ez dituzten ekintza zuzenekin alderatuz), sistema ez-demokratikoetan baino. Demokratizazioarekiko egingo dugun hurbilpena ikuspegi gatazkatsu edo *konfliktibista* honetatik egingo dugu.

6.4 Demokratizazioaren inguruko oinarrizko aldagaiak

6.4.1 Ikuspegi prozesuala edo dinamikoa

Demokratizazioan parte hartzen duten mekanismo eta prozesuen azalpenean, lehenik eta behin, demokraziaz eta demokratizazioaz zer ulertzen ulertzen dugun azaltzea ezinbestekoa zaigu. Demokrazia giza-talde edo *demos* batek bere burua gobernatzeko ideari lotuta agertzen zaigu; hortaz, lehenik eta behin, demokraziak *demos* bat behar duela ondorioztatu beharko dugu: denboran eta espazioan zehar irauten duten giza-taldea, sinismen eta jarrera batzuk konpartitzen duenak, nagusiki beraien burua gobernatzeari lotutakoa (Goikoetxea, 2013). Egungo sistema politiko ordezkatzaileretara ekarriz, demokratizazioa agintariak *demos*-ak planteatutako lehentasun eta eskaeren arabera gobernatzen dutenean emango da (Dahl, 1998; Lijphart, 1987). *Demos*-ak, aldiz, ez du aurre-ezarrita egongo diren lehentasun edo eskaerak; hauek ekoiztuak, birproduzituak eta irudikatuak izan beharko dira (Snow, 2004; Laclau, 2006; ...). Eskaera eta lehentasun hauek egikaritzeko moduari erreparatuta demokrazia mota ezberdinekin egingo dugu topo. Demokraziaren pentsamenduaren bibliografian tipologia ezberdinekin topo egin badezakegu ere, Tillyri (2010a)

jarraituz lau adiera nagusietan laburbiltzen saiatuko gara: *konstituzionala*, *benetakoa* edo *sustantiboa* (edukiari erreferentzia egiten diona), *prozedurazkoa* eta *prozesala*.

Lehenengoak arreta jarduera politikoari lotuta erregimen batek onartzen dituen legeengan jartzen du; baina eguneroko praktika eta legeetan onartutakoaren arteko distantziak ikuspegi honen baliagarritasuna baldintzatzen du. *Benetako* ikuspegiak, aldiz, erregimen zehatz batek sustatzen dituen bizi baldintzengan eta politikengan zentratzen da. Giza eskubideak, segurtasuna, jendartearen ongizatea eta abarrekoak bultzatzen ditu? Horrela bada demokratikotzat hartu ahal izango da, bere konstituzioak dioena dioela ere. Baina ikuspegi honek bi zailtasun mahai gaineratzen ditu: batetik, ze lehentasun eman printzipio hauetako bakoitzari; esan nahi baita, sistema baten txirotasun maila oso altua bada baina berdintasun politikoa bermatzen badu, ongizatea nagusi den baina ezberdintasun politikoak nabarmentzen diren beste bat baino demokratikoagoa dela esan ahal izango da? Eta bigarrenik, arestian aipatutako zailtasunaren beste muturrari helduz, soilik erregimen batek lortzen dituen emaitzei erreparatuta ez al diogu balioa kentzen emaitza horiek lortzeko jorratutako bide edo prozedurari?

Azken argudio honi helduta, *prozedurazko* ikuspegiaren defendatzaileek gobernuek baliatutako praktika zehatz batzuk definituko dituzte erregimen bat demokratikotzat hartu daitekeen zehazteko. Ikuspegi honen aldekoek, normalean, arreta hauteskunde prozesuetan kokatuko dute, hauek adierazgarriak diren gobernu aldaketak eragiten dituzten baloratuz. Baina kasu honetan ere, ikuspegi honen baliagarritasuna neurtzeko orduan neurgailu bakarra izateak bere balioa mugatu egiten du. Izan ere, erregimen batek hauteskundeak alderdi ezberdinek parte hartuko duten prozesu lehiatsu, sufragio unibertsal, ireki edota maiztasun finko baten arabera deitzen baditu baina gainontzeko giza eskubideak ez baditu bermatzen demokratikotzat hartuko dugu?

Eta bukatzeko, ikuspegi *prozesalean* indarrean egon beharko liratekeen hainbat prozesu zerrendatzen dira. Robert Dahl honen defendatzaileetako bat izango dugu, berak, gutxienez, bost prozesuri erreferentzia egiten diolarik: parte hartze aktiboa, bozka berdintasuna, ulermen erreza, agendaren kontrola eta helduen barneratzea (1999: 47-48). Dahlen ekarpenaren balio nagusia aurretik eskatutako baldintza edo lortu beharreko emaitzetan eduki zehatzik ez aurre-definitzean datza. Horrekin batera, prozedurazko ikuspegiaren ez bezala, ez ginateke independenteak liratekeen prozesuen zerrendatzeaz ariko, beraien arteko elkar-eraginean leudekeen aldagai politikoez baizik. Honen muga nagusia, aldiz, bere ikuspegi *estatikoa* litzateke; une zehatz bateko egoeraren argazkia baino ez liguke erakutsiko. Baina zer gertatzen da erregimen batek urte edo hamarkadetan duen

bilakaera aztertu nahi badugu? Edo erregimen bat eta beste baten/batzuen arteko alderaketa egin nahi badugu? Edota aipatutako prozesuetan emaitza ezberdinekin topo egiten badugu erregimen baten baitan?

Alde horretatik, baldintza demokratiko eta ez-demokratikoen arteko “bai ala ez” ikuspegi dikotomikoa baino, demokrazia gradu eta aldaketak azaltzen saiatuko gara. Gauzak horrela, prozesu sorta zabalei erreparatu beharko diegu. (Des)demokratizazio prozesuetan jauzi adierazgarria ematen den epealdi eta testuinguruei erreparatzea eta gure buruei bertan zer gertatu den galdetzea askoz eraginkorragoa izango zaigu. Hortik demokraziaren eta (des)demokratizazio prozesuen izaera dinamikoa edo graduala azpimarratzeko ahalegina.

Hortaz, baliatuko dugun demokraziaren adiera heldu-ezinezko ortzi-muga bat izango da; bertan ez du dugu txuri edo beltzeko egoerarik aurkituko, bata eta bestearen arteko eskalan kokatuko den erreperitorio zabal eta dinamiko bat baizik, non demokraziak gainontzeko beste erregimenak baino ez hain ez-demokratikoa soilik esan nahiko duen. Garrantzitsuen bilakaera horretan parte hartzen duten mekanismo eta prozesuei erreparatzea litzateke.

6.4.2 Izaera liskartsua

Demokratizazioaren inguruan landu nahi dugun funtsezko bigarren ezaugarria bere izaera gatazkatsua izango litzateke. Izan ere, aurre-ezarrita dagoen puntu pribilegiaturik ez dagoen heinean, *demos*-aren eraikuntza zedarrituko duen lehentasun eta eskaeren artikulazioa prozesu liskartsua izango baita ezinbestez. Zentzu bikoitzean: batetik, *demos*-ari forma ematen dioten eskaera ezberdinen arteko lehiari dagokionez; eta bestetik, eskaera hauen eramaileak diren herritarrak eta beraien gobernarien arteko harremanari dagokionez. Demokratizazioa eta gatazka, beraz, askoren irudimenean uztar-ezinak diren elementuak bezala agertu arren, elkarlotuak egongo diren gaiak izango dira. Alabaina, demokratizazioak gatazkaren formak apaldu eta bide baketsuetatik garatzeko aukera handitu eta harreman sozialak zabalduko ditu. Alde batetik, normalean, demokratizazioak bizitza eta jabego pribatua mehatxatzen dituzten aldarrikapen publikoko formak mugatu egiten dituelako, horren suntsitzaileak ez diren baina agerikoak diren elkar ekintza formengatik (Tilly, 2007a eta 2010a). Eta beste alde batetik, aldarrikapen forma publiko gehienek jendartearen sektore ezberdinen eta agintarien arteko harremanak zabaldu,

berdinu edota babestea helburu dutelako (Dahl, 1987); hau da, harreman hauek demokratizatzea. Hortaz, askok sistematikoki ukatu arren, gatazka politikoa elkartruke demokratikorako ezinbesteko baldintza bezala ulertu dezakegu.

Herritarren eta agintarien arteko harreman hauek forma oso ezberdinak hartuko dute. Horietako asko gatazkatsuak edo tentsiodunak izango dira, hau da, lehentasun edo eskaera ezberdinen arteko talka adieraziko dute. Alde horretatik, erregimenak horietako batzuk *arautuko* ditu, beste batzuk *toleratu* beharko ditu eta beste batzuk zuzenean *debekatu*. Erregimen motaren arabera, harreman hauek sistema batean edo bestean kokatzea errazagoa izango da. Esaterako, sistema ez-demokratikoetan zailagoa izango da arautu edo preskribatutako gatazka formekin topo egitea demokratikoetan baino. Sistema hauetan, arautuak dauden eta publikoak diren, baina agintariei zuzendutako aldarrikapenaren forma ez dituzten ekimenak baliatu beharko dituzte bere desadostasunak adierazteko bide gisa; adibidez, hiletak, ezkontzak edota bestelako ospakizun zibilak. Debekatutako eremuaren baitan gatazka ez-demokratiko edo bortitzezko beste lerro oso bat aurkituko dugu. Baina argi dagoena demokratizazioak gatazkarako erreperitorioa aldatuko duela eta gatazkek berak demokratizazio prozesuan eragin zuzena izango duela (Tilly, 2007a: 27).

Europako azken mendeotako gatazka ezberdinetan baliatutako bitarteko ez-demokratiko eta demokratikoen arteko bereizketa egiterako orduan, Tillyk (2007a) lehenengoan izaera *tokikoa* edo *lokalista*, *partikular* eta *adarkatutakoa* azpimarratuko du. *Tokikoa* eremu oso zehatzei begira baliatu izan direlako, eta gainera, eremu batetik bestera bere izaera asko aldatu delako. *Partikularrak* helburu oso zehatzei begirako ekimenak izan zirelako. Eta *adarkatuak* agintari lokalei zuzendutako gatazka forma zuzenetatik hasi eta maila altuagoko erantzukizuna zuten pertsonengana iristea helburu zuen bitartekari funtzioa egiten zuten pertsonenganako ekimenetara zabaldu delako. Erreperitorio demokratikoari, aldiz, izaera *kosmopolita*, *modularra* eta *autonomia* egotziko dio. *Kosmopolita* era askotako aldarrikapenetara zabalduko delako. *Modularra* ekimen forma nahiko antzekoez ariko ginatekeelako (esaterako, elkarretaratzeak). Eta *autonomia* jendeak bere kabuz, agintari edota bitartekarien beharrik gabe, inizatiba bere aldetik hartzen duelako (2007a: 28-29)

Erregimen guztietan ere parte hartze politikoaren zati handi bat gatazkarik gabe gauzatuko dela ezin uka, hau da, aldarrikapen publiko kolektiborik gabe. Jendeak bere zergak ordaindu, zerbitzu publikoak baliatu edota jardun legegilearenganako arreta jarriko du arduradun publikoei zuzendutako ekimen publiko, kolektibo eta gatazkatsuak egin gabe. Baina hauek des/demokratizazioaren etengabeko atzera-aurrerako desplazamenduan eragin apalagoa izango dute.

Ildo honetan, demokrazia epe motzera ematen diren aldaketa legalen ondorio baino, epe ertainera ematen den borroka politikoaren emaitza gisa irudikatu beharko genuke.

6.4.3 Markatzaile demokratikoak: kontsulta

Orain arte aipatutako oinarritzko bi ezaugarrioi helduta (ikuspegi prozesala/dinamikoa eta izaera gatazkatsua) bi ondorio atera ditzakegu: batetik, demokrazia prozesu dinamiko eta graduala den heinean ez gara finkoa izango den egoera batez ari, hortaz, demokrazia erreferentzia izanik, zentzu gehiago luke des/demokratizazio prozesu bat(zu)ez hitz egitea; eta bestetik, prozesu horri dinamismoa edo aldakortasuna emango diona gatazka bera izango da, hau da, gatazka edo gatazka ezak norabidetuko du prozesu horren bilakaera.

Bi aldagai hauek aintzat hartuta, prozesu horretan parte hartzen duten agente eta objektuen inguruko oinarritzko azalpena egin dezagun. Lehenik, prozesu bateko agenteek *Estatu*⁸⁸ bat jo mugan izango dute; eremu zehatz bateko hertsadura mekanismoak kontrolatzen dituen; eremu berebean diharduten eragileen gaineko maila bateko kontrola baduena; eta bere nagusitasunaren kanpo zein barne aitortza jasotzen duena (Dahl, 1999; Tilly, 2010a; ...). Bigarrenik, Estatu edo erregimen zehatz baten ardura pean bizi diren *herritarrak* edo *demos*-a dugu. Zentzu horretan, *erregimena* Estatua eta herritarren arteko harreman multzoa izango litzateke, demokratizazioa edo desdemokratizazioa harreman horien nolakotasuna azalduko duen prozesua izango delarik. Hala ere, Estatu/herritar harreman hauek konplexuagoak dira noski, bertan Estatutik harago dauden aktoreen arteko koalizio, aurkakotasun edota gatazkek parte hartzen duten neurrian. Ildo honetan, *politika publikoak* harreman hauek Estatuaren aldetik arautzen dituen prozesuak bezala ulertu ditzakegu. Arautze honek herritar eta bestelako aktoreen artean lortzen duen adostasun edo desadostasun mailaren arabera, demokratizazio prozesuan aurrera edo atzera goazela esan ahal izango dugu. Baina nola neurtu aldekatasun/kontraktasun hau?

⁸⁸ Azpimarratzekoa da Tillyk oinarritzko gobernu formaz aritzeko orduan *Estatuari* erreferentzia egiten diola. Zentzu honetan ohar bikoitza planteatu nahi dugu. Batetik, mahai gaineratu nahi duen demokrazia ereduaren zein demokratizazio mekanismoen azalpenerako Estatuaz ari denean bestelako gobernu formak ere kokatu daitezke (udal, gobernu autonomiko edo dena delakoa). Baina bestetik, erreferentziazko agente gune gisa Estatua kokatzeak, herritar/agintari hartu-eman liskartsuan eskala honek duen garrantzia azpimarratzen duelakoan gaude. Estatua goitik eta behetik botere bitartekoak edo eskumenak galtzen duen teorien aurrean, Tillyk oinarritzko eskala honen erreferentzia indartuko duelarik.

Demokraziaren inguruko bibliografian honen adierazle izan daitezkeen markatzaile ezberdinekin topo egingo dugu baina gehienetan bat nabarmentzen zaigu: *kontsulta*. Bere forma edo adiera ezberdinetan, kontsulta erregimen zehatz baten baitan, Estatu eta herritarren arteko harremanak arautzen dituen politika publikoekiko aldeketasuna edo kontrakotasuna neurtzeko markagailu nagusietakoa izango dugu. Kontsulta honen adiera ahulagoekin edo sendoagoekin aurkituko gara, horren arabera demokraziaren kalitatea ere neurtu ahal izango dugularik. Tillyk graduazio honetarako irizpide batzuk finkatuko ditu:

"Un régimen es democrático en la medida en que las relaciones políticas entre el Estado y sus ciudadanos se demuestran con consultas mutuamente *vinculantes, amplias, iguales y protegidas*. La democratización significa el movimiento neto hacia una consulta más mutuamente vinculante, más protegida, más igual y más amplia" (2010a: 45).

Kontsultari emandako nagusitasunarekin batera, gure ikerketarako baliagarria izango zaiguna honi emandako ezaugarritzea (lotura, zabaltasuna, berdintasuna eta babesak) demokratizazioaren markagailutzat hartzea izango da. *Zabaltasunarekin* Estatu zehatz baten eremu pean erregimenak politika publikoetan inplikatzeko dituen sektoreen hedadura neurtuko genuke. *Berdintasunarekin* eremu horretako herritarren artean, irizpide ezberdinengatik (arrazak, erlijioak, hizkuntza, ...) egon daitezkeen kategoriatan ezberdinen arteko harremanaren nolakotasunari erreferentzia egingo genieke; beti ere, kategoriatan hauek Estatuarekin duten harremanari dagokionez. *Babesak* Estatuaren arbitrariotasun mailari erreferentzia egingo lioke. Eta *kontsulta lotesleak*, Estatuak berak bere herritarren nahimenarekiko atxikimendua adieraziko luke. Horrela, markatzaile bakoitzarekin bi muturretako ardatz bana agertuko zaigu. Baina, aldi berean, ardatz hauek elkar gurutzatuak egongo dira, erregimen bakoitza gurutzatuak dauden eta bina mutur dituzten ardatzen artean kokatu beharko delarik. Horrela, erregimen bakoitzaren demokratizazio maila eta bilakaera aztertu ahal izango dugularik. Itxuraz konplexua suertatzen dakigukeen diagrama hau praktikan sinplifikatu ohi da, ardatz batean erakutsitako bilakaerak bere isla izaten duelako beste ardatzean. Esaterako: babes maila altua erakusten duten erregimenei, normalean, hiritar kategoriatan zabalak onartu ohi dituzte.

Baina demokratizazioaren bilakaeran, Estatu bakoitzak markagailu bakoitzarekiko duen jarrera bezain garrantzitsua izango da Estatu horrek hartzen dituen erabakiak bete arazteko duen gaitasun aintzat hartzea. Esan nahi baita, Estatu batek hartzen dituen konpromiso demokratikoek (hiritarren segurtasunari lotutakoak, demagun) gutxirako balioko dute, baldin eta hori bete arazteko bitartekorik ez badu (antolatutako gaizkile taldeei aurre egiteko segurtasun indarren eraginkortasuna

kolokan badago, aurreko adibideari jarraituz). Hartutako erabakiak betearazteko gaitasun hori da jarraian aztertuko duguna.

6.4.4 Erregimen motak.

Atal honetan bi ardatzen araberako sailkapen bat egiten saiatuko gara: *demokrazia* eta Estatuaren *gaitasuna*. Lehenengoari dagokionez, bere baloraziorako jada oinarrizko markagailuen azalpena egin dugu. Bigarrena, aldiz, “bitarteko, ekintza eta norbanakoen arteko lotura ez-estatalen gainean agente estatalen esku hartzeak, bitarteko, ekintza eta norbanakoen arteko lotura horien banaketa aldarazteko neurria litzateke; banaketa horien arteko harremanak barne” (Tilly, 2010a: 48). Adibide bat jartzearren: Estatuaren eskutik egiten den aberastasunaren banaketak, jendarteko sektore ezberdinen artean ondasunen banaketa zehatz bat suposatzeaz gain, banaketa horiek sektore sozialen arteko bitartekoen, ekintzen eta harremanen nolakotasuna ere aldaraziko du. Hau da, Estatuak herritarrenganako eragin zuzena izateaz gain, zeharkakoa ere izango du, herritarren arteko hartu-emanak baldintzatuko dituen neurrian. Estatuak bitarteko, ekintza eta norbanakoen hauen gainean eragiteko duen kapazitatearen arabera, gaitasun handiko eta txikiko Estatuekin aurkituko gara.

Horrela, demokrazia altuko eta baxuko erregimenekin aurkituko garen bezala, gaitasun handiko edo txikiko Estatuekin topatuko gara. Ardatz hauek gurutzatuz eta egoera posibleak sinplifikatuz, lau erregimen eredu idealarekin topo egin dezakegu:

1. *Gaitasun altuko erregimen ez-demokratikoak*: ahots publikoa apala litzateke, Estatuak baimentzen duena salbu; Estatuko segurtasun indarren inplikazio handia politika publikak guztietan; erregimen aldaketarako aukera eliteen arteko lehiatik edota behetik etorritako matxinada baten eskutik etorri daiteke.
2. *Gaitasun baxuko erregimen ez-demokratikoak*: Estatuko aparatuetatik autonomoak diren sektoreen arteko bortxakeria ohikoa litzateke.
3. *Gaitasun altuko erregimen demokratikoak*: dinamika sozialak ohikoak lirateke; baita interes taldeen jarduna eta alderdi politikoaren mobilizazioak ere. Kontsulta formalak (hauteskunde lehiakorrak barne) jardun politikoaren une goren gisa irudikatuak izango lirateke. Politika publikoaren jarraipen estatal zabala egingo litzateke, bortxa politikoaren erabilera apalarekin.

4. *Gaitasun baxuko erregimen demokratikoa*: gaitasun altuko erregimen demokratikoetan bezala, dinamika soziala, interes taldeen jarduna eta alderdien mobilizazioa ohikoa litzateke; kontsulta formalak ere oso presente egongo lirateke (hauteskunde lehiakorrak barne); baina horren eraginkorra ez litzatekeen jarraipen estatalak, aktore ilegal edota erdi-legalen inplikazioa areagotuko luke politika publikoetan eta, ondorioz, bortxa maila altuagoak emateko arriskua handitu.

Edozein kasutan, hauek eredu idealak izateaz gain, egoera posibleen argazki estatikoak erakusten dizkigute. Baina aipatutako ikuspegi dinamikoari jarraiki, guri Estatu eredu bakoitzak demokratizaziorako izan dezakeen bilakaera aztertzea da interesatzen zaiguna. Gaitasun motaren arabera hiru ibilbide posible marraztuko marraztu ahal izango ditugu (2010a; 203-207).

Gaitasun altuko Estatu baten ibilbidean, gaitasun estatala demokratizazio maila esanguratsu bat gauzatu baino lehenago emango da. Ondorioz, Estatu herritarrekin adostutako erabakiak errespetarazteko bitartekoekin sartuko da eremu demokratikoan. Gobernariak barne arerio autonomoak desaktibatu, segurtasun indarrak Estatuaren menpe jarri eta bere eremu peko bitarteko, ekintza eta biztanleriaren gaineko kontrola ezarriko lukete, demokratizazio esanguratsu bat eman baino lehen. Funtsean, Estatuaren gaitasunen indartzeak menpekotasun bitartekoak eta herri kontrolerako bideak aktibatuko ditu. Desdemokratizazioa, aldiz, edozein unetan gertatu ahal izango da, beraz, ez da itzuli ezinezko bidai bat izango. Gaitasun altuko Estatuaren ibilbidean, borroka politikoa Estatuaren botere bitartekoen kontrolean zentratu ohi da, maila txikiago aferetan baino.

Gaitasun ertaineko Estatu baten ibilbidean, gaitasun estatalaren hazkundera edo txikitzea ematearekin batera, demokratizazio mailan hein berdintsuko aldaketa emango da. Kasu honetan, Estatu demokraziaren eremuan sartzen denean, bere gaitasuna eraikitzekeko prozesuan murgilduta egongo da. Gaitasun politikoa hazten doan heinean, demokratizazioaren aldeko borroka politikoa handitu beharko litzateke, Estatu soilik azaleko eran inplikatu beharko litzatekeelarik. Bertan desdemokratizaziorako aukerak aurreko eredu bano handiagoak dira; batetik, demokratizazio prozesuan parte hartzen duten aktoreen desertzioa ekiditeko Estatuak bitarteko gutxiago dituelako; eta bestetik, horrelako desertzioek suposa dezaketen kosteen prezioa oso altua litzatekeelako.

Azkenik *Estatu ahuletan*, historian zehar horrelako kasu gutxitan eman da erabateko demokratizazio bat. Hauen ibilbidean teorikoki aurkitu daitezkeen egoerak aurre-ikusgarriak dira: Estatu batek maila batetik aurrera bere demokratizazioa emateko aurkitu ditzakeen zailtasunak

agerikoak dira. Estatu hauek gatazka mota ezberdinak pairatuko dituzte, horietako asko bortxazkoak, non Estatuaren apenas inplikaturik egongo den. Eredu honetan desdemokratizazioa emateko aukera handiagoak emango dira.

6.4.5 Gobernu-herritar harremanak baldintzatzen dituzten aldagaiak: hertsadura, kapitala eta konpromisoa.

Hurrengo atalean azaldu behar ditugun demokratizaziorako mekanismo eta prozesuekin batera badira gobernari eta herritarren arteko harremanak baldintzatuko dituzten hiru aldagai: *hertsadura*, *kapitala* eta *konpromisoa*.

Hertsadurak “aktore sozialei edota bere ondasunei galerak edo kalteak eragiten dituzten kontzertatutako ekintzarako bide guztiak barnebiltzen ditu” (Tilly, 2007a: 42). Arma, segurtasun indarrak, espetxeak edota isunen ezarpena bertan kokatuko lirateke. Sistema demokratikoetan hertsadura bitartekoen erabilera Estatuaren eskuetan utzi ohi dira (Dahl, 1999: 51). Baina hau ez da beti horrela izango; politika publikoak aldarazteko mekanismo hauek baliatuko dituzten hainbat taldeekin topo egin ahal izango baitugu. Bitarteko hauek bi ardatzen arabera antolatu beharko lirateke: beraien *akumulazioaren* arabera eta beraien *konzentrazioaren* arabera. Lehenengoak hertsadurarako bitartekoen errepertorioari erreferentzia egingo lioke eta bigarrenak bitarteko horiek zenbat eskuetan pilotzen azalduko luke. Bata eta bestearen arteko biderketak erregimen baten ardurapeko eremuan dagoen hertsadura maila adieraziko digu.

Hertsaduraren antolaketak erregimen baten izaera adieraziko digu. Horrela, akumulazio altua kontzentrazio altu batekin uztartzen duen erregimena tiraniatik gertu egon daiteke. Egungo demokrazia *standarizatuen* ohiko joera Estatuaren eskuetan pilotutako akumulazio erdi-altu eta kontzentrazio altua izango litzateke. Edozein kasutan argi izan behar dugu inongo gobernuak bere eremuko hertsadurarako bitarteko guztiak kontrol pean izatea ez duela lortu.

Kapitalarekin “esfortzu maila batekin, beraien erabilera-balioaren hazkundera eragin dezaketen bitarteko hautemangarri eta transferigarriei” erreferentzia egingo diogu, “bitarteko hauen jabeen asmo batzuen ezarpena ere eragin dezakeelarik” (Tilly, 2007a: 43). Hertsadurarekin gertatu bezala, kapitalaren metaketa maila ezberdina izango da. Kapitalak, botererako bitarteko gisa, berebiziko

garrantzia izango du demokratizazio edota desdemokratizazio prozesuetan, eta zentzu horretan, bere banaketa erabakigarria izango da demokraziarantzko bidean. Demokrazia eta ekonomia kapitalista elkar loturik agertzen zaizkigu bi sistema izan ohi dira (Dunn, 1995; Mouffe, 2000; ...) baina harreman paradoxikoa ere izango dutenak; izan ere, sistema demokratikoez eskaintzen duten askatasuna sistema kapitalisten merkatu libererako ezinbesteko baldintza bezala hartua izan bada ere, merkatu kapitalistako ekonomia batek herritar ezberdinek eskura izan dezaketen bitarteko politikoak ezberdinak izatea ekarriko du. Beste modu batera esanda: ondasun ekonomikoetan ezberdinak diren herritarrak, nekez izango dira politikoki berdinak. Hortaz, merkatu ekonomiak berdintasun politikoa kaltetuko duela ere esan dezakegu (Dahl, 1999: 179-180).

Eta azkenik, *konpromisoa*, gune sozial ezberdinek elkar aintzat hartzeak eragiten duen harremana bezala ulertuko dugu. Konpromisoan erlijioak, ideologiak, harreman komertzialak edota lan harremanak bezalako aldagaiek eragingo dute. Konpromisoak konfiantza sareak barnebilduko ditu, batez ere sektore ezberdinak iraupen luzeko eta arrisku altuko ekimenetan inplikatzeko direnean. Aurreko bi aldagaietan bezala mailaketa ezberdinarekin aurkitu ahal izango gara.

Konpromisoak erregimen zehatz batean izango duen eragina azaltzeko hainbat ezaugarri azpimarratu beharko ditugu. Lehenik, konpromisoak sektore sozial ezberdinen arteko mugen eta elkartasunen lerro konplexu bat eratuko duela. Bigarrenik, muga eta elkartasunen marra hauek ez dira soilik herritarren artean emango, baizik eta herritarrak eta gobernua sostengatzen dituzten hainbat aktoreen artean, harremanen izaera konplexuagoa eginez. Eta honek, aldi berean, gobernuak estruktura instituzionaletan ze aktore eta nola barneratzen dituen erabaki behar izatea eragingo du. Horrela, Estatu zehatz bateko eremuan gobernuarekin harreman maila txikia duten sektoreak zabaltzen badira, sektore sozial zabal horiek beraien interesak aseak izateko bide gutxi izango dituzte, eta ondorioz, Estatuak aurka izan ditzakeen sektoreen multzo handia nagusitzeko arriskua handitu.

Hertsadura, kapitala eta konpromisoa denbora eta espazioan batera aldatzen dira. Normalean, hertsadura maila handia ematen bada kapital eta konpromiso sareen hedadura eta sakontasuna altua izango da. Baina honek ez du hiru aldagaien arteko korrelazio zuzena adieraziko lukeen hiruko erregela zuzen bat suposatuko.

6.5 (Des)demokratizazioa eragiten duten mekanismo eta prozesuak

Gogoratu dezagun, *mekanismoak* egoera multzo zabal baten gainean efektu berdinak eragiten duten gertaerak direla, eta *prozesuak* emaitza zehatz bat mahai gaineratzen duten mekanismoen konbinazio eta sekuentzia. Horrela, demokratizazioa eragiten duten mekanismoen artean, adibidez, *koalizioen eraketarekin* topo egingo dugu askotan; honek, bere horretan ez du demokratizazioa eragingo, edota nahiago bada, demokraziaren markagailutzat hartu ditugunak areagotuko (zabaltasuna, berdintasuna, babeseta eta kontsulta loteslea). Baina demokrazia helburu izan ditzaketen eta ordura arte deskonektatuak zeuden sektoreak elkarlanean jarri ditzake. Demokratizazioa eta desdemokratizazioa prozesu oso luzeak dira, baina horien barruan demokratizazioan urrats berri bat emateko baldintzak sortzen dituzten prozesu txikiagoekin aurkituko gara.

Tillyk berak mekanismo eta prozesu hauek hiru multzoetan antolatuko ditu: kategorien artean (arraza, generoa, ideologia, ...) ezberdintasunak sortzen dituzten banaketan handitzea edo txikitzea politika publikoetatik; konfiantza sareen integrazioaren areagotzea edo mugatzea; Estatuarekiko edo botere publikoarekiko herritarren eragina biderkatzen edo oztopatzen dituzten mekanismoak⁸⁹. Aztertu ditzagun mekanismo multzo bakoitzaren nondik norakoak.

6.5.1 Berdintasuna eta ezberdintasuna.

Demokraziak hobeto funtzionatuko du eta demokratizazioa posibleagoa izango da prozesu politikoek kategoriatan edo sektore ezberdinen arteko ezberdintasuna mugatzen dituztenean. Kasu honetan, politika publikoak kategoriatan sozial hauen arteko ezberdintasunetatik nola aldentzen diren aztertu beharko dugu; edo beste modu batera esanda, politika publikoek kategorien arteko ezberdintasunen areagotzean edo mugatzean zer nolako eragina duten.

⁸⁹ Tillyk hiru multzoen araberako banaketa hau gutxienez azken hogeitun urteetan egindako lanetan mantendu du. Aipatutako hirugarren multzoa, aldiz, modu ezberdinetan landuko du arreta elementu ezberdinetan jarrita. *Contienda política y democracia en Europa, 1650-2000* (2007a) lanean “herritarren eta gobernu eragileen arteko betekizunetan zabaltasuna, berdintasuna, betetze maila eta segurtasuna handitzen dituzten mekanismoez” hitz egiten duen bitartean, *Democracia* (2010) liburuan “Estatuak politika publikoaren menpe jartzen dituzten edota herri eragina politika publikoaren gainean errazten dituen mekanismoez” ari da. Kasu batean zein bestean, herritarrek Estatu edota politika publikoekiko duten eragiteko gaitasunaz ari gara, horregatik gorago aipatutako izendapena aukeratzea.

Baina hasi gaitzen hasieratik, zer ulertzen du ezberdintasunaz? Ezberdintasun pertsona edo pertsona multzoen arteko elkar ekintza litzateke, non batzuek beste batzuk baino onura handiagoa aterako luketen (Rawls, 1971; Dahl, 1999; ...). Maila ezberdinetan eman daiteke, familia bezalako gune murrizetatik hasi eta makro mailako antolaketa politiko, sozial edota ekonomikora. Ezberdintasunak taldearen antolaketa mailarekin ere zerikusia izango du: hainbat kasutan, pertsona zehatzen arteko mailaketa ordenatuekin topo egingo dugu, baina normalean jendea argiki mailakatuak ez dauden kategorietan bilduko da. Kategoriatuak hauen arteko mugak beharrezkoak izango dira bizitza soziala eta politikoa antolatu ahal izateko. Arazoa ezberdintasun hauek era iraunkor batean mantentzen direnean sortu ahal izango da, etengabe kategoriatuak baten mugaren alde batean edo bestean kokatzen direnak desabantaila berdina pairatzen dutelako kategoriatuak horretan egoteagatik; hots, genero, arraza, pentsaera edo dena delakoagatik.

Giza taldeen arteko funtzionamenduaren oinarritzeko arau hau Estatu eta herritarren arteko harremanen esparrura eramaten dugunean, edozein erregimenek (demokratikoa izan ala ez) desberdintasunen iraunkortzean parte hartuko du. Hiru modutan egin dezakete: beraien babesleen abantailak babestuz; bitartekoak banatzeko bide propioak finkatuz; eta kontrolatzen dituzten jendarte sektore ezberdinen artean beraien bitartekoak birbanatuz (2010a: 155).

Normalean, sistema demokratikoetan hirugarren bide hau berdintasuna bultzatzeko bidea izango da, ondasunen banaketa eta kontrolerako bide zabalagoak sustatuz. Baina bere atzealdea ere izango du, sistema demokratikoek kategoriatuak arteko ezberdintasun batzuk sustatzen dituzten heinean. Izan ere, Estatu demokratikoen ahaleginaren zati bat ezberdintasun hauek hauek mantentzea edota areagotzera dedikatua egongo baita, talde batzuk hobetsiz eta besteak kaltetuz. Ordura arte indarrean egon den antolaketa sozial eta jabegoaren banaketaren inguruan emandako ezberdintasunen mantentzea horren erakusle da; herentzien eskubideen sistema horren adibidea litzateke, jendarte batean egon daitezkeen ezberdintasun sozial edo ekonomikoan iraun arazteko bidea izan daitekeena. Alde horretatik, erregimen demokratikoetako eztabaida politikoen zati handi bat, Estatuaren ahaleginak ze punturaino desberdintasun hauek desager araztera dedikatu beharko liratekeen zehazteak eramaten du.

Zentzu honetan, desberdintasun hauek erregimen demokratikoen berezko ezaugarria izango dira, zentzurik ez luke erregimenak ezberdintasunik gabeko jendarte eredu batera jo nahi izateak. “Garaipen demokratikoa” politika publikoak indarrean dauden ezberdintasun materialetik *isolatzea*

izango dela esan dezakegu. Demokraziak sortu eta biziraun ahal izango du kategoria ezberdinen aurrean demokrazia bera banatzen ez den heinean; hau da, giza-multzo ezberdinekiko jarrera ezberdinak hartzen ez dituen heinean. Joera liberaleko ikuspegi honen arabera, aurrean dugun taldearen arabera banatzen diren eskubide politiko, betebeharrak eta parte hartze formek demokrazia mehatxatu eta demokratizazioa zailduko dute. Ezberdintasunaren gradu eta izaeraren arabera ere demokraziaren garapena baldintzatuko dute, hauek hazten diren heinean desdemokratizaziorako aukerak areagotuko direlarik. Hortaz, demokraziaren garapena bi faktoreen arteko uztarketa maila baten arabera emango da: batetik, kategoria sozial ezberdinen arteko berdintze materiala, eta bestetik, politika publikoa kategorien arteko ezberdintasunetik bereiztea, hain zuzen ere.

Hauek izango dira demokratizazioa lagundu edo zaildu ditzaketen mekanismoetako batzuk (Tilly, 2007a: 17; 2010: 157):

1. Kategorien arteko ezberdintasunak sostengatzen dituzten gobernu kontrolen indar(gabe)tzea.
2. Kategorien arteko ongizate maila des/berdintzea.
3. Kontrol pribatua duten indar armatuen kontrola handitzea/txikitzea botere publikoen aldetik.
4. Kategorien arteko desberdintasunak politika publikoetatik aldentzen/hurbiltzen dituzten mekanismoen sustatzea.
5. Kategorien arteko desberdintasunak zeharkatzen dituzten elkarten koalizio aktiboen sorrera/amaiera.
6. Kategoria sozialen arteko mugak zeharkatzen dituzten eginkizun, eskubide eta abarrekoen handitzea/gutxitzea.

Prozesu nagusiak: kategorien des/berdintzea (1etik 3ra doazen mekanismoak barne biltzen dituena) eta politika publikoen baretzea/indartzea kategorien arteko desberdintasunen aurrean (3tik 6ra doazenak).

6.5.2 Konfiantza sareak.

6.5.2.1 Funtsezko ezaugarriak.

"El futuro de la democracia (...) depende de las conexiones entre las redes de confianza y los regímenes políticos; la retirada generalizada de esas redes de la política pública, cuando se produce, daña a la democracia" (2010b: 30).

Horrelako baieztapen borobil batekin Tillyk demokratizazio prozesuetan konfiantza sareek jokatzen duten paperaren garrantziaz ohartzen digu. Baina zein da konfiantza sareen muina? Konfiantza sareak "lotura indartsuak lituzketen pertsonen arteko harreman adarkatuak lirateke; zeinetan jendeak epe luzeko helburu bati begirako bitarteko eta eginkizun baliotsuak martxan jartzen dituen, besteen hanka sartze, akats edota abilezia ezaren arriskua egonda ere" (2010a: 116).

Baina xehatu dezagun arestian emandako oinarrizko definizio hau. Oinarrizkoenetik hasita, zuzenean edo zeharka antzeko loturengatik elkar lotuak dauden pertsona taldea aurkituko dugula esan dugu. Bigarrenik, horrelako loturen existentziak berak kideen arteko arreta edo laguntzarako eskubidea emango luke; sareak harreman estuak baitakar bere baitan. Hirugarrenik, sare honetako kideek mota ezberdinetako epe luzeko eginkizunak gauzatzen egongo lirateke; langileen arteko laguntza iraunkorra, kontinenteen arteko migrazioarako bideak irekitzea edota distantzia luzeko komertzioa, kasu. Eta azkenik, sarearen barruko loturek eginkizun kolektibo hau abilezia eskasa, akats edota norbanakoen hanka sartzeen arriskuen aurrean kokatuko gaituztela nabarmenduko dugu.


Arestian aipatutako ezaugarriei erreparatuta sare "arrunt" eta aztertu nahi dugun konfiantza sareen arteko ezberdintasunaren muina lausotua ager dakiguke. Izan ere, ez gara soilik norbanako ezberdinen arteko harreman maila bat barneratzen duen harreman eredu batez, konfiantzaren aldagaiak harreman ereduari ematen dion egonkortasun eta berezitasunen azterketa da aztertu nahi duguna, eredu zehatz honek demokratizazio prozesuetan duen eragin berezia nabarmentzeari begira. Alde horretatik, Tillyk *Confianza y Gobierno* (2010) liburuan konfiantza sareen azterketa sakon eta zehatzagoa egingo du, ordura arte sare hauei egotzitako ezaugarri berri batzuk gehituz: gutxienez hiru pertsona bildu behar dituen harreman honetan, harremanak berak bere kide guztiengatik ezaguna izango den izena izan beharko du; honetaz gain, harremanak kide guztien eskubide eta bete-behar batzuk jasoko ditu; kideek ere beraien iritzia komunikatzeko eta ordezkatuak izateko bideak izango dituzte; edota parte hartzaileek beraien kideak eta kanpokoak bereiziko dituzten mugak mantenduko dituztelarik.

Harreman sare mota honen egonkortasuna areagotuko lukeen ezaugarrien zerrenda luzatu genezake, baina berezitasun hauek konfiantza sareen izaera eta ekintzei egotziko lioketen zurruntasuna ere

areagotuko litzatekeela aintzat hartu beharko genuke. Erakunde autoritario edota kooperatiboekin alderatuta, konfiantza sareek beraien tamaina, kidegoa, ekintza garrantzitsuenak edota antolakuntza estrategiak ez dituzte malgutasun edo azkartasunarekin egokitzen. Aldi berean, sarearen barruan kide bat leku batetik bestera mugitzeko ere ez dira batere azkarrak izango eta kide berriek ikasketa prozesu motela izango dute (2010b: 79).

6.5.2.2 Integrazioa.

Arestian esan bezala konfiantza sareen helburu nagusietakoa epe luzeko eginkizun baten lorpena izango da. Eginkizun hori egikaritzeko herritarrek eta konfiantza sareek politika publikoen eta gobernuen garapenean eragin nahi izango dute, batean zein bestean integrazio maila bat bilatuz (Dahl, 1999: 48). Integrazio hau mota oso ezberdina izan daiteke. Honen sailkapen sinpleenetik hasita, zeharkakoa edo zuzena izan daitekeela esan dezakegu. *Zeharkako* integrazioa, konfiantza sareak politikoki konprometitutako aktoreetara zabaltzen denean emango da (maila sozialeko antolakunde, sindikatu edota elizetara kasu); azken hauek, aldi berean, helburu ezberdinak gauzatu ahal izateko beraien artean eta gobernuarekin negoziatuko dutelarik. Integrazio *zuzena*, aldiz, konfiantza sareak gobernura hedatzen direnean emango litzateke (Tilly, 2010b: 24). Bi mutur hauen artean maila ezberdineko graduazio batekin topo egingo dugu; bi eredu hauek eta beraien artean kokatu daitezkeen tartekoak, gorago herritarrek eta Gobernuak dituzten hiru harreman bideekin (hertsadura, kapitala eta konpromisoa) gurutzatzen baditugu sistema politiko ezberdinen funtsezko ezaugarritze bat azalduko zaigularik.



6.9 irudia: Konfiantza sareen integrazio maila botere guneekiko (Tilly, 2010b: 59).

Arreta jarri dezagun gure ikerketa gaia mugituko den erreferentziazko balizko ereduetan, hau da, grafikoaren erdiko partean kokatzen diren hiruetan: demokrazia, bezerotza sistema eta bitartekotutako autonomian.

Demokrazietan politika publikoekiko konfiantza sareen integrazio partzial bat emango da (inoiz ez erabatekoa), indarra konpromisoan jarriz baina kapital eta hertsadura maila baten aplikazioari uko egin gabe. *Bezerotza sistemetan* kapitala eta hertsadura uztartuko dira gehienbat, gobernari eta konfiantza sareen artean negoziatutako harremanetan. Eta *bitartekotutako autonomietan* konfiantza sareetako liderrek gobernarietara bitartekoak eta men egitea eskainiko diete, beraien eremuaren barruan autonomia esanguratsu bat ziurtatzen bazaie.

Konfiantza sareen integrazio modu hau, maila handi batean, *goitik beherako* izango dela esan dezakegu. Hau da, konfiantza sare hauek politika publikoetan izango duten integrazio maila gobernarietara herritarrekin harremanetan jartzeko dituzten bitarteko garrantzitsu batzuen arabera (hertsadura, kapitala eta konpromisoa) definituko dute. Baina konfiantza sare hauek ere agintarien erabakietan *behetik gora* eragiteko edota agintarien erabakien eragina ekiditeko estrategiak ere aurkituko dituzte. Aztertu ditzagun horietako batzuk (Tilly, 2010b: 64).

1. *Ezkutaketa*: agintarien aldetik antzemate eta manipulazioa ekiditea.
2. *Disimulua*: agintarietara esaten dutenarekin adostasuna antzeztea, baina men egitea eta horren proiektio publikoa ahalik eta gehien mugatuz.
3. *Bezerotza*: tarteko agintarien babesa lortzea, men egitea eta horren proiektioa ekidinez, baina normalean galeraren bat suposatuz.
4. *Harraparitza*: bitarteko berriak eskuratu zein besteen harraparitzaetik babesteko kanpo eraginkortasun nahikoa izango duen indarra antolatuz.
5. *Erroldatzea*: indarrean dagoen erregimen zehatz baten eremu ezberdinetan era aktibo batean integratzea.
6. *Negoiazioa*: kontingentea izango den onarpen baten gainean aktore politiko garrantzitsuen arteko harremanak eraikitzea.
7. *Desegitea*: indarrean den sare bat deuseztatzea, izan desertzio mailakatuaren bidez, izan desegite kolektibo baten bidez.

Mekanismo hauen arteko uztarketa egokiak konfiantza sareek politika publikoetan eragiteko arrakasta edo porrota determinatuko du.

6.5.2.3 Konfiantza sareen aldaketak.

Jarraian konfiantza sareen bilakaeran eragiten duten parametro nagusiak aztertuko ditugu. Izan ere konfiantza sareak demokratizazio edo desdemokratizaziorako aldagai nagusietako bat izanik, hauen zabaltzean edo mugatzean, indartzean edo ahultzean edota barne antolaketan eragiten dituzten aldagaiek, zeharka bada ere, demokraziaranzko bide horretan eragingo dute. Lau parametro nagusi ezberdindu ditzakegu: konfiantza sareen mugak, kanpo loturak, sostengua eta barne loturak.

Barruko eta kanpokoan artean *muga* zehatzak finkatu, kontrolatu eta mantentzen dituzten konfiantza sareak eraginkorrak izaten dira. Muga hauen lausotzeak kideen irteera errazten du eta bete beharrak kontrolatu eta betearazteko zailtasunak jarri; aldi berean, sare horretan nagusi izan diren jardunak eta helburuak bestelako eginkizun batzuegatik ordezkatuak izatea errazten du. *Kanpo loturek* ez diete soilik konfiantza sare baten mugei eragiten, baizik eta sare horrek izango duen sostengu edo bitarteko ezberdinei. Sareetako liderren kezka iturburu nagusi bat sareko kide batzuek kanpoko pertsona gutxi baina boteretsuekin izan dezaketen harremanek sarearen bilakaera baldintzatzea izan ohi da. *Sostenguei* dagokienez, bitartekoez hornitzeko bide propioak izaten dituzten sareek, normalean kanpo iturri aldakorren arabera funtzionatzen dutenak baino eraginkorrak izaten dira. Beraien hornikuntza iturriak galtzen dituztenak desagertzea jotzen dutelarik. Konfiantza sareek beraien hornikuntza iturriak gainditzea ere gerta daiteke; hau da, daukaten sostengua baino azkarrago hedatzen diren sareek ere ahuldu edo desagertzea joko dute. Azkenik, *barne loturei* dagokionez, kideen arteko erakargarritasuna azpimarratuko dugu. Izan ere, kide ezberdinen arteko lotura sendoak eratzen diren bitartean sareak indartsu iraungo du; barne talde txo edo hertsiki lotutako bikoteen sorrerak, aldiz, zatiketarako arriskua ekarriko du. Hortaz, azken hauek ekidingo dituzten bitartekoak martxan jartzeak bere biziko garrantzia izango du. Hainbat kasuetan, konfiantza sareen bilakaeran gobernari edota erregimenekin duten harremanek baino, barne aldagai hauek pisu handiagoa izango dute; sare hauek hazi edo desagertzea autoritateen parte hartzearekin zerikusirik izan gabe ematen direlarik (Tilly, 2010b: 99-101).

6.5.2.4 Konfiantza demokrazietan

Orain arte azaldutako prozedurek konfiantza sareek edozein sistema politikoetan nola funtzionatzen duten azaltzen lagundu digute. Aztertu dezagun orain konfiantzak sistema demokratikoetan jokatzeko duen paper espezifikoa gobernuak eta herritarrak harremanetan jartzeko duten hiru bide nagusien ikuspegitik: hertsadura, kapitala eta konpromisoaren ikuspegitik, hain zuzen ere.

Arestian azaldutakoari jarraituz, sistema demokratikoen herritarren eta konfiantza sareen integrazio maila handia bilatuko dute, konpromisoan oinarritutako onespén politikoa bilatu nahian eta kapitala eta hertsadura bigarren maila batean utziz. Konfiantza eta konpromisoaren aldagaiak funtsezkoak izango dira demokrazia ordezkatzaileretan. Izan ere, eskala txikiko antzinako sistema demokratikoetan ez bezala (non herritarren parte hartze zuzenerako aukerak handiagoak zeuden), eskala handiko sistema demokratiko garaikideek, herritarrek beraien ordezkariengan delegatu behar dituzten erabakien kopurua eta garrantziagatik, konfiantza maila altu bat eskatuko dute (Dahl, 1999: 128). Giza sektore ezberdinen integrazio mailak ere gobernu mota definituko duenari: kontsentsuzkoa, gehiengoarena, ... (Lijphart, 1987). Edozein kasutan, sistema eta herritarren arteko integrazioaren arteko tentsioa iraunkorra eta gaindiezina izango da. Integrazio maila erabatekoa balitz herritarrek onespén mekanismo kontingenterik ez lituzkete. Zentzu honetan, gehiegizko integrazioak desdemokratizatzen duela esan dezakegu. Edozein kasutan, sistema demokratikoetan ez gara kolore bakarreko ereduarekin aurkituko, maila ezberdinetako integrazioekin topo egingo dugu: gauzatu nahi diren epe luzeko eginkizunak burutzeko gobernuaren berme, diru laguntza edota zerbitzuekiko menpekotasuna duten sareetatik hasita; gobernuaren kontrolarekiko autonomia maila bat mantentzen duten sindikatu, alderdi politiko edo beste antolakundeen jardunera. Kasu guztietan sare hauen eta gobernarien arteko konfiantza maila bat beharrezkoa izango da. Baina zerk azalduko du demokrazia eta konfiantzaren arteko harreman hau?

Lau tesi nagusietan laburbildu daitezke: lehenik, konpromisoan, eta ez hertsaduran, oinarritutako konfiantza sare eta gobernuaren arteko elkarlanak gainontzeko aktoreei dagokien elkar bizitzarako eginkizunak beraien gain hartuko dituztenaren konfiantzaren gainean ematen delako. Honen adibide izan daiteke langileen zergen bilketa, non zuzeneko hartu-emanen dauden eragileek (esaterako, sindikatu batek osatu dezakeen konfiantza sarea -batetik- eta gobernuak -bestetik-) elkarrekiko konfiantza erakutsiko duten, inplikaturako hirugarren agenteei (adibidearekin jarraituz, enpresariei) dagokien eginkizunak (demagun, sozietateen zergaren ordainketa) beteko direla suposatzen den,

heinean. Bigarrenik, demokraziek beste sistema politikoek baino konfiantza handiagoa eskatzen dute, ordezkarienganako ahalmenen delegazioak soilik konfiantza maila altuago bat badago emango delako; beti ere, herritarrek ordezkarien gainean dituzten kontrolerako mekanismoak konfiantza honen euskarri izango direlarik. Hirugarrenik, agintearen errotazio sistemaren funtsa, momentu batean agintean ez daudenak, unerren batean egongo direnaren, edo behintzat agintean daudenak beraien interesak ordezkaturiko dituztenaren, konfiantzan datza. Eta laugarrenik, definizioz demokrazia gainontzeko sistemak baino arriskutsuago eta kontingenteagoa izango da; hortaz, soilik politika demokratikoaren emaitzetan konfiantza duten horiek sistemarekin kolaboraturiko dute (Tilly, 2010b: 213-214), sistemaren ahalegina eremu honen zabalpenean kokatu beharko litzatekeelarik.

Esan bezala, lau tesiek sistema demokratikoetan konfiantza maila bat beharrezkoa dela agerian utziko dute, eta ondorioz, honen faltak demokrazia bera arriskuan jarriko duela. Beraz, erregimen autoritarioak edo bezerotzan oinarritutakoak konfiantza maila baxuagoekin biziraun daitezkeela ondorioztatu dezakegu.

Konfiantzaren aldagaia, aldiz, ez da erabat gardena izango eta ez ditu norabide bakarreko eraginak sortuko. Konfiantza sistema demokratikoen oinarrizko osagaia izango da baina interes ezberdinak kontrajartzen direnean, "gu" eta "haien" arteko mugak lausotzen direnean edota ondokoaren beharrak nire beharren gainetik asetzen direnean konfiantzan arrakalak agertzen hasiko dira. Sistema demokratikoek beste sistemekin alderatuz beharko duten konfiantza *plus* honi Mark Warren-ek (1999) *konfiantzaren dilema demokratikoa* deituko dio.

Warrenek berak hiru soluzio posible bilaturiko dizkio dilema honi. Lehenengoa *neokontserbadorea* litzateke; Francis Fukuyamak (1992) tipifikaturiko aukera honetan arazoa ekiditeko modu bakarra instituzio politikoek hartzen dituzten erabaki kolektiboen kopurua gutxitu eta jada konfiantza existitzen den bestelako eremuetan (komunitate naturaletan edo merkatuetan) kokatzea litzateke. Bigarrenak *hautu arrazionalaren* ideari erantzungo lioke, *besteak* (pertsona edo instituzioak) gure onuran interes bat duenaren aurreikuspenean oinarrituko litzateke. Eta hirugarren aukera, konponbide *eztabaidazaleak* osatuko luke; eztabaida irekiak konfiantza areagotuko luke baina, aldi berean, eztabaida emateko konfiantza beharko litzateke. Tillyk, aipaturiko dilema ebazteko, ez du hiru hauetako baten alde egingo eta konfiantzaren izaera kontingentea aldarrikaturiko lukeen eredu propio baten alde egingo luke (2010b: 215-216). Eredu honek konfiantza sareek burutu nahi dituzten eginkizunen arriskua aintzat hartuko du (helburuak lortzeko zailtasunengatik, besteen hanka sartzeak eragin zuzena izan dezaketelako, ...); sareak osatzen duten eta ez dutenen mugak

dinamikoak izango direla aintzat hartzen du, gaur zure ondoan daudenak, bihar zure aurrean egon daitezkeela argi izanik; planteatzen diren eginkizun edota helburuekiko sareko kideen onespén maila aldakorra izango da, interes ezberdinak eta kasu askotan denborarekin kontrajarriak izan daitezkeenak badaudelako; eta, ondorioz, gobernuarekiko harremanetan aldakortasuna nagusi izango da.

6.5.2.5 Konfiantza sareen mekanismoak eta prozesuak

- Botere publikoetatik bereizitako konfiantza sareen desagitea/indartzea.
- Beraien epe luzeko helburuak lortzeko konfiantza sareetara iristerik ez duten gizarte sektoreen zabalpena/txikitzea.
- Indarrean dauden konfiantza sareek erantzunik eman ezin dieten aukera eta mehatxu berrien agerpena.
- Gobernuaren konpromisoak betetzeko kanpo bermeen sorrera.
- Gobernuaren konpromisoen betetze maila agerikoa sektore sozial berrien mesedetan.
- Ugabaza-bezero harremanen barneratzea edo deuseztea gobernuaren aldetik.
- Gobernuaren bitartekoen hazkunde arriskua moteldu edo galerei aurre egiteko.
- Erauzte-erresistentzia-negoiazio zikloak, gobernuaren egonkortasuna kolokan jarritz.

Prozesu nagusiak: baztertutako konfiantza sareen desagitea (1etik 4ra doazen mekanismoak) eta politikara lotutako konfiantza sareen sorrera edota zaharren integratzea (4tik 8era doazenak) (Tilly, 2007a: 17; 2010b: 217).

Ondorio bezala, esan dezagun konfiantza sareak politika publikoetan integratzen direnean gobernuarekin dituzten harremanen bidez botere indibidual zein kolektiboa irabazten dutela. Gobernuaren jardunean eragitea sare hauen interes nagusia bilakatzen da. Ordainetan, aintzat hartu beharko da gobernuaren jardunarekiko menpekotasun honek sareen mantentzea bera baldintzatuko duela.

6.5.3 Herritarren eragina Estatuarekiko.

Demokratizazioa areagotu beharko lukeen herritarren eragina hazi ahal izateko funtsezko hiru prozesuk parte hartu beharko dute (Tilly, 2010a: 178-179): a) parte hartze politikoaren zabalpena. Normalean boto berdintasuna lehenetsiko dituzten kontsulta bidezko prozedurak nagusitzen dira (Dahl, 1999: 48): hauteskundeak, galdeketak, ... ; baina ikusi dugun bezala bestelakoak ere egon daitezke. b) Estatuak ez diren bitartekoak eskuratzeko aukerak berdintzea; esaterako, komunikabideekiko eskuragarritasuna eta komunikaziorako bideen zabalpena. Zentzu honetan, azken urteotan horretarako beharrezkoak diren bitarteko teknologikoen eskuragarritasuna handituta eta sare sozialen zabalpenarekin, herritarrei beraien kontakizuna eraikitzeke aukera eskura jarri zaiela esan daiteke (Castells, 2004). Eta hirugarrenik, c) hertsadurarako aukera duten eragile autonomoen boterea galaraztea. Printzipioz, Estatuaren kontrol eremutik kanpo dauden eragile hauek politika publikoetan eragiteko duten gaitasuna baldintzatzea, bestelako sektore sozial zabalagoi legokiekeen lekua emanez, ezinbesteko baldintza izango da.

Estatuak politika publikoaren menpe kokatu edota politika publikoaren gaineko eragina handitzen dituzten mekanismoen artean hauek nabarmenduko ditugu (Tilly, 2007a: 19; 2010a: 181-182):

- Klase zuzendariaren eta boteretik aldentuak dauden sektoreen arteko koalizioen sorrera.
- Aurretik autonomoak ziren bitartekarien desagitea edo kooptazioa.
- Konfiantza sare espezifikoko edota kategoria ezberdinen arteko artezkaritza.
- Gobernu kanpoko ugazaba-bezero sareen desagitea.
- Mobilizazio-errepresio-negoiazio zikloak, gobernuaren egonkortasuna kolokan jarritz.
- Estructura eta praktika homogeneoen ezarpena gobernuaren aginte eremu osoan.
- Aurretik autonomoak ziren indar militarren euste burokratikoak.

Prozesu nagusiak: parte hartze politikoaren zabalpena (1etik 5era doazen mekanismoak) eta berdintzea (2,3 eta 6.ena, nagusiki), kontrol kolektiboaren zabalpena (batez ere, 1,4,6 eta 7) eta botere arbitrarioaren inhibizioa (1 eta 5-7).

Herritarren ekimen bidez martxan jarritako parte hartzerako bide hauek, ordea, botere politikoaren zabalpenerako ez dira nahikoa izango. Izan ere, Estatuaren bideragarritasunerako inizatiba hauez

gain herritarrek ere pasiboagoak izan daitezkeen bideak barneratu beharko dituzte; hau da, Estatuak beraien eguneroko funtzionamendurako martxan jarriko dituzten neurriekiko onarpen maila bat adierazi beharko dute.

Esan nahi baita, Estatuak eusten dituzten “ohiko” bitartekoen hornikuntza gabe porrot egingo dute: dirua, ondasunak edota lan indarra. Garai batean ondasun hauen hornikuntza (lurraren edota animalien ustiapenaren fruituak, esaterako) autonomia maila nahiko handia mantentze zuten lurraldeko jauntxo edota agintarien bitartez bermatzen zen. Ondorenean, industrializazio prozesuarekin, hainbat kasuetan, Estatuak beraiek beharrezkoak zituen hainbat ondasunen sorkuntza eta hornikuntza monopolizatzerara jo izan du. Egun, ekoizpen eta hornikuntza bideak liberalizatzearekin batera, Estatuak zuzenean herritarrengana jo izan dute beharrezkoak dituzten bitartekoak eskuratzera (zerga bidezko diru bilketaren bitartez, nagusiki).

Hiru bide hauek ez dira era kronologiko sekuentzial batean garatu, noski; denboran zehar, Estatuak behar zituen bitartekoen hornikuntzarako bide egokiena zein izan den arakatu behar izan du, kasu gehienetan, hiruak nahastuz. Baina hiruetan Estatu demokratikoaren funtzionamendurako herritarren aldetik onespren maila bat beharrezkoa izan da.

Horrela, demokratizazio prozesuetan hiru atal ezberdinetan bildu daitezkeen zortzi prozesu ezberdin topatu ahal izango ditugu (Tilly, 2007a: 21):

Politika publikotik kategorien desberdintzea bereiztea

- Kategorien berdintzea.
- Kategorien arteko desberdintasuna areagotzen dituzten politiken leuntzea.

Konfiantza sareen integrazioa politika publikoan

- Baztertutako konfiantza sareen desegitea.
- Politikoki konektatutako konfiantza sareen sorkuntza.

Herritar eta gobernu eragileen arteko hartu-emanak aldarazten dituzten aldaketak

- Parte hartze politikoaren zabalpena.
- Parte hartze politikoaren berdintzea.
- Kontrol kolektiboaren indartzea.

- Botere arbitrarioaren inhibizioa.

6.6 Agenda berriaren mugak

Era eta jatorri ezberdinetako kritikak jaso ditu MTTren *liskarraldien dinamikak* mugimendu sozialen azterketarako ikuspegi berri gisa aurkeztu zenetik. Pamela Oliverrek (2003) iradoki bezala, ikerketa sozialen eremuan McAdam, Tarrow eta Tilly bezalako hiru erreferenteen arteko elkarlanaren emaitza ikusmira altuak sortu zituen: teoria estatiko batetik dinamiko batera igarotzearen beharra; teoria estrukturalista eta konstruktibista integrazteko saiakera; mekanismo eta prozesuetan jarritako arreta; ... Ez ziren nola nahiko helburuak *Dynamics of Contention* lanari egotzitakoak. Baina hainbaten ustez, emaitzak espero zitekeenetik urruti gelditu ziren; aspektu batzuetan behintzat. Hiru multzoetan kokatuko ditugu kritika lerro nagusiak: a) agenda klasikoarekiko urruntzeko saiakera, b) liskarraldien ikuspegi murrizta eta c) mekanismo eta prozesuaren kategorien kritika.

6.6.1 Agenda klasikoarekin urruntze saiakera.

Inori ez zaio oharkabeen pasako MTTk beraiek hainbestetan baliatutako agenda klasikoaren atal nagusiek agenda berria deitu dezakegunarekin erakutsitako antzekotasunak: mobilizazio egituretatik mobilizazio mekanismoetara; protestarako ekintza motetatik liskarraldien garapenari lotutako mekanismoetara; edota marko diskurtsiboetatik nortasunaren eraikuntzarako mekanismoetara emandako jauzia kasu. *Dynamics of Contention*-en (DOC) argitalpenarekin MTTk beraiek eredu zaharreko elementuei emandako dinamismoa behin baino gehiagotan azpimarratuko dute. Zentzu honetan, Dianiren ustez (2003: 111) ez dago ezer hiztegi kontzeptual berri baten elaborazioa eskatzen duenik, jada indarrean zeuden kategorien aplikazio dinamikoago batekin nahiko izango litzatekeelarik. Gainera, bere ustez, agenda klasikoa ez litzateke mugimendu sozialen azalpen hutsera bideratuta egongo; prozesu edo dinamika zehatzen azalpena, bitartekoen azalpena, protesta ekintzen maila edota mobilizazio prozesuen bilakaeraren azalpena ere egiten saiatuko litzateke, prozesu sozialen gaineko ikuspegi zabalagoa eskainiz.

Rutch harago joango da eta MTTri aurreko ereduak gutxietsi izana leporatuko die. Bere ustez, ez da egongo jendarte mugimenduen ikuspegi guztiak bilduko dituen eredu bakarra. Rutch arabera (2003: 113), eredu ezberdinak egongo dira; neurri batean elkar lehiatuko direnak eta hein batean elkar osatu dutenak. Eta hurbilpen hauek ez dira estatikoak izango; are gehiago, hauetako gehienek mugimendu sozial, estatu eta bestelako eragileen arteko alde anitzetako gatazketan jarriko dute beraien arreta. MTTren *ekintza liskartsuak*, kategoria berri oroharrapatzaile bezala, aurreko kategoriak baino baliagarriago zergatik den erakutsi beharko lukete.

Koopsmanek bere aldetik (2003), agenda klasiko honen mugekin bat egingo badu ere, MTTk proposatutako ereduak ez dituela gaintzen mahai gaineratuko du. Bere ustez, aipatutako eredu zaharra estatikoegia litzateke eta aktore bakarren jarreraren azalpenean gehiegizko arreta jarriko luke. Ondorioz, eredu honek elkar ekintza aztertuko ez luketen galdera estatikoak sortzera joko luke: zeintzuk dira garrantzitsuagoak, aldagai politiko-estrukturalak edo kulturalak? Aukera politikoak erabakigarriak dira edo ez? Zeri jarri arreta, mobilizaziorako bitartekoei ala marko sinbolikoei? Emaitza borobilik emango ez duen erantzun etsigarriekin topo egin dezakegu, planteatutako galdera ez direlako zuzenak. Koopsmanen arabera, sektore ezberdinetatik agenda klasikoari egindako kritikek liskar forma ezberdinen artean eraiki diren "muga artifizialak" (2003: 116) gaintitu eta harremanezko ikuspegi dinamikoagoa inplementatzeko bidea irekitzen dute. Baina kritika horiek gauza bat izango dira eta beste bat erabat ezberdina agenda hori gaintitu izana. Gaintitze eza hau ez da MTT saiatu ez delako edota aldaketa horren beharrik ez dagoelako; beraiak planteatzen duten alternatiba nahikoa indartsua ez delako baizik. Alde horretatik, liskarraldien dinamika zerbait izatekotan, paradigma berria baino klasikoaren bilakaera bezala ulertu beharko genuke.

6.6.2 Liskarraldien ikuspegi murrizta.

Dynamics of contention lanean liskarraldien arteko alderaketa bitarteko metodologiko gisa ezaguna egingo da, aurretik baliatu izan ziren prozesu luzeen (iraultzak, matxinadak, ...) alde bakarreko azterketak beharrean, esaterako. Taylorrek, aldiz, azterketa hauek nagusiki Mendebaldeko jendarte demokratikoetan zentratuta, hauekiko desoreka azpimarratuko du (2003: 123). Honi liskarraldien arreta gune nagusia Estatua izatea gehitu beharko diogu. Hau da, protesta prozesuaren hartzaile nagusia gobernu bat izatea, eta hainbat kasutan, eskaera nagusia Estatuak dituen botere bitartekoak

eskuratzearekin lotuta egotea. MTTren ikuspegiaren arabera, helburu hauetatik kanpo kokatuko liratekeen eragileak beraien ikerketa eremutik at geldituko lirateke, eta honekin batera, “kode kulturaletan” mugituko liratekeen hainbat aktore sozial ere: ingurugiroaren defentsan aritzen diren asko, animalien eskubideen alde edota genero berdintasunaren inguruko gehienak, kasu. Estatua liskarraldien arreta gune bezala kokatzeak era askeagoan antolatutako mugimenduek borrokatzen dituzten esplotazio forma kultural edo sozialak bide bazterrean utziko lituzke. Zentzu horretan, Taylorrek *estrategiak* gidatutako (*strategy-oriented*) eta *nortasunak* gidatutako (*identity-oriented*) mugimenduen artean bereiztearen beharra nabarmenduko du (2003: 124).

Gainera, beraien arreta Mendebaldeko jendarte zehatzetan lekutzeko desoreka horrek egun nazioartean hainbat liskarraldi politiko azaltzeko desgaituko luke. Batez ere, globalizazioaren eraginez areagotzen egongo liratekeen fenomenoez ariko ginateke; fundamentalismoen gorakadaz eta beraien bilakaera terroristez, globalizazioaren aurkako mugimenduaz edota Estatuaren mugetatik harago garatzen diren liskar etnikoek, esaterako.

Ikuspegi metodologiko batetik, Oliverren arabera, MTTren akats larriena liskarraldi prozesuetan arreta “problematikoa” edota *berezia* den horretara mugatzean egongo litzateke. Hau da, bere ustez mekanismo eta prozesuen ikerketan murgildu behar bagara hauek hainbat kasutan nola jokatzeko duten aztertu beharko da, ez soilik kasu zehatz batzuetan. Oliverrek liskarraldien azterketan testuinguratzeko historikoak hartzen duen gehiegizko pisua salatuko du. Zentzu horretan, ikerketarako estrategia *historizatzaileen* (*historicizing strategies*) eta estrategia *orokortzaileen* (*generalizing strategies*) artean ezberdinduko du. Lehenengoetan, gertaera zehatz baten bilakaera aztertu nahi badugu aldagai eta prozesu askoren elkar ekintza ikertu beharko ditugu. Bigarrenetan, aldiz, prozesu zehatz batek hainbat egoeretan nola garatzen den aztertu nahi badugu, konplexutasun historikoa alde batera utziko duen ikerketa-estrategia beharko dugu, arreta prozesuan bertan kokatuz. Bigarren honetan azalpenaren helburua prozesuak berak nola funtzionatzen duen aztertzea litzateke. Hortaz, estrategia orokortzaile batek ezin izango du gertaera historiko baten bilakaera osoa azaldu. Baina, MTTk erakutsitako joerari jarraituta, arreta nagusia gertaera historiko baten azalpenean kokatzen duen ikerketa-estrategia batek ezin izango du prozesuen gaineko ulermen orokorrik mahai gaineratu (2003: 121).

6.6.3 Mekanismo eta prozesuen kategorien kritika.

Mekanismo eta prozesuek ikerketa soziologikoaren ardatz gisa ulertuta ikuspegi ezberdinetatik kritikak jaso dituzte. Horietako sakonenetakoa, ustez MTTk hauei egotzi nahi dieten azalpen kausalaren funtzioa zalantzatan jarri nahi izatea. Rutchek dionez, hainbatetan MTTren azken helburua azalpen kausalak eman nahi izatea izango da. Beste hainbatetan, aldiz, asmo hauek apaltzera jo eta saiakera luze baten hasieran baino ez daudela adieraziko dute; argigarriak izan daitezkeen paralelismo partzialak eginez eta prozesu kausal errepikakorrak identifikatzen saiatuz (2003: 115). Bigarren ahalegin honek testuinguru ezberdinetan ematen diren mekanismo kate mota batzuen existentzia nabarmendu nahiko luke, baldintza zehatz guztiak azaldu nahiko litzuzkeen azalpen kausala planteatzea baino. Zentzu horretan, MTTren asmoa ez litzateke gertaera guztiaren azalpena barnebilduko lukeen lege unibertsalik aurkitzea. Rutchen arabera, hori horrela izanda ere, mekanismo zehatz eta prozesu zabalagoen arteko lotura kausal hau ahulegia litzateke. Azterketa eredu honen emaitza, mekanismo multzo berdinak ondorio ezberdinak izatea edota mekanismo mota ezberdinek itxuraz emaitza berdinak lortzea litzateke.

Koopmansek ere azalpen kasualaren ahuldade honi helduko dio baina beste ikuspegi batetik. Bere ustez, mekanismoek liskarraldien ezaugarri nagusiak azaltzen lagundu beharko ligukete, eta ez mekanismoak beraiek azaldu beharreko kategoriak izatea. Hainbat kasutan, aldiz, mekanismo hauek azalpen bat eskatzen dute eta MTTk beraien indarrak horretan kokatzen dituzte. Baina ez al genuke mekanismo horien garapena azaldu behar, horiek *mekanismo* bezala kategorizatu eta ondoren azalpen kausalaren maila eman beharrean, galdetzen dio Koopmansek bere buruari (2003: 117). Mekanismoen ondorioak berdinak edo antzekoak izan beharko lirateke erregimen, epealdi edota liskarraldi ezberdinetan baina autoreok ez dute mekanismo baten eragin berdina erakusten testuinguru ezberdinetan. Beraz, inguruabarreko aldagaiei erreparatuta, mekanismo hauek mobilizazio arrakastatsua zer baldintzetan ahalbideratuko duten argitu beharko litzateke. Bestelakoan, mekanismoak ikerketaren ardatz baino bera iluntzen duten narratibarako laguntzaileak baino ez lirateke.

Mekanismoen (eta prozesuen) mugatze edo zedarritze lana kritikaturako bigarren lerro nagusia litzateke. Honen arabera, zergatik batzuei mekanismoaren kategoria ematen zaien eta ez beste batzuei ez legoke ondo definitua. Oliver iritzi honetakoa izango da gorago aipaturako narratiba historizista salatzen duenean; hain zuzen ere, horrelako azalpen luzeetan ez dutelako argitzen

zergatik aukeratzen dituzten batzuk, beste hainbat bide bazterrean utzita. Ildo berdinari helduko dio, Taylorrek mekanismo horien aukeraketan irizpide enpirikorik ikusten ez duela esaterakoan (2003: 124). Mekanismo eta prozesuen arteko bereizketa egiteko orduan lausotasun berdina aipatu dezakegu. Izan ere, MTTk mekanismoak harremanak antzeko eran aldarazten dituzten gertaerak bezala definitzen dituzte eta prozesuak mekanismoen sekuentziak bezala; logika honetan sinpletik konplexura joango litzatekeen *continuum*-arekin topatuko gara, baina mekanismo edo prozesuen arteko muga erabat arbitrarioa izango da Oliverren iritziz.

Definizio falta honek bestelako arrisku batera garamatza: tautologiarena, hain zuzen ere. Izan ere, Koopmansek salatu bezala, hainbat kasutan mekanismoak ezin izango dira beraien efektuetatik bereizi. Honen adibidea MTTren erreferentziazko mekanismo batean aurkitu dezakegu; artekaritzan. Beraien definizioaren arabera, artekaritzak aurretik deskonektatuta edo lotura txikia zuten eremu sozialak konektatuko lituzke, elkar ekintza koordinatuari bide emanaz. Baina nola ondorioztatu artekaritza mekanismoaren aurrean gaudela bere emaitzengatik ez bada? Hau da, jada birlerrotze edota koalizio berriak emanak daudenean ez bada.

Eta azkenik, ahuldade teoriko honen azken emaitza mekanismo kopuru altua litzateke. Koopmansek berrogeita lau zenbatuko ditu; eta hori gutxi balitz, autoreek bide horretan sakontzen jarraitzeko egiten duten gonbitea salatuko du. Honek *ad hoc* egindako mekanismoen sentrazioa areagotzeaz gain, beraien sailkatze eta ordenatzea nabarmen zailtzen du; kasu batzuetan, batzuei eta besteetan besteei garrantzia zergatik ematen zaien argitu gabe.

6.6.4 MTTren erantzuna.

Egindako kritikei erantzuteko autoreok beraien ekarpenaren testuinguratzean arreta berezia jarriko dute. Horrela, McAdamek 90. hamarkadaren erdialdean *Dynamics on Contention*-en lanketari heldu ziotenean mugimendu sozialen ikerketan nagusi ziren bost desoreka aipatuko ditu (2001: 126-7):

- *Historikoa*: jendarte mugimenduen inguruko lan gehienek liskarraldi garaikideen ikerketari heltzen zioten.
- *Geografikoa*: ikertutako mugimenduak gehienbat EEBB eta Europa mendebaldean lekutuak zeuden.

- *Erregimen mota*: arestian aipatutako desoreka geografikoaren ondorioz, demokratikoak ez ziren sistema politikoen inguruko azterlanik apenas ez zen garatzen.
- *Mugimendu-zentrismoa*: mugimendu sozialen ikerketak mugimenduetan bertan gehiegizko arreta jartzen zuen, bestelako liskarraldi motei arreta txikia eskainiz (greba olatuetatik matxinadetara, demokratizazio edota nazionalismoetatik iraultzetara, ...); honek bestelako liskarraldi horien inguruko literatura deslotua sortuko du, ikuspegi integralik jorratu gabe.
- *Aktore isolatuak*: literatura honek, hainbat kasuetan, arreta analitikoak soilik lehiatutako instituzio edota autoritatearengan jarriko du.

McAdamek berak eta Tarrowek *DOC*en argitalpenetik hamar urtera, lan horren inguruan egindako sinposioan bertan (*DOC: ten years on, 2011*) honek mugimendu sozialen azterketan suposatutako aurrera pausuak nabarmenduko dituzte. Batetik, jendarte mugimenduen gaineko ikuspegia zabaltzen lagundu zuela esan daiteke; ez bakarrik iraultzak edota gerra zibilak ikertutako gaien barruan sartuz, liskarraldietan parte hartzen duten eragileen arteko harremanak zehaztuz ere. Ikuspegi geografikoa ere zabaltzen zuten, beraien jatorrizko herrialdeak ikerketa gaietan sartuz (EEBBz gain, Italia eta Frantzia ere), baina baita horren ezagunak ez zitzaizkien Hegoalde eta Ekialdeko herrialdeak ere. Beraien jatorri estrukturalista ezaguna bada ere, beraien ekarpen intelektuala eguneratu nahian, aipatutako lanean giro kulturalista eta agentziaren eragina nabarmentzeko saiakera ere aurkitu dezakegu. Eta azkenik, ikuspegi metodologiko batetik, bi kasuen arteko alderaketa sistemak, ordura arte nagusi zen kasu zehatzen ikerketa luzeen sistema iraultzeko saiakera bezala uler dezakegu.

Testuinguratzeko orokorretatik harago, autoreok ez diote kritika zehatzei ihes egingo; ezta gorago aipatutako hiru nagusiei ere. Agenda klasikoarekiko markatutako distantzietan dagokionez, McAdamek (2001: 129) beraien asmoa eredu honen alternatiba mahai gaineratzea ez zela nabarmenduko du. Bere ustez, bertute guztiak aintzat hartuta ere, agenda klasikoa ez da mugimendu sozialen edo liskarraldien inguruko teoria bat; nagusiki ekintza kolektiboaren sorreran inplikatuak dauden hainbat aldagaien zerrendatzea baizik. Baina aldagai hauek liskarraldiari nola lotzen zaizkion eta zer mekanismok lotzen duten argi gelditzen ez diren gaiak dira. Hori da MTTren ekarpena argitzen saiatzen dena. Hau da, beraien eredu liskarraldiaren sorreran baino, arreta garapenean jarriko duen eredu izango da. Zentzu horretan, *DOC*en ekarpena eredu zahar hori bazterrean uzteko ahalegin gisa beharrean, honen hurrengo urrats teoriko/enpiriko logiko bezala ulertu beharko litzateke.

Prozesu sozialen inguruko ikuspegi estuegia leporatuko diotenik ere ez da falta. Estutasun hau, gehienbat, liskarraldi prozesuaren alde nagusi batean Estatua/gobernua kokatzetik letorke. McAdamek berak mugimendu sozial eta instituzioen arteko lotura honen beharra azpimarratuko du. Izan ere, 90. hamarkadaren erdialdean nagusitzen ari zen mugimendu sozialen (isolatutako aktore gisa) gaineko gehiegizko arreta gainditzeko saiakera bezala ere ulertu behar dugu; gehiegizko orokorkeria saihesteko ahalegin gisa, bere hitzetan (2003: 128). Edozein kasutan, *DOC*en amaieran bertan autoreok liskarraldia soilik politikaren eremuari lotuta ez dagoen fenomeno bezala ulertuko dute, estatu-eragileak zertan barnebildu behar ez dituen, mugimendu erlijioso eta kulturaletara zabaldu daitekeena edota instituzionalizatutako boterea egonkortua dagoen kasuetan ere aplikatu daitekeena. Beraz, ate bat irekita utzi nahi izango dute mekanismoen erabilera bestelako esparruetara ere zabaldu ahal izateko.

Mekanismo eta prozesuen kategoriaren erabilgarritasunari dagokionez, hasieratik gauza bat argi utzi nahi izango dute: beraien ekarpena abiapuntu bat baino ez da. Beraien asmoaren zedarritze honetan Tarrowek (2003: 137) azpimarratuko du ez dituztela era linealean kausa-efektu zuzen bat azalduko lituzketen erantzunak bilatzen; mundu sozialean azaleratu gabe dauden eta errepikakorrak diren ezaugarri eta harremanak mahai gaineratu eta ze testuinguruetan aplikagarriak diren eta zeinetan ez ulertzen saiatzea baizik. Beste modu batera esanda, beraien interesa ez dago aldagaien arteko korrelazio zuzenean, aldagai hauek mekanismo kausalen artean nola lotzen diren argitzean baizik (McAdam&Tarrow, 2011: 4). Zentzu honetan, MTTren ekarpenaren balioa elkar-ekintza azpimarratzean egongo da; agenda zaharrean era estatikoan agertzen diren “laukitxoak” martxan jartzean, hain zuzen ere. Izan ere, mugimendua ez baita esturketetan sortuko, elkar ekintzan baizik. Eta honakoa izango da agenda klasikoak behar bezala hautematen jakingo ez duena.

Edozein kasutan, autoreok beraien ekarpenaren hainbat muga onartuko dituzte. Tarrowek (2003: 140) mekanismo kopuru altuak eragiten duen nahasmen kontzeptuala ukazina dela nabarmenduko du. Horrekin batera, kontakizun historikoak baino zerbait gehiago izan behar duten narrazio analitikoak sortzeko beharra ere aintzat hartuko du. McAdamek, bere aldetik, neurketarako bitarteko kuantitatiboen beharra azpimarratuko du, horiekiko erakutsitako axolagabekeria onartuz (2003: 133; 2011: 5). Hau da, askotan ikerketa kualitatiboak hipotesiak formulatzeko bide arakatzaille gisa hartuak izan arren, ondoren teknika kuantitatiboekin neurtuak izan behar dira. Aldi berean, analisi kuantitatiboa harreman enpirikoak azalarazteko baliatu daiteke, gerora sakonago aztertu daitezkeenak metodo kualitatiboak erabiliz.

Gabeziak gabezia, McAdamek eta Tarrowek (2011: 6) beraien ekarpenari esker emandako hainbat aurrerapen nabarmenduko dituzte. Horietako lehenengoa liskarraldi politikoen azterketetan ordura arte nagusi zen mugimendu sozialen gaineko gehiegizko zentralitatea bestelako eremuetara ere desplazatzea lortu zuten; jendarte mugimenduak, hauteskunde prozesuetatik hasi eta gerrate zibilekin ere konektatzera iritsi arte. Bigarrenik, eta mekanismoen zehaztapen eta neurketari jarritako arreta eskasa onartuta ere, hauek kalibratzeko oinarri bat jarriko dutela uste dute; bide honetan, harremanezko edota inguruabarrari lotutako mekanismoen "aurkikuntzak" eskola arrazionalistek ordura arte hauen inguruan izandako ikuspegi indibidualista gainditzeko eta mekanismoak beste modu batean sailkatzen hasteko balio izan zuela azpimarratuko dute. Eta hirugarrenik, beraien jatorrizko gehiegizko estrukturalismoa gainditzeko egindako ahaleginari balioa emanez, soziologian nabarmentzen hasitako kulturalismo berriarekin eta zientzia politikoetako konstruktibismoarekin zubiak eraikitzeke saiakera ere aipatu behar da.

6.7 Ondorio gisa hainbat argipen metodologiko

Emaitza gisa, MTT-k orain arte aipatutako eredu teorikoa laburbiltzeko balio duten hainbat hautu metodologiko planteatuko ditugu (2005: 343-348):

1) *Gertaera edo liskarraldien garrantzia dagokion mailan kokatu beharko da*. Honek bi adiera hartu ditzake: gertaeren *gutxietea* edo *nabarmentzea*. Lehenengoari dagokionez, gertaerak atzeraeraginezko ikuspegiarekin eraikitzen diren gertakariak direla aintzat hartu behar dugu; hau da, ez dute esentzia, berezko historia edota izaera determinaturik, eraikuntza subjektiboak dira, eta gainera arruntagoak izan daitezkeen bestelako gertaerekin elkar lotuak agertuko zaizkigu. Zentzu horretan, akats larria litzateke hauei dagokiena baino garrantzia handiagoa ematea. Baina beste alde batetik, gertaera edo liskarraldi hauek zedarritzen dituzten prozedura eta irizpideak zehaztu beharko ditugu beraien garrantzia azpimarratuz; hau da, bere hasiera, bukaera eta mugak definitzen dituzten aldagaiak zehaztu. Gertaerak neurtuak edo apurtzaileak diren bereizi beharko da eta horren arabera nola izendatuak izango diren zehaztu. Izan ere, hauei jartzen zaizkien etiketen eragina ez du soilik analisten ikuspegia baldintzatuko, prozesu hauetan parte hartzen duten eragileen edota bestelako aktoreen portaera ere.

2) *Gertaeren azalpenetik mekanismo eta prozesuen azalpena igaro behar da.* MTren asmoa ez da gertaera edo liskarraldien nondik norako guztiak azalduko lukeen eredu bat planteatzea, eta ondorioz, eredu horretatik kanpo gelditzen diren aldagaiak agertuz gero eredu moldatzea kasuistika zabalagoari aurre egiteko. Beraiek liskarraldi hauetan emango diren hainbat ezaugarriren edota gertaera ezberdinetan errepikatzen diren prozesuen azalpenari helduko diote. Beraien ikerketaren gakoa garrantzizko mekanismoen identifikazioa eta beraien arteko elkar ekintza eraldaketa prozesuetan aztertzea litzateke. Laburbilduz, gertaeren kontakizun hutsean erortzeko arriskua ekidin beharko dugu, kategoria kontzeptualak planteatuz.

3) *Mekanismo mota ezberdinak bereizi eta nola elkar lotzen diren argitu behar da.* Mekanismo kognitibo, harremanezko eta inguruabarrekoen arteko elkar eragina MTren agenda berriaren funtsezko ezaugarria dela azpimarratu dugu. Edozein kasutan, argi izan beharko dugu nekez ezberdindu ahal izango dugula ze kasutan prozesu sendo baten aurrean egongo garen eta zein kasutan mekanismo zehatz batzuen arteko artikulazio errepikakor baten aurrean aurkitzen garen. Hau da, hiru mekanismo mota hauen arteko uztardurak ez gaitu lege mekanikoen bilaketan itsutu behar.

4) *Eta azkenik, mekanismo hauen izaera kontingentea azpimarratuko dugu.* Arestian esandakoaren harira, hanka sartze nabarmena litzate pentsatzea kasu guztietan x aktoreak y -n eragindako z efektua sortuko duela. Zentzu horretan, gertaera batean jokoan den mekanismo batek, bestelako egoera batean ez du zertan emaitza berbera ekarri behar. Ez gara egoera guztietan errepikatuko diren giza zientzien lege fisikoez ari, bestelako aldagaiekin harremanetan dauden mekanismo aldakorrez baizik.

II. blokea:

**Hegemoniaren eta Politika
Liskartsuaren azterketarako
metodo bat:**

***Diskurtsoen Analisia eta
ekintza kolektiboaren
mekanismo eta prozesuak***

7. KAPITULUA: HEGEMONIAREN AZTERKETARAKO IKUSPEGI BAT: KONSTRUKTIBISMOA

7.1 Sarrera

Hegemonia jendartean nagusi den *sen onaren* eraikuntza bezala definitu dugu. *Sen on* honek jendarte batean “normaltzat” hartu daitekeena definituko du, hortik kanpoko sinismen edo usteak menpeko izango direlarik. Normaltasun hau eremu sozial zehatz bateko kideek uste horrekiko duten identifikazio mailaren arabera emango da. Uste berberaren inguruan identifikatzen diren kideak identitate bat osatzera joko dute, identifikazio horrek nortasunaren kanpo eta barne mugak definituko dituelarik. Identifikazio prozesu hau ideologia garaikide handiek planteatutako determinismoaren kontra emango da; berari zentzu aurre-definitu bat baino, adiera kultural edo eraiki bat emanaz.

Ekintza kolektiboaren azterketan ere, XX. mendearen bukaerara arte, mugimenduaren kanpo edota barne aldagai objektibatuek pisu nabarmena hartu zuten. Bitartekoen Mobilizaziorako Teoriak mugimenduaren *barne* bitartekoei jarritako arreta edota Aukera Politikoen Egiturak *kanpo* aldagaiei emandakoa honen erakusle lirateke. Batzuek zein besteek ekintza politikoaren joko zelaia baldintzatuko dute, noski, baina ekintza kolektiboaren dimentsio subjektibo edo interpretatzailea alde batera utziz (Snow, 1988; Melucci, 1988). Zentzu honetan, epistemologia konstruktibistak kanpo zein barne aldagai hauen *jabetzan* edo *hautematean* dimentsio kognitiboak eta diskurtsiboak duten garrantzia nabarmenduko du. Hau da, mugimenduak izango dituen bitarteko eta aukerak ez dira ekintza kolektiboa garatzeko funtsezko elementu bakarrak; mugimenduak bitarteko eta aukera hauetaz egiten duen interpretazioa gakoa izango da (McAdam, 1982).

Ikuspegi konstruktibista hau XXI. mende hasierako ekintza kolektiboaren ikerketa gehienetan nagusitzen joan da, identitateen eraikuntza prozesuetan ere islatuz. Esan dugun bezala, identitateak uste edo interpretazio komun baten inguruan eraikitako identifikazio prozesuak dira. Interpretazio

honek erreferentziazko kolektiboari mundua ulertzeko "betaurreko" batzuk eskainiko dizkio, ikuspegi komun hau nortasun kolektiboaren oinarria izango delarik.

Hegemoniaren izaera diskurtsiboarekin bat eginez, interpretazio edo mundu ikuskera hauen eraikuntzan diskurtsoak berebiziko papera jokatuko du; Laclaren (2004) ustez, *posizio diskurtsiboak* izango direlarik subjektuaren funtsa. Horrela, marko diskurtsiboak edo *frame*-ak "hor kanpoan den mundua" sinplifikatu eta laburbilduko duen marko interpretatzaileak izango dira (Snow&Benford, 1992: 137). Hegemoniaren eraikuntza aztertze baliatuko dugun ikuspegi konstruktibista inplementatzeko markoen azterketa edota *frame analysis* deritzon metodoari helduko diogu, ekintza kolektiboaren dimentsio eraikia nabarmentze aldera.

Baina atal teorikoan esan dugun bezala ekintza kolektiboan eta nortasun kolektiboan eraikuntzan "guztia ez da diskurtsoa izango". Diskurtsoaren Teoriaren adiera *thin* edo ahularekin bat eginez, prozesu hauetan parte hartzen duten bestelako aldagaiei ere erreparatuko diegu. Izan ere, diskurtsoak mobilizazio zehatzetan lekutu beharko dira, bertan parte hartzen duten bestelako aldagaiengatik ere baldintzatuak egongo direlarik (Steinberg, 2002; Tarrow, 1997; ...). Ikuspegi honek identitateen eraikuntzaren azterketan ere bere isla izango du. Izan ere, nortasun kolektiboak nekez trinkotu ahalko dira diskurtsoak aurretik indarrean zeuden elementuak aintzat hartzen ez baditu.

Diskurtsoaren baldintzapen hau bi eremuetatik etorri ahal izango da: batetik, aurreko diskurtsoek finkatutako mugengatik; eta bestetik, diskurtsotik haragoko bestelako elementu kulturelek ezarritakoengatik. Lehenengo muga hauen inguruan Steinberg-ek (1999) hitz egingo digu. Bere ustez, gertaera sozialaren esanahia ez da lanabesen kutxatik nahieran atera dezakegun beste gailu bat, komunikazio sozialaren prozesuan eraikia den zentzu komuna baizik. Steinberg-en arabera jendartea diskurtso dominatzaile edo hegemonikoek osatzen dute. Ekintzaileek diskurtso nagusi hauek aldarazten eta mundua beste modu batera irudikatzen saiatuko dira. Baina ekintzaileak beraiek diskurtso nagusi hauetan murgilduta daude eta beraiek ematen dituzten kategoriak eta ideiak baliatu beharko dituzte. Beste modu batera esanda, hasiera batean behintzat, diskurtso hegemonikoak eskaintzen duen joko zelaian lehiatu beharko dira, hegemonia edo sen on gramsciar berri bat eraiki nahi badute. Hortaz, ekintzaileek ezin izango dituzte kontzeptuak eta esanahiak nahiko luketen moduan erabili. Steinbergekin esanahiaren sormenaren ikuspegi harremanezkoa edo *dialogikoa* aldarrikatuko du; esanahiaren ekoizpena ekintza sozialaren gatazkaren parte bezala

irudikatuz. Hau da, diskurtsoak besteekin hitz egiten, eztabaidatzen, lehiatzen eta egokitzen azaleratuko dira, ulermen kolektibo berria sortuz.

Polleta-k (2004), berriz, bestelako mugapen kultural orokorragoez hitz egingo digu. Bere ustez, “kultura ez da bakarrik gure buruetan egongo”; hau da, egitura kulturalak ezin dira ekintzailearen nahimenaren arabera era automatiko batean aldaraziko. Polletaren arabera, egitura kulturalen izaera eraikiaz jabetu behar bagara ere, aurretik garatutako ohiturak eta praxiak bertan duten eragina aintzat hartu beharko dira; kultura bera, zerbait erlatiboki iraunkor eta aldagaitz bezala agertuz. Mugimenduak eskura izango duen ekintzarako errepertorioa horren adibidea izan daiteke. Mark Traugott-ek (2002), esaterako, Frantziar Iraultzatik hona barrikadaren erabilerak, hurrengo belaunaldien mobilizaziorako errepertorioa ezaugarritzeaz gain, protestarako kultura politikoa bera baldintzatu zuela azalduko digu. Noski, Tillyk eta Tarrowek (2006) azaldu bezala, ekintzaileek lehiarako elementu berriak inkorporatu ahal izango dituzte. Hortaz, egitura *zaharrek* zedarritutako mugen eta ekintzaileek inkorporatzen saiatuko diren kategoria *berrien* arteko gatazkan ebatziko da marko interpretatzaile berrien arrakasta edo aukera hegemonikoak.

Identitate politikoen sorreran eta garapenean ikuspegi diskurtsibista hutsak aurkituko dituen mugak nazionalismoaren kasuan agerikoak izango dira. Nazionalismoa ohiko nortasun kolektibo gisa hartua izan da. Nazionalismoaren inguruko ikerketa garaikideek honen adiera etnizista alde batera utzita, bere dimentsio eraikia eta prozesuala nabarmentzera jo dute (Pérez-Agote, 1989; Cabrera, 1992; Maíz, 2003, 2008; ...). Hau da, nazionalismoa, besteak beste, diskurtsoaren bitartez gauzatzen den mobilizazio prozesu bezala ulertzera. Baina jorratuko dugun ikuspegi metodologikoan bada kontutan hartu beharreko beste dimentsio bat; Anthony Smithen (1995) hitzetan nazioaren adiera *arkeologikoa* aintzat hartuko duena, hain zuzen ere. Izan ere, Smithen arabera, egun esku artean izango dugun nazioa, aurretik sedimentatutako nazioaren geruzetan oinarria hartuko baitu. Hau da, nazio garaikidea aurreko belaunaldiek nazioaz izan duten ulermena aintzat hartu gabe nekez garatu ahal izango da. Horregatik nazionalista, arkeologoa bezala, nazioaren antzinako adieren artean arakatu beharko du. Indusketa lan honetan, bere sustraiekin bir-aurkitzeak nazio garaikideari sendotasun eta duintasun berria emango dio, baina nazionalistak funtzio kulturalagoa bete beharko du, antzinako nazioa hau birinterpretatu eta birsortuz.

Laburbilduz, atal metodologiko honen lehenengo zatiari hiru eginkizun egotziko dizkiogu. Batetik, atal teorikoan landu dugun hegemoniaren izaera *eraikia* epistemologia konstruktibistarekin aztertu ahal izateko ikuspegia landu; hau da, atal teoriko eta metodologikoaren arteko lehenengo zubi lana

egitea. Bigarrenik, hegemoniaren funtsa nortasun kolektiboen arteko lehian kokatuko denez eta nortasun kolektiboen eraikuntza nagusiki diskurtso bidez gauzatuko diren identifikazio prozesuak direnez, diskurtsoaren azterketarako metodo bat planteatuko dugu *frame analysis*-aren eskutik⁹⁰. Eta azkenik, nazionalismoa, nortasun kolektibo gisa, bere dimentsio diskurtsibotik harago izango dituen baldintzapenak aipatuko ditugu; Diskurtsoaren Teoriaren *thin* adierarekin bat eginez, Smithen ikuspegi arkeologikoaren galbaetik pasaz.

7.2 Ikuspegi kulturalistaren nagusitzea

Epistemologia konstruktivistaren jatorria maila handi batean ekintza kolektiboaren azterketarako Agenda Klasikoak eta, nagusiki, Aukera Politikoen Egiturak (APE) suposatutako ahulgunean gainean eraikia izango dela esan dezakegu. APE, 60. hamarkadan zehar eskola estatubatuarrak nagusitutako *Resource Mobilization Theory*-k (RMT) *barne* aldagaiei emandako gehiegizko arretaren erantzuna izan zen, neurri handi batean. Erregimenen irekitasuna/itxikeria aktore berriekiko, eliteen arteko laguntasun/etsaitasun lerrotzeak, sistemaren baitako botere zentro autonomoen existentzia, erregimenaren errepresiorako joera eta inguruneari lotutako antzeko *kanpo* aldagaiak, mugimenduaren *barne* bitartekoei gailentzen hasi zitzaizkion. Baina ikerketa sozialen arretaren desplazamendu honek galdera berriak zabaldu zituen: aukera politikoen irekitasun/itxikeria honek eragile sozial guztiei berdin eragiten die? Zertarako eta zeinentzako dago irekia/itxia? Denboran zehar egitura hau berdin mantentzen da? Kanpo aldagai hauek aldebakarreko zentzuan ulertzen ohi ziren aldagai estatikoak bihurtu ziren ikerlari sozialen begietan; aurreko urteetan gertaera sozialen azterketetan estrukturalismoak izandako gehiegizko pisuaren seinale (Jaswin, 1999). Gainera, ekintzaile sozialak egituren txontxongilo soil gisa aurkezten zituen; hauek, beraien estrategia sortzaileekin, aukerak sortzen dituztela aintzat hartu gabe (Jasper, 1997). Beste modu batera esanda, Aukera Politikoen Egitura fenomeno sozialen ulermenerako marko kontzeptual bakar bezala estatikoegia suertatzen hasia zen.

Zentzu honetan, Aukera Politikoen Egituraren Teoria Bitartekoen Mobilizaziorako Teoriak *barne* aldagaiei emandako gehiegizko arretaren erreakzio bezala sortu zela esan badezakegu, izaera kulturalerako konstruktibismoa, neurri handi batean, APEk egiturazko *kanpo* aldagaiei emandako

⁹⁰ Argitu dezagun, bigarren atal honetan metodoaren gaineko lehenengo hurbilpen bat egingo dugula, diseinu metodologikoaren hirugarren atalean metodologia zehatz bat azalduko dugularik.

larregizko pisuaren erreakzio gisa ere aurkeztu dezakegu. Konstruktibismoak prozesu sozialen izaera eraikia azpimarratuko du. XX. mendearen hasieran Jokamolde Kolektiboaren edota *Collective Behaviour*-ren baitako pentsalari nagusiek jada “arazo sozialen” izaera eraikiaz (Blumer (1951) edota “sinismen orokortuek” jendartearen erantzunean zuten eraginaz hitz egiten ziguten. Baina gerora estrukturalismoa ikuspegi hau bigarren maila batean uzten joango da. Horrela, egitura politikoak edota gobernu sistemen botere konfigurazioetan ematen diren aldaketek hainbat aukera eskaini ahal izango dizkiete mugimendu sozialei; baina ekintza kolektiborako aukera nagusiak ekintzaileak beraien egoeraz duten pertzepzioaren arabera irekiko zaizkie (Kurzman, 2004).

Konstruktibismoak ordura arteko ikerketa sozialek pertzepzio hauetan arrazoimenari emandako gehiegizko pisua salatuko du. Ikuspegi arrazionalista honen arabera, pertzepzio edo interpretazio hauen eraikuntzan, ekintzaileek gainontzeko sektoreak bere nahimenera manipulatzeko ideiak eta marko sinbolikoak era estrategiko batean aukeratuko lituzkete (Steinberg, 1999). Ikuspegi hau, ekintza kolektiboa "goitik" era boluntarista batean gidatutako prozesua bezala ulertzeaz gain, interpretazio kultural ezberdinen arteko harremana eta elkar-ekintza bigarren maila batean utziko ditu. Gainera, gehiegizko arrazionalismo honek emozioek jokatuko duten papera ere alboratuko du. Sentipenenak baldintzatutako arauak helaraziko ditu; hau da, zer da egokia eta zer ez; zer moralki arbuigarria eta zer goresgarria; edota norbanakoak egoera baten aurrean nola sentiarazi beharko lirakeen. Emozioak, aldiz, giza-talde ezberdinen ekintza norabidetuko duen kultura politiko baten parte izango dira. Hortaz, emozioak mobilizazioaren eta mugimendu sozialen arrakasta azaltzen lagundu dezake.

Zentzu honetan, egun boterean ematen diren aldaketak edota egitura politikoak ez ditugu ekintza kolektiboaren azterketarako erreferente bakartzat hartuko (Edwards, 2014). Hortaz, McAdamek (1982) azaldu bezala, ez da aukera politikoen existentzia axola duena, "egoera" hori aldaketarako zirrikitu bezala identifikatzeko ikuspegi berria baizik. Horrela, mobilizazioa gauzatu ahal izateko, ekintzaileek gertaeren esanahia ekintza kolektiboa beharrezkoa eta zuzena dela sinetsi-arazteko moduan eraiki beharko dute. Puntu honetan ematen hasiko da estrukturalismotik konstruktibismorako aldaketa. Honekin ez ditugu bata eta bestea konpartimentu isolatu bezala aurkeztu nahi izango; are gutxiago, bigarren epistemologia honetako hainbat ikerlari lehenengotik datozenean (McAdam, Tarrow eta Tilly, kasu). Aurreko garaian *objektibizatutako* aldagaien izaera subjektiboa edo eraikia azpimarratu baizik.

Mundu sinbolikoaren eraikuntza honetan berebiziko pisua hartu du diskurtsoaren markoak edo *frame*-ak. Diskurtsogintzaren analisisian maisu diren Snow eta Benford-ek *frame*-a horrela definituko dute:

“an interpretative schemata that simplifies and condenses the ‘world out there’ by selectively punctuating and encoding objects, situations, events, experiences, and sequences of action within one’s present or past environment” (Snow&Benford, 1992: 137).

Hortaz, diskurtsoak ezin izango ditugu objektu sozialen egiazko deskripzioak bezala ulertu; marko interpretatzaileak izango dira; hautatzen diren gaien, beraien artikulazio eta karga emozionalen eta ordenu sozialaz egiten duten interpretazioarekin “errealitate politikoa” eraikitzen datozenak (Errejón, 2012: 243). Hegemoniaren atalean azaldu bezala honek ez du errealitate guztia diskurtsoan urtu behar; baina hauek zentzu politikoa diskurtsoaren bitartez hartuko dutela ezin uka.

Errealitatearen interpretazio konpartitu hauek norbanakoen arteko identifikazio komunaren oinarria osatuko dute; errealitatearen ulermen bateratuak nortasun kolektiboaren eraikuntzarako ezinbesteko osagaia bihurtuko direlarik. Ordura arte ideologia handiek identitate indibidual eta kolektiboen konfigurazioan kanpo aldagai objektiboek (klase soziala, nazio edo etnia, ...) izan zuten eragin erabakigarria nabarmendu bazuten ere, konstruktibismoak hauen izaera eraikia eta performatiboa nabarmenduko du. Horrela nortasunak, giza talde batek hainbat egoerez egiten duen interpretazioa tarteko, sortzen duen partaidetza komuna litzateke. Interpretazio hauek, ordea, ez dituzte isolatutako eragileek hutsetik egingo. Interpretazio hauek mobilizazio politikoan sortuko dira; baita beraien bitartekaritzaren ondorioz sortuko diren nortasunak ere (Melucci, 1996; McAdam, Tarrow eta Tilly, 2005; Diani&Della Porta, 2011). Errealitatearen ulermenerako marko kontzeptual hauek bi norabidetako baldintzapenak eragin eta jasango dute: batetik, giza talde batek egiten duen interpretazioa gainontzeko talde ezberdinen pertzepzioak baldintzatu nahi izango ditu, hauek bere ulermenera erakarritik; baina bestetik, interpretazio hauek ere beste taldeek egiten dituzten eragina ere jasango dituzte. Prozesu honetan nortasun batzuk eta besteak bereiziko dira. Horrela, diskurtsoaren bitartez eskema interpretatzaile komunak sortuko dira, horiekiko leialtasunak definituz eta bestelako eskemak kanpoan utziz identitate politikoak sortuko direlarik. Edota, post-estrukturalismoaren atalean Lacanen irakaspenei jarraituz baliatu dugun hizkerari helduta, *identifikazio prozesuak*. Hau da, harremanezkoak, kontingenteak eta gatazkatsuak diren identifikazio politikoak. Baina sakondu dezagun pixka bat gehiago nortasun kolektiboen kategoria honetan.

7.3 Identifikazio kolektiboak prozesu kultural gisa

Abiapuntu bezala esan dezagun identifikazio kolektiboa besteekin konpartitzen den *zerbait* dela; *zerbait* hori konpartitzen dutenen bizitzengan eragin maila bat duelarik. Definizio orokor hau zorrozten hasita, identifikazio kolektiboa errealitatea beste batzuekin definitzeko era komuna dela ere zehaztu dezakegu. Era kolektiboan erabakitzen dugu batzen gaituen *zerbait* garrantzitsua dela; gure bizitzaren parte den *zerbait*. Era berean, konpartitzen dugun *hori* errealitatea interpretatzeko erreferente bat dela erabakitzen dugu. Munduari iragazki komun batetik so egiten diogularik. Hortaz, nortasun kolektiboak zentzua ematen digu; sinisten dugunari eta egiten dugunari.

Ibarraren (2005) arabera, nortasun kolektiboa hiru aldagaien arabera izango da: konpartitzen dugun horri ematen diogun garrantzia, *komun* bezala definitzen dugunaren ezaugarriak eta errealitatea begiratzeko filtro horren izaera. Mota ezberdinetako nortasunak egongo dira. Batzuk biziak izango dira eta beraietatik kanpo ezin izango dugu ezer ulertu. Beste batzuk *arinagoak* izango dira eta beste nortasun batzuekin elkar bizitza ahalbideratuko digute.

Nortasun kolektibo horien barruan, taldeko besteak ezagutzen ditugu eta zer konpartitzen dugun ezagutzen dugu. Nortasun kolektiboak elkar ezagutzarako forma bat dira, beraz. Besteak antzematen ditugu konpartitzen dugun horretan bat egiten dugulako; eta aldi berean, besteak ezagutzen gaituzte beraietako bat bezala antzematen gaituztelako. Hartu eman horretan nortasun indibidualak (*ni-a*) eta nortasun kolektiboak (*gu-a*) definituko dira. Nortasun kolektiboek aukera partikularra dena naturaltzat hartzera joko dute. Kideek hasiera batean aukera partikularra dena konpartitzen dutela sinistera joko dute; *zerbait* naturala dela eta ez *zerbait* kontingentea (Ibarra, 2005: 40-41). Hortaz, nortasun kolektiboen eraikuntzan nortasun indibidualek jokatzen duten paperaz ere hitz egin beharko dugu.

Melucciren (1996) ustez, jendarte post-industrial honetan *kode kultural dominatzaileek* norbanakoen nortasunak, gorputzak, beharrak edota desirak eraikitzeke esanahiak eta ulermenak sortuko dituzte. Prozesu horretan esanahi kulturek berebiziko papera jokatuko dute, norbanakoen usteak, emozioak eta sententzioak norabidetuko dituzten “forma sinbolikoen operazio gorena” gauzatuz (Melucci, 1996: 180). Hau da, bizitza jendarte post-industrialean berdina izatera

eramaten gaitu. Balio berdinak, desira berdinak eta behar berdinak izatera. Horrela, diferentziaren edota norberaren adiera autonomoa erronka nagusietako bilakatzen da. Hortaz, identitate pertsonalen jo mugetako bat beraien buruarentzat zer izan nahi duten erabakitzeke, *benetan* askeak izango diren norbanakoak eraikitzea izango da (Edwards, 2014: 139). Zentzu horretan, identitate pertsonala (hau da, norbanako bezala aitortua izateko aukera) egun aldarrikatua eta defendatua den ezaugarri nagusienetakoa litzateke.

Era berean, identitate pertsonal hauek bestelako identitateekin lehia egongo diren nortasun kolektiboen eraikuntzari ekarpena egingo diete; hau da, *ni* hauek *gu*-aren eraikuntzarako oinarri izango dira. *Gu*-aren eraikuntza prozesu horretan *ni*-ek gauzatzen dituzten ekintzen helburuei, esanahiei eta inguruabarrekin duten harremanei esanahi komunak eman beharko dizkiete (Melucci, 1988: 332-333). Baina *gu*-aren edo nortasun kolektiboaren eraikuntza prozesu hau ez bide zuzena izango. Arestian aipatutako hiru aldagai hauek (helburuak, esanahiak eta inguruabarra) elkarren arteko tentsio egoeran dauden aldagaiak lirateke. Ekintzaren bitartez aktore kolektiboek etengabeko tentsioan egongo den sistema honi onargarria eta iraunkorra izango den batasuna ematen saiatuko dira.

Ildo honetan, Meluccirentzat nortasun kolektiboa ekintza kolektiborako beharrezkoa den aukera eta mehatxuen joko-zelaiaren definizio *saretua* litzateke; *saretua* aktoreak elkar-lotzen dituzten harreman sozialen aktibazio prozesu eraiki eta negoziatu bezala ulertuta (1985: 793). Hortaz, ikuspegi konstruktibistarekin bat eginez, nortasun kolektiboak ez dira aurre-emanak izango, norbanakoen arteko harremanen bidez sortuak, negoziatuak eta birproduzituak baizik. Prozesu horretan funtsezko hiru aldagaik parte hartuko dute: a) helburuak, esanahiak eta ekintzarako eremuak definituko dituen marko kognitiboak; b) aktoreen arteko arteko harremanak aktibatzea, zeintzuk elkarrekin aritu, komunikatu, besteengan eragin, negoziatu eta erabakiak hartu beharko dituztelarik; eta c) inbertsio emozionalak eraikitzea, norbanakoak beraien burua antzemateko gai egingo dituztenak (Melucci, 1988: 343).

Klandermans-ek ere sinismen komunen eraikuntzan *sare sozialek* jokatuak duten papera ere nabarmenduko du. Bere ustez, norbanakoen iritzi aldaketa nekez izango da banan-banakako prozesua; norbanako horrek bere erreferentziazko taldean eragin nabarmena ez badu behintzat (1992: 99). Sare bidez lotutako gizabanakoen taldeak mugimenduak finkatutako norabidean mugituko dira; norbanakoek mugimendu horietatik kanpo gelditzeko aukera izango badu ere (Klandermans, 1988: 193).

Hortaz, baliatu nahi dugun ikuspegi metodologikoaren arabera nortasun kolektiboen eraikuntza mobilizazio prozesuari estuki lotuta egongo da; hortik, hurrengo atalean ekintza kolektiboaren azterketarako mekanismo eta prozesuen operazionalizazioari emango diogun garrantzia. Baina askotan mugimendu sozialaren aktibitatea eta bere nortasunaren eraikuntza agerikoa den ikusmiratik harago emango da. Nortasun kolektiboen eraikuntza “eguneroko bizitzan (ere) murgilduta” egongo da. Horrela, mugimendu sozialek beraien ohiko ageriko agerpena beraien lehiakideekin borrokatuz egiten badituzte ere, nortasunaren eraikuntzaren prozesuak *atzealdean (background)* ere emango dira (Melucci, 1980). Hainbat ikerlariengatik ikuspegi hau sarritan ahaztua izango da, arreta protesta publikoaren eremuan kokatuz. Alabaina, nortasun kolektiboaren eraikuntzarako funtsezkoak diren egoeraren definizio konpartituak eraikitzen dituzten elkar-ekintza informalak, ekintza kolektibo publikoaren azpian ere agertuko zaizkigu.

Idea honek 80. hamarkadara arteko ikerketetan horren errotuak zeuden ikuspegi estrukturalistek dimentsio politikoari (dimentsio kulturalaren kaltetan) ematen zioten gehiegizko pisuaren aurrean ekarpen berritua suposatu zuten. Beste modu batera esanda, nortasun politikoak eraikitzeke prozesuak ekintza politikoaren erdigunean kokatu nahi izango dira (Edwards, 2014: 142). Honek prozesu politikoak ikustarazteko ikuspegi berriak zabalduko ditu, non nortasun politikoak ez diren kolektibo baten helburuen arabera definituko, prozesuak berak definituko ditu nortasun kolektiboak. Horregatik, mugimendu sozial berriak “orainaldiko profeten” funtzioa betetzea (Melucci, 1996).

7.4 Nazionalismoa eta nortasun kolektiboak

Nazionalismoa nortasun kolektibo mota bat bezala ulertua izan da. Calhou-k (1997) dioen bezala, nazioaren ideiak, nortasun indibidual eta kolektiboak ezartzeko modu modernoetan horren errotua dagoena, jendea munduan kokatzen laguntzen du; nazioek herriak emozionalki mugitzen ditu mundu zabal eta konplexuan kokapen zentzu bat ematen dietelako. Zentzu horretan, nazionalismoa “zentzu iturri” bat izango da, pertsona multzo zabalaren arteko konpromisoen eragilea (Calhou, 1997: 126). Nazionalismoak aitortzarako aukera eta eskaintza bat emango du, kasu gehienetan bestelako proposamen komunitarioek baino arrakasta handiago izatea lortu duena. Zentzu horretan, nortasun nazionala irudipenezko komunitatetik gehiago du, komunitate errealetik baino; baina honek ez du esan nahi eraginkorra izango ez denik. Jendea besteekiko gertu sentiarazten duen heinean eta

besteekiko elkartasunezko jarrerak aktibatzen dituen heinean, kohesio soziala bultzatu eta mundua interpretatzeko marko kultural bat eskainiko du.

Baina Ibarak (2005) ohartarazi bezala nazionalismoa eta nortasun kolektibo nazionala ez da gauza berbera izango. Bigarrena era natural eta ordenatu batean bizi ahal izango da; bestelako gatazkarik gabe barneratzen den zerbait bezala. Nazionalismoak, aldiz, ekintza bultzatzen du. Nortasun nazional bateko kide sentitzen direnak, bera “pasio” maila batekin biziko dute. Bertako kideen betetasuna beraien nazioak osotasun kultural eta politikoa lortzen duen heinean emango dela ulertzen dutelako; beraien nortasun nazionalaren ezaugarriak biltzen dituen nazioa, hain zuzen ere (Ibarra, 2005: 58).

Esan dugun bezala, ez da gure asmoa nazionalismoaren inguruko azterketa sakon bat egitea. Asmo horrek ikerketa honen helburuak luze gainditzen ditu. Marko teorikoan eta enpirikoan azaltzen ari garen bezala gure ikerketan jorratuko dugun ikuspegia konstruktibista izango da; izaera eraiki hori diskurtsoaren bitartez eta mobilizazioan gauzatzen dela nabarmenduz. Baina gure eskema teorikoak aurkitu ditzakeen ahulguneen artean “guztia ez dela diskurtsoa” jada detektatu dugu; gainera, mobilizazioak eta agentziak ere egiturazko hainbat baldintzapenekin topo egingo dutela aipatu dugu. Esan nahi baita, eragileek ekintza kolektibora jotzerakoan inguruabarrari, kulturari, egiturei eta bestelakoei lotutako hainbat aldagai aintzat hartu beharko dituztela mobilizazio arrakastaz burutu nahi badute. Hortaz, atal metodologiko honetan nazioaz eta nazionalismoaz baliatuko dugun adiera konstruktibista *leundu* eta gure ikerketa esparruari egokitu nahiko dugu. Horretarako, 1995an Anthony Smith-ek idatzitako “Gastronomy or geology? The role of the nationalism in reconstruction of nations” artikulua haria jarraituko dugu.

7.4.1 Nazioa, gailu kultural bezala.

Deutsch, Gellner edota Tilly bezalako modernistentzat nazioa kategoria modernoa izango da, XVIII. mendearen bukaeran Europa mendebaldean eta EEBBetan agertzen dena nazionalismoaren ideologiarekin batera. Nazio modernoa nazionalisten ikusmoldeen emaitza izango da, baina nazionalismoa bera modernitatearen beharrek sortutako indarra izango da. Kapitalismoak, industrializazioak edota burokratizazioak behar hauek sortuko dituzte. Jendarte bakoitzak

bideragarria izango den komunitatea sortu beharko du eta ez zegoen lekuan "nazioa eratu"; nazioa garapen ekonomiko eta sozialarentzat bideragarria den marko bakarra litzatekeen neurrian.

Honakoa ikuspegi baikor eta ekintzailea litzateke. Nazioa balore eta asmo komunak konpartitzen dituzten parte hartzaile komunitate bezala ulertzen du, hazkunde ekonomiko eta emantzipazio politikoko aro batekin uztargarria dena. Baina Smithentzat nazionalismoa indar "nazkagarria" ere izan daiteke; nazioa "komunitate engainatzailea" izan daiteke, bere burua "Estatua eta jendartearen arteko alienazioaren gaixotasunaren sendabide" gisa era iruzurti batean saltzen duena. Baina askoren ustez egun antolaketa eta komunitate politiko unitate bideragarri bakarria litzateke. Hortaz, modernistentzat nazioa sozialki eta politikoki determinatua egongo da. Bere zutabeak Frantziar Iraultzan jatorria duten modernizazio politiko, ekonomiko eta sozialetan murgiltzen direlarik.

Smithen ustez, alabaina, ikuspegi determinista hau ez da nazioaren izaera eraikiarekin borrokatua egongo. Ernest Renan-ek⁹¹ XIX. mendearen bigarren erdialdean nazioak "asmakizuntzat" hartzea uste honen antzinatasunaren erakusle izango da. Ikuspegi honen arabera nazioak ingeniarietza sozialaren emaitza lirateke. Handik eta hemendik hartutako osagai ezberdinekin (historia, sinboloak, hizkuntza, mitoak, ...) osatutako produktua. Hainbat kasutan, jatorri ezberdinetako osagaiak izango dira aukeratutakoak; batez ere jendarte modernoetan gertatzen den bezala Estatuaren mugen barruan hainbat komunitate etniko barnebiltzen direnean. Horrela Smithen nazionalismoaren *ikuspegi gastronomikoa* nabarmenduko du; nazionalista nazioa sukaldatzeko eremu ezberdinetatik hartutako osagai ezberdinak nahasten dituen artisaua bezala aurkeztuz.

⁹¹ Joxe Azurmendi (2014) Renanek nazionalismoaren karakterizazioarekin hainbat autorek egindako erabilerarekin kritiko azalduko zaigu. Izan ere, Renanek frantses nazionalismoaz egindako ezaugarritzea nazionalismoa bera bi kategoria erabat ezberdinetan bereizteko abiapuntua jarri baitzien: batetik, nazionalismo frantsesa, XVIII. mendeko Iraultzatik jaioa, ilustratua, arrazionala, norbanakoen borondatean oinarritutako; eta bestetik, nazionalismo alemana, herrialde germaniarren XIX. mendeko bateratze prozesuan jaioa, erromantikoa, irrazionala, arrazan oinarritutakoa. Nazionalismoaren banaketa honek nazionalismo batzuk estigmatizatu eta beste batzuk goresteke baino ez du balio izan: "Hainbeste mailukatu digute buruan, azkenean denok etortzen gara, ulertzeraz ez, baina bai aitortzeraz dogma hori, eta denok jausten gara topikoan. Landara irten ikerketan, eta hanka eta esku biak burdinazko bola bati katez lotuta abiatzea bezala da: a priori eta nahitaez, gure (ikerketako) nazionalismoak alde bietako batean erori beharra daukala. Handik hara, "gure" nazionalismoa -hala ere!- ez dela arrazista frogatzen saiatu beharko dugu; ez dela erromantikoa" (Azurmendi, 2014: 39). Are gehiago, Azurmendik Renanen nazionalismoaren kategorizazioak Frantziar batasuna justifikatzea baino ez zuela helburu aipatuko digu: "Konklusioa da Renan konferentzia famatuko *-Zer da nazioa?* (1882)- kontzeptu bereizketa, jirabuelta, eta argumentazio guztiak itxuraz errigoritsuak, xede simple bakarraren zerbitzuarena beste zentzurik ez dutela: Frantziaren batasun haustezinaren defentsa patriotiko itsua, erretorika sasiakademiko distiratsuren azpian kuku" (Azurmendi, 2014: 33). Honen aurrean, Herderren pentsamenduari jarraiki, "herrien aiurria" ("génie du peuple"), "nazioen izpiritua" ("esprit de la nation") edota "herri gogoaren" ("volksgeist") kategoriak landuko ditu nazioen pentsamendu kolektiboa zeharkatzen duen kategoria gisa (*Volksgeist, herri gogo: Ilustraziotik nazismora*, 2007).

Nazioaren izaera eraiki horretan bada azken garaiotan nabarmendu den elementua: komunitate nazionalaren alegiazko izaera eta bere mito fundatzaileen fikziozko dimentsioa. Nazioaren eraikuntzan mito hauek hainbat kasutan arrakastatsuak suertatuko dira; XIX. eta XX. mendeko Frantziako III. Errepublikaren kasuan bezala. Beste hainbatetan porrot egingo dute; komunitate etniko ezberdinak bildu nahiko lituzketen Afrikako edo Asiako hainbat Estatuetan bezala. Lehenengoen arrakasta nazio bateko kideek bere nazioaren irudimenezko izaeraren eta bere errepresentazio eraikien kontzientzia ez dutenean emango da. Porrot egin izan duten bigarrenen atzean nazioaren benetako izaera agerian utzi eta nazionalismoaren botere lehia azalarazteko nahia legoke sarritan. Azken honen atzean, funtsean, nazioaren batasuna zalantzetan jarri eta nazionalismoaren irudi eta fikzioen indarra desegin nahiko duen joera postmodernoa aurkitu dezakegu. Ikuspegi konstruktibistekin bat eginez, nazioa interpretatu beharreko diskurtsoa eta deseraiki beharreko testua izango da. Nazioaren esanahiak islatzen dituen irudien bitartez, baliatzen dituen sinboloen bidez eta iradokitzen dituen fikzioen bidez ulertzen ditugu. Bigarren ikuspegi honen defendatzaileentzat nazioa oihalki ezberdinak bildu dituen errepresentazio sinboliko kolektiboen *gailu kulturala* litzateke.

Smithek nazioa eta nazionalismoaren gainean modernismotik posmodernismora egiten den jauzia bi urratsen laburbilduko ditu: batetik, analisiaren zentroa egituratik kulturara desplazatuko litzateke; eta bestetik, determinaziotik eraikuntza eta errepresentaziora. Horrela, fenomeno sozial eta politikoen gainean estrukturek eragiten dituzten baldintzapenak bigarren maila batean geldituko lirateke eta hauen ezagutzarako beraien errepresentazio kulturei mozerroa kendu baino ez litzateke egin behar. Smithek joera honek modernisten ikuspegiari "baikortasuna" eta "aktibismoa" lapurtzen diela salatzeaz gain, zorroztasun historiko eta soziologiko falta ere leporatuko die.

Baina bai modernistek zein bere ondorengoek gabezia berdina erakutsiko dute nazioa eta nazionalismoaren fenomenoaz azaltzerako orduan: determinazio sozialari emandako gehiegizko garrantzia. Aipatu dugu modernistentzat nazioa azken bizpahiru mendeetan eman den modernitatearen iraultzaren ondorioa izan dela. Zentzu horretan, posmodernistekin bat egingo dute nazioen artifizialtasuna azpimarratzerakoan; nazionalismoek asmatu eta irudikatu zituzten nazioak aldarrikatzeko orduan. Baina Smithen ustez ez bata ez besteak ez dute prozesu hauek oinarri izango dituzte baldintzak nola garatzen diren antzemango; hau da, baldintza hauek ez dira zerotik abiatzen den jendarte baten gainean emango, etengabeko garapenean dauden multzo sozialen gainean baizik.

7.4.2 Nazioa gordailu historiko bezala.

Puntu honetan Smithek nazioaren ideia berria mahai gaineratuko du, denbora gordailu bezala irudikatuz. Honen arabera, nazioaren egoera garaikidea aurretik bizitako esperientzien metaketa bezala ulertu beharko litzateke. Nazioa estratifikatutako egitura litzateke; identifikagarria den komunitate bateko belaunaldi ezberdinen bizipen sozial, politiko eta kulturalak metatzen dituen. *Ikuspegi geologiko* honen arabera, iragan etnikoak orainaldi nazionala azalduko luke. Ikusmolde hau maila batean egun horren modan jarri diren ikuspegi antropologikoekin kontrajarria legoke; orainaldiak (kezka, interes eta behar garaikideak, nolabait esateko) iraganaldi etnikoa atzeraeraginezko ikuspegiarekin osatzen duela esaten duena esaterako (Taylor, 2006).

Teoria geologiko honen arabera, garapen modernoa ezin da zaharragoak diren formazio sozialen nondik norakoak ezagutu gabe osatu. Teoria honen ustez, komunitateak etapaka eraikiko dira, geruza bakoitza aurrekoaren gainean pausatuz. Geruza etniko berriak bere ezaugarri bereziak izango ditu, baina ezin izango da aurrekoaren gaineko ezagutzarik gabe ulertu. Era berean, gordailu edo geruza berrienak zaharrendik modelatuak izango dira; behintzat bere ezaugarri nagusiei dagokienez. Horrela, geruza zaharrenek berrienei mugak jarriko dizkietenez, gure arbasoen esperientziek gure esperientziak mugatu eta baldintzatuko lituzkete. Beraz, ikuspegi geologikoaren arabera, nazio modernoa komunitate baten belaunaldi zaharrenek gordailuen emaitza litzateke.

Teoria hau muturrera eramanez nazioa aurreko geruzen emaitza ez ezik, bere sintesia bihurtuko litzateke. Nazio garaikidea nazio biologiko sekularraren forma garaikidea baino ez litzateke. Ikuspegi honen arabera nazioak betidanik existitu dira eta nazioek, familiekin batera, ezaugarrituko lituzkete gizakiaren berezutasuna. Gaur egungo azterketa sozialetan ikuspegi hau nahikoa alboratua izan bada ere, Smithek nazioaren ikuspegi esentzialista honen gainean geruza berri bat botaz teoria berbera zahar-berritzeko ahaleginaz ohartaraziko digu.

Ramón Maízek ere antzeko abisuari helduko dio nazioen izaera eraikiaren gaineko ustezko kontsensuaren atzean, ikerketa gehienak "muturreko epistemologia errealista" batengatik norabidetuak daudela nabarmenduz (Maíz, 2007: 9). Ikuspegi honek nazioak *gauza* bihurtutako izateak bezala irudikatuko ditu; barrura begira homogeneousak eta kanpora begira ezberdinak. Ikuspegi hau hainbat kasutan argi adierazten ez den premisa baten gainean eraikia izango da:

nazionalismoa objektiboak liratekeen hainbat ezaugarriren bidez (hizkuntza, kultura, historia, ...) gauzatutako "etnizitate" espezifikoa litzatekeela. Honen arabera, nazioak aurre-determinatutako oinarri objektiboa izango luke, nortasun kolektibo honen izaera eraikia erlatibizatuko lukeena. Maízek *nazionalismo espresibo* eta *etnizitate exogeno* bezala izendatuko ditu ikuspegi hauek (2003: 45; 2008: 144-145)⁹²; nazionalismoak, lehenago edo beranduago, *exogenoa* litzatekeen nazionalismo bat "espresatzen" bukatuko lukeelako, politikatik kanpo eta era autonomoan definituko litzatekeena.

Zentzu horretan, nazioen sakoneko izaera politikoa aitortzen ez dituzten berniz berritzaileez harago, Smithen modernitatearen iraultzak nazioaren ulermenean irekitako lubakiaz jabetzea eskatuko du. Lubaki honen gainean jarraikortasun elementu batzuk aurkitu ahal izango baditugu (hizkuntza, erlijioa, historia) ere, nazioaren adiera mugiezinak alde batera utziz.

7.4.3 Nazionalista, arkeologo bezala.

Smithen ustez, alabaina, *metafora geologiko* honek bere mugak izango ditu. Izan ere, ez du dinamismo aktiboa helaraztea lortuko; *nazio-eraikuntza* edo *nationbuilding* deitu izan denaren eraldaketarako gaitasuna adieraztea, hain zuzen. Ez du herri parte hartzerako lekurik uzten, beste nazioekiko elkar-ekintzarako edota ideologia eta mito ezberdinen eraginerako. Nazioaren ikuspegi itxi eta estatikoa komunikatzen du, borondatearen korrante eta helburu nazional garaikideetatik oso urruti.

Metafora eboluzionista huts baten alde ere ezin izango dugu era sinesgarri batean egin; non komunitateak aurreko kultura eta etnietatik "berez" hazten diren. Smithen ustez ez dago berezko ezer nazioetan. Ikuspegi eboluzionistak jarraikortasun eza, dislokazioa eta kanpo indarrekin egon ohi izan den lehia gutxitu egiten du; interes gatazkak, parte hartzaileen eragina eta aurre-ikusgarria ez den gertaerari lekua kenduz.

Bi eredu hauen aurrean Smithen *arkeologoaren irudia* proposatuko du, antzinako etnia eta nazio modernoaren arteko zubi lana egiteko. Nazionalista, arkeologoa bezala, aurreko aroetako elementuen artean indusketa lanak egin beharko ditu, bere aro garaikidean munduaren ulermen

⁹² Erreferentzia bibliografiko hauek Errejónen lanetik atera dira (2012: 255).

kolektibo baterako egokiak izan daitezkeen elementuak berreskuratuz. Horretarako nazioa denboran eta espazioan lekutzeko egingo duen lana ezinbestekoa izango da; batetik, iragana eta orainaldia lotuz, komunitatea dagokion testuinguru historikoan jarriz eta oinarri sinboliko-kronologiko bat eskainiz; eta bestetik, komunitate nazionalari mapan leku bat emanez. Eta hori guztia zientzia modernoaren erabileraren bitartez egiteak bere nazio garaikideari duintasun eta sendotasuna emango dio.

Smithek batez ere hiru funtzio nabarmenduko ditu nazionalistaren egitekoen artean: *biraurkikuntza*, *birinterpretazioa* eta *birsorkuntza*. *Biraurkikuntzak* benetako “ethnohistoria” komunitarioaren bilaketa suposatuko du; oroitzapenen erregistroa, mitoen bilduma lana edota tradizio indigenena. Honakoa historialari, filologo edota antropologoaren paper gorena izango da; nazionalismo kulturalaren abiapuntua.

Birinterpretazioa, berriz, konplexuagoa izango da. Tradizioak bahetzea, ethnohistoriaren maila lixatzea edota mitoak aukeratzea komunitatearen mundu ikuskera ulergarri bat eraikitzeke ez da lan erreza izango. Iraganaldi etnikoa birinterpretatu egingo da, asmo nazionalista garaikideak benetakoak, naturalak eta ulergarriak bezala irudikatzeke. Horrela, nazionalista orainaldiari iraganaldiaren betaurrekoekin interpretazio berri ematen saiatu beharko da. Interpretazio honek nazionalismoak jokaturako paperari garrantzia handia emango dio, baina ez ikuspegi modernista eta postmodernistak bezain beste. Batak zein besteak nazioaren izaera eraikia nabarmenduko dute, iraganaldiaren pisua kontutan hartu gabe.

Eta hirugarrenik, *birsorkuntza* izango genuke. Honek jendeari deialdia egitea, komunitateko kideen emozioaz piztuz hauek mobilizatzea eta indar morala helaraztea suposatuko du. “Horrelakoak izan ginenez eta gauzak horrela ulertu behar ditugunez, orain horrela jokatu beharko genuke” moduko ideiei erantzungo lioke *birsorkuntza* lanak. Ikuspegi honek modernistek eta posmodernistek komunean luketen determinazioa leunduko luke; baita metafora geologikoak duena baino ikuspegi dinamikoagoa planteatu ere. Iraganaldia ez da sukaldari batek nahastutako osagaien emaitza, ez bata bestearen ganean sedimentatutako geruzen ondorioa. Iraganaldia etengabe interpretatu behar diren tradizio eta oroitzapenez osatua da.

Birinterpretazio honetan hainbat aldagaik eragingo dute. Batetik, jada aipaturako ideologia nazionalista. Bestetik, jada nabarmendu dugun egiaztagarritasun zientifikoa. Hirugarrena, eragin sozial eta politikoari lotuta agertuko zaigu; hau da, interpretazioak duen *durunda* edo *oihartzun*

herrikoari. Snowen markogintzaren atalean kontzeptu honetan sakonduko badugu ere, esan dezagun *durunda* interpretazioak jendartearen sektore zabalagoei esanahi bat eskaintzen dienean emango dela. Gurean Nafarroako historiaren gainean erregionalismoak, batetik, eta burujabetzaren aldeko indarrek, bestetik, izan duten lehia horren erakusle nabarmena litzateke. Iraganaldi historikoaren aldagaien interpretazioak (foruak, Errege nafarrak, ...). Jendartean duten durunda baliatuz, nazionalismo bat edo beste indartu eta sektore berrietara zabaltzeko baliatu dute, biek ala biek. Horrelako kontzeptu, instituzio eta sinboloek ondorengo belaunaldiek beraien komunitatearen irudikapenari mugak jarriko dizkiete.

Hortaz, Smithen ustez, nazionalismoaren eginkizun behinena iraganaldiaren biraurkikuntza eta interpretazioaren funtzioa ematea izango da; beti ere, orainaldiko mobilizazioa gorpuztu ahal izateko. Horrela, nazionalistak aukeratu duen nazioaren berreraikuntzarako aurkituko dituen mugak aintzat hartu beharko ditu prozesu hau arrakastaz burutu nahi badu.

7.4.4 Nazionalismoaren inguruko hainbat ondorio metodologiko.

Orain arte esandakoari erreparatuta, nazioari lotutako elementu objektibo edo diakronikoak (hizkuntza, kultura, ...) nazioak eta nazionalismoak marko interpretatzaile kolektiboak eraikitzeke baliatzen dituzten oinarriko lehengaiak dira. Prozesu hauek nagusiki diskurtsoen bitartez eraikitzen dira eta mobilizazioan sortzen diren hartu-emanetan forma hartuko dute. Diskurtso hauek aurretik "hor" ez zeuden nazioak sortuko dituzte, zehaztu gabeko prozesu politiko baten emaitza bezala irudikatuz.

Hainbat autorek (Stavenhagen, 1996; Gurr, 1993)⁹³ etnizitateari lotutako aldagai hauek nazioaren sorrerarako beharrezkoak direla nabarmenduko dute, baina ez da nahikoa. Izan ere nazionalismoaren sorrera bestelako hainbat elementuetan eutsi daiteke mobilizazioa abiatzeko. Alabaina, ez gara konstruktibismo utilitarista batez ariko; elementu diakroniko hauek nazionalistek tresnen kutxatik era instrumental batean baliatzeko hartuko dituzten objektuak bezala ulertuz. Nazioa edo nazionalismoa, nortasun kolektibo bezala, mobilizazioan gorpuztuko da. Honek ez du esan nahi aipatutako elementu objektibo edo diakritiko hauek existituko ez direnik, baizik eta

⁹³ Erreferentzia hauek Smithetik (1995) aterata daude.

nortasun eta komunitate baten eraketarako jokatu behar duten rol politikoa diskurtso batean egituratu eta mobilizazioan txertatu arte ez direla garatuko.

Zentzu horretan, ikerlariak eta ekintzaileak nazioaren izaera eraikia eta egitate sozial gisa duen dimentsioaren artean mugitzen jakin beharko dute. Izan ere, analisi konstruktibistek burutzen dituzten diskurtsoaren eta mobilizazioaren disekzio lanek, etnizitateari lotuta agertu ohi den agentzia eta determinazioaren indar emozionala urtu baitezake (Smith, 1995). Nazionalismoaren gaitasun mobilizatzailea eta bere kudeaketa demokratiko zabala tentuz gestionatu beharreko afera izango da. Nazioaren sorrerari egotzi ohi izan zaion *berezkotasunaren* indarra mobilizatu nahi diren sektore zabalentzat muga ez izatea lortu beharko baitu ekintzaile nazionalistak. Gauza jakina da errazagoa izango dela mobilizazioa aktibatzea mendeetan zapaldua egon den "jatorrizko" komunitate natural baten alde, elementu kontingenteen gainean eraikitako nortasun kolektibo baten gainean baino.

Zentzu horretan, fenomeno nazionalisten izaera eraikia, kontingentea eta aldakorra ez litzateke hauen ahuldade eta hauskortasunarekin nahastu behar. Aipatu dugun bezala, nazionalismoak nortasun kolektiboen sustatzaile gisa bestelako prozesuek baino sendotasun handiagoa erakutsi dute gaur arte hainbat kasuetan. Elementu objektibo hauek soilik nortasun baten existentziaren neurgailu bihurtuko dira biraurkikuntza, birinterpretazioa eta birsorkuntza prozesu arrakastatsu bat eta gero. Eta prozesu hau diskurtsoaren bitartez mobilizazio prozesuan baino ez da gauzatuko. Hau da, nazionalismoa, nortasun kolektiboen sortzaile bezala, prozesu politikoa izango dela esan dezakegu.

7.5 Markoen Teoria, nortasunaren eraikuntzarako tresna gisa

Funtsean, markoaren kontzeptua munduaren inguruko interpretazio komunaren eraikuntzarako proposamen metodologikoa izango da. "Ekintza kolektiborako markoen" bitartez ekintzaileek ordura arte indarrean egon diren sinismenak egokitu edota ordezkatu nahi izango dituzte; eta bide horretan, nortasunaren eraikuntzarako funtsezko tresna izango dira. Puntu honetara iritsita *marko*, *diskurtso* eta *ideologiaren* arteko argipen kontzeptuala egitea komeni. Izan ere, askotan hiruak kategoria berdina bailiran baliatu izan baitira.

Ideologia egituratutako, koherenteak eta eskusibotasun asmoak dituzten sinismen sistema bezala definitu ditzakegu. Maila handi batean, markoen analisiak ideologiak mobilizazio prozesuetan eta gatazka politikoetan izan duen garrantzia eguneratu du. Hala ere, ikerlari gehienek *marko* kategoriaren erabilpenaren alde egin dute, ideologiaren kategoriak ekintza kolektiboa ulertzeko lehenengo kontzeptuak barnebilduko ez lukeen ikuspegi dinamiko eta konstruktibistaren arriskua ekidite aldera (Errejón, 2011: 278-279).

Horrela, *diskurtsoa* errealitatearen interpretaziorako *markoen* bilduma artikulatu bezala ulertuko dugu; era bateratu batean norabidetuak eta identitateen eratzaille bezala. Diskurtsoak esanahi politikoaren ekoizpen prozesua artikulazio bidez ulertzen laguntzen du. Esan bezala, *ideologiaren* kategoriak diskurtsoen sedimentazio eta sistematizazio bati erreferentzia egiten dio; leialtasuna eskatzen duen eta leku eta denbora ezberdinetan erreproduzitu daitekeelarik. Diskurtso guztiak ez dira ideologia bilakatuko, baina guztiek beraien jatorria "berezkotzat" hartzera joko dute, kontingentea eta politikoa izan arren. Zentzu honetan, diskurtsoak ideologiengatik baldintzatuak egongo diren bezala, diskurtsoak ideologiak aldarazteko bide esanguratsuenetako izango da (Van Dijk, 2003: 17). Horrela, marko eta ideologiak continuum diskurtsibo bateko bi mutur bezala ulertu daitezke; zehaztapen eta partikularitate handienetik unibertsaltasun eta egituratze handienara doana.

7.5.1 Markoen Teoriaren jatorria.

7.5.1.1 Markoaren ikuspegi multi-diziplinarra.

Frame Analysis-a edo *Markoen Analisia* diziplina ezberdinetatik jorratu izan den jardura da. Gregory Bateson-ek (1972), esaterako, ikuspegi antropologiko batetik, ekintza komunikatibo bat ulertzeko gertatzen ari denaren inguruko marko interpretatzailearen beharra azpimarratu zuen. Batesoni aitortu ohi zaion ekarpenik esanguratsuen marko hauen izaera dinamikoa eta kolektiboa azpimarratzea da. Elkar-ekintza honetan esanahia inoiz ez da erabat determinatua egongo; ekoizpen kolektibo bat izango da. Zentzu horretan, elkar-ekintza prozesua ez datza entzule eta esatarien baieztapenetan, baieztapen horietaz egiten den interpretazioan baizik; eta azken honetan testuinguruak eta kulturak zeresan nabarmena izango dute. Batesonen ekarpenak Markoen Teoriari

lehenengo abiapuntu bat jarri bazion ere, markoen kontrolen inguruan dagoen botere lehia ez du behar bezala aintzat hartuko (Rivas, 1998: 183).

Ikuspegi psikologikotik, Frederick C. Barlett-ek (1932) marko hauen eraikuntzan memoriak jokatzeko duen papera azpimarratu zuen. Barletten arabera, jendearen gogoratzeko modua gertakariak jatorrian nola bizi izan zituzten eta memorian gordetzen dituzten erarekin lotuta dago. Horrela, memoria eraikuntza prozesu bat izango litzateke eta ez “artxibatze” ekintza soil bat; gordetako eskema mental horiek gertakari berrien arabera aldatzen joango direlarik. Barlettek, Batesonen ikuspegi dinamikoa berbera nabarmenduko bazuen ere, hartu-eman sozialen ondorioz sortzen diren botere harremanek eraikuntza prozesu honetan duten eragina ez zuen behar bezala landuko.

Soziologiaren eremutik, Erving Goffman-ek, *Frame Analysis: An Essay on the Organization of Experience* (1974) lanean, elkar-ekintza eta lehia sozialari lotutako gabezi hauek gainditzen saiatu zen. Berari zor diogu Markoen Teoriaren garapenik handienetako gaur egun arte. Aipatutako ahulguneak gainditzeko *jatorrizko markoen* kategoria landu zuen. Gertakari bat besteengandik bereizi eta zentzua emateko marko interpretatzaile bat edo batzuetara jo beharko da; marko hauek *jatorrizkoak* izango dira ez direlako aurreko gertakari edo gertakari originalekin harremanetan jartzen. Jatorrizko marko hauek *naturalak* edo *sozialak* izan ahal izango dira: lehenengoen gertakari ez-ordenatu, bizitza propiorik gabekoak edota gertaera fisiko hutsak antolatuko dituzte; bigarrenen, borondatea, helburuak, inteligentzia edota gizakiaren bizitza animatua barnebilduko dituzte (1974: 22). Marko sozialengan arreta jarrita, Goffmanek hauek ez direla egonkorak nabarmendu zuen. Hau da, gertakari ezberdinak lehiatzen dauden interes eta ikuspegi ezberdinen arabera (bir)interpretatu eta (bir)markoztatzen dira, honek “gertatzen ari denaren” gaineko balorazio ezberdinetara eramanez gaitzakeelarik. Interpretazio hauen eraikuntzan bakoitzak bere interpretazio markoa nagusitzeko estrategia linguistikoak baliatuko dituelarik.

Goffmanek bere ikerketetan marko interpretatzaileen botere lehiaren dimentsioa barneratuko badu ere, jorratu nahi dugun eredu metodologikorako gainditu beharreko bi muga izango ditu: batetik, marko interpretatzaileen eraikuntzan aipatutako lehia ikuspegi indibidualistatik jorratu zuen, norbanakoen autonomiatik harago jokoan dauden bestelako prozesu sozio-politiko zabalagoak aintzat hartu gabe; eta bigarrenik, linguistikari emandako gehiegizko pisuak, markoen funtsezko edukietan parte hartzen duten aldagaiak bigarren maila batean utzi zituen; hau da, arreta forman eta ez edukian jarritz.

Laburbilduz, XX. mendearen erdialdean marko interpretatzaileen inguruan diziplina ezberdinetatik egindako hurbilpenek kategoria honen formulazio zientifikorako oinarriak jarri bazituzten ere, gure ikerketarako funtsezkoa izango den ekintza kolektiboari erreferentzia falta nabarmena erakutsiko dute. Jarraian aztertuko ditugun mugimendu sozialen azterketan aritutako ikerlari ezberdinen lana norabide horretan kokatuko da.

7.5.1.2 Markoen teoria prozesu sozialen ikerkuntzan.

80. hamarkadatik aurrera marko interpretatzaileen erabilpena prozesu sozialen azterketan nabarmen hazi zenez, nekeza suerta dakiguke honen aitzindaritzaren aitortza era garbi batean egitea. Edozein kasutan, adostasun zabala dago W. A. Gamson, B. Fireman eta S. Rytinak 1982an argitaratutako *Encounters with Unjust Authority* lanak metodologia honen erabilera mugari kronologiko bat suposatu zuenaren gainean (Rivas, 1998: 189). Gerora Gamson iraultzetan eta mugimendu sozialetan estruktura politikoek zuten eragina aztertzeagatik ezaguna egin bazen ere (Edwards, 2014: 80), bere hastapenetako lanetan *ideiek* ekintza kolektiboan zuten eragina jorratu zuen.

Gamsonen arabera, *markoak* beharra eta ekintzarako jotzeko desioa barnebiltzen duten ulertzeko moduak dira; mugimenduen barruan esanahien gaineko ikuspegi bat nagusitzeko ematen diren negoziazio eta lehiaren emaitza bezala ulertuta. Ekintza kolektiborako marko hauek hiru osagai nagusi izango lituzkete: batetik, *injustizia*: bidezkoaren inguruko emozioz beteriko balorazio kognitiboa jasoko lukeena; bigarrenik, *agentzia*: bizitza sozialaren baldintzak aldatu daitezkeenaren gaineko sinismenak barneratu eta ekintzarako gaitasuna ematen diena; eta hirugarrenik, *nortasuna*: helburu zehatz bat erdiesteko beharrezkoa den “gu”-aren definizio prozesua barnebiltzen duena. Marko hauek ez dira aurretik egindako “laborategiko esperimentu” baten emaitza izango, elkar-ekintzan osatuko dira. Lehenengoak pisu espezifikoa izango luke, beste biei bide ematen dien heinean.

Baina Gamsonen arabera marko hauek arrakasta izateko bitarteko ezberdinak jasoko dituzten estrategiak baliatu beharko dituzte. Bitarteko hauek, nagusiki, hiri motatakoak izango dira: *kulturalak* edo herri jakintzari lotutakoak; *pertsonalak* edo esperientziaren ezagutzari lotutakoak; edota *integratuak* edo medioen diskurtsoei lotutakoak. Hiruen arteko uztarketa egokian egongo da

arrakastarako giltza. Baina hainbat kasutan, norbanakoak kausa baten inguruan intelektualki sinistruak egon arren, baliatutako argudio abstraktuek ez dute parte hartzerako ezinbestekoa den lotura emozionala jasoko. Kasu horietan, produktuen salmentari bideratuta legokeen *emozioen* aktibazioaren alde egingo du. Emozioa ekintza kolektiborako funtsezko aldagaia izango da. Horretarako, Gamsonen ‘gai beroak’ (*hot button*) era neurtuan ukitzearen alde egingo du, karga emotibo berezi bat duten esperientzia errealeen ezagutzara hurbilduko lukeen estrategia bezala. Baina kontuz, emozioen gehiegizko erabilerak ere ekintzaileen agentzia blokeatzera era eraman dezakeelako.

Zentzu honetan, Gamsonen ekintza kolektiborako Markoen Teoriari egindako ekarpenik baliotsuena errealitate sozialaren adiera konstruktibista eta aktore sozialak beraien etorkizunean eragiteko gaitasuna duten agenteak bezala irudikatzean egongo da. Hain zuzen ere, aktore sozialak ahalduentzako estrategia hau marko diskurtsiboen bitartez egikaritu da. Gainera bere ekarpenean aintzat hartu beharreko beste elementu bat egongo da. Izan ere, estrategia hauek ez ditu ikerketa sozialetan ordura arte horren errotuak zeuden Aukera Politikoaren Egitura edota mobilizaziorako bitartekoen balioa alboratuko; bi hauek osatuko ditu. Bere kritikoen ustez, alabaina, Gamsonen ikuspegia testuetan jasoko liratekeen *ideia zentraletara (packages)* mugatuko litzateke, hauen gaineko ikuspegi nabarmen sinplifikatuz. Eta gainera, mugimenduek aipatutako ‘gai beroak’ ekiditen saiatu beharko lituzketela esanez egiten duen aholkua, bere ikuspegia prozesu sozial gatazkatsuetara baino kontsumo gizarteetako enpresa mugimenduetara zuzenduta dagoela iradokitzen digu.

Ikuspegi hori gaintu nahian, Paolo Donatik arreta diskurtso politikoengan jarriko du. Bere ikuspegiaren abiapuntua linguistikoa izango da. Bere ustez, diskurtsoaren analisiaren ikuspuntu guztiak “gertaera linguistiko” batean oinarritzen dira, hau da, ideien eta sinboloen eraikuntza bezala ulertuta. Horrela, diskurtso politikoak, “norbanakoen, interes talde, mugimendu sozial edota erakundeen arteko elkar-ekintzak lirateke; zeinen bitartez egoera gatazkatsuak politikaren arazo bihurtu, agendak erabaki, erabakiak hartu eta ekintzak burutzen diren” (Donati, 1992: 139)⁹⁴. Horrela, diskurtso politiko hauek markoen bitartez jasoak eta ulertuak izan ahal izango dira. Egoera berri baten aurrean gaudenean, markoa memoriatik hartzen den hautematearen estruktura bat izango da. Estruktura hauek norberak munduaz duen jakintza biltzen dute eta gertatuko denaren inguruko aurreikuspenak eraikitzea ahalbideratzen dute. Mundua ulertzeko kategoria hauek jada hartzailearen

⁹⁴ Antonio Rivas-en “El análisis de marcos: una metodología para el estudio de los movimientos sociales” (1998: 197), *Los movimientos sociales; transformaciones políticas y cambios culturales*-etik aterata (Ibarra eta Tejerina, 1998).

kulturaren parte dira. Hortaz, marko interpretatzailea norberaren eta bere ingurune kulturalaren araberakoa izango da.

Donatiren arabera, berriz, markoak ez dira hautemate hutsera mugatuko. Hautematen ditugun elementuak lengoai eta diskurtsoaren bidez objetibatuko dira. Hortaz, errealitatearen eraikuntza kategoria linguistikoaren erabileraren araberakoa izango da. Pertsonen erabakiak hartu eta ekintzara jotzen dute kategorizatzen duten moduaren arabera, hortik errealitatearen kategorizazio ezberdinen arteko lehia sortuko delarik. Donatirentzat, diskurtsoa lehia hori ebatziko den eremua izango da eta markoak horretarako tresnak. Zentzu horretan, diskurtsoa (*hitza*) eta praktika politikoa (*ekintza*) era *dialogikoan* ulertu beharko dira.

Donatiren ekarpenak ideologia eta kulturaren azterketarako tresneria berria aportatuko du. Gainera, arestian aipatutako bi dimentsio horien (*hitza* eta *ekintza*) uztarketa planteatzerakoan, ikuspegi pragmatiko batetik egingo du, jendearen munduaren ulermenak nola funtzionatzen duen argitu nahian. Baina, Goffmanekin gertatutakoaren antzera linguistikari eskainitako gehiegizko arretak, prozesu sozialen edukiaren gaineko ardura umezurtz uztera eramango du.

Marko teorikoan eta atal metodologiko honetan bertan landu ditugun autore ezagunagoek ere Markoen Teoria jendarte prozesuen ikerketara hurbiltzen saiatuko dira. Tarrowek (1997), esaterako, markoak ekintza kolektiborako bitartekoen ikuspegitik landuko ditu. Bere ustez, sinbolo kulturalak ez dira era zuzen batean mobilizaziorako sinbolo bezala eskuragarri egongo; ekintza kolektiborako markoetan bilakatzeko eragile baten esku hartzea eta interpretazioa beharko dute. Era berean, heredatutako kultura politikoak ez du bere horretan mobilizazioa zer sinbolok eragingo duten zehaztuko. Estatu Batuetako hiritar afroamerikarren kasuan, esaterako, eskubide zibilen marko diskurtsiboaren nagusitasunak hamarkadetan zehar hiritar hauei ez zien balio izan opresioa gainditzeko; edota katolizismoak Poloniako langileei. Ardatz kultural bati “material berriak saretzea” izango da ekintza kolektiborako markoen zabalpena ekarriko duena (Tarrow, 1997: 232); momentu batean Martin Luther King-ek edo Lech Walesa-k egiten jakin izan zuten bezala. Material hauek konbinatzeko modua aldagai ezberdinengatik baldintzatua egongo da: borrokan arituko diren aktoreak, aurrean izango dituzten aurkariak, baliatutako bitartekoak, hauek izango dituzten aukera politikoak eta abar; beti ere, ahalik eta publiko zabalagoari iristeko bokazioarekin. Horrela, Tarrowen ustez antagonistek borrokan argitzen dute ze balore konpartitzen dituzten eta zeintzuek bereizten dituzten. Eta elkar-ekintza horretan beste batzuentzat marko berri nagusiak izango direnak eraikitzen joango dira.

Markoen Teorian espezifikoki gehiegi jardun ez den Doug McAdamek ere esparru honetan bere ekarpena egingo du jendartean nagusi diren adostasunen izaera hauskorra agerian utzi nahi duen *aukera kulturalaren* kategoriaren bitartez. Talde zuzentzaileen aldetik eskaintza diskurtsibo erakargarririk ez dagoen uneetan alternatiboak izango diren markoen formulaziorako eta zabalpenerako aukera kulturala emango da. Indarrean egon diren marko interpretatzaileen pitzadurak nagusitzen diren epealdiak dira, dominaziorako estruktura sinboliko eta kognitiboen eraispenarena, eta ondorioz, status quo-a kolokan jarriko duten kontakizun alternatiboak loratzeko oinarri emankorra (McAdam, 1994: 46-51).

Hala ere, aurretik esan den bezala, aukera hauek mugimenduak diskurtsua eraikitze gaitasunari lotuta agertuko dira. Hau da, eskaera edota interpretazio berrien loraldia ordura arte nagusi izan den mundu ikuskeraren krisiaren eragile (edo azkartzaile, behintzat) izango da. Baina eskola kognitibistak aldarrikatu bezala, “aukera kultural” hauek soilik ekintzaileengatik hautemanak direnean garrantzia politikoa izango dute. Horregatik mugimenduak krisi egoeretan marko interpretatzaile berri baten inplementazioan arrakastarako aukera handiagoak izango ditu.

Baina Markoen Teoriaren eraikuntzan ekarpen teoriko nabarmenik eman bada hori David Snow, Robert Benford eta bere kolaboratzaile taldeari zor zaio. 80. hamarkadaren bigarren erdialdean argitaratuko lanek *markoen analisirako (frame analysis)* oinarria jarri zuten. Prozesu sozialen azterketarako orain arte ikusitako hainbat autoreen ekarpena Snow eta Benfordek jarritako abiapuntu honen gainean eraikitakoa da. Beraiek proposatutako egitura metodologikoa izango da gure lanaren azterketarako zutabe nagusietako bat; ondorenean, *frame analysis*-aren ikuspegi sakondu duten bestelako autoreek egindako kritikarekin aberastuko badugu ere. Aztertu dezagun bada erreferentziazko bi autoreok egindako proposamena.

7.5.2 Framing-a edo markogintza.

Esan bezala, 80.hamarkadaren bigarren erdialdean Snow eta Benfordek idatzitako bi artikuluk norabidetu dute *frame analysis*aren ikerketa-metodoaren aplikazioa prozesu sozialetan: “Frame Alignment Processes, Micromobilization, and Movement Participation” (1986)⁹⁵ eta “Ideology,

⁹⁵ E. Burke Rochford, Jr. eta Steven K. Worden-ekin batera idatziak.

Frame Resonance and Participant Mobilization” (1988). Bi lan hauetan markoen analisisian baliatuko dituzten kategoria kontzeptual nagusiak barnebilduko dituztela esan dezakegu. Aztertu ditzagun kategoria horiek.

Frame edo *markoaren* kategoria Goffmanengandik mailegatuko dute. Markoak norbanakoak bere munduan eta munduan, orokorrean, ematen diren gertakizunak “lokalizatu, antzeman, identifikatu eta izendatzeko” baliatzen diren “interpretazio eskemak” izango dira (Goffman, 1974: 21). Gertakizunei esangura ematerakoan, markoek esperientzia antolatu eta ekintza indibidual zein kolektiboa norabidetzeko funtzioa beteko dute. Hortaz, *frame*-a marko interpretatzaile izango bada, *framing* edo *markogintza* esanahia emateko funtzioa izango da (Snow&Benford, 1988: 198; 1992: 136).

Guk aztertuko ditugun *frame*-ak ez dira munduaren interpretazio isolatu bat egitera mugatuko diren marko interpretatzaile hutsak izango. Hauek errealitatearen eraikuntzan *ekintza* (edo agentzia) eta *liskarra* inplikaturako dituzten prozesuak izango dira. *Ekintza* mugimendu sozial edo aktibisten jardunean kokatzen delako; eta *liskarra*, ez dutelako soilik marko berrien sorreran parte hartuko, indarrean daudenen eraldaketa ere bilatuko dute. Hortaz, markogintzaren emaitza *ekintza kolektiborako markoak* bezala izendatu ditzakegunak izango dira (Snow&Benford, 2000: 614). Zentzu honetan, *framing*-aren eginkizuna, ekintza kolektiboa sustatzeko afera partikularrak interpretazio eta mobilizazio markoetan barnebiltzea izango da. Prozesu hauen bitartez mugimenduek markoak beraien helburuetara eta interpelatutako sektoreetara egokitu dituzte, hartu-emaneko prozesu iraunkor batean.

7.5.2.1 Markogintzaren atal nagusiak.

Wilson (1973) ideologiari egotzitako oinarritzko hiru osagaiak erreferente bezala hartuta, Snowk markogintzaren funtsezko urratsak definituko ditu:

- *Diagnosia*: arazo baten identifikazioa eta kaltearen edo jatorriaren atribuzioa barnebilduko ditu. Zentzu honetan, ekintza kolektiborako markoaren atal honek egoera injusto bat deskribatu beharko du edo behintzat “injustizia osagai” bat barnebildu (Gamson, 1992). Bidegabekeria hau jasotzearekin batera horren erantzuleak jaso beharko ditu, honen inguruan aurkaritza markoa eraikiz (Gamson, 1995).

- *Pronostikoa*: ez ditu soilik arazoari aurre egiteko konponbideak jaso behar, horretarako estrategiak, taktika eta helburuak identifikatu beharko ditu. Zentzu horretan, eginbeharrekoa diagnostikoan baino zehatzagoa izango da.
- *Motibazioa*: sarritan diagnostiko eta pronostikoaren arteko korrelazioa argia izango da baina honek ez du zertan automatikoki ekintza zuzentzailea mahai gaineratuko. Honek marko motibatzaile baten gabezia azaleratuko du. Hortaz, hirugarren urrats honek ekintzarako beharrezkoa den bizigarria eskaini beharko du. Honakoa hizkera, sinbolo edota nortasunen eraikuntzarekin lotuta egongo da; jendea ahalduntzearen aferarekin, hain zuzen ere. Benford-ek (1993) ekintza kolektiboan parte hartuko duten kideen motibazioa areagotuko duten lau kategoria multzo nabarmenduko ditu: intentsitatea, urgentzia, eraginkortasuna eta duintasuna. Lau hauek kasu zehatzetan aplikatzerakoan, bakoitzari ematen zaion garrantziaren arabera, era osagarrian baino era kontraesankorrean ere jokatu dezakete.

Klandermandek (1984) mobilizazio kanpaina baten parte hartze arrakastatsurako adostasuna eta mobilizazioa beharrezkoak zirela baieztatu zuen. Zentzu horretan, diagnosis eta pronostikoa adostasunaren eraikuntzarekin lotuak leudeke; motibazioa, berriz, mobilizazioarekin. Esan bezala, adostasunak ez du zertan era automatiko batean mobilizazioa ekarri. Gainera, adostasunak multidimensionalak izango da; hau da, alde asko izango ditu eta alde horietako baten gaineko adostasunak ez du zertan gainontzekoen gaineko adostasuna ekarri. Horregatik *framing*-aren hiru urratsak zenbat eta integratuagoak eta beraien artean koherenteagoak izan, orduan eta mobilizazio arrakastatsurako aukera handiagoak.

Ekintza kolektiborako framing-aren oinarritzko atal hauekin batera, markogintza baldintzatu dezaketen *ezaugarri aldagarriekin* ere topatu gaitzke. Snow eta Benford-ek (2000) lau multzo nagusi ezberdinduko dituzte:

- *Arazoaren identifikazioa eta atribuzioaren norabidea*: esan bezala, honakoa markogintzaren funtsezko osagai litzateke. Honen arabera, marko batek zenbat eta arazo gehiago barnebildu, orduan eta talde sozial gehiago batu ahal izango dira, mobilizaziorako gaitasun handiago izanik.
- *Malgutasuna eta zurruntasuna, inklusibitatea eta eksklusibitatea*: ekintza kolektiborako markoak eksklusibitate, zurruntasun eta malgutasun-eza edota inklusibitate, irekitasun eta malgutasun graduaren arabera mailakatu ahal izango dira. Zentzu honetan, hipotetikoki bada

ere, inklusiboak eta malguagoak diren markoak ekintza kolektiboa garatzeko aukera zabalagoak eskainiko lituzkete.

- *Ikuspegi eta eraginaren interpretazio aldaketa*: Normalean mugimendu baten ikuspegia bere erreferentziazko taldearen interes edo arazoei zuzenduta egon ohi da. Hala ere, talde batzuen ikuspegia zabalagoa izan ohi da, beste mugimenduen ekintzak zuzenduz edo baldintzatuz. Bere jatorrizko eremuetatik haragoko eragina duten marko hauek *master frame* edo marko nagusi bezala izendatu ditzakegu. Honek ez du esan nahi mugimendu baten markogintzak bere mugetatik haragoko beste mugimendu batengan eraginda hegemonikoa izango den marko nagusia bilakatuko denik. Soilik marko apur batzuk lortuko dute hau; beti ere, jendartean duten *durundaren* arabera.

7.5.2.2 Markogintzaren prozesu eta dinamikak.

Orain arte markogintzaren oinarrizko aldagaia deskribatu baldin baditugu hauek martxan nola jartzen diren deskribatzea ere garrantzitsua da. Hau da, markoa hauek ez dira sortu, garatu eta landuko arestian aipatutako oinarrizko osagaiak mahai gainean jarrita, gaindeterminatuko diren oinarrizko prozesuen bitartez baizik. Snow eta Benford-entzat (2000: 623-626) oinarrizko prozesu hauek *diskurtsiboak*, *erantzunezkoak* eta *estrategikoak* izango dira.

Prozesu diskurtsiboak mugimenduen jardunaren testuinguruan garatzen diren elkarrizketa multzoari erreferentzia egingo dio. Bi nabarmendu ditzakegu: markoaren artikulazioa eta markoaren anplifikazioa. Lehenengoak gertaera edo esperientzien arteko harremanari erreferentzia egingo dio, horien harremanak kontakizun bateratu batean bilduko direlarik. Bigarren prozesuak gai, gertaera edota sinismen batzuen nabarmentzea ekarriko dugu, honen erreferentzia pean hainbat kontakizunei barne koherentzia edo zentzu bat eman nahian.

Erantzunezko prozesuei dagokienez, adostasun zabala dago ekintza kolektiborako markoen sorrera, garapena eta lanketa erantzunezko prozesuak direla esaterakoan (Snow&Bendfor, 2000: 625). Hau da, mugimendu batek ezin izango du nahi eran bere markoa jendartean eraiki edo inposatu; marko horiek elkarren arteko gatazka eta lehian egongo diren markogintza prozesuetan lekutu beharko dira. Hiru mota nabarmendu ditzakegu: oposizioko mugimenduen *kontra-markogintza*

(*counterframing*); mugimendu barruko markoen lehiak; edota marko eta gertaeren arteko harreman dialektikoa.

Bukatzeko markogintzaren *prozesu estrategikoei* erreferentzia egingo diegu. Hauek deliberatuak, instrumentalak eta helburu bati zuzendutako markoei erreferentzia egingo liekete. Mugimendu sozialek beraien ahalegin estrategikoen zati handi bat euren interes eta marko interpretatzaileak beste taldeen interes eta markoekin lerrotzera dedikatuko dituzte. Markoen arteko lotura hauek izendatzeko prozesuei Snow eta Benfordek *markoen lerrotze prozesuak (frame alignment process)* deituko diete (1986: 464); *mikrobilizazioak* markoen lerrotzeetan eragiten duten prozesu interaktibo eta komunikatiboak izango direlarik. Autoreok lau lerrotze prozesu ezberdinduko dituzte:

- *Frame bridging* edo *markoen zubigintza*: gai edo arazo baten inguruan ideologikoki kongruenteak baina estrukturalki deslotutako bi markoren, edo gehiagoren, arteko loturaz ari gara. Ikerketa sozialetan markoen loturak mugimendu baten eta mobilizatu gabeko talde sentimendu baten arteko loturari erreferentzia egingo dio. Talde sentimendu honek irain komunak pairatu eta helburu antzekoak konpartitzen dituzten norbanakoen gehiketarekin lotuta dago; baina hauek beraien atsekabea adierazteko eta beraien interesen alde jarduteko antolaketa oinarririk ez dute izango. Snowek dioen bezala, talde sentimendu hauentzat kontzientzia edo markoaren eraldaketa ez ekintza kolektiboaren aurre-baldintza izango, mugimendu batekin konektatua sentitzea baizik. *Frame bridging*-ean informazioaren zabalkunderako bitartekoek zerikusi handia izango dute, eta bertan teknologia berriek funtsezko papera joka dezakete. Hainbatetan, *frame bridging*-a Snow-ek "maila baxuko eskaerak" deitzen dituenekin lotu ohi da; mugimendu sozial profesionalekin, askotan ohiko interes taldeekin bereizten zailak direnak.
- *Frame amplification* edo *markoaren anplifikazioa*: gai, arazo edota gertaera multzo baten inguruan diharduen marko interpretatzaile baten "argipen" edo "sendotzea" litzateke. Goffmanera (1974) berriro joz, norberaren bizitzaren eguneroko gertaerak sarritan anbiguetate edota ziurgabetasunari lotuta agertzen zaizkigunez; kasu horietan, mugimenduaren markogintzak gertaera hauek argitu edo birbizitzeko balio izaten dute. Bi marko zabalkunde motekin aurkitu ahal izango gara:
 - *Balioen anplifikazioa (value amplification)*: honek etorkizuneko parte hartzaileentzat funtsezkoak izango diren oinarrizko balioen identifikazio, idealizazio edota goresleri erreferentzia egingo dio. Hau da, norbanakook eta giza taldeok hierarkizatutako balio

sistema bat dugu buruan; balio sistema honen hurrenkerak ekintza kolektiboa bideratzeko baldintzarik ez badu sortzen, etorkizuneko parte hartzaileak errekrutatu eta mobilizatzeko funtsezkoak diren balioen gaineko arreta, goreste edota sendotzea beharrezkoa izango da. Mota hauek ohikoak izaten dira status quo-a mantendu nahi duten mugimendu erreakzionarioetan edota iraupen luzeko erresistentzia eta liskar kultural batetik datozen mugimenduetan.

- *Sinesmenen anplifikazioa (belief amplification)*: zentzu zabalean, sinesmenek bi gauzen (edota gauza bat eta bere ezaugarriren) artean aurre-suposatutako harremani erreferentzia egiten diete (Bem, 1970); horrela kapitalistak esplotatzaileak lirateke, euskaldunok “gure lagunen lagunak” eta beltza zerbait ederra (“black is beautiful” ezaguna). *Balioen* sustapena mugimenduek bilatzen duten azken helburuak lortzearekin lotuta dagoen bitartean, *sinismenak* erreferentziazko balioak lortzeko ekintza babestu edo oztopatu dezaketen eraikitako ideien elementuak lirateke (Snow&Benford, 1986: 469-470). Azken ideia honekin sinesmenen adiera konstruktibista eta balioen adiera moralaren artean ezberdindu nahi izango da; beti ere, batzuek eta besteek ekintza kolektiborako tresna bezala ulertuta. Mobilizazioaren sustapenerako bost sinismen mota nagusi ezberdinduko dituzte: a) gai, arazo edo afera baten inguruko irainaren larritasunaren inguruko sinismena; b) kaltearen edota bere kausalitatearen inguruko sinismena; c) antagonisten inguruko sinismen estereotipatuak; d) aldaketarako aukeraren edota ekintza kolektiboaren eraginkortasunaren inguruko sinismenak; eta e) matxinatzearen beharraren eta egokitasunaren inguruko sinismenak. Snowen arabera sinismen eta lortu nahi den helburuaren arteko harreman zuzena soziologikoki axiomatikoa iruditu badaiteke ere, egungo jendartean muga hau anbigua edo kontraesankorra izan daiteke; hainbat kasutan, uste daitekeenaren kontra, aparteko larritasunik ez duen gai baten inguruan edota arrakastarako aukera txikiena duenak mobilizazioa aktibatu dezakeelarik. Honakoa mugimenduak aintzat hartu beharko duen elementua izango da.
- *Frame extension* edo *markoaren hedatzea*: arestian esandakoaren harira, hainbat kasutan mugimenduarentzat bere jatorrizko helburuekiko bigarren mailakoak izan daitezkeen bestelako eskaerak nagusitu daitezke bere erreferentziazko taldearen baitan. Horrela bada, mugimenduak helburu edo eskaera hauek bere egiten dituen edo bere jatorrizko helburuekiko fideltasuna mantentzen duen erabaki beharko du. Horretarako, balio eta interes horiek mugimenduaren jardunarekin lerrokagarriak diren ebatzi beharko du; beti ere, bere jokaleku politikoaren zabalpenean arrakastaren giltzetako bat egongo dela ahaztu gabe.

- *Frame transformation* edo *markoaren eraldaketa*: orain arte ikusitako markoen lerrotze prozesuak jendartean nagusi ziren markoen arteko sintonia maila bat adierazten zuten. Beste hainbat kasuetan, aldiz, mugimenduak sustatu nahi dituen programak, kausak edota balioak ez dute jendartean oihartzun edo *durundarik (resonance)* izango; edota ohiko bizimoduekiko kontrajarriak balira bezala proiektatuko dira. Kasu hauetan, balio berriak landu beharko dira, esanahi eta ikuskera zaharrak alboratu eta sinismen okerrak *bir-markoztatu (reframe)*. Hau da, egoerak markoaren eraldaketa bat eskatuko du. Hau egiteko Snowek bi modu nagusi planteatuko ditu: a) *domeinu zehatz baten eraldaketa* eta b) *marko interpretatzaile globalaren eraldaketa*. Bietan egoeraren larritasunaren inguruko pertzepzioa aldatuko da, aurretik zorigaitzekoa baina jasangarria zen egoera, orain jasangaitza, bidegabea edota ezmorala bihurtuko delarik. Baina Laclairekin ikusi bezala, mugimenduak injustizia marko bat hautatzea ez da ekintza erdiesteko nahikoa izango; erantzukizunak nabarmentzea ere beharrezkoa izango da. Sarritan erantzukizunak seinalatzen dituzten mugimenduek egitura sozio-politikoaren eraldaketa bat ere bilatuko dutelarik. Horraino aipatutako bi modu nagusien arteko antzekotasunak. Baina lehenengoak bizitzaren eremu zehatz batean nagusi den markoaren eraldaketa bilatzen duen bitartean, bigarrenak *diskurtso nagusia (master frame)* aldaraziko duen interpretaziorako eskema eraldaketa ekarriko du. Domeinu zehatz baten eraldaketan aurretik aintzat hartua ez zen aferak bir-markoztatua izango da; zerbait gatazkatsua edota konponbidean jarri behar dena bezala. Kasu honetan, domeinu zehatz hauek ez dira isolatuak egongo eta batean eman daitezkeen interpretazio eraldaketek beste hainbatetan eragina izan dezakete. Sektore sozial zehatzen egoera aldarazi nahi duten mugimenduengan (etorkinak, hizkuntza gutxituetako hiztunak, presoak, ...) ohikoak izaten dira, mobilizaziorako aukerak biderkatzen dituzten elkertasunezko markoak sortzen direlarik. Hainbat kasutan, markoen saretze honek marko interpretatzaile globalaren eraldaketa ekarri dezake, mundua interpretatzeko nagusiak ziren ikuskerak ordezkatzuz eta marko nagusi berria ezarriz. Mundu ikuskera berri honen etorrerak anbiguetatea eta ziurgabetasuna txikitzea dakar, guztia argiago eta zehatzago ikusiz (Snow&Benford, 1986: 475). *Marko interpretatzaile globalaren eraldaketa (frame transformation)*, berriz, “mundu eraldaketa” helburu gisa duten ikuspegi zabaleko eta izaera erradikaleko mugimenduetan ohikoa izaten da.

Ikusten ari garen bezala markoen lerrotzea ekintza kolektiboa martxan jartzeko ezinbesteko osagaia izango da, baina lerrotze hau era eraginkor baten emateko bi aldagai aintzat hartu beharko dira: batetik, lerrotzeen arteko uztarketa egokia beharko da, baten gehiegizko erabilerak parte hartzaile

potentzialak desaktibatu ditzakeelarik; eta bestetik, marko interpretatzaileen eta parte hartzaile potentzialen bizitza egoera eta ideologiaren arteko lotura maila edo gorago aipatutako *durunda* (*resonance*) (Snow&Benford, 1986: 477). Markoen lerrotze mota ezberdinek testuinguru bateko kontakizun kulturalekin *durunda* maila ezberdina lortuko dute. Hau da, lerrotze ezberdinek norberaren herentzia kulturalaren parte diren istorio, mito eta kontu herrikoiekin sintonia ezberdina lortuko dituzte. Sintonia edo elkarrekikotasun existitzen denean markogintzak jendarte horretan nagusi den *kontakizunarekiko fideltasuna* (*narrative fidelity*) erakutsiko duelarik (Snow&Benford, 1988: 210).

7.5.2.3 Markogintzaren baldintzatzaileak.

Snowek markogintza arrakastatsua baldintzatuko duten hiru elementu multzo azpimarratuko ditu. Lehenengo multzoa balio sistemaren *mugapen estrukturalek* osatuko lukete. Jendarte batean nagusi den mundu ikuskera edo ideologiarekin lotuta dago eta bertan hiru osagaiek parte hartuko dute: a) balio sistemaren baitan *nagusitasuna* (*centrality*) edo lehentasun hierarkikoa duen ideia baten existentzia; b) nagusi diren elementu edo ideia horiek bere baitan hartzen dituzten bizitza *domeinu sorta* (*range*); eta c) balio sistemaren baitako ideien arteko *harreman maila* (*interrelatedness*). Hiru irizpide hauen arabera jendarte mota ezberdinekin topatu gaitezke: sinismen edo ideia nagusi batek domeinu sozial ezberdinak saretzen dituen jendarteetatik hasita, nagusi diren ideia sorta ezberdinak nagusi diren jendarteetara, non horietako bakoitzak domeinu sozial batean nagusitasuna duen; jendarte politeistetan bezala, esaterako.

Markogintza baldintzatuko duen bigarren elementu multzoa *mugapen fenomenologikoe*k osatuko lukete. Jendeak gertaera sozialak nola jasotzen edo hautematen dituenarekin lotuta leudeke. Snowek hiru nagusi nabarmenduko ditu: a) gertaera eta markogintza lotzen dituen *sinesgarritasun enpirikoa*, honakoa markoa testatzeko aukerari edota egiaztatzeari lotuta agertuko zaigularik; b) *neurgarritasun esperimentalak* aldarrikapen multzo bat beste bat baino sinesgarriagoa noiz suertatzen den argitzeari erreferentzia egingo dio, bertan marko interpretatzaileak edo ulermenerako filtroak zer esan handia izango duelarik; eta c) gorago azaldutako *durunda* edota *fideltasun narratiboa*. Hiruek domeinu sozial batean norbanakoek gertaerak nola jasotzen dituzten argituko dizkigute. Alde horretatik, marko bat ezartzerako orduan hiru aldagai hauek finkatutako mugapenak aintzat hartu beharko dira, markoa eta domeinu horretako kideen arteko sintonia lortu nahi bada.

Eta hirugarren mugapen multzoa *protesta zikloarekin* lotuta legoke. Markoa eta protesta zikloaren arteko harreman honetan aurrerago sakonduko badugu ere, esan dezagun protesta zikloak baldintza estrukturalak eta ideologia “herrikoiak” lerrotzeko marko interpretatzaileak sortu edota baldintza hauen esanahia eraldatuko dituela. Abiapuntu hau aintzat hartzen badugu, hiru ideia baieztatu ditzakegu: a) protesta ziklo baten baitan mugimendua loratzen den uneak bere markogintza saiakera baldintzatuko du; b) protesta zikloaren hasieran loratzen diren mugimenduek *marko nagusien* (*master frame*) fundatzaile papera jokatuko dute, ondorenean etorriko diren mugimenduei marko interpretatzailea eskainiz; c) eta protesta zikloaren baitan, ondorenean agertzen diren mugimenduak beraien markogintza aurretik eraikitako marko nagusiagatik baldintzatua ikusiko dute.

Laburbilduz, Snow eta bere taldearen ekarpen nagusia, ekintza kolektiboaren ordura arteko azterketetan nagusi ziren eskola europarraren ikuspegi estrukturalista eta estatubatuarraren mobilizaziorako bitartekoen teoria osatzeko ahaleginean datza. Snowek berak planteatu bezala, markoen teoria ez da egitura objektiboen aukera/arriskuak edota bitarteko hautemangarrien baldintzapenak alboratzera etorriko. Aldagai hauek markoen bitartez nola hautemanak diren eta mobilizazioaren helburuekin ze sintonia mota duten azaltzen saiatzera baizik (Snow&Benford, 1988: 213).

Baina framing-aren inguruko ikerketa talde honek planteatutako metodologiak ere bere mugak izango ditu. Horiek dira jarraian aztertuko ditugunak.

7.5.2.4 Snow-en markogintzaren ahulguneak.

Lau izango dira Snow eta bere ikerketa taldeak garatutako markogintzaren metodoari egotzi izan zaizkion ahulgune nagusiak. Horietako lehena Antonio Rivas-ek (1998: 196) planteatuko du Snowek mugimendu eta mugimenduaren antolakundearen artean egiten duen parekatzea salatzeke. Rivasek ekintza kolektiborako markoen ekoizpenean Snowek elkar-ekintza prozesuei emandako garrantzia nabarmenduko badu ere, arestian aipatutako bi kategoria hauek berdintzerakoan mugimenduaren barruan egoeraren irakurketaz eta nortasunaren eraikuntzaren inguruan ematen diren borroka eta zatiketa guztiak ilunpean gelditzen direla salatuko du. Rivasek Snowekin bat egingo du markoak mugimenduen antolakundearen jabetza direla esaterakoan, baina mugimendu

baten barruan ikuspegi ezberdinak izan ditzaketen antolakunde ezberdinak egon ohi direla nabarmentzea faltan botako du; hauen artean elkarlan edo gatazka harremanak egon daitezkeelarik. Hortaz, lehiakide izango diren mugimenduen markoekin ez ezik, ekintza kolektiboaren inguruko ikerketa orok mugimendu barruko planteamendu ezberdinak eta beraien arteko harremanak aztertu beharko ditu.

Bigarrenik, Snowek eta bere laguntzaileek marko eta ideologia kontzeptuak parekatuko dituzte. Lehenengo kategoriaren erabilera gustukoagoa izango dute, eraikuntza prozesuaren izaera dinamikoa nabarmentzen dituelako; ideologia sinismen iraunkor bezala ulertuta, aldiz, bere burua *gauzatzera (reificarse)* joko du. Edwardsek (2014: 94) dioen bezala, ideologiak munduaren inguruko sinismen sistema zabalak dira, jendeak aurre egin behar dituen egoera posible guztien interpretazioak koloreztatzen dituen; markoak, berriz, ideologiak baino espezifikagoak izango dira. Beste modu batera esanda, markoek gauzak *nola* pentsatu esan digute; ideologiak, aldiz, *gauza horiek zergatik garrantzia* duten (Ferree&Merril, 2000: 456). Markoaren kategoriak, beraz, esanahiak eta ideiak eraikitzeke prozesuak aztertzen laguntzen digute.

Eta hirugarren kritika larria Snowek baliatutako metodoarekin zerikusia izango du. Gamsonek (1992b: 69) nabarmendu bezala, Snow eta bere laguntzaileen epistemologia positibista izango da baina “beraien buruak mundu positibista edo kontrukzionistaren hodeietan daudela” salatuko du. Akusazio honek konstruktibismoaren subjektibismoaren eta enpirismoaren objektibismoaren arteko tentsio gaindiezinaren erakusle izango da; Snow lehenengoaren dimentsio kulturaletik abiatzen bada ere, bigarrenaren fildotik pasatzeko saiakera erabateko arrakastaz ez duela burutzen iradokiz.

Ildo honetan, Snowen ekarpenak lan enpirikoak egiteko oinarritzko abiapuntua jarriko badu ere, ez du metodologia zehatz bat planteatzen. Urrats hau Jürgen Gerhards-en eskutik emango dugu. Azken honek Snow eta bere lankideei markogintzarako estrategia ezberdinak bereiztea aitortuko badie ere, markogintza estrategia hauek planteatzen dituzten eremu tematikoak ez dituztela sistematikoki bereizten salatuko du. Honetan zentratuko jarraian aztertuko dugun Gerhardsen ekarpena.

7.5.2.5 Markoaren Egitura Ideala.

Esan bezala, Gerhardsek azken urteotan mobilizazio prozesuetan markogintzak hartu duen pisua positiboki baloratuko du; alabaina, marko eta markogintza prozesuen azterketa enpirikoak hutsaren hurrengo izatea deitoratuko du.

Gerhardsen ekarpenaren berrikuntza nagusia *markogintzaren dimentsio* eta *markogintzaren estrategien* artean egindako bereizketa izango da. Markogintzaren *dimentsioak* markogintzak erreferentzia egiten dien eremu tematikoak lirateke. Gerhardsek bost bereiziko ditu: 1) eztabaida publikorako gai bat aurkitu eta arazo sozial gisa interpretatu; 2) arazoaren kausa eta eragileak aurkitu; 3) ahaleginen helburuak eta arrakastarako aukerak interpretatu; 4) protestaren hartzailea aurkitu eta ezaugarritu; eta 5) protestarako aktore legitimo gisa justifikatu.

Markogintzaren *estragiak*, berriz, eremu tematiko horiek interpretatzeko teknikak izango dira (Gerhards, 1995: 226). Pertsonak eta taldeak mobilizatzeko mugimenduek izango duten gaitasuna teknika horien eskuetan egongo da. Horretan datza teknika horien balioa.

Ikus dezagun dimentsio eta estrategia nagusiak ondorengo koadroan bilduta:

7.1 taula: *Markogintzaren dimentsioak eta estrategiak*; Gerhardsen (1995) eskeman oinarrituta Rivasen (1998: 209) lanetik aterata.

| Markogintzaren dimentsioak (gaiak) | Markogintzaren estrategiak (gaiak interpretatzeko teknikak) |
|--|---|
| 1. Gai bat eztabaida publikorako aukeratu. | 1. Kontzeptu edo eslogan bat egotzi. 2. Erreferentzia erreal baten bidez enpirikoki sinesgarria egitea. |
| 2. Arazo bezala definitu, <i>dena</i> eta <i>izan beharko litzatekeenaren</i> arteko ezberdintasuna nabarmenduz. | 1. Arazoa zehaztu eguneroko esperientzia bati lotuz. 2. Testuinguru zabalagoetan kokatzea. 3. Dramatizazioa: etorkizuneko inplikazioak aurreikusi. |
| 2. Kausa egotzi: Kausaren definizioa. | 1. Kontzeptu bat egotzi (estalinismoa, faxismoa, ...). 2. Besteen ardura diren kanpoko aktore kolektiboek egotzi. |
| 3. Eragileen definizioa. | 1. Ardura duten eragileak pertsonalizatu. 2. Intentzioa leporatu. 3. Onura kolektiboaren aurkako interes partikularrak egotzi. 4. Karga morala egotzi: legitimoak ez diren komunikazioaren eragile bezala hartu. |
| 3. Helburuen markoztatzea | 1. Kontzeptu edo eslogan bat identifikatu. 2. Helburuok zehaztu onuradunen onurak eta lortzeko bideak zehaztu. 3. Eskematizatea: balorea erantsi balio altuagoekin harremanetan jarritz. |
| 4. Arrakastarako aukeren markoztatzea | 1. Aitzindarien arrakastei erreferentzia historikoak egin. 2. Parte hartzaile posibleen kopurua zehaztu: zenbat eta gehiago, orduan eta arrakastarako aukera handiagoak. |
| 5. Protestaren hartzaileen markoztatzea (normalean gobernu edo sistema politikoa). Deslegitimatzea. | 1. Hartzaileak pertsonalizatu. 2. Intentzioa leporatu. 3. Karga morala egotzi: komunikazioaren eragile ez-legitimo bezala definitu. 4. Ustelkeriaz susmagarritzat hartu. |
| 6. Mugimendu sozialen auto-legitimazioa. | 1. Interes kolektibo eta unibertsalak ordezkatzeko dituztela erakutsi. 2. Nagusi den balore sozial bezala ezaugarritu beraien burua (adib.: bakearen aldeko mugimendua). 3. Konfiantza transmititzen duten pertsona eta instituzioak errekrutatu. 4. Bere gaien sinesgarritasuna eta bere arazoak markoztatzea. Aurreikuspenak asmatu. |

Markogintzaren dimentsio eta estrategiak markoaren egitura osatuko dute; marko honek dimentsio eta estrategia guztiak era egoki batean barneratzen dituen bere funtzio ideala bete duelarik. Orduan markoaren gaitasun mobilizatzailea gorena izango da. Marko enpirikoak, berriz, eredu errealak dira; beraien gaitasun mobilizatzailea eredu idealetik zenbat eta gertuago egon, orduan eta handiagoa izango delarik. Zentzu honetan, Gerhardsen arabera, hipotesiak formulatu behar dira; hori da eredu ideal bat eraiki eta marko enpirikoekin kontrastatzeko helburu nagusia. Hau da, marko enpirikoak marko idealekin alderatuz markogintzaren arrakastaren inguruko hipotesiak formulatu beharko lirateke.

Gerhardsek, beste hainbat autoreekin batera (Rosignano&Danaher, 2001; Edwards, 2014; ...) markogintzaren zabalpenean medioek jokatu duten papera nabarmendu zuen. Alde horretatik, mugimenduek estrategia komunikatibo eraginkorra diseinatu beharko dute (Ryan, 1991). Bertan, landu nahi duten gaiaren “bidezketasuna” baino bere *gailentasuna* (*newsworthy*) ondo landu beharko dutelarik (McCarthy et al., 1996: 297). Hau da, komunikabideek gaiak lantzeko tarte txikia izaten dute eta “istorio onaren” perfila beteko dituzten gaiak aukeratuko dituzte; funtsean, audientziaren arreta mantenduko dituztenak. Istorio on horiek espektakulu dramatikoak izango dira, garrantzi handiko gertakariak edota zorigaitzeko kontakizun emozionalak. Normalean, honek komunikabideen arreta bortitzak diren protestetara zuzenduko du (Edwards, 2014: 97). Horregatik komunikabideen atentzioak, jendartearen pertzepzioan eraginez mugimenduari aukera berriak ireki badiezazkioke ere, emandako arreta estiloak ere mugimenduaren erreputazioa baldintzatu dezake.

Aurreko autoreengan detektatutako mugimenduen barne egoerak behar bezala ez aztertzearen ahulgunea, Gerhardsek *aterki antolakunde*en kategoriarekin gainditzen saiatuko da. Horrela, mobilizazio zehatzetan arazoa era ezberdinean markoztatuko duten antolakunde ezberdinek parte hartu dezakete. Diferentziak diferentzia, *aterki antolakundeak* talde ezberdinak barneratu, antolakunde guztiak barnebiltzen dituen markoa garatu eta mobilizazioari bateratasuna emango dio. Rivasek Gerhardsi ahalegina aitortuko badio ere, mugimenduaren barruan ematen diren elkar-ekintzari arreta nahikoa ez eskaintzea leporatuko dio (1998: 203). Ekintza kolektiborako markoaren eraikuntzan aterki honen pean ematen diren eztabaidek jokatzen duten funtzioa behar bezala baloratu gabe eta arreta guztia mugimendutik kanpo kokatuko liratekeen bestelako eragileekiko izandako hartu-emanetan jartzea leporatuz.

Era berean, Gerhardsen planteamenduan ikuspegi utilitarista nagusituko da. Ikusmolde hau politizatuen dauden mugimenduen markoak ikertzeko baliagarria izango bada ere, motibazio pertsonalagoa duten mugimenduen ikerketarako ez da horren eraginkorra izango. Lehenengoetan hautemangarriak eta zehatzak diren helburuak lortzeko kanpora begirako jarduna lehenesten den bitartean, bigarrenengoetan mugimenduaren existentzia bera, gainontzeko kideekin elkar-bizitza edota gustura sentitzea mugimendua indarrean egoteko arrazoi nahikoa izan daitezke.

Gerhardsen metodoaren inguruan identifikatutako bi ahulgune nagusiei dagokienez (batetik, mugimenduaren baitako posizio ezberdinak behar bezala ez aztertzea; eta bestetik, arrazoi pertsonaletan oinarritutako mugimenduak aztertzeke mugapenak) gure ikerketa lanean lehenengoari arreta berezia eskainiko diogu. Izan ere, aztergai izango ditugun mugimenduen baitan dauden eragileen posizio ezberdinen arteko elkar-ekintza lehiatsua oso presente egongo baita marko komunaren eraikuntzan; “burujabetzaren” kategoria zabalaren erreferentzia pean bildu daitezkeen eragileetatik hasita, “euskal gehiengo sindikaletik” pasata, ezker abertzale edota autonomismoraino.

Gabezi hauek aintzat hartuta, Gerhardsen *Markoaren Egitura Idelak*, Snowen markogintzarekin batera, gure ikerketarako metodologiaren oinarri nagusi bat osatuko du, hegemoniaren artikulazio diskurtsiboaren nondik norakoak argitzeko balio dizkigutenak.

8. KAPITULUA: EKINTZA KOLEKTIBOAREN AZTERKETARAKO METODO BAT: POLITIKA LISKARTSUA

8.1 Sarrera

Hegemonia jendarte batean indarrean dauden identitate politikoen arteko arteko lehia bezala definitu dugu; lehia horrek botere politikoaren inguruko indar harremanak ezarriko dituelarik. Aurreko atalean identitate kolektiboen eraikuntza epistemologia konstruktibistaren bidez landu nahi izan dugu, bertan diskurtsoek jokatuko duten papera nabarmenduz eta horien azterketarako metodo bat planteatuz: *frame analysis* edo markoen analisia. Baina diskurtso hauek gatazka zehatzetan lekutu beharko dira, identitate ezberdinak mobilizazio prozesuan eraikiko direla aintzat hartuz (Melucci, 1992).

Honek prozesu politikoen ikuspegi *konstruktibista* batetik ikuspegi *lehiatsu* (*contentious politics*) batera salto egitea eskatzen digu. Izan ere, diskurtsoak ez dira era isolatu batean hutsetik eraikiko; gatazka prozesu baten baitan sortzen diren elkar-ekintzek baldintzatu eta norabidetuko dituzte. Hortaz, diskurtsoak gatazka edo protesta zehatzetan lekutu beharko ditugu. Protesta hauek kokatzerakoan denboraren dimentsioak berebiziko garrantzia izango du; hasiera eta bukaera duen prozesua bezala ulertuta. Horregatik, *protestaldiaren* edo *protesta zikloaren* kategoria baliatuko dugu, diskurtsoak eta nortasunen eraikuntzak lur hartzeko kontzeptua bezala.

Hainbat kasutan, protestaldiaren hasiera eta bukaera zedarritzea ez da lan erraza izango. Protestaldiaren barruan mobilizazio ezberdinekin aurkituko gara. Kasu askotan mobilizazio horien teilakatzeak protesta zikloa bera osatuko dute. Baina zerk ezaugarritzen du protestaldiaren hasiera? Ekintza kolektiboaren azterketan Tarrowek (1997) mobilizazioan gorpuzten den *lehia* edo une *disruptiboari* garrantzi berezia emango dio. Eskaera baten inguruan trinkotutako talde sozial batek indarrean den autoritatea lehiatzen duenean protestaldiari hasiera ematen diola esan dezakegu.

Baina protestaldiaren hasiera eta mobilizazio lehiatsua lotzen duen lehiaren inguruko baieztapen hau hainbat salbuespenekin aurkitu daiteke. Izan ere, autoritatearentzat desafioa suposatuko ez duten mobilizazioekin ere aurkitu gaitzke. Edota denboran zehar jarraikortasunik ez duten lehiekin ere. Hauek nekez kokatu ahal izango ditugu protesta zikloaren baitan. Ikerlari sozial gehienek lehiaren dimentsio publikoari emandako lehentasunak, alabaina, protestaldiaren hasiera ere lausotu dezake; mugimendu edo norbanakoek plano ezkutuan gelditu daitezkeen lehiarako mekanismoak baliatu ditzaketelako, era latentean ematen den gatazka ezkutuan utziz.

Protesta zikloaren kategoria hau xehatzen jarraitze aldera, McAdam, Tarrow eta Tillyk *mekanismo*, *prozesu* eta *liskarraldiaz* egiten duten bereizketa gogoraztea komeni. Lehenengoak, egoera ezberdinetan elementuen arteko harremanak era berdinean edo antzekoan aldarazten dituzten gertaera multzoa lirateke; bigarrenengoak, elementu hauen antzeko eraldaketak eragiten dituzten mekanismo hauen sekuentzia erregularrak; eta hirugarrenengoak, eskaera kolektiboak barnebiltzen dituzten gatazka korrante iraunkorrak.

Kategoria hauek gure ikerketa lanera ekarriz, eta Zubiagarekin (2013) bat eginez, "euskal gatazka" deitua izan dena, XX. mendearen erdialdean hasita, modernizazio prozesuetako protestaldietan ematen diren ezaugarri ezberdinak barnebilduko lituzkeen *liskarraldi* luze bezala ulertu beharko genuke. Atal enpirikoaren lehenengo zatian euskal protestaldia era zehatzago batean kokatuko badugu ere, ETAREN sorrera 50. hamarkadan, gure historia garaikidearen liskarraldiari hasiera eman zion lehiaren agerpen une gisa definitu dezakegu. ETAK, aukera politikoak aprobetxatuko zituen *mugimendu goiztiar* bezala, protestaldiaren aro modernoari ekin zion; ondorenean, horrelako prozesuetan Tarrowek identifikatutako ezaugarri eta fase ezberdinak denboran zehar garatzen joan zirelarik. Hain zuzen ere, esku artean dugun protesta zikloaren bereizgarri nagusia dimentsio tenporalarekin lotuta egon daiteke; nagusiki, euskal protestaldiak denboran zehar izan duen iraupen luzearekin. Baina horretan hurrengo atalean murgilduko gara. Balio dezala azalpen labur honek, Tarrowek 90. hamarkadaren bukaeran *protestaldi* bezala definitu zuen kategoria, urte batzuk beranduago (2001) McAdam eta Tillyrekin batera definituen zuen *liskarraldiaren* kategoriarekin antzeko eran baliatuko dugula azaltzeko; beti ere, lehenengoaren iraupen luzeko adiera baliatuz.

Gure ikerketan aztertuko dugun epealdia (1995tik 2005era doana), berriz, ziklo luze horren baitako (mobilizazio) *prozesu* bezala definituko dugu; hiru autoreok definitzen dituzten prozesu *sendoak* epealdi horretan bertan elkar-lotua azalduko zaizkigularik: eragileen eraikuntza, polarizazioa eta eskala aldaketa. Horrekin batera, prozesu horietan parte hartzen dituzten *mekanismoak* ere azaleratu

beharko ditugu. Hortaz, liskarraldi edo protestaldi zabaletik mekanismo zehatzetara eta mekanismo zehatzetatik protestaldi zabalera doan ikerketa gauzatu nahi izango dugu.

8.1 taula: *Agenda berriaren kategoriak gure aztergaira ekarrita*

| Agenda Berriaren kategoriak | Gure aztergaiak |
|-----------------------------|---|
| Liskarraldia | “Euskal gatazka” edo <i>euskal protestaldi modernoa</i> |
| Prozesuak | Lizarra-Garaziko (mobilizazio) prozesua. <ul style="list-style-type: none"> • Prozesu <i>sendoak</i>: kategoria osaketa, polarizazioa eta eskala aldaketak. |
| Mekanismoak | <ul style="list-style-type: none"> • Nortasunaren eraikuntzari dagozkionak: artekaritza, kategorien osaketa, zertifikazioa, ... • Protestaren garapenari dagozkionak: botere lehia, erradikaltzea, ... • ... |

Baina prozesuaren formarekin batera bertan lehiatuko diren *eduki* nagusiak ere aztertu beharko ditugu. Izan ere, *nazioaren* eta *demos*-aren ulermen ezberdinak lehia egongo diren afera nagusiak izango baitira. Hortaz, euskal protestaldia *nation-building* eta *demokratizazioaren* inguruko lehia bezala ulertu beharko dugu. Bertan hegemonikoa izateko bokazioa duen nortasun kolektiboa edo "gu"-aren bilakaera, *nazioa* edota *herriaren* kategoriaren definizioan ebatzi beharko delarik. Hauek izango dira, hain zuzen ere, *iraultzarekin* batera, MTTk liskarraldi bezala definituko dituen prozesu zabalak: *nazionalismoa* eta *demokratizazioa*.

Laburbilduz, atal metodologikoaren lehenengo partean, epistemologia konstruktivistaren bitartez, hegemoniaren eraikuntza ekintza kolektiboaren azterketara ekarri nahi izan dugu; horretarako diskurtsoen garrantzia nabarmendu eta beraien azterketarako metodo bat planteatuz. Bigarren atal honetan, berriz, diskurtso horiek mobilizazioan ematen diren ekintza kolektiboan forma hartzen dutenez, ekintza kolektibo hori zedarrizteko kategoria planteatu dugu: liskarraldia edo protestaldia.

8.2 Ekintza kolektiboaren ezaugarri eta forma nagusiak

Ekintza kolektiboak funtsezko hiru osagai barnebilduko duela aipatu dugu: *lehia*, *ziurgabetasuna* eta *elkartasuna* (Tarrow, 1997). Modu batean edo bestean, ekintza kolektiboan hiruak presente egongo dira eta horien garapenaren arabera ekintza kolektiboaren arrakasta ebatziko da.

Lehiak ohitura edo arau dena haustera joko du, autoritateari desafio eginez. Honek ez du esan nahi disidenteek espazio publikoa okupatu beharko dutenik lehia eraginkorrak aurrera eramateko. Lehia era sotilagoan ere eman ahal izango da; esaterako, instituzio, familia edo generoen arteko harremanetan (Katzenstein, 1990). Stephen Ackroyd eta Paul Thompson-ek (1999) ere joera sotilago honi helduko diote lehia *portaera txarraren (misbehaviour)* kategoriaren baitan landuz. Antolaketaren ikerketen kritikatik abiatuko dute kontzeptu honen elaborazioa. Izan ere, ekintza kolektiboaren azterketek askotan ez dute ikerketa eremuaren gaineko nahikoa zehaztasun emango. Sarritan ikertutako subjektuen gaineko irudi pasiboa, sumisioa eta otzana emango dute; mantsotasun irudi honen atzean, hainbat kasutan, subjektu hauek eskatzen ari zaiena ez egiteko bideak bilatzen ari direnean. *Portaera txarraren* kategoria boterearekiko ezberdintasun egoerak ematen direnean gauzatuko da, non boterea portaera norabidetzeko tresna gisa erabiliko den kontrola mantentzeko. Azken hamarkadotan gurean eman den ekintza kolektiboaren azterketan dimentsio publiko edo *agerikoak* arreta nagusia bereganatu badu ere, *izkutuan* edo atzealdean gordetzen den gatazka latente honek lehia politikoaren ikuspegia zabaltzen du (Melucci, 1996; Edwards, 2014: 216). Batez ere sistema autoritarioetan, non lehia edo erresistentzia publikorako adierazpenak erreprimituak diren, lehia politikoaren adiera honek ondorenean eszenatoki publikoan gertatu daitekeen ekintza kolektiboaren nondik norakoak ulertzen lagundu gaitzake.

Bigarrenik, *ziurgabetasuna* ez da bakarrik protestaldiaren luzapenaren gaineko ez-ezagutzaren emaitza izango, bere kostearen indeterminazioarena ere. Protestaldiak izan dezakeen zabalkundeak ere ziurgabetasuna areagotu dezake. Eskaera partikular batetik abiatzen den mobilizazioa beste eskaerekiko ekibalente bezala ulertzera iristen denean (Laclau, 2004) protestaldiak bere mugak azkar zabal ditzake. Prozesu honetan *elkartasunak* berebiziko garrantzia hartuko du. Ekintza kolektiboak norbanakoen arteko elkartasuna indartzera jo dezake; izan konpartitzen diren eskaera baten inguruan, izan eskaera ezberdinen arteko ekibalentzia sendotuz.

Hortaz, ekintza kolektiboaren boterea *lehia*, *ziurgabetasuna* eta *elkartasunaren* arteko uztarketatik emango da. Hiru ezaugarrien arteko uztarketatik ekintza kolektiboaren hiru forma nagusiekin aurkituko gara: *biolentzia*, *konbentzioa* eta *haustura* edo *disrupzioa*. Arestian aipatutakoaren harira, ikerketa sozialak bere arreta nagusia lehenengoaren gainean jartzera jo du. Ez da harrizkoa

medioek emandako atentzioagatik, status-a mantendu nahi dutenengan sortzen duen kezkatik eta gainontzeko kideen sortzen duen erakargarritasun edo uxatzeagatik. Historia garaikidean bortxa bitarteko politiko ohikoenetakoa izan bada ere, luzera mantendutako ziurgabetasuna gutxitzeko duen joeragatik bere eraginkortasuna baldintzatuko du. Tarrowen arabera, bortxaren erabilera disidenteek baliatu dezaketen bitartekoa izaten jarraitzen duen bitartean, ziurgabetasuna nagusi izango da eta ekintzaileek indarra irabazten jarraituko dute. Baina bortxa aktibatzen denean autoritateei errepresiorako aitzakia emango diete (Eisinger, 1973). McAdam, Tarrow eta Tillyren agenda berriaren azterketan ikusi dugun bezala bortxaren aktibazioa hainbat mekanismoei lotuta agertuko zaigu; horietako esanguratsuenetakoa *polarizazioa*: honek aliantza eta aurkaritza harremanak muturretara jotzea eramango du; mugimenduaren eskaeren eta autoritatearen jarreraren arteko harremana alde anitzetako joko lausoa izatetik, gatazka bipolarrera izatera eramango du; jendeak alde batera edo bestera egitera behartuko du; aliatuek alde egin dezakete, behatzaileek atzera egiten dute eta Estatuaren aparatu errepresiboa martxan jartzen da. Askotan jendarte multzo handien erabilerarekin parekatzera jo izan bada ere, normalean ondo antolatutako talde txikiek sustatuta emango da. Bitarteko politiko gutxi eskura dutenentzat martxan jartzeko erlatiboki erraza izango da; beste aldean, hainbat sektoreen begietara errepresioa zilegiztatu, iritzi publikoa polarizatu eta lehia politikoa Estatua eta talde txiki baten arteko gatazka militarra mugatu dezake.

Ekintza kolektiboaren zati handiena *konbentziotik* edo araututako prozeduretatik garatuko da. Jendearentzat errazagoa izango da ezagunak zaizkion bideetatik bere desadostasunak adieraztea, ezezagunetatik baino. Jatorrian ezarritako errutinekin haustura bezala eratu baziren ere, egun estatu modernoetako kultura politikoaren parte bihurtu dira. Grebak edo manifestazioak horren erakusle nagusiak izan daitezke. Antolakuntzaren ikuspegitik, ekintza kolektiborako bide hauek ez diete norbanakoei antolakunde bateko kide izatea eskatuko; hortaz, inplikazio eroso ahalbideratzen dute. Parte hartzaileen espektatiba eta deitzaileen helburuen artean akordio tazito bat bezala ulertu daitezke.

Ekintza *disruptibo*ei dagokienez, Tarrowek hiru ezaugarri nabarmenduko ditu: a) lehenik, mugimenduaren determinazioaren erakuslea izango direla; espazio publikoan agertzeko modua honen adierazpidea izango delarik; b) bigarrenik, disrupzioak eguneroko ohiko aktibitateak zailduko dituela nabarmendu behar da; eta c) hirugarrenik, haustura honek gatazkaren eremua zabalduko du. Trafikoa edo ekimen publikoak eragoztean, esaterako, manifestariak hiritarrei traba egingo diete, legearentzat mehatxu bat suposatuko dute eta Estatua gatazkara eramango dute.

Gorago esan bezala, honek ez du zertan mehatxua suposatuko duten ageriko forma publikoak zertan hartu; baina hauek neurgarriagoak izango dira, noski.

Disrupzioak ez-bortxazko formak edo bortxazkoak hartu ditzake. Lehenengoen artean ez-bortxazko *ekintza zuzena* ezagunena izan daiteke. Bere eraginkortasun nabarmenena, autoritateari desafio suposatzeaz gain, bestelako egoera batean autoritate honi lehiatzeko asmorik agertuko ez lukeen jendearen arteko elkartasuna zabaltzea litzateke. Horrekin batera, ziurgabetasunarekin jokatzeko duen gaitasuna ere nabarmendu beharko genuke. Ekintza zuzena ez da biolentzia, baina momentu batean biolentziara jotzeko aukerak ziurgabetasun hau handitzea ekartzen du. Bere arrisku nabarmenena araututako ohiko prozedura bilakatzean egon daiteke, horregatik ekintza kolektiboak etengabeko berrikuntzan murgilduta egon beharko du arrakastatsua izan nahi badu.

Beste hainbat kasuetan, berriz, disrupzioak bortxazko forma hartu izan du. Ohiko prozeduren bidea lehenengo aldiz apurtzen denean antagonistak beldurtuko dira, begira daudenak hunkitu eta eliteak kezkatuko ditu. Baina ekimen hauek medioetan geroz eta tarte txikiagoa hartzen joango dira, lehenengo aldiz egin izan balira hartuko luketena baino. Ekimen mota baten errepikapena ziurgabetasuna gutxituko du; begira daudenen artean axolagabekeria handitu; eta ekintzaileen artean nekea edo desilusioa. Une honetan disrupzioak errutina gainean izango du. Momentu horretan, ekintzaileek protestarako modu berriak asmatu ditzakete edo asmatutakoak erradikalizatu. Erradikalizazio honetan bortxaren erabilerara jo dezakete, baina aipatu dugu espiral honetan sartzeak ekar diezaikeen arriskuak: parte hartzaile potentzialak uxatu, balizko aliatuak aldendu edota Estatuaren jarrera errepresiboak areagotu. Hortaz, normala izango da mugimendua biolentziaren gaiaren inguruan behin eta berriro zatikatzea.

Baina ekintza kolektiboari jarraipena eman ahal izateko bortxaren erabilerara jotzea ez da mugimenduak izango duen aukera bakarra. Protestaren hasierako kemena ahultzen hastean eta sistemak protestei neurria hartzean, mugimenduak negoziazio eta konpromisoaren bidez bere taktikak instituzionalizatzerara eta etekinak ateratzerara jo dezake. Mugimenduak, alderdi edo interes talde bihurtuta, arrakasta lortu dezake; beste hainbatetan sistemaren baitako bere barneratzea edo errutinan erortzea. Edozein kasutan, gehienetan zaila izango bien arteko muga ezberdintzea. Izan ere, horrelakoetan jatorrizko helburuen desplazamendua egon ohi da. Beraz, emaitza hasierako helburuekin alderatuta porrotaren irudia nagusitu daiteke; baina protestaren garapenean eman den helburuen aldaketari erreparatuta mugimenduaren eliteak arrakastatik gertu gelditu izan ohi dira.

Disrupzioetik konbentziora joan daitekeen bilakaera honetan mugimenduek mota ezberdinetako bitartekoak erabili ditzakete. Esan bezala, horietako batzuk bortxaren erabileratik pasako dira; beste batzuk ekintza zuzeneko erabilera ez-bortitzaren bitartez garatuko dira; eta beste hainbat araututako prozeduretatik. Mugimenduak aldagai ezberdinak aintzat hartuta bata edo bestearen erabilera lehenetsi beharko du; *forma anitzetako mugimenduek* egin ohi izan duten bezala, bitarteko ezberdinen erabileraren uztarketarekin aurkituko garelarik. Baina edozein kasutan berrikuntzarako aukera emango da. Bitarteko konbentzionalenen kasuan ere mugimenduak berrikuntza sinboliko eta bat-batekotasunerako tartea aurkitu dezake, ohiko manifestazioetan inauteritako jolas-elementuak (mozorroak, parodiak, ...) txertatuz, esaterako. Berrikuntza hau errepertorioaren marjinak zabalduz emango da eta mugimendu berrien ekintza kolektiborako errepertorioa zabalduko du.

Modu batean edo bestean, ekintza kolektiboaren inguruan orain arte aipatutako ezaugarri eta forma guztiak aztertuko dugun mobilizazio zikloan agertuko zaizkigu. Orain ekintza kolektiboaren ezaugarri eta forma horiek dinamika baten kokatzea dagokigu. Hau da, ekintza kolektibo hori denbora eta bilakaera baten baitan kokatzea, bere bilakaeraren urrats nagusiak aurre-ikuste aldera. Jarraian ekintza kolektiboa *protesta zikloaren* baitan kokatzen saiatuko gara.

8.3 Protesta zikloa

Tarrowek protesta zikloa horrela definituko du:

“Cuando empleo el término ‘ciclo de protesta’, me refiero a una fase de intensificación de los conflictos y la confrontación en el sistema social, que incluye una rápida difusión de la acción colectiva de los sectores más movilizados a los menos movilizados; un ritmo de innovación acelerado en las formas de confrontación; marcos nuevos o transformados para la acción colectiva; una combinación de participación organizada y no organizada; y unas secuencias de interacción intensificada entre disidente y autoridades que pueden terminar en la reforma, la represión y, a veces, en la revolución” (Tarrow, 1997: 264).

Zentzu honetan, protesta zikloak aldaketa sozial eta politikorako benetako inflexio uneak izango dira baina normalean antolatutako gainontzeko mugimenduekin eta instituzioekin era zorrotz batean mugatu gabeko harremana izan ohi dutenez, beraien ikerketarako zailtasunak ugaritzen dira.

Ikerketa sozialetan gaien banaketarako joera nagusitzen denean, protesta zikloen azterketak sintesi eta elementu ezberdinen uztarketarako joera eskatuko digu. Ikus ditzagun protesta zikloaren elementu nagusiak zeintzuk diren.

8.3.1 Protestaren faseak.

8.3.1.1 Protestaren abiatzea.

Protestaldia ondo kokatutako ekintzaile *goiztiarrentzat* aukerak zabaltzen direnean martxan jarriko da. Hau da, ekintzaile hauek beste ekintzaile batzuen eskaerekin sintonian egon daitezkeen eskaerak planteatuko dituzte; eskaeren arteko sinergia sortuko dira jatorri ezberdinetako aktoreen arteko koalizioei bide emanez; honek eliteen ezegonkortasuna areagotzen duelarik. Protesta zikloaren hasieran agertzen diren eskaerek bi funtzio beteko dituzte: batetik, eskaera horien aurrean agintarien ahultasuna erakutsiko dute, beste disidenteei beraien eskaerak mahai gaineratzeko unea iritsi dela iradoki diezaiekeena; eta bestetik, beste talde batzuen interesak zalantzetan jarriko dituzte, izan talde batek jaso ditzakeen onurak beste talde batek galdu ditzakeelako, izan planteatutako eskaerek egonkortutako talde baten interesak kaltetu ditzakeelako (Tilly, 1995).

Aristide Zolberg-ek (1972) protestaldiaren hasiera hauek *zoramen une* bezala izendatuko ditu. Historiaren une iskanbilatsuei erreferentzia egingo die. Politikak guztia zehartzen duen momentu ez-egonkorrak dira; beraien bilakaerak, sarritan, ekintzaileengan etsipen sentsazioa sortuko badu ere. Hala ere, “jendartean eraldaketa politikorako” beharrezkoak izango dira, kontsentsuaren geruza zeharkatzeko beharrezkoak diren aktore berrien iturria direlako.

8.3.1.2 Protestaren zabalpena eta indartzea.

Protestaldiek maiztasun iraunkor bat izan ez arren eta jendartean era berdinean zabalduko ez diren arren, historia garaikidean badira horiek ezaugarritzen dituzten hainbat bereizgarri.

Protesta zikloan zehar gatazka maila eremu ezberdinetan areagotuko da: lan zentroetan, ikastetxeetan, kaleetan, ... Protestaren zabalpen honetan ekintza kolektibo gatazkatsuen maila aurretik eta ondoren ohikoa izaten dena nabarmen gaindituko du. Giza talde batzuk protesta hauen buruan agertu ohi dira (ikasleak, gazteak, langileak, ...) baina protesta indartzen denean, sarritan, bestelako kolektibo batzuk gehituko zaizkio. Zabalpen hau ez da bakarrik sektoriala izango; geografikoa ere izan ohi da, lurralde eremu zehatz batean hedatuz (herritik hirigunera edo alderantziz, esaterako). Horrela, ekintza kolektiboa hasierako ekintzaile goiztiarren talde txiki horretatik bestelako eremu sozialetara zabalduko da. Bigarren talde hau *eratorritako mugimenduek* osatuko dute, jatorrizko mugimendu abiarazletik bultzada eta inspirazioa dutenak (McAdam, 2002: 245). Hedapen hau jendarte osoaren matxinatze orokortu bat bezala ulertzea akats nabarmena izan daiteke; honakoa gutxitan gertatuko baita. Ekintzaile goiztiarren ekintza kolektiboak beraien artean urruntasun maila bat duten sektoreen ekintzaren difusio, imitazio edota erreakzioa izango da protestaldiaren efektu nabarmenena.

Prozesu sozialen azterketarako agenda klasikoaren atal ezberdinetan ere eragin nabarmenak izango ditu. Horrela, protesta zikloek errealitatearen *interpretaziorako marko sinboliko* berriak sortuko dituzte, mugimenduaren jarduna jendartearen aurrean duintzen lagunduko dituztenak. Marko hauek hasiera batean mugimenduko kideentzat erreferenteak izango dira baina jendartearen nagusi diren uste eta sinismen orokorrekin lerratzea lortzen badute sisteman zehar barreiatuko dira. Marko kultural hauek ez dira protestaldiaren hasieran ernatu ziren bezala mantenduko; jendarteak bere ingurunea interpretatzeko baliagarri zaiona hartu edo birmoldatu eta gainontzekoa alboratuko du. Antzeko zerbait gertatuko da protestarako erreperitorioarekin. Frantziar Iraultzak, esaterako, barrikada protestarako bitarteko gisa orokortu zuen. Ekintza kolektiborako bitarteko hau ondorengo belaunaldietako mugimenduentzat erreferente izaten jarraituko du, ondorengo protestaldietako bitartekoen eskaintza zabalduz.

Antolakuntzaren ikuspegitik, protestaldiaren une gorenak antolakunde berrien sorrerako pizgarriak sortu eta aurretik indarrean daudenak erradikalizatzeko bidea irekiko du. Protestaldiak gutxitan egongo dira antolakunde bakar batengatik gidatuak; baina honek ez du esan nahi izango mugimendu zaharrak berriengatik ordezkatuak izango direnik. Esan bezala, azken hauek beraien *lehiarako erreperitorioa* erradikaltzera joko dute, beraien lehiakideen aurrean posizio definituago eta erasokorrago bat erakusteko. Erradikalizazio hau oinarrien babesa zabaltzeko asmoagatik bultzatuta egon daiteke; sarritan taktikaren erradikalizazioaren inguruko ikuspegi ezberdinek mugimenduaren zatiketa eta ondorengo gainbehera ekarri badezakete ere.

8.3.1.3 Protestaren gainbehera.

Orain arte ikusitakoaren arabera protesta zikloak aukera politikoen zabalpenarekin abiatu ohi dira, Normalean lehenengo aldarrikapenak interes zehatzen inguruko liskarretatik martxan jarriko dira. Baina protestak zabaltzera joko du, honen inguruan sortutako koalizioek antolakundeak osatu eta beraien eskaerak hedatuko dituztelarik. Aldi berean, autoritatearen kontrako lehia erradikalizatuko da, eskaera zehatzen inguruko borrokatik botere politikoen inguruko borrokara jauzi eginez. Mugimenduaren zabaltasunak ordenua kolokan jarriko du, kontra-mugimenduen sorrerari edota Estatuarekin negoziazioei bide emanez. Mugimenduaren politizazio honek mugimendu eta autoritateen arteko negoziazioei bide eman ohi die, protesta gainbeheran doan heinean ekimena elite eta alderdien eskuetan utziz.

Beste hainbat kasuetan errepresioak protesta zikloari bukaera emango dio; edota mugimenduaren eskaerek autoritateen aurrean izango duten harmen eskasak ere protestaldiarekin bukatu dezake. Tarrowek (1997) mobilizazio ziklo hauek parabola moduan deskribatuko baditu ere ez die bukaera posible bakar bat egotziko.

8.3.1.4 Protestaren bukaera posibleak.

Protestaldien balorazioak epe motzean uzten dituzten emaitzen arabera egin ohi izan badira ere, mobilizazio zikloak beraien eragina berehalakoan baloratzen horren errazak ez diren epe ertain-luzeko ondorioak uztera jo izaten dute. Hiru nabarmenduko ditugu:

- *Protestaldian parte hartzen duen kideen politizazioa:* Albert Hirschman-ek (1982) protestaldiaren bukaeran ekintzaileak izan direnen artean sortu ohi den etsipen sentsazioa nabarmenduko du. Baina desilusio hau ez da aktibismotik eratorriko, hasieran finkatuko helburu eta lortutako emaitza errealeen arteko distantziagatik baizik. Hipotesi ezkor honi ere parte hartzea zenbat eta arriskutsuagoa izan ekintzailea orduan eta etsituagoa atera daitekeenaren ustea ere lotuko zaio. Baina ikuspegi baikorrago batetik mugimenduan parte

hartzeak kideak politizatzeaz gain ahaldunduko ditu; bai aipatuta arriskuak hartzeko prest egotearen aldetik, bai gaitasun eta ikuspegi berriak bereganatzearen ikuspegitik ere. Aldi berean, parte hartze aktibo honek parte hartzaileak politizatzeaz gain erradikaltzera eraman ditzake mugimendu osoaren bilakaera detHirschmanerminatuz. Ekintzaileen goraldi honen biharamun ohikoena apatia edo profesionalizazioa dela aipatu izan da. Baina hainbat kasutan beraien eguneroko bizitzara bueltatuko dira ikuspegi helduago batekin eta etorkizuneko aktibistak izan daitezkeenekin harreman sare informala osatuta.

- *Instituzio eta praktika politikoaren gaineko eragina*: gorago aipatu bezala protesta ziklo baten arrakasta neurtzea ez da lan erraza izango: epe motzeko eta epe luzeko emaitzak; sistemaren baitan erreformarik lortu den edo ez eta beraien sakontasuna; edo botere politikoak izandako bilakaera arretaz begiratu beharreko elementuak izango dira. Tarrowek aukera politikoaren egiturari garrantzia emango dio. Bere ustez, mugimenduak aukera hauen baitan sortu eta garatzen direnez protestaldiaren amaieran loratzen den aukeren egitura aldakorrak zeinek irabazi eta zeinek galdu eta borrokak erreforma noiz ekarriko duen argituko du (1997: 298).
- *Kultura politikoaren aldaketak*: kultura politikoa kontzeptu labainkorra izango da; enpirikoki neurtzeko zaila. Esan dugun bezala, ekintza kolektiboaren azterketarako agenda klasikoa erabat baztertuko ez dugunez, kultura politikoaren bilakaerak bere atal nagusietan izan dituen eraginak aztertu ditzakegu. Protestaldiak, esaterako, munduaren interpretaziorako marko berriak eskainiko ditu, lehenik ekintzaileei eta, arrakasta izanez gero, bestelako sektore sozialei. Aipatu dugun bezala ere mobilizazio zikloak ekintzarako bitarteko berriak eskaini ditzake; Frantziar Iraultzan barrikadekin egin bezala. Edota agenda politikoetan lehentasun berriak ezar ditzake emakumeen eskubide edo ingurugiroari lotutako aldarrikapenekin gertatu bezala.

Modu batean edo bestean protesta zikloen bukaeran hiru emaitza hauek presente egongo dira. Kasu batzuetan protestan parte hartu duten kideen politizazioa eragin nabarmenena izango da; beste hainbatetan protestak kanpora begira edo ekintzaileen hurrengo belaunaldiei begira eragina izango du, marko edo ekintzarako bitarteko berriak oinordetzan utziz; eta beste batzuetan, borrokak sistemaren maila bateko erreforma (edota iraultzea bera) ekarri dezake. Baina zergatik lehiatuko dira ekintzaileak? Zeintzuk izango dira beraien *leit motiv*-ak? Edo beste modu batera esanda, zeintzuk izango dira protesta zikloaren edukiak. Horiek dira jarraian aztertuko ditugunak.

8.3.2 Protestaren edukiak.

McAdam, Tarrow eta Tillyk (2005) ekintza kolektiborako hiru prozesu zabal definituko dituzte: iraultza, nazionalismoa eta demokratizazioa; hiruak protestaldirako ziklo zabal bezala ulertuak. Gure ikerketa gaiak nazionalismoak eta demokratizazioak jasoko dituzten mekanismo eta ezaugarri nagusiak barne bilduko ditu. Izan ere batak zein besteak afera berberaren gainean arituko baitira.

Laclauk (2008) adierazitakoaren zentzuan demokraziaren egitekorik behinena *herria* edo *demos*-a eraikitzea izango da; nazionalismoarena *nazioa*. *Herria* eta *nazioa*, ekintza kolektiboaren bitartez garatzen den nortasun kolektiboaren eraikuntza gisa ulertuta, prozesu politikoaren eginkizun nagusizat hartu dezakegu. Prozesu hau, ordea, gatazkatsua izango da. Gatazkatsua, "gu"-a osatuko duen herria edo nazioaren gaineko ikuspegi ezberdinak egongo direlako. Hortaz, protesta zikloak garatuko dituen edukiez ariko gara hurrengo lerroetan.

8.3.2.1 *Lehia demokratikoaren funtsa.*

Moufferen (2000; 2007) arabera sistema politiko garaikideetan bi elementuen inguruan sortzen diren interpretazio ezberdinak izango dira tentsio honen eragileak: *askatasuna* eta *berdintasunaren* ingurukoak, hain zuzen ere. Hauek izango dira protesta zikloaren eduki nagusiak eta liskarraldi horren baitan beraien esanahiari forma eman beharko zaie. Atal teorikoan ikusi bezala oinarrizko bi printzipio hauen gainean mamituko dira azken mendeotako mendebaldeko korrante ideologiko demokratiko nagusiak: liberalismoa eta errepublikanismoa. Batak zein besteak arestian aipatutako oinarrizko bi kategorien inguruko ikuspegia landuko dute; liberalismoaren kasuan norbanakoen eskubideengan arreta jarritz, errepublikanoen kasuan komunitatearekiko erantzukizun edo eginbeharrak azpimarratuz. Moufferen ustez askatasuna eta berdintasunaren kontzeptuek jendarte modernoaren eginkizun fundatzailea hartuko dute; hau da, jendarteari kolektibo gisa oinarrizko egonkortasuna ematen dioten kategoriak izango dira. Baina ez liberalismoak, ez eta errepublikanismoak ere ez dira prozesu honen sakoneko izaera gatazkatsua antzemateko gai izango. Izan ere, bata eta bestearen inguruan aritutako pentsalari ezberdinek bi printzipio hauen gainean gauzatuko litzatekeen barne-adiskidetutako jendarte itxitura aldarrikatuko baitute. Liberalaren kasuan, Rawlsen adibidez, *ez-jakintasanaren errezelak* emango lukeen justiziaren adiera konpartituan oinarrituz; Sandel errepublikanoak jendartearen kohesiorako aldarrikatutako *balore*

moraletan eutsiz; edota Sloterdijkek planteatutako harrotasun edo *thymós*-a baliatuz. Moufferen arabera batzuk zein besteek mugapen berdina izango lukete: *politikoaren* funtsa ezaugarritzeko mugapenak (1999: 55). Batzuk eta besteek jendarte antolaketa ezaugarritu behar duen politikoaren muinari *prozedurazko* izaera emango diote, bere izaera *eratzaille* gatazkatsuen ikuspegia planteatu gabe. Izan errepublikanoek (moral komunaren ikuspegia lehenesten dutelako), izan liberalek (norbanakoen eskubideak *a priori* aitortuak zaizkigunaren ikuspegia lehenesten dutelako), jendartea *jendarte* egingo duen *politikoaren* dimentsio gatazkatsu eta aurre definitu gabeari uko egingo liokete.

Zizekek (2007) politikoa baliogabetzeko saiakera honetaz ohartaraziko digu. Horrela komunitaristek jendartea organikoki egituratutako espazio sozial tradizional eta homogeneoa bezala definitzeko saiakera *artxi-politika* bezala definituko du; *gertaera* politiko "fundatzailea" indargabetzeko helburuarekin. Rawlsek planteatutako mekanismo ezberdinak politikoaren adiera *para-politiko* bati erantzungo liokete; ikuspegi honek gatazka politikoa onartzen badu ere, hirugarren batek edo "polizia" batek zuzendutako alderdi edota zilegitutako aktore politikoen arteko lehia gisa egingo du, egiazki *politikoa* litzatekeen eztabaida ekiditeko arauen barnean jokatzu.

Carl Schmitt politikoen adierak baldintzapen hau gainditzeko lagunduko du. Schmittentzat demokrazia "herriaren borondate bateratua" litzateke. Eta zentzu horretan, sistema demokratikoa "printzipio edota ideia zuzentzaile batzuen inguruan, Estatuaren konfigurazio zehatz baten aldeko erabakiaren isla" (1991: 14-15). Hau da, demokrazia homogeneotasunarekin parekatzera joko du. Adiera honek, berriz, bestelako arazo bat mahai gaineratuko du: aniztasun faltarena. Beraz, Schmitt borondatearen edo *dezisionismoaren* indarrak liberalek eta errepublikanoak ezkutatutako politikoaren sakoneko dimentsio gatazkatsua azalarazteko balio izan bazuen ere, bere izaera antagonikoak pluralismoa errefusatu zuen. Politika "gu" eta "haien" arteko gerra gisa irudikatuz, gatazka sinbolikoaren garapenean konpartitutako edozein orube komun desager-arazteko ahalegina litzateke (Zizek, 2007: 30).

8.3.2.2 Lehian egongo diren demokrazia ereduak.

Hari honi tiraka harreman politikoak eta, oro har, herriaren eraikuntza prozesua ulertzeko modu nagusiekin aurkituko gara. Zubiagaren (2012) eskemari jarraituta, gure ikerketa gaien ere oso presente egongo diren lau eredu nagusi ezberdinduko ditugu:

- *Antagonikoa*: politikoaren adiera nagusia lagun/etsai logika dikotomikoan ulertuko litzateke. Erabakimenaren indarrak ebatziko luke jendartearen artikulaziorako gai nagusia, bertan inongo elementuk nagusitasun aurre-determinaturik ez lukeelarik izango. Soilik jokoan dauden aktoreen indarrak argituko du elementu hau zein izango den. Aktore nagusiak Estatuak izango dira eta gerraren bitartez ebatziko da harreman politikoaren nondik norakoak.
- *Gehitzailea*: esan dezakegu Schumpeterren pentsamenduari lotuta garatuko dela demokraziaren adiera hau. Masen demokraziaren garapenarekin sektore sozial ezberdinen interesen ugaltzea emango da. Bilakaera honek arreta lehentasunen agregazioan jarriko zuen demokrazia eredu beharrezkoa egingo luke, lehentasun horiek aldiro aukeratutako alderdi politiko batzuen bidez zehaztuko zirelarik. Horrela, demokrazia bera, hauteskunde prozesu lehiatsu baten bidez, jendarteak bere zuzendariak hautatzeko sistema gisa definitua izango da. Sektore sozial ezberdinen interesak alderdien arteko negoziazio gai nagusiak osatuko lukete, parte hartze soziala apalduz.
- *Eztabaidazalea*: bigarren modernitatean deiturikoan korrante honi lotu daitezkeen hainbat autoreekin egin dezakegu topo (Habermas, Giddens, Beck, ...). Adiera oso ezberdinak izan baditzake ere, funtsean ez du eredu antagonikoak planteatutako gatazka politikoa errefusatuko. Lehia horretan interes ezberdinen batuketaren emaitzaren eredu ere zalantzetan jarriko du. Baina gatazka hori eztabaida arrazionalaren bitartez gainditu ahal izango denaren ustea defendituko du. Horretarako eztabaida publikora ateratzeko gaitasuna eta nahia duten hiritar aktiboak funtsezkoak izango dira. Eredu gehitzailean ez bezala, parte hartze sozial honek demokraziaren adiera normatiboa indartuko luke, eredu gehitzaileak sustatzen duen prozedurazko ereduaren aurrean.
- *Agonista*: Mouffek babestutako eredu honek eztabaidazaleek kontsensuaz duten irudia kritikatu du. Izan ere, azken hauentzat eztabaida arrazionalaren halabeharrezko emaitza kontsensua izango baita; horren baitan ebatziko delarik jendartearen konfiguraziorako funts nagusiak. Lehia agonistikoa, aldiz, inoiz bukaera izango ez duen gatazka prozesua izango da; asko jota adostasun puntu hauskorak eta kontingenteak lortzen dituen. Horren baitan argitu beharko delarik hegemoniaren aldeko borroka. Moufferentzat eredu eztabaidazaleak planteatzen duen arrisku nagusia kontsensu horretatik kanpo kokatu daitezkeen sektoreak

lehiakide bezala kontsideratu beharrean, *etsai* bezala irudikatzean egongo da. Eta hortik Schmitten ereduari egotzitako gehiegikeria guztiak; batez ere, sistema demokratiko garaikideetatik kanpo hainbat sektore uztearen ondorioz hauen artean sortu daitezkeen muturreko joerak. Horregatik demokraziari egonkortasuna emango dioten balioak irudikatzeko orduan, ulermen ezberdina duena *arerio* bezala kontsideratzearen garrantzia eta ez *etsai* bezala. Bide batez, eredu agonistikoaren arabera, sistema demokratikoek lehia politiko horretan sortzen diren pasioei bide emateko aukera eskaini beharko lituzkete, arestian aipatutako muturreko joerak ekidite aldera.

Lau eredu hauetan eskematizatu ditzakegu lehian egongo diren demokrazia eredu nagusiak. Baina modelo teoriko guztiekin bezala, nekez aurkituko dugu eredu bakarra eta bere ezaugarrien ehuneko ehuna jasoko dituen sistema enpirikorik. Sistema bakoitzaren baitan eredu ezberdinetako ezaugarriak nahastuko dira, eredu nagusi bat marraztu nahian. Zentzu horretan, protesta zikloaren baitan argitu beharko da eredu hauen harremana, bilakaera eta nagusitasuna. Hortaz, demokraziaren inguruko borroka ekintza kolektiboaren garapenaren ondorioz ebatziko den prozesua izango da.

Ildo honetan gure ikerketa gaia ez da salbuespena izango. Lehenik hipotesien atalean eta ondoren atal enpirikoan planteatuko dugun bezala, gurean eredu ezberdin hauekin ere topo egingo dugu. Aztertuko dugun (mobilizazio) prozesuan, protesta ziklo zabalago baten parte bezala, demokratizaziorako eredu hauen artean emango den harreman lehiatsua eta bakoitzaren bilakaera landu nahiko dugu. Era berean, honek hegemoniaren eraikuntzan dituen inplikazioak nabarmendu nahi izango ditugu. Izan ere, demokraziaren eginkizun nagusia *demos*-a eraikitzea bada, demokrazia bera nortasun kolektiboaren eraikuntza prozesu nagusi bezala identifikatu dezakegu; hegemoniaren aldeko borroka nortasun hauen nagusitasunaren aldeko lehia "baino" izango ez delarik (Laclau, 2000).

9. KAPITULUA: PROTESTALDIAREN AZTERKETARAKO DISEINU METODOLOGIKOA

9.1 Diskurtsoa eta mobilizazioa, protesta zikloaren azterketarako neurgailuak

Ikusten ari garen bezala tresneria metodologiko bikoitza baliatuko dugu gure ikerketan. Batetik, diskurtsoen analisirako Snow eta Benfordek baliatutako *frame analysis*-aren teknika, Gerhadsen *Marko Idealen Egiturarekin* "hobetuta". Eta bestetik, protestaldiaren kategorian lekututa, ekintza kolektiboaren azterketarako McAdam, Tarrow eta Tillyk planteatutako mekanismo eta prozesuak; demokratizazioan sakontzen duten mekanismoengan arreta berezia jarritz.

Honen arrazoia Snow-ek eta Benford-ek 2014an markoen azterketetan zentratutako ikerketa batean luke abiapuntua⁹⁶. 2000. eta 2011. urtearen artean erreferentziazko sei aldizkari akademikoetan mugimendu sozialak markoen bilakaeraren ikuspegitik aztertutako berrogeitik gorako ikerketa lanekin aurkituko dira. Hauek sailkatzerako orduan markoari egotzitako funtzio kausala ardatz bezala hartuko dute. Horrela lau eredu mota ezberdinduko dituzte: a) markogintza aldagai aske bezala; b) markogintza menpeko aldagai bezala; c) markogintza menpeko aldagai eta aldagai aske bezala; eta d) markogintza ez aldagai aske, ezta menpeko bezala ere. Lehenengoak markogintza X efektuaren sortzaile bezala kokatu luke; efektu mota hauen artean eragin politiko edo ekonomikoak edota mugimenduaren mobilizazioari dagozkionak nabarmendu daitezkeelarik. Bigarrenak, markogintza beste X aldagai baten ondorio bezala ulertuko luke; bertan gai kulturalen eragina, aukera politikoak, nortasun politikoak edota elkar-ekintza dinamikak nabarmentzen direlarik. Azaldutako ikerketen artean markogintza aldagai menpeko bezala kontsideratuko dutenak erdia baino gehiago izango dira; soilik bik markogintza aldagai aske eta menpeko bezala ulertuko dutelarik. Zentzu honetan, gure metodologiak azken eredu honi helduko diola esan dezakegu. Izan

⁹⁶ Snow, D.; Benford, R.; McCammon, H.; Hewitt, L.; Fitzgerald, S. (2014): The Emergence, Development, and Future of the Framing Perspective: 25+ Years since "Frame Alignment". *Mobilization: An International Quarterly* 19(1): 23-45.

Diskurtsoen Teoriak hegemoniaren aldeko lehia nortasun kolektiboen eraikuntza prozesuaren elementu nagusiak azaltzen saiatzen den bitartean, markoen analisiak operazio honetan diskurtsoek zer paper eta nola jokatzen duten argitzen saiatuko da. Aldi berean, diskurtsoak ekintza kolektiboan forma hartzen duten heinean, mekanismo eta prozesuek diskurtsoak nola eratzten diren ulertzen lagunduko digutelarik; beti ere, norabide biko prozesu batez ari garela aintzat hartuz. Hau da, *mekanismo eta prozesuek diskurtsoetan eragina izango dute, baina diskurtsoek ere ekintza kolektiboaren mekanismo eta prozesuak baldintzatuko dituzte.*

Markoen analisiak mugimendu batek errealitatearen interpretazio politiko zehatz bat nola eraiki, zabaldu eta hainbatetan nagusitzen duen ulertzen lagunduko digu. Agenda Berriaren mekanismo eta prozesuek aldagai sozialen arteko harremanak une ezberdinetan gertaerak antzeko eran nola aldarazten dituzten (McAdam, Tarrow eta Tilly, 2005: 26). Bien arteko uztarketa eta osagarritasunak hegemoniaren artikulazioan eta protestaren garapenean parte hartzen duten aldagai zehatzen azterketarako baliagarriak izango zaizkigu.

Steinbergek (2002), esaterako, diskurtsoaren eta bestelako errepertorio *instrumentalaren* arteko harremana eta osagarritasuna aztertuko du. Bere ustez, talde batek pairatutako irainen kontzientzia edota dituen helburuak erantzunezko diskurtsoen bitartez eraikiko ditu; diskurtso hauek borrokan, era *dialogiko* batean, garatu direlarik. Bere hitzetan, lehiatzaileek diskurtsoaren bidez autoritatearen aurkako *kontra-hegemonia* prozesu bat abiatuko dute. Bitarteko diskurtsibo hauek aipatutako bitarteko instrumentallengatik sendotuak ahal izango dira, diskurtsoei egonkortasuna emanaz (Steinberg, 2002: 96). Eta, aldi berean, diskurtsoak lehia presente egongo diren bestelako bitarteko instrumental hauekin sintonian egon beharko dira. Gure ikerketan, mekanismo eta prozesuek jokatuko dute funtzio instrumental hau eta markogintzak definituko du diskurtsoaren bilakaera. Ildo honetan, Steinbergen arabera, ekintza kolektiboaren bilakaera ulertzeko ezinbestekoa izango da errepertorio diskurtsibo eta instrumentalaren arteko harremana behar bezala aztertzea.

Aparatu metodologikoan baliatuko ditugun markoen eta mekanismoen azterketan zentratuta, honek ekintza kolektiboaren azterketarako Agenda Klasiko eta Agenda Berriaren arteko hainbat argipen eskatzen dizkigu. Izan ere, Agenda Klasikoari egotzitako ikuspegi estatikoak, bera alboratu eta mekanismo eta prozesuen dinamismoan zentratzera eraman gaitzake. Baina jarraian azalduko dugun bezala, Zubiagak (2013) planteatutako ereduari jarraiki eta MTTren kritikoek (Rutch, 2003; Oliver, 2003; Klandermans, 2003; ...) planteatutakoa aintzat hartuz, Agenda Klasikoa ez dugu erabat alboratuko. Honen atal nagusiak (aukera politikoak, mobilizaziorako bitartekoak, markogintza eta

antolakuntza bitartekoak) mekanismo nagusiak sailkatzeko baliatuko ditugu, mekanismo horietako batzuen eta Agenda Klasikoaren atalen artean existitzen diren hainbat antzekotasun probestuz.

Gainera, gure diseinu metodologikoan markogintza edo *framing*-ari emandako garrantziak (Agenda Klasikoaren atal bezala) Agenda Berriaren dinamismoaren garrantzia zalantzetan jartzen duela ulertzera eraman dezake. Ez da hori gure asmoa. Batetik, hegemoniaren eraikuntzan diskurtsoak duen garrantzia aintzat hartuta, markoen analisiak tresna egokia eskaintzen du bertan parte hartzen duten prozesu zehatzak arakatzeko. Eta bestetik, Agenda Berria baliatzeak diskurtsoen eraikuntzan MTTren mekanismoek nola parte hartzen duten erakusten lagunduko digu. Hortaz, markoak eta mekanismoak hartu-emanen egongo diren eta elkar osatuko duten aparatu metodologikoaren bi hankak bezala ulertu behar ditugu.

Adibide bat jartzearen: euskal nazionalismoaren baitako bi familietan "autonomismoaren agorpenaren" diskurtsoaren nagusitasunak, alde bateko hertsadurarako mekanismoen apaltzea ekarri zuen bezala (ETAren su-etena), momentu batean emango den hertsadurazko mekanismo hauen (bir)aktibazioa eta eskala aldaketak "abertzaleen arteko elkarlana ezinezko" egiten zuenaren marko interpretatzailea nagusitu zuen. Hau da, diskurtsoak ekintza kolektiboaren garapenerako mekanismoak baldintzatzen dituen bezala, mekanismoek hegemonikoak izango diren diskurtsoak baldintzatuko ditu; eta gogoratu dezagun, Diskurtsoaren Teoriaren arabera, identitate kolektiboak diskurtsoen bitartez eraikiko direla.

Hurrengo orrialdeetan azterketa zehatz baterako diseinu metodologiko bat lantzen saiatuko gara.

9.2 Markoen analisia hegemoniaren eraikuntzaren azterketarako

Snow eta Bendforten *framing*-ak markoen azterketarako oinarrizko abiapuntu bat ezartzen badu ere, hauen azterketa sistematikorako metodo zehatzago baten gabezia agerikoa izango da. Horrela, Wilsonen identifikatutako markogintzaren hiru atalak (*diagnostikoa*, *pronostikoa* eta *motibazioa*) gure diseinu metodologikoaren orubea izango dira, horren baitan Gerhardsen Marko Idealaren

Egiturak planteatutako markogintzaren *dimentsio* eta markogintzaren *estrategien* arteko banaketa txertatuz.

Adibidez, Snow eta Benfordek markoaren *diagnostikoari* egotzitako eginkizun orokorra "arazo baten identifikazioa eta kaltearen edo jatorriaren atribuzioa" egitea bada, Gerhardsek planteatzen dituen "eztabaida publikorako gai baten aurkikuntza" eta bera "arazo sozial gisa aurkeztearen" markogintzaren *dimentsioek* ikerketarako metodo zehatzago bat izateko aukera emango digute. Metodoaren zehaztapen honetan, dimentsio bakoitza nola eraikitzen den definitzen dituzten markogintza *estrategiak* identifikatzea hirugarren urratsa izango da; arazoaren izendapena edo problemizatzea, esaterako, diagnostikoaren markoa osatzeko bi ohiko estrategia direlarik.

Gure ikerketan bi izango dira presente izango ditugun diskurtso nagusiak: burujabetzaren aldeko indarrena eta *konstituzionalismoaren* aldeko indarrena. Nagusiki lehenengoan zentratuko gara; beti ere, bigarren eremutik garatutako diskurtsoekin izan zuen harremana behatuz. Alde horretatik, markogintzaren atal bakoitzean parte hartu zuten dimentsio eta estrategia ezberdinak azaleratzen saiatuko gara, prozesu politikoaren bilakaera eta maila ezberdinetako lehia (soberanista eta konstituzionalisten artean, batetik, eta burujabetzaren aldeko indarren artean, bestetik) nola ebatzi zen argitzeko.

Bi hauek izango dira 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera nagusi izango diren diskurtso nagusiak, hegemoniaren eraikuntzarako ariketa populistetan aurkitu ohi diren elementu nagusiak gehienbat lehenengoaren baitan aurkituko baditugu ere. Bi kategoria hauen nagusitasuna eta beraien arteko indar korrelazioa ez da "emana" etorriko, noski; hara iristeko egindako bilakaera ere aztertuko dugularik.

9.2.1 Diagnostikoaren markoa.

9.2.1.1 Arazoaren identifikazioa.

Ekintzaileak diskurtsoaren bitartez egin beharreko lehenengo gauza eztabaida publikora eraman nahiko duen gaia identifikatzea izango da. Horretarako kontzeptu edo kategoria bat egotzi beharko

dio, bera enpirikoki sinesgarria izateko erreferentzia erreal batekin lotu beharko duelarik. Kategorizazio hori *nominalizazio* edo *izendatze* prozesuaren bitartez egin beharko du. Nominalizazioan batetik adierazlearekin eta bestetik esanahiarekin topo egingo dugu. Adierazleak haututako izenari erreferentzia egingo dio; esanahiak, aldiz, aukeratzen dugun praktika enpirikoari. Marko teorikoaren atalean ikusi bezala, prozesu honetan bien arteko desplazamendu maila batekin aurkitu gaitezke, non adierazleak ez dion esanahiaren esangurari zuzenean erantzungo (Dor, 1997). Horrela, diskurtsoaren eraikuntzaren hastapenean adierazleak esanahi bati erreferentzia egin badiezaioke ere, honen garapenean bien arteko harremana desplazatzen joan daiteke, hasierako adierazleak metafora edo metonimia prozesuen bidez esanahi zabalago bati erreferentzia egin diezaiokeelarik (Lacan, 1981).

Ekintzaileak afera zehatz bat izendatzeaz gain bera *problematizatu* beharko du; hau da, afera hori arazo bezala uler-arazi beharko du, *dena* eta *izan beharko litzatekeenaren* arteko diferentzia nabarmenduz. Arazo hori testuinguru edo eskema zabalagoetan kokatu beharko du, diskurtsoarekin identifikatu daitezkeen hartzaile potentzialen multzoa zabaltzeko. Bide horretan, jatorrizko arazoa eta bestelakoen arteko harremana edo elkartasunak gorpuztera jo dezake hauen arteko ekibalentzia artikulatuz. Horren aurrean sistemak gorpuztu nahi izango duen diskurtsoan arazo edo eskaera ezberdinen arteko diferentzia nabarmendu nahiko da, bere hegemonia kolokan jarriko ez duen balizko kate ekibalentzial bat desaktibatu nahian. Bide honetan, ekintzaileak etorkizunera begirako inplikazioak aurre-ikusi nahiko ditu, bere diskurtsoa dramatizatuz.

9.2.1.2 Kausak eta eragileak.

Izendatutako arazoak kausa eta eragile batzuk beharko ditu. Kausari ere izen bat eman beharko zaio, sarritan kategoria orokorretara joko delarik (terrorismoa, faxismoa, kapitalismoa, ...). Baina normalean kanpo aktore kolektiboek egotziko zaie arazoaren erantzukizuna. Aktore hauek hainbat kasutan pertsonalizatu beharko dira, jendarte sektore zabalen aurkako interes, intentzio eta asmoak egotziz. Horrekin batera hauei karga moral bat egoztera joko da, eztabaida politikoa “on” eta “gaizkiaren” arteko dikotomian sinplifikatzen saiatuz. Honakoa operazio hegemonikoaren gailurra den espazio politikoaren mugatzea suposatuko du. Arazoa sortzen duen kanpo eragilearen izendatzearekin ekintzaileak “gu” eta “bestearen” arteko muga finkatuko du, posizio politiko ezberdinen arteko antagonismoari bide emanez. Ekintzaileak “Besteak” “ni/gu” izatea ezinezko

egiten duela ulertzea eman beharko du (Laclau&Mouffe, 2004), nortasun kolektiboen eraikuntzarako oinarria jarritz. Diskurtsoaren bidez espazio politikoaren biko banaketara jo nahi izango da, tartean dauden sektore "epelak" dekantatzera behartuz; beti ere, ahalik esparru sozial handiena norberaren posizioetara erakarri nahian.

9.2.2 Pronostikoaren markoa.

9.2.2.1 Helburuen markoztatzea.

Helburuak ere izendatu edo kategorizatu beharko dira. Kaltetuei eragingo lieketen onurak eta lortzeko beharrezkoak diren bitartekoak seinalatuz zehaztuko dira helburuak (Gerhards, 1995). Baina zehaztapen ariketa tentuz egin beharreko jokaldia izango da, bi ahoko arma bihurtu daitekeelarik: mugimenduak finkatutako helburuen eta horiek lortzeko bitartekoen zehaztapenarekin bere asmoak egingarriak direla erakutsi nahiko badu ere, gehiegizko zehaztapenak hainbat sektore kanpo uztera eraman dezake, planteatutako helburu zehatz edo bide espezifikoekin bat egin ez dezaketelako. Zentzu honetan, izendapenak helburu zabalei erreferentzia egin diezaietke hartzaile potentzialen artean ahalik eta harrera hoberena izateko. Zehaztapenaren eta zabaltasunaren arteko tentsio honetan eskaera zehatz bat *adierazle huts* bilakatzeko ariketarekin aurkitu gaitzke. Ariketa hau afera bat arazoaren kategoria egotzeko prozesuan ere aurkitu dezakegu, baina helburuei egotzi ohi zaizkien zentzu positiboen erakargarritasunagatik atal honetan azalduko dugu. Izan ere, eskaera zehatz batek beste hainbat eskaera partzialekin artikulazio ekibalentzial bat gorpuztea lortzen badu eta horren baitan ainguraleku bezala kate guztiari sendotasuna emateko erreferentzia nagusia bilakatzen bada, eskaera honek adierazle hutsaren funtzioa beteko du (Laclau, 2005). "Hutsa", diogu, nagusitasunerako prozesu horretan bere berezitasunaren arrastoak bidean uzten joan beharko delako; hegemonikoa izan nahi badu behintzat.

Ariketa hau eszenatoki politikoa eskematizatu eta sinplifikatzeko prozesua bezala ulertu behar dugu. Horretarako estrategia gisa, eskaera partikularrak balio altuagoekin (askatasuna, justizia, bakea, ...) harremanetan jarriko dira, mobilizatorako esparru potentziala zabaldu nahian (Gerhards, 1995). Eskaera partikular eta balio unibertsalen arteko harremana marko teorikoan luze landu dugu, horren inguruko adiera ezberdinak ere azaldu ditugularik: Laclaren *inbestitzean* eta Zizeken

gauzatzean (reificación) laburbildu ditzakegunak. Bigarren honek planteatzen duen partikulartasunetik unibertsaltasunerako translazio *zuzena* baino, lehenengoak iradokitzen duen *identifikazio* prozesuaren alde egingo dugu. Gure aldetik, partikularra eta unibertsalaren arteko harremana interes edo beharren identifikazio komun bat bezala ulertuko dugu eta ez homologazio edo berdintze bat bezala. Gramsciren adierarekin bat eginez, talde zehatz batek kolektibo oso baten nahiak eta beharrak aseko dituenaren ustearekin parekatuko dugu.

9.2.2.2 Arrakastarako aukeren markoztatzea.

Aurrekari historikoen izan duten arrakasta erakusteak sendotasuna eta sinesgarritasuna emango dio mugimenduari sektore berriak mobilizaziora erakarri nahian. Era berean, mugimenduak zenbat eta pertsona gehiagok parte hartu arrakastarako aukera gehiago egongo direla nabarmendu beharko du. Aurrekari historikoei erreferentzia egitea Snowek aipatutako *durundarekin (resonance)* lotuta egongo da. Hau da, markoztatze ezberdinek norberaren herentzia kulturalaren parte diren istorio, mito eta kontu herrikoiekin lortzen duten sintoniaren arabera arrakastarako aukera gehiago izango dute. Sintonia edo elkarrekikotasun existitzen denean markogintzak jendarte horretan nagusi den *kontakizunarekiko fidelitasuna (narrative fidelity)* erakutsiko duelarik (Snow&Benford, 1988: 210). Fidelitasun honek diskurtsoaren eta bere hartzaileen arteko identifikazioa handituko du parte hartzaile posibleen kopurua zabalduz.

Norberaren aukerak zabaltzearekin batera, mugimenduak bere arerioenak txikiagotu beharko ditu. Arerioa sistema politikoa edo gobernu izatera jotzen da; konponbideak emango dituen eragile gisa ulertuta. Diagnostikoaren atalean esan bezala, sistemaren aukerak txikiagotzeko mugimenduak asmo edo interes berekoi batzuk egotzi beharko dizkio, funtzio honetan diskurtsoaren moralizazioak ere paper garrantzitsua bete dezakeelarik. Ustelkeria susmoa leporatzea ohiko bidea izaten da; beti ere, aurkaria deslegitimatze helburuarekin.

9.2.3 Motibaziorako markoa.

9.2.3.1 Mugimenduen auto-legitimazioa.

Mugimenduak bere burua aldaketarako subjektu nagusi bezala proiektatzea mobilizazioa bere inguruan trinkotzeko bide nagusietakoa izango da. Horretarako bere burua interes orokor eta unibertsalen defendatzaile bezala agertu beharko du. Mugimendua bere partikularitasunetik atera eta diskurtsoaren bidez balio sozial zentral bezala kokatu beharko du; bere burua askatasuna, bakea edota garapena bezalako baloreekin identifikatuz. Zentzu horretan, lagungarria izango zaio konfiantza helarazten duten pertsona edo instituzioez inguratzea, bere mezuen sinesgarritasuna indartze aldera. McAdam, Tarrow eta Tillyren agenda berriaren atalean azaldu bezala, mekanismo ezberdinek parte hartuko dute zilegitasuna aitortzen zaien bestelako sektoreen hurbiltze prozesu honetan; aurretik errekonozimendu ofizialik ematen ez zitzaion mugimenduaren *zertifikazioa* ahalbidetuz edota ageriko prestigio soziala duten *artekariak* aurretik deslotuak zeuden sektoreak harremanetan jarritz.

9.2.3.2 Konponbide egingarriaren proposamena

Aktibatu nahi diren sektoreen motibazioa pizte aldera mugimenduak arazoa eta bere eragileak identifikatu, helburuak zehaztu eta beraiek gauzatzeko bideak marraztearekin batera, egin nahi duen ibilbidearen *egingarritasuna* ere erakutsi beharko du. Adibidez, mugimenduak bere helburuak betetzeko baldintza gisa botere politikoa eskuratu behar badu eta horretarako bidea jendarteak arma bidezko matxinada orokor bat gauzatzea bada, ziur aski mugimendu horrek XXI. mendeko mendebaldeko jendarteetan arrakasta txikia izango du. Hau da, arma bidezko botere hartze hori, bere helburuak lortzeko *eraginkorra* izan daiteke (baldin eta mugimenduak gauzatzeko gaitasuna badu), baina bere burua bakezaletzat den jendarte batean ez da *egingarria* izango. Horregatik mugimenduak planteatzen duen bidearen egingarritasuna erakutsi beharko du.

Honekin batera, parte hartzaile potentzialen motibaziorako mugimenduak beraien interesak edo beharrak aseko dituenaren ustea zabaldu beharko du. "Ustea" diogu, Gramscik Maquiavelliren *Printzea* gogoratuz esaten zuen bezala, Printzea (edo kasu honetan, mugimendua bera) "dispertsatutako herri baten borondate kolektiboa piztu eta antolatzeko sortzen den fantasia zehatz gisa" ulertu beharko delako (Gramsci, 1980: 10). Esan nahi baita, norbanakoek mugimenduak beraien eskaerak asetzeko duen balizko gaitasunaz duten pertzepzioa edo jabetza kognitiboa gakoa

izango da. Laclauk (2004) planteatu bezala langile bat zanpatua egotea ez da nahikoa izango bera iraultzeko; plusbalioaren erauzketa objektiboa ez da nahikoa izango, alegia. Erauzketa objektibo hori kognitiboki eta emozionalki lapurreta bezala ulertzea ezinbestekoa izango da. Aldagai afektibo hori helaraztea lortzen duen diskurtsoak marko motibatzaile egokia ezartzea lortuko du. Baina, esan bezala, horretarako mugimenduaren eta hartzaileen arteko interesen identifikazioa lortu beharko da.

Hona diskurtsoen azterketarako baliatuko dugun diseinu metodologikoaren eskema:

9.1 taula: *Markogintzaren azterketarako baliatuko dugun metodoa laburbiltzen duen taula*

| Marko mota | Markogintzaren dimentsioa | Markogintzarako teknikak |
|---------------------|------------------------------------|---|
| Diagnostikoa | Arazoaren identifikazioa | <ul style="list-style-type: none"> • Gaia identifikatu eta izendatzea. • Arazo bihurtu edo problematizatu. • Dramatizazioa: etorkizuneko inplikazioak. • Dena eta beharko lukeenaren arteko diferentzia. • Kokapena zabaldu. • Arazoa zehaztu eguneroko esperientzia bati lotuz. • ... |
| | Kausa eta eragileak | <ul style="list-style-type: none"> • Jatorriaren izendapena. • Eragilea pertsonalizatzea. • Karga morala egotzi. • ... |
| Pronostikoa | Helburuen markoztatzea | <ul style="list-style-type: none"> • Helburuak izendatu eta zehaztu; sloganak. • Iragarpen onuragarriak egin. • Lortzeko bideak zehaztu. • Helburuak balio altuagoekin lotu. • ... |
| | Arrakastarako aukeren markoztatzea | <ul style="list-style-type: none"> • Aurrekari historikoekin lotu. • Parte hartzaile posibleen kopurua zehaztu: zenbat eta gehiago, orduan eta arrakastarako aukera handiagoak. |

| | | |
|-------------------|--|--|
| | | <ul style="list-style-type: none"> • ... |
| Motibazioa | Mugimenduen auto-legitimazioa | <ul style="list-style-type: none"> • Interes unibertsalen defendatzaile gisa agertu. • Konfiantza helarazten duten eragileak inplikatu. • Nagusi den balore sozial bezala ezaugarritu beraien burua. • ... |
| | Protestaren hartzailen markoztatzea; deslegitimazioa | <ul style="list-style-type: none"> • Hartzailak pertsonalizatu. • Intentzioa leporatu. • Karga morala egotzi: izaera ez-legitimoa. • Ustelkeriaz susmagarritzat jo. • ... |
| | Konponbide egingarrien proposamena | <ul style="list-style-type: none"> • Ibilbidearen bideragarritasuna erakutsi. • Helburu partikular eta orokorren arteko identifikazioa. • ... |

Markoen azterketarako eskema honek ez luke planteatu nahi dugun ereduaren argazki estatiko bat helarazi behar. Izan ere, Snow eta Benford-en (2014: 36) aholkuei jarraituz, martxan egongo diren diskurtsoen bilakaera aztertuko baitugu. Horretarako ezinbestekoa izango zaigu markogintzaren dinamika bezala izendatu duguna gogoan izatea; batez ere, markoen lerrotzerako aipaturako bide ezberdinak: markoen zubigintza, markoen aplikazioa, markoen hedatzea edota markoen eraldaketa. Lerrotze prozesu hauek arestian azaldu dugun taularen barruan kokatu beharko ditugu honi ikuspegi dinamikoa emate aldera. Adibidez, mugimendu batek egin beharreko pronostikoa, helburuak markoztatzeke, helburu hauek balio altuagoekin lotzea ohiko bidea izaten da; horretarako, mugimenduak berak balio batzuk aplikatu beharko dituelarik. Edota sektore berriak mobilizatzea motibatzeke mugimenduak bere helburu partikularrak eta orokorrak identifikatu beharko ditu; horretarako, mugimenduak bere markogintza hedatu beharko duelarik sektore zabalagoen eskaerak barnebilduz.

9.3 Mekanismo eta prozesuak protesta zikloaren azterketarako

9.3.1 Mekanismoen sailkapena eta operazionalizazioa.

Agenda berriaren ahulguneetan aipatu dugun McAdam, Tarrow eta Tillyren mekanismoen anabasan ordena jartzen aldera Zubiagak (2013) planteatutako ikuspegi eta sailkapenari helduko diogu. Honen arabera, agenda klasikoa ez dugu erabat baztertuko. Esan bezala, MTTren mekanismo eta prozesuak agenda klasikoak planteatutako laukitxo eta geziak era dinamiko batean ulertzeko saiakera bezala ulertu behar ditugu; hau da, honen joera estrukturalista gainditu eta arreta bertan jokoan dauden aldagaien arteko elkar-ekintzan kokatuz. Baina faktore ezberdinen arteko elkar-ekintza anitz honek sortzen dituen mekanismo andanan ez galtzeko, agenda klasikoak eskaintzen dizkigun kategorietan birkokatuko ditugu.

Izan ere, mekanismo eta prozesuen ahulguneen atalean aipatu bezala, agenda klasikoaren hainbat kategoria eta agenda berriaren mekanismoaren arteko antzekotasunak nabarmenak izango dira hainbat kasuetan (Diani, 2003): aukera eta mehatxuen esleipena Aukera Politikoen Egituraren baitan ulertu beharko genuke; markogintza mekanismoa diskurtsoaren osaketa klasikoan; edota antolaketan jabetza soziala mobilizaziorako egituren “laukitxoan”. Horrela, agenda klasikoaren funtsezko sailkapenera bueltatuz, mekanismoak bost atalen arabera kudeatu⁹⁷ beharko ditugu: *aukera/mehatxuen* kudeaketa, *diskurtsoaren* edo *hizpidearen* kudeaketa, *antolaketaren* kudeaketa, *bitartekoen* kudeaketa eta *nortasun/eskaeraren* kudeaketa atalen arabera.

Horrekin batera, MTTk azaldutakoari jarraituz, atal bakoitzean, hiru mekanismo mota ezberdindu beharko ditugu: *inguruabarrari* lotutakoak, *harremanezkoak* eta *kognitibo* edo *egintzazkoak*. Frame analysis-aren atalean interpretazio markoei emandako garrantzia mekanismo kognitiboei ematen diegun garrantzia azpimarratzera eraman gintzakete, baina ez da gure asmoa inguruabarrekoek edota harremanezkoek duten garrantzia alboratzea. Besteak beste, agentzia eta estrukturararen arteko eztabaida klasikoa berrelikatuko genukeelako eta, aipatu dugun bezala, gure hautu metodologikoa hiru dimentsioak aintzat hartzea baita, hiruetan definitzen baita prozesu sozialaren bilakaera.

⁹⁷ Zubiagak, Diani jarraituz, *kudeaketa (managing)* kategoria baliatuko du egintzari behar duen garrantzia emateko; beti ere, “elkareraginari eta egitura/inguruneari zor zaiena alboratu gabe” (Zubiaga, 2013: 123).

9.3.1.1 Diskurtsoaren kudeaketa.

Frame Analysis-aren atalean nahikoa garatu dugu markogintza prozesuaren nondik norakoak, beraz, bertan ez gara gehiegi luzatuko. Bertan, diskurtsoaren eraikuntzan McAdam, Tarrow eta Tillyk planteatutako mekanismo eta prozesuen kategoriak nola inplementatzen diren planteatuko dugu; hainbat kasutan, hiru ikerlariok eta Diskurtsoaren Analisisirako erreferentziatzko izan zaigun Snow-ek planteatutako kategoriak errepikatuko zaizkigularik.

Mekanismo kognitiboei dagokionean, Snow-en eredu klasikoan planteatutako urratsek (diagnostikoa, pronostikoa eta motibazioa) eta edukiek (sistemaren kontrako markoak, birlerrotze, barneratze eta birbizitze markoek) estrategia diskurtsiboa mugarrizten zuten bitartean, MTTren eredu berrian mekanismoen bitartez egingo da, "*auzia markoztatzearen*" erreferentzia pean bilduz prozesu guztia.

Zubiagak (2013) harremanezko mekanismoen atalean kokatuko ditu diskurtsoaren lerrotze (*frame alignment*) motak: hizpidearen zubigintza, anplifikatzea, zabalkuntza edota aldaketa bezalako mekanismoak, hain zuzen ere. Mekanismo hauen aplikazioan ebatziko da interpretazio marko ezberdinen arteko lehia (*frame competition*).

Azkenik, eragileen diskurtsoak testuinguru edo inguruabar kultural zehatz batean errotu beharko direla aintzat hartu beharko dugu. Bertan, *master frame* edo *marko nagusiek* zedarriztuko dute jendartean indarrean den gertaeren interpretaziorako filtro nagusia; izan estruktura politikoa bezala ulertuta (McAdam, 2004), izan estruktura horien emaitza sinboliko eta kulturala bezala ulertuta (Polletta, 2004). Diskurtso nagusiak finkatutako muga horien eta eragileen diskurtsoaren arteko tentsio horretan argituko da balizko *master frame* berriaren mugen eguneratzea. Bertan ere inguruabarreko, egintzazko eta harremanezko mekanismoen arteko muga lausoa izango da. Izan ere, ulermena edo kognizioa baldintzatuko duen eragilearen ekintza sinboliko/diskurtsiboa noiz eta non hasiko den eta inguruabar kulturala ze punturaino aldaraziko duen beti izango baita afera eztabaidagarria prozesu sozialen azterketan.

9.3.1.2 Aukera/mehatxuen kudeaketa.

Gogora dezagun era laburrean agenda klasikoaren Aukera Politikoen Egituran aipatutako aukera nagusiak. Bi atal nagusietan bereizten genituen: egonkorrak eta aldakorrak. Lehenengoen artean bi azpimarratzen genituen: erakundeen egitura (erakundeen irekitasuna eta egonkortasuna baloratzen zuena) eta kultura politikoa (ekintza kolektiboaren arauak baldintzatzen dituzten marko kultural edo mundu ikuskera bezala ulertuta). Aldagai aldakorren artean, berriz, aliantza eta aurkaritza egiturak bereizten genituen. McAdam, Tarrow eta Tillyk sailkapen estatiko hori gainditu nahian eskalan mailakatuko liratekeen mekanismo dinamiko baina solte eta sakabanatuak zerrendatuko dituzte: aukeren esleipenetik hasi eta errepresioraino joango liratekeenak. Baina horiek sailkatzeko gorago aipatutako inguruabarreko, harremanezko eta egintzazko mekanismoen sailkapenera hurbiltzea komeni.

Aukera eta mehatxuen esleipenak, inguruabarreko mekanismo gisa, izaera objektiboa izango dute, baina elkar ekintza soziala sortzen duten mekanismoak bilakatu nahi badira ekintzaileen aldetik bitarteko kognitiboen bitartez aukera edo mehatxu bezala jasoak izan beharko dira. Horrela gertatuko da erakunde baten egituraren irekitasuna edo itxitasunarekin, esaterako; erakunde batek erakusten duen jarrera bezain inportantea izango da, eragile sozialak erakunde horrek bere eskaerak barneratzeko edo errefusatzeko antzematen dion jarrera. Horrela, eragileak egiten dituen interpretazioen arabera mekanismo ezberdinak martxan jarriko dira: eragileak erakundearen jarrera itxia dela antzematen badu prozesu sozialaren *polarizazioa* ohikoa izaten da; erakundeak jarrera irekia badu, aldiz, *konfiantza sareen integrazioa* erraztuko da; eragilearen baitan interpretazio ezberdinak badaude, ordea, *desertzioetarako* aukerak handiagotuko dira.

Aldagai aldakorrei dagokienean, agenda klasikoak garrantzi handia ematen zien aliantza eta aurkaritza egiturei. Aipatutako ikuspegi estatikoak gaindituz, MTTk harremanezko mekanismo ezberdinak zerrendatuko ditu harreman hauen bilakaera azaltze aldera. Horietan antzekotasun handienak erakutsiko dutenak, aliantza egituren trinkotzearen kasuan sektoreen arteko *konbergentziaren* mekanismoa eta aurkaritza harremanak indartzen direnean *errepresioarena*. Konbergentziaren kasuan, honek bestelako mekanismo batzuk abiarazi ditzake, *koalizio osaketa* edota *kooptazioa* bezala. Aurkaritza egiturak indartzen direnean, aldiz, ohikoagoa bilakatzen da eragileen arteko *botere lehia*; batzuen aukerak besteen mehatxuak bilakatuz. Beste hainbatetan, aukera edo mehatxu batek beste hainbat arrapaladan azalaraztea ekarriko du, *aukera edo mehatxuen espiral* moduko bat martxan jarritz.

9.3.1.3 Antolaketaren kudeaketa.

Agenda klasikoak antolaketa ereduez hitz egiterakoan oinarritzko bi premisa ezartzen zituen hauek hartu zitzaketen forma ezberdinak azaltzerakoan: batetik, mugimenduen jarduera ez dela jendarte desegituraketaren ondorio edota norbanakoen integrazio arazo bat; eta bestetik, mugimenduek antolaketa arrazionalak baliatzen dituztela beraien helburuak asetzeko. Abiapuntu bikoitz horren gainean, bi egitura forma nagusiengan jartzen zuen arreta: *sare soziala* eta *egitura/antolakundea*. Egituratze mailaren arabera, bata eta bestearen arteko eskala edo mailaketa posible bat iradokitzearekin batera, bakoitzak prozesu sozial ezberdinetan eskaintzen zituen aukerak eta arriskuak zerrendatzen ziren. MTTk, aldiz, planteatutako ikuspegi dinamikoari jarraituz, arreta eragile baten edo bestearen “aparatura” bereganatzean baino, mobilizatorako eskaintzen den abiapuntuaren ikuspegitik aztertuko dute antolaketaren afera.

Eraketen jabetza sozialaren mekanismoaren erreferentzia pean laburbildu daiteke antolaketaren kudeaketan arrakasta lortu nahi duen eragileak egin beharrekoa. Baina gorago azaldu bezala, mekanismo batzuek beste batzuk martxan jartzea ekarriko dute, kate horretan aktibatu beharreko beste aldagai horiek ere identifikatu beharko direlarik. Harremanezkoei dagokienez, *mailegua*, *esku aldaketa*, *zabalkuntza* edota *kutsadura* azpimarratu ditzakegu. Horietan gehienetan, MTTrentzat mekanismo nagusia izango den *artekaritza* presente egongo da, ordura arte deslotuak zeuden sektoreak harremanetan jarritz. Bertatik ere, jada aipatutako *koalizio osaketak* edota bitartekarien *kooptazioa* ere eman daitekeelarik.

Inguruabarreko mekanismoei dagokionez, garrantzi berezia hartuko du *mobilizatorako eta agintzeko potentzial orokorraren aldaketaren* mekanismoa (Klandermans, 1988⁹⁸). Honekin aldagai asko neurtu ahal izango ditugu: mobilizatorako prest legokeen jende kopuruan egon diren aldaketak; sare ikuspegia lantzen den eta hauen dentsitatean egondako aldaketak; antolaketarako azpiegituretan (garraioak, komunikatzeko erak, ...) egondako aldaketa eta abar luze bat. Antolaketaren ikuspegitik erakundea eta mugimenduaren arteko lehia nekez izango da parekoa; izan ere, lehenengoaren egituratzeak bigarrenak alde aurretik nekez izan dezakeen sendotasun bat emango baitio. Baina honek ez du lehia goitik behera baldintzatuko. Aipatutako aldaketa hauen arabera eta eragileak edo mugimenduak horietaz (egiten) duen jabetzaren baitan egongo da arrakastarako giltzetako bat.

⁹⁸ Zubiagaren doktoretza tesitik hartuta (2013).

9.3.1.4 Bitartekoen kudeaketa.

Eragile edo mugimenduek baliatuko dituzten bitartekoen sailkapenari dagokionez, agenda klasikoan eskala ezberdinetan mailakatzen diren logika ezberdinekin topo egin dezakegu: *erradikatsun* mailaren arabera sailkatuko diren bitartekoetatik hasita, mobilizatzen diren kideen *kopuruaren* logikaren arabera edota baliatutako bitartekoekin eragiten den *kaltearen* arabera klasifikatuko direnak. Horrela, continuum ezberdinetan mailakatuko diren bitartekoen errepertorio estatikoarekin aurkituko gara; hainbat kasutan, elkar gurutzatu ahal izango direnak.

McAdam, Tarrow eta Tillyk, aldiz, nahiago izango dute mekanismo eta prozesuen bidez prozesu sozialetan ematen den bitartekoen kudeaketa azaldu. Edozein kasutan, ikuspegi dinamikoago honek ez du baliatuko diren bitartekoen mailaketaren ikuspegia erabat baztertuko. Izan ere, elkar-eraginezko mekanismoei dagokionean, *eskalada* (edo bitartekoen erabileraren gorakada), eta kontrako norabidean eman daitekeen *deseskalada* (edo beherakada), esaterako, continuum horietan kokatu ditzakegun mailaketak ere badira. Normalean bi mekanismo hauek prozesuen *erradikaltze* edo *baretze* mekanismoei lotuta agertuko zaizkigu. Hainbat uneetan, prozesu sozialaren baitan ematen diren tentsioen goraldietan, bortxazko mekanismoak agertu daitezke. Tillyk (2007b) espezifikoki ikertutako mekanismo hauen sailkapenerako bi irizpide aintzat hartuko ditu: batetik, eragindako kaltearen garrantzia, eta bestetik, ekintzaileen artean dagoen koordinazio maila. Horrela, *erritu bortitzekin*, *suntsipen koordinatuarekin*, hasiera baketsua baina *istiluetan* bukatzen diren gertakariekin, *eraso sakabanatuak* edota *negoziazioak apurtzen* direneko bortxazko mekanismoekin aurkituko gara; aski ezagunak egingo zaizkigunak gure ikerketa proiektuan.

Bortxazko mekanismoen areagotzeak *errepresiorako potentzialaren handitzea* ekarri ohi du; beraz, ekintzaileak ondo neurtu beharko ditu bere indarrak eta horien bortxazko erabilerak ekarri ahal dizkion kalteak. Jendartearen onargarritasun maila ere aintzat hartu beharko du, eredu klasikoan aipatutako *kaltearen* logika hutsa lehenesteak, *konbentzimenduarena* erabat alderatuz, bere helburuen kaltetan joan baitaiteke. WUNC eredu (Tilly, 2004) arrakasta lortu nahiko duen edozein mugimenduren erreferentea izan beharko litzateke; hau da: *duintasuna*, *batasuna*, *kopurua* eta *grina* (*worthiness*, *unity*, *number* eta *commitment* ingelesezko adieran) lortzea. Baina sistemak ere ondo neurtu beharko du errepresiorako aktibatzen dituen mekanismoak. *Zilegitasunaren* logikari

helduz, adibidez, hainbat uneetan 'protestagintzan' dabiltzan kideen inguruko informazioa jasotzea sozialki onargarria suertatu badaiteke ere, errepresioaren ereduak oinarri izan ohi duen bortxa fisikoaren erabilera baliatuko duten hertsadurazko estrategiek sistemarekiko babes sozial txikia aurkitu dezaketelako.

Baina harremanezko mekanismo hauek bere inguruabarreko aldaera ere izango dute. Izan ere, baliatuko diren protestarako bideak atzetik datorren prozesu kultural baten emaitza ere izango baitira. Ekintzaileek bere inguruan ikustera ohituak dauden ekimenak errepikatzen joko dute *emulazioa*, *mailegua* edota *antzekotasunen esleipena* bezalako mekanismoak aktibatuko direlarik.

Baina MTTren ikuspegitik protestagintzan garrantzitsua izango den mekanismorik bada, hori *ekintza moldeen berrikuntza* izango da. Adiera kognitiboa izango duen mekanismo honek suposatzen duen berritasunagatik jendartearen arreta erakarriko du. Hortaz, ekintzailearentzat errazena bere ingurune bitartekoak erreproduzitzea bada ere, hauek eguneratzeko erakusten duen gaitasunaren arabera arrakasta handiagoa edo txikiagoa izango du. Hainbat kasutan, berrikuntza bitartekoen izaera berrian baino *eskala aldaketan* egon daiteke. Denboran zehar maila apaleko bortxazko mekanismoen erabilera, *polarizazio* egoera batean hazteak berrikuntza ere badakarrelarik, esaterako. Baina, noski, normalean mekanismo bakar baten intentsitate ezberdinaren arabera erabileran baino, bitarteko sorta ezberdinaren erabilera anitzean egongo da arrakastarako giltza.

9.3.1.5 Nortasun eta eskaeren kudeaketa.

Aurreko ataletan nortasun eraketa prozesuez eta horretan eskaerek jokatzen duten paperaren inguruan nahikoa hitz egin dugu. Ataltxo honetan horren ingurukoak ez errepikatze aldera, McAdam, Tarrow eta Tillyk hauen inguruan planteatzen dituzten mekanismo eta prozesuen inguruan arituko gara espezifikoki.

Agenda klasikoak nortasunen eraikuntza arreta merezi zuen aldagai espezifikoko bezala bere ikerketarako lehenengo lerrotik aldendu bazuen ere, konstruktibismoaren eta politika liskartsuaren izaera harremanezkoa azpimarratzen duten ikuspegi garaikideagoek berriro arreta gunea bihurtu dute. Izan ere, hauen arabera nortasunaren eraikuntza mobilizazio prozesuan trinkotuko den

gertaera dinamikoa baita (Melucci, 1988); eta agerikoa den bezala, eskaerak mobilizazio prozesuen erdigunean egongo dira. Beraz, nortasunen eraikuntza eta mobilizazio prozesua bereiztea, lehenengoan ikuspegi *a priorikoa* nabarmendu nahian gure ikerketa metodologiatik baztertuko dugun ikuspegia izango da.

Mobilizazio prozesuen harremanezko izaeragatik atal honetan elkarreraginezko mekanismoek garrantzia handia hartuko dute. Aipatu ditzagun horietako batzuk: isolatutako sektoreen arteko lotura *artekarien* bitartez; *mailegu* edo *topaketa* bidezko *kategoria osaketa* (lehenengoan eremu bateko muga eta arauak beste eremu batera eramanez; bigarrenengan, sare ezberdinetako kideen arteko topaketak eragiten duen nortasunaren aldaketaren bidez); edota *antzekotasunen esleipena* horietako batzuk izan daitezke. Esan dugunez, nortasun hauek beste nortasunekin harremanetan definitzen direnez, nortasun/eskaera berrien sorrerak jada indarrean direnak eraldatuko ditu; eragile muturragokoen sorrerak tartean geratu diren eragileen epeltzea edota konbergentzia ekarri dezakeelarik, *alde erradikalaren* mekanismoa deitua izan denaren eskutik.

Egintzazkoak edo mekanismo kognitiboek ere zeresan handia jokatuko dute nortasunen eraikuntza prozesuan, hauek jabetza prozesu bat diren heinean. Horrela, kanpo autoritateek aurretik onarpen maila nahikorik ez zuten eragileen gainean egiten duten *zertifikazioa* horietako bat izango da. Horretarako aurrez mugimendu edo eragile horrek bestelako hainbat mekanismo martxan jarri beharko ditu egiaztatze hori jasotze aldera; protestarako bitartekoen kudeaketan kalteak eragiteko erakutsitako gaitasun handia edota mobilizazio jendetsuak antolatzeko deialdi-gaitasuna izatea, esaterako. Egintzazko mekanismoen artean, *arrakastaren jabetza* ere azpimarratu dezakegu. Arrakastaren atribuzioa eragileak bere eskaeraren asebetetze mailarekin lotuta egongo da. Hainbat kasutan, talde batek arrakasta lortzeak beste talde baten porrota suposatuko du, eragileen arteko lehia horretan definituko du bere egintzazko izaera.

Eta bukatzeko, baina ez horregatik garrantzia gutxiagorekin, nortasun/eskaeren kudeaketan parte hartzen duten inguruabarreko mekanismoei helduko diegu. *Eliteen interesen kaltetzea* edota *desertzioa* bezalako mekanismoak atal honetan kokatu ditzakegu. Horrelakoetan sistemak *eskaeren onargarritasunaren aldaketa* mekanismoaren bidez, *input*-ak barneratzeko gaitasuna aldatu dezake. Honek eskaera baten inguruan trinkotutako nortasun batzuk sisteman barneratu eta beste batzuk kanporatzera eramango du, gure ikerketa lanean ikusiko dugun bezala. Aukera/mehatxu ekonomiko, politiko edota kulturelek, sistemarentzat onargarriak diren eskaeren iragazkia aldatu dezakete, atzo onartezina zena, gaur onargarri izanik eta bihar ezinbesteko bilakatuz. Mugen aldakortasun honek

denbora oso laburrean mugimenduari aukera berriak ireki diezaizkioke. Baina onartze mailaren mugak zedarritzen dituen irizpide aldaketa honek mugimenduaren identitatean ere eragin zuzena izango du, une batean eragile anti-sistemikotzat hartzen zena, araututako joko zelaiaren baita “beste” eragile bat bihurtuz. Beraz, norabide biko mugimendu batekin aurkituko gara, mugimenduak sisteman eragiten duena eta sistemak mugimenduaren nortasunean.

9.3.2 Demokratizazioa eragiten duten mekanismo espezifikoak.

Marko teorikoan esan bezala orain arte aipatutako mekanismo eta prozesuek eragin zabaleko hiru prozesu mota eragin ditzakete: iraultzak, nazionalismoa eta demokratizazioa. Konstruktibismoaren atalean nazionalismoaren inguruan emandako azalpenak gure lanean baliatuko dugun ikuspegi metodologikoaren nondik norakoak azaltzeko balio dutelakoan gaude. Azken atal honetan demokratizazioa eta desdemokratizazioa eragiten duten mekanismoetan zentratuko gara. Honekin ez dugu esan nahi orain arte azaldutako mekanismoek prozesu zabal hauekin zerikusirik ez dutenik. Izan ere, horien guztien garapenak inplikazio zuzenak izango ditu eremu zehatz batean eman den sistema demokratikoaren bilakaeran. Baina McAdam, Tarrow eta Tillyk (eta nagusiki azkeneko honek -Tilly, 2010-) arreta berezia jarri nahi izango dute prozesu hauetan eragin nabarmena duten mekanismo espezifiko batzuegan. Horietako batzuk jada ikusi ditugu eta des/demokratizazio prozesu guztietan presente egongo dira. Jarraian aipatu ez ditugun horien azalpenean murgilduko gara. Baina hori baino lehen garrantzitsua deritzogu des/demokratizazio prozesuak testuinguratzeko beharrezkoak diren aldagaiei erreparatzea.

9.3.2.1 Des/demokratizazio prozesuen lekutzea.

Aipatu dugu demokrazia giza-talde edo *demos* batek bere burua gobernatzeko ideari lotuta agertzen zaigula; hortaz, lehenik eta behin, demokraziak *demos* bat behar duela ondorioztatu beharko dugu: denboran eta espazioan zehar irauten duten giza-taldea, sinismen eta jarrera batzuk konpartitzen duenak, nagusiki beraien burua gobernatzeari lotutakoa (Goikoetxea, 2014 eta 2018). Egungo sistema politiko ordezkatzailerara ekarriz, demokratizazioa agintariak *demos*-ak planteatutako lehenetsun eta eskaeren arabera gobernatzen dutenean emango dela esan dezakegu (Dahl, 1998;

Lijphart, 1987). Prozesu hau, ordea, dinamikoa izango. Ezin dugu argazki finko bat bezala irudikatu, gorabeherak izango dituen ibilbide bat bezala baizik. Gorabehera hauek sektore ezberdinen artean sortzen diren gatazkak norabidetuko dituzte. Hortaz, demokratizazioa prozesu liskartsu bezala irudikatu beharko dugu.

Liskar hauetan Estatu/erakundeak eta herritarrak inplikatuak egongo dira. Bien arteko harreman multzoari *erregimena* deituko diogu (Tilly, 2010a), demokratizazioa harreman horien nolakotasuna azaltzen duen prozesua bezala ulertuz. Baina harreman hauek ez dira aldebikoak izango, bertan Estatu/erakundetik harago dauden aktoreen arteko harremanek ere parte hartzen dutelako. Ildo honetan, *politika publikoak* harreman hauek Estatuaren aldetik arautzen dituen prozesuak bezala ulertu ditzakegu; hauek lortzen duten aldekotasun edo kontrakotasunaren arabera demokratizazioan aurrera edo atzera egingo dugularik. Hortaz, gakoak aldekotasun/kontrakotasun hau neurtzean legoke. Horretarako Tillyk *kontsultaren* neurgailua mahai gaineratuko du, horri jada aipatu ditugun ezaugarri batzuk egotziz: zabaltasuna, berdintasuna, babesa eta izaera loteslea. Gure ikerketa lanean kontsulta mota ezberdinekin aurkituko gara. Ohikoenak hauteskundeak izango dira, baina galdeketa, erreferendum edota herri ekimen legegileak bezalako prozedurekin ere topo egingo dugu.

Erregimen motaren arabera herritarren eta Gobernuaren harremanak modu batekoak edo bestekoak izateko aukera handiagoarekin aurkituko gara. Erregimenak sailkatzeko bi irizpideei arreta jarri diegu: demokrazia eta Estatuaren gaitasuna; horren araberrako lau eredu posibleekin aurkituko garelarik⁹⁹. Guk aztertuko dugun erregimenari erreparatuta *gaitasun altuko erregimen demokratiko* batez ariko gara. Gogoratu dezagun horietan dinamika sozialak ohikoak izaten direla; baita interes taldeen jarduna eta alderdi politikoaren mobilizazioak ere; kontsulta formalak jardun politikoaren une goren gisa irudikatuak izaten dira; eta politika publikoaren jarraipen estatala zabala litzateke, bortxa politikoaren erabilera apalarekin. Eredu teorikoez ariko ginateteke, eta alde horretatik, erregimenek nekez beteko dituzte une oro zerrendatu daitezkeen ezaugarri guztiak. Gainera guri egoera zehatz bateko argazkia baino prozesu baten ibilbidea aztertzea interesatzen zaigu eta horretarako Tillyk marraztutako bilakaera posibleei arreta jarri beharko diegu. Bere ustez, gurea bezalako gaitasun altuko Estatu batean, gaitasun hau demokratizazio maila esanguratsu bat lortu baino lehenago emango da. Honek Estatuaren menpekotasun bitartekoak eta politika publikoak herritarren kontrolpean jartzeko bideak zabaltzea ekarriko du, baina “desdemokratizazioa idealizatutako ibilbide honen edozein momentutan gertatu ahal izango da” (Tilly, 2010 a: 205). Gure ikerketa

⁹⁹ Begiratu marko teorikoan “Erregimen motak” atala.

gaiari dagokionez, demokratizazio prozesu horretan sakontzeko alde ezberdinetako ahaleginez (eta kontra-ahaleginez) arituko ginateke.

9.3.2.2 Demokratizazioa eragiten duten mekanismoen martxan jartzea.

Gogorarazi behar dugu des/demokratizazioa eragingo duten mekanismoekin batera badirela gobernari eta herritarren arteko harremanak baldintzatuko dituzten hiru aldagai: *hertsadura*, *kapitala* eta *konpromisoa*.

Hertsadurak aktore sozialei edota bere ondasunei galerak edo kalteak eragiten dizkieten kontzertatutako ekintzarako bide guztiak barnebilduko ditu; izan Estatu edo erakundeen eskuetan daudenak, izan bestelako taldeen eskuetan daudenak. Beraien *akumulazioaren* (errepertorio posibleak) eta *kontzentrazioaren* (zenbat eskuetan pilatzen diren) arabera hertsadura neurtu eta sailkatu ahal izango dugularik. Hertsaduraren bezala, *kapitalaren* metaketak, botererako bitarteko gisa, des/demokratizazio prozesuetan berebiziko garrantzia izango du, eta zentzu horretan, demokratizazio areagotzeko bere banaketa erabakigarria izango da. Eta azkenik, *konpromisoak* herritar, eragileen eta Estatuaren arteko harremanez hitz egingo digu. Batzuen eta besteen artean eraikitzen diren muga eta elkartasunez, hain zuzen ere. Zentzu honetan, konpromiso hauen norabidetzeak aktore ezberdinen lanaren zati handi bat hartuko du.

Arestian aipatutako hiru aldagaiek eragin zuzena izango dute mekanismoen bilakaeran. Esaterako, gurean nagusiki Estatua/erakundeak eta ETAREN artean eman den hertsadura mekanismoen aldeko akumulazio eta kontzentrazioa oldarraldi prozesuaren *polarizazioa* nabarmena ekarri duela agerikoa da. Edota momentu batera arte euskal sindikalgintzaren baitan definituak zeuden konpromisoen ELAK eta LABek abertzaletasunaren baitan zeuden bi familien arteko *artekaritza* mekanismoa martxan jartzea ahalbideratu zuen¹⁰⁰. Zera adierazi nahi dugu adibide hauekin: hertsadura, kapital eta konpromiso mailak (eta beraien nolakotasunak) demokratizazioa eragiten duten mekanismoen inplementazioan zeresan zuzena izango dutela. Horregatik Tillyk hiru multzoetan sailkatuko ditugun *mekanismo espezifiko hauek arestian aipatutako hiru aldagai hauekin gurutzatuko ditugu. Aldagai hauen bilakaerak mekanismo bakoitzaren inplementazioan erakusten duen eragina*

¹⁰⁰ Kasu honetan, mekanismoen gabezien atalean Koopmansek (2003) artekaritzari egokitzako ahulgune tautologikoarekin ere aurkitu gaitzke. Izan ere, nola eta noiz egotzi ELA eta LABi artekari papera jada mekanismo horien emaitzak ikusten direnean ez bada?

azalduko dugu; bide batez, honek demokratizazio edota desdemokratizazio prozesuan dituen ondorioak marraztuz. Gogorarazi ditzagun zein hiru multzoetan bereizten ziren demokratizazioa eragiten zituzten mekanismoak: a) politika publikoen bidez kategorien artean (arrazak, generoa, ideologia, ...) ezberdintasunak sortzen dituzten banaketan handitzea edo txikitzea sortzen dituztenak; b) konfiantza sareen integrazioaren areagotzea edo mugatzea ekartzen dituztenak; eta c) Estatuarekiko edo botere publikoarekiko herritarren eragina biderkatzen edo oztopatzen dituzten mekanismoak.

Atal teorikoan aipatutakoa ez errepikatze aldera ikus dezagun zehazki zer eragina izan dezaketen hertsadurak, kapitalak eta konpromisoak mekanismo hauen inplementazioan eta demokratizazioaren garapenean.

9.3.2.2.1 Berdintasuna eta ezberdintasuna.

Gogoratu dezagun labur bada ere ezberdintasunaz zer ulertzen dugun: pertsona edo pertsona multzoen arteko elkar ekintza litzateke, non batzuek beste batzuek baino onura handiagoa aterako luketen (Tilly, 2010a: 148). Ezberdintasun hauek mota ezberdinetakoak izan daitezke (ekonomikoak, politikoak, ...) eta hauek areagotzen direnean desdemokratizazioa handiagoa izateko arriskua egongo da; batez ere, Estatuak hauek sustatzen dituztenean. Baina herritar eta Gobernuen arteko harremanak arautzen dituzten edozein erregimenek, modu batean edo bestean, ezberdintasunak sustatuko ditu. Sistema demokratikoetan horretarako bide ohikoenetako bitartekoen birbanaketari lotuta egongo da; izan laguntza sozial, zerga sistema edota herentziak erregulatzen dituen araudiaren bitartez. Hauek guztiak Gobernu batek eskura izango dituen bitartekoen banaketarako sistemak izango dira.

Kapitalaren kontrola eta metaketa kategoriatan sozialaren arteko desberdintasunen areagotzean edo mugatzean zerikusituzena izango du. Alde horretatik, Gobernuaren erabakiak kapitalaren pilaketa esku gutxietan metatzea ekartzen badu, *kategorien arteko ongizate maila desberdintzearen* mekanismoa aktibatzea ohikoena izan daiteke. Edota egungo sistema demokratiko neoliberaletan geroz eta ohikoagoa izaten den *kapitalen gobernu kontrolen indargabetzeak* kategori sozialaren arteko ezberdintasunak handiagotu ditzake; kapitala, botererako bitarteko gisa, desdemokratizatuz. Kontrako norabidean, gobernuak kapitalen gaineko kontrolak indartu eta *sektore sozialaren arteko ongizate mailak berdintzeko* mekanismo edo bitartekoak martxan jartzen baditu demokratizazio

prozesua zabaltzea litekeena da. Baina gorago esan bezala mekanismo hauen aktibatzea ez da soilik herritar eta Gobernuen arteko aldebiko harremanetan presente egongo den zerbait. Sektore sozial ezberdinek beraien arteko harreman liskartsuaren bidez erraztu edota zaildu ditzaketan baliabideak ere badira; sindikatuak eta enpresarien arteko harremanak horien lekuko agerietakoa izan daitekeelarik.

Konpromisoarekin antzeko zerbait gertatuko da. Herritar eta gobernuen arteko harremanetan gobernuak zer sektore sozialekin konprometitzen den erabaki behar du. Prozesu hau sektore sozial horien eskaerak barneratzeko duen gaitasunari lotuta egongo da; bere egin ditzakeen eskaerak bideratzen dituzten sektoreekiko konprometituz eta besteengandik urrunduz. Gobernuak bere erabakiekin *kategoria sozialen arteko desberdintasunak politika publikoetatik aldentzen* dituen mekanismoen bitartez demokratizazio prozesua zabaltzen egongo da; politika publiko hauek desberdintasunak handitzen badituzte desdemokratizatzen. Baina Gobernuen erabaki zuzenak duten eraginaz harago, kategoria sozial ezberdinen arteko harremanek ere zerikusi dute demokratizazioarekin. Izan ere, sektore sozial ezberdinen arteko desberdintasunak zeharkatzen dituzten elkarten *koalizio aktiboen sorrerak*, esaterako, prozesu honetan lagundu dezakeen mekanismoa baita. Bertan ere sindikatu eta patronalen arteko harremanak edota nazionalismoaren eremu ezberdinetatik datozen sektoreen arteko akordioak honen adibide izan daitezke. Espektro sozialean aldenduak dauden kategoria sozial ezberdinen arteko hartu-eman faltak, aldiz, desdemokratizaziorako aukera areagotu lezakeelarik.

Hertsaduraren aldagaiak mekanismoen artikulazioan nola eragiten duen, berriz, konplexuagoa izan daiteke. Izan ere, teoriak dio sistema demokratikoetan hertsadurarako bitartekoen akumulazio erdi-altu eta kontzentrazio altuarekin topatuko garela. Kategoria sozial ezberdinek sistemaren izaera demokratikoaren inguruan izan dezaketzen jabetzak hertsadurarako mekanismoen monopolioa izateko egiten dioten aitortza edo aitortza eza baldintzatuko du; horren arabera, hertsadurarako mekanismo propioak aktibatzeko erabakia ekarri dezake. Horrela ulertu dezakegu gurean Estatua/erakundeak eta ezker abertzalearen artean ematen den bitarteko hauen polarizazioa. Zentzu honetan, alde batetik edo bestetik hertsadura bitartekoen erabilera areagotzen bada *kategoria sozialen arteko mugak zeharkatzen dituzten eginkizun, eskubideen edota akordioen gutxitzea* ematea litekeena da, desdemokratizazioa areagotuz. Baina hertsadura eta arestian aipatutako mekanismoaren arteko harremana ez genuke “kausa-efektu” aldebakarreko logika batean ulertu beharko. Izan ere, kategoria sozial ezberdinen arteko eginkizunak edota akordioak sustatzeak hertsadurarako mekanismoen apaltzea ere ekarri baitezake.

9.3.2.2 Konfiantza sareak.

Tillyk (2010b: 30) konfiantza sareek demokratizazio prozesuetan duten pisua era argian azpimarratuko du. Gure ikerketan ere horrela izango dela iruditzen zaigu. Baina esku artean dugun kasuaren azterketarako konfiantza sareaz egiten den definizioaren %100rekin bat egitea baino, sare hauengan ematen diren funtsezko ezaugarrien bilakaera (integrazioa, mugak, sostenguak edota kanpo zein barne loturak, esaterako) eta, batez ere, sareek des/demokratizazioa eragiten duten hainbat mekanismoen inplementazioan zer paper jokatu duten interesatuko zaigu.

Esan nahi baita, Tillyk konfiantza sareen definizioa osatzeko planteatzen dituen betebeharren zerrenda ia amaigabeko faktore guztiak ez dira beteko gure ikerketa lanean konfiantza sareztat hartuko ditugun agenteengan (sindikatu, eragile sozial edota mugimendu politikoak, kasu). Izan ere, hainbat autorek agenda berriari egindako kritiken atalean jasotzen genuen legez, mekanismo eta prozesuekin gertatu bezala, konfiantza sareekin ere *ad hoc* egindako definizioaren sentsazioa nabaria da. Edota beste modu batera esanda: batetik, egindako ikerketa enpiriko zehatzek norabidetu dutenez kontzeptu honen definizioa, eta bestetik, aurkitu dezakegun kasuistika horren zabala denez, aktore sozial bat “konfiantza sarearen” kategoriaren baitan kokatu ahal izateko bete beharreko berezitasun kopurua neurrigabeki hazten da; Tillyren buruan dauden eragileetatik kanpo zaila izango delarik besterik barne biltzea. Horregatik, esan bezala, definizio hertsietan trabatu baino, sare hauen ezaugarriak eta baliatuko dituzten mekanismoak nola garatuko diren aztertzea gure arreta gune nagusia izango da. Hori guztia atalaren hasieran aipatu ditugun hiru aldagaiek (hertsadura, kapitala eta konpromisoa) parte hartzen dutenean nola ematen den aztertuz.

Hortaz, *konfiantza sareek demokratizazio prozesuetan duten eragina zehazteko, orain arte landutako hertsadura, kapitala eta konpromisoa jarraian zerrendatuko ditugun sare hauen ezaugarriekin harremanetan jarriko ditugu: integrazioa, mugak, sostengua eta kanpo zein barne loturak*. Bi aldagai multzoen arteko harreman honek, berriz, demokratizazioa edo desdemokratizazioa eragingo duten mekanismoak aktibatu edo indargabetuko dituztelarik. Ezin izango dugu ahaztu jarraian egitera goazena joera orokor edota eredu teoriko bat marraztuko duela, jokoan egongo diren baina hurrengo lerroetan bildu ezin ditugun beste hainbat aldagai aintzat hartu beharko dituen.

Hertsadurari dagokionez, honi lotutako bitartekoen erabileraren hazkundeak, printzipioz, ez du konfiantza sareen integrazioan lagunduko. Alabaina, *botere publikoetatik berezitako sareak indartzearen* mekanismoa aktibatzea hertsadura honen bilakaeraren araberakoa izan daiteke. Izan ere, gobernuak hertsadurarako bitartekoak areagotzen baditu gobernu eta sare hauen arteko urruntzea ematea logikoena litzateke. Mekanismo honek azken hauen autonomizazioa eta ondoriozko indartzea ekarri badezake ere, muturreko hertsaduraren erabilerak ere konfiantza sarea itotzera eramán dezake. Ildo honetan, hertsaduraren erabilera altu batek bere sostenguan eragin anibalentea ere izan dezake; alde batetik, errepresioa pairatzeak dakarren elkartasuneko jarrerak oinarria zabaldu badezake ere, aldi berean, bere helburuak asebetetzeko sare hauetara jotzeko sektore batzuek izan dezaketen jarrera baldintzatu dezake, *konfiantza sareetara iritsiko ez diren sektore sozialak zabalduz*. Gobernuaren aldetik hertsaduraren areagotzeak argi uzten ez duena zera litzateke: konfiantza sarearen mugak zorrotzu eta kanpo loturak ahulduko dituela. Barne loturei dagokienez, lehenengo momentu batean *elkartasunaren* mekanismoaren ondorioz, hauek areagotu badaitezke ere, *desertzioetarako* aukerak ere handiagotu egingo dira.

Gorago aipatu dugun bezala, kapitalari dagokionez, joera teoriko nagusiaren arabera horren akumulazio handia esku gutxietan desdemokratizaziorako aukera handituko du. Kapitala eta konfiantza sareen arteko harremana aztertzerako orduan, aldiz, politika publikoen bidez gobernuak ze konfiantza sarearen integrazioa bilatzen duten argitzea interesgarriagoa izango zaigu. Esan nahi baita, ez du esangura berdina izango, ezta demokratizazio prozesuaren bilakaeran eragin berdina izango, gobernu batek kapitalaren metaketa enpresarien eskuetan utziko dituen erabakiak hartzea edota langileen artean joera birbanatzaileagoa sustatu nahi dituenak hartzea; lehenengoan, patronala, konfiantza sare bezala, integratzera jo nahi izango du, eta bigarrengoan, berriz, sindikatuak, esaterako.

Pernandoren egiak baino agerikoak diren baieztapen hauek, konfiantza sareek demokratizaziorako mekanismoak nola inplementatu ahal izango dituzten ere ebatziko du. Adibidez, gobernuak mugimendu sozial edota sindikatu baten eskaerak aintzat ez hartzeko erabakiak, jendartearen begietara, *konfiantza sare hauek erantzunik eman ezin dieten mehatxuaren* mekanismoa areagotu dezakete, *konfiantza sareetara iritsiko ez diren jendarte sektoreak zabalduz* eta ondorioz beraiekiko sostengua txikituz. Baina nekez marraztu ahal izango du kausa-efektu marra zuzen bat. Izan ere, konfiantza sareen eraginkortasun falta honek babesá apaldu dezakeen bezala, hainbat uneetan gobernuak eskaera sozialekiko sentiberatasun falta ere erakutsi dezake; erreakzio gisa, sare hauekiko babesá areagotu eta atxikimendu soziala ere zabaldu dezakeelarik. Zentzu berdinean, zaila

izango da kapitalak konfiantza sareen kanpo zein barne loturretan izango duen eragin zuzena soilik aldagai honi erreparatuta argitzea.

Eta hirugarrenik, konpromisoaren eragina aztertuko dugu. Konpromisoa, beste sistema politikoetan ez bezala, demokrazien oinarriko zutabe bat izango da; Tillyren arabera, kapitala eta hertsadura bigarren maila batean geratuz. Bertan, gobernuek bultzatzen dituzten politika publikoetan konfiantza sareen konpromiso maila bat bilatuko da. Hainbat kasuetan, horretarako *governuek beraien konpromisoak betetzeko kanpo bermeak* sortuko dira; nazioarteko begirale edo bitartekarien inplikazioa kasu. Mekanismo honen bitartez bi aldeen arteko konpromisoa sendotzea bilatuko da, konfiantza zabaltzeko bitartekoen bidez. Horrelako mekanismoak gobernuak inplikatzeko dituzten gatazka politikoetan ez ezik, lan gatazketan ere ohikoak izaten dira. Baina Warrenek (1999) iradoki moduan, beste sistemetan ez bezala, aldeen arteko oinarriko konfiantza bat beharrezkoa izango da sistemak funtzionatu dezan.

Kasuan kasu, gobernuek konfiantza sareen aldetik konpromisoa baino integrazioa ere bilatu dezakete. Alabaina, gehiegizko barneratzea demokratizazioaren kaltetan ere joan daiteke, sarearen autonomia ahultzen duen heinean. Hortaz, konfiantza sareekiko konpromisoaren handitzea demokratizazioa ekarri badezake ere, hauek beraien mugak ondo definituak mantendu beharko dituzte erabateko integrazioa ekiditeko; horretarako bertako kideek dituzten kanpo loturak kontrolatu eta barne loturak sendotu beharko dituzte. Bestetik, gobernu eta konfiantza sareen arteko konpromisoa areagotzeko, askotan lehenengoak bigarrenengoak eskainitako sostengurako bitartekoak (ekonomikoak, materialak, ...) epe erdi-luzera konfiantza sareen menpekotasuna gobernuekiko sortu ohi duen prozedura da. Elorrietak (2011) maisuki hitz egingo digu gertaera honetaz bere doktore tesian.

Ondorio bezala, esan dezagun konfiantza sareek gobernuarekin dituzten harremanen bidez politika publikoetan integratzen direnean botere indibidual zein kolektiboa irabazten dutela. Horrela, gobernuaren jardunean eragitea sare hauen interes nagusia bilakatu ohi da. Ordainetan, gobernuaren jardunarekiko menpekotasun honek sareak bizirik irautea baldintzatu dezake, sarearen hainbat kide *kooptatzen* saiaturaz edota sarea bera disolbatuz, esaterako.

9.3.2.2.3 Herritarren eragina Estatuarekiko.

Gogoratu dezagun herritarren eragina Estatuarekiko handitzeko oinarrizko hiru prozesuk parte hartu beharko dutela: parte hartze politikoaren zabalpena; Estatukoak ez diren bitartekoak eskuratzeko aukerak berdintzea; eta hertsadurarako aukera duten eragile autonomoen boterea galaraztea. Oinarrizko prozesu hauetako bakoitza aipatzen ari garen hiru aldagaietako batekin lotuko dugu: parte hartzearen zabalpenak konpromisoarekin; bitartekoak eskuratzeko aukerak kapitalarekin; eta eragile autonomoen existentziak hertsadurarekin. Honek ez du ez esan aipatutako hiru prozesuetan errepikatzen ari garen beste aldagaiek eraginik ez dutenik; baizik eta gure ikerketa gaian nagusiki prozesu hauek aipatutako aldagaiei lotuta agertuko zaizkigula.

Esan bezala, konfiantza sare eta gobernuen arteko konpromiso maila altu bat erakusten duten harremanetan, *klase zuzendari eta boteretik aldenduak dauden sektoreen arteko koalizioen sorreraren* mekanismoa aktibatzea errazagoa izango da, adibidez; edota gobernuen presentzia zertan inplikatu behar ez dituzten harremanetan ere, *kategoria sozial ezberdinen arteko artekaritza* bideragarriagoa izango da konpromiso maila altu bat erakusten bada. Baina prozesu sozialetan aipatutako aldagaiek zer punturaino mekanismo hauek aktibatzen dituzten edota mekanismo hauen bitartez aldagai hauek areagotzen/ahultzen diren argitzea ez da lan erraza izango. Esan bezala, kausa-efektu harremana zuzen bat adierazten dituzten aldebakarreko korrelazioak agenda berriaren erabileratik aldendu beharko genituzke. Horren ordez, McAdam, Tarrow eta Tillyk esan bezala, kasuan kasu aztertuko ditugun elementuen inguruabarra, elkar-eragina eta egintza jasoko duen ikuspegia lehenetsiz.

Bitartekoak eskuratzeko aukerak berdintzeari dagokionez, kapitalaren aldagairi lehentasuna emango diogu. Izan ere, gobernuak politika publikoen bitartez definitutako bitarteko ekonomikoen birbanaketak des/demokratizazio prozesuan eragin zuzena izango duen aldagaia izango baita.

Azkenik, hertsadurarako aukera duten *eragile autonomoen boterea galaraztea* aipatuko genuke, demokratizazioa ahalbideratuko duen prozesu nagusietako bat bezala. Bitarteko hauen alde ezberdinetako erabilerak demokratizazioa ahalbideratzen duten mekanismoen aktibazioari (konfiantza sareen integrazioa, konpromisoak handitu, artekaritza erraztu, ...) eragiten dioten kaltea agerikoa bada ere, gorago aipatu bezala, prozesu hauetan parte hartzen duten aldagaien elkar-ekintza, inguruabarra edota jabetze/egintza nabarmendu beharko lirateke.

Edwardsek (2014: 211) dioten bezala, jardun terrorista bezala deitua izan dena ikertzeko ikuspegi “normatiboa” aldendu eta “analitikoa” nagusitu beharko litzateke, hainbat ikerketa sozialek

topatzen duten “puntu itsura” (“blind spot”) iritsi nahi ez badugu. Horregatik, bortxazko fenomeno hauen azterketarako ikerketa sozialetan erabiltzen diren bitarteko metodologikoak baliatzearen aldekoak diren autoreekin bat eginez (Della Porta, 1995; Tilly, 2007; Edwards, 2014; ...), bitarteko hauen erabileraren “azpian” dauden aldagaien eta mekanismoen arteko elkar-ekintza nabarmendu nahi izango dugu.

Eta bukatzeko, hertsadura bitartekoak baliatzen dituzten eragile autonomoen multzo honetan kokatuko ditugu (ustez) gobernuaren erabaki-ahalmen zuzenetatik kanpo egon daitezkeen “estatu aparatuek” deitutako. Sistema demokratikoen ezinbesteko den botere banaketak, gobernuaren eta bere aparatuen (judiziala, poliziala, militarra, ...) arteko harremanaren inguruan idazteko eta, batez ere, espekulatzeko luze eman du. Botere politikoaren inguruko lehia nagusi den prozesu hauetan, kategoria sozial edo estatalen baitan dauden interes kontrajarriek aktore bakoitzaren barne konfigurazioan eragiten dituzten mekanismoak sarri aktibatzen dituzte: desertzioak, eliteen kaltetzeak edota kooptazioak horietako batzuk izan daitezke. Mekanismo hauek aktore bakoitzaren posizionamendua eta kontraesankorrean bezala irudikatu dezakete. Kasuan kasu, hartu daitezkeen erabakiak estrategia kohesionatu bati edota botereen barne lehia bati erantzuten dioten argitzea lan nekeza izaten delarik (Rivas, 1998). Izan sistemaren jarrerari dagokionean edota ekintzaileen jarrerari dagokionean. Edozein kasutan, Tillyk era “autonomoan” jokatu dezaketen eragile hauei *eustea* demokratizazioa erraztu dezakeen mekanismo bezala identifikatuko du.

9.4 Marko metodologikoaren erabilpenerako kontutan izan beharreko hainbat gako

Atal enpirikoan murgildu baino lehen azaldu dugun eredu metodologikoaren gaineko hainbat zehaztapen nabarmentzea komeni da, bere inplementazioa behar bezala ulertze aldera:

- *Markoen azterketarako atalak elkarren artean teilakatu daitezke.* Diskurtsoen ikerketarako planteatu dugun diseinu metodologikoak nagusiki Snow eta bere ikerketa taldearen (1988) markogintzaren urrats nagusiak (diagnostikoa, pronostikoa eta motibazioa) eta Gerhardsek (1995) planteatutako markogintzaren eremuak eta estrategiak harremanetan jartzen ditu, hegemoniaren eraikuntza diskurtsiborako metodo gisa. Zentzu horretan, garrantzitsua da

eredu teorikoez ari garela aintzat hartzea. Horrela, hainbat kasutan zaila izango da markogintzaren pronostikorako identifikatutako estrategia bat diagnostikoaren markotik era zehatz batean bereiztea, esaterako. Honen adibidea definitutako kaltearen eragilearen erantzukizunarekin aurkitu dezakegu; kalte horren eragilea identifikatzea diagnostikoaren parte izango bada ere, pronostikoaren baitan eragile hori pertsonifikatu eta eskaerak berari helarazi beharko zaizkio, identifikazio diskurtsibo eta interpelazio zuzenaren arteko muga uste baino lausoagoa gerta daitekeelarik. Horregatik gure eredu metodologikoaren inplementazioak malgutasuna eskatuko du.


- *Markogintzaren eta mekanismoen arteko harremana ez da norabide bakarrekoa, elkar-eraginezkoa baizik.* Gorago aipatu dugun bezala, honek ez du mekanismo eta markogintzaren arteko alde bakarreko kausa-efektu logika bat nagusi behar. Izan ere, mekanismoek diskurtso berrien artikulazioan eragiten duten bezala, diskurtsoek ere mekanismo ezberdinak aktibatuko dituzte. Hortaz, gure asmoa elkarri eragingo dioten eta elkarren osagarri izango den tresneria metodologikoa baliatzea da.
- *Prozesu sozialen azterketarako eredu teorikoez ari gara.* Arestian azaldu dugun eredia diskurtsoen eraikuntza arrakastatsua egiten duten mugimenduentzat baliagarria izango da, baina urrats guztiak azaldutako eran betetzen dituzten mugimendurik nekez aurkituko dugu. Alde horretatik, gure asmoa hegemoniaren eraikuntzarako irizpide metodologiko orokor batzuk marraztea izan da, ikerketa lanean landuko dugun material enpirikoarekin gurutzatu beharko dena bere balioa frogatze aldera.
- *Azterketa kualitatiboa nagusituko dugu, azterketa kuantitatiboaren gainetik.* Markogintzaren azterketetan nagusitu ohi den bezala (Snow&Benford, 2014: 31), gurean ere ikuspegi kualitatiboa lehenetsiko dugu. Ikuspegi hau nagusitzea azterketaren joera narratiboa indartuko du, mugimenduaren markogintzak sortzen dituen eragin edo *outcome*-en deskribapenean, esaterako. Joera hau baliatutako datu iturrien tipologiagatik ere baldintzatua egongo da: ekintzaileen ekimen diskurtsiboak, inplikaturako ekintzaileekin zuzeneko elkarrizketak, komunikabideetan jasotakoak, ... Bitarteko hauen erabilerak ez du azterketa kuantitatiboa zertan baztertu, baina lanaren izaera narratiboak ikuspegi kualitatiboa nagusituko du.

9.5 Hipotesiak

Puntu honetara iritsita, orain arteko lana hurrengo urratsetan laburbildu dezakegu: lehenik, *teorizazio* lan bat egin dugu, hegemoniaren Diskurtsoaren Teoriaren eta ekintza kolektiborako Agenda Berriaren inguruan bildu duguna; bigarrenik, teoria hori operazionalizatzeko¹⁰¹ *metodo* bat planteatu dugu, *frame analysis* eta mekanismo/prozesuen tresnen bitartez; eta hirugarrenik, eta jarraian egingo duguna, tresna horiek aldagai behagarriekin harremanetan jarriko ditugu hipotesien formulazioaren bitartez.

Hipotesi baten aurrean gaude uste bat adierazten badugu errealitate edota fenomeno bat azaltzeko; hau da, hipotesien bitartez zer aurkitzea espero dugun aditzera emango dugu. Nolabait esateko, teoriaren eta datuen arteko zubi-lana egingo dute hipotesiek. Helburu horrekin, teoriaran era nahiko abstraktuan egin ditugun hausnarketak eta emandako azalpenak, laburtu eta zehaztu egiten dira hipotesiak formulatzean (Blas, 2008: 39).

Irudi honetan laburtu dezakegu egitera goazen ariketa:




9.1 irudia: Operazionalizazioa: kontzeptu, aldagai eta neurri arteko harremana (Blas, 2008: 69).

Zentzu honetan, hurrengo urratsak emango ditugu: a) teoria batek bi kontzeptu abstraktuen arteko harremana proposatuko du; b) hipotesiak enpirikoki behagarri den bi aldagairen arteko harremana aurreikusiko du; eta c) hau neurgarriak diren adierazle batzuen bitartez laburbilduko ditugu; eta d)

¹⁰¹ Kontzeptu abstraktuak ordezkatuko dituzten fenomeno behagarrien selekzionatze-prozesuari *operazionalizazioa* deituko diogu (Manheim&Rich, 1999: 68). Beste modu batera esanda, operazionalizazioa kontzeptuak, harremanak eta hipotesi abstraktuak behagarri egiteko prozesua da (Blas, 2008: 67).

behaketatik jasotako datuekin harreman horren existentzia berretsi edo ezeztatuko dugu (Blas, 2008: 70).

Gure hipotesien gaineko lehen hurbilpen bezala, ekarri dezagun sekuentzia hau lantzen ari garen ikerketara:



9.2 irudia: Operazionalizazioa gure ikerketara ekarrita.

9.5.1 Marko teoriko-metodologikoa.

Honela laburbildu dezakegu orain arte landu dugun marko teoriko-metodologikoa:

- *Hegemoniaren* eraikuntza prozesua politikoa da; hau da, botere harremanen bilakaera ebatziko duen izaera aurre-determinatu gabeko eraikuntza prozesu kulturala.
- Prozesu hau lehian egongo diren *identifikazio politiko*en artikulazioak gidatuko du. Esan nahi baita, jendarte zehatz batean lehian egongo diren identifikazio ezberdinek hegemonizazio prozesuaren bilakaera determinatuko dute.
- Aldi berean, identifikazio politiko hauen artikulazioa mundua ulertzeko ikuskera bateratuek edo *diskurtsoek* osatuko dute.
- Diskurtsoak mundua interpretatzeko *markoen (frame)* bilduma bateratua lirateke; hortaz, identifikazio politikoek errealitatea interpretatzeko diskurtso eta *frame* hauen inguruan forma hartuko dute.

- Prozesu hauek protesta ziklo zabalaren ikuspegitik eragin demokratizatailea izan ohi dute; gurean bezala, hainbatetan mugatua edota denbora ikuspegi luzeago batetik baloratu behar badira ere. Eragin demokratizatailearen hiru dimentsio nabarmendu ditzakegu, beti ere ereduaren arteko banaketa teoriko batez ari garela aintzat hartuz:
 - Aldaketa politikoa gauzatzeko bideetan: *hegemoniaren* eraikuntza (Laclau&Mouffe, 2004).
 - Botere politikoaren inguruko lehiaren ulermenean: *agonismoa* (Mouffe, 1999),
 - Ekintza kolektiborako ereduaren: *elkarlan gatazkatsua* (Giugni&Passy, 1998).


9.5.3 Hipotesi zehatzak.

Zehaztu ditzagu hipotesi zehatzak ere:

- Hauek lirareteke, gure ustez, 90. hamarkadaren erdialdean burujabetzaren aldeko diskurtso orokorretan emandako aldaketa nagusi batzuk¹⁰²:
 - Errealitate politikoa interpretatzeko ordura arte indarrean zeuden marko nagusien muga edo gabeziak gelditzen hasi ziren (*diagnosia*).
 - Muga horien gainean burujabetzaren aldeko sektoreek helburu politikoak eta horiek gauzatzeko bideak eguneratu eta beraien artean lerrokatu zituzten (*pronostikoa*).
 - Sektore ezberdinek helburu hauek gauzatzeko planteatutako proposamen egingarriak, aldiz, beraien arteko desadostasun gairak agertu zituzten (*motibazioa*).
- Diskurtsoen bilakaera honek ekintza kolektiboa baldintzatu zuen eta, aldi berean, ekintza kolektiboan parte hartzen duten *mekanismo* eta *prozesuek* diskurtsoak baldintzatu zituzten, norabide biko hartu-emanei bide emanez. Alde horretatik, aztertu dugun epealdian (1995-2000), MTTk protestaldietan aurreikusten dituzten hiru prozesu sendoak aurkitu ditzakegu; beti ere, euskal protesta ziklo luzeagoaren parte gisa:
 - Protestaldiaren *eskala aldaketa*; batetik, eliteen arteko (ETA-Gobernua) norgehiagokaz harago, ELA eta LABen *artekaritzaren* eskutik emandako liskarraldiaren zabalpenagatik; eta bestetik, ezker abertzalearen protestarako bitartekoen *erradikalizazio* eta *difusioagatik*.

¹⁰² Azterketaren epealdia (1995-2000) banatu dugun hiru azpi-epealdietako bakoitzean markogintzaren atal banak arreta berezia hartuko du. Horrela 95-97 hirurtekoan diagnosiak garrantzi berezia hartu du, 98-99an pronostikoak eta 2000. urtekoan motibazioarako markoak.

- Zahar-berritutako *kategorien osaketa* (soberanismo eta konstituzionalismoa); ordura arte sakabanatuak edota aurkatuak zeuden baina hainbat muga konpartitzen hasten diren talde ezberdinen multzoa bezala ulertuta.
- Maila ezberdinetako *polarizazioak*; kategori hauen arteko espazio politikoaren handitzea bezala ulertuta.
- Abertzaletasunaren baitako bi familia nagusien marko interpretatzaileen arteko integrazioa edo markogintzaren barne kohesioa, aldiz, apala izan zen; gerora, honek *lehiaren* mekanismoa berriro nagusitu zuelarik.
- Diskurtsoen arteko ezberdintasun hauek, errealitate politikoa interpretatzeko marko diferenteak agerian uzteaz harago, demokratizazio prozesua gauzatzeko paradigma ezberdina ezberdinen arteko lehia azaleratu zuten: Huntington-en (1996) ‘iraultza ala erreformaren’ paradigma klasikoez edota MTTk definitutako ‘prozesu iraultzaile’ eta ‘demokratizazio mugatuaren’ ereduaz ari gara.



9.4 irudia: Marko metodologikoa eta aztergai empirikoaren arteko harremana azaltzen duen irudia.

9.6 Ikerketa teknika eta iturriak

Gure ikerketaren ardatz nagusietako bat diskurtsoen azterketan kokatu da. Alde horretatik, ikerketa kualitatibo batez ariko gara. Blasek (2008: 91) aipatu bezala, azterketa kualitatiboek jendartea talde sozialetan, ideologia politikoetan, portaeretan edota, gure kasuan bezala, identifikazio politikoetan sailkatu nahi izango dituzte. Multzo hauen iritzi edo aspektu subjektiboen berri izateko jasotako ezagutza esplikatzailea edo iritzizkoa izango da.

Ezagutza hau biltzeko *narratiba analitiko*a deritzon metodoa baliatuko dugu (Pedriana, 2006). Narratiba analitikoak teorikoki jantzitako ‘kontakizunak’ dira; ekintzaile sozialetan, beraiek eraikitzen dituzten diskurtso eta ekintzarako alternatibetan, gauzatzen dituzten ekintzetan eta beraien erabakien ondorioetan arreta jartzen duena. Gainera, kronologiak eta sekuentziek garrantzia handia hartuko dute. Narratibak “informazio historikoa aurkeztu eta analizatuko du, denboran zehar lotutako ekintzen sekuentzia gisa, zentzua hartuko duen osotasun metodologiko batean” (Pedriana, 2005: 351).

Ikerketa iturri nagusi bezala analisi dokumentaletara joko dugu. Analisia jatorrizko testuen (idatzi, diskurtso, ekimen publikoetako adierazpen, ...) eduki-azterketek eta hemeroteca lanek gidatuko dituzte. Testuen egiturazko azterketa hauek ikertuko ditugun gertakarietan bertan inplikaturik egon ziren hainbat kideei egindako erdi-gidatutako elkarrizketekin osatuko dugu. Iturri dokumentalen azterketa eta aipatutako elkarrizketak informazioa jasotzeko bi bide osagarri bezala irudikatzen ditugu.

Horretarako burujabetzaren aldeko kategoria honetan kokatu ditzakegun eragile nagusien diskurtsoa aztertuko dugu; zehazki: ELA eta LAB sindikatuena; Eusko Alderdi Jeltzalea eta Herri Batasuna / Euskal Herritarrok alderdi eta koalizioena; eta ETarena. Prozesu honen azterketan bestelako diskurtso kualifikatuekin ere aurkituko gara, batez ere eragile konstituzionalistena; baina azterketa nagusia aipatutako eragileengan kokatu dugu. Zentzu horretan, gure lana eragile hauen diskurtsoen azterketan zentratu nahi izan dugu, gure ustez ondorengo prozesua ahalbideratu zituzten aldaketa nagusiak beraien diskurtsoetan eman zirelako.

Ez da gure helburua aztergai izango dugun epealdian (1995-2000) horietako bakoitzaren azterketa osoa egitea. Eragile bakoitzaren diskurtsogintzan ez galtzeko gertakari esanguratsuen inguruan artikulatutako diskurtsoetara joko dugu, gertakari hauen zehaztapenean elkarrizketatuek beraiek azpimarratutakoetan sakondu nahi izan dugularik. Iturri hauek, diskurtsoak aztertzeko ez ezik, urte horietako ekintza kolektiboaren gauzatzean parte hartu zuten mekanismo eta prozesuak aztertzeko ere baliatuko ditugu.

Era berean, ikerketaren barne kohesioa bermatze aldera, diskurtsoen eta ekintza kolektiboaren azterketa Euskal Erkidego Autonomoan zentratuko dugu. Hala ere, hainbatetan lurralde-mailak teilkatuak agertuko zaizkigu, batzuetan diskurtsoen erreferentzia hiru herrialdeei begirakoak

izango direlarik (jarduera instituzionalari dagozkienak, esaterako) baina beste hainbatetan lurralde osoari begirakoak ere izango direlarik.

9.6.1 Iturri dokumentalen azterketa.

Azterketa dokumentalerako hiru iturri nagusietara joko dugu: a) aipatutako eragileen jatorrizko diskurtsoak jasoko dituzten bitarteko ezberdinak (ponentziak, ekitaldietako diskurtsoak, idatziak, komunikatuak, ...); b) aipatutako epealdiaren inguruan dagoen bibliografia zabala; eta c) egunkarietako hemeroteka.

Iturri bakoitzari hurrenkera horren arabera garrantzia eman diogu. Horrela jatorrizko diskurtsoak biltzen dituzten dokumentuak gure azterketaren oinarritzko ikergaiak izango dira, arreta berezia eskainiko diegularik eragile bakoitzaren erabaki politiko nagusiak hartzen ziren kongresu, batzar nagusi edota antzekoetan landutako ponentzia eta idatziei. Alde horretatik, aztertutako garaiaren inguruko bibliografiak eta egunkarietako hemeroteka iturri dokumental osagarritzat hartu dezakegu.

9.6.2 Erdi-egituratutako elkarrizketak.

Gure hipotesiak kontrastatzeko baliaituko dugun informazioa bigarren iturri batetik jasoko dugu: elkarrizketen bidez. Kasu honetan, 90. hamarkadan zehar diskurtsoaren sortzaile izan ziren elite politiko eta sozialak elkarrizketatu ditugu.

Blasek planteatutako tipologiari jarraituz, *sakoneko elkarrizketa semi-fokatu eta ez-zuzenduak* baliaitu ditugu (Blas, 2008: 114). *Sakoneko elkarrizketa* bi arrazoiengatik aukeratu dugu: batetik, beste formatu batzuen aldean, honek aztertutako gaian sakontzeko aukera handiagoa ematen duelako; eta bestetik, elkarrizketatuen inpresio edo iritzi subjektiboak biltzeko aukera ematen duelako. Honek, askotan diskurtso ofizialak biltzen dituzten formatuek (komunikatuak, agiriak, ...) helarazten ez dituzten baina garrantzia handia izaten duten uste edo iritzi pertsonalagoak jasotzeko aukera ere ematen digu. Aldi berean, kontutan hartu beharko dugu, igarotako denbora tarteko, elkarrizketatuen adierazpenak egun duten marko interpretatzaileagatik 'kutsatuta' egongo dela. Alde horretatik, ezin izango dugu ahaztu orduko diskurtsoaren analisisa egitera goazela, eta zentzu

horretan, elkarrizketetan aipatutakoak garai horretan esan eta idatzitakoekin etengabeko kontrastean jarri beharko ditugula.

Elkarrizketak *semi-fokatuak* izan dira, arreta nagusia Lizarra-Garaziko prozesuan kokatuko badugu ere, elkarrizketa-gaiaren zabaltasunak elkarrizketatuei arreta hainbat erpinen gainean jartzeko askatasuna ere eman dielako. Eta *ez-zuzenduak* edo *erdi-egituratuak*, elkarrizketatzaileak oinarritzko gidoi bat planteatu arren, elkarrizketatuak transmititutako informazioaren arabera galdera berriak inkorporatzeko aukera eman digulako.

Gidoiak honako hiru atalak jasoko lituzke:

1. Lehenik eta behin elkarrizketatuari aztergai den garaian ordezkatzan zuten eragilean zer ardura edota funtzio betetzen zituen galdetuko diogu. Horrekin batera, urte hauetan zer bere ibilbide politiko-soziala zein den ere galdetu diogu, egun bere inplikazioa zein den ere azaltzeko eskatuz. Ibilbidearen bilakaeraren ezagutzak, atzeraeraginezko ikuspegiarekin osatzen diren iritzien osaketa ulertzen laguntzen duelakoan.
2. Bigarrenik, aipatutako epealdian elkarrizketatuak ordezkatzan zuten eragileak egoera politikoaz egiten zuten *diagnostikoa* zein den azaltzea eskatuko diogu. Honen barruan, eragile politiko eta sozial guztiek burutzen duten problematizazio funtzioaren jatorriak eta eragileak deskribatzea eskatuko diogu. Momentu zehatz bateko argazki estatikoa ez ateratzeko ikuspegi diakroniko batez egitea eskatuko diogu; hau da, arazo horiek izan zuten bilakaeraren baitan.
3. Hirugarrenik, bere eragileak finkatutako helburuak eta horiek erdiesteko aukerak eta arriskuak deskribatzeko eskatu diogu; edota, beste modura esanda, egindako *pronostikoa*. Honekin batera, bere inguruko erreferentziazko eragileek egiten zuten pronostikoaren gaineko irakurketa ere eskatuko diogu.
4. Eta azkenik, elkarrizketatua bere eragilearen legitimaziorako (eta besteen deslegitimaziorako) planteatutako bideak eta beraien helburuak erdiesteko finkatutako proposamenen inguruan galdekatuko dugu (*motibaziorako markoa*). Baita bi afera hauen inguruan beste eragileek plazaratutakoen inguruan ere.

Elkarrizketatuen profilarri dagokionez, diskurtsoaren sortzaileak izan ziren elite politiko-sozialetako kideez ari gara. Zehazki:

- Xabier Alegria, KASeko bozeramailea 90. hamarkadaren lehen erdialdean.
- ‘Txutxi’ Ariznabarreta, LABeko Idazkaritza Nazionaleko kidea 1992tik 2008ra.

- Rafa Díez, LABeko Idazkari Nagusia 1992tik 2008ra.
- Jose Elorrieta, ELAko Idazkari Nagusia 1988tik 2008ra.
- Txomin Lorca, LABeko Idazkaritza Nazionaleko kidea 1992tik 2008ra.
- Juan Maria Ollora, EAJko Legebiltzarkidea Gasteizko Legebiltzarrean 1986tik 2001era.

III. blokea:

Abertzaletasunaren diskurtsoen eta euskal protestaldiaren azterketa

10. KAPITULUA: AURREKARIAK: EUSKAL PROTESTALDIAREN ABIATZEA, ZABALTZEA ETA IDENTIFIKAZIO POLITIKO NAGUSIAK

Atal metodologikoan esan bezala mobilizazio prozesu baten azterketa egitera goaz, 1995tik 2000era doana. Mobilizazio prozesu hori, aldiz, protesta ziklo zabalago baten baitan kokatzen da; ‘euskal gatazka’ edo protestaldi bezala ezagutzen duguna. Zentzu horretan, *Aurrekarien* atal honetan, labur bada ere, ariketa bikoitza egin nahi dugu: batetik, protestaldiaren abiatzea eta zabalpena testuinguruan jarri, eta bestetik, protestaren zabalpen horri lotuta nagusitu ziren identifikazio politikoen azaleko azterketa bat egitea. Bata eta bestea elkar-lotua azalduko zaizkigu; izan ere, identifikazio politikoak protestaldiaren arragoan ezaugarrituko baitira. Horrekin batera, ikertu nahi dugun epealdian (1995-2000) emandako aldaketak nabarmentzeko ezinbestekoa zaigu, aurreko garaiek utzitako abiapuntua zein den kokatzea.

Aldez aurretik azaldu dezagun ez dela lan honen asmoa *euskal gatazka garaikidearen* azterketa oso bat egitea; helburu horrek luze gainditzen du ikerketa lan honen asmoa. Gure erreferentziazko epealdiaren ikerketak, berriz, aurreko hamarkadetan garatutako liskaraldiaren oinarritzko kokapen bat behar duelakoan gaude. Gauzak horrela hiru zatitan banatu nahi izan dugu atal enpirikoaren *Aurrekarien* lehenengo bloke hau: a) Protestaldiaren abiatzea eta zabalpena, b) Trantsizioaren eragina protestaren garapenean identifikazio politikoetan eta c) Sistema berriaren identifikazio politiko nagusiak.

Protestaldiaren abiatzea azaltzeko Tarrow-en (1997) kategoriak baliatu ditugu. Labur esanda hauek dira gure ikerketara ekarri nahi izan ditugun kontzeptuak:

- Protestaren abiatzea:
 - Mugimendu goiztiarrak eta aukera politikoak.
- Protestaren zabalpena eta indartzea:
 - Maila ezberdinetako zabalpena: sektoriala eta geografikoa.
 - Lehiarako errepertorioaren ugaritzea eta erradikaltzea.
 - Marko sinboliko berrien sorrera.

- Mugimendu deribatuen sorrera.

Bigarren atalari dagokionez, esan gabe doa, Trantsizioaren azterketak erpin asko dituela. Horietako lehenengoa epealdiaren mugarritzea bera. Zentzu horretan, gure denbora erreferentzia Francoren heriotzarekin hasi eta sistema berriaren instituzionalizazioaren mugarri nagusien inplementazioarekin bukatuko dugu; hau da, Konstituzioa eta Gernikako Estatutua. Hortaz, Trantsizioa 1975tik 1979ra doan epealdia bezala ezaugarrituko genuke. Ez dugu bost urte bizi horien azterketa sakona egingo. Protestaren garapenean ordura arteko identifikazio politikoetan (eta ordutik aurrera egituratuko direnetan) eragin nabarmena izango duten hiru une edo ekimenetan jarriko dugu arreta: a) 1977ko lehenengo Hauteskunde Orokorak, b) Konstituzioaren erreferenduma eta c) Gernikako Estatutuarena.

Aurrekarien lehenengo bloke honekin bukatzeko Trantsizioak egonkortutako identifikazio politiko esanguratsuenan deskribapen labur bat egingo dugu. Ondorenean aztertu behar dugun epealdian eman ziren aldaketak aurreko urteetako egoerarekin alderatu ahal izateko.

10.1 Euskal protestaldiaren abiatzea eta zabaltzea

10.1.1 Frankismoaren lehenengo urteak eta *isiltasunaren jendartea*.

1936ko altxamenduarekin hasitako gerrak garaile eta galtzaileen arteko jendarte zatitua utzi zuen. Erregimen berriak espazio publikoaren *itxiera* dekretatu eta ordura arteko erakunde ordezkatzaille nagusiak disolbatu zituen. Ekintza sindikal eta politikoak debekatu eta alderdi bakarragatik, sindikatu ofizialagatik eta bestelako masa erakundeengatik ordezkatuak izan ziren. Eliza, sozializatorako bitarteko gisa, erregimen berriaren euskarri nagusietakoa bilakatu zen. Euskal Herrian, berriz, apaizeria elizaren hierarkiaren aurkakoa izan zen, kartzela edo deserria pairatuz. Euskara erakunde, hezkuntza sistema eta bizitza publikotik desagertu ziren. 1937an Bizkaia eta Gipuzkoa herrialde traidoreak izendatu eta Kontzertu Ekonomikoak indargabetu zen. Euskal kulturaren adierazpide nagusiak bere historiaren epealdirik kritikoenak ezagutu zituen.

Maila ekonomikoan, Espainian logika autarkikoa nagusitu zen. 40. hamarkadako errenta ekonomikoa mende hasierako mailetara bueltatuko da, baina populazioa handiago zenez XIX. mendeko mailetan kokatu zen. Prezioek nabarmen egingo zuten gora, espekulazioari eta merkatu beltzaren hazkunderari bide emanez. Aberastasunaren banaketan desorekak nabarmen hazi ziren, gosea eremu sozial zabaletara hedatuz. Euskal Herrian ere klase herrikoien egoera nabarmen kaskartu zen.

Hasieran esan bezala, egoera honen ondorioa jendartearen dikotomizazioa izan zen. Batetik, *garailearen* errealitatea; indar militarrean eta ordenu berriaren izaera erlijiosoan oinarritua. Jendarte garaileak espazio publikoaren itxiera ezarriko zuen sistema sozio-politikoaren instituzionalizatu zuen; sozializazioarako foku autonomoak debekatu zituen; ezberdintasuna ukatuko zuena. Garaileek ezarritako erregimen berriaren egitura ofizialak jardueraren mugak definitu zituen, espazio publikoa espazio ofiziala bihurtuz. Bestetik, *garaituaren* jendartea egongo da; indarrean den erregimen berriaren ondorioz publikoki agertu ezin izango dena. Garaile eta garaituen arteko banaketa honek jendartea bera *egitura ofizial* eta Gurrutzagak (1985) *isiltasunaren jendartea* deitu duenaren arteko dualtasunera eramango du.

Isiltasunaren jendarte honetan, aldiz, identifikazio politikoetarako bitarteko eta kode zahar-berrituak (familia, eliza, koadrila, elkarteak, ...) eguneratuko dira, komunitate nazionalistaren biziraupena eta garapena bermatuko dutenak (Gurrutzaga, 1985: 132). Identifikazioarako orube honen gainean ernatuko da euskal liskarraldi garaikidea.

10.1.2 Protestaren abiatzea: ETaren aukera politikoak, mugimendu goiztiar bezala.

Euskadi Ta Askatasuna (ETA) 1959ko uztailaren 31 jaio zen¹⁰³. McAdamek *mugimendu goiztiarrez* egindako definizioarekin bat eginez, hauek berebiziko garrantzia izango dute identifikagarria izango den protesta zikloari hasiera ematen diotelako (McAdam, 2002: 245). Ekin-ekin, aurrekari zuzen gisa, bere jardun nagusia ekimen kulturaletan zentratu zuen. Frankismoak euskararen gainean eragindako jazarpenak kezka larria sortuko du euskal intelektualek belaunaldi gazte berri batengan (Jose Luis

¹⁰³ Data honek, Sabino Aranak Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) eratu zueneko hirurogeita laugarren urteurrenarekin bat egingo du, hortik aurrera abertzaletasunaren lidergoan sortuko den lehiaren erakusgarri gisa ulertu dezakeguna.

Alvarez Enparantza *Txillardegi*, Julen Madariaga, Benito del Valle, Jose Manu Agirre, ...), beraien jarduna euskararen eta euskal historiaren defentsa eta sustapenean kokatuz (Letamendia, 1994a: 250).

Baina arestian aipatu dugun isiltasunaren jendartean, euskal kulturaren inguruan existitu zitekeen kezka maila edota jarraian azalduko ditugun jatorri laboraleko eskaera isolatu batzuez aparte, nekez aurkituko du ETA bezalako mugimendu goiztiar batek beharrezkoa zuen abiapuntua protesta ziklo bati hasiera emateko. McAdam-en (2002) kategoriekin jarraituz, mugimendu goiztiarren jatorria erregimenaren krisi orokortuari lotuta egon ohi da. Baina 50. hamarkadaren bukaerako testuingurua frankismoaren krisialditik urrun zegoen oraindik. Alde horretatik, ETAk *isolatutako lehiatzailearen* forma hartuko zuen (McAdam, 202: 250). Mugimendu goiztiarraren identifikazioa indarrean den ordenua ahultzen ez den protesta zikloaren hasieretan errazagoa da. Krisi orokortuetan ematen diren egoera iraultzaileetan talde lehiatzaileen mugak lausotzen diren bitartean, erregimenaren indarrak eta jarraikortasunak agerikoagoa egiten du sistema lehiatu eta aitzindaritza jokatzeko duen mugimendua. Kasu hauetan, gertaera edo prozesu zehatzek talde lehiatzaile konkretu bati abantailak eskainiko dizkiote. Baina zeintzuk dira abantaila hauek ETAREN kasuan?

Protesta zikloen abiatzean Tarrow-ek (1997) aukera politikoen egiturari garrantzia berezia emango dio. Hasiera hauetan mugimenduaren antolaketa eta ekintzarako bitartekoak inportanteak izango badira ere, aukera politikoen liskarraldiaren hasiera determinatuko dute. Gure kasuan hiru aukera multzoei erreparatuko diegu: a) EAJk ordezkatzeko duen nazionalismo tradizionalen egoera, b) lan munduaren egoera eta c) nazioarteko testuingurua.

10.1.2.1 EAJ eta deserria.

Francoren garaipenak errepublikaren aldeko sektore ezkerzale eta nazionalista gehienak klandestinitatera, kartzelara edo erbestera kondenatu zituen. Behe burgeseriaren sektore nazionalista tradizionalista eta separatistenak Euskal Herrian gelditu ziren; zuzendaritzaren sektore pragmatikoenak, berriz, atzerrira jo zuen (Díez Medrano, 1999: 169). Azken hauen artean Eusko Jaurlaritzako gobernu kideak, Agirre lehendakaria buru zutela¹⁰⁴. 1939tik 1951ra doan epealdian

¹⁰⁴ 1939an buruzagi nazionalista gehienak Meudonen bildu ziren, Paris inguruan. Bertan II. Errepublikarekin zituzten akordioak apurtzea deliberatu zuten, Eusko Jaurlaritza patrimonializatuz. Bertan Agirre Lehendakariak Frente Popularreko gainontzeko kideei (PSOE eta errepublikanoei) *euskal lerro nazionala* eta Estatuko alderdiekiko

Eusko Jaurlaritza euskal erresistentzia erbestetik antolatzen saiatu zen, kide esanguratsu gutxi batzuk Euskal Herrian gelditu ziren bitartean (Ajuriagerra, Rezola, ...). Gobernu honek funtzio bikoitza bete izan nahi izan zuen. Batetik, *politikoa*; kontrako baldintzetan legalitate errepublikanoa eta Autonomi Estatutuaren erreferentzia mantentzea. Bestetik, *kulturala*; isiltasunaren jendartean aurreko belaunaldien ondare historiko-kulturala helaraztea (Gurrutxaga, 1985: 187-188). Baina honen gainetik (edo honekin batera), erbesteko Gobernu honen funtzio nagusia frankismoaren lehenengo urteetan *sinbolikoa* izango zen; zentro sinbolikoaren erreferentzia mantenduz. Atzerriko Jaurlaritzak funtzionamendu sozial baten legitimitatea era kolektibo batean ordezkatzeko jarraitu zuen, euskal jendarteko aktoreei beraien imajinario kolektiboa bir-elikatzeko aukera emango dielarik. Funtzio sinboliko honen iraupena, ordea, mugatua izan zen.

Atzerrian zeuden buruzagi jeltokideen esperantza nagusia II. Mundu Gerran lehiatzen ari ziren aliatuengan kokatua zegoen. Francok Hitlerrekin garatutako aliantza eta elkarlanaren ondorioz, Agirrek hartu-eman diplomatikoak garaile nagusiak izan zitezkeen indar aliatuekin garatu zituen, II. Mundu Gerraren bukaerak indar hauek Francoren aurka egin eta Errepublika berrezarriko zutenaren esperantzaz. Gerra Hotzaren abiatzeak eta EEBBek Espainiarengan aliatu potentzial bat ikusteak apustu hau erabat zapuztu zuen, ordura arte atzerrian zen Gobernuaren eragina ordura arte apala bazen are hutsalagoa bihurtuz. Hortik aurrera EAJren ageriko jardun politikoa deialdi zehatzetara mugatuko da (Pérez-Agote, 1984: 112)¹⁰⁵.

50. hamarkadaren hasieratik aurrera nabarmenagoa izango den EAJren geldotasun politikoak badu bere aldaera sozio-ekonomikoa ere. Zentzu honetan interesgarria izango da Juan Díez Medranok (1999) planteatutako tesia. Bere ustez euskal elite ekonomiko-politikoek, Gerra Zibila baino lehen eta ondorengo urte frankistetan, Estatuarekin ageriko loturak izan zituzten. Frankoren agintaldiaren lehenengo urteen (1939-1952) politika ekonomikoa autarkiak eta gerrak suntsitutako azpiegituren berreraikuntzak markatu zituen. Epealdi honetan merkatu ekonomia ia desagertu zen eta Estatua ondasunen kontsumitzaile nagusia bihurtu zen. Egoera hau euskal industri astunaren (altzairugintza,

menpekotasuna apurtzeko eskatu zien. Afera hau argitu gabe zegoenean, 1940ko ofentsiba naziak Agirre Lehendakaria Paris inguruan harrapatu zuen, Berlinera ihes egin eta gero, 1941an Hego Amerikara iritsi zelarik. Bitarte horretan, Jaurlaritza buru argirik ez zuela, Manuel Irujok Euzkadiko Kontseilu Nazionala eratuko du Londresen, legalitate errepublikanoekiko autonomoa izango den politika garatuz. Agirre bera, EEBBetara iritsi zenean, Irujoren ildo emendatu zuen alderdi errepublikanoekin elkarlana berrezarritik (Saiz de la Granja, 2002: 49).

¹⁰⁵ Praktika hau Gerra Zibiletik galtzaile atera ziren alderdi nagusien artean orokortu zen. Horren erakusgarri ere PSOEren egoera. Gerran bertan euskal lurraldeetan antolatutako Comité Central Socialista de Euskadi-k (CCSE) gidatuko du alderdi honen bilakaera frankismoaren urte gehienetan. Euskal nazioaren inguruko ulermen ezberdinek bera eta EAJren arteko harreman gatazkatsuei bide eman zien Gerra osteko lehenengo urteetan. 1945an galtzaile atera ziren indar ezberdinen artean sinatutako *Baionako Hitzarmenak*, aldiz, harreman adeitsuagoei bide eman zien (Egiguren, 2011).

ontziolak, elektrizitatea, ...) onurarako izan zen. Zentzu honetan, Estatuak euskal industriak ekoiztutako produkzioa behar zuen. Finantza mailan ere Estatuak eta euskal eliteen arteko lotura agerikoa izango zen. 1936 eta 1942 artean Bilboko burtsaren inbertsio maila hamar aldiz biderkatu zen. Mugimendu finantzario hauek, gehienbat zor publikoa erostera bideratuta egongo zen (%53). Horrela, 1941an Espainian inbertitutakoaren %21a Bilbon inbertitu zen. Era berean, kreditu bidez eta burtsa merkatuen espekulazioaren bitartez egoitza Bilbon edota Bizkaian zuten banku handiek sozietate espainiar handienak kontrolatu zituzten. Era honetan, euskal kapitalismoak frankismoan zehar espainiar ekonomian bere lidergoa ezarri zuen.

Euskal kapitalismo hau euskal jatorriko oligarka familia handien eskuetan egongo da: Ibarra, Villalonga, Victor Chavarri, Pedro Chalbaud, Ramón Sota y Llano, ... (Díez Medrano, 1999). Euskal burgesia, noski, ez da soilik oligarka handiez osatua egongo; euskal nazionalismoarekin identifikatzen diren maila ertain eta txikiko enpresariak osatuko dute multzo honen zati handiena. Batzuk eta besteen harremana, ordea, estua izango zen. Horrela azaltzen digu Díez Medranok elite ekonomikoen goi geruzetatik maila baxuagoko eskala burges eta liberaletara hedatzen den menpekotasun ekonomikoa eta, ondorioz, politikoa ere:

"El capitalismo local dependía en gran medida de estas grandes sociedades y bancos que las controlaban, a su vez dominados en gran medida por personas con una actitud española y proclive a Franco. Esta concertación capitalista restringía no sólo la autonomía política de los capitalistas locales sino también las de la "intelligentsia" técnica e "intelligentsia" humanista (ingenieros y abogados respectivamente [...]). Dichos grupos sociales dependían en definitiva en gran medida de empleos, contratos, préstamos y contactos, directa o indirectamente controlados por grandes monopolios de la banca y la industria" (Díez Medrano, 1999: 161-162).

Bertan iradokitzen den bezala, lotura ekonomiko hauek bere aldaera politikoa ere izango dute. Izan ere, euskal elite kapitalista eta Francoren erregimenaren arteko lotura hauek, euskal burgeseria eta *intelligentsiaren* arteko autonomia politikoa nabarmen mugatzearekin batera, frankismoaren aurkako mugimenduan bere parte hartzea oso apala izango zela iradokitzen baitugu (Díez Medrano, 1999: 168).

Diplomazia jeltxidearen porrotaren eta maila ekonomikoan jatorria zuten autonomia politikoaren mugapenekin batera, EAJren ideiak ere garai berrietara egokitzeko zituen mugak agerikoak ziren.

XIX. mendearen bukaeran Sabino Aranak landutako nazionalismo arrazista eta anti-sozialistak geroz eta sarbide zailagoa zuen Espainiatik lanera etorritako etorkinen artean. Migrazio uholde nagusia 1958 eta 1966 artean eman zen (Letamendia, 1994a: 271); baina ordurako Ekin-eko gazteek pentsaera korronte berriak barnebilduko zituen ikuspegiak lantzen hasiko ziren "Ekin-eko kaierak" (1955) izenagatik ezagunak zirenetan. Letamendiak (1994a: 255) honako gaien inguruan laburbilduko ditu gazte hauen imajinario berria: euskal historia eta memoriaren garrantzia; euskara, berreraikuntza nazionalaren zutabe gisa; euskal izaeraren ikusmolde mitikoa; akonfesionalitatea eta elizaren hierarkiaren errefusatzea; elizaren doktrina sozialarekin bat egingo zuen programa soziala; edota arrazismoaren bazterketa, etnismo kultural eta linguistikoagatik ordezkatzuz. EAJk ordezkatzeko zuen nazionalismo tradizionalaren eta Ekin ordezkatzeko hasia zen nazionalismo garaikidearen arteko talka ideologikoa ere agerikoa zen; lehenengo baldintzapenak (erbesteratzea, autonomia politiko falta, ...) bere eguneratzea nabarmen eragozten zuelarik. Bigarrena, aldiz, euskal jendartean ernaltzen hasiak ziren sektore sozial berrietara hurbiltzen hasteko oinarrizko abiapuntua osatzen zuen. Zentzu horretan, gerora sendotuko den marko diskurtsiboen arteko zubigintza gauzatzen hasiko dela esan dezakegu.

10.1.2.2 Lan mundua.

Arestian aipatu bezala, gerra osteko urteak autarkia ekonomikoak markatu zituen. Ekoizpen maila txikia zen eta azpi-kontsumoa nabarmena esparru sozial zabaletan. Honi prezioen gorakada erantsi behar diogu. Gauzak horrela 1947rako hainbat greba partzial pizten hasi ziren, urte horretako maiatzaren lehenengo Bizkaian greba orokorrerako deialdia zabaldu zuelarik. Honakoa frankismoan deitutako lehenengo greba orokorrerako deialdia izan zen eta kuantitatiboki arrakastatsua izan bazen ere, bere esangura politiko nagusia ordura arte nagusitutako *isiltasunaren jendartean* lehenengo arrakala irekitzeko balio izan zuela da (Gurrutxaga, 1985: 194). Urte horretatik 1951ra arte lan munduari lotutako protesta ziklo labur bat ireki zen, baina bertan jada hurrengo urteetan presente egongo diren aldarrikapenak agertzen hasi zirelarik: elkarte eta biltzeko askatasuna, eskubide kolektiboen urraketen salaketa, justizia sozialerako eskubidea eta abar.

Erregimen frankistak gupidarik gabe erantzun zien lehenengo protestaldi hauei. Garaiko kalkuluen arabera, Bizkaian bakarrik sei mila pertsona inguru atxilotuak izan ziren (Gurrutxaga, 1985: 195). Egoera gogorak bizi ziren. Atxilotu kopuruak gora egin zuen eta kaleak segurtasun indarregatik

hartuak izan zirena. Egoera honek, aldiz, nazioartean oihartzuna izango zuen, erbestean zen Jaurlaritza Euskal Herriak pairatzen zuen askatasun falta salatzeke baliatuko duelarik. Barrura begira, protestaren lehenengo agerpen hauek egitura ofizialetatik harago egosten ari zen mugimenduaren isla badira ere, langile mugimendu eta oposizio antifrankisten ezintasunen erakusle ere izan ziren¹⁰⁶.

50. hamarkadaren hasierako urte horietan oraindik immigrazio uholde handiak eman gabe zeuden eta euskal ontziolaren zabalkundeak hamarkadaren hasierara arte itxaron beharko zuen. Bitarte horretan bestelako prozesu sozio-ekonomikoak garatzen joan ziren: Arabako industrializazio prozesuaren hasiera, industria kimiko eta arinaren zabalpena (nagusiki Gipuzkoan), makina-erremintaren sektorearen indartzea eta abar (Letamendia, 1994a: 268-269).

Industriaren dibertsifikazio honen eskutik immigrazio prozesu bikoitza piztu zuen 60. hamarkadaren hasierarako: Estatuko zonaldeetatik Euskal Herrirakoa eta Euskal Herriko nekazari inguruneetatik hiriguneetara emango zena. Gauzak horrela, 1961tik aurrera grebaren aldeko mugimendua berriro suspertzeko osagai ezberdinak emanak zeuden. Urte horretan bertan lan hitzarmenen negoziazioaren moteltasunagatik greba ziklo baten hasierari eman zitzaion. Estatuko beste eremuetan hasitako grebak (Asturiaseko meatzariena, esaterako) bere isla izango dute gurean, bertako altzairugintzako langileek lehenengo protesta arrakastatsuak garatzen hasiko direlarik. 60. hamarkada hasiera horretan soldatek gora egingo dute, grebak normalean kaleratzerik gabe bukatzen ziren eta, itxuraz, erregimen frankistak langile mugimendu hau toleratuko du (Ibarra, 1987: 85).

Ekimen hauek garaiko Langileen Batzordeen eskutik garatzen hasi ziren. Ibarra bere doktore tesian¹⁰⁷ esango digun bezala, mugimendu hau nahiko homogeneoa izango da: gaztea, etorkinek pisu nabarmena izango dute eta fisikoki lan zentro handietan bilduta egongo da; era espontaneoan biltzeko joera izango du, asanbladetan beraien ordezkariak hautatuz. Honek zentral sindikal historikoen aldetik (UGT, CNT eta ELA) errezeloak piztu zituen (Letamendia, 1994a: 273). Eredu asanbleario honek, aldiz, sortu berria zen ETAREN zabalkunderako aukera paregabeak eskainiko zituen.

¹⁰⁶ Honela deskribatuko du Tuñón de Lara-k 1947ko grebaren eragina: “La huelga de Bilbao de 1947 no fue un principio sino un final; final del impulso de la oposición tras la guerra mundial, final de unos métodos de organización todavía no adaptados a la dictadura totalitaria y que correspondían a una falta de análisis sobre las consecuencias de la guerra civil” (Gurrutxaga, 1985: 196).

¹⁰⁷ Ibarra, P. (1987): *El movimiento obrero en Vizcaya: 1967-1977*. Bilbao: Universidad País Vasco.

ETA-Ekin-en lehenengo urte hauetan, langileen protestaldiek abegikortasuna sortu zuten militante abertzale berri hauengan, beraien jatorrizko posizioak marxismotik urruti bazeuden ere (Letamendia, 1994a: 261). Langileen antolaketa eredu ireki hauek ETAREN orbitan egon zitezkeen kideak bertan ere inplikatzeari erraztu zuen, ordura arte etorkin jatorriko langileen eta bertako nekazari girotik hiriguneetara hurbildutako langile abertzale berrien arteko elkarlanari bide emanaz. Lotura hauek orduko langile mugimenduarengan "efektu nazionalizatzailea" izango zuen (Ibarra, 1987: 82), ordura arteko ezkerrean imajinarioan nazionalismoarekiko sortutako lubakiak gainditzen hasteko oinarriak jarritz.

10.1.2.3 Nazioarteko testuingurua.

Garai horretan nazioarte mailan jardun armatuaren inguruan ematen ari ziren teorizazioek eragin nabarmena izan zuten ETAREN pentsamenduaren garapenean. Mao-ren *gerra iraultzaileak* eragin zuzena izango du Krutwig-en *Vasconia*-n eta *Insurrección en Euskadi* liburu ezagunetan. Azken honetan, esaterako, hitzez hitz jasoko dira Mao-k gerra mota honi egotzitako fase ezberdinak (Letamendia, 1994a: 289). Jardun militarrean ez ezik Mao-ren pentsamenduaren eragina esparru politikora ere zabalduko da. Izan ere, honen pentsamenduak ETA marxismoarekin adiskidetzera eramango baitu. Che Guevararen *gerrillen gerra* erreferentziazko beste kategoria izango da. Hego Ameriketako gerrillak nekazari eremuan garatu izanak ez da eragozpena izango inspirazio iturri bezala hartua izateko. Claude Delmas-en *hiri gerrillek*, berriz, eskainiko diote errealitate hurbilago batean praktika iraultzailea garatzeko aukera.

Baina batez ere II. Mundu Gerraren osteko prozesu anti-kolonialek osatuko zuten nazioarteko testuinguruaren aldagai nagusia. Garai horretan deskolonizatutako herrialdeen zerrenda luzea izango da, baina gurean oihartzuna izan zuenik bazen hori Aljeriarena izan zen. Zentzu horretan, Fanon-en bortxaren inguruko hausnarketek belaunaldi oso baten pentsamendua markatuko zuten. ETAREN abertzaletasun berria Fanon-en pentsamenduaren aldagai nagusi batean identifikatu zen: burgesia kolonialistak kolonizatutako eliteekin bilatu zituen harreman abegikorretan. Harreman hauek "alderdi nazionalista zentzudunen" bitartez aurkituko ditu, EAJrekiko paralelismoa berehala sortuko delarik. Fanon-en pentsamenduak ETARI euskarri teoriko nahikoa eskainiko dio EAJren izaera kolaborazionistaren salaketari ekiteko, abertzaletasunaren bi familien arteko lubakian sakonduz.

Tarrow-ek nazioarteko prozesu hauek *mugimenduan dauden ideien nazioarteko zabalpenak* bezala izendatuko ditu. Kanpo aldagai hauek, beraien herrialdeetako mugak gaindituz ekintza kolektiboaren ezaugarritzea norabidetuko dute. Letamendiaren (1997: 127) arabera Estatuaren mundu mailako sistemetan indar korrelazioak aldatzen direnean emango dira eta eurak *olatuak* bezala zabalduko dira.

Esan bezala, hiru ezaugarri multzo hauek ETAren inguruan ernaltzen ari zen abertzaletasun berriaren Aukera Politikoaren Egituraren muina osatuko dute. 50. hamarkadaren bukaera eta 60. hamarkadaren hasierako aldeko baldintza hauek hurrengo urteetan protesta hori zabaldu eta indartzeko abiapuntua jarriko dute. Ikus dezagun era laburrean protestaldia areagotzeko egindako bidea.

10.1.3 Protestaren zabalpena eta indartzea: Ekintza-errepresioa espirala.

Euskal liskarraldiaren zabalpena eta indartzea frankismo garaian ETAk martxan jarritako ekintza-errepresio-ekintza espiralaren estrategiarekin lotuta dago. Ibarren (1987) arabera ETAren bilakaera estrategikoa hiru fase nagusietan banatuta legoke: gerra iraultzailea, aipatutako espirala eta negoziazioa. Maila teorikoan hiruen arteko ezberdintasun esanguratsuak leudeke.

Gerra iraultzailea ez litzateke borroka armatuaren adiera hertsiki batekin uztartuta egongo. Izan ere, borroka armatuaren helburua nagusia ez litzateke jomugaren suntsiketa, jomuga horri eraso egiteak sortzen dituen zeharkako erreakzioak baizik. Gerra iraultzailean lehentasunezko hasierako helburua etsaiaren suntsipena da. Gerra mota honetan kokatu daitezke *gerrillen gerra* deiturikoak, aurkako indar militarrek garaitzeko helburu dutenak. Gerra iraultzaileak ez du gerra konbentzionalen estrategia klasikoekin bat egingo, baina konfrontazio militarreko estrategia bezala hartu beharko genuke.

Ibarren 1963 eta 1965 artean kokatu du ETAren *gerra iraultzailearen* epealdia baina maila teorikoaz harago garapen oso txikia izan zuen; ezta bera abiatu ahal izateko ere. Epealdi honetan

ETAk aurkituko duen arazo nagusia bere errealitate hurbilean nekez inplementatu zitekeen estrategia armatu bat "inportatu" beharrean aurkitzen dela izango da. Bere hasierako ekintzarako erreperitorio nagusia (pintaketak, ikurrinak zintzilikatzea, eragin txikiko lehergailuak jartzea, ...) mugapen bikoitzarekin aurkituko zen: batetik, nazioarteko esperientzia askatzaile garaikideetan oinarrituta teorizatzen ari zen¹⁰⁸ gerra iraultzaileen adierazpide bortitzen intentsitatearekin zerikusi txikia zuela; eta bestetik, ez zegoela ibilbide estrategiko baten baitan kokatua, hau da, biziraupen eta auto-baieztapen keinutik gehiago zuen estrategia militarretik baino.

Ibarrak lantzen duen borroka armatuaren definizioan *ekintza-errepresio espirala* barnebilduko litzateke. Hala ere, espiral honetan ez da baztertzeko etsaiarekin enfrentamendu zuzen eta erabatekoaren azken etapa. Edozein kasutan, bere bereizgarri nagusia erreakzio sozial eta politiko bat bilatzea litzateke, prozesu baten amaieran etsaiarekin herri konfrontazio bati bide eman ahal izateko, eta orduan bai, bera militarri garaituz. Beste modu batera esanda, espiralak ekintza armatuaren bidez jendarte eta boterearen gainean efektu anitz eta konplexuak bilatuko ditu; honek eragingo lukeen mobilizazio sozial zabalaren bidez, Estatuak legitimitatea galduko lukeelarik. Espiralak soilik abiapuntu honen gainean planteatuko du enfrentamendu militar suntsitzailea (Ibarra, 1987: 58).

Espiralaren lehenengo fase batean (1965-1970) ETAk nagusiki honen teorizaziori helduko dio. ETA ordurako erakunde aski ezaguna zen euskal jendartean baina bere strategiaren eraginkortasuna demostratuko zuen jauzia beharrezkoa zuen. Arestian aipatutako herri sektoreen mobilizazioa aktibatzeke bere jardunaren intentsitatea areagotu beharra zuen, Estatu totalitarioaren aldetik aurreikusi zitekeen errepresio itsuak herria "esna-araziko" zuelarik. 1967ra arte ETAk ez ditu Estatuaren aurkako ekintza zuzen esanguratsurik abiatuko. Baina urte honetatik aurrera, eta batez ere 1968an Melitón Manzanasen erailketarekin, hainbeste teorizatuko inflexio puntua gauzatu zuen.

Manzanas torturatzailerik frankista aski ezaguna zen eta bere exekuzioak ETArenganako arreta guztiak jarri zituen. Aurreikusi zitekeen Estatuaren erantzuna, berriz, ez zen erakunde armatura mugatu,

¹⁰⁸ 1964ko martxoan burutu ETArekin III. Asanbladan onartutako "La insurrección en Euskadi" dokumentuaren pasarte labur bat jaso nahi izan dugu maila teoriko eta praktikoaren arteko distantzia ilustratzeko: "Simultáneamente a destruir todo este aparato e instrumento de opresión que se llama la Administración, la organización revolucionaria ha de establecer [...] una Administración (la nuestra) llamada a ocupar el sitio de la otra una vez destruida. Pulverizar la Administración enemiga es, a nuestro juicio, el principal objetivo de la guerra revolucionaria [...]. Se empieza ya a controlar y dominar 'de facto' parte del territorio. El opresor comienza a replegarse y fortificarse en grandes ciudades y puntos fuertes [...]. Lo más importante es la destrucción de las fuerzas enemigas, no la guarda y captura de pueblos y ciudades [...]. Nuestros golpes han de tender a liquidar completamente al enemigo (no darles un susto y ponerlos en fuga)" (Ibarra, 1987: 64).

olatu errepresibo zabal bati bide eman ziolarik. Olatu horri erantzuna, aurreikusi zitekeen bezala ere, ez zen soilik beldurraren zabalpena izan; borroka sozialaren eta kontzientzia antifrankistaren zabalpena baizik. Hortaz, espiralaren aktibaziorako abiapuntua martxan jarrita zegoen. Baina zeintzuk izango dira protestaldiaren zabalpenerako eta bera indartzeko eman beharreko hurrengo urratsak? Jarraitu ditzagun Tarrow-ek finkatutako kategoriak.

10.1.3.1 Gatazkaren hedapena eta ekintzarako erreperorioen zabalpena

Arestian aipatu bezala, 60. hamarkadaren hasierarekin lan munduan protesta fase berri bat ireki zen. Hamarkada osoan zehar zabalduko zen lan protestaldi honen antolaketa forma nagusia joera horizontal eta asanblearioarena izango zen¹⁰⁹. Lehenengo momentu batean ETAk era sistematiko batean arautu gabe parte hartzen bazuen ere, Langile Fronte propioa antolatzearen alde egin zuen. Jada beraien jarduera ez da langileen ekimenak babestera mugatuko, bertan *parte hartuko* dute; lantokietan izaera propioarekin egongo dira, greben aitzindaritzan, langileen bilera klandestinoetan, langileen artean erreferente berri bihurtuz. 1967n emandako CC.OO.-en ilegalizazioak eta erregimenak lan esparruan azken urteotan erakutsitako onarpen mailari bukaera ematearekin batera zabalduko errepresio aroak nora-eza sortu zuen langile mugimenduaren baitan (Ibarra, 1987: 76). ETAk egoera hau bere erreferentzia indartzeko baliatu zuen. Errepresioa areagotzearen ondorioz 1971-1973 epealdian emandako lan gatazken barealdiak ez zuen gehiegi iraun eta 1974rako Ibarrak "greba uhin zabala" deitu duenari hasiera eman zitzaion. Greba deialdi hauek, lan esparruari lotutako eskaerekin batera, bestelako izaera politikoagoa izango duten eskaerekin lagunduta azalduko dira: askatasun demokratikoak, bilera publikoetarako eskubideak, sistemaren demokratizazioa, ...

Fase honetan, 50. hamarkadaren erdialdean abiatutako mugimendu antifrankista zabalak hurrengo urteetan hartuko zuen forma ere zehazten hasi beharko zen. Zentzu horretan, ETAk langile eremuan mugimendu asanblearioetatik harago erreferentzia propioa lantzeko erabakia maila batean aurreko urteetan martxan jarritako espiralaren estrategiarekin kontraesanean egongo da. Izan ere, ekintza-errepresio estrategiak abangoardia batek jardun armatuaren ondorioz aktibatutako errepresioarekin

¹⁰⁹ Izaera asanblearioko mugimendu hauek Langile Batzordeen izena hartuko dute (Comisiones Obreras), gerora CC.OO. sindikatuaren hastapena izango zena. Aski ezagunak dira garai horretan PCEk asanblada horien alde egindako apustua eta beraiek zuzentzeko egindako ahalegina, jatorri ezberdinetatik etorritako sektoreak biltzen zirenez ohikoak izaten diren barne tentsioak eraginez.

sektore sozial zabalen aktibazioa edo "herri gisako erantzuna" bilatzen bazuen, Langile Frontearen aldeko apustuak langile eta herri erantzuna ETAREN inguruko sektore sozialetara mugatuko baitzuen (Ibarra, 1987: 94). Zentzu honetan, Ibarrak berak langile mugimendu eta ETAREN arteko identifikazio partzial batez hitz egingo digu, bigarren honek lehenengoarekiko izango lukeen lidergo batez baino. Identifikazio hau ETAREN erregimenaren aurkako inplikazioarekiko miresmenetik eta elkartasun antifrankistatik jaioko litzateke eta ez horrenbeste atxikimendu ideologiko batetik.

1967an burututako ETAREN V. Asanbladatik aurrera langile eremua ez da ETA antolatuko zen esparru bakarra izango. Horrekin batera, Fronte Kulturala, Politikoa eta aurretik garapen ertainbaxua izandako Militarra ere antolatuko ditu (Casanova, 2007: 83)¹¹⁰. Fronteen antolaketa eredu honek bere jardura sistematizatzeko helburua izateaz gain, bere eragin eremua zabaldu eta eraginkor bihurtzeko asmoa erakutsiko du, hurrengo urteetan garatu nahiko duen kontra-botere edo hegemonizazio prozesuaren aurre-eredu gisa.

Baina protesta eremuen zabalpenak ekintzarako errepertorioaren zabalpenari lotuta egon behar da ezinbestean. ETAREN hasierako ekimenak ez dira larriak izango; bai ordea ohiz kanpokoak. Garaile eta garaituen isiltasunaren jendarte frankista horretan pintaketak egitea edota ikurrinak zintzilikatzea zerbait ikusgarria izango zen; are gehiago, horrelako ekimen xumeetan bizitza galtzeko arriskua nabarmena zela aintzat hartuta. Jardura mota hau, ordea, motz geldituko ziren bestelako anbizio handiko asmo batzuk zituen erakundearentzat. Batetik, ekimen hauek ez dira estrategia definitu baten baitan kokatuak egongo; egitura ofizial eta *isiltasunaren jendarte* horren arteko krisiaren lehenengo adierazpide batzuk baino ez dira izango. Eta bestetik ez dira ekintza-errepresio espirala estrategia abiatzeko nahikoa izango. Jauzi hori 1967tik aurrera emango da, ekimen kopurua eta beraien ikusgarritasuna handituz (lehergailu handiagoak, banketxeen lapurretak, ...); eta batez ere 1968an Meliton Manzanasen exekuzioarekin¹¹¹. Bere esangura sinbolikoak sektore sozialak erradikalizatuko ditu. Batetik, Estatuaren bortxaren ordura arte monopolioa era ezin agerikoagoan kolokan jarriko duelako; eta bestetik, haututako figura (erregimen frankistaren torturazailerik ezagun bat) ETAK zuzenean Estatuarekin zabaldu nahiko duen gatazka eta hegemonia lehiaren erakusle ere badelako¹¹². Logika honetan kokatu daiteke hamarkada aldaketak ezagutu zuen errepresioaren hazkundera. Baina aurreikusi zitekeen bezala, hasierako beldurrezko erreakziotik

¹¹⁰ Nazioarteko giro anti-kolonialaren eraginaren erakusgarri Vietnameko borroketatik mailegatutako fronteen ideia (Casanova, 2007: 75).

¹¹¹ Gogoratu dezagun aste batzuk lehenago (1968ko ekainaren 7an) Txabi Etxebarrieta buruzagi historikoa Guardia Zibilak hil zuela, honek, beste etakide batekin batera, José Pardines Guardia Zibila errepide kontrol batean erail eta gero. Espirala abiatzeko osagai guztiak mahai gainean zeuden.

harago elkartasun eta aktibazio uholde bati bide eman zion; Burgoseko auziaren inguruan emandako mobilizazioak erakusgarri nabarmenenak izan daitezkeelarik.

10.1.3.2 Marko sinboliko berriak

Aipatu dugu ETAren agerpenak ordura arteko euskal nazionalismoaren iruditerian haustura nabarmen bat suposatu zuela. Haustura hau 1962an "Ekin-eko Kaieren" agerpenetik agerikoa izango da: Sabino Aranaren nazionalismoan arrazak zuen zentralitatea hizkuntzak ordezkatzeko du; Elizaren aldeko jarreratik honen hierarkiaren kontra eta akonfesionalitatearen aldeko jarrerak nagusitzen hasi ziren; kapitalismoak sortutako ondorioen gaineko lehenengo kritikak azaleratzen hasiko dira, anti-komunismo ideologikorako joera nabarmena egongo bada ere (Letamendia, 1994a: 255); ordura arteko inspirazio germanikoko nazionalismo etnikoak kolonialismoaren aurkako borroketatik edaten hasi zen; ...

Euskal nazionalismoaren imajinarioaren eten hau, urtebete beranduago argitaratu zen *Vasconia* liburuarekin borobildu zela esan dezakegu. Zentzu horretan, gutxik jarriko dute zalantzetan abertzaletasunaren birfundazio honetan Frederico Krutwig-en ekarpenak ze garrantzia izan zuen. "Ekin-eko kaiera" eta *Vasconia*-ren argitalpenen artean egondako denbora tarte laburrak (urtebete eskasekoa) bien arteko aldaketa esanguratsuetarako tarte gehiegirik ez du utziko. Bai, ordea, hainbat kontzeptuen bilakaera eta erradikalizaziorako. "Ekineko Kaieretan" garai bateko Jagi-jagi-ren jatorrizko posizioen pare zegoen jarrera independentista jada agertzen bazen ere, Krutwig-ek gogor helduko dio EAJk historikoki *paktismoaren* alde erakutsitako jarrerari. ETAren sorrerarekin gorpuzten hasitako borroka berria jada ez da soilik frankismoaren aurkakoa izango, baizik eta Euskal Herria ukatzen zuen edozein Estatu espainiarren aurkako (bere sistema politikoa edonolakoa izanda ere). Horrekin batera, 1962an argitaratutako Kaieretan anti-komunismo ideologiko nabarmena ageri bazen, *Vasconia*-n euskal herriaren komunismo primitiboa aldarrikatzeko da (Letamendia, 1994a: 282). Honen arabera, euskal herriaren bereizgarria bere jatorrizko komunitateetan klaseen arteko diferentzia eza izango da. Horrela, zeharka bada ere, irakurketa marxista Espainiak ukatutako barne-adiskidetutako jatorrizko jendartera bueltatzeko bidea izango da. "Jatorrizko jendartera" bueltatzearen ideia hau "Ekin-eko Kaieretan" jada euskal historia eta

¹¹² Ordutik aurrera, eta batez ere Trantsizioaren inguruko urteetatik aurrera, ETAren jardun armatua Estatuarekin konfrontazio zuzena irekitzera bideratu zen, ordura arteko bestelako ekintza "subsidiarioak" (lan gatazkei lotutakoak esaterako) bigarren maila batean gelditzen joan zirelarik (Ibarra, 1987).

mistizismoari emandako garrantziarekin lotuta legoke. Zentzu honetan, jatorrizko komunitatearen mitoa eta bera ezintzen duen kanpo etsaiaren irudia Aranatik Krutwig-era presente egongo den haria izango da; azken honen arabera, berriz, lehenengoak sortutako alderdiak kanpo etsai horrekin adostasunetarako erakutsitako jarrera, jatorrizko komunitate horretara bueltatzea ezinezko egitea ez ezik, sektore *paktista* horiek 'barne etsaiaren' mailan kokatuko ditu. Hortik, aurrera ETak ordezkatu duen nazionalismo berri horren baitan, sektore *paktista* hau noizbait jatorrizko etxe edo komunitate horretara "bueltatuko den seme/alaba iriolearen" parabola behin eta berriro elikatuko du.

60. hamarkadaren hasieran martxan jarritako bilakaera ideologiko hau, 1967an burututako ETaren V. Asanbladaren bigarren zatiarekin¹¹³ bere heldu-arora iritsi zela esan dezakegu (Casanova, 1997). Hirugarren Munduko borroka anti-kolonialek ordura arte zuten erreferentzialitatearen inguruko irakurketa kritikoa egin zen. Zonalde horietan gerra iraultzailea garatzeko zeuden baldintzak bertako errealitatetik urrun kokatzen zirela baloratu eta ekintza-errepresio espiralarengatik ordezkatu ziren. Horrela, ETA antikolonialismoaz baino internazionalismoaz hitz egiten hasiko zen.

Baina bilakaera ideologikoari dagokionez nonbaiten garapenik eman bazen hori ordura arte nagusi ziren identifikazio ardatz nagusien arteko hartu-emanetan izan zen; hau da, nazionala eta soziala. Gauza aski ezaguna da ordura arte bata bestearikiko erakutsiko urruntasuna edota bateraezintasuna. Aipatu dugu ETaren sorreratik bere kideek langileen borrokekiko erakutsitako atxikimendua eta babesa, bera distantziazatik eta elkartasun gisa egindako zerbait bezala irudikatzen bazen ere. 50. hamarkadan Estatuko eremu ezberdinetatik etorritako etorkin uholdearen artean izaera sozial(ist)a izan zezakeen mugimenduarekiko atxikimendua nabarmena bazuen ere, guztiz kontrakoa zen migrazio fluxu honek nazionalismoaz zuen ikuspegia; bide horretan, hasierako Ekin-ETaren jarrerak gehiegi lagundu ez bazuten ere. Lantokietako borroketan ETako kideen inplikazio zuzenago batek, aldiz, langile mugimenduaren artean gorago aipatutako "efektu nazionalizatzailea" (Ibarra, 1987) izan zuen, erreferentziazko identifikazio ardatz ezberdinak zituzten sektore sozialen

¹¹³ ETaren garapen teorikoaren ikuspegitik V. Asanbladak (1966ko abendua) jauzi nabarmena suposatu zuen. Jauzi hau, ordea, gatazkatsuan izango da. Honen jatorria IV. Asanbladan aukeratutako Bulego Politikoaren erabakiekin lotuta legoke. Aski ezagunak dira frankismoaren urte hauetan ETaren baitan bi identifikazio politiko nagusien artean (nazionalista eta sozialista) emandako elkar-bizitza tentsioduna. Ika-mika horien zehaztasunetan erori gabe, Asanbladako Bulego Politikoak aldatzea erabakiko du, estatuko joera *obreristekin* bat egingo duelakoan eta ETaren ibilbide historikoari uko egiten diotelakoan (Casanova, 1997: 77-80). Talde eszindituak ETA-berri izeneko taldea osatuko du. V. Asanblada garaile ateratakoak estrategiaren zehaztapenerako bigarren asanblada deituko dute 1967ko martxoan; bertan atal ideologikoak pisu nabarmena izango duelarik (Casanova, 1997: 82). Baina ez da orduko zatiketa bakarra izango. Aipatu bezala espiralaren abiatzeak errepresioa nabarmen areagotuko zuen, Bulego Politiko berriaren eta komite exekutiboaren kide asko atxilotuz. V. Asanbladaren zuzendaritzaren halabeharrezko berritze honek eztabaida zahar batzuk berpiztuko ditu; kasu honetan, VI. Asanbladan obreristen eta ibilbide historikoa aldarrikatzen zutenen arteko zatiketa berri bat emanez. Lehenengok ETA VI izenagatik ezagunak egingo dira; besteek V. Asanbladaren izpiritua aldarrikatuko dute.

arteko adeitasuna areagotuz. Honi ETA frankismoaren aurkako borrokan hartzen ari zen aitzindaritzaren behar diogu (Gurrutxaga, 1996). Bi tradizio ideologikoen arteko *elkartasun* honek oinarria jarriko dio ondorenean V. Asanbladan planteatutako teorizazioei.

Zentzu honetan, 1967tik aurrera ETAk bere burua "Nazio Askapenerako Euskal Mugimendu Sozialista" bezala izendatuko du. "Mugimenduaren" izendapena ez da berria izango; "sozialistarena" ordea, bai. Casanovaren arabera (1997: 83) izendapen honek ikerketa metodo marxistarekin lerratzeko aukera emango dio, baina era berean, erreferente zehatzagoekin (marxismo-leninismoa edota komunismoa, esaterako) identifikatzeko zailtasunak izan zitzaizketen sektoreak erakartzeko tartea utziko du. Jarrera honek mundu mailako ezkerreko erreferente ideologiko ezberdinen artean hautatzeko aukera eskainiko dio; beti ere, Euskal Herriko errealitatera egokitzeko aukera emanez.


Orduko identifikazio ardatz nagusiak (nazionalismoa eta sozialismoa) sintonian jartzeko saiakera honetan kategoria berriak ere sortu ditu. Horien artean ezagunena "Euskal Herri Langilea" edota "Pueblo Trabajador Vasco" entzutetsua. Kategoria kontzeptual honek garapen luzea izango du urteetan. Bere birtualtasun nagusia, ordura arte batera-ezinak ziruditen *eskaerak* nominalizazio edo izendatze prozesu zehatz baten bidez artikulatu, antifrankismoaren kate ekibalentzialaren erreferentziazko ainguralekua bezala identifikatu eta erregimenarekin lehia hegemonikoan murgiltzeko aukera emango zion abiapuntua jartzean datza.

10.1.3.3 Antolakunde berriak

Tarrow-ek (1997) protesta zikloaz egiten duen definizioari jarraiki, protesta zikloaren indartze eta zabaltze fasean aurkituko dugun hirugarren ezaugarria antolakunde berrien sorrera eta aurrekoen erradikalizazioan legoke. Aurretik martxan zegoen erakundearen erradikalizazioa nabarmena izango da jada azaldutako *espiralaren* estrategiaren inplementazioarekin; hortaz, azalpen gehiagorik behar ez duelakoan gaude.

Antolakunde berrien sorrera, berriz, McAdamek (2002) planteatutako *mugimendu deribatuen* kategoriarekin lotu nahi izan dugu. Gorago aipatu bezala, ETAk protesta zikloari hasiera emango dion *mugimendu goiztiarraren* funtzioa bete bazuen, horren ondoren bere mugimendu deribatu

bezala ulertu ditzakegun hainbat antolakunde sortu ziren. Gure kasuan, bereizgarri nagusia kasu askotan antolakunde berberetik sortutako zatiketak edo eszizioak izatea litzateke. McAdamek aipatu bezala hau mugimendu goiztiarrak jokaturako aitzindaritza paperari zor zaio, kasu askotan mugimendu batzuk eta besteak martxan jartzearen arrazoi nagusiak bertsuak badira ere. Lehengo arrazoia, *aukera politikoen zabalkundea* litzateke. McAdamek (2002: 252) "Estatua eta talde lehiatzaile baten arteko botere ezberdintasuna gutxitzen duten ezaugarri instituzional edota lerrokatze politiko informalez" hitz egingo digu. Definizio hau era hertsian ulertzeak gure ikerketa kasua kanpoan utzi badezake ere, frankismoaren aro biologikoaren bukaerak ziurgabetasun politikoa areagotzen zuela agerikoa da; diktadorearen heriotzak ireki zezakeen ziklo politikoa bera ordura arteko aukeren zabalpen argia bezala ulertu zelarik. Bigarrenik, *antolakuntza maila* egongo da. Mugimendu deribatuek, goiztiarrek bezala, oinarrizko antolaketa maila bat beharko dute. Sarritan, berriz, goiztiarrek "erabakigarria den antolaketa testuingurua" (McAdam, 2002: 255) eskainiko dute. Gurrutxagaren (1985) arabera, familia, kuadrilla, eliza edo elkarten inguruan trinkotu ziren sareak eskainiko diete mugimendu hauei oinarrizko antolaketa. Kasu askotan, mugimendu edo antolakundeak banaketen ondorioz ezberdinak izanda ere, elikatzen dituzten sareak berdinak izango dira; hortaz, beraien arteko inter-dependentsia handia izango da. Hirugarrenik *matxinatu kontzientzia* eta *markoztatze prozesuak* egongo dira. Orain arte azaldutakoarekin argi egon beharko luke, gure ustez, mobilizazio prozesuaren oinarrizko bultzada, funtsean kognitiboa edo kulturala dela. Mugimendu goiztiarrak jokaturako aitzindaritza paperak eragin zuzena izango du ondoren sortutako mugimendu edo antolakundeek errealitatea interpretatzeko izango duten markoan edo errealitatea ulertzeko eran. Logika honetan ulertu beharko genuke Ibarak (1987) aipatzen duen langile mugimenduarengan ematen den "efektu nazionalizatzailea". Baina nazioartean ezkerren baitan ematen ari diren eztabaiden eragina ere ezin aipatu gabe utzi; edo Tarrow-ek (1987: 285) aipatuko lukeen moduan, "mugimenduan dauden ideien nazioarteko zabalkundea". Marxismoa, leninismoa, maoismoa, troskismoa edota borroka armatuaren teorizazioen eskutik mota ezberdinetako antolakunde sortari bide eman zitzaizolarik.



10.1 irudia: Protesta mugimendu goiztiarren bilakaera eta sortutako mugimendu deribatuak (De la Granja Saiz, 2002: 59).

Aldagai hauek aurreko ataletan jada aipatu ditugun hainbat mekanismo martxan jarriko dituzte; nabarmenenak aipatzearen frankismoaren azken urteetan eta nagusiki Trantsizio politikoa egonkortu arte eman zen ekintza kolektiboaren *difusioa* edota *kutsadura*; barne lotura estuak dituzten komunitateetan ohikoak izaten diren antolakunde sortu berrien arteko *sare loturak*; edota mugimendu deribatuak goiztiarrendik mailegatuko dituzten marko interpretatzaileek beraien arteko *antzekotasunen esleipenei* bide emango diete, kasu honetan frankismoaren aurkako borrokan beraien arteko identifikazio partzial bat emanez.

Laburbilduz, 50. hamarkadaren bukaeran ETAREN agerpenak, erregimena desafiatuko duen lehiatzaile isolatu gisa, gure egunetara arte luzatu den protesta zikloari hasiera emango dio. Erakunde hau, *mugimendu goiztiar* bezala, momentuko aukera politikoak baliatzen jakitea ondoren sortuko den lehia hegemonikoaren buru izateko funtsezkoa izango da. Aukera politiko hauen artean hiru nabarmendu nahi izan ditugu: a) EAJren ahuldade politikoa eta berari lotutako nazionalismoaren ondarea berritzeko gaitasuna, b) langile mugimenduaren aktibazioa eta berarekiko lerratze diskurtsiboa eta c) nazioartean zabaltzen ari diren ideiekiko sintonia. Protestaren abiatzea

ekintza-errepresio estrategiaren bidez zabaldu eta indartuko da. Hedatze horretan ekintzarako errepertorioaren erradikaltzea eta marko sinboliko berrien sorrera gakoak izango dira. Espiral honen zabalpenak eta frankismoaren aro biologikoaren bukaeraren gertutasunak sortutako aukera politiko berriak, emulazioz *mugimendu deribatu* berrien agerpenari bide emango dio. Francoren heriotzara arte ematen den gatazkaren orokortze honek erregimenaren hegemonia lehiatzeko baldintzak sortuko ditu. Lehia honen oinarrian anti-frankismoaren kategoriaren inguruan trinkotutako identifikazio zabalak edo subjektu kontra-hegemonikoa kokatu dezakegu. Euskal Herriari dagokionez, epealdia aztertu duten ikerlari askok (Gurrutxaga 1985; Letamendia 1994 ; Pérez-Agote, 1987; Micicé, 2009) identifikazio zabal honen buruan ETA kokatuko dute. 1975tik aurrera Francoren heriotzak zabalduetako aukera politiko berriak, aldiz, egoera aldatuko du. Antifrankismoaren identifikazioaren inguruan trinkotutako kate ekibalentziala apurtzen joango da eta bertan artikulatutako posizio subjektuek etortzeaz zen sistema politiko berriaren aldeko lehia hegemonikoan murgilduko dira.

10.2 Trantsizioaren eragina identifikazio politiko nagusietan

Ez da lan honen asmoa espainiar sistema demokratikoaren erreforman parte hartu zuten aldagai guztiak aztertzea. XX. mendearan erdialdean abiatu zen protesta zikloarekin Euskal Herrian indarrean egon diren identifikazio politiko nagusien bilakaera aztertzen ari garen heinean, berriz, Trantsizioan jazotako hiru gertaera aipatu nahiko genituzke, labur bada ere, identifikazio horien garapenean, gure ustez, erabakigarriak izan zirenak. Izan ere, arestian aipatu dugun bezala, erregimen zaharraren erorketarekin batera ordura arteko antifrankismoaren kategoriaren nagusitasunean desplazamendua ematen hasi zen, berak okupatutako espazioa zeinek hegemonizatuko ote zuen ebatzi beharko zelarik.

Identifikazio politikoaren bilakaeran bestelako hainbat gertaera aipatu badaitezke ere, gure ustez, hiruk markatu zuten ordura arteko nortasun kolektiboaren konfigurazioan eta hortik aurrerako lehian zeresan nabarmena: a) 1977ko hauteskunde orokorrak; b) 1978ko Konstituzioaren erreferenduma; eta c) marko autonomiko-foralaren inplementazioa. Bada, labur bada ere, aztertu ditzagun hiru horiek.

10.2.1 1977ko hauteskunde orokorrak eta fronte abertzalea osatzeko saiakera.

1975ko azaroaren 20an Franco jenerala hilko zen agonia luzea eta gero. Ordurako baina Estatuko indar politiko nagusiak posizioa hartzen hasiak ziren frankismo biologikoaren amaierak ekarriko zituen aukera politikoak aprobetxatze aldera. Oposizioa bi erreferenteen inguruan trinkotzen hasiko zen: batetik, Espainiako Alderdi Komunistaren (PC) inguruan 1974an osatutako Junta Democrática-n eta 1975ko ekainean PSOE inguruan sortutako Plataforma Democrática-n. Batak eta besteak aurreko erregimenarekiko haustura demokratikoa aldarrikatu zuten hasieran, beraien edukien hurbiltasunak 1976ko martxoan Coordinación Democrática edo PlataJunta ezagunari bide eman ziolarik.

Euskal eragileen artean PNVk hasieran Plataforman eta ondorenean Platajuntan parte hartu zuen, bere hainbat buruzagi erbestetik bultzatzen hasiak ziren bitartean. Bere ezkerretara kokatzen ziren eragile abertzaleen artean ere etorri bazetorren aldaketari aurre egiteko posizioak hartzen hasiak ziren. 1975rako ETak jada hainbat zatiketa ezagutzen zituen, tartean 1974an eman zen *militarren* eta *politiko-militarren* artekoa¹¹⁴. Beraien inguruan ere hainbat alderdi politiko eta sindikatu osatzen hasiak ziren. Espainiatik etor zitezkeen erreformekiko mesfidati zen siglen amalgama honetan gutxieneko kohesioa bermatze aldera 1975ko abuztuan KAS sortu zen¹¹⁵, hurrengo urtean bere Alternatiba ezaguna kaleratu zuelarik. KAS Alternatibaren kaleratzeak aldaketa nabarmena suposatu zuen ordura arteko ekintza-errepresio estrategiaren bilakaeran. Alternatibak, espiral honek planteatzen zuen Estatuaren eta herriaren arteko konfrontazioaren hazkundearen logika baldintzatzen ez bazuen ere, ordura arte planteatu gabeko tarteko helburu taktikoen esplizitatzeak aldaketak suposatuko ditu bi zentzutan: batetik, ordura arte aurreikusten ez zen Estatuarekiko negoziazio bidea zabaltzeko aukera; eta bestetik, eta lehenengoari lotuta, tarteko helburu horien lorpenari begirako jardun armatuaren etetea edo su-etena (Ibarra, 1987). Trantsizio garaian mahai gaineratutako bi elementu hauek 2011ko behin betiko su-etenera arte ETaren estrategia ezaugarrituko duten aldagaiak izango dira. Negoziazio estrategiaren abiatzea garai horretan ETaren

¹¹⁴ Goragoko ohar batean jada aipatu dugu ETaren ordura arteko zatiketen haustura-gai nagusiak, abertzaletasunaren eta ikuspegi sozialaren arteko tentsioak edota borroka armatuari emandako lehentasunaren artekoa, esaterako. *Mili* eta *poli-milien* arteko zatiketetan, aldiz, antolaketa ereduaren inguruko ikuspegi ezberdinak ere gehitu beharko ditugu. Izan ere, lehenengoek esparru politiko eta militarren arteko banaketa organikoa aldarrikatzen zuten bitartean, bigarrenen ordura arteko fronte ezberdinen lotura funtzional hau aldarrikatzen jarraituko dute (Casanova, 1997).

¹¹⁵ Hasiere batean Burgoseko epaiketen aurreko erantzunak koordinatzeko sortutako antolakundea (Letamendia, 1994: 410) urte luzez ENAMen antolakuntza ereduaren erreferente nagusia bilakatuko da.

joko politikoa zabaldu eta jada abiatua zen lehia hegemonikoan posizio hobea lortzeko ahalegin bezala uler genezake, Trantsizioak nagusitutako markogintza kontsentsu-zalean erakunde armatuak akordiorako bere eskaintza mahai gaineratu eta adostasunaren *master frame*-a atzean (erabat) ez uzteko.

Estatuko botereek Trantsizioaren ibilbide luzean aurrera egiten jarraitzen zuten. 1976ko azaroaren 18an Gorte frankistek Erreforma Politikoaren Legea onartu zuten (EPL), bera erreferendumeramanez. Oposizio antifrankistak abstentzioaren aldeko deia egin zuen, Estatuan eta Euskal Herrian oso jarrera ezberdinaz egin bazen ere. Estatu mailan Platajuntaren inguruan bildutako eragile gehienek jarrera "zuhurtziazko abstentzio pasibo" (Letamendia, 1994a: 463) bezala izendatu badaiteke ere, Euskal Herrian KASEk erreferendum egunean Greba Orokorreko deialdia zabalduko du. Batean eta bestean jazotako parte hartze datuek ere gauzatzen hasia zen aldaketa politikoarekiko abegikortasun maila ezberdina ere adieraziko zuten¹¹⁶.

Baina Espainia eta Euskal Herriaren arteko jarrera ezberdinak Trantsizioarekiko eta ondorenean Euskal Herrian garatuko diren identifikazio politikoaren arteko hausturak agerian utziko dituen lehenengo gertaera nagusia 1977ko uztailean burutu behar ziren Hauteskunde Orokorrekiko jarreran aurkitu ditzakegu. Parte hartzeak eztabaida biziak eragin zituen bloke eta alderdi politiko nagusien artean, batez ere haustura aldarrikatzen zuten horiengan. Izan ere, lehenengo hauteskunde erronka honen inguruko parte hartzea ordura arte nagusitu zen erreforma ala hausturaren eztabaidaren erakusgarri nagusi bezala hartua izan zen eragile gehienek aldetik.

Oposizioko indar nagusien artean testuinguru horretan bizi zen salbuespenezko egoera aldagai erabakigarri bezala ulertzen zen; batez ere, preso eta alderdi politikoaren legalizazioari dagokiona. Suarezen gobernuak aurreko bi urteetan (1975ko azaroaren 25an lehenengoa eta 1976ko martxoan bigarrena) espetzeak maila batean husteko balio izan zuten indultu partzialak eman zituen. Izan ere, Espainiako sistema politiko berria legitimatzeko preso politikoaren existentzia traba nabarmena zen nazioarteko komunitatearen begietan. Alabaina, odol delituak zituzten presoak bertatik kanpo gelditu ziren¹¹⁷. Bestaldetik, alderdi politikoaren legalizazio mailakatu izan zen. LRPreko ondorioz 1977ko otsailean PSOE edota EAJ legalizatu zituzten. Korapiloa, ordea, PCRen legalizazioan zetzan. Moncloako Itunen negoziazioak eta honen ondorengo onarpenak urte bereko apirilean honi

¹¹⁶ Estatu mailako parte hartzea %79,9koa izango da, aldeko bozkek %75a osatuz. Euskal Herriko zenbakiak bi errealitate erakutsiko dizkigute: Araba eta Nafarroan parte hartzea %70tik gorakoa izan bazen ere (%72,44 eta %70,62 hurrenez hurren), Bizkaian %50,4koa eta Gipuzkoan %42,46koa izan zen.

¹¹⁷ 1977ko apirilaren bukaeran burututako Txibertako elkarriketen aktetan Monzonek 35 presotako kolektibo bati erreferentzia egingo dio (Anai Artean, 2011: 34).

bide eman zion tentsio handiko testuinguru batean. Ezkerreko alderdi abertzaleen artean, batzuk legeztatzearen prozedurari heldu zioten, oraindik orain beraien parte hartzea argi ez bazegoen ere; joera hausturazale garbiari heldu ziotenen aldetik, berriz, honakoa ez zen momentu horretako lehentasuna. Edozein kasutan, momentuko argazkiak bi posizio nagusi marrazten zituen hauteskunde parte hartzeari begira: EAJk parte hartzeari begira hartutakoa eta KASek, bere kontraesanekin¹¹⁸, abstentzioaren alde hartutakoa.

Testuinguru berezi honetan, EAJren erreferente historikoa izandako baina azken urteotan bere posizioetatik aldentutako Telesforo Monzonek azken ahalegin bat egin zuen abertzaletasunaren familiaren bi adar nagusiak batera mantentzen jarraitzeko. 1977ko apiriletik maiatzera Angeluko Xibertako golf zelaian burutu ziren sei bileretan, Monzon, Alkateen Mugimenduko buru zen Jose Luis Elkororen laguntzarekin, indar abertzale nagusiak ados jartzen saiatuko zen; balizko desadostasunak "nora eraman gaitzakeen ez dakigun erabateko haustura" ekarriko zuelakoan (Anai Artean, 2011: 31). Monzonek ez zuen abertzaleak ez ziren bestelako euskal indarren arteko adostasunari uko egiten, baina bere ustez lehenik Euskal Herria aberritzat zutenen artean gutxienekoak hitzartu beharko ziren, ondoren "indar sukurtsalintengana" joz (Letamendia, 1994b: 34). Maila batean, Monzonen ahalegina ordura arte nagusitutako euskal antifrankismoaren kategoria edo markoa nagusi izaten jarraitzeko ahalegin bezala definitu daiteke. Baina elkarrizketa horien lehen eskuko lekukoa izan zen Mirentxu Purroyk¹¹⁹ esan bezala, bilkura horiek burutu zirenerako batzuk eta besteek beraien jarrerak aski ondo definituak zituzten (Anai Artean, 2011: 22). Batzuk eta besteek erakutsitako adostasunerako jarrera, aldiz, ezberdina izan zen; tartean ere, hasierako jarrerak aldatu zituzten eragileak ere egon zirelarik¹²⁰.

Presoen kaleratzea eta alderdi politiko guztien legeztatzea elkarrizketa horietako afera nagusiak izan ziren; batzuk eta besteentzat oso garrantzitsuak. Baina gehienentzat hauteskundeetan aurkeztu ahal izateko bete beharreko ezinbesteko baldintzak ziren bitartean, EAJk hasieratik argi utzi zuen

¹¹⁸ KASen barruan hasieratik parte hartzearen inguruko bi posizio ezberdin nabarmenduko dira: batetik, ETA m-k eta EHASEk parte hartzearen kontra azaldutakoa; eta bestetik, ETA pm-k eta EIAk parte hartzearen aldekoa. Batak eta besteak hausturaren aldekoa baina bera gauzatzeko estrategiaren inguruan ikuspegi ezberdinak zituztenak. Eztabaida luzeen ondoren blokearen barruan ez parte hartzearen aldekoa nagusitu zen, ETA pm-k eta EIAk, kohesioaren izenean, hasiera batean bere egin zituztelarik.

¹¹⁹ Mirentxu Purroy garai horretan *Punto y Hora* aldizkariaren zuzendaria zen. Elkarrizketa horien lekuko zuzena izan zen Jose Luis Elkorok gonbidatuta, Telesforo Monzonen enkarguz. Bere eginkizuna historikoak izan zitezkeen elkarrizketa horien lekukotasuna jasotzea izan zen, horretarako presente zeuden alderdien oneritziarekin. Elkarrizketen porrotaren ostean bertan egon ziren Monzon, *Argala* eta *Yoyes*-ek grabatutako elkarrizketen aktak bere esku utzi zituzten, etorkizun batean horiek zabaltzeko. 2011ean Anai Artean elkartearen eskueta utzita hauek argitaratu ziren.

¹²⁰ Txibertako elkarrizketek fronte nazional bakarra osatzeko ezintasuna agerian utzi zutenean ETA pm-k eta EIAk parte hartzearen aldeko jarrera publikoa egin zuten, ondoren KASEtik ere ateraz.

aurkeztuko zela; baldintza horiek beteta edo bete gabe. Gauzak horrela, atzera bueltarik gabeko banaketa emanda zegoen¹²¹. Espainiako indarren artean *haustura demokratikotik erreforma adostura* egindako ibilbideak bazuen bere eragina euskal alderdien artean. Erreformaren aldeko sektoreek hartuak zituzten posizioak euskal politikagintzan; bertan hausturaren aldeko indarrek Espainian ez bezalako indarra erakusten bazuten ere.

10.2.2 1978ko Konstituzioaren erreferenduma.

1977ko ekainaren 15eko Hauteskunde Orokorretan EAJ eta PSOE-PSE alderdiak nagusituko dira. Bi hauek urte horretako apirilean Fronte Autonomikoa¹²² osatu zuten autonomia estatutu baten elaborazioari begira. Hala ere, Araba eta Nafarroan UCD lehenengo indarra izango da. KASek aldarrikatu abstentzioa, berriz, Araban jasotako %16a eta Gipuzkoako %27aren artean mugituko da. Trantsizioak abiatutako sistemaren birfundazioak euskal lurraldeetan aurrera egiteko baldintzetan zegoela ulertu zen.

Espainia mailako bi indar nagusiek (UCD eta PSOE) Konstituzioaren elaborazio prozesua lidergoan jarri ziren. Aurretik askatu beharreko bi korapilo gelditzen ziren: 1977ko urrian Suarez-en Gobernuak Amnistia Legea onartuko, euskal preso politikoen kaleratzea ahalbideratuko duena; bestetik, abian jarri nahi zen sistema politikoaren bideragarritasun sozio-ekonomikoa bermatzeko Moncloako Itunak ere urrian sinatu ziren PCren babesarekin. Azken hauek planteatu ziren terminoetan bete ez baziren ere, sistema politiko berriak izan zezakeen *outsider* nagusiaren integrazioaren berrespena suposatu zuten.

Bi afera hauek gaindituta Konstituzioaren lanketaren fase garrantzitsuenari heldu beharra zegoen. Zalantzarik ez dago egitasmo horrek ebatzi behariko zuen aferarik korapilatsuenetako lurralde antolaketari zegokiona izango zela. Ordurako PSOEk 1975-1976 aldian autodeterminazio eskubidearen alde mantendutako jarrera aldatzen hasia zen; PCrekin bat eginda, autonomien orokortzea ekarriko zuen sistema federal baten alde eginez. Solé Tura-ren (1985) arabera, UCDk ez zuen sistema definitu bat eta Alianza Popularrek deszentralizazio administratibo huts baten alde

¹²¹ Bileretan parte hartu zuten alderdien artean PNVk, EIAk, ESBk, ESEIk eta ANVk parte hartuko dute. KASen bildutakoek (EHAS eta LAIAk) abstentzioaren alde egingo dute. Erakunde militar bakoitza jarrera bakoitzarekin lerratuko da.

¹²² Bertan PNV eta PSOE-PSErekin batera ESEI alderdiak ere parte hartuko du.

egiten zuen. 1977ko hauteskundeetan parte hartu zuten euskal alderdien ekarpenak zentzu bikoitzean bideratuko ziren. Batetik, EAJk izaera foralistako eskaera autonomistak nagusitu ziren; Euskadiko Ezkerrak, berriz, izaera federaleko egitura estatalen alde egin zuen, beti ere, autodeterminaziorako eskubidearen aldarrikapenean oinarrituz. Baina batzuk eta besteen eskaerak gutxietsiak izango ziren (Letamendia, 1994b: 81).

Nazio, nazionalitate, federalismo, autonomia edo erregioak bezalako kategorien arteko lehia Konstituzioaren elaboraziorako eztabaidetan oso presente egon ziren, jakina den bezala nazio bakarraren gainean oinarrituko zen nazionalitateen sistema autonomikoaren eredia azken zirriborroan nagusitu zelarik. Alderdi abertzaleen arteko ez-nahikotasun balorazio honekin testu konstituzionala erreferendumera eraman zen. Baina kontrakotasun honek ezin zituen ageriko ezberdintasunak estali. Diferentzia hauek kontrakotasuna adierazteko baliatutako formula ezberdinetan ere islatu zen. EAJk eta sortu berria zen Herri Batasunak abstentzioaren alde egin zuten; EIAk, berriz, ezezkoa hautatu zuen Konstituzioarekiko aurkakotasunak autonomi estatutu berri baten aldeko indarretan bilakatu behar zela azaltzen saiatzeko. Argi dago, HBren abstentzioak erregimen frankistaren itxuraldaketa bat baino suposatzen ez zuen erreforma prozesuarekiko kontrakotasun erradikal bat sustengatzeko planteatu zela, ondorengo emaitzek Estatuak Euskal Herrian duen zilegitasun krisiari bide emango lioketelarik. EAJrena, aldiz, Konstituzioaren "alde negatiboak" salatu nahi izango ditu; ezezko jarrera batek, aurreko erregimenarekiko hausturak suposatu zuen aurrera pausaren balorazioaren desitxuratzeari suposatu zezakeelako.

Hainbat autorek sakoneko eztabaidaren mamia balizko legitimitate krisi baten inguruan kokatu dute (Ibarra, 1987; Gurrutxaga, 1985; ...). Legitimazio (falta) hau instituzionalizazio prozesu berriaren garapenerako ematen diren urrats ezberdinen aurrean hartutako jarreraren arabera neurtu dezakegu: hauteskudeen inguruko parte hartzea, erreferendumen inguruko posizioa, parte hartze instituzionala, ... Euskal alderdien artean sistema berriari guztiek legitimazio maila bat aitortuko diote, Alianza Popularretik hasita Herri Batasuneraino; maila hori nabarmen aldatuko delarik batetik bestera, noski. Herri Batasunaren kasua salbuespenezkoena izan daiteke. Bere ibilbide historikoan haustura erradikaletik parte hartze instituzional auto-mugatura doan ibilbidea marraztu bazuen ere, bere hasierako urteetan, ezartzen ari zen ordenu berriaren ordezkagarritasun maila bat adierazten zuten ekimenetan ere parte hartu zuen; 1979ko apirilean burututako udal hauteskundeetan, kasu. Baina koalizio honen izaera nazionalista anti-sistemikoaren azterketa aurreragorako utziko dugu. Balio diezagun sistema berriari eragile ezberdinek aitortutako legitimitate erlatibo hau, bere inguruan ere identifikazio politiko ezberdinak eraikiko direla esateko. Are gehiago, legitimazio hau

erlatiboa izateak sistemarekiko identifikazio politiko *partzialak* eta *aldakorrak* ahalbideratuko dituela esan dezakegu. Egoera hau nabarmena izango da EAJren diskurtsoan. Letamendiak (1994b, 219) berak Konstituzioaren erreferendumean baliatutako diskurtso aldakorra gogora araziko digu; "euskal herriaren eskubide historiko eta nazionalak aitortzen ez zuen Estatu eredu baten" salaketatik (eskubideok aitortuko balira Estatu eredu horren parte hartzeko aukerari ateak irekiak utziz) inongo Konstituzio espainiarretan parte ez hartzea defendatuko luketen jarreretara desplazatuz. Hainbat autorek (De la Granja Saiz, Díez Medrano, ...) alderdi honi egotzitako "anbiguetateak" hegemonikoa izan nahi izango duen identifikazio batek beharrezkoa duen kontingentziari bide emango dio. Zentzu horretan ulertu dezakegu hurrengo urteotako arrakasta sozial eta politikoa. Baina ez gaitezen aurreratu. Izan ere, Trantsizioaren urte hauetako (eta ondorengo) identifikazio politikoen artikulazioan funtsezkoa izango den hirugarren aldagaia aztertu behar baitugu.

10.2.3 Gernikako Autonomi Estatutua.

1977ko Hauteskunde Orokorretan hautatuko euskal legebiltzarkideek Euskal Parlamentariaren Asanblada (EPA) osatuko zuten. Legebiltzarkide hauek hiru erronka nagusi jarriko zieten euren buruei: amnistia lortzea, alderdi politiko guztien legalizazioa eta euskal autonomia erdiestea. Bertan ordezkariak zuten alderdi politiko guztiek parte hartu zuten. Guztien artean autonomia berrezarri bitarteko trantsiziozko egituratze instituzional proposatu zen, funtsean ondorengo autonomiaren abiapuntua suposatuko zuena. Testu aurre-autonomiko horretan bi gai argitu gabe geldituko ziren: Nafarroaren *inkorporazioa* eta Kontzertu Ekonomikoa. Lehenengoari dagokionez UCDko Nafarroako ordezkariak hasieratik honekin kontraktasun argiak erakutsiko zituzten; bigarrenari dagokionez, PSOEek berak zalantzak erakutsiko ditu honen egokitasunari dagokionez. Aipagarria da Euskadiko Ezkerrak aurre-autonomia honekiko erakutsitako jarrera. Izan ere, Letamendiaren arabera (1994b: 63) ordura arte koalizioak instituzionalizazioaren eta hausturaren bi munduen artean ibili bazen ere, testuarekiko erakutsitako aldeko jarrerak lehenengoan murgiltzera eramanez zuten.

Testua Madrilekin adostu ostean, 1978ko otsailean, Euskal Herriko Kontseilu Orokorra (CGPV) osatu zen, aurre-autonomiako organo goren gisa. Berak kudeatu behar zituen behin-behinean testu aurre-autonomikoan jasotako eskuduntzak, horietako asko transferitu gabe bazeuden ere. Honek erreformaren alde egin zuen alderdi abertzaleen artean frustrazio maila handia eragin zuen,

trantsiziozko autonomia honi hutsik dagoen estalkiaren itxura emanez. Gainera politika fiskalaren afera argitu gabe zegoen eta Nafarroako afera konpondu gabe. Azken honi dagokionez, esan bezala, hasieratik UCDko legebiltzarkideak Nafarroa eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko bateratze instituzionalaren aurkako jarrera argia erakutsiko zuten. Baina garai honetan PSOEek bere jarrera aldatuko, hasierako inkorporaziotik bi entitate ezberdinetan mantentzearen aldeko jarrerara biratuz. Letamendiak (1994b: 84-86) planteatutako hipotesi soziologikoaren arabera Nafarroako bi errealitate soziolinguistiko ezberdinek bateratze instituzionalaren aldeko identifikazioa baldintzatuko zuketean, euskal hiztunen eremuan honen aldeko jarrera eta erdaldunean kontrakoa nagusituko ziratekeelarik. Azken honek salbuespen nabarmen bat izango zukeen, identifikazio antifrankista oso bizirik zirauen Iruñerriko zonalde erdalduna. Bertan aldeko jarrera izateaz gain, abertzaletasun hausturazalearekiko identifikazioa ere handia litzateke. Zentzu horretan, balizko erreferendum baten aurrean nafar jendartearen polarizazioa agerian geldituko litzateke, "euskal" identitaterik izan ez baina joera antifrankista izan zezaketen tarteko sektore epel askok bateratzearen kontra egin zezaketelarik. Ildo honetan, aipatzekoa da UCD bera izango dela honen inguruko erreferenduma eskatuko duena, baina PSOEek zatiketa hau agerian ez gelditzeko integrazioaren kontra egingo zukeen. Kontuak kontu, balizko *integrazioaren* afera Konstituzioaren 4. Xedapen Iragankorraren baitan ebatzi zen; inoiz oso ondo zehaztu ez zen organo foral baten gehiengo absolutu baten eta zuzeneko erreferendumean lortu beharreko gehiengo baten eskuetan utziz.

Gauzak horrela, CGPVk bere bidea jarraitu zuen, autonomi estatutua izango idazteko ponentzia erredaktore bat izendatuz. Kontzertu ekonomikoaren inguruan PNV eta PSOEren arteko hasierako desadostasunak gaudituta Euskal Parlamentarien Asanbladak proposatutako testuari oniritzia eman zion, parte hartu zuten alderdi guztien oniritziarekin (Arabako UCDko ordezkaria abstenitu eta EMKkoak kontrako bozka eman zuen). Herri Batasunak kontrako jarrera adierazi zuen.

Hainbat autoreen arabera (Ibarra, 1987; Gurrutxaga, 1996; ...), ENAMek momentu horretan Konstituzioaren onarpen faltaren, aurre-autonomiaren eskuduntzen transferentzia ezaren edota egoera sozio-ekonomiko larriaren ondorioz bizi zen frustrazioa egoera saiakera kontra-hegemonikoa eraikitzeke probestu nahi izan zuen; sistemak barneratu ezin izan zituen eskaeren arteko ekibalentzia gorpuztuz edo. Gure ustez interesgarria da garai horretan bertan sistema berriarekiko lehia hegemoniko hori artikulatzeko ENAMek berak bultzatutako beste esperientzia bat: Euskal Herriko Batzarre Nazionala (EHBN). Estatutuaren inguruko kanpainarekin bat eginez, 1978ko irailaren 18an ekimen berri bat aurkeztu zuen. Bere sorreran (lehenengo udal hauteskundeak eta gero) Estatutu baten eginkizuna bere gain hartuko bazuen ere, hilabete batzuk

beranduago indar parlamentarioek eginkizun hau erreferendumaren bidez bururaino eramango zutela argi ikusi zenean egiteko honi uko egin eta bere burua "kontra-botere euskal herritarraren organo" bezala izendatu zuen, "Oligarkiak zuzendutako erreforma prozesuaren aurreko alternatibak" sortzearen eginkizuna hartuz (Letamendia, 1994b: 338). Gauzak horrela, Estatutuaren inguruko erreferenduma baino lau egun lehenago Gernikako Juntetxeetan ospatutako ekitaldian EHBNk bere burua "haustura demokratikoa ahalbideratuko duen kontra-botere alternatiba herrikoia" bezala definitu zuen. Herri Batasunaren baitan honi eman nahi zitzaion izaeraren inguruko eztabaidak gaindituta¹²³, EHBNren osaketa hautetsi eta langile zein herri asanbladen ordezkariengatik osatua egongo zela erabaki zen; amnistiaren, borroka anti-nuklearren, auzo elkarten, nekazari munduko sektoreen, emakume talde, gazte talde edo pentsionisten erreferentzia agerikoa eginez. Hautetsien presentzia "sistemaren baitan pitzadura eragiteko gakoa" bezala aurkeztuko da, baina bere forma nagusia auto-antolatutako mugimendu asanblearioen kontra-boterea izan zen (Letamendia, 1994b: 340).

Hegemonia berri baten eraikuntzarako artikulatu nahi den eskuliburuko ekibalentzia kate teoriko honek, aldiz, praktikan bere mugak erakutsiko zituen. Horietako nabarmena bere bultzatzaile nagusia izango zen ENAM eta bere arteko eginkizun edo espazio politikoaren arteko bateragarritasun falta izan zelarik. Gogoratu behar dugu 1978rako KASek bere burua alderdiak, herri antolakundeak eta auto-antolatutako mugimenduen asanblearioak bilduko lituzkeen bloke iraultzaile bezala definitu zuela. Gauzak horrela, bata eta besteari egotzitako eginkizunen arteko distantzia edo diferentzia minimoa izango da. Eztabaida nagusia, hortaz, kontra-botere hori artikulatuko zuen subjektu nagusia zein izango den argitzean kokatu zela ematen du; 'auto-antolatutako' mugimenduak edota KAS bera¹²⁴. Gernikan burututako agerpen publikoa EHBNren azkenekoa izan zen. Hortik aurrera, KASek kontra-botere herrikoi horren eraikuntzarako blokearen parte organikoa izango zen antolakundearen sorrera lehenetsi zuen: Abertzale Sozialista Komiteak (ASK).

¹²³ Ikuspegi ezberdin hauek HBren kide gehienek defenditzen zuten Batzarreraren mugimendu zein norbanako hautetsien kontseilu izaera eta LAIAk bultzatzen zuen alderdi(ar)en nagusitasunaren artean gauzatu ziren, azken hauen tesiak apenas babesik lortu ez zuelarik (Letamendia, 1994b: 338-339).

¹²⁴ EHBN eta KASen paperaren inguruko eztabaida hauek ezkerren baitako eztabaida paradigmaticoen forma hartuko dute; batez ere Laclau eta Gramsciren arteko posizio teorikoei dagokionean. Biek ala biek hegemonia berri baten eraikuntzaren arrakastarako giltza eskaera ezberdinen arteko sintonian edo elkartasunean kokatu badute ere, lehenengoak kate ekibalentzial guztiari egonkortasuna emango dion *point capiton* edo *a* objektua aurrez ezin dela ezarri planteatzen duen bitartean, bigarrenak horren izaera aurre-determinatua (Gramsciren kasuan langileria) aldarrikatuko du. Ildo berean, EHBNk mugimendu hauen autonomian jarritako arretak bloke kontra-hegemonikoaren eraikuntza eta bilakaerari indeterminazio bat egozten dion bitartean, ENAMek kate ekibalentzial osoaren ainguraleku bezala KAS jartzea, Laclauk Gramsciri egozten zion "ondar esentzialista" dakarkigu gogora; hartu zen bide ohiko alderdi leninisten abangoardismoarekin bat eginez, hegemonia laclaiarraren kontingentziarekin baino.

Lau egun beranduago Estatutuaren inguruko erreferenduma burutu zen errepresioak eta jardun armatuak polarizatutako testuinguru batean. Emaitei dagokionez, II. Errepublikako Estatutuaren bozkarekin alderatzen bada (eroldaren %85,50aren alde bozka) abstentzioaren aldeko joera nabarmen altuagoa izan bazen ere, eroldaren erdia baino gehiagok (%52,16k) alde egin izanak irakurketa politiko garbia adierazten du: Francoren heriotzarekin abiatutako erreforma prozesuak hiru herrialdeetako euskal jendartean legitimazio nahikoa aurkitu zuen.

Zalantzarik ez dago erreforma prozesuak gurean aurkitu zuen kontrakotasun mailak Estatuan eman zen maila apalarekin zerikusirik ez duela. Gurrutxagak (1996) esan bezala, Estatuan gertatu ez bezala instituzionalizazio prozesua gurean ez zen Konstituzioaren onarpenarekin bukatu; instituzionalizazio prozesu honek behar zuen legitimazioa Estatutuarekin gauzatuko zen. Baina jarrera guztiek ez dute irakurketa honekin bat egingo, noski, eta ENAMek oinarrizko araudia den Konstituzioaren onarpen faltak prozesu guztia zilegitasun falta batez bustiko zuela nabarmenduko du.

Zentzu honetan, garai honetan forma hartu zuten identifikazio politiko ezberdinak gertaera politiko berberak ulertzeko eraikitako marko interpretatzaile ezberdinen izaera eta diskurtsiboaren erakusle izango dira. Izan ere, nazionalista zentralistentzat Konstituzioak euskal lurraldeetan izan zuen babes falta agerikoa izango bada ere, Estatutuak (bertatik eratortzen arau gisa) izandako babes zabalak erreforma prozesu osoa legitimatuko du. Nazionalista sistemikoez eta anti-sistemikoez, bat egingo dute Konstituzioaren babes faltak prozesuari jatorrizko gabezia ezartzen diola esaterakoan; baina nazionalista sistemikoez Estatutuaren onarpena Estatuko instituzionalizazioaren berrespen gisa baino, euskal erakundetze eta legitimazio bide "propioaren" abiapuntua bezala ulertuko duten bitartean, sistemaren aurkako jarrera erakutsiko dutenentzat oinarrizko arauaren onarpen faltaren 'jatorrizko bekatuak' prozesu guztia babes legitimatzailezik gabe utzi zuen.

10.3 Identifikazio politiko nagusiak Autonomien Estatu berrian

Atal enpirikoaren aurrekarien lehenengo zati honetan, orain arte bi gauza egin nahi izan ditugu. Batetik, XXI. mendera arte luzatu den protesta zikloaren jatorria kokatu, Tarrowek (1983, 1989) planteatutako zentzuan, *protesta* eta *mugimendua* parekatuz; hau da, protestaldiaren abiatzea

mugimenduaren sorrerarekin lotuz. Prozesu hori testuinguru zehatz batean lekutzen da: frankismoan; testuinguru horrek sortzen dituen aukera politiko nagusi batzuk deskribatu nahi izan ditugularik. Bestetik, testuinguru horretan eman ziren aldaketa nagusiek (Trantsizioa) ordura arte presente egon ziren mugimendu edo identifikazio politikoetan izan zituzten eragin nabarmenenak ere zehaztu nahi izan ditugu. Horrela, zehatzago aztertu nahi dugun epealdiaren (1995-2000) aurrekarien atal honekin bukatzeko, Autonomien Estatuaren testuinguru berri horretan (bir)sortzen diren identifikazio politiko nagusien azalpen labur bat egingo dugu.

Epealdi demokratiko berri hau, besteak beste, alderdi politikoek legezkatzeagatik ezaugarritua egongo da. 40 urte luzeko klandestinitate aro baten ostean, alderdi politikoak, era formal batean plaza publikoan begi bistan azaltzeak eragin nabarmena izango zuen identifikazio politikoek bilakaeran. Hala ere, akats nabarmena litzateke mugimendu hauen identifikazioa alderdi politikoekin parekatzea. Letamendiak horrela azalduko digu:

“Las formas políticas que adquieren los movimientos nacidos de una personalidad étnica no pueden considerarse exclusivamente societarias ni pueden ser asimiladas en modo alguno a partidos políticos [...]. Pero sería también un gran error el concebirlas como formas exclusivamente comunitarias; en la medida en que se proponen influir, o modificar, o separarse del Estado, participan de alguna de las formas de los partidos políticos. Así pues, los movimientos regionalistas pre-nacionalistas -y con mayor razón los nacionalistas- participan de una doble naturaleza, comunitaria y societaria, y constituyen ‘las comunidades socio-políticas’” (Letamendia, 1994a: 235).

Hortaz esan dezakegu, alderdi politikoek inguruan, baina ez beraien mugen baitan, saretzen diren komunitate horien identifikazio politikoak aztertu nahi ditugula; *politikoak* diogu, botere politikoa eskuratu edo behintzat bertan eragin nahi dutelako. Zentzu horretan, inportantea iruditzen zaigu eredu teorikoez ari garela argi izatea; hortaz, aintzat hartzea praktika politikora jauzi egiten dugunean ez dugula zertan deskribatzen ditugun erduekin ehuneko ehunetan bat egiten duten norbanakoak aurkituko. Laburbilduz, identifikazio politiko nagusiak hegemonizatu edo lideratuko dituzten alderdi politikoekin aurkituko bagara ere, gure arreta nagusia hauen inguruan sortzen diren komunitate sozio-politikoek identifikazioan kokatu da, aipatzen ari garen epealdian hauek izango duten bilakaera aztertu ahal izateko.

10.3.1 Erakundeen egitura: Autonomien Estatua

Gure ikerketa-gaiak *zentro-periferia* gatazka eredu klasikoa osatuko du; *zentroa* osatzen duen Estatu-nazioa eta Estatua sortu nahi duen *komunitate periferikoaren* artekoa. Honek ez du esan nahi batak eta besteak komunitate itxi eta barne desadostasunik gabekoak izango direnik. Alabaina, biek ala biek, nazionalismoaren beharra izango dute, jendartearen eta komunitatearen eraikuntzaren eginkizunari atxikimendua eta leialtasuna lortzeko. Letamendiaren (1997: 23) arabera, Estatu-nazioek hiru funtzio mota garatu beharko dituzte: ekonomikoak (merkatuaren sorrera), politikoak (barneratze eta parte hartzea) eta kulturalak (sozializazio eta legitimazio mekanismoak). Hirugarren funtzio multzo honen bitartez Estatu-nazioak kultura nazionala osatuko duten balio, arau eta sinboloak sortuko ditu, erregimenarekiko aldeko aurre-disposizioak aktibatuko dituen jarrerak sustatuz. Sozializazio prozesu hauen bidez sortzen den kultura politikoa identifikazio politiko kolektiboetan islatuko da eta aldagai kognitibo, afektibo eta baloratzailerak barnebilduko ditu.

Leialtasun hau lortzeko Estatu-nazioak forma ezberdinak hartu ditzake. Ohikoenak Estatu *bateratuak*, *federalak* edo *autonomikoak* izan daitezke. Baina hauetako bakoitzak bere aldaerak ere izan ditzake. Gure erreferentziazko Estatu-nazioaren erakunde egiturari dagokionez, *izaera autonomikoa* lukeen erakundetze formaz ariko ginateke, berarekiko leialtasunak erdietsi nahian nazionalismo *zentralista* periferiako nazionalismo sistemikoarekin elkar-biziko beharko delarik.

Estatu autonomikoa Estatu bateratu frankistaren eraldaketaren fruitua litzateke. Azken honen krisiari aterabidea eman eta bere higadura oztopatzeko alternatiba, hain zuzen ere. Estatu autonomikoaren jatorria Estatu federalaren alderantzizkoa da. Azken hau Konfederazio baten parteek batasunerantz eman nahi duten urratsaren isla den bitartean, Estatu autonomikoa Estatu bateratuaren porrotaren erakusgarria da; bere deszentralizazioaren bitartez aterabidea eman nahiko zaiolarik. Edozein kasutan, Estatu zentralak bere eragina erkidego autonomikoengan nabarmendu nahi izango du: osatzen duten parteek beraien autonomia izango dute, baina ez dute Estatu zentralaren borondatearen osaketaren gainean aparteko eraginik izango. Era berean, subiranotasunaren jabe bakarra den zentroa, burujabeak izango ez diren parteen boterearen iturritzat hartuko da. Hau izango da espainiar estatuaren erreforma politikoan emandako bilakaera; aldi berean, Mendebaldean XX. mendearen azken laurdenean emandako joera berdinen parte izango delarik.

Herrero de Miñonek esan bezala, egoera honek mami politiko edota *corpus politicum*-aren inguruko ulermen ezberdinak azaleratuko ditu (Herrero de Miñon, 1998: 112): lehenengoa, boterearen homogeinazio eta zentralizazioan oinarritutakoa, eta bigarrena, ezberdintasunean eta deszentralizazioan. Periferiak pareko bi entitateen arteko harreman bezala ulertuko du eta zentroak menpekotasun harreman bezala.

Baina zer Estatu motaren aurrean gauden jakiteko definizio konstituzionaletatik harago jo beharko dugu, periferiek beraien lurraldearen gaineko zer kontrol maila duten ezagutu beharko dugularik. Izan ere, sistema politikoak hartzen duen formak, egitura sozio-ekonomiko eta konfrontazio politiko-instituzionala ezaugarritzearekin batera, *demos*-a edota erreferentziazko kolektiboaren identifikazioan eragin zuzena izango baitu (Goikoetxea, 2012).

Identifikazio eta egituratze instituzionalaren arteko norabideko biko harreman hau, agentzia eta estrukturan arteko eztabaida klasikoaren aldaera bezala ulertu dezakegu. Hortaz, instituzionalizazioak hartu zuen oinarritzko forma aipatuta, jarraian identifikazio nagusien nondik norakoei helduko diegu.

10.3.2 Nazionalismo zentralista.

Arestian esandakoaren harira, Trantsizio ostean erakundetutako Estatu autonomikoa izaera zentralistako nazionalismo batek gidatuta gorpuztu zen. Estatuak bere burua mehatxatua sentitzen duenean, bere erreferentziazko komunitatearen atxikimendua mantentzeko bere jarrera nazionalista *zentralista* bihurtzea ohikoa izaten da. Mehatxu hauek askotan errealak edo irudimenezkoak izan daitezkeenez, zentralismo ‘defentsibo’ eta ‘erasokorren’ arteko mugak lausoak izan daitezke. Normalean zentroaren indarrak nazionalismo zentralistak beharrezkoak egiten ez dituzenez, beraien agerpenak periferietako komunitateen artean erresistentziak eragingo ditu.

Bilakaera hau agerikoa izango da 80. hamarkadaren hasieran. LOAPAren tramitazioa edota eskuduntzen transferentzia mugatua hauen adibide garbiak izan daitezke. Izan ere, sistema politiko berriaren eginkizun nagusietako bat bere erreferentziazko komunitate politikoa trinkotzea izango

baitzen. Trantsizio osteko oreka hauskorrean¹²⁵ sistema bere erreferentziazko komunitatearen kohesioa kolokan jarri zezaketen mehatxu bikoitzarekin aurkituko da: batetik, nazionalismo periferikoak autogobernu jaioberria bestelako asmo soberanistetarako baliatu zezakeen; eta bestetik, *bunkerizatutako* elite kontserbadoreen joera autoritarioak demokraziaren mehatxu zuzena izan zitekeen. Otsailaren 23aren inguruko *auto-kolpearen* inguruko teorietatik harago, saiakerak berak eta ondorengo lege organikoaren tramitazioak Estatu-nazioaren erreferentziazko komunitatea trinkotu eta euskal nazionalismoaren asmoen mehatxuak gelditzeko eragin politikoa ere izan zuten. Jokaldiak, aldiz, bere arriskuak ere bazituen. Izan ere, elite kontserbadoreen leialtasuna mantentzeak euskal nazionalismo sistemikoa zentro-periferia lehia *adostuaren* soka apurtu baitzezakeen. Ondorenean Auzitegi Konstituzionalak LOAPAren izaera "homogeinizatzailea eta harmonizatzailea" kolokan jartzeak tentsio hau nabarmen baretu bazuen ere.

Estatu-nazioaren komunitatearen eraikuntza prozesuan *eliteen* garrantzia aintzat hartu beharreko elementua izango da. Hau jatorri ezberdinetako sektoreez osatuta egongo da: alderdi politikoetako buruzagiak, estatu-politikariak, goi funtzionarioak, indar militar eta polizialak, enpresetako patronalak, akademia munduko pertsonai erreferentzialak, kultur edo kirol esparruko kide esanguratsuak eta abar luze bat. Estatu-nazioaren gehiengoa ordezkatu nahi duen elite honek, balioen zentzua bereganatuko du, balio sistema horren baitan zer sektore kokatzen diren eta zeintzuk ez ebatziz. Periferietako nazionalismoekin berdin egingo du, nazionalismo sistemikoa bere erreferentziazko komunitatearen baitan barneratuz eta anti-sistemikoa baztertuz edo estigmatizatuz.

Zentzu honetan, Estatuaren elitearen parte izango diren eta periferiatik datozen kideak nazionalismo periferikoen kontra indar gehienarekin jo izan dutenak izan ohi dira (Letamendia, 1997: 132), gure kasuan ikusi dezakegun bezala. Estatu-nazioaren baloreak bere eginez eta Estatu-nazioaren kide gisa identifikatuz, periferietako kontra-baloreen aurka egingo dute, nazionalismoa bazterreko zerbait edota are patologikoa izan daitekeena bezala kontsideratuz.

Nazionalismo zentralistaren bereizgarri bezala, periferietan sortzen diren "periferiak" aipatu genitzake. Izan ere, periferiak ere polizentrikoak izan daitezke. Estatuak bezala, periferiek ere beraien zentroa eta periferiak izango dituzte, ezberdintasun ekonomiko, historiko edota kulturaletatik jaiokoak. Periferietako periferia hauek zentroarekin aliatu edota beraien nazionalismoa

¹²⁵ Gogoratu behar dugu ETAren eta Estatu terrorismoan ari ziren taldeen jardun armatuaren urte gogorrenak izan zirela. 1978tik 1980ra doan tartean soilik (biak barne) ETAren adar ezberdinek eta CC.AA.-ek 241 pertsona erahil zituzten; Estatu Terrorismoari lotutako talde nagusiek (Batallón Vasco Español, Triple A eta Grupos Armados Españoles) 23 pertsona (Eusko Jaurlaritzak Terrorismoaren Biktimen Bulegoari eskatutako txostenetik aterata; http://elpais.com/diario/2010/03/21/domingo/1269147158_850215.html)

elikatzerara jo dezakete, periferietako nazionalismoaren etsai nagusiaren aurka bat eginez. Unión del Pueblo Navarro-ren (UPN) sorrera 70. hamarkadaren bukaeran edo Unidad Alavesaren fenomenoaren 90. hamarkadan horien adierazlerik nabarmenenak izan daitezke.

Lehenengoari dagokionez, Konstituzioaren negoziatioetan Estatuko indar politiko nagusien (UCD, AP eta PSOE) eta EAJren artean Nafarroaren sorrera Euskadin ahalbideratu zezakeen 4. Xedapen Iragankorra alderdi honen sorrerako arrazoi nagusia izan zen. Horrela, ordura arte Nafarroako UCDren inguruan ibilitako kide erreferenteek (Jesús Aizpún, Jose Angel Zubiaur, Maria Isabel Beriain, Javier Chorrut, ...) alderdi berriaren sorrerari eman zioten, 1978ko Konstituzioa indarrean sartu eta sei egunetara. Aipatutako negoziatioetan Estatuko eliteek Nafarroa, 4. Xedapen Iragankorraren bitartez, zentro izatetik periferia (Euskadi) izatera pasatzeko zabalduko arriskua UPNren sortze-arrazoitzat hartu daiteke.

UA-ren kasuan ere, zentroak periferiari emandako aitortzak periferiako elite zentralistetan banaketak eragin zituen. Alianza Popular-rak (AP) euskal autonomiarekiko eta Araba Euskal Autonomia Erkidegoan inkorporatzeari begira izandako jatorrizko erreparatuak leuntzen joan ziren 80. hamarkadaren bukaeran, alderdi popularraren birfundazioa planteatu zenean. Gerora Partido Popularra izango zenaren baitan izandako zatiketarik sortu zen alderdi arabarazalea, bere erreferente nagusia izango den UPNrekin alderatuz pisu txikiagoa eta ibilbide motzagoa izango duena. 2005ean disolbatu zen ordezkartzan izandako galera eta PPra ihes egindako kide esanguratsuen ondorioz.

10.3.2.1 Nazionalismo antiterrorista.

Letamendiak (1997) kategoria espezifikoa bat bereziko du nazionalismoaren zentralistaren barruan, nazionalismo zentralistatik urrats bat 'harago' nolabait esateko; nazionalismo antiterrorista. Iraupen luzeko gatazka biolentuetan zentroaren bi erantzun motekin aurkitu gaitzke: batetik, Gobernuak bultzatutako izaera instrumentaleko ekintza errepresiboekin, eta bestetik, aipatzen ari garen izaera zentralistako erreakzio identitarioekin. Erreakzio zentralistaren intentsitatearen arabera, esteriotipatu eta estigmatizatu izan daitezkeen nazionalismo periferikoa "barne etsai" gisa hartu izan daiteke, Estatuaren nazionalismoa erradikalizatuz.

Horrela, Estatuak bere politika antiterrorista “normatiboetatik” legez kanpokoetara doan abaniko batetik aukeratu beharko du. Lehenengo artean nazionalismo periferikoa eta bere baitan sortutako talde armatuari inongo zilegitasunik aitortuko ez dien politika informatiboak sustatzetik hasi; justizian, kartzela eremuan edo poliziari emandako salbuespenezko eskumenen zabalpenetik pasata (neurrioi nazioarteko babesak emanez); gerra psikologikoko diseinuak zituzten ‘ZEN Plana’ bezalakoetara iritsiz. Kasu guztietan errepresioaren jo muga erreferentziatzko eragiletik harago nabarmen zabalduko da.

Politika normatibo hauekin Estatuaren diskurtsoak eraginkortasun eta legalitatearen arteko uztarketa nabarmenduko badu ere, “*guztiak* bata eta bestea (zentroa eta periferia) banatzeko konspiratuko du” (Letamendia, 1997: 332). 70. hamarkadaren bukaeran eta 80. hamarkadaren hasieran ikusi bezala, hertsadura aparatuen barruan legalitatea apurtuko duten erantzun korporatiboak sortuko dira. Borroka antiterroristaren arduradunak epe motzeko eraginkortasun bilatu nahi izateak norabide berdinean bultzatuko ditu. Jardun armatuagatik kolpatua sentitzen den Estatu-nazioaren populazioaren polarizazio oldarkorrek bigarren mailako legitimatze funtzioa beteko du; honen ageriko babes batean baino, babes tazitu batean itzuliko den isiltasun batean islatuz. Arduradun politikoak, hertsadura aparatuen leialtasun krisiari, euren ‘egiten utziz’ edota euren erantzunak koordinatuz erantzungo dute. Bien bitartean, kanpora begira, neurri normatiboen garrantzia aldarrikatu eta legez kanpoko estrategia honekiko ez-ikusiarera egingo dute.

Jarrera kontraesankor hau, aldiz, bortxaren antiterroristaren atalasearen arabera izango da. Tortura lehenengo atalase batean kokatu daiteke. Bera penalki tipifikatua eta publikoki onartezina izanik ere, bere erantzukizun penaletatik salbuetsi ditzakeen hainbat egoera eman daitezkeenaren uste nagusia ere ematen delarik (Ibarra, 1987). ‘Kontrolik gabeko’ terrorismo polizialak bigarren atalase bat osatu dezake; hau da, Gobernuak desiratzen ez duen hori. Trantsizio egoeretan eman ohi izaten diren ziurgabetasun egoerei lotuta agertzen da; bertan indar polizialek beraien etorkizun politikoaren inguruko bermerik ez ikusteak kontrolik gabeko jardun hauek areagotu ditzakete. Terrorismo instrumentalak eta terrorismo kolpistak hurrengo mailak osatuko lituzkete. Lehenengoa, aurrekoak ez bezala, arduradun politikoek zuzentzen dute. Hertsadura aparatuen erreakzio korporatiboetatik elikatzen da, baina hauek ez dira espontaneoak; autoritateengandik neurtuak eta zuzenduak baizik. Helburu operatibo zehatzak izateaz gain, Estatu aparatuen leialtasuna bermatzea ere izango da bere xedea, hauek mertzenarioengatik ere eginak izan badaitezke ere. Ekintza hauek gutxieneko babes sozial izan beharko dute (kasu askotan lausoa izango bada ere), jasaten den erasoaren neurrigabekeria azpimarratuz. Terrorismo mota hau berriz maila batean kontrolatua izan

beharko da, presio sozialak edo nazioartekoak kontra egitea nahi ez badu. Terrorismo kolpistak azalpen gehiegirik ez du behar.

Nazionalismo antiterroristaren erreakzioak *ideologikoa* eta *identitarioa* kontrako zentzuetan norabidetzea ekarriko du. Sistemak bere diskurtso *ideologikoa* bakea eta demokrazia bezalako balioetan zentratzen duten bitartean, masak (hainbat elite politiko, mediatiko edota polizialek hauspotuta) nazionalismo periferiko biolentoaren aurka geroz eta nabarmenago polarizatuko dira. Azken hau, Estatu-nazioaren barne etsai bihurtuta, bere izaera *identitarioan* sakonduko duelarik.

Zentro-periferia gatazkak gurean bortxa antiterroristaren atalase maila guztiak ezagutuko ditu. Letamendiak *Juego de espejos* (1997) liburuan maisuki azaldu bezala, nazionalismo antiterroristaren espiralak nazionalismo periferikoan bere isla izango du, elkarri elikatzen dioten ispiluen joko amaigabe bati bide emanaz.

10.3.2.2 Erregionalismoa.

Erregionalismo bezala, erregioek bere lurraldeetako botere gune politikoak, ekonomikoak eta sozialak kontrolatzearen aldeko apustua ulertuko dugu; normalean instituzio politiko, administratibo eta legegile propioen bitartez (Letamendia, 1997: 145). Erregionalismoaren kategoria garaikidea Ongizate Estatuaren bilakaerari lotuta agertuko zaigu. 70. hamarkadaren bukaeran korrante neoliberalen eskutik abiatutako gainbeheraren ondorioz, Estatuak ordura arte bere gain hartutako hainbat eginkizun sozial maila instituzional baxuagoetara bideratuko dituzte. Botere banaketa berri honek, Estatuaren eginkizunak eraldatzeaz gain, botere egitura lokalagoei zentzu berri bat emango die.

Espainiar Trantsizioa mendebaldeko Estatu-nazioetako Ongizate Estatuaren gainbeheraren fasean gauzatu izanak, ondorio zuzenak izango ditu Estatuaren konfigurazio ereduan. Hau da, gorpuztu nahi izan zen autonomien Estatuak une horretan nagusi ziren tentsio nazionaleri erantzuteaz gain, oinarritzko zerbitzuen eskaintza (osasuna, irakaskuntza edota hainbat prestazio sozial) herritarrengandik gertuago zeuden erakunde maila azpi-estatalen eskuetan uztera eraman zuen. Baina ikusi dugun bezala, jatorrizko asmo hauek izaera zentralista erakutsiko duen nazionalismo batengandik baldintzatuak izango dira.

Hauxe izan daiteke PSOE-PSEk erakutsitako jarrera nagusiaren adierazlea. Jaioberria zen PSEk Trantsizioan eta ondorengo instituzionalizazio prozesuan jokatu zuen papera aztertu duen Andrea Micciché-ren arabera (2009: 72), 1977ko I.go Kongresuan “diskurtso nazionalistari egindako ageriko kontsezioak” hurrengo urteetan gaindituta, PSOE-PSEk bere profil propioa aurkitzeko lanari ekin zion. Jesus Egigurenek (2009: 286) berak gogoratuko digun bezala, lehenengo Kongresu horretan sozialistek Euskadiren erabakitze eskubidearen alde egin bazuten ere (“zentralismoari zein independentismoari aurre eginez, Euskadiren integrazioa Espainian proposatuz Estatu federal baten bidez”), 1979ko hauteskunde orokorretan eta munizipaletan jasotako emaitza eskasek norabidea zuzentzera eraman zuten.

“En lo político, las resoluciones [del Primer Congreso] no resistirían la prueba de la realidad y se convertirían en indefendibles al poco tiempo. No servían para responder a los problemas concretos del país; y tampoco eran coherentes con un partido de ámbito estatal con vocación de Gobierno” (Egiguren, 2009: 286)

1979an eta 1982an burututako II. eta III. Kongresuetan bir-norabidetze prozesu hau nazionalismoaren ideologiari kritika eginez jorratuko zuten; EAJ erradikalismoaren aurkako borrokan konprometitzen saiaturaz edota ezkerreko alderdiaren izaera nabarmenduz (Micciché, 2009). Profil aurrerakoi hau nabarmentzea eta gai sozialei ustez emandako garrantzia azpimarratzea, aldiz, ez zen lan erraza izan. Moncloako Itunetan jokaturako papera edota UGT sindikatu anaiarekin ematen hasiak ziren lehenengo ika-mikak nabarmen zailtzen zuen PSE Ongizate Estatuaren defendatzailearen paperean kokatzea. Honi, urte hauetan ematen ari zen zentro-periferia gatazkaren polarizazioa gehitzen badiogu, askoren begietan, PSOE-PSE alderdi erregionalista baino irudi estatalistagoa helarazten zuelarik.

Urte batzuk geroago EAJ eta PSEren arteko harremanak estutu ziren, hasieran legegintzaldi ituna sinatuz eta 1986ko hauteskunde autonomikoen ondoren gobernu ituna. Elkarlan honek PSEri “giro vasquista”-n sakontzeko aukera emango dio (Egiguren, 2009: 313). Erregionalismoa (baita PSErena 80. hamarkadan ere) zentro eta periferiaren arteko logika *tentsiodun* honetan mugituko da¹²⁶, koiunturaren arabera ardatzaren alde batera edo bestera mugiaraziz. Oreka ez-egonkor horretan ere

¹²⁶ Zentzu honetan adierazgarriak dira Egigurenen ondorengo hitzak: “el socialismo [vasco] se debate entre el deseo de acentuar su imagen vasquista y el temor a desfigurar sus señas de identidad, que, para la mayoría de su base electoral, se identifican con el antinacionalismo, la españolidad y la prioridad de las cuestiones económicas y sociales desde una perspectiva netamente obrerista” (2009: 315).

mugituko da nazionalismo sistemikoa; anbiguetate eta aldakortasun honek, hainbat egoeratan, erregionalismoa non bukatu eta nazionalismo periferikoa non hasten den mugarritzea lan nekeza bihurtuko duelarik. Anbiguotasun honek, EAJ eta PSEri zentralitate politikoa eman zien ia bi hamarkadetan zehar; sistemaren mugak zalantzan jarriko ez zituzten jarrera moderatu hauek posizio hegemonikoa izateko balio izan zielarik.

10.3.3 Nazionalismo periferikoa.

Aipatzen ari garenaren harira, Letamendiaren (1997) arabera, nazionalismoa, identifikazio politikoen eraikuntzarako mugimendu gisa, hiru erregistro barnebilduko lituzke: *identitarioa*, *ideologikoa* eta *legitimazio* politikoaren mailatik datorrena. Lehenengoa nortasun zeinuen aukeraketan letzake: espazialak (talde lurralde eremu zehatz batekin lotzen duena), tenporalak (taldearen iraupena finkatzen dutenak) eta kulturalak (hizkuntza eta kultur adierazpenak barnebiltzen dituenak). Erregistro ideologikoak taldearen mesedetan baliatuko diren filosofia eta teoriak barnebilduko lituzke eta ideologia nagusiekiko identifikazioan oinarrituko litzateke (liberalismoa, errepublikanismoa, ...). Legitimazioaren erregistroen kasuan, periferiak Estatu-nazioak martxan jarritako legitimazio mekanismoak mimetizatzen joan ohi du, gorago aipatutako ispilu jokoari bide emanez. Legitimazio mekanismo hauek izaera arrazionala, identifikazioari lotutakoak edota boterearen sakralizazioarekin lotutakoak izan daitezke. Mekanismo hauen ezaugarritzea eta intentsitatearen arabera periferia eta Estatu-nazioaren arteko gatazka maila ebatziko delarik. Horrela, hiru erregistroak elkarlotuak agertuko zaizkigu, modu bateratuan funtzionatuko duen ikuskera gisa agertuz.

Mugimendu periferikoa, definizioz, nazio bateko taldeen eta klase sozial ezberdinen aliantza den heinean, ez dator ezker-eskubi haustura larria eragiten duen klase gatazkatik (zentro-periferia gatazkarik ez duten Estatu-nazioetan bezala), ezberdintasun ideologiko-identitarioetatik baizik. Baina zentro-periferiaren aldagaiak gainontzeko *cleavages*-ekiko izan duen indarra, hauek barneratu, hegemonizatu eta artikulatzeko aukera zabalduko du. Ikuspegi honek ez du klase gatazka ukatuko; nazionalismo periferiko erradikalen jatorrian bestelako aldagaiek ere duten garrantzia azpimarratu baizik. Esaterako, mugimendu horren barneratze edo kanporatze maila zentroarekiko, gu/besteak irudikapenaren intentsitatea edota Estatuari aitortzen dion legitimazio maila. Edozein

kasutan, arestian aipatutako aldagaiak euskal nazionalismo periferikoaren baitan bi identitate politiko mota gorpuztera jo dute: nazionalismo sistemikoa eta nazionalismo anti-sistemikoa.

10.3.3.1 Nazionalismo sistemikoa.

Mugimendu nazionalistaren izaera sistemikoa edo antisistemikoa egitura instituzionalekiko erakutsitako jarreragatik baldintzatua etorriko da. Letamendiaren arabera (1997: 112-113) mendebaldeko jendarteetan nazionalismoaren izaera hiru aldagaien arabera neurtuko da: bere kapital sozial etnikoa, bere osaketa ideologiko-identitarioa (bere eskaeren erradikaltasuna ezaugarrituko duena, autonomiatik independentziara doana) eta sistemaren jarrera berarekiko. Gure kasuan nazionalismo sistemikoaren identifikazioa nagusiki EAJk hegemonizatuko du, bertan kokatu ahal izango den eragile (politiko) bakarria izango ez bada ere.

a) Kapital soziala.

Letamendiaren arabera (1997: 113), kapital sozial handia barneratzen duen mugimendu nazionalista sistemikoa izatera joko du; kapital sozial honen gabezia ideologiagatik ordezkaturik bada, aldiz, anti-sistemikoa izatera. Kapital sozial hau elkarren arteko konfiantza eta elkarrekikotasun arauetatik sortuko da, komunikazio sare pertsonal eta konpromiso hiritarra oinarri izango duena. Kapital sozial hau nabarmena den periferietan nortasun kolektiboaren izaera leunduko da; eta bere bidez, mugimendu nazionalistaren izaera instrumentala bihurtu.

Zentzu honetan aipagarria izango da EAJk garatu duen eta osotasun bokazioa lukeen alderdi-komunitate sareak (De la Granja Saiz, 2002: 18). Honen arabera, EAJ zentzu hertsian alderdi politiko bezala ulertu daitekeena baina *zerbait* gehiago izan dela esan daiteke; mugimendu politikoa nahi bada, baina izaera sozial eta kulturala ere baduena. XX. mendearen hasieratik bere inguruan euskal jendarteetan barneratzen joan den sare-egitura klase-arteko bat osatzen joan da. Hainbat kasutan, antolaketa eredu honek alderdia eta herria parekatzea jo izan du, bere garaian Agirre Lehendakariak botatuko leloari jarraipena emanez: “el PNV no es un partido político como otro cualquiera; es la patria vasca en marcha” (1933). Zentzu honetan, Trantsizio ostean 80. hamarkada osoan zehar EAJk lortutako nagusitasun instituzionala begi bistakoa izan bazen ere, are garrantzitsuagoa izan daiteke honek lortutako hegemonia sozial eta kulturala.

Ander Gurrutzagak (1985, 1996) hegemonia honen arrakastarako gakoak izango diren eremuen bilakaera aztertuko du. Horrela frankismoan zehar familia, eliza, kuadrilla edota asoziazionismoa ideia horien transmisio *ezkukurako* giltzarriak izan baziren ere, trantsizio ostean instituzionalizazio prozesuak hartutako garrantziak hegemoniaren hedapenerako fokua bestelako eremuetara zabalduko ditu. Gurrutzagaren arabera (1996: 157), frankismoaren ostean “eraikuntza autonomikoak bizitza soziala gain-instituzionalizatzen du”, ordura arteko *kaleko* kapital soziala administrazioetan kokatuzera joko delarik. Zentzu honetan, administrazioaren fideltasuna lortzeko egitura administratiboaren politizazio maila altua eta horren aukeraketa prozesuetan esku hartzea bide nagusiak izango dira. Honek bere ezagutzaren arabera baino lotura politikoei emandako garrantziagatik kontratatutako esperientzia txikiko norbanakoak errekrutatuzera eramango du (Jimenez Asenjo, 1985). Kasu askotan, alderdiaren eta administrazioaren arteko kapital sozialari dagokionez, bata non bukatu bestea hasteko oso ondo definitzerik ez dela egongo.

Gurrutzagak ere “EAJk (zuzenean) kontrolatuko ez duen” baina nazionalismo sistemikoaren orbitan grabitatuko duen “klase politiko berri” batez ere hitz egingo digu (1996: 152-153). Hiru multzo profesionalen baitan bilduko ditu: batetik, nazionalismoak hezteko denborarik izan ez duen eta kasu askotan instituzionalizazio prozesuaren ondorioz egitura autonomikoaren parte izatera igaro diren jardun liberaletan (abokatuak, ekonomistak, ...) diharduten profesionalak. Bigarrenik, enpresa pribatuaren eremutik datozenak (kooperatibagintzatik edota enpresa txiki-ertainetik datorren teknokrata belaunaldi berria). Eta hirugarrenik kultura mundutik datozen sektoreak (mundu editoriala, kazetaritza, hezkuntza edo kulturgintza jardundakoak eta abar). Hauetako askok Trantsizioaren ostean burutako erakunde prozesuan gorpuztutako nazionalismo sistemikoaren kapital soziala osatuko dute.

b) Osaketa ideologiko-identitarioa (Ezker-eskubi eta autonomismo-independentzia).

Kapital sozial indartsu bat izatea, aldiz, ez da mugimenduaren izaera ezaugarrituko duen aldagai bakarra. Kapital sozial horrek erreferentziazko Estatu-nazioari emandako aitortza mailak eta bere osaketa ideologiko-identitarioak ere norabidetuko dute erakundetze prozesuarekiko jarrera. De la Granja Saiz-ek aipatu bezala (2002: 17), EAJren doktrinak burujabea izango den Estatu baten sorreraren helburua, Estatuaren baitan autonomia lortzearekin lotuta egongo den ekintza politiko pragmatikoarekin beste inor baino hobeto uztartu du. Bere ustez, formulazio honek, kontraesankorra dirudien arren, XX. mendean alderdi honek lortutako errotze sozial eta arrakasta politikoaren

zeinurik adierazgarrienetakoa izango litzateke. Independentismo teoriko eta autonomismo praktikoaren arteko oreka zail honetan, eraikiko du autonomi estatutua Estatu propio baten bidean ematen den “lehenengo urratsaren” diskurtso anbigua. Nazionalismo moderatuen instituzionalizazioak mugimendu periferikoa sistema sozio-politiko estatalean barneratzeko arriskuaren atarian kokatuko du ezinbestez.

Nazionalismo sistemikoaren "gu"-ak izaera interklasistako diskurtso bat garatuko du (Zallo, 1997: 123; De la Granja Saiz, 2002: 18); nahiz eta goi sektore sozialak izan mugimenduaren praktika bideratuko dutenak. Díez Medranoren (1999) arabera, ezker-eskuin ardatzera ere zabalduko duen anbigutasun honek Trantsizio ostean hartutako jarrera sozio-ekonomikoarekin lotuta legoke. Honen arabera, kapitalismoaren existentzia zalantzan jarri gabe, EAJren baitan era sotilean ezberdindutako bi jarrerekin topatu gaitzke. Lehenengoa defendatzen zutenek, industria eta jabego pribatua onartzen bazuten ere kapitalismo basatiaren eta bere izaera esplotatzailearen aurka azalduko dira. Bigarren jarreraren aldekoek, berriz, ekoizle txikiak eta lan zentroaren demokrazia axola txikiagoa zaie. Azken hauek lehentasuna euskal industria merkatu espainiarrean eta nazioartekoan lehiakorragoa izateari ematen zioten. Beraien kezka nagusia euskal industria astuna 70. hamarkadaren bukaeratik ematean ari zen krisitik aterako luketen neurriak inplementatzeko botere politiko nahikoa mobilizatzeko gaitasuna izatean zetzan. Hortaz, EAJk babestutako ideologia sozio-ekonomikoa bi korranteetatik elikatuko da: batetik, kapitalismoa zalantzan jarri gabe, kapitalismo handia begi onez ikusi ez eta langileen parte hartzea sustatu nahi zutenak; eta bestetik, kapitalismoa euskal jendartean ematen zen bezala onartzen zutenak osatuko lukete (Díez Medrano, 1999: 181-182). Zallo bezalako bestelako autore batzuk, aldiz, zuzenagoak izango dira alderdi honen izaera “kontserbadorea” salatzerakoan orduan; honen arabera ulertuko balirateke 90. hamarkadaren erdialdean Estatu mailan onartutako lan erreformei emandako babes edota pentsio sistema eta osasungintzaren privatizazio partziala (Zallo, 2001: 149).

c) Sistemarekiko jarrera.

Identifikazioaren eraikuntzan nazionalismo sistemikoak erakutsitako anbigutasun honek, malgutasun eta joko politikorako margen handia emango dio, sistemarekiko erakutsitako jarrerari dagokionez. Horrela, hainbat kasutan “bestea”-k zentroari erreferentzia egingo dio; beste hainbatetan, aldiz, nazionalismo anti-sistemikoari ere egingo dio. Azken jarrera honek, aldi berean, zentroarekiko alternatiba baztertzailer bezala ez agertzea ekarriko diolarik.

Edozein kasutan, mugimendu nazionalista sistemikoaren instituzionalizazioak nekez gainditu ahal izango den kontraesan bat sortuko du. Izan ere, oso zaila izango baita mugimendu periferiko batek bere jardura guztia sistemikora norabidetzea, sistemaren logika Estatu-nazioaren zentroa izango den neurrian (Letamendia, 1997: 113).

10.3.3.1.1 Nazionalismo sistemikoaren beste adierazpide batzuk.

Esan bezala, EAJ izango da Trantsizio ostean nagusituko den nazionalismo sistemiko honen erreferente politiko nagusia baina ez bakarria.

Eusko Alkartasuna (EA), 1986an EAJrengandik banatu zen zatiketa bezala, horren adibiderik garbiena izan daiteke. Banaketa honen arrazoiak aztertzerakoan Lurralde Historikoen Legearen (LHL) inguruko eztabaida eta lidergoen arteko lehia arrazoi nagusi bezala agertu ohi badira ere (Gurrutxaga, 1996), badira bestelako ikuspegi esanguratsuak. Pérez-Agotek (1987: 124-125) esaterako, LHLren afera boterea zentralizatu edota deszentralizatu nahi dutenen eztabaida bezala baino, botere hori instituzio politiko komunen (alderdiaren diziplinatik aske) edota alderdiaren bitartez (alderdi zentralizatu batek estuki kontrolatutako instituzio deszentralizatuak) zentralizatu nahi izan zutenen arteko eztabaida bezala ulertuko du. Beste autore batzuk (De la Cueva, 1988) urrats bat harago joan eta Gernikako Estatutuaren balioaren inguruko ikuspegi ezberdinetan kokatu dute banaketaren jatorria. Baina 1982an boterera iritsitako PSOEek eskumenen transferentziari emandako geldialdiak sortutako lehenengo kezkaz harago, nazionalismo sistemikoarengan ia hamarkada bat beranduagora arte Estatutuaren bideragarritasunaren inguruko kezka ez da orokortzen hasiko. EAJ-EA zatiketaren biharamunetan, ordura arte Gipuzkoa Buru Batzarreko lehendakaria izandako eta EAko bozeramaile lanetan hasitako Markel Eizagirreren hitzak zentzu horretan esanguratsuak dira:

“Nosotros rechazamos la línea provincialista que el PNV ha ido configurando a través de las diputaciones. Otra cuestión diferencial es nuestro deseo de ser mucho más exigentes con Madrid de cara a que sea respetado el pacto que supone el Estatuto de Autonomía de Gernika. Todo esto, que puede parecer coyuntural, está en el fondo de la cuestión. Hay que

ser más nacionalistas de lo que últimamente se ha sido desde el PNV, planteando siempre las posturas y objetivos de forma democrática”¹²⁷ .

Hortaz, momentu horretan ika-mika ez dago Trantsizio ostean hartutako instituzionalizazio bidearen balioaren inguruan, baizik eta horren gainean nagusi den alderdiak egindako kudeaketaren eraginkortasunean.

Euskadiko Ezkerra (EE) bera, bere ibilbideagatik nahikoa klasifika-gaitza suertatu dakigukeen eragile politikoa, modu batean sistemaren mugen barruan aritutako korrante nazionalista bezala ere izendatu dezakegu¹²⁸ .

EEK garatutako nortasun politikoari dagokionez, bere fenomenoak ikertu duten hainbat ikerlarik plano soziala eta nazionala uztartzeko “tentsioaz” (Pérez-Agote, 1987: 135) edota, harago joanda, “porrotaz” (De la Granja Saiz, 2002: 22) hitz egingo digute. Azterketa gehienek bere kidegoaren perfil ikasia edota intelektuala nabarmenduko dute. Alde horretatik, nazionalismoaren bestelako familiekin alderatuz, honek euskal nazionalismoa “arrazionalizatzeko” egindako saiakera nabarmenduko dute; beti ere, arrazionalizazio prozesu hau helburu zehatz batzuk lortzeko ekintza gidatuko duten jarduna bezala ulertuz. Pérez-Agotek (1987: 138) “nazionalismoak berezko dituen afektibitatea eta balioak kanpo uzteko ahaleginaz” hitz egingo digu; EE alderdi nazionalista gisa,

¹²⁷ 1986ko urriaren 12an *Navarra Hoy*-n egindako elkarrizketa. Justo de la Cuevaren *La escisión del PNV* (1988: 291) liburitik aterata.

¹²⁸ Ez da ikerketa honen asmoa Euskadiko Ezkerraren ibilbide labur baina oparoaren erreposoa egitea baina ezin aipatu gabe utzi bere ibilbide horren mugari nagusi batzuk sailka-ezintasun hau azaltze aldera. Euskadiko Ezkerra 1977an koalizio bezala eratu zen Euskal Iraultzarako Alderdia (EIA) eta Euskadiko Mugimendu Komunistaren (EMK) arteko aliantzaren ondotik. Adostasun hau, Telesforo Mozonek gidatuta 1977ko Hauteskunde Orokorretara aurkezteko alderdi abertzaleen arteko aliantzarako aukerak porrot egin eta EIA KASetik kanporatua izan eta gero emango da. Bere hastapenetatik sartu-irteera esanguratsuak izan zituen koalizioa izango, baina 1982an alderdi gisa eratuko da Euskadiko Alderdi Komunistaren (EAK) inkorporazioarekin batera. Birfundazio prozesu honetan bestelako jatorriak zituzten norbanakoak ere gehituko dira: Euskal Sozialistak Elkartzeko Indarra (ESEI), Liga Komunista Iraultzailea (LKI) edo PSOEtik bertatik etorritakoak ere. Siglen nahasketa honek nortasun politiko kohesionatu bat nabarmen zailduko du. Baina identitateen eskizofrenia hau nonbaiten era argi batean azaleratuko bada, hori garai horretan sistemarekiko barneratze/barnera-ezintasuna norabidetu zuen jardun armatuaren bilakaeraren inguruan eman zen. 80. hamarkadaren hasieran Juan Mari Bandrés edo Mario Onaindia bezalako EEren buruzagiek ETA pm-ren barneratzean jokatu zuten paper esanguratsuz harago, lider hauen jarrerak alderdi lekutuko den identitate politikoaren mugak zirriborratuko zituzten . Horrela azaltzen du Letamendiak 1985an *Época* aldizkarian egindako elkarrizketan (1985-12-30): “EIA se introduce en un camino que no es el apoyo a la inserción sino la cooperación abierta con toda la estructura psicológica que es la inserción donde cambias identidades colectivas. Tú estas identificado con un pueblo que hace la guerra al Estado. Si te sales de ahí te vas al lado contrario. La identificación con el poder del estado. Gente que va al otro extremo y se posiciona con el estado contra ETA militar y de HB. Los saltos que da EE no están racionalizados y se deben a procesos internos de cambio de identidades” (Jose Antonio Egidoren *Viaje a la nada. Comienzo y fin de Euskadiko Ezkerra* liburitik aterata).

Honi, EEk frankismo osteko erakundetze prozesuaren inguruan izan zuen jarrera aldakorra gehitzen badiogu (1978ko Konstituzioari ezezkoa, Gernikako Estatuaren aldekoa eta 1988an Konstituzionaren onarpena) errez ulertuko da planteatu dugun nortasun politikoen eskeman duen kokapen labainkorra.

afektibitate eta balioen hauen parte izango bada ere. Ekintza politikoaren adiera instrumental hau nagusitzea, sentimentalaren kaltetan, bere bilakaera ere norabidetuko luke. Bere arrakasta elektoral handiena heziketa maila altuago den hiriguneetan lortu zuen bitartean, nekazari giroko eremuetan apalagoa litzateke. Pérez-Agoteren ustez, joera honek, identitate nazionalaren eraikuntzan karga emozionalak horrenbesteko pisua izan duen gurea bezalako herri batean, EEren arrakasta eskasa azalduko luke. Are gehiago, sentimendu eta arrazoiaren arteko itxurazko dikotomia honetan, bigarrenaren aldeko joera pragmatikoak EEk “gai nazionalarekiko [emandako] urruntze mailakatuaren” adierazpidea litzateke (Pérez-Agote, 1987: 136).

10.3.3.2 Nazionalismo anti-sistemikoa edo hausturazalea.

Nazionalismo anti-sistemikoaren eskaerek, sistemikoarenak ez bezala, botere politikoaren egitura bera zalantzatan jarriko dute, sistema eskaera hauei heltzeko prest egongo ez delarik. Hortaz, kontraesana gaindiezina bihurtuko da eta gatazka sisteman nagusituko da.

Gure kasuan, aldiz, anti-sistemikotasun hau *apalduta* agertuko zaigu, besteak beste, bi aldagaiengatik. Batetik, Erreformatik eratorritako sistema demokratiko berria diktadura zaharraren luzapen bat bezala ikusten bada ere, KAS Alternatiba kaleratzen den momentutik aurrera, nazionalismo anti-sistemikoaren *lehenengo* bataila nagusia ez da independentziaren inguruan kokatuko, ‘demokraziaren’ inguruko lehian baizik. Ez bere proiektua *jauzi batean* gauzatzeko batailan, baizik eta proiektu hori gauzatu ahal izateko zentroak oinarritzko eskaera demokratiko batzuei (KAS Alternatibaren puntuak) bide emateko negoziazioan. Hortaz, zentroa eta periferia demokraziaren marko diskurtsiboaren lehian kokatuko dira; posizio ezberdinak sistema politiko berriaren izaera demokratikoaren ingurukoak izango direlarik, noski. Eta bestetik, anti-sistemikotasun hau instituzioetan ematen den parte hartze erlatiboagatik ere baldintzatua egongo da. Esan bezala, nazionalismo mota honen arabera erakunde berriak erregimen zaharraren itxura aldaketa bat baino ez lirateke, horregatik nagusiki 80. hamarkadaren lehenengo urteetan hauteskunde prozesuetara aurkeztu bai baina HBko hautetsiek ez dituzte beraien eserlekuak beteko (udaletxeetan izan ezik). Jarrera honetan bilakaera bat ematen joango da, koalizio abertzalearen parte hartze instituzionalean zabalpen mailakatu bat emango delarik¹²⁹. Horrela, Ibarrak (1987: 125)

¹²⁹ 1983an KASek aurkeztutako ponentzia batean, "Profundización y agudización de las contradicciones de la vía reformista" izenburua daraman atalean instituzio berrietan ez parte hartzearen aldeko apustua egingo da, honek sistemari emango liokeen legitimazioagatik eta "instituzioetatik kanpo" borrokatzeko deia eginez ("No podemos

esango digun bezala, erakunde hauen legitimazio "erlatibo" baina "onargarria" emango da, nagusiki instituzio autonomikoen kasuan.

Gorago aipatu bezala, joera anti-sistemiko hau bere osaketa ideologiko-identitarioaren arabera definituko da. Gure kasuan klase aldarrikapen klasikoeekin lotuak agertuko dira. Beraien eskaeren onartezintasunak bere burua bazterketa sozio-politikora eramateko arriskua handituko du. Langileriak gidatutako klaseen aliantza nazionalak osatuko lukeen nortasun politikoa edo 'gu'-a, mapa sozialaren hertzetan kokatzen direnak erakartzera joko du kapital sozial gisa. 'Bestea'-k, etsaitzat hartua izango den zentroa bezala, bere itzala sektore moderatuengan luzatzeko joera erakutsiko du, sektore epel hauek zentro horrekiko kolaboratzaile bezala hartuak izango direlarik. Mugimendu anti-sistemikoaren nortasuna utopiarantz joko du; gaur ezinezkoak diruditen nahimenak etorkizun batean gauzatu ahal izateko bermatzaile gisa agertuz. Legitimazioari dagokionez, zentroarekiko erabateko aitortza faltak maila sinboliko eta politikoetan zentro alternatibo berri baten eraikuntza eskatuko du, kideak horrekiko identifikatu eta, hainbat kasutan, bera sakralizatuko dutelarik.

Zentroaren eta mugimendu anti-sistemikoaren arteko polarizazio honek talde erradikalarengan distortsio ideologiko bat sortu ohi du, bera eta Estatuaren artean existitzen den gatazka baino ez aitortzera eramango duelarik. Zentzu honetan, beste talde nazionalistak ez ikusiarenak egitera eramango du, mugimendu anti-sistemikoak baino babes sozial handiagoa izanda ere (Ibarra, 1987).

1989. urtean Aljerren Espainiako Gobernuaren ordezkarien eta ETaren artean izandako elkarrizketak "pintza politiko" honen adibiderik garbiena izan daitezke. Elkarrizketa horiek mami politikoan sakontzeko eman ez bazuten ere, alde baten "de facto"-zko zertifikaziorako balio izan zuten, erakunde armatua lehenengo mailako interlokutore politiko bezala aitortuz. Zertifikazio honek sistemari aitortzarik ematen ez zion eragile baten inkorporazioari bide eman, eta ondorioz, joko zelai politikoa zabaldu behar bazuen ere, ordura arte joko zelai horretan zentralitatea izandako eragileen garrantzia nabarmen ahultzen zuen¹³⁰. Horrela ulertu zen maila handi batean Ajuria-

consentir que el enemigo consolide sus armas básicas. Y es más fácil conseguirlo desde el exterior de las misma [instituciones] que aceptando sus reglas de juego"). Urte bereko martxoan Herri Batasunak, udaletan izan ezik, gainontzeko instituzioetako eserlekuak ez okupatzeko erabakia publiko egingo du (De la Cueva, 1988). Urte batzuk beranduago (1991), aldiz, epealdi horretan koalizioak parte hartze instituzional ezagatik emandako ondorioen balantze auto-kritikoa egingo du, beraien presentzia instituzionala areagotzeko apustua eginez; "ez era iraunkorrean, ezta normalizatuan" bada ere. Jardun instituzionalaren funtsa bere izaera "deslegitimatzailean" kokatzen jarraitzen bada ere, parte hartzea hau hurrengo urteetan egonkortzen joango zen. (http://elpais.com/diario/1991/03/08/espana/668386802_850215.html)

¹³⁰ 1989ko martxoaren 22 eta 23an Aljerren izandako elkarrizketa hauen ondotik hitzartutako akordioaren ondorengo pasarte laburra jaso nahi izan dugu zentroa eta mugimendu anti-sistemikoaren talde armatuaren arteko dualizazio

Eneako mahaia osatzen zuten alderdiengatik; hainbat kasutan alderdion jardun politikoa elkarrizketa horien balioa gutxiestea zuzendu zelarik (Egaña eta Giacomucci, 1992).

Polarizazio honen ondorioz ere, nazionalismo anti-sistematikoa sistemaren "barne etsaia" bihurtuko da. Zentroak nazionalismo anti-sistemikoa barne etsai bezala ulertzeko arrazoi zuzenak eta zeharkakoak aurkitu ditzakegu: lehenengoen artean nazionalismo anti-sistemikoaren aurka masen parte hartze politikoa handitzea egon daiteke; zeharkakoen artean, Estatu-nazioaren eliteen arteko lehiei aurre egin edota arreta soziala desnorabidetzeko, "barne etsaiaren" aurkako kontsentsu soziala nagusitu nahi izatea, ustelkeria kasuen gaineko arreta kentzeko sistematikoki egin bezala.

Nazionalismo anti-terroristan bezala, bortxak ere eragin zuzena izango du euskal nazionalismo anti-sistemikoaren identifikazioaren eraikuntzan. Erreferentziazko komunitatearekiko atxikimendua indartzea ekarriko du. Kideen arteko elkartasuna handituko du eta taldearekiko partaidetza sentipena areagotu zuen. Bortxaren agerpenak lagun eta etsaien arteko zatiketa lerroa zorrotzuko du, eszenatoki politikoa bitan sinplifikatuz eta bertakoek bietako bat aukeratu beharko dutelarik. Gurea bezalako kasuetan, nazionalismo anti-sistemikoaren bortxaren hazkundeak nazionalismo sistemikoa zentro estatalarekin bat egitera eraman zuen, aniztasuna edo bakea bezalako kategorien alde; beti ere, "gatazkaren" diskurtsoak, aldian behin, komunitate nazionalista bakarraren "gu"-aren baitan birlerrokatzeko jokia emango bazion ere.

Braud-en (1993) ustez, polarizazio honek bi aldeen ezintasunak agerian utziko ditu: batetik, mugimendu anti-sistemikoarena, ordezkaritza ohiko bideak erabiltzeko erakutsitako ezintasunagatik; eta bestetik, Estatu-nazioarena gatazka instituzionalizatzeko gaitasun faltagatik. Alde biko bortxaren erabilera honek berriro ere *ispiluen jokoaren* isla infinitua areagotu zuen. Letamendiaren arabera (1997: 232), nazionalismo anti-sistemikoek Estatuaren bortxaren erabilerari bortxarekin erantzunez Estatu mimetizatuko dute; azken hau bortxaren erabileraren monopolioaren zentroa den heinean. Erakunde armatuaren bortxaren erabilerak, berriz, Estatuaren bortxa areagotuko du, aski ezaguna zaigun espiralari bide emanaz. Bere helduaroan, Estatuaren eta bortxa baliatzen duen nazionalismoaren arteko mimesi bikoitz honek egitura duala sortzera eraman zuen.

politikoaren erakusgarri gisa; oharra ETak hartutako konpromisoei dagokio: "Se acuerda [...] la conformación [...] de una mesa complementaria de debate y diálogo, compuesta por la representación de las opciones políticas que reivindican ambas delegaciones actuantes. Sucesivamente, y a lo largo del proceso de negociación, se irán perfilando los mecanismos de intervención del resto de representaciones políticas. En todo caso sería el Pueblo Vasco quien sancionaría la anhelada solución política" (Egaña eta Giacomucci, 1992: 194). Piramide formako mailaketa honetan hiru eskala sortzen dira, non goiko erpinean ETA eta Gobernuaren ordezkariak kokatzen diren prozesu politikoaren gidari gisa; hortik aurrera, gainontzeko sektoreen (alderdi politikoak eta euskal herritarrek) inplikazioa bigarren maila edo fase baterako laga edo prozesuaren *hartzaile* gisa ulertzen da.

Batetik, kontra-Estatu forma hartuko duen antolatutako talde armatua, eta bestetik, kontra-nazio forma hartuko lukeen eta talde honi aitortza emango liokeen legitimatze komunitate zibila osatuz.

Bortxaren elementuak nortasun politikoaren eraikuntzan duen eraginaz harago, antolakuntza ikuspegitik, nazionalismo anti-sistemiko honek hartuko dituen formak ere aintzat hartu beharko dira. Gure kasuan, Ezker Abertzaleak edo Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduak (ENAM) nagusiki kapitalizatu zuen nazionalismo anti-sistemikoa ezaugarritzeko *familiaren* kategoriak hainbat indargune eskainiko dizkigu. Tarrowek (1983, 1989a) *familiaren* ideia denbora epealdi batean zehar era iraunkor batean mantenduko den protesta zikloa bezala ulertu du. Zentzu horretan, *familiaren* sorrerak eta protesta zikloarenak prozesu sozial berberari erreferentzia egingo liokete. Ikuspegi honek bat egingo luke euskal gatazka edo liskarraldi modernoaren sorrera, 50. hamarkadan ETAREN inguruan trinkotu zen ENAMen familiaren sorrerarekin uztartzerakoan. Tarrowek baliatutako kategoria honek "mugimenduen familiei" erreferentzia egingo lieke. Esan nahi baita, mugimendu sozial gehienen jatorria beste mugimenduengan eta hauek baliatutako bitartekoengan egongo da; aldi berean, bitarteko ideologiko edo organizatibo hauek ondorengo borroketarako oinarria suposatuko dutelarik. Zentzu honetan, ETAK, mugimendu *goiztiar* bezala, momentuan indarrean ziren aukera politikoen egitura behar bezala aprobetxatzen jakiteak, ondorenean bere *alboetan* sortuko diren bestelako mugimendu deribatuentzako oinarria eskainiko du. Ikuspegi honek organikoki jatorri berbera duten mugimenduen antolaketa eredia baino, prozesu sozial gatazkatsuen abiapuntuan sare moduan antolatzen diren mugimenduen arteko hartu-emanari erreferentzia egingo lioke (McAdam, 2002).

10.3.4 Mugimendu sozial berriak.

Ez dira teorilari gutxi izango mugimendu sozial berri eta zaharren batzuen eta besteen arteko bereizketa nabarmendu nahi izango dutenak. Zatiketa honen arabera 60. hamarkadako jendarte industrializatueta emandako mugimendu sozial berri hauen agerpenak *borroka gunea lan zentrotik kulturara* desplazatu zuen. Klase gatazkan oinarritutako mobilizazio prozesuen gainbeherak identitateari, balio kulturaleri edota bizimoduei lotutako gatazkek nagusitzea ekarriko zuen. Zentzu horretan, nortasunen eraikuntza lehiarako gai nagusia litzateke, gatazkaren izaera politikotik kulturalera jauzi eginez. Baina ez dira bakarrik lehiarako gaiak aldatuko direnak; gai edo helburu horiek lortzeko moduak ere. Arreta Estatua edo botere politikoa kudeatzen dituzten instituzioak

eskuratzean baino, norberak bere eguneroko bizimoduari lotutako jarreretan kokatuko da jendartea eraldatzeko bide gisa. Mugimendu sozial berriek "pribatua publiko bihurtuz" aurkituko dute ekintza kolektiborako bide nagusi berria.

Eztabaida aski ezaguna izango denez, ekarri dezagun Edwards-en (2014: 119) laburpena mugimendu sozial berri hauek lekarketen "berritasunaz":

1. Politika berriak:
 1. Afera post-materialak.
 2. Identitateen defentsa edota berrien aitortza lortu.
 3. Zeintzuk garen edota nola bizi garen ezaugarritzen dituzten definizio nagusiak lehiatu.
2. Gatazkarako espazio berriak:
 1. Lantokia baino eguneroko aferak eta gai kulturalak.
 2. Alternatiba kulturalen sorreraren bilaketa; balore, identitate edota bizimodu berriak.
3. Osaketa berria:
 1. Klaseak zeharkatu eta aurretik bazterrean zeuden taldeak (gazteak, emakumeak, ...) langile mugimenduarekin batera.
 2. Klase gatazkan oinarritzea baino klase ertain erradikalizatuengatik gidatuak (ikasketa maila erdi-altuak).
4. Antolaketa modu berriak:
 1. Deszentralizatuak, parte hartzaileak eta sare demokratikoak ohiko mugimendu sozialen antolaketa eredu burokratikoak baino.
 2. Eguneroko bizimoduan 'murgilduta', publikoki ikusgai baino.

Gatazka-gai zentrala lan mundutik esparru kulturalera jauzi egiten duen trantsizio honetan, mugimendu sozialak gatazka-gai berri bat azalarazteaz gain, sistemaren eta aldarrikatutako gaiaren arteko bateragarritasunaren mugarrietan haustura bat suposatuko dute (Melucci, 1996: 28). Baina sistemak barneratu ezin izango duen gatazka gune berria ez du zertan sistema kapitalista zaharra ardazten zuen "kapitala vs. lana" dikotomia izango; mugimendu sozialen azterlariak jendartea zeharkatuko duen gatazka nagusi honen gai zentrala zein denaren inguruan ikuspegi ezberdinak izango dituzte.


Mugimendu berri eta zaharren arteko zatiketa zorrotz honen aurkako iritziak ere entzungo ditugu. Calhounen (1995) arabera, esaterako, garai bateko sindikatu *zaharrek* egungo mugimendu berriek dituzten antzeko antolaketa egiturak eta arreta-gaiak izango dituzte. Sindikatu garaikideen izaerara etorrira, Edwardsek (2014: 129) hauetako askok zabaldu dituzten mobilizazio faseek gizarte mugimendu berrien (GMB) aferekin dituzten puntu komunak azpimarratuko ditu. Kointzidentzia hauek sindikatuek lan zentrotik kalera egindako desplazamenduaren ondorio dira. Bilakaera honek sindikatuak, langileaz haragoko sektoreak (gazteak, langabetuak, etorkinak, ...) mobilizatu eta ordezkatu nahi izatera eraman ditu, afera material eta kulturalen arteko muga lausotuz (Edwards, 2007); edota hainbat autoreen arabera, bigarrenengoak lehenengoaren parte bezala irudikatuz (Honnet, 1981).

Zubiagak (2012) gatazka material eta kulturalen arteko banaketa hau eraldatuko duen eredu bat planteatuko digu. Cohen eta Aratoren (2000) kategorietan oinarrituz mugimendu hauen hiru paradigma aurkeztuko dizkigu: *botere* politikoa lehiatzera joko lukeena; sistemaren baitako *eragina* bilakatuko lukeena; eta bere jarduna *identitate* kolektiboaren defentsan kokatzen duena. Eredu teorikoez ari gara, noski; praktikan mugimendu ezberdinek hiru paradigmatatik edango dutelarik. Are gehiago, mugimenduaren arrakasta unean une hiruetako zeini indarra ematean egongo da.

Gurean mugimendu sozialek, zaharrek zein berriek, izan duten pisua nabarmena izango da (Ajangiz eta Barcena, 2001), hauek nazionalismo anti-sistemikoarekin izandako harremana konplexua izanik. Joera anti-sistemikoa erakutsi duen nazionalismoak mugimendu sozial berrien agenda berera inkorporatu nahi izango du baina "bigarren graduko diskurtso" bat erantsiz (Letamendia, 1997: 294): horrela, ekologismoa Ama Lurraren defentsa bilakatuko da, pazifismoa edota antimilitarismoa Estatuko indar errepresiboen aurkako borroka edota feminismoa Estatu patriarkalaren salaketa. Honek marko ezberdinak lerrokatzeko mekanismoak martxan jartzea eskatuko du: mugimenduak bere markoak bestelako sektoreetara hedatuz edota mugimendu ezberdinen arteko markoen arteko zubigintza eginez. Laclairen diskurtso populistaren logika ekibalentziala artikulatzea nortasun hegemonia berri bat eraiki nahi duen nazionalismoaren erronka izango da; hainbat kasutan, nazionalismo anti-sistemikoaren eta mugimendu sozial berrien arteko harreman tentsioduna kudeatu behar bada ere. Tentsio honen funtsa mugimendu sozial berriaren autonomia eta nazionalismo anti-sistemikoak Estatuarekin daraman konfrontazioan frontea zabaldu nahi izatetik eratorriko da, egoera bakoitzean tentsioa nola ebazten den kasuan kasu aztertu behar delarik.

Mugimendu sozialen eta ezarritako sistemaren aurkako nazionalismoaren arteko alboko harremana, zentro eta periferiaren arteko gatazkaren gordintasunean lekututa, zentroa mugimendu sozialak kriminalizatzea eramango du. Bloke instituzionala eta mugimendu sozial erradikalizatua kontrajartzean, lehenengoak bigarregoa periferiako talde armatuarekin identifikatzea joko du, hauek antzeko eran estigmatizatu nahian. Indar instituzionalek aldarrikatzen duten "aniztasuna" eta "kontsentsua" mugimendu sozialen ekimenekin kontrajarri nahi izango dira, nazionalismo anti-sistemikoaren bortxarekin luketen harremana aitzakia hartuta. Sistemak ekimen sozialaz egiten duen deszertifikazio prozesuaren aurrean geundeke.

Prozesu honek eragin bikoitza izango du: nortasun politiko ezberdinak polarizatu eta tartean gelditzen den nazionalismo sistemiko epela zentroarekin lerrokatzea behartzeaz gain, sistemak baztertuko dituen sektore sozialak zabalduko ditu, sektore sozial hauek nazionalismo anti-sistemikoaren legitimazio komunitate bezala kontsideratuz.



10.2 irudia: identifikazio politiko nagusien irudia Trantsizio osteko Autonomien Estatutuan.

11. KAPITULUA: AURREKARI ZUZENAK: DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA 90. HAMARKADAREN LEHENENGO ERDIALDEAN

Kapitulu honetan gure erreferentziazko epealdiaren (1995-2000) aurrekari zuzenak aztertuko ditugu. Horretarako 90. hamarkadaren lehenengo erdialdearen *argazki* bat ateratzen saiatuko gara. Argazki hori ekintza kolektiboaren azterketarako agenda klasikoaren atalei jarraituta aterako dugu. Jasoko dugun irudia horren estatikoa ez izateko, 1990tik 1994ra bitarte jazotako gertakarien azterketarako McAdam, Tarrow eta Tilly-ren (2005) mekanismoak eta prozesuak txertatuko ditugularik.

11.1. Aukera eta mehatxuen kudeaketa

Aukera Politikoen Egitura *aldagai egonkor* eta *aldakorrez* osatutako baldintza multzo bezala izendatu dugu (Diani & Della Porta, 2011). Lehenengoan artean *erakundeen egitura* eta *kultura politikoa* bezalako aldagaiak kokatzen ditugu; bigarrenengan *aliantza* eta *aurkaritza egiturak*.

Erakundeen egiturari dagokionez, Estatuaren irekitasuna eta sendotasuna baloratuko da ekintza kolektiboaren baldintzatzaile bezala. Orain arte ikusitakoak Trantsizioak deszentralizazio maila bat onartuko duen autonomien Estatu bat erakusten digu, non zentro eta periferiaren arteko lehiak norabidetuko duen deszentralizazio horren bilakaeran. Tilly-ren (2010a) kategoriak baliatuta, *gaitasun altuko erregimen demokratiko* 'hasiberri' batekin aurkituko garela esan dezakegu. Tilly-k berak erregimen mota hauen ohiko ibilbideari erreparatuta dioen bezala, gaitasun estatala demokratizazioa eman baino lehen lortuko da. Gaitasun estatal honek Estatuan eta Euskal Herrian izan zuen garapen ezberdinak demokratizazio prozesua bera baldintzatuko duelarik.

Edozein kasutan, mugiezinak diren estuktura politikoez baino, aukera politikoen *aspektu aldakorrez* hitz egitea egokiagoa litzateke; egoera zehatzetan ematen diren berezitasunengan arreta jartzen dutenak, hain zuzen ere (Edwards, 2014: 88). Aukera Politikoen Egituraren ikuspegi kritiko

honek kategoria honi orokorkeria arriskua kenduko badio ere, kasuan kasu aztertu behar denez, ikerketa sozialerako bitarteko bezala lausoagoa egingo du. Zentzu honetan, Tarrowek (1997) berak Aukera Politikoen Egituraz baino, *aukera politikoez* eta beraien 'kudeaketaz' hitz egingo digu.

Kultura politikoaz hitz egiteko orduan, berriz, ekintza kolektiboaren arauak baldintzatzen dituzten marko kultural edo mundu ikuskerez ariko gara. Gurean kultura hauek aurreko atalean azaldutako zentro-periferia gatazkagatik eta horren baitan eraikitako identifikazio politiko nagusien arabera osatuko dira nagusiki: batetik, sistemaren erdigunea osatu eta botere politikoaren banaketaren arduraduna den *nazionalismo zentralista*; bigarrenik, zentroarekiko leialtasuna erakutsi baina autogobernuan sakondu nahi izango duen *nazionalismo sistemikoa* (baita bere aldaera izan daitekeen erregionalismoa ere); eta azkenik, logika berri bat ezarri nahi izango duen *nazionalismo anti-sistemiko* bezala izendatu dezakeguna.

Gauzak horrela, aldagai egonkorrak osatzen dituzten erakundeen egiturak eta kultura politikoak aurreko atalean sakonago landu ditugun Trantsiziotik heredatutako erregimenaren izaera eta identifikazio politiko nagusiekin aztertutaz emango ditugu. Jarraian aldagai aldakorren jarriko dugu arreta. Aldagai *aldakorren* artean *aliantza* eta *aurkaritza egiturak* ditugu. Lehenengoan, mugimenduaren lagunak bilduko lirateke; bigarrenengan, aurkariak. 90. hamarkadaren lehenengo erdialdean gurean gauzatu ziren aliantza eta aurkaritza egiturek protesta-mugimenduak aukera eta mehatxuak nola antzematen zituzten baldintzatu zuten eta ondorioz bere ekintza kolektiboa. Horregatik aukera eta mehatxuen egitura hau baldintzatu zuten bi aldagai nagusien gainean jarriko dugu arreta. Batetik, Ajuria Eneako Itunaren garapena. Gure ustez bertan bildutako alderdi politikoek finkatu zuten garai horretako markogintza hegemonikoa eta horri lotutako laguntasun eta etsaitasun aliantzak. Horregatik arreta berezia emango diegu horren inguruan egituratutako harreman sare eta bere bilakaerari. Horrekin batera, bigarren atal batean, eremu sozio-ekonomikoan gauzatutako aliantza eta aurkaritza harremanei erreparatuko diegu; zehazkiago, horren baitan sindikatu ezberdinen arteko harremanari. Epealdi horretan eman zen krisialdi ekonomiko eta industrialak egoera sozio-politikoan izan zuen eragin nabarmenaz harago, eragile sozial hauen arteko harremanek eragin zuzena izan zutelako hamarkadaren bigarren erdialdean euskal protestaldiak izan zuen garapenean.

Ajuria Eneako Itunaren garapenari dagokionez, bi fase bereiziko ditugu bere bilakaeran. Lehenengoa bere sinaduratik 1995era bitarte doana; ETAren bortxaren aurkako sozializazio faseari erantzunio lioke. Bigarren fasea urte horretatik 1997ra bitarte doana; Itunaren ageriko gainbehera

erakusten duena. Bereizketa hau ez da hutsala. 1995an Gobernu autonomikoko alderdiek (PNV, PSE-EE eta EA) sinatutako gobernu akordioaren edukiei erantzuten dio. Izan ere, bertan terrorismoaren arazoarekin bukatzeko estrategia “bigarren fase batean” murgiltzeko bultzadari erreferentzia egiten zitzaion. Ajuria Eneako Itunean bertan jasotzen den ETArekin izan beharreko amaiera negoziatuaren inguruko zehaztapenaren beharraz ari ziren. Atal honetan lehenengo faseari helduko diogu, Itunaren bukaerako urteen azterketa hurrengo atalerako utziz. Lehenengo fase honen baitan ere egoera ezberdinak antzemango ditugu bertako alderdien eta bertatik kanpo gelditutako sektoreen arteko aliantza eta aurkaritza harremanei dagokionez. Horiek aztertzen saiatuko gara jarraian.

11.1.1. Ajuria Eneako Ituna.

11.1.1.1. Sorreraren testuingurua.

80. hamarkadaren erdialdean egituratze instituzionala oraindik erabat garatu gabe zegoen, bai Estatuan baita Euskal Herrian ere. 1982tik aurrera PSOEk lortutako gehiengo absolutuak bide hori jorratzeko askatasun handia eman zion Felipe Gonzalezen Gobernuari, Espainia Europako Komunitate Ekonomikoko kide bezala homologatzea helburu izanik. Euskal Erkidego Autonomoan, berriz, transferitutako eskumenak martxan jartzea eta transferitu gabe zeuden eskumenen aldarrikapenak zentratu zuten Garaikoetxeak buru zuen EAJren lehenengo gobernuaren instituzionalizazio prozesua. Lehenengo bi hauteskunde autonomikoetan EAJk lortutako gehiengoek horren lidergo bakarra bere eskuetan utzi zuten baina 1985an bere baitan gauzatutako zatiketak lidergo hori partekatu beharko zuela erakusten hasi zen. Hurrengo urtean gauzatutako hauteskundeetan PSOE-PSE lehenengo indar bezala agertu bazen ere, Lehendakaritza EAJren esku gelditu zen, alderdi sozialista gobernu funtzioetara gehitu zelarik. Jelkideen ikuspegitik aliantza sistema honek, erkidegoaren gobernagarritasunari erantzuteaz gain, Gernikako Estatutuak ezarritako autogobernu maila asebetetzeko helburuari ere erantzuten zion; momentu horretan, Estatu mailan zuen gehiengo zabalak PSOE prozesu horretarako bidelagun ezin hobea bihurtzen baitzuen. Bi alderdi hauek lideratu behar zituzten bi instituzioen arteko harreman intergubernamentalak eredu deszentralizatuetan nagusitu ohi den “*leialtasun konpartituen*” logika anitzari erantzuteko asmoa zuen (Letamendia, 2001).

Instituzionalizazio prozesu hau aurrera eramateko funtsezkoa zen *arerio autonomoak kontrol pean* mantentzearen mekanismoak hainbat gabezi erakusten zituen. Urte horietan Herri Batasunaren ordezkari maila %15 a inguruan zegoen eta bozka kopuruari dagokionez goranzko joeran kokatu zen 90. hamarkadaren hasierara arte. Trantsizioaren urteetako heriotza kopuruetara iritsi ez bazen ere, ETAk gogor jo zuen 80. hamarkada osoan zehar; batez ere bigarren erdialdean zehar. Ez zuen ematen ETaren jardun armatuak ENAMi babes sozial gehiegirik kentzen zionik; ez behintzat hauteskunde emaitzei erreparatuta. Borroka armatuak zentralitate nabarmena hartzen zuen estrategia honetan, aldiz, *errutinizazioaren* arriskua ageri zen. Hamarkada horren bigarren erdialderako, Espainiako iritzi publikoa Estatuko Segurtasun Indarren tantakako heriotzen aurrean intsentsibilizatua zegoen (Casanova, 2008). Hortaz, borroka armatuak izaera ezegonkortzaile bat eta Estatuko Gobernu negoziatziora eramateko tresna eraginkorra izan nahi bazuen, bera Euskal Herritik kanpo indartu eta kalte handiagoak eragingo zituen moldeekin baliatu beharko zela ulertu zuen ETAk.

80. hamarkadan zehar *aliantza eta aurkaritzen egitura* Trantsizioarekin abiatutako instituzionalizazio prozesuaren onargarritasunaren inguruan ardazten zen; bera aintzat hartu eta aintzat hartzen ez zituztenen artean. Baina bi hauek ez zituzten bloke monolitikoak osatzen. Izan ere, berrogei urteetako diktadura batean ehundutako aliantza antifrankistek sortutako nortasun politikoak kasu askotan ez baitira muga horren arabera identifikatuko; are gehiago, Trantsizioaren lehenengo urteetan mugimendu politiko ezberdinen artean eman zen norbanako edo talde sozialen transbasea etengabekoa izan zenean. Hala ere aurreko atalean ikusi dugun bezala, urteak aurrera egin ahala, ETA pm-ren disoluzioarekin eta Euskadi Ezkerrak Estatutuaren alde eginda, finkatutako sistemaren aurkako mugimenduaren osaketa argitzen joan zen, ENAM erreferente nagusia bilakatu zelarik.

Instituzionalizazioaren alde egin zutenen artean, berriz, panorama nahasiagoa izan zen. Izan ere, instituzionalizazio hori ulertzeko moduak eta berari egotzitako helburuak aski ezberdinak izan baitziren. Alianza Popularretik hasita, 80. hamarkadaren bigarren erdialdera arte ez zuena autonomiaren alde egingo; eskuduntzen transferentzia prozesuaren inguruko ika-mikak ezaugarritu duen EAJ eta PSOE-PSEren arteko harremanetatik pasata; Euskadi Ezkerrak hanka bat sistemaren barruan eta bestea kanpoan kokatu nahi izatearen epe laburreko jokalditik igaroz; edota EAJren baitan lurraldeen barne antolaketaren inguruan eman ziren ulermen ezberdinetara iritsita. Zentzu horretan, lehia antagoniko nagusia sistemaren onargarritasunaren inguruan ezaugarritua bazen ere

(posfundazionalistek *politikoa* deituko luketena), eguneroko eztabaida politikoaren melodia polifonikoagoa eta aliantza sistema anitzagoa zela (*politika*) esan dezakegu.

Lehia hegemonikoetan ohikoa izaten den bezala, muga antagonikoaren alde batean eta bestean kokatzen diren eragile nagusien arteko hartu-eman urria zen, baina ez ezereza. Gobernu espainiar ezberdinek ez zuten ETA eta ENAMekin komunikazio haria galdu 80. hamarkada osoan zehar (Giacopuzzi & Egaña, 1992). Hartu-eman hauek, ordea, bestea norberaren posizioetara hurbiltzeko izan zezakeen borondatearen neurgailua izatetik ez ziren pasa¹³¹. Horrela, gobernuaren aldetik izendatutako ordezkari ezberdinek ETAk armak entregatu eta horren ondorioz presoak 'birgizarteratzeko' neurriak aztertzeko asmoa ote zuten ikuskatzeko baliatu ziren; ETAREN aldetik, berriz, KAS Alternatibaren jasotako puntuak inplementatzeko borondatea ote zegoen arakatzeko saiakera baino ez ziren izan.

Hamarkadaren bukaerak Espainia demokrazia homologatu bezala egiaztatu behar zuten hainbat gertaera gerturaten hasiak ziren eta Gobernuak etxeko lanak egin behar zituen. 1985an Europar Komunitate Europarraren parte bihurtzearen ondorioz hartutako konpromisoak bururaino eramateko urte erabakigarriak ziren. Konbergentzia ekonomikoa gauzatzeko beharrezkoak ziren neurri liberalizatzaile ezberdinek, ordea, ezinegon soziala areagotu zuten. 1988ko abenduaren 14an CCOO eta UGTk estatu mailako greba orokorra deitu zuten, Trantsiziotik kontzertaziorako erakutsitako jarrera hautsiz. 1989ko urrian burututako Hauteskunde Orokorrek, berriz, ez zioten aparteko fakturarik pasa Gonzalezen gobernuari. Estatuan 1992 urtearen inguruan antolatutako nazioarteko ekimen ezberdinak sinbolikoki Espainia diktaduraren iraganaren itzal luzean atzean utzi eta egonkortutako demokrazia moderno bezala agertzeko hartu beharreko trena bezala ikusten ziren. Espainiaren Aukera Politikoen Egitura hau ez zen oharkabea pasa ETARENtzat, 80. hamarkadaren bigarren erdialdean aktibatutako ofentsiba militarren bidez bere aldeko egitura bihurtu nahi izan zuena. Gobernuak ezin zuen munduaren aurrean Trantsizioarekin abiatutako demokratizazio prozesua bururaino eramateko gai zela zalantzetan jarri zezakeen azken hari muturra josi gabe utzi; eta ENAMek ezin zuen demokratizazio prozesu hori negoziazioaren bitartez bururaino eramateko bigarren saiakerari bizkar eman. Horrela, 1985tik aurrera ETA eta Gobernuaren arteko komunikazio kanala areagotu zen.

¹³¹ 'Antton' Etxebesteri egindako elkarrizketan hartu-eman hauen inguruko hiru fase ezberdindu dituzte. Lehenengoa, 80. hamarkadan zehar luzatzen den harreman fase luzea; batez ere kontaktu polizialengatik ezaugarritua egon zena, erakunde armatuari "bere porrota helarazteko". Hiperkorreko atentatuak honi bukaera eman zion. Bigarrenik, "aldean aitortzaren" fasea, Aljerren emandako elkarrizketek norabidetu zutena. Eta hirugarrenik, negoziazio marko honen haustura eta gero, ETAREN ordezkarien deportazioarekin bat, Santo Domingon lekutu zen elkarrizketa markoak ezaugarritu zuena.

Testuinguru horretan hurrengo urteetako bilakaera politikoa norabidetuko zituzten bi gertaerak emango ziren: Aljerreko elkarrizketak eta Ajuria Eneako Ituna. Beraien aurrekari zuzena 1987ko azaroaren 5ean sinatutako 'Terrorismoaren gaineko Madrileko Akordioa' edo Madrileko Ituna zen. Aipatu bezala, ETAREN jardun armatuaren urte gogorrak ziren¹³². Estatuaren jardun errepresiboak ere gora egin zuen¹³³. *Eskala aldaketa* eta *errepresioaren zabalpenaren* arteko lehia honen helburua hurbil antzematen ziren negoziazioen aurrean, parean zegoenaren higadura ahalik eta handiena eta norberaren posizio ahalik eta sendoena irudikatzea zen; ekintza hauen eragin nabarmenena horrelako negoziazioetan beharrezkoa zen konfiantza giroa ahultzea izaten bazen ere.

Baina alde batean eta bestean benetako astindua sortu zuen ekintzarik izan bazen hori 1987ko ekainaren 19an Bartzelonan gauzatutako izan zen. Egun horretan ETAK Bartzelonako Hipercor supermerkatuan potentzia handiko lehegailua zartarazi zuen, 21 pertsona erailez. Alabaina, ordurako ETA eta PSOEN Gobernuaren arteko hartu-emanak agerikoak ziren¹³⁴. Egoera konprometitu honetan PSOEN, Madrilgo Itunaren bitartez, gerora Aljerreko elkarrizketetan islatuko ziren harreman hauei heltzeko legitimazioa eta babesa bilatu zuelarik.

Hain zuzen ere, elkarrizketa hauen oihartzun publikoa areagotzen ari zenean osatu zen Ajuria Eneako Ituna. 1988ko urtarrilaren 12an sinatu zen¹³⁵, arrapaladan eman ziren gertaera politikoei hasiera emanez. Hamasei egun beranduago, ETAK bere historian lehenengo aldiz baldintzatutako su-etenerako eskaintza publikoa egin zuen. Urrian erakunde armatuak eskaintza hau berritu zuen, baldin eta Gobernuak hartu-emanak berreskuratzen bazituen “elkarrizketarako benetako borondatearekin”. Ordurako Aljerren zuzeneko hartu-emanak ematen hasiak ziren. Gobernuak erakunde armatuaren eskaintza aintzat hartu eta bitartekaritza aljeriar baten bidez bi asteko

¹³² 1985eko ekaina eta 1986ko uztaila bitartean bakarrik Madrilen Estatuko Segurtasun Indarren 24 kide hil zituen. 1986ko uda horretan inoizko kanpaina militar zabalena egin zuen Mediterraneoan kostan berrogeita hamar ekintza baino gehiago burutuz.

¹³³ Urte horietan oraindik GALen ekintzak indarrean zeuden. Baina legalitatetik haragoko jardun terroristaz gain, Estatuak jardun errepresiboa areagotu zuten: 1986ko azaroan EEBBETako inteligentzia zerbitzuekin elkarlanean, misil batzuk balizatzuz, Sokoako polizi operazioa ezaguna burutu zen ETAREN arma biltegi garrantzitsua eta finantza aparatuaren atal nagusi batzuk indargabetuz; 1987ko urtarrilean Madril Komandoa atxilotu zuten; Herrera de La Mancha-ko espetxean bildutako hainbat preso sakabanatzen hasi ziren; Espainiako eta Frantziako Gobernuaren arteko elkarlan antiterrorista hazten zihoan, horren erakusle urte horretako irailean erakundearen zuzendaritzan kokatzen zituzten bi kide (Santiago Arrospide eta Iñaki Pikabea) atxilotu eta euren atzemandako informazioaren ondorioz 1987ko urriaren 1 eta 9 a bitarte Ipar Euskal Herrian 210 pertsonen atxiloteta ekarri zuen razzia poliziala zabaldu.

¹³⁴ PSOEN Gobernuaren eta ETAREN adar militarreko ordezkarien arteko hartu-emanak iraunkorrak izan ziren lehenengoak 1982an boterera iritsi zirenetik. Egaña eta Giacomucci-ren (1992: 144) arabera, ETAREN aldetik Txomin Iturbek islatuko du komunikazio hari hau inor baino hobeto, 1987ko otsailaren 27an bere heriotzak hari hau etengo duelarik.

¹³⁵ 1988ko urriaren 7an Iruñakoaren sinadurak hiruko itun hau itxi zuen.

aldebakarreko su-etenaren truke ordura arte izandako hartu-emanak baino “maila altuagoa izango lituzketen bilerak” egiteko konpromisoa hartu zuen (Egaña eta Giacopucci, 1992: 156). 1989ko urtarrilaren 9an ETAREN adar militarrek (ordurako existitzen zen bakarra) lehenengo aldiz, “bere borondate onaren keinu gisa”, hamabost eguneko aldebakarreko su-etena publikoki martxan jarri zuen. Urtarrilaren 23an (epea agortzen zenean) Gobernuarekin izandako hartu-emanen ondorioz, aldebiko su-eten bat adostu zen, urte horretako martxoaren 26ko Aberri Eguna bitarte luzatuko zena. Su-eten berri hau aurkeztu baino egun pare bat lehenago, Herri Batasunak deituta milaka pertsona bildu ziren Bilbon “Negoziazioaz bakera goaz” lemapean. Hilabete t’ erdi beranduago, martxoaren 18an, Ajuria Eneako Itunaren sinatzaileen lehen ekimen publikoa burutu zen “Paz ahora y para siempre” lemapean beste manifestazio bat deituz, ETARI su-etena era amaigabe batean luzatu zezala eskatuz. Martxoaren 22 eta 23an Aljerren burututako elkarrizketa saio maratoniaren ondorioz akordio berri bat *in extremis* lortu zen. Elkarrizketen hurrengo faseari heltzeko oinarriak adosten ziren; baita bi aldeek publiko egingo zituzten adierazpenak ere. ETAREN hitzetan, Gobernuak publiko egin beharreko testua azken momentuan aldatu zuen. Hortik aurrerako mesfidantzak eta borondate faltak nahikoak izan ziren liskarraldiari berrekiteko.

Arzalluzek berak planteatu bezala, Ajuria Eneako Ituna abiatzear ziren elkarrizketen aurrean “sozialistek Felipe Gonzalezen Gobernu babesteko koiuntura zehatzari erantzuteko jaio zen” (2005: 302). Aldiz, horrelako *sare* moduko egituren sorrera soilik sistemaren legitimazioarentzat maila goreneko desafioa suposatuko dezaketen gertakarien aurrean eman ohi da. Hortaz, uneko gertakari bati erantzuteko egituraz harago, Ituna hurrengo urteetako *aliantza/aurkaritza egiturak* baldintzatu eta errealitate politikoaren interpretaziorako marko edo *frame* nagusia ezartzeko tresna bilakatu zen.

Zentzu honetan, interesgarria da Letamendiak (2001) Ajuria Eneako Itunaren *sarea* ezaugarritzerakoan planteatutako hausnarketa. Bere ustez, honen baitan izaera bikoitza atzeman ahal izango dugu. Batetik, alderdien osaketatik (Lehendakariaren figura nagusia buru bezala) eratorriko litzatekeen izaera instituzionalaren *network*-aren eredua izango genuke (Hay, 1998). Baina bestetik, lan honetan baliatzen ari garen ekintza kolektiboaren azterketarako *kontra-mugimenduaren* izaerarekin ere aurkituko ginateke. *Network* eredu honek aldaera bikoitza izango luke, *politics network* edota *policy network* bezala ulertuta. Lehenengoak, politika publikoen eremuan gobernuen ekintza konkretuei erreferentzia egingo die; hau da, gobernuaren eguneroko jardunari lotuta, politika publikoetan hartzen diren erabakiei. Bigarrenak, berriz, kontsentsuaren eraikuntzari eta boterearen legitimazioarekin lotuta legoke; jendartearen norabidetzea, joko arau

orokorrak, botere banaketa eta erakundeen arteko goi mailako harremanak barnebilduko lituzke. Hitz bitan, ‘Politika Handiaz’ ariko ginатеke. Itunak nagusiki bigarren funtzio hau bete zuen, sistemaren legitimazioari lotuta; lehenengoa gobernuen eginkizuna bazen ere (Madrid eta Lakua), politika antiterroristaren jardun instituzionala legitimatzeko funtzioa bete bazuen ere. Baina aldi berean Itunaren izaera lehiatsuak mugimendu sozialen ekintza kolektiboa aztertzeke planteatu ditugun bitarteko teorikoak ere aplikagarriak zaizkio, hegemoniaren aldeko liskar baten parteetako bat den heinean. Hortik Itunari egotzi ahal diogun *kontra-mugimendu* izaera hori ere.


11.1.1.2 Batasunaren lehenengo urteak.

Ajuria Eneako Ituna interes eta lehentasun ezberdinen arteko oreka bilatu zuen bilgunea izan zen bere sorreratik. PSOE-PSE eta EAJren lehentasunak nabarmendu ziren bertako eragile nagusi bezala. PSOERI dagokionez, aipatu ditugun egoera sozio-ekonomikoak, 92aren inguruko nazioarteko ekitaldiek eta ETAREN jardunak marrazten zuten Aukera eta Mehatxu Politikoen Egitura. PSOEREN Gobernuak azken aldagai honi negoziazioaren bidez bukaera ematen saiatzeko erabakia hartu zuen. Negoziazio bide hori, ordea, ziurgabetasunez beterik agertzen zen. ETAREKIKO mesfidantzak agerikoak ziren eta balizko porrot bat oposizio ‘popularraren’ aldetik tresna oso tentagarria izan zitekeen Gobernu desegonkortzeko. Madrilako Itunaren¹³⁶ bitartez arrisku hori minimizatzen saiatu zen. Baina Euskal Herriari begira, elkarrizketen balizko porrotaren erantzukizunaren kontaketa jendarteak Gobernuaren kontakizunarekin bat ez egitearen arriskua nabarmena zen. Honek euskal jendartearen zati handi batek sektore anti-sistemikoaren bertsio eta posizioarekin bat egitea ekarri zezakeelarik. Egoera hori ez zitzaion PSOERI interesatzen, baina ezta EAJRI ere. Azken honen egoera ez zen batere eroso: eszizio batetik zetorren; 1986ko azaroaren bukaeran ospatutako hauteskunde autonomikoetan bigarren indarra izan zen PSOE-PSEREN atzetik (azken honek Lehendakaritza lagako badio ere); ordura arteko kolore bakarreko gobernu jeltkideetan ez bezala kide berri bat inkorporatu beharko zuen (PSOE-PSE bera); eta eskumenen transferentzia prozesua ez atzera ez aurrera zegoen, horrek sortu zezakeen frustrazioarekin eta ondorioz babes sozial galerarekin bestelako indar abertzalaren baten alde. Gainera Espainiako Gobernu eta ETAREN arteko balizko elkarrizketa aterabide zaileko ‘pintza’ batean bihurtu zitekeen EAJrentzat,

¹³⁶ Anekdotak bezala aipatu dezagun Adolfo Suarez-ek Xabier Arzalluzi esandakoak Madrilako Itunaren prestaketa lanetan: “Esto no es lo que podríamos llamar convencionalmente un “Todos contra ETA”, sino un intento de ponerle un colchón al Gobierno” (Arzalluz, 2002: 292-293).

non ezker abertzalea eta PSOE bera indartuta atera zitezkeen. Aukera eta mehatxu politikoen eszenario honetan PSOE-PSE eta EAJren arteko sinbiosia ekidinezina zirudien.

Zentzu honetan, EAJ eta PSOEn arteko elkarlana bi eztabaidei lotuta eman zela esan dezakegu. Batetik, sistemaren *legitimazioari* lotuta. Izan ere, ENAMen existentzia bera 1978ko erregimenaren legitimitatea kolokan jartzen zuen azken aldagaitzat hartu daiteke; Aljerreko elkarrizketek sistema bera eguneratzeko ireki zezaketen espektatiben aurrean, ezker abertzalea ezik, gainontzeko eragile politikoen artean sistemaren legitimitatearen gaineko kontsentsua ezinbestekotzat ulertu zelarik. Hortaz, Itunak berak sistemaren legitimazio funtzio garrantzitsua bete zuen. Eta bestetik, sistemaren *instituzionalizaziori* begira. Izan ere, Ajuria Eneako Itunak, hasiera batean behintzat, eskuduntzen transferentzia gauzatu eta autogobernuan aurrera egiteko bidea ere eskainiko baitu. Bi aldagai hauek (legitimazioa eta instituzionalizazioa) elkar elikatuko dute: zentroan nagusi den alderdiak (PSOE) autogobernuan eta instituzionalizazioan sakontzeko bidea eskaintzen zuen bitartean (eskuduntzen transferentzia), periferian nagusi den alderdiak (EAJ) indarrean zen sistemari legitimazioa eskainiko zion bere leialtasunaren bitartez (Konstituzioa/Estatutua).



11.1 irudia: Legitimazioa eta instituzionalizazioaren arteko harremanaren irudia.

Baina beste alderdi sinatzaileen egoera ere aintzat hartu behar da. EE eta AP bere 'konbertsio' prozesuetan murgilduta zeuden. Lehenengoa, urte batzuk beranduago PSOE-PSEekin birfundatzera eramango zuena, 1988ko abenduan hamar urte lehenago errefusatutako Konstituzioa onartuz. Bigarrena, aurretik mesfidantzaz ikusitako autonomia onartuta, 1990an Partido Popularrean bihurtu zuena, erkidego autonomoan Julen Guimon-en eskutik. Ez ziren tentsiorik gabeko prozesuak izan baina bakoitzaren ondorengo garapena nekez ulertu daiteke Ajuria Eneako Itunaren sinaduratik kanpo.

EAREN egoerari dagokionez egoera ez zen askoz erosoagoa izan. EAK hasieratik autogobernuaren aferak bestelako tarte esanguratsuago bat izaten ahalegindu zen. Horren erakusgarri Mahaiaren sortze-agirian bertan Ertzaintzaren eskumen eskusiboen inguruan Inaxio Oliverik txertatutako klausula edota lehenengo urteurrenaren deklarazioa sinatu ez izana autogobernu batzordean egondako geldialdia zela eta. Hala ere, Carlos Garaikoetxeak (2002: 287-288) berak bere memoria politikoetan aitortu bezala kanpo gelditzearen ondorioz jasan beharko zuketena presio politiko-mediaticoa eramanezina egingo zitzaiekeen. Hortaz, EAREN presentzia Mahaiaren bertatik atera zezakeenagatik baino (EAJk patrimonializatutako baitzuen autogobernuari begira eman zitezkeen urratsak) kanpo gelditzeak eragiten ahal zizkion kalteak ekiditeak arrazoitzen zuen.

Interes eta lehentasunen oreka honetan, EAJk eta PSOE buru, 1988ko urtarrilaren 12an Ajuria Eneako Ituna sinatu zen. Madril eta Gasteiz, edota PSOE eta EAJren arteko interesen arteko sinergien erakusgarri, egun batzuk beranduago, otsailaren 13an, Jose Luis Corcuera, Espainiako Barne Ministroa, eta Rafael Vera, Estatuko Segurtasun Idazkaria, EAJren ordezkariak batekin Madrilen Ertzaintzaren behin betiko zabalpenerako akordioa sinatu zuten. Aurreko urteetan gai oso gatazkatsua izan zen baina itun antiterroristen inguruan sortutako sintoniak gaiak behar zuen azken bultzada eman zion.

11.1.1.2.1 Ituna eta Aljerreko elkarrizketak.

Sinaduraren hurrengo hilabeteetan Ajuria Eneako Mahaiak ez zuen dinamika propiorik garatu. Aljerreko elkarrizketen prestaketa lanak eta PSOEren Gobernua eta ETAREN arteko 'higatze' ekintzek arreta guztia hartu zuten. Urte horretako otsailaren 24an ETAK Emiliano Revilla bahitu zuen eta bere bahiketarako iraun zituen zortzi hilabeteetan zehar gogor kolpatu zuen hamahiru pertsona erailez. Gobernua bere aldetik, jarduera diplomatiko bizia zabaldu zuen Aljerren biltzen ari zen ETAREN bitartekaritza jazartzeko (Egaña & Giacomucci, 1992). Baina Itunaren lehenengo urteurreneko agiriak eta Aljerreko elkarrizketen bukaerak hurrengo urteetako bilakaera politikoaren elementu erabakigarriak izan ziren.

Itunaren lehenengo urteurrenaren denboran bat egin zuen lau egun lehenago ETAK aldebakarrez elkarrizketak errazteko asmoz martxan jarritako hamabost egunetako su etenarekin; baita

urteurrenaren bezperan ETAko zuzendaritzako kide zat hartzen zirenen atxilotetekin ere¹³⁷. Alderdietako buruzagi gehienek atxiloteten garrantzia azpimarratu eta bere esker ona adierazi bazuten ere, Itunaren urteurrenaren deklarazioak ez zion erreferentziarik egin azken gertakari honi; bai, ordea, ETAren alde bakarreko eskaintzari. Bera “bukaera elkarriketatu batera iristeko borondate errealearen faltatza”¹³⁸ hartua izan zen, jardun armatura bueltatzeko mehatxu onartezina izateaz gainera. Deklarazio hauen gogortasunak Espainiako Gobernuaren pare egon zen. Izan ere, *El País* egunkarian urtarrilaren 10ean argitaratutako albistean, Espainiako Gobernuak elkarriketei berriz ekiteko su-eten hori zabaltzearen beharrean jarri zuen azpimarra; beti ere, terrorismoarekin bukatzeko helburuarekin. Bestelakoan Ajuria Eneako Itunaren urteurrenaren agiriak jatorrizko deklarazioaren edukietan berresten zen; urtebeteko bilakaerak izandako onurak azpimarratzen zituen, “kontzientziazio sozialean” emandako urratsak eta alderdi politikoen mezuen “homogeinizazioa” (beraien hitzetan “jada ezberdintzea ere zaila delarik”) balioan jarritz. Azkenik, hurrengo urteetan ohikoak bilakatuko ziren ETARI zuzendutako eskaerak luzatzen ziren.

Bilera horretako gertaerarik nabarmena, berriz, EAren hutsunea izan zen. Urteurrenaren agirian alderdien kohesioan emandako aurrera pausuak behin eta berriro nabarmentzen baziren ere EAren falta ez zen oharkabean pasa. Gabezi honen arrazoa eskuduntzen transferentzia landu behar zuen batzorde estatutarioaren lanetan emandako geldialdia izan zen. Izan ere, Estatutua bere osotasunean betetzeko alderdi ezberdinek hartutako konpromisoen gaineko jarrera zalantzakorra *koalizio honen osaketa* eta garapena etengabe baldintzatu zuten. Hau ez zen bakarrik EAren eskaera izan. Alderdi abertzale sinatzaile ezberdinek une batean edo bestean indar handiagoz edo txikiagoz mahai gaineratu zuten eskaera izan zen. Baina Itunaren ETAren jardun armatuaren aurkako ildo behin eta berriro nagusitu zen Mahaiaren gai ordenetan.

Aljerreko elkarriketen porrotak eta su etenaren amaierak *eliteen birlerrotzean* sakondu zuen. Apirilaren 17an burututako bileran komunikatu berri bat adostu zen. Bertan, lehenengo aldiz, KAS eta Herri Batasunari erreferentzia berariazkoa egiten zitzaien prozesu honen porrotaren “ardura politiko partekatua” egotziz, beraien “intransigentzia” eta “maximalismoa” zela eta. “Demokrata” eta “biolentoen” arteko lubakia geroz eta argiagoa zen; baita lubaki horiei forma ematen zieten edukiak ere. Itunak bat egin zuen hurrengo egunetan PSOEko ordezkari ezberdinek negoziazio horiei emandako eginkizunaren muga definitzerakoan: eduki politikorik izango zuen inongo

¹³⁷ Josu Urrutikoetxea eta Elena Beloki ziren atxilotutakoak, lehenengoa ETAko zuzendaritzako kide zat hartzen zelarik. Egaña eta Giacomuzziren arabera Urrutikoetxea Aljerreko elkarriketetarako ardu netako bat zen, jada Aljerren bertan interlokuzio lanak egiteko zegoen Eugenio Etxebeste ‘Antton’-en lagun mina izatearekin batera (1992: 158).

¹³⁸ *Diario Vasco*, 1989-01-13.

elkarrizketarik ez zen bideragarria erakunde armatu batekin, soilik terrorismoarekin bukatzera begirakoak ziren. Hortaz, Itunaren sinatzaileek eta Estatuko Gobernuak bat egin zuten elkarrizketen funtsa markoztatzerakoan, hauek Itunaren 10. artikulua planteatzen zuen helburuen baitan kokatuz. Hau da, Aljerren burututakoak ETAk borroka armatuarekin bukatzeko zuen borondatea neurtzeko helburuarekin egindako elkarrizketak izan ziren batzuen eta besteen iritziz. Horrekin batera, Itunak ETAk hurrengo hilabeteetan bere egin zuen “bete gabeko konpromisoaren” argudioa indargabetzeko arrazoiketari heldu zion. Izan ere, “hipotetikoki lortutako inongo akordioak, bestelakoan ere, ez lukeelako inondik inora justifikatuko jarduera bihurtu berritoki”. Itunak PSOEn Gobernuak mantendutako tesiekin egindako lerratze honekin bukatzeko, gobernuak adostutako politika antiterroristaren legitimazioaren funtzioan sakondu zuten; itunkideek “sistema demokratikoak bere eskura dituen tresna legal guztiak erabiltzera derrigortzen”¹³⁹ zuela ondorioztatuz.

ETA eta Gobernuaren arteko elkarrizketen ziklo honen bukaerak *ekintza-errepresio espiral* ezaguna berraktibatu zuen. Gobernuaren aldetik lehenengo neurria Aljerren gaineko presio diplomatikoa areagotzea izan zen ETAREN ordezkariak deportatzeko. Ordura arte presoan sakabanaketa zerbait puntuala izan bazen, ordutik aurrera Enrique Mugika Herzog Justizia Ministroaren eskutik orokortu zen, EAJren babesarekin (Casanova, 2008: 353). ETAk ere bere ofentsiba berraktibatu zuen. Su etena indarrean egon zen epealdietan salbu, jarduera armatuan etenik egon ez bazen ere, negoziazioek eta bere prestaketek iraun zuten bi urteetan (1988 eta 1989) aurreko eta hurrengo urteekin alderatuta, heriotza ekarri zuten ekintzen apaltze bat eman zen¹⁴⁰. Elkarrizketen amaierak ekarri zuen eskalada armatuaren areagotzeak kopuruetan ez ezik jo puntuetan ere eragina izan zuen. 1989ko irailean ETAk Leitzarango autobidearen aurkako lehenengo ekintza armatuak burutu zituen, esaterako.

1990 hauteskunde urtea zen eta horrek Itunaren jarduera publikoa nabarmen moteldu zuen baina 1991rekin batera Mahaiak bere dinamika berreskuratu zuen. Otsailaren 8an alderdi guztiak¹⁴¹ presente egon ziren bilera berri bat burutu zuten. Lau puntuko komunikatu adostu labur batean ETAREN “ekintza terroristen ofentsiba berria” berri salatu zuten, nagusiki, “Gipuzkoa-Nafarroa

¹³⁹ *Diario Vasco*, 1989-04-18.

¹⁴⁰ 1985, 1986 eta 1987an ETAk 35, 41 eta 41 pertsona erail zituen, hurrenez hurren. 1988 eta 1989an 20 eta 10, hurrenez hurren. 1990an eta 1991an berriro ere datu horiek nabarmen hazi ziren, 25 eta 46 lagun erailez.

¹⁴¹ 1990ko urriaren 28an burututako hauteskunde autonomikoetan CDS-k ez zuen ordezkariak lortu eta UA lehenengo aldiz Legebiltzarrean presente egongo zen hiru eserleku lortuz. Ondorioz, CDS Mahaiaren osaketatik kanpo gelditu eta UA inkorporatu zen.

Autobidean zentratutako estrategia beldurtzaile berria”¹⁴². Hurrengo hilabetean, martxoaren 26an, bilera berri bat burutu zuten. Bertan adostutako komunikaturik ez zen egon. Hartutako erabaki nagusia Herri Batasuna lehenengo indar bezala agertzen zen udaletako alkatetzekin zer egin maiatzaren 20an ospatu behar ziren udal hauteskundeetan osterako uztea izan zen. 1991ko lehenengo bi bilera hauek eduki gehiegirik eman ez bazuten ere, hurrengo hilabeteetan Itunaren alderdi sinatzaileen artean desadostasunetarako gai nagusiak izango zirenak mahai gaineratu zituen: Leitzarango Autobidea eta Herri Batasunaren alkatetzak.

11.1.1.2.2 Itunkideen lerratzea.

Bi gai hauen nondik norakoak aurrerago azalduko baditugu ere, alderdi sinatzaileen artean ordura arte erakutsi nahi izan zen bateratasun eta irimotasun irudian lehenengo arrakalak agerian utzi zituen. Uda osoan zehar presente egondako ika-mika hauek azaroaren 22an egindako bileran ezer ezean utzi nahi izan zituzten dokumentu luze bat adostuz. Lehenengo puntuan bertan “HBrekin egindako udal itunak edo alderdi berberarekin Leitzarango Autobidearen inguruan izandako elkarrizketek [...] alderdien artean lortutako kontsentsu demokratikoaren irudia lausotzea lortu dutela” aitortzen zuten, “jendartearen sektore zabaletan harridura eta noraeza sentsazioa sortuz”¹⁴³. Horrela, dokumentuaren bigarren puntuan bertan, alderdi sinatzaileen arteko “kontsentsu demokratiko hori lehenengo mailako elementu estrategikoa osatzen” zuela sinetsita bera berreskuratu eta sendotzeko bideak jartzeko konpromisoa hartzen zuten. Horrekin batera, aliantza/aurkaritza egitura hori ebazteko markoa ere ondo definitzeko saiakera egin zuten. Izan ere, 1991eko azaroko dokumentu horren bigarren atalean (“Euskal akordio bat, euskal arazo baterako” izenburua daramana) gatazkaren marko nagusia zehaztu nahi izan zuten. Atal horretan, “euskal Herri eta Estatu espainiarraren arteko *auzia*” egiaztatzen bazuten ere, “hauturazaletasunaren eta terrorismoaren arazoa gure jendarte propioaren arazoa” dela adieraziko zen.

“La existencia de un *contencioso* entre el Pueblo vasco y el Estado español no puede ocultar la auténtica naturaleza del problema que consiste en que una minoría de vascos se niega a aceptar la voluntad de la gran mayoría de los propios vascos”¹⁴⁴.

¹⁴² *Diario Vasco*, 1991-02-09.

¹⁴³ *Diario Vasco*, 1991-11-23.

¹⁴⁴ *Diario Vasco*, 1991-11-23.

Aferen mailaketa honek (lehen mailako “la auténtica naturaleza del problema” euskal herritarren artean; eta “la existencia de un *contencioso*”, bestetik) aliantza eta aurkaritzen egitura baldintzatuko du, horren arabera aliatuak eta aurkariak definituko direlarik. Horrela, ezker abertzaleak planteatutako eskema indargabetu nahi izan zen; lehia nagusia ardatzaren bi muturretan kokatzen ziren eragileen artean *polarizatuta* (Estatua eta ETA-ENAM), tartean gelditzen ziren eragile *epelak* ardatzaren alde batera edo bestera dekantatzera ekidinez. Itunaren sinatzaileek gatazkaren markoa “euskal herritarren arteko arazoan” *auto-zentratuz*, Aljerreko elkarrizketako “pintza” ekiditeaz gain, lehia politikoa *bertako* “gehiengo vs gutxiengoan” terminoetan kokatu zuten, lehia politikoa indar posizio batetik heltzeko aukera emanaz. Laclauk gogoratuko digun bezala, gatazka politikoa joko zelaia mugarritzea lehia hegemoniko guztien funtsezko osagaia izango da. Izan ere, bokazio hegemonikoa izango duten identifikazio politikoek (“demokratak ala biolentoak”, “euskaldunak ala espainolak”) *kanpokotasun* eratzaileren arabera forma hartuko baitute. Hortaz, kanpoko *antagonista* hori Estatua (eta bere “konplizeak”) ala “terroristak eta bere ingurunea” izango den definitzea dinamika sozialaren funtsezko zutabea izango da.

Behin gatazkaren joko zelai nagusia definitua (euskal herritarren arteko gatazka bezala ulertuta) bertako aliantza sistema finkatzea helburu nagusia izango zen. Azaroaren 22ko dokumentu horretan Ertzaintzari eta gainontzeko segurtasun indarrei babesa eta inplikazioa eskatuko zaie. Aipatu dugu Mahaiaren sinatzaileen artean ohikoak izango direla “euskal jendarteari” egindako deiak ere. Eta ohikoak izan ziren ere ezker abertzalearen barruan “bortxaren arrazoi-falta eta baliagarritasun faltaren konbentzimendura iritsi diren pertsona eta sektoreei” egindako deiak. Izan ere, *desertzioa* bilatzearen mekanismoa arrunta bihurtu zen, alde batetik zein bestetik. Ajuria Eneakoen aldetik, ezker abertzalean bortxaren erabilerarekin kritikoak direnei mugimenduaren barruan eragin zezatela edo mugimendua bera utz dezatela eskatuz. Ezker abertzalearen aldetik, Itunaren baitan zeuden desadostasunak azpimarratuz edo areagotzen saiatuz. Desertzioaren mekanismoak bestearen egitasmoaren porrota edo bideragarritasun falta erakutsi nahi izango du, beste alde horretan ematen diren desertzioak edo desadostasunak goretsiz eta *anplifikatuz*. Horrela, Itunak polizi indarretatik hasi, jendartearen gehiengotik pasa eta mugimendu hausturazalearen barrunbeetaraino iritsiko den *aliantza egitura* eraiki nahi izan zuen.

Bukatzeko, 1991ko uda horretan sinatzaileen artean HBrekin izandako elkarrizketak zirela eta egondako *disidentzia mugatuak* etorkizun batean ekiditeko, aurrerantzean beraiekin egon daitezkeen hartu-emanak arautzen saiatu ziren:

“En consecuencia, cualquier diálogo que pudiera entablarse con dichos sectores estaría de tal manera condicionado por esa vinculación que sólo un consenso entre los partidos representados en esta mesa podría avalar en las instituciones la legitimidad democrática de los eventuales acuerdos que pudieran alcanzarse”¹⁴⁵.

Argi dago esaldi korapilatsu honek aurreko udaran egondako aldebakarreko hartu-emanak ekidin nahi zituela. Baina esaldiaren labainkortasunak ekidin nahi zen ‘horren’ gaineko ulermen ezberdinetarako eman zuen. Garaiko prentsari begiratuta, *Diario Vasco*-ren arabera ezker abertzaleko sektoreekin egin zitezkeen ‘elkarrizketek’ beraiek sinatzaileen arteko kontsentsua eskatzen zuten¹⁴⁶. *Egin*-eko lerrobueri erreparatuta, aldiz, ‘akordioak’ eskatuko luke alderdien kontsentsu hori instituzioen bidez¹⁴⁷, ez elkarrizketa hutsak. Edozein kasutan, deklarazio berri honekin sinatzaileen arteko ika-mikak denboraldi batez baretu ziren.

Gainera 92ko ekimenen gertutasunak ETAren jarduera armatua areagotu zuen. 1991an zehar 137 ekintza armatu burutu zituen, horietako 17 Espainiak Italian eta Alemanian zituen interesen aurka. Ekintza hauek 44 hildako eragin zituen; 1978-1980 ‘berunezko urteetatik’ eta 1987ko ‘Madril komandoaren’ aktibitate frenetikotik ezagutzen ez ziren kopuruak. Eskala aldaketa honen ondorioz sortutako polarizazioak Itunaren sinatzaileen deslerrotze berriak eragotzi zituen. 1992ko urtarrilaren 17an burututako bilera, berez urteurrenaren ospakizun protokolariorako izan behar zuena, batasunerako deia eta jendarteari “etsipenean” ez erortzeko deialdian bilakatu zen¹⁴⁸.

Estatuak, bere aldetik ere, gogor erantzun zuen 1992an zehar. Urtarrilean erakunde armatuaren bi liberaturen atxiloketen ondotik ia ehun pertsona atxilotu ziren. Martxoaren 29an eman zen Bidarteko kupularen atxiloketa ezaguna; honek maila operatiboan eta sinbolikoan izango zuen eraginarekin. Ezker abertzalearen antolakunde zibilak ere jazarriak izango dira: poliziak Jarrai gazte antolakundearen V. Kongresua asaltuz hartu zuen; LAB sindikatuaren egoitza bat eta bere idazkari nagusiaren etxea miatu zituzten; edota Txema Montero abokatuak bera zelatatzeko mikrofono bat aurkitu zuten hilabete horietan.

¹⁴⁵ *Diario Vasco*, 1991-11-23.

¹⁴⁶ Horrela jaso zuen bere lerroburuan: “Cualquier diálogo futuro exigirá ‘un consenso entre los partidos representados en esta mesa para avalar en las instituciones la legitimidad democrática de los eventuales acuerdos que pudieran alcanzarse’. No habrá nuevas actuaciones unilaterales”, ondorioztatzen zuen *Diario Vasco*-k (1991-11-23).

¹⁴⁷ Horrela jasoko zen egun horretako *Egin*-en: “Cualquier acuerdo al que se llegue con ‘el rupturismo’ deberá ser avalado por consenso en las instituciones’.

¹⁴⁸ *Diario Vasco*, 1992-01-18.

Polarizazioa, prozesu sendo bezala, *aukera eta mehatxuen espiralaren* mekanismoarekin lotuta agertu ohi da. Kasu hauetan aukera eta mehatxuen esleipena eragile guztien aldetik burutzen denean, gorpil edo espiral moduan gero eta modu azkarragoan ematen da, eragile baten aukera esleipena beste baten mehatxu bilakatzen delarik; eta alderantziz. Espiral horrek muturretara bidaltzen ditu eragilek, beraien arteko distantzia handituz eta barne kohesioa sendotuz. Gurean ere horrelako zerbait gertatu zen. Ekintza armatu bakoitzarekin, Estatua negoziazio prozesu berri batera behartuko zela ulertzen zen, erakunde (armatu) lehiatzailearen sendotasuna erakutsiz; baina aldi berean Itunaren sinatzaileen arteko deslerrotzeak ekidin eta jarduera errepresibo berriei bide ematen zitzaion. Errepresio honek, berriz, ezker abertzalea ahuldu eta barne disidentziak areagotuko zituela ulertzen zen bitartean, barne elkartasuna indartu eta erantzuneko ekintza berrientzako oinarria jartzen zuen. Zurrumbilo honetan aukera eta mehatxua noiz hasi eta noiz bukatzen den mugarritzea zaila izan daiteke bi aldeentzat, sarritan ‘zenbat eta okerragoa, orduan eta hobeto’ teoria kaltegarrian eroriz. Espiral honen emaitzarik argiena bloke bakoitzaren gotortzea izango da.

11.1.1.3. Aliantza egituraren pitzadurak: udal akordioak eta Leitzarango autobidearen eraikuntza.

11.1.1.3.1 Udal akordioak.

Itunaren lehenengo garaietan barne aliantza sistema egitura trinko bezala agertu bazen ere, 1991etik aurrera bere arrakalak agerikoak egiten hasi ziren. *Eliteen deslerrotze* honen jatorrian aliantza egitura honetatik kanpo kokatzen zenarekin izandako hartu-emanak. Izan ere, horrelako egitura zurrunetan kideen arteko lerrotzea lehentasunezko helburua izango da. Deslerrotze zantzu txikiena *desertzioarekin* parekatu daiteke, aukera izan zitekeena mehatxu bilakatzeko arriskuarekin. Garai horretan Herri Batasunarekin izandako harremanak elkar lotuak agertuko zaizkigun bi adarretan bereizi ditzakegun: batetik, nagusiki Eusko Alkartasuna eta HBren artean udal mailan egondako adostasunak; eta bestetik, Leitzarango autobidearen inguruan EAJ eta HBren artean egondakoak.

Lehenengoari zegokionez, 1991eko urtarrilaren 15ean Itunaren alderdi sinatzaileek maiatzean ospatu behar ziren udal hauteskundeak eta gero, HB udal eta foru instituzioen gobernutik

zokoratzeko erabakia hartu zuten¹⁴⁹. Erabaki honen itxurazko irmotasunak eta horren inguruko kohesioak bere arrakalak erakutsi zituen udal eta foru hauteskundeak igaro bezain pronto. Izan ere, ekainaren 14an EAJk eta PSOE-PSEk udal eta foru gobernuen osaketarako ituna sinatu zuten. Bertan HBren zerrenda bozkatuena izan den udaletan, bozka gehien lortzen zuen Ituneko alderdi sinatzailea babesteko konpromisoa hartzen zen. Ordurako EA, barne tentsioak tarteko, irizpide horretatik desmarkatu zen. Baina gainera EAJ eta PSOE-PSEren arteko akordio horren ondorioz, otsailaren 8ko bileran adostutakoaren arabera, EAren eskuetan gelditu beharko ziren Gipuzkoako instituziorik esanguratsuenak (Aldundia eta Donostiako udala) bi alderdi hauen artean banatu zituzten; sei urte eta gero Aldundia berriro EAJren esku geldituta eta Donostiako alkate bezala lehenengo aldiz PSOE-PSEko kide bat izendatuz. Gauzak horrela, EAK bere burua bozkatzeko erabakia hartu zuen. Honen ondorioz, HBk Gipuzkoako hamabi udalerritan gehiengo absolutuz lortutako alkatetzei beste lau eransteke aukera izan zuen. Eliteen deslerrotze prozesu honetan, HBk eta EAK 1991eko udaran independentziaren alde babestutako mozioen afera gehitu behar diogu. Nagusiki HBren ekimenez bultzatutako udal ekimen hauen bidez lerrotzeen pitzaduratik desertziora doan bidea zabaltzeko aukera nabari zen. Udal politikak, aldiz, errealitate oso anitzak barneratzen dituen neurrian, HB eta EAren arteko aliantza edo laguntasun mapa oso ezberdina utzi zuen; hainbat udaletan bi alderdien artean aurrera eginez eta beste hainbatetan ez. Gainera, EAJ eta EEren artean adostutako dokumentu batean EAri independentziaren aldeko mozio berriak ez aurkeztu eta HBrenak ez babesteko eskaera egiten zitzaion, “Estatutuaren moldaketara bideratutako ekimenak ez bultzatzeko” erregutuz¹⁵⁰.

1990ko hauteskunde autonomikoak eta gero, izaera abertzaleko hiruko gobernua (EAJ-EA-EE) osatu zen. EAJ eta EEren aldetik kezka handiz ikusten zen hirugarren kidearen deslerrotzea. Itunkideen eta gobernu-kideen arteko aliantza sistemak, ordea, denbora laburrean bestelako norabide bat hartu zuen. Izan ere, 1991ko urrirako Ardanzak EE eta EA gobernutik kaleratu eta udal hauteskundeen ostean instituzio lokaletarako PSOE-PSErekin hitzartutako akordioa Eusko Jaurlaritzara eraman nahi izan zuen koalizio gobernu berria osatuz.

11.1.1.3.2 Leitzarango autobidearen gatazka.

¹⁴⁹ Zioen agiriaren laugarren puntuak: “(los partidos firmantes adoptarán) las medidas necesarias a fin de que sea un partido democrático el que lidere todos los gobiernos de las instituciones que se elijan a partir de las elecciones de mayo de 1991” (*Egin*, 1991-02-09).

¹⁵⁰ *El País*, 1991-09-15.

Politika instituzionalean izandako etengabeko krisi hauek eragin zuzena zuten Mahaiak jendartean islatu nahi zuen batasun irudian. Desadostasun hauek, udal gobernantzaz harago, bestelako dimentsio bat hartu zuten Leitzarango autobidearen aferarekin. Ez da lan honen asmoa gatazka honen inplikazio ezberdinen azterketa bat egitea. Bere bilakaerak eztabaida politikoan nagusi zen aliantza/aurkaritza egituran izan zuen eragina aztertzer mugatzen saiatuko gara. Gainera, Gipuzkoa eta Nafarroa lotu behar zuen errepide berriaren aferak iragan luzea zuen. Gure aldetik, gatazkaren konponbidearen hilabete erabakigarrietan zentratuko gara; 1991. urtearen hasieratik 1992ko ekainera bitartekoak eta Gipuzkoako adarraren eraikuntzak eskatzen zituen konpromisoen inguruan, Nafarroakoak alde batera utzita.

Leitzarango autobidearen gatazkak prozesu liskartsuetan ohikoak izaten diren mekanismoen aktibazioa ekarri zuen: kaleko mobilizazioen *jabetza sozialaren* inguruko lehia presente egon zen Ajuria Eneako Ituneko alderdi eta egitasmoaren kontrako eragileen artean; protestarako bitartekoen erabilerari dagokionez *erradikalizazio* eta *eskala aldaketa* ezagutu zen urteak aurrera egin ahala, tartean ETAren esku hartzearekin ere; honek inplikaturako eragile ezberdinen *desertzioak* ekarri zituen, batez ere inplikaturako hainbat enpresariena; ... Baina bere garrantziari dagokionez mekanismo baten garrantzia nabarmendu beharko bagenu hori Lurraldea plataformak jokaturako *artekaritzarekin* lotuta legoke.

Aldiz, 1991eko udal eta foru hauteskundeek ireki zuten panorama instituzional berria ezarri arte ez zen aukera erreal berririk ireki ordura arteko posizio (ia) mugiezinetan. Gogoratu ditzagun era laburrean batzuen eta besteen orduko posizioa urte horretako abuztuan elkarriketa erabakigarriak abiatu zirenean: EA, ordura arte ahaldun nagusia izandakoa Iñaki Murua buru, jatorrizko egitasmoaren (A-2 izenekoa) defendatzaile sutsuena zen; jarrera berdinean, momentu horretan Eusko Jaurlaritzan gobernukide zen EE bide lagun zuen (baita gerora bertatik banandutako Auñamendi korrontea, ondoren EuE osatuko zuena); PSOE-PSE eta PP, Itunaren logikari jarraituz, egitasmoaren aldeko jarrera zuten, gatazkaren parametro orokorreari lotuagoa egitasmoaren berezitasunei baino; jakina denez, aurkako blokea HB eta mugimendu ekologistak osatzen zuten (momentu horretan Lurraldea bera bertan kokatu dezakegularik); eta bukatzeko, EAJ dugu. Bere posizioa eta jarrera erabakigarria izan zen prozesuaren fase erabakitzaile honetan. Batetik, 1991eko udal eta foru hauteskundeak arte egitasmoaren kudeaketan lehen mailako parte hartzerik ez izateak eta hau EAren bizkarretan gelditu izanak bere gorakada elektorala ekarri zuen herrialdean. Hirugarren indarra izaten jarraitzen bazuen ere (HB eta EAren atzetik), bigarrenarengandik mila bota eskasetara gelditu zen. Aldundia bere eskuetan geldituta egitasmoaren garapenean ordura arte

hartu gabeko erantzukizuna hartu beharko zuela jakitun zen. Logika horretan ulertu daiteke hauteskundeak baino lehen ere HBrekin izandako hartu-emanak; jakin baitzekien aferaren konponbidea, modu batean edo bestean, ezker abertzalearekin hitz egitetik pasatzen zela. Itunaren presioa HB baztertzeko, ordea, handia zen. Ardanzak jarrera zurruna erakutsi zuen abuztuko elkarrizketa horien hasieran, EAJren barneko tentsioak agerikoak eginez.

Akordioen faseak une ezberdinak ezagutu zituen. Lehenengo akordioa 1991ko abuztuaren 9an etorri zen, A-4 izenarekin ezaguna egin zen trazaketarekin. Egun batzuk lehenago Galdosek Lurraldea bilera batera deitu zuen akordio batera iristeko asmoarekin; bere *zertifikazioa* suposatu zuen. Akordioaren egunean bertan HBko ordezkaria zen Jose Luis Elkororekin bildu zen. EA eta EE beraiekin adostu gabeko konponbidearen aurka agertu ziren. Izan ere, konponbideak utzitako errenta politikoaren banaketatik kanpo ikusi zuten beraien burua, emaitza bera iraintzat hartuz. Zeresanik PP eta PSOE-PSEri dagokionean, HB barnebiltzen zuen konponbidea ‘estatu-arazo’ bihurtuz. Egoera honek hilabeteetan zehar katramilatu zuen behin betiko konponbidea. Zubiagak (2011) dion bezala “negoziaketa prozesuak indartsuak izan daitezen beharrezkoa den mekanismoa -emaitzaren jabetza ahalik eta kolektiboena- ez zuen aintzat hartu EAJ/HB/Lurraldea hirukoteak, eta ahulezia horrek atzeratu egin zuen liskarraren amaiera”. Blokeo egoera hau agerian gelditu zen azaroan Batzar Nagusiek jatorrizko A-2 ibilbidearen alde egin zutenean. Abuztuko akordioa ezer ezean geldituko zela zirudien.

Data horietan adosten ari zen Gasteizko Gobernu berriaren osaketak ordura arte kontrako posizioan kokatutako PSOE-PSE eta EE beraien posizioa mugitzen lagundu zuen. Bi hauek prest agertu ziren bere jarrera aldatzeko eta erkidegoko gobernuan sartzeak horretarako lagundu zuen. EEn ordurako barne zatiketa agerikoa zen eta alderdiaren buruzagitzan zeuden sektoreak PSOErekiko zuten atxikimenduaren ondorioz traba gehiegirik ez zioten jarri elkarrizketa saio berri bati ekiteko. Eta EAJk, bere aldetik, argi zuen bi alderdi hauek konponbidearen parte egin behar zituela operazioa arrakastaz gauzatu nahi bazuen. Aipatu dugun bezala, esan daiteke bataila nagusia *konponbidearen jabetzaren* inguruan kokatua zegoela, trazaketaren gora beheretan baino.

Bigarren adostasun unea ekarriko zuten elkarrizketak abenduan etorri ziren EAJ, PSOE-EE eta Lurraldearen eskutik. Bertan “gailentasun teknikoaren” *markogintzaren* baitan Muga trazaketa bezala ezagutuko zena adostu zen. Ordurako gaiak herrialdetik haragoko garrantzia zuen eta Ajuria Eneako Itunaren ezezkoak akordio berria atzera bota zuen. Noraeza honetan hilabete batzuetan konponbide posibleak ugaritzen hasi ziren, baina funtsean hiru ziren lehian zeudenak: jatorrizko A-

2 (EAren lidergopean), lehenengo akordioko A-4 (EAJ/HB/Lurraldea) edota Muga izenekoa (EAJ/PSE/Lurraldea). “Teknifikazioaren” markogintzari emandako lehentasunaren ondorioz Aholkularitza Batzorde batek Mugaren alde egin zuen, hobekuntza batzuekin. Ordurako, Mahaiak jada planteatu zuen afera ebazteko metodologia zein izango zen¹⁵¹: Gipuzkoako Batzar Nagusien oniritzia lortu ezean, Foru gobernuak erabakia hartuko zuen. Gauzak horrela 1992ko apirilaren 22an Aldundiak, EAJ eta PSOE-PSEren babesarekin, Muga alternatiba onartu zuen.

Askoren ustez, autobidearen gatazkaren eta euskal gatazkaren artean gehiegizko paralelismoak, HBren neurri gabeko pozaren oinarrian zeuden¹⁵². Izan ere, koalizio abertzaleak bazuen ospakizunetarako arrazoiak. Lurraldeak jokatutako *artekaritza* tarteko, Itunaren bazterketa politika krisian jarri zuen garai horretan (Zubiaga, 2011: 511). Negoziazio politikoa gatazkak konpontzeko giltzarri nagusi gisa agertzen zen inoiz baino ozenen, ezker abertzalearen ildo nagusiari jarraituz. 1992. urtearen amaierarako Lurraldea Elkarri bilakatzeko prozesuan murgilduta zegoen, etorkizunean etor zitezkeen elkarrizketa politikoak errazteko asmoarekin.

Zentzu horretan, alderdi politikoek behin betiko trazaketaren inguruan planteatu zuten markogintza bi ardatzen artean kokatu zela esan dezakegu: batetik, egitasmoaren balio teknikoa (edo bere balio tekniko falta, EAk ere egin zuen bezala) eta bestetik, egoera politiko orokorrekiko eragina eta lotura. Ardatzaren alde batean EAJk eta PSOE-PSEren markogintza kokatu dezakegu (‘teknikoa’) eta bestean PP edo HBrena (‘politikoa’). EAk, berriz, jatorrizko A-2 trazaketaren hobespen teknikoen argudioari heldu bazion ere, hartutako erabakiak Itunean izango zituen ondorioak ere nabarmentzen ahalegindu zen¹⁵³. Horrela, 1992ren hasieratik bere parte hartzea eten zuen autobidearen inguruko azken erabakia Foru Gobernuaren eskuetan utziko zela adostu ostean; 1995an ospatu zen lehenengo bilerara arte ez zen itzuli. Ezker abertzalearen barruko markogintzari dagokionez, ez zen kolore bakarrekia izan. HBk erabakia eta prozedura argiki txalotu bazituen ere, ETAk ekainaren 4an *Egin* egunkarian argitaratutako elkarrizketan hainbat ñabardura egin nahi izan zituen. Horrela, elkarrizketa eta negoziazioaren bideak gatazkak konpontzeko oinarritzko tresna zirela azpimarratu bazuen ere, gatazka politikoa konpontzeko “negoziazioaren oinarri sendo bakarra” ETA eta Gobernuaren arteko “markoa” zela adierazi zuen. Ardatz politikoaren muturretatik gertuen kokatzen

¹⁵¹ Erabakia 1992ko martxoaren 27an egindako bileran hartu zen.

¹⁵² Itunaren sinatzaileen artean ez zen batere ondo hartu garai horretan HBko ordezkari ziren Jose Luis Elkoro eta Joxe Maria Olarraren argazkia akordioa xanpain botila eta guzti ospatuz.

¹⁵³ Garaikoetxearen arabera: “el fraude a ese pacto se produjo cuando el PNV y el PSOE hicieron lo contrario de lo que esos objetivos proclamaban, cedieron al chantaje de ETA negociando el vergonzoso cambio de la autovía [...]. Incumplieron sus propias propuestas de que no hubiera diálogo con HB [...]. El propio pacto pierde credibilidad ante la sociedad” (*Diario Vasco*, 1992-09-15)

ziren alderdi politikoek (PP eta HB) Leitzaran eta gatazka orokorraren arteko antzekotasunak bilatuz, baliatu nahi izan zuten *objektu aldaketaren* mekanismoa apaltzera etorri zen ETAREN komunikatua. Izan ere, etorkizunean gauzatu zitezkeen elkarrizketa politikoetan bere paper *politikoa* aldarrikatu zuen erakunde armatuak.

11.1.1.4. Gatazkaren zabalkundea: mahai(eta)tik kalera.

Elkarrizketa eta negoziazioaren aldeko giro honek alderdi abertzaleen artean hilabete batzuetan behintzat jarraipena izan zuen. 1992ko udaran zehar HBk goi mailako hamar elkarrizketa egin zituen EAJrekin¹⁵⁴. Paraleloan beste hainbat bilera burutu zituen EA eta EUErekin. ETAREN jardun armatua minimo historikoetan zegoen. Bidarteko erorketaren ondorioak agerikoak ziren baina Casanovaren (2008: 376) ustez egoerak “atzera-egite taktikotik” ere bazuen. Edozein kasutan, Aljer eta Bidarten ondoren, ezker abertzalearen gogo-aldartea motela zen. Estrategia politiko-militarraren ezintasunak agerikoak ziren. Ondorioz, ezker abertzalea gogoeta estrategikoaren fase batean murgildu zen.

Itxurazko distentsio honek ez zuen luze jo. HB eta EAJren arteko hartu-emanek bi sektoreen arteko distantzia egiaztatzen harago emaitza zehatzik ez zuten ekarri. Gainera HBrekin izandako hartu-emanak Ajuria Eneako sinatzaileen artean txinpartak sortu zituen berriro ere. Aurrekoetan bezala, eliteen deslerrotze honi ezker abertzalearen aurkako diskurtso oldarkorrek erantzun zitzaien sendabide bezala. 1992ko irailaren 14an Mahaiaren bilera berri bat ospatu zen. Ondorengo komunikatu bateratuan ohiko baieztapen eta deiez gain (Itunaren sendotasuna, sinatzaileen batasuna, ezker abertzalearen baitako disidentziaren egiaztatzea eta sektore hauei deia bortxaren aurka azaltzeko, ...), aurreko urteko azaroko komunikatuan ez bezala, HBrekiko harremanak izatekotan irizpide argiak finkatzen ziren: “edozein Alderdik, une zehatz batean, guztiok bilatzen ditugun helburuak erdiesteko aintzat hartzen duen elkarrizketarako *edozein ekimen* praktikan jarri baino lehen eta Alderdi bakoitzaren autonomia mugatu gabe, Mahaiaren komunikatua eta eztabaidatua izan beharko dela adosten dugu kontsentsu handiago bat lortze aldera”¹⁵⁵. Anbiguotasunerako marjinarik ez zen uzten; eta baldintza horiekin mahaikide baten betoa nahikoa litzateke eragin instituzionalik izan zezakeen balizko akordioak baldintzatzeko. Hortaz, HBrekin efektu praktikorik izan zezakeen elkarrizketarako tartea hutsaren hurrengoia zela esan daiteke.

¹⁵⁴ Egaña, I. (1993). *Euskal Herria y la libertad* (vol. VIII, 143. orrialdea). Tafalla: Txalaparta.


¹⁵⁵ *Diario Vasco*, 1992-09-15.

1993. urtearen bigarren erdialderako ETAk bere barne berregituraketa burututa zuen (Casanova, 2008: 378) eta jardun armatuari indarberrituta heldu zion. Urte horretako uztailaren 5ean Julio Iglesias Zamora bahitu zuen, ordura arteko bahiketa luzeena burutuz; 115 egun. Ekintza armatuak ere ugaltzen hasi ziren, tartean bomba-kotxeen erabilpena. Mahaiak ohiko kondena komunikatu batekin erantzun zuen uztailaren 27an.

Bahiketa honek, ordea, ordura arte apenas ikusi gabeko erantzun formula bat mahai gaineratu zuen. Iglesias *Ikusi* telekomunikazio enpresako buruetako bat zen. Bahiketaren aurrean bere lankideek erantzun dinamika zabal bat martxan jarri zuten bera askatzea eskatuz. ‘Gesto por la Paz’ plataformak bat egin zuen langile hauen dinamikarekin eta uztailaren 26an hurrengo hilabete eta urteetan ikonikoa bihurtuko zen ETAREN bahiketen aurkako sinbologia eta kanpaina abiatu zuten: lazo urdinarena, hain zuzen. ‘Gesto por la Paz’ 1986an era guztietako adierazpen biolentoen kontra jaiotako kolektiboa bazen ere, urte honetatik aurrera ETAREN jardunaren kontra burututako dinamikengatik ezaguna egin zen. Zentzu honetan, Itunak talde bakezale hauen *jabetza sozialaren* mekanismoa aktibatu zuela esan dezakegu. Horrelakoetan, talde lehiatzaileak (kasu honetan Mahaia bera) antolakunde bat eta berari oinarri sozial eta organizatibo bat eskaintzen dioten pertsonak bere posizioetara erakartzeko gaitasuna izango da mobilizazio soziala posible egingo duena; eta ez antolakundea bera bereganatzea. Horrela antolakundea lehiarako bitarteko bihurtuko dute, prozesu liskartsuari hasiera emanez edo bera elikatuz (MTT, 2005: 51-52). Esaterako, Itunak irailaren 11rako Iglesiasen askapenaren alde herri-ekimen batek deitutako manifestazioan parte hartzeko deia luzatu zuen. Alde horretatik, Mahaiak *mobilizaziorako egituren kudeaketa* aldatu zuen. Leitzarango gatazkan, adibidez, egitasmoa babestuko zuen jendarte zibil antolaturik ezean, Mahaiko sinatzaileek beraiek hartu behar izan zuten mobilizazio sozialaren eginkizuna. Momentu honetatik aurrera, Mahaiak honen aitzindaritza publikoa jendarte zibilaren eskuetan utzi zuen, Ituna bera deialdiekiko bigarren lerro batean geldituz.

Aipatu dugu bere hastapenetatik Mahaiak jendartearen posizionamendu sozialari emandako garrantzia. Horrela bere komunikatuetan ohikoak izaten ziren “jendarteak biolentziaren aurka agertutako adorea”, “bakearen alde jendarteak erakutsitako aitzindaritza lana” edota “kontzientziazio sozialean” Itunak emandako aurrera pausuak goratzea. Mahaiko lehenengo urteetako bileretan jada errealitate soziala aztertzeko Itunak hainbat ikerketa eskatu (1991-02-08) edota bere lehentasunen artean “bizitza politiko eta sozial bere protagonismoa areagotzea” kokatuko zituen (1991-03-26). Izan ere, 80. hamarkadan zehar ETAREN ekintzen aurkako erantzun eskasek

nabarmen kezkatzen baitzuten itunkideak. Joera apatiko hori, ekintza armatuen aurrean jendarteak erakutsitako ‘errutinizazio’ horrez gain, aurkakotasuna bera adierazteko plataforma egokien gabeziari ere erantzuten zion. Kasu gehienetan, ekintzak heriotza ekartzen bazuen, hileta elizkizuna bera protestarako ekitaldi bakarra bihurtzen zen, hura militarrez edo poliziez inguraturik eta bertaratutakoak ‘aberri izpiritua’ goratzeko ekitaldi baten partaide bihurtzera behartuz.



11.1 grafikoa: Terrorismoaren aurako mobilizazioen bilakaera Estatu mailan 1994-2001 epealdian (Iturria: Barne Ministerioa; elaborazio propioa).

Zentzu honetan, ETaren jardun armatuaren aurka kalea hartzeko dinamika oso bat abiatu zuten Ajuria Eneako alderdiek gizarte zibileko plataforma ezberdinen eskutik; ‘terrorismoaren aurkako mobilizazioen bilakaeraren’ grafikoak erakusten duen arrakastarekin. Honek Itunari gorago aipatutako ENAMekiko kontra-mugimendu izaera emango dio. Alderdiek bere eguneroko eginkizun instituzionaletatik harago, beraien funtzio sozialengatik garrantzia hartuko dute. Zentzu honetan, Itunak boterea lortzeko batzen diren alderdien koalizioaren ereduari baino, sistema legitimatu eta horren gaineko kontsentsua eraikitzeko talde bakezaleekin batera sare ereduari helduko dio. Kontra-mugimendu eredu honek, berriz, bi gobernuen interlokutore izaera baldintzatuko du. Izan ere, kontra-mugimendua eta gobernu alderdi berberengatik osatuta egon da, gobernu protesta mugimenduaren eskaeren hartzaile baino, alde bateko parte soziala izatera ere eramango baitu.

Ezker abertzalea, ordea, ez zegoen prest frankismoaren garaietatik kalean erakutsitako gaitasunari uko egiteko. Mobilizatorako bere bitartekoen bitartez sistemaren gaineko kontsentsuaren lehia irekita mantentzen saiatu zen. Horrela, ‘Gesto por la Paz’ edo bestelako elkarte zibilen batek garai

horretan bahitutako¹⁵⁶ lagunen askatasuna aldarrikatuz deitutako elkarretaratzeen aurrean kontzentrazioak kontra-programatzen hasiko da. 1995tik aurrera ‘Euskal Herria Askatu!’ izango da ezker abertzaleak aukeratuko duen markogintzaren lema nagusia, bahitutakoen askatasuna exijitzen zutenek baliatutakoaren aurrean. ‘Askatasun’ faltaren bi aldeak adierazi nahiko lukeen markogintzek *mobilizatorako bitarteko eredu* baten indartzearekin bat egin zuen. Izan ere, kasu gehienetan bi kontzentrazioak parez pare biltzen ohi ziren, bata bestearen aurrean, berrindartzen ari zen polarizazioa era ezin grafikoagoan adieraziz.

90. hamarkadaren lehenengo erdialdeak Ertzaintzaren zabalpenarekin bat egin zuen eta kaleko giroaren tenkatze honetan ezker abertzalearen eta Estatuko Seguratasun Indarren (ESI) arteko talkak polizi autonomikora desplazatu ziren. Ertzaintza eta ETAREN arteko gatazkak ez ziren berriak. 1985ko martxoaren 7an bertan ETAK Ertzaintzaren buru nagusia, Carlos Díaz Arcocha teniente jenerala hil zuen bere kotxean jarritako lehergailu batez. Momentu horretan gertatukoa, ordea, polizi autonomikoaren aurkako ekimen puntualtzat hartu zitekeen. 80. hamarkadan eta 90. hamarkadaren hasieran hildako ertzainak lehergailuak desaktibatzeko lanetan edota etakideekin izandako tiroketetan hil ziren; ez haien aurkako ekintza zuzenetan. Aljerreko negoziazioen eta Ajuria Eneako Itunaren sinaduraren testuinguruan Eusko Jaurlaritza eta gobernu zentralaren artean Ertzaintzaren zabalpena adostu zen momentutik (1989) Lizarra-Garaziko akordioa sinatu zen urtera bitarte (1989), aldiz, ETAREKIN zerikusi zuzena zutelakoan Ertzaintzak 120 pertsona atxilotu zituen¹⁵⁷. Gainera 90. hamarkadan zehar enfrentamendu armatuetan hiru etakide hil zituen. 90. hamarkadaren hasierara arte, eginkizun polizial nagusiak Polizia Nazionala eta Guardia Zibilen eskuetan egotearen ondorioz, ezker abertzalearen eta Ertzaintzaren arteko talka nagusiak ETA eta polizi hauen arteko ekintzetara mugatu ziren. Baina urte hauetan erkidego osoan zehar hedatzen joateak gatazkaren *difusioa* ekarri zuen. Ertzaintzak Tilly-k (2007b) liskarraldien kontrolerako planteatzen dituen mekanismo ezberdinak baliatuko ditu urte hauetan zehar: protestagintzan dabilenen informazioa jasotzetik hasita, bortxa fisikoaren erabilpena baliatuko duten estrategietara. Ezker abertzalearen eta itunkideen inguruko plataforma zibilek deitutako parez pareko kontzentrazioen testuinguru honetan, errepresiorako bitartekoen intentsitatea areagotu zen (kontrolerako mekanismoak, biolentziaren

¹⁵⁶ 90. hamarkadan zehar ETAREN bahiketa luzeenak emango dira. Arestian aipatutako Julio Iglesias Zamorarenari (117 eguna) beste enpresari batenak eman zion jarraipena: Jose Maria Aldaya, 341 egun atxilotuta egon zena. Horren ondotik erakunde armatuaren bahiketarik luzeena eman zen, Jose Antonio Ortega Lara-rena; 532 egun. ETAREN gaitasun operatiboaren erakusle, azken honekin batera batera beste lagun bat atxiki zuen, Cosme Delclaux Neguriko enpresaria (232 egun); ETAK azken honek aske uztearekin batera, Guardia Zibilak espetxe funtzionarioa askatuko duelarik.

¹⁵⁷ Datu honetatik kanpo gelditzen dira kale borrokarekin zerikusia zutelakoan atxilotutakoak (*El Correo*, 2009-06-27).

maila, atxiloketa kopurua, ekintzaileekin elkarriketa harremanak apaldu, ...), bi sektoreen arteko *indar eskaladari* bide emanaz.

Urte batzuk geroago ezaguna egin zuen esaldia parafraseatuz, garai horretan gatazka erreferentziatzko bi ‘mahaietatik’ (Ajuria Eneako Mahaia eta HBko Mahai Nazionala) kalera jauzi egin zuela esan dezakegu. Eta noski bi sektore horien arteko sektore gazteenek zuzenki inplikatu ziren. Ezagunak ziren garai horretan EGI eta Jarrai gazte antolakundeen arteko tirabirak, hainbat kasutan enfrentamendu fisikoetan amaitzen zirenak. Trantsizioa zuzenean ezagutu ez zuen belaunaldiaren artean bazegoen bertatik heredatutako ordenuarekin bat egiten ez zuen sektore zabal bat. Garikoitz Mujikak (2004) gogoratuko digun bezala 90. hamarkadan gazte sektore zabal honek matxinatze aro bat ezagutu zuen: intsumisioaren aurkako mugimendua, eremu autogestionatuen aldekoa, ... funtsean hamar urte lehenago ‘euskal rock erradikalaren’ inguruan sortutako fenomeno kulturalaren luzapena izango zen baina bere ezaugarri propioekin. Fenomeno kultural honek bere aldaera sozio-politikoa izan zuen. Baina aurreko urteetan ez bezala jada sistemaren aurkakotasunak ez zuen erreferentzia politikoen abaniko zabal bat. Aurreko urteetan, nagusiki sektore gazteen artean autonomoen eta milien arteko lehiak edota maoista eta troskisten ingurukoak aurkitu bagenitzake, protesta zikloaren fase honetan ezker abertzalea agertu zen sistemaren aurkako korrante egituratu nagusi bakar bezala. Mugimendu honek kaleko liskarren areagotzean edo gerora ‘kale borroka’ bezala ezaguna egin zen fenomenoan eragina izan zuen.

Gatazkaren zabalpen honek maila ezberdinetako efektuak izan zituen. Batetik, bi muturren arteko *polarizazioaren* erdian egon zitezkeen sektoreak (hainbat enpresari txiki, lerrotu gabeko eragile zibilak, ...) alde bateko eragileekin *konbergitzera* bultzatu zituen. Eta bestetik, kasu hauetan ohikoa izaten den bezala, gorago aipatutako errepresioaren eskala eta paradigma aldaketa batera eramango zuten, “etsaiaren zuzenbide penalaren’ logikan kokatuko litzatekeena¹⁵⁸. Azken ideia honi lotuta, markogintzak hertsadurarako mekanismo zehatzetan duen eragin zuzenaren adibide bat aurkitu dezakegu garai horretako Barne Sailburuak, Juan Mari Atutxak, kaleko istilu hauetan zebiltzan taldeak katalogatzerakoan. Ezagunak egin ziren 1997an *El Mundo* egunkariari egindako adierazpenetan, garaian egindako erreforma legalak tarteko, talde hauek ‘Y talde’¹⁵⁹ bezala izendatzerakoan horrek penalki zituen ondorioak nola biderkatzen zituen. Hau da, nola markogintza

¹⁵⁸ Logika honen nondik norakoaren azalpen zehatza *Derechos, libertades y razón de Estado (1996-2005)* liburuan aurkitu dezakegu.

¹⁵⁹ Garaian hainbat komunikabideek filtratutakoaren arabera, 1992an Bidarten ETako kupulari atzemandako paperen artean ba omen zegoen erakunde armatuarekin lotura organikorik ez baina bere diziplina pean arituko ziren horrelako taldeak sortzeko erabakia. Horrek kale erasoak terrorismoaren atal penalaren baitan epaituak izateko bidea eman zuen.

zehatz batek (terrorismoaren baitako identifikazio zehatzak) mekanismo espezifikokoak aktibatzen zituen (errepresioaren areagotzea; kasu honetan ondorio penal gehituak). Errepresiorako mekanismoen hazkunde hau kale borrokari emandako *anplifikazioaren* ondorengoa izan zen. Izan ere, ordura arte medioetan oihartzun eskasa izan zuen protestagintzaren forma honek lehentasunezko arreta hartu baitzuen komunikabide guztien aldetik.

Zentzu horretan, ekintzaileen eta komunikabideen arteko harremana protestagintzaren bilakaera nabarmen baldintzatuko du. Protesta ekintzak “egunkarietarako manifestazio” hutsak direla esatera iritsi gabe (Neveu, 1999)¹⁶⁰, komunikabideak ekintza hauekiko sentsibilitate politikoa baldintzatuko duten eragile nabarmenenetakoak dira (Jasper, 1997). Protesta ekintzaren arrakasta, neurri handi batean arreta mediatikoaren arabera izango da. Eta gure kasuan, beraien determinazio, kopuru eta jo puntuen zabaltasuna tarteko, zalantzarik gabe lortu zuen. Horrelako eredu bortitzetan ohi bezala, aldiz, moldeen erradikaltasunak, komunikabideen etsaitasuna areagotu eta eliteekiko lerrotzea ekarri zuen, ondorengo neurri errepresiboen legitimazioari ere bide emanaz.

Bi aldeetako tenkatze honek jarraipena izan zuen ia hamarkada osoan zehar. Egoera hau Itunaren komunikatuetan isla zuzena zuen. Batetik, Ertzaintzaren, bakegintzaren eremuko eragileen eta oro har herritarrak txalotu eta babesteko deiak etengabekoak ziren. Eta bestetik, etengabekoak ziren ETAtik harago, ezker abertzalearen eremu zibiletara kriminalizazioa zabaltzeko markogintza. Aliantza eta aurkaritza egiturak erabat gotortuak ziruditen. Batzuen eta besteen estrategien mugak, ordea, agerian zeuden. Batetik, erakunde armatuekin eduki politikoak izango zituen elkarrizketak ez izateko konpromisoaren inguruan estatu-ituna egonkorra zirudien. Gainera Aljerreko elkarrizketatik aurrera euskal alderdiek bestelako protagonismo bat irabazi zuten, ETA eta Gobernuaren arteko negoziazioen eredu klasikoa ahulduz eta gatazka euskal indarren artean auto-zentratuz. Negoziazioaren ideiarekin inguruan iritzi ezberdinak bazeuden ere, eduki politikoak jasoko zituen elkarrizketarik gertatzekotan hori alderdien artekoa izango zenaren ideia nagusi zirudien. Bestetik, hamarkadaren erdialderako ezker abertzalea isolatzeko estrategiak bere onena emana zuela ematen zuen. 1994an burututako hauteskunde autonomikoetan HBk 20,000 bozka galduta ere ordezkariaren %16ri eusten zion. Bere aldetik ETAk, Bidarteko erorketa entzutetsua eta gero, bere gaitasun operatiboa berreskuratua zuela erakutsi zuen.

Gauzak horrela, bi aldeak fitxa mugitu behar zuten jakitun ziren. Ezker abertzaleak 1995rako eguneratuko zuen bere estrategia eta eskaintza politikoa. Ajuria Eneako Mahaiak, bere aldetik,

¹⁶⁰ Della Porta & Diani-tik (2011: 232) hartuta.

1994ko urrian burutu ziren hauteskunde autonomikoen aurretik egindako azkeneko bileran “bortxaren bukaeraren eszenarioari begirako estrategia eraginkorrenerako hausnarketaren”¹⁶¹ beharra planteatu zuen. Xabier Gurrutxaga (EuE) adierazkorragoa izan zen kontzientziazioaren fasea amaitutzat eman zuenean, “baketzerako proposamenen zentzu positiboa adieraziko zuen beste baten inaugurazioa”¹⁶² planteatuz.

Askoren begietan harrigarria suertatu zen hurrengo urteetan, horren denbora epe laburrean, emandako aliantza eta aurkaritza egituren aldaketak. Zentzu horretan, kalera salto egin zuen polarizazio sozialak eragileen barruan eta beraien artean ematen hasiak ziren aldaketak ez zituen luze estali ahal izango. Jakina denez hau ez zen bide laua izan. Jarraitu dezagun aztertzen egitura hauetan eragin zuten beste aldagaiak.

11.1.2. Egoera sozio-ekonomikoa.

11.1.2.1. 80. hamarkada bukaerako atzeraldia eta CCOO-UGT-ELA hirukoa.

80. hamarkada bukaerak aurreko urteek utzitako goraldi ekonomikoaren bukaerarekin bat egin zuen. PSOEren gobernuak Europako konbergentziak eskatzen zizkion erreforma estrukturaleri aspaldi eutsi zion. Estatu mailako bi sindikatu nagusiek beraien alderdi ‘anaiekiko’ deslerrotzea hasita zeukaten. CCOOen kasuan PCE hamarkada hasieratik ezagutzen ari zen gainbeherak eta Izquierda Unida-ren sorrerak bide hori lagundu zuten. UGTren kasuan hamarkada erdialdean Nicolas Redondok Gobernuarekin bakarka Akordio Ekonomiko Soziala sinatu bazuen ere, Gobernuak alde bakarrez heldu zion pentsioen eta diru prestazioen murrizketa ekarriko zuen Gizarte Segurantzaren erreformari. Honek lehenengo alarma bat piztu zuen UGTrengan, Redondok PSOErekin zuen legebiltzarkide eserlekua utzi zuelarik. Baina ez zen 1988an Gonzalezen Gobernuak Gazte Enplegu Plana aurkeztu zuenera arte sakoneko hausturik eman. Bi sindikatuok, Moncloako Itunetatik zerabilten kontzertazio politika bigarren maila batean utzi eta urte horretako abenduaren 14rako greba orokor arrakastatsua deitu zutenean.


¹⁶¹ *Diario Vasco*, 1994-04-20.

¹⁶² *Egin*, 1994-04-20.

Garai horretarako Euskal Erkidego Autonomikoan ELA sindikatu nagusia zen %35 inguruko ordezkaritza mailarekin. ELAk, CCOO eta UGT bezala estatu mailan, Trantsiziotik heredatutako instituzionalizazio prozesuaren alde egin zuen 80. hamarkada osoan zehar, autogobernua sakontzeko helburuz. German Kortabariaren (2015: 72-73) hitzetan, aldiz, 1988ko greba orokorraren inguruan sortutako konfrontazio giroa bi sindikatu hauek eta ELAren arteko elkarlana erraztu zuena izan zen. 1989ko urtarrilean negoziazio kolektiborako akordioa sinatu zuten. Elkarlan honek hiru urte iraun zituen eta Kortabariaren arabera euskal instituzionalizaziorako oso baliagarriak suertatu ziren akordioak erdietsi ziren: hauteskunde sindikalen jarraipenerako arautegia, PRECO berritzeko akordioa, Garraio Saialarekin adostutako herri lanetarako jarraipen batzordea eta abar. UGTk, estatuko zuzendaritzak jasotako agindua ondorioz eten zen elkarlan hau, “marko estatala desitxuratzen” zuelakoan (Kortabarria, 2015: 74).

LABek, bere aldetik, ordezkaritasun gehien zuten sindikatuen *zertifikazioa* izateko beharrezkoa den %10eko errepresentazio maila ozta-ozta gainditzen zuen. Garai horretan, HASIren eztabaidak eta KASen irizpideen araberrako bateratze ideologikoak sortutako zauriak sendatze berritan zen sindikatu barruan. Zentzu horretan, LAB koadro antolakunde bat izatetik gertuago zegoen afiliazio sindikatu batetik baino (Majuelo, 2000: 132). Eduki programatikoei zegokionez, KAS Alternatibarekiko leialtasuna eta defentsara mugatzen zela esan daiteke. Egoera honek, ezker abertzale osora zabaltzen zen egoera kontraesankor bat kudeatzera eramaten zuen. Izan ere, sistemaren zilegitasun falta eta berarekiko erabateko haustura planteatzen zuen sindikatuak, sistemak berak planteatzen zuen instituzionalizazioaren mugen baitan mugitzera behartzen baitzuen; izan hauteskunde sindikaletan, izan sektoreko edo enpresako hitzarmenen negoziazioetan edota desadostasunen arbitrajean.

Hamarkada berriaren hasierak, berriz, aliantza eta aurkaritza egitura hauek aldatzera eramaten zituen hainbat aldagai azaleratu ziren. Lehenik, aipatu dugun bezala, UGT euskal esparruan beste bi sindikatuetatik aldendu zen estatu mailako markoa legitimatzeari begira. CCOOk oraindik ELAren elkarlanari eutsi zion. Bigarrenik, 1990. urtean hauteskunde sindikalen epealdi trinkoa burutu zen:



11.2 grafikoa: Hauteskunde sindikalen emaitza 1978-1990 epealdian. (Iturria: Lan Harremanetarako Kontseilua).

Hauteskunde hauek euskal sindikatuen arteko indar harreman berria erakutsi zuten. Lehenengo aldiz sindikatu abertzaleen baturak gehiago berri bat osatzeko parada eskaintzen zuen. Datu hauek ez zuten berehalako aldaketa esanguratsurik ekarri sindikatuon arteko aliantzetan baina hurrengo urteetan sindikatu abertzaleen goranzko joera areagotu zen, elkarlan berrietarako oinarriak jarritz.

Eta hirugarrenik, hamarkada berriak euskal ekonomia jasaten ari zen aldaketa estrukturalak agerian utzi zituen. 80. hamarkadan zehar euskal industriaren lanpostuen herena galdu zen, lan postuen sorrera zerbitzuen eremuan kokatuz eta erreferentziazko enpresen tamaina nabarmen txikituz¹⁶³. Honek lan baldintzen prekarizazioa ekarri zuen, behin-behinekotasun tasak nabarmen handituz. Hau gutxi balitz, 90. hamarkadaren hasierak, aurreko hamarkada bukaerako hazkunde tarte laburra atzean utzita, desindustrializazioaren bigarren fase ekarri zuen. Honen eragin nabarmenena siderurgiaren birmoldaketa erabatekoa izan zen. Horren urte gutxietan emandako aldaketa sakonak, XX. mende osoan zehar industrian oinarritutako herri baten ekonomian eragin sozial itzelak sortu zituen. Baita sindikatuen erantzuna ere.

11.1.2.2 90. hamarkada hasierako krisialdia eta aliantzen trantsizio urteak.

¹⁶³ Kortabariak (2015: 76-77) euskal ekonomian emandako aldaketa estrukturalak.

1992tik 1995ra doazen urteak sindikatuen arteko harremani zegoenez trantsizio urteak izan zirela esan daiteke; ordura arteko joera aldaketa bai baina ondo definitutako blokerik ez delarik antzemango.

Euskal lurraldeetan, arestian aipatutako krisi industrial berriarekin batera, estatu mailan europar konbergentziari lotutako hezurdura normatiboaren inplementazioak murrizketa berriak ekarri zituen. 1992ko udaberrian Espainiako Gobernuak langabeen babesa murrizten zuen Dekretu-legea onartu zuen, Europari agindutako defizitaren txikipenaren izenean. 80. hamarkada bukaerako konfrontazio giroa apalduta CCOOk eta UGTk elkarrizketa soziala berreskuratzeko saiakeretan murgilduta zeuden. Horrela, 1988ko abenduaren 14an ez bezala, lau ordutako paro deialdiarekin erantzun zioten murrizketa honi maiatzaren 28an. Euskal lurraldeetan, aldiz, ELA, CCOOk eta LABek egun bat lehenagorako greba orokorrerako deialdiarekin erantzun zuten egoeraren larritasunaz ohartaraziz. Euskadiko CCOOk estatuko mailako ildoarekiko deslerrotzea oraindik denbora tarte batez luzatuko zuen, lurraldeko ordezkari bakoitzari utzitako autonomia tarteko. Baina sindikatu honek estatu mailan erakutsitako kontzertaziorako ahalegina euskal lurraldeetan sindikalgintza erakusten ari zen konfrontaziorako jarrerarekin talka etengabean aurkitzen zen, Euskadiko CCOOri benetako oreka ariketak egitera behartuz.

Hiruko berri honen elkarlanak jarraipena izan zuen 1993ko otsailaren 15ean aurkeztutako enpleguaren eta berrindustrializazioaren aldeko kanpainarekin. Horren bueltan Ardanza Lehendakariak “Berraktibazioaren eta Enpleguaren aldeko Akordiorako” proposamena aurkeztu zuen iritzi publikoaren aurrean. Ez ziren alde zuzeneko hartu-emanik egon sindikatuarekin eta Jaurlearitzak jarrera zurrina erakutsi zuen edukia negoziatzeko orduan (Kortabarria, 2015: 92). Gauzak horrela akordiorako aukerak zapuztu ziren eta elkarrizketa giroa lurrundu. Letamendiaren (2004) arabera, desadostasun puntual bat izatetik harago, honakoak erkidego autonomikoko sindikatu nagusiaren “lehenengo ezezik instituzionala” suposatu zuen; ELAk, autogobernua sakontzeko ordura arte Jaurlearitzarekin izandako adostasunezko jarrera kolokan jarritz.

ELA, CCOO eta LABen arteko lankidetzak Gonzalezen gobernuak 1993an abiatu zuen lan erreformari emandako erantzunean jarraipena izan zuen. Estatu mailan CCOO eta UGT “Enpleguaren aldeko Paktu Sozialetik” deskolatu izanak Euskadiko CCOOri tartea zabaldu zion 1994ko urtarrilaren 27rako ELAk eta LABek deitu zuten greba orokorra babesteko. CCOOk eta UGTk estatu mailan erakutsitako jarrera zentralistak, berriz, ELAri mesfidantzak sortzen zizkion; 1992ko abenduan Etengabeko Formakuntzaren inguruan bi sindikatu hauek Espainiako

patronalarekin sinatutako akordioa kasu¹⁶⁴. Gauzak horrela, ordurako bi sindikatu abertzaleek euskal esparruaren aldeko ekimen propioak garatzen hasiak ziren, urte horretako urtarrilaren 19an burututako delegatuen batzar bateratua edota otsailaren 19rako Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren alde deitutako manifestazioa bezala.

Sindikatu abertzaleen arteko elkarlana, ordea, ez zen gorabeherarik gabekoa izan. ELAk eta CCOOk elkarlanerako eremu propioak mantentzen zituzten. 1993ko maiatzaren lehenaren ospakizunak batera burutu zituzten, LABek bere ekimen propioak eginez. 1994ri begira bi sindikatu hauek negoziazio kolektiborako frontea ere osatu zuten.

Gainera ELA ez zegoen prest instituzionalizazio prozesuak autogobernua sendotzeari begira ireki ahal zituen arrakalak urratu gabe uzteko. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Felipe Gonzalezen Gobernuak burutu nahi izan zuen Langile Estatutuaren erreforman ELAk jokatutako papera, estatu mailako lan hitzarmenek ordura arteko nagusitasuna galdu eta bertako akordioen nagusitasuna aitortze bidean. Bide horretan aldeko hainbat aldagai aurkitu zituen: batetik, PSOE eta UGTren arteko harreman ozpinduek lege egitasmoa legebiltzarrerara babes sozialik gabe iristea ekarri zuen, sindikatu honek egin zitzakeen ekarpen zentralistak bidean utziz; bestetik, PSE Eusko Jaurilaritzan egonda Ramon Jauregiren eskutik emandako “giro vasquistak” alderdi sozialistaren harmena ELAren eskaerekiko zabaldu zuen; gainera, ez dugu ahaztu behar 1993ko hauteskunde orokorretan PSOEK gehiengo absolutua galdu zuela; eta azkenik, ELAk Madrilen ordezkari zuten alderdi abertzaleen aldetik jarrera irekia aurkitu zuen bere eskaerekiko, baita azkenaldian mingostutako EAJrekin ere.

Gauzak horrela, 90. hamarkadaren lehenengo erdialdeko harreman sindikalen *aliantza/aurkaritza egiturari* dagokienez hainbat ondorio atera ditzakegu. Batetik, 80. hamarkadan zehar sistema politiko berriaren instituzionalizazioan sakontzeko gobernu eta sindikatuen arteko aliantza edo gertukotasun egiturak ahuldu ziren; bai Espainian, baita EAEn ere. Lehenengoari dagokionez, 80. hamarkada bukaerak utzi zuen konfrontazio giroa gainditzeko bi sindikatu nagusien ahalegin antzua tarteko; EAEn kasuan, ELAren lehenengo ezezko instituzionalarekin. Bestetik, euskal sindikatuen arteko harreman egitura aldakorrak bi ildo nagusi izan zituela laburbildu dezakegu: batetik, desindustrializazioari eta prekarietatearen eraikuntza juridikoari aurre egiteko *erantzunezko* lerroa;

¹⁶⁴ Akordio honi Espainiako Gobernu, patronal eta bi sindikatu nagusien arteko beste batek eman zion jarraipena. Honen arabera Gobernuak okupatutako langileen formakuntza beste biek osatutako FORCEM fundazioaren esku utziko zuen, horri lotutako diru laguntza handiekin. ELA eta LAB akordio horretatik kanpo utzi zuten eta Confebasken parte hartzea bigarren mailakoa izango zen, CEOEn zuen parte hartzearen ondorio.

eta bestetik, *instituzionalizazioan* sakontzen jarraitzeko lerroa. Lehenengoa ELA, CCOO eta LABen arteko elkarlanagatik ezaugarritu zen; bigarrena, ELAren aitzindaritzarekin. Ez ziren gorabeherarik gabeko bideak izan. Lehenengoaren kasuan, ELA eta LABen arteko elkarlana egonkortzen zihoan heinean, Euskadiko CCOOren parte hartzea apaltzen zen; estatu mailan sindikatu honek PSOEn Gobernuarekin erdietsi nahi zuen elkarrizketa sozialerako saiakerak emango zuenaren arabera zelako. Funtsean sindikatu honek bere parte hartzearekin legitimatzen zuen erreferentziazko markoaren eztabaida atzeman daiteke; estatu mailakoa edo euskal esparrua. Edo nahiago bada, bigarrenengan ematen zen parte hartzeak lehenengoaren nagusitasuna zalantzetan ez jartzeak finkatu zuen eztabaida horretan estatu mailako zuzendaritzaren onargarritasun maila.

Instituzionalizazioaren prozesuarekin antzeko zerbait gertatzen zela esan dezakegu. Honen aitzindaritzaren ELAren eskuetan bazegoen ere, CCOOekin sektoreko lan hitzarmenen negoziatorako osatutako koalizioa ez zuen azken sindikatu honek estatu mailan sektoreko herrialdeko hitzarmenak bultzatzeko apustuarekin talka egiten; hau da, CCOOek estatu mailan planteatzen zuen instituzionalizazio ereduarekin. Bai ordea UGTk planteatzen zuen zentralizazioarekin; horregatik, Langileen Estatutuaren 84. artikulua “deskuelgari” egindako kritika zorrotza. Baina LAB ere, bere ordezkagarritasunaren hazkundera tarteko, instituzionalizazio prozesu honetan murgiltzen hasia zen beharrezkoa zuen gehiengo berria gehituz¹⁶⁵. Zentzu honetan, esanguratsua izan zen 1993ko uztailean bi sindikatu abertzaleen artean okupatutako langileen Etengabeko Formakuntza bertan kudeatzeari begira aurkeztutako proposamena. Honek 1995ko irailaren 28an argia ikusi zuen gainontzeko eragile sindikal, enpresarial eta administrazioaren oniritziarekin.

Esparru sozio-ekonomikoaren instituzionalizazioaren mugak, ordea, begi bistan gelditzen hasiak ziren. 80. hamarkadan zehar emandako urrats esanguratsuen ondoren (Lan Harremanetarako Kontseiluaren sorrera, lan gatazken bitartekaritzarako egituraren sorrera -PRECO-, Kontseilu Ekonomiko Sozialaren sorrera edota Confebasken sorrera bera), 90. hamarkadaren hasierak geldotze zantzu nabarmenak erakutsi zituen. Letamendia (2004) eta Kortabarriaren (2015) arabera, UGTren jarrera zentralizatzailea hauen arrazoi nagusietakoa izan zen. Horrela, autogobernua sakontzearen ikuspegitik, hamarkada berriak jada aipatutako Langileen Estatutuaren 84. artikulua ‘deskuelgeaz’ harago ezer gutxirako eman zuen¹⁶⁶.

¹⁶⁵ Rafa Diezen arabera “la unidad de acción ELA-LAB marco un punto de inflexión en nuestra consideración del espacio institucional como un ámbito mas de intervención en el objetivo de legitimar nuestras propuestas sociolaborales y económicas e incentivar, paralelamente, la lucha en las empresas y sociedad. Esa reflexión fue progresiva y pivotada en una praxis que íbamos analizando de forma permanente” (Diezi egindako elkarrizketatik).

¹⁶⁶ Instituzionalizazio honen aurrera pausuetatik kanpo utzi dugu Etengabeko Formakuntzaren gainean euskal eragileek lortutako akordioa. Izan ere, geroago aztertuko dugun bezala Gernikako Estatutuan oinarritutako

Hau ez zen soilik eremu sozio-ekonomikoaren errealitatea. 1987az geroztik Madrilek ez zuen eskumen bat ere transferitu. PSOEk 1992an Paktu Autonomikoak deitutakoak bultzatu zituen. Hauen helburua ‘bide moteleko’ autonomien eskuduntzak ‘bide azkarrekoekin’ parekatzea izan zen, batzuen eta besteen gaitasunak homogeneizatze aldera. Jarrera hau ez zen euskal instituzioen aldetik ondo jaso eta 1993ko uztailean Eusko Legebiltzarrak transferitu gabeko 54 eskuduntzen zerrenda bidali zion Gobernu espainiarrari. 1994ko maiatzean Lehendakariak zortzi eskumen berri lortu zituen, baina bat bera ere ez zen esangura handikoa¹⁶⁷.

Maila politiko zein sindikalean autogobernuaren instituzionalizazioaren alde indar abertzaleek 80. hamarkadan zehar eraikitako aliantza egitura ondo jotzen ari zen. Maila sindikalean, UGT zentralizazioaren aldeko apustu argian murgilduta zegoen; CCOOen kasuan biraketa hau 1995ean etorriko zen, bere estatu mailako Kongresua tarteko. Gainera, hamarkada aldaketarekin batera hauteskunde sindikalek indar korrelazio aldaketa ekarri zuten, gehiengo abertzale berri baterako aukerak zabalduz. Maila politikoan berriz, arestian aipatu bezala, eskumenen transferentzia berea ematen ari zen. Ordura arteko estatu mailako alderdi eta aliatu nagusiaren egoera nabarmen ahula zen ustelkeriak kasuak tarteko. 1996ko Hauteskunde Orokorrek PP eraman zuten gobernura eta bere gehiengo erlatiboak nazionalista katalan eta euskaldunekin akordioak egin behar izatera. Autogobernuaren bideak uzta txikia jaso zuen elkarlan honetatik, ordea.

11.2. Protestarako bitartekoen kudeaketa

Errepertorio gatazkatsuak elkarri zerbait aldarrikatzeko borrokan ari diren identitateen eskura dauden errutina multzo mugatuak lirateke (MTT, 2005). Della Porta eta Dianiren (2011) arabera, protesta motak hiru irizpideen arabera sailkatu daitezke: *erradikaltasunaren* arabera, *izaeraren* arabera (*politikoak* edota *kulturalak*) eta *barne logikaren* arabera (*kaltea*, *kopurua* edota *konbentzimendua*).

autogobernu ereduaren mugen adibide paradigmaticoa suertatuko baita.


¹⁶⁷ Tartean Bitarteko eta Ustiapen Hidraulikoak, Marina Zibileko Goi Ikasketak, lan elkarte anonimoak, itsas-kirol ikasketak, instalazio erradiaktiboen ingurukoak, interes orokorrekoak ez diren portuetako zama lanak, eskola profesionalak, komunikabide sozialak edota nekazari kalitate eta iruzurraren aurkako defentsa (“Transferitu gabeko eskuduntzen negoziazioaren lehentasunen inguruko txostena”, Eusko Jaurlaritza -2001-)

Gure kasura ekarriz, eta baliatutako protesten *erradikaltasunari* helduz, sistemak araututako ohiko protesta ekimenetatik hasi eta sistemaren onargarritasunaren mugak gaindituko dituzten ekintza bortitzetara doan abaniko zabal batekin aurkituko gara. Continuum honen mutur konbentzionaletik hasita, hamarkadetan zehar nagusitu zaigun manifestazio ereduaz harago, sistemaren onargarritasunaren baitan kokatzen ziren bestelako protestarako erreperitorioarekin aurkitu gaitzke: espazio publikoaren okupazioa dakarten moldeetatik hasita (elkarretaratze, giza-kate, kotxe-karabana, ...), eskaeren zabalkunderako bitartekoetatik pasa (kartelgintza, afixak, prentsaurrekoak, ...), instituzioetan parte hartzetik iristen direneta (hauteskunde zerrenden osaketa, udaletako mozioak edo batzarrak, ...). Azken honi lotuta 80. hamarkadan ezker abertzalearen presentzia instituzionala udaletara mugatuko bada 1991an egindako gogoetaren harira bera zabaltzeko apustua egin zen; beti ere, era “ez iraunkor, ezta normalizatuan (...) instituzio hauen eta bera sostengatzen duten alderdi politikoaren deslegitimazioari begira”¹⁶⁸. Hortaz, bere aldarrikapenen anplifikaziorako bitarteko gisa ulertu dezakegu.

Ekintza zuzeneko tekniken erabilpena bigarren atalase batean kokatu dezakegu. Bide honek garapen apala izan zuen aztertzen ari garen garaian; frantses produktuen aurkako boikota edota bertako produktuen aldeko kanpainak salbu. *Bortxarik gabeko ekintza ilegalak* hirugarren maila batean kokatu ditzakegu, 90. hamarkadaren lehenengo erdialdean intsumisoaren aldeko mugimenduak edota hamarkadaren bigarren partean presoekiko elkartasunezko ekimenak burututakoak bezala.

Baina atalase hauek marrazten dituzten mugak hainbatetan lausoak izango dira, kasu askotan protesta ekimen berbera batetik bestera desplazatuko delarik. Horrela protesta forma konbentzional bezala hasi zitekeen manifestazioa, poliziekin liskarraldietan bukatu zezakeen; edota kaleko manifestazioaren formatu arautua hainbatetan agintariei baimenik eskatu gabe ematen zirenez (i)legalitatearen atalasea zehartu ohi zuen. Horren erakusgarri 90. hamarkadan zehar lau herrialdeetan eman ziren mobilizazioen azterketa egiten duen hurrengo grafikoak:

¹⁶⁸ *El País*, 1991-03-08.



11.3 grafikoa: Manifestazioen bilakaera Hego Euskal Herrian 1994-2001 epealdian bere izaeraren arabera (Iturria: Barne Ministerioa; elaborazio propioa).


Gerora sakonago aztertuko dugun bezala, hamarkadaren erdialdean mobilizazioen kopuru orokorren eta, batez ere, euskal protestaldiari lotutakoaren gorakada nabarmena eman zen. Baina mobilizazioen izaerari dagokionez hainbat ideia azpimarratu ditzakegu. Alde batetik, komunikatutako eta ez-komunikatutako mobilizazioen arteko aldea; esan bezala, bertan garatutako mobilizazio eredia konbentzionala edo arautua izatetik harago izaera urratzailea erakusten zuen, legeak exijitzen zuen komunikazioa kasu gehienetan baztertuz¹⁶⁹. Baina aldi berean, ezker abertzaleak egiten zituen deialdiei (kasu honetan, ‘errepresioa/presoei lotutakoak’ epigrafearen baitan kokatu ditzakegunak) egotzi ohi zitzairen izaera liskartsua aztertu nahi badugu, istiluetan¹⁷⁰ bukatzen zirenen eta hauen arteko aldea nabarmendu dezakegu; orokorrean liskarretan bukatzen zirenak gutxiengoa izanik. Gainera aipatzekoa da 1995-1997 epealdian (mobilizazio kopuru orokorrak hazkunde handiena duenean) liskarretan bukatzen diren manifestazioek behera egin zutela; hauen gainean eman zen kontrol polizialaren hazkundera, parte hartzaileen jarrera aldaketa edota segurtasun indarren erabakia horren atzean dagoen argi izan gabe.

Baina ezin ukatu euskal oldarraldia ezaugarritu duen protesta molderik egon bada hori kalte material edota pertsonalak eragindako *indarkeriazko ekintzak* izan direla. Tillyk (2007b) ‘deseroso’

¹⁶⁹ Barne Ministerioaren urtekarietatik ateratako datu hauek, grafiko honetan aztertu dugun epealdian (1994-2001) EAEk eta Nafarroak zenbaki orokorretan Estatu mailan komunikatu gabeko tasa altuena erakusten zuten. Ez bakarrik aztertzen ari gara protesta zikloari *zuzenean* lotutako mobilizazioen artean, bestelako aldarriak (ekologistak, lanari lotutakoak, ...) jasotzen zituztenetan ere, mobilizaziorako kultura ‘ez-arautu’ batez hitz egin dezakegularik.

¹⁷⁰ Arestian aipatutako urtekarietan ‘istilu’ bezala jasotakoaren artean bide edo trenbide mozketak, barrikadak, instalazio ezberdinei eragindako kalteak, bortxazko okupazioak bezalakoak barnebiltzen dira; baina baita, segurtasun indarren parte hartze hutsak, azken hauen probokazioak edota ageriko arrazoirik gabeko esku hartzeak protesta mugimenduen jazarpenarako ohiko bitartekoa izaten direlarik.


bezala izendatzen dituen fenomeno hauek bi irizpideen arabera sailkatuko ditu: ekintzaileen artean epe motzean kaltea eragiteak duen garrantzia eta biolentzia erabiltzen duten ekintzaileen artean dagoen koordinazio maila. Bi ardatz horien arabera ondorengo irudian tipifikatzen diren sei protesta eredu nagusi ezaugarritzen ditu:



11.2 irudia: Bortxa kolektiboaren tipologia (Tilly, 2007b: 15).

Horrelako eskemak gure kasura ekarri ahal izateko gehiegi behartu gabe, gurean eman den biolentzia kolektiboaren eredia grafiko horren goiko eta eskuineko partetik gertu kokatu dezakegu. Hau da, kaltea eragiteari emandako garrantzia altua eta ekintzaileen arteko koordinazio ertain-altua. Tillyk eskemaren hainbat aldagai gurera egokitu beharko genituzke. Esaterako, negoziazioen apurketa edota sakabanatutako erasoen mekanismoak sortutako kalteei emandako garrantziaren ardatzean maila baxuan kokatzen baditu ere, gurean eskuinerago kokatu ditzakegu, kaltea sortzeari emandako garrantziaren isla. Aljerreko elkarriketen ostean emandako eskalada militarren areagotzeak edota 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera kale erasoek hazkundeak hartutako garrantzia horren erakusle izan daitezke.

Protestarako ekintzen *erradikaltasun* maila, hauei egotzitako barne logikarekin lotuta egon ohi da; gure kasuan, kaltearen logikak izan duen garrantziari. Bitarteko bortitz hauen bidez ekintzaileak sistema politikoaren eraginkortasuna zalantzetan jartzen saiatuko dira, zuzeneko kalteak eraginez eta eguneroko bizitza arrunta aztoratuz. Ekintza biolentoen errepertorioa zabala izango da. Logika honi emandako garrantziaren adierazle, bi mota aipatuko ditugu laburrean: heriotza eragindako atentatuak eta kale erasoek izango duten zabalpena.



11.4 grafikoa: ETak hildako lagunen kopurua 1990-2001 (Iturria: Arartekoa; elaborazio propioa).

Lehenengoa azaltzeko 90. hamarkadan zehar heriotza ekarri zuten atentatuak biltzen duen goiko grafikoa baliatuko dugu, bertatik hainbat ondorio ateraz. Lehenik, kopuru orokorren bilakaerari erreparatuko diogu, ia hamarkada hasieratik bukaera bitarte emandako beheranzko joera nabarmenduko dugu¹⁷¹. Bilakaera horretan gaitasun polizialak izan zezakeen eraginkortasunean sartu gabe, hamarkada hasierako kopuru altuak nagusiki bi aldagaiei erantzuten ziela esan dezakegu. Batetik, Aljerreko negoziazioen apurketari. Horrela, Tillyk (2007b) aipatzen duen *apurtutako negoziazioen* mekanismoa aktibatzen denean ekintzaileek beraien ekimenak areagotzera jo ohi dute, gehienetan negoziazioak hasi aurretik baino intentsitate handiagoarekin, apurketaren zama sistemaren gainean utzi eta etorri daitekeen etorkizuna jasangaitza bihurtuz; beti ere, sistema negoziatzera behartuz baino posizio hobe batekin. Logika honi erantzungo lioke hamarkada hasierako hilketa kopuru altua azaltzen duen bigarren aldagaiak; kotxe-bonbaren erabilerak, hain zuzen. 1990tik 1995era bitarte ETak hilko dituen 140 pertsonetatik 54 metodo honen bidez izango da. 1996 eta 1999 bitarte, aldiz, metodo honen bidez ez dira biktimarik sortuko.

Bigarren ondorio bat ekintzen jo puntuari lotuta dago. Hamarkadaren lehenengo urteei erreferentzia egiten dien zutabeei begiratzen baditugu bizpahiru kolore nagusitzen direla antzeman ahal izango dugu. Hau da, hildako gehienak Estatutuko Segurtasun Indarretako kideak (urdin iluna),

¹⁷¹ 1996an jaitsiera adierazgarri bat emango da. Kontutan hartu behar da urte horretan ETak astebeteko su-etena 'eskaini' ziola gobernuan sartu berria zen PPri; bi pertsona batera bahituak izan zituela; Ertzaintzak aurreko hilabeteetako ekintzak leporatzen zizkion ETaren komando bat atxilotu zuela Gipuzkoan edota ezker abertzalean aurreko urtean aurkeztutako Alternatiba Demokratikoaren sozializazioan murgilduta zegoela.


Armadaokoak edota berarentzat lan egiten zutenak (laranja) eta ‘besterik’ (urdina) epigrafearen pean bildu ditugunak izan zirela; azken hauetan, bestelako helburuei erantzuten ziotenak edota berezko helburu ez baina leherketaren ondorioz hildakoak (ikasleak, etxeko andreak, ...) bildu ditugularik. Hamarkadaren erdialdetik aurrera, aldiz, kopuru orokorren jaitsierarekin batera, koloreak ugaltzen direla nabarmendu dezakegu. Aldaketa hau jo puntuen dibertsifikazioari edota *erasoak orokortzearen* mekanismoari lotu diezaikegu. Horrela, garai horretan Estatuko Segurtasun Indarren edota militarren aurkako ekintzekin topatu bagaitezke ere, 1995tik aurrera botere judizialaren, ertzainen, Estatuko beste organoetako kideen eta, batez ere, alderdi politikoetako ordezkarien aurkako ekintzak ugaltu ziren. Hamarkadaren erdialdetik 1998an deitutako su-etenera bitarte joera aldaketa hori oihartzun handia izan zuten hainbat ekintzen bitartez azaleratu zuten; Gregorio Ordoñez, PPko Gipuzkoako burua edota Ramon Doral Ertzaintzaren inspektoreen aurkakoak, kasu. Baina batez ere, 1999 bukaeran emandako su-etenaren hausturatik aurrera nabarmena izan zen, berriro ere *apurtutako negoziazioen* mekanismoa berraktibatuz.

Kalte eragingo duten protestarako bitartekoak indartzearen logika horretan ere nabarmena izan zen 90. hamarkada zehar kale erasoek izandako bilakaera. Kaleko liskarrak ez ziren ez euskal gatazkaren bereizgarri bat, ezta soilik urte horietakoa ere. Historia hurbilean zehar mundu mailan eta euskal protestagintzaren eremu ezberdinetan oso presente egondakoa fenomeno baizik. Baina Mujikaren (2004: 449-451) arabera urte horietan berezko ezaugarri batzuk hartu zituen gurean:

- Sarekada eredu indartuko da. Estatuko Segurtasun Indarrek (ESI) espero duenean eraso orde, eraso non, noiz eta nola egin hautatzen hasiko da.
- “Gertakari bat (zergatia) – erantzuna (ondorioa)” eskema beharrean “herriaren zapalkuntza estrukturalak garrantzia handiagoa hartuko du”, nahiz eta hainbat gertakarien ondotik erasoak ugartu. “Testuinguru zehatzetik testuinguru orokorrera” dio Mujikak.
- Dinamika nagusia poliziarekiko enfrentamendua izatetik, sabotaje-ekintza izatera pasako dira.
- Bitartekoen izaera erradikalizatuko da kalteak biderkatzeko asmoz; batez ere suaren erabilerari lotutakoak: molotov koktelak, suziriak, camping-gasak, ...
- Sabotajeen helburuak ere zabalduko dira, helburua nagusia “Estatuko aparatu errepresiboak izatetik Estatuko botereak izatera pasaz”: kapitalismoaren “oinarriak diren guneak” (banketxeak¹⁷², aldi baterako lan enpresak, ...), Estatuaren esku dauden enpresa publikoak, ESI-en interesen aurkakoak, Ituneko alderdien eta komunikabideen aurkakoak, ...

¹⁷² 1990 eta 1996 bitarte egon ziren 3.903 sabotajeetatik 1.214 banketxeen aurkakoak izan ziren (Mujika, 2004: 450).

Azken ideia honi lotuta *jo puntuen zabalpenaren* mekanismo honek eragin kuantitatiboa ere izan zuen, hamarkadaren erdialdean sabotajeen kopurua nabarmen hazi zelarik.



11.5 grafikoa: kale erasoen bilakaera helburuaren arabera 1991-1996 epealdian (Iturria: Egin; elaborazio propioa).

Zentzu horretan, errepertorio hau ez da zerbait erabat berria izango; protestarako errepertorioa gutxitan izango da erabat berria. Bere garapenerako klabeak izango diren kideen artean metatutako ezagutza konpartituaren ondorio izango da. Aurreko bitartekoen moldaketa ‘sortzaileak’ edota errutina zaharren aldaerak baino ez dira; borrokan eta inprobisazioan eguneratutakoak (Tarrow, 1997). Kale erasoen helburuen zabalpen edota moldeen erabileraren aldaketak, esaterako, ekintza kolektiboaren berritasuna ekarriko zutenak izan ziren. Ekintza kolektibo honek harremanezko izaera ere izango du. Ekintzaileek bere eskakizunekin elkar-eraginean egongo dira; baita bere ekimenen oihartzuna jasoko duen publiko batekin ere; eta nola ez, autoritate publikoen ordezkariekin. Elkar-eraginezko izaera honek errepertorioari *performance* kutsua emango dio, molde honen eta bertan parte hartzen dutenen jendaurreko errepresentazio bat suposatzen duen heinean. Ekintzaileen irudikapen honek bat egin behar du protestarako mugimendu osoak bere buruaz egiten duen errepresentazioarekin. Beraz, protestarako bitartekoak mugimenduaren identifikazioaren parte ere izango da.

Protestagintzan dabilen edozein mugimenduk, protestarako bitartekoak aukeratzekoan *eraginkortasuna* eta *legitimitatearen* irizpideak kontutan izan beharko ditu horien hautaketa estrategikoa egiterakoan (Della Porta & Diani, 2011). Eraginkortasunaren ideia kaltearen logikarekin gehiegi lotzeak protestarako bitartekoen eta beraien gaineko ulermenaren

sinplifikazioaren arriskua nabarmen hazten du. Horrela, planteatutako estrategiaren *eraginkortasuna* negoziazio mahaiaren gainean jarritako hildako edota erretako banketxe kopuruarekin parekatzera ere iritsi zitekeen. Edota, *legitimitatea*, deitutako manifestazio nazionalen egindako zenbaketaren arabera izan zitekeelarik. Eskemak honek bere isla izan zezakeen sistemak protestagintzari aurre egiteko baliatutako jazarpen ereduan; *eraginkortasuna* egondako atxilotu kopuruaren arabera eta *legitimitatea* kontra-mugimendua osatzen zuten alderdien arteko batasuna adierazteko baliatutako hizkeraren irmotasunaren arabera neurtuz.

Protestarako bitartekoen *izaerari* dagokienez, eragin bikoitza antzeman ahal izango dugu. Izan ere, protestarako bitarteko hauen helburuak *politikoak* izango badira ere (negoizazioaren bitartez “kanpo errealitatea eraldatzea”), bere garapenaren exigentzia mailak (klandestinitatea, kartzela, deserria, ...) mugimenduaren barne balio sistema indartzea eskatzen zuen. Ariketa *kultural* bezala, komunitatearen eraketa eta bere balio sistema trinkotzea protestarako mugimenduaren lanaren zati handi bat hartzen zuen. Balio sistema honetan protestarako bitartekoen hierarkizazioa ohikoa izaten da, protestarako molde bakoitzari egotzitako garrantziaren arabera. Eginkizun honek baliatutako protestarako moldeen barne legitimazioaren funtzioa beteko du, beti ere, hierarkia horretan kokatutako moldeak elikatuko dituzten ekintzaileen harrobia mantentze aldera:

“Guk (ETAk) Euskal Herriak bizi duen gatazka egoera gainditzeko lan egiten dugu. Aurrean dugun Estatuari interesatzen zaio Erreforma Hego Euskal Herrian legitimatzea eta urte luzeetan ETAk praktikatzen duen borroka armatua izan da nagusiki legitimazio hori ebitatu duena, etsaiak berak onartzen digu hori egunero bizi dugun zapalketa egoeraren adierazgarri baita borroka armatua”.¹⁷³

Erradikaltasun maila altua erakusten duten protestarako bitartekoen erabilerak *kaltearen* eta *kopuruaren logika* lehian jarri ohi izan ditu, bata eta bestearen artean ‘komunikatutako basoak’ sortuz; zenbat eta kalte handiagoa sortu, orduan eta kopuru txikiagoaren babesa jasoko dela ulertuta. Ezker abertzalearen estrategian kaltearen logikak izandako pisuak kopuruaren logikan izan zuen eragina aztertzekoa da. Izan ere, ezker abertzalearen erakusleho nagusiak ziren kaleko mobilizazioen kopuruari eutsi bazion ere, 90. hamarkadan zehar jasotako bozka galera nabarmena izan zen. Sektore antagonikoen arteko lehia ebazteko ezker abertzaleak planteatutako eliteen arteko negoziazioaren estrategiak protestarako bitarteko hauen erabilera indartu zuen. Izan ere, estrategia honen agente nagusiek (ETA eta Estatu) negoziazio mahaian izango zuten indar posizioa ez zen

¹⁷³ ETArri egindako elkarrizketa; *Egin* 1993-04-18.

horrenbeste izango luketen babes sozialaren bidez aitortutako legitimitatearen araberakoa izango (*kopuruaren logika*); aurkariari eragindako higadurak erakusten duen norberaren jardunaren eraginkortasunaren araberakoa baizik (*kaltearen logika*). Eta besteari eragindako kaltea (materiala, fisikoa edota sinbolikoa) higadura hori sortzeko bide eraginkorra bezala ulertzen zen. Gainera prozesu politikoaren aitzindaritza funtzioa betetzen zuten bi abangoardia hauek (ETA eta Estatua) ez ziren estrategia hau baliatzearen ondorioz kopuruaren logikan (babes sozialean) eman zitezkeen atzera pausuen hartzaile zuzenak izango; bi elite hauek sostengatzen dituzten alderdiak ziren babes sozialaren galeraren kalte zuzenak pairatuko zituztenak.

Eskema honetan *konbentzimenduaren logikak*, errealitate politikoaren ulermenerako jendarte osoari begirako interpretaziorako marko hegemonikoa eraikitze baina, norberaren komunitatea berrelikatzeko funtzio nagusia bete zuen. Edozein kasutan, ezker abertzalearen estrategia abangoardia (armatu) batek norabidetutako prozesu *leninistaren* eta sistema berri baten beharraren ideia hegemonizatu nahi zuen eredu *gramsciarraren* arteko oreka zailean mugitu zen. Izan ere, 'sistema berri baten beharraren' ideia hori jendartean nagusitzeko urrats garrantzitsuenetakoa alderdi nagusiek ezarritako anti-terrorismoaren marko diskurtsiboa eraitea izango zen; eredu abangoardista horrek zailtzen zuena, hain zuzen ere.

Della Porta eta Diani-ren (2011) arabera, protestagintzan dabilzan mugimenduek baliatzen dituzten moldeetan hiru logikak (*erradikaltasuna, izaera eta barne logika*) egoki uztartu beharko dituzte beraien estrategia arrakastaz garatu nahi badute. Ordura arteko desorekek 90. hamarkadaren erdialderako ezker abertzalea ere gogoeta horretan murgilduta zegoen.

11.3 Markogintza eta nortasunen kudeaketa

Aukera Politikoaren Egituraren atalean jada aztertu dugu garai horretako markogintzaren elementu nagusi batzuk aliantza eta aurkaritza sistemen analisiari lotuta. Jarraian, ordea, jada aipatutakoak ez errepikatze eta diskurtsogintzaren elementuetan sakontzen jarraitzeko, atal metodologikoan markogintzaren azterketarako planteatu dugun taula gure kasura eramaten saiatuko gara.

Horretarako, Ajuria Eneako Mahaiak sortutako diskurtsuari erreparatuko diogu. Itunaren diskurtsogintzak errealitate politikoa interpretatzeko marko komuna ezartzea zuen helburu, marko

horren inguruan jendartearen identifikazioa sendotzeko. Prozesu hau nola eman zen aztertzeko Itunaren bileretan alderdien artean adostutako komunikatuei erreparatuko diegu. Ikerketa hau ez da prozesu erraza izango, horregatik inguruabarrari lotutako bestelako hainbat elementu ere aintzat hartu beharko ditugu. Bilera guztietatik ez ziren adostutako komunikatuak atera. Gainera, kasu askotan dokumentu horiek benetako oreka-ariketak izaten ziren. Gehienetan alderdi politikoetako ordezkari ezberdinek egiten zituzten adierazpenekin zehaztu edota osatu behar ziren, hainbatetan adierazpenok kontrajarriak izatera iristen zirelarik. Kontsentsua eta norberaren posizioak mantendu behar diren arteko joko honetan mantendu zen Ituna iraun zuen hamar urteetan zehar.

Horregatik, adierazpen ezberdinen itsaso batean ez galtzeko, Itunaren dokumentu bateratu hauetan zentratzen saiatuko gara, hauei 'gutxieneko izendatzaile komunaren' izaera emanez. Dokumentu hauen mamia ere oso ezberdina izaten zen. Kasu askotan, testuinguru zehatz batean gertatutakoaren gaineko balorazio laburra baino ez zen egiten; beste hainbatetan, irismen luzeagoko irakurketak egiten ziren. Batzuetan eta besteetan, behin eta berriro errepikatzen diren hainbat aldagai aurkituko ditugu. Bederatzi urteetan zehar (1988tik 1997ra) burutu ziren 32 bilera ofizialetan garapen bat ere antzeman daitekeela esan behar da. Hasieran aipatu bezala, atal honetan 1989tik 1994ra bitarte landutakoak aztertu ditugu, azken hiru urteei dagozkienak hurrengo atalerako utziz. Bertan arreta nagusia 1988ko urtarrilaren 12an sinatutako sortze-agirian jarri dugu, berak finkatuko baititu hurrengo urteetako markogintzaren elementu nagusiak. Hurrengo komunikatuei dagokienez, errepikatzen diren elementuetan eta batetik bestera inkorporatzen diren elementu berrietan egin dugu azpimarra, diskurtsogintzaren analisirako ikuspegi ahalik eta osatuena izate aldera.

11.3.1 Diagnostikoa.

Sortze-agiriaren egiturari dagokionez, sei orrialdeetako dokumentua da. Bi orrialde t' erdietako sarrera luzean, jokoan zeuden interes ezberdinen isla edo, hainbat irakurketa, eskaera edota salaketa jasotzen ziren antolaketa definitu bat jarraitu gabe. Ondoren agiria bera osatzen zuten hamazazpi puntuen zerrendatzea egiten zen, sarreran eta zerrenda honetan hainbat elementu errepikatzen zirelarik.

Fundatze-dokumentu honen mamia helduta, markogintzaren azterketarako planteatu dugun taularen ikuspegitik, *diagnostiko* argia bezain zehatza finkatzen zuen: euskal jendartearen ematen zen

arazo nagusietakoa terrorismoa zen, bere kausa edo eragile nagusia ETA zelarrik. Izan ere, problematizazioa edozein diskurtso politikoaren lehenengo urratsa izango da. Agiriaren lehenengo hiru lerroak arazo horren identifikaziorako baliatzen zituzten:

“Transcurridos casi once años desde las primeras elecciones democráticas, el terrorismo es un fenómeno que persiste entre nosotros. Su erradicación sigue siendo hoy, por tanto, un objetivo común fundamental de la acción de todas las instituciones y fuerzas democráticas”.

Esan gabe doa, ‘terrorismoaren’ kontzeptuak ETAREN indarkeriari erreferentzia egiten ziola. Baina *arazoaren identifikazio* honetan Itunak kategoria hau malgutasun handiarekin baliatu zuen. Izan ere, lehenengo agirietan ETAREN jardun armatuari erreferentzia zuzena egiten bazitzaion ere, ondorengo agirietan bestelako adierazpide biolentoak ere azpimarratu ziren. Joera hau Ertzaintza eta ezker abertzalearen arteko tentsioak gora egin zuen urteetan nabarmena izan zen. Honek ‘terrorismoaren’ kategoria zentzu bikoitzean zabaltzea ekarri zuen: batetik, kategoria honen parekide bezala bestelako kontzeptu batzuk ere baliatzea (batzuk generikoagoak -‘biolentzia’, ‘indarkeria’, ...- eta beste batzuk izaera moralistagoakoak -‘fanatismoa’, ‘jarrera faxistak’, ...-); eta bestetik, batez ere komunikabideen anplifikazioaren eraginez, ‘terrorismoztat’ hartu zitezkeen ekimenen abanikoa zabaltzea. Azken ideia honi lotuta, markogintza politikorako baliatzen ziren kategoriak eremu juridikora automatikoki itzultzea ekimen hauen tipifikazio penala larriagotzea ekarriko zuen. Lehenik, 90. hamarkadaren bigarren erdialdean, ugaritu ziren kale erasoen tipifikazioari begira; eta ondoren, XXI. mendean sartzearekin batera, sektore sozial batzuen jardura politikoa edo zibila jazartze aldera.

Arazoaren identifikaziorako kategorien zabaltze eta lausotze honek, ondorioz, eragin zuzena izan zuen *kausaren identifikazioan*. Izan ere, sortze-agirian aipatutako arazoaren eragile bezala ETA kokatzen bazen, ondorengo komunikatuetan kausa erakunde armatuaren mugetatik harago kokatzen hasi zen. Aipatu behar da jatorrizko dokumentu honen 8. puntuan “ordezkaritza parlamentarioa” zutenei erreferentzia orokorra egiten zitzaiela “erantzukizun instituzionalak” bere gain hartzeko. Baina ez zen ia urte t’ erdi beranduagora arte (Aljerreko elkarriketen porrota eman zenean) erantzuleen izendapen hori esplizitatuko, prozesu horretan HBk eta KASEk izan duten erantzukizun politikoa salatuz. Hortaz, identifikatutako arazoaren eragiletzaren gainean prozesu bikoitza eman zen: batetik, bere *zabalpena* (erantzuleen katea zabalduz), eta bestetik, beraien *zehaztapena* (erantzuleak nominalizatuz). Kaltearen kausa identifikatzerakoan ematen zen joera bikoitz hau polarizazioetan ohikoa izango da, tartean gelditzen diren eragile epelak dekantatzera behartzeko

asmoz. Zentzu horretan, ez da itunkideen patrimonioa izango, inplikaturako bi alde nagusien partetik eman zen. Prozesu hauetan kaltearen eragileari *karga morala* egotzi ohi zaio, egoera *dena eta beharko lukeenaren arteko aldea* nabarmenduz¹⁷⁴.

11.3.2 Pronostikoa.

Diagnostiko borobil honen muina ‘biolentzia’ bazen, *pronostikoan* finkatu zen ondoriozko helburu nagusia ‘baketzea’ zen. Deigarria suertatu daiteke ‘bakea’ hitza behin baino ez dela aipatzen sortze-dokumentu osoan zehar, bera ‘baketzearen’ ideiatatik ordezkatzen delarik (zortzi aldiz errepikatzen dena). Azken izen honek dakarren agentzia azpimarratzea litzateke asmoa. Hau da, ‘bakea’ helburua bada, bertara iristeko egin beharreko prozesuan jarri nahi izan zen indarra. Baina *baketze* hori nola gauzatu? ‘Bakea’-ren marko orokorra bi azpi-markoen gainean gauzatu nahi izango zela esan dezakegu: Gernikako Estatutua eta politika anti-terrorista.

Lehenengoari dagokionez, dokumentuaren bigarren puntuan bertan ‘baketze’ hori lortzeko ezinbesteko bide gisa Gernikako Estatutuaren “onarpena edo men egitea” planteatzen zen. Fundatze-dokumentu honetan Estatutuaren inguruko nondik norakoak tarte zabala hartu zuen, hurrengo urteetako agirietan pisu nabarmena galdu zuelarik markogintza anti-terrorista erabat nagusituz. Estatutua balioan jarri nahi zen bere jaiotzaren *testuinguru historikoan* lortutako adostasuna goraiatuz. Adostasun hau euskal jendartearen gehiengo zabal baten borondatea isla izanik, ‘biolentzietan’ ordezkatzen zuten asmoekin kontrajarri nahi izango zen. Eztabaida ‘gehiengoen eta gutxiengoen’ arteko lehiaren terminoetan kokatzea arrakastarako aukeren markoztatzean baliatzen den markogintzaren ohiko teknika izango da. Horrela gutxiengoan kokatzen diren sektoreei *interes berekoiak* edota karga moral negatibokoak (fanatismoa, totalitarismoa, ...) egozte errazagoa delarik. Dokumentuaren sarrera luzearen bukaeran hiru lerroetan baino ez zen aipatzen Estatutuaren gaineko kezka bere betetze eta garapen maila eskasagatik. 2.b puntuan kezka hauek arindu nahi izan ziren alderdi sinatzaileen aldetik bera osatzeko konpromisoa adieraziz.

¹⁷⁴ Jatorrizko itunaren bigarren paragrafoak, esaterako, horrela zioen: “El combate contra el terrorismo es, por encima de todo, el combate de la razón frente a la sinrazón, de la vida frente a la muerte, de la libertad frente a la imposición. Es, en consecuencia, el esfuerzo por hacer prevalecer los principios éticos en que se asienta la convivencia en una sociedad civilizada ante quienes lo niegan”.

Bigarrenari dagokionez, ‘baketzea’ politika anti-terroristaren garapenari lotuta agertzen zen. Sortze-agirian kategoria bera esplizitatuko ez bazen ere, bera garatu ahal izateko urratsak zehazten ziren 3.etik 6.era eta 9.etik 11.era doazen puntuetan jasotzen ziren neurriekin (poliziagintza, jurdikatura, presoak eta bestelakoak; jarraian aztertuko ditugu). Horrela, Itunaren bigarren eginkizuna, politika anti-terrorista honen gaineko adostasuna lortzea bihurtu zen.

Zentzu honetan Ajuria Eneako Itunak legitimazio funtzio bikoitza bete zuen. Batetik, Gernikako Estatutua bakea lortzeko ezinbesteko bide gisa aurkeztuz, Ituna bera *sistemaren legitimaziorako* tresna bihurtuko zen. Bakea lortzeko bigarren bidea gobernuak adostutako politika antiterrorista zenez, Ituna ere administrazioetatik bultzatutako *politika publikoen legitimaziorako* tresna izango zen; zentro-periferiaren arteko gatazkaren kudeaketa anti-terroristari dagokionez behintzat. Horrela, Itunak legitimazioaren iturria zabaldu nahi izango zuen bera osatzen zuten alderdi politikoetatik harago. Horretarako 14. eta 15. puntuen bitartez deia egiten zitzaizen gainontzeko sektore sozialei (elkarte herritarrak, sindikatuak, enpresariak) eta instituzioei bera babesteko.

Legitimazioaren zirkulua ixteko, Estatutua gehiengoaren borondatearen islarik argiena bihurtuta, *kanpoan* gelditzen ziren eskaerak ere barneratu ahal izateko mekanismoak ere jasotzen zituela nabarmendu nahi izan zen. Ajuria Eneako agiriak sistemak bere burua eguneratzeko oinarria eta bidea mugak ezartzen zituela nabarmentzen zuen: Estatutuak finkatutakoa eta Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarria (Itunaren 2.c puntua). Hortaz, itunkideek sistemak berak bere burua eguneratzeko aukera zabaldua bere bokazio hegemoniko edo oro-harrapatzailea azpimarratuko luke, kanpoan gelditu nahi izatea asmo irrazional edo patologikoekin lotuz. Horrela, Ituna zentzu bikoitzean *irekita* geldituko litzateke: batetik, ezker abertzalea barneratu ahal izateko, eta bestetik, bere buruaren erreformatu ahal izateko. Zentzu honetan, Ajuria Eneako Itunak *barneratze* eta *birbizitze markoen* funtzio bikoitza beteko luke. *Barneratzea* kanpo gelditzen ziren eragileen inkorporazioa bilatzen zuen neurrian; eta *birbizitzea* sistemaren egonkortasuna eta berak ezartzen dituen arauak jokaleku politiko bakar gisa proiektatzen zituelako.

Aipatutako bi helburuek (‘sistemaren legitimazioa’ -Estatutua- eta ‘politika publikoen legitimazioa’ -politika antiterrorista-) *arrakastarako aukeren marko* egoki bat beharko zuten. Arrakastarako aukera horiek bi ildo nagusien gainean garatu zituen: batetik, arestian aipatutako *kopuruaren logika* (hau da, ‘gehiengoa vs gutxiengoaren’ markoa); eta bestetik, *batasunaren eta disidentziaren logika*. Lehenengoari dagokionez, labur bada ere aipatu dugu jendartearen gehiengoaren borondatearen ainguraleku horrek egitasmoari ematen zion sinesgarritasuna. Arrakastarako bigarren giltza, berriz,

norberaren barne kohesioa azpimarratu eta parean dagoenaren barne zatiketak nabarmentzean zetzan. Aliantza eta aurkaritza egituren azterketan jada aztertu dugu Itunak alderdien arteko barne arrakalak ekiditeari emandako garrantzia. Urteak aurrera egin ahala, agiriz agiri ildo honek garrantzia handiagoa hartu zuen, batez ere une batzuetan alderdi ezberdinen arteko desadostasunak agerikoak egiten zirenean. Horrela, Itunaren komunikatuetan ohikoak bihurtu ziren “bloke demokratikoa”¹⁷⁵, “alderdien mezuen homogeinizazioa”¹⁷⁶ edota “kontsentsu demokratikoaren”¹⁷⁷ aldeko deiak.

11.3.3 Motibazioa.

Bi ildo hauek finkatutako pronostikoa gauzatuko zenaren berme gisa proiektatzeaz gain, *motibaziorako markoaren* hankak ere baziren. Izan ere, gehiengoaren logikaren bidez, sinatzaileen borondatea jendartearen borondatearekin parekatuz eta itunkideen arteko barne batasuna nabarmenduz mugimenduak bere *auto-legitimazioa* bilatu nahi baitzuen; eta parean dagoenaren barne disidentziak nabarmenduz, karga morala egotziz edota patologizatuz arerioaren markoztatze negatiboa egiten zen.

Markogintza arrakastatsu batek jendartea motibatu nahi badu planteatzen den arazoa (‘terrorismoa’) konpontzeko ‘gehiengoen borondatearen’ ideia orokorra baino zehatzagoak izango diren *proposamen egingarriak* ere mahai gaineratu beharko ditu. Proposamen hauek *errepresiorako mekanismoen estutzetik* edota *arintzetik* gauzatu ziren; hau da, politika antiterroristaren garapenetik. Horrela fundatze-dokumentuak ekintza polizialaren (3. eta 4. puntua) eta nazioarteko erakunde eta botere judizialaren lanaren (5. puntua) aldeko jarrera hartuko du, hertsadura bitartekoak gogortzeko eskatuz; beti ere, giza eskubideak errespetatzeko deia eginez (6. puntua). Baina aldi berean, planteatutako helburuak erdiesteko hertsadurarako mekanismo hauen arintze neurriak ere aurreikusi ziren: biolentziaren erabilerari uko egiten zioten presoak birgizarteratzeko aukera aurreikusiz (9. puntua), Estatua eta “biolentzia uzteko asmoa erakusten duten” sektoreen arteko balizko elkarrizketak bultzatzeko konpromisoa agertuz (10. puntua) edota legedi berezia derogatzeko eskatuz (11. puntua). Hain zuzen ere, adostasunez inoiz garatu ez ziren azken neurri hauen gaineko

¹⁷⁵ *Diario Vasco*, 1989-01-13.

¹⁷⁶ *Ibidem*.

¹⁷⁷ *Diario Vasco*, 1991-11-23.

ikuspegi ezberdinek 90. hamarkadaren bigarren erdialdean areagotu ziren desadostasunerako abiapuntua jarri zuten.

Honela eskematizatu dezakegu Ajuria Eneako Itunak nagusitu zuen markogintzaren atal ezberdinak:

11.1 taula: *Ajuria-Eneako Itunaren markogintza*

| Diskurtsoaren atalak | Markogintzaren dimentsioa | Markogintzaren teknika |
|----------------------|--|---|
| Diagnostikoa | Biolentzia politikoaren problematizazioa: 'terrorismoa'. | <ul style="list-style-type: none"> Nominalizazioa: 'terrorismoa'. Bere kokapena zabaldu: jardun armatutik bestelako adierazpide biolentoetara. Gaiaren amplifikazioa. Eztabaiden dualizazio: arrazoa vs arrazoi-eza, bizitza vs heriotza, askatasuna vs inposizioa, ... |
| | Arazoaren kausa eta eragileak bilatu: ETA eta bere 'ingurunea' | <ul style="list-style-type: none"> Erantzukizunaren zabalpena eta zehaztapena: HB-KASen ardura politikoa. Karga morala egotzi edo patologizatu: 'fanatismoa', ... |
| Pronostikoa | Helburuak markoztatzea: "baketzea": <ul style="list-style-type: none"> Gernikako Estatutua; sistemaren legitimazioa. Politika antiterrorista; politika publikoen legitimazioa. | <ul style="list-style-type: none"> Bakea, ETAREN jardunaren amaiera bezala identifikatu. Estatutuaren onarpena, 'baketzerako' ezinbesteko tresna gisa. |
| | Arrakastarako aukerak markoztatzea | <ul style="list-style-type: none"> Ituna jendartearen gehiengoaren borondatearekin identifikatu. Norberaren barne batasuna azpimarratu. Parekoaren disidentziak nabarmendu. |
| Motibazioa | Itunaren auto-legitimizazioa | <ul style="list-style-type: none"> Bakea, balio goren gisa proiektatu. Gehiengoaren logika. Bakegintzako eragileekin zubigintza. |
| | Ezker abertzalearen markoztatzea | <ul style="list-style-type: none"> Interes berekoiak egotzi. 'Inposizioa' leporatu. |
| | Konponbiderako proposamena: politika | <ul style="list-style-type: none"> Hertsadura mekanismoen |

| | | |
|--|------------------|--|
| | anti-terrorista. | <p><i>estutzea</i>: poliziagintza, judizializazioa eta nazioarteko elkarlana.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hertsadura mekanismoen <i>arintzea</i>: presoak birgizarteratu eta biolentziaren amaiera elkarriketatua. |
|--|------------------|--|

Laburbilduz, Itunak ‘terrorismoaren’ *frame*-a nagusitzeko markoen lerrotzerako (*frame alignment*) funtsezkoak ziren hiru prozesuak martxan jarri zituen: anplifikazioa, hedatzea eta eraldaketa. *Anplifikazioaren* helburua momentu batera arte jendartean dauden ikuspegi ezberdinak edo zalantzakorrak argitu eta bateratzea izango da (Snow, 1986). Goffman-en (1974) arabera, bizitzaren eguneroko gertaerak sarritan anbiguetate edota ziurgabetasunari lotuta agertzen zaizkigu; kasu horietan, mugimenduaren markogintzak gertaera hauek argitu edo birbizitzeko balio izaten dute. Gure kasuan ETAREN ekintzen aurrean ematen zen errutinizazioa edota axolagabekeriaren aurrean jendartearen posizionamendua bilakatu zen, ordura arte gaiak izan ez zuen proiektzio eta oihartzun bat emanaz. Horretarako, komunikabide eta eragile politiko, sozial eta instituzional ezberdinen lerratzea bilatu zelarik.

Bigarrenik, Itunak ‘terrorismoaren’ *markoa hedatu* zuen. Izan ere, hainbat kasutan markogintzaren agenteentzat itxuraz bere hasierako helburuekiko bigarren mailakoak izan daitezkeen bestelako eskaera edo hartzaileetara zabalduko dituzte beraien mezuak. Hasierako komunikatuetan ETA eta bere ekintzak baziren markogintzaren erantzule nagusiak jo puntua zabaltzen joan zen, HB, KAS eta bestelako antolakunde zibilak erantzule politiko gisa kokatuz.

Eta hirugarrenik, anplifikazioaren eta hedatzearen ondorioz, jendartearen sektore zabaletan nagusi zen *markoaren eraldaketa* bat ere bilatu zela esan dezakegu. Diktaduraren azken bi hamarkadetan markogintza antifrankista sendoa artikulatu zen. Marko horrek demokraziaren kategoria edo adierazle hutsaren inguruan artikulatzen zen. Errealitate politikoaren marko interpretatzaile globala zen, gertaera guztiak ikuspegi horren arabera interpretatuak zirelarik. ETAK, mugimendu goiztiar bezala, markogintza hegemoniko horretan aitzindaritzara papera jokatu zuen. Trantsizioarekin batera, antifrankismoaren markoa krisian sartu zen, aurreko erregimenarekiko benetako haustura ikusi ez zuten hainbat sektoreengan *durunda (resonance)* maila bat mantendu zuelarik. Zentzu horretan, ezker abertzaleak KAS alternatibaren inguruan artikulatutako markogintza demokratikoa antifrankismotik zetorren markogintzaren luzapena bilakatu nahi izan zuen. 80. hamarkada osoan

zehir ezker abertzalearen eskutik iraun zuen markogintza hau zen, hain zuzen ere, Itunak eraldatu nahi zuena; jada hegemonikoa ez bazen ere, sistemaren legitimazioa kolokan jartzen zuen sektore sozial batean mantentzen zena.

Horrela, *master frame* edo marko nagusiak ('terrorismoa') inguratzen gaituen errealitatea sinplifikatzearen funtzioa beteko luke, bere interpretaziorako ikuspegi bateratuak eskainiz. Errealitatearen interpretazio komun honen inguruan identifikazioak sortzen dira; instituzioekin hartu-emanak inplikatzeko dituzten heinean politikoak izango direnak. Identitate hauek *inkrustatuak* edo *urrunak* izan daitezke (MTT, 2005: 149). Gurea bezalako polarizazio handiko egoeretan, jendartearen eremu geroz eta zabalagoak identifikazio inkrustatuetatik gertuago sentituko zuelarik bere burua. Honek, ardatz teoriko baten bi muturretan kokatuko diren *identitate pareak* sortzera eraman ohi du. Gure kasuan, 'demokrata' eta 'biolentoen' kategoria ezagunen inguruan artikulatu nahi izan zirenak.

Baina Ajuria Eneako Itunak errealitate politikoaren interpretaziorako marko bat eskaintzea baino zerbait gehiago egin zuen. Izan ere, atal metodologikoan aipatutakoaren harira, *markoek* gertakari zehatzen ulermen kolektiborako tresnak badira, *diskurtsoek* marko hauek sistematizatu eta interpretazio horiek norabidetzeko gida moduko bat eskainiko dute (Errejón, 2012). Horrela, *ideologiek* planteatzen duten osotasun eta bateratasun bokaziora iritsi gabe, Itunak markoen bidez atzemandako gertaera politikoaren interpretazioa norabidetzeko *diskurtso* bat sortu zuela esatea egokiagoa litzateke. Nora norabidetzeko? Trantsiziotik sortutako egituratze instituzionalaren onarpena orokortzeari begira.

Itunkideak, aldiz, markogintza arrakastatsua baldintzatuko dituzten hainbat elementuekin topo egin zuten (Snow, 1988). Batetik, *mugapen estrukturalak* edo jendartearen eremu batean nagusia zen mundu ikuskera. Izan ere, 80. hamarkada bukaerako hauteskunde emaitzek erakusten zuten bezala, euskal jendartean bazegoen sektore soziologikoa erreforma politikotik heredatutako ordenamendu politikoarekin bat egiten ez zuena eta antifrankismoan hazitako erresistentziarako kulturari eusten ziona. Bestetik, gertaera sozialak jendartearen aldetik nola hautematen diren ikusi araziko dizkiguten *mugapen fenomenologikoak* izango ditugu. Zentzu honetan, itunkideen aldetik "sozialki aurreratutakoa" balioan jarri edota "biolentoen porrota" agerian uzten saiatzeko egindako etengabeko adierazpenek, bortxa politikoaren fenomenoarekin ez bukatzeaz gain, bere zabalpena eta soziologikoki bere oinarriari eusten zion gizarte sektore baten existentziarekin egin zuten topo.

Eta hirugarrenik, Ajuria Eneako Mahaiak nahiko lukeenaren kontra, oraindik orain, ezker abertzalearen aldetik *protesta zikloaren* bukaera iradoki zezakeen markogintzarik ez zen ageri.

11.4 Antolaketaren kudeaketa

Della Porta eta Diani-ren (2011) kategoriak erabiliz, protestarako mugimenduen antolaketa eredu *sarea* eta *antolakundearen* artean ezberdinduko dugu. Bereizketa hau bakoitzaren egonkortasun mailaren arabera izango da, ardatz batean kokatu ahal izango litzatekeen graduazio bat planteatuz. Zentzu horretan, hainbatetan antolakundea eta sarea bera ezin izango direlarik berezi. Gure kasuan, ezker abertzalea edo ENAM protestagintzan diharduen mugimendu bezala ulertuta, eredu bikoitz horren arabera ulertu ahal izango dugu. Ezker abertzalea osatuko duten antolakundeekin aurkituko gara; beraien antolaketa eredu, harremanak eta garapena izango dutenak. Baina ezker abertzalea hori baino 'zerbait' gehiago izango da.

Tarrowek (1989a) mugimenduaren antolaketa protestaldiaren zikloari erreferentzia egingo dio; hasiera, garapena eta bukaera ematen dion haria bezala. Ezaugarritze tenporal hau Della Portak *mugimenduen familiari* egotzitako ezaugarriekin osatu dezakegu; zeinen arabera, helburu espezifiko eta lehiarako esparru ezberdinak izanda ere, mundu ikuskera bat konpartitu, antolaketak teilakatu eta hainbatetan dinamika ezberdinetarako aliatzen diren mugimenduen antolaketa osatuko luketen. Ezker abertzalearen antolaketa definitzeko baliatu dezakegun adiera honek ez du honen barne egoera adeitsua dela ulertzea eraman behar; ez antolakunde ezberdinen artean, ezta antolakunde eta mugimendu sozial ezberdinen artean ere. Harreman hau lehiatsua izango da eta bere garapenak ezaugarrituko du protesta zikloaren nondik norakoak.

1990tik 1994ra doan epealdiari dagokionez, hamarkadaren hasierak ezker abertzalearen berrantolaketa organizatiboa mahai gaineratu zuen. Honek bere antolakundeen arteko harremanak eta funtzioak berrezaugarritzeaz gain, bere inguruan artikulatu nahi zuen sare edota mugimendu sozialekiko hartu-emanak ere eraldatzeko asmoa zuen. Bertan zeresan berezia izan zuten KASen eta Herri Batasunan emandako berrantolaketak.

Gogoan izan behar dugu Aljerreko negoziazioen porrotaren ostean eta 92an Espainian eman behar ziren nazioarteko ospakizunen eta Bidarteko erorketa historikoaren bezperetan kokatzen gabela.

KASetik planteatzen zenaren arabera, ordura arteko ildoaren balantzea ez zen aldekoa, ezta kontrakoa ere; soilik “iraupen luzeko higitze gerra baten isla”¹⁷⁸. Hortaz, berrantolaketak aldagai partzialei baino ez lieke heldu behar, helburu estrategikoen inguruko eztabaidak alde batean utziz. Gainera 1990an zehar oraindik PSOEn gobernuko ordezkarien eta ETako ordezkarien arteko bilkurak burutu ziren Santo Domingon eta 1991an zehar PSOeko ordezkari eta HBkoen artekoak Euskal Herrian¹⁷⁹. Beraz, ezker abertzalearen estrategia maila handi batean negoziazioak berpizteari begira kokatu zen. Urte batzuk geroago egindako balantzean jaso bezala, “tresna organizatiboen berrantolaketa borroka armatuak zabaltzen zituen espazioak sostengatzera” bideratu zen, ekimen politikoa bestelako eremuetara zabaltzea baldintzatuz¹⁸⁰.

Ordura arteko barne funtzionamenduari dagokionez, ordea, ez ziren kritikak eta aldaketak falta izan. Batetik, HASI, alderdi zuzentzaile gisa disolbatu zen, eta bere kideak koordinadoraren beste antolakundeetan, Herri Batasunan edota blokean bertan gelditu ziren. Bestetik, ezker abertzalearen kohesioa sendotu nahi zen, KASek aurretik izandako koordinadora izaera gaindituz eta “antolakunde bateratuaren” izaera emanez¹⁸¹. Horretarako ordura arte KASek izan ez zuen proiektio publikoa eman zitzaion, 1992tik aurrera bere kanpo zein barne publikazioak eraberrituz. Zentzu honetan, KASek (HASIren bidez) jasandako dirigismo akusazioak gainditu eta mugimenduaren bateratasuna bilatu nahi izan zen. Della Porta eta Dianik (2011; 183-184) gogoratu bezala, antolakundeek berebiziko papera jokatu behar dute identifikazio iturri gisa eta ondorioz kohesioaren bermatzaile gisa.

Beste aldetik, Herri Batasunak bere eraberritzeari heldu zion 1991ko azarotik aurrera bere oinarriekin eztabaidatutako *Urrats Berri* prozesuaren bitartez. Eztabaida prozesua bost ponentzia luzeetan jaso zen. Mobilizaziorako bitartekoen eraginkortasunaren ikuspegitik, aipatzekoa da mugimendu sozialei emandako aparteko garrantzia. ‘Interbentzio politikorako irizpideak’ jasotzen ziren ponentzian luze aritzen zen herri mugimendu ezberdinekin izan beharreko hartu-emanaz, *antolakunde* eta *sarearen* arteko harremanaren eztabaida azalduz. HBrentzat “mugimendu sozialak jendarte demokratiko baten berme” ziren. Herri mugimendu eta demokraziaren arteko lotura estu honetan, bigarren honen ezaugarritze bikoitza egiten zen, ‘demokrazia delegatu’ eta ‘demokrazia parte hartzailearen’ mekanismoak uztartzearen alde eginez. Honela, ‘demokrazia delegatu’ horren

¹⁷⁸ Egaña, I. (1993). *Euskal Herria y la libertad* (vol. VIII, 92. orrialdea). Tafalla: Txalaparta.

¹⁷⁹ Antton Etxebesteri egindako elkarrizketan hartu-eman hauek, modu batean edo bestean, 1997ra arte luzatu zirela baieztatu zigen.

¹⁸⁰ KAS. (1994). Txinaurri txostena. Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxibategitik aterata.

¹⁸¹ Egaña, I. (1993). *Euskal Herria y la libertad* (vol. VIII, 92. orrialdea). Tafalla: Txalaparta.

adierazpide nagusiak liritekeen instituzioetan HBk berak herri mugimenduen eskaerak eramateko konpromisoa bere gain hartuz.

Herri mugimenduen ikuspegi partzialak gainditu edota horiei 'proiektzio globala' emanez "konponbiderako marko politiko globala" eskaintzearen alde egiten zen. Izan ere, HBrentzat "elementu kezkarrietako bat hainbat borroka zehatzetan ematen zen zatiketa eta banaketa" baitzen. Hau guztia ikuspegi autokritiko batetik egin zuen; batetik, "beste hainbat talderekin izandako ika-mika antzuegatik"; bestetik, "mugimenduak eta beraien eskaerak bultzatzeko izandako inplikazio faltagatik"; eta azkenik, aurreko bi gabeziek maila lokalean izan zuten oihartzun bereziagatik. Horrela, herri mugimenduekiko "kolaborazioa eta autonomia" uztartuko lukeen ereduaren alde egiten zuen. Eredu honek bi modutan hartuko zukeen forma: batetik, ezker abertzaleak herri mugimenduek sortutako dinamiketan inplikatuz, eta bestetik, ekimen propioak bultzatuz. Lehenengoari dagokionez, gerora bakarrik uztea ekartzen dituzten 'lehorreratzeen' kontra egitea planteatzen zen; 'transmisio uhalaren' ereduak ekidin eta mugimendu hauen 'nortasuna errespetatuz' baina aldi berean "beraien eskaeren konponbidearen marko globala (HBren) proiektuan irudikatuzeko" ahalegina eginez. HBren ekimen propioei zegokienez, herri mugimenduen dinamikak "osatzeari" begira planteatzen zituen, bai herri mugimenduekin lehian egongo ez liritekeen kaleko dinamika propioak planteatuz, zein instituzioetara mugimendu sozialen eskaerak helaraziz.

Xabier Alegriak berak, egindako elkarrizketan, planteatuko digu herri dinamikekiko arreta honen funtsa: "garai horretan ezker abertzalean bertan planteatzen da indar akumulazioa ez dela soilik etorri behar gatazkaren areagotzearen ikuspegitik, (...) baizik eta etorkizuneko kimuak izan behar direnen" aldetik ere. Ikuspegi hau 87tik datorren "prozesu metakor" baten segida gisa irudikatzen du, 80. hamarkadaren bigarren erdialdean esparru politiko-instituzionalean lortutako ordezkarrigatasunean ere islatu zena. Bere ustez prozesu hori aurreko urteetan herri dinamikatik egindako ekarpenaren logikan ulertu behar da. Dinamika sozial hauek "marjinalidadean gelditzeko arriskua" izanik ere, zentralitatea hartuko zuten "sistema autonomikoa atakan jartzeko". Beti ere, "prozesu guzti horretan borroka armatuak hartzen zuen garrantzia politikoa espazio sozialetan aurrera egiten" zela ulertuta. Aitortzen duenez prozesu honek, ordea, bazituen bere "kontraesanak", besteak beste Hipercorreko atentatuan agerian gelditu zirenak edota 92an Bidarteko erorketarekin ezkutatu ezin izan zirenak. Bere hitzetan azken honetan "lehertzen dira ezker abertzalean dauden arazo estrategiko potoloak; (...) une horretan [ezker abertzaleak] agortutzat ematen du gaitasun estrategiko nahikorik duela gatazka termino militarretan eutsita, faktore politikoetan denbora gure

alde dugunaren funtsezko aldagai politikoa”. Zentzu horretan, ordura arte ezker abertzalean indar metaketaren inguruan mantendutako adiera murriztarekin agertutako lehenengo kritikak birgogoratu dizkigu: “Indar metaketa zer da? Kapazidade operatiboa borroka armatuaren bidez kolpatzeko egoera bat eta egoera horretatik egoera mugitzen den heinean kapazidade akumulatiboa boto eta mobilizazioan negoziazio prozesu bat eraikitzeko? Eskema horrek eramaten al du Euskal Herrira askapen nazional eta sozialaren bidetik?”.

Herri mugimenduei emandako garrantzi berri honek bat egin zuen Tillyk (2010) planteatutako demokratizazio ereduarekin. Izan ere, Tillyrentzat demokratizazioa prozesu liskartsua izateaz gain, sistemak herritarren eskaerekiko duen zabaltasunaren arabera neurtuko baita. Zentzu honetan, ezker abertzaleak herri mugimenduen eskaerak instituzioetara eraman eta kalearen eta erakundeen arteko sinergia hauek elikatzeko egindako apustua demokratizazio horretan sakontzeko apustu gisa ulertu zitekeen. Ez ordea Tillyk planteatzen duen bezala sistema bera demokratizatzeke, sistema sostengatzen duten indarrekiko lehia hegemonikoa planteatzeko baizik. Lehia hegemonikorako indar antagonisten artean joko zelai komuna eraiki behar denaren ideari lotuta, garai honetan Herri Batasunak bere parte hartze instituzionala areagotzeko apustua egin zuen. Izan ere, *Urrats Berri*-n bertan jaso bezala, askotan “parte hartze ‘ez-normalizatua’ instituzionala gutxiestearekin nahastu izan” baitzen.

Herri mugimendu eta ezker abertzalearen arteko saregintza lauso honetan, mugimendu sozialaren eskaeren isolamendua gainditu eta hauen arteko artikulazio ekibalentziala lehia hegemoniko horren beste funtsezko osagaia litzateke. Artikulazio diskurtsibo honetan gorago aipatutako “konponbiderako marko global” horrek eskaera ezberdinen arteko elkartasuna sendotuko lukeen adierazle hutsaren funtzio beteko luke, eskaera partikular guztien konponbide ‘unibertsala’ suposatuko lukeen heinean. Honek, aldiz, ez du esan nahi ezker abertzale eta herri mugimendu hauen arteko harremana beti adeitsua izan zenik. Izan ere, botere politikoa lehiatu nahi duen indar politikoak eskaera sozial ezberdinen arteko ekibalentzia gauzatzeko mugimendu ezberdinen gaineko *jabetza sozialaren* mekanismoa aktibatu nahi izango baitu. Jabetza honek ez dio aurretik indarrean zeuden egituren apropiazioari erreferentzia egingo; ezta mugimendu sozialaren eta lehiatzailearen arteko lotura organikoei ere. Mobilizatorako abiapuntu bat eskainiko duen oinarri soziala edota antolakuntza bilatuko da (MTT, 2005). Baina hainbat kasutan botere politikoa eskuratu nahi duen talde lehiatzailearen (Laclau&Mouffe, 2004; Tilly, 2010) eta bere autonomia eta barne demokrazia mantendu nahi duen mugimenduaren arteko tentsioa sortuko da (Cohen eta Arato,

2000), *Urrats Berri*-n planteatutako “elkarlan eta autonomiaren” arteko oreka zaileko ereduaren bitartez ebazten saiatu zelarik.

Tentsio hau protestaldi ezberdinetan talde lehiatzaile eta mugimendu sozialen artean emango da. Zentzu honetan, gure kasuan ere ez da soilik ezker abertzale eta herri mugimenduen arteko aferaz izango. *Urrats Berri*-n bertan Ajuria Eneako Ituna eta mugimendu sozialen arteko harremanari erreferentzia egiten zitzaion. Batetik, Itunak mugimendu sozial hauek jo puntuan ere kokatu izana salatu zuen, beraiek eta ezker abertzalea lerrokatuz. Baina bestetik, Itunak berak hainbat mugimendu sozial ere bultzatzen zituela ohartarazten zuen. Kasu honetan, mugimendu hauen bereizgarri nagusia “sistema bera sendotu eta justifikatzeko definituak egotea” litzateke.

“La lógica del Pacto es la lógica del Estado, por más que hablen de sociedad civil... Esa lógica tiene un discurso bien preciso sobre la legitimidad de las Instituciones actuales como único y absoluto mecanismo democrático, sobre el preeminente papel de los partidos y sindicatos clásicos en la vida social, minusvalorando los Movimientos Sociales [...]. El Pacto anti-abertzale es la expresión aguda de la intolerancia de un sistema que no está dispuesto a discutir sobre mecanismos que amplíen la democracia social, que reconozcan las realidades nacionales, ... Su objetivo inmediato es la Izquierda Abertzale, pero su planteamiento busca en realidad anular la autoorganización de los sectores populares”¹⁸².

Aurrerago sakonago aztertuko dugun bezala, botere politikoaren lehiaren inguruko arrakasta neurri handi batean sistemak edota sistema lehiatzen duten antolakundeek beraien inguruan artikulatzen dituzten sareen (network) arabera egongo da.

¹⁸² Herri Batasuna. (1991). *Urrats Berri* ponentziak. Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxibategitik aterata.

12. KAPITULUA: ABERTZALETASUNAREN DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA 1995-1997. URTEETAN

Atal metodologikoaren bukaeran aipatu bezala, 90. hamarkadaren bigarren erdialdean burujabetzaren aldeko indarren artean markoztatzen ziren diskurtso nagusi ezberdinen azterketa egitera goaz. Horretarako erreferentziazko bi eragile nagusien diskurtsogintzan zentratuko gara: EAJ eta ezker abertzalearena; baina ez bakarrik. Batez ere lehenengo epealdi honetan arreta berezia eskainiko diogu sindikalgintza abertzaletik garatutako markogintzari ere, honek liskarraldiaren garapenean bete zuen funtzioagatik. Ikusi dugun bezala, diskurtsoen eraikuntza prozesu kontingentea, elkar-eraginezkoa eta liskartsua den heinean (Goffman, 1974), eragile hauek errealitate politikoa interpretatzeko eraikitako markoak aldakorrak, anbiguoak eta, hainbat kasutan, kontraesankorrak izatera iritsi daitezke. Zentzu horretan, ikuspegi ezberdin horiek eta beraien bilakaera aztertzea izango da interesatuko zaiguna.

Aztertutako eragileei dagokienez bi ohar aipatu nahiko genituzke. Batetik, ezker abertzaleari dagokionez, *familia* politiko bezala ulertuta, *kide* ezberdinez osatuta dagoen heinean, bere baitako erreferentziazko eragile ezberdinen diskurtsoak aztertuko ditugu. Bestetik, burujabetzaren baitako diskurtsoak aztertuko ditugula esan badugu ere, hauen bilakaera behar bezala kokatze aldera, hainbat momentuetan eragile *konstituzionalisten* aldetik baliatutako diskurtsoekin ere alderatuko dugu, bata zein bestearen bilakaera ulertu ahal izateko.

Gure informazio iturri nagusia eragile hauek baliatutako jatorrizko dokumentuak izango dira. Erreferentziazko dokumentu hauen aukeraketa egiteko hiru irizpide nagusi baliatu ditugu: a) eragile bakoitzaren kongresu, biltzar edota erreferentziazko hausnarketa prozesuetan baliatutakoak; b) aparteko oihartzun mediatikoa jaso zutenak; eta c) elkarrizketatutako lagunek iradokitakoak.

Aldi berean, iturri nagusi hauekin batera beste hiru iturri osagarri baliatuko ditugu: a) prentsa dossierrak eta hemerotekea; b) garai horretako diskurtsoen elaborazioan inplikaturako kideei egindako elkarrizketak; eta c) gaiaren inguruan idatzitako bibliografia zabala.

Eragile hauetako bakoitzaren diskurtsoa, gure ustez, garai horretako eztabaida politikoan nagusi ziren bi gaien inguruan ikuspegitik filtratu ditugu: autogobernua eta bakegintza. Gai zabalak dira eta hainbat kasutan bata non bukatu bestea hasteko mugarritzea zaila da. Baina azterketari egitura bat emate aldera, bereizketa analitiko hori egiten saiatuko gara.

Markogintzaren azterketa honekin bukatzeko *markoak lerrotzeko (frame alignment)* prozesurik esanguratsuenak jaso nahi izan ditugu. Baina Diskurtsoaren Analisi Kritikoari jarraituz, ‘guztia ez denez diskurtsoa’, bi eragile hauen diskurtsogintza baldintzatu zuten ekintza kolektiboaren mekanismo eta prozesu nagusiak aztertuko ditugu; hauen eragin demokratizatzailean arreta berezia jarritz.

12.1 Abertzaletasunaren diskurtsoak 1995-1997 urteetan

12.1.1 EAJ-ren diskurtsoa.

12.1.1.1 Autogobernua.

12.1.1.1.1 Eskuduntzen transferentzia eskaera.

Autogobernuaren garapenari dagokionez 90. hamarkadaren lehenengo erdialdeak bi mugarri nagusi utzi zituen: batetik, bigarren Paktu Autonomikoak deitu zirenak eta bestetik inoiz bururaino eraman gabeko Senatuaren erreformaren inguruko eztabaida. Lehenengoan eskutik emandako bide ‘moteleko’ eta ‘azkarreko’ autonomien eskuduntzen parekatzea ez zen ondo hartu Jaurlaritzaren aldetik, lurralde antolaketaren asimetriaren inguruko eztabaida zabalduz. *Irain* honen aurrean Lehendakariak transferitu gabeko eskuduntzak biltzen zituen txostena enkargatu zuen Gobernu

Zentralari bidaltzeko asmoz. Honen erantzuna 1994ko maiatzean zortzi konpetentzi berri eskualdatzea izan zen; aurreko atalean aipatu bezala guztiak bigarren mailakoak.

Euskal autogobernuak ez zuen jauzi esanguratsurik ezagutu hamarkada berriaren lehenengo urteetan, honen gabeziak salatzen zituzten ahotsak geroz eta gehiago zirelarik abertzaletasunaren barruan. 1994ko urriko hauteskunde autonomikoak eta gero EAJk PSErekin gobernu koalizioa berrosatu zuen; ordurako EE azkeneko honen parte izanda eta Leitzarango autobidearen gatazkak sortutako desadostasunak gaindituta, EAren inkorporazioarekin hirugarren koalizio kide bezala. Maila handi batean transferentzien agortzea gainditzeko enegarren saiakera bezala ulertu dezakegu gobernu akordio hau, bertan alderdi sinatzaileek legegintzaldi horretan “estatutuaren garapena bururaino” eramateko konpromisoa hartu zutelarik. Horretarako akordioa sinatu eta sei hilabeteetara transferitu gabe zeuden “eskumenen preferentziazko ordenua finkatze aldera, negoziazioaren lehentasunak” eta “irizpide politikoak eta eskualdatzeen balorazio ekonomikoetarako printzipio espezifikoak” finkatzeko ikerketa berri bat egitea adostu zuten¹⁸³. Txosten hau ‘Zubia txostena’ bezala ezaguna egin zen, Joseba Zubia, Ardanzaren lehendakaritza sailburuaren egiletzagatik. Ikerketa egin zen; baita Legebiltzarreko mahaiak 1995eko irailaren 19an bide eman ere. Baina honek ez zuen eskuduntza berrien transferentzian itzulpen zehatzik izan epealdi horretan.

1987ko abendutik Jaurlaritzak ez zuen eskumen esanguratsu berririk jaso. Autogobernuaren garapenaren blokeoa agerikoa zen, EAJk eskumenen eskualdatze faltaren diskurtsoari heldu ziolarik. Horrela egin zuen 1995eko abenduaren 2an eta 3an burututako bere II. Batzar Orokorrean. Oinarrizko lau dokumentu landu ziren bertan¹⁸⁴. Txosten politikoan jasotzen ziren autogobernuari zegokionez EAJren markogintza aztertzekeko elementu nagusiak. “Gobernu egintza eta epai-ebazpenen bitartez [...] itunduta dagoen autonomia murriztu” izana salatzen zuen. Egoera horren aurrean “arazo patxadaz hausnartu” behar zela aipatu eta “sistema honen baliagarritasuna eta mugak aztertu [...], bai eta etorkizunean Euskal Herriaren interesak ahalik eta ondoen zaindu ahal izateko egin behar ditugun aukerez” ohartarazi zuen ere. Autogobernuaren aldeko gatazkan sistemari ‘gainezka’ egingo liokeen *ageriko mehatxuaren* funtzioa bete beharko lukeen ohartarazpen honek ibilbiderik gabeko aldarrian bihurtzen zen, sistemaren mugak gainditu zitzakeen planteamendurik ezean. Horrela, jarraian argi utziz: “erabakirik hartzen ez den artean, EAJ egun dauzkagun erakundeen barruan saiatuko da Euskal Aberria indartzen eta iraunarazten”.

¹⁸³ *Diario Vasco*, 1994-12-26.

¹⁸⁴ 1992-1995 balantzea, Kulturari buruzko Txostena, Gizarte-Ekonomiari buruzko Txostena eta Politikari buruzko Txostena.

Izan ere, ‘etorkizunean egin beharreko aukera’ horien mugak Ajuria Eneako Itunak osatzen zuen *policy network*-ak mugarrizten baitzituen. Sare honek, gai politiko nagusien (autogobernua eta bakegintza) edota ‘Politika Handiaren’ artikulatzaile bezala, sistemaren legitimazioaren eta bere inguruko kontsentsuaren eraikuntza funtzioa betetzen zituen (Letamendia, 2001). Hori gutxi ez eta eguneroko politika instituzionalak (*politics network*) ebatziko zituzten aliantzen baldintzatzailea ere bazen, Itunaren bileretan ‘alderdi demokraten’ arteko batasunerako deiek erakutsi bezala.

EAJk, aldiz, aliatu ahula bilatu zuen PSOE-PSErengan autogobernuaren garapena erdiesteari begira. Izan ere, ordurako ustelkeria kasuek eta GALen gerra zikinak PSOE itota zuten. Gainera jeltxideentzat sozialisten hiru urteko legegintzaldiko¹⁸⁵ balantzea eskasa zen autogobernuaren garapenean lortutako aurrera pausuen ikuspegitik. Izan ere, 1993ko Hauteskunde Orokorretan PSOEek izandako galeraren ondorioz gobernu egonkortasuna EAJ eta batez ere CiUrekin lortu zitzakeen akordioen menpe utzi bazituen ere, lorpen hauek gorago aipatutako bigarren mailako zortzi transferentzietara mugatu ziren. 1996ko martxoan Hauteskunde Orokorrak burutu ziren, hamalau urte eta gero PSOEek galduz eta jeltxideak aliantza berrietara behartuz.

EAJ eta PPren arteko akordioa handik hilabete eskasera etorri zen. Aznarren inbestiduraren aldeko botoaren truke Estatutuaren erabateko garapenerako konpromisoa, Kontzertu Ekonomikoaren atal batzuen eguneraketa, Gerra Zibilean jeltxideei atzemandako ondasunak itzultzea eta okupatutako langileen Etengabeko Formakuntzarako finantziazio adostu zuten. Ajuria Eneako Itunak eskaintzen zuen aliantzen egituraren aukerak muturreraino baliatzen ari ziren jeltxideak, Gasteizen PSE-EE eta EArekin gobernu ituna zuten bitartean, Madrilen PPekin inbestidura akordioa hitzartuz. Izan ere, sistemaren egonkortasunaren inguruko borroka handia den momentuetan, bestelako egoera batzuetan kontraesankorrak iruditu dezaketen aliantza artikulatu beharko dira boterean iraunarazi nahi bada. Akordio horren hainbat atal ekonomiko gauzatzen hasi ziren (ez ordea langileen formakuntzari begira adostutako diru kopuruak); baina momentu horretan Espainiako gobernagarritasunari begira EAJ ez zen CiU bezain garrantzitsua¹⁸⁶, azken honek bere akordio propioa adostu zuelarik; Majestic-eko Ituna bezala ezaguna egin zena. ‘Pujolismoaren’ urrezko urteak ziren eta convergenteek gaitasun aparta erakutsi zuten 90. hamarkada osoan zehar zehar lehenengo Felipe Gonzalezekin eta gerora Aznarrekin hauteskunde sistemak proportzionaltasun

¹⁸⁵ Hauteskunde Orokorrek 1993ko ekainean burutu ziren baina Gonzalezen Gobernuaren gainbehera tarteko 1996ko martxora aurrera behar izan zituen.

¹⁸⁶ 1996ko hauteskunde orokorretan PPk 156 ordezkari lortu zituen bitartean, CiUk 16, EAJk 5 eta Coalición Canariak 4 lortu zituzten.

ikuspegitik eskainitako gain-ordezkaritza beharrezkoak zituzten akordio eta aliantzak erdiesteko. Horrela, popularren eta jeltzaleen arteko akordioa airean gelditu zen. Hori gutxi balitz, 1997ko udazkenean Sabino Arana Fundazioak antolatutako ekitaldi batean, orduko ekonomia ministroa zen Rodrigo Ratok, Gizarte Segurantzaren eskumena inoiz ez zela transferitua izango baieztatu zuen jeltzaleak ernegatu ez ezik, benetako iraina suposatu zuelarik.

Egoera honek *eliteen interesen kaltetzearen* mekanismoari bide eman zion. Gogoratu dezagun mekanismo honek adiera bikoitza izango duela: inguruabarrekota eta kognitiboa. Izan ere, ordura arteko interesak kaltetzen hasiak izateko testuinguruari lotutako aldaketaren bat ematearekin batera, aldaketa hori eliteen aldetik antzeman eta bere interesen aurkakoa bezala ulertua izan beharko da. Izan ere, Madrilgo Gobernuarekin adostutako akordioen urratzea ordurako nobedade handiegia suposatzen ez bazuen ere, Aznarren inbestidurarako lortutako akordioan jasotako eskuduntzen transferentzia gauzatzeko konpromisoak suposatutako inguruabarreko aldaketak, Ratoren adierazpenak beraien interesen kaltekoak bezala antzemanak izateko atea zabaldu zuen.

Ildo honetan, eliteen interesen kaltetzearen mekanismoa *botere lehiaren* mekanismoa aktibatua dagoenean eman ohi da; azkeneko hau gurea bezalako iraupen luzeko prozesu liskartsuetan ematen delarik. Gainera mekanismo honen eragin ohikoa *eliteen deslerrotzea* izaten da. Eliteen deslerrotzea normalean konfiantza galera, adostutako akordioak ez betetzeari edota orokorrean norberaren interesen aldeko baldintzak aldatzen direnean eman ohi dira.

Gurean gorago aipatutako aldaketa *eskaeren onargarritasunaren aldaketa* mekanismoarekin lotuta agertu zitzaigun; hain zuzen ere, Gernikako Estatutuak jasotako eskuduntzen transferentzia sistemarentzat barneratu ezinezko input-a bezala ulertzen hasi zenean hainbat sektore konstituzionalisten aldetik. Letamendiak (2001) azaldu bezala bakegintzaren eta autogobernuaren inguruan saretutako *network*-ak bere funtzio betetzeari utzi zionean Madril eta Gasteizko eliteen deslerrotzea eman zela esan dezakegu.

12.1.1.1.2 Autonomismoaren krisiaren lehenengo ahotsak EAJn: 'Ollora bidea'.

Autogobernuaren garapenerako bide berriak arakatzen aitzindarietako bat jeltzaleen artean Juan Mari Ollora dugu. Ekonomista eta politikari gasteiztarra, Arabako ahaldun nagusia 1983-87 urteen artean eta gerora Eusko Legebiltzarreko parlamentaria. 1992an zehar EAJ eta HBren artean

izandako hartu-emanetan ordezkaria izan zen lehenengoen aldetik, Joseba Egibarrekin eta Gorka Agirrerekin batera. EAJren baitan garai horretan burujabetzaren inguruan lantzen ari ziren tesien egilekotzat hartzen da. 1996an bere hausnarketak jasotzen zituen liburua argitaratu zuen (*Una vía hacia la paz*), handik denbora batera EAJn indarra hartzen joango ziren ideien laburbilduma gisa.

Olloraren *diagnostikoa* blokeo laukoitz baten konstataziotik abiatzen zen:

- *Konfrontazioaren termino hertsien blokeoa*: hau da, gatazka bide polizial hutsetatik gainditu zitekeenaren uste okerra.
- *Estatutuaren garapenaren blokeoa*: tresna honen aurka era iraunkorrean mantenduko den %15aren inguruan kokatzen den sektore soziala existentzia nabarmenduko du. Sektore hau bere baliagarritasunaren inguruan ados balego ere, Gobernu zentralaren jarrera oztopatzailean azpimarra jarriko zuen. Bere ustez, ordea, “Espainiako Gobernuaren alderdiak aldatuta ere, (autogobernua) hobetzetik edota beste perspektiba bat aurkeztetik urruti” legoke (Ollora, 1996: 34).
- *Botere politikoaren eta Euskal Herria- Espainiar Estatuaren harremanen koadroaren inguruko blokeoa*: honek “euskal burujabetzaren” jabe den subjektuaren inguruko ikuskera ezberdinei erreferentzia egiten zion: euskal herria edo espainiar herria. Autodeterminazio eskubidearekin, edota Ollorak berak izendatuko duen Euskal Erabakitze Esparruarekin (EEE) lotuta legoke.
- *Nafarroarekin harreman ereduaren inguruko konponbideen blokeoa*: Konstituzioaren laugarren Xedapen Gehigarrian, Foru Hobekuntzaren bigarren Xedapen Gehigarrian eta Gernikako Estatuaren Atariko Tituluan jasotako formulek ez luke afera konpontzeko bide eraginkorrik eskainiko; aurretik aipatutako subiranotasunaren subjektuaren eztabaidarekin lotuta egoteaz aparte.

Bere ustez, blokeo hau gainditzeko bidea sektore ezberdinen arteko negoziazioak eta elkarrizketak osatzen zuten. Zentzu horretan, Ajuria Eneako Mahaiak alderdien arteko negoziazio politikoa eta ETA eta Espainiar Gobernuaren arteko gai “teknikoen” inguruko negoziazioaren arteko bereizketa “amarrutsua” salatu zuen. Batetik, negoziazio mota bat eta bestearen artean bereiztea ez zelako erraza; bigarrenik, Espainiako Gobernuak Aljerren ETArekin negoziatu zuelako, honi ordezkaritza politiko maila bat emanez; eta azkenik, hori alde guztien aldetik horrela onartua izan beharko litzatekeelako (ezker abertzalea barne); baina ez zen horrela.

Olloraren ustez, bidea negoziazioa bazen, negoziazio-gaia erabakitze eskubidea edo EEE hori zen; bere aitortza edota errekonozimenduari zegokiona, hain zuzen ere. Bere ustez, garai horretan nazioartean ematen ari ziren esperientziei erreparatuta (Quebec, Irlanda, SESBetik deslotutako herrialdeak, ...), kontzeptua bera eguneratzeko beharra agerikoa litzateke Berari egindako elkarrizketan adierazi bezala, autodeterminazioaren kategoria “atera biderik gabeko kale batean” kokatzen zen, besteak beste kolonizatutako herrialdeei egokitzen zitzaielako. Ikuskera horren aurrean, bere ustez “guk erabakitzen dugunaren errespetuan” kokatu behar zen eztabaida, horrek “penetrazio demokratikorako indar geldiezina” izango lukeelakoan.

Bide horretan Ajuria Eneako Mahaiaren antzutasuna salatu zuen. Izan ere, Itunaren 8. puntuan¹⁸⁷ esaten zenari jarraiki honako galdera planteatu baitzuen: “Zer gertatuko litzateke, prozesu demokratiko bati dagokion bezala, euskal jendartearen borondatearen gehiengoak, legitimoki adierazita, unean une indarrean den ordenamendu juridikoan aplikatzeko biderik ez badu aurkitzen?”. Alde horretatik, bere hitzetan eredu autonomikoak “konponbiderik ez duen hutsunea” zuen, Itunak autogobernuaren garapenerako normalizazio politiko eta instituzionalerako jatorrizko asmoak urteetan zehar zapuzten joan zirelarik.

Ajuria Eneako bidea baztertuta eta 1995an ospatutako Batzar Orokorraren dokumentuetan ez bezala, Ollora subiranotasunaren kontzeptuak ezker abertzaleak eta EAJk autogobernuaren inguruan planteatutako markogintzen artean sintesi moduko bat barnebiltzeko ahalegina jasoko du. Elkarrizketan adierazi bezala, “independentziaren soluzioa politikoki esplizitatu gabe, gure munduan hau bakarrik babes demokratiko nahiko batekin erdietsi daitekeelako, zure planteamendu politikoak bi gako jaso behar ditu: [batetik] zure herritarren bizimodua kudeatzeko aukera ematen dizun botere koadroa ahalik eta gehien garatu, eta beste hanka litzateke, komunitate horrek erabakitzen duena errespetatzea”; hau guztia ondorean “Estatuarekin berdinetik berdinerara garatu behar den harreman eredu bat” inplementatu ahal izateko. Berak planteatutako koadro intelektual orokor hau motibazio markoa legitimatzeko *konponbide egingarrien proposamen* zehatz batean planteatzera ausartu zen. Prozedura hori lau faseetan laburbildu zituen:

- 1) *Euskal Herrirako botere politikoaren koadroaren (politiko, ekonomiko eta sektoriala) lanketa*; hau da, abertzaletasunaren burujabetza ereduaren elaborazioa: lanketa honek, lehenik eta behin, Gernikako Autonomi Estatutuaren garapenaren *barne* eta *kanpo* balorazio zehatz bat eskatuko luke; *barne*, jada eskuratutako autonomia nola garatu zen ebaluatze

¹⁸⁷ Itunaren 8. puntuak horrela dio: “Zentzu horretan, ideia politiko guztien legitimitatea, demokratikoki adierazita, parlamentuaren markoan defentsa bidea dute eta, horrela badagokio, edozein aldarrikapenen inkorporazioa ordenamendu juridikora”.

aldera; *kanpo*, ez bakarrik transferitu gabe dauden eskuduntzei dagokionez, baizik eta beraien egokitzea mundializazio prozesuari. Ondoren, XXI. mendeari begira Euskal Herrirako nahi den botere politikoaren koadroa finkatuz.

- 2) *Burujabetzara eramango duen estrategia politikoa finkatu*: honek zehaztutako eredia erdiesteko alderdi eta eragileen arteko hartu-eman multzoari erreferentzia egiten zion; beti ere, gehiengo eta gutxiengoaren logikari eutsiz. Euskal eragileen artean eredu hori adostuta Madrilekin izan beharreko negoziazio fasea irekiko litzateke: adostasuna balego, beharrezkoak ziren lege erreformei bide emanek; desadostasuna nagusitzekotan, konfrontazio demokratikoaren fasea irekiko litzateke, ekimen plebiszitarioen aukera izanik edota elkarriketan aipatutako desobedientzia moduren bati.

Ollorak berak prozesu hau aurrera ateratzeko “eragin instituzionala duten aliantza politikoen jokoa aldatzeko” planteatu zuen (1996: 113), handik denbora batera emango den aurkaritza eta aliantza egituren aldaketa aurreikusiz.

- 3) *Burujabetzaren babes herritarren azalpen estrategia baten finkapena*: funtsean, aurreikusten zen burujabetza ereduaren inguruko nondik norakoak herritarrei azaltzean letzake.
- 4) *Burujabetza prozesuaren erraztatzaile izango den inguru “giroa” erdiestea*: enpresa gizon bezala, aldeko testuinguru ekonomikoaren, ekoizpen sarearen indartzearen eta ziurgabetasuna ekiditearen garrantzia azpimarratu zituen. Horrekin batera, prozesuak nazioartean eta komunikabideen aldetik izan beharreko babesa ere aldarrikatuz.

90. hamarkadaren erdialdean oraindik Olloraren tesiak ez ziren EAJren markogintzan nagusi izango, baina hamarkadaren erdialdeko egoera politikoa ulertzeko alderdi jeltzalean nagusitu zen marko interpretatzailean ezinbestekoak bihurtu ziren. Gamson-en (1995) kategoriak baliatuz, Olloraren markogintza *mugapen estrukturalak* eta *protesta zikloari* lotutakoak baldintzatzen zituela esan dezakegu. Zentzu horretan, 80. hamarkada bukaeratik Ajuria Eneako Itunak hegemonizatutako markogintza antiterroristak zaildu zuen bere tesiek lekua hartzea EAJren barruan; honi lotuta, protesta zikloaren momentu horretako gogortasunak ere ez zuelarik bide erraztu.

12.1.1.2 Bakegintza: Ajuria Eneako Itunaren krisitik ‘Ardanza Planera’.

Baina garai horretan EAJren markogintzaren erreferentzia nagusiak, ordea, ez zeuden ez bere Batzar Orokorretako txostenetan, ezta barne mailan lantzen ziren teoria subiranoetan ere. Ia bi hamarkada luzeetan zehar EAJk izan zuen lidergo instituzionalari lotuta, bere markogintza bi erreferente nagusietan banatuta zegoen: alderdi burua eta instituzio nagusiaren burua. Alderdiak Lehendakariarengan delegatua zuen neurri handi batean garai horretan bi erronka nagusiak; *instituzionalizazioa* eta *bakegintza*. 1994 bukaerako gobernu akordioa instituzionalizazio horretan aurrera egiteko formula bezala adostu zen; bakegintzari zegokionez, Lehendakariak Ajuria Eneako Mahaiaren bitartez joka zezakeen paperean apustua eginda zuen EAJk. Arestian aipatu dugu autogobernuan sakontzeko erronka horretan jeltokideek egindako apustuaren ahultasuna. Baina bakegintzari zegokiona ez zuen aurreikuspen hoberik.

1995rako agerikoak ziren foro horrek bakea lortzeko planteatutako formula antiterroristaren mugak. ETAk bere gaitasun operatiboa berreskuratua zuen, kale erasoak ugaltzen ari ziren eta HBk hamarkada hasieratik bozka galera etengabekoa izanda ere %15 inguruko ordezkari mailari eusten zion. 1995ko urtarrilaren 31an burutu zen Ajuria Eneako Itunaren bileraren ostean Xabier Arzallusek berak “gauzak beste modu batera egiteko gai garen”¹⁸⁸ aztertzeke aukera publikoki planteatu zuen. Baina eztabaida hori emateko testuingurua ez zen erraza. Aurreko urteetan itunkideen arteko batasun irudia erronka nagusizat hartu zen eta horrelako gogoeta bat abiatzeak hankaz gora jarri zezakeen beraien arteko adostasun hauskorak. Hamarkadaren erdialderako, ordea, deslerrotzea abiatu zela esan dezakegu, PPK Aznarren ahotik, 1994ko udaran polemika bizia eragin zuen presoek birgizarteratzearen aurkako aldarrikapenekin. EAK, bere aldetik, hiru urte eta gero Mahaira bueltatuta autogobernuan sakontzearen beharra iraunkorki jarri zuen mahai gainean. Posizio ezberdin hauek sakoneko eztabaidak behin eta berriro atzeratzeraman eraman zuen, 1995ko martxoaren 1eko bileran gertatu bezala¹⁸⁹.

Handik hiru hilabete t’ erdi pasatxora burututako hurrengo bileran Lehendakariak alderdi sinatzaileei “Mahaia arazo bezala”¹⁹⁰ irudikatzen duen dokumentu bat bidali zien. Ardanzak batasun hau berreraikitzeke lehenengo ahalegina egin zuen eztabaidarako zazpi orrialdeetako zirriborroa bidaliz. Ordurako, ordea, giroa nabarmen gaiztotua zegoen. Eztabaidagai nagusiak arestian aipatutakoak; presoak eta autogobernua. 1996ko urtarrilaren 11eko bileraren bezperetan Aznarrek deialdi horretatik mezu hirukoitz argia atera behar zela adierazi zuen: kondenen betetze osoa, segurtasun indarrei babesa eta demokraten batasuna. Hauteskunde Orokorak gertu ziren eta

¹⁸⁸ *Diario Vasco*, 1995-02-01.

¹⁸⁹ *Diario Vasco*, 1995-03-2.

¹⁹⁰ *Diario Vasco*, 1995-06-23.

distantziak besteekiko nola edo ahala markatu behar ziren. Azkenean komunikatu bateratua adostu zen baina bilera luzea eta liskartsua izateaz harago ondorengo interpretazio ezberdinetarako eman zuen. Aski ezagunak ziren ETaren aurkako arbuio eta segurtasun indarren aldeko babesaz gain, EA erabakitze eskubidearen inguruko adierazpena txertatzen ahalegindu zen. Bukaerako erredakzioak honela zioen:

“Si tales derechos son siempre absolutos e incondicionales, aparecen aún más así, si cabe, en un sistema de libertades, como el nuestro, en el que el Pueblo Vasco puede encontrar cauces pacíficos y democráticos para hacer valer los derechos que pudiera corresponderle, toda vez que, en un proceso democrático, la voluntad mayoritaria de la ciudadanía vasca, legítimamente expresada, debe encontrar su aplicación en el ordenamiento jurídico vigente en cada momento”

Itxuraz, paragrafo horren erredakzioak bost ordu luzeko eztabaidarako eman omen zuen¹⁹¹. Baina gutxieneko izendatzaile komuna izan behar zuena berehala interpretazio ezberdinetarako eman zuen. Garaikoetxeak “autodeterminazio eskubidea egikaritzea ate ireki” bezala interpretatu nahi izan zuen bitartean, Mayor Orejak ukatu egin zuen ulerkera hura “edozein hiri edo autonomia espainiarrentzat baliagarria”¹⁹² zela adieraziz. Oinarri hauen gainean egindako saiakera izan zen Ardanzarena.

1996an zehar burututako gainontzeko bilerak koiunturari lotutako gertakariei erantzutetik harago ezer gutxirako eman zuten. *Impasse* egoera, agerikoa zen. Gauzak horrela, EAJk bakegintzaren ordura arteko markogintzan fitxa mugitzea erabaki zuen.

1997ko urtarrilaren 27an Euskadi Buru Batzarrak (EBB), bere presidentearen ahotan gai honi lotutako adierazpena publiko egin zuen. Bertan “EAJ bakea lortzeko arriskatu eta mugitzeko prest” agertzen zen, Gobernu eta ETaren arteko elkarrizketa ahalbidetzeko “edozein saiakera serio gure babesa izango” zuela adieraziz. Era berean, Ajuria Eneako Mahaiari zegokionez, “etorkizun hurbil batean bere zabalpena ahalbideratu” zezakeen, “susperraldi eta eguneratutako birformulazio baten beharra” zuela ere aipatu zuen. Horretarako, EAJk “bazterkeriarik gabe, beste eragile politiko, sindikal eta sozialekin Euskadin bizi den egungo indarkeria dinamikaren konponbideari heltzeko beharrezkoak diren harreman eta ekimenei uko egiten ez duela” nabarmenduz. Diskurtso honek

¹⁹¹ *Diario Vasco*, 1996-01-13.

¹⁹² *Ibidem*.

ordura arte Itunak ezarritako markogintza aldarazten zuen. Batetik, “arriskatzearen” beharra ordura arteko jarrera immobilistarekin kontrajartzeko baliatzen zelako (5. puntua). Bestetik, Gobernu eta ETaren arteko elkarrizketei bide ematen zielako, bere edukietan sartu gabe baina ezta alde aurretik eman beharreko baldintzen eztabaidan sartu gabe (8. puntua). Eta azkenik, hamarkadaren lehenengo erdialdean ezker abertzalearekin harremanak izateko itunkideen artean eskatzen zen alde aurretiko adostasuna baztertzen zelako (10. puntua). Funtsean, Ajuria Enearen goitik beherako eguneratzea eskatzen zelako; Itunak etorkizunik izango bazuen, behintzat.

EBBk jarritako oinarri honen gainean Ardanzak Mahaia berregituratzeko azken ahaleginari heldu zion. 1997ko otsailaren 21ean burututako bileran Ardanzak Mahaiaren “bigarren faseari heltzeko beharra” planteatu zuen, eginkizun hori hurrengo bileretarako utziz. ETaren ekimenen tenkatzeak (Ortega Lara, Blanco, Caso, ...) eztabaida hau bideratzeko giroa gaiztotu zuen, eztabaida bera beste behin atzeratuz. 90. hamarkadaren lehenengo erdialdean ETaren protestaldien erradikalizazioak Ituneko eliteen arteko deslerrotzeak eta desadostasunak (Leitzarango autobidearen afera edota HBrekin adostutako udal mozioak) gainditzeko bidea zabaldu zuen bitartean, bigarren erdialde honetan desadostasunak areagotzeko palanka bihurtu zen. Batean eta bestean protestaldiaren erradikalizazioak eragindako polarizazio politikoa ‘tarteko posizio epelak’ mutur batera edo bestera desplazatzea ekarri bazuen ere, 1995etik aurrera kontrako eragina lortu zuen; kasu honetan, gai honen inguruko jeltkideen eta ezker abertzalearen irakurketa hurbildu eta konstituzionalistekiko urrunduz.

1998ko urtarrilaren 16an Ardanzak alderdi itunkideei “hausnarketa eta gogoetarako dokumentua” helarazi zien. Bertan bi eginkizun nagusi finkatzen zituen: batetik, desadostasun publikoak ahalik eta gehien murriztea; bestetik, jatorrizko itunean aipatutako “bukaera negoziatuaren” inguruko “azken zerumugaren” inguruko adostasuna lortzen saiatzea. Sinatzaileek lehenengoa lortzeko bigarrenari heltzearen beharra nabarmendu zuten. Horrela, Lehendakariak alderdi sinatzaileekin aldebiko hartu-emanak hasi zituen, desadostasun maila ezberdinak antzemanaz.

Ekarpenak jasota, 1998ko martxoaren 12an proposamen eguneratua aurkeztu zien. Proposamen hau, gerora ‘Ardanza Plana’ bezala ezaguna egin zena, ordura arteko aliantza eta aurkaritza egiturak aldatzearekin batera, EAJn nagusitu zen markogintza eraldatzeko oinarria jarri zuen hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala. Protestaldiaren goraldian ohiko izaten den *aukera eta mehatxuen esleipenak* (eskuduntzen transferentzien agortzea, bide polizialaren mugak, polarizazioaren zabalpena, ...) errealitate politikoa interpretatzeko ikuskera berriak exijitzen zituen. Itunak ez zuen

lortu hainbatetan aldarrikatutako biolentoen porrota; mila aldiz errepikatutako alderdien arteko batasuna behin eta berriro kolokan jartzen zen jada estali ezin ziren desadostasun sakonak azaleratuz; Itunaren lehenengo garaietan Estatutua betetzeko sinatzaileek erakutsitako konpromisoek ez zuten islarik eskumen esanguratsuen transferentzian; finean, gertaera politikoak interpretatzeko Mahaiak baliatutako diskurtsoak eta markoak ez ziren tresna kontzeptual egokiak errealitatea ulertu eta jendartean uler-arazteko.

12.1.1.3 Ondorioak.

12.1 taula: EAJ-ren markogintzaren gako nagusiak 95-97 epealdian

| | | |
|---------------------|---|---|
| Diagnostikoa | <i>Arazoaren identifikazioa</i> | a) Eskuduntzen transferentzia falta ➤ ('estatutismoa' arazo bezala agertzen hasi) |
| | | b) ETAREN terrorismoa |
| | <i>Kausa eta eragileak</i> | a) PSOE eta PPren Gobernuak ➤ (Gobernuaz haragoko arazoa) |
| | | b) ETA eta bere 'ingurunea' |
| Pronostikoa | <i>Helburuak</i> | a) Gernikako Estatutua betetzea ➤ (Status-a eguneratu) |
| | | b) Bakea |
| Motibazioa | <i>Konponbide egingarrien proposamena</i> | a) Aliantza egitura 'sistemikoa' indartu: • 94ko Gobernu akordioa • 96ko inbestidura akordioa |
| | | b) Ajuria Eneako Itunetik >>> Ardanza Planera |

Atal metodologikoan planteatu dugun eskema EAJ-ren garai horretako markogintzari aplikatuz honako ideia nagusiak nabarmendu ditzakegu:

- Epe honetan EAJren markogintzan bi arazo nagusi agertzen ziren: batetik, *autogobernuaren* garapenari zegokionez, eskuduntzen transferentzia falta; eta bestetik, *bakegintzari* zegokionez, ETAREN 'terrorismoa'; bigarren honen *anplifikazioaren* eskutik, lehenengoa menpeko bihurtu zelarik.

- *Autogobernuaren* garapenari zegokionez, eskuduntzen transferentziaren arazoaren diskurtsoa nagusi izango bada ere, sakoneko arazoa eredu estatutarioan bertan dagoela aldarrikatuko duten ahots bakanak entzuten hasi ziren.
- *Diagnostiko* eta *pronostikoaren* arteko ohiko lotura zuzenari jarraituz, eskuduntzen transferentziaren arazoaren helburua Gernikako Estatutua bururaino eramatea izango da.
- 1994an lortutako EAJ, PSE-EE eta EAren arteko Gobernu akordioa edota 1996an Aznarren inbestidurarako EAJ eta PPren artean lortutakoa konponbide egingarrien proposamen gisa aurkeztu ziren. Azken honen hausturak *motibaziorako markoaren* sinesgarritasuna nabarmen ahuldu zuelarik.
 - Autogobernuaren diagnostikoaren inguruko interpretazio ezberdinak tarteko, diskurtso autonomistaren diskurtsoaren baitan arazoa Gobernu baten edo bestearen borondatek harago zegoenaren interpretazio markoa ere presente egongo da.
- *Bakegintzari* zegokionez, bakearen *helburua markozteko* bilakaera bat eman zen, Ajuria Eneako Itunak eskaintzen zuen markogintza anti-terroristatik Ardanza Planak amaiera elkarrizketatuaren aldeko inizatibara.

12.1.2. Ezker abertzalearen diskurtsoa.

12.1.2.1 Markogintzaren demokratizazioa eta nazio eraikuntzaren

lerrotzea.

90. hamarkadaren erdialdean ezker abertzalea hausnarketa prozesu betean murgilduta zegoen: 94an Herri Batasunak Oldartzen prozesuari heldu zion; 95an ETAk KAS Alternatiba historikoa eguneratu zuen Alternatiba Demokratikoa kaleratuz; eta 96an LABek bere III. Kongresua burutu zuen.

Aurreko atalean ikusi bezala 90. hamarkadaren hasieran egindako gogoetan ez bezala hausnarketaren helburua ETA-Gobernuaren arteko negoziazio eskaera hedatu eta sostengatzera mugatzera baino, lehia politikoaren terminoak zabaltzea helburu zuela esan dezakegu. Izan ere, eskuduntzen transferentzien blokeoa agerian uzten ari zen sistema politikoaren eraginkortasun faltaren eskutik (Morlino, 1985) aukera politiko berriak zabaltzen zitzaizkion ezker abertzaleari. Horrela zionen ETAk 1995an zabalduko Alternatiba Demokratikoan:

“Euskadi Ta Askatasunak prezio garestia ordainduz defendatutako erreibindikazio demokratikoez gero eta oihartzun zabalagoa dute alderdi politiko, sindikatu eta elkarte desberdinen eskakizunetan, Autodeterminazio eskubidea Euskal Herriari dagokion oinarritzko eskubidea baita”.

Lehia eliteen arteko afera izatetik harago helburu zuen estrategia honetan, ekintza kolektiboari eta diskurtsoaren eraikuntzari lotutako mekanismo ezberdinak aurkitu ditzakegu. Mekanismo diskurtsiboak dagokienez (eta markogintzaren azterketarako planteatu dugun taula baliatuta), problematizatzeko orokorra atzeman dezakegu ezker abertzalearen diagnostikoan. *Oldartzen* ponentzian HBk luze heltzen dio Euskal Herriaren egoeraren diagnostikoari. Horren arabera, “egoera eta egoeraren eboluzioa oso kezagarria da”: egoera sozio-ekonomikoa okerrera egin du bizi baldintzak kaskartuz; baldintza materialetan ez ezik “baloreetan gertaturiko aldaketak ere garrantzia izugarria du”; nazio identitatean atzerakada nabarmena eman da; Euskal Herria “polizial-militarki okupatua dago”; eta “nazio zein ezkerreko ikuspegietatik Euskal Herrian instituzio ezberdinetatik egin den politikagintzak ez du aurrerapenik ekarri. Diagnostiko horren jatorrian “espainolizazio eta frantsesezko prozesua” kokatu zuen, beraien ustez Euskal Herria “alarma-zorian” jarri zuena. Arlokako azterketa honetan markoen lerrotzea ohikoa izaten den *markogintzaren hedatzearen* teknika aurkitu dezakegu. Teknika honen arabera ordura arte ezker abertzalearen erreferentziazko diskurtsoan (ETA-Gobernua) bigarren maila batean egondako hainbat gai (egoera sozio-ekonomikoa, balore sistema, ...) baina bere azken helburuarekin (autodeterminazioarekin) lerrokagarriak zirenak, lehen lerroa eramanez nahi izango ziren lehia politikoan eskaera/sektore ‘berriak’ inkorporatuz eta lehiaren terminoak zabalduz. Hori guztia *eraikuntza nazionalaren* marko diskurtsiboaren bitartez, estrategiaren helburu eta ardatz bihurtuko lirartekeenak.



12.1 irudiak: Herri Batasunak 90. hamarkadan zehar egindako bi kanpainetan erabilitako irudiak; ezkerrekoa 1994ko Hauteskunde Autonomikoetarako eta eskubikoa hamarkadaren bukaeran erabilitakoa. Marko ezberdinen lerrotze edota eskaera ezberdinen artikulazio saiakeraren erakusle (Iturria: *Herri Batasuna, 20 urte... eta aurrera!*).


Izan ere, ezker abertzalearentzat aurreko urteetan garatutako erresistentzia formak agortuak leudeke, “erresistentzia estrategiatik eraikitze politikoaren strategiara pasa beharko” ziratekeelarik. Eraikuntza lan hori Euskal Herria egituratzeko funtsezkoak diren zutabeen gainean egituratuko litzatekeen (euskara, sozio-ekonomia, hezkuntza, ...), *Oldartzen* ponentzian bakoitzaren nondik norakoak zertzelatzen zirelarik. Bera oinarritik garatu beharreko lana zen; behetik gora, dinamika zehatzetan errotuz. Horretarako lan militantea prozesuaren motorra bihurtzen zen. Zentzu horretan, eguneroko inurri lana lehenetsiko litzateke, oihartzun handia baina eragin praktiko apala duen ‘efektismoaren’ gainetik.

Ekintza kolektiboaren ikuspegitik prozesu diskurtsibo hau mobilizazio prozesuetan presente egoten diren hainbat mekanismoez lagunduta etorri zen. Hurrengo atalean sakonduko dugun *aukera eta mehatxuen jabetzaz gain, antolaketen jabetza soziala* ere nabarmendu dezakegu. Arlokako ikuspegi honek Euskal Herriko mugimendu sozial ezberdin dinamismoarekin sintonian jarriz, hauen ‘aparatuak’ edo egiturak bereganatzea baino, mobilizazio areagotzeko eskaintzen zuten abiapuntua probestea lehenetsi zuen; hainbat kasutan, botere politikoa lehiatu nahi duen mugimendua (ezker abertzalea) eta politika publikoetan eragin *baino* nahi ez duen mugimenduaren autonomiaren arteko harremana tentsionatu ohi badu ere.


Problematizatzen den aferaren kausa edo erantzuleari erreparatzen badiogu gogor salatu zuen autonomismoaren papera orokorrean eta EAJren erantzukizuna bereziki: “EAJk bere hautapen berria Espainiaren bidetik egin du [...] Hego Euskal Herriaren espainolizazioari ateak zabaldu(z)”. Zentzu honetan, 1991an burututako *Urrats Berri* prozesuarekin alderatuz, alderdi jeltzalearekiko kritika nabarmen areagotu zuen. Azken honetan, EAJrekiko aipamena Ajuria Eneako Itunean jokaturako funtziora (zeinaren garrantzia eta eragina nabarmen gutxitzen zen, gerora onartu bezala) eta 1991ko udal eta foru hauteskunde osteko egoeraren irakurketara nagusiki mugatu bazen, lau urte beranduago egindako gogoetan, luze heldu zion horren inguruko kritikari. Honen sorburu nagusietakoa PSOErekin abiatutako lankidetzak: “‘Arriagako izpiritua’ deiturikoarekin EAJ-ren joera hau indartzen du eta, PSOE-rekiko loturaren bidetik, Estatuaren egitura ekonomikoan eta tajutze politikoan EAJ-ren murgiltzea areagotzen du” koalizio abertzalearen ustez. Ildo honetan, kokatuko zuen Ertzaintzarekiko kritika, “eraikuntza nazionala eta sozialaren aurkako estrategia amankomuna dutenez” polizia autonomikoa horren defendatzaile izateaz gain, “EAJren eskutik Estatu espainiarraren tresna politiko errepresiboa” litzatekeelarik. Burujabetzaren baitako diskurtsoak aztertzen ari garelarik, Eusko Alkartasunarekiko irakurketa ez zen askoz abegikorragoa izango. HBren ustez, azken honen zuzendaritzak ezker abertzalearekiko elkarlanaren aukerari ateak itxi bazizkion ere, herrietan elkarlanerako aukerak irekitzen zirela nabarmenduz.

Lehiaren zabalpen diskurtsiboa hau ezinbestez ekintza kolektiboaren ikuspegitik liskarraldiaren garapenari lotuta agertzen diren hainbat mekanismoekin lotuta agertu zen. Horien artean nabarmenenetakoa *protestarako bitartekoen erradikaltzea* edota *erasoen orokortzea*; orokortze honek ‘autonomismo’ hori ordezkatzeko zuten sektoreengan eragin nabarmena izan zuelarik.

Erasotutako alderdien egoitzak 1996an



1996an erasotutako polizia indarren agente eta jabegoak




12.1 grafikoak: 1996an erasotutako alderdien egoitzak eta segurtasun indarren agente eta jabegoak (Iturria: Egin; elaborazio propioa).

Goiko grafikoetan ikus dezakegun bezala, 1996an alderdi politikoen aurka egindako kale eraso guztien artean ia erdia EAJren kontrakoak izan ziren. Segurtasun indarren, bere kidego edota jabetzen kontra egindakoen artean bi heren baino gehiago. Mekanismo hauek sortzen dituzten eraginen artean lehian diren aldarrikapen, programa eta abarrekoen arteko kontraesanen areagotzea ohikoena izaten dira. Gure kasuan, maila orokorrean ‘demokrata’ eta ‘biolentoen’ banaketan eta zehazki abertzaletasunaren bi familien arteko ikuskeren urruntzean gauzatu ziren, garai honetan liskarraldiak forma hausturazaleagoak hartuz.

Helburuak markoztatzeko orduan KAS Alternatibatik Alternatiba Demokratikora bilakaera bat emango zen, bai eskaeren formulazioari zegokionez, bai horiek lortzeko prozedurari zegokionez. KAS Alternatibak planteatutako puntu zehatzetatik ‘akordio orokorrerako’ eskaerara egin zuen salto ezker abertzaleak, modernitate berantiarrean diskurtsoek hartu ohi dituzten hainbat ezaugarri bereganatuz. Prozedurari zegokionez, berriz, hainbat egokitzapen planteatu zituen 80. hamarkada bukaeran jorratutako negoziazio prozesutik. KAS Alternatibak planteatzen zuen negoziazio ereduaren erreferentzia praktikoa bezala Aljerren burututako negoziazioak eta akordioak kokatuko bagenu, ondoko piramide formako hurrenkera kokatu ahalko genuke: goiko erpinean “Elkarrizketa Politikoen” agenda ETA eta Gobernuaren arteko delegazioen negoziazio eremuari legokioke; ondorenean, “bi ordezkariak horiek (ETA eta Gobernuak) aldarrikatuko” lituzketen “aukera politikoen ordezkariak (PSOE eta HB?) [...] eztabaida eta elkarrizketarako mahai *osagarria*”¹⁹³ osatuko lukete (beti ere, orduko “Elkarrizketa Politikoen markoan”); “gainontzeko ordezkariak politikoen parte hartzerako mekanismoak negoziazio prozesuan zehar zehazten joango lirateke”; eta azkenik, “Euskal Herria izango litzateke horrenbeste irrikatutako negoziatutako konponbide politikoa berretsiko” lukeena.

¹⁹³ Kurtsiba gurea da. Akordioaren pasartea ETAk Egin egunkarian 1989ko martxoaren 27an publiko egindako agiritik hartuta dago, kasu honetan, ETA eta Gobernuaren artean adostutakoaren inguruko ika-mikan ETAREN bertsioari sinesgarritasuna emanez.



12.2 irudia: Negoziazio politikoen eredu bilakaeraren irudia.

Alternatiba Demokratikoa, berriz, ETA eta Estatu Espainiarraren artean bi negoziazio gai planteatu zituen: batetik, “Euskal Herriaren ezagutza”; eta bestetik, “Euskal Herrian irekiko den prozesu demokratikoaren emaitzak errespetatzea”. ‘Ezagutza’ horrek Estatuaren aldetik “lurralde banaketaren inposaketa gainditzea” eskatzen zuen, “lurralde batasuna onartuz, instituzio-mugak altxatuz”; hau da, autodeterminazio eskubidearen eta lurraldetasunaren onarpenari lotuta legoke. Bigarren ideia, euskal eragile eta herritarren artean adostutakoa Estatuaren aldetik beteko zitekeenaren konpromisoarekin. Prozesu hori gauzatu ahal izateko baldintza bezala gutxieneko batzuk bete beharko ziratekeen: ‘errepresaliatuen’ parte hartze askea (presoak, justiziatik ihesean zeudenak, ...) “amnistia orokorra” deklaratu eta segurtasun indarren esku hartzea ekiditeko neurriak bermatzea.

Alternatiba Demokratikoa planteatutako berrikuntza nagusia bigarren negoziazio eremuari zegokion; “euskal herritarren artean eztabaidatu eta hitzartu beharrekoari”, hain zuzen. Negoziazio eremu honek bi ideiei egiten zien erreferentzia: batetik, negoziazio-gaiei; eta bestetik, eztabaidatzaile izango den subjektuaren definizioari. Lehenengoari dagokionez, KAS Alternatiban jasotzen zen moduko zehaztapenik ez zen egongo, adostu beharreko “gutxieneko” hainbat gai planteatzen baziren ere¹⁹⁴. Eztabaidaren subjektuaren zehaztapenari dagokionez, dokumentu osoan zehar ‘Herria hitza eta erabakiaren’ jabe izan behar dela errepikatuko da, negoziazio prozesuari dagokionez ondorengoa planteatuz:

“Euskal herritarroi soilik dagozkigun gaiak erabakitzeko zabaldu beharreko prozesu demokratikoan sindikatu, elkarte, giza mugimendu, alderdi, maila guztietako instituzio, eta

¹⁹⁴ Autodeterminazio eskubidearen garapena (formulazioa, metodologia, aukerak, epeak...); lurralde batasunaren formulazioa eta eraikitze prozesua; Euskal Herri osoaren arteko harremanak; hitzartuko den antolaketa instituzional berriaren ahalmenak; Euskal Herria euskalduntzeko plangintza; eredu eta plangintza sozio-ekonomikoa; Euskal Herriaren desmilitarizazioa; irakaskuntza eskubideak; ...

azken finean gizarte osoak hartu behar du parte. Horretarako aukerak, eztabaida eta erabaki guneak zehaztuz”.

Baina proposamen batetik bestera aldaketarik ematekotan horretan zetzan, hain zuzen: balizko prozesu politiko batean euskal herritar eta eragileei egotzitako paper zentrolean. Erakunde armatuak balizko prozesu horretan funtzio esanguratsuak beretzat gordetzen bazituen ere (“Euskal Herriaren ezagutza eta aitortza”), maila diskurtsiboan erdigunean kokatu nahi izan zituen ordura arte ETA eta Gobernuaren arteko biko prozesu politikoan askotan ikuslearen edota babeslearen paperean kokatua izaten ziren sektoreak. Xabier Alegriari egin genion elkarrizketan aipatu zigun bezala garai horretan ezker abertzalearen barruan ondoko ideia barneratu zegoen: “borroka armatuak ezin zion Euskal Herriari esan ‘nik konponduko dizut hori eta hori [ETA-Gobernuaren arteko] akordio baten bidez etorriko da’”. Ildo berean mintzo zitzaigun Rafa Diez: “Aljerren planteatutako negoziazio eredu klasikoari dagokionez ‘Alternatiba Demokratikoak’ ETA-Estatuaren arteko bilateralismoaren zurruntasunetan aldaerak txertatzen zituen, marko politiko berri baten determinazioan alderdi eta antolakunde sozialei protagonismoa emanez”.

Horrela KAS Alternatibak planteatzen zuen eredia deskolonizazio prozesuetan ematen zen modeloa abangoardistetatik gertuago kokatzen zen bitartean, Alternatiba Demokratikoak ETARI ‘berme-emailearen’ funtzioa egotzen zion, KASek planteatzen zuen iherarkizatutako eredu zurruna maila batean malgutuz eta bestelako sektore sozialen pisua handituz. Sektore hauen inplikazioan eta beraien egotzitako roll erabakitzailean egongo litzateke lehia politikoaren zabalpenerako giltza eta ezker abertzalearen markogintzaren biraketa demokratizatzailearen funtsa. Alde horretatik, puntu horretan kokatu dezakegu ordura arte Gobernuarekiko negoziazioa erdigunean kokatu zuen estrategian ematen hasi zen *objektu aldaketaren* abiapuntua; praktika soberanistagatik ordezkatuko nahiko zuena, hain zuzen.

Ikusi dugun bezala, aldiz, markogintza ekintza kolektiboaren garapenean martxan jarritako mekanismoengatik baldintzatuta egongo da (eta alderantziz). Kasu honetan bezala, *disonantzia kognitiboa* sortzeraino. Izan ere, jardun armatuaren helburuaren zabalpenaren eta kale borrokaren hazkundearen bitartez emandako *erasoen orokortzearen* mekanismoak diskurtsoaren eta praktikaren arteko distantziaren handitzea ekarri baitzuen. Horrela, ezker abertzaleak nagusitu nahi izan zuen markogintza demokratikoa nekez gailendu ahal izan zitzaion Ajuria Eneako Itunak, bortxaren gorakada tarteko, duen *master frame* anti-terroristaren aplikazioari.

12.1.2.1.1 Bortxa politikoaren interpretaziorako marko ezberdinak: Iratzar ponentzia.

Aski ezagunak dira borroka armatuaren inguruan ezker abertzaleren barruan egon izan diren ikuspegi ezberdinak. Horrela jaso zen Herri Batasunak 90. hamarkadan zehar egindako gogoeta ezberdinetan¹⁹⁵. Alde horretatik, ezker abertzalearen markogintza *pluralista* izan dela esan daiteke. Pluralismo honek, ordea, ezin du ezkutatu estrategiaren garapenari sortutako barne lehiak eta estrategia horren inplementazioaren inguruan sortutako marko interpretatzaile ezberdinak.

Horren erakusle izan zen hamarkadaren erdialdean HBren baitan ematen ari zen gogoetaren harira aurkeztutako *Iratzar* izeneko ponentzia. *Iratzar* Ooreretako Herri Batasuneko komitetik zuzendaritzak aurkeztutako *Oldartzen* ponentzia ‘ofizialaren’ alternatiba bezala argitaratu zen. Prozesuaren bukaeran emandako bozketan txosten ofiziala aise nagusitu zitzaion alternatiba izateko asmoa izan zuenari. Alde horretatik, *Iratzar*-ren berrikuntza nagusia ordura arte ezker abertzalearen barruan strategiaren zutabeetako baten inguruan (jardun armatua) zeuden iritzi ezberdinak eztabaida formal batean ofizializatzeko eta esplizitatzeko balio izan zuela izan zen.

Ponentzia batek zein besteak antzeko ikuspegia planteatzen zuten maila ezberdinetako egoeren irakurketaren inguruan: nazioartea, Europar Batasuna, Estatuak, Euskal Herria, ...; baita alderdi politiko ezberdinek edota Autonomien Estatuak jokaturako paperaren inguruan ere. Alde horretatik, bi ponentziek *diagnostiko* osagarriak planteatzen zituztela esan daiteke.

Baina balantze horrek desadostasunetarako ere eman zuen. Politika instituzionala desadostasun horien isletako bat zen. Bi ponentziak kritiko azaltzen ziren jorratutako ibilbidearen inguruan baina ikuspegi ezberdinetatik. *Oldartzen*-ek “alderdiek ezarritako erritmo eta funtzionamendu politiko-administratiboen araberako” funtzionamendua salatzen zuen bitartean, *Iratzar*-rek “instituzioengandik kaptatuak eta irentsiak izateko beldurra galtzearen” beharra nabarmendu, eta bertara “ez soilik ukabila altxatu, pankarta atera eta abarrekoetara joan. Lan egin, alternatibak proposatu, salatu eta are Herriaren mesedetan egon daitezkeen akordioetara iristeko” joateko deia zabaltzen zuen. Era berean, *Oldartzen*-ek instituzioetako “gure lana demokratizazioaren alde jardun

¹⁹⁵ 1991ean burututako *Urrats Berri* prozesuan, esaterako, honela planteatuko da: “Herri Batasuna-n, borroka armatuaren aurrean jarrera ezberdinak ditugun pertsonak elkar-bizi gara, baita egungo egoera bere egokitasunaz zalantzak dutenak ere”. Edota *Oldartzen*-en zera aipatuko da: “Herri Batasunaren baitan, Prozesuaren ikuspegi orokor eta praktika zehatzei edota, prozesua aurrera ateratzeko une bakoitzean erabili beharreko borroka mota desberdinei buruzko eritzi ezberdinak izatea zilegi ez ezinik, normala eta aberasgarria da” (238. orrialdea).

eta egungo eredia deslegitimatzearen alde” egiten zuen bitartean, *Iratzar*-rek udal politikagintzan “eraikuntza nazionalaren bidean urratsak emateko udalak koordinatzearen beharra” nabarmentzen zuen.

Giugni-k (1998) protesta zikloi aurreikusten dien bukaera posibleen artean *barneratzeak* (*incorporation*) laburbildu ditzake politika instituzionalarekiko ezker abertzalearen ordura arte ildo ‘ofizialak’ erakusten zuen kezka nagusia. Izan ere, *barneratzearen* ondorio ohikoena *instituzionalizazioa* izan ohi da; bertan eragin nagusia protesta mugimenduaren eskaeretako batzuk agenda politiko-instituzionalean txertatzera ‘mugatzea’ izan daitekeelarik. Honek, eragin demokratizatzaile sakonagoko bestelako bukaera posibleekin (instituzionalizazioaren *eraldaketa* edota *demokratizazio* saio berria, esaterako) kontrajarrita egon behar ez badu ere (are gehiago, normalean bukaera posibleak teilkatuko badira ere) askotan mehatxu bezala irudikatuko da protesta mugimenduaren aldetik, bere jatorrizko helburuekiko edota nortasunarekiko ‘traizio’ gisa. Edozein kasutan, *barneratzeak* botere transferentzia apalenetakoa barnebilduko lukeen protesta zikloaren amaiera posiblea litzateke, “oinarrizko joko-arauak aldarazten ez dituen aldaketa ez-katastrofiko gisa” (Clemens, 1998). Hortik *Oldartzen*-en jasotako kezka eta kritika.

Baina, bi ponentzien arteko alderik bazen, hori borroka armatuaren eta bere inguruan HBk jokatu beharreko funtzioaren gainean eman zen. Aipatu dugu *Oldartzen*-ek eta Alternatiba Demokratikoak berak jardun armatuari egotzitako funtzio nagusia “betoak deuseztearekin” lotuta zegoela, bera bide arautuetik egitea ezinezkotzat hartuz. Horrela, HBren funtzioa beto horiek altxatzeko ezinbestekoa litzatekeen ETA eta Gobernuaren arteko negoziazio politikoa ahalbidetzeko ‘baldintzak sortzea’ litzateke; ez ETA eta Gobernuaren arteko zubi-lana egitea edota baldintza horiek ematen diren baloratzea, azken hau ETARI bailegokiok. *Iratzar*-rek, berriz, borroka armatuaren ‘izaera politikoa’ nabarmentzen bazuen ere, egindako ibilbideari erreparatu zion, “geroz eta hausnarketa gutxiagokoa eta egungo ezaugarri politiko eta sozialak kontutan izanik ulertzen eta onartzen zailagoa den borroka armatua izatera igaroz gizartearen zati batean eta ezker abertzalean hainbat sektoreetan halako ulertezintasun bat sortzen” (II. atala 21. paragrafoa) ariko zelarik. Zentzu honetan, nabaria zen *Iratzar*-ren aldekoen kezka borroka armatuaren erabilera, protestarako bitarteko gisa, *mugimendu osoaren legitimazioan* zuen eragin kaltegarriagatik. Izan ere, gorago aipatu bezala, protesta mugimenduaren markogintza arrakastatsurako aukera ekintza kolektiborako baliatutako errepertorioagatik baldintzatua egongo baita, kontra-mugimenduak azken honetaz planteatzen duen marko interpretatzailea jendartearen artean *durunda* (*resonance*) nahikoa egiten ez badu, bere

aurkako tresna bilakatu baitaiteke. Horra ‘askatasunaren aldeko borroka’ edo ‘terrorismoaren’ *markoen arteko lehia (frame competition)*.

Gainera, *Iratzar*-rek ez zuen bat egiten lerro taktiko honetan HBri egokitutako funtzioetan. Izan ere, Irlandako gatazkak gurean zuen *difusioaren* bidetik, Sinn Fein-ek IRA-rekin egin bezala, “HBk ez luke ETAREN jardunaren gaineko iritzia ematea ekidin behar, helburu komunen alde aurrera egin badaiteke” (II. atala, 22, paragrafoa). Are gehiago, “HBk negoziazio prozesuetan era aktiboan parte hartu beharko luke”, *Oldartzen*-ek planteatu bezala baldintzak sortzen ez ezik, “prozesuaren une jakin bakoitzean (ETA) Organizazioaren ordezkari eskuordetu” bezala jardunez (II. Atala, 24. paragrafoa). Zentzu honetan, tesi bakoitzaren arabera negoziazio politikoarekiko eragile bakoitza nola kokatuko litzatekeen ezberdintzea garrantzitsua litzateke. Horrela, *Oldartzen*-en arabera, HB *kanpokotasun* posizio *aktibo* batean kokatuko litzatekeen bitartean (ETA eta Gobernuaren arteko elkarrizketak emateko baldintzen sortzaile bezala, baina bertan parte hartze zuzenik gabe), *Iratzar*-ren, “ezinbesteko erreferentzia” *zuzena* izatearen beharra nabarmendu zen. Are gehiago, aipatu bezala, HBri hori gorpuzteko baldintzak sortzearen eginkizuna egozteaz gain, negoziazio politikoetan bertan ETAREN ordezkari gisa aritzeko eskumena egozten zitzaion.

MTTk (2005) aipatu bezala, liskarraldiaren polarizazioa ematen den momentuetan, botere lehiaren mekanismoa sistema eta aldarrikatzailearen artean ez ezik, aldarrikatzaileen artean ere eman ohi da. Kasu honetan, ezker abertzalearen barne lehia hori oraindik desorekatua izanik ere, eztabaida prozesuak berak ekarritako berrikuntza nagusia lehia hori modu publiko eta ofizialean lehen aldiz planteatzea izan zen.

12.1.2.3 Ondorioak.

12.2 taula: Ezker abertzalearen markogintzaren gako nagusiak 95-97 epealdian

| | | |
|-------------------------------|--------------------------------------|---|
| Diagnostikoa | <i>Arazoaren identifikazioa</i> | Problematizazioaren orokortzea: “Euskal Herria alarma egoeran” |
| | <i>Kausak eta eragileak</i> | Erantzukizunaren zabalpena eta sakontzea: Autonomismoarekiko (EAJ-EA-Ertzaintza-...) kritika zorroztu. |
| Pronostikoak | <i>Helburuak finkatu</i> | Helburuen markoztatze bikoitza: <ul style="list-style-type: none"> • Independentzia eta sozialismoa (estrategikoa). • Autodeterminazioa eta lurraldetasuna (taktikoa). |
| | <i>Helburuen egingarritasuna</i> | Arrakastarako aukerak; egingarritasuna: <ul style="list-style-type: none"> • Eraikuntza nazionala >> dinamika soziala. • Negoziazio politikoa >> borroka armatua. |
| Motibazioarako markoak | <i>Legitimazioa eta proposamenak</i> | Lehiaren terminoak eta parte hartzaileak zabaldu eta inkorporatu. |
| | | Markogintza demokratikoaren zabalpena: Alternatiba Demokratikoa, ‘hitza eta erabakia’, ‘marko demokratikoa’, ... |
| | | Disonantzia diskurtsiboa erasoen orokortzearen eskutik. |

- Estrategiaren eguneratzearen barruan, ezker abertzalearen markogintzaren diagnostikoaren arazo nagusia ez zegoen nagusiki ETA eta Gobernuaren artean lehiatzen ari zen gatazkak sortutako ondorioei lotuta (ekintza armatuak, errepresioa, ...); edo ez horiei bakarrik behintzat. Ezker abertzaleak problematizazioa orokortzera jo zuen arazo sektorialak (euskara, sozio-ekonomia, ...) azpimarratuz eta “Euskal Herria bera alarma egoeran” zegoela nabarmenduz. Horrela lehia politikoen terminoak eliteen arteko gatazkatik (ETA-Gobernua) hegemoniaren inguruko lehiara pixkanaka desplazatuz (Euskal Herria-Estatuak).¹⁹⁶

¹⁹⁶ Ildo honetan, bi hamarkada lehenago abiatutako *ekintza-errepresio-ekintza* estrategia ezagunaren muga berrespentsat hartu dezakegu. Izan ere, espiralak sektore berriak lehiara era zentripetoan inkorporatu beharrean era zentrifugoan kanporatzen dituenean, hegemoniaren inguruko lehia bien arteko gatazkara mugatuz, strategiaren

- Problematizazioaren orokortze honetan erantzukizunak ere zabalduko dira; bereziki diagnostikoan aipatzen den egoeran autonomismoak (EAJ-EA-Ertzaintza-...) duen arduraren nabarmenduz. Ekintza kolektiboaren ikuspegitik ere erantzukizunaren zabalpenak erasoaren orokortzearen mekanismoari lotuta agertuko zaigu; izan ETaren ekintza armatuen jokoaren zabalpenarekin, izan kale borrokaren erasoaren gorakadarekin.
- Helburuak markoztatzerakoan, KAS Alternatibatik Alternatiba Demokratikora ETA eta Gobernuaren arteko negoziazio erreferentzia nagusietako bat bezala mantenduko bada ere, euskal herritar eta eragileek diskurtsiboki hartzen duten garrantzia ezker abertzalearen estrategiaren bilakaeran urteetan luzatuko den *objektu aldaketa* prozesuaren abiapuntutzat hartu dezakegu. Bide horretan funtzio berezia hartu zuen *markogintzaren hedatzearen* teknika (Snow&Bendford, 1988), *nazio eraikuntzaren* estrategia diskurtsiboaren bitartez liskarraldia sektore eta eremu berrietara zabaldu nahian.
- Motibaziorako markoari zegokionez, arestian aipatutako lerroz diskurtsiboaren bitartez sektore horiek lehia politikoan inplikatzeko ahalegina ezker abertzalearen markogintzaren ‘demokratizazioa’ zabaldu bazuen ere, ekintza kolektiborako mekanismoen erabileraren ikuspegitik emandako erasoaren orokortzeak, aldiz, disonantzia diskurtsibo nabarmena sortu zuen hainbat sektoreen artean bere arrakasta mugatuz. Zentzu honetan, ezker abertzalearen markogintza demokratikoa (‘hitza eta erabakia’) protestarako bitarteko erradikalizatuarekin tentsio egoeran elkar-biziko zen.
- Era horretan, bortxa politikoaren erabileraren inguruan *marko interpretatzaile ezberdinak* mamitzen joan ziren ezker abertzale barruan; ez horrenbeste bere diagnosiaren inguruan (gatazka politikoaren ondorio gisa ulertuta), baizik eta *motibaziorako marko* egoki bat gorpuzteko planteatzen zituen mugen inguruan (mugimenduaren deslegitimazioa).



12.3 irudia: Ezker Abertzalearen estrategia tentsiodunaren irudia.

agortzearen zantzuen aurrean aurkituko bait gara.

12.1.3 Markoen lerrotzeak: ELA eta LABen markoen *zubigintza*.

12.1.3.1 ELAren *markogintza*.

12.1.3.1.1 Autogobernua.

a) Estatutuaren laneko mugen salaketa: “Aurrerapen eta askatasuna bidetik” agiria.

1992an lau urte ziren, Jose Elorrieta buru, ELAn zuzendaritza aldaketa historikoa eman zenetik eta bi urte zuzendaritza berriak VII. Kongresuan sindikatuaren norabidea eguneratu zuenetik. Bertan ELAk konpromiso hirukoitza hartu zuen: autogobernua sakondu, nazio eraikuntzan dimentsio soziala txertatu eta langileen ahotsa entzunaraztea. ELArentzat une egokia zen konpromiso horien inguruko gogoetan sakontzeko. Horrela, 1992ko martxoaren 6an bere Komite Nazionalaren izenean “Aurrerapen eta askatasuna bidetik” izeneko agiria publiko egin zuen. Dokumentuak ELAk hurrengo urteei begira ildo horietan jokatu nahi zuen papera zirriboratu nahi zuen, ordura arteko ibilbidean hainbat aldaketa esanguratsu proposatuz.

Agiria zazpi lerroburu nagusietan banatuta zegoen. Ziur aski, esanguratsuenetakoa bigarrengoan bertan “mugimendu abertzalearen helburu komun” izendapenean bildutakoa. Elorrietari egindako elkarrizketan bertan azaldu zigun bezala dokumentuan ez dago LABen ageriko aipamenik baina zeharkako erreferentzia bat baino gehiago irakurri daiteke lerro artean. Testuan, edozein abertzalaren azken helburutzat “Euskal Herri osoan erabateko autogobernua” hartuta, abertzaletasunean ematen zen “errealitate anitzak [...] abertzaleak batera lan egiteko traba ez lukeela izan behar” adierazten zen. Zentzu horretan, mugimendu abertzalearen baitan kokatzen ziren sektore ezberdinen “hausnarketa autokritikoaren” beharra nabarmentzen zuen. Bi sektoreengan jarri zuen arreta nagusia: ETArengan eta euskal instituzio politikoengan. Lehenengoaren borroka armatuaren “absolutizazio logikak” sortzen duen konfrontazio eredu antagonikoa arbuiatu zuten; bere ondorio nagusietakoa abertzaletasunaren baitan ematen zen haustura zelarrik. *Diagnostiko* hau eta bere ondorioen salaketa ez zen zerbait berria izango eragile abertzaleen artean, baina momentu horretan Ajuria Eneako Itunaren eskutik abertzaletasunaren baitan nagusitutako markogintzan pitzadura esanguratsu bat marrazten zuen, gerora hirugarren espazioa bezala ezaguna egin zenari forma ematen hasiz. Izan ere, ordura arte ETAREN existentzia abertzaleen arteko elkarlana ‘de facto’ ezinezko egiten zuen zerbait bezala ulertzen bazen, elkarlanerako deiak, ETA elkarlan hori zaildu

baina aldi berean kudeatu beharreko elementutzat kokatzen zen. Bestetik, instituzio politikoei dagokionez, jendarte sektore ezberdinekiko deslotura salatzen zuten; batean eta bestean ematen zen ‘abangoardismoa’ errefusatuz.

ELAren ustez, ikuspegi sozialetik indartu beharreko abertzaleen arteko elkarlan honek Lan Harremanetarako Marko Propioaren (LHMP) lehentasunezko aldarrikapenean forma hartu beharko luke. ELA kontziente zen sindikatu bakoitza “markoztatze eta ekintzarako eremuen” arteko hautu ezberdinen aurrean kokatzen zela. LHMPk, izaera estrategikoa izango zuen helburu gisa, ordura arteko aliantza eta aurkaritzak berreraikitzea eskatzen zuelarik:

“Ez dago inolako dudarik estrategia hau praktikara eramaten ahalegintzen den neurrian UGTekin eta CCOOekin EAEn dugun gauregungo ekintza batasuna guztiz kolokan jarriko litzatekeela; nahiz eta espero daitekeen guztioi interesatzen zaizkigun helburu aurrelarietarantza aitzintzeko euskal markoak eskaintzen dituen ahalbideen baliospen positiboa egitez nagusituko zaiola erdiespen strategiari”.

Baina LHMP *helburu bezala markoztuta* bere gauzatzea ez da soilik sindikatuen arteko harremanek osatzen zuten *aliantza/aurkaritza egitura aldakorraren* arabera egongo; *erakundeen egitura egonkorrak* ere zerikusi zuzena izango zuen. Izan ere, ELAk Gernikako Estatutuak lan aferak arautzeko duen “konpetentzia hutsunea” salatu zuen. Horrelako eskaerak, eta Estatutuan jasotako beste hainbat eskuduntza (INEM edota Gizarte Segurantzaren transferentzia kasu), mugimendu abertzalean txertatutako eskaeratzat hartzen zituen, garai horretako EAJ, EA eta EEren arteko ekintza programetan jaso bezala. Aldiz, botere zentralak, PSOEn eskutik, jarritako trabak zirela medio, abertzale eta ez-abertzaleen artean zedarrituko zuen lehiatzaileen arteko muga. Eskaera hauekiko eratu berria zen Confebask-ek erakutsitako “babes eskasa” ere salatu zuelarik.

ELArentzat honakoak ez ziren bigarren mailako gaiak izango. Indar harremanak eragile bakoitzak gai hauekiko izango lukeen jarreraren arabera berrantolatzeke eskaerak benetako berrikuntza suposatu zuen orduko harreman politikoetan; are gehiago, eragile sozial nagusienetakoa zenaren eskutik eginda. Horrela, agiria “sakabanaketaren kulturarekin gainditzeko” deiarekin bukatzen zen, jendarte “klabe abertzalean birbizitzeko” aldarrikatuz. Zentzu honetan, LHMPren eskaerak “sindikalgintza abertzalearen arteko hurbilketa erraztuko duen jarrera” mantentzeko konpromisoa hartzera eramaten zuen ELA, “beti ere, burujabetza eta demokrazia sindikalari baldintzatua”.

1993eko ekainean ospatutako VIII. Kongresuan aurkeztutako ponentzietan aurreko urtean “Aurrerapen eta askatasuna bidetik” agirian planteatutakoa berretsi zen. Letamendiak (2004) Kongresu hau ELA “instituzionalizaziotik kontra-boterera” eraman zuen batzar nagusia bezala definitu zuen. Aurreko hamarkada osoan zehar autogobernua egituratzeari begira erakunde publikoetan izandako presentziari uko egin gabe, bertako logika instituzionala lehiatuko zuen mugimendu izaerarako bilakaera ematen hasi zela esan dezakegu.

Harreman sindikalei dagokienez, 1992tik 1995ra bitarteko epealdia trantsizio fasea izan zen. ELA eta CCOOen arteko elkarlanak behera egiten zuen heinean, ELA eta LABen artekoak gora egin zuen. Zentzu horretan, ELAren jarduna eta markogintza hamarkada erdialde osoan zehar elkarlan honengatik ezaugarritu zen: LABekin batera landutako Lan Harremanetarako Euskal Esparruaren aldeko 1994ko dinamika, 1995eko Aberri Eguneako manifestu bateratua, Etengabeko Prestakuntzaren aldeko ildoak, Eskubide Sozialen Kartaren dinamika, ... Zentzu honetan, aurrerago sakonduko dugun bezala, bi sindikatuen *markogintzen zubigintza (frame bridging)* ariketarekin aurkituko gara. Zubigintza hori bata eta bestearen arteko batura baino, lan mundua eta bilakaera politikoa interpretatzeko barne koherentzia bat mantentzen zuen ikuskera berri bat azaleratu zuela esan dezakegu. Are gehiago, autogobernu ereduaren eraginkortasunaren inguruan zabalduko kritikak, bakegintzari zegokionez Ajuria Eneako Itunak planteatzen zuen markogintzarekiko deslerrotzeak edota ordura arte instituzionalizazio prozesuarekiko jarrera anti-sistemikoa erakutsitako eragileekin lankidetzarako zabalduko esparruak, ELA sistemarekiko legitimazio funtziotik sistema bera zalantzetan jartzen zuen protesta mugimenduaren aldera desplazatzen hasi zela esan dezakegu.

b) ‘Estatutuaren heriotza’: 1997ko Gernikako ekitaldia

1997ko ekainean ELAk bere IX. Kongresua burutu zuen. Globalizazioak ezarritako egoera makurra eta autogobernuaren agortzea gai izarrak izango ziren. Kasu honetan, ez ziren ponentzia ezberdinak aurkeztu, eduki guztia txosten bakarrean bildu zelarik. ELAk bere nazio proiektua definitzerakoan hiru elementuen gainean jarri zuen azpimarra. Batetik, berme demokratikoa eskainiko zuen marko demokratikoan, indarrean dagoenak ez baitu horrelako bermerik eskaintzen. Gabezia horretan datza, ELAren ustez, gatazka politikoaren muina. Bigarrenik, ikuspegi soziala lehenetsiko zuen autogobernuaren alde egiten zuen. Eta hirugarrenik, konfrontazio demokratikoa proiektu abertzaleak aurrera egiteko tresna gisa. 1993ko Kongresuan ‘instituzionalizaziotik kontra-boterera’

salto eginez eta urte berean Ardanzari emandako 'lehenengo ezezko instituzionalaren' bidetik, zeregin instituzionalek gero eta garrantzia txikiagoa hartu zuten, "joko instituzionalen onurez behinola izan zuen irudipen baikorraz desengainaturik" (Kortabarria, 2015: 169). Erakunde publikoetatik emandako urruntze honek mugimendu alternatibo batean isla izateko, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuekin jada ematen ari zen elkarlanaz harago, bestelako mugimendu sozialekin hartu-emanak areagotzeko apustua ere egin zuen.

Baina ordura arteko instituzionalizazio prozesuaren mugak zertifikatu behar zuten gertakariak oraindik iristeke zeuden. Gogora dezagun, aurreko urtean Arzalluzek eta Aznarrek bigarren honen inbestidurarako akordioa sinatu zutela; trukean Estatutuaren garapen osoa, Kontzertuaren zabalpena, EAJren ondare historikoaren itzulketa eta Etengabeko Formakuntzarako finantziazioa bermatuko luke Espainiako Gobernuak. PP konpromiso ekonomikoak betetzen hasi zen¹⁹⁷, baina alderdi jeltzaleak azkar antzeman zuen gobernu berriak euskal instituzionalizazio prozesuan sakontzen jarraitzeko zuen borondate eskasa. 1997ko irailean Rodrigo Rato Ekonomia Ministroak INEM eta 'kutxa bakarra' gai ukiezintzat hartu zituen. Adierazpen hauek 1995an Eusko Legebiltzarreko alderdi guztiek transferitu gabeko eskuduntzen inguruan onartutako txostenean esaten zenaren kontra zihoan. Honek eragile abertzaleengan sekulako zalaparta sortu zuen. Arzallusek irailaren 22an PPrekin zuen ituna hautsitzat eman zuen. ELAk bere aldetik irailaren 29an bere Komite Nazionalaren ahotik Estatutuaren "izatezko derogazioa" arbuiatu zuen. Adierazpen hauek jasotzen zituen dokumentuan¹⁹⁸ hurrengo hilabeteen ospatuko zen ekitaldiaren lerro nagusi batzuk aurreratzen ziren. Honen arabera Alderdi Popularrak ez zuen "inongo asmorik Estatutuan enplegu, formakuntza eta gizarte segurantzari dagokionez ezarritakoa betetzeko", bide horretan PSOE, UGT, CCOO eta CEOE bidelagun izango zituelarik ELAren ustez ez-betetze honek, zerbait partziala izatetik harago "kontsentsu estatutarioaren gunea ukitu eta hautsi" zuen, "egungo marko juridiko-politikoaren berme demokratikoen falta" agerian utziz.

Baina 1997ko urriaren 18an Gernikan burututako ekitaldia izango zen ELArentzat autonomismotik soberanismoarako *objektu aldaketa* suposatuta zuena. Bertan Elorrieta idazkari nagusiak planteatutako irakurketaz harago, inguruabarrak ere esangura handia zuen. Alderdi abertzale guztietako ordezkariak bildu ziren; baita Ezker Batukoak ere. LAB eta EHNE sindikatukoak. Elkarri edo Senideak elkartekoak. Eta kultura eta bestelako eremu sozialetako hainbat pertsona ezagun ere.

¹⁹⁷ Okupatutako langileen etengabeko formakuntzarako atalean kenduta, non diru partida mugatu batek euskal eragileen artean adostutakoa praktikan indargabetzen zuen.

¹⁹⁸ "Autogobernuaren alde ekin borrokari!" deitutakoa.

Gernikaren hautaketa ere ez hutsala, autogobernuari lotuta zuen esanahiagatik. Gainera ekitaldiaren hasiera Lizarrako estatutuaren (1931) onarpenetik hasten zen kontaketa historikoarekin jantzi zen.

Elorrietaren interbentzioak markatu zuen ekitaldiaren mamia. Idazkari nagusiaren diagnostikoak ez zuen interpretazio ezberdinetarako tarterik utzi: “Estatutuaren bidea bukatu da (...). 18 urtez itxoin dugu Estatutua bete dadin. 18 urtez adarra jo digute. Pazientzia itzela izan dugu, baina muga guztiak gainditu dituzte eta amaitu dira koplak”; “Estatutua itun politikoa zen, batik bat, eta txiki-txiki egin dute”; “Estatutua hilda dago, zentralistek hil dute” sententziatu zuen.

1992ko “Aurrerapen eta askatasuna bidetik” agirian mugimendu abertzalean eman beharreko autokritikaren hariari jarraituz, “oso ahul, oso zatituta, oso despistatuta eta konplexuz beteta ikusi gaituzte, nonbait, espainol zentralistek, Estatutua ‘de facto’ indargabetu eta hain lasai geratu direnean (...)” konstatatu zuen. “Espainolak eroso daude Estatutuaren kontsentsuan, bertan nazionalismoa neutralizatua daukatelako, bete gabeko itunetik irten ezinda”. Guztia, aldiz, ez zen horren iluna izan helburuak markoztatzeko orduan. “Oker zeuden erantzun gabe geldituko ginela uste bazuten. Eta gure erantzuna ez da protesta hutsa izango (...) indar korrelazio berria bilatuko dugu”; “egungo blokeo egoera gaindituko duen fase berriak beste edukiak -Estatutuaz gutxiago eta behar dugun autogobernuaz gehiago hitz egingo dugu-, estrategia eta aliantzak izango ditu”.

Gorpuztu beharreko aliantza estrategiak tartea berezia hartu zuen entzule hain esanguratsuen aurrean. “Bakoitzak bere eran eta bere erritmoan joan behar du urrats berriak ematen, mugimendu abertzale osoa posizio bateragarriagoetara eraman ahal izateko. Uste dugu posible dela trantsizioaren hasieratik pairatzen dugun haustura konpontzea [...]. Zoritxarrez gure historiako azkenengo hogeitun abertzaleon arteko desadostasunak ez du posible egin indarrak batzea. Baina, orain arte posible izan ez dena, hemendik aurrera posible egin behar dugu”. Muga honetatik kanpo kokatu zituen “guk onartu ez dugun Konstituzioa eta eurek ez betetzea erabaki duten Estatutua erabilia, nazio gisa ditugun helburuei muga jarri diotenen” aurkaritza egitura. Baina diskurtso hau ez zegoen soilik abertzaleei zuzenduta: “Nazio-eraikuntza ilusioa sortzen duen erronka bihurtu behar dugu, eta hartara ekarri behar dugu herri bezala dagokigun etorkizuna erabakitzea euskal herritarroi dagokigula onartzen duen demokrata oro”. Demokraziaren inguruko gatazka hau edozein mugimenduren auto-legitimaziorako tresna izango da; baita abertzaleentzat ere: “Hemen gaudenon eta ez daudenen artean oinarritzko diferentzia bat dago: guretzat burujabetza euskal herriari dagokio eta printzipio horretan du oinarri autodeterminazio eskubideak”. Zentzu horretan, Gernikako ekitaldiarekin ELAren diskurtsoan autonomismotik burujabetzarako *objektu*

aldaketaren mekanismoa bururaino eraman zela esan dezakegu eta horrekin batera soberanismoaren *kategoria osaketari* oinarri zabalagoa eman. Elorrieta, aldiz, aliantza hori gorpuzteak eskatuko zien lanaz kontziente zen orduko “argazkia oraindik lausoa” zela adieraziz¹⁹⁹.

12.1.3.1.2 Bakegintza.

1988an ELAren gidaritza hartu zuen zuzendaritza berriak lau urte beranduago kaleratutako “Aurrerapen eta askatasuna bidetik” agirian finkatu zuen ETAren indarkeriarekiko posizioa. Bertan, gorago aipatutako “absolutizazioaren logikak” ezarritako eredu antagonikoa salatu zuen. ELAren ustez, ETAren logikak, Carl Schmitt (1991) pentsamenduan bezala, antagonismoa harreman politikoen esentzia bihurtu zuen, gerra beti presente egongo den aukera bihurtuz. Logika schmittiar horretan ‘lagun/etsai’ dualismoa politikaren funtsa bilakatu zen. Horrela, ETAren “planteamenduekin bat egiten ez duen edozein pareko lubakian kokatuko da, edozein bide eta prozedura zilegizat hartuz”²⁰⁰. Ikuskerara antagoniko honen arabera “geroz eta murriztagoa litzatekeen abangoardia, bere burua sakrifikatu eta besteak sakrifikatzean tematuta legoke, konfiantzarik ez lukeen herria eta jendartzearentzat duten proiektu baten mesedetan”²⁰¹. Sakrifizioaren logika *thymótiko* honek norberak eskaintzen duen sufrimendu hori gerraren balio sisteman goi mailako postuetan kokatuko lukeelarik.

Elorrietaren ustez, bortxaren erabilerak ezker abertzaleak nagusitu nahi zuen markogintza demokratiko eta ‘eraikuntza nazionalaren’ artean gorago aipatutako disonantzia diskurtsiboa sortzen zuen; jendartea horren arabera baino, “biolentzia bai, biolentzia ez” terminoen arabera kokatzera derrigortuz:

“La violencia divide a los ciudadanos de Euskadi en blancos y negros, buenos y malos, dificulta los esfuerzos de búsqueda de salidas dialogadas. Pero, además, la actividad de ETA permite que los enemigos del proceso de construcción nacional hagan una crítica muy

¹⁹⁹ Adierazgarriak izan ziren ELAren 1997ko Gernikako ekitaldia eta gero egondako erreakzio ezberdinak. EAJren baitan, esaterako, Ollorarena bezalako ahots kualifikatuek eredu autonomikoa burujabetza terminoetan eguneratzeko apustua egiten zuten bitartean, ekitaldian bertan egondako Rikardo Ansotegik ez zuen Estatutua erabat galdutzat ematen eta “indar politiko, sozial eta sindikalak batzea (HB eta LAB barne) Madrilen borondate politikoa aldarazi eta Gernikako Estatutua osorik betearazteko” proposatzen zuen. Egibarrek ere “markoen inguruko marrazketetara sartzea, egungoa betetzen ez denean, ariketa arriskutsua izan zitekeela” iradoki zuen. Arzalluzek berak Estatutua hilda baino, ‘mutilatua’ zegoela esan zuen ELAren jarrera ‘muturrekotzat’ hartuz (Elorrieta, 2011).

²⁰⁰ ELA. (1992, maiatza). Aurrerapen eta askatasuna bidetik. *Lantzen*, 9. orrialdea.

²⁰¹ ELA. (1996, apirila). *Landeia*, 42, 9. orrialdea.

oportunista a todos los nacionalistas, y hace que problemas que debieran ocupar un lugar central en el debate social y nacional no puedan plantearse como consecuencia de la polarización que provoca”²⁰².

Zentzu honetan, ELAk ETAREN bortxaren inguruan baliatu zuen markogintza ‘deslegitimatzailea’ termino etiko edo moraletan ez ezik, ikuspegi estrategiko batean kokatu zuen. Izan ere, abertzaletasunak nagusitu nahi zuen markoa hegemonizatzeko edota abertzaleen arteko elkarlanerako traba bezala kokatu baitzuen etengabe. Ildo honetan, 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera Ertzaintzaren zabalpenarekin batera hauek eta ezker abertzalearen artean eman ziren etengabeko talkak kezka eta kritikarako iturri izan ziren, ELAk bertan izango duen presentzia nabarmena tarteko; baita barne tentsioen jatorria ere (Kortabarria, 2015). Gainera ETAREN jardunak eragin zuzena izan zuen ELAko hainbat kideengan²⁰³. Zentzu honetan, komunikabide ezberdinen eta alderdi estatalisten aldetik presio handiak jasan izan behar izan zituen LABekiko harremana apurtzeko. Horrelako gertakarien aurrean ELAk balioan jarri nahi izan zuen elkarlan hau, eraikuntza nazionalaren edota lan harremanetarako euskal esparruaren alde suposatzen zuen “ekintza eraginkorra”²⁰⁴ nabarmenduz. Baina ELAREN ustez, biolentziak elkarlana nonbaiten zailtzen bazuen hori eremu politikoan zen, “ekintza sindikaletik harago doazen elkarlanerako gaiak fase bereziki apalean sartuko”²⁰⁵ liratekeelarik. Atentatuak gertatzen zirenean, LABek egiten zituen adierazpen ‘epelen’ aurrean, “autonomia sindikalerako”²⁰⁶ etengabeko eskaera egiten zion, izan zitzakeen “bestelako menpekotasunak” atzean uzteko eskatuz.

²⁰² ELA. (1996, apirila). *Landeia*, 42, 5. orrialdea.

²⁰³ Joseba Goikoetxea eta Montxo Doral ertzainak, Eugenio Olaziregi eta Frantzisko Jabier Gomez Elozegi espetxeetako langilea izan ziren ETAK hildako ELAko kideak (Kortabarria, 2015).

²⁰⁴ ELA. (1996, apirila). *Landeia*, 42, 10. orrialdea.

²⁰⁵ ELA. (1996, apirila). *Landeia*, 42, 5. orrialdea.

²⁰⁶ Ibidem.

12.1.3.1.3 Ondorioak

12.3 taula: ELAren markogintzaren gako nagusiak 95-97 epealdian

| ELA | | |
|---------------------|--|--|
| Diagnostikoa | <i>Arazoaren identifikazioa</i> | Estatutuaren muga sozio-laboraletatik >> ‘Estatutuaren heriotzera’ ETAren indarkeria |
| | <i>Kausa eta eragileak</i> | Estatuko indarrak (PSOE, PP, CCOO, UGT, ...) ETA |
| Pronostikoa | <i>Helburuen markoztatzea</i> | Objektu aldaketa: autonomismotik soberanismoa |
| | | Borroka armatuaren amaiera |
| Motibazioa | <i>Mugimenduaren autolegitimazioa;</i> <i>Konponbiderako proposamenaren egingarritasuna</i> | Abertzaleen arteko elkarlana |
| | <i>Arerioaren deslegitimazioa</i> | Konstituzionalisten salaketa (“beraiek hil dute Estatutua”) ETAren indarkeriak elkarlana eragotzi |

- Autogobernuaren gaineko diagnostikoari dagokionez, ELA izango da epealdi honetan bilakaerarik nabarmenena ezagutuko duena: Estatutuak lan eta sozial eremuetan dituen ‘hutsuneen’ gaineko kezkatik, Estatutuaren baliogarritasun falta aldarrikatzera.
- Finkatutako pronostikoari dagokionez, Lan Harremanetarako Esparru Propioaren (LHEP) helburuak bi fase hauen arteko zubilana egingo du, Estatutuaren eskuduntzen transferentzia eskaeren fasetik ‘gure beharren arabera autogobernu’ ereduaren faserako eskaera-hari bezala mantenduz. Zentzu honetan, autonomismotik soberanismoa doan *objektu aldaketaren* mekanismoa presente egongo da helburuak markoztatzerakoan.
- ELAren motibaziorako markoa, abertzaleen arteko elkarlanaren legitimazioaren eta Estatu mailako indarren deslegitimazioaren artean mugitu zen. Lehenengoari dagokionez, mugimendua legitimatu ez ezik, finkatutako helburuak (LHEP eta ‘bestelako autogobernua’) erdiesteko *proposamen egingarri* bezala aurkeztu zuen. Bigarrenengoari dagokionez, Estatutuaren inguruan lortutako kontsentsua apurtu eta bera ‘de facto’ indargabetzea leporatuz deslegitimatuko ditu.

- Ildo honetan, bakegintzaren inguruko markogintza autogobernukoarekin lotuta agertuko zaigu. Izan ere, ETAREN borroka armatuak abertzaleen arteko elkarlanerako traba nagusia izanik, bera izango litzateke bestelako autogobernu eredu baterantz urratsak ematea zailduko lukeen kausa nagusietakoa.
- Edozein kasutan, momentu horretan Ajuria Eneako Itunak ezarritako ‘demokrata’ eta ‘biolentoen’ *master frame* anti-terroristan deslerrotzeari atea ireki zion. ETAREN jarduna abertzaleen arteko elkarlana zailduko zuen elementua izango zen; ez ordea ezinezko egin. Alde horretatik, protestarako bitartekoen erradikalizazioa eta ‘abertzaleen elkarlanaren’ markoaren arteko harreman tentsioduna presente egongo da epealdi osoan zehar.

12.1.3.2 LABen markogintza.

12.1.3.2.1 Autogobernua.

a) Negoziazio politikoa eta Lan Harremanetarako Esparru Autonomoa.

LABen markogintza, ezker abertzalearen familia politikoaren partaide bezala, azken honek planteatutako diskurtsoari lotuta agertuko zaigu. Alde horretatik, orain artekoak ez errepikatzeko, *autogobernuaren* planoan LABek planteatutako bereizgarrietan jarriko dugu arreta nagusia; *bakegintzarenean* planteatutakoa nagusiki ezker abertzalearen markogintza orokorrari lotu baitziztaion.

1992an burututako bere III. Kongresuan ezker abertzalearekiko sintonia diskurtsibo hau nabarmena izan zen. Hamabi urte igarota ziren bere azken kongresua burutu zenetik. Hirugarren kongresu honen aurreko garaiak ez ziren errazak izan ezker abertzalearentzat, jada aipatu ditugun hainbat aldagaiengatik. Tartean HASIren barruan egondako ika-mikek sindikatuan izandako eraginagatik eta kohesio ideologikoa bermatzeko KASen barruan mantentzeko egindako ahaleginak zauriak ireki zituelako sindikatu abertzalearen barruan (Majuelo, 2000; 132). Rafa Diez-i egindako elkarrizketan horrela azaldu zigun:

“El modelo de dirección y su desarrollo siempre ha sido una cuestión conflictiva. Desde el concepto de KAS como Coordinadora, con posterior caracterización como “Bloque

Dirigente”, hasta la desaparición de KAS y remodelación del organigrama de dirección política las relaciones estuvieron caracterizadas por una lealtad colectiva que, sin embargo, era sacudida por múltiples contradicciones. La más importante, sin duda, fue la que llevó a la desaparición de HASI. LAB, a pesar de su colaboración y aportación al conjunto de la IA, siempre ha buscado dar peso y autonomía a sus estructuras evitando ser una mera sucursal sectorial. Desde la década de los 80 dimos forma y contenido a LAB como marco de debate y decisión, asumiendo un protagonismo específico ante el resto de organizaciones de la IA. [...] Así pues, LAB desarrolló una estrategia autónoma dentro de su lealtad al conjunto de la estrategia de la izquierda abertzale. Y eso ha sido una de las claves para entender la positiva evolución del sindicato a pesar de las diferentes coyunturas y etapas que la izquierda abertzale ha conocido.”

Blokeak ezker abertzale osoaren diskurtsoaren koherentzia eta kohesio bermatu zuen; ikusi dugun bezala, honek hainbat gertaeren inguruko ulerkera ezberdinak egon bazeudela ezkutatu ezin bazuen ere. Horrela, garai horretako LABen *diagnostikoa* ‘eskubide demokratikoen’ ukazioa eta ‘defizit demokratikoa’ autogobernuaren egoeraren gaitz nagusi bezala kokatzen ziren. Bakegintzaren egoerari zegokionean, “biolentzia instituzionalarekin amaitzea”²⁰⁷ lehenetsun bezala ulertzen zen, horren erantzukizun nagusia Estatuarengan eta bera sostengatzen duten Ajuria Eneako Itunarengan kokatuz.

Gauzak horrela, LABen *helburuak markoztatzerakoan* bakea eta burujabetza politiko-ekonomikoa erronka nagusizat hartzen ziren. Bigarren horrek Lan Harremanetarako Esparru Autonomoan (LHEA) forma hartzen zuen, ELAk aldarrikatutako Lan Harremanetarako Esparru Propioarekin (LHEP) sintonia argian. Bazen, aldiz, LABentzat funtsezkoa zen ezberdintasun bat sindikatu bakoitzak kategoria horiek egikaritzeko planteatzen zituen bideen artean, baten eta bestearen estrategien muinak ezberdintzen zituena. LABentzat LHEA “Estatuaren berezko eskuduntza bati eragiten dion heinean, bere egikaritzea marko juridiko-politiko berri batean gauzagarria da, zeinaren ardatza euskal Burujabetza nazionalaren aitortza” izango litzatekeen. Alde horretatik, burujabetzaren aldeko sindikatuen eginkizuna indarrean zegoen markoa borrokatzea izango zen. LABen ustez, ELA lan harremanetarako *berezko* esparruaren bidean kokatzen zen sindikatu baten ere, LHEPa negoziazio kolektiboaren bitartez gauzatzen saiatzen zen. Hau da, negoziazio kolektiboak aitortzen zuen ‘aldean autonomia’ baliatuta, esparru propio horren bidean gutxieneko erregulazio bat lortzeko asmoarekin. LABen hitzetan, ELA negoziazio kolektiboaren bitartez

²⁰⁷ LAB. (1992). II. Kongresuko Ponentziak. 155. orrialdea.

“Langileen Estatutuaren eta Askatasun Sindikalen Lege Organikoa (ASLO) *inguratzen*” saiatuko litzateke, “araudi zentralista alde batera utzi eta aurre egin beharrea”. LABentzat honen esangura erabat politikoa zen, ELAk “marko estatutarioaren ez-nahikotasunen arazoari aurre egitea saihesten”²⁰⁸ zuelarik. Samuel P. Huntington-ek (1996) aldaketa politikoa gauzatzeko aztertutako iraultza eta erreformaren eredu klasikoetan bezala, lehenengoan aldaketaren sakontasunak indarrean den status-arekiko erabateko aldaketa eskatzen duen bitartean, bigarrengoan sistemak berak eskaintzen dituen aukerak aldaketarako bitartekoak ere izango dira, hainbatetan bateragaitzak diren ereduak bezala ikusiak izan direlarik.

Kasu honetan, aldiz, LABek ate bat irekita utziko zion ELAk planteatutako legalitatea ‘inguratzearen’ eskema horretan urratsak emateari, baldin eta markoaren mugen salaketari lotuta balego. Izan ere, LABek bere jardueraren gaineko auto-kritika egin zuen, bere ekintza sindikala “lan zentroaren arazoan eta ENAMeko ‘gaien’ sarreraren artean *kulunkatu*” zela aitortuz:

“LAB irekita egon daiteke, gero egingo ditugu ñabardurak, ‘de facto’-zko bide horretan sakontzeko (...) baina eskaera posizio argi batetik, langileen eta enpresa batzordeen egungo markoaren eskuduntzen mugen salaketatik”²⁰⁹.

‘Ñabardura’ hauek berebiziko garrantzia izan zuten bi sindikatu hauek gerora garatu zuten elkarlana gauzatu ahal izateko. Horrela, LABek “eginkizun mixtoa” garatu behar zuela uste zuen, ezker abertzaleak garai horretan planteatutako logikan berdinean: “indarrean zen eskuduntzen egituratzetik jaiotako organo instituzionaletan parte hartzea eta Langile Mugimenduaren eta Euskal Sindikalgintzaren paper aktiboari bide emateko salaketa ozena”²¹⁰ egitea.

Gainera LHEAren aldeko lerro honek ordura arte behar bezala garatu gabeko tarteko espazio bat lantzeko aukera eman zion. Alde horretatik, enpresako *mikro* eta ‘independentziaren’ *makroaren* arteko LHEAren *tarteko* lerroak ‘markoaren aldaketaren’ eskaria edukiz betetzen hasteko aukera emateaz gain, Huntington-ek planteatutako paradigma zurrunetan erortzeko baino, aldaketa prozesu mailakatua bideratzeko aukera zabaltzen ziolarik.

²⁰⁸ LAB. (1992). II. Kongresuko Ponentziak. 66. orrialdea.

²⁰⁹ LAB. (1992). II. Kongresuko Ponentziak. 32. orrialdea.

²¹⁰ Ibidem.

b) LAB eta 'eraikuntza nazionalaren' estrategia.

Ezker abertzaleak 90. hamarkadaren erdialdean egindako gogoetak 1996an burututako IV. Kongresuan forma hartu zuen sindikatu abertzalearengan. Hausnarketa prozesu horren parte aktibo bezala, mugimenduan planteatutako markogintzaren *diagnostikoa* eta *pronostikoarekin* sintonian kokatu zen. Horrela, Trantsizioaren iruzurra, Euskal Herriaren eskubide demokratikoak erdiesteko prozesu estatutarioaren eragin kaltegarria, 'nazionalismo-erregionalistaren'²¹¹ erantzukizuna egoera horretan, ikuspegi nazionalaren garrantzia eta abarrekoak egoeraren 'gako estrukturalak' ziren.

92ko kongresuan instituzionalizazio autonomikoaren inguruko 'kanpo-barne' eztabaidaren tentsio presente egon zen berriro ere, egitura autonomikoak lan esparruan sortzen zituen gabeziak soilik negoziazio kolektiboaren bidezidorraren bidez, legalitatea inguratuz eta marko juridiko-politikoa lehiatu gabe nekez gaindituko zirela azpimarratuz. Zentzu honetan, Lan Harremanetarako Esparru Autonomoak (jada Lan Harremanetarako Euskal Esparru -LHEE- bezala izendatua) berriro ere garrantzia berezia hartu zuen 'kanpo ala barne' dilema gainditzeari begira; sistemaren onargarritasun mugetatik kanpo kokatzen zen eskaera bezala, baina aldi berean sistemaren baitan jardunez forma hartzen joan zitekeen aldarrikapen gisa ere. Are gehiago, LHEEren bitartez, ezker abertzaleak nazio eraikuntza estrategiarekin planteatutako gatazka politikoaren zabalpenean, LABen funtzio jada ez zen 1992an egindako auto-kritikan planteatu bezala lan munduan "ENAMeko 'gaien' sarrerara" mugatu behar; hau da, 'ETA-Gobernua'-ren arteko gatazkan negoziazio politikoaren aldeko oinarri soziala enpresetan zabaltzera. Baizik eta burujabetza faltak enpresa munduan zuen eragina agerian utz eta horrela gatazka 'Euskal Herria-Estatua' terminoetan kokatzera zuzenduko zuen.

'Gatazka politikoaren' *markoaren hedatzearen* bitartez, ordura arte lehenengo mailako garrantzia ez zituzten eskaerak (LHEE) bere egingo zituen eguneroko markogintzaren parte bihurtuz. Mugimenduaren jatorrizko helburuekin lerrokagarriak ziren eskaerak balioan jarriz, eta bere diskurtsoaren parte eginez talde desafiatzailearen mugak zabalduko zituen arrakasta lortzeari begira.

12.1.3.3 ELA eta LABen arteko markoen zubigintza

²¹¹ Zentzu honetan, LABek EAJtik UPNra, EA eta CDNtik pasatuz, doan kategoria bezala ezaugarrituko du 'nazionalismo-erregionalista' hau; *Oldartzen*-en planteatu bezala, alderdi jeltkidearen bilakaera gogor salatuz.

Eragile bakoitzaren diskurtso edota markogintzaren argazki estatikoa baino, hiru aldagai nabarmendu nahi izan ditugu: a) ze bilakaera eman zen horietako bakoitzean, b) ze prozesu diskurtsibok parte hartu zuten bilakaera horretan eta c) nola baldintzatu zioten elkarri diskurtso eta ekintza kolektiborako mekanismo eta prozesu ezberdinek.

Alde horretatik, hurrengo lerroetan arreta berezia eskainiko diogu abertzaletasunaren baitako *zubigintzari*, epealdi honetako diskurtso eta markoak lerrotzeko teknika nagusi bezala. Snow eta Benford-entzat (1986) *zubigintza* edo *bridging* hau, gai edo arazo baten inguruan ideologikoki kongruenteak (abertzaletasuna) baina estrukturaliki deslotutako bi markoen (autonomista eta hausturazalea) arteko lotura litzateke. Hauen arabera, markoen loturak mugimendu baten eta mobilizatu gabeko talde sentimendu baten arteko harremanari erreferentzia egingo dio. Gure kasuan, ezker abertzaleak (eta horren baitan LABek), protesta zikloaren edo liskarraldi zabalaren baitako ‘mobilizatutako mugimenduaren’ kategoria osatuko luke. Zentzu horretan, Kortabarriak (2015) edo Letamendiak (2004) aipatzen duten ELAren fase ‘mobimentista’ edo ‘kontra-boterezkoa’ hastearekin batera, ‘desmobilizaziotik mobilizaziora’ liskarraldira inkorporatzen den eragilea bezala ulertu dezakegu.

Snow-ek dioen bezala, identifikazio edo talde sentimendu hauentzat kontzientzia edo markoaren eraldaketa ez dira ekintza kolektiborako aurre-baldintza izango, prozesu hauek mobilizazioan bertan garatuko dira. Lan honetarako elkarriketatu ditugun ELA eta LABeko kideek ere horrela azaldu dizkigute elkarlanaren lehenengo urteen nondik norakoak. Txutxi Ariznabarretaren arabera, alde aurretik “ez zegoen eztabaidarako espazio komunik” eta “ez zen aparteko ahalegin intelektualik egiten diferentziak erlatibizatzeke”; “hori guztia ‘erdibana’ zerbait egiteko aukerak zabaltzen zirenean ematen hasiko” zen. Alde horretatik, hartu-emanetan hasten diren eragileek alde aurretik nekez jakin ahal izango dute elkar-ekintza honek ze punturaino aldaraziko duen beraien markogintza.

12.1.3.3.1 Autogobernua: 1995eko Aberri Eguneko adierazpen bateratua.

CCOOekin batera, 1992an lan erreformari erantzuteko deitutako greba orokorrean edota 1993ko industrializazio eta enpleguaren aldeko kanpainaren garaietan zaila izango zitzaien ELA eta LABi urte batzuk geroago garatu zuten elkarlanaren dimentsioa aurreikustea edota urteetan deslotutako sektoreak bateratzen laguntzeko eraikitako markogintza auresatea. Zentzu honetan, 1995ko Aberri

Egunari begira adostutako agiria²¹², 90. hamarkadaren bigarren erdialdean garatuko zuten markogintza komunaren sintesi bezala ulertu dezakegu. Agirian jasotako ahalegin horren bi erreferentzia nabarmendu nahi izan ditugu:

- *Inposatutako markoaren salaketa eta transferitu gabeko eskuduntzen eskaera; kanpo eta barne logikaren uztarketa.*

ELAk eta LABek dokumentuaren hasieran bertan “herri honi eta bere herritarrei beraien etorkizuna erabakitzeko eskubidea duten subjektu politiko izaera ukatzen dioten marko politikoa” salatu zuten. Markoztatze honek izaera demokratikoa zuen, “autodeterminazio Eskubidearen ukatzea, oinarritzko printzipio demokratikoekin talka egiten” zuen heinean. Ezker abertzalearen markogintza historikoari lotutako interpretazio honek, aldiz, ez zuen alde batean uzten gai sozio-laboralen “eskuduntzen berehalako transferentziaren (eskaera) instituzio autonomikoetara”, esaterako.


Interpretazio bikoitz honek, markogintzaren elkarreraginezko izaeraren ondorioz, sindikatu bakoitzaren markogintzaren batuketaren emaitza baino, aurretik bakoitzak indarrean zuena eraldatu eta errealitatearen interpretaziorako marko berri bat eskaintzen zuela esan dezakegu. Batetik, ELAren aldetik ordura arte hauspotutako marko instituzionalaren legitimazio falta nabarmentzen hasiko baitzen; ELA bera, marko juridikoak erabakitzeko eskubidea ukatzen zuela azpimarratzen hasi zen heinean. Baina bestetik, LABengan ere eragin zuen; ordura arteko eginkizun nagusia sistemaren legitimazio faltaren salaketan kokatu bazuen, ordutik aurrera sistemak autogobernuaren garapenari begira eskaini zezakeen joko zelaia baliatzearen aldeko apustua egin zuelako. LABentzat interpretazio hau ez zen erabat berria. Izan ere, 1992ko Kongresuan jada planteatutako ekintzarako ‘eredu mistoarekin’ bat egiten zuen heinean. Baina urte horietan ezagututako ordezkariaren hazkundera balioan jartzeko eta ELAren garatzen hasitako elkarlanaren ondorioz, ikuspegi hau beste pisu bat hartzen hasi zen sindikatu abertzalearengan; 1995an Etengabeko Formakuntzaren edota 1999an LHKn lortutako akordioarekin ikusi bezala.

- *Lan Harremanetarako Euskal Esparrua (LHEE): makro eta mikro logikaren uztarketa.*

LHEEk abiapuntu ezberdinak zituzten estrategia diskurtsiboak lotzeko kategoria eskaini zuen. Batetik, markoaren salaketa eta estatu berri baten sorrera helburu zuen estrategia ‘macro’-ak tarteko eskaera bezala ulertu daitekeen ‘meso’-an lurra hartzeko aukera eman zuelako. Eta bestetik,

²¹² Egin egunkarian 1995ko apirilaren 8an argitaratua.

enpresetako negoziazio kolektiboaren bitartez markoaren zirrikituak baliatzean oinarritzen zen estrategia ‘micro’-tik, markoaren gabezi sozio-laboralak salatzeko aukera zabaldu zuen ‘meso’-ra salto egiteko balio izan zuelako.



12.4 irudia: ELA-LABen zubi-gintzaren irudia.

1996ko Kongresuko ponentzietan LABek azaldu bezala, aldiz, hamarkada erdialde horretan oraindik orain sakoneko esanahiaren inguruko interpretazio ezberdinak egon bazeuden. Izan ere, LABen ustez, LHEEren egikaritzea marko juridiko-politiko berri batean soilik litzateke posible; ELArentzat, aldiz, horri uko egiten ez bazitzaion ere, bere egikaritzea marko horren mugak ‘inguratuz’ ematen zen. Alde horretatik, horrelako prozesu diskurtsiboetan ohikoa izaten den bezala, LHEEren adierazlea maila batean edukiz hustu beharko zen, bere esanahiaren eztabaida irekita utziz, bi eragileen interpretazioen arteko sintonia diskurtsiboa mantentzeko. Bi adieren ulermen tentsio honetan, sistemaren onargarritasunaren mugen eztabaida presente ikusi dezakegu. Horrela LABentzat LHEE markoaren onargarritasuna gaindituko lukeen aldagai izan zen bitartean, ELAren adieraren arabera, LHEEren eraikuntza sistemaren onargarritasunen baitan eman zitekeen prozesua litzateke.

Edozein kasutan, 95ko Aberri Eguneako agiriak bi berrikuntza nagusi ekarri zituen. Batetik, ordura arte sindikalgintza abertzalean era antagonikoan ulertutako bi adiera hauek era agonistikoan elkar-bizi zitezkeela ulertu zelako. Eta bestetik, eta batez ere, ordura arte hegemonikoa zen kategoria (lan harremanetarako Espainia mailako esparru bakarra) lehiatzeko erreferentzia sendoa eskaini zuelako.²¹³ Ikuspegi zabalago batetik ere, LHEE-k ere beste alde bat izan zuen. Izan ere,

²¹³ Horrela azaldu zigun Rafa Diezek: “Desde estas consideraciones “internas” el proceso de encuentro tuvo dos grandes motores o elementos que lo alimentaban. Uno el convencimiento de que el ciclo autonómico no tenía recorrido estratégico y, otro, que el sindicalismo de clase en EH tenía que situar la unidad de acción como una necesidad para combatir al centralismo unionista y a las continuas agresiones neoliberales. Estas vetas de análisis nos fueron acercando a compromisos, acuerdos y luchas sindicales y socio-políticas”.

autonomismoaren agortzearen kontzientzia lauso horri ainguralekua eskaintzeko tresna ere bihurtu zen. Izan ere, hurrengo urteetan zabaldu zen burujabetasunaren kategoria zabalak LHEEren eskaeran forma zehatza hartu zuela esan dezakegu, bere ikur aglutinatzailea (*point de capiton*) bilakatuz.

12.1.3.3.2 Bakegintzaren inguruko marko interpretatzaileen (*des*)lerrotzeak.

Baina autogobernuaren egoeraren interpretaziorako marko komun bat sortzeaz harago, Elorrietari egindako elkarrizketan aipatu bezala, bakegintzaren eremuan Ajuria Eneako Itunaren eskutik nagusi zen marko diskurtsiboa eta aliantza egiturari “alternatiba bat eskaintzeko” balio izan zuen²¹⁴. Izan ere, manifestu osoan zehar etengabekoak ziren “elkarrizketa eta negoziazio politikoaren” aldeko eskakizunak eta “erakunde politiko eta sozial abertzale ezberdinei deia elkarlanerako oinarriak ezartzeko”. Esan bezala, Itunak ezarrita zuen ‘demokrata’ eta ‘biolentoen’ arteko banaketa hura berrezaugarritzeko eskaera zuzena zen; zeinen aldetik eta ordura arte ‘demokraten’ aldean lerrotua izan zen eragile nagusi baten eskutik. Alde horretatik, Ajuria Eneako Itunaren sinatzaileen erreakzioak ikusita ELAren jokaldia *desertzio* mekanismoaren aktibazio bezala antzemana izan zen hauen aldetik.

Hala ere, Ajuria Eneak ezarritako *markogintza anti-terroristari* aurre egiteko erabakiak sindikatu abertzaleen artean bakegintzaren inguruko markogintza komun bat eraikitzeke balio izan zuenik ezin esan. Alde horretatik, bi sindikatuen artean bortxa politikoaren kanpora begirako interpretazio ezberdinak nagusitzen jarraitu zuten.

Ezin ditugu aipatu gabe utzi, ordea, arau honek ezagutu zituen salbuespenak. Izan ere, ELAk eta LABek hainbat gertaera biolentoen inguruko oinarritzko irakurketa bateratzea lortu zuten. Zentzu horretan, aipatzekoak dira, esaterako, 1996ko ekainean, Aznar Gobernura iritsi berritan ETAk aldarrikatutako astebeteko su-etenaren aurrean bera luzatzeko egindako eskaera, kale borrokako hainbat ekintzen aurrean egindako salaketak²¹⁵ edota Jose Luis Caso, PPko zinegotziaren hilketa

²¹⁴ Honek adierazi bezala, 90. hamarkadan maila politikoan garatutako erronka nagusien artean, “Eusko Jaurlearitza ikuspegi sozialetik legitimitatea lehiatu” eta “autonomismoaren agortzearen salaketarekin” batera, Ajuria-Eneako Itunaren balioa zalantzatan jartzea izan zen.

²¹⁵ 1997ko abenduan, esaterako, Rafa Diezek adierazi zuen azken egunetako kale ekintzek “ez zutela 13 eta 15eko erantzun batua eta indartsua izan zedin laguntzen” [HBko Mahai Nazionalaren espexeratzea zela eta antolatutakoak] eta “ulergaitzak zirela bilatu bide zuten helburu politikoaren aldetik” (*El Correo Español*, 1997-12-09).

zela eta, HBko Mahai Nazionalaren espetxeratzea salatzeko deitutako mobilizazioak bertan behera uzteko adostutako idatzia. Autogobernuaren egoeraren inguruko diskurtso bateraturik ez zen lortu bakegintzaren alorrean, baina ezker abertzalearen barruan bortizkeria politikoa interpretatzeko ikuspegi ezberdinetan eragin zuela ematen zuen²¹⁶.

Elorrietak azaldu bezala, bata eta bestea “labanaren ahoan” mugitzen ziren, jakitun “ELAri eredu ‘instituzionalista’ ez zitzaiola balio, eta LABi, asko sinplifikatuta, eredu ‘asamblearioa’ ere ez”. Arrisku hauek hartuta bi ikuspegi politikoaren artean jorratutako zubigintza eta artekaritza izan daiteke bi sindikatu hauetako ekarpenik esanguratsuena fase honetan.

12.1.4 Diskurtsoen analisisien ondorioak.

12.1.4.1 Bi diskurtso nagusi eta hainbat interpretazio marko.

Atal metodologikoan aipatu bezala, *ideologia*, *diskurtso* eta *markoaren* kategoriak ezberdindu nahi izan ditugu; hiruak continuum baten parte bezala ulertuz. Horrela, *markoak* gertakizunak “lokalizatu, antzeman, identifikatu eta izendatzeko” baliatzen diren “interpretazio eskemak” bezala izendatu ditugu (Goffman, 1974: 21). Hortaz, *frame*-a marko interpretatzailea izango bada, *framing* edo markogintza esanahia emateko funtzioa izango da (Snow&Benford, 1988).

Aldi berean, markoa eta diskurtso kontzeptualki ere bereizi nahi izan ditugu. Horrela, markoa gertakari zehatzen interpretaziorako ikuskera bada, *diskurtsoa* markoen bilduma litzateke; era bateratu batean norabidetuak eta identitateen sortzaile bezala (Errejón, 2011: 279). Eta hirugarrenik *ideologia* genuke; egituratutako, koherenteak eta eskusibotasun asmoak dituzten sinismen sistema bezala definitu dezakeguna. Alde horretatik, ideologiek diskurtsoak baldintzatuko dituztela esan dezakegu (Van Dijk, 2003: 17), diskurtsoak ideologiaren *eramaileak* diren heinean.

²¹⁶ Honen adibide gisa, Kortabarriak ELAko afiliatuak ziren Montxo Doral ertzaina eta Jose Javier Elozegi espetxe funtzionarioen hilketen aurrean LABek erakutsitako jarrera “jelatu eta manipulatzailea” zuzenean deitoratu ziotela aipatu zuen. Kortabarriaren arabera, LABek ETAren ekintzaren bat publikoki kritikatu zuten itxoitea alferrikakoa bazen ere, bere iritzia kritikoa ‘zegokionari’ ezagutarazi ziola erantzun zuen (Kortabarria, 2015: 162). Handik hilabetera ETAK espetxe-frontean ekintzak eteteko erabaki publikoa hartu zuen; eta beranduagora arte publiko egin ez bazen ere, ezta ertzainen aurkako atentatuak ere (Ina Zeberioaren hilketarekin bertan behera gelditu omen zena). Gerora erabaki horren aldeakartasunaz edota ELAren izandako hitzartzearen inguruko bertsio ezberdinak sortu ziren (Kortabarria, 2015; 365).



12.3 irudia: Ideologia, diskurtsoa eta markoa lotuko lituzkeen continuum-a.

Eskema teoriko-metodologiko honen arabera, orain arte aztertutakoari erreparatuta, nekez esan dezakegu indar abertzaleen arteko markogintza bateraturik zegoenik ikertutako epealdian. 1994. urteari dagokionez, esaterako, identifikatu ditugun erreferentziazko bi eztabaidagai nagusiei dagokionez (autogobernua eta bakegintza) markogintza erabat ezberdinak mantendu ziren.

Zentzu horretan, 90. hamarkadaren erdialdean ideologia berberaren baitan (abertzaletasuna/nazionalismoa), bi diskurtso nagusi aurkitu ditzakegula esan dezakegu: EAJrena eta ezker abertzalearena. Diskurtso hauetako bakoitzak, erreferentziazko bi aldagaiei dagokienez (autogobernua eta bakegintza), *frame* edo marko interpretatzaile ezberdinak bildu zituelarik: autonomista ala deslegitimatzailea eta anti-terrorista ala ‘negoziatzailea’ deitu ditzakegunak. Marko hauek pareak osatuko dituzte (autonomista/antiterrorista eta deslegitimatzailea/’negoziatzailea’) pare hauek diskurtso nagusiei forma eman zitelarik. Honela laburbildu dezakegu diskurtso eta markoen arteko harremana gure kasuari dagokionez:

12.4 taula: *Abertzaletasunaren baitako markogintza eta diskurtsoak lotzen dituen taula*

| IDEOLOGIA | <i>Euskal abertzaletasuna</i> | | |
|---------------------|-------------------------------|--------------------------|---------------------------------------|
| DISKURTSOAK | | <i>EAJren diskurtsoa</i> | <i>Ezker abertzalearen diskurtsoa</i> |
| MARKOGINTZAK | <i>Autogobernua</i> | Autonomismoa | Markoaren deslegitimazioa |
| | <i>Bakegintza</i> | Anti-terrorismoa | ETA-Gobernua negoziazioa |

Pare bakoitzak bere barne koherentzia mantendu eta beraien inguruan trinkotuko liriteke abertzaletasunaren baitako diskurtso politiko nagusiak. Lehenengo pareak, Ajuria Eneako Itunean forma hartu zuen; bigarrenagoak, Aljer osteko gogoetan. Bata zein bestearen izendapena sinplifikatze aldera, lehenengoari diskurtso *autonomista* eta bigarrenari *hausturazalea* deituko diegu.

Alde horretatik, abertzaletasunaren diskurtso bakoitzaren baitan (autonomista eta hausturazalea), erreferentziazko bi gaien inguruan (autogobernua eta bakegintza), marko edo *frame* nagusi bana bazeudela esan dezakegu. Bakegintzan, esaterako, EAJri zegokionez, Ardanzak Ajuria Eneako

Itunaren bitartez norabidetzen zuena edota ezker abertzaleari zegokionez, Alternatiba Demokratikoak barnebiltzen zuena.

Diskurtso bakoitzak bere barne koherentzia mantenduta ere, hainbat gai eta gertakarien gaineko interpretazio marko ezberdinak barnebiltzen zituen. Horrela, 90. hamarkadaren erdialde horretan, EAJk eta ELAk autogobernuari zegokionez, esaterako, diskurtso autonomista konpartituta ere, irakurketa ezberdina egiten zuten Estatutuaren garapenaz, lehentasunez transferitu beharreko eskuduntzez edota egoerari aterabidea emateko konponbide posibleez. Ezker abertzaleari zegokionez, berriz, bakegintzaren eremuan ETA eta Gobernuaren arteko negoziazio politikoaren beharra konpartituta ere, borroka armatuak hori lortzeko betetzen zuen funtzioari buruz edota HBk horri begira jokatu beharreko paperaren inguruan marko interpretatzaile ezberdinak zeuden.

Beraz, diskurtso bakoitzaren baitan, *frame* nagusi horiek errealitate politikoaren interpretaziorako bestelako markoekin elkar-bizi edota lehian kokatzen zirela azpimarratu behar da. Goffman-ek (1974) aipatu bezala, diskurtso bakoitzaren garapenerako, beraien 'arteko' elkar-ekintza bezain garrantzitsua izango zen, beraien 'baitako' marko edo ikuskeren elkar-ekintza.

12.1.4.2 Marko nagusien krisia.

Hari berberari jarraituz, 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera diskurtso bakoitzaren baitan nagusi ziren markoak krisian sartu zirela esan daiteke. Marko hauek arestian marraztutako taula osatzen dituzten laukitxoetan laburbildu ditzakegu.

Frame hauen 'krisiaz' ari garenean, errealitate politikoa interpretatzeko marko kognitibo bezala dituzten muga edo gabezien areagotzeaz ari gara. Horrela, eragile batek diskurtso bidez eraikitzen duen marko kontzeptualak jendartearen eta bere kideagoaren zati handi batentzat erabilgarria izateari uzten dionean, bere diskurtsoa krisian sartzen dela ondorioztatu dezakegu. Are gehiago, alderdi politikoak eta sindikatuak, botere politikoaren jabe diren instituzio eta jendartearen arteko bitartekaritza egitura bezala, bi eremu hauek harremanetan jartzeko gertaeren interpretaziorako interpretaziorako marko egoki bat eskaintzen ez dutenean, beraiek ere krisian sartu daitezke. Laclaren diskurtsoaren teoria 'gogorrei' jarraituta, gertaera politikoak funtsean diskurtsiboak izango baitira.

Gure kasura ekarrita, Ajuria Eneako markogintza anti-terroristak horrenbestetan aldarrikatutako ‘biolentoen porrotak’ edota ezker abertzaleak planteatutako ETA eta Gobernuaren arteko negoziazio politikoen eskaerak ez zuen bat egiten jendartean nagusi zen bortxa politikoaren hazkundearekin edota aipatutako negoziazio politikoak Estatuarekin eman ahal izateko ezintasunaren pertzepzioarekin. Beste modu batera esanda, diskurtso autonomistak eta hausturazaleak jendartean *durunda (resonance)* nahikorik lortu ezean, krisian sartu ziren.

Honekin batera, ikuspegi kognitibotik, diskurtsoen krisi edota baliagarritasun falta honen antzematea oso ezberdina zela azpimarratu behar da; bai eragile bakoitzaren aldetik, baita eragile bakoitzaren barruan ere. Horrela, EAJren barruan esaterako, ordura arte bide autonomistari hauspoa emateko baliatutako aliantza egiturak (EAJ-PSE-EE) izan zezakeen garapenaren inguruan, ikuspegi oso ezberdina izango zuten Jaurlaritzako arduradun instituzionalek edota ezker abertzalearekin hamarkada hasieratik mintzaidetzan aritutako ordezkariak. Edota, ikusi dugun bezala, ezker abertzalean mota ezberdinetako erasoak burutzen zituztenak edota zubigintza lanetan zebiltzaten ordezkariak.

12.1.4.3 Markogintza berri baterako oinarriak.

Aipatu dugu diskurtsoak elkar-ekintzan dauden marko interpretatzaileen bildumak direla. Elkar-ekintza honek aurretik indarrean zeuden diskurtsoak moldatuko ditu eta, horiekin batera, beraien inguruan trinkotutako identifikazio politikoak. Moldaketa honetan zaila izango da neurtzea ze punturaino *diskurtso* berri batez ari garen edota hainbat gertaeren gaineko interpretaziorako *marko* komun batez.


Gure kasura ekarrita, ELA eta LABen arteko markoen zubigintzaz zera baieztatu dezakegu: autogobernuari zegokionez, 1997an ELA diskurtso autonomistaren gurpiletik jaitsi zen; LABi dagokionez, berriz, 1995tik aurrera, markoaren salaketa ‘hutsetik’ harago, parte hartze instituzional bat arakatzen hasi zen. Bakegintzari zegokionez, 1995ko Aberri Eguneako agiriak Ajuria Eneako *master frame*-a kolokan jartzeak Lizarra-Garaziko deklarazioan jasoko zen gatazkaren konponbiderako metodoaren zabalkuntzan aitzindaritza papera bete zuten.

Alde horretatik, zubigintza honek, momentu horretan abertzaletasunaren baitako diskurtso berri bat egituratzeko baino, zuhurragoa litzateke autogobernua eta bakegintzari lotutako hainbat gaien inguruko *marko interpretatzaile komun bat* eraikitzeke balio izan zuela esatea; baita bi sindikatu hauen mugetatik harago ere.

12.2 Ekintza kolektiborako mekanismoak eta demokratizazioa

12.2.1. Protestaldiaren eskala aldaketa: ELA eta LABen artekaritza eta erasoen difusioa.

Aztertzen ari garen epealdiaren protestaldian mekanismo ezberdinek parte hartu zuten. Horietako batzuk markogintzaren artikulazioan zeresan zuzena izan zutenak; nazio eraikuntzaren estrategiaren bitartez martxan jarritako *markoen hedatzea* edota ELA eta LABen arteko *zubigintza* kasu. Beste hainbat mekanismo ekintza liskartsuari lotuagoak agertuko zaizkigu *erasoen orokortzea* edota *errepresioaren* hazkundearekin ikusi bezala. Ez da gure asmoa horietako guztiak zerrendatzea baina batzuk beste batzuk baino esangura handiagoa izan zuten 1995tik 1997ra doan epealdi horretan. Era berean, MTTk aipatutako hiru prozesu sendotako baten bilakaeran izan zuten eraginarengan azpimarra jarri nahi dugu: *eskala aldaketarengan*, hain zuzen ere. Izan ere, bere gabe nekez ulertu ahal izango dugu Lizarra-Garaziko prozesuan zehar eman ziren bestelako bi prozesu sendoak: soberanisten eta konstituzionalisten *kategoria osaketa* eta beraien arteko *polarizazioa*.



12.2 grafikoa: Eskala aldaketa adierazten duen hainbat aldagai biltzen dituen grafikoa 1994-2001 epealdian (Iturria: Barne Ministerioa; elaborazio propioa).


Arestian aurkeztutako grafikoan hiru aldagai aukeratu ditugu eskala aldaketaren prozesu sendoaren aktibazioaren erakusgarri bezala: epealdi horretan emandako mobilizazio kopuru orokorra, horren baitan errepresioari erantzunez eta presoen alde deitutakoak²¹⁷ eta kale erasoen bilakaera. Aukeraketa honek gutxienez bi argipen behar dituelakoan gaude. Mobilizazio kopuru orokorrari dagokionez, esan gabe doa, 90. hamarkadaren erdialdean ematen den gorakada ezin zaiola bakarrik protesta mugimenduaren roll-a jokatzeko duen kolektiboari egotzi. Izan ere, lehenengo atalean aztertu bezala erasoen orokortzeak kontra-mugimenduaren aktibazioa ere ekarri zuen, nagusiki Ajuria-Eneako Mahaiak eta talde bakezaleek egindako deialdien eskutik, Miguel Angel Blancoren hilketak mugari berria ezarri zuelarik (ikus 11.1 grafikoa). Beste alde batetik, errepresioaren eta presoengaineko manifestazio kopurua erreferentziazko aldagai bezala hartu ditugu, garai horretan ezker abertzalearen eskaera nagusiaren adierazle bezala. Aldarrikapen honek ez zuen ezker abertzalearen mobilizazioen eskaera abanikoa agortzen baina bada ezker abertzaleak mobilizazio deialdietan ematen duen jauziaren isla. Horrela 1994tik 1997ra doan hirurtekoan mobilizazio kopuru orokorraren, ezker abertzaleak propioki deitutako mobilizazioen zein kale erasoengaineko nabarmena eman zen, 1998-1999 biurtekoan, Lizarra-Garaziko Akordioaren sinadurarekin batera behera eginez eta su-etengailuaren amaierarekin berriro goia joz.

Eskala aldaketa gatazka orokortuago batera eramaten duen ekintza liskartsuen zabalpena bezala ulertu dugu. Liskarraldi garrantzitsu gehienetan bezala gurean ere eskala aldaketa hori 90. hamarkadaren erdialdean presente egon zen, grafikoan 1994tik 1997ra doan parabolak erakutsi bezala. Honek protestaldira aktore berriak gehitu zituen, liskarraldi forma zahar-berrituen erradikalizazioari bide eman, aktore ezberdinen arteko harremanak polarizatu eta etorkizuneko koalizio berrietarako oinarria jarri zuen.

MTTren ereduari jarraituz, gurean eskala aldaketak bi bide ezberdinetatik gorpuztu zen: batetik, protestarako bitarteko bihurtuaren *difusioaren* bidez, protestarako bitarteko erradikalizatuen erabileraren *emulazioaren* eskutik; eta bestetik, ELA eta LABen arteko *artekaritza* eta bera oinarri hartuta gerora eman zen *koalizioen osaketaren* bidez. Bi mekanismo hauek liskarraldi handietan uztartuta agertu ohi badira ere, eskala aldaketaren izaeran desberdintasun handiak emango dira segun eta bietako zein nagusitzen den. Are gehiago, gurean bi mekanismo espezifiko hauen arteko lehia ere zabaldu zela esan dezakegu; batez ere, protestarako bitarteko erradikalen difusioak

²¹⁷ Barne Ministerioko urtekaritik ateratako datu hauek 'Apoyo a Eta' epigrafe pean bildutakoak dira, dokumentuan bertan aipatzen den bezala hainbatetan presoengaineko eskubideen alde edota atxiloketak salatzeke egindako mobilizazioak bertan barne biltzen zirelarik. Horregatik egokiagoa iruditu zaigu 'preso' eta 'errepresioaren' izenpean biltzea.

artekaritzaren bitartez ematen ari zen *konbergentziaren* garapena baldintzatzen zuela agerian gelditzen zenean.



12.5 irudia: Eskala aldaketaren irudia.

Protestagintzaren erradikalizazioaren *difusioa* liskarraldirako formek hartzen duten izaera *hausturazaleagoa* (*transgressive*) litzateke (MTT, 2005: 76). Kasu gehienetan protestarako erreperitorioaren eguneratzeari lotuta agertu ohi dira, baina Tarrow-ek (1997) planteatu bezala erreperitorio honen eguneratzea, normalean, aurretik baliatzen ziren moldeen eguneratze partzialak baino ez dira. Aurreko atal batean aztertu dugun bezala 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera eman kale erasoen jo puntuen gorakada edota ETaren ekintzen jo puntuen zabalpena protestarako erreperitorio horren eguneratzearen erradikalizazioa bezala uler dezakegu; kasu honetan, *erasoen orokortzearen* mekanismoarekin lotuta agertu zena.

Artekaritza, aldiz, “deslotuta dauden bi eremu lotzeko funtzioa” bezala izendatu dugu. Alde horretatik bi aldagai mota ezberdindu beharko genituzke; batetik, artekaritzari bide ematen dioten *kausak* eta bestetik artekaritzak sortzen dituen *eraginak*. Lehenengoei zegokionez, arestian aztertu dugun ELA eta LABen arteko *markoen zubigintzak* artekaritza horri forma ematen zion bitarteko kognitiboa zela esan dezakegu. Hortaz marko interpretatzaile komun baten eraikuntzak artekaritzari bide ematen dio (dimentsio kognitiboa). Baina esan bezala, prozesu hauek ekintza liskartsuan eratuko dira; ez dira alde aurretik egiten diren ariketak. Alde horretatik, 1994ko otsaileko LHEEren aldeko mobilizazio fase bateratutik aurrera, bi sindikatuon arteko ekintza komunaren agendak ere artekaritzari forma eman zion (elkar-eraginezko dimentsioa).

Beste alde batetik, ELA eta LABen arteko artekaritzak sortutako eraginei dagokienez *aurretik eratutako loturak haustea* ekarri zuela nabarmendu dezakegu; ELAk CCOO eta UGTrekin bideratutako ordura arteko elkarlanaren apurketarekin ikusi bezala. Horrelakoetan ohikoa izaten da

mekanismo baten aktibazioak beste baten kateaketa ekartzea. Kasu honetan, *kategoria berrien sorrerari* bide emanez, ‘euskal gehiengo sindikala’ edo ‘gehiengo sindikal abertzalea’ bezala ezagunak egin zirenen eskutik. Baina esparru sindikaletik harago, ELA eta LABen arteko elkarlanak gorago aztertzen hasi garen abertzaletasunaren baitako bi tradizio politiko edota diskurtso nagusiak lerrotzen hasteko balio izan zuen. Plano sinbolikoan edo kognitiboan kokatu beharko genukeen artekaritzaren adiera hau eragile bakoitzak ordezkatzeko zuten identifikazio politikoaren arteko hartu-emanarekin ere lotuta dago. McAdam, Tarrow eta Tillyk esan bezala artekaritzak identifikazio berriak sortuko ditu, aurretik indarrean zeudenak moldatuz. Era horretan, ELA eta LABen arteko artekaritzak garai horretatik aurrera indarra hartu zuen soberanismoaren kategoriaren artikulazioan ezinbesteko papera jokatu zuen. Eraginei dagokienez ere, *talde osagarrien inkorporazioa* ahalbidetu zuen, 97tik aurrera sindikatu txikiago (STEE-EILAS, EHNE, HIRU, ...) edota bestelako mugimendu sozialekin elkarlanarekin ikusi bezala.


Edozein kasutan, difusio eta artekaritza garapen ezberdina izanda ere, hainbatetan azpi-mekanismo berberak parte hartuko dute (MTT, 2005: 368-369). Horrela 90. hamarkadan kale borrokaren hazkundera kale erasoan antzekotasunen atribuzio eta emulazioaren eskutik eman zen bezala, ELA eta LABen elkarlanaren emulazioaren eskutik eremu sindikaletik politikorako antzekotasunen atribuzioa eman zen Lizarra-Garaziko akordioan forma hartuz.

Esan bezala, aldiz, protestaren *difusioa* eta *artekaritzaren* arteko harremana gatazkatsua izango da. MTTk bigarrenak prozesu politikoetan izan ohi duen eragin sakonagoa nabarmentzera jo ohi dute, lehenengoaren eragin eremua eskala mugatuago baten barruan mantendu ohi delako eta bigarrenak sektore ezberdinen arteko harremanak ehuntzea ekarri ohi duelako (MTT, 2005: 368). Tesi honekin bat eginez, borroka politikoaren mugak eliteen (ETA-Gobernua) arteko norgehiagokatik harago zabaldu nahi duen protesta mugimenduarentzat eskaera ezberdinak prozesu liskartsura inkorporatzea funtsezkoa izango baita, ELA eta LABen arteko ibilbideak erakutsi bezala. Hori izango baita protesta zikloaren pluralismoaren eta demokratizazioaren erakusle. Eragin demokratizatzaile hau eragileen arteko harremanetan ez ezik, herritarrek instituzioetan duten eraginarengan ere nabarmenduko zen. Jarraian aipatuko ditugun 1999ko urtarrilean Confebask eta Lan Harremanetarako Kontseiluan (LHK) ordezkaritza duten lau sindikatuen arteko akordio transbertsalak edota 1995an eragile berdinek Etengabeko Formakuntzaren inguruan lortutako berdintasun mekanismo horien adierazle bezala ulertu dezakegu.

Hala ere, inkorporazio prozesu honen ohiko eraginetako bat muturreko protesta adierazpenak baretzea izan ohi bada, gurean behar bezala gainditu gabeko tentsio horretan mugitu behar izan zuen. Zentzu horretan, 90. hamarkadaren erdialdean protestaldiaren *difusioaren* mekanismoak izan zuen eragina ukalezina da. Diskurtsogintza eta praktikaren arteko disonantziak ezker abertzalearen eskaintzaren sinesgarritasunean eta legitimazioan eragin kaltegarria izan bazuen ere, ezin uka *erabaki* eta *dezisionismo* schmittiarraren nagusitasun honek ondorio zuzenak izan zituela garaiko deslerrotzeetan. Ardanzak berak bere planean aitortu bezala borroka anti-terroristak ezker abertzalearen eta ETArengan higadura nabarmena eragin bazuten ere, nekez aurreikusi zitekeen horren bidez ‘garaipen polizialaren eta politikoaren’ azken helmugara iritsi zitekeenik.

12.2.2 Mekanismoen eragin demokratizatzailea: berdintasuna eta herritarren eragina instituzioekiko.

Demokratizazioa prozesu liskartsua dela aipatu dugu. Liskar hauetan instituzioek eta herritarrek parte hartuko dute. Bien arteko harreman multzoari *erregimena* deitu diogu (Tilly, 2010a), demokratizazioa harreman horien nolakotasuna azaltzen duen prozesua litzatekeelarik. Horrela, demokratizazioa instituzioen eta herritarren arteko harremanak zabaldu, berdindu, babestu eta izaera loteslea ematearekin lotuta legoke; desdemokratizazio kontrako bilakaerarekin.



12.3 grafikoa: EAEko lan gatazken bilakaera eta izaera 1993-2002 epealdian (Iturria: Lan Harremanetarako Euskal Kontseilua; elaborazio propioa).

1993-2002 epealdian lan gatazkek EAEn izan zuten bilakaera herritar eta instituzioen arteko harremanaren nolakotasuna azaldu dezakeen adibidea izan daiteke. Arestian azaldutako grafikoan ikus dezakegun bezala, epealdi honetan zehar lan gatazkek era ia etengabean gora egiten dute sindikatu abertzaleen artean ematen den lankidetzaren eskutik, honek milaka langile berri instituzioei begirako interpelazioan, eta ondorioz, demokratizazio prozesuan era aktibo batean kokatu zituelarik. Edozein kasutan, *parte hartzearen zabalpenaren* mekanismo honekin batera, Preco-ren kontziliaketaren bidez ematen den konfliktoen instituzionalizazio mailakatu bat ematen dela ere azpimarratu behar da. Horrela, ia 90. hamarkada osoan zehar gatazka hauen kudeaketa forma ‘transgresiboagoa’ hartu bazuen ere, 1999. urtean joera aldaketa bat eman zen kontziliazioaren bidez ebazten direnak grebetan bukatzen dutenen kopurua gaindituz. Bilakaera honen atzean era ezberdinetako arrazoiak egon badaitezke ere (hazkunde ekonomikoak akordioetarako ematen zituen aukeren zabalpena, 1997an Lan Harremanetarako Kontseiluaren antolaketarako emandako araudi aldaketa, ...) lan gatazken kudeaketan joera aldaketa bat suposatu zuen. Herritarrek (sindikatuak) instituzioak (Preco) gatazka hauek bideratzeko tresna eraginkorragoak bezala antzematen hasi zen, beraien eragina bertan handituz eta aldi berean instituzio hauek parte hartzerako bideak zabaldu behar izan zituztelarik.

Alde horretatik, demokratizazioa ez da instituzionalizazio edo barneratze prozesu hutsa izango, demokratizazioak herritar eta instituzioen arteko harremanak zabaltzea ekarri behar du. Azterketa lan honetan zehar aipatzen ari garen mekanismoek liskarraldiaren bilakaera azalduko dute, baina instituzio eta herritarren arteko harreman horien garapena azaltzen dituzten (des)demokratizaziorako mekanismo espezifikoen ere arreta jarri nahi dugu. Gure kasura ekarrita, ELA eta LABen arteko elkarlanak izan zuen eragin demokratizatzailea balioan jarri nahi izango dugu, bertan parte hartu zuten demokratizaziorako mekanismo nagusiak nabarmenduz: berdintasuna eta herritarren eragina instituzioekiko.

Gogoratu dezagun labur bada ere *ezberdintasunaz* zer ulertzen dugun: pertsona edo pertsona multzoen arteko elkar ekintza litzateke, non batzuek beste batzuek baino onura handiagoa aterako luketen (Tilly, 2010a: 148). Aztertzen ari garen kasura aplikatuz, *berdintasunaren* mekanismoa bi zentzutan landu dezakegu: batetik, bere esangura ekonomiko-materialari dagokionez; eta bestetik, botere harremanen konfigurazioan duen eraginagatik. Lehenengoa, kapitalaren banaketak giza-talde batengan duen eragin demokratizatzailearekin lotuta legoke (Tilly, 2010a). Bigarrena, giza-talde horrek (*demos-ak*) Estatuarekin duen harremanarekin. Banaketa hau erabat teorikoa izango da. Izan ere, praktikan berdintasun politiko eta ekonomikoaren arteko muga finegia izango baita bata non

bukatu beste hasteko era zehatzean definitu ahal izateko. Jarri dezagun adibide bana horiek ilustratzeko.

Berdintasun ekonomikoa areagotuko lukeen mekanismoaren adibide bezala 1999ko urtarrilean Confebask-ek eta Lan Harremanetarako Kontseiluan (LHK) ordezkari zuten lau sindikatuek enpleguari buruz sinatutako akordioa jarri dezakegu. Akordioak lau atal nagusi jasotzen zituen: lanaldiaren murrizketari buruzko batzordea osatzeko konpromisoa; aparteko ordukin bukatzeko konpromisoak; Aldi Baterako Lan Enpresen (ABLE) bitartezko kontratazioak ekiditeko neurriak; eta ordezkari kontratuen ingurukoak. Guztiak lanaren eta kapitalaren banaketaren bidez *kategoria sozialen arteko berdintasuna* bultzatzeko asmoa zutenak. Akordioa, ordea, ez zen egun batetik bestera gauzatu eta ekintza kolektiborako bide liskartsu eta instituzionalak uztartu behar izan zituen aipatutako eragin demokratizatzailea lortze aldera: ekimenak ELAk eta LABek 1997ko uztailean LHKn aurkeztutako proposamen batean zuen abiapuntua (*input-a*); proposamen honi, Confebask-en lehenengo ezezko bat eta gero, bide eman zitzaion LHKn bertan (*eskaeraren barnera- ezintasuna/barneragarritasuna*); 1998ko lehenengo sei hilabeteetan mobilizazio eta kontzientziazio dinamika sozial batek bultzatuta hartu zuen indarra (WUNC); dinamika horren parte hartzaileak zabaldu ziren sindikatu txikiagoei bidez emanez (*koalizio osaketa*); manifestazio jendetsuak burutu ziren udaberrian zehar (*eskala aldaketa*); ...

Baina epealdi honetan eremu sozio-laborala ezaugarritu bazuen gatazkarik eman bazen hori okupatutako langileen etengabeko formakuntzaren ingurukoa izan zen. Aurreko adibidearekin kapitalaren banaketak herritarren egoera ekonomiko-materiala *berdintzeko* izan zuen eragina aztertu nahi izan badugu, oraingoan etengabeko formakuntzaren inguruan lortutako akordioak botere politikoaren harremanetan izan zuen isla azaldu nahi dugu; beti ere, lehenengoak (ekonomikoak) bigarrenengoan (politikoan) izango duen eragina ahaztu gabe. Laburtu dezagun aferaren mamia.

1992an Estatu mailan CEOEk, CEPYMEk, CCOOk eta UGTk Etengabeko Formakuntzaren inguruan akordio lortu zuten. Honen arabera akordioaren sinatzaileen eskuetan geldituko litzateke okupatutako langileen etengabeko formakuntza Estatuko administrazioak horretarako finantziazio berrmatuko zuelarik. Euskal sindikatu abertzale eta patronalak akordiotik kanpo gelditu ziren. 1994an egindako Langileen Estatutuaren birmoldaketa batek²¹⁸ honen deszentralizazio baterako aukerak zabaldu zituen. Deszentralizazio honek 1995an EAE mailan Confebask, ELA, LAB, CCOO eta UGTren arteko Etengabeko Formakuntzaren inguruko akordioari bide eman zion;

²¹⁸ Gorago aipatutako Langileen Estatutuaren 84. artikulua 'deskuelge autonomikoaz' ari gara.

gerora, Eusko Jaurlaritzaren babesarekin Hobetuz fundazioa sortuz (*bitartekoak eskuratzeko aukerak berdintzearen* mekanismoa). Praktikan, euskal eremuko akordioan jasotako eskumenak eta gaitasunak Estatu mailan lortutakoaren parekoak ziren, etengabeko formakuntza euskal eragile eta instituzioen eskuetan geldituz. Zentzu horretan, akordioak bi subjektuen edo *demos*-en (estatukoa eta euskal lurraldeetako) botere politikoa berdintzeko balio zuela esan dezakegu; bertan ordezkariaren gehiengo zuten sindikatuei zegokien gaitasuna aitortzearekin batera. Hortik bere eragin demokratizatzailea Estatuarekiko harremanetan.

Akordio honen finantziarioa, aldiz, Estatu aurrekontuen onarpenari lotuta zegoen heinean, bitan zapuztu zen bera gauzatzeko konpromisoa zentro eta periferiaren arteko *desberdintasunaren* mekanismoari bide emanez. Lehenengoan, garai horretan Lan Sailburua zen Ramon Jauregiren konpromiso ‘vasquista’ ez zen nahikoa izan Madrilgo PSOEn barruan bere iritzia nagusitzeko, azken honek euskal formakuntzaren finantziarioa Estatu mailako fundazioaren (Forcem) esku ere utzi zuelarik. Bigarrenengoan, Aznar presidente bezala izendatzeko EAJ eta PPren arteko akordioak langileen formazioari begirako finantziario atala jasotzen bazuen ere, praktikan diru partida txiki batzuk baino ez ziren bideratu, euskal akordioaren mamia ezer ez zuten utziz. Kasu honetan, bi mintzakideen arteko itxurazko berdintasunaren atzean, bien arteko *desberdintasuna* edota (finantziario) menpekotasuna areagotzen zituen mekanismoak martxan jarri zirelarik botere zentralaren eskutik.

Bi adibide hauetan demokratizazioa areagotzen duten mekanismoekin aurkituko gara. *Kategoria sozialen arteko mugimenduen* mekanismoa, esaterako, bietan emango da; ‘kontra-botere’ sindikatuak, CEOEren diziplina peko patronala eta EAJ eta PSE-EEk lideratutako euskal administrazioaren arteko mugak zeharkatzen diren heinean. Bestetik PPren Gobernuak langileen formakuntza Forcem-eko patronal eta sindikatuetan utzi izanak, aurretik inoiz ikusi gabeko *koalizio osaketa* utziz, ELA, LAB eta Confebask-en arteko agiri bateratuarekin euskal akordioa errespetatzeko exijituz.

Enpleguaren aldeko akordioaren kasuan, berriz, kapitalaren banaketarekin zerikusia duen *sektore sozialen arteko ongizate mailak berdintzearen* mekanismoa aurkituko dugu. Etengabeko formakuntzaren kasuan, aldiz, *konpromisoarekin* lotutako mekanismo ezberdinak aurkitu ahal izango ditugu. Azken hauei dagokienez, kategoria edo subjektuen arteko *desberdintasunak politika publikoetatik aldentzeko* mekanismoak Estatu zein erkidegoko instituzioen artean izan zuen erabilera nabarmendu dezakegu; batean zein bestean berdintasunaren izenean baliatutakoak, baina

kontrako norabidean. Esan nahi baita, erkidegoko instituzioen (Lan Saila) aldeko jarrera Estatua eta erkidegoaren botere edo eskumenak berdintzeko asmoak bultzatuta hartu zen bitartean, Estatuko administrazioek euskal akordioaren kontra hartutako neurriak ‘español guztien berdintasunaren’ markoan kokatu zuten. Berrero ere, erreferentziazko *demos*-en inguruko gatazka.

13. KAPITULUA: ABERTZALETASUNAREN DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA 1998-1999. URTEETAN

13.1. Abertzaletasunaren diskurtsoak 1998-1999 urteetan

13.1.1 EAJ-ren diskurtsoa.

13.1.1.1 Bakegintza: Ardanza Plana.

1997. urtean EAJren bakearen inguruko markogintza nagusia Ardanza Lehendakariaren adierazpenek norabidetzen zuten. Urte horretako urtarrila bukaeran EBBk Ajuria Eneatik haragoko bestelako urrats batzuk emateko beharra eta konpromisoa adierazten zuen agiria kaleratu zuela aipatu dugu, baina Itunak jada ia hamar urteetako ibilbidea beteta zuen eta ordura arte bakegintzaren markogintzan utzitako arrastoa nekez ezabatuko zen egun batetik bestera.

Lehendakariak itunkideen aldetik 1997ko otsailaren 21ean ‘Mahaiaren bigarren faseari heltzeko’ jasotako konpromisoa bere egin eta alderdi ezberdinekin banakako hartu-emanak izan eta gero, 1998ko martxoan eztabaidarako proposamena aurkeztu zien. Bigarren fase horren mamia jatorrizko akordioak 10. puntuari jasotzen zuen biolentziaren amaiera elkarrizketatuaren inguruko eztabaidan zegoen. Ordurako, aldiz, gai horren gainean alderdi sinatzaileen arteko desadostasunak agerikoak ziren.

Dokumentuaren markogintzari zegokionez, Ardanzak helburuen markoztatzea oinarritzko galdera bikoitz baten bitartez planteatu zuen: “Zer egin dezake eta zer egin nahi du gure sistema demokratikoak honako helburu bikoitza errazteko: 1) ETAk ‘borroka armatua’ deitutakoaren bidez (terrorismoa) politikan esku hartzeari utzi; 2) babesten duen disidentzia politikoak (Herri Batasuna) gure sistema demokratikoaren berezko jardura politikoan behin betiko barneratzeko”. Alde

horretatik, Itunaren jatorrizko deklarazioaren oinarritzko helburuei eusten ziela esan daiteke: ETAREN borroka armatuarekin bukatu eta ezker abertzalearen integrazioa sistema politikoaren deslegitimaziorako azken eragile gisa. Helburu hauek gauzatzeko planteatutako *diagnostikoa* eta *motibaziorako markoa* ziren aldatuko zirenak.

Lehendakariak oinarritzko premisa batzuen gaineko *diagnosia* planteatu zuen. 90. hamarkada osoan zehar indartutako markogintza anti-terrorista berrikusiz, bere ustez ETAK ez zion ‘porrot polizial’ huts baten ondorioz borroka armatuari uko egingo. Era berean, HB “sistema demokratikoaren berezko ekintza politikora ez zen behartutako edo berezko ‘konbertsio’ moduko batengatik barneratuko”. Zentzu horretan, Ardanzak aitortzen zuen ezker abertzaleak ez zuela ‘ezer ez’-en truke Konstituzioa eta Estatutua onartuko. Alde horretatik, ETAREN ‘porrot polizialari’ uko egin behar bazitzaion, ezker abertzalearen ‘porrot politikoa’ ere baztertu beharko zen. Hortaz, zer izango zen Lehendakariaren ustez ezker abertzaleak onartu zezakeen ‘hori’ aipatutako helburu horiek bere egiteko?

‘Elkarrizketa’ izango zen Ardanzaren *motibaziorako markogintzaren* elementu nagusia. Argi dago, Itunaren hasierako agiriari erreparatuta honakoa ez zela elementu berria. Baina honi emandako dimentsioa eta bera ezaugarritzeko modua, ordea, bai. Ardanzaren planaren berrikuntza nagusia, hain zuzen ere, elkarrizketa hori definitzeko eta mugatzeko egindako saiakera izan zen. Alde horretatik, oinarritzko premisa ezker abertzalearen porrot polizial eta politikoari uko egitea bazen, bere ustez inongo Gobernu demokratikok ‘elkarrizketa politikoei’ ez ziela bide emango ere argi zegoen. Ez soilik legitimitate demokratikoaren arazo batengatik, baizik eta, bere hitzetan, ‘faktikoki’ hori ezinezkoa zelako. Alde horretatik, elkarrizketa politikoen mintzaidetza alderdi politikoei zegokiekeen, izaera ‘erabakitzaila’ izango zuen horrelako elkarrizketa politiko bati heldu baino lehen ETAK “borroka armatua erabiltzeari utzi behar ziola barneratu beharko” zuelarik. Zentzu horretan, Lehendakariak bere hitzak aski ondo neurtu zituen, ‘erabakitzailak’ izango ez ziren elkarrizketa politikoak gauzatzeko aukeraren atea alde aurretik irekita uzten baitzuen. Izan ere, ordurako aski ezagunak ziren ezker abertzalea eta EAJren artean era diskretu batean mantentzen ari ziren hartu-emanak.

Esan bezala, elkarrizketa horien mintzaide bakarrak “euskal jendartearen alderdi ordezkatzailak” izango ziren. Zentzu horretan, liskarraldiaren edo gatazkaren *demos*-aren inguruko funtsezko eztabaidan, “arazoa, ezer baino lehen eta ezeren gainetik, euskal arazoa litzateke”. Beraz, onartu beharko zen arazoaren muina ez zegoela “Estatua-Euskadi arteko gatazka batean, garena eta izan

nahi dugunari buruzko euskal iritzien arteko kontrajartze batean baizik”. Ordainetan, Estatuak euskal alderdiek onartutakoa bere egin beharko lukeela planteatu zuen, balizko akordioaren ondorioak euskal instituzioekin ordenamendu juridikoan nola barneratu negoziatuko lukeelarik. Estatuaren parte hartzea elkarrizketa prozesuan euskal lurraldeetan ordezkariak zuten estatu mailako alderdien presentziaren bidez bermatuta legoke. Gai honek eztabaida garrantzitsu bat irekita utzi zuen. Izan ere, euskal eragileen arteko balizko akordio batek estatu mailako alderdiak (EAEko PP eta PSE-EE) ezinbestean barneratu beharko zituzkeen ala Legebiltzarraren ordezkariaren arabera gehiago eta gutxiengoen oinarritzko joko arauaren baitakoa zitekeen ez baitzen publikoki argitu²¹⁹.

Elkarrizketa politikoak mugarriz jarraitzeko, bere eduki nagusia ‘aferra nazionala’ edota “euskal herritarrok gure egin nahi izan dezakegun autogobernu ereduaren” ingurukoa beharko lukeela planteatu zuen. Honek orduko autogobernu instituzioen onarpena eskatuko zukeen, “faktikoki” bazen ere. Hori bai, elkarrizketak bere emaitzetan (balizko adostasunak) eta bere abiapuntuetan (aldeztatik egindako eskaerak) irekiak izan beharko liritekeela azpimarratuz.

Erreakzioak berehalakoan etorri ziren. Popularrek gogor kritikatu zuten haren eduki “nazionalista”. PSOEk jarrera malguagoa erakutsi arren, posizio propiorik ez zuen bilatu lehenengoekin lerrotuz²²⁰. HBk dokumentuaren azken balorazioa bere militanteen eskuetan utzi bazuen ere, gatazkaren konponbidea politikoa izan behar zuela nabarmentzea balioan jarri zuen. ELAk eta LABek balorazioa bateratua egin nahi izan zuten, dokumentuak izan zitezkeen gabezietan gehiegi sakondu gabe. Jarrera aldaketa esanguratsuak Lehendakarietatik etorritako proposamenen aurrean.

13.1.1.2 Autogobernua: zehaztapen publikorik ez.

²¹⁹ Kortabariak (2015) jasotakoaren arabera, Lehendakariak ELA sindikatuko ordezkariak deitu zituen aipatutako plana aurkezteko. Ajuria Eneako ordezkariak ez zieten kopiarik eman filtrazio arriskuak ekiditeko, bilera lekuan bertan testua irakurri zutelarik. Lehenengo irakurketa batean ELAko ordezkariak arestian aipatutako zalantza helarazi zieten. Hauen erantzuna erabakiak gehiengoz hartuko zirela izan zen, beti ere, estatu mailako bi indarretatik batek babesa erakutsi beharko ziola ohartaraziz. Lehendakarietako beste ordezkariak batek, horrelako gaietan bi alderdiek jarrera bateratua eramango zutela azpimarratu zuelarik.

²²⁰ Lehenengo momentuan PSOEn barruan jarrera ezberdinak agertu ziren. PSE-EEren buru zen Nicolás Redondo Terrorosek, dokumentuaren edukiarekin bat egin ez arren, eztabaidarako hausnarketatzat hartzen zuen, beti ere, Konstituzioak planteatutako mugaren barruan. Antzeko terminoetan agertu zen Juan Manuel Eguiagaray, Kongresuko bozeramalea. ‘Txiki’ Benegas, Enrique Múgica Herzog edota Rosa Díez biltzen zituen beste sektore batentzat, aldiz, proposamena “onartezina” zen. Benegasen ustez, “akats larria” izateaz aparte, “gainontzeko herrialdeari inposatutako autodeterminazio planteamendu bat” zelarik (*El País*, 1998-03-13).

Hau gertatu eta hilabete gutxi batzuetara, 1998ko uztaila bukaeran, EAJ, EA eta ETAREN ordezkariak arteko elkarrizketak burutu ziren. Bertan, ETAK hiru puntuen gaineko akordiorako proposamena helarazi zien: a) “zatiketa instituzionala gainditzeari begira”, Euskal Herri osorako “instituzio egitura bakar eta subiranoa” sortzeko “urrats eraginkorrak” ematea; b) “Euskal Herriaren gutxieneko eskubide demokratikoen aldeko indarren arteko” akordioak bultzatzeko konpromisoa; eta c) PP eta PSOERekin indarrean zeuden akordioak apurtzea. ETAK bere aldetik su-eten “erabatekoa eta mugagabea” aldarrikatuko zuen; beti ere, hartutako konpromisoak betetzen ote ziren egiaztatzeari begira lau hilabeteetako lehenengo epe bat zabalduko litzatekeelarik.

Elkarrizketa horiek eta gero bi alderdiek hainbat ekarpen gehitzea erabaki zuten: lehenengo eta bigarren puntuari zegokionez, sinatzaileen ordezkariak “estrategia, asmo, pauso, neurri eta erritmoen” inguruko proposamenak adostea ezinbestekotzat hartu zuten; hirugarren puntuari zegokionez, “instituzioen gobernagarritasuna eta egonkortasuna lortzeko beste indarren parte hartzea beharrezkoa suertatuko balitz” forma egokienak bilatzeko konpromisoa hartu zuten. Horrela jakinarazi zioten ETARI.

Hortik aurrera bertsio ezberdinak sortu ziren sinatutakoa eta ez sinatutakoaren inguruan. ETAREN arabera, EAJ eta EAKO ordezkariak hasierako elkarrizketa horietan ETAK berak aurkeztutako akordiorako proposamena jada sinatuta zuten, onartezintzat hartuz gerora ekarpen berriak egin eta erakunde armatuak horiek sinatu nahi izatea²²¹. EAJk eta EAK hasiera batean ukatu egin zuten dokumentu hori sinatu izana. Gertakari hauek ez ziren 1999 urte bukaerara arte publiko egingo.

Abiapuntuzko interpretazio ezberdin hauek, aldiz, hurrengo hilabeteetan emango ziren gertaera esanguratsuak ez zituzten eragotzi: Lizarrako Itunaren sinadura irailaren 12an, ETAREN su-etena irailaren 18an edota Euskal Herri osoko hautetsiak bilduko litzuzkeen instituzioa sortzeko deialdia (1999ko otsailaren 6an) eta bere gauzatzea (1999ko irailaren 18an).

13.1.1.2.1. Status politiko berriaren zerumuga.

Bi urte hauetan EAJren diskurtsogintzak ez zuen autogobernua sakontzen jarraitzeko proposamen berri zehatzik jaso. Ildo horretan, 1998 eta 1999an urteetan eskuduntzen transferentzien eskaerari

²²¹ ETAK 1998-1999 epealdian EAJ eta EAREKIN izandako hartu-emanen nondik norakoak *ETAREN Ekimena* (2000) argitalpenean jaso zuen, horren azalean bertan 1998ko udaran itxuraz bi alderdiekin adostutako dokumentu sinatuta agertzen delarik (Lazkaoko Beneritarren Fundazioko -LBF- artxibategitik aterata).

heldu zion horietako batzuk bereganatuz Gobernu zentralaren aldetik²²². EAJk ez zuen 2000. urtearen hasierara arte autogobernu eredu berri baterako zertzelada nagusiak jaso zituen proposamena landu. Hori bera urte horretako urtarrilaren 15 eta 16an burututako bere III. Batzar Nagusirako prestatutako txosten politikoan jaso zuen. Ordurako, noski, hainbat gertakarik astindu zuten orduko eztabaida politikoa, tartean, ETAREN su-etenaren amaiera.

Su-etena iraun zuen epealdian zehar ezker abertzaleak behin baino gehiagotan leporatu zion alderdi jeltzaleari autogobernuan aurrera egiteko zehaztapen falta. 1999ko uztailean EAJ eta ETAREN artean burutu ziren zuzeneko elkarrizketa berrietan, erakunde armatuak egindako proposamen berriari ezezkoa eman eta gero, urte horretako abuztuan alderdi jeltzaleak irudikatzen zuen autogobernu ildoaren lerro potoloak ezagutarazi zizkion ETARI gutun bidez: a) erabakitze eskubidea jasoko zuen “status juridikoa eta politikoa antolatze helburua” berresten zuten; b) erabakitze eskubidea abiapuntua hartuta “sei herrialdeetako euskal herritarrek bultzatuko duten prozesu politiko eta soziala” sustatzeko konpromisoa hartzen zuten, Euskal Herriak barrura zein kanpora begirako antolaketa zehaztuko lukeelarik; eta c) “euskal gizartearen etorkizuna baldintzatzen duten erabaki esparruek errespetatu beharko dute prozesutik irtendakoa, herri borondate aske eta demokratiko horretara egokitz dagozkion marko juridiko politikoak”.

Oinarrizko premisa hauek ezaugarritu zuten EAJren diskurtsogintza *helburuak markoztatzeari* zegokionez. Erronka hauek, aldiz, ETAREKIN izandako eskutitz trukaketa ezkutuan jasotakoak dira, kanpora begirako diskurtsoan EAJk bakegintzaren ardatzari lehentasuna eman ziolarik. 2000. urtearen hasieran burututako Batzar Nagusira jo behar dugu premisa hauen gutxieneko garapen bat aurkitu ahal izateko, ordurako ETAREN su-etena indargabetuta zegoela ahaztu gabe.

Bertan, EAJk autogobernuaren egoeraren inguruan egindako *diagnostikoa* aspalditik ezaguna zen ideia baten gainean ardaizen zuten: Estatutuaren garapena eta bere betetze mailaren inguruko kezka. Urteetan zehar errepikatzen ari zen irakurketa honek autonomismoan sortutako krisia agerian utzi bazuen ere, EAJk distantziak markatu nahi izan zituen estatutuaren heriotza aldarrikatu zutenetik, bera hilda baino “blokeatuta” zegoela nabarmenduz²²³. Klabe soberanista hutsetan kokatzen ziren diskurtsoekiko posizio markatze hau, Estatutuak ematen zuen “botere errealerako bideari” uko ez egitearen aldarrikapenari lotu zion.

²²² 1998an Itsas Institutu Sozialaren eta aseguruaren bitartekaritzarako funtzio eta zerbitzu batzuk eta 1999an A-8 autobidearen kudeaketa; azkeneko hau Estatuko Aurrekontu Orokorrei babes ematearen truke.

²²³ EAJ-PNV. (2000). Ahora más que nunca: ponencia política y resoluciones aprobadas en la III Asamblea General celebrada los días 15 y 16 de enero de 2000. 19. orrialdea. Koldo Mitxelena liburutegitik aterata.

Aurrerago ikusiko dugun bezala, ezker abertzaleak berak Estatutuak ematen zuen ‘botere bide’ honi ez zion uko egiten. Alde horretatik, batak zein besteak autogobernuaren inguruan planteatutako markogintzek sintoniarako hainbat elementu jasotzen zituzten. Izan ere, aurreko bi hamarkadetan ez bezala, EAJk “kontsentsu politiko berri” bat lortzean jarri zuen erreferentzia nagusia. Alderdi jeltzalearen arabera, “ziklo bat agortu” zen²²⁴, euskal jendarteak “izatea” eta “erabakitzea” oinarri izango lituzkeen paktu berri bat eskatuko lukeelarik. *Helburuen markoztatze* orokor honek marko juridiko-politiko berri bat eskatuko luke, zeinak a) bere izate nazionala aitortu, b) “bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea” jaso, eta c) bere barne zein kanpo lurralde harremana zehazteke eskubidea lukeen.

Status juridiko-politiko berri bat lortzeko *framing*-aren *motibazio* markoak “errealismoz” eta “pragmatismoz” jantzi nahi izan zuen, hilabete batzuk lehenago ezker abertzaleak proposatu zituen “laborategiko esperimientuen” aurrean²²⁵. Horrela autodeterminazioaren helburuari ikuspegi prozesuala eman zion, bere proposamenaren egingarritasunaren erakusle gisa:

“Ez dugu autodeterminazioa Herri baten oraina eta etorkizuna karta batean jokatzeko bakarrik izango balitz bezala ikusten, gizarte bizidun eta demokratiko bat bere izan eta egotea Nazio bezala urratsez urrats eta unez une eraikitzen doan borondate-erabilera etengabe eta progresibo bat bezala baizik”²²⁶.

Prozesu horren arrakastarako giltza “kontzientzia nazionalaren zabalpenean” kokatu zuen; edozelako eredu instituzional gako hori norabidetutako prozesuaren emaitza izan beharko lukeelarik. Euskal identitate nazional horren zabalpenean euskara funtsezko aldagaia litzateke; baita abertzaleen arteko elkarlana ere. Azken honen adibidetzat hartzen zuen Udalbiltzaren sorrera eta bere balizko garapena edota Alderdi Abertzaleen Kontseilua osatzeko egindako proposamena. Prozesu honi sinesgarritasuna eta definizioa eman nahian, EAJren Batzar Nagusiak bere egin zituen aurreko urteetan Ollorak egindako proposamenaren hainbat elementu (indarrean zeuden marko juridikoen erreforma prozesua, galdeketa edota erreferenduma euskal jendarteari, Konstituzioaren erreforma eskaera, ...), urte batzuk geroago Ibarretxe Lehendakariak proposatutako Elkarbizitza Politikorako Itun Berrian garatu eta zehaztu zirenak. Baina, esan bezala, horiek ETaren su-etena apurto eta hilabete batzuetara egindako proposamenak ziren.

²²⁴ Ibid., 18. orrialdea.

²²⁵ Ibid., 36. orrialdea.

²²⁶ Ibid., 14. orrialdea.

13.1.2 Ezker abertzalearen markogintza.

1998 eta 1999 urteetan ezker abertzalearen kanpora begirako diskurtsogintzan ETAk pisu nabarmena hartu zuen. Biurteko horretan erakunde armatuaren agiri, elkarrizketa eta bestelako adierazpide publikoak ugaritu egin ziren. Ez bakarrik burututako ekintza armatuak bere gain hartzeko, baizik eta ezker abertzalearen diskurtso politikoaren lerro nagusiak marrazteko ere. 1998ko udan EAJ eta EArekin izandako elkarrizketetan bera izan zen ordezkari nagusi eta bakarra ezker abertzalearen aldetik eta berak propioki egindako negoziazioei zor zaie irailetik aurrera deitutako su-etena. Ez zen ezker abertzalearen mintzaide bakarra izan, noski. Herri Batasunak ere EAJrekin hasiak zituen isilpeko elkarrizketak. Elkarrizketa hauek Irlandako Foroan forma publikoan hartu zuten, gerora Lizarra-Garaziko hitzarmenaren sinaduran islatuz. Alde horretatik, garai horretako ETAREN diskurtsoari arreta berezia jarri nahi izan diogu, gertakari politikoaren gaineko bere marko interpretatzaileak norabidetu baitzuen prozesuaren bilakaera.

13.1.2.1 Autogobernua: prozesu soberanista.


Garai horretan ezker abertzaleak eta ETAk autogobernuaren egoeraren inguruan egindako diagnostikoan aldaketa esanguratsuak ematen hasi ziren. 1998ko irailaren 18an egoeraren inguruko azterketa egin eta su-etena aldarrikatzeko kaleratutako dokumentuan, “inposatutako egitura instituzional zatikatzalearen porrota” egiaztatzen hasi zen. Bere ustez, “Euskal Herrian indarrean dagoen marko instituzionala agortua” zegoen, egoera horretan ezker abertzaleak hamarkadetan zehar egindako lana arrazoi nagusia litzatekeelarik. ETAREN ustez, diagnostiko hori ezker abertzalean ez ezik, “autonomismoaren alde apustu egin zutenak [ere] (EA eta PNV alderdi abertzaleak, ELA sindikatua eta abertzale zintzo ugari) bide horren antzutasunaz jabetu” ziren.

Diagnostiko honek, ETAk Aukera Politikoaren Egituraz zuen pertzepzioan eragin nabarmena izan zuen; bai *aldagai egonkorrei* zein *aldakorrei* zegokienez. Egonkorrei zegokienean, Trantsiziotik heredatutako *erakundearen egituraren* porrota eta ordutik EAJren baitan nagusi izan zen *kultura politiko* ‘autonomistan’ aldaketa suposatu zuelako; aldakorrei zegokienean, horren arabera ordura arte indarrean egondako *aliantza eta aurkaritza egiturak* aldarazten zituelako. Azken honi

zegokionean, “‘Madril’, ‘Ajuria-Enea’ eta ‘Iruñea’-ko Itunen bidez Euskal Herriari bere hitza eta etorkizuna ukatzeko politikaren agorpena”²²⁷ agerikoa litzateke. Ildo berean, 1998ko hauteskunde autonomikoen irakurketa egiterako orduan zera aipatzen zuen:

“bigarren mailako garrantzia du EAK bozketan hain gora ez egiteak edota IUk bozka kopuru handia galtzeak, eta era berean esan beharko genuke ‘Euskal Herritarrok’-ek HBk sekula lortu izan dituen markak ondu izana eta EAJk EArekiko zatiketaz geroztik izandako emaitzarik hoberenak lortu izanak. Horiek bigarren mailakotzat jotzen ditu ETAk”.

Erakunde armatuarentzat aztertu beharrekoa “Lizarra-Garaziko Hitzarmenak jaso duen babesaren neurketa” zen. Zentzu horretan, “bozka abertzalearen batuketa lotsarik gabe egin” zitekeen, IU-EBrenak ere bertan bildu zitezkeelarik. Hortaz, ETArentzat hauteskunde horien emaitzak indar korrelazioen bilakaera bat baino, gatazka politikoaren mugen desplazamendua adierazten zuten; Itun anti-terrorista ezberdinek mugarritutako aliantza/aurkaritza egituratik, Lizarra-Garaziko Akordioak zehaztutakora.



13.1 grafikoa: Hauteskunde autonomikoen bilakaera 1990-2001 epealdian²²⁸ (Iturria. Eusko Jaurlaritza; elaborazio propioa).

Grafikoan ikusten dugun bezala, aurreko hauteskunde autonomikoekin alderatuta burujabetzaren aldeko indarren artean 1998koetan gehien hazi zena ezker abertzalea izan zen (+57.854), EAJk (+45.976) eta EAK (+3.499) ere gora egin zutelarik; EBk, aldiz, beherakada nabarmena (-22.227) jasan zuen. Hurrengo urtean burutu behar ziren udal eta foru hauteskundeetan Euskal Herritarrok-ek

²²⁷ ETAren komunikatua 1998ko azaroaren 5ean *Euskadi Información* egunkarian.

²²⁸ 2001eko hauteskundeetan EAJ eta EA batera aurkeztu ziren, grafikoan EAJren lerroan zenbatu ditugularik.

oraindik hazkunde nabarmenagoa ezagutu behar zuen, EAJrekin aldea gutxituz. Garai horretan asko hitz egin zen burujabetzaren aldeko indarren artean ezker abertzalearen balizko ‘sorpassoaz’. Ziur aski, posizio abegikor horrek eta epe motz-erdiko aurreikuspenek ere erraztuko zuten Erakundearen irakurketa eskuzabalagoa jeltzekiko. Aldea, aldiz, oraindik nabarmena zen (126.000 bozka pasatxo) jeltzekin alde. Aurrerapen horretarako epe motzerako aukerak erabat lausotu ziren 99ko hauteskunde europarretan eta foraletan EAJ eta EAren arteko koalizio osaketaren eskutik. Zeresanik ez su etenaren osteko hausturaren ondoren, 2001ean Ibarretxeren eskutik lortu zituzten 604.000 bozkekin.

Ezker abertzaleak baliatutako markogintza hau aldi berean nortasun eraikuntza prozesuetan agertu ohi diren mekanismoei lotuta agertuko zaigu. Euskal sindikalgintzak jokaturako *artekaritza* jada azaldutako mekanismoen artean kokatuko dugu; honek jarraian azalduko dugun soberanismoaren *kategoria osaketaren* prozesu sendoari ere bide eman ziolarik. Baina deigarriagoa izan daiteke erakunde armatuak interpretaziorako markoa eguneratuz, ordura arteko indar autonomistez egindako *zertifikazioa*. Mugimenduak bere ekintzen eta aldarrikapenen balioztatzea ‘kanpo’ autoritateen aldetik bilatu ohi badu ere, mugimenduak berak sistemaren parte izandakoen *zertifikazioa* ere eman ahal izango du, bere posizioetara erakartzeko gaitasunaren erakusle bezala. Izan ere, batzuk eta besteek egindako ibilbidearen kontakizunek osatuko baitute markogintzaren motibaziorako atal nagusi bat.

Helburuak markoztatzerako orduan, ETA argia zen: fase politikoaren erronka nagusia subiranotasuna erdiestea zen. 1995ean eguneratutako eskaintza politikoaren ildoari jarraituz, subiranotasunaren markoztatze demokratikoa planteatu zen, urte gutxi batzuk lehenago gatazka politikoaren terminoak zabaltzeko egindako apustuarekin bat eginez: “Herriari hitza ematearen beharra, Herriak hitza berreskuratu eta hitz hori errespetatzea” helbururik behinena zelarik. Izan ere,

“agintaritza espainiar eta frantsesaren zilegitasun demokratikoa kolokan jartzeaz gain, kontzeptu positibo bat landatu dugu geure baratzean, euskal demokraziarena. Gatazka gaintzeko edozein demokratik defendatu beharreko gutxiengo demokratikoak (Autodeterminazioa eta Lurraldetasuna) finkatu dira, egoera demokratikoa eskuratuz gero, norberak bere proiektua garatzeko baldintza berdintsuagotan aritzeko aukera zabalduz”²²⁹.

²²⁹ 1998ko irailaren 18ko ETAREN komunikatua.

Aro horretan orokortu zen subiranotasunaren edota burujabetzaren kontzeptua lurraldetasunaren ideari estu atxiki zion ezker abertzaleak. Izan ere, ETArenezat “Euskal Herriak, bere osotasunean, muga autonomiko eta estatalak gaindituz, subiranotasuna eskuratuko” zuen aroa izan behar baitzen; ez baitzegoen “bi edo hiru Euskal Herri. Bakarra da, bere berezitasun eta errealitate ezberdinekin [...]. Horixe baita herri bat!”.

Horrekin batera ETAk ere indar berezia jarri zuen su-etinarekin lortu nahi ez zuena azaltzeko orduan. Esan bezala, ETArenezat fasearen helburu orokorra subiranotasuna lortzea zen, ez “bake faltsua” bezala izendatu zuena. Faltsutasun hori bere su-etena “markoa egonkortzeko” nahiekin nahastearekin lotuta zegoen. ETAk horrela jakinarazi zion EAJri 1999ko udaran izandako hartu-emanetan, prozesuaren gaineko ezaugarritze honek urte horretako bigarren erdialdetik aurrera bien arteko ika-mika bizia piztu zuelarik²³⁰. Baina su-etena publiko egindako agiri berberean ohartarazpena ezker abertzalearen oinarriari ere bidali zion: “Helburua ez da hamarkada luze bateko Espainiaratzea gidatu duen Ardanzak bere plan partzalean proposatzen duen bakeratzea, are gutxiago bakeratze horri itxura politikoa ematea Ezker abertzalearen kontzientzia lasaigarri edo autoengainurako. Hori baino ausartago izan beharra dago une honetan”. Irakurketa honen jatorria hainbat sektoreetatik prozesu politikoa ETArrik gabeko bakerako dinamika batera murriztu nahi izatean kokatzen zen. Horrela eztabaida politikoaren markogintza ‘burujabetza ALA bakearen’ helburuen arteko dikotomiara mugatzen zelarik, urteetako logika politiko antagonikoaren sintoma gisa.

Burujabetzaren helburua erdiesteari begira, ETAk *motibaziorako markoetan* ohikoak izaten diren teknikak baliatu zituen: mugimenduaren legitimazioa, protestaren hartzaileen markoztatzea eta finkatutako helburua erdiesteko proposamen egingarriak plazaratzea. Lehenengoari dagokionez, gorago aipatu bezala, aliantza eta aurkaritzen egituren mugen desplazamendua eginda, une horretan Lizarra-Garaziko hitzarmenaren inguruan bildutako eragile politiko eta sozialek osatutako mugimenduaren legitimazioari heldu zion. Ohi ez bezala, ETArenezat prozesua ahalegin kolektiboaren emaitza zen: “Hor badago eztabaida nor mugitu den eta nor ez den mugitu... Mundu guztia mugitu dela ikusten du gizarteak eta guk ere horrela ikusten dugu”.

Protestaren hartzaileen markoztatzeari zegokionean, Espainiar estatuak PP eta PSOEn eskutik Euskal Herria “zapalkuntza” eta “mendekotasun” egoeran jazarri izana ohi legez salatzen zuten.

²³⁰ *ETAren ekimena*-n (LBFren artxibategia) edota *Argia* aldizkariaren bakegintzaren inguruko bilduman jasota: (<http://www.argia.eus/bakegintza/htdocs/eta14.htm>).

Kasu honetan, aldiz, prozesuaren helmuga ez zegoen Estatuarekin adostu beharreko akordio batean. Alternatiba Demokratikoan jaso bezala, hori uneren batean iritsi beharko zen; beti ere, euskal eragileen artean adostutakoa errespetatuko zela eta presoek kaleratzea eta indar armatuen kanporatzearen bermeari lotuta.

Arerioen deslegitimazioari begira, ezker abertzaleak kezka berezia agertu zuen une horretan komunikabideek jokatzen zuten paperarekin. Kezka hau ETAn ez ezik, garai horretako eragile abertzale ezberdinen diskurtsoan oso presente egon zen. Izan ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, Estatu mailako alderdien eta komunikabide nagusien arteko lerrotze hau, garai horretan ‘soberanisten’ eta ‘konstituzionalisten’ artean eman zen polarizazioaren eragile nagusietako bat izan baitzen.

Norberaren indarren goreslea eta parekoaren deitoratze hutsa, aldiz, ez da markogintza arrakastatsu baterako baldintza nahikoa izaten. Alde horretatik, ezker abertzaleak burujabetza erdiesteko jendartearen begietan egingarria litzatekeen proposamen bideragarria aurkeztu beharra zuen.

Garai horretako adierazpenetan indarrean zen erakundetze autonomikotik harago egongo zen instituzionalizazio prozesuaren aldeko eskaerak tarte zabala irabazten joan zen ezker abertzalearen diskurtsoan. Planteamendu honek, aldiz, publikoki zehaztapen gehiegirik ez zuen izan epealdi honetan, autogobernuaren garapen falta gainditzeko *konponbiderako proposamen egingarri* bezala mugatuta proiektatuz. Izan ere, hurrengo atalean azalduko dugun bezala, 98-99 epealdian honen inguruko proposamen eta zehaztasunak barne mailako diskurtsoetan kudeatzen ari ziren EAJ, EA eta ETAn arteko hartu-emanetan.

Hala ere, honek ez luke ezkutatu behar ezker abertzalearen markogintza urte hauetan ematen hasitako aldaketak. Ordura arteko markogintzaren arabera finkatutako helburuak asetzeko konponbidea Estatuarekin burututako negoziazioaren ondoriozko autodeterminazioaren onarpenean (kanpo aitortza) finkatzen bazen, une honetatik aurrera euskal eragileen arteko adostasunak eta konpromisoak (barne aitortza) finkatu ziren giltzarri bezala. Horrela zionen ETAk 1999ko maiatzean egindako elkarrizketan: “Prozesuaren une batean egongo da Frantzia eta Espainiaren interbentzio bat eta une horretan ikusiko da nolakoa izango den, baina hori ez da gure kezka [...]. Afera guk eraikuntzan aurrera egitea, eta etorriko da unea”²³¹. Prozesu diskurtsibo honek uneko egokitzapena baino, ezker abertzalearen marko interpretatzailean aktibatutako *objektu aldaketaren*

²³¹ 1999ko maiatzaren 16an *Gara* eta *Egunkaria*-n argitaratutako elkarrizketa.

mekanismoaren funtzioa bete zuela esan dezakegu. Ildo horretan, aldarrikatzen denaren jomugaren aldaketak gatazkan parte hartzen duten nortasunen aldaketa ekarri ohi du, bai aldarrikatzen duenarena (ezker abertzalea) zein ordura arte aldarriaren hartzaile bezala izan denarena (Estatua edota gainontzeko indar abertzaleak). Estatuarekin negoziatuz burujabetzarako objektu aldaketa hau gabe nekez ulertu ahal izango genuke epe horretan gauzatzen hasi zen kategoria politiko zahar-berrituen osaketa (soberanismoa) eta liskar politikoaren berrezaugarritzerik gabe.

13.1.2.2 Bakegintza: Lizarra-Garaziko erreferentzia.

Gogoratu behar dugu autonomismoaren diskurtsoan ez bezala, ezker abertzalearen bakegintzaren markoztatzea ez zela autogobernuarenetik bereizten. Alegriari egindako elkarrizketen horrela azaldu zigun:

“Poloak ez dira bakea eta autogobernua, edo autogobernu garapen dinamikoa. Poloak dira hitz ‘zaharrekin’ esanda, Estatuarekin akordio politikoaren gutxienekoak eta haustura ezinbestekoa duen Euskal Herriarentzako eskumenen aitortza. Bi horiek daude.”

Alde horretatik, ezker abertzalearen marko interpretatzailean ETaren jardun armatuaren behin betiko bukaera Estatuak egin beharreko aitortza horri atxikitzen zitzaion. Logika horri erantzuten zion Alternatiba Demokratikoak eta logika horretan ulertu zuen ETak Lizarra-Garaziko Ituna.

Ezker abertzalearentzat Lizarra-Garaziko Akordioak ‘gatazkaren konponbiderako’ erreferentzia nagusia osatzen zuen²³². Irlandako prozesuaren nazioarteko difusioa baliatuta, dokumentuak Ajuria-Eneako Itunak aurreko urteetan ezarritako markogintza anti-terroristarekiko haustura ekarri zuen. Prozesu horren gakoak euskal gatazkara ekarri nahian, honen “izaera politikoa” nabarmendu eta bere “konponketak ere derrigorrez politikoa izan beharko” zuela azpimarratzen zuen. Berrikuntza nagusia ez zetorren Ajuria-Eneako Itunaren fundazio agiriak dimentsio politiko hau jaso ez zutelako, baizik eta ondorengo markogintza anti-terroristaren anplifikazioak bera indargabetu zuelako. Testuan bertan adierazten zen bezala, honek ez zuen ezkututzen “gatazkaren sorrera eta mantentzeari buruzko ulermoldeak desberdinak” zeudenik, baina ‘gatazka’ markoztatzeako orduan dimentsio anti-terroristatik ‘negoziatuta’ desplazamendu nabarmena suposatu zuen.

²³² Íbidem.

Alde horretatik, elkarrizketa politiko horren mamia modernitatean zehar botere politikoaren bilakaera ezaugarritu duen funtsezko aldagaiak barnebiltzen zituen: “lurraldetasuna, erabaki subjektua eta burujabetza”. Hori guztia demokraziaren kategoriak ardatzen duen *framing* baten bidez: “Euskal Herrian demokrazia sakondu behar dela -hau da, Euskal Herriaren etorkizuna nolakoa izango den euskal herritarrek beren hitzaren bitartez adierazi behar dutela- eta inplikaturik dauden estatuek erabaki hori errespetatu behar dutela” nabarmentzen zuen deklarazioak.

Lizarra-Garaziko Akordioaren erredakzioan bakearen helburua erdiesteko azken giltzarria Estatuaren onarpenean kokatzen bazen ere, epealdi horretan ETaren bakearen inguruko markogintza logika berri bati lotu zitzaion. Izan ere, aipatu dugu ETaren su-etena ez zegoela Estatuari begira deituta, euskal eragile eta herritarren arteko adostasunei eta, zehazkiago, EAJ eta EAren lortutako akordioei begira baizik. Ildo beretik, 1999ko abuztuan hiruen artean egindako elkarrizketa berrietan, norabide horretan urrats bat harago eginez, ETak ekintza armatuen behin betiko amaiera EAJrekin erdietsi zitezkeen akordio berriekin lotu zuen²³³.

13.1.3 Markoen lerrotzeak: marko anti-terroristaren *eraldaketa*.

Marko batek jendartearen *durunda* (*resonance*) nahikorik lortzen ez duenean bera eraberritu beharko da erreferentziazko eragileak edo mugimenduak markogintza arrakastatsua nahi badu. Ajuria Eneako Itunetik elikatutako markogintza antiterroristaren kasua izango litzateke; ‘biolentoen porrotaren’ diskurtsoak edota Gernikako Estatutuaren aldeko logikak ordura arte eskaintzen zuten ziurtasunak, jendarteak antzematen zuten errealitate politikoarekin bat egiten ez zuenean marko kognitibo hori alde batera utzi eta berria lantzearen beharra agerikoa egiten hasi zen.

Gamsonek (1982) planteatu bezala, *markoaren eraldaketarako* aurretik zorigaitzeko baina jasangarria bezala antzematen zen *hori*, momentu batetik aurrera onartezina, bidegabea edota moral gabekotzat hartuko da. Aztertzen ari garen erreferentziazko bi aldagaiei dagokienez (autogobernua eta bakegintza) hori gertatu zen epealdi honetan. Autogobernuaren kasuan, Gernikako Estatutuaren ez betetzeak eta bera bururaino eramateko hartutako konpromisoen urraketak *irainen ezarpenaren*

²³³ “Hitzarmen berria sinatuz gozotik orain arteko ekintzen etenaldiaren epekako egoera iraunkor bilakatuko litzateke, batez ere hauteskunde horien jomuga azkar baten beha”; ETA. (2000). ETaren ekimena. LBFko artxibategitik aterata.

mekanismoa aktibatu zuen 1997tik aurrera Aznarren Gobernuak EAJ eta PPren arteko akordioaren urraketarekin. Bakegintzari zegokionez ere, hamarkada osoan zehar ETaren biolentziaren amaiera elkarrizketatuaren inguruan egon bazeuden desadostasunak biderkatu eta anplifikatu ziren Ardanzak bere plana aurkeztu eta berehala.

Baina Snow-ek eta Benford-ek (1986) ere aipatu bezala, injustiziaren markoaren berrezaugarritzea ez da markoaren eraldaketarako nahikoa izango; erantzukizunaren atribuzioa ere beharrezkoa izango da. Zentzu horretan, PP eta PSOErenganako erantzukizunaren atribuzioak ordura arteko aliantza eta aurkaritza egitura berreraikitzea ere eskatu zuen, ‘demokrata’ eta ‘biolentoen’ arteko identifikazioak birdefinituz.

Zer marko eraldaketa motaren aurrean gauden mugarritzea, ordea, zailagoa izan daiteke. Izan ere, autogobernuaren eta bakegintzaren marko interpretatzailearen eraldaketa agerikoa izan bazen (*domeinu zehatz baten eraldaketa*), jendartean nagusi izango den *master frame* edo *marko interpretatzaile globalaren eraldaketak* neurtzea zailagoa baita. Zentzu horretan, domeinu baten edo batzuen interpretazioan ematen diren aldaketek beste batzuegan eragina izan ohi dute; beste hauek automatikoki aldatzen ez badira ere, eraldaketa prozesu mailakatuak marko globalaren interpretazioan eragin orokorra izan dezakeelarik. Alde horretatik, autogobernuaren eta bakegintzaren gaineko markoetan gauzatutako aldaketak, lehia politikorako domeinu hegemoniko gisa, errealitate politikoa interpretatzeko marko globalaren eraldaketatik gertuago kokatzen gaitu, domeinu partzialetik baino. Izan ere, anti-terrorismoaren marko nagusiaren gainbeherak²³⁴ utzitako hutsunearen ziurgabetasuna murriztuko zuen beste diskurtso batek bete beharko zuen; ordura arteko interpretazio okerrak (*misframings*) zuzendu edota lehiarako aferak berrezaugarrituko zituen (Snow&Benford, 1986).

Zentzu honetan, Lizarra-Garaziko Itunaren sinaduratik aurrera, burujabetzaren aldeko sektoreen diskurtsoak markogintza anti-terroristak utzitako hutsunea betetzeko bokazioa erakutsi zuen, azken honek biolentziaren amaierari eta autogobernuaren garapenari zegokionez jendartean zuen durunda falta gainditzeko asmoarekin. Markogintzaren berrezaugarritze honek markoen lehia (*frame competition*) ‘demokrata eta biolentoen’ arteko norgehiagokatik ‘soberanista eta konstituzionalisten’ artekora eramateaz gain, abertzaletasunaren baitako diskurtsogintza “erradikalki berreraikitze” (Goffman, 1974: 55) ere eman zuen.

²³⁴ Esan gabe doa, markogintza anti-terroristak abertzaletasunaren diskurtsoan izandako gainbeheraz ari garela. Izan ere, aurrerago aztertuko dugun bezala urte hauetan alderdi eta sektore konstituzionalisten baitan indarberrituta aterako baita.

Marko globalaren eraldaketaren ezaugarriarik nabarmenena ‘eguneroko’ gertakariak ulertzeko ematen den ikuspegi aldaketa litzateke, ordura arte nagusi zen ikuskeran barne aldaketa eraginez. Epealdi horretan Estatuek baliatuta hertsadurarako mekanismoen erabileraren interpretazioa, esaterako, nabarmen aldatu zen Lizarra-Garaziko Itunaren hainbat sinatzaileen aldetik. Adibide bat aipatzearen, garai horretan ezker abertzaleak jasandako jazarpenari²³⁵ Lizarra-Garaziko akordioaren sinatzaileen aldetik emandako erantzun bateratua²³⁶ ezinezkoa zitekeen urte batzuk lehenago nagusitutako markogintza anti-terroristaren baitan. Antzeko irakurketa egin dezakegu, garai horretan indarrean mantendutako hainbat kale erasoen inguruan ezker abertzaleko ordezkari batzuek egindako hausnarketa eta kritikei buruz²³⁷. Batzuk eta besteak ordura arte nagusitutako markoaren eraldaketa gabe nekez eman zitezkeenak.

13.1.4 Diskurtsoen analisisen ondorioak.

Laburtu ditzagun ondorengo taulan burujabetzaren aldeko diskurtsoen bilakaeraren gako nagusiak epealdi honetan:

²³⁵ Gogora dezagun 1999ren hasiera horretan guardia zibilak HBren Donostiako egoitzan sartu, goitik behera miatu eta material ugari eraman zuen Intxaurrendoko koartelera; Gasteizko HBren egoitzan, berriz, espioitzarako hainbat gailu aurkitu zituztela; edota HBren nazioarteko harremanetarako hainbat kide atxilotu zituztela.

²³⁶ Lizarra-Garaziko Foroak martxoaren 17ko bileran kaleratutako oharrean, ezker abertzaleak jasandako errepresioaz harago, prozesu politikoaren aurka gobernu espainol eta frantsesak erakutsitako jarrera salatu nahi izan zuten, gobernuoi “euskal gizarte eta erakundeen erabakiekiko mespretxu sistematikoa, [...] elkarrizketaren ukapena [...] eta kutsu politiko nabaria duten erantzun polizial eta judizial hutsetara” jo izana egozten zitzaielarik (Kortabarria, 2015: 399).

²³⁷ Orokorrean, borroka-moldearen zilegitasuna onartuta ere, haren eragin politikoaz hausnarketa egiteko eskatzen zitzaaien erasotzaileei: “La permanencia de la violencia del Estado contra los presos, el euskera o contra los derechos democráticos de Euskal Herria, hace que no sea discutible la legitimidad de la respuesta de determinados sectores populares, [...] pero se debe dar una reflexión sobre el efecto político disolvente que pueden tener este tipo de actuaciones” zion Rafa Diezek (*Diario Vasco*, 1999-01-18; Kortabarriaren liburutik jasota).

13.1 taula: *Burujabetzaren aldeko diskurtsoen bilakaera*

| Marko mota | Markogintzaren dimentsioak | Autonomista | Hausturazalea |
|--------------|---|---|---|
| Diagnostikoa | <i>Arazoa</i> | Estatutua: soluziorako markotik >>> problematizatzeraz | “Inposatutako egitura insituzional zatikatzaileen porrota” |
| | <i>Kausa</i> | Estatuko gobernu ezberdinak; “Gobernuaren alderdiak aldatuta ere, (autogobernua) hobetzetik [...] urruti” (Ollora, 1996: 34). | Autonomismoaren ‘biraketa’ soberanista |
| Pronostikoa | <i>Helburua</i> | Status politiko berriaren zerumuga | Estatuek autodeterminazioa aitortzetik >>> herri burujabetza egikaritzera |
| | <i>Arrakastarako aukerak</i> | “Prozesu politiko eta soziala” ²³⁸ | Negoiazio politikotik >>> <i>soberanismoa</i> |
| Motibazioa | <i>Mugimenduaren autolegitimazioa</i> | Abertzaleen arteko elkarlanaren legitimazio demokratikoa | Abertzaleen arteko elkarlanaren legitimazio demokratikoa |
| | <i>Protesta hartzaileen markoztatzea</i> | Konstituzionalisten deslegitimazio anti-demokratikoa | Konstituzionalisten deslegitimazio anti-demokratikoa |
| | <i>Konponbide egingarrien proposamena</i> | Estatutua betetzetik >>> ??? | Instituzionalizazioa; hauteskunde eratzailak |

Puntu honetara iritsita gure ikerketaren galdera nagusietakoa izan daitekeena erantzuten hasteko hainbat gako identifikatu ditugulakoan gaude: Lizarra-Garaziko Akordioa indarrean egon zen epealdian ordura arteko abertzaletasunaren baitako marko interpretatzaileak eguneratuko zituen ‘diskurtso soberanista’ berri bat trinkotu zela esan dezakegu?

Orain arte markogintza arrakastatsuen eraikuntzarako baliatu dugun eskema metodologikoari jarraituta zera baieztatu dezakegu:

- Burujabetzaren aldeko indarrek, orain arte planteatu ditugun erreferentziazko bi gaien (autogobernua eta bakegintza) egoeraren gaineko *diagnostiko* bateratu bat baino, ordura arte bietako bakoitzaren garapenerako indarrean egondako erreferentzia nagusien (Gernikako

²³⁸ EAJren gutuna ETArri 1999ko abuztuan (*Argia* aldizkariaren ‘Bakegintza’ sailetik: <http://www.argia.eus/bakegintza/htdocs/eaj5.htm>)

Estatutua, Ajuria Eneako Ituna, ETA-Gobernuaren arteko ereduaren nagusitasuna, ...) mugak berrestean bat egiten zutela esan daiteke.

- Autogobernuaren eta bakegintzaren blokeoaren kausaren atribuzioan ere bilakaera bat eman zen ordura arteko markogintzetan. Izan ere, ezker abertzalearentzat eragile autonomisten ‘biraketa soberanista’ eta ordura arteko eragile autonomistek ezker abertzaleak ‘bakerantz’ emandako urratsa balioan jarri izanak, bi plano hauen (autogobernua eta bakegintza) blokeoaren erantzukizuna konstituzionalismoarengan desplazatu zuen.
- *Pronostikoa* ezaugarritu behar zuen helburuen markoztatzeari zegokionean ere, bat egiten zuten ordura arteko egoera gainditu eta status juridiko-politiko berri bat erdiestearen beharrez; baita bakea lortzeko elkarrizketa politikoaren nagusitasunean, alde aurretik baldintzak ezarri gabe. Zentzu horretan, Lizarra-Garaziko Akordioa agertuko zen arrakastarako aukerak markoztatzeko bitarteko nagusi bezala.
- *Motibaziorako markoa* burujabetzaren aldeko indarren arteko elkarlan demokratikoaren eta konstituzionalisten eta inguruko komunikabide nagusiek jokaturako paperaren deslegitimazioaren eskutik garatu zen. Maltzagaren metafora eguneratua bezala ulertu genezakeena.
- Elite ezberdinen artean landutako markogintzaren alderik ahulena, ordea, burujabetza politikoa helburu izango lukeen status berri hori gauzatzeko proposamen egingarrien gaineko ikuspegi ezberdinetan zetzan.

13.2 Ekintza kolektiborako mekanismoak eta demokratizazioa

1995tik 1997ra doan epealdiaren azterketan *eskala aldaketaren* mekanismoak jokatu zuen papera nabarmendu dugu aurreko atalean. Batetik, ELA eta LABen *artekaritzak* abertzaletasunaren bi familien arteko elkarlanari bide eman ziolako, *emulazioaren* mekanismoak maila sindikaletik politikora jauzi eginez. Eta bestetik, protestaldiaren erradikalizazioaren *difusioak* eraso orokortzean jauzia suposatu zuelako. Bi mekanismo hauek (artekaritza eta difusioa) protesta ziklo osoan zehar presente egon dira; sistema politikoa lehiatu nahi duten sektoreen zabalpena eta kaltearen logika hedatuz sistema aldarazi nahi duen talde ‘aitzindariaren’ arteko tentsio iraunkor bezala ulertuta.

Oreka ezegonkor honetan, arestian aipatutako eskala aldaketak 98-99 epealdian presente egon ziren bestelako bi prozesu sendoei bide eman ziela esan dezakegu: soberanismoaren *kategoria osaketa* eta honen konstituzionalismoarekiko *polarizazioa*. Azken mekanismo honi dagokionez ez genuke bere eragin anibalentea azpimarratu gabe utzi nahi. Izan ere, aurreko biurtekoan (95-97) emandako eskala aldaketak ‘demokrata’ eta ‘biolentoen’ arteko polarizazio ezagunean sakontzeko eman bazuen ere, 98 eta 99an marko antiterroristaren eraldaketaren eskutik soberanisten eta konstituzionalisten arteko banaketan sakontzeko eman zuen. Ez dugu ahaztu behar polarizazioaren ohiko eragina tartean gelditu ohi diren sektoreak alde batera edo bestera dekantatzea izan ohi dela; kasu honetan, tartean gelditu zen diskurtso autonomistaren inguruan urteetan kokatu zirenen desplazamendua nabarmendu behar delarik. Alegriari egindako elkarrizketan giro polarizatu honen eskutik emandako dekantazio berri honen gaineko arrazoien inguruko hipotesi bat planteatu zigun, garai horretako ezker abertzalearen marko interpretatzailean nagusituko zena. Bere ustez 97ko polarizazio egoerak (Blanco, Ortega Lara, kale erasoen gorakada, ...) bidalitako mezua argia zen:

“Estatuari begira: ‘nahiz eta borroka armatuaren zilegitasuna kolpatzeko gaitasuna daukazu, ez daukazu zure proiektu estrategikoa finkatzeko [aukerarik]’; eta autonomismoari (begira): ‘(...) gerra horretan ez duzu prozesu autonomikoa estabilizatzen, kale itsu batetara eramaten duzu, eta ez guk esaten dugula, baizik eta zure ‘lagunek’ eman dizuten botere politikoa gehiegizkoa dela [uste dutelako]. Eta espazio intermedio horietan, etortzen da ‘Ermua’ eta [konstituzionalistek] esaten dute ‘orain bai, espazio intermediaoa arrasatuko dugu’”.

Ikuspegi teorikoago batetik: polarizazio prozesuetan *aukera eta mehatxuen espiralaren* mekanismoa ohikoa izaten da. Espiralak, hauen esleipena modu gero azkarragoan emanez, denbora tarte laburrean eragileak aurretik kokatu gabeko espazioetara bidaltzen ditu, momentu batera arte aukera bezala ikusten zena (ETA garaitzea ezker abertzalea zokoratuz) ageriko mehatxu bezala ikusiz (abertzaletasunaren eta autogobernuaren aurkako *erasoen orokortzea*) eta ordura arte ikusi gabeko lerrotze berriak gorpuztuz (MTT, 2005). Horrela bakarrik azaldu daiteke horrelako epealdi laburrean euskal politikagintzan ziren erroko aldaketak.

13.2.1 Soberanismoaren kategoria osaketa.

MTTren (2005) arabera, kategorien formakuntzak muga batzuk konpartitzen dituzten taldeen multzoari erreferentzia dio; muga hauek gutxienez beste talde multzo batekiko bereizi eta harremanetan jartzen dituelarik. Gure kasura ekarriz *talde* hauek orain arte diskurtso autonomista eta hausturazalea bezala izendatu ditugun diskurtsoen inguruan osatutakoak lirateke, *multzoa* bera soberanismoa bezala izendatuko dugularik.

Baina MTTk beraiek aipatu bezala, *kategorien osaketa* mekanismo zehatz ezberdinez osatutako prozesu sendoa izango da; aldi berean, *asmakuntza*, *mailegua* edota *topaketa* mekanismoengatik osatuko dena. Ikuspegi orokor batetik gurean, XX. mende hasierako euskal abertzaletasunaren '*asmakuntzak*', mende bukaeran horren baitako familia ezberdinen *topaketari* bide eman ziola esan dezakegu. Izan ere, MTTren definizioari jarraituz, aurretik banatutako baina barne mailan lotutako sareetako kideak (abertzaletasunaren ideologiaren bidez, esan nahi baita) beraien artean harremanetan jarri ziren, bitartekoengatik borrokan hasiz eta barne zein kanpo mugen definizioa negoziatuz; mugaren bi aldeetako barne harremanak ere zehaztu behar izan zituztelarik (MTT, 2005: 175); hau da, bai autonomismoaren barruan, baita ezker abertzalearen barruan ere.

Aurreko atalean aztertutako ELA eta LABen arteko harremanak muga hauen etengabeko negoziazioaren adibidetzat hartu ditzakegu; baita ezker abertzalea eta EAJren arteko hartu-emanak bere forma ezberdinetan ere: EAJ, EA eta ETaren arteko (sasi) akordiotik hasi, Lizarra-Garaziko Itunetik pasa eta Euskal Herritarrok eta Ibarretxeren arteko legegintzaldirako akordioraino. Elkarreraginezko prozesu honetan norberaren identitatea zedarritzen dituzten mugak etengabe negoziatzen diren, jatorrizko kategoriaren (autonomismoa edota hausturazaletasuna) eta sortzen ari zen edo sortu nahi zen kategoriaren (soberanismoa) arteko tentsioa iraunkorra izanik. Hegemonia politikoa lehiatu nahi izango duen kategoria berriaren osaketan bi aldeek kontzesioak egin beharko dituzte. Beti ere, gehiegizko eskuzabaltasunak besteak norbera irenstera eraman dezakeela argi izanik, baina gehiegizko zurruntasunak ere kategoria berriei bide emango ez diela jakinik.

Ildo honetan, gurera ekarri nahi izan dugu Ibarrek (1999) gorpuzten hasi berria zen soberanismo hau deskribatzeko baliatutako ezaugarri komunak²³⁹:

²³⁹ Zerrendatze hau Pedro Ibarrek 1999an Manu Robles Arangiz Institutuak argitaratutako *Propuestas para un nuevo escenario: democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria* libururako egindako sarreratik jaso dugu. Kasu honetan, liburuaren atal ezberdinetako egileek burujabetzaren alde erakusten zuten jarrera komunaren ezaugarri gisa zerrendatu zituen. Gure ustez ezaugarri horiek burujabetzaren aldeko indar ezberdinen arteko gutxieneko izendatzaile bezala ere hartu ditzakegularik.

- Alde guztiek Euskal Herria burujabetza helburu izango lukeen nazio bezala izendatzen dute. Alde horretatik bere egiten zuten:
 - Burujabetza hori historiari zein borondate kolektiboari lotutako arazoiei lotuta zegoela, eta ondorioz, bere biziraupenerako beharrezkoa den botere politikoa eskuratu nahi zutela; hau da, euren burua autogobernatu nahi zutela.
 - Burujabetza horrek adierazpide ezberdinak izan zituela, eta guztiak, modu batean edo bestean, Estatuen aldetik baldintzatua izan zirela; hau da, erabateko burujabetza lortzeko zailtasunak egon zirela.
 - Euskal komunitatearen hainbat interes kolektibo gestionatzeko gabeziak erakustez harago, Autonomi Estatutuak ez zuela burujabetza hori adierazten. Horrek, Estatutua gaindituz, burujabetza statusa ezarriko zuen prozesu politiko bat abiarazteko exijitzen zuen, euskal hiritarren artean autogobernu maila egokiena adostuz.
- Burujabetza hori eskuratzeko bidea autodeterminazio eskubidearen egikaritzea litzateke; bera bideratzeko arazoi juridikoen oinarrian argumentu hauek planteatuz:
 - Bere garapena aukera demokratikoa zen.
 - Bere garapena prozesu mailakatua izan behar zen. Autodeterminazio eskubidearen egikaritzea, etapa ezberdinen bidez, autogobernu marko zehatz batean kristalizatuko zen prozesua izan behar zen; edozein forma hartuta ere, herri burujabetzan oinarrituko zena.
- Arazoa ez litzateke autodeterminazio eskubidearen egikaritzearekin amaituko, herri antolaketa eta herri eredia ere ebatzi beharko zelarik²⁴⁰.


MTTren (2005: 352) arabera bi mekanismok funtsezko papera jokatzen dute prozesu honetan: *jabetza sozialak* eta *ekintza berritzaileak*. Lehenengoaren bitartez ekintzaileek aurretik existitzen zen ‘antolaketa euskarri bat baliatu’ (edo berri berri bat sortu) beharko dute lehiarako tresna bihurtuz (MTT, 2005: 51). Kasu honetan, autonomismoak berak, edota autonomismoaren posizioan kokatutako eragile eta bitarteko nagusiek osatu lezakete ezker abertzaleak, protesta zikloaren ‘ekintzaile nagusi’ edo *mugimendu goiztiar* bezala, lehiarako baliatu nahi izan zuen ‘euskarri’ hori; ez horrenbeste antolakuntza ikuspegi batetik, baizik eta protestaldiaren garapenaren ikuspegitik eskaintzen zuen oinarri berrituagatik. Ideia honek ez du indargabetzen ordura arte autonomismoaren

²⁴⁰ Ibarrek, arestian aipatutako liburuaren egileen ikuspegi bateratuari erreferentzia egiterakoan, hauek “Euskal Herriaren arazoaz” edo ‘euskal gatazkaz’ duten ikuspegiak hitz egiten digu. Zentzu honetan, ezberdintasunak leudeke, adibidez, ezker abertzaleak eta ELAk planteatutako ikuspegiaren artean. Lehenengoaren arabera, autodeterminazioaren *kanpo* aitortzak hasieran (Estatuaren aldetik) edota *barne* egikaritzeak gerora (burujabetzaren aldeko indarren ‘de facto’-zko egikaritzea) amaiera emango lioke ‘euskal gatazkari’. Bigarrenaren arabera, aldiz, ‘herri ereduaren’ *gatazka* ere ebatzi beharko litzatekeelarik, nolabait esateko. Arazo kontzeptual hau saiheste aldera Ibarrenaren hitzen berridazketa propioa egin nahi izan digu.

kanpoko hori identifikazio edo kategorien osaketarako ezinbesteko baldintza izango da; kasu honetan, *konstituzionalismoa* deitu izan zenaz ariko ginateke. Baina nola ezaugarrituko genuke konstituzionalismoaren kategoria?

13.2.2 Konstituzionalismoarekiko polarizazioa

Orain arte *ideologia*, *diskurtsoa* eta *markoaren* artean egin dugun banaketari jarraituta, konstituzionalismoa ideologia nazionalistaren baitako diskurtso bezala ulertuko genuke nazionalismo espainiarraren diskurtso hegemonikoa bezala nahi bada. Izan ere, nazionalismo espainiarrak, identifikazio politikoen sortzaile eta osotasunerako bokazioa duen ikuskera politiko bezala ulertuta, ordura arte lurralde antolaketari zegokionez barnebildutako bestelako diskurtsoak (izan federalista, izan zentralista edota izan autonomista bera) menpeko edo subordinatu gisa agertu zitzaizkigun diskurtso konstituzionalista horren mesedetan. Horrela, euskal nazionalismoaren baitan 90. hamarkadaren bigarren erdialdera arte nagusitutako diskurtso autonomistaren eta hausturazalearen bilakaerak diskurtso soberanista berri bati bide eman bazion, espainiar nazionalismoak 90. hamarkadaren lehenengo erdialdean EAEn bere egin zuen diskurtso autonomistak²⁴¹ konstituzionalismoari atek ireki zizkiola esan dezakegu.



13.2 irudia: Ideologiak, diskurtsoak eta markogintzen arteko harremana eta bilakaera euskal protestaldian.

²⁴¹ Espainiar nazionalismoak diskurtso autonomista bere egitearen prozesuan mugarriztat hartu dezakegu Alderdi Popularraren sorrera eta honek, bere aurrekari zuzena ez bezala (Alianza Popular), Gernikako Estatutuarekiko errezeloak alde batera utzi eta bere egin izana.

Ez da lan honen asmoa diskurtso konstituzionalista eta bere inguruan osatutako kategoriaren gaineko azterketa zehatz bat egitea baina ezin ditugu aipatu gabe utzi funtsezko ezaugarri batzuk. Konstituzionalismoaren formakuntzak muga batzuk konpartitzen dituzten taldeen multzoari erreferentzia dio. Kasu honetan ere, konstituzionalismoa izaera eta ezaugarri ezberdinak zituzten taldeek osatzen zuten: gizarte zibileko plataformetatik hasi (Foro de Ermua, Basta Ya, ...), eragile sozio-politiko eta instituzionaletatik pasa (estatu mailako alderdi politiko, sindikatu edota gobernu instantziak -Barne Ministerioa edota Espainiako Gobernua bera-, ...), komunikabide sare ezberdinetara (Estatu mailakoak, zein komunikazio talde handiek euskal lurraldeetan zituzten komunikabide autoktonoetara).

Azkeneko hauetatik hasita, Komunikazio Audiobisualean Katedraduna den Ramon Zallok (1999) irakurketa oso kritikoa egin zuen hauek garai honetan jokatutako paperaren inguruan. Bere ustez Ajuria Eneako Itunaren sorrera urteetatik aurrera “kazetaritza salbuespenezko garaian” murgildu zen. Horren arabera, kazetaritzak gertakarien eta jendartearen arteko bitartekaritza funtzioa alde batera utzi eta gertakarien beraien protagonista izatera jo zuen. Ildo honetan, markogintzaren atal metodologikoan aipatu ditugun teknikak ohikoak bilakatu ziren komunikabideen aldetik ere: karga etikoa zuen adjektibazioa, kutsu moraleko interpretazioak eta abar. Joera hau 1997ko uztailean Miguel Angel Blancoren hilketa eta gero nabarmen areagotu zen. Zallok berak “konfrontaziozko kazetaritza” bezala izendatu zuen garai honetako komunikabideen jardun informatiboa. Komunikabide nagusiek alde bateko posizioekin erabat lerratuta polarizazioaren eragile nagusi bihurtu ziren, neutraltasun informatiboa “ETAren hazitegia” bihurtuz, konponbide polizialen aldeko hautua eginez edota ezker abertzalearen (edota euskal abertzaletasunaren) aurkako jarrera agerikoa erakutsiz.

Baina honen erantzukizuna ez da bakarrik komunikabideengan kokatuko. “Manipulazio politikoaren paradigma” (Zallo, 1999), komunikabide eta “kontrol sozialerako agentzien” (Estatua, polizia, epaileak, ...) arteko elkarlan marko batean garatu zen. Baina baita gizarte zibilaren eremutik ateratako intelektual mediatiko belaunaldi batekin batera ere.

Konstituzionalismoaren kategoria osatu zuten eragile politiko-instituzional aldetik, Konstituzioa “adiskidetasun paktu” bezala identifikatzearen mitoa oinarrizko abiapuntu komuna osatu zuela esan daiteke. Abiapuntu honetatik Estatu mailako familia politiko bakoitzak interpretaziorako marko

propioa eraiki zuen; bertan, PSOEren “Espainia anitza”²⁴² eta PPren “Espainia konstituzionala” nabarmendu daitezkeelarik. Lehenengoak ikuspegi federalista batetik izan zuen garapen eskasaren ondorioz eta PSOEren barruan honen inguruan existitzen ziren ikuspegi ezberdinengatik, praktikan lehenengoa bigarrenaren posizio zentralistenekin bat egitera eraman zuen. 90. hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, batzuk eta besteak ‘patriotismo konstituzionalaren’ markogintzan bilduta, soberanismoarekiko polarizazioa ekidinezina bihurtu zen. Diskurtso honen eraikuntza instituzionalean Espainiako Gobernu eta PPren diskurtsogintza nabarmendu beharko genuke. Aznar presidentea HB eta ETArekin baimendutako hartu-emanen²⁴³ berri emateko ezker abertzalea “Euskal Nazio Askapenerako Mugimendu” bezala izendatu izana hainbat kritika piztu bazituen ere, ezker abertzalearekiko, eta oro har euskal abertzaletasunarekiko, distantzia politikoa areagotzeko markogintza sendoa baliatu zuen. Garai honetakoak ziren, 1998ko urria hauteskunde autonomikoetan PPk zabalduetako ‘maleten kanpaina’ edota gerora Barne Ministro izango zen Mayor Orejak ezaguna egindako ‘tregua-tranparen’ ideia. Biurteko osoan zehar konstituzionalismoaren erreferentzia politiko-instituzional nagusia PPren eskutik garatu bazen ere, erabateko adostasunean kokatu zen Estatu mailako oposizioko lehenengo alderdiarekin (PSOE) zein sindikatu nagusiekin (CCOO eta UGT). Konstituzionalismoaren multzoa osatzen zuten taldeen arteko sintonia diskurtsibo hau, ordea, 2000. urtearen bukaeran sinatutako “Askatasunen eta terrorismoaren aurkako akordiora” arte ez zen adierazpide bateratua kristalizatu.


Eta hirugarrenik, gizarte zibiletik eratorritako plataforma ezberdinak izango genituzke. Horien artean oihartzun berezia hartu zuen 1997ko uztaileko gertakarien arrastoa jarraituz sortutako Ermuko Foroa zeritzona. Urte horretako udaran ETA eta ezker abertzalearen aurkako erantzun sozialari jarraipena eman nahian, terrorismoaren aurkako markogintzaren erantzukizunaren atribuzioa abertzaletasun osora zabaldu zuen. Ajuria Eneako Itunaren diskurtsoaren gaurkotze horrek, marko anti-terroristaren aplikazioa eta zabalpenaren bitartez, aliantza eta aurkaritza egiturak aldarazi nahi izan zituen. Horren arabera, ETAk, HBk eta “bere inguruneke beste antolakunde batzuek”²⁴⁴ osatuko luketen “mugimendu faxistak” eskubide eta askatasunak

²⁴² Nazionalismo periferikoen aurrean Espainian ezkerak hartutako jarreraren ingurukoak aztertzeko Jaime Pastor-ren *Los nacionalismos, el Estado español y la izquierda* (2012) nabarmenduko genuke.

²⁴³ Hartu-eman hauen baimentzearen berri 1998ko azaroaren 3an eman zuen Presidenteak. Bere ordezkariak Javier Zarzalejos Estatu Idazkaria, Ricardo Martín Fluxá Seguritate Estatu Idazkariak eta Pedro Arriolak osatzen zuten. Itxura denez urte horretako abenduaren 11ean Gobernuaren eta ezker abertzaleko hainbat ordezkarien arteko bilera burutu zen (*El Mundo*, 1999-06-07). ETArekin izandako zuzeneko hartu-emanak ez ziren 1999ko maiatzaren 19ra arte iritsi, Zurichen lekututa; beste bilerarik ez zen gertatuko bi ordezkariak hauen artean. Izan ere, Gobernuak bitartekaritza lanak egindako Juan Maria Uriarte, Bilboko gotzainaren izena filtratu eta lehenengo bilera horretan egondako ETako ordezkari bat (Belen Gonzalez Peñalva) atxilotu baitzuten Frantzian.


²⁴⁴ Zita hau eta hurrengoak 1998ko otsailaren 13an Ermuko Foroak aurkeztutako “Euskadiko demokraziaren aldeko manifestu”-tik aterata daude.

deuseztatu nahi izango zituzketen. Baina bide horretan, “gure ordezkari politiko eta instituzional gehienak [...] nekez salbuetsi” zitezkeen beraien erantzukizunetik; Foroaren ustez, hainbat kasutan, ETAREN ekintzen “erantzukizuna erakunde honen eta Estatuaren artean banatzera” dedikatu zirelarik. Ezker abertzalea eta erakunde autonomikoetako ordezkarien erantzukizunaren atribuzio honetan Ermuko Foroak benetako kontra-mugimendu papera jokatu zuen. Ajouria Eneako Itunaren eginkizun nagusia botere politiko-instituzionalaren legitimazioan kokatu zen bitartean, konstituzionalismoaren markogintza soberanismoa deslegitimatzerantz zuzendu zelarik.



13.2 grafikoa: hauteskunde autonomikoen bilakaera soberanisten (EAJ, HB/EH, EA eta EB-Berdeak) eta konstituzionalisten (PSE-EE, PP -eta UA-) arteko emaitzei zegokienez 1990-2001 epealdian (Iturria: Eusko Jaurlaritzaren elaborazio propioa).


Baina konstituzionalismoa osatu zuten multzoen deskribapenetik harago liskarraldiaren garapenaren ikuspegitik interesgarriagoa gerta dakiguke soberanismoarekiko polarizazioan parte hartu zuten mekanismoen azalpena. Hauteskundeen inguruko lehenengo grafikoari erreparatuta, lehenik eta behin, 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera areagotzen den polarizazioak hauteskunde prozesuetan parte hartze politiko orokorra handitu zuela ikusi dezakegu. Honek, momentu horretan diskurtso politikoetan nabarmentzen ziren bi blokeen gorakada ekarri zuen, bai soberanisten gain, bai konstituzionalisten gain. Bigarren hauen hazkundea zertxobait nabarmenagoa izan zen 98ra bitarte, Mayor Orejak eta Redondo Terrerosek ordezkatzeko zuten diskurtso gogor eta zentralistaren eskutik; 2001eko hauteskundeetan, aldiz, burujabetzaren aldeko indarren gorakada konstituzionalistena baino handiagoa izan zen.



13.3 grafikoa: Hauteskunderen bilakaera 1990-2001 epealdian²⁴⁵ (Iturria: Eusko Jaurlaritza; elaborazio propioa).

Bloke bakoitzaren barne bilakaera aztertzeko, alderdi ezberdinek hauteskunde prozesu bakoitzean izandako bilakaera aztertuko dugu. Horrela, burujabetzaren aldeko indarren artean ezker abertzalea hazkunde nabarmenena ezagutzen zuena bazen, konstituzionalisten artean PP nagusitu zitzaion PSE-EEK historikoki talde honetan izandako nagusitasunari. Zentzu horretan, polarizazio prozesu honek orain arte azaldutako aliantza eta aurkaritza egituretan eragindako aldaketek gain, bi ondorio mahai gaineratu ditzakegu: batetik, hauteskunde prozesuetan ekarri zuen herritarren parte hartzearen goraldia eta ondoriozko eragin demokratizatzailea; eta bestetik, bloke bakoitzaren barne konfigurazioan azalarazten hasitako joera aldaketak horien ‘muturretan’ kokatzen ziren eragileak (Euskal Herritarrok eta Alderdi Popularra) indartu zituela.

²⁴⁵ 1999ko udal eta foru hauteskundeetan, urte bereko Europako legebiltzarrekoetan eta 2001eko autonomikoetan EAJ eta EA batera aurkeztu ziren, kasu hauetan bozkek EAJren lerroan kokatu ditugarik.



13.3 irudia: Konstituzionalismoarekiko polarizazioaren irudia.

MTTk (2005: 359) *polarizazioaren* prozesu sendoaren azalpenerako baliatutako irudia gurera ekarriz, EAJ, EA eta ETaren akordioa eta Lizarra-Garaziko hitzarmenak zabaldu zuen *aukera eta mehatxuen espirala* kokatu dezakegu prozesuaren goiko partean; beti ere, atzetik datozen prozesu eta mekanismoen kateaketa bezala ulertuta. Aukera eta mehatxu hauen esleipenean garrantzia berezia hartuko du hauen izaera kognitiboa; hau da, batzuek eta besteek bakoitzari egotzitako atribuzioa. Horrela ezker abertzalearentzat burujabetzaren aldeko sektoreen artean ematen ari ziren joera aldaketa aukera nagusi bezala azalarazten zen bitartean, EAJrentzat bere nagusitasuna mehatxatu zezakeen. Konstituzionalistei zegokionez, aldiz, aliantza egituren aldaketa honek instituzioen gobernagarritasunetik kanpo gelditzearen mehatxua ekartzen bazuen ere (PSE-EE), barruko indar korrelazioa aldatu eta ia 30 urteetan Lehendakaritzan egondako abertzaleak gainditzeko aukera zabaltzen zuen (PP).

Aukera eta mehatxuen kateaketa hau arrapaladan ematea *lehiaren* mekanismoari lotuta agertu ohi da. Lehenengo momentu batean desafio hau era liskartsuan ari ziren soberanismo eta konstituzionalismoaren kategorien artean era nabarmenagoan eman bazen ere, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, gerora kategorien barne lehiara ere zabaldu zen. Izan ere, lehiaren mekanismoa lehiatzaile eta lehiatuen artean ez ezik, lehiatzaileen artean ere ohikoa izaten baita. Horrela, 90. hamarkadaren lehenengo erdialdean ELA eta LABek jokaturako *artekaritza* soberanismoaren kategoriaren osaketarako erabakigarria izan bazen, hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera abertzaletasunaren baitako bi familia nagusien arteko gatazka nabarmen areagotu zen kategoria honen jabetzaren inguruan. Baina artekaritzaren mekanismoa ez zen soilik soberanismoaren kategoria osaketari begira aktibatuko. Konstituzionalismoan ere, sakabanatutako taldeen multzo bezala ulertuta, honen baitan plataforma sozialek (Foro de Ermua, ...)

komunikabideek edota hainbat intelektualek jokaturako artekari paper nabarmendu beharko genuke. Izan ere, aurretik beraien artean deslotuta alderdi, sindikatu edota norbanakoen arteko saretzea ezinezkoa izango baitzen hauek gabe.

13.2.3 Mekanismoen eragin demokratizatzailea: konfiantza.

ELA eta LABen arteko elkarlanak urratzen hasitako bideari jarraituz, Lizarra-Garaziko Akordioak demokratizazioan sakontzen jarraitzeko beste mekanismo esanguratsu bat aktibatu zuen: *konfiantza*. Gogoratu dezagun demokratizazioa instituzioen eta herritarren arteko harremanak zabaltzeko, berdindu, babestu eta izaera loteslea emateko prozesua bezala ulertzen dugula (Tilly, 2010a). Gure kasuan, ordura arte parte hartze instituzional oso mugatua izandako herritar multzoa (ezker abertzalea) eta instituzio autonomikoen arteko harremanaz ari gara.

Hertsadura bitartekoen erabilerak konfiantza era erabakigarrian baldintzatzen duen aldagai da; gure kasuan, eragin ezberdinak sortu zituen alde ezberdinen artean. Zentzu horretan, esan gabe doa, ETA, EAJ eta EAren arteko akordioaren ondorioz erdietsitako su-etenak sektore ezberdinen arteko konfiantza areagotu zuen bitartean, konstituzionalismoaren aldetik mesfidantzarako elementu bezala ikusia izan zela ‘tregua-tranparen’ teoriaren bidez. Aldiz, ekintzen armatuen etena indarrean zen bitartean kale eraso²⁴⁶ jarraipenak ezker abertzalearen eta EAJren arteko integrazio diskurtsiboa zaildu bazuen ere, gorago aipatu bezala ezker abertzaleko hainbat ordezkarien adierazpenak kale eraso batzuk kritikatur konfiantzaren eragile bezala ikusia izan zen jeltkideen aldetik. Estatuak bere aldetik, hainbatetan kontraesankorrak iruditu zezaketen hertsadura mekanismoen erabilera egin zuen; HB egoitzak eta kideak miatu eta jazarri edota ETAko kideak atxilotzen jarraitzen zuen bitartean, ezker abertzalearekin elkarrizketak baimendu edota preso hurbilketa selektiboak egiten zituen²⁴⁷. Jazarpen-distentsio eskema honen erabilera ohikoa izan da

²⁴⁶ Su-etenak iraun zuen bitartean 387 kale eraso eman ziren, 1999ko martxo nabarmendu zelarik 81 ekintzekin (hainbat gertaera errepresibo jazo ziren hilabete horretan: Jose Luis Geresta ETAko kidearen gorpua aurkitu zuten, Jose Jabier Arizkuren Kantauri ETAko zuzendaritzako kideak hartzen zena atxilotu zuten Frantzia, HBren Donostiako egoitzan Goardia Zibila sartu eta Gasteizkoan mikrofonoak aurkitu ziren, ...). Alderdi politikoen aurkako erasoei zegoenez aipatzekoa da, aurreko urteetan ez bezala, eraso gehienak (87tik 83) PSE-EE eta PP/UPNren aurkakoak izan ziren (*El País*, 2006-05-02).

²⁴⁷ 1998ko hauteskunde autonomikoak baino lehen lau preso ekarri zituzten Euskal Herriko espetxeetara; Gabon bezperan 21 preso Afrikako eta Kanariar uharteetako espetxeetatik penintsulara (hala ere, batzuek beste 1000 kilometro ingurura utziz) eta 1999ko irailean 105 preso espetxetik aldatu zituzten, haietatik 27 Euskal Herrikoetara (*Euskaldunon Egunkaria*, 1999-09-08). Aipatzekoa da, batetik, Gobernuak ETArekin izandako hartu-emanak ‘presoak bakearen truke’ eskemari jarraitzen ziola; eta bestetik, kuantitatiboki mugimendurik esanguratsuenak egin zituenerako (1999ko iraila) EAJ eta EAren arteko akordio harremanak gaiztotuta eta, jarraian ikusiko dugun

Estatuaren partetik ezker abertzalearekin izandako elkarrizketa eta negoziazio prozesu ezberdinetan; agerikoa den bezala, eragin nabarmenena aldean arteko konfiantza ahultzea izan zelarik. Aldiz, Lizarra-Garaziko prozesuan ezker abertzalearen ekimena ez zegoen Estatuei zuzenduta eta honen hertsaduraren aktibazioa eremu soberanistaren elkarlana eta elkartasuna areagotzeko baliagarria izan zen.

Baina konfiantzan eraginik izango duen mekanismorik bada hori *konpromisoarena* da. Konpromisoarekin protesta mugimenduek gobernuek bultzatzen dituzten politika publikoetan eragin maila bat lortzea helburu izango dute (Tilly, 2010a). Honen adibide bezala Udalbiltzaren sorrera edota 1998ko urriaren 25eko hauteskunde autonomikoak eta gero Ibarretxeren gobernuak (EAJ-EA) Euskal Herritarrok-ekin lortutako legegintzaldi akordioa. Azken honi zegokionez, lehenik EAJ PSE-EErekin akordioa lortzen saiatu zen Ardanza Planaren eta 1995ko legegintzaldi programan betegabeko aurreikuspenak oinarri bezala hartuta. Baina ordurako elite horien deslerrotzea emana zen. Ibarretxeren esanetan, akordiorako proposamenaren filosofia “akordio politikoetan oinarritutako gobernuak paktatzea zen, ez soilik kudeaketari begirakoak” (Ordozgoiti, 2010: 95) eta bide eta une horretan nekez aurkitu ahal izan zen PSE-EErekin.

EAJ eta Euskal Herritarrok-en artean lortutako akordio politikoarekin, bigarrengoek politika publikoetan eragin nabarmena lortu zuten, hauek bultzatutako nazio eraikuntzan estrategian identifikatutako lehentasunezko arloetan konpromiso zehatzak erdietsiz: finantzari zegokionez Euskadiko Aurrezki Kutxaren sorrera, euskara eta euskal kulturari lotuta administrazioaren eremu ezberdinetako euskalduntze planak, enplegua sustatzeari begirakoak (Hobetuz, etorkizuneko Euskal Enplegu zerbitzua, ...) edota lurralde artikulazioari zegokionak. Politika publikoetan eragiteko gaitasun honek, ordea, sistemarekiko leialtasun maila bat eskatu ohi du. Gure kasuan, bide politiko eta baketsuen aldeko erabileraren konpromisoa eta Gobernuak bultzatutako ekimen legegile eta instituzionalak babestea exijitu zuena. Demokratizazioak eskatzen duen herritarren parte hartzearen zabalpenaren ikuspegitik akordioak “beste eragile sozialen parte hartze publikorako bideak ezartzeko” jasotako konpromisoa adierazgarria zen, “jendarte zibilaren iritzia barneratzeko”²⁴⁸ helburuarekin. *Herritarren eragina instituzioekiko handitzearen* mekanismo honen bitartez,

bezala, ETAk bere ekimena ‘suspentsioan’ jarrita zuela jakinarazi zion EAJri (*ETAren ekimena*, LBFko artxibategia). Ez dugu jakiterik ordurako Estatuko Gobernuak, inteligentzia zerbitzuen bidez edo, informazio horren berri izango zuen.

²⁴⁸ EAJ, EA eta EHren arteko legegintzaldiari begirako akordiotik jasota: <http://www.elmundo.es/elmundo/1999/mayo/19/nacional/texto.html>)

erreferentzia zehatza egiten zitzaion, esaterako, euskal sindikatuek eta patronalak lortutako Enplegu Planaren garapenari edota Gogoa herri plataformak bultzatutako Eskubide Sozialen Kartari²⁴⁹.

Baina Tillyk berak ohartarazi bezala, hainbat kasutan gobernuek konpromisoa baino integrazioa bilatu nahi izango dute. Zentzu horretan, gehiegizko barneratzea demokratizazioaren kaltetan ere joan daiteke sarearen autonomia ahultzen den neurrian. Ez da gure kasua izango. Izan ere, legegintzaldirako akordioan bertan adostutako “elkarlan parlamentarioa”, “gobernu programa bere egitetik” ezberdindu nahi izan zuten, integrazio maila apalduz. Ildo beretik, ELAk eta LABek gobernu ekintzari begirako kontra-proposamen bateratua egin zuten, berak zuzendu edota indartu beharreko hainbat elementu jasoz. Gastu sozialaren hazkundea, sektore publikoko negoziazioa edota autogobernuan sakontzea (behar bezala) barneratu gabeko eskaera hauetako batzuk baino ez ziren, mugimendua eta sistemaren arteko lubakia itxi gabe uzten zutenak²⁵⁰.

Zentzu honetan, protesta mugimenduak (ezker abertzaleak) eta ordura arteko indar sistemikoak (EAJ-EA) oreka joko batean aritu behar izan ziren, non mugimenduaren eskaeren aurrean sistemak onargarritasunaren maila zabaltzeak mugimenduari integrazio maila bat eskatzen zion baina, aldi berean, bere asimilazioa ekidinez.

²⁴⁹ Ekimen honek Herri Ekimen Legegile forma hartu zuen gerora. Planteatzen ziren edukien ikuspegitik tramite parlamentarioan murrizketa nabarmenak jaso bazituen ere, egun indarrean dagoen Diru Sarreraren Bermerako Errenta (RGIA gaztelerazko laburduran) herri ekimen horretatik jaio zen, esaterako.

²⁵⁰ “Propuesta de ELA y LAB a la Acción del Gobierno Vasco en la Legislatura de 1999-2002”, 1999ko otsaila. Txomin Lorcaren artxibo pertsonaletik jasota.

14. KAPITULUA: ABERTZALETASUNAREN DISKURTSOAK ETA EKINTZA KOLEKTIBOA 2000. URTEAN

14.1 Abertzaletasunaren diskurtsoak

14.1.1 EAJren diskurtsoa.


2000ko urtarrilaren 15 eta 16an EAJk bere III. Batzar Nagusia burutu zuen. Ordurako ETAk su-
etena apurtu zuen baina oraindik ekimen armaturik burutu gabe. Hamalau hilabeteetako epealdi
horretan alderdi jeltzaleak ez zion erakunde armatuari autogobernua sakontzen jarraitzeko
proposamen zehatzik mahai gainean jarri; ez behintzat ezker abertzalaren espektatibak bete
zituena.

Mende aldaketarekin batera EAJk egindako kongresuan burujabetzaren helburu orokorra erdiesteko
hainbat zehaztapen egin zituen. Jorratu beharreko prozedurari zegokionez, EAJ prest agertzen zen
horren aitzindaritzaren bere gain hartzeko, errepublikanismo eta liberalismo klasikoaren oinarriko bi
printzipioen gainean: “abertzaleen elkarlana” (komunitatea) eta “aniztasun politikoa” (norbanakoen
askatasuna). Aurreko hilabete eta urteetan abertzaleen artean garatutako elkarlanak jendartearen
hainbat eremuetan izandako harrera onari jarraipena eman nahian, proiektu abertzalearen oinarriak,
edukiak, moduak eta erritmoak adosteko aukera zabaldu beharko liriteke, beti ere, aniztasun
politikoak “herritarren aukeratzeko gaitasuna ez mugatzea”²⁵¹ bermatu beharko lukeelarik. Eusko
eta Nafarroako Legebiltzarrei funtsezko papera aurreikusten zitzairen aniztasun honen bermean,
marko politikoaren aldaketa prozesuaren muina bertan garatu beharko litzatekeelarik. Han ebatzi
beharreko gaiak Euskadi-Euskal Herriaren kanpo eta barne harreman sistema liriteke; hau da,
erreferentziatzeko komunitatetik kanpoko ‘beste horiekiko’ harremanaren nolakotasuna eta

²⁵¹ EAJ-PNV. (2000). Ahora más que nunca: ponencia política y resoluciones aprobadas en la III Asamblea General celebrada los días 15 y 16 de enero de 2000. 52. orrialdea. Koldo Mitxelena liburutegitik aterata.

komunitate barrukoa: “autogobernu politikoaren eduki materiala, bere botere oinarria eta berau [...] babestu ahal izateko berme sistema”, hain zuzen ere.

Arestian aipatutako bi printzipio hauek ordezkari politikoaren foro, parte hartze sozialerako bitarteko eta erakundearen artean osatutako ‘gurpil’ moduko hartu-emanen hartuko lukete forma:



14.1 irudia: EAJren mende hasierako diskurtsoaren irudia.

Batetik, alderdi politikoaren foroak “elkarrizketa politiko orokorra erraztea” izango luke helburu. Bestetik, eragile, elkarte eta abarrekoren parte hartzea bermatu beharko litzateke une oro, hauen “egitasmo politikoak aurkezteko” aukera emanez; hauen baitan komunikabideei dei berezia egiten zitzaienten gertakari politikoei “buruzko informazio egiazkoa ahalik eta era berdinean bermatu”²⁵² ziezaieten herritarrei. Eta azkenik, instituzioei “proiektu politikoaren onarpen eraginkorrerako eta garapenerako oinarritzko erreferentzia eratzaila” aitortzen zitzaienten; baita Udalbiltza bezalako “sorrera berriko erakundeek” joka zezaketen papera aintzat hartu ere.

Prozedura orokor honen baitan, EAJk bere proiektu politikoaren helburuak zirenak ere berretsi eta markoztatzen zituen, zazpi herrialdez osatutako subjektu politikoa eta bere “izatearen” aitortza” helburu orokor bezala jarri. Bere kristalizazio instituzionalak forma hartuko luke a) Udalbiltza bezalako hautetsien egiturari, b) indarrean zeuden autogobernuen eskuduntzetan (EAEn zein Nafarroan), c) Europar Batasuneko eta nazioarteko foroetan parte hartzean²⁵³.

²⁵² Ibidem.

²⁵³ Ibid., 53. orrialdea.

Alde horretatik, 2000. urteko batzar nagusiak EAJren diskurtsoan marko politikoaren aldaketari ateak zabaltzeko balio izan bazuen ere, hori gauzatzeko prozedura eta, batez ere, planteatutako aldaketa instituzionalaren termino zehatzak argitzeko ekarpen txikia suposatu zuela esan dezakegu.

Ardanzaren garaietan ez bezala, non Lehendakariaren figura instituzionalak bakegintzaren arloan lehentasunezko erreferentzia bihurtu zen, mende berriarekin batera Lehendakariak pisu nabarmena hartu zuen autogobernu ereduaren garapenean. Kasu honetan, Ibarretxek alderdiaren Batzar Nagusian era lausoan zirriborratutako planteamendua garatu eta gizarteratzeko funtzioa bete zuela esan dezakegu²⁵⁴.

Tradizionalki autonomismoan kokatutako sektore ezberdinek garatutako diskurtsoarekin gertatu bezala, 90. hamarkadaren azken urteetan Ibarretxek garatutako markogintzaren *diagnosi* eta *prognosiak* bilakaera bat izan zuten. Bere ustez, Gernikako Estatutuaren garapenak aurretik ezagutu gabeko ongizate maila ekarri zizkion euskal jendarteari. Aldiz, bere garapena mugatua izan zen gobernu ezberdinen borondate falta eta hainbat gaien judizializazioa tarteko, honek euskal jendartearen eremu zabaletan “frustrazioa” eragin zuelarik²⁵⁵. Honek erabakitze eskubidea eta burujabetasuna ipar izango lukeen “kontsentsu politiko berri” bat eskatzen zuen. Helburuen markoztatze horretan ados zeuden abertzaleatasunaren bi familia nagusiak. Eztabaida nagusia bera gauzatzeko planteatutako *konponbide egingarrien proposamenean* eta honek sortu zezakeen *mobilizatorako kontsentsuan* (Snow & Benford, 1988) zetzan.

Ibarretxeren garai horretako planteamenduak gorago aipatu ditugun errepublikanismo eta liberalismoaren oinarritzko premisa bikoitzetik abiatzen zen. Batetik, euskal jendartearen “aniztasuna” aldarrikatzen zen ikuspegi ezberdinetatik: nazio identitateei zegokionez, ikuspegi sozialetik eta abar. Alde horretatik, ordura arte “kanpoan egon zirenak barneratu eta kontsentsuaren barruan egon zirenak kanpoan ez uzteko” aukera eskaini behar zuen adostasun berriak. Baina bestetik, euskal jendartearen izaera “berezitua” ere aldarrikatzen zuen. Izan ere, bere ustez, jendartearen aniztasun politiko horren gaineratik euskal jendartean “partaidetza komunaren


²⁵⁴ Hemen jaso ditugunak Ibarretxek 2000. urtean egindako ‘lehenengo’ proposamenak dira, gerora hamarkada osoan zehar garapena izan zutenak. Gure aldetik hemen aztertutako eduki hauek ezker abertzaleak autogobernuaren garapenerako planteatutako proposamenekin oinarritzko alderaketa bate egiteko baliatu nahi izan ditugu, Lehendakariak hurrengo urteetan garatu zituen proposamen politikoaren azterketa beste lan batzuen esku uzten dugularik.

²⁵⁵ 2000. urtean Ibarretxeren markogintza aztertzeke Lehendakariak urte horretako martxoaren 23an Madrilen Club Siglo XXI foroan eta maiatzaren 11ean Bartzelonan egindako hitzaldi entzutetsuak baliatuko ditugu. Jarraian jasotako oharrek bertatik ateratakoak dira. (<http://www.argia.eus/bakegintza/htdocs/siglo.htm>; <http://www.argia.eus/bakegintza/htdocs/bartzelona.htm>)

sentimendu” bat nagusituko litzateke, “gure buruak euskal hiritar bezala aitortuko lukeena”. Horren adierazgarri alderdi abertzaleen gehiengoan islatuko litzatekeen sentimendu nazionalista, gehiengo sindikal propio baten existentzia, berezko hizkuntza eta abar. Ibarretxeren ustez honek euskal Herriak bere buruaz duen pertzepzioa “nortasun singularra eta berezitia” duen jendartearena litzateke, honek Estatu espainiarraren barruan bere “aitortza diferentziala” izatera eramane beharko lukeelarik.

Premisa hauen gainean 2000. urtean Ibarretxek sei urrats nagusien araberrako bide orria planteatzen zuen:

- a) Lehenik, *biolentziarik gabeko eszenario bat* lortzea: honi lotuta aurreko urteotako prozesuaren gaineko balantzea eta autokritika egitearen beharra azpimarratu zuen, aurrera begirako ondorioak ateratzeari begira. Eskubide indibidual zein kolektiboen aldeko borroka bide politiko eta baketsuetatik helduz.
- b) Euskal alderdi politikoen arteko *Elkarrizketa Foroaren* eraketa: foro honen sorrerarako hiru baldintza planteatu zituen: batetik, ordezkari guztiek bide politiko eta demokratiko hutsen aldeko apustua; bigarrenik, euskal herritarren borondatea errespetatzeko konpromisoa; eta azkenik, inongo ideia politikoen gaineko alde aurreko betorik ez onartzea.
- c) *Lehenengo ‘elkargune’* bat bilatzea: bere ustez elkargune hau “euskal hiritarrek beraien etorkizuna libre eta demokratikoki erabakitzeko duten eskubidearen aitortza litzateke”.
- d) Adostutako elkargune hori *herri galdeketa* bidez berrestea: bera biolentziarik gabeko egoera batean burutu beharko litzatekeelarik.
- e) Euskal jendartearen erabakia *ordenamendu juridikoan inkorporatzea*: horretarako Estatuarekin Hitzarmena erdietsi beharko litzateke, Ibarretxek bi egoera posible aurreikusten zituelarik: batetik, Konstituzioaren interpretazio zurruna eginez horretarako aukerarik ez izatea; edota interpretazio malgu baten bitartez (Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarria tarteko) euskal lurraldeek “gorputz politiko ezberdindua” osatzen dutenaren aitortza.
- f) Azkenik, eta aurrekoa posible balitz, *bigarren ‘elkargune’* bat adostu beharko litzateke: euskal jendarteak Estatu espainiarrarekin izan nahi duen harreman juridiko-politikoaren markoaren ingurukoa. Ibarretxeren ustez, egoera ikusita, harreman hori ez litzateke ez Konstituzioan, ezta independentzian ere kokatuko, “erabakitzeko izatearen” aitortzan baizik.



14.2 irudia: Ibarretxeren 2000. urteko proposamenaren diagrama.

Rawls-en (1971) pentsamendu liberalaren ‘justiziazko printzipioekin’ bezala, Ibarretxeren planteamenduaren ‘elkarguneek’ euskal jendartearen oinarriko bateratasuna bermatuko lituzkete, hortik aurrera, euskal jendartearen ‘aniztasun’ hori edota liberalek aipatuko lituzketen eskubide indibidualak bermatu beharko liriatekeelarik. Baina gure kasuan ere, aldez alde aurretik parte guztiek onartuko lituzketen ‘justiziazko printzipio’ rawlsiar edota Ibarretxeren ‘elkarlguneak’ adosteko ‘ez-jakintasunaren errezela’ eraginkorrik ez dugu aurkituko; ez euskal hiritarren erabakitze eskubidearen aitortzaren inguruan, ezta euskal jendarteak Espainiarekin izan beharreko harremanari zegokionez ere. Izan ere, teoria agonistek aldarrikatu bezala (Mouffe, 1999), premisa horiek adostea prozesu gatazkatsua izango da, horren arrakasta indar harremanaren araberakoa izango delarik.

Bukatzeko, aipatu dugun bezala, motibaziorako markogintza eraginkorrak norberaren proposamenak legitimatzearekin batera, besteen proposamenen babes eta bideragarritasun falta ere nabarmendu behar du. Zentzu horretan, Ibarretxeren proposamenak ‘muturretan’ kokatzen zirenen posizioa higitzeko diskurtso oso bat garatzen zuen; ETAren “biolentziaren eta inposizioaren estrategia”, garaipen polizialarena edota aldaketarik onartzen ez duen marko juridikoarena aterabiderik eta babes sozialik gabeko proposamen bezala aurkeztuz. Su-etenaren amaierarekin burujabetzaren aldeko indarren artean eman zen deslerrotzearen ondorioz eta Estatua-ETAren arteko (bir)polarizazioan, Ibarretxek zentralitate politikoa emango zion tresna eraginkorra aurkitu zuen diskurtso honetan.

14.1.2 Ezker abertzalearen diskurtsoa.

1999ko abuztuaren 29an ETAk agiria kaleratu zuen prozesua “impasse” egoeran eta “une kritiko batean” zegoela esanez. Egoera horren jatorria prozesuaren “indefinizioari” egozten zion, horren erantzuletzat “Euskal Herria askatzea ‘ameskeriatzat’ duten ustezko abertzale ‘nostalgikoak’” hartuz. Izan ere, ETarentzat 1998ko udaran EAJ eta EAren adostutako akordioaren helburua “ordura arte indarrean zegoen Euskal Herriaren aurkako marko juridiko-politiko horren alde aritu izan direnen jarrera aldaketa zenbaterainokoa zen ikustea baitzen”. 1999ko udarako, aldiz, EAJko hainbat ordezkariaren ahotan autonomismoaren alde egindako adierazpenek²⁵⁶ haserrea sortu zuten erakunde armatuan.

Prozesuaren ordura arteko bilakaera baloratzeko ETAk bi fase ezberdintzen zituen²⁵⁷: batetik, 1998ko udaran EAJ eta EAren adostutako akordioaren sinaduratik, 1999ko otsailaren 6an Euskal Herriko Udal Ordezkariren Biltzarraren (EHUOB) sorrera bitarte zihoana; eta hortik aurrerakoa bestea, ekaineko udal hauteskundeek sortutako “norgehiagoka alderdikoia” ezaugarritutakoa.

Edozein kasutan, EAJ eta EAren arteko harremanak hasieratik ez ziren errazak izan. Jada aipatu dugu 98ko udaran sinatutako akordioaren ondotik gutun trukaketa bati hasiera eman zitzaiola. Horietako lehenengoan EAJk eta EAk aipatutako ekarpenak gehitu nahi izan zizkioten EAren sinatutako idatziari; erakunde armatuak ez zuen begi onez ikusi EAJri urte bereko irailean zuzendutako gutunean jakinarazi bezala²⁵⁸. Gutun horretan bertan ETA kritiko azaltzen zen EAJk hiru gairen inguruan mantendutako jarreragatik: batetik, fasearen ezaugarritzea burujabetzari baino bakearekin lotu nahi izateagatik; bigarrenik, eta horri lotuta, prozesuaren bilakaera Estatuaren jarreraren arabera kokatzeagatik, eta ez eragile abertzaleek hartutako konpromisoagatik; eta hirugarrenik, izen zehatzik aipatzen ez bazen ere, hainbat arduradun instituzionalek aurreko bi aferetan izandako erantzukizunagatik.

Hala ere hartutako konpromisoek aurrera egin zuten eta hurrengo urte hasieran EHUOBren deialdiak instituzio nazional berriaren sorrerarako aldarteak baretu zituen. Ekaineko udal hauteskundeak gertu zeuden eta hilabete batzuk lehenago burututako hauteskunde autonomikoetan ezker abertzaleak izandako igoerak norgehiagoka bizia piztu zuen bi sektoreen artean. Gainera, beste alde batetik, EAJren hainbat ordezkari ere publikoki zalantzak agertzen hasiak ziren Lizarra-

²⁵⁶ Arzalluzek berak, adibidez, 1999ko ekainaren 26an zera zioen: “quienes dicen que el Estatuto y el Amejoramiento no existen están en la inopia [...]. No vamos a dejar de todo lo que hemos construido durante estos años porque ellos ahora tengan una idea y a partir de ahí quieran construir una utopía” (*Gara*, 1999-06-27).

²⁵⁷ 1999ko abuztuaren 28an *Gara* egunkarian publikatutako EAren agiria.

²⁵⁸ *Argia* aldizkariaren ‘Bakegintza’ sailetik: <http://www.argia.eus/bakegintza/htdocs/eta14.htm>

Garaziko Itunaren sinaduratik aurrera Alderdiak erakutsitako norabidearekin, lehiaren mekanismoa eragileen artean ez ezik, eragileen barruan ere aktibatuz.

Ordura arteko harreman epistolarren mugak ikusita, 1999ko uztailean ETAk, EAJk eta EAK zuzeneko bigarren hartu-eman saio bat burutu zuten²⁵⁹, bakoitzaren diagnostikoa konpartitu eta aurrera begira balizko urratsak finkatzeko alderdi jeltzaleak egindako irakurketaren arabera jendeak ez zuen Lizarra-Garaziko Hitzarmena ulertu, Espainiako indar eta komunikabideen jarrerak ez zutelarik lagundu. Gainera nazio eraikuntza abertzaleen kontua bezala ikusia zen, hori bera herritar guztiei zabaldu behar zitzaielarik. EAJren arabera horrek ikuspegia zabaldu eta erritmoa aldatzea eskatzen zuen. EAK bere aldetik Espainiaren erasoaren dimentsioa eta EHUOBk egindako deialdiaren garrantzia azpimarratu zuen, egoera horretan “inteligentzia politikoz” jokatzearen beharra nabarmenduz. ETA, berriz, egoerak bizi zuen “indefinizioaren” eragin kaltegarriaz kezka zen. Horren jatorrian aurreko urtean hartutako konpromisoen ez betetzea kokatu zuen, batez ere Estatu mailako alderdiekin hausteari zegokiona²⁶⁰. ETAk berriro ere “Euskal Herriaren eraikuntza prozesu batean” zeudela azpimarratu nahi izan zuen; eta ez “bake prozesu” batean.

Prozesuaren objektu edo helburuaren gaineko eztabaida bere bilakaera osoa baldintzatu zuen aldagaia izan zen. Hain zuzen, alde batek besteari *objektu aldaketaren* mekanismoa aktibatu izana leporatzea pronostiko komun gabeziaren erakusle nabarmenenetakoa izan zitekeen. Gogoan izan dezagun, jeltzaleen kanpora begirako diskurtsoak bakearen helburua markoztatu bazuen epe horretako erreferentziazko erronka nagusia bezala, ezker abertzaleak, batez ere ETAREN eskutik, burujabetzaren erronkan finkatu zuela, hori gabeko “bake faltsua” salatuz. Mekanismo honen aktibazioa (edo horrela ematen ari zenaren ulermenak) maila ezberdinetako inplikazioak izango zituen, bai gatazkan parte hartzen zuten identifikazioen eraikuntzari begira, zein liskarraldiaren garapenari begira. Lehenengo artean, etengabeko zertifikazio-deszertifikazioen kateaketa ekarri zuelako, prozesuari egotzitako objektu edo helburuaren arabera ondokoaren aitortza edo aitortza falta ematen zelako, horren araberrako aliantza/aurkaritza egiturak etengabe berreraikitzen behartuz. Eta liskarraldiaren garapenari begira, aurrerago aztertuko ditugun *negoziazio hautsien* edota *konfiantza galeraren* mekanismoak aktibatu zituelako. Gauzak horrela ETAk aurreko udaran sinatutako hitzarmenean jasotako su-etena “airean” uzten zuela adierazi zien.

²⁵⁹ Elkarrizketa saio horri buruzko oharra ETAREN *ekimena* argitalpenetik jasoak dira.

²⁶⁰ Ezker abertzalearen gogoan oso presente zegoen EAJk PPreko Gobernuaren 1999ko aurrekontuei emandako babesa A-8 autobidearen kudeaketaren transferentziaren truke.

Gerora publiko egin zuen bezala²⁶¹, ETAREN ustez 1999ko lehenengo hilabeteetan EAJk “denbora irabazi nahi” izan zuen, “hitzarmena zehazteko proposamen-kontraproposamen prozesu bat abiarazi” nahian. “PNVren joko HB motzean lotzen saiatzea zen”. Horretarako, “HB marko instituzional berriaren luzerako eztabaidan murgilduz eta aurrean zegoen ziklo elektoralaren ondorengo ‘pastel’ banaketarako formula ezberdinak proposatuz”. Ikusi dugun bezala, demokratizazioa helburu duen edozein protesta mugimenduren helburua politika publikoetan eragitea bada ere, tentuz ibili beharko da sistemarekiko barne-kanpo logikan beregandik ‘irentsia’ izan nahi ez bada. Hau bereziki garrantzitsua suertatu zen politika publiko hauetan *eragitearen* ikuspegitik baino, *botere* politikoa bera borrokatzea helburu bezala duen mugimendu batentzat²⁶². Ildo honetan, *boterea* edo *eraginaren* paradigmak praktikan %100ean inoiz aurkitu ezin izango ditugun ereduak baino ez dizkigute eskainiko, familia politiko ezberdinen baitan hauek era tentsiodunean elkar-bizi ohi direlarik.

Gauzak horrela 1999ko uztaileko bilera horretan, su-etena ‘airean’ uztearen hordagoa botatzearekin batera, ETAK proposamen berri bat egin zien EAJ eta EAri. Proposamena tradizio errepublikano klasikoekin sintonian ulertu ditzakegun funtsezko bi printzipioen gainean oinarritzen zen: batetik, lurraldetasunaren ideia, eta bestetik, bere izaera burujabea. (Euskal) Komunitatea egituratu beharko lituzketen balore horiengan egondako bilakaera kritikatu zuen. Lehenengoari zegokionez, azken hamarkadetan abertzaletasunaren baitan egondako ‘desbideraketak’ salatu zituen; baita ezker abertzaleari zegokionean ere. Izan ere, diskurtso eta praktika autonomistan mendebaldeko hiru herrialdeek hartutako zentraltasuna edota ezker abertzalearenean ‘Ipar Euskal Herria’ eta ‘Hego Euskal Herriaren’ arteko zatiketaren ikuspegiak ‘euskal komunitatea’ edo abertzaletasuna “krisi egoeran”²⁶³ kokatu baitzuten. Horren aurrean, ETAK komunitate hori berregituratzeko balioko lukeen Euskal Herri osoko ikuspegia eta Euskal Herri osorako estrategia baten beharra nabarmentzen zuen. Ze punturaino, non “Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarentzat autodeterminazio eskubidea edo berauen suzedaneo bat eskuratzea” eta Nafarroa, Lapurdi edota Zuberoarentzat horretarako “atea irekitzea” ekidin beharreko arriskutzat hartzen baitzen. ETAREN hitzetan ezker abertzalearen proposamena “lurraldetasuna abiapuntu hartuta, Euskal Herri osoarentzat autodeterminazio eskubide hori praktikan jartzea” litzateke, “bere instituzio propio eta tresnen bidez”.


²⁶¹ ETA. (2000). ETAREN ekimena. Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxibategitik aterata.

²⁶² Bi paradigma hauen nondik norakoak zehatz aztertzeke ikusi jada aipatu dugun Zubiagaren (2011) doktore tesia.

²⁶³ ETA. (2000). ETAREN ekimena. 5. orrialdea.

Bigarren printzipioari zegokionez, ETAk jada adierazita zuen ekimenaren helburua ez zegoela Estatuari begira zuzendua; bertako indarrei, eta zehazkiago, EAJri begira baizik. Zentzu horretan, euskal indarrek garatutako prozesu burujabearen bidez lortuko litzateke autodeterminazioa egikaritzea. Praktika horretan ezker abertzaleak bere biziko garrantzia eman zion instituzionalizazio prozesu nazionalari; balore sistema edota praktika politiko-sozial horren kristalizazioa bezala ulertuta. ETaren proposamenean bi printzipio hauek uztartzeko Euskal Herriko legebiltzar berri bati bide emango ziokeen Euskal Herri osoko hauteskunde konstituziogileen formula²⁶⁴ planteatu zuen; hauteskunde hauek indarrean ziren instituzio gehienek deitu beharko zituztelarik. Aurreko atalean aurreratu bezala, ETA prest agertzen zen bere jardun armatuari behin betiko amaiera emateko hauteskunde hauen ondorioz legebiltzar nazional berri bat sortuko balitz:

“Sortuko den legebiltzar horren sendotasuna eta egonkortasunaren arabera [ETAk] orain arteko Euskal Herriaren armen bidezko defentsari amaiera emango lioke [...]. Hitzarmen berria sinatuz geroztik orain arteko ekintzen etenaldiaren epekako egoera iraunkor bilakatuko litzateke, batez ere hauteskunde horien jomuga azkar baten beha”²⁶⁵.



14.3 irudia: ETaren proposamenaren diagrama.

1999ko uztailean burututako bilera horretan bertan EAJk proposamena “ameskeriatzat” eta “utopikotzat” hartu zuen, bilkura horietan HBren presentzia eskatuz. Erakunde armatuaren arabera ez zen lehenengo aldia EAJk ETA “ikuslearen paperean kokatuz” su-etena luzatzea beste helbururik ez lukeela. Irakurketa hau eginda, gerora ikusi zen bezala, *alde erradikalaren* mekanismoaren aktibazioa jokoan zegoela ondorioztatu genezake. Honen arabera, sektore ezberdinen kontraesanen areagotzearen ondorioz edota muturreko sektoreen erradikalizazioaren ondorioz tarteko sektoreak

²⁶⁴ Proposamen hau Euskal Herriaren egituratze juridiko-politiko berri bati bide emango zion instituzionalizazio proposamen oso berri batekin lagunduta zihoan (Herrien Biltzarra, Herrialdeen Biltzarra, Biltzar Orokorra, ...); zeinaren azken helburua konstituzio propioa osatzea litzatekeen (ETaren ekimena).

²⁶⁵ Ibidem.

(EAJ-HB) elkar bilatzera joko lukete. Gure kasuan, noski, mekanismo horren aktibazioak jardun armatuaren berraktibazioaren gupil zoroaren mehatxua suposatu zezakeen jelkideentzat; baldin eta tarteko sektore horien arteko konbergentzia muturrekoak ere ez baziren erakartzen. Alde horretatik, jeltzaleen eskaerak *konbergentzia* hori lortu ezean, ezker abertzalearen baitan *deslerrotzeak* edota *desertzioak* lortzeko asmoa izan zezaketela pentsa daiteke. Edozein kasutan, EAJren ordezkariak behin betiko erantzuna irailerako ematekotan gelditu zen. Ordurako entzundakoak, aldiz, argi uzten zuen jelkideen zuzendaritzaren jarrera zein izango zen²⁶⁶. EBBk erantzuna bidali egin zuen, aurreko atal batean azaldu dugun terminoetan planteatuz: ETAk planteatzen zuen *prozesu konstituziogilearen* aurrean, “sei herrialdeetako hiritarrek gauzatuko duten *prozesu politiko eta soziala*” proposatuz, alegia. Azken honen helburua, barne zein kanpo antolaketa erabakitzearekin batera, “gure Herriak datozen hamarkadei begira behar duen status juridikoa eta botere maila” finkatzea litzateke; indarrean ziren marko juridiko politikoak horren arabera moldatu beharko liratekeelarik. Definizio falta handiegia konfiantza falta agerikoa zen hartu-eman batzuetan.

1999ko azaroan aurreko urtean ETA, EAJ eta EAren arteko hartu-emanak prentsan filtratu ziren; baita hiruek sinatutako akordioa eta horren inguruko ondorengo desadostasunak ere. ETAk, lehenik harreman horiek APS agentziari egindako elkarrizketan baieztatu zituen; ondoren, hilaren 28an, *Gara* egunkarian argitaratutako komunikatuan uda horretako elkarrizketak eta su-etena apurtzeko erabakia publiko eginez. Agirian “PNV eta EAk Moncloako marko estatutarioari atxikiz ohiko kudeakuntzari ematen zioten garrantzia eta ez marko juridiko-politiko berri baterantz abiatzeko ekimenei” egosten zizkion erabakiaren arrazoiak, hogeitau urte beranduago ‘haustura ala erreformaren’ dikotomiarekin antzekotasun handiak zituen diskurtsoa biziberrituz. Horrela, EAren ustez, Tarrow-en ereduan bezala, behin su-etena martxan “desordenaren mehatxua” apaldu egin zela antzeman zenean (edota bere berraktibazioak sortu zituzkeen kalteak ekintzaileen bizkarretan geldituko zirela aurreikustean) koalizio horiek ahultzera jo zuten.

Su-etenaren hausturaren ondorengo asteetan euskal eragileen ekimenak ugaltu egin ziren aurreko hilabeteetako “impasse” egoerari buelta eman nahian: ELA eta LABen arteko agiri bateratua kaleratu zen “prozesua sendotzeko” deia eginez; Lizarra-Garaziko Foroaren talde iraunkorraren komunikatua kaleratu zen, prozesuaren mesedetan alde ezberdinei beraien erabakiak berraztertzeko deia eginez; HBk bere “konpromiso politiko, sozial eta instituzional guztiak bere horretan

²⁶⁶ Ollorari egindako elkarrizketan bilera horretatik bere alderdiko mintzakideak zur eta lur atera zirela aipatu zigen. Anekdotak bezala, garai horretan berarekin batera Gasteizko Legebiltzarrean Euskal Herritarrok-etik biltzarkidea zen Jon Salaberriari (gerora ETako zuzendaritzako kide izatea atxilotu zutena) barre artean egindako iruzkina aipatu zigen: “Pero Jon, esto Iruña ¿cómo lo hacemos? ¿nos ponemos con una urna de papel tú y yo?”.

mantentzen” zituela adierazi zuen; ... Alderdietako ordezkarien artean ere ETAk salatzen zuen “indefinizio” hori gainditzeko saiakerak egon ziren. Hartu-eman hauek su-etenaren apurketa baino lehenagotik abiatuak leudeke²⁶⁷. Alderdi abertzaleen artean lantzen ari omen ziren dokumentuen arabera, Espainiako gorteetarako hauteskunderen ondoren Eusko Legebiltzarrak Estatutuaren aldaketa planteatuko lioke Madrili; honek ezezkoa eman edo erantzungo ez balu, proposamenari buruzko plebiszitua egingo litzatekeelarik Euskal Herri osoan²⁶⁸. *Egunkaria*-k ere 2000ko urtarrilaren 21eko alean, EAJ, EH, EA eta ABren arteko hartu-emanen berri eman zuen, horien inguruko ikuspegi zuhurragoa erakusten bazuen ere. *Egunkariak* jasotakoaren arabera, hartu-emanen helburua “egungo egitura juridiko-politikoa gainditzeko bidea hitzartzeko lana” hastea zen, ordurako bi bilera baino burutu ez baziren ere. EAJk, EHk, eta EAK proposamen bana mahai gaineratu zituzten. Izan ere, data horietarako hiru alderdiek beraien biltzar nagusiak burutu berri zituzten²⁶⁹. Euskal Herriaren aitortza lortzeko helburu horretan ados egonda ere ezberdintasun nagusiak planteatutako prozedura edota (gure orain arteko kategoriei helduta) *konponbiderako proposamenen egingarritasunaren* gaineko ikuspegietan zeuden: EAJk proposatutako bi legebiltzarren gidaritzapeko erreforma prozesutik hasi, EAK planteatutako subiranotasun aldarrikapenetik pasa eta ezker abertzaleak luzatutako hauteskunde konstituziogileen proposamenera.

Beste behin ere lehiaren mekanismoa martxan jartzear zen euskal protestaldian, liskarraldiaren goraldia ematear zen momentuan. Kasu honetan, erreibindikatzailen arteko norgehiagokak dimentsio berezia hartu zuelarik.

14.2. Ekintza kolektiborako mekanismoak eta desdemokratizazioa

14.2.1 Lehia mekanismoaren (ber)aktibazioa.

²⁶⁷ *El Mundo* egunkariak 1999ko azaroaren 19rako argitaratutakoaren arabera, EAJ, EA eta EHk urte amaierarako Estatutua ordezkaturako zuen proposamena aurkezteko asmoa lukete.

²⁶⁸ Kortabarria, 2015: 406.

²⁶⁹ EAJk 2000ko urtarrileko 15 eta 16an burutu zuen bere Biltzar Nagusia. Euskal Herritarrok-ek, aste batzuk lehenago, abenduaren 11ean, aurkeztu zuen bere Batzar Orokorraren aurrean *Euskal Demokrazia osatzeko oinarriak eta garatzebideak* proposamena. Eta EAK azaroaren 21ean bere V. Kongresua.

90. hamarkada hasieratik bukaerara bitarte doan epealdian liskarraldietan ohikoak izaten diren hiru prozesu sendoek nola parte hartu zuten ikusi dugu orain arte. Asko laburbilduz, hamarkadaren erdialdean protestaldiaren eskala aldaketak forma bikoitza hartu zuela azaldu dugu; batetik, artekaritzaren mekanismoaren bitartez liskarraldi politikoaren mugak zabalduz eta protestara sektore berriak inkorporatuz; eta bestetik, protestarako bitartekoen erradikalizazioa eta difusioaren bitartez. Eskala aldaketa honek lehenengo momentu batean ‘demokrata eta biolentoen’ arteko polarizazio ezagunean sakontzeko eman bazuen ere, mekanismo honi lotuta agertzen den aukera eta mehatxuen espirala tarteko, bigarren eta hirugarren prozesu sendoei bide eman zitzairen: kategoria zahar-berrituen osaketa (soberanista eta konstituzionalistak) eta beraien arteko polarizazio berriak. Ikusten ari garen bezala, errealitate politikoaren gaineko marko interpretatzaile ezberdinak, aldiz, kategoria hauen barne kohesio ahula agerian uzten joan ziren. Gainera 2000eko urtarrilaren 21ean ETAk Pedro Antonio Blanco koronela hil zuen Madrilen, hilabete batzuk lehenago iragarritako su-etenaren haustura. Honek sektore ezberdinen arteko lehiaren mekanismoari bide eman ziolarik. Azken biurtekoaren aldebiko polarizazioa (soberanista-konstituzionalistak) berrezaugarrituz.

MTTk (2005) aipatu bezala *lehiaren* mekanismoak bi adiera izango ditu: batetik, errebindikatzaille eta autoritatearen artekoa, eta bestetik, errebindikatzailleen artean. Gurera ekarriz, lehenengoak soberanismo eta konstituzionalismoaren arteko lehian forma hartu zuen; bigarrenekoak, ezker abertzalea eta EAJren artean, nagusiki. Aztertu ditzagun hurrenez hurren.

14.2.1.1 Errebindikatzaille eta autoritatearen arteko lehia:

Konstituzionalisten objektu aldaketa eta erasoen orokortzea

Konstituzionalisten eta soberanisten diskurtsoen arteko tenkatzea hau ez zen berria. Su-etena indarrean mantendu zen bitartean areagotzen joan bazen ere, 2000ko abenduan PPK eta PSOEk sinatu zuten “Askatasunen eta terrorismoaren aurkako Akordioan” bere gailurra jo zuen. Itun honek markogintza anti-terrorista berrezarri nahi zuen. Hainbat kasutan eztabaida politikoa Ajuria Eneako Itunak planteatzen zituen terminoetara eraman zituen: hertsadura mekanismoen erabileraren aldeko mezua, Estatuko Segurtasun Indarrei eta gorputz judizialari babesak erakutsiz -4. puntua-; nazioarteko lankidetzaren balioan jarriz -6. puntua-; edota herritarren mobilizazioarako deia eta komunikabideen paperaren garrantzia nabarmenduz -8. puntua-. Baina beste hainbatetan, harago eraman nahi izan zituen *errepresioaren* mekanismoa areagotuz: sistema penala erreformatzeko

salbuespenezko legediari bide emango lioketen erreforma legalen aukera zabalduz²⁷⁰; espetxe politikaren irakurketa zorrotzagoa eginez -5. puntua-; edota sistemaren gaineko kontsentsua Ajuria Eneako Itunak planteatutako Gernikako Estatutuaren gaineko zentralitatetik Konstituziora eramanez.

Azken moldaketa honi lotuta, Terrorismoaren aurkako Itunaren berrikuntza nabarmenenetakoak sistema politikoaren *aurkaritza-aliantza egitura* eta sistemaren gaineko *legitimazioari* zegokionak ziren. Izan ere, dokumentuaren sarreran bertan, EAJk eta EAK egindako ibilbidearen salaketa gogorra egitearekin batera, hauek sistemara ‘inkorporatzeko’ baldintza zorrotzak ezartzen baitziren:

“El abandono definitivo, mediante ruptura formal, del Pacto de Estella y de los organismos creados por éste, por parte de ambos partidos, PNV y EA, constituye una condición evidente y necesaria para la reincorporación de estas fuerzas políticas al marco de unidad de los partidos democráticos para combatir el terrorismo. La recuperación plena de esa unidad para luchar contra el terrorismo debe llevarse a cabo en torno a la Constitución y el Estatuto de Guernica, espacio de encuentro de la gran mayoría de los ciudadanos vascos”.

Konstituzioaren onarpenaren nagusitasun honek *objektu aldaketa* mekanismoaren funtzio bete zuela esan dezakegu; aldarrikatzen zenaren jo muga, borroka armatua edo terrorismoaren aurkakotasunetik Konstituzioaren onarpenera desplazatuz. Sistemaren legitimazioaren ikuspegitik, ordea, konstituzionalisten apustua arrisku handikotzat hartu zitekeen. Izan ere, 78ko Konstituzioak onartzen ez zuen autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena bigarren maila batean uztearen truke, autonomismoari bi hamarkadetan zehar autogobernuaren garapena eta bere kudeaketa bermatu zitzaion; autonomismoa Konstituzioak euskal jendartean izan zuen onarpen falta sistemaren deslegitimaziorako ez baliatzera konprometitzen zen bitartean. Aldiz, autonomismoak ulertu zezakeen autogobernuaren garapenak 1995tik aurrera ezagututako geldialdiak eta Itun Antiterroristak planteatzen zuen Konstituzioaren onarpen esplizituaren eskakizunak hankaz gora uzten zuela ordura arteko ‘joko arauak’; baita autonomismoari eskuak libre utzi ere orduko konpromiso horietatik.

²⁷⁰ Zentzu honetan ohar bikoitza egin nahi izan dugu. Batetik, “Askatasunen eta Terrorismoaren aurkako Akordioan” ez bezala, Ajuria Eneako Itunean indarrean zegoen legediaren baliagarritasuna azpimarratzen zen, “terrorismoaren aurkako legedi bereziaren derogazioa babesten” zelarrik. Hala ere, ezin dugu aipatu gabe utzi garai horretan jada martxan zegoen arautegi ‘berezia’ legitimatzeko funtzioa ere bete zuela; 80. hamarkadaren bukaeran martxan jarritako presoek sakabanaketarekin ikusi bezala, kasu. Eta bestetik, PP eta PSOEren arteko Itunak berehalako erreforma legalei bide eman ziela gogoratu behar dugu; ezker abertzalea legez kanpo utzi zuen 2002ko ekainean onartutako “Alderdien Legearekin” ikusi bezala.

Liskarraldiaren garapenean ematen den *objektu aldaketaren* mekanismoa, aldiz, bestelako azpi-mekanismoengatik lagunduta etorri ohi da. Konstituzionalismoaren kasuan *erasoen orokortzea* nabarmendu dezakegu; arerio zehaztetik hasi (ezker abertzalea) eta bere ohiko aliatuetara ematen den erasoen zabaltzea bezala ulertuta. Zentzu horretan, konstituzionalismoaren marko interpretatzaile eguneratuak abertzaletasunaren deslegitimazioa sakona eskatzen zuen. Horretarako arerioen markoztatzea bere helburuen (autodeterminazio eskubidea) legitimazio faltarekin lotu zuten, Ibarretxek aurreikusi bai baina desio ez zuen sistemaren onargarritasunaren gaineko irakurketa murriztaileena eginez. Akordioaren sinatzaileen arabera, EAJk eta EAK Ajuria Eneako Ituna ETA eta EHrekin adostuta baztertu zuten, “biolentzia uzteari prezio politikoa” jarritz. Prezio hori “autodeterminazioaren inposizioan” zetzan, helburua hau “gutxiengoena, baztertzailerak eta xenofoboak izateagatik, demokraziaren arauetan inoiz biderik irekitzea lortuko ez zutelarik”. Urte batzuk geroago ‘dena ETA da’ bihurtu zen marko interpretatzaile honek sistemaren gaineko kohesioa indartzeko ‘barne etsaiaren’ logikari bide eman zion. Letamendiak (1997) aipatu bezala, besteak beste, eliteen arteko lehiei aurre egin eta PSOE PPrekin lerratzea eramanez²⁷¹.

14.2.1.2 Erreibindikatazaileen arteko lehia: ‘Erreforma soberanista’ vs ‘haustura konstituziogilea’

Bigarren lehia diskurtsibo bat (ber)zabaldu zen, kasu honetan, burujabetzaren aldeko indarren artean. Orain arte esandakoari erreparatuta, 90. hamarkadaren bigarren erdialdean zehar aipatutako erreferentziatzeko bi gaien gainean (autogobernuaren eta bakegintzaren egoera), *diagnosi* eta *pronostikoari* zegokionean, diskurtso soberanista bat artikulatzeko oinarri bateratuak bazeuden ere, markogintzarako eskema honen hirugarren hanka ahula izan zen; *motibazioarako markoaz* ari gara. Izan ere, soberanismoak Maltzagaren metaforaren gainean marko bat eraiki bazuen ere, markoztatutako helburuak gauzatzeko proposamen egingarrien gaineko sintonia falta agerikoa izan zen.

14.1 taula: *EAJ eta EHren 2000. urteko markogintzaren alderaketa*

²⁷¹ Itunaren lehenengo puntuan bi alderdiak terrorismoaren aurkako politikak “zilegizko konfrontazio politiko edo elektoralek kanpo utzi” eta gai horren gaineko “elkarlan iraunkorra” mantentzeko konpromisoa hartu zuten. Itunak aktibatutako *objektu aldaketaren* mekanismoarekin terrorismoa Konstituzioaren onarpenagatik ordezkatzeak, aldiz, PSOE Estatuaren lurralde antolaketaren inguruko posizio propiorik gabe utzi zuela esan dezakegu.

| | | EAJ “Izan erabakitzeke” | Euskal Herritarrok ²⁷² “Euskal Demokrazia” |
|-----------------------------|--|---|--|
| Diagnosia | <i>Arazoa</i> | Autogobernuaren garapen falta; honek eragindako “frustrazioa” | “Egungo markoaren agortzea” |
| | <i>Kausa edota eragileak</i> | - Gobernu zentrala - Judikatura - ETA (“Asmo legitimoak prostituitu”) | Estatuen zapalkuntza (“Gatazka historikoa”) |
| Prognosia | <i>Helburua(k)</i> | “Normalizazioa ²⁷³ eta bakea” | “Ezagutza politikoa bermatuko duen marko politikoa” |
| | <i>Arrakastarako aukerak</i> | Euskal jendartearen izaera “anitza” eta “berezitua” | - “Nazio mailako mugimendu anitza eta zabala” - “Estaturik gabeko nazioen ernaltzea” - “Ziklo historikoari amaiera emateko baldintzak” |
| Motibaziorako markoa | <i>Mugimenduaren legitimazioa</i> | Parte hartzea: alderdien foroa(k), eragile sozialak eta instituzioak | Parte hartzea: “euskal herritar guztien parte hartzea”; zehazki, “euskal agente sozial, sindikal eta politiko guztiak” |
| | <i>Protestaren hartzaileen markoztatzea</i> | Gobernua eta ETA | Estatuak (eta EAJ ²⁷⁴) |
| | <i>Konponbiderako proposamen egingarriak</i> | “Prozesu politiko eta soziala” | “Prozesu eratzailea” |

Zentzu honetan, ezker abertzalearen eta EAJren diagnostikoen eta pronostikoen arteko sintonia orokorra ez da mobilizazioa aktibatuko duen markogintza arrakastaturako baldintza nahikoa izango, motibaziorako marko eraginkor bat ere beharrezkoa izango da. Klandermansen (1984) hitzak baliatuta, marko politikoaren alde euskal jendarte *mobilizatzeke kontsentsua (consensus mobilization)* ez da *ekintzarako kontsentsuari (consensus action)* bide emateko baldintza nahiko

²⁷² 2000. urtean zehar ezker abertzaleak garatutako markogintza azaltzeko Euskal Herritarrok 1999ko abenduaren 11ean aurkeztutako *Euskal Demokrazia osatzeko oinarriak eta garatzebideak* dokumentua hartu dugu erreferentzia nagusia bezala. 1999an ETAk EAJri egindako proposamenaren ildo beretik doa. ETAREN proposamena jada azalduta, EHren dokumentu horretatik koadro honetan jasotako pasarte eta kategoriak ezker abertzalearen markogintzaren nondik norakoak ulertzeko nahikoak direlakoan gaude.

²⁷³ ‘Normalizazioa’ euskal gatazka osoan zehar oso presente egon den kategoria izan da. Ajuria Eneako Itunaren jatorrizko izenetik hasita (“Acuerdo para la Normalización y Pacificación de Euskadi”) gaur egunera arte. Ibarretxek 2000. urtean aurkeztutako proposamenean tarte berezia eskainiko zion honi: “Muchas veces se ha confundido interesadamente el proceso de pacificación, entendido como ausencia de violencia, del proceso de normalización política, entendido como solución del conflicto de convivencia y de encaje de Euskadi en España”. EH-k ere *Euskal Demokrazia*-ren dokumentuan erreferentzia egin nahi izan zion kontzeptu honi “Normalizazioa versus demokrazia” izenburua zuen atalean: “Euskal Herria egoera guztiz ez normalizatu batean bizi da [...]: bi estatuen menpe zatitua, [...]. Funtsezko ez normaltasuna zera da: gure etorkizuna erabakitzeke ahalmena ere ez dugula gure esku”. Ezberdintasun sakonegirik ez bi adieren artean.

²⁷⁴ Dokumentu osoan zehar ez da EAJren gaineko aipamen espliziturik jasotzen. Fase honetan ezker abertzaleak bere estrategiaren erreferentzia Euskal Herrian auto-zentratuz egindako biraketaren ondorioz, aldiz, EAJ *protestaren hartzaile nagusia* bihurtu zen, bertako jasota eskaera nagusiak berari zuzendutakoak zirela ulertuz.

izango. Zentzu horretan, batzuk eta besteek planteatu zituzten helburuak gauzatzeko bide egingarriak aurkeztu beharko zituzten. Ibarretxek aurkeztutako ‘erreforma soberanista’ eta ezker abertzaleak planteatutako ‘haustura konstituziogilea’ erreferentziazko konponbiderako proposamenak ziren. Baina mende hasiera horretan bien arteko ezberdintasunak agerikoak izango ziren motibaziorako marko komun bat eraiki, eta ondorioz, ekintzarako kontsentsu zabal bat artikulatzeko. Ildo honetan, zeintzuk ziren bi prozesuen arteko diferentziarik nabarmenenak?

14.2 taula: *EAJ/Ibarretxeren eta ezker abertzalearen proposamenen alderaketa*

| | EAJ/Ibarretxe ²⁷⁵ | Ezker abertzalea |
|----------------------|---|--|
| Abiapuntua | - “Egungo instituzioak” | - “Egungo instituzioen porrota” |
| Oinarriak | - Euskal jendartea “anitza” eta “berezitua” | - “Lurraldetasunaren printzipio demokratikoa” - “Kontzientzia nazional ezberdinak” |
| Helburua | - Status berria: “lurraldetasuna, aitortza nazionala eta erabakitze eskubidea” | - “Ezagutza politikoa bermatuko duen marko politikoa” |
| Gidaritza | - EAE eta Nafarroako legebiltzarrak (EAJ) - Alderdien foroa(k) (Ibarretxe) | - “Batzar eratzaila” |
| Funtzioak | - “Proiektu politikoen onarpen eraginkorrerako eta garapenerako oinarritzko erreferentzia eratzaila” (EAJ) - “Alderdien arteko gutxieneko izendatzaile komunak adostu” eta “desadostasunen sustraiak identifikatu” (Ibarretxe) | - “Marko politikoaren eskaintza” euskal jendarteari - “Euskal Herriaren ordezkartza ofiziala gauzatzea” - “Prozesuaren demokratikotasuna bermatzea”: <ul style="list-style-type: none"> • Eragile sozialen parte hartzea. • Galdeketa |
| Parte hartzea | - Galdeketa(k) berme legitimatzaile gisa. | - Abiapuntuan: Hauteskunde Eratzailak. - Bitartean: eragile ezberdinen parte hartzea bermatu. - Helmugan: markoaren berrespena; herri-galdeketa. |
| Estatuak | - Konstituzioaren bi irakurketa posible: <ul style="list-style-type: none"> • Malgua; “Estatu Paktua” (Ibarretxe) • Hertsia; “Egun existitzen ez den aukera konstituzionala” (EAJ) | - Prozesuaren onarpena eta horren inguruko akordioa: <ul style="list-style-type: none"> • Batzar eratzailaren “ordezkartza ofizialera”; ETaren berme funtzioaren aipamenik ez. |

Honela laburbildu ditzakegu EAJk eta ezker abertzaleak planteatutako prozesuen arteko ezberdintasun nagusiak:

- *Abiapuntua*: EAJrentzat edozelako prozesuaren abiapuntua Gernikako Estatututik jaiotako egituratze politiko instituzionala zen; ezker abertzalearen prozesu konstituziogilean, aldiz, prozesuaren abiapuntua egituratze horrekiko hausturak ezaugarritzen zuen. Ibarretxeren

²⁷⁵ Jelkideek proposatutako prozesuaren markogintza aztertzeo erreferentziazko bi dokumentu jaso ditugu: 2000. urteko Batzar Orokorreko ponentzia politikoa eta Ibarretxek urte berean Madrilgo Club Siglo XXI-n aurkeztutakoa. Biak sintonian egonda ere, jaso nahi izan ditugun hainbat gaien inguruko zehaztapan ezberdinak daude. Ezker abertzalearen prozesuaren markogintzari dagokionez jada aipatutako *Euskal Demokrazia*-rena jaso dugu.

erreforma soberanistak ‘legetik legera’-ko bidea marraztu nahi zuen; ezker abertzalearen prozesu konstituziogileak indarrean zen legearekiko haustura legalitatea berri bat eraikitzeko.

- *Oinarriak*: euskal jendartearen “aniztasuna” eta “berezitasuna” funtsezko ezaugarritzat hartzen ziren. “Aniztasunak” nazio identitate ezberdinen existentziari erreferentzia egiten zion. Ibarretxerentzat “elkarbizitzarako elkarguneen bilaketak [nazio identitateen] aniztasun hori bere egin eta errespetatu” beharko zituen; ezker abertzalearentzat prozesuak “identitate desberdin horiek dituzten herritar guztien eskubide linguistiko eta kulturalak bermatu beharko” zituen. Bestetik, bi proposamenek euskal komunitatearen “berezitasuna” *kanpokoarekiko* (Estatuekiko) zalantzatan jarri ez bazuten ere, ikuspegi ezberdinekin ikusiko zen barrura begira. Horrela, lurraldetasunaren afera bi prozesuen arteko desberdintasun esanguratsuenetakoa bezala agertu zen. EAJrentzat lurraldetasuna “nazio kontzientziaren hedatzearen bitartez” prozesuaren helmuga bezala irudikatzen zen bitartean, ezker abertzalearentzat “mendeetan zehar” pairatutako injustizia marko gainditzeko *abiapuntua* izango zen.
- *Gidaritza*: bakoitzak proposatutako prozesuaren gidaritza EAJk planteatutako bi legebiltzarren eta ezker abertzaleak planteatutako Euskal Herriko legebiltzar berria edota Batzar Eratzailearen artean mugituko litzateke. Bigarrenarenak lehenengoaren legitimitatea ukatzen zuen²⁷⁶; lehenengoak ez zuen bigarrenkoa onartuko baldin eta bere legitimitatea zalantzetan jartzen bazen. Funtsean, hogeitau urte lehenago bakoitzak hartutako erabakiaren justifikatzeko lehia nabarmentzen zen.
- *Estatuak*: Ibarretxeren “Estatu Paktua” eta ezker abertzaleak proposatutako Batzar Eratzailearen mintzaidetzaren arteko itxurazko ezberdintasunen atzean sakoneko diferentziarik ez zegoen Estatuiekiko irudikatzen zuten hartu-emanen: batean zein bestean Estatuari euskal herritarrek erabakitako errespetatzeko beste funtziorik ez zitzaion egozten, funtsezkoena euskal herritarren arteko adostasuna izanik. Gerora Ibarretxeren proposamenak Madrilen jasotako ezezkoa tarteko, hegemoniaren teoria diskurtsiboaren mugak ezagutu zuen soberanismoak, ‘erabakitze eskubidea’ euskal jendartearen sen onaren parte izan ez baina bera instituzionalizatzeko biderik utzi ez zitzaionean²⁷⁷.

²⁷⁶ Honela zioen EH-ren *Euskal Demokrazia*-ren dokumentu erakunde ezberdinen zilegitasunaren inguruan: “Bada, aldiz, abiatze unetik bertatik, lurralde zatiketaren iturri izan dena, subiranotasun faltan oinarritu dena, estatutariotik sortu eta inongo sustrai historikorik ez duena: Gasteizko Legebiltzarra”.

²⁷⁷ Garaiko dokumentazioaren artean ez dugu idatzizko hausnarketarik aurkitu balizko egoera honen inguruan. Aztartzen ari garen tesien aitzindarietako bat bezala aurkeztu dezakegun Juan Maria Ollorari zuzenean gai honen inguruan galdetuta, momentuan horren inguruko teorizaziorik ez zegoela aitortu zigun, jarrerarik logikoena “desobedientzia moduren bat” martxan jartzea litzatekeelarik onartuta (lan honetarako Juan Maria Ollorari egindako elkarrizketatik).

Baina diskurtso soberanistaren mapa osatze aldera, *motibaziorako markoaren* gaineko desadostasunak ez ziren diskurtso soberanistaren ahulgune bakarrak izan. Snow eta Benford-ek (1988) aipatu bezala *diagnostikoa* eta *pronostikoaren* arteko harremana zenbat eta integratuagoa egon, mobilizazioari bide emateko markogintza arrakastatsuagoa izango da. Eta zentzu horretan, Lizarra-Garaziko Akordioaren apurketarekin integrazio apal hori agerian gelditzen joan zen.

Autogobernuaren egoeraren diagnostikoari zegokionez, bere garapen falta soberanismoaren baitan *injustizia marko* bezala zabaltzen joan bazen ere, premia eta presa ezberdinarekin agertu zen jeltzaleen eta ezker abertzalearen agendan. Su-etena indarrean zen bitartean batzuk eta besteek prozesu horretaz egin zuten ezaugarritzea horren erakusle bihurtu zen. ETaren adierazpenek argi utzi zuten bezala, EAJk bakearen diskurtsoa nagusitu nahi izan zuen bitartean, ezker abertzalea burujabetzarena lehenesten saiatu zen. Alde horretatik, EAJ Ajuria-Eneako Itunetik deslerrotu eta ezker abertzalearekin akordioetara iristeko arrazoi nagusi bezala autogobernuaren garapenaren blokeoa baino, 97. urtearen bueltan ematen ari zen bortizkeria egoerak abertzaletasunari gainezka egiteko arriskuaren ideiak indarra hartu zuen mende aldaketarekin batera.

Autogobernuaren bilakaeraren inguruan erdizka konpartitutako diagnostiko horrek, ezinbestean erdizka konpartitutako pronostiko batera eramaten zuen. Horrela, status juridiko-politiko berriaren helburuak ez zuen ez zehaztaperen bateraturik aurkitzen horri forma zehatza ematerakoan, ezta hori egiteko prozeduran ere²⁷⁸. Gauzak horrela, soberanistotik egiten zen diagnostikoaren eta pronostikoaren barne koherentzia eta beraien arteko integrazio maila apalak bere ahuleziak agerian utzi zituen.

14.2.2 Mekanismoen eragin desdemokratizatzailea: konfiantza galera eta konpromisoen haustura.

Atal enpirikoaren azterketaren aurreko bi azpi-epealdietan arreta ekintza kolektiborako mekanismoek izan zuten eragin demokratizatzailean jarri badugu, oraingoan ezinbestean eragin desdemokratizatzailean jarri beharko dugu.

²⁷⁸ EAJk 2000. urteko urtarrileko Batzar Orokorrerako prestatutako ponentzietan “gaurko marko juridikotik abiatuta soberaniarako bidea egin daitekeela” esaterakoan, EHk “gezur historiko itzela” birsortzea leporatu zien jeltzaleei (*Diario Vasco*, 1999-12-23).

Konfiantza demokratizazio eragiten duen aldagai esanguratsuenetakoa bezala ezaugarrituta, *konfiantza galera* desdemokratizaziorako arrazoi nagusienetakoa bezala ulertu beharko dugu. Arestian aipatutakoaren harira, burujabetzak hartu beharreko gaineko irakurketa ezberdinak ezker abertzalearen eta EAJren arteko konfiantzaren galeraren funtsezko arrazoiak bihurtu ziren. Horrela, EAJk ETAren planteamendua ‘ameskeriatzat’ hartuz bere egingarritasuna zalantzatan jartzen zuen bitartean, ETarentzat EAJrena ziklo autonomistara bueltatzeko bidezidorra baino ez zen.

Deskonfiantza honek desdemokratizazioan eragin zuzena izan ohi duen bigarren mekanismo bati bide eman zion: *konpromisoen haustura*. Konfiantza galera honen ondorio zuzen bezala ulertu ditzakegu hilabete horietan adostu ziren akordio ezberdinen apurketa: su-etenaren haustura, EAJ-EA eta EHren arteko legegintzaldiari begirako akordioaren apurketa²⁷⁹, *Batera* presoen aldeko ekimena anitzaren desagertzea edota ELA eta LABen artean eman zen elkar-lanaren ahultzea²⁸⁰, nabarmenenak aipatzearren.

Desdemokratizazioa eragiten duten mekanismoen kateaketa honek *espiral* moduan emango diren gertakariei eta mekanismo berriei bide eman zien. Zentzu honetan, *hertsadura* bitartekoen ugaltzea ondorio logikoena bihurtu zen bata zein besteentzat; bai protestarako bitartekoen (bir)erradikalizazioaren bitartez (kale erasoan hazkunde eta ekintza armatuen gorakada²⁸¹ kopuruetan zein jo puntuen zabaltzean), bai errepresiorako mekanismoen areagotzearen bitartez (Terrorismoaren aurkako Itunaren ondorioz eratorritako erreforma legal eta ilegalizazio zikloari lotuta).

Abertzaletasunaren baitako polarizazioaren berrezaugarritze honek tartean gelditzen ziren *artekarien* papera ahuldu eta gertakari politikoen bilakaera era *zentrifugo* batean garatzera eraman zituen; gure kasuan, ELA eta LABen arteko bidea ahulduz edota su-etenaren apurketaren ostean EAJ, EA, EH eta ABren arteko trantsiziorako proposamen berri bat adostea zailduz.

Ikuspegi zabalago batetik begiratuta, ordea, polarizazioa areagotzearen efektuak bestelakoak izan ziren. Izan ere, konstituzionalisten eta soberanisten arteko gatazkan Estatuak eta ezker abertzaleak

²⁷⁹ Honen apurketa formala 2000ko otsailaren 22an ETAk Fernando Buesa eta bere bizkartzaina, Jorge Diaz, hil ondoren publiko egin zuen Ibarretxe Lehendakariak.

²⁸⁰ Mende berriarekin ELA eta LABen arteko maila politikoko elkarlana nabarmen ahuldu zen; presoen gaian, esaterako, ELA bere ekimen propioak hobesten hasi zen; edota 2000-2005 epealdiko Aberri Egunean ere deialdi propioak eta bateratuak txandakatzen joan ziren urtearen arabera. Negoziazio kolektiboari zegokionean, berriz, elkarlan prekarioa mantendu zen; 2001, 2003 eta 2004an negoziazio kolektiborako sinatutako akordioek porrot egin zutelarik (Kortabarria, 2015).

²⁸¹ Begiratu *Aurrekari zuzenen* atalean txertatutako 11.3 eta 11.4 grafikoak.

osatzen zituzten muturren artean gelditutako sektoreak sendoen agertu zirenak izan ziren, 2001eko hauteskunde autonomikoetan Ibarretzek lortutako 604.000 bozkek erakutsi bezala. Autogobernuaren eta bakegintzaren erreferentziazko kategoriak berreskuratuta, EAJren arrakasta bikoitza izan zela esan dezakegu: batetik, jeltokideen 'bake prozesu' eta ezker abertzalearen 'burujabetzarako prozesuaren' arteko itxurazko lehia horretan lehenengoa nagusitu zela ondorioztatu dezakegulako, eta bestetik, azken hauek autogobernurako planteatu zuten 'prozesu sozial eta politikoak' ezker abertzaleak planteatutako 'prozesu konstituziogileak' baino sinesgarritasun handiagoa lortu zuela ondorioztatu dezakegulako.

Bere aldetik, ezker abertzaleari garai konplikatuak zetozkion. Su-etenaren hausturaren erantzukizuna sozialki eta politikoki kudeatzeko zailtasunak, hauteskunde emaitza txarrak eta abiatzearen ilegalizazio zikloak ekarriko zuen zokoratze politiko tarteko, kale mobilizazioen ildo berrindartu nahi zuen, besteak beste, 2000. urtetik aurrera arrazoi politikoetan oinarritutako 'greba orokorren' deialdien zikloa zabalduz. Izan ere, Tillyk (2007b: 202) aipatu bezala, kale mobilizazioak edo *manifestazioak* WUNC adierazpideak izango dira eta protesta mugimenduari adre, batasun, kopuru eta konpromiso hauek momentu zailenetan publikoki erakustea ezinbestekoa izango zaio aurrera egin nahi badu.

Tillyren arabera manifestazioek bi aldarrikapen mota bilduko dituzte: *existentziarenak* eta *programarenak*. Lehenengoaren arabera, arerio edota etsai politikoen bazterketa edota erasoaren aurrean existitzen den aktore politikoa aldarrikatzen da. Adierazpide hauek identifikazio politikoei erreferentzia egiten diete. Ondo antolatutako pertsona multzoa proiektatu nahi izango da, momentuan ezker abertzaleak egin bezala, eszena politikoan parte hartzea aldarrikatzen duena eta alde horretatik, joko politikoaren arreta eskatzen duena. Programari dagozkion aldarrikapenek, bere aldetik, kategoria sozial batzuek proposamen edota politika publiko zehatz batzuen alde edo kontra daudela adierazi nahi dute. Baina Tillyk adierazi bezala, normalean aldarrikapen mota batek edo besteak (*existentziarenak* edo *programarenak*) gailentzera joko du. Gure kasuan, 98-99 epealdiko barne eztabaidetan eragile bakoitzaren programak ('haustura konstituziogileak' edota 'autogobernu prozesu sozial eta politikoak') pisu nabarmena hartu bazuen ere, 2000. urtetik aurrera ilegalizazio prozesuaren eskutik ezker abertzaleak bizi izan zuen salbuespenezko egoera tarteko, lehenengoaren alde egin zen. Honek ez zuen ezker abertzalea eztabaida politikoaren 'mamitik' aldenduko, baina 2000. urtean sinatutako Terrorismoaren aurkako Itunaren helbururik behinena ezker abertzalea eztabaida politikotik desagertzea zenean mobilizazioen WUNC adierazpideak sozialki presentzia nabarmena zuen giza-sektore baten existentziaren aldarrikapenari heldu beharko zion hein handi

batean. Errepresioaren mekanismoak gora egiten duenean tentsio horretan bizi beharko da protesta mugimendua; bere existentziaren aldarrikapenera mugatuko ez den mobilizazio ildo bat garatzeaz harago, politika publikoetan edota boterean eragiteko gai izango den lerro mobilizataile bat aktibatuz. Puntu horretan aurkitu zuen bere burua ezker abertzaleak mende berriarekin batera.

Ondorioak

15. KAPITULUA

15.1 Jarraitu ditugun urratsak

Urruti gelditzen zaigu ikerketa honen hasieran landu dugun hegemoniaren kontzeptua. Edozein kasutan, modu batean edo bestean, Gramsciren irakaspenak lan osoan zehar presente izan ditugun hariak izan dira. Sardiniarrak planteatutako *sen onaren* eraikuntza prozesua identifikazio politikoen bilakaera gidatzen duen ipar bezala ulertu dugu une oro. Hala ere, hegemoniaren adiera klasiko hau testuinguru garaikidera ekarri nahi izan dugu Laclauk (2004) aipatzen zuen “azken ondar ekonomizista” postmodernitatearen galbahetik pasaz.

Modernitatearen ziurtasunen aroaren bukaera eta postmodernitatearen likidotasunaren arteko muga horretan, Gramsciren hegemonia XX. mendearen erdialdean eskola alemaniarrak planteatutako ikuspegi metafisikoen deseraikuntzatik pasa; 70. eta 80. hamarkadetan Frantziako ezkerak bogan jarritako linguistikaren akademiatik iragazi; eta mende aldaketa honetan indarra hartutako psiko-analisiaren kategoriekin josi nahi izan dugu. Hori guztia marxismoaren adiera kulturaletik datorren kontzeptu hau gaur egungo politikaren erdigunean jartzera eraman duen Ernesto Lacluaren eskutik.

Izan ere, hegemoniaren teoriak Gramscik aipatzen zuen *sen on* horren eraikuntzaren atzean parte hartzen duten aldagaiak azaltzea izango du helburu. *Sen onarekiko* edo jendartearen ‘normaltzat’ hartzen den uste horrekiko sortzen den identifikazio kolektiboa artikulazio horren gakoa izango delarik. Zentzu horretan, identifikazio horien zabalpenak (edo murrizteak) botere politikoaren eta, ondorioz, lehia politikoaren nondik norakoak zedarrituko ditu. Prozesu hori ikuspegi deterministetatik aldentuta, erabat diskurtsiboa izango dela ulertu dugu; diskurtsuak identifikazio politikoen eraikuntzaren oinarria izanik. Alde horretatik, identifikazio politikoen izaera kontingentea, gatazkatsua eta politikoa azpimarratu dugu. Zentzu honetan, gure irakurketa nazionalismoaren bilakaera aztertu duten eskola klasikoetatik urrundu eta ikuspegi konstruktibistatik landu nahi izan dugu. Tarrowek planteatutako protesta zikloaren eredutik, hain zuzen ere.

Hegemoniak botere politikoaren inguruko lehiaren markoa finkatzen badu, populismoa lehia hori garatzeko bidea bezala uler genezake. Askoren ustez, hegemonia eta populismoa txanpon berberaren bi aldeak izanik, horrenbestetan deitoratutako bigarren kategoria honek hegemonizazio prozesuaren arrakasta bideratzeko gako nagusiak barnebiltzen ditu: anbiguetatea, erretorika, kontingentzia, ... Populismoa, *Herria* eraikitzeo ariketa gisa ulertuta, hurbileko testuinguru zehatz batean lekutu nahi izan dugu: sistema demokratikoetan. Horrek emango baitigu gure ikerketa-gaia aztertzeko erreferentzia egokia. Baina demokraziak prozesuaren abiapuntua eskaintzeaz gain, helmuga edo helburua ere izango da, bere erradikalizazioa aztertzeko apustua egin dugun heinean. Horrela, Zizek-ek planteatzen duen bezala, gatazka politikoa kontsentsuaren eremura eraman nahi den garai post-politiko hauetan, pasioa eta lehia prozesu demokratizatzailearen erdigunean jarri dugu Moufferen *agonismoaren* bitartez.

Hala ere, hegemoniaren teoriak, prozesu diskurtsibo sendo bezala ulertuta, bere mugak ere agertuko ditu. Izan ere, lehia politikoa eta bere inguruan artikulatzen den ekintza kolektiboa ‘diskurtsoa baino zerbait gehiago’ ere izango da. Alde horretatik, hegemoniaren teoria Diskurtsoaren Analisi Kritikoaren bigarren galbahetik pasa dugu azterketarako marko teoriko egonkor bat izateko. Gure kasuan, Laclau eta Moufferen teoria diskurtsibo sendo hau, McAdam, Tarrow eta Tillyk eskaintzen dizkiguten mekanismo eta prozesuen bitartez *arindu* nahi izan dugu. Horrela, azken hiru hauek ekintza kolektiboaren azterketarako agenda klasikotik abiatuta, *politika liskartsuaren (contentious politics)* mekanismo eta prozesuen bitartez agenda horri emandako izaera dinamikoa gurera ekarri dugu soilik diskurtso bidez azaldu ezin diren gertakarien azalpena emateko. Edo hobeto, esanda: diskurtsoaren eta ekintza sozial liskartsuaren artean ematen den hartu-emana azaltzeko saiakera gisa ulertu dezakegu gure marko teorikoa. Horrela, hegemoniaren (bere zentzu diskurtsiboan) eta ekintza kolektiboaren (bere zentzu liskartsuan) arteko elkar-eragina aztertzeko erreferente teorikoa izango da gurea.

Marko teoriko honek, berriz, bere inplementaziorako metodo bat behar du. XXI. mende honen hasieran identifikazio politikoen artikulazioa azaltzeko zentralitatea hartu duen ikuspegi kulturalistak edo konstruktibistak horretarako oinarritzko erreferentzia osatu du. Identifikazioen eraikuntza diskurtsiboa metodoaren oinarria izango bada, diskurtsoaren azterketarako Snow eta Benford-en *framing*-a bitarteko zehatza izan da. Era berean, *framing*-ak edo markogintzak hiru atalen araberrako oinarritzko eskema bat eskaintzen bazigun (diagnosia, pronostikoa eta motibazioa), Gerhads-en *Markoaren Egitura Idealak* markogintzaren dimentsioak eta estrategiak bereizteko

aukera eman digu. Zentzu honetan, hiru autoreon teorien uztarketaren bitartez atal metodologikoan azaldu dugun metodo propioa landu dugularik.


Horrekin batera, MTTren mekanismo eta prozesuen inplementaziorako eskema orokor bat finkatu dugu, ondoren markogintzaren dimentsio ezberdinekin hartu-emanetan jarri duguna. Arreta berezia jarri dugu demokratizazioan sakontzen duten mekanismo espezifikoeetan, demokratizazioa herritarrak eta instituzioen arteko harremanak zabaltzen, berdintzen, integratzen eta izaera lotesleagoa ematen dion prozesu bezala ulertuta. Izan ere, aztertutako epealdia euskal oldarraldiaren demokratizazio prozesuan izan duen eragina gure aztergai nagusietakoa izan baita.

Atal enpirikoari helduta kokapen zabal bikoitza egin nahi izan dugu. Batetik, euskal oldarraldi horren abiapuntuari begira; ETA, protesta zikloa abiatzen duen *mugimendu goiztiarraren* sorrera eta garapena aztertzeko. Honek, aldi berean, protestaldian zehar lehian arituko diren identifikazio politiko nagusien oinarritzko kokapena egiteko aukera ere zabaldu digularik (10. kapitulua). Eta bestetik, erreferentziazko aztergaiaren (Lizarra-Garaziko Akordioa) aurrekari zuzenak izan zirenak aztertzen saiatu gara, 90. hamarkadaren lehenengo erdialdearen argazkia ateraz ekintza kolektiboaren ikerketarako agenda klasikoaren bidez (11. kapitulua).

Ikerketaren muinari helduta, abertzaletasunaren edota burujabetzaren aldeko indarren diskurtsoen azterketan zentratu gara; gure ustez, horiengan ematen den bilakaerak protestaldiaren garapena baldintzatu zuelako. Kontituzionalismo bezala izendatu dugun multzoaren diskurtsoarengan ere arreta jarri dugu, noski. Azken finean, 90. hamarkadan zehar ematen den lehia hegemonikoaren desplazamendua ‘demokrata eta biolentoen’ arteko kategorietatik ‘soberanista eta konstituzionalisten’ artekora ezin baita bere azterketa gabe ulertu.

Aztergaiaren epealdia 1995 urtetik 2000ra zabaldu dugu. Izan ere, 90. hamarkadaren erdialdean abertzaletasunaren baitan euskal protesta ziklo zabalaren bilakaera baldintzatuko zituzten hiru gertaera nagusi eman zirela ulertzen baitugu: a) ordura arteko ezker abertzalearen estrategia negoziatzailea zalantzatan jartzen zuen hausnarketa estrategikoa; b) ELA eta LABen elkarlanean ondorioz momentu horretan abertzaletasunaren baitan indarrean zeuden bi diskurtso nagusien (autonomista eta hausturazalea) artean ematen den zubigintza; eta c) autogobernuaren garapenerako autonomismoaren eredia zalantzatan jartzen zuten lehenengo ahotsen agerpena autonomismoaren baitan, ELAren biraketan zein EAJren barne hausnarketetan islatu zena. Epealdiaren bukaera 2000. urtean kokatu dugu, Lizarra-Garaziko prozesuan hezurmamitu ziren diskurtso soberanisten nondik

norakoak ulertzeko urte erabakigarri gisa. Lan honen bukaeran 2000. urtetik gaur egun arteko epilogo labur batekin osatzen saiatuko gara; azaletik bada ere, landu dugun ikuspegitik euskal protesta-ziklo horretan ze momentutan egon gaitezkeen arakatzeko asmoz.



15.1 irudia: Atal metodologikoa eta aztergai empirikoaren arteko harremana azaltzen duen irudia.

Erreferentziazko epealdia hiru azpi-epealdietan banatu dugu, horietako bakoitzean markogintzaren azterketarako metodoa aplikatuz. Azpi-epealdi bakoitzean markogintzaren dimentsio bat nabarmendu nahi izan dugu. Horrela, 1995tik 1997ra indar abertzaleen diskurtsoaren *diagnostikoe* garrantzia berezia hartu dute, autogobernuaren eta bakegintzaren erreferentziazko tresnen agortzeari zegokionez. 1998 eta 1999an *pronostikoe* edo helburuen markoztatzeek protestaldiaren markogintza ardaztu dute, Lizarra-Garaziko akordioak eskainitako marko interpretatzaileari esker; baita soberanismoaren auto-legitimazioak eta konstituzionalismoa protestaren hartzaile gisa ezaugarritzeak ere. 2000. urteak, aldiz, diagnostiko eta pronostiko horren arteko integrazio maila apala agerian utzi zuen. Abertzaletasunaren familia bakoitzak burujabetzaren helburua erdiesteko planteatutako konponbide egingarrien gaineko ikuspegi ezberdinek *motibazioarako markoaren* ahultasunak ere begi bistan utzi zituztelarik.

Baina eragile bakoitzaren diskurtsoaren bilakaera honetan zerbait interesatu bazaigu, marko interpretatzaile horien arteko hartu-emana izan da. Alde horretatik, azpi-epealdi bakoitzean esangura berezia izan duten *markoen lerrotze prozesu (frame alignment process)* nabarmenenak azpimarratu nahi izan ditugu arestian aipatutako markogintzaren taula 'estatiko' hau mugimenduan jartzeko.

Liskarraldiaren garapenean, ordea, guztia ez da diskurtsoa izango. Are gehiago, diskurtsoak ekintza kolektibo liskartsuan forma hartzen duenez, interpretazio marko ezberdinak baldintzatzen dituzten

prozesu eta mekanismo esanguratsuenak ere azterketaren lehenengo lerrora ekarri nahi izan ditugu. Prozesu honetan diskurtsoak eta ekintza kolektiboak elkarri nola eragin zioten aztertze aldera.

Gauzak horrela, lan honen azken atala osatzen duten ondorioak bi partetan banatuko ditugu. Batetik, ondorio *zehatzak*; atal metodologikoan jaso ditugun hipotesien gaineko kontraste gisa. Eta bestetik, ondorio *orokorrak*; Lizarra-Garaziko prozesuak XX. mende erdialdean hasten den euskal protesta ziklo zabalean duen eraginaren azterketa bezala.


15.2 Ondorio zehatzak: hipotesien kontrastea

Hurrengo lerroetan gure azterlanaren hiru zutabe nagusiak izan direnen arteko harremana laburbiltzen saiatuko gara: abertzaletasunaren baitako diskurtsoak (horien azterketarako baliatu dugun markogintzaren taula baliatuta), horiek lotuko dituzten *lerrotze prozesuak* (*frame alignment process*) eta hauei forma emango dieten ekintza kolektiborako prozesu eta mekanismo nagusiak. Hiru hauen elkar-ekintzaren bitartez saiatu gara 90. hamarkadaren bigarren erdialdean Euskal Herrian gertatutakoak azaltzen.

Azken orrialdeotan azaldu dugunaren laburbilduma gisa eta hurrengoetan ondorioztatuko dugunaren aurrerapen bezala, hauek dira jaso ditugun ondorio nagusien lerroburuak:

- Markogintza soberanista baterako landu ziren oinarriak:
 - *Diagnosia*: ordura arteko marko nagusiengan krisi zantzuak ageri ziren; horri lotuta, autogobernuaren garapen falta ‘injustizia marko’ bezala indarra hartu zuelarik.
 - *Pronostikoa*: ‘marko (politiko) aldaketaren’ helburua zabaltzen joan zen burujabetzaren aldeko indarren artean.
 - *Motibazioa*: markoen lehia soberanisten artean: ‘erreforma soberanista’ vs ‘haustura konstituziogilea’.
- Abertzaletasunaren markoen *lerrotze prozesuak*:
 - ELA eta LABen *zubigintza*.
 - Marko antiterroristaren *eraldaketa*.
 - Alde ezberdinetako *markoen lehia*.
- Liskarraldian parte hartutako *prozesu sendoak* eta mekanismoak:

- Protestaldiaren *eskala aldaketa*.
- Soberanismoaren *kategoria osaketa*.
- Konstituzionalismoarekiko *polarizazioa* eta aurrekoen arteko *lehia*.



15.2 irudia: Markogintza eta ekintza kolektiboaren arteko harremanaren irudia.

15.2.1 Markogintza nagusien krisia oinarrizko diagnostiko bezala: Autogobernuaren garapen faltaren ‘injustizia markoa’.


Ikusi dugun bezala, markogintzaren diagnostikoak arazo baten identifikazioa eta kaltearen jatorriaren atribuzioa barnebilduko ditu. Alde horretatik, interpretaziorako markoaren atal honek egoera injustu bat deskribatu beharko du; edo hobeto esanda, erreferentziazko talde baten aldetik injustutzat hartuko den egoera bat. Ildo horretan, gogoratu dezagun era eskematikoan 90. hamarkadak autogobernuan emandakoa Gernikako Estatutuaren garapenaren ikuspegitik. 1992an PSOEek eta PPK Paktu Autonomikoak adostu zituzten, ‘bide moteleko’ autonomiak autonomia historikoen eskumenekin parekatu nahian. 1993an Eusko Legebiltzarrak transferitu gabe zeuden 54 eskumenen zerrendatu zituen, Estatuko Gobernuari horiek esku-aldatzeko eskatuz; 1994ko maiatzean bakarrik zortzi transferitu ziren, aztertu bezala, guztiak bigarren mailakoak. 1994ko abenduan EAJ, PSE-EE eta EAren artean sinatutako gobernu akordioan Estatutuaren erabateko

garapena lehentasuntzat hartu zen, Estatuko Gobernuan PSOE egoteak horretarako bide eman zezakeelakoan. 1996ko martxoan Hauteskunde Orokorrak burutu ziren, PSOEk Gobernua galduz; bitarte horretan soilik hiru eskumen berri transferitu ziren, Justizia Administrazioaren eta Nekazaritza sailari lotutako bitartekoen kudeaketari zegozkionak. 1996an PPK EAJrekin Aznarren inbestidurarako akordioa lortu zuen, lehenengo puntu bezala, “Estatutuaren garapen osoa eta leiala” aurreikusiz. Handik urtebete eskasera, orduko Ekonomia Ministroak, Rodrigo Rato-k, Segurantzia Soziala inoiz ez zela transferituko aldarrikatu zuen. EAEk lortutako azken eskumen esanguratsua 1987an lortu zuen, osasungintzaren transferentziarekin. Hamar urte autogobernuaren garapenean jauzi esanguratsurik eman gabe, hortaz.

Diskurtsoaren analisiaren ikuspegitik interesgarriena ez-betetze honetan ematen zen interpretazio markoaren eta diskurtsoaren bilakaera litzateke, horren arabera baliatu ziren markogintzaren teknikak ere egokitu zirelako. Izan ere, Estatutua ez betetzearen salaketa (*problematizazioa*) ez zen zerbait berria euskal instituzio eta Lehendakariaren aldetik, baina eredu autonomikoak berak autogobernuaren garapenerako suposatzen zituen mugen gaineko salaketak lekua irabazten joan zen diskurtso autonomistaren baitan. Horrela gatazkaren dimentsio politikoa aldatzen joan zen; ez zen berdina izango Estatuko gobernuak eskumenak ez transferitzeko hartutako erabaki zehatzen salaketa ala sistema autonomikoaren antolaketa eredu bera zalantzan jartzea (*kokapenaren zabalpena*). Batetik besterako jauzia antzeko gertaeren inguruan ematen den interpretazio ezberdinean datza, hain zuzen ere. Horrela, Gamson-ek (1995) aipatu bezala, zorigaitza edo nahigabearen ondorio bezala antzematen diren egoera batzuk, bestelako asmo batzuen ondorio bezala interpretatu eta egoera bera problematizatzen hasten denean ‘injustizia marko’ bezala antzematen hasiko da. Gure kasuan, 90. hamarkadaren hasieran eteten hasi ziren eskumenen transferentzia nahigabea edo zorigaitza bezala baino, koiuntura zehatzei erantzuten zion jarrera bezala interpretatua zen autonomismoaren zati handi batetik hainbat urteetan zehar. Hamarkadan zehar eman ziren akordioen urraketa, aldiz, autonomismoa egoera politikoaren gaineko ulermen berri batera eramaten hasi zen. Zentzu honetan, autogobernuaren garapen falta ‘injustiziarako marko’ bezala ezartzen joatea sistemaren egonkortasuna bera kolokan jarri zezakeen aldagaia bilakatu zitekeen.

Irakurketa hau, ordea, ez zen berdina izango ordura arte autonomismoaren baitan kokatutako eragile ezberdinei zegokienez. EAJren baitan irakurketa hau era mantsoan zabaltzen joan zen bitartean, ELAren markogintzan autogobernu prozesua ulertzerakoan eraldaketa sakona ematen hasi zen. ‘Instituzionalizaziotik kontra-botererako’ (Letamendia, 2004) aldaketa garaiak ziren Euskal Herriko

sindikatu nagusiarentzat eta Elorrietak (2011) berak bere doktore tesian aipatu aipatu bezala autonomismotik soberanismoarako *objektu aldaketa* zen antolakunde honen marko interpretatzailean ematen ari zena.



15.3 irudia: Markogintzaren diagrama.

Ezker abertzaleari zegokionez, 90. hamarkada hasi zenetik egindako apustu ezberdinen mugen ondorioz (Aljerreko negoziatioak, 92ko ofentsiba, ...) gogoeta estrategiko etengabean murgildurik, hamarkadaren erdialderako bere eskaintza politikoa eguneratu zuen. Honen baitan ETA eta Gobernuaren arteko negoziatioak markogintzaren konponbiderako atalaren eremu garrantzitsua osatzen jarraitzen bazuen ere, euskal herritarren arteko akordioak erreferentziazko lekua hartu zuen ezker abertzalearen diskurtsogintza berrian. Zentzu honetan, eredu autonomikoaren mugen irakurketarekin bat egiten zuten sektoreen zabalpenak eliteen arteko (ETA-Gobernua) norgehiagokaren terminoetan enkistatzen ari zen liskarraldiaren mugak zabaltzeko (Euskal Herria-Estatuak) aukera eman zion ezker abertzaleari; baita honek baliatu ere, protestaldira sektore berriak inplikatzeko saiaturik markogintzaren ‘demokratizazio’ honen bidez. Prozesu hau nagusiki ‘nazio eraikuntza’ estrategia diskurtsiboaren bitartez garatu zela esan dezakegu; *markoen hedatzeen (frame extension)* bidez ordura arteko diskurtsoan bigarren maila batean gelditutako sektoreak edo eremuak (sozio-ekonomia, euskalgintza, ekologismoa, ...) baina jatorrizko helburuekiko lerrokagarriak zirenak, lehenengo lerrora eramanez.

Diskurtsoen bilakaera hau 90. hamarkadaren erdialdetik aurrera bakoitzaren baitan nagusi ziren markoak krisian sartzearen ondorioz eman zirela esan daiteke. *Frame* hauen ‘krisiaz’ ari garenean, errealitate politikoa interpretatzeko marko kognitibo bezala dituzten muga edo gabezien areagotzeaz

ari gara. Horrela, eragile batek diskurtso bidez eraikitzen duen marko kontzeptualak jendartearen eta bere kideagoaren zati handi batentzat erabilgarria izateari uzten dionean, bere diskurtsoa krisian sartzen dela ondorioztatu dezakegu. Gure kasura ekarrita, Ajuria Eneako markogintza anti-terroristak horrenbestetan aldarrikatutako ‘biolentoen porrotak’ edota ezker abertzaleak planteatutako ETA eta Gobernuaren arteko negoziazio politikoen eskaerak ez zuen bat egiten jendartean nagusi zen bortxa politikoen hazkundearekin edota aipatutako negoziazio politikoak Estatuarekin eman ahal izateko ezintasunaren pertzepzioarekin. Beste modu batera esanda, diskurtso autonomistak eta hausturazaleak jendartean *durunda (resonance)* nahikorik lortu ezean, krisian sartu ziren.

Honekin batera, ikuspegi kognitibotik, diskurtsoen krisi edota baliagarritasun falta honen antzematea oso ezberdina zela azpimarratu behar da; bai eragile bakoitzaren aldetik, baita eragile bakoitzaren barruan ere. Horrela, EAJren barruan esaterako, ordura arte bide autonomistari hauspoa emateko baliatutako aliantza egiturak (EAJ-PSE-EE) izan zezakeen garapenaren inguruan, ikuspegi oso ezberdina zuten Jaurlearitako arduradun instituzionalek eta ezker abertzalearekin hamarkada hasieratik mintzaidetzan aritutako ordezkariak. Edota, ikusi dugun bezala, ezker abertzalean zubigintza lanetan zeuden ordezkariak eta hainbat ekintza armatu edo kale eraso burutzen zituztenak.

Zentzu honetan, ideologia, diskurtso eta markoen arteko ezberdintasuna gogoan izanda²⁸², 90. hamarkadaren erdialdeko (95-97) markogintzaren azterketaren ondorio bezala nekez esan dezakegu indar abertzaleen arteko markogintza bateraturik zegoenik. Zentzu horretan, ideologia berberaren baitan (abertzaletasuna edo nazionalismoa), bi diskurtso nagusi aurkitu ditzakegula baieztatu dezakegu: EAJrena eta ezker abertzalearena. Diskurtso hauetako bakoitzak, erreferentziazko bi aldagaiei dagokienez (autogobernua eta bakegintza), *frame* edo marko interpretatzaile ezberdinak bildu zituelarik: autonomista ala deslegitimista eta anti-terrorista ala ‘negoziazionista’. Marko hauek pareak osatuko zituzten (autonomista/antiterrorista eta deslegitimista / ‘negoziazionista’) pare hauek diskurtso nagusiei forma eman zitelarik. Honela laburbildu dezakegu diskurtso eta markoen arteko harremana gure kasuari dagokionez:

²⁸² Begiratua *Atal metodologikoa*.

15.1 taula: *Abertzaletasunaren diskurtso eta markogintzak*

| IDEOLOGIA | <i>Euskal abertzaletasuna</i> | | |
|---------------------|-------------------------------|--------------------------|---------------------------------------|
| DISKURTSOAK | | <i>EAJren diskurtsoa</i> | <i>Ezker abertzalearen diskurtsoa</i> |
| MARKOGINTZAK | <i>Autogobernua</i> | Autonomismoa | Markoaren deslegitimazioa |
| | <i>Bakegintza</i> | Anti-terrorismoa | ETA-Gobernua negoziazioa |

Pare bakoitzak bere barne koherentzia mantendu eta beraien inguruan trinkotuko liriteke abertzaletasunaren baitako diskurtso politiko nagusiak. Lehenengo pareak, Ajuria Eneako Itunean forma hartu zuen; bigarrenakoak, Algerren osteko gogoetetan. Bata zein bestearen izendapena sinplifikatze aldera, lehenengoari diskurtso *autonomista* eta bigarrenari *hausturazalea* deitu diegu.

Alde horretatik, abertzaletasunaren diskurtso bakoitzaren baitan (autonomista eta hausturazalea), erreferentziatzko bi gaien inguruan (autogobernua eta bakegintza), marko edo *frame* nagusi bana bazeudela esan dugu. Bakegintzan, esaterako, EAJri zegokionez, Ardanzak Ajuria Eneako Itunaren bitartez norabidetzen zuena edota ezker abertzaleari zegokionez, Alternatiba Demokratikoak barnebiltzen zuena.

Diskurtso bakoitzak bere barne koherentzia mantenduta ere, hainbat gai eta gertakarien gaineko interpretazio marko ezberdinak biltzen zituen. Horrela, 90. hamarkadaren erdialde horretan, EAJk eta ELAk autogobernuari zegokionez, esaterako, diskurtso autonomista konpartituta ere, irakurketa ezberdina egiten zuten Estatutuaren garapenez, lehentasunez transferitu beharreko eskuduntzez edota egoerari aterabidea emateko konponbide posibleez. Ezker abertzaleari zegokionez, berriz, bakegintzaren eremuan ETA eta Gobernuaren arteko negoziazio politikoaren beharra konpartituta ere, borroka armatuak hori lortzeko betetzen zuen funtzioari buruz edota HBk horri begira jokatu beharreko paperaren inguruan marko interpretatzaile ezberdinak zeuden.

Beraz, diskurtso bakoitzaren baitan, *frame* nagusi horiek errealitate politikoaren interpretaziorako bestelako markoekin elkar-bizi edota lehian kokatzen zirela azpimarratu behar da. Goffman-ek (1974) aipatu bezala, diskurtso bakoitzaren garapenerako, beraien ‘arteko’ elkar-ekintza bezain garrantzitsua izango zen, beraien ‘baitako’ marko edo ikuskeren elkar-ekintza.

Itxuraz 'isolatutako' abertzaletasunaren baitako markogintza hauek elkarren artean harremanetan jarri edota lerratuko dituzten prozesuak ezinbestekoak izango dira garaiko markogintzaren argazki estatiko bat atera nahi ez badugu. Alde horretatik, balioan jarri beharko dugu garaiko ELA eta LABen arteko markoen *zubigintza (frame bridging)*. Snow eta Benfordek (1986) aipatu bezala gai edo arazo baten inguruan ideologikoki kongruenteak (abertzaletasuna) baina estrukturalki deslotutako bi markoen (edo gehiagoren) loturaz ari gara. Definizio honi jarraituz, ELAren eta LABen arteko elkar-lanari erreferentzia egingo dio zubigintzak. Are gehiago, jarraian ikusiko dugun bezala, bi sindikatuon arteko markogintzen arteko zubigintzak abertzaletasunaren bi familia nagusien arteko *artekaritza* mekanismoa aktibatzeke oinarria ere eskaini zuen.

Aipatu dugu diskurtsoak elkar-ekintzan dauden marko interpretatzaileen bildumak direla. Elkar-ekintza honek aurretik indarrean zeuden diskurtsoak moldatuko ditu eta, horiekin batera, beraien inguruan trinkotutako identifikazio politikoak. Moldaketa honetan zaila izango da neurtzea ze punturaino *diskurtso* berri batez ari garen edota hainbat gertaeren gaineko interpretaziorako *marko* komun batez.

Gure kasura ekarrita, ELA eta LABen arteko markoen zubigintzaz zera baieztatu dezakegu: autogobernuari zegokionez, 1997an ELA diskurtso autonomistaren gurpiletik jaitsi zen; LABi dagokionez, berriz, 1995tik aurrera, markoaren salaketa 'hutsetik' harago, parte hartze instituzional bat arakatzen hasi zen. Bakegintzari zegokionez, 1995ko Aberri Egunekeo agiriak Ajuria Eneako *master frame*-a kolokan jartzeak Lizarra-Garaziko deklarazioan jasoko zen gatazkaren konponbiderako metodoaren zabalkuntzan aitzindaritza papera bete zuten.

Alde horretatik, zubigintza honek, momentu horretan abertzaletasunaren baitako diskurtso berri bat egituratzeko baino, zuhurragoa litzateke autogobernua eta bakegintzari lotutako hainbat gaien inguruko *marko interpretatzaile komun bat* eraikitzeke balio izan zuela esatea; baita bi sindikatu hauen mugetatik harago ere.

15.2.2 Protestaldiaren *eskala aldaketa*: ELA eta LABen *artekaritza* eta protestaren *difusioa*.

Marko interpretatzaile berri baten agerpena ez da gertaera diskurtsibo isolatua izango. Ekintza kolektibo gatazkatsuan forma hartu zuen prozesua baizik. Alde horretatik, *eskala aldaketa* prozesu sendoak izan zuen eragina nabarmendu behar dugu. Eskala aldaketa gatazka orokortuago batera eramaten duen ekintza liskartsuen zabalpena litzateke; honek aktore sorta zabalago baten inplikazioa barnebildu eta beraien aldarrikapen eta identitateen arteko zubi-lana egiteko balioko duelarik (MTT, 2005: 367). Liskarraldi garrantzitsu gehienetan bezala gurean ere eskala aldaketa hori 90. hamarkadaren erdialdean presente egon zen. Honek protestaldira aktore berriak gehitu zituen (ELA), lehiatzaileen arteko hartu-emanen ondorioz identifikazio zabalagoak gorpuztu (soberanismoa) eta autogobernuaren garapen faltaren ‘injustizia markoa’ zabaldu.

MTTren ereduari jarraituz, eskala aldaketa, prozesu sendo bezala, beste hainbat mekanismoengatik osatua egongo da. Gurean nabarmentzekoak izango dira batetik ELA eta LABen *artekaritza* (eta bera oinarri hartuta gerora eman zen *koalizioen osaketa*), eta bestetik, batetik, protestarako bitarteko erradikalen *difusioa*.

Artekaritzak eta *difusioak* bide paraleloak jorratu badezakete ere, beraien inplementazioan antzeko mekanismoek parte hartu ohi dute: *antzekotasunen esleipena*, *emulazioa* eta *ekintza koordinatua*. Edozein kasutan batean eta bestean protestarako bitartekoen erabileran ondorio ezberdinak izan zituzten. *Artekaritzaren* kasuan, ELAk eta LABek elkarri antzekotasun nahikoak aitortuta, eliteen arteko norgehiagoka (ETA-Gobernua) politiko-militarrera mugatzen ari zen gatazkaren mugen zabalpena eta maila bateko ‘demokratizazioa’ ekarri zuela esan dezakegu; sektore sozial berriak liskarraldira inplikatu eta, ‘ondorio orokorren’ atalean sakonago ikusiko dugun bezala, gatazka bera bide antagonikoetatik baino agonistikoetatik bideratzeko aukera zabaldu nahi zuen heinean. *Artekaritzaren* eraginak ez ziren hor bukatuko. Gerora EAJ, EA eta EH-ren arteko legebiltzarreko akordioan forma hartu zuen *ekibalentzia instituzionalaren* mekanismoan horren eragina soma dezakegu, esaterako. *Difusioaren* kasuan, berriz, ETAREN ekintza armatuen jo mugen zabalpenak edota kale borrokako ekintzen herriz herriko emulazioak bitarteko hauen *erradikalizazioa* ekarri zuen.

MTTk aipatu bezala, *difusioa* eta *artekaritza* liskarraldi handietan uztartuta agertu ohi badira ere, eskala aldaketaren izaeran desberdintasun handiak emango dira segun eta bietako zein nagusitzen den. Are gehiago, gurean bi mekanismo espezifiko hauen arteko *lehia* ere zabaldu zela esan dezakegu; batez ere, protestarako bitarte erradikalen *difusioak* *artekaritzaren* garapena baldintzatzen zuela agerian gelditzen zenean.

Protestaldiaren bortxazko difusioa eta artekaritzaren arteko uztarketa saiakerak ezker abertzalearen markogintza ‘demokratikoaren’ eta ekintza kolektiborako errepertorioaren arteko *disonantzia diskurtsibo* nabarmenera eraman zuen. Disonantzia diskurtsiboak prozesu kognitiboei erreferentzia egiten die. Bertan subjektu baten marko interpretatzailearen eta jendartean nagusi den errealtatearen ulermenerako markoaren arteko deslotura emango delarik. Are gehiago, deslotura honen intentsitate handiak marko kulturalen kontrakotasunari erreferentzia egin ohi dio. Aipatu dugun bezala, maila handi batean erreferentziazko taldearen eta jendartearen arteko sintonia diskurtsiboaren arabera ebatziko da lehenengoaren legitimitatea eta, ondorioz, lehia hegemonikoan arrakastarako izango dituen aukerak. Alde horretatik, Alternatiba Demokratikoaren agerpenak gatazkaren terminoak diskurtsiboki ETA eta Gobernuaren arteko lehiatik ‘Euskal Herria eta Estatuen’ arteko terminoetara desplazatuz hauek zabaldu eta demokratizatzeko ahalegina bazegoen ere, protestarako bitartekoen erradikalizazioak markogintza demokratiko horretara bildu nahi ziren sektoreekiko sintonia zaildu egiten zuen. Eskema hau protesta mugimenduei ez ezik instituzioekin ere aplikagarria izango da; sistemak jendartearekin zenbat eta sintonia handiagoa, orduan eta legitimoagoa bezala ulertu ahal izango dugularik. Zentzu honetan, ezker abertzalearen markogintza demokratikoa ez zen disonantzia eragingo zuen bakarra. Ajuria-Eneako Itunak gertaera politikoak ulertzeko eskaintzen zuen marko interpretatzailearen aurrean (anti-terrorismoa) jendarteak geroz eta harmen txikiagoa erakusten zuen, ‘biolentoen porrotaren’ diskurtsuaren ondoan biolentziaren hazkundera geroz eta agerikoagoa ematen ari zelarik.

Zentzu horretan, 90. hamarkadaren erdialdean *difusioak* izan zuen eragina ukaezina da. Diskurtsogintza eta praktikaren arteko disonantziak ezker abertzalearen eskaintzaren sinesgarritasunean eta legitimazioan eragin kaltegarria izan bazuen ere, ezin uka *erabakiaren* schmittiarraren nagusitasun honek ondorio zuzenak izan zituela garaiko deslerrotzeetan. Ardanzak berak bere planean aitortu bezala borroka anti-terroristak ezker abertzalearen eta ETArengan higadura nabarmena eragin bazuten ere, nekez aurreikusi zitekeen horren bidez ‘garaipen polizialaren eta politikoaren’ azken helmugara iritsi zitekeenik. Zentzu horretan, Lizarrako Akordioaren aurreko urte horietan ezker abertzalearen logika politikoak eredu *hegemonista* bati baino, *dezinisionista* bati erantzun ziola esan dezakegu; edota, beharbada asko sinplifikatuz, Lenin Gramsci-ri gailendu zitzaioela.

Ekintza kolektiboaren ikuspegitik kale borrokaren gorakadaren edota ETArekin ekintzen jo puntuen zabalkundearen eskutik emandako protestaldiaren difusioak eta erradikalizazioak hurrengo puntuan

laburbilduko dugun *polarizazioaren* prozesu sendoari ere bide eman zion. Momentuz, diskurtso ezberdinak eta ekintza kolektiborako mekanismoak nola kateatu ziren aztertze aldera, aipatu dezagun polarizazioak bere-berezko duela *aukera eta mehatxuen espiralaren* mekanismoa, non gertakariak bata bestearen segidan espiral moduan geroz eta azkarrago esleituz, eragileak aurretik kokatu gabeko espazioetan eta aurre-ikusitako gabeko egoeretan aurkitu daitezkeen. Izenak berak dioen bezala aukeraz eta mehatxuz beteriko eszenario batean kokatuko dira aktoreak, horretarako polarizazioa bultzatzen duten aktoreek arrisku handiak hartzen dituztelarik. Aztertzen ari garen epealdian bezala, mekanismo honek denbora tarte laburrean ematen diren aldaketa prozesu handiak ulertzeko aukera ematen digu.

Hala ere, MTTk esaterako, difusioaren aldean, artekaritzaren alde egingo dute. Zergatik? Bortxazko difusioak bizitza soziala ezaugarritzen duten mugak nekez gainditu ahal izango dituelako; artekaritzak, aldiz, definizioz, marra hauen bi aldeetan kokatzen diren sektoreen arteko hartu-emanak areagotuko dituelako. Hori bai, artekaritzak difusioak baino denbora, inizatiba eta markoen eraldaketarako gaitasun handiagoa eskatzen ohi ditu. Horregatik artekaritzak difusioak baino eragin sakonagoak izaten ditu. ELA eta LABen artekaritzak horretarako bidea ireki zuen. Harreman horien ondorioz abertzaletasunaren bi familia nagusien arteko *antzekotasunen esleipenak* gatazkaren mugak desplazatu ('demokrata vs biolentoak') eta lehia hegemoniaren terminoak aldarazi zituela esan dezakegu. Zentzu horretan, ez dira gutxi autonomismoaren agortzearen irudi bezala bi sindikatuon arteko garai horretako elkar-lana buruan dutenak. Izan ere, marra horien bi aldeetan kokatzen ziren eredu edo paradigmen arteko uztarketan kokatu zitezkeen beraien potentzialitatea; ez gehiketa huts bat bezala, baizik eta burujabetzaren aldeko bidea urratzeko logika berri gisa. Laburbildu ditzagun ezaugarri horietako batzuk:

- *'Kanpo' eta 'barne' logikaren uztarketa*: ELA, eredu autonomikoaren legitimaziotik abiatuta, eta LAB, eredu horrekiko hausturaren apustutik abiatuta, bide konbergenteak jorratzera jo zuten. Instituzionalizaziotik kontra-boterera eta kontra-boteretik instituzionalizaziorako bidean, sistemarekiko kanpo eta barne logikan arituko diren dinamika emankorra landu zuten.
- *'Behetik gora' eta 'goitik behera'-ko ereduaren uztarketa*: euskal sindikalgintzak, botere politikoa lehiatu nahi duen mugimendu sozial klasiko bezala, erakunde publikoen erabakiguneetan eragiteko helburua jarri zuen. Aldi berean, autogobernuaren instituzionalizazioaren ondorioz erakundetutako hainbat botere guneetan (Lan Harremanetarako Kontseilua, ...) beraien presentzia balioan jarriz, eremu sozial ezberdinetan

eragina zuten politika publikoak jorratu zituzten (Langileen Etengabeko Formakuntzarako Akordioa, Enplegua sustatzeko Akordioa, ...).

- *Prozesuaren dimentsio nazionala eta sozialaren uztarketa*: estatu mailako sindikatuen eta konstituzionalismoaren ahaleginik behinenetakoa ELAk eta LABek osatzen zuten gehiengo sindikala nazionalismoaren helburu partikularrekin lotzea izan bazen ere, euren jardunaren izaera sozialak abertzaletasunetik haragoko sektoreak barnebiltzeko marko diskurtsiboa eskaini zuen. Abertzaletasunaren izaera etnikotik haragoko identifikazio politikoen artikulaziorako, 60. hamarkadan baliatutako ‘Pueblo Trabajador Vasco’-ren kategoria eguneratu eta biziberritzeko ahalegina bezala ulertu dezakegu.
- *‘Boterearen’ eta ‘eraginaren’ dimentsioen uztarketa*: euren burua kontra-botere mugimendu bezala definituta, botere politikoa eskuratzea azken helburutzat hartuko dute; zentzu politiko-instituzionalean baino, hegemoniaren adiera politiko-sozialean. Ikuspegi honek, aldiz, eguneroko urratsen bitartez trinkotzen joango zen eredu politiko-sozialaren eraikuntzaren aldeko apustuan forma hartu zuen. Izan ere, botere politikoa *gertaera* lacaniarraren ondorioz baino, eguneroko praktika sozialaren bitartez sedimentatzen doan prozesu politiko bezala ulertuko baitute.

15.2.3 Pronostiko bateratu bat: ‘Marko politikoaren aldaketaren’

helburua.

Arrakastatsua izan nahi duen markogintzak ez ditu soilik arazoari aurre egiteko konponbideak jaso behar, horretarako estrategiak, taktika eta helburuak identifikatu beharko ditu. Horrela, ‘aldaketaren’ kategoria prozesu liskartsuen helburu orokorra bihurtu ohi da; funtsean botere bitartekoen banaketan ematen diren ezberdintasunetan eragitea helburu duena. Protesta mugimenduak ekintza kolektiboaren bitartez harreman politikoetan bere interesen alde eragitea lortzen duen heinean ‘aldaketa’ arrakastatsua izango zaio. Hala ere, nekez aurkitu ahal izango dugu ‘aldaketaren’ inguruko definizio bateraturik, terminoaren zabaltasunak eta lausotasunak bera eragozten dutelarik. Erreferentzia bat jartzearren aipatu dezagun Gallino-k (1993) planteatutako definizioa:

“relatively wide and non-temporary, though not irreversible, variation or difference or alteration in the properties, in the state, or in the structure of the social organization of a given society, that is, in the relations between the major social systems that form it-be they

related to the economic, political, state, religious, or family spheres or within one of such systems or in one or more institutions among those linked to it, observable at a certain moment with respect to a previous one, considering the identity of the unity to which one refers and the variables taken into account to single out the variation” (Gallino, 1993: 437)²⁸³

Lizarra-Garaziko prozesuaren testuinguruan abertzaletasunaren baitan nagusitu zen ‘markoaren aldaketaren’ eskaerak zabaltasuna bera zeraman bere baitan. Baina lausotasun hau aldaketa prozesuan aurrera egiteko ezinbesteko baldintza ere izango da. Laburbildu dezagun Laclairen (2005) kategoriak baliatuta estadio horretara iristeko emandako urratsak: 90. hamarkadan Estatuaren partetik autogobernuaren garapenean emandako geldialdiak eskuduntzen transferentzien *eskaera (demanda) aldarrikapen (reclamo)* bihurtu zuen; batetik besterako jauzia sistemak eskaera horiek asetzeko erakusten duen gaitasun edo borondate ezan kokatuta. Laclairen berak aipatu bezala sistemak barneratzen ez dituen eskaeren arteko elkartasun edo ekibalentzia sortzera joko da. Horrela, garapenik ez zuen diskurtso autonomista eta hausturazalearen arteko oinarritzko sintonia hori gorpuzten hasi zen, sistemaren onargarritasunetik kanpo gelditzen ziren eskaera bezala. Ekibalentzia horren gutxieneko izendatzaile komuna ‘markoaren aldaketaren’ inguruan artikulatzen hasi zela esan dezakegu, ‘aldaketa’ bera lehia hegemonikorako beharrezkoa den *bazterketa* eraginez. Bazterketa hau ‘aldaketaren’ alde (soberanistak) eta kontra (konstituzionalistak) zeuden identifikazioen inguruan trinkotu zen. Zentzu honetan, identifikazio hauek *diferentzialak* izango dira; hau da, ez genioke horrenbeste erreparatu behar bere baitan biltzen diren eskaeren arteko adostasunari, baizik eta kanpoan uzten den horrekiko sortzen den bazterketaren ondorioz gorpuzten den barne kohesioari edo identifikazio berriari.

Eskaeren edo diskurtsoen arteko ekibalentzia emateko (kasu honetan, diskurtso autonomista eta hausturazalearen artean) beraien bereizgarritasunaren eduki hustuketa bat eman beharko da. Lausotze prozesu honek hegemonia (soberanista) berri baterako ezinbesteko baldintza izango bada ere, aldi berean, prozesua bera ezaugarritzea zailduzuen. Izan ere, zer zen zehazki batzuk eta besteek aldarrikatzen zuten ‘markoaren aldaketa’ hori? Aipatu dugu populismoa, politikoaren artikulaziorako bide bezala, lausotasun eta definizio eza hori berezko duela; hortaz, prozesu politikoen jatorrizko elementua izango dela. Baina teoria posthegemonistek ohartarazi bezala hori bilakatuko da horrelako prozesu guztien dilema: identifikazio berri baten artikulaziorako eskaerek beraien partikularitasuna difuminatu beharko badute ere, lausotze honek aldaketa prozesua indarrik gabe utzi dezake.

²⁸³ Giugni-ren (1998: xi) testutik jasota.

Gure kasura etorrita, gerora sakonduko dugun bezala, abiadura ezberdinez abertzaletasunaren sektore ezberdinetan barneratzen joan zen ‘markoaren aldaketaren’ aldarrikapena, nagusiki statusari eusteko eskaeraren alde egin zutenekiko kontrakotasunean artikulatu zela esan dezakegu. Laclaren ustez, antagonismoan oinarritutako identifikazioen artikulazioa prozesu liskartsuen ezaugarri negatibo bat baino, *politikoaren* eraikuntzaren berezko ezaugarria izango da. Baina hegemoniaren eraikuntzan, lehiatzaileek zeren *kontra* dauden argitzetik harago, zeren *alde* dauden ere argitu beharko dute, bertan azaldu zirelarik errealitate politikoa interpretatzeko ikusmolde ezberdinak. Zentzu honetan, berriro ere nabarmendu beharko genuke ELA eta LABen saiakera norberaren eskaeren partikulartasunetik harago, abertzaletasunaren baitan ordura arteko diskurtso nagusiak gainditu eta soberanismoaren kategoriaren inguruan identifikazio berri bat artikulatzeko. Izan ere, funtsean “*Herriaren eraikuntza eragile sozialen arteko harremana*” izango baita (Laclau, 2005: 97).

‘Markoaren aldaketaren’ helburua ordura arte autogobernuan aurrera egiteko nagusitutako bi diskurtsoen krisian gainean eraikiko zen; autonomismoaren alde biktotasunak eta ETA-Gobernuaren arteko negoziazio politikoaren ereduak erakutsitako mugen gainean, hain zuzen ere. ‘Aldaketa politikoaren’ kategoriak krisi bikoitz horrek sortutako hutsunea estaltzeko marko diskurtsiboa eskaini zuen; baina aldi berean, hutsune hori betetzeko diskurtso bakoitzaren partikulartasunen arteko lehiak ekibalentzia katea artikulatzea zaildu zion.

Diskurtsoek une horretan behar zuten zehaztasun maila zen 98-99 epealdiaren lehia ezaugarritu zuena. Izan ere, aipatutako ‘marko aldaketaren’ eskaerari EAJk “prozesu politiko eta sozialaren” bide lausoa proposatzen zion bitartean, ezker abertzaleak goitik behera zehaztutako prozesu konstituziogilea kontrajartzen zion. Gerora ‘ameskerien’ eta ‘iruzurren’ akusazioek prozesua ito zuten, baina hori guztia baino lehen ordura arte euskal politikagintzaren bilakaera erabat baldintzatu zituzten aldaketa diskurtsiboak eman ziren. Autogobernuaren diagnostikoaren ikuspegitik biurteko horretan eredu autonomikoaren problematizazioaren zabalpena eman zen, herri honetako sindikatu nagusia bere ‘heriotza’ zertifikatzeraino. Ez hori bakarrik; Ollorak (1996) denbora bat lehenago esandakoaren haritik, *kausaren atribuzioan* estatu mailako gobernu bat edo beste egotetik harago, “hori baino zerbait gehiago” zegoenaren ideia zabaldu zen marko politikoa aldatzeko helburua orokortzearen atzean.

Hori guztia ordura arte autonomismoaren inguruan bildutako sektore sozialari zegokionez. Ezker abertzaleari begira, aldiz, epealdi honetan Alternatiba Demokratikoaren kaleratzearekin gorpuzten

hasitako *objektu aldaketaren* mekanismoa sendotu zela esan dezakegu. ETA eta Gobernuaren arteko negoziazioak diskurtsogintzan ez ezik ekintza kolektiboan ere pisu nabarmena izaten jarraitzen bazuen ere, errealitate politikoa interpretatzeko eraiki nahi zen marko berrian euskal herritarren arteko adostasunean auto-zentratu nahi zen erreferentzia politiko nagusia. Markogintzaren ikuspegitik, ‘abertzaleen arteko elkarlanaren’ ideia Monzonen Maltzagaren metaforan zahar-berrituan forma hartuta, burujabetzaren helburua betetzeko bidea indar berrituta agertzen zen eragile abertzale ezberdinen diskurtsoetan.

Hori guztia ezinezkoa litzateke ordura arteko marko nagusiaren *eraldaketa (frame transformation)* gabe. Markoen lerrotze prozesu gehienek markoen arteko sintonia maila bat adierazten badute ere, mekanismo diskurtsibo honek marko batek jendartean oihartzun edo *durunda (resonance)* nahikorik ez duenean eman beharreko aldaketari erreferentzia egingo dio. Gure kasuan jada aipatu dugun *disonantzia diskurtsiboarekin* lotuta egongo da; izan bakegintzaren eremuan Ajuria Eneako Itunak hauspotutako ‘biolentoen porrotaren’ diskurtsoak kalean ikusten zenarekin zerikusirik ez zuenean edota ezker abertzalearen markogintza demokratikoak protestarako bitartekoaren erradikalizazioarekin bat egiten ez zuenean. Errealitate politikoaren interpretazioan marko horien krisia agerikoa zen, azken urteetako *master frame* antiterrorista (‘demokrata vs biolentoak’) ordezkaturiko zuen ikuspegi berria beharra azaleratuz.

Lizarra-Garaziko Akordioak, gatazka politikoaren konponbiderako metodo bat eskaintzeaz harago, errealitate politikoa interpretatzeko ikuspegi berri hori eskaini zuen; bide polizialaren lehentasunaren aurrean negoziazio politikoa aldarrikatuz; ekintza biolentoen distentsioa eskatuz; edota arreta politikoa eskuduntzen transferentzien eskaera etengabe bano, euskal herritarren ‘hitza eta erabakian’ kokatuz. Jarraian ikusiko dugun bezala, aldaketa diskurtsibo honek eragile politikoak horren arabera berrantolatzea eskatu zuen, kategoria politiko zahar-berrituen bide emanez eta liskarraldia horren arabera garatuz.

15.2.4 Soberanismoaren kategoria osaketa, hainbat muga konpartitzen dituzten taldeen multzoa bezala.

Ekintza kolektiboaren ikuspegitik soberanismoaren eraikuntzan bi bitarteko teorikok parte hartu zutela esan dezakegu: batetik, *kategoriaren eraikuntzaren* mekanismoa eta bestetik, *aktore*

osaketaren prozesua. Lehenengoa identifikazio politikoen osaketan parte hartzen duten mekanismoen multzoan kokatu dezakegu; bigarrenengoa, MTTk liskarraldietan ohikoak izaten diren prozesu sendo bezala deiturikoetan. Identifikazio eta aktoreen arteko muga fina bada ere, autoreok mekanismo eta azpi-mekanismo ezberdinak bereiziko dituzte bata eta bestearen artikulazioan. Soberanismoaren eraikuntzaren kasuan, esaterako, identifikazio politiko bat adierazten duen kategoria sozial bezala, *asmakuntza*, *mailegua* edota *topaketa* bezalako azpi-mekanismoak ezberdindu ditzakegu. Horrela, kasuan kasu, konstituzionalismoarentzat soberanismoa euskal abertzaletasunaren *mailegu* zahar-berritua edota *asmakuntza* baino izan ez zen bitartean, beste hainbat diskurtso demokraziaren inguruan artikulatutako *topaketaren* zentzutik gertuago kokatzen ziren, atal enpirikoan jasotako Ibarraren (1999) pasarteetan ikusi bezala.

Gure kasuan interesgarriagoa *aktore osaketa* prozesuak jasotzen dituen mekanismoek zer nolako bilakaera izan zuten aztertzea izan daiteke; beti ere, kontutan izanda nekez hitz egin ahal izango dugula ‘soberanismoaz’ aktore bakar eta homogeen bezala. Esan bezala, MTTk beraiek identitate eta aktoreen arteko muga era zorrotzean bereizten ez badute ere²⁸⁴, hainbat mekanismo zehaztuko dituzte prozesu honen eraikuntzan. Nagusiki bi azpimarratuko dituzte: *jabetza soziala* eta *ekintza berritzailea*. Lehenengoari dagokionez, MTTk egiten duten definizio zehatzari erreparatzea merezi du mekanismo honek gurean izan zuen bilakaera interpretatzeko. Honen arabera “ekintzaileek antolakuntza oinarri bat sortu edo jada existitzen den bat baliatu beharko dute liskarraldirako eraldatzeko” (MTT, 2005: 51). Ezker abertzalea 90. hamarkadaren erdialdean egin zuen gogoeten eskutik, bere parte hartze instituzional auto-mugatua zabaltzen joateko egindako hautua eta artekaritzaren bitartez ordura arte posizio autonomikoetan kokatutako sektoreak irakurketa ‘soberanistagoetara’ erakartzeko erakutsitako gaitasuna jabetza sozialaren mekanismoa aktibatzen saiakera bezala ulertu ditzakegu; zertarako eta autonomismoa, ‘jada existitzen antolakuntza oinarri’ bezala liskarraldirako bitarteko bihurtzen saiatzeko. Mekanismo hau aktibatzen saiakeran sortutako barne-kontraesanak (aldaketa prozesua ‘kanpotik ala barrutik’) edota arrakasta maila aurrerago zertzelatzen saiatuko garen beste eztabaida batzuk dira. Izan ere, jabetza sozialak taldearen antolakuntzarako bitarteko bat izatetik harago, taldearen izaera eta helburuak eraldatzen bait ditu (MTT, 2005: 351), talde lehiatzailea aldaketa horretarako ere prest egon beharko delarik.

Baina bada bigarren mekanismo bat funtsezkoa izango dena soberanismoaren eraikuntzan, *ekintza berritzailea*. Gurea bezalako liskarraldi batean, non ekintzaileak protestarako bitarteko

²⁸⁴ Zentzu honetan, aipagarria da autoreok hainbatetan aipatzen dutela “la constitución de nuevos actores políticos y de nuevas identidades” eta beste hainbatetan prozesu berberari erreferentzia egiten diotela soilik “constitución de actores” aipatuz (MTT, 2005: 349-352).

erradikalizatuenetako baten (borroka armatua) ‘errutinizazioaz’ hitz egitera iristen diren²⁸⁵, zer den berritzailea eta zer kontserbadorea bereiztea zaila izan daiteke. Edozein kasutan, aztertzen ari garen epealdiari dagokionez nabarmentzekoa izango da eman ziren mobilizatorako bitartekoen aldaketak eta hauek jabetza sozialaren mekanismoarekin izan zuten lotura. Alde horretatik, esan gabe doa protestarako bitartekoen erabileran emandako aldaketarik nabarmenena ETaren su-etenaren eta burujabetzaren aldeko indarren arteko elkarlanaren eskutik eman zela, jada azaldutako ezker abertzalearen instituzionalizazio mugatuaren zabalpenarekin eta jelkideek, Udalbiltza bezalako erakundeen eskutik, arakatutako instituzionalizazio bide berrien eskutik. Elkarlan honek, aldi berean, forma zehatza hartu zuen *aktore ezberdinen osaketari* bide emanez: hautetsien plataformak, presoen eskubideen aldekoak (Batera), ... Jabetza sozialaren eta ekintza berritzailearen osagarritasunaren adibide bezala, lehenengoaren eskutik ezker abertzaleak zabaldutako parte hartze instituzionalak bide eman zion EAJ, EA eta EHren arteko legebiltzarreko elkarlanaren jardun berritzaileari, jelkideek gobernagarritasuna izateko behar zuten gehiengoak bermatuz.

Mekanismoen kateaketa honetan badira esanguratsuak diren eta elkar lotuak agertzen zaizkigun azken bi mekanismo: *zertifikazioa* eta *aukera eta mehatxuen atribuzioa*. Ekintza berritzailea eta zertifikazioaren arteko lotura zuzena da. Izan ere, lehiatzaileek bere protestarako bitartekoen bidez badakite liskarraldian dauden beste eragileen aldetik beraien eta beraien eskaeren aitortza lortu edo errefusatu dezaketela, unean une errepertorioa egokitzen joan beharko delarik. Moldaketa honek ere bere identitatean eragina izango du, kategoria berri baten eraikuntzari ateak zabalduz. Baina prozesu hau lehiara ‘inkorporatzen’ den sektorearengan ere emango da, bertan ere instituzionalizatu gabeko jardueretatik kanpo aritzeko erresistentziak handiak egon eta jatorrizko nortasunari eusteko tentaldia handia izan daitekeelarik. Hori izan zen abertzaletasunaren bi familia nagusiek epealdi honetan bizi izan zuten historiaren laburbilduma.

Eta beste alde batetik, abertzaleen arteko elkarlanaren ondorioz eman zen ekintza berritzaileak aukera eta mehatxu ezberdinak ireki zituela aipatu behar dugu; bai burujabetzaren aldeko sektoreentzat, zein kontrakoentzat. Orain arteko irakurketak aukeretan zentratu baditugu ere, agerikoa da konstituzionalismoarentzat suposatuko mehatxua; batez ere ikuspegi instituzional batetik. Besteak beste, azken urteetan estatu mailako logikan kokatutako alderdia erkidegoko gobernagarritasunetik atera eta oposizioan kokatzen zuelako. Honek aldi berean, konstituzionalismoa abertzaletasunaren deszertifikazio prozesuan kokatu zuen; baita ordura arte ‘nazionalismo moderatua’ deitutakoarena ere, atal enpirikoan aipatu dugun bezala hurrengo hilabete

²⁸⁵ Begiratu Casanova (2008).

eta urteetan zabaldu zen euskal abertzaletasunaren aurkako *erasoen orokortzearen* mekanismoaren bitartez forma hartu zuena.

15.2.5 Konstituzionalismoarekiko polarizazioa, aurkaritza sistemaren ardatz berria

Hegemonia lehiatu nahi duen mugimenduak artikulatzen dituen eskaera ezberdinen ekibalentzia katearen aurrean sistemak bi jarrera hartu ahal izango ditu: eskaerak beraien artean indibidualizatuz horietako batzuk sisteman barneratu ala sistemaren onargarritasunaren mugak gotortuz horiek ez asetzea. Lehenengo joera sistema demokratikoetan ohikoa izaten da; bigarrena, berriz, autoritarioetan. Ikusi dugun bezala, sistemaren bigarren jarrerak eskaeren arteko elkartasuna gorpuztera jo ohi du. Gure kasuan, autogobernuaren garapenerako eskaeren aurrean Estatuak erakutsitako harmen apalak autonomismoaren eta ezker abertzalearen diskurtsoen arteko sintonia maila bati bide eman ziolarik. Laclaren (2005) kategoriak baliatuta, 90. hamarkadako giro horrek zentro eta periferiaren arteko gatazka lehia demokratikotik lehia populistara desplazatu zuela esan dezakegu; hau da, sistemaren onargarritasunaren eremutik onartezintasunarenera.

Polarizazioa, aztertu dugun hirugarren prozesu sendo bezala, honezkero ezagunak zaizkigun hainbat mekanismoengatik osatua egongo da. Horietako garrantzitsuenetakoa jada aztertutako *aukera eta mehatxuen espiralarena*. Izan ere, tarteko espazio politikoa mugatzen duen prozesua bezala, gure kasuan deigarria izan zen ze denbora epe laburrean polarizazioaren terminoak goitik behera eraldatu zituen, ‘demokrata eta biolentoen’ markotik ‘soberanista eta konstituzionalisten’ artekora desplazatuz. Jada aipatu dugun bezala, 90. hamarkadaren erdialdeko *eskala aldaketaren* eskutik emandako protestaldiaren *difusioak* ezker abertzalearentzat bere isolatzen politiko eta sozialaren mehatxua inoiz baino agerikoa egiteaz gain, abertzaletasunaren gainontzeko sektoreentzat ere arrisku nabarmena suposatzen zuen 97ko Ermuako gertakarien eskutik zabaldu zen olatu konstituzionalistaren aurrean. Egoera horren gainean aukera bat zabaldu zen orduko marko nagusiak eguneratu eta lerrotze politiko berrietarako; izan soberanisten aldetik aliantza egitura berri baten bidez autogobernua sakontzeko, izan konstituzionalisten aldetik tarteko espazio autonomista murriztuz zentralizazioan sakontzeko.

Ez zen protestaldiaren difusioa izan aukera eta mehatxuen espiral hau zabaldu zuen arrazoi bakarra. Jada aztertu dugu ere ELA eta LABen *artekaritzak* orduko indaren markogintza antiterroristan zabalduko pitzadurak. MTTk esan bezala, sektoreen arteko elkarlana eraikitzeke difusioaren mekanismoa baino eraginkorragoa izango da, bere artikulazioak lan eta dedikazio handiagoa eskatzen badu ere. Alde horretatik, mekanismo honen (ber)aktibazioaren ondorioak agerikoak izan ziren: EAJ, EA eta EH-ren arteko *koalizioaren sorrera* bide eman zion, honek izaera hauskorra izanik ere; okupatutako langileen Etengabeko Formakuntza bezalako gai zehatzen gaineko *karga ideologiko eta politikoa areagotu* zuen; edota hilabete gutxi batzuk lehenagora arte Ajuria Eneako Itunaren inguruan sortutako *koalizioaren berrosaketa* denbora luzez eragotzi zuen.


Bestetik, *kategoria sozialen formakuntza* ere presente egon zen polarizazio prozesuan zehar: aurreko atalean aipatu bezala, batetik, soberanismoari bide emanez, eta beste alde batetik, konstituzionalismoari. Azken honek bloke kontra-hegemonikoaren funtzioa bete zuela esan dezakegu: batetik, Estatuaren aparatuak (Barne Ministerioa, inteligentzia zerbitzu, judikatura, ...) barnebiltzen zuen *jendarte politikoa* aktibatuz; bestetik, iritzi publikoa edo *jendarte zibilarengan* mehatxuaren espiralean oinarritutako marko interpretatzailea zabalduz, non komunikabideek²⁸⁶ eta bestelako plataforma zibilek (Foro de Ermua, Basta Ya, ...) funtsezko papera jokatu zuten; eta hirugarrenik, hainbatetan deitoratutako *intelektualen* figura berreskuratuz jendartean nagusi izango zen sen onaren eraikitzaile nagusi bezala. Ildo honetan, hainbatetan intelektualen figurak *artekariaren* funtzioa ere bete zuela esan daiteke. Alderdi edo jatorri ideologiko ezberdinetatik zetozen pertsonai hauek, alderdi estatalisten muga tradizionalak gaindituz, Konstituzioarekiko leialtasunean kokatzen ziren baina aurretik deslotuta zeuden sektoreak harremanetan jartzen zituztelarik. Izan ere, kasu hauetan lehia antagonikoa osatzen duen muga, (kontra)mugimendua osatzen duten taldeak bereizten dituzten mugak baina sendoagoa izango da, artekarien lanak kategoria sozialaren barruko taldeen arteko harremanari bide emango diolarik.

Polarizazio honek maila ezberdinetako eraginak izan zituen. Hamarkadaren bukaeran ezagututako protestaren difusio erradikalizatuaren apaltzea eta parte hartze elektoralaren gorakada izan ziren (begiratu 12.2 eta 13.3 grafikoak, hurrenez hurren) prozesuaren demokratizazioaren ikuspegitik eraginik nabarmenetakoak. Baina aliantza eta aurkaritza sistema ere eguneratu zuen *kategoria sozialen (berr)osaketaren* eskutik. Aldaketa hauek lehia politikoaren terminoak ‘demokrata eta biolentoen’ kategorietatik ‘soberanista eta konstituzionalisten’ artera desplazatzeaz gain, talde

²⁸⁶ Petxo Idoiagak eta Txema Ramirez de la Pisciñak epealdi honetan komunikabideek jokatu zuten paperaren azterketa zehatza *Al filo de la (in)comunicación. Prensa y conflicto vasco* (2002) liburuan egin zuten.

bakoitzaren barruko indar korrelazioetan joera aldaketak ere ekarri zituen, kategorია bakoitzaren muturretan kokatzen diren sektoreak indartuz (ezker abertzalea soberanisten artean eta PP konstituzionalisten artean). Soberanismoaren kategoriaren osaketa, MTTren adieran “muga batzuk konpartitzen dituzten taldeen multzoa” bezala ulertuta, hamarkadaren bukaerarako barne mugak kanpokoak baino sendoagoak bilakatzen joan ziren eta harremanak geroz eta lehiatsuagoak bihurtu. Izan ere, jarraian ikusiko dugun bezala, konstituzionalisten eta burujabetzaren aldeko sektoreen errealitate politikoaren marko interpretatzailearen barne kohesioaren bilakaera proportzionalki alderantzizkoa zen; lehenengoak 2000. urteko Itun Antiterroristan forma hartuko zuen bateratze prozesu baterantz urratsak ematen ari ziren bitartean, bigarrenen desadostasunak geroz eta agerikoagoak ziren. Horrela polarizazio mekanismoaren bilakaera mende berriarekin batera alde anitzetako *lehia* mekanismoaren aktibazioa bideratu zela esan dezakegu.

Ekintza kolektiboaren azterketarako agenda berriaren kritikoek azaldu bezala, aldiz, mekanismoen izaera kausala edota ondoriozkoa eztabaida labainkorra izango da, hainbat kasutan oiloa eta arrautzaren eztabaida berdineran eraman gaitzakeelarik. Adibide bat jartzearren, soberanismoaren edo konstituzionalismoaren kategoriaren osaketak polarizaziori bide eman ziola esan dezakegu ala aurretik emandako ekintza kolektiboaren polarizazioaren bitartez osatutako kategoriak ziren? Kasu honetan, elkarri elikatzen dioten prozesuen logikan ulertzea, modu linealean ematen diren gertakarien zentzuan ulertzea baino zentzuzkoagoa dirudi.



15.4 irudia: Mekanismo eta prozesu ezberdinen implementazioa.

15.2.6. Motibaziorako marko ezberdinen arteko lehia: ezker abertzalearen ‘haustura konstituziogilea’ eta Ibarretxeren ‘erreforma soberanista’ demokratizaziorako paradigma ezberdinak bezala.

Atal metodologikoan diagnostiko eta pronostikoaren arteko korrelazioa normalean argia izango dela aipatu dugu baina, hainbatetan, honek ez du zertan automatikoki ekintza zuzentzailea mahai gaineratuko. Egoera honek marko motibatzaile baten gabezia azaleratu ohi du. Hortaz, motibaziorako markoak ekintzarako beharrezkoa den bizigarria eskaini beharko du. Honakoa hizkera, sinbolo edota nortasunen eraikuntzarekin lotuta egongo da; jendea ahalduntzearen aferarekin, hain zuzen ere. Alde horretatik, gure hipotesia abertzaletasunaren baitako familia bakoitzak paradigma ezberdinei erantzuten zien motibaziorako markoa eskaini zuela da; atal enpirikoan ikusi dugun bezala, bakoitzak bere hizkera, sinbolo eta nortasunen eraikuntzarekin.

Benford-ek (1993) ekintza kolektiboan parte hartuko duten kideen motibazioa areagotuko duten lau kategoria multzo nabarmenduko ditu: *intentsitatea*, *urgentzia*, *eraginkortasuna* eta *duintasuna*. Lau hauek kasu zehatzetan aplikatzerakoan, bakoitzari ematen zaion garrantziaren arabera, era osagarrian baino era kontraesankorrean ere jokatu dezakete. Gurean ere, modu ezberdinean ulertutako intentsitatea, urgentzia, eraginkortasuna eta duintasuna paradigma horien formulazio ezberdinei erantzun zielarik.

15.2 taula: *Ezker abertzalearen eta EAJren motibaziorako markoak*

| | ‘Hautura konstituziogilea’ | ‘Erreforma soberanista’ |
|------------------------|------------------------------------|-------------------------------------|
| <i>Paradigma</i> | ‘Iraultzailea’ | ‘Erreformista’ |
| <i>Intentsitatea</i> | Hautura demokratikoa | Demokratizazio mailakatua |
| <i>Urgentzia</i> | Handia | Txikia-ertaina |
| <i>Eraginkortasuna</i> | Prozesu konstituziogilea | ‘Legetik legera’ gainezka egin gabe |
| <i>Duintasuna</i> | Zapalkuntza historikoarekin bukatu | Hirugarren bidea |

MTTk (2005) aztertzen dituzten *prozesu konplexuei* helduta (iraultza, nazionalismoa eta demokratizazioa), zalantzarik ez da garai honetako aztergaiak prozesu nazionalisten bereizgarri

nagusiei erantzuten ziela, bertan parte hartzen duten ohiko mekanismoek presentzia nabarmena izanik: a) Estatuko Gobernuak eskuduntzen transferentziaren eteteak eta ETAREN su-etenak sortu zituen *aukera eta mehatxuen espiralak*; b) ‘demokrata eta biolentoen’ arteko lehiaren markotik ‘soberanista eta konstituzionalisten’ arteko markora ematen den eraldaketaren ondoriozko *nortasun aldaketak*; c) maila ezberdinetako *lehiaren aktibazioa*, batetik konstituzionalista eta soberanisten artean, baina ikusten ari garen bezala, baita indar soberanisten artean ere; eta d) jada aztertutako ELA eta LABen arteko *artekaritza*.

Baina prozesu nazionalistak ez dira era isolatu batean garatuko. Hauek nazionalismoarekin zerikusi gutxi izan ohi duten bestelako mugimendu, motibazio edota politikekin uztartuko dira, beste prozesu konplexuetan parte hartzen duten mekanismoek ere presente egonik. Alde horretatik, Lizarra-Garaziko prozesuak bi prozesu konplexuen hainbat bereizgarri ere barnebildu zituela esan dezakegu; *prozesu iraultzaileez eta demokratizazio gatazkatsuez* ari gara. Are gehiago, ezker abertzaleak eta EAJk Lizarra-Garaziko prozesuari jarraipena emateko bakoitzak planteatutako *konponbiderako proposamen egingarrien* atzean, MTTren bi prozesu konplexu hauek hezurramitzen dituzten aldaketa politikorako paradigma ezberdinak zeudela ulertu dezakegu. Edo nahiago bada, prozesu konplexu hauetako bakoitza (iraultza eta demokratizazioa) ezaugarritzen dituzten bereizgarriek osatzen duten paradigmak (iraultzailea eta erreformista, nolabait esateko) ezker abertzale eta EAJren eskaintza zehatzetan antzeman ditzakegu; hau da, ezker abertzalearen ‘haustura konstituziogilean’ eta Ibarretxeren ‘erreforma soberanistan’.

Alde horretatik, atal enpirikoan azaldu bezala, gure ikerketa 2000. urtera arte soilik luzatuko badugu ere, urte horretan Ibarretxek Madrilgo Siglo XXI aretoan zein Bartzelonako foro entzutetsuetan egindako erreformarako proposamenak (2003tik aurrera Estatutu Politiko Berrian forma instituzional zehatza hartu zuenak) mende berri hasiera horretan aldaketa politiko-instituzionala gorpuzteko *lehiari* egon ziren bi eredu ezaugarri nagusiak zirriboratzeko aukera ematen digulakoan gaude. Beti ere, bestelako ikerketa batzuk Ibarretxeren eskutik garatzen hasi zen bide oparoa sakonago aztertu eta gure aldetik egindako hurbilpena osatu edota zuzenduko dutelakoan.

15.2.5.1 Ezker abertzalearen ‘haustura konstituziogilea’.

MTT (2005) kritiko azalduko dira prozesu iraultzaileak azaltzeko orduan gizarte zientzietan nagusitu izan diren ikusmoldeekin. Nagusiki, ikuspegi *estrukturalistek* egiturazko ‘azpiko’ tentsioei emandako gehiegizko arretak prozesuaren jatorrian eta emaitzan zentratzea ekarri zuelako, eta ez prozesuaren garapenean; eta ikuspegi *kulturalistek* norbanakoen eragiteko gaitasunean eta ingurune kulturean arreta jarrita, soilik iraultza sozial handietan zentratzea ekarri zutelako. Horrela, hiru ikerlariok iraultzen azterketarako baliatutako mekanismoen metodoak tarteko dimentsio apalago bat izan dezaketen prozesu iraultzaileak ulertzeko tartea eskainiko digu.

Prozesu iraultzaileen azterketarako funtsezkoa da jakitea: a) ze baldintza eta prozesuetan sortzen diren Estatuaren lehiatzaileak, b) lehiatzaile horiek ze baldintza eta prozesuetan lortzen duten Estatu mugiaraztea, eta c) ze baldintza eta prozesuetan Estatuaren gaineko kontrolerako borroka sortzen duen iraultza soziala (MTT, 2005: 215).

Ildo honetan, ETA, protesta ziklo zabalaren mugimendu goiztiar bezala, Estatuaren lehiatzaile nagusietakoa izan da azken hirurogei urteetan. Eztabaidagarriagoa izan daiteke Estatu mugiaraztea ze punturaino mugiaraztea lortu zuen argitzea; eta are eztabaidagarriagoa bizi izan dugun gatazka politiko-armatuak ze punturaino hartu daitekeen ‘iraultza sozialtzat’. Prozesu iraultzaileak gutxitan emango dira; are gutxiagotan arrakastatsuak izango dira; eta kasu bakanetan baino ez dute ‘iraultza soziala’ bezala ulertu dezakeguna sortuko (MTT, 2005: 216). Eztabaida horrek luze gainditzen du lan honen asmoak, baina lantzen ari garen ikuspegi konstruktibistaren arabera, funtsezkoa iruditzen zaigu ezker abertzalea, protesta mugimendu bezala, errealitate politikoaren ulermenerako baliatutako marko interpretatzailearen gako nagusiak ulertu, eta kasu honetan, prozesu iraultzaileen azalpenerako baliatutako ezaugarriekin bat egiten duten aztertzea.

Alde horretatik, interesgarriena bertan parte hartzen duten mekanismoak zeintzuk izango diren argitzea izango da. Azken finean, mekanismoen dimentsio kognitiboak indarrean diren marko interpretatzaileak ulertzeko aukera emango baitigu; hau da, nola atzemanak diren, bai protesta mugimenduarengatik, bai instituzioengatik, baita jendarteagatik ere. Ikusi dezagun zeintzuk diren prozesu iraultzaileetan parte hartzen duten mekanismo hauek gure aztergaira ekarrita:

- Autogobernuaren garapen falta *elite autonomisten interesen kaltetzea* bezala: iraupen maila bat duten erregimen guztietan bezala, Espainiakoan ere sistema elitezko aktore ezberdinen arteko koalizio zabaletan oinarritzen da; elkarrenganako aitortzan eta babesean oinarritzen den aliantza, hain zuzen (MTT, 2005: 220). 1978ko erreforma politikoak logika berberari erantzuten zion. Bertan erregimen politiko berriaren legitimitatea eta babesa zalantzatan ez

jartzearen truke, periferietako eliteei sistema autonomikoa garatzeko eskumena bermatzen zitzaielarik. 80. hamarkada bukaeratik aurrera eskuduntzen transferentzietan emandako eteteak alde bateko interesen kaltetze nabarmena bezala atzematen hasi zen autonomismoaren aldetik.

- *Irainen bat-bateko ezarpena*: honakoa, aldiz, ez zen egun batetik besterako prozesua izan. Neurri batean, Ibarretxeren eskutik ‘markoaren aldaketarako’ proposamenaren aurkezpenarekin autonomismoaren barruan ia hamarkada batean zehar mamitzen joan zen prozesua izan zela esan dezakegu. Zentzu horretan, prozesu hauek mekanismoen kateaketak bezala ulertu ditzakegu, mekanismo baten aktibazioak beste batena ekarri ohi duelarik; hainbatetan, kausaren mekanismoa eta ondoriozkoa zein den argitzea lan nekeza delarik. Kasu honetan, 90. hamarkadan zehar eskuduntza esanguratsuen transferentzia eragotzi zituzten hainbat gertaerak autonomismoaren interesen kaltetzea eragin zuen irainen ezarpenetat hartu ditzakegu. Zehazki, a) 90. hamarkadaren hasieran, senatuaren erreformaren eztabaidaren testuinguruan, PSOEko Gobernuak PPrekin adostutako Paktu Autonomikoak eta bigarren mailako eskuduntza apur batzuen transferentzia; b) 1994ko hauteskunde autonomikoak eta gero, EAJ, PSE-EE eta EAren artean Estatutua betetzeko sinatutako gobernu akordioak Estatuko Gobernuaren aldetik elkarrekikotasunik ez izatea eskuduntza berrietan; edota c) Aznarren inbestidurarako PP eta EAJren artean sinatutako akordioaren ondotik, Ekonomia Ministroak Segurantzza Soziala inoiz ez zela transferituko esanez egindako adierazpenak irain hauen adibidetzat hartu ditzakegu.
- *Deszertifikazioa*: 90. hamarkadaren bukaerarako Trantsizioan autonomismoari sistemaren legitimaziorako emandako funtzioa eta autogobernuaren garapenerako ahalmena, geroz eta agortuagoak ikusten ziren ordura arteko autonomisten begietan. Soilik Estatuko Gobernuak gobernagarritasunari begira erabateko gehiengoak ez izatearen ondorioz parlamentuan izan zitzakeen beharrek bultzatuta lortu ziren autogobernu esparru apurrak; 1999ko Estatuko aurrekontuak onartzearen truke A-8 autobidearen kudeaketa lortuta ikusi zen bezala. Gobernu zentralaren partetik koiunturaren arabera autonomismoarekiko sortzen zen behar puntual hau elite autonomistari emandako funtzio historikoaren deszertifikaziotik gertu kokatzen zen.
- *Desertzioa*: MTTk prozesu iraultzaileetan agertu ohi den laugarren mekanismoa litzateke. Mekanismoen kausalitatearen hariari jarraituta, desertzioa deszertifikazioaren ondorioztat hartu dezakegu; baita alderantziz ere. Zentzu honetan, desertzioaren edota deszertifikazioaren atribuzioa lehian aritzen diren bi aldeek ika-mikarako gakoetako izango da. Horrela, PPren ustez, Lizarra-Garaziko Akordioaren bitartez EAJk egindako desertzioa

jeltzaleen deszertifikaziorako arrazoia izango da; eta EAJren ustez, PPk jeltzaleek autogobernuaren garapenerako interlokutore bezala deszertifikatu izanak eragingo du bere desertzioa. Hala ere, sistemarekiko haustura maila bat suposatzen duen mekanismo iraultzaile bezala, desertzioa mekanismoaren implementazioa oso konplikatua izan zen. ETAk, EAJk eta EAk 1998ko udaran sinatutako akordioan presente egon zen, Estatu mailako alderdiekin harreman guztiak apurtzeko konpromiso gisa. Baina handik tarte batera EAJk eta EAk ETari emandako idatzizko erantzunean konpromiso hori zehaztu zuten, PP eta PSOerekiko haustura bertako instituzioen gobernagarritasunaren arabera utziz.

Kasu honetan, ez zaigu horrenbeste interesatuko arestian aipatutako mekanismo guztiak zer punturaino '%100'-ean aplikatu ziren, baizik eta inplikaturako alde ezberdinen partetik beraien bilakaera nola ulertua izan zen argitzea. Dimentsio kognitibo honek alde bakoitzak baliatutako marko interpretatzaile edota paradigma ulertzeko balioko digulakoan. Alde horretatik, argi dago autonomismoaren baitan Paktu Autonomikoen ondorioz transferitutako eskuduntza apurrak edota PPrekin sinatutako akordioaren urraketa *irain* gisa intentsitate ezberdinez biziko zela, familia batean edo bestean. Horrela autonomismoaren zati handi batentzat bere *deszertifikazioa* suposatzen zuen bitartean, jarrera sistemikoagoa zuen beste sektore autonomistarentzat zerrenda luze batean pilatzen zen beste irain bat 'baino' ez zen izango. Ezker abertzalearentzat, berriz, aurretik indarrean mantendutako elkarlanerako zubien eraispena eta aliantzen *desertzioa* eskatzen zuena. Horregatik, paradigma ezberdinen definizioari dagokionean, garrantzitsuena mekanismo horiei emandako atribuzioa izango da.

Samuel P. Huntington-ek (1996) aldaketa politikoak ezaugarritzeko baliatutako 'iraultza eta erreformaren' arteko biko ikuspegi klasikoan ere, lehenengoarekiko hainbat antzekotasun aurkituko ditugu ezker abertzalearen orduko praktikan. Huntington-en ustez prozesu iraultzaileak gauzatzeko a) indar politiko berrien parte hartzerako edota gobernuan parte hartzeko bideak eskaini ezin dituzten instituzio politikoak egon behar dira b) ordura arte politika instituzionaletik aparte mantendutako indar horiek bertan parte hartzeko desioa izango dutelarik. c) Talde horien buruzagitzetan beraien helburuak lortzeko bertan parte hartu beharko dutenaren ideia nagusitzen joango da. Horretarako biderik aurkitu ezean prozesu iraultzaileetarako aukera haziko delarik. Aldaketa iraultzailea eskala handikoa bada, hainbat aldaketa ekarriko ditu: d) aurreko instituzioak suntsitzea, e) komunitate politikoaren birdefinizioa, balore eta legitimazio kontzeptu berriak, elite politiko berria eta g) instituzio politiko berrien sorrera eskatuko du (Huntington, 1996: 273).

Definizio honen implementazioa gure kasuan gehiegi behartu gabe, sistema autonomikoak Ajuria-Eneako Itunaren bitartez, ezker abertzaleari eragindako bazterketak paradigma iraultzaile hau elikatzen jarraitzeko aukera zabaldu zuen. Zentzu honetan, a) Itunak finkatzen zuen Gernikako Estatutuaren onarpenaren baldintza bazterketa honen berme nagusizat ulertu zen. Aldi berean, b) c) ezker abertzalearen parte instituzional mugatuak eta, batez ere, LABek bere ordezkartzaren hazkundera balioan jarriz bertan jorratzen hasitako bidea, beraien helburuetarako aukera emankorrak zabaldu zitzaizkela erakutsi zuen; hasiera batean instituzioen beraien deslegitimazio ‘hutsari’ begira bazen ere. Hogei urteetako bazterketa instituzionala, aldiz, denbora luzea zen sistemaren legitimazioa, besterik gabe, ontzat hartzeko. Ildo honetan ulertu dezakegu d) 90. hamarkadaren bukaeran erakunde autonomikoak ahalik eta denbora eperik laburrenean gainditzeko egindako proposamena, e) sei/zazpi lurraldez osatutako komunitate politikoa berrosaketa eskaera, ‘euskal herritar bat, boto bat’ legitimazio eredua edota g) Euskal Herriko legebiltzar nazionala sortzeko egindako proposamena.

Huntington-en arabera ere, prozesu iraultzaileak talde berriengan komunitate sentimendua eta nortasun komun bat sortuko du. Identifikazio honek sistema eta Herriaren arteko haustura klasikoa gainditzeko balioko luke; kasu honetan, prozesu konstituziogilearen bitartez ezker abertzaleak instituzio autonomikoekiko bizi izandakoa.

Eta azkenik, jada aipatutako ziurgabetasunaren aldagaia izango genuke. Kontingentzia, ziurgabetasun eragile bezala, prozesu liskartsu guztien muinean egongo da. MTTren arabera (2005: 247), prozesu iraultzaileetan ohikoa izaten den kontingentzia, hiru urratsetan agertu ohi da: lehenik, gertaera kontingente batzuk emanez; bigarrenik, liderren aldetik erabaki estrategiko batzuk ezusteko ondorioak eraginez; eta hirugarrenik, mekanismo batzuen arteko elkar-ekintzaren ondorioz, determinismo estruktural edo kulturalen arabera aurreikusi ezin ziren emaitza batzuk suertatuz. Oraingoan ere, definizio hau gehiegi behartu nahi izan gabe autogobernuaren garapenerako EAJk PPrekin adostutako akordioaren urraketa berriak edota Blancoren hilketaren ondotik zabaldutako olatu konstituzionalista bera gertaera kontingente horiek osatu zitzaizketen, autogobernua eta bakegintzaren eremuan gerta zitezkeen baina aurreikusteko zailak ziren gertaera bezala. Alde horretatik, 1997an euskal eliteen artean hartutako erabaki estrategikoen (Ajuria Eneako Itunaren deslerrotzea, ELA eta LABen arteko aliantza, su-etena abian jartzea, ...) handik urte bete eskasera inork gutxi espero zezakeen ondorioak ekarri zituen; ez bakarrik su-etenenaren berehalako erabakiagatik, baizik eta hamarkadetan zehar aurrez aurre izandako abertzaletasunaren bi familiak elkarlanean jartzea MTTk aipatutako prozesuaren emaitza ez-ohiko bihurtu zelako.

Zentzu horretan, Lizarra-Garazi ezustekoen prozesua ere izan, baten. Ezker abertzaleak status juridikoaren aldaketarako planteatutako ‘haustura konstituziogilearen’ formula, aldiz, egoera politikoari gehiegizko ziurgabetasuna eranstean aldagaia bezala ikusia izan zen. Horrela, Huntington-ek dioen bezala, mugimendu iraultzailearentzat ziurgabetasun honek ekarri ditzakeen kalteak (ekonomikoak, egonkortasun politikoari lotutakoak, ...) “garapen historikoaren ez-ohiko gastu” bezala (Trotsky, 1960²⁸⁷) hartuak izan badaitezke ere, gainontzeko jendartearentzat nekez barneragarriak izan daitezke. Soilik aurreikusten den etorkizun hurbila, orainaldiaren aurreikuspena hobetzen duenean edota errepikatu nahi ez den iraganaldi batera buelta ekidin nahi denean eman ahal izango da. Zentzu horretan, su-etenaren hausturaren ondoren eman zen jardun armatuaren areagotzea errepikatu nahi ez zen iraganaren irudia suposatu zuen jendartearen eremu zabal batentzat, baina horren erantzukizuna ezker abertzalearen bizkar erorita; bere ilegalizazioa aroa zabaltzea “ez-ohiko gastu” handiegia suposatu zuelarik hauentzat.

15.2.5.2 EAJren ‘erreforma soberanista’.

Orain arte planteatu dugun demokrazia ereduak ikuspegi *prozesual* bati lotzen zaio; hau da, eragile politikoen hartu-eman gatazkatsuen ondorioz, (des)demokratizazioan ematen diren aurrera edo atzera pausuen bilakaera bezala ulertuta. Beti ere, demokratizazioak sistemaren eta herritarren arteko harremanen zabaltasun, berdintasun, kontsulta eta babesaren arabera neurtuz. Lau kategoria hauek erregimenak *babestutako kontsultarako* erakusten duen gaitasunean laburbildu ditzakegu. Ildo horretan, lan honen ikergai nagusietako bat Lizarra-Garaziko akordioaren inguruan hezurmamitutako prozesuak demokratizazio horretan aurrera egiten ze punturaino eman zuen argitzea litzatekeelarik.

Demokratizazioa, MTTren *prozesu konplexu* bezala ulertuta, eragile ezberdinen arteko hartu-emanak barnebiltzen dituen heinean, gatazkatsua izango da. Prozesu liskartsu hauetan agertu ohi diren urrats nagusiak gurean ere identifikatu ditzakegu (MTT, 2005: 297-298): a) esfortzu handiak eta ikuspegi oso ezberdinak egonda ere, *kontsulta babestu* horretara urratsak eman nahi dituzten taldeen agerpena; kasu honetan, ezker abertzalearen, autonomismotik eratorritako hainbat sektoreen (ELA, ...) eta EAJko sektore batzuen eskutik; b) talde horiek EAJren elite instituzionaletatik hasi,

²⁸⁷ *Historia de la revolución rusa* (Trotsky, 1960); Huntington-en *El orden político en las sociedades en cambio* (1996: 274) liburutik aterata.

kontra-botere izaera aldarrikatzen zuen gehiengo sozialetik pasa (ELA-LAB) edota sistemarekiko hausturarako apustutik datorren protesta mugimendura zabaldu ziren; c) dinamika horren aurrean konstituzionalismoaren kategoriaren inguruan bildutako sektore sozio-politikoak beraien ordura arteko eskubideak edo nagusitasun posizioak mehatxatuta ikusi zituzten; d) Estatua, talde multzo horren eskaeren azken hartzaile bezala, burujabetzaren aldarria ez zuen eskaera demokratiko bezala ulertuko, soilik prozesu liskartsuaren garapenaren baitan (edota ondorioz), atzeraeraginezko ikuspegi batetik horrela baloratu ahal izango delarik; e) gurean ikusi bezala honakoa ez da prozesu lineala izango. Are gehiago, egun autogobernuaren eztabaida itxi gabeko demokratizazio prozesu horren erakusle bezala ulertu dezakegu; eta azkenik f) ‘euskal demokratizazioan’ gatazka forma ezberdinak (lan eskubide, euskalduntzearen inguruko dinamika, genero ingurukoak, erabakitze eskubidearen ingurukoak eta abar) uztartzen dira oraindik gauzatu ez den *babestutako kontsulta* berriaren akuilu bezala.

Aztertu ditugu MTTren arabera demokratizazioan eragingo dituzten funtsezko hiru aldagaiak: *(des)berdintasuna*, *konfiantza sareak* eta *politika publikoak*. Ibarretxeren proposamenak, Ardanzak Ajuria-Eneako Itunaren eskutik gidatu zuen epealdiarekin alderatuta, era oso ezberdinean garatu zituen elementu hauek:

- *(Des)berdintasuna*: Ajuria-Eneak ezker abertzalearekiko planteatutako bazterketa politikaren aurrean, atal enpirikoan azaldu ditugun gertakariak tarteko, azken hauen parte hartze politikorako bideak zabaldu zituen ordura arte indarrean egondako eskakizun edo betoak altxatuz (Estatutuaren onarpena, borroka armatuaren etena aldeztetik, ...). Integrazio eta berdintze maila hau, aldiz, partziala izan zen: bai ezker abertzalearentzat instituzio autonomikoek zuten legitimazio faltagatik, zein jarrera sistemikoena erakusten zuten sektore autonomisten artean ere hauen integrazioarako egon bazeuden mesfidantzengatik. Alde horretatik, batzuek zein besteek integrazio hau erabatekoa ez izateko arrazoiak bazituztela esan dezakegu.
- *Konfiantza sareak*: Ibarretxeren agintaldiaren lehenengo urteetan presentzia nabarmena lortu zuen gai sozio-laboralen eskaeraren inguruan akordioetarako zabaldu zuten aukerak honen adibide izan daitezke. Aurreko urteetan Ardanzaren elkarrizketa sozialerako eskaintzak izan zuten harrera faltaren aurrean, Ibarretxek gehiengo sindikal berriarekin akordio esanguratsuak lortu zituen (Enpleguaren inguruko akordioa, ...). Akordio hauek ELA-LAB sarearen integrazioa lortu ez bazuten ere, aurreko urteetan gauzatu ez zen konfiantzarako aukera batzuk zabaldu zituen. Alabaina, konfiantza sare batzuekiko gerturatzeak besteekiko urruntzea ekarri ohi du. Gurean maila sindikalean sindikalgintza abertzalearekiko emandako

gerturatzeak ez zuen estatu mailako sindikatuen deslerrotzea ekarri, ordea. Hauek burujabetzaren aldeko sektoreetatik zetozen planteamenduekiko politikoki oso kritikoak baziren ere, aipatutako akordioen parte bihurtu zirelarik. Alderdi politikoen artean, berriz, ezker abertzalearekiko emandako gerturatzeak ordura arte alderdi konstituzionalistekin osatutako konfiantza sarea urundu zuen²⁸⁸.

- *Politika publikoak*: politika publikoak Estatuak arautzen dituzten herritarren eta erakundearen arteko harremanak bezala ulertu ditugu. Hauek lortzen duten aldekotasun edo kontrakotasunaren arabera demokratizazioan aurrera edo atzera egingo delarik. Alde horretatik, interesgarriena politika publiko horien bidez ordura arte bazterketa egoera batean kokatutako sektoreen aldekotasuna neurtzea litzateke, jakinda honek beste batzuen kontrakotasuna piztu dezakeela. EAJ eta EHren artean lortutako legegintzaldirako akordioa honen erakusle. Baina demokratizazioaren benetako arrakastaren neurgarria, sektore berriak inkorporatzearekin batera, jada barneratuak zeudenei eustea izango da. Ibarretxek bere gobernuaren lehenengo legegintzaldiari begira PSE-EErekin egindako saiakera (Ordozgoiti, 2010) ahalegin barneratzaile horren ezintasunen erakusle izango zen, ordea.

Izan ere, Huntington-en kategoriak berreskuratuz, erreformista, iraultzailea ez bezala, bere alboetan kokatuko diren sektore ‘kontserbadore’ (konstituzionalistak) eta ‘iraultzaileekin’ (ezker abertzalea) hainbatetan lehiatu beharko duen bezala, beste hainbatetan aurretik arerio zena lagun izatera eraman beharko du. Prozesu iraultzailearen paradigmaren arabera, protesta mugimenduak une oro zatiketarik ugalduta eta dikotomizatu beharko dituen bitartean, erreformistak unean une bere interes arabera kudeatu beharko ditu. Gainera aldaket(ar)en sakontasunaren afera ere hor egongo da. *Oldartzen*-en planteatuaren harira, ezker abertzalearentzat indarrean den *status quo*-a aldarazi dezakeen edozein aldaketa ongietorria izango zen. Ibarretxeren 2000. urteko proposamenak, aldiz, bere jatorrian ‘legetik legerako’ aldaketa prozesu adostua irudikatzen zuenez, aldaketarako eskaeren artean filtro fina pasatzea eskatzen zuen; hasiera batean behintzat, ageriko haustura irudikatu zezaketenak alde batean utziz.

Honek, erreformista eta iraultzaileen arteko hirugarren bereizgarri bat mahai gaineratuko du: parte hartze politikoaren zabalpenarena. Lizarra-Garaziko testuinguru polarizatuan, ordura arte sistematik kanpo kokatutako sektoreak barneratzearen, indar sistemikoekiko deslerrotzea bultzatu bazen ere,

²⁸⁸ Ildo honetan, Iñaki Iriondok Arnaldo Otegi *Mañana, Euskal Herria* (2005) liburuan egindako elkarrizketan Nicolás Redondo Terrerosek, garai horretan PSE-EEko burua, bigarren honi Gobernutik ateratzeko hartutako erabakia akatsa izan zela pribatua aitortu omen zion; besteak beste, EAJk ETArekin komunikazio kanala zabaldua zuela ez zekielako (Iriondo, 2005: 61).

Ibarretzek 2000. urtean egindako erreforma proposamena aurrera ateratzeko baldintzak asko mugatuko ziren. Alde horretatik, bere planteamenduaren izaera nahikoa soberanista izan behar zuen ezker abertzalea barneratu ahal izateko baina nahikoa 'sistemikoa' indar konstituzionalisten zati bat behintzat (PSOE) ez uxatzeko.

Huntington-ek ere erreformarako estrategia posibleen afera mahai gaineratuko du, funtsean bi eredu planteatuz. Batetik, aldaketa eredu *zabala* izango genuke; eskaera guztiak kolpe batez lortu nahiko lukeena, nolabait esateko. Bestetik, "oina atean sartzearen" estrategia edo eredu *zatikatua* izango genuke; erreformak banatu eta aldiko bat erdiestea helburu lukeena. Eskuduntzen transferentzia mailakatuen hamar urteetako estrategia autonomistaren porrota eta gero (eredu *zatikatua*), EAJk Ibarretxeren eskutik bigarren ereduaren aldeko apustua egin zuela ulertu dezakegu.

Ibarretxeren hasierako proposamenarekin, berriz, erreforma prozesuetan ohikoa izaten den zalantza berdina mahai gaineratu zen: proposamena bera zer izango zen 'ordezkatzaila' ala 'katalizatzailea'? Hau da, autogobernuaren garapenean asmo handiko bestelako helburuetarako suhesi bat ala erabateko burujabetzaren bidean pizgarria? Bere onargarritasunaren mugak apur bat zabaldua sistemak aintzat hartutako maila txikiko etengabeko aldaketak (eskuduntzen transferentzia mailakatu, esaterako) aldaketa sakonagoen arriskua ekidin izan ohi du (bide hausturazalearen hautua, adibidez). Hori ez zen PPren Gobernu ulertu zuena. Gure ikerketa eremutik kanpo gelditzen bazaigu ere, ziur aski 2003tik aurrera Ibarretxeren proposamenaren arrakasta faltaren gako nagusietako bat dimentsio kognitibo edo interpretatzailean ere kokatu dezakegu. Izan ere, hamarkada aldaketaren lehenengo urteetan katalizatzaile bezala ulertu beharko litzatekeenentzat (ezker abertzalea) bestelako helburu 'soberanistagoen' ordezkatzaila bezala ulertua izan zen bitartean²⁸⁹, ordezkatzaila bezala ulertu beharko litzatekeenentzako (PP-PSOE) independentziaren katalizatzaile bezala ulertua izan zen.

Zentzu honetan, Ibarretxeren proposamenaren sakontasunak nahikoa soberanista izan behar zuen, biolentzia politikoa baliatzen zituzten ezker abertzaleko sektoreen tarte politikoa txikitzeko. Hau da, bide instituzionaletik gauzatutako balizko bide soberanistak jokoz kanpo utzi beharko luke hausturaren eta bere bortxazko ekintzen aldeko hautua. Baina, aldi berean, bere egingarritasuna ere erakutsi beharko zuen; bestelakoan, urteetan zehar hainbat sektoreetatik elikatutako 'egungo instituzioetatik ezin zenaren' diskurtsoa eta bortxazko jarduna legitimatu zitekeelako.

²⁸⁹ Arnaldo Otegi berak 2003ko udal hauteskundeetatik aurrera Ibarretxeren proposamenarekiko hasierako jarrera zorrotzetik diskurtsoa modulatzan joan zirela onartu zuen (Iriondo, 2005).

Tarteko posizio batean EAJren aparatua ere edo 'mitxelinen' interesen teoria ere aurkitu dezakegu. Zentzu horretan, gerora aski ezagunak egin ziren Alderdi barruan tesi soberanisten inguruan kontrajarri ziren posizioak²⁹⁰. Ikuspegi honen arabera, 2000. urteko Ibarretxeren proposamenaren arrakastarako aukera txikiak izanda ere, eredu zabaleko erreforma baten alde eginda, gerora Alderdia bera posizio egokiago batean kokatuko luke eredu *zaticatu* baten arabera lorpen edo eskuduntza zehatzen transferentzian aurrera egiteko.

Erreformatarako arrakastaren aukeren eztabaida honetan, bazegoen aintzat hartu beharreko beste aldagai bat: ETAREN borroka armatuarena. Huntington-ek dioen bezala, normalean erreforma politikoetan ere ohikoa izaten den biolentziaren agerpenak erreformaren mamiaren gaineko arreta desplazatetik harago, bi elementuok (erreforma eta biolentzia) elkar lotuta agertuko dira; normalean, bata eta bestearen sustatzaileak ezberdinak izanda ere. Zentzu honetan, erreformak ere prozesu liskartsuak izango diren neurrian, berari lotuta etorri ohi den efektu demokratizatzaileak eragin bikoitza izaten du (MTT, 205: 298): batetik, ekintza kolektiborako erreperitorioa mugatu ohi duelako, bitarteko mingarrienak alboratuz; baina bestetik, ageriko gatazkara eramango duten instituzionalizatu gabeko jardueri ekiteko mehatxua presente egon beharko da, sinesgarria izateko hainbatetan horrela jardun beharko delarik.

Zentzu honetan, 'legetik legerako' erreforma soberanistan MTTk aipatutako sistemarekiko 'ageriko gatazkara' eramango zuen gabezia ere presente zegoen. 2000. urte horretan Ibarretxek Madrilgo Siglo XXI aretoan aurkeztutako proposamena hurrengo urte luzeetarako garatu beharreko erronka mardultzat hartu badaiteke ere, hainbat galderen aurrean erantzun garbirik ez zuen aurreikusten; horien artean nagusietakoa zer egin sistemaren erreformatarako proposamen horri Madrilek ezezkia emango balio. Alde horretatik, aldaketa politikoa gauzatzeko sistemaren erreformaren aldeko hautua egiten duenak sistema berari *gainezka* egiteko aukera aurreikusi eta adieraztea bitarteko eraginkorra izango da. Sistemaren muga hertsien baitako saiakerak aldaketarako aukerak nabarmen gutxituko dituen bitartean, ageriko mehatxu horrek sistemaren egonkortasunaren gaineko ziurgabetasuna

²⁹⁰ 2009an Maria Antonia Iglesias kazetariak argitaratutako *Memorias de Euskadi* liburuan, esaterako, urte batzuk lehenago EBBko buru izendatutako Iñigo Urkulluk Ibarretxerekin izandako desadostasunak publiko egiten zituen: "Mi relación con Ibarretxe la vivo con muchas dificultades. Hay muchos días en que tengo que hacer actos de fe para que sigamos unidos y tengamos una mínima cohesión para salir dignamente de esta situación de cara al futuro [...]. Tengo que seguir dando la impresión de que soy tonto, de que me chupo el dedo, porque tengo una causa mayor, que es la de intentar recomponer el PNV, que no se rompa, y reconducirlo de alguna manera [...]. Y la actitud para conmigo y para con el partido no es recíproca, no ya sólo por el lehendakari, sino por otros responsables del PNV, pero también por parte del lehendakari. Creo que hay una estrategia clara de acabar con la bicefalia del partido".

areagotuko baitu. Alde horretatik, Ibarretxeren hasierako proposamenak, prozesuari sinesgarritasuna eta ziurtasuna emateko legeak ezarritako bidea jorratzeko apustua eginda, indar sistemikoen aldetik (konstituzionalismoa) ageriko lehia bezala ulertua izan bazen ere, sistemaren mugetatik harago kokatuko zen alernatibarik ezean ibilbide laburra izan zezakeen.

15.3 Ondorio orokorrak: Lizarra-Garaziko prozesuaren eragina euskal protesta ziklo zabalaren demokratizazioan

Aztertu dugun epealdia ‘prozesu’ bezala izendatu izana ez da kasualitatea. MTTren kategoriei jarraituta prozesuok mekanismoengatik osatuta egon ohi dira; gurean, soberanismoaren *kategoria osaketa*, konstituzionalismoarekiko *polarizazioa* eta eragin ezberdinetako *eskala aldaketek* osatzen duten mekanismo *sendoengatik*. Baina esan bezala, prozesu hauek ere ikuspegi zabaleko oldarraldi edo liskarraldien parte ere badira; gure kasuan, euskal protesta ziklo luze edo ‘euskal gatazka’ bezala izendatu izan dena.

Ikuspegi horretatik, nagusiki Lizarra-Garaziko Akordioak ezaugarritu zuen prozesu horrek liskarraldi luzearen demokratizazioan ekarritako berrikuntzak nabarmendu nahi ditugu lanaren bukaera parte honetan. Tarrowek protesta zikloei egozten zien parabola forman gorabehera edota atzera-aurrera pausu asko egon ohi dira, hainbatetan ibilitako bidean berriro ere atzera eginez. Baina emandako aldaketak ez dira alferrikakoak izaten, beraien ageriko eragina ikuspegi luzeagoarekin baloratu behar izaten delarik. Hori da hain zuzen ere gure protesta zikloaren demokratizazioan Lizarra-Garaziko akordioaren testuinguruan emandako aldaketekin gertatutakoa. Mende berriarekin batera gaindituta ziruditen hainbat praktika eta ikusmolde berriro nagusitu baziren ere, hamarkada aldaketarekin batera berriro indarra hartu zuten. Baina aldi berean 90. hamarkadan ezagututako beste hainbat, etorkizun hurbil batean berriro mahai gaineratzeko aukera zabalik dirudi gaur egun. Aurrera begirakoak epilgorako utzita, jarraian gure ustez demokratizazio horretan esangura handiena izan zituzten aldaketak nabarmenduko ditugu.

15.3.1 Soberanismo hegemonista, aldaketa politikoa gauzatzeko

bide gisa.

Laclairen hegemoniaren teoria eguneratuak 80. hamarkadaren erdialdean *ezkerraren* pentsamenduan nagusi ziren ikuspegi *iraultzaile* eta instituzionalizatutako sozialdemokraziaren erreformarako joeraren artean eragin izan nahi zuen bezala, soberanismoak 90. hamarkadan abertzaletasunean nagusi ziren eta gainbeheran sartuak zeuden bi ikuspegi nagusiengan efektu zuzena izan zuen.

Soberanismoa, kategoria politiko-sozial bezala, ez zen zerbait berria euskal liskarraldiaren baitan. Lizarra-Garaziko Akordioaren testuinguruan, aldiz, berrindartuta agertu zen. Agerpen berri hau autogobernuaren garapenerako estrategia diskurtsibo nagusiek erakutsitako gabezien gainean sortutako hutsunea gainditzeko eman zela esan dezakegu; autonomismoaren zein ETA-Gobernuaren arteko negoziazio ereduaren krisiena, hain zuzen. Bata zein bestearen alde bikotasun logikak autogobernuaren garapena dike lehorrean utzi zutela antzematen hasia zen 90. hamarkadaren erdialderako; bai eskuduntza berriak lortzeko, bai autodeterminazio eskubidearen aitopenerako.

Alde horretatik, soberanismoak eredu hegemonisten erreferentzia hartu zuela esan dezakegu²⁹¹. Lehenik eta behin, espazio sozial berriak irabazteko bokazioarekin kokatu zelako, Gramscik aipatuko lituzkeen jendarte zibilari begira zein jendarte politikoari begira. Zentzu horretan, ELAk eta LABek jendarte zibila artikulatzeari begira kontra-botere logikan aritu zen, baina aldi berean, instituzionalizatutako eremuetan erdietsitako akordioak, ‘behetik gora’ eta ‘goitik behera’ egituratu nahi zen ariketa hegemonikoaren adibidetzat hartu ditzakegu. Izan abangoardia armatu batek, izan elite sistemikoek gidatutako negoziazioek ordezkatu zezakeen *mugimendu gerraren* ondoriozko emaitza azkarren ereduaren aurrean, soberanismo berriak zentimetroz zentimetro fronte ezberdinetan (eremu sozio-ekonomikoa, euskara, hezkuntza, ...) irabazitako espazio politiko-sozialaren aldeko eredu berreraikitze saiakera egin zuten. Alde horretatik, soberanismo hori, ordura arte abertzaletasunaren baitan indarrean egondako bi eredu nagusien batura baino, abertzaletasuna bera irudikatzeko marko interpretatzaile berri baten eraikuntza bezala ulertu dezakegu; berrikuntza nagusietako bat ikuspegi nazionalista klasikotik harago kokatzen ziren sektoreak artikulatzeko saiakeran zetzalarik.

²⁹¹ Eredu honek ezker abertzalean izan zuen eragina aztertzerako orduan honela dio Rafa Diezek berari egindako elkarrizketan: “ La unidad de acción, con los acuerdos, movilización social y posiciones políticas dio valor a una nueva referencia en la estrategia de la IA: el valor de la acumulación de fuerzas, el valor de mayorías sociales para avanzar en el proceso político”.

Horri lotuta, soberanismoa 90. hamarkadan zehar eremu ezberdinetan garatutako eskaera edo protesta mugimendu oparoak (antimilitarista, ekologista, lan eskubideen aldekoa, euskaltzalea, ...) artikulatzeko saiakera ere izan zen. Burujabetzak eskaera ezberdin horien guztien arteko oinarritzko identifikazio edo elkartasunerako orubea eskaini zezakeen, eskaera bakoitzaren partikularitateaz harago, berezitasun horien gaineko botere edo ahalmenaren aldarrari unibertsala barnebiltzen baitzuen: Lan Harremanetarako esparru propioa eskatuz, hizkuntza politika propioak garatzeko edota Ama Lurraren defentsaren ingurukoak. Honakoa litzateke, Laclaren kategoriei jarraituta, soberanismoa demokrazia erradikalizatuarekin lotzeko giltzarria; eskaera anitzen artikulazio kontingenterako ematen zuen aukera.

Gainera, logika artikulatzaile honek abertzaletasunaren baitan politikaren ulermenerako horren errotuak zeuden paradigma erreformista eta iraultzailea gainditzeko atea zabaltzen zuen. Batetik, lehenengoak instituzioei egotzitako lehentasunezko paperaren ondorioz nagusitu ohi zen ikuspegi prozedimentalistaren mugetatik harago joateko aukera ematen zuelako. Eta bestetik, Irlandako erreferentzia hor egonda ere, XX. mendearen bukaeran batere ohikoak ez ziren 'gerrilleroei' alternatiba bat eskaintzen zielako. Beti ere, gatazkaren dimentsio antagonikoa ukatu gabe, baina bere muturreko adierazpenak leunduz.

Alde horretatik, Lizarra-Garaziko prozesuaren gabeziak bat nahikoa hegemonista ez izatean edo bere jatorrizko adiera normatiboa ahultzean kokatu dezakegu. Batetik, operazio hegemoniko guztien oinarrian kokatzen ziren eskaeren artikulazioa eliteek gidatutako negoziazio prozesuaren mesedetan indar-hustu zelako. Horren erakusgarri nabarmena ELAk eta LABek prozesuaren aitzindaritzan jokatutako papera baina gerora bigarren maila batean gelditu/utzi izana. Eremu sindikaletik jokatutako funtzioaz aparte, bitartekaritza egitura klasikoekiko identifikazioetatik harago egongo zen jendarte zibil antolatuaren gabezia nabarmena izan zen, prozesu politikoaren akuilu lana bete zezakeena. Balizko mugimendu honen birtualitaterik handienetakoa ordura arteko marko kognitiboak gainditu eta errealtate politikoa eraiki eta interpretatzeko ulermen marko berri bat eskaintzean zetzan. Elite politiko-instituzionalen gehiegizko gidaritzak asmoek, zein liskarraldiaren polarizazioaren ondorioz urteetan zehar trinkotutako identifikazio politiko errotoek, aldiz, kontingentziarako eta marko interpretatzaile berrien sorrerarako tartea nabarmen murriztu zuten. Zentzu horretan, liskarraldiaren bortxazko dimentsioak eta familia politiko bakoitzaren sustraitze sakonek identifikazio politiko nagusien aldaketa nabarmen zailtzen zuten, ohiko koordinatetatik

(euskal nazionalismo sistemikoa, hausturazalea, nazionalismo espainiarra, ...) harago egon zitezkeen identifikazioak eraiki ahal izateko.

15.3.2 Agonismoa, botere politikoa lehiazeko bide gisa.

Arestian aipatutako autogobernuaren inguruko krisi bikoitza (autonomista eta negoziacionista) ez da 'soilik' diskurtsiboa izango. Botere politikoa eskuratzeko eredu edo paradigma nagusiei ere erantzuten ziela esan dezakegu. Izan ere, 'zero batura' emaitza bezala proiektatzen zen *eredu antagonistarekin* batera (Schmitt), autonomismoak urteetan zehar defenditutako interesen agregaziorako *eredu gehitzaileak* ere (Schumpeter) bereak eman zuela ulertu zitezkeen.

Lehenengoaren arabera, alde bakoitzak besteari eskatzen zion 'ezinezko' hori (autodeterminazioaren aitortza edota armak uztea konponbide politikorik gabe) aterabiderik gabeko berdinketa infinitura eramaten zuen. Horrela, botere politikoa eskuratzeko lehian, batak irabaziko lukeena besteak galtzera eramaten zuen. Gatazkaren dimentsio *politikoa* indargabetzeko saiakera hau Zizek-ek (2007) aipatuko lukeen *ultra-politika* eta *meta-politikaren* artean kokatuko genuke. Batetik, politikaren militarizazioaren bidez emango litzatekeen gatazkaren despolitizazio saiakera legokeelako. Politika 'demokrata' eta 'biolentoen' arteko gerra gisa irudikatuz, gatazka sinbolikoaren garapenean konpartitutako edozein orube komun desagertzeko ahalegina litzateke (*ultra-politika*). Eta bestetik, gatazka politikoaren existentzia aitortuta ere, 'egiazko' politikaren azken helburua bere 'auto-anulazioa' litzateke, 'garaipen polizialaren' edota ETA-Gobernuaren arteko 'negoziatio politiko erabakitzaile' baten bidez (*meta-politika*).

Baina bestetik, eskuduntzen transferentziari zegokionean ere, autonomismoak defendatutako interes ezberdinen gehiketa arrazionalak bere mugak erakutsi zituen. 80. hamarkada osoan zehar garatu zen eredu *para-politiko*a, botere politikoaren inguruko lehia despolitizatzekeo saiakera bezala uler genezake. Ajuria Eneako Itunak marraztutako aliantza jokoaren barruan autogobernuaren inguruko gatazka politikoa onartzen zen, baina hirugarren batek edo *polizia* batek (Estatuak/Gobernuak) zuzendutako alderdi politikoen arteko lehia mugatu gisa. Lehia horretan autonomismoaren helburu nagusia botere exekutibo autonomikoa mantentzea bihurtu zen. Aldiz, botere politikoaren banaketari begira zentro eta periferiaren arteko tentsioak agerikoak izan ziren lehenengo momentutik (LOAPA, 23-F, ...) eta autogobernuaren garapenerako mugak berehala azaleratu ziren:

batetik, polizi funtzioa betetzen zuten Estatuko Gobernu ezberdinek autogobernu prozesua eteteko erabakia hartu zutelako; eta bestetik, autogobernuaren garapenak ez zuelako eragotzi sistemaren kontrako jarrera erakutsi zuen sektorea indargabetzea.

Alde horretatik, soberanismoarentzat *politikaren* eremua ez litzateke botere esparruak okupatu ahal izateko talde ezberdinak lehiatzen diren joko zelai neutral hutsa, helburu bakarra bestea botere guneetatik desplazatzea bihurtuko den. Soberanismoak indarrean ziren botere harremanak zalantzatan jartzen zituen, hegemonia lehiatu nahi zuen heinean. Lehia hau, aldiz, ez zen eliteen arteko gatazka hutsa; hegemonia sozial eta politikoa eskuratu nahi zuen neurrian, jendarte zibilaren artikulazioa eskatzen zuen, adostezinak ziren aurkako proiektuak borrokatuz. Horregatik soberanismoarentzat konstituzionalismoa ez da *lehiakide* soila izango. Gatazka agonistikoetan dimentsio antagonikoa beti presente legoke, baina *arerioek* onartu beharko lituzketen oinarri demokratiko batzuen arabera eman beharko litzateke; euskal herritarrek erabakitzen dutenaren errespetua, hain zuzen.

Era berean, instituzionalizazio autonomikoa ez litzateke Trantsizioaren ‘adostasunezko mitoaren’ behin-betiko ondorio izango; ezta bertan finkatutako barne prozedurak *status*-a aldarazteko bide eraginkor bakarrak. Konstituzionalismoak, instituzio autonomikoak neutral mantendu eta status berdina izango luketen norbanako edo giza-multzoen arteko interes ezberdinen eztabaida ‘arrazionala’ planteatzen zuen bitartean, soberanismo *agonistak* indarrean zegoen botere harremanen arteko lehia adiskidezina mahai gaineratu zuen. Hori izango da bi ereduon arteko bereizketa nagusia: hegemoniaren aldeko borroka. Horregatik instituzionalizazioa, pluralismo demokratikoarekin bateragarria izango den ‘gu/haiek’ eredu berria sortzen funtsezko papera beteko lukeen sistema bezala irudikatu beharko litzateke, hau da, antagonismoa agonismo bihurtzeko giltza gisa. Horrela, erakunde autonomikoak interes gehiketarako marko bezala (Schumpeter) edota izaera eztabaida hutserako marko bezala (Habermas) indartzen ziren heinean, lehia agonistarako aukera ahultzen zen, antagonismoaren adiera schmittiarra nagusituz.

Arerio eta *etsaiaren* arteko ezberdintasun nagusia elkar konpartitzen (ez) duten espazio sinbolikoa litzateke. Arerioaren kategorian askatasunak eta berdintasunak mugarrizten duten printzipio etiko-politikoekiko leialtasun bat konpartitzen den bitartean, etsaiarengan ez da horrelakorik ematen. Aldiz, soberanismoa eta konstituzionalismoa printzipio hauen esanahi eta praktika zertan zehazten ziren ez ziren ados jarriko. Are gehiago, desadostasun hau ezin izango zen eztabaida arrazionalaren bitartez gainditu. Beraz, gatazkaren konponbide arrazionalik ez legoke; hortik bere izaera

antagonikoa. Alde horretatik, hainbatetan, operazio hegemonikoa konbentzitze prozesua baino *konbertsiotzat* hartu daiteke; batez ere, gurean bezala, identifikazio politikoak oso errotuak daudenean. Moufferen ustez, kasu askotan “arerioaren ikuspegia onartzea” bakarrik, “nortasun politikoan eraldaketa erradikala onartzea suposatzen” duelarik (2007: 115).

Ikuspegi honek ez luke esan nahi arerioek desadostasunak gainditu ezin izango dituztenik. Soberanismoarentzat konpromisoak edota adostasun partzialak politikaren ezinbesteko osagaiak lirateke baina etenik ez duen gatazka iraunkor baten behin behineko ‘lasaialdi’ gisa hartu beharko liratekeenak. Hegemoniaren atalean azaldu bezala, lehia honetan adostasunik eraikitzen bada hori kontingentea izango da; “adostasun gatazkatsutzat” hartu dezakegu (Mouffe, 2007: 58). Eta, esan bezala, ez da eztabaida arrazional baten ondorio izango, boterearen aurrean geroz eta identifikazio zabalagoa lortzen duen nortasun antagoniko berria sendotzearen ondorioz ematen den indar korrelazioaren aldaketaren emaitza baizik. Adostasun kontingente hori hegemonia berri baten eraikuntzaren fruitua izango da.

Ikuspegi posfundazionalistaren arabera antagonismo hau ukatzen saiatzeak ez luke zentzurik; izaera eratzaila edo ontologikoa izango duen heinean (Marchart, 2009: 22-23). Antagonismo schmittiarraren inguruan kokatu ditzakegun sektoreentzat (patriotismo konstituzionala edota ezker abertzaleko ikuspegi hausturazale ‘klasikoa’), *erabakiak* fundazio une hau zehazten zuen. Jendartearen eraikuntza prozesua gidatzen duen domeinuaren inguruko erabaki politikoaz ari gara; *nazioaren* inguruko erabakia, hain zuzen: espainiarra ala euskalduna. Ikuspegi antagonista honek prozesu hau eskusio terminoetan planteatu zuen, hainbatetan ardatz edo domeinu honen erreferentzia onartzen ez zuenari etsaiaren kategoria egotziz. Soberanismoaren kategoriak, aldiz, antagonismo hau otzandu nahi izan zuen, domeinu honen inguruko interpretazio ezberdinei bide emanek. Domeinu hau demokrazia liberalak zuzendu behar dituen printzipio etiko-politikoaren gainean kokatzen saiatu da; askatasuna eta berdintasuna. Hortaz, soberanismoaren ikuspegiak ere jendartearen artikulazioari gutxieneko egonkortasun bat emango dion euskarri batzuk planteatuko zituen (euskal herritarren hitza errespetatu), beti ere, hauen inguruko interpretazio pluralista bati bide emanek (proiektu politiko guztien egingarritasuna).

15.3 taula: *Lehian aritzeko eredu politikoak*


| | | | | |
|---------------------------|--|--|--|--|
| Eredu politikoa | <i>Antagonikoa</i> (konstituzionalismoa- E.A.ren haustura 'klasikoa') | <i>Agonista</i> (soberanismoa) | <i>Gehitzailea</i> (autonomismoa) | <i>Eztabaidazalea</i> (erreforma soberanista) |
| Aktoreak | Estatuak | Mugimendu sozialak (zaharrak eta berriak) | Alderdi politikoak / Eliteak | Hiritar aktiboak |
| Jarduera | Gerra | Tentsio agonista | Interesen negoziazioa | Eztabaida arrazionala |
| Logika | <i>Politikoa</i> (indarra) | Hegemonikoa | <i>Ekonomikoa</i> (interesen maximizatzea) | Arrazionalista |
| Kategoria nagusiak | Lagun /etsaia | Arerioa | Lehiakidea | Mintzakidea |

Esan gabe doa, hona arte azaldutakoak eredu teorikoei erantzuten dietela. Alde horretatik, praktikan eredu bat non bukatzen den bestea hasteko zehaztea lan nekeza delarik. Aztertu dugun epealdian guztiak presente egon ziren; modu batean edo bestean. Kasu honetan, ikuspegi normatiboa alde batera utzi eta horien ezaugarri nagusiak jaso nahi izan ditugu, sektore politiko bakoitzak marraztatutako joera orokorrak aztertze aldera.

15.3.3 Elkarlan gatazkatsua, ekintza kolektiborako bide gisa.

Ekintza kolektiborako ereduari dagokionez ere, soberanismoak Giugni eta Passy-k (1998) *elkarlan gatazkatsua* deitu zuten jarduera mota garatu zuela esan dezakegu. Ekintza kolektiborako bide hau mugimendu eta instituzioen artean ohikoagoak izaten diren *protesta*, *oposizioa* edota *kontsentsua* bezalako eruedetatik bereizten da: jarduera mota (diskurtsoa ala ekintza) eta adostasun mailaren (akordioa ala desadostasuna) ardatzen artean banatuko litzatekeen tipologia eratuz. Kasu honetan, gatazka eta elkarlanaren dimentsioak barnebilduko lituzkeen ereduaz ariko ginateke, ELA-LAB eta Eusko Jaurilaritza edota Euskal Herritarrok eta EAJ-EAren artean garatutakoa, esaterako.

Jarduera mota



15.5 irudia: ekintza kolektiborako eredu ezberdinak (Giugni, 1998:85).

Elkarlan gatazkatsu hau prozesu politikoaren une ezberdinetan garatu zen. Batetik, *prozesu legegilean*, EAJ-EA eta Euskal Herritarrok-en arteko Legebiltzarrerako akordioak finkatutakoaren ildotik. Bigarrenik, afera instituzionalen kudeaketarako beharrezkoak diren eremu administratiboko *arautze prozesuak* izango genituzke. Honen adibidetzat hartu dezakegu ELAk eta LABek gidatuta, sindikatu ezberdinek Eusko Jaurlaritzarekin 1999ko urtarrilean adostutako Enplegu Planetik eratorritako neurri ezberdinak²⁹². Eta hirugarrenik, *politika publikoen inplementazioa* izango genuke; okupatutako langileen Etengabeko Formakuntzarako akordiotik eratorritako Hobetuz fundazioarekin bezala.

Giugni eta Passy-ren arabera (1998), aldiz, elkarlan gatazkatsuak bi aldeen partetik aldeko hainbat baldintza eskatuko ditu. Erakunde autonomikoei zegokienez, hauek ez zituzten aparteko bitartekorik prozesu instituzionaletik kanpo kokatu izan ziren hainbat sektoreei bertan inkorporatzeko erraztasunak jartzeko. Gainera ordura arte agintari jeltkideen estrategiak, kultura politiko nagusiaren adierazpide gisa (*prevailing strategies of powerholders*), hainbatetan ez zuen sektore hauekin elkarlanerako bideak errazten. Alde horretatik, elkarlan horri bide eman zion EAJ, EA eta ETaren arteko 1998ko udako akordioak hainbatetan aliantzen egitura hauskor berria marraztu zuen.

Baina instituzioen aldetik ez ezik, mugimendu soberanistaren aldetik ere hainbat baldintza erraztu behar ziren elkarlana eman ahal izateko. Batetik, elkarlanerako *gaiaren zehaztapena* erabakigarria

²⁹² Administrazio publikoko lan jardunaren arautzea (35ko lan astea), aparteko lan orduekin bukatzeko neurriak finkatzea edota kontratazio irizpideen zehaztapena, besteak beste.

izan ohi da, gai batzuk beste batzuk baino korapilatsuagoak izaten direlarik. Alde horretatik, autogobernuaren garapenerako eredia, planteatu zitezkeen gaien artean katramilatsuenetakoa zen, zalantzarik gabe. Bestetik, mugimenduaren *antolakuntza ereduari* erreparatuta, lehenengo begirada batean, soberanismoarena ez zirudien aproposena prozesua errazteko. Tradizio politiko ezberdinetatik zetozen aliatuak biltzeaz gain, instituzioek elkarlana botere politikoa lehiatu nahi zioten kontra-mugimenduari garatu behar baitzuen. Hau gutxi ez eta *aukeraketa taktiko eta estrategikoei* zegokionez, izaera erradikal edota biolentoa zituzten bitartekoen erabileraren alde egiten zituzten hainbat sektore barnebildu behar ziren elkarlan honetan. Alde horretatik, su etena indarrean egon zen bitartean kale borrokako erasoen mantentzea EAJ, EA eta EHren arteko legebiltzarreko akordioaren kudeaketan ika-mikarako etengabeko gaia bihurtu zen.

Arestian aipatutako elkarlan gatazkatsurako baldintzen integrazio erlatiboak, horrelako prozesuetan ohikoak izaten diren inplikazio edo ondorioen garapen desorekatua ere ekarri zuen. Ezker abertzalearentzat, instituzio autonomikoekin garatutako elkarlanak bere zertifikazioa ekarri bazuen ere, bere izaera eta ezaugarriak ere aldarazi zitzaizkeen. Izan ere, mugimenduaren inkorporazio edota aldaketa prozesuetan ematen den botere politikoaren birbanaketaren ondorioz mugimenduak bere eskaerak apaltzera jo ohi du; banaketa horren emaitzak argitzen duelarik zeinek eman duen amore gehien. Honek mugimenduaren identitatean ere aldaketak ekarri ohi ditu; mugimenduaren izaera gatazkatsuak erakundeen jardunaren kritika politizatzen du, baina behin berarekin elkarlanean hasita protesta mugimenduaren nortasuna aldatzen da. Dilema honen aurrean ezker abertzaleak bi aukera nagusi izan zitzaizkeen: bere roll berrira egokitu eta bere identitatea aldatu ala bere nortasuna mantendu eta liskarraldiari bide eman. ELA eta LABen aliantzan edota EHk EAJ eta EAekin sinatutako legebiltzarrerako akordioan, bi hauen arteko *elkarlan gatazkatsuen* ereduaren eragina antzeman genezakeen, bakoitzaren jatorrizko identitatearen aldeko defentsa sutsu(egi)ak elkarlan gatazkatsutik *oposizio* eta *protesta* ereduera bueltatzearen arrazoietako bat bezala kokatu dezakegu.

Ildo horretan, *bitartekoen mobilizazioan* ematen diren aldaketek ere eragin erabakigarria izan ohi dute. Izan ere, elkarlanaren ondorioz burujabetzaren aldeko sektoreentzat bide instituzional berriak jorratzeko aukera irekitzearekin batera, ohiko protestarako bitartekoen garapenean eragin kaltegarria ekarri zezakeen. Horrela, mugimendua mobilizaziotik interes ordezkapenera desplazatu zitezkeen, bere ohiko legitimazio iturriak (kale presentzia, erakusgarritasun publikoa, ...) ahuldu zitezkeelarik. Honek ezker abertzalearen baitan egiten ari zen ibilbidearen gaineko ikuspegi

ezberdinak izatera eraman zezakeen, handik denbora gutxira ETAk egindako irakurketarekin²⁹³ edota Aralarren zatiketarekin ikusi bezala.

Baina prozesu honek burujabetzaren aldeko mugimenduan ez ezik, bere inplikazioak ere izan zituen instituzio autonomikoetan. Batetik, ordura arte sistemaren kontrako jarrera mantendu zuten sektoreekiko elkarlanak kultur politiko instituzionala aldatu eta beraiekiko hartu-emanetarako bitarteko berriak mahai gaineratzea eskatu zuelako. Kultura ezberdinen arteko harreman hauek lehenengo momentuan instituzioen funtzionamendua moteldu eta eraginkortasuna apaltzea ekarri ohi badute ere, aniztasunaren kudeaketaren ikuspegitik ‘demokratikoagoa’ bilakatzen ditu. Aldi berean, honek sistemaren legitimazioaren inguruko eztabaida ireki zuen. Izan ere, Ajuria-Eneako Itunaren garaietatik ordura arteko sektore hausturazaleen (ezker abertzalea) integrazioa sistema autonomikoaren legitimaziorako ‘azken’ erronkatzat hartzen bazen ere, barneratze (mugatu) honek ordura arte barruan kokatutako sektoreen deslerrotzea ekarri bait zuen (PP-PSE-EE).

Baina bada elkarlan gatazkatsu honek izan zuen eragin esanguratsuago bat. Izan ere, elkarlanak mugimenduaren identitatea aldarazteaz gain, erakunde autonomikoenen gain eragina izan baitzuen. Hauek 1978ko Trantsizioan finkatutako erreforma politikoa egonkortzeko oinarritzko erreferentzia izan ziren bitartean, Ibarretxeren bigarren agintalditik aurrera, burutu gabeko ‘bigarren Trantsizioari’ bide eman ahal izateko bitarteko nagusietako bat bezala irudikatu ziren, bai ezker burujabetzaren aldeko sektore ezberdin aldetik.

²⁹³ Lizarra-Garaziko akordioaz geroztik jorrotutako ildo instituzionalaren inguruan horrela zion ETAk egindako irakurketak su-etenaren hausturaren arrazoiak azaltzeko: “PNVren jokia HB motzean lotzen saiatzea zen [...]. HB marko instituzional berriaren luzerako eztabaidan murgilduz eta aurrean zegoen ziklo elektoralaren ondorengo ‘pastel’ banaketaren formula ezberdina proposatuz” (*ETAren ekimena*, 2000). EAJk izan zitzakeen sakoneko asmoen inguruko iritziez harago, ez zirudien EH-k garatutako ibilbide instituzionalaren gaineko iritzi berdina zegoenik ezker abertzale osoan.

16. KAPITULUA: EPILOGOA


Euskal protestaldiaren amaiera ikustatzen? Eragin posibleak

Aipatu dugun bezala, Tarrow-en (1997) arabera protestaldiak parabola forma hartu ohi du. Bere gainbeheran errepresioak edota eskaeren aurrean Estatuak erakutsitako harmenak eragin zuzena izan dezakete. Horrela, protestaldia apaltzen denean bere garapena alderdi eta eliteen eskuetan gelditu ohi da. Tarrowek, aldiz, protestaldiei ez die bukaera posible bakar bat aurre-ikusiko. Bere ustez normalean hiru joera nagusitu daitezke: batetik, protestaldian parte hartutako kideen eta orokorrean jendartearen politizazio bat antzemango da, honek etorkizun batean protestaldi berriei bide eman ahal izango dielarik; bestetik, eta honi lotuta, kultura politikoen aldaketa eman ohi da, lehenengo ekintzaileen artean eta ondorenean jendarte osoan; eta azkenik, protestaldiak instituzio eta praktika politikoetan izango duen eragina aztertu beharko da.

Ikuspegi horren arabera ETAREN bukaera protesta ziklo horren parabolaren gainbeheraren adierazlea litzateke; baina baita ondorio naturala ere. Izan ere, ETAREN amaiera, bere jatorrietatik ordezkatzen zuen aldaketa politikorako paradigma 'gerrillaria' XXI. mendean inplementatzeko aurkitutako zailtasunen ondorio bezala ulertu baitezakegu. MTTk gogoratu bezala, iraultzak oso gutxitan gertatuko dira, protestaldien bukaera ohikoena demokratizazio maila bat izango delarik. Honek ez du esan nahi protestaldiak forma berriak hartuko ez dituenik; ezta oraindik esku artean dugun euskal gatazkan prozesu iraultzaileek biltzen dituzten mekanismoak aktibatu ezin izango direnik (eliteen deslerrotzea, irainen bat-bateko ezarpena, ...). Are gehiago, protestaldiak prozesu iraultzaileen ageriko mehatxua barnebildu beharko du sistemari gainezko egin nahi badio (Clemens, 1998: 111). Bestelakoan demokratizazio apalagoa izango baita emaitza posibleena.

Giugni-k (1998) gatazkatik demokratizaziora doan ibilbidearen bukaeraren ikuspegi instituzionalagoa azalduko digu, protestaldiak eragin ohi duen aldaketaren hiru adiera planteatuz: *barneratzea (incorporation)*, *eraldaketa (transformation)* eta *demokratizazioa*. Protesta mugimendua *barneratzearen* ondorio ohikoena *instituzionalizazioa* izaten da, bere eskaeretako

batzuk agenda instituzionalean jaso; baina, hau ez da zertan protestaren bukaerarekin parekatu behar, protestak instituzioetan ere bidea aurkitu baitezake. Bigarrenak, jendartearen zein erakunde politikoen *eraldaketa* maila bati erreferentzia egingo dio. Honakoak barneratzeak baino aldaketa sakonagoa dakar, baina oraindik bigarren mailakotzat hartu daitezkeen gaien inguruan. Eta azkenik, *demokratizazioak* eragin sakonena duen aldaketa maila adieraziko du. *Barneratsetik eraldaketarako* tartea bigarrenagoan ematen den botere transferentzian datza; *eraldaketatik demokratizatorara*, botere transferentzia ere burutuko da, baina azken honetan eskubide eta betebeharrak aldaketa ere eman ohi da, normalean status juridiko-politikoaren aldaketari lotuta.



16.1 irudia: Aldaketa sozialerako prozesu posibleak (Giugni, 1998: xvi).


Mende erdia baino gehiago luzatzen ari den protesta ziklo luzearen amaieraren aurrean gaudenaren hipotesia ontzat hartzen badugu, Giugni-ren eredu gureru ekarrira oldarraldiaren hiru eragin posibleekin aurkitu gaitzke. Hauek ez dira beraien artean baztergarriak izango eta praktikan teilkatzen diren eredu teoriko posible nagusi batzuei baino ez diete erantzuten:

- a) *Ezker abertzalearen instituzionalizazioa*: ezker abertzaleak bere jardura instituzionala normalizatu du azken urteotan. Udal mailan izan duen parte hartze iraunkorraz harago, bestelako eremu instituzionaletan normaltasunez parte hartzen du, bere egitasmoak agenda politiko orokorretan txertatuz eta horiek aurrera ateratzeko aliantzak eraikiz. Urteetan zehar sistemaren erronka nagusia ezker abertzalearen barneratze ‘hutsa’ izan da; asko jota, politika (*policy*) zehatz batzuetan planteatutako eskaerak barneratu edota sistemaren onargarritasuna

arriskuan jarriko ez duen aldaketa maila bat eraginez. Gurean, behin protesta mugimenduaren barneratzea eta instituzionalizazioa emanda, protestaldi luze honen amaiera zantzuak dituen fase historikoak, aldiz, balizko *eraldaketa* edota *demokratizazio* prozesuaren emaitza ere oraindik argitu behar ditu. Ezker abertzalearen barneratzea, bere garaian Ajuria-Eneako Itunak planteatzen zuen ‘asimilazio’ zentzuarekin parekatu nahi dituzten irakurketez harago, Ibarretxeren bigarren agintalditik aurrera sendotu zen *berrikuntza taktikoaren* mekanismoaren inplementazioa bezala ulertzea egokiago iruditzen zaigu. Izan ere, indarrean den instituzionalizazioa gaintu nahi duen protesta mugimenduak erakunde horietan bertan parte hartzeak, berarekiko izandako harreman historikoaren eguneratzearen itxura gehiago dauka, bera epe luzerako erreferentzia bezala mantentzeko apustutik baino.

- b) *Autogobernu kuota berriak ekarriko dituen erreforma edo eraldaketa mugatua*: Jada aipatu dugu eraldaketaren kategoriak oinarrizko botere transferentzia bat barnebildu behar duela; beti ere, “une zehatz batean jendarte zehatz bat ezaugarritzen duen ordenuaren oinarrizko joko arauak aldatzen ez dituzten eraldaketa ez-katastrofikoak” ziurtatuz (Clemens, 1998). Momentuko aukera eta mehatxuen egiturari gaintik erreparatuta, *eraldaketa* honek, besteak beste, elkarri baztertzen ez dioten bi aukeretan forma hartu dezake: batetik, botere transferentzia maila bat suposatuko duen jada aitortutako eskuduntza berrien esku-aldatzea; eta bestetik, ‘oinarrizko joko-arau’ horien (Konstituzioa) aldaketa ekarriko ez duen erreforma (estatutarioa). Baina zeintzuk lirateke ‘oinarrizko joko-arau’ horiek? Formulazio ezberdinak izan ditzaketen interpretazioak egonda ere, galdera honen erantzuna gure ikerketan baliatu dugun ikuspegira ekarriko dugu adostasun nahikoa bildu dezakeen planteamendu mahai gaineratuz. Horrela, burujabetzaren iturburu bakarra zalantzetan jarriko ez duen eraldaketa oinarrizko joko-arau horiek kolokan jarriko ez duen aldaketatzat hartu ahal izango du. Aldiz, zentroa eta periferiaren arteko menpekotasuna zalantzetan jarri eta berdinetik berdinerako harremana planteatuko lukeena joko-arau berriak planteatuko lukeen demokratizazio ariketatatzat hartu genezake.
- c) *Demokratizazio saio berria*: demokratizazioa herritarren eta gobernuen arteko harremanak zabaldu, berdindu eta lotesleago egiten duen prozesua bezala izendatu dugu. Zentzu horretan, euskal protesta zikloaren helburu demokratizatzailea funtsean Estatuak botererako bitartekoen kontrola zabaldu, zentro eta periferiaren arteko harremanak berdinetik berdinerara gauzatu eta euskal herritarrek hartutako erabakiekiko errespetuan kokatu da; hau da, euskal nazioaren aitortzan subjektu politiko bezala. Demokratizazioa, eremu zehatz bateko herritarren eskubide eta betebeharrak aldarazten dituen heinean, marko juridiko-politikoaren

aldaketari lotuta agertu ohi da; botere transferentzia handiena bideratzen duen aldaketa gisa. Joko arauen balizko aldaketa honek elkarlotuta agertzen diren bi dimentsio barnebidu beharko lituzke, zentroarena eta periferiarena; ohikoena bigarrenaren eskaeren arabera lehenengoa egokitu behar izatea delarik. Zentroaren onargarritasunaren mailak eta periferiaren aldarrikapenen sakontasunak aldaketa horren izaera adostua edo adostu-gabea definituko du, periferiaren aldarrikapenak zenbat eta estrukturalagoak eta zentroaren onargarritasun maila zenbat eta baxuagoa, formula adostuetarako aukera baxuagoa izango delarik; eta alderantziz. Edozein kasutan, eredu teorikoez ari garela ezin ahaztu, kasu gehienetan desadostasunetarako eta adostasunetarako une ezberdinak tartekatu ohi direlarik. Hitzartutako ereduaren artean (kon)federalizazio²⁹⁴ formulak eredu klasiko bat izan ohi dira; egun aukera txikiak aurreikusten zaizkion Konstituzioaren erreforma deszentralizatu baten eskutik eman daitekeena edota honen irakurketa zabal baten bidez. Adostu ezinezko ereduaren artean desanexio edota sezesioak²⁹⁵ nabarmendu ohi dira.



16. 2 irudia: Protesta zikloaren amaiera posibleen irudia.

²⁹⁴ Eredu federalistaren inplementazioaren inguruko bibliografia zabala aurkitu badezakegu ere, Enric Fossas eta Ferrán Requejo-ren *Asimetría federal y estado plurinacional* (1999) liburua azpimarratuko genuke, Kanada, Belgika eta Espainiako ereduaren arteko alderaketa egin ahal izateko.

²⁹⁵ Bi kontzeptuak ezberdintzeko Blasek (2015: 268) horrela aipatuko du Zubiagari erreferentzia eginez: “Europako sezesio proiektu gehienek borondatez edo pragmatismoz, intentsitate baxuko independentzia prozesuak proposatzen dituzte Europar Batasunaren baitan, Mario Zubiagak bere hitzaldian desanexio bezala izendatu dituenak [...]. Izan ere, ikuspegi ekonomiko, politiko eta militarretik loturak mantendu egingo omen dira, sezesio proiektuen kostua merkatuz jatorrizko estatuaren aliatuentzat”. Hala ere, azpimarratzen du: “Hasieran desanexioa dena behin nazioarteko ezagutza lortuta desanexio bilakatu daiteke Europar Batasun barnean edo honetan dauden politiken aurkako estatu kritiko bilakatuz”.

Protesta zikloaren amaiera honetan *konbergentziaren* mekanismoak indarra hartu du burujabetzaren aldeko indarren artean. Euskal Elkargoaren sorrerak Ipar Euskal Herriaren instituzionalizazioan aro berri bat ireki du. ‘Aldaketaren Gobernuak’ urteetan luzatutako izaera zentralistako gobernu erregionalistari bukaera eman dio. Eta Euskal Autonomia Erkidegoan Gasteizko Legebiltzarra hiru herrialdeetako hurrengo urteetako autogobernu eredu berritzera deitua dago. Ziurgabetasuna, aldiz, handia da. Zerbitzuen mankomunitatearen eskumen soilak biltzen dituen erakundeak bide nekeza izango du Mendebaldeko herrialdeen artean izaera zentralizatzaileenetako erakutsi duen Estatu baten aurrean. Parez pare ireki behar zaigun hauteskunde zikloak duela lau urte Nafarroan emandako gobernu aldaketa *alternantzia* hutsaren ala bertako jendartean ematen ari den *sen on* gramsciarraren aldaketaren adierazle den argitu beharko du. Bere aldetik, EAJ eta EH Bilduren artean Autogobernu Ponentzian adostuta oinarriek izango duten garapena ez dago jakiterik.

Arestian azaldutako Giugni-ren kategoriak urrats bat hona ekarri asmoz, azken lurralde eremu honi dagokionez, protesta mugimenduaren oinordekotzat hartu dezakegun sektore politikoa sistema autonomikoaren ‘iruzurraren’ marko diskurtsiboa gaindituta, transferitu gabe gelditzen diren eskumenen esku aldatzearen inguruan lerratze diskurtsibo transbertsal bat eman dela esan dezakegu. Sei hamarkada baino gehiago luzatu den protestaldiaren amaiera emaitza bezala, aldiz, apalegia suertatu daiteke burujabetzaren aldeko eragileen asmoentzat. *Eraldaketaren* kategorian bilduko litzatekeen ‘oinarrizko joko arauen’ aldaketarik gabeko botere transferentziaren ereduan berriz, ‘guztia berdin mantentzeko, guztia aldatuko duen’ erreforma estatutario *gatopardista* ezin baztertuko aukera izango da demokratizazio saiakerari eutsi nahi dioten sektore soberanistentzat. Izan ere, Giugni-k aipatu bezala eraldaketa mugatu honek oraindik ‘bigarren mailakotzat’ hartu daitezkeen gaietako bako ez die erreferentzia egingo.

Are era konplexuagoan agertzen zaigu eragin sakonagoa izan nahi duen *demokratizazioa*. Zentroarekin elkarriketarako zubi guztiak lehertuta, duela urtebete pasatxo Katalunian jorratutako aldebakarreko sezesioaren bideak bere mugak erakutsi ditu; baita harmen urria erakutsi zuen zentroarentzat ere. Burujabetzaren aldeko bi euskal alderdi nagusien artean lortu berria den akordioak, eraldaketa lanpedusiarra eta aldebakarreko desanexioaren arteko bidearen itxura hartu du. Protestaldiaren korapiloa askatu dezakeen kategoria bezala, bi alderdi abertzale nagusien artean ‘aldebikotasun efektiboaren’ ideia adostu da; era diskurtsibo hutsean baino, hori egikaritzeko mekanismo eta prozedura zehatzak planteatuz. Legezkotasunaren eztabaida zalantzetan jarri ezinezko plano materialean baino (erabakitze eskubidearen zilegitasuna) prozedurarenean jarrita, sistemak bere erreformarako planteatutako bideei (Konstituzioaren Lehenengo Xedapen Gehigarria

eta Gernikako Estatutuaren Xedapen Gehigarri Bakarra) heltzea adostu dute, 1978an Txibertan edota 1999an Lizarra-Garazin planteatutako ageriko hausturak (momentuz) alde batera utzita. Estatuaren gobernagarritasun hauskor honetan oso probable bezala agertzen ez den Konstituzioaren erreforma baten aurrean (eta izatekotan joera are zentralizatzaileagoa hartu dezakeena), Ibarretzek bere bigarren agintalditik aurrera planteatutako honen irakurketa zabalaren aldeko hautua egiten da, sistema berak planteatzen dituen bideen bitartez (kon)federalizazio bati heltzeko. Baikorrenentzat ere sistemaren onargarritasunak aldebiko eredu honi heldu ahal izango dion inkognita handia da. Honek kale eginda, sakoneko demokratizaziorako heltzeko alde bakarreko desanexio edo sezesio bideak izan dezakeen garapena are handiagoa.

Aukera politikoen egiturak baldintzatu dezake baten eta bestearen aldeko aukerak. Datu bezala, bigarren hautuari dagokionez Blasek (2015) egindako azterketan, 1990-2014 bitarte independentzia sezesio bidez aldarrikatu zuten hamazazpi herrialde artean, hamabostetan parte hartzea %70tik gorakoa izan zela aipatzea (izan erreferendum deialdia edota hauteskunde plebisitarioak). Hamazazpi horietatik hamahirutan baiezkoa %90tik gorakoa izan zen eta hirutan %90-%65 bitartekoa (izan erreferendumeko bozkek zenbatuta edota zegokion parlamentuaren ordezkartzarena).

Aukera konfederalari dagokionez berriz, datu bezala ere, aipatu dezagun CISek azken urteotan Estatuko lurralde antolaketari buruz egindako azterketetan hiru multzo nahiko orekatu ezberdintzen dituela, bakoitza %30ren bueltan kokatzen dena. Hurrenez hurren: egungo komunitateen autogobernu maila ontzat hartzen duena (%34a 2018eko ekainean egindakoaren arabera), erkidego autonomikoen egungo autonomia baino txikiagoa izango duen estatu eredia (%30,9) eta egungo autogobernu maila baino handiagoa edota estatu independente bihurtzeko aukera bermatuko lukeen Estatua (%22,3). Esan bezala, hauek datu batzuk baino ez lirateke, baina demokratizazio prozesuak eskatzen duen herritarren parte hartzearen ikuspegitik bere esangura izan dezaketenak.

Ildo honetan, Laclaren hegemoniaren teoriak 80. hamarkadan ezkerrean baitan ikuspegi erreformistek eta iraultzaileek planteatutako aterabiderik gabeko estrategiari irteera bat eskaini nahi izan zien. Lehenengoaren eragin mugatuaren eta bigarrenkoa 'gertatzeko' aukera eskasen aurrean alternatiba bat eskainiz. MTTk beraien aldetik, prozesu iraultzaileak oso gutxitan ematen direla ohartarazi ziguten, ohikoena demokratizazio maila bat izan ohi delarik. Ekintza kolektiboaren azalpenerako mekanismoei jarraituz, prozesu hauetan *desberdinen* arteko aliantzak josi, *konfiantza sareak* ehundu eta herritarren eta instituzioen arteko harremanak zabaltzeko balioko duten *politika*

publikoak gauzatu behar izaten dira. Hori bai, MTTk ere ohartarazi bezala, sakoneko demokratizazioa lortu nahi duen edozein aldaketa prozesuk ‘ageriko mehatxuaren’ osagaia bildu beharko du, adiera *malguan* (pase forala) edo *gogorragoan* (desanexioa/sezesioa); bere onargarritasunaren mugak zabaldu ezean sistemari gainezka egin diezaiokeen hausturaren aukera beti presente egonik. Hori da, amaieraren bukaera honetan, euskal protestaldiaren etorkizunak argitu beharko duena.

TAULEN AURKIBIDEA

| | |
|---|-----|
| 4.1 taula: Demokrazia ereduen taula | 183 |
| 7.1 taula: Markogintzaren dimentsioak eta estrategiak | 316 |
| 8.1 taula: Agenda berriaren kategoriak gure aztergaira ekarrita | 321 |
| 9.1 taula: Markogintzaren azterketarako baliatuko dugun metodoa laburbiltzen duen taula | 343 |
| 11.1 taula: Ajuria-Eneako Itunaren markogintza | 468 |
| 12.1 taula: EAJ-ren markogintzaren gako nagusiak 95-97 epealdian | 487 |
| 12.2 taula: Ezker abertzalearen markogintzaren gako nagusiak 95-97 epealdian | 498 |
| 12.3 taula: ELAren markogintzaren gako nagusiak 95-97 epealdian | 507 |
| 12.4 taula: Abertzaletasunaren baitako markogintza eta diskurtsoak lotzen dituen taula | 517 |
| 13.1 taula: Burujabetzaren aldeko diskurtsoen bilakaera | 544 |
| 14.1 taula: EAJ eta EHren 2000. urteko markogintzaren alderaketa | 572 |
| 14.2 taula: EAJ/Ibarretxeren eta ezker abertzalearen proposamenen alderaketa | 574 |
| 15.1 taula: Abertzaletasunaren diskurtso eta markogintzak | 590 |
| 15.2 taula: Ezker abertzalearen eta EAJren motibaziorako markoak | 604 |
| 15.3 taula: Lehian aritzeko eredu politikoak | 621 |

IRUDIEN AURKIBIDEA

| | |
|---|-----|
| 1. irudia: Ikerketaren egituraren irudia | 23 |
| 2.1 irudia: Diskurtso eremuen eraikuntza prozesua azaltzen duen irudia | 95 |
| 3.1 irudia: Diskurtsoaren roll-a munduaren eraikuntzan. | 111 |
| 3.2 irudia: Diskurtsoaren ikuspegi analitikoa | 112 |
| 3.3 irudia: ‘Unibertsaltasuna eraikitzen’ | 138 |
| 6.1 irudia: Aukera Politikoen Egitura | 226 |
| 6.2 irudia: Protestarako ekintza motak | 229 |
| 6.3 irudia: Liskar politikoa azaltzeko mugimendu sozialen teoriaren agenda klasikoa | 232 |
| 6.4 irudia: Liskar politikoa mobilizazioa aztertzeko marko dinamiko eta interaktiboa | 238 |
| 6.5 irudia: Nortasun liskartsuen banaketa | 240 |
| 6.6 irudia: Aktore osaketaren irudia ekintza liskartsuaren bitartez | 246 |
| 6.7 irudia: Polarizazioa | 247 |
| 6.8 irudia: Eskala aldaketa | 248 |
| 6.9 irudia: Konfiantza sareen integrazio maila botere guneeekiko | 265 |
| 9.1 irudia: Operazionalizazioa: kontzeptu, aldagai eta neurri arteko harremana | 363 |
| 9.2 irudia: Operazionalizazioa gure ikerketara ekarrita | 364 |
| 9.3 irudia: Marko teoriko eta metodologikoaren arteko harremana azaltzen duen irudia | 365 |
| 9.4 irudia: Marko metodologikoa eta aztergai enpirikoaren arteko harremana azaltzen duen irudia | 367 |
| 10.1 irudia: Protesta mugimendu goiztiarren bilakaera eta sortutako mugimendu deribatuak | 390 |
| 10.2 irudia: identifikazio politiko nagusien irudia Trantsizio osteko Autonomien Estatutuan | 421 |
| 11.1 irudia: Legitimazioa eta instituzionalizazioaren arteko harremanaren irudia | 430 |
| 11.2 irudia: Bortxa kolektiboaren tipologia | 457 |
| 12.1 irudiak: Herri Batasunak 90. hamarkadan zehar egindako bi kanpainetan erabilitako irudiak | 490 |
| 12.2 irudia: Negoziazio politikoen ereduaren bilakaeraren irudia | 493 |
| 12.3 irudia: Ezker Abertzalearen estrategia tentsiodunaren irudia | 499 |
| 12.4 irudia: ELA-LABen zubigintzaren irudia | 514 |
| 12.5 irudia: Eskala aldaketaren irudia | 522 |
| 13.1 irudia: Aktore osaketen irudia Lizarra-Garaziko prozesuan | 549 |

| | |
|---|-----|
| 13.2 irudia: Ideologiak, diskurtsoak eta markogintzen arteko harremana eta bilakaera euskal protestaldian | 550 |
| 13.3 irudia: Konstituzionalismoarekiko polarizazioaren irudia | 555 |
| 14.1 irudia: EAJren mende hasierako diskurtsoaren irudia | 560 |
| 14.2 irudia: Ibarretxeren 2000. urteko proposamenaren diagrama | 563 |
| 14.3 irudia: ETAren proposamenaren diagrama | 567 |
| 15.1 irudia: Atal metodologikoa eta aztergai enpirikoaren arteko harremana azaltzen duen irudia. | 584 |
| 15.2 irudia: Markogintza eta ekintza kolektiboaren arteko harremanaren irudia. | 586 |
| 15.3 irudia: Markogintzaren diagrama. | 588 |
| 15.4 irudia: Mekanismo eta prozesu ezberdinen inplementazioa | 603 |
| 15.5 irudia: ekintza kolektiborako eredu ezberdinak | 622 |
| 16.1 irudia: Aldaketa sozialerako prozesu posibleak | 626 |
| 16.2 irudia: Protesta zikloaren amaiera posibleen irudia | 628 |

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

| | |
|---|-----|
| 11.1 grafikoa: Terrorismoaren aurako mobilizazioen bilakaera Estatu mailan 1994-2001 epealdian | 444 |
| 11.2 grafikoa: Hauteskunde sindikalen emaitza 1978-1990 epealdian | 450 |
| 11.3 grafikoa: Manifestazioen bilakaera Hego Euskal Herrian 1994-2001 epealdian bere izaeraren arabera | 456 |
| 11.4 grafikoa: ETAk hildako lagunen kopurua 1990-2001 | 458 |
| 11.5 grafikoa: kale erasoen bilakaera helburuaren arabera 1991-1996 epealdian | 460 |
| 12.1 grafikoa: 1996an erasotutako alderdien egoitzak eta segurtasun indarren agente eta jabegoak | 491 |
| 12.2 grafikoa: Eskala aldaketa adierazten duen hainbat aldagai biltzen dituen grafikoa 1994-2001 epealdian | 520 |
| 12.3 grafikoa: EAEko lan gatazken bilakaera eta izaera 1993-2002 epealdian | 524 |
| 13.1 grafikoa: Hauteskunde autonomikoen bilakaera 1990-2001 epealdian | 536 |
| 13.2 grafikoa: hauteskunde autonomikoen bilakaera soberanisten (EAJ, HB/EH, EA eta EB-Berdeak) eta konstituzionalisten (PSE-EE, PP -eta UA-) arteko emaitzei zegokienez 1990-2001 epealdian | 553 |
| 13.3 grafikoa: Hauteskundeen bilakaera 1990-2001 epealdian | 554 |

JATORRIZKO DOKUMENTUAK

Ajuria Eneako Mahaia. (1989-1997). Ituna osatzen zuten alderdiek adostutako deklarazioak. *Diario Vasco* egunkaritik aterata data hauetan:

- 1989/01/13, 1989/03/03, 1989/04/18, 1991/02/09, 1991/11/23, 1991/12/04, 1992/01/18, 1992/03/28, 1992/09/15, 1993/07/28, 1993/09/08, 1993/09/29, 1993/12/16, 1994/04/20, 1995/02/01, 1995/06/23, 1996/01/12-13, 1996/06/26, 1997/04/24, 1997/07/12, 1997/07/14, 1997/09/17 eta 1997/12/13.

Ararteko. (2009). Euskadin Terrorismoaren biktimei erakundeek emandako arreta.

http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/6_1684_1.pdf

Ardanza, J. A. (1998): Para un acuerdo entre los Partidos de la Mesa sobre el 'final dialogado'.

<http://www.iceta.org/pa170398.pdf>

Barne Ministerioa. (1994-2001). Barne Ministerioaren urtekariak 1994tik 2001era.

<http://www.interior.gob.es/web/archivos-y-documentacion/documentacion-y-publicaciones/anuarios-y-estadisticas>

EAJ-PNV. (1995). Ponencias aprobadas en la Asamblea General celebrada los días 2 y 3 de Diciembre de 1995. Koldo Mitxelena liburutegitik aterata.

EAJ-PNV. (1997). EBBren urtarrilaren 27 zirkularra bakegintzari buruz.

<http://www.filosofia.org/his/h1997pnv.htm>

EAJ-PNV. (2000). Ahora más que nunca: ponencia política y resoluciones aprobadas en la III Asamblea General celebrada los días 15 y 16 de enero de 2000. Koldo Mitxelena liburutegitik berreskuratuta.

EAJ eta EA. (1999). VI. Legegintzaldiarako EAJ eta EAren arteko gobernu akordioa.

<http://www.elmundo.es/elmundo/1999/mayo/19/nacional/texto.html>

EAJ, EA eta ETaren artekoak²⁹⁶:

- ETA. (1998ko uztaila). ETaren proposamena EAJ eta EAri.
- EAJ eta EA. (1998ko abuztua). EAJ eta EAren kontraproposamena ETari.
- ETA. (1999ko uztaila). EAJri gutuna.
- EAJ. (1999ko abuztuan). ETari gutun bidezko erantzuna.

Egin. (1997). 1997ko urtekaria. Koldo Mitxelena liburutegitik berreskuratuta.

ELA. (1992). Aurrerapen eta askatasun bidetik. *Lantzen*, (26), 8-12 orrialdeak.

<https://www.mrafundazioa.eus/eu/dokumentazio-zentrua/lantzen/lantzen-26>

ELA. (1996). *Landeia*, (42), 5-10 orrialdeak.

<https://www.mrafundazioa.eus/es/centro-de-documentacion/landeia/landeia-42>

ETA. (2001). ETaren ekimena. Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxibategitik berreskuratuta.

Euskal Herritarrok. (1999). Euskal Demokrazia osatzeko oinarri eta garatzebideak.

<https://www.argia.eus/bakegintza/htdocs/sarrera.htm>

Foro de Ermua (1998). Manifiesto por la democracia de Euskadi.

http://www.elmundo.es/eta/documentos/foro_ermua.html

Hainbat. (1998). Lizarra-Garaziko Hitzarmena. Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxibategitik berreskuratuta.

²⁹⁶ Hartu-eman hauen berri 'ETaren ekimena' argitalpenean aurkitu daiteke. Baita *Argia* aldizkariko 'Bakegintza' sailean ere on-line bidez (<https://www.argia.eus/bakegintza/htdocs/sarrera.htm>); 2017ko abenduan web orriaren edukiak egunera eta egun ez dira agertzen.

Herri Batasuna. (1991). Urrats Berri ponentziak. Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxibategitik berreskuratuta.

Herri Batasuna. (1994). Oldartzen ponentzia. Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxibategitik berreskuratuta.

Ibarretxe, J. J. (2000). Madrilgo Círculo Siglo XXI-n martxoaren 23an emandako “Un punto de encuentro para convivir” konferentzia. <http://www.argia.eus/bakegintza/htdocs/siglo.htm>

Ibarretxe, J. J. (2000). Maiatzaren 11ean Bartzelonan emandako konferentzia. <http://www.argia.eus/bakegintza/htdocs/bartzelona.htm>

KAS. (1994). Txinaurri txostena. Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxibategitik berreskuratuta.

LAB. (1992). III. Biltzarra. Erabakiak. Batirtze Alkortaren artxibategi partikularretik berreskuratuta.

LAB. (1996). 4. Biltzarra. Ebazpenak. Eraikuntza Nazionalerantz. LABen eginkizunak. Batirtze Alkortaren artxibategi partikularretik berreskuratuta.

Lan Harremanetarako Kontseilua - Consejo de Relaciones Laborales. (2008). Elecciones sindicales en CAPV; procesos y resultados. <http://www.crl-lhk.eus/images/infSociolaboral/eleccionesSindicalesCAPV.pdf>

Lan Harremanetarako Kontseilua - Consejo de Relaciones Laborales. (2011). Informe sociolaboral 2011. <http://www.crl-lhk.eus/images/infSociolaboral/anual20101.pdf>

Oreretako Herri Batasunako komitea. (1995). Iratzar ponentzia. Lazkaoko Benediktarren Fundazioko artxibategitik berreskuratuta.

PP eta PSOE. (2000). Acuerdo por las libertades y contra el terrorismo. https://elpais.com/diario/2000/12/09/espana/976316403_850215.html

BIBLIOGRAFIA

Ackroyd, S. eta Thompson, P. (1999): *Organizational Misbehaviour*. London: Sage.

Agamben, G. (2010): *Democracia en suspenso*. Madrid: Causus Belli.

Ajangiz, R. eta Barcena, I. (2001): *Euskal Herriko gizarte mugimenduak*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

Egaña, I. (ed.) (1993): *Euskadi eta Askatasuna. Euskal Herria y la libertad* (vol. 8, 91-94). Tafalla: Txalaparta.

Anai Artean (2011): *Las actas de Txiberta (1977)*. Donibane Lohitzune. Anai Artean.

Anderson, P. (2000): *Los orígenes de la posmodernidad*. Barcelona. Anagrama.

Albano, S. (2004): *Michel Foucault; glosario epistemológico*. Buenos Aires: Editorial Quadratta.

Althusser, L. (1970): *Idelogía y aparatos ideológicos del Estado*.
http://www.infoamerica.org/documentos_pdf/althusser1.pdf

Althusser, L. (2010): *Para leer El Capital*. Madrid: Siglo XXI.

Apaolaza, U. (2015): “Abertzaletasunetik independentismora”, *Independentzia helburu*. Tafalla: Txalaparta.

Arditti, B. (2009): “El populismo como periferia interna de la democracia”, *El populismo como espejo de la democracia*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Ortiz, J. (ed.) (2005): *Xabier Arzallus. Así fue*. Madrid: Foca.

- Azurdimendi, J. (2007): *Volkgeist, herri gogoa: Ilustraziotik Nazismora*. Donostia: Elkar.
- Azurdimendi, J. (2014): *Historia, Arraza, Nazioa. Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk*. Donostia: Elkar.
- Badiou, A. (1999): *El ser y el acontecimiento*. Buenos Aires: Manantial.
- Badiou, A. (2005): *El siglo*. Buenos Aires: Manantial.
- Barlett, F. C. (1932): *Remembering: A Study in Experimental and Social Psychology*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Bateson, G. (1972): "A Theory of Play and Fantasy", *Steps to an Ecology of Mind*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Bauman, Z. (1999): *Modernidad líquida*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- Bauman, Z. (2001): *La posmodernidad y sus descontentos*. Madrid: Akal.
- Beasley-Murray, J. (2010): *Poshegemonía. Teoría política y Latino América*. Buenos Aires: Paidós.
- Beck, U. (1994): "La reinención de la política. Hacia una teoría de la modernización reflexiva", *Modernización reflexiva*. Madrid: Alianza.
- Beck, U. (1998): *La sociedad del riesgo; hacia una nueva modernidad*. Barcelona: Paidós.
- Benasayag, M. eta Del Rey, A. (2012): *Elogio del conflicto*. Madrid: Tierradenadie Ediciones.
- Benford, R. D. (1993): "Frame Disputes Within the Nuclear Disarmament Movement". *Social Forces* 71 (3): 677-701.
- Bernstein, E. (1982): *Las premisas del socialismo y las tareas de la socialdemocracia: problemas del socialismo, revisionismo de la socialdemocracia*. México: Siglo XXI.

Blas, A. (2008): *Politika eta Administrazio analisirako metodologia eta teknikak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

Blumer, H. (1951): "Social Movements" A. McClung Lee (ed.) *Principles of Sociology*. New York: Barnes&Noble. 2. edizioa.

Buci-Glucksmann, Ch. (1978): *Gramsci y el Estado. Hacia una teoría materialista de filosofía*. Madrid: Siglo XXI.

Butler, J., Laclau, E. eta Zizek, S. (2003): *Contingencia, hegemonía y universalidad*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Calhoun, C. (1997): *Nationalism*. Minneapolis: University of Minnesota Press.

Calhoun, C. (2002): "Los 'nuevos movimientos' de comienzos del siglo XIX", *Protesta Social*. Barcelona: Hacer.

Canovan, M. (1981): *Populism*. London: Houghton Mifflin Harcourt.

Casanova, I. (2008): *ETA 1958-2008. Medio siglo de historia*. Tafalla: Txalaparta.

Casanova, I. eta Asensio, P. (1999): *Argala*. Tafalla: Txalaparta.

Castells, M. (2000): *La era de la información: economía, sociedad y cultura. Vol. 2. El poder de la identidad*. Madrid: Alianza.

Castro, R. (Ed.) (2015): *Poshegemonía. El final de un paradigma de la filosofía política en América Latina*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Castro-Gomez, S. (2010): "Michel Foucault: Colonialismo y geopolítica", Rodriguez, Ileana eta Martínez, Joseberen (edit.) *Estudios transatlánticos postcoloniales. I. Narrativas comando/sistemas mundo: colonialidad/modernidad*. Barcelona: Anthropos.

Martínez, M. eta Zubiaga, M. (2014): State-building as Collective Action: A Comparative Analysis of Mechanism and Process in Catalonia and the Basque Country. *Anuari del conflicte Social*, 1-36.

Chouliaraki, L. eta Fairclough. (1999): *Discourse in late modernity : rethinking critical discourse analysis*. Edinburgh: Edinburgh University Press.

Clemens, E. S. (1998): “To Move Mountains: Collective Action and the Possibility of Institutional Change”, *From Contention to Democracy*. Oxford: Rowman & Littlefield.

Cohen, J. L. eta Arato, A. (2000): *Sociedad civil y teoría política*. Buenos Aires: Fondo Cultura Económica.

Correa, E. (2010): “La identidad y la identificación: Laclau y Zizek”. *Revista Carta Psicoanalítica*, 15, 1-42.

Critchley, S. (2008): “¿Hay un déficit normativo en la teoría de la hegemonía?”, *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Dahl, R. A. (1992): *La democracia y sus críticos*. Barcelona: Paidós.

Dahl, R. A. (1999): *La democracia. Una guía para los ciudadanos*. Madrid: Taurus.

Dallmayr F. (2008): “Laclau y la hegemonía. Algunas advertencias (pos)hegelianas”, *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

De la Cueva, J. (1988): *La escisión del PNV: EA, HB, ETA y la deslegitimación del Estado español en Euskadi Sur*. Tafalla: Txalaparta.

De la Granja, J. L. (2002): *El nacionalismo vasco: Un siglo de historia*. Madrid: Tecnos.

Della Porta, D. (1995): *Social Movements, Political Violence and the State*. Cambridge/NewYork: Cambridge University Press.

Della Porta, D. (1998): “Las motivaciones individuales en las organizaciones políticas clandestinas”, *Los movimientos sociales. Transformaciones políticas y cambio cultural*. Valladolid: Trotta.

Della Porta, D.; Diani, M. (2011): *Los movimientos sociales*. Madrid: Editorial Complutense.

Derrida, J. (1998): *Los espectros de Marx. El estado de la deuda, el trabajo del duelo y la nueva Internacional*. Madrid: Trotta.

Derrida, J. (2000): *Introducción a: Los orígenes de la geometría de Husserl*. Buenos Aires: Manantial.

Devenney, M. (2008): “La ética y la política en la teoría del discurso”, *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Diani, M. (1994): *Framing Processes and Political opportunities. Explaining the Success of the Northern League in Italy*. ECPR paper.

Diani, M. (2003): The Terrestrial Emporium of Contentious Knowledge. *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 109-112.

Diani, M. (2007): “Contentious Politics”, *Contemporary sociology*. Washington: American Sociological Association.

Díaz Medrano, J. (1999): *Naciones divididas. Clase, política y nacionalismo en el País Vasco y Cataluña*. Madrid: Centro de Investigaciones Sociológicas.

Donati, P. R. (1992): “Political Discourse Analysis”, M. Diani eta R. Eyerman (eds.), *Studying Collective Action*. London: Sage.

Dor, J. (1997): *Introducción a la lectura de Lacan; el inconsciente estructurado como lenguaje (3. Ed.)*. Barcelona: Gedisa

Dosse, F. (2004): *Historia del estructuralismo*, I eta II bolumenak. Madrid: Akal.

- Dunn, J. (1995): *Democracia. El viaje inacabado (508 a.C. - 1993 d. C.)*. Madrid: Tusquets.
- Edwards, G. (2014): *Social movements and protest*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Egiguren, J. (2009): *Historia del socialismo vasco (1886-2009)*. Donostia: Hiria.
- Eisinger, P. (1973): "The Conditions of Protest Behaviour in American Cities". *American Political Science Review*, 67(1), 11-28.
- Elorrieta, J. (2011): *Renovación sindical: mecanismo y procesos. Una aproximación a la trayectoria de ELA*. Doktoretza Tesia, Politika Zientzietako Departamentua, UPV-EHU.
- Errejón, I. (2011): *La lucha por la hegemonía durante el primer gobierno del MAS en Bolivia (2006-2009): un análisis discursivo*. Tesis Doctoral, Departamento de Ciencias Políticas y de la Administración III, Universidad Complutense de Madrid.
- Etzioni, A. (2001): *La tercera vía hacia una buena sociedad: propuestas desde el comunitarismo*. Madrid: Trotta.
- Fair, H. (2015): ¿Qué queda del posmarxismo en la teoría de la hegemonía de Ernesto Laclau? Tres etapas histórico-políticas y tres desplazamientos en su concepción normativa. *Crítica contemporánea. Revista de Teoría Política*, 5. 41-82.
- Forti, S. (2001): *Vida del espíritu y tiempo de la polis; Hanna Arendt entre la filosofía y la política*. Madrid: Cátedra.
- Foucault, M. (2008): *Arqueología del saber*. Madrid: Siglo XXI.
- Freud, S. (1988): *El malestar en la cultura, Obras completas-en, XXI*. Bolumena. Buenos Aires: Amorrortu.
- Fukuyama, F. (1992): *El fin de la historia y el último hombre*. Barcelona: Planeta.

Gabilondo, J. (2017): *Populismoaz. Subiranotasun globala eta euskal independentzia*. Tafalla: Txalaparta.

Gadea, W. F. (2008): “Ciudadanía, identidad y hegemonía política en el contexto de la democracia radical. Un estudio sintético del pensamiento de Ernesto Laclau”. *Astrolabio. Revista Internacional de Filosofía Política*, 6, 13-29.

Galfarsoro, I. (2005): *Kultura eta identitate erbesterratuak (Nomadologia subalternoak)*. Iruña: Pamiela.

Galfarsoro, I. (2008): *Subordinazioaren kontra*. Iruña: Pamiela.

Gamson, W. A. (1992): “The Social Psychology of Collective Action” pp. 53-76 in Aldon Morris eta Carol Mueller (eds), *Frontiers in Social Movement Theory*. New Haven: Yale University Press.

Gamson, W. A. (1995): “Constructing Social Protest”, pp. 85-106 in Hank Johnston and Bert Klandermans (eds), *Social Movements and Culture*. Minneapolis: University of Minnesota Press.

Garaikoetxea, C. (2002): *Euskadi: la Transición inacabada. Memorias políticas*. Barcelona: Planeta.

Gauché, R. (2008): “¿Qué tan vacío puede estar el poder? Acerca del lugar de lo universal”, *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Giddens, A. (1991): *Modernidad e identidad del yo*. Madrid: Península.

Giugni, M. C. (1998): “Social Movements and Change: Incorporation, Transformation, and Democratization”, *From Contention to Democracy*. Oxford: Rowman & Littlefield.

Giugni, M. C., Passy, F. (1998): “Contentious Politics in Complex Societies: New Social Movements between Conflict and Cooperation”, *From Contention to Democracy*. Oxford: Rowman & Littlefield.

- Goffman, E. (1974): *Frame Analysis: An Essay on the Organization of Experience*. New York: Harper and Row.
- Goikoetxea, J. (2012): “Nationalism and Democracy in the Basque Country (1979-2012)”. *Ethnopolitics*, 12(3), 268-289.
- Goikoetxea, J. (2014): “Nation and democracy building in contemporary Europe: the reproduction of the Basque demos”. *Nationalities Papers: The Journal of Nationalism and Ethnicity*, 42(1), 145-164.
- Goikoetxea, J. (2017): *Demokraziaren pribatizazioa*. Donostia: Elkar.
- González, E. (2002): *La violencia en la política. Perspectivas teóricas sobre el empleo deliberado de la fuerza en los conflictos de poder*. Madrid: CSIC.
- González, A., Colomer, J. L. (2010): *Republicanism cívico: socialismo de los ciudadanos*. Madrid: Laberinto.
- Gramsci, A. (1978): *Antonio Gramsci. Antología. Selección, traducción y notas de Manuel Sacristán* (4. Ed). Madrid: Siglo XXI.
- Gramsci, A. (1980): *Notas sobre Maquiavelo sobre la política y sobre el Estado Moderno*. Buenos Aires: Nueva Visión.
- Gurrutxaga, A. (1985): *El código nacionalista vasco durante el franquismo*. Barcelona: Antrophos.
- Gurrutxaga, A. (1996): *Del PNV a ETA: transformación del nacionalismo vasco*. Donostia. R&B.
- Habermas, J. (1985): “La modernidad, un proyecto incompleto”, *La posmodernidad*. Barcelona: Kairos.
- Habermas, J. (1987): *Teoría de la acción comunicativa*. Madrid: Taurus.
- Habermas, J. (1996): *Facticidad y validez*. Madrid: Trotta.

- Habermas, J. (2000): *La constelación posnacional*. Barcelona: Paidós.
- Hardt, M., Negri, A. (2005): *Imperio*. Barcelona: Paidós.
- Harvey, D. (1996): *Justice, Nature and the Geography of Difference*. London: Blackwell.
- Harvey, D. (2008): *La condición de la posmodernidad; Investigación sobre los orígenes del cambio cultural*. Madrid: Amorrortu.
- Hayek, F. (1952): *The counter-revolution of science*. Illinois: The Free Press.
- Hayek, F. (1982): *Los fundamentos de la libertad*. Madrid: Unión Editorial
- Heidegger, M. (2002): *Ser y tiempo*. Madrid: Trotta.
- Herri Batasuna, (1999): *Herri Batasuna, 20 urte... eta aurrera!*. Euskal Herria: Printek.
- Herrero de Miñón, M. (1998): *Derechos Históricos Y Constitución*. Madrid: Taurus.
- Honnet, A., Knodler-Bunte, E. eta Widmann, A. (1981): “The Dialectics of Rationalization : An Interview with Jürgen Habermas”. *Telos* 49: 5-31.
- Hirschman, A. (1982): *Shifting Involvements: Private Interest and Public Action*. Princeton: Princeton University Press.
- Howarth, D. (2005): “¿Populismo o democracia popular? El Frente Democrático Unido, el operaísmo y la lucha por la democracia radical en Sudáfrica”, *El populismo como espejo de la democracia*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- Howarth, D. (2008): “Hegemonía, subjetividad política y democracia radical”, *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.
- Huntington, S. P. (1996): *El orden político en sociedades en cambio*. Barcelona: Paidós.

Ibarra, P. (1987): *Evolución estratégica de ETA (1963-1987)*. Donostia: Kriselu.

Ibarra, P. (2004): *Nacionalismo. Razón y pasión*. Barcelona: Ariel.

Ibarra, P. eta Tejerina, B. (1998): *Los movimientos sociales. Transformaciones políticas y cambio cultural*. Valladolid: Trotta.

Iriondo, I. (2008): *Ibarretxe. Entre el querer y el poder*. Bilbo: Baigorri.

Iriondo, I. eta Sola, R. (2005): *Mañana, Euskal Herria*. Bilbo: Baigorri.

Jameson, F. (1991): “Posmodernismo o la lógica cultural del capitalismo tardío”, *Ensayos sobre posmodernismo*. Buenos Aires: Imago Mundi.

Jameson, F. (1996): *Teoría de la posmodernidad*. Madrid: Trotta.

Jasper, J. (1997): *The Art of Moral Protest: Culture, Biography and Creativity in Social Movements*. Chicago and London: University of Chicago Press.

Jessop, R. (1982): *Orden social, reforma y revolución: una perspectiva del poder, del cambio y de la institucionalización*. Barcelona: Tecnos.

Jessop, R. (2007): *State power: a strategic-relational approach*. Cambridge: Polity Press.

Jorgenson, M. W. eta Phillips, L. (2002): *Discourse analysis as theory and method*. London: Sage Publications.

Katzenstein, M. F. (1990): “Feminism Within American Institutions: Unobstrusive Mobilization in the 1980s”, *Signs*, 16:27-54.

Kautsky, K. (1969): *Las tres fuentes del marxismo. La obra histórica de Marx*. <https://www.marxists.org/espanol/kautsky/1907/lastresfuentesmarxismo-kautsky-1907.pdf>

Klandermans, B. (1988): "The Formation and Mobilization of Consensus" Klandermans, B., Kriesi, H. eta Tarrow, S. (edit.)-ek *From structure to action: comparing social movement research across cultures*. Greenwich: JAI Press. Vol. 1,173-196.

Klandermans, B. (1992): "The Social Construction of Protest and Multiorganizational Fields" Morris, A. eta Mueller, C. (edit.) *Frontiers in Social Movement Theory*. New Haven: Yale University Press. 77-103.

Koopmans, R. (2003): "A Failed Revolution-But a Worthy Cause". *Mobilization: An International Journal*, (8)1, 116-119.

Kortabarria, G. (2015): *Gauzak horrela (ere) izan ziren; ELA 1976-2006*. Arre: Pamiela.

Kurzman, C. (2004): "The Poststructuralist Consensus in Social Movement Theory" J. Goodwin eta J. Jasper (eds) *Rethinking Social Movements: Structure, Meaning and Emotion*. Lanham/Oxford: Rowman&Littlefield.

Lacan, J. (1978): *Los cuatro conceptos fundamentales del psicoanálisis*. Barcelona: Paidós.

Lacan, J. (1981): *Los escritos técnicos de Freud*. Barcelona: Paidós.

Lacan, J. (1994): *Los escritos de Jacques Lacan; variantes textuales de Ángel de Frutos*. Madrid: Siglo XXI.

Laclau, E. (1978): *Política e ideología en la teoría marxista. Capitalismo, fascismo, populismo*. Madrid: Siglo XXI.

Laclau, E. (1995): "Universalismo, Particularismo y el tema de la Identidad". *Astrolabio. Revista Internacional de Filosofía Política*, 5, 38-52.

Laclau, E. (1996): *Emancipación y diferencia*. Buenos Aires: Ariel.

Laclau, E. (2000): *Nuevas reflexiones sobre la revolución de nuestro tiempo* (2. ed.). Buenos Aires: Nueva Visión.

Laclau, E. (2001): *Debates políticos contemporáneos*. México: Plaza y Valdés.

Laclau, E. (2005): *La razón populista*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Laclau, E. (2008): *Debates y combates: por un nuevo horizonte de la política*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Laclau, E. (2012): *Los fundamentos retóricos de la sociedad*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Laclau, E. eta Mouffe, Ch. (2004): *Hegemonía y estrategia socialista; hacia la radicalización de la democracia*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica de Argentina.

Las Heras, J. (2018): "Sign or not to Sign? Union strategies towards provincial metal sector agreement in the Catalan and Basque automotive industries". *European Journal of Industrial Relations*. London: Sage, 1-20.

Le Bon, G. (2004): *Psicología de las multitudes*. Buenos Aires: Virtual.

Lefort, C. (1988): *Democracy and Political Theory*. Oxford: Oxford.

Lessnof, Michael H. (2011): *La filosofía política del siglo XX*. Madrid: Akal.

Letamendia; F. (1994a): *Historia del nacionalismo vasco y E.T.A. Introducción a la Historia del País Vasco. ETA en el franquismo (1951-1976)*. Donostia: R&B.

Letamendia; F. (1994b): *Historia del nacionalismo vasco y E.T.A. E.T.A. en la transición (1976-1982)*. Donostia. R&B.

Letamendia; F. (1997): *Juego de espejos*. Valladolid: Trotta.

Letamendia; F. (1999): "Actores colectivos", *Un Nuevo Escenario. Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*. Bilbo: Manu Robles-Arangiz Institutoa.

Letamendia; F. (2001): *Ciencia política alternativa. Su aplicación al País Vasco e Irlanda del Norte*. Madrid: Fundamentos.

Letamendia; F. (2004): *ELA 1976-2003; Sindicalismo de contrapoder*. Bilbao: Manu Robles-Arangiz Institutoa.

Letamendia; F. (2009): *Estructura política del mundo del trabajo: fordismo y posfordismo*. Madrid: Tecnos.

Lichbach, M. I. (2008): “Modeling Mechanism of Contention: MTT's Positivist Constructivism”. *Qualitative Sociology*, 31(4), 345-354.

Lijphart, A. (1987): *Las democracias contemporáneas*. Madrid: Ariel.

Lijphart, A. (2000): *Modelos de democracia: formas de gobierno y resultados en treinta y seis países*. Madrid: Ariel.

Lowndes, J. (2005): “De la violencia fundacional a la hegemonía política: el populismo conservador de George Wallace”, *El populismo como espejo de la democracia*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Luxemburgo, R. (1974): *Huelga de masas, partido y sindicatos*. Madrid: Siglo XXI.

Luxemburgo, R. (2009): *Reforma o revolución*. Barcelona: Diario Público.

Lyotard, J. F. (1987): *La condición posmoderna*. Madrid: Cátedra.

Lyotard, J. F. (1987a): *La posmodernidad explicada a los niños*. Barcelona: Gedisa.

Majuelo, E. (2000): *Historia del sindicato LAB. Langile Abertzaleen Batzordeak (1975-2000)*. Tafalla: Txalaparta.

Maíz, R. (2003): "Politics and the Nations: Nationalist Mobilization of Ethnic Differences". *Nations and Nationalism*, 9(2), 195-212.

Maíz, R. (2007): "Prefacio" Maíz, R. (biltzailea), *Nación y Literatura en América Latina*. Buenos Aires: Prometeo. 9-18.

Maíz, R. (2008): *La Frontera Interior. El lugar de la nación en la teoría de la democracia y el federalismo*. Murcia: Tres Fronteras.

Marx, K. eta Engels, F. (1988): *La ideología alemana*. Barcelona: L'Eina.

McAdam, D. (1982): *Political Process and the Development of Black Insurgency, 1930-1970*. Chicago: Chicago University Press.

McAdam, D. (1994): "Cultura y Movimientos Sociales", Laraña, E. eta Gusfield, J., *Los Nuevos Movimientos Sociales*. De la Ideología a la Identidad. Madrid: CIS.

McAdam, D. (2002): "Movimientos 'iniciadores' y 'derivados': procesos de difusión en los ciclos de protesta", *Protesta Social*. Barcelona: Hacer.

McAdam, D. (2003): "Eehh, What's Up (with) DOC?" Clarifying the Program. *Mobilization*, 8(1), 126-134.

McAdam, D. (2004): "Revising the U.S. Civil Rights Movement: Towards a More Synthetic Understanding of the Origins of Contention". J. Goodwin eta J. Jasper (eds.) *Rethinking Social Movements: Structure, Meaning and Emotion*. Lanham/Oxford: Rowman&Littlefield.

McAdam, D. eta Tarrow, S. (2011): "Dynamics Of Contention Ten Years On". *Mobilization: An International Journal*, 16(1), 1-10.

Mc Adam, D.; Tarrow, S.; Tilly, C. (2005): *Dinámica de la contienda política*. Barcelona: Editorial Hacer.

Maquiavelo, N. (1986): *Printzea*. Donostia: Elkar.

Marchart, O. (2008): “La política y la diferencia ontológica. Acerca de lo “estrictamente filosófico” en la obra de Laclau”, *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Marchart, O. (2009): *El pensamiento político posfundacional; la diferencia política en Nancy, Lefort, Badiou y Laclau*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Marchart, O. eta Critchley, S. (2008): *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Melucci, A. (1980): “The New Social Movements: A Theoretical Approach”. *Social Science Information*, 19(2). 199-226.

Melucci, A. (1985): “The Symbolic Challenge of Contemporary Movements”. *Social Research* 54(4), 789-816.

Melucci, A. (1988): “Getting involved: identity and mobilization in social movements”. Klandermans, B., Kriesi, H. eta Tarrow, S.-ek (edit.) *From structure to action: comparing social movement research across cultures*, 1, 329-348.

Melucci, A. (1996): *Challenging Codes*. Cambridge/New York: Cambridge University Press.

Miccichè, A. (2009): *Euskadi socialista. El PSE-PSOE y la Transición en el País Vasco (1976-1980)*. Madrid: Pablo Iglesias.

Moreiras, A. (2001): *The exhaustion of difference. The politics of Latin America cultural studies*. London: Duke University Press.

Moreiras, A. (2015): “Poshegemonía, o más allá del principio del placer”, *Poshegemonía. El final de un paradigma de la filosofía política en América Latina*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Morlino, L. (1985): *Cómo cambian los regímenes políticos*. Madrid: Centro de Estudios Constitucionales.

Mouffe, Ch. (1999): *El retorno de lo político; comunidad, ciudadanía, pluralismo, democracia radical*. Barcelona: Paidós Ibérica.

Mouffe, Ch. (2000): *La paradoja democrática; el peligro del consenso en política contemporánea*. Barcelona: Gedisa.

Mouffe, Ch. (2007): *En torno a lo político*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica de Argentina.

Negri, T. (2015): *Hegemonía: Gramsci, Togliatti, Laclau*. [http://www.academia.edu/12979423/Una crítica contundente de Toni Negri a E. Laclau](http://www.academia.edu/12979423/Una_crítica_contundente_de_Toni_Negri_a_E._Laclau)

Norval, A. (2008): “Las decisiones democráticas y la cuestión de la universalidad. Repensar los enfoques recientes”, *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Norval, A., Stavrakakis, Y., Howarth, D. (2000): *Discourse theory and political analyse: identities, hegemony and social changes*. Manchester: Manchester University Press.

Nozick, R. (1988): *Anarquía, Estado y Utopía*. Mexico: Fondo de Cultura Económica.

Oliver, P. E. (2003): Mechanism of Contention. *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 119-122.

Ollora, J. M. (1996): *Una vía hacia la paz*. Donostia: Erein.

Olson, M. (1992): *La lógica de la acción colectiva. Bienes públicos y la teoría de grupos*. Mexico: Limusa.

Ordozgoiti, K. (2010): *El futuro nos pertenece. Memorias políticas del Lehendakari Ibarretxe*. Irun: Alberdania.

Ovejero, F.; Martí J.L. et al. Gargarella, R. (2004): *Nuevas ideas republicanas; autogobierno y libertad*. Barcelona: Paidós.

Palti, E. J. (2015): “Lo político como problema”, *Poshegemonía. El final de un paradigma de la filosofía política en América Latina*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Panizza, F. (2009): *El populismo como espejo de la democracia*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Polletta, F. (2004): “Culture Is Not Just in Your Head” J. Goodwin et al. J. Jaspers (eds.) *Rethinking Social Movements: Structure, Meaning and Emotions*. Lanham: Rowman&Littlefield.

Pedriana, N. (2005): “Rational Choice, Structural Context, and Increasing Returns: A Strategy for Analytic Narrative in Historical Sociology”. *Sociological Methods and Research*, 33, 349-82.

Pedriana, N. (2006): “From Protective to Equal Treatment: Legal Framing Processes and Transformation of the Women’s Movement in the 1960’s”. *American Journal of Sociology*, 111(6), 1718-1761.

Pérez-Agote, A. (1984): *La reproducción del nacionalismo: el caso vascu*. Madrid. Siglo XXI.

Pérez-Agote, A. (1987): *El nacionalismo vasco a la salida del franquismo*. Madrid. Siglo XXI.

Pettit, P. (1997): *Republicanism: a theory of freedom and government*. Oxford: Oxford University Press.

Phillips, L. et al. Jorgensen, M. (2002): *Discourse Analysis as a theory and method*. London: SAGE Publications.

Portelli, H. (1982): *Gramsci y el bloque histórico*. Mexico: Siglo XXI

Popper, Karl R. (1992): *La sociedad abierta y sus enemigos*. Barcelona: Paidós Ibérica.

Rawls, J. (1971): *A theory of justice*. Cambridge: Mass.

Riera, M. eta Zubiaga, M. (2014): *State-building as collective action: a comparative analysis of mechanism and processes in Catalonia and Basque Country*. revistes.ub.edu/index.php/ACS/article/download/12287/15041 (2017/04/25-n ikusita)

Rihá, R. (2008): “La política como lo real de la filosofía”, *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Rivas, A. (1998): “El análisis de marcos: una metodología para el estudio de los movimientos sociales”, *Los movimientos sociales. Transformaciones políticas y cambio cultural*. Valladolid: Trotta.

Rivera, A. (2015): “De la hegemonía al populismo: Ernesto Laclau, la evolución de un ‘schmittiano antischmittiano’”, *Poshegemonía. El final de un paradigma de la filosofía política en América Latina*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Rutch, D. (2003): “Overcoming the ‘Classical Model’?”. *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 112-116.

Safranski, R. (2001). *Nietzsche: biografía de su pensamiento*. Barcelona: Tusquets.

Sandel, M. (1996): *Democracy's Discontent: America in Search of a Public Philosophy*. Cambridge: Cambridge University Press.

Sandel, M. (2004): “La república procedimental y el yo desvinculado”, *Nuevas ideas republicanas*. Barcelona: Paidós.

Sandel, M. (2008): *Filosofía pública; Ensayos sobre moral en política*. Barcelona: Marbot Ediciones.

Sandel, M. (2011): *Justicia ¿hacemos lo que debemos?* Barcelona: Debate.

Saussure, F. (1987): *Curso de lingüística general*. Madrid. Alianza.

- Schmitt, C. (1990): *Sobre el parlamentarismo*. Madrid: Tecnos
- Schmitt, C. (1991): *El concepto de lo político*. Madrid: Alianza Universidad.
- Schumpeter, J. (1996): *Capitalismo, socialismo y democracia*. Barcelona: Folio.
- Scott, J. C. (2003): *Los dominados y el arte de la resistencia*. Tafalla: Txalaparta.
- Smith, A. (1995): "Gastronomy or geology? The role of the nationalism in reconstruction of nations", *Nations and Nationalism* 1(1), 3-23.
- Snow, D. (2004): "Framing Processes, Ideology and Discursive Fields", *The Blackwell Companion to Social Movements Snow*. Oxford: Blackwell.
- Snow, D. A., Benford, R. D., Burke Rochford, Jr. E. eta Worden, S. (1986): "Frame Alignment Processes, Micromobilization, and Movement Participation". *American Sociological Review*, 51(4), 464-481.
- Snow, D. A.; Benford, R. D.; McCommon, H.; Hewitt, L. eta Fitzgerald, S. (2014): "The Emergence, Development, and Future of the Framing Perspective: 25+ Years Since 'Frame Alignment'". *Mobilization: An International Quarterly*, 19(1), 23-45.
- Snow, D. A. eta Benford, R. D. (1988): "Ideology, frame resonance and participant mobilization", Klandermans, B., Kriesi, H. eta Tarrow, S. (edit.)-ek *From structure to action: comparing social movement research across cultures*, 1, 197-218.
- Snow, D. A. eta Benford, R. D. (1992): "Master frames and cycles of protest", Morris, A. eta Mueller, C. (edit.) *Frontiers in Social Movement Theory*. New Haven: Yale University Press. 133-155.
- Snow, D. A. eta Benford, R. D. (2000): "Framing Process and Social Movements: An Overview and Assessment", *Annual Review of Sociology*, 26, 611-639.

Skinner, Q. (1986): *Los fundamentos del pensamiento político moderno*, II. Tomoa. Mexico: Fondo de Cultura Económica.

Skinner, Q. (1998): *Liberty Before Liberalism*. Cambridge: Cambridge University Press.

Skinner, Q. (2003): *El nacimiento del Estado*. Buenos Aires: Gorla.

Skinner, Q. (2004): “Las paradojas de la libertad política”, *Nuevas ideas republicanas; autogobierno y libertad*. Barcelona: Paidós.

Sorel, G. (1978): *Reflexiones sobre la violencia*. Buenos Aires: La Pléyade.

Sloterdijk, P. (2010): *Ira y tiempo*. Madrid: Ediciones Siruela.

Sloterdijk, P. (2014): *Fiscalidad voluntaria y responsabilidad ciudadana*. Madrid: Ediciones Siruela.

Stavrakakis, Y. (2007): *Lacan y lo político*. Buenos Aires: Prometeo.

Stavrakakis, Y. (2009): “Religión y populismo en la Grecia contemporánea”, *El populismo como espejo de la democracia*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Steinberg, M. (1999): “The Talk and Back Talk of Collective Action: A Dialogic Analysis of Repertoires of Discourse among Nineteenth Century Cotton Spinners”. *American Journal of Sociology*, 105, 736-780.

Steinberg, M. (2002): “El clamor de la multitud: repertorios de discurso y acción colectiva entre los tejedores de seda de Spitalfields en el Londres del siglo XIX”, *Protesta Social*. Barcelona: Hacer.

Sumic, J. (2008): “El anacronismo de la emancipación o la fidelidad de la política”, *Laclau, Aproximaciones críticas a su obra*. Buenos Aires: Fondo de Cultura Económica.

Sunstein, C. (2004): “Mas allá del resurgimiento republicano”, *Nuevas Ideas Republicanas, autogobierno y libertad*. Barcelona: Paidós.

Taine, H. A. (1986): *Los orígenes de la Francia contemporánea*. Barcelona: Orbis.

Tarizzo, D. (2015): “Democratizar la democracia: de la hegemonía a la poshegemonía”, *Poshegemonía. El final de un paradigma de la filosofía política en América Latina*. Madrid: Biblioteca Nueva.

Taylor, Ch. (2006): *Imaginario Sociales Modernos*. Barcelona: Paidós.

Taylor, V. (2003): “Plus ça change, plus c'est la même chose”. *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 122-126.

Tarrow, S. (1997): *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*. Madrid: Alianza.

Tarrow, S. (1998): “Social Protest and Policy Reform: May 68 and the *Loi d’Orientation* in France”, *From Contention to Democracy*. Oxford: Rowman & Littlefield.

Tarrow, S. (2002): “Ciclos de acción colectiva: entre los momentos de locura y el repertorio de contestación”, *Protesta Social*. Barcelona: Hacer.

Tarrow, S. (2003): “Confessions of a Recovering Structuralist”. *Mobilization: An International Journal*, 8(1), 134-141.

Tilly, Ch. (1995): *Las revoluciones europeas, 1492-1992*. Barcelona: Crítica.

Tilly, Ch. (2003): “Contention Over Space and Place”. *Mobilization: An International Journal*, 8(2), 221-225.

Tilly, Ch. (2004): *Social Movements, 1768-2004*. Colorado: Paradigm Publishers.

(2007a): *Contienda política y democracia en Europa, 1650-2000*. Barcelona: Editorial Hacer

- Tilly, Ch. (2007b): *Violencia colectiva*. Barcelona: Editorial Hacer.
- Tilly, Ch. (2010a): *Democracia*. Madrid: Akal.
- Tilly, Ch. (2010b): *Confianza y gobierno*. Madrid: Amorrortu.
- Tilly, Ch. eta Tarrow, S. (2006): *Contentious Politics*. Boulder, Co: Paradigm Publishers.
- Torfinn, J. (1999): *New theories of discourse; Laclau, Mouffe and Zizek*. Oxford: Blackwell Publishers
- Traugott, M. (2002): *Protesta social*. Barcelona: Hacer.
- Van Dijk, T. A. (2003): *Ideología y discurso*. Barcelona: Ariel.
- Vasi, I. B. (2011): "Brokerage, miscibility and the spread of contention". *Mobilization: An International Journal*, 16(1), 11-24.
- Von Beyme, K. (1994): *Teoría política del siglo XX; de la modernidad a la posmodernidad*. Madrid: Alianza Universidad.
- Warren, M. (1999): *Democracy and trust*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Williams, G. (2002): *The other side of the popular: Neoliberalism and subalternity in Latin America*. London: Durk University Press.
- Wilson, J. (1973): *Introduction to Social Movements*. New York: Basic Books.
- Zallo, R. (1997): *Euskadi o la Segunda Transición. Nación, cultura, ideologías y paz en un cambio de época*. Donostia: Erein.
- Zallo, R. (2011): *El país de los vascos: desde los sucesos de Ermua hasta el segundo gobierno de Ibarretxe*. Madrid: Fundamentos.

Zizek, S. (1993): *Tarring with the negative*. Durham: Durk University Press.

Zizek, S.(2003): *El sublime objeto de la ideología*. Buenos Aires: Siglo XXI.

Zizek, S. (2007): *En defensa de la intolerancia*. Madrid: Sequitur.

Zizek, S. (2010): *Lenin reactivado; hacia una política de la verdad*. Madrid: Akal.

Zizek, S. (2014): *Acontecimiento*. Madrid: Sexto Piso.

Zolberg, A. (1972): “Moments of madness”. *Politics and Society*, 2(1), 183-207.

Zubiaga, M. (1999): “La Autodeterminación como cambio político”, *Un Nuevo Escenario. Democracia, cultura y cohesión social en Euskal Herria*. Bilbo: Manu Robles-Arangiz Institutoa.

Zubiaga, M. (2008): *Boteretik eraginera: mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta Urbina-Maltzagako liskarretan*. Doktoretza Tesia, Politika Zientzietako Departamentua, UPV-EHU. UEU eta Eusko Jaurlaritzza.

Zubiaga, M. (2012): “Poder como hegemonía: contingencia y articulación”. *Política Integral*. Iruñea: Pamiela.

Zubiaga, M. (2013): *Democratization and contentious politics: basque state-building as collective action*.

https://www.academia.edu/5180845/Democratization_and_contentious_politics_basque_statebuilding_as_collective_action